BIBLIA (II)

Jose Antonio Uriarte

Iturria: *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak*, (Rosa Miren Pagola eta taldearen edizioa).
CD-ROMa, Bilduma osoaren edizio digitala.
Deustuko Ubibertsitatea / Eusko Jaurlaritza, 2004.

Klasikoen Gordailuan:
http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/U/UriarteBibliaII.htm

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira,
eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak
bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

ESDRASEN LENBIZIKO LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Ziro Persiako erregearen lenbiziko urtean, Jaunak Jeremiasen bitartez emandako itza kunplitu zedin, mugitu zuen Jaunak Ziro Persiako erregearen gogoa, zeñak zabaldu zuen bere erreñu guztitik itzez, baita eskribuz ere, aginte au:

2. Oiek esaten ditu Siro Persiako erregeak: Zeruko Jaun Jainkoak eman dizkit lurreko erreñu guztiak, eta berak agindu dit, egin dizaiodala etxe bat Jerusalenen, zeñ dagoan Judean.

3. Zuetatik zeñ da bere erriari dagokiona? Bere Jaungoikoa izan bedi berarekin. Jerusalen Judeako errira joan bedi, eta Israelko Jaun Jainkoaren etxea egin beza, bera da Jerusalenen dagoan Jaungoikoa.

4. Eta gelditzen diran gañerako guztiak, bizi diran edozeñ tokitan, lagundu bizaiote arkitzen diran lekutik zillarrarekin, eta urrearekin, eta beste gauzakin, eta abereakin, borondatez eskeñtzen dutenez gañera, Jerusalenen dagoan Jaungoikoaren elizarentzat.

5. Onenbesterekin jarri ziran bidean Juda, eta Benjamingo familien prinzipeak, eta apaizak, eta lebitak, eta Jaungoikoak, Jerusalenen dagoan Jaunaren etxea berriz egitera joateko, biotza mugitu zien guztiak.

6. Eta inguruan bizi ziran guztiak lagundu zieten, jartzen zituztela beren eskuetan zillarrezko, eta urrezko ontziak atzienda, zamariak, eta balio andiko gauzak, borondatez eskeñi zutenez gañera.

7. Ziro erregeak berak ateraerazi zituen, Nabukodonosorrek Jerusalendik ekarri zituen, eta bere Jaungoikoaren elizan jarri zituen, Jaunaren elizako ontziak.

8. Siro Persiako erregeak, bada, ateraerazi zituen Mithridates Gazabarren semearen eskuz; eta kontuz eta moduz Sassabasar Judako Prinzipeari eman ziozkan.

9. Eta ona emen zenbat izan ziran: Ogei kopa urrezko, milla kopa zillarrezko, ogeita bederatzi ganibita, ogeita amar urrezko kopa.

10. Lareun eta amar bigarren anditasuneko zillarrezko kopa, eta beste ontzi batzuek, milla.

11. Urrezko eta zillarrezko ontzi guztiak ziran bost milla eta lareun. Oiek guztiak eraman zituen Sassabasarrek, itzuli ziranean Jerusalenera, Babiloniara katibu eramanak izan ziranak.

BIGARREN KAPITULUA

1. Oiek dira Judeako probinziako seme, izanik Nabukodonosor Babiloniako erregeak Babiloniara katibu eramanak, bidean jarri ziranak, eta Jerusalenera eta Judara, bakoitza bere errira, itzuli ziranak.

2. Zorobabelekin etorri ziranak, izan ziran Josue, Nehemias, Saraias, Bahelais, Mardokai, Belsan, Mesfar, Beguai, Rehum, eta Baana. Ona emen zenbat izan ziran Israelko erriko gizasemeak:

3. Farosen semeak, bi milla eun eta irurogeita amabi.

4. Sefatiaren semeak, irureun eta irurogeita amabi.

5. Arkaren semeak, zapireun eta irurogeita amabost.

6. Fahath Moaben seme, Josueren jatorrikoak, Joabenak, bi milla zortzireun, eta amabi.

7. Elamen semeak, milla berreun, eta berrogeita amalau.

8. Sethuaren semeak, bederatzireun, eta berrogeita bost.

9. Zakairen semeak, zazpireun, eta irurogei.

10. Baniren semeak, seireun, eta berrogeita bi.

11. Bebairen semeak, seireun, eta ogeita iru.

12. Azgaden semeak, milla eta berreun, eta ogeita bi.

13. Adonikamen semeak, seireun, eta irurogeita sei.

14. Beguairen semeak, bi milla, eta berrogeita amasei.

15. Adinen semeak, lareun eta berrogeita amalau.

16. Atherren seme, Ezekiasenak ziranak, larogeita emezortzi.

17. Besairen semeak, irureun eta ogeita iru.

18. Joraren semeak, eun eta amabi.

19. Hasumen semeak, berreun eta ogeita iru.

20. Jebbarren semeak, larogeita amabost.

21. Bethlehemen semeak, eun eta ogeita iru.

22. Netufako gizasemeak, berrogeita amasei.

23. Anathothko gizasemeak, eun eta ogeita zortzi.

24. Azmabethen semeak, berrogeita bi.

25. Kariathiarimen, Zefirarem, eta Berothen semeak, zazpireun eta berrogeita iru.

26. Ramaren eta Gabaaren semeak, zazpireun eta ogeita bat.

27. Makmasen gizasemeak, eun eta ogeita bi.

28. Bethel eta Hairen gizasemeak, berreun eta ogeita iru.

29. Neboren semeak, berrogeita amabi.

30. Megbisen semeak, eun eta berrogeita amasei.

31. Beste Elamen semeak, milla, berreun eta berrogeita amalau.

32. Harimen semeak, irureun, eta ogei.

33. Loden, Hadiden, eta Onoren semeak, zazpireun eta ogeita bost.

34. Jerikoren semeak, irureun eta berrogeita bost.

35. Senaaren semeak, iru milla, seireun eta ogeita amar.

36. Apaizak: Jadaiaren semeak, Josueren etxean, bederatzireun eta irurogeita amairu.

37. Emmerren semeak, milla eta berrogeita amabi.

38. Feshurren semeak, milla berreun eta berrogeita zazpi.

39. Harimen semeak, milla eta amazazpi.

40. Lebitak: Josueren, eta Zedmielen semeak, Odoniaren semeetatikoak, irurogeita amalau.

41. Kantariak: Asafen semeak, eun eta ogeita zortzi.

42. Atezaien semeak: Selumen semeak, Atherren semeak, Telmonen semeak, Akuben semeak, Hatitaren semeak, Sobairen semeak, guztitan eun eta ogeita emeretzi.

43. Nathintarrak: Siharen semeak, Hasufaren semeak, Tabbaothen semeak,

44. Zerosen semeak, Siaaren semeak, Fadonen semeak,

45. Lebanaren semeak, Hagabaren semeak, Akuben semeak,

46. Hagaben semeak, Semlairen semeak, Hananen semeak,

47. Gaddelen semeak, Gaherren semeak, Raaiaren semeak,

48. Rasinen semeak, Nekodaren semeak, Gazamen semeak,

49. Azaren semeak, Fasearen semeak, Beseeren semeak,

50. Asenaren semeak, Munimen semeak, Nefusimen semeak,

51. Bakbuken semeak, Hakufaren semeak, Harhurren semeak,

52. Besluthen semeak, Mahidaren semeak, Harsaren semeak.

53. Berkosen semeak, Sisararen semeak, Themaren semeak.

54. Nasiaren semeak, Hathifiaren semeak,

55. Salomonen serbitzarien semeak, Sothairen semeak, Soferethen semeak, Farudaren semeak,

56. Jalaren semeak, Derkonen semeak, Jeddelen semeak,

57. Safatiasen semeak, Hatilen semeak, Fozerethen semeak, zeñak ziran Asebaimkoak, Amiren semeak.

58. Nathintar guztiak, eta Salomonen serbitzarien semeak, irureun eta larogeita amabi.

59. Eta oiek dira Thelmalatik atera ziranak, Thelharsa, Kerub, eta Adon, eta Emer, eta ezin izan zuten siñalatu beren gurasoen etxea, ez beren jatorria, Israelkoak ote ziran.

60. Dalaiaren semeak, Tobiaren semeak, Nekodaren semeak, seireun eta berrogeita amabi.

61. Eta apaizen semeetatikoak: Hobiaren semeak, Akosen semeak, Berzelairen semeak, zeñak artu zuen emaztea Berzelai Galaadtarraren alabaetatik, eta beren izena artu zuen.

62. Oiek billatu zuten beren jatorriko agiria; baña etzuten arkitu, eta alan apaiztzatik botatuak izan ziran.

63. Eta Athersatak esan zien, etzitzatela jan santuen santuko ofrendak, alik eta apaiz jakintsu, eta txit on bat agertu zedin artean.

64. Jende talde guzti au, bat bakarra bezela, izan ziran berrogeita bi milla, irureun, eta irurogei,

65. Kontatu gabe oien mendeko gizaseme eta emakumeak, zeñak ziran zazpi milla irureun eta ogeita amazazpi, eta beren artean berreun kantari gizaseme eta emakume.

66. Beren zaldiak zazpireun eta ogeita amasei, beren mandoak berreun eta berrogeita bost,

67. Beren gameluak lareun eta ogeita amabost, beren astoak milla zazpireun eta ogei.

68. Eta familietako prinzipe batzuek, Jerusalenen dagoan Jaunaren tenploan sartu ziranean, egin ziozkaten opariak Jaunaren etxeari, bere tokian berriz egiteko.

69. Eta eman zituzten, bakoitzak al zuenaren araura fabrikako gastuetarako, irurogeita bat milla sueldo urrezko, bost milla mina zillarrezko, eta eun soñeko apaizentzat.

70. Apaizak bada, eta Lebitak, eta errikoak, eta kantariak, eta atezaiak, eta Nathintarrak gelditu ziran egotez beren errietan, eta itzuli ziran Israeltar guztiak, joan ziran bakoitza bere errira.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta allegaturik zazpigarren illa, Israelko seme, beren etxeetan zeudenak, bildu ziran guztiak, gizon bat bakarra balirade bezela, Jerusalenen.

2. Non Josue apaiz nagusia, bere anaia apaizakin, eta Zorobabel Salathielen semea, beren anaiakin, asi ziran egiten Israelko Jaungoikoaren aldarea, berean holokaustoak eskeñtzeko, Moises Jaungoikoaren gizonaren legean eskribatua dagoan bezela.

3. Jarri zuten bada Jaungoikoaren aldarea bere ondapeen gañean, beren inguru eta aldean bizi ziran errietakoak beldurra sartzen bazieten ere, eta aldare onen gañean eskeñi zioten Jaunari holokaustoa goiz, eta arratsalde.

4. Zelebratu ere zuten Tabernakuloen jai andia, eskribatua dagoan bezela, eta eskeñi zuten eguneroko holokaustoa, egun guztietan egiteko agindua dagoan bezela;

5. Eta gañera betiko holokaustoa, ala kalendetan, nola jai andi guztietan, eta ofrendaren bat Jaunari borondatez eskeñtzen zizaion guztian.

6. Zazpigarren illaren lenbiziko egunetik asi ziran holokaustoak Jaunari eskeñtzen, Jaunaren elizako zimenduak oraindikan jarri gabetanik bazeuden ere.

7. Eta dirua eman zieten argiñai eta iyelsariai, eta berebat jaten, eta edaten, eta olioa Sidontarrai, eta Tiroarrai eraman zitzaten zedrozko zurak Libanotik Joppeko itsasoraño, Siro Persiako erregeak agindu zuen bezela.

8. Berak Jaungoikoaren elizara Jerusalenen allegatu ezkero bigarren urtean, bigarren illean, ekin zioten lanari Zorobabel Salatielen semeak, eta Josue Josedeken semeak, beste beren anaia apaiz eta Lebita, Jerusalenera katiberiotik etorriakin, eta jarri zituzten ogei urtez gorako lebitak, Jaunaren lana arin egiña izan zedin.

9. Josue bada, eta bere semeak, eta anaiak, eta Zedmihel bere semeakin, eta Judaren semeak, gizon bat bakarra balirade bezela, zeuden arineraztzen Jaunaren eliza egiten ari ziradenai; eta orobat egiten zuten Henadaden semeak, eta oien semeak eta beren anaia lebitak.

10. Iyelsariak bada jarri ziozkatenean zimenduak Jaunaren elizari, etorri ziran apaizak beren soñekoakin jantziak, tronpetakin; eta Asafen seme lebitak zinbaloakin, Jaungoikoaren alabanzak kantatzera, Dabid Israelko erregearen salmoakin.

11. Eta kantatzen zituzten himnoak, eta ematen ziozkaten alabantzak Jaunari, bein eta berriz esaten zutela: Nola ona dan, eta nola bere urrikaria Israelentzat betikoa dan. Eta denbora berean erri guztiak egiten zituen deadar andiak Jauna alabatzen zuela, Jaunaren etxeko zimenduak jarriak ziralako.

12. Eta apaizetatik, eta lebitetatik, eta familien buruetatik, eta zarretatik, lenbiziko eliza ikusi zutenetatik txit askok, beren begien aurrean jarriak izan ziranean zimenduak eliza onetarako, negar andiak egiten zituzten, eta askok altxatzen zituzten bozak, pozez deadar egiten zutela.

13. Eta iñork ezin zezakean jakin, zeñ ziran pozezko deadarrak, eta erriaren negarrezko lantuak; zeren erriak nahasian egiten zituen deadar andiak, eta boza urrutitik aditzen zan.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta Judaren eta Benjaminen etsaiak aditu zuten, katiberiotik itzuli ziran oiek, egiten ziotela eliza Israelko Jaun Jainkoari.

2. Eta joanik Zorobabelgana, eta familietako prinzipeakgana, esan zieten: Zuekin batean egingo degu guk ere eliza, zeren zuek bezela guk zuen Jaungoikoa billatzen degu. Ikusi ezazute nola guk eskeñi ditugun doañak, Asor Haddan Asiriako erregeak onara bialdu ginduen denboratik.

3. Eta Zorobabel eta Josue, eta Israelko familietako beste prinzipeak esan zieten: Ezin bildu gatzazkizute gure Jaun Jainkoaren etxea egiteko, baizik guk bakarrik egingo diogu eliza gure Jaun Jainkoari, Ziro Persiako erregeak aginduta digun bezela.

4. Emendik etorri zan, erri artako jendeak pakean ez utzitzea Israelko erriko langilleai, eta galerazitzea eliza egitea.

5. Eta diruaz irabazi zituzten erregearen konsejariak beren kontra, zeñak utsean idukierazi zien beren asmoa, Ziro Persiako erregearen denbora guztian, eta Dario Persiako erregearen erregetzaraño.

6. Eta Asuero erreñatzen asi zanean, bere erregetzaren asieran, eskribatu zuten salaketa bat Judan eta Jerusalenen bizi ziranen kontra.

7. Eta Artajerjesen erregetzan, Beselam Mithridates, eta Thabeel eta gañerako beren lagunak bialdu zioten Artajerjes Persiako erregeari, salaketaz betetako txartel bat, Siriako izkuntzan eskribatua, eta Siriako letretan.

8. Reum Beelteem, eta Samsai sekretarioak eskribatu zioten txartel bat Artajerjes erregeari, onela esaten zuena:

9. Reum Beelteemek, eta Samsai Sekretarioak, eta beste bere konsejariak, Dinearrak, Afarsatakearrak, Terfalearrak, Afarsearrak, Herkuearrak, Babiloniarrak, Susanekearrak, Dieboarrak, eta Elamiarrak,

10. Eta gañerako erreñuetako beste, Asenafar andi eta doatsuak aldatu zituen erreñuetakoak, eta ekarri zituenak pakean bizitera Samariako errietan, eta ibaiaren andiko aldeko beste probinzietakoak,

11. (Au da bialdu zioten txartelaren kopia) Artajerjes erregeari, zure serbitzariak, ibaiaren beste aldean dauden gizonak, agur egiten dizute.

12. Jakin ezazu, o erregea, ortik onontz etorri ziran Juduak allegatu dirala Jerusalen, erri matxinari eta txit gaiztora; zeña dauden berriz egiten, eta bere murruak jasotzen, eta pareteak berriztatzen.

13. Begira ezazu bada, o erregea, erri au berriz egiten bada, eta bere murruak sendotzen badirade, ez dutela pagatuko kotizik, ez alkabalarik, ez urteoroko errentarik, eta kalte au erregeetaraño allegatuko dala.

14. Eta oroiturik gu, jauregian jan genduen gatzarekin, eta sinistzen degulako gaiztakeria bat dala, egotea gu erregearen kalteai begira, argatik gatoz erregeari gaztigua ematera,

15. Zuk ezagutuerazi ditzatzun zure gurasoen berrietako liburuak, eta beren oroipengarrietan arkituko dezu eskribatua, eta jakingo dezu, erri hura dala erri matxinari bat, eta erregeentzat eta probinzientzat kaltegarria, eta nola anziñatik an asmatzen diran gerrak. Argatik erria bera ere izan zala desegiña.

16. Erregeari guk jakinerazitzen diogu, erri hura berriz egiña baldin bada, eta bere murruak sendotuak, etzera izango ezeren jabe ibaiaren beste aldean.

17. Erantzun zien erregeak Reum Beelteemi, eta Samsai sekretarioari, eta Samarian bizi ziran beste, beren batzarrekoak ziranai, eta erriaren beste aldeko gañerakoai, diosal egin ezkero:

18. Bialdu didazuten salaketa, izan da nere aurrean itzez itz irakurria.

19. Bereala agindu det ikusteko urteoroko berriak, eta arkitu da, erri ori antxiñatik dala matxiñaria erregeen kontra, eta bertan asmatzen dirala naasierak eta gerrak,

20. Zeren Jerusalenen izan ziran errege txit bulardetsu, ibaiaren beste aldean dagoan lur guztiaren jabe izan ziranak, baitaere kobratzen zituzten kotizak, alkabalak, eta errentak.

21. Orain bada aditu ezazute erabakia, galerazi zaiezute gizon aiei, erri ori berriz egitea, alik eta, bear bada, nik beste gauza bat agindu dezadan bitartean.

22. Begira etzaitezela izan ajola gabeak au kunplitzean, gaitza geldika geldika geituaz joan ez dedin, erregeen kontra.

23. Onenbesterekin irakurria izan zan Artajerjes erregearen aginduaren kopia, Reum Beelteemen, eta Samsai sekretarioaren, eta beren batzarrekoen aurrean, eta arin irago ziran Jerusalenera Juduakgana, eta armadunakin geldituerazi zieten.

24. Gelditu ziran bada orduan Jerusalenen Jaunaren etxea egiteko lanak, eta etziran berriz asi, Dario Persiako erregearen erregetzako bigarren urteraño.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Denbora onetan profetizatu zuten Agjeo profetak, eta Zakarias Addoren semeak, predikatzen zietela Judean eta Jerusalenen zeuden Juduai, Israelko Jaungoikoaren izenean.

2. Orduan Zorobabel Salatielen semea, eta Josue Josedeken semea, asi ziran jarraitzen, egiteari Jerusalenen Jaungoikoaren eliza, eta berakin Jaungoikoaren profetak, zeñak laguntzen zieten.

3. Eta denbora artan beratan etorri zan berakgana Thathanai, zeñ zan ibaiaren beste aldeko erentzallea, eta Stharbuzanai, eta beren konsejariak, eta onela itz egin zieten: Zeñak konsejatu zaituzte etxe au egiteko, eta parete oiek sendotzeko?

4. Zeñatara erantzun giñien, izendatzen ginduela eliza hura asi zuten gizonen izenak.

5. Baña Juduen zarrai, urririz begiratu zien beren Jaungoikoaren begiak, eta ala ezin izan zieten galerazi. Eta atzenean erabaki zuten, adirazi zizaiola Dariori, eta orduan erantzun zizaiotela salaketa ari.

6. Thathanai ibaiaren beste aldeko erriko gobernariak, Stharbuzanairekin batean, eta Arfasekear beste konsejari, ibaiaren andiko aldean bizi ziranak, Dario erregeari eskribatu zioten txartelaren kopia.

7. Bidaldu zioten txartelak, onela esaten zuen: Dario erregeari osasuna, eta zorion mota guztia.

8. Jakin ezazu, o erregea, gu joan gerala Judeako probinziara, Jaungoiko andiaren etxe, arri landu gabeakin egiten danera, eta zurak jartzen dira paretetan, eta lana egiñaz dijoa ardura andiarekin, eta aziaz dijoa beren eskuetan.

9. Galdetu diegu bada zar aiei, eta esan diegu: Nork eman dizute eskubidea etxe au egiteko, eta bere murruak berriztatzeko?

10. Berebat galdetu diegu beren izenakgatik, zuri adirazteko; eta artu ditugu eskribuz, beren artean nagusienak diradenen gizon aien izenak.

11. Eman diguten erantzuera, au izan da: Gu gera zeruko eta lurreko Jaungoikoaren serbitzariak, eta berriz egiten degu eliza bat, urte asko lenagotik egiña izan zana, eta Israelko errege andi batek egin eta jaso zuena.

12. Baña gure gurasoak aserretuerazi ziotenean zeruko Jaungoikoari, jarri zituen Nabukodonosor Kaldeatar, Babiloniako erregearen eskuetan, zeñak desegin ere zuen etxe au, eta bertako jendea Babiloniara eraman zuen.

13. Baña Ziro Babiloniako erregearen lenbiziko urtean, Ziro erregeak agindu zuen Jaungoikoaren etxe au berriz egiteko.

14. Zeren Ziro erregeak ere atera zituen Babiloniako tenplotik, Jaungoikoaren elizako urrezko eta zillarrezko ontzi, Nabukodonosorrek Jerusalengo elizatik arrapatu, eta Babiloniako tenplora eraman zituenak, eta emanak izan zitzazkion, Sassabasar deritzan bati, zeñ gañera jarri zuen prinzipetzat,

15. Eta esan zion: Ontzi oiek artu itzatzu, eta zoaz, eta jarri itzatzu Jerusalenen dagoan elizan, eta egin bedi Jaungoikoaren etxea bere tokian.

16. Orduan bada, Sassabasar hura etorri zan, eta jarri zituen Jaungoikoaren elizako zimenduak Jerusalenen, eta denbora artatik orain artean egiñaz dijoa, eta oraindikan ez da bukatu.

17. Orain bada, erregeari ongi baderitza, billatuerazi beza, Babilonian dagoan errege gordelekuan, egia ote dan Ziro erregeak agindu zuela, berriz egiteko Jerusalenen Jaungoikoaren etxea, eta erregeak adirazi begigu onen gañean bere borondatea.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Orduan Siro erregeak agindu zuen, eta aztertu ziran Babiloniako artxiboetan gordeta zeuden liburuak.

2. Eta arkitu zan Ekbatanan, zeñ dan Mediako probinziako gaztelu bat, liburu bat, zeñean zegoan eskribatua urrengo oroipena:

3. Ziro erregearen lenbiziko urtean Ziro erregeak erabaki du, berriz egin dedilla Jaungoikoaren etxea bere tokian Jerusalenen, eskeñi ditezen an doañak; eta jarri ditezela irurogei beso alturari, eta beste anbeste zabalerari dagozkion zimenduak,

4. Iru errenkada arri landugabeko, eta zur berrizko beste errenkada batzuek, eta gastuetarako eman dedilla erregearen etxetik.

5. Eta gañera itzuli bizazkiotee Jaungoikoaren elizako, urrezko eta zillarrezko ontzi, Nabukodonosorrek Jerusalengo elizatik atera, eta Babiloniara eraman zituenak, eta itzuli bediz Jerusalenera beren tokira, Jaungoikoaren elizan jarriak zeuden bezela.

6. Orain bada zuk Thathanai, ibaiaren beste aldeko lurreko gobernaria, eta zuk Stharbuzanai, zuen konsejari Afarsakeear, ibaiaren beste aldean zaudetenak, alde egin ezazute berakgandik urrutira,

7. Eta utzi ezazute, eliza hura Juduen gidariak, eta beren Zarrak egiña izan dedilla, egin dezaten Jaungoikoaren etxe hura bere tokian.

8. Agindu ere det nik, zer egin bear dan Juduen Zar aiekin, Jaungoikoaren etxea egin dedin, au da, Erregearen dirutokitik, esan nai det, ibaia-

ren beste aldeko lurrekoak pagatzen dituzten kotizetatik, pagatu dizaiezteela luzapenaren piskarik ere galdu gabe gastuak, gelditu ez dedin obra.

9. Eta bear balitza, eman bizaiezteela egun bakoitzean txalak, eta arkumeak, eta antxumeak, zeruko Jaungoikoaren holokaustorako, garia, gatza, ardoa, eta olioa, Jerusalenen dauden apaizen elizlegeen araura, esparen txikienik ere izan ez dedin,

10. Eta egin bizazkiotela ofrendak zeruko Jaungoikoari, eta erregearen , eta bere semeen biziagatik erregutu dezatela.

11. Nik erabakia bada izan da, baldin iñork kontra egingo balio agindu oni, artu dedilla bere etxetik zur bat, eta zutik jarri dedilla lurrean, eta berean iltzatua izan dedilla gizon hura, eta bere etxea konfiskatua gelditu dedilla.

12. Desegin ditzala arako Jaungoiko, bere izen santua an jarri zuenak, erreñu eta erri, eskua luzatzen duten guztiak kontra egiteko, edo beera botatzeko, Jerusalenen dagoan Jaungoikoaren etxe hura. Nik Dariok eman det erabaki au, eta nai det osotoro kunplitua izan dedilla.

13. Thathanai, ibaiaren beste aldeko lurreko gobernariak bada, eta Stharbuzanaik, eta beren konsejariak, osotoro egin zuten, Dario erregeak agindu ziena.

14. Eta Juduetatiko zarrak aurrera zeramaten eliza egitea, eta guztiak ongi irtetzen zien, Agjeo profetaren, eta Zakarias Addoren semearen profeziaren araura. Eta egin eta altxatu zuten eliza, Israelko Jaungoikoaren aginduz, eta Ziro, eta Dario, eta Artajerjes Persiako erregeen aginduz.

15. Eta bukatu zuten Jaungoikoaren etxe onen lana, Adar illaren irugarren egunean, Dario erregearen erregetzaren seigarren urtean.

16. Orduan Israelko semeak, eta apaizak, eta lebitak, eta katiberiotik itzuli ziran guztiak, pozez zelebratu zuten Jaungoikoaren etxearen dedikazioa.

17. Eta Jaungoikoaren etxearen dedikaziorako eskeñi zituzten eun txal, berreun ari, lareun arkume, eta amabi antxume, Israel guztiko bekatuak gatik, Israelko tribuen zenbataren araura.

18. Eta apaizak izan ziran berezituak beren errenkadetan, eta lebitak beren txandetan, Jaungoikoaren elizkizunetan serbitzeko Jerusalenen, Moisesen legean eskribatua dagoan bezela.

19. Berebat Israelko seme, beren katiberiotik etorriak, zelebratu zuten Paskoa lenbiziko illaren amalaugarren egunean.

20. Zeren apaizak, eta lebitak garbitu ziran bat bakarra izan balirade bezela, guztiak garbiak eskeñi zuten Paskoa katiberioko seme guztiakgatik, eta beren anaia apaizakgatik, eta berakgatik.

21. Eta jan zuten, katiberiotik itzulitako Israelko semeak, eta berezitu ziran guztiak erri artako jendeen zikinkerietatik, eta berakin bildu ziradenak, Israelko Jaun Jainkoa billatzeko.

22. Eta pozez zelebratu zuten zazpi egunean legamigabeen jai andia, Jaunak gozatu zituelako, eta mudatu zuelako beren alde Asiriako erregearen biotza, lagundu zitzaien, eta bukatu Israelko Jaun Jainkoaren etxeko lantegia.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta gauza oien ondoren, Artajerjes Persiako erregearen erregetzan, Esdras Saraiasen semea, Azariasen semea, Helziasen semea,

2. Selumen semea, Sadoken semea, Akitoben semea,

3. Amariasen semea, Azariasen semea, Maraiothen semea,

4. Zarahiasen semea, Oziren semea, Bokziren semea,

5. Abisueren semea, Fineesen semea, Eleazarren semea, Aaron, lenbiziko apaiza izan zanaren semea.

6. Esdras au bada etorri zan Babiloniatik, zeñ zan gizon txit jakintsu bat, Israelko Jaun Jainkoak Moisesi eman zion legean; eta erregeak eman zion eskatu zion guztia, zeren bere Jaun Jainkoaren eskuak laguntzen zion.

7. Eta berarekin etorri ziran Jerusalenera Israelko semeetatik, eta apaizen semeetatik, eta lebiten semeetatik, eta kantarietatik, eta atezaietatik, eta Nathintarretatik batzuek, Artajerjesen erregetzaren zazpigarren urtean;

8. Eta Jerusalenera allegatu ziran bosgarren illean, au da, erregearen zazpigarren urtean.

9. Zeren lenbiziko illaren lenbiziko egunean atera zan Babiloniatik, eta bosgarren illaren lenbiziko egunean, bere Jaungoikoaren esku ongigilleak lagunduta, Jerusalenera allegatu zan.

10. Zeren Esdrasek gertutu zuen bere biotza Jaunaren legea txit ongi aztertzeko, eta berak kunplitu, eta Israeli bere aginte eta erabakiak erakusteko.

11. Eta au da Artajerjes erregeak Esdras apaiz, Jaunaren itz eta aginduetan, eta Israeli berak emanak izan zitzaiozkan zeremonietan gizon txit adituari, txartel batean eman zion erabakiaren kopia.

12. Artajerjes erregeen erregeak Esdras apaiz, zeruko Jaungoikoaren legean txit adituari, osasuna.

13. Nik erabakia izan da, Israelko erriko, eta bere apaizetatiko, eta lebitetatiko, nere erreñuko edozeñek, nai balu Jerusalenera joan, zurekin dijoala.

14. Zu zeran ezkero erregeak, eta bere zazpi konsejariak bialdua, Judea eta Jerusalen bisitatzera, zure Jaungoikoaren legearen araura, zeñean ain aditua zeran,

15. Eta eramatera, erregeak eta bere konsejariak borondatez eskeñi dioten zillarra, eta urrea Israelko Jaungoikoari, zeñaen tabernakuloa dagoan Jerusalenen.

16. Gañera Babiloniako probinzia guztian erriak borondatez egiten dituan eskeñtzetatik biltzen dezun zillar, eta urre guztia, eta apaizak berenez eskeñtzen dutena beren Jaungoikoaren etxe, Jerusalenen dagoanarentzat,

17. Daukazu zure aukera osoan, eta ala artu ezazu, eta iduki ezazu ardura, erosteko diru onekin txalak, ariak, arkumeak, eta doañak beren libazioakin, eta eskeñi itzatzu gauza oiek, Jerusalenen dagoan zuen Jaungoikoaren elizako aldarearen gañean.

18. Eta zuri eta zure anaiai ongi iritziko balitzatzute egitea beste gauzaren bat sobratzen dan zillar eta urrearekin, egin ezazute zuen Jaungoikoaren borondatearen araura.

19. Berebat ipiñiko dituzu Jaungoikoaren etxean Jerusalenen, zure Jaungoikoaren serbizorako ematen zazkizun ontziak.

20. Zure Jaungoikoaren etxerako bear danaren gañean berriz, gastatu bear dezun guztia emango zatzu tesorutik, eta erregearen fiskotik,

21. Eta neretik. Nik Artajerjes erregeak erabakitzen det, eta agintzen diet, ibaiaren beste aldean dauden erñuko diruaren tesorero guztiai, Esdras apaiz, zeruko Jaungoikoaren legean txit adituak eskatzen dizuten guztia, luzapenik gabe eman dizaiozutela,

22. Zillarrezko eun talenturaño, eta eun koro gariraño, eta eun bato ardoraño, eta eun bato olioraño; gatza berriz neurrigabe.

23. Zeruko Jaungoikoaren elizkizunetarako bear dan guztia, emango zaio osotoro zeruko Jaungoikoaren etxeari; aserretu ez dedin erregearen eta bere semeen erreñuaren kontra.

24. Jakinerazitzen ere dizutegu, apaiz, eta lebita, eta kantari, eta atezai, eta Nathintar, eta Jaungoikoaren etxeko serbitzari guztien gañean, ez dezutela eskubiderik botatzeko beren gañera alkabalarik, ez kotizik ez beste zamarik.

25. Eta zuk, Esdras, zure Jaungoikoaren jakinduriaren araura, zeñean ain aditua zeran, jarri itzatzu juezak, eta presidenteak, ibaiaren beste aldean dagoan erri guztia juzgatu dezaten, au da, zure Jaungoikoaren legearen berria dutenak juzgatu ditzaten, eta erakutzi zaiezute iñork lokarririk jarri gabe, ez dakitenai.

26. Eta zure Jaungoikoaren legea, eta erregearen legea osotoro kunplitzen ez duen guztia, izango da kondenatua; edo eriotzara, edo katiberiora, edo bere ondasunetan multa batera, edo gutxienez presondegira.

27. Bedeikatua izan dedilla gure gurasoen Jaun Jaungoiko, erregearen biotzean au jarri zuena, goratutzeko, Jerusalenen dagoan Jaunaren etxea.

28. Eta agertu zidan bere urrikaritasuna erregearen, eta bere konsejarien, eta erregearen prinzipe almentsu guztien aurrean. Eta nik, nigan zegoan nere Jaun Jainkoaren eskuz sendoturik, bildu nituen Israelko nagusiak, nerekin etortzeko.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Oiek dira bada familien prinzipeak, eta Babiloniatik Artajerjes erregearen erregetzan nerekin etorri ziran aien jatorria.

2. Fineesen semeetatik, Jersom. Ithamarren semeetatik, Daniel. Dabiden semeetatik, Hattus.

3. Sekenias Farosen semearen semeetatik, Zakarias, eta berarekin izan ziran zenbatuak eun eta berrogeita amar gizon.

4. Fahath Moaben semeetatik, Elioenai Zareheren semea, eta berarekin berreun gizon.

5. Sekeniasen semeetatik, Ezekielen semea, eta berarekin irureun gizon.

6. Adanen semeetatik, Abed Jonathanen semea, eta berarekin berrogeita amar gizon.

7. Alamen semeetatik, Isaias Athaliaren semea, eta berarekin irurogeita amar gizon.

8. Safatiasen semeetatik, Zebedia Mikaelen semea, eta berarekin larogei gizon.

9. Joaben semeetatik, Obedia Jahielen semea, eta berarekin berreun eta emezortzi gizon.

10. Selomithen semeetatik, Josfiasen semea, eta berarekin eun eta irurogei gizon.

11. Bebairen semeetatik, Zakarias Bebairen semea, eta berarekin ogeita zortzi gizon.

12. Azgaden semeetatik, Johanan Ekzetanen semea, eta berarekin eun eta amar gizon.

13. Adonikamen semeetatik, zeñak ziran atzenekoak, oiek dira izenak: Elifeleth, eta Jehiel, eta Samaias, eta berakin irurogei gizon.

14. Begiren semeetatik, Uthai, eta Zakur, eta berakin irurogeita amar gizon.

15. Bildu nituen bada Ahaban sartzen dan ibaiaren aldean, eta an iru egunean gelditu giñan, eta billatu nituen erriaren artean, eta apaizen artean Lebiren semeren batzuek, eta ez nuen batere an topatu.

16. Eta ala bialdu nituen Eliezer, eta Ariel, eta Semeias; eta Elnathan, eta Jarib, eta beste Elnathan bat, eta Nathan, eta Zakarias, eta Mozolam, andietatikoak, eta Joiarib, eta Elnathan jakintsuak.

17. Eta bialdu nituen Eddora, zeñ dan Kasfiako tokiko lenbizia, eta jarri nituen beren aoan, Eddori eta bere anaia Nathintar kasfiako tokikoai esan bear ziozkaten itzak: ekarri zizazkiguten gure Jaungoikoaren etxeko ministroak.

18. Eta gure Jaungoikoaren guganako ontasunagatik, ekarri ziguten gizon txit jakintsu bat, Moholiren semeetatikoa, Lebiren semea, Israelen semea, eta Sarabias eta beren semeak, eta beren anaiak, emezortzi,

19. Eta Asabias, eta berarekin Isaias Merariren semeetatikoak, eta beren anaiak, eta semeak, zeñak ziran ogei.

20. Eta Dabid eta Prinzipeak lebiten lanetara bialdu zituzten Nathintarretatik, berreun eta ogei Nathintar. Oiek guztiak ziran argitsuak beren izenetatik.

21. Eta an Ahaba ibaiaren aldean agindu nuen barau bat egiteko, mortifikatu giñaindezen gure Jaun Jainkoaren aurrean, eta eskatzeko biaje zorioneko bat guretzat, eta gure semeentzat, eta geneuzkan gauza guztientzat.

22. Bada lotsa nintzan eskatzen erregeari zaldizko soldaduen laguntza, zaitu ginzan etsaietatik biajean; zeren erregeari esan giñion: Gure Jaungoikoaren eskua dago, ziñez eta benaz billatzen duten guztien gañean; eta bere eskubidea, eta bere indarra, eta bere aserrea, utziten duten guztien gañean.

23. Onetarako bada barau egin genduen, eta erregutu giñion gure Jaungoikoari, eta guztia txit ongi gertatu zitzagun.

24. Eta apaizen prinzipeetatik, amabi berezitu nituen, Sarabias, eta Hasabias, eta berakin beren anaietatik amar.

25. Eta pisatu niezteen, erregeak eta bere konsejariak, eta bere andizkiak, eta Israelen arkitu ziran beste guztiak eskeñi zuten zillarra eta urrea, eta gure Jaungoikoaren etxeko ontzi konsagratuak.

26. Eta pisatu nituen beren eskuetan seireun eta berrogeita amar talentu zillar, eta eun ontzi zillarrezko, eun talentu urre.

27. Eta ogei ontzi andi urrezko, zeñak zeuzkaten milla sueldo, eta bronze txit garbi, eta txit on, urrea bezela ederrezko bi ontzi.

28. Eta esan nien: Zuek zerate Jaunaren santuak; eta santuak, gure gurasoen Jaun Jainkoari borondatez eskeñiak izan zizaiozkan ontziak, eta zillarra, eta urrea.

29. Zaitu itzatzute ardura andi batekin, ipiñi ditzazuten artean Jerusalenen Jaunaren etxeko tesoruan, apaizen prinzipe, eta lebita, eta Israelko familietako buruen aurrean.

30. Apaizak eta lebitak bada artu zituzten pisuan zillarra, eta urrea, eta ontziak, eramateko Jerusalenera, gure Jaungoikoaren etxera.

31. Atera giñan bada Ahaba ibaiaren erriberatik, lenbiziko illaren amabigarrenean, Jerusalenera joateko, eta gure Jaungoikoaren eskuak lagundu zigun, eta libratu ginduen etsaiaren eskutik, eta lapurrakgandik bidean.

32. Eta Jerusalenera allegatu giñan, eta an atseden giñan iru egunean.

33. Eta laugarren egunean pisatu ziran zillarra, eta urrea, eta ontziak gure Jaungoikoaren etxean Meremoth Urias apaizaren eskuz, zegoala berarekin Eleazar, Fineesen semea, eta berakin Jozabed Josueren semea, eta Noadaia Bennoiren semea, Lebitak,

34. Guztia izan zan kontatua, eta pisatua, eta orduan guztiaren kontua artu zan.

35. Berebat katiberiotik etorriak, katiberioko semeak eskeñi ziozkaten holokaustoak Israelko Jaungoikoari, amabi txal Israelko erri guztiagatik, larogeita amasei ari, irurogeita amazazpi arkume, amabi antxume bekatuagatik, guztia holokaustoan Jaunari.

36. Eta erakutsi ziozkaten erregearen aginduak bere etxeko satrapai, eta ibaiaren beste aldeko gobernariai, zeñak lagundu zieten erriari, eta Jaungoikoaren etxeari.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Eta gauza oiek bukatuak izan ziranean, etorri ziran prinzipeak nigana, esaten zutela: Israelko erria, apaizak, eta Lebitak ez dira egon berezituak lur oietako errietatik, ez beren nazkagarrietatik, au da, Kananeoetatik, eta Heteoetatik, eta Ferezeoetatik, eta Jebuseoetatik, eta Ammonitetatik, eta Moabitetatik, eta Ejipzioetatik, eta Amorreoetatik:

2. Zeren artu dituzte beren alabetatik berentzat, eta beren semeentzat, eta nastu dute jatorri santua, lur oietako erriakin, eta prinzipeak eta majistraduak izan dira lenbizikoak fede au autsten.

3. Eta itz oiek aditu nituenean, urratu nituen nere mantua eta nere tunika, eta atzaparka erabilli nituen nere buruko eta nere kokotzeko illeak, eta eseri nintzan itun.

4. Eta etorri ziran nigana, Israelko Jaungoikoaren itzaren beldur ziran guztiak, katiberiotik etorri ziran aiek fedea autsi zutelako, eta ni nengoan eseria triste arratsaldeko sakrifizioraño.

5. Eta arratsaldeko sakrifizioan jaiki nintzan nere atsekabetik, eta urraturik nere mantua eta tunika, belaunikatu nintzan, eta luzatu nituen nere eskuak nere Jaun Jainkoagana,

6. Eta esan nuen: Ene Jaungoikoa, txit azpiratua nago, eta lotsa naiz jasotzen nere arpegia zuganontz, zeren gure gaiztakeriak ugaritu dira gure buruaren gañean, eta gure bekatuak igo dira zeruraño,

7. Gure gurasoen egunetatik. Eta gañera gerok txit bekatu andiak egin ditugu gaurko eguneraño, eta gure gaiztakeriakgatik izan gera ipiñiak gu, eta gure erregeak, eta gure apaizak lurreko erregeen eskuetan, eta ganibitaren eta katiberioaren mendean, eta arrapatu ziguten gendukan guztia, eta izan gera lotsariz beteak, gaurko egunean ere ikusten dan bezela.

8. Eta orain gauza gutxi batgatik, eta une bakar baterako bezela, aditu ditu gure erreguak gure Jaun Jainkoak, askatuak eta beren aukeran jarriak izan zitezen gure erriaren kutsuak, jarri eta egon giñaindezen sendo bere leku santuan, eta argitu gure begiak gure Jaun Jainkoak, eta gure katiberioan asnasa piska bat artzen utzi zizagun,

9. Zeren katibuak giñan; alaere gure katiberioaren erdian ez gaitu utzi gure Jaungoikoak; baizik guzaz errukituerazi du Persiako erregea, onek bizia eman zizagun, eta goratu zezan gure Jaungoikoaren etxea, eta berriztu zitzan bere eroriak, eta eman zizagun arrera eta egoera ona Judan eta Jerusalenen.

10. Eta orain, o gure Jaungoikoa, zer esango degu gauza oien ondorean? Guk, mezpreziatu ditugunok zure aginte,

11. Zure serbitzari profeten bitartez adiraziak, esaten zigutela: Lur hura zeñaen jabe egiñak izatera zoazten, da lur zikin bat (beste erri eta gañerako lurrak diran bezela) ertz batetik bestera gañez eginda jarria nazkagarri, eta loikeriakgatik.

12. Argatik ez dieztezute emango zuen alabak beren semeai, eta ez dituzute ere artuko beren alabak zuen semeen emaztetzat; ez dezute ere aleginik egingo beren adiskide izateko, ez berak aberastutzeko, sendotuak izan zaitezen, eta jan ditzatzuten lur onetako onerak, eta beti iduki ditzatzuten zuen semeak primutzat.

13. Eta gure gañera etorri diran galmen guzti oien ondoren, gure obra txit gaizto, eta gure bekatu andiagatik, zuk, o gure Jaungoikoa, libratu gaituzu gure gaiztakeriatik, eta salbatu gaituzu, gaurko egunean ikusten dan bezela.

14. Baña atzera ez itzultzeko, eta zure aginduak ez autsitzeko, eta alako nazkagarriak egin dituzten erriakin ez aidetasunik artzeko kondizioarekin. Aserretua ote zaude gure kontra, gure galmen osoa nai izateraño, gure erriaren kutsurik ere bizirik utziko ez dezun eran?

15. Justoa zera zu, o Israelko Jaun Jaungoikoa, gu gelditu gera zuk salbatuak izan gaitezen, gaurko egunean, ikusten dan bezela. Emen gaude zure aurrean gure gaiztakeriarekin, barkatu zatzakigun, zeren ez du apuko, ez aitzakiarik zure aurrean, alako gaiztakeriak.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Onela zegoala bada Esdras Jaungoikoari erregututzen, barkazioa eskatzen, eta negarrez, auzpezturik Jaungoikoaren Tenpluaren aurrean, bildu zan bere inguruan Israelko gizaseme, eta emakume, eta aur talde txit andi bat, eta asi zan erria negar andiak egiten.

2. Eta asi zan izketan Sekenias Jehielen semea, Elamen semeetatikoa, eta esan zion Esdrasi: Guk autsi degu gure fedea onela bekatu egiten degula gure Jaungoikoaren kontra, eta artu ditugu emaztetzat emakume arrotzak, lur onetako errietatik. Eta orain baldin Israel, onekin damututa badago,

3. Gure Jaun Jaungoikoarekin lotu gaitzen itzez, botatzeko emazte guzti oiek, eta berakgandik jaiotako semeak, Jaunaren borondatearen, eta gure Jaun Jainkoaren aginduaren beldur diradenen araura, egin bedi legeak agintzen duena.

4. Jaiki zaite bada, zuri dagokizu erabakiak ematea, guk lagunduko dizugu. Sendotu zaite, eta ekin lanari.

5. Jaiki zan bada Esdras, eta juramentuerazi zien apaizen eta lebiten prinzipeai, eta Israel guztiari, itz onen araura egingo zutela, eta juramentu egin zuten.

6. Eta jaiki zan Esdras Jaungoikoaren etxearen aurrean, eta Johanan Eliasiben semearen gelara joan zan, eta ara sartu zan, etzuen ogirik jan, ez urik edan, zeren etzan negarrez aspertzen katiberiotik etorri ziranen bekatuakgatik.

7. Eta adirazia izan zitzaioten Judan eta Jerusalenen, katiberioko seme guztiak, bildu zitezela Jerusalenen.

8. Eta etortzen etzan guztiari iru egunen barrenen, Prinzipe eta Zarren erabakiaren araura, konfiskatuko zitzaiozkala bere gauza guztiak, eta bera botako zala, katiberiotik etorri ziranen batzarretik.

9. Bildu ziran bada iru egun aien barrenen Juda eta Benjamingo gizon guztiak Jerusalenen, bederatzigarren egunaren ogeigarren egunean, eta erri guztia eseri zan Jaungoikoaren etxeko karrikan, beldurrez ikara bekatua gatik, eta euriakgatik.

10. Orduan Esdras apaizak, zutik jarrita, esan zien: Zuek fedea autsi dezute, eta emakume arrotzak artu dituzute, itsatsiten diezutela bekatu au Israelko gaiztakeriai.

11. Orain bada, eman zaiozute gloria zuen gurasoen Jaun Jainkoari, eta egin ezazute bere borondatea, eta berezitu zaitezte lurreko errietatik, eta emakume arrotzetatik.

12. Zeñatara jendetza guzti hurak erantzun zuen, boz altuan esaten zuela: Egin bedi zuk esan dezun bezela.

13. Baña nola jendetza dan andia, eta denbora euritsua, eta ezin egon genzakean ezkero agirian, eta lanbide au ere ez dan ezkero egun batekoa, ez bikoa (bada txit andia da gure bekatua alde onetatik.)

14. Izendatu bediz erri guztiaren artean nagusien batzuek; eta emakume arrotzakin ezkondu diran gure errietako guztiak, agertu ditezela denbora izendatuetan erri bakoitzeko zarrakin, eta beren juezakin batean, gugandik alde dezan artean gure Jaungoikoaren aserreak, bekatu augatik.

15. Izan ziran bada izendatuak onetarako Jonathan Azahelen semea, eta Jaasia Thekueren semea, eta Mesolam, eta Sebethai Lebitak lagundu zieten.

16. Eta katiberioko semeak ala egin zuten. Onenbesterekin Esdras apaiza, eta familietako buruak joan ziran beren gurasoen etxeetara; eta arturik guztien izenak, jarri ziran beren tribunalean amargarren illaren lenbiziko egunean, gauza onen gañean argibideak artzeko.

17. Eta etzan bukatu, emakume arrotzakin ezkondu ziran guztien zenbata, lenbiziko illaren lenbiziko eguneraño.

18. Eta apaizen semeetatik, emakume arrotzakin ezkonduta arkitu ziranak dira oiek: Josueren semeetatik, Josedeken semeak, eta beren anaiak, Maasia, eta Eliezer, eta Jarib, eta Godolia,

19. Zeñak eskeñi zuten luzaturik beren eskua, kentzea beren emazteak, eta beren bekatuagatik artaldeetako ari bat eskeñtzea.

20. Emerren semeetatik, Hanani eta Zebedia.

21. Eta Harimen semeetatik, Maasia, eta Elia, eta Semeia, eta Jehiel, eta Ozias.

22. Eta Fheshurren semeetatik, Elioenai, Maasia, Ismael, Nathanael, Jozabed, eta Elasa.

23. Eta Lebiten semeetatik, Jozabed, eta Semei, eta Zelaia Kalita ere deitua, Fataia, Juda, eta Eliezer.

24. Eta kantarietatik, Eliasib. Eta atezaietatik Selum, eta Telem, eta Uri.

25. Eta Israeldik, Farosen semeetatik, Remeia, eta Jezia, eta Melkia, eta Miamin, eta Eliezer, eta Melkia, eta Banea.

26. Eta Elamen semeetatik, Mathania, Zakarias, eta Jehiel, eta Abdi, eta Jerimoth, eta Elia.

27. Eta Zethuaren semeetatik, Elioenai, Eliasib, Mathania, eta Jerimuth, eta Zabad, eta Aziza.

28. Eta Bebairen semeetatik, Johanan, Hanania, Zabbai, Athalai.

29. Eta Baniren semeetatik, Mosolam, eta Meluk, eta Adaia, Jasub, eta Saal, eta Ramoth.

30. Eta Fahat Moaben semeetatik, Edna, eta Kalal, eta Banaias, eta Masias, Mathanias, Beseleel, Bennui, eta Manase.

31. Eta Heremen semeetatik, Eliezer, Josue, Melkias, Semeias, Simeon,

32. Benjamin, Malok Samarias.

33. Eta Hasomen semeetatik, Mathani, Mathatha, Zabad, Elifelet, Jermai, Manase, Semei.

34. Baniren semeetatik, Maaddi, Amram, eta Bel,

35. Baneas, eta Badaias, Txeliau,

36. Bania, Marimuth, eta Eliasib,

37. Mathanias, Mathanai, eta Jasi,

38. Eta Bani, eta Bennui, semei,

39. Eta Salmias, eta Nathan, eta Adaias,

40. Eta Meknedebai, Sisai, Sarai,

41. Ezrel, eta Selemian, Semeria,

42. Selum, Amaria, Jose.

43. Neboren semeetatik, Jehiel, Mathatias, Zabad, Zabina, Jeddu, eta Joel, eta Banaia.

44. Oiek guztiok artu zituzten emazte arrotzak, eta baziran andre oien artean batzuek semeak iduki zituztenak.

NEHEMIASEN LIBURUA, ESDRASEN BIGARRENA ERE DEITZEN ZAIONA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Nehemias, Helziasen semearen itzak. Ogeigarren urtean, kasleu illean, negoan Susako gazteluan.

2. Eta etorri zan Hanani, nere anaietatiko bat, Judako beste gizaseme batzuekin; eta egin niezten galdeak, ea gelditu ziran, eta gero katiberioan bizi ziran Juduagatik, eta Jerusalengo erriaren gañean.

3. Eta erantzun zidaten: Katiberioan gelditu ziranak, eta an probinzian utziak izan diranak, arkitzen dira estutasun eta lotsari andian; Jerusalengo murruak berriz oraindik lurrean daude, eta bere ateak suaren garraz erreak.

4. Itz oiek aditu nituenean, eseri nintzan, eta egon nintzan zizpuruz eta negarrez egun askotan; barauak egiten nituen, eta zeruko Jaungoikoaren aurrean erregututzen nuen,

5. Eta esaten nuen: Erregututzen dizut, zeruko Jaun Jaungoikoa, sendoa, andia, eta ikaragarria, zaitzen dezuna elkartasuna, eta errukia maitatzen zaituztenakin, eta zure aginduak gordetzen dituztenakin.

6. Aditu nazate zure belarriak, eta idiki bitez zure begiak, eta entzun ezazu, nik zure mendeko onek zure aurrean gau ta egun zure serbitzari Israelko semeak gatik egiten ditudan erreguak; aitortzen ditudala Israelko semeen bekatuak, zeñakin ofenditu zaituzten, nik eta nere aitaren etxeak bekatu egin degu,

7. Arrokeriak engañatuak izan gera, eta ez ditugu zaitu zure aginte, zeremonia, eta erabaki, Moises zure serbirtzariari agindu ziñiozkanak.

8. Oroitu zaite Moises zure serbitzariari eman ziñion itzarekin: Nere fedea autsiten dezutenean, nik jendeen artean barreatuko zaituztet.

9. Baña nigana biurtzen bazerate, eta gordetzen badituzute nere aginteak, eta kunplitzen badituzute, munduaren bukaeraraño eramanak izango baziñate ere, berriz ekarriko zaituztet autu nuen tokira, an ots egin dizaioten nere izenari.

10. Berak dira zure serbitzariak, eta zure erri, zure eskubide andiarekin, eta zure beso sendoarekin erredimitu zenduena.

11. Erregututzen dizut, Jauna, arren gogotikan aditu dezazula zure serbitzariaren otoitza, eta zure serbitzarien erreguak; zeñak erabakita dauden zure izenaren beldur izatera; eta zuzendu ezazu gaur zure serbitzaria, eta egin ezazu, arkitu dezadala errukia gizon onen begietan. Zeren nintzan erregearen kopa serbitzallea.

BIGARREN KAPITULUA

1. Gertatu zan bada Nisango illean, Artajerjesen erregetzaren ogeigarren urtean, ekarririk ardoa erregearen aurrera, artu nuen nik kopa, eta eman nion, eta ni nengoan bere aurrean eroria bezela.

2. Eta erregeak esan zidan: Zergatik dago triste zure arpegia, eria etzauden ezkero, etzauden bezela? Badaukazu onetarako zerbait, zuk asmo gaiztoren batzuek bide darabilzkizu zure biotzean. Orduan txit beldurtu nintzan,

3. Eta erantzun nion erregeari: Zure bizia izan bedi betikoa. Nola ez da egongo triste nere arpegia, nere gurasoen erria, zeñ dan obien tokia, dagoanean eremutua, eta bere ateak suaren garrak erreak?

4. Eta erregeak esan zidan: Zer da eskatzen dezuna? Eta nik eskaturik argitasuna zeruko Jaungoikoari,

5. Erregeari erantzun nion: Erregeak ontzat baldin badauka, eta zure serbitzariak arkitu badu grazia zure begietan, bialdu nazazula Judeara, nere aitaren obia dagoan errira, eta nik berriz egingo det.

6. Eta esan zidaten erregeak, eta erregiñak, zeñ zegoan eseria bere aldean: Zenbat denboran egingo dezu zure joana, eta noiz itzuliko zera? Eta nik izendatu nuen epea. Eta ongi iritzi zion erregeari, eta bialdu ninduen.

7. Eta esan nion erregeari: Ontzat baldin badauka erregeak, eman bizazkit txartelak, ibaiaren beste aldeko lurreko Eraenzalleenzat, iragotzen utzi dizadaten, Judeara allegatu artean:

8. Eta txartel bat erregearen basoko gordetzallearentzat, zurak eman dizazkidan, elizako dorreko ateak, eta erriko murruak, eta biziko naizan etxea egiteko. Eta eman zidan erregeak, zeren Jaungoikoaren esku ongigillea nere alde zegoan.

9. Eta etorri nintzan ibaiaren beste aldeko lurreko Gobernariakgana, eta eman niezten erregearen kartak. Eta erregeak bialdu zituen nerekin gerrako agintariak, eta zaldizko jendea.

10. Jakin zutenean Sanabalat Harontarrak, eta Tobias Amantar morroiak, txit damu andia iduki zuten, allegatu zalako gizon bat, Israelko semeak doatsuak egiteko neurriak artuko zituena.

11. Allegatu nintzan atzenean Jerusalenera, non atseden nuen iru egunean.

12. Eta gauaz jaiki nintzan, gizon gutxi batzuekin, iñori ere agertu baga Jaungoikoak inspiratu zidana egiteko Jerusalenen; eta ez neraman ere beste zaldirik, ni gañean nijoana baño.

13. Atera nintzan bada gauaz ibarreko atetik, eta Dragoiaren iturriaren aurkeztik, eta zimaurraren atearen alderontz, eta geldituta nengokien begira gogotik Jerusalengo murru desegiñari, eta bere ate, suzko garrez erre eta autstuai.

14. Eta irago nintzan iturriko atera, eta erregearen urodira, eta etzegoan tokirik iragotzeko, igorik nijoan zaldia.

15. Eta igo nintzan gauaz errekatik, eta gogotik begiratzen nion murruari, eta jira osoa eginik, allegatu nintzan berriz ibarreko atera, eta itzuli nintzan.

16. Majistraduak berriz etziekiten nora joan nintzan ni, ez zer egiten nuen; eta denbora artaraño ezertxoere ez nien nik adirazi juduai, ez apaizai, ez andizkiai, ez majistraduai, ez gañerako, lana egiten ari ziranai.

17. Esan nien bada: Zuek ikusten dezute nolako izaera urrikigarrian gauden, Jerusalen dago eremu egiñik, eta bere ateak auts biurturik. Atozte, eta berriz egin ditzagun Jerusalengo murruak, eta ez gaitezen geiago bizi lotsari ain andian.

18. Adirazi ere nien, nere Jaungoikoaren esku ongillea nerekin zegoala, eta erregeak esan zizkidan itzak, eta bukatu nuen, esaten nuela: Ea goazen, eta ekin dizaiogun lanari. Onenbesterekin berak alaitu ziran obra egiteko.

19. Berriz jakin zutenean Sanabalat Harontarrak, eta Tobias Amantar, morroiak, eta Gosem Arabearrak, ari ziguten txistuka eta isekan, esaten zutela: Zer da egiten dezuten au? Erregearen kontra jaiki nai al dezute?

20. Baña nik erantzun nien, eta esan: Zeruko Jaungoikoa da laguntzen diguna, eta gu bere serbitzariak gera eta aurrera joango gera, eta jarraituko diogu lanari; bada zuek ez daukazute parterik, ez eskubiderik, eta ezertarako ere etzerate Jerusalenen aitatuak.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Orduan Eliasib apaiz nagusiak, eta bere anaia apaizak ekin zioten lanari eta berriz egin zuten Abereen atea, konsagratu zuten, eta jarri zituzten bere ateak, eta santutu zuten Eun besoko dorreraño, eta Hananeelen dorreraño.

2. Eta onen aldean egin zuten beren obra Jerikoko gizonak: eta onen aldean egin zuen obra Zakur Amriren semeak.

3. Eta Asnaaren semeak egin zuten Arraien atea. Berak estali zuten, eta jarri zituzten bere ateak, eta sarrallak, eta balenkak. Eta beren ondoan egin zuen obra Marimuth Uriasen, Akusen semearen semeak.

4. Eta onen aldean egin zuen obra Mosolam Barakiasen Mesezebelen semearen semeak. Eta oien aldean egin zuen obra Sadok Baanaren semeak.

5. Eta oien ondoren egin zuten obra Thekuakoak, baña beren andizkiak etzituzten alderatu beren bizkarrak beren Jaunaren obran nekatzeko.

6. Eta ate Zarra egin zuten Joiada Fasearen semeak, eta Mosolam Besodiaren semeak. Oiek estali zuten, eta jarri zituzten bere ateak, eta sarrallak, eta balenkak,

7. Eta beren aldean egin zuten obra Meltias Gabaontarrak, eta Jadon Meronatarrak, Gabaon eta Masfako gizonak, ibaiaren beste aldeko lurrean zegoan Eraenzallearen izenean.

8. Eta onen aldean egin zuen obra Eziel Araias zillargiñaren semeak. Eta onen aldean egin zuen obra Ananias lurrinkaigille baten semeak, eta utzi zuten ukiturik egin gabe Jerusalenen alde, karrika nagusiko murrura dijoana.

9. Eta onen aldean egin zuen obra Rafaia, Hurren Jerusalengo etxadi bateko Prinzipearen semeak.

10. Eta onen aldean egin zuen obra, Jedaia Haromafen semeak bere etxearen aurkez. Eta onen aldean egin zuen obra Hattus Haseboniasen semeak.

11. Melkias Heremen semeak, eta Hasub Fahath-Moaben semeak egin zuten etxadi baten erdia, eta labeen dorrea.

12. Eta onen aldean egin zuen obra Selum Alohesen seme, Jerusalengo etxadi baten erdiaren Prinzipeak, berak eta bere alabak.

13. Eta Hanunek, eta Zanoen bizi ziranak egin zuten ibarreko atea, berak egin zuten, eta jarri zituzten bere ateak, eta sarrallak, eta balenkak, eta milla beso murru, Goroztegiko ateraño.

14. Eta Melkias Rekaben seme, Bethakarango etxadiko Prinzipeak, egin zuen Goroztokiko atea, berak egin zuen, eta jarri zituen bere ateak, sarrallak, eta balenkak.

15. Eta Selum Kolhozaren seme, Masfako etxadiko Prinzipeak, egin zuen iturriko atea, berak egin zuen, eta estali zuen, eta jarri zituen bere ateak, sarrallak, eta balenkak, eta Siloeko putzuko murruak erregearen baratzarontz, eta Dabiden errira jetxitzen diran malletaraño.

16. Onen aldean egin zuen obra Nehemias Asboken seme, Bethsurgo etxadiaren erdiaren Prinzipeak, Dabiden obiaren aurkezeraño, eta gastu andiakin landua izan zan putzuraño, eta sendoen etxeraño.

17. Onen ondorean egin zuten obra Lebitak, Rehum Benniren semeak. Onen aldean Hasebias Zeilako etxadiaren erdiko Prinzipeak, egin zuen obra bere etxadian.

18. Onen aldean egin zuten obra bere anaiak, Babai Enadaden seme, Zeilako etxadiaren erdiko Prinzipeak.

19. Eta onen aldean Aser Josueren seme, Masfako Prinzipeak egin zuen bigarren neurria, egi txit sendoaren igoeraren aurkez.

20. Onen aldean, mendian, egin zuen Baruk Zakaiaren semeak bigarren neurria, kantoetik, Eliasib apaiz nagusiaren etxeko ateraño.

21. Onen aldean Merimuth Uriasen, Hakusen semearen semeak egin zuen bigarren neurria, Eliasiben etxeko atetik, Eliasiben etxearen luzeera guztian.

22. Eta onen aldean egin zuten obra, Jordango kanpoetan bizi ziran apaizak.

23. Onen aldean egin zuten obra Benjamin eta Hasubek beren etxearen aurkez. Eta onen aldean egin zuen obra Azariasek, Maasiasen semeak, Ananiasen semeak, bere etxearen aurrean.

24. Onen aldean Bennui Henadaden semeak egin zuen bigarren neurria, Azariasen etxetik biurketaraño, eta kantoeraño.

25. Falil Oziaren semeak biurketaren eta erregearen etxe altuan, aurrera ateratzen dan dorrearen aurkez, au da, presondegiko etxe urubean. Bere aldean Fadaias Farosen semeak.

26. Eta Nathintarrak bizi ziran Ofelen, uren atearen aurkezeraño sortalderontz, eta kanporontz ateratzen dan dorreraño.

27. Bere aldean egin zuten Thekuakoak bigarren neurria aurkez, dorre andi eta aurrerontz ateratzen danetik, elizako murruraño.

28. Eta goirontz zaldien atetik egin zuten obra apaizak, bakoitzak bere etxearen aurkez.

29. Oien ondorean egin zuen obra Sadok Emmerren semeak, bere etxearen aurkez. Eta onen aldean egin zuen obra semaia Sekeniasen seme, sortaldeko ateko atezaiak.

30. Eta onen aldean egin zuten Hanania Selemiasen semeak, eta Hanun Selefen seigarren semeak, bigarren neurria. Eta onen aldean egin zuen obra Mosolam Barakiasen semeak, bere diru gordelekuaren aurkez. Onen aldean egin zuen Melkias zillargin baten semeak, Nathintarren eta merkatarien etxeraño, juezen atearen aurkez, eta kantoeko salaraño.

31. Eta kantoeko salaren luzeeran artaldearen atean egin zuten obra zillargiñak eta merkatariak.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Bitartean aditurik Sanabalatek, berriz egiten giñituela murruak, txit aserretu zan: eta sumindurik ezin geiagoan, Juduai iseka egin zien,

2. Eta bere anaien, eta Samariako jende talde andi baten aurrean, esan zuen: Zer egiten dute Judu gizagaxo oriek? Utziko al diete inguruko erreñu oiek? Uste al dute eskeñi ditzaketela doañak, bukaturik lana egun batean? Egin alko ote dituzte auts muntoietatik, erreak izan diran arriak?

3. Berebat Tobias Ammontar, bere aldean zegoanak, esan zuen: Egin ditzatela nai badute, azeri bat igotzen bada, eroriko dira beren arrizko murruak.

4. O gure Jaungoikoa, aditu ezazu, nola iseka egiten diguten: erorierazi zaiezu beren buruen gañera irri oiei, eta egin ezazu, izan ditezela mezpreziatuak katiberio bateko lurrean.

5. Ez ezazu estali beren gaiztakeria, eta ez dedilla ere borratua izan beren bekatua zure arpegiaren aurrean, iseka egin zien ezkero, zure erri santua berriz egiten ari ziranai.

6. Guk bada egin giñituen murruak, osoz bukatzen giñituela anziñako beren alturaren erdiraño, eta berotu zan erriaren biotza lanari jarraitzeko.

7. Baña Sanabalatek, eta Tobiasek, eta Arabiakoak, eta Ammontarrak, eta Azotokoak aditu zutenean, zarratuak zirala Jerusalengo murruen zirriztuak, eta asten zirala zuloak itxitzen, txit aserretu ziran,

8. Eta bildu ziran guztiak batean, etorri eta erasotzeko Jerusaleni, eta zelatadak jartzeko.

9. Eta gu jarri giñan gure Jaungoikoaren eskuetan, eta ipiñi giñituen zentinelak murruaren gañean gau ta egun beren kontra.

10. Eta Judako batzuek esan zuten: Lanerako gaiak dakarzkitenen indarrak aituaz dijoaz, eta oraindikan lur asko dago ateratzeko, eta ezin egingo degu murrua.

11. Eta gure etsaiak esan dute: Ez dute ezer ere jakingo, alik eta beren erdian sartu gaitezen, il ditzagun, eta obrari geldituerazi dizaiogun bitartean.

12. Eta etortzen ziran, beren aldean bizi ziran Juduak, eta esaten ziguten au bera amar alditan, eta geiagotan, eta nola artzen genduen gaztigu au bera, gugana etortzen ziran alde guztietatik,

13. Jarri nuen bereala errenkan erria murruaren ostean, inguruan, beren ezpata, eta lanza, eta ballestakin.

14. Eta guztiari begiratu eta guztia azterturik, joan nintzan, eta esan nien andizkiai, eta majistraduai, eta gañerako erriari: Etzaitezte beldur izan beren aurrean. Oroitu zaitezte Jaun andi eta ikaragarriarekin, eta gudatu zaitezte zuen anaiak gatik, zuen semeak eta alabakgatik, eta zuen emazteakgatik, eta zuen etxeakgatik.

15. Baña aditurik gure etsaiak, gaztigua emana izan zizagula, desegin zituen Jaungoikoak beren asmoak. Eta guztiok murruetara, bakoitza bere lanera itzuli giñan.

16. Eta egun artatik, jende gaztearen erdia ari oi zan lanean, eta beste erdia egon oi zan armak eskuan zituztela, lanzakin, eta ezkutuakin, eta ballestakin, eta loarikakin, eta beren ostean Prinzipeak Judako etxe guztian.

17. Eta murruan lanean ari ziranak, eta obrarako gaiak ekartzen zituztenak, eta kargatzen zituztenak, esku batekin ari ziran lanean obran, eta bestean zeukaten ezpata.

18. Zeren lanean ari ziradenetatik bakoitzak zeukan ezpata gerrian lotua, eta ari oi ziran lanean, eta tronpeta jotzen zuena, zegoan beti nere aldean.

19. Eta andizkiai, eta majistraduai eta gañerako erriari, esan nien: Obra au andia da, eta zabalera andikoa eta gu gaude murruan berezituak bata besteagandik urrutian.

20. Tronpetaren otsa aditzen dezuten edozeñ tokitara, bada, ara joan zaitezte korrika gugana; gure Jaungoikoa gudatuko da gure alde.

21. Eta gerok jarraitu dizaiogun lanari; eta gutatiko erdiak iduki bitzate eskuan lantzak egunsentia asten danetik, izarrak irtetzen diran artean.

22. Denbora berean esan ere nion erriari: Bakoitza bere morroiarekin gelditu bedi Jerusalenen barrenen etzaten, eta txandaka ariko gera lanean gau ta egun.

23. Eta nik, eta nere anaiak, eta nere morroiak, eta jarraitzen zidaten zaitzalleak ez ginduzten kentzen soñekoak, garbieraren baterako ez izanenean.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Eta jaiki zan erriaren eta beren emazteen deadar andi bat beren anaia Juduen kontra.

2. Eta baziran batzuek esaten zutenak: Seme eta alaba larregi daukagu, saldu ditzagun, eta beren diruarekin erosi dezagun garia, jan dezagun, eta bizi gaitezen.

3. Baziran ere esaten zutenak: Jarri ditzagun prendatzat gure kanpoak, eta mastiak, eta gure etxeak, eta artu dezagun garia gosete onetan.

4. Beste batzuek esaten zuten: Artu dezagun dirua prestamenean erregearen kotizak pagatzeko, eta eman ditzagun gure kanpoak, eta mastiak.

5. Orain bada, gure aragia da, ez geiago, ez gutxiago, oien, gure anaiak diranen aragia bezelakoa, eta gure semeak balio dute beren semeak adiña, eta alaere guk saltzen dieztegu mendekotzat gure semeak eta gure alabak; eta ez degu ere zerekin erreskatatu gure alabak katiberiotik, eta gure kanpoak eta mastiak besteen eskuetan daude.

6. Eta aditzean nik deadar oiek, eta alako itzak, txit aserretu nintzan;

7. Eta ongi ta arretaz pensatu ezkero, agiraka zorrotzak egin niezten andizkiai, eta majistraduai, esaten niela: Beraz zuek usurak kobratzen dieztezute zuen anaiai? Eta bildu nuen beren kontra batzarre andi bat,

8. Eta esan nien: Guk, dakizuten bezela, erreskatatu ditugu geneukanaren araura, gure anaia Juda, erreñuai salduak izan ziranak; eta zuek berriz salduko dituzute zuen anaiak, guk erreskatatu ditzagun? ixildu ziran onetara, eta etzuten jakin zer erantzun.

9. Eta esan nien: Ez dago ongi egiña egiten dezutena. Zergatik etzabilzate gure Jaungoikoaren beldurrean, gure etsaiak diran jendeak, arpegira bota ez dizaguten?

10. Nik, eta nere anaiak, eta nere morroiak egin diozkategu txit askori diruaren eta gariaren prestamenak, erabaki dezagun guztiok, ez berai berriz eskatzea, barkatu dizaiegun zor digutena.

11. Biurtu zaieztezute gaur beren kanpoak, eta beren mastiak, eta beren olibodiak, eta beren etxeak; baitaere diruagatik, gariagatik, ardoagatik, eta olioagatik eskatu oi diezuten euneko bata, edo pagatu ezazute berakgatik.

12. Eta erantzun zuten: itzuliko dietegu, eta ez dietegu ezerere eskatuko. Eta zuk esaten dezun bezela, ala egingo degu. Eta ots egin nien apaizai, eta juramentuerazi nien, egingo zutela, nik esan nien bezela.

13. Gañera astindu nuen nere bularraren gañeko soñekoa, eta esan nuen: Ala astindu bitza Jaungoikoak beren etxeetatik, eta beren atziendetatik, itz au kunplitzen ez duten guztiak: ala izan bediz astinduak, eta gelditu bediz ezerere gabe. Eta erri guztiak erantzun zuen: Amen. Eta Jaungoikoa alabatu zuten. Erriak bada egin zuen, esan zan bezela.

14. Eta erregeak Judeako lurrean Gobernaria izan nendilla agindu zuen egun artatik, Artajerjes erregearen ogeigarren urtetik ogeita amabigarreneraño; amabi urtean, ez nik, ez nere anaiak artu genduen, Gobernariai zor zaien janaririk;

15. Ni baño lenagoko lenbiziko gobernariak berriz kargatu zuten erria, artzen zutela ogia eta ardoa, eta gañera berrogei siklo egun bakoitzean dirutan; eta gañera beren alguazillak ere gaizki tratatzen zuten erria. Baña nik Jaungoikoaren beldurrez, ez nuen onela egin,

16. Baizik ari nintzan lanean murruko obran,eta kanporik ez nuen erosi, eta nere morroi guztiak batean joan oi ziran obrara.

17. Gañera eun eta berrogeita amar lagun, Juduen eta majistraduen artekoak, eta inguruetako errietatik gugana zetozenak, jaten zuten nere maiean.

18. Onetarako egunoro iltzen ziran nere etxean idi bat, eta sei ari autuak, egaztiak kontatu gabe, eta amar egunetik amar egunera ematen niezten beste ardo batzuek, eta beste gauza asko, eta gañera ez nuen artu nere gobernuaren errenta, erria txit beartsua zegoalako.

19. Oroitu zaite nerekin, o nere Jaungoikoa, ongi egiteko neri, nik erri oni egin diozkadan mesedeen neurrian.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta aditu zutenean Sanabalatek, eta Tobiasek, eta Gosem Arabiakoak, eta gañerako gure etsaiak, nik berriz egin nuela murrua, eta etzala gelditzen berean zulorik batere (oraindik atean orriak jarri gabe bazeuden ere),

2. Sanabalatek eta Gosemek bialdu zidaten esatera: Atoz, eta egingo degu gure artean elkartasuna Onoko kanpoko erritxoetatik batean. Baña berak zeukaten, neri gaitz egiteko asmoa.

3. Bialdu nien bada nere mandatarien bitartez esatera: Balio andiko obra bat darabilt esku artean, eta ezin joan naiteke ara; atzeratu ez dedin, nik alde egiten badet zuekgana joateko.

4. Eta lau alditan bialdu zuten gauza bera esatera, eta erantzun nien lenbiziko aldian bezela.

5. Eta Sanabalatek bialdu zidan len bezelako gauza beratarako bere morroe bat bosgarren aldiz, eta zekarren bere eskuan karta bat onela eskribatua:

6. Jendeen artean zabaldu da, eta Gosemek esan du, zuk eta Juduak dauzkazutela, erregearen kontra jaikitzeko asmoak, eta onetarako egiten dituzula berriz murruak, eta jarri nai dezula erregetzat beren gañean. Argatik

7. Jarri ere dituzu profetak goratzeko zure izena Jerusalenen, eta esateko: Bera da Judako erregea. Gauza oiek allegatuko dira erregearen belarrietara. Argatik atoz arin, biok batean konsultatu gaitezen gai onen gañean.

8. Eta bialdu nituen esatera: Ez dago zuk esaten dituzun gauzetatik batere; baizik dirade zuk zure buruan asmatzen dituzun gauzak.

9. Oiek guztiak etziran beste gauzatarako baizik gu beldurtzeko, iruditurik utziko giñiola obrari, eta egongo giñala geldirik. Baña nik beragatik gogo geiagorekin ekin nion.

10. Eta sartu nintzan ixillean Semaias Dalaiasen semearen, Metabeelen semearen etxean. Zeñak esan zidan: Tratatu dezagun bioen artean Jaungoikoaren etxean tenpluaren erdian, eta tenploko ateak itxi ditzagun, zeren etorriko dira zu iltzera, eta gauaz etorriko dira zuri bizia kentzera.

11. Eta erantzun nion: Eta ni bezelako gizon batek iges egingo du? Eta zeñ ni bezelako gizon sartu litzake elizan bere bizia salbatzeko? Ez det joan nai.

12. Eta ezagutu nuen etzala Jaungoikoak bialdua, baizik itz egin zuela nerekin profetatzat bere burua egiten zuela; eta Tobiasi eta Sanabalati diruagatik saldua zegoela.

13. Zeren dirua artu zuen, nik beldurtuta egin nezan, eta bekatu egin nezan, eta iduki zezaten gaiztakeria au, niri arpegian ezarteko.

14. Oroitu zaite nirekin, o Jauna, Tobiasen, eta Sanabalaten, baita Noadias profetaren, eta beste profeta, ni beldurtu nairik zebiltzatenen alako malmuskeriakin.

15. Eta murrua bukatua izan zan Elul illaren ogeitabosgarren egunean, berrogeita amabi egunean.

16. Jakin zutenean au gure etsai guztiak, txit beldurtu ziran inguruetako erreñu guztiak, eta desalaitu ziran beren biotzak, eta ezagutu zuten, lan au Jaungoikoak egiña izan zala.

17. Eta egun aietan ere bazijoazen eta bazetozten karta asko Juduen andizkietatik Tobiasgana, eta Tobiasgandik berakgana.

18. Zeren bazeuden Judean asko, juramentuarekin eskeñi ziotenak adiskidetasuna; zeren zan Senekias Arearen semearen suia, eta Johanan bere semea zegoan ezkonduta Mosolam Barakiasen semearen alaba batekin.

19. Eta nere aurrean ere alabatzen zuten, eta adirazten zioten nik esaten nuen guztia; eta Tobiasek eskribatzen zituen txartelak, ni beldurtzeko.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta murruak akabatu ziranean, eta ateak jarri nituenetik laster, eta irago nuenean atezaien, eta kantarien, eta Lebiten lista,

2. Agindu nien nere anaia Hananiri, eta Hanania etxeko Prinzipeari Jerusalenen (bada onek zirudian gizon zintzoa, eta besteak baño Jaungoikoaren beldur geiagokoa)

3. Eta esan nien: Ez bitez idiki Jerusalengo ateak, eguzkiak berotu dezan artean. Eta oraindik berak aurrean zeudela, itxi ziran ateak, eta jarri zitzaiozkaten trankak, eta jarri nituen zaitzen Jerusalengo gizonak, bakoitza bere txandaz, eta bakoitza bere etxearen aurkez.

4. Erria berriz zan txit zabala eta andia, eta jende txit gutxi zegoan bere barrenen, etzeudelako etxeak egiñak.

5. Baña Jaungoikoak argitu zuen nire biotza, bildu nitzan andizkiak eta majistraduak, eta erria, guztiak kontatzeko; eta arkitu nuen liburu bat, zeñean zeuden eskribatuak, Babiloniatik etortzen aurrenak izan ziranen izenak. Eta au da berean eskribatua arkitu zana:

6. Oiek dira Judeako probinzian jaiotako, itzuli diranak katiberiotik, zeñara Nabukodonosor Babiloniako erregeak eramanak izan ziran, eta biurtu dira Jerusalenera eta Judeara, bakoitza bere errira.

7. Zeñak etorri dira Zorobabelekin, Josuerekin, Nehemias, Azarias, Raamias, Nahamani, Mardokeo, Belsam, Mesfarath, Begoai, Naum, Baana. Ona emen zenbat izan ziran Israelko erriko gizasemeak:

8. Farosen semeak, bi milla eun eta irurogeita amabi.

9. Safatiaren semeak, irureun eta irurogeita amabi.

10. Arearen semeak, seireun eta berrogeita amabi.

11. Fahath-Moaben seme Josue eta Joaben jatorrietakoak, bi milla zortzireun eta emezortzi.

12. Elamen semeak, milla berreun eta berrogeita amalau.

13. Zethuaren semeak, zortzireun eta berrogeita bost.

14. Zakairen semeak, zazpireun eta irurogei.

15. Bannuiren semeak, seireun eta ogeita zortzi.

16. Bebairen semeak, seireun eta ogeita zortzi.

17. Azgadem semeak, bi milla irureun eta ogeita bi.

18. Adonikamen semeak, seireun eta irurogeita zazpi.

19. Beguairen semeak, bi milla eta irurogeita zazpi.

20. Adinen semeak, seireun eta berrogeita amabost.

21. Aterren Hezeziasen semearen semeak, larogeita emezortzi.

22. Hasemen semeak, irureun eta ogeita zortzi.

23. Besairen semeak, irureun eta ogeita lau.

24. Harefen semeak, eun eta amabi.

25. Gabaonen semeak, larogeita amabost.

26. Bethlehem eta Netufaren semeak, eun eta larogeita zortzi.

27. Anathothko gizonak, eun eta ogeita zortzi.

28. Bethazmothko gizonak, berrogeita bi.

29. Kariathiarimgo, Zefirako, eta Berothko gizonak, zazpireun eta berrogeita iru.

30. Ramako eta Jebako gizonak, seireun eta ogeita bat.

31. Makmasko gizonak, eun eta ogeita bi.

32. Bethel eta Haiko gizonak, eun eta ogeita iru.

33. Beste Neboko gizonak, berrogeita amabi.

34. Beste Elamgo gizonak, milla berreun eta berrogeita amalau.

35. Haremen semeak, irureun eta ogei.

36. Jerikoren semeak, irureun eta berrogeita bost.

37. Loden, Nadiden, eta Onoren semeak, zazpireun eta ogeita bat.

38. Senaaren semeak, iru milla bederatzireun eta ogeita amar.

39. Apaizak: Idaiaren semeak Josueren familian, bederatzireun eta irurogeita amairu.

40. Emmerren semeak, milla eta berrogeita amabi.

41. Fashurren semeak, milla berreun eta berrogeita zazpi.

42. Haremen semeak, milla eta amazazpi. Lebitak:

43. Josueren, eta Zedmihelen semeak, Odbiasen

44. Semeak, irurogeita amalau. Kantariak:

45. Asafen semeak, eun eta berrogeita zortzi.

46. Atezaiak: Selumen semeak, Aterren semeak, Telmonen semeak, Akuben semeak, Hatitaren semeak, Sobairen semeak, eun eta ogeita emezortzi.

47. Nathintarrak: Soharen semeak, Asufaren semeak, Tebbaothen semeak,

48. Zerosen semeak, Siaaren semeak, Fadonen semeak, Lebanaren semeak, Hagabaren semeak, Selmairen semeak,

49. Hananen semeak, Jeddelen semeak, Gaherren semeak,

50. Raaiaren semeak, Rasimen semeak, Nekodaren semeak,

51. Jezemen semeak, Azaren semeak, Fasearen semeak,

52. Besairen semeak, Munimen semeak, Nefusimen semeak,

53. Bakbuken semeak, Hausfaren semeak, Harhurren semeak,

54. Beslothen semeak, Mahidaren semeak, Harsaren semeak,

55. Berkosen semeak, Sisararen semeak, Themaren semeak,

56. Nasiaren semeak, Hatifaren semeak,

57. Salomonen serbitzarien semeak, Sothairen semeak, Soferethen semeak, Faridaren semeak,

58. Jahalaren semeak, Darkonen semeak, Jeddelen semeak,

59. Safathiaren semeak, Hatilen semeak, Fokereth, Sabaim Ammonen semeagandik jaiotakoaren semeak.

60. Nathintar guztiak Salomonen serbitzarien semeakin ziran irureun eta larogeita amabi.

61. Eta ona emen etorri ziranak Thelmela, Thelarsa, Kerub, Addon, eta Emmertik, eta ezin izan zuten erakutsi, zeñ zan beren gurasoen familia, ez zeñ jatorritakoak ziran, ez Israelko errikoak baziran ere.

62. Dalaiaren semeak, Tobiaren semeak, Nekodaren semeak, seireun eta berrogeita bi.

63. Eta apaizetatik, Habiaren semeak, Akosen semeak, Berzelai, Berzelai Galaadtarraren alaba batekin ezkondu zanaren semeak, eta beren izenaz izan zan deitua.

64. Oiek billatu zuten beren jatorriko erroa listan, eta etzuten arkitu. Eta izan ziran kenduak apaiztzatik.

65. Eta esan zien Athersathak, etzitzatela jan aragi santutuak, aliketa egon zedin artean apaiz jakintsu, eta txit on bat.

66. Jende talde guzti au, gizon bat bakarra bezela, berrogeita bi milla irureun eta irurogei,

67. Kontatu gabe beren mendeko gizaseme eta emakumeak, zeñak ziran milla irureun, eta ogeita amazazpi; eta beren artean berreun eta berrogeita bost gizaseme eta emakume kantari.

68. Beren zaldiak, zazpireun eta ogeita amasei, beren mandoak, berreun eta berrogeita bost,

69. Beren gameluak, lareun eta ogeita amabost, astoak sei milla zazpireun eta ogei.

Onaño adirazi da zensoko liburuan eskribatuta arkitu zana
Emendik jarraitzen zaie Nehemiasen berriai

70. Eta familietako Prinzipe batzuek eman zuten obrarako. Athersathak eman zituen tesorurako milla drakma urrezko, berrogeita amar edontzi, eta bosteun eta ogeita amar tunika apaizentzat.

71. Eta familietako Prinzipeak eman zituzten obrako tesorurako milla drakma urrezko, eta bi milla eta berreun mina zillarrezko,

72. Eta gañerako erriak eman zituztenak izan ziran ogei milla drakma urrezko, eta bi milla mina zillarrezko, eta irurogeita zazpi tunika apaizentzat.

73. Gero apaizak eta lebitak, atezaiak eta kantariak, eta gañerako erria, eta Nathintarrak, eta Israel guztia bizi izan ziran bakoitza bere errian.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta allegatua zan zazpigarren illa; eta Israelko semeak beren errietan zeuden. Eta erri guztia bildu zan, gizon bat bakarra bezela, uren atearen aurrean dagoan plazan, eta esan zioten Esdras Eskribari, ekarri zezala Moisesen legeko liburu, Jaunak Israeli eman ziona.

2. Eraman zuen bada Esdras Apaizak legea, gizon, emakume, eta aditu al lezaketean guztien jende taldearen aurrera, zazpigarren illaren lenbiziko egunean.

3. Eta irakurri zuen liburu artan boz klaruarekin, uren atearen aurrean dagoan plazan, goizetik egerdiraño, gizasemeen, emakumeen, eta jakintsuen aurrean. Eta erri guztiak zeuzkan belarriak zur, liburuan irakurtzen zanera.

4. Eta Esdras Eskriba jarri zan zutik, erriari itz egiteko eginerazi zuen zurezko malla goratu batean; eta bere aldamenean zeuden Mathathias, eta Semeia, eta Amia, eta Uria, eta Helzia, eta Maasia eskuietik; eta ezkerretik Fadaia, Misael, eta Melkias, eta Hasum, eta Hasbadana, Zakarias, eta Mosolam.

5. Idiki zuen bada Esdrasek liburua erri guztiaren aurrean, zegoalako beste guztiak baño toki goratuago batean; eta idiki zueneko, jende guztia zutik jarri zan.

6. Eta Esdrasek Jaun Jaungoiko andia bedeikatu zuen; eta erri guztiak erantzun zuen: Amen, Amen, jasotzen zituztela beren eskuak. Eta makurtu ziran, eta auzpezturik lurrean, Jauna adoratu zuten.

7. Eta Josue, eta Bani, eta Serebia, Jamin, Akub, Septhai, Odia, Maasia, Zelita, Azarias, Josabed, Hanan, Falaia, Lebitak, ixillik egonerazitzen zioten erriari, legea aditu zezan, eta jendea zegoan zutik, bakoitza bere tokian.

8. Eta irakurri zuten Jaungoikoaren legeko liburua zoli eta berezikiro, aditu zezakean eran, eta aditu zuten irakurtzen zanean.

9. Eta Nehemias (zeñ dan Athersatha bera) eta Esdras apaiz eta Eskriba, eta Lebita, erri guztiari Legea azaldutzen zietenak, esan zuten: Egun au gure Jaun Jainkoari konsagratua dago: etzaitezte egon suspirioz,

eta ez ezazute ere negarrik egin. Zeren erri guztiak negar egiten zuen aditzen zituenean legeko itzak.

10. Eta esan zien: Zoazte, eta jan itzatzute aragi gizenak, eta edan ezazute ardo gozoa, eta bialdu zaieztezute zatiak, berentzat prestatu ez dituztenai, zeren Jaunaren egun santua da, eta etzaitezte triste egon, bada Jaunaren poza da gure sendotasuna.

11. Eta Lebitak ixillik egonerazitzen zioten erri guztiari, esaten zutela: ixillikan zaudete, zeren egun santua da, eta etzaitezte tristetu.

12. Onenbesterekin alde egin zuen erri guztiak jatera, eta edatera, eta zatiak ematera, eta pesta andi bat zelebratzera, aditu zituztelako azaldu zitzaiozkaten itzak.

13. Eta biaramonean erri guztiko familien Prinzipeak, apaizak eta Lebitak, joan ziran Esdras Eskribagana, azaldu dizaiezten legeko itzak.

14. Eta arkitu zuten eskribatua legeko liburuan, Jaunak agindu zuela Moisesen bitartez, Israelko semeak bizi zitezela txaoletan zazpigarren illeko jai andian,

15. Eta esan ta adirazi zezatela beren erri guztietan, eta Jerusalenen onela: Atera zaitezte mendira, eta ekarri itzatzute oliboen adarrak, eta zuaitzik ederrenen adarrak, arraianen adarrak, eta palmen adarrak, eta zuaitz ostotsuen adarrak, txaolak egiteko, eskribatua dagoan bezela.

16. Eta atera zan erria eta ekarri zituzten. Eta egin zituzten berentzat txaola batzuek, bakoitzak bere etxeko lurrezko sabaiaren gañean, eta beren etxe urubeetan, eta Jaungoikoaren etxeko atarietan, eta uren ateko plazan, eta Efraimgo ateko plazan.

17. Eta katiberiotik itzuli ziran aien batzarre guztiak egin zituzten txaolak, eta bizi izan ziran txaoletan, zeren Israelko semeak etzuten beñere orain bezela egin, Josue Nunen semearen denboratik. Beren poza txit andia izan zan.

18. Eta irakurri zuen egun guztietan Jaungoikoaren legeko liburuan, lenbiziko egunetik atzenekoraño, eta zelebratu zuten jaia zazpi egunean, eta zortzigarrenean batzarrea elizan, aginduta dagoanaren araura.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Eta il onen ogeita laugarrenean bildu ziran Israelko semeak, barau egiten zutela, jantziten zituztela zakuak, eta betetzen zituztela buruak autsez.

2. Eta Israelko semeen jatorria berezitua zegoan onezkero arrotz guztietatik; eta jarririk Jaunaren aurrean, aitortzen zituzten beren bekatuak, eta beren gurasoen gaiztakeriak.

3. Eta jaiki ziran zutik egoteko, eta irakurri zuten beren Jaun Jainkoaren legeko liburuan, egunean lau alditan, eta beren Jaun Jainkoa lau alditan alabatzen, eta adoratzen zuten.

4. Onetarako igo ziran Josue eta Bani, eta Zedmihel, Sabania, Bonni, Sarebias, Bani, eta Kanani Lebiten toki goratura, eta ots egin zioten deadar andiarekin beren Jaun Jainkoari.

5. Eta Josue, eta Zedmihel, Bonni, Hasebnia, Serebia, Odaia, Sebnia, Fathahia Lebitak, esan zuten: Jaiki zaitezte, bedeikatu ezazute zuen Jaun Jainkoa betikotik betikora, eta bedeikatu bezate zure gloriako izen goratua, bendizio eta alabanza guztiarekin.

6. Zerorrek, o Jauna, zuk bakarrik egin ziñituen zerua, eta zeruen zeruak, eta beren ejerzitu guztiak; lurra, eta bertan dagoan guztia; eta itsasoak, eta beretan dagoan guztia, eta zuk ematen diezu bizia gauza guzti oiei, eta zeruko ejerzituak zu adoretan zaitu.

7. Zu izan ziñan, o Jauna, autu zenduena Abram, eta atera zenduena Kaldeoen Urtik, eta jarri ziñiona Abrahamen izena;

8. Eta arkitu zenduen leiala zala bere biotza zure aurrean, eta eginik elkartasuna berarekin, eskeñi ziñion emango ziñiola Kanaantarraren, eta Hethearraren, eta Amortarraren, eta Fereztarraren, eta Jebustarreren, eta Jerjestarraren lurra, emateko bere jatorriari; eta kunplitu zenduen zure itza, zeren justoa zeran.

9. Eta ikusi zenduen gure gurasoen larritasuna Egipton, eta aditu ziñituen beren deadarrak Itsasgorriaren aldean.

10. Eta egin ziñituen mirariak, eta gauza izugarriak Faraonen kontra, eta bere morroe guztien kontra, eta lur artako erri guztiaren kontra; zeren bazenekien berak tratatu ginduztela arrokeriarekin. Eta egin zenduen zure izena argitsua, gaurko egunean ere dan bezela.

11. Eta berezitu zenduen itsasoa beren aurrean, eta irago ziran itsasoaren erditik lur leorretik, eta bota ziñituen beren persegitzalleak itsasondora, ur osinean erortzen dan arria bezela.

12. Eta izan ziñan beren gidaria odeizko abe batean egunaz, eta suzko abe batean gauaz, ikusi zezaten zijoazen bidea.

13. Berebat jetxi ziñan beren gañera Sinaiko mendian, eta itz egin zenduen berakin zerutik, eta eman ziñiezten erabaki zuzenak, eta egiaren lege bat, zeremoniak eta agindu onak.

14. Eta erakutsi ziñien konsagratzen zuri larunbata, eta jarri ziñiezten aginteak, eta zeremoniak, eta legea, zure serbitzari Moisesen bitartez.

15. Eman ere ziñien zeruko ogia gose ziranean, eta egarri izan ziranean ateraerazi zenduen ura aitz batetik, eta esan ziñien sartu zitezela lur batera, izatera bere jabe, zeñ ematea eskeñi ziñioten jasorik zure eskua.

16. Baña berak, eta gure gurasoak portatu ziran arrokeriarekin, eta gogortu zituzten beren lepoak, eta etzituzten aditu zure aginduak.

17. Etzinduten aditu nai, eta etzuten oroitu ere nai, beren alde egin ziñituen mirariakin, baizik gogortu zituzten beren lepoak, eta jarri zitzaien buruan, beren katiberiora itzuli bear zutela, leian bezela. Baña zuk, o Jaungoiko ongigilla, beraa, eta urrikaritsu, itxedopen luzeko, eta biguntasun andikoak, etziñituen utzi.

18. Eztaere egin zutenean berentzat menast urtuzko txal bat, eta esan zutenean: Au da zure Jaungoiko, Egiptotik atera zinduena. Eta egin zituzten blasfemia andiak.

19. Alaere zuk, zure urrikaritasun andiagatik, etziñituen utzi eremuan, etzuen alderik egin berakgandik egunaz odeizko abe, bidea erakusten zienak; ez gauaz suzko abeak, erakusteko zeñ bidetatik joan bear ziran.

20. Eta eman ziñien zure espiritu ona, erakutsi zizaien, eta etzenduen kendu mana beren aotik, eta eman ziñien ura beren egarrian.

21. Berrogei urtean eman ziñien janaria eremuan, eta etzitzaien ezer faltatu, beren soñekoak etziran zartu, eta beren oñak etzitzaiezten minberatu.

22. Eta egin ziñituen erreñuen eta errien jabeak, eta partitu ziñiezten suertez. Eta izan ziran Sehongo lurraren, eta Hesebongo erregearen lurraren, eta Og Basango erregearen lurraren jabeak.

23. Eta ugaritu ziñituen beren semeak zeruko izarrak bezela, eta ekarri ziñituen lur batera, zeñagatik esan ziñien beren gurasoai, beratan sartuko zirala, eta bere jabeak izango zirala.

24. Eta etorri ziran semeak, eta egin ziran bere jabe; eta zuk azpiratu ziñituen beren aurrean, bertan bizi ziran Kanaantarrak, eta jarri ziñituen beren eskuetan beren erregeakin, eta beren lurreko err..., egin zezaten berakin nai zutena.

25. Artu zituzten bada erri sendatuak, eta lur gu.. bat, eta sartu ziran onera mota guztiaz betetako etxeetan. Eta arkitu zituzten bestek egindako urpetegiak, mastiak, eta olibodiak, eta fruta zuaitz asko, eta jan zuten, eta ase ziran, eta gizendu ziran, eta atsegiñ ugari izan zuten zure ontasun andiagatik.

26. Baña aserretuerazi zizuten, eta zugandik alde egin zuten, eta zure legea beren bizkarretara bota zuten. Eta il zituzten zure profeta, erregutzen zietenak, arren itzuli zitezela zugana, eta erori ziran nazkagarri andietan.

27. Eta jarri ziñituen beren etsaien eskuetan, zeñak atsekabetu zituzten. Eta beren estutasuneko denboran deadarrez zuzendu ziran zugana, eta zuk zerutik aditu zinduzten, eta zure urrikaltasun andiagatik eman ziñiezten Salbatzalleak, libratu zitzaten beren etsaien eskuetatik.

28. Eta atsedenean gelditu ziranean, itzuli ziran gaiztakeriak egitera zure aurrean; eta zuk jarri ziñituen beren etsaien eskuetan, zeñak iduki zituzten beren mendean. Eta zugana biurtu ziran, eta zuri deadarrez ots egin zizuten, eta zuk zerutik aditu zinduzten, eta zure urrikaltasun andiagatik, asko alditan libratu ziñituen.

29. Eta adirazi ziñien, itzuli zitezela zure legera; baña berak arrokeriaz portatu ziran, eta etzituzten aditu zure aginduak, eta bekatu egin zuten zure erabakien kontra, zeñak gizonak gordetzen baditu, berakgatik biziko da. Eta jarri zituzten bizkar marmarizkariak, eta gogortu zituzten beren lepoak, eta etzuten aditu.

30. Alaere zuk sufritu ziñituen urte askotan, eta gaztigatu ziñituen zure espirituaren bitartez, itz egiten ziñiela profeten aoz; baña etzuten aditu nai izan, eta jarri ziñituen erreñuetako errien eskuetan.

31. Baña zure urrikaltasunen ugaritasun andiagatik, etziñituen arras desegin, ezta utzi ere, zeren zu zera urrikaltasunaren eta biguñtasunaren Jaungoikoa.

32. Orain bada gure Jaungoiko andia, sendoa, eta ikaragarria, gordetzen dezuna elkartasuna eta urrikaltasuna, ez bitzare alderik egin zure begiak, euriaren ugaritasunarekin etorri diran naigabe guztietatik, gure, gure erregeen, eta gure prinzipeen, eta gure apaizen, eta gure profeten, eta gure gurasoen, eta zure erri guztiaren gañera, Asiriako erregearen denboratik, gaurko eguneraño.

33. Justoa zera zu, gure gañera etorri diran gaitz guzti oietan, zeren zuk leialkiro kunplitu dituzun eskeñiak; gu berriz gaiztakiro portatu geran.

34. Gure erregeak, gure prinzipeak, gure apaizak, eta gure gurasoak ez dute zaitu zure legea; ez diete ere begiratu zure aginduai, ezta aditu zuk egiten ziñiezten deiak.

35. Eta berak agintzen zutenean, eta egiten ziñiezten mesede andietan gozatzen ziranean; eta lur zabal eta ugari, beren aukeran jarri zenduen onetan bizi ziran artean, etzinduten serbitu, eta etzuten ere alderik egin beren griña txit gaiztoetatik.

36. Eta ona non gerok gaur geran mendekoak, eta gure gurasoai eman ziñien lur onetan, jan zitzaten beren ogia, eta bere frutak, eta gerok ere bertan gera mendekoak.

37. Eta bere aleak ugaritutzen dira erregu aientzat, zeñaen mendean gure bekatuak gatik jarri ginduzun. Berak dira gure gorputzen eta gure zamarien jabeak, berai gogoak ematen dien eran; eta atsekabe andian gaude.

38. Gauza guzti oiekgatik bada, gerok juramentuz eskeñtzen degun leialtasuna, eta eskribuz jartzen degu, eta firmatzen dute gure Prinzipeak, gure Lebitak, eta gure Apaizak.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Firmatu zutenak izan ziran: Nehemias Athersatha Akelairen semea, eta Sedezias,

2. Saraias, Azarias, Jeremias,

3. Feshur, Amarias, Melkias,

4. Hattus, Sebenias, Meluk,

5. Harem, Merimuth, Obdias,

6. Daniel, Jenthon, Baruk,

7. Mosolam, Abia, Miamin,

8. Maasia, Belgai, Semeia. Oiek guztiak apaizak.

9. Lebitak izan ziran: Josue Azaniaren semea, Bennui Henadaden semeetatikoa, Zedmihel;

10. Eta beren anaiak Sebenia, Odaia, Zelita, Falaia, Hanan,

11. Mika, Rohob, Hasebia,

12. Zakur, Serebia, Sabania,

13. Odaia, Bani, Baninu.

14. Erriko buruak: Faros, Fahathmoab, Elam, Zethu, Bani,

15. Bonni, Azgad, Bebai,

16. Adonia, Begoai, Adin,

17. Ater, Hezezia, Azur,

18. Odaia, Hasum, Besai,

19. Haref, Anathoth, Nebai,

20. Megfias, Mosolam, Hazir,

21. Mesizabel, Sadok, Jeddua,

22. Felthia, Hanan, Anaia,

23. Osee, Hanania, Hasub,

24. Alohes, Falea, Sobek,

25. Rehum, Hasebna, Maasia,

26. Ekaia, Hanan, Anan,

27. Meluk, Haran, Baana,

28. Eta erriaren gañerakoak, Apaizak, Lebitak, atezaiak, eta kantariak, Nathintarrak, eta beste erreñuetatik berezitu ziran guztiak Jaungoikoaren legera, beren emazteak, beren semeak, eta beren alabak;

29. Ezaguera iduki lezaketen guztiak eskeñtzen zuten beren anaiakgatik. Beren artean andizkiak etorri ziran eskeñtzera eta juramentu egitera, biziko zirala Jaungoikoaren lege, Moises Jaungoikoaren serbitzariaren bitartez eman zienaren araura, eta zaitu eta kunplituko zituztela beren Jaun Jainkoaren aginte guztiak, eta bere erabakiak, eta bere zeremoniak,

30. Eta ez giñieztela emango gure alabak beste erreñuko gizasemeai, eta ez giñituela ere artuko beren alabak gure semeentzat.

31. Berebat, jentillak ekartzen dituztenean merkatu gauzak, eta jateko gauzak saltzera larunbatean, ez giñieztela erosiko larunbatean, ez beste jaiegunean ere; utziko diogula geldirik egoten lurrari zazpigarren urtean, eta ez degula ere eskatuko berean, diguten zorrik.

32. Eta ipiñiko degula guretzat lege bat, emateko urte guztietan siklo baten irugarren partea, gure Jaungoikoaren etxeko gastuetarako,

33. Proposizioko ogietarako, eta betiko sakrifiziorako, eta betiko holokaustorako larunbatetan, kalendetan, jai andietan, eta gauza santutuetarako, eta bekatuagatik eskeñtzen diradenetarako, Israelgatik erregutu dedin, eta gure Jaungoikoaren etxeko serbizo guztirako.

34. Bota ere giñituen suerteak apaizen eta lebiten eta erriaren artean, eskeñi eta eraman bear zan egurraren gañean Jaunaren etxera, bere denboretan, urte batetik besterako, gure Jaun Jaungoikoaren aldarearen gañean erretzeko, Moisesen legean eskribatua dagoan bezela.

35. Eta ekarriko giñituela urtetik urtera Jaunaren etxera gure lurraren primiziak, eta zuaitz guztiaren fruta guztiaren primiziak

36. Eta gure semeen eta gure abereen lenbizisortuak, legean eskribatua dagoen bezela, eta gure idien eta gure ardien lenbizisortuak, gure Jaungoikoaren etxean eskeñiak izan zitezen, gure Jaungoikoaren etxean serbitzen zuten apaizentzat.

37. Eta ekarriko dieztegu apaizai gure Jaungoikoaren tesorurako gure janarien, eta gure edarien, eta zuaitz guztiaren fruten, eta mendainaren, eta olioaren primiziak; eta gure lurren amarrena lebitai. Lebitak berak artuko dute gure erri guztietan gure lanen amarrena.

38. Aaronen seme apaizak ere sartuko dira lebitakin, lebiten amarrenen partean, bada oiek eskeñiko dute beren amarrenaren amarrena gure Jaungoikoaren elizan, gordetzeko tesoruko etxean.

39. Zeren Israelen semeak eta Lebiren semeak eramango dituzte gordelekura gariaren, ardoaren eta olioaren primiziak, eta an egongo dira ontzi konsagratuak, eta apaizak, eta kantariak, eta atezaiak, eta ministroak, eta ez degu utziko gure Jaungoikoaren etxea.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Eta erriko Prinzipeak gelditu ziran egotez Jerusalenen, baña gañerako jendearen amargarren partea, atera zan suertean gelditu zedin Jerusalen, erri santuan, eta beste bederatziak beste errietan.

2. Eta erriak bedeikazioz bete zituen, borondatez eskeñi ziran guztiak, Jerusalenen bizitera.

3. Oiek dira bada probinziako Prinzipe, Jerusalenen eta Judako errietan bizilekua artu zutenak. Bakoitza bizi izan zan berari zegokan tokian, eta bere errian, ala Israelko erria, nola apaizak, eta lebitak, eta Natintarrak, eta Salomonen serbitzarien semeak.

4. Eta Jerusalenen artu zuten bizilekua Judaren semeetatikoak, eta Benjaminen semeetatikoak: Judaren semeetatikoak Athaias Aziamen semea, Zakariasen semea, Amariasen semea, Safatiasen semea, Malaleelen semea. Faresen semeetatik:

5. Maasia Baruken semea, Kolhozaren semea, Aziaren semea, Adaiaren semea, Joiariben semea, Zakarias Silontar baten semearen semea.

6. Faresen seme, Jerusalenen bizilekua artu zuten guzti oiek izan ziran irurogeita zortzi, gizon bulardetsuak.

7. Eta Benjaminen semeak dira oiek: Selum Mosolamen semea, Joeden semea, Fadaiaren semea, Kolaiaren semea, Masiaren semea, Etheelen semea, Isaiaren semea;

8. Eta bere ondorean Jebbai, Selai, guztitan bederatzireun eta ogeita zortzi.

9. Eta Joel Zekriren semea zan beren Gidaria, eta Judas Senuaren semeak zeukan bigarren lekua errian.

10. Eta apaizetatik, idaia Joariben semea, Jakin,

11. Saraia Helziasen semea, Mosolamen semea, Sadoken semea, Meraiothen semea, Akitob Jaungoikoaren etxeko Prinzipearen semea.

12. Eta oien anaia, tenploko lanetan ari oi ziradenak, zortzireun eta ogeita bi. Eta Adaia Jerohamen semea, Feleliaren semea, Amsiren semea, Zakariasen semea, Feshurren semea, Melkiasen semea.

13. Eta beren anaiak familietako prinzipeak, berreun eta berrogeita bi. Eta Amasai Azreelen semea, Ahaziren semea, Mosolamothen semea, Emmerren semea,

14. Beren anaiakin, zeñak ziran txit almentsuak, eun eta ogeita zortzi, eta beren gidaria Zabdiel, andizki baten semea.

15. Lebitetatik: Semeia Hasuben semea, Azarikamen semea, Hazabiaren semea, Boniren semea.

16. Eta Sabathai eta Jozabed, Jaungoikoaren etxeko kanpo aldeko obra guztien begiraleak; Lebitetatik nagusienak.

17. Eta Mathania Mikaren semea, Zebedeiren semea, Asafen semea, lenbiziko kantaria salmoetan eta himnoetan orazioko denboran, eta Bekbezia, bigarrena bere anaien artean, eta Abda Samuaren semea, Galalen semea, idithumen semea.

18. Lebita guztiak erri santuan ziran berreun eta larogeita lau.

19. Akub, Telmon, eta beren anaia atezai, ateak zaitzen zituztenak, ziran eun eta irurogeita amabi.

20. Israelko apaizen eta lebiten gañerakoak zeuden barreiatuak Judako erri guztietatik, bakoitza jabe zan bere tokian.

21. Eta Nathintarrak bizi ziran Ofelen, eta Siaha, eta Gasfa ziran Nathintarren buruak.

22. Eta lebiten begiralea Jerusalenen zan Azzi Baniren semea, Hasabiasen semea, Mathaniasen semea, Mikaren semea. Jaungoikoaren etxean serbitzen zuten kantariak ziran Asafen jatorrikoak:

23. Zeren beren gañean, eta egun guztietan kantarien artean gorde bear zan maneraren gañean, zegoan Erregearen agindu bat.

24. Eta Fathathia Mesezebelen seme, Zara Judaren semearen jatorrikoak. zeukan erregearen eskubidea, erriko gauza guztiak konpontzeko,

25. Eta egotez arkitzen ziran toki guztietarako. Judako semeetatik batzuek artu zituzten bizilekuak Kariatharbe eta bere erritxoetan, eta Dibonen eta bere erritxoetan, eta Kabseelen eta bere inguruan.

26. Eta Jesuen, eta Moladan, eta Bethfalethen,

27. Eta Hasersualen, eta Bersabeen eta beren erritxoetan.

28. Eta Sizelejen, eta Mokonan, eta beren erritxoetan,

29. Eta Remnonen, eta Saraan, eta Jerimuthen.

30. Zanoan, Odolamen, eta beren erritxoetan: Lakisen eta bere barrutian, Azekan eta bere erritxoetan. Eta egin ziran Bersabeeko auzo, Ennomgo ibarreraño.

31. Benjaminen semeak berriz jarri ziran egotez Jebatik, Mekmas, eta Hai, eta Bethel, eta beren erritxoetaraño.

32. Anathoth, Nob, Anania,

33. Asor, Rama, Jethaim,

34. Hadid, Seboim, eta Nebalat, Lod.

35. Eta Ono, arte langilleen ibarreraño.

36. Juda eta Benjaminen ere baziran Lebitak, gauza batzuen jabe.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Oiek dira Zorobabel Salathielen semearekin, eta Josuerekin etorri ziran apaizak, eta lebitak: Saraia, Jeremias, Esdras,

2. Amaria, Meluk, Hattus,

3. Sebenias, Rheum, Merimuth,

4. Addo, Jenthon, Abia,

5. Miamin, Madia, Belga,

6. Semeia, eta Joiarib, idaia, Selum, Amoe, Helzias.

7. Idaia. Oiek dira apaizen prinzipe, etorri ziranak beren anaiakin Josueren egunetan.

8. Lebitak izan ziran Jesua, Bennui, Zedmihel, Sarebia, Juda, Mathanias, zeñak beren anaiakin kantatzen zuten, eta zuzentzen zituzten himnoak;

9. Eta Bekbezia, eta Hanni, beren anaiakin, bakoitza bere lanean.

10. Josuegandik izan zan sortua Joazim, Joazimgandik izan zan sortua Eliasib, eta Eliasibgandik izan zan sortua Joiada.

11. Joiadagandik izan zan sortua Jonathan, Jonathangandik izan zan sortua Jeddoa.

12. Eta Joazimen denboran familietako buru apaizak ziran, Saraiasen familiarena, Maraia, Jeremiasen familiarena, Hanania,

13. Esdrasen familiarena, Mosolam, Amariasen familiarena, Johanan:

14. Milikoren familiarena, Jonathan, Sebeniasen familiarena, Josef,

15. Haramen familiarena, Edna, Maraiothen familiarena, Helzi,

16. Adaiaren familiarena, Zakarias, Jenthonen familiarena, Mosolam.

17. Abiaren familiarena, Zekri, Miaminen, eta Moadiasen familiena, Felti,

18. Belgaren familiarena, Sammua, Semaiaren familiarena, Fonathan,

19. Joiariben familiarena, Mathanai, Jodaiaren familiarena, Azzi,

20. Zelairen familiarena, Zelai, Amoken familiarena, Heber,

21. Helziasen familiarena, Hasebia, Idaiaren familiarena, Nathanael.

22. Eliasiben, eta Joiadaren, eta Johananen, eta Jeddoaren denboretan bizi izan ziran lebiten gañean berriz, eskribatuak izan ziran lebiten familia aien buruak, nola apaizenak, Dario Persiako erregearen erregetzan.

23. Lebien seme, familietako buruak ere, eskribatuak daude urteoroko berrien liburuan, Jonathan Eliasiben semearen denboraraño.

24. Lebiten Prinzipeak bada ziran Hasebia, Serebia, eta Josue Zedmihelen semea beren anaiakin, zeñak ari oi ziran himnoak eta salmoak kantatzen beren txandetan, Dabid Jaungoikoaren gizonaren erabakiaren araura, eta egon oi ziran zaitzen, bakoitza bere txandan.

25. Mathania, eta Bekbezia, Obedia, Mosolam, Telmon, Akub ziran ateetako, eta beren aurreko atarietako gordetzalleak.

26. Oiek bizi ziran Joazim Josueren semearen, Josedeken semearen denboran; eta Nehemias eraentzalle, eta Esdras apaiz eta Eskribaren denboran.

27. Jerusalengo murruen dedikaziorako billatu ziran toki guzietatik lebitak, etorrierazitzeko Jerusalenera zelebratzera dedikazioa, eta pestak, eskerrak emateko kantakin, zinbaloakin, salterioakin, eta zitarakin.

28. Bildu ziran bada Jerusalengo kanpoetako, eta Nethufathiko erritxoetako kantariak,

29. Eta Galgalen etxekoak, eta Jeba, eta Azmabetko barrutietakoak, zeren kantariak egin zituzten erritxoak Jerusalen inguruan.

30. Eta garbitu ziran apaizak eta lebitak, eta garbitu zituzten erria, eta ateak, eta murrua.

31. Eta igoerazi nien murruaren gañera Judako Prinzipeai, eta jarri nituen kantariak bi koru anditan. Eta zuzendu ziran eskuirontz murruaren gañean zimaurtokiko aterontz.

32. Eta beren ondorean zijoazen Osaias, eta Judako Prinzipeen erdia,

33. Eta Azarias, Esdras, eta Mosolam, Judas, eta Benjamin, eta Semeia, eta Jeremias.

34. Eta apaizen semeetatik tronpetakin, Zakarias Jonathanen semea, Semeiasen semea, Mathaniasen semea, Mikaiasen semea, Zekurren semea, Asafen semea,

35. Eta beren anaiak Semeia, eta Azareel, Malalai, Galalai, Maai, Nathanael, eta Judas, eta Hanani, Dabid Jaungoikoaren gizonaren musikako erremientakin, eta Esdras Eskriba beren aurrean iturriko atean.

36. Oien aurkez igo ziran besteak, Dabiden erriko malletatik, murruaren igoeran Dabiden etxearen gañean, eta uren ateraño sortalderontz.

37. Eta eskerrak ematen zituztenen bigarren korua zijoan aurkez, eta ni bere ondorean, eta erriaren erdia murruaren gañean, eta labeen dorrearen gañean, murrua zabalago dan tokiraño,

38. Eta Efraimgo atearen gañean, eta anziñako atearen gañean, eta arraiaren atearen gañean, eta Hananeelen dorrearen, eta Emathen dorrearen gañean, abereen ateraño, eta gelditu ziran presondegiko atean.

39. Eta kantarien bi koruak gelditu ziran Jaungoikoaren etxean, ni, eta majistraduen erdiak nerekin zeudela.

40. Eta Eliakim, Maasia, Miamin, Mikea, Elioenai, Zakaria, Hanania, Apaizak beren tronpetakin,

41. Eta Maasia, eta Semeia, eta Eleazar, eta Azzi, eta Johanan, eta Melkia, eta Elam, eta Ezer. Eta kantariak kantatu zuten boz klaruan, eta Jezraia zan beren gidaria.

42. Eta il, ta eskeñi ziran egun artan doañ andiak, eta txit poz izan ziran, zeren Jaungoikoak itsatsi zien poz andi bat, eta beren emazteak eta semeak ere poztu ziran, eta Jerusalengo poza urrutitik aditua izan zan.

43. Autu ere ziran egun berean batzuek apaizen eta lebiten artetik, tesoruko garitegiak zaitzeko, erriko andizkiak aien eskuz aurkeztu zitzaten, kotiz honra andiko bat bezela eskerrak emateko, edarien, eta primizien, eta amarrenen eskeñtzak, zeren Judak iduki zuen poz andia, an zeuden apaiz eta lebitakin.

44. Eta oiek beren aldetik ederki kunplitu zuten beren Jaungoikoaren elizkizunakin, eta espiazioko zeremoniakin, baitaere kantariak eta atezaiak, Dabidek eta bere seme Salomonek agindu zuten bezela,

45. Zeren asieratik, Dabiden eta Asafen denboran zeuden ipiñiak kantarien Prinzipeak, zeñak himnoakin alabatu eta bedeikatzen zuten Jaungoikoa.

46. Eta Israel guztiak Zorobabelen denboran, eta Nehemiasen denboran ematen ziezten egunoro beren anoak kantariai, eta atezaiai, eta santututzen zituzten lebitak, eta lebitak santututzen zituzten Aaronen semeak.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Denbora artan irakurten zan erriaren aurrean Moisesen legeko liburua; eta arkitu zan eskribatua berean, Ammontarrak, eta Moabtarrak etzirala iñoiz sartuak izan bear Jaungoikoaren elizan,

2. Etziezteelako atera bidera Israelko semeai ogi, eta urarekin, baizik erosi zutelako diruarekin Balaam, madarikatu zitzan, gure Jaungoikoak madarikazioa bedeikazio biurtu bazuen ere.

3. Legea aditu zuteneko, berezitu zuten Israeltik arrotz guztia.

4. Lanbide au zegoan Eliasib apaizaren kontura, zeñ izan zan gure Jaungoikoaren etxeko tesoruaren begirale nagusia, eta Tobiasen aidea zan.

5. Berak bada egin zuen beretzat bizileku andi bat, eta bera baño lenago an gordetzen ziran ofrendak, eta inzensoa, eta ontziak; eta gariaren, eta ardoaren, eta olioaren amarrenak, zeñak ziran lebiten, eta kantarien, eta atezaien tokamenak, eta apaizen primiziak.

6. Denbora onetan ez nengoan ni Jerusalenen; zeren Artajerjes Babiloniako erregearen ogeita amabi garren urtean, itzuli nintzan erregeagana, eta urtearen atzenean eskatu nion baimena erregeari,

7. Eta etorri nintzan Jerusalenera, eta aditu nuen, zeñ gaizki egin zuen Eliasibek Tobiasen amorioz, egitean oni bizilekua Jaungoikoaren elizako atarietan:

8. Eta txit gaizki iritzi zitzadan. Eta bota nituen kanpora Tobiasen etxeko tresnak bere bizilekutik,

9. Eta agindu nuen garbitu zitzatela bizilekuak, eta berriz eraman nituen ara Jaungoikoaren etxeko ontziak, ofrendak, eta inzensoa.

10. Eta aditu nuen etzitzaieztela emanak izan lebitai beren tokamenak, eta argatik lebitak, ala kantariak nola elizan serbitzen zuten gañerakoak, joan zirala bakoitza bere errira.

11. Eta artu nuen eskua majistraduen kontra, eta esan nuen: Zergatik utzi degu Jaungoikoaren eliza? Eta gero bildu nituen lebitak, eta bakoitzari bere lanean egonerazi nion.

12. Eta Juda guztiak ekartzen zuen gariaren, ardoaren, eta olioaren amarrena aletegietara.

13. Eta jarri giñituen aletegien begirale nagusi Selemias apaiza, eta Sadok Eskriba, eta Fadaias lebitetatik, eta oien ondorean Hanan, Zakurren Mathaniasen semearen semea, ikusi zutelako oiek leialak zirala, argatik utzi ziran beren kontura beren anaien tokamenak.

14. Argatik oroitu zaite nerekin, nere Jainkoa, eta etzaite aztu, nik nere Jaungoikoaren etxearen, eta zure elizkizunen alde egin nituenakin.

15. Egun aietan ikusi nituen batzuek Judan zapaltzen zutela matsa dolaretan larunbatean, eta egun onetan ekartzen ere zituztela egur kargak, eta jartzen ere zituztela astoen gañean ardo, mats, piku, eta gauza mot guztien zamak, eta sartzen zituztela Jerusalenen. Eta agindu nien argiro, saldu zezatela, saltzea zillegi dan egunetan bakarrik.

16. Berebat Tiroarrak errian bizi ziran, eta ekartzen zuten saltzera arraia, eta gauza mota guztia, eta larunbatetan Jerusalenen Judako semeai saltzen ziezten.

17. Eta errierta egin nien Judako andizkiai, eta esan nien: Zer gaiztakeria da egiten dezuten au, profanatzen dezutela larunbateko eguna?

ESDRASEN IRUGARREN LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Eta Josiasek Jaunari Jerusalenen Pazkoa egin zion, eta lenbiziko illeko amalaugarren illargian, legeko Bildotsa il, eta eskeñi zuen,

2. Jartzen zituela apaizak Jaunaren tenploan, estolak zeuzkatela, egunetan aldizka.

3. Eta Israelko serbitzari Lebita konsagratuai esan zien, santutu zitezela Jaunarentzat, Jaunaren kutxa santua zegoan tokian, Salomon, Dabid erregearen semeak egin zuen etxean.

4. Ez dezute bera bizkarraren gañean eramango. Eta orain zuen Jauna serbitu ezazute, eta iduki ezazute Israelko jende aien zati batzuen ajola, zuen erri, eta tribuen araura,

5. Dabid Israelko erregeak eskribituta utzi zuenaren araura, eta bere seme Salomonen anditasun arrigarriaren araura, guztiok tenploan, eta Israelko semeen anaien aurrean dauden aien, zuen gurasoak zeukaten partilltasuntxoaren araura.

6. Bildotsak il, ta eskeñi, eta Pazkoa zelebratu ezazute, eta zuen anaientzat sakrifizioak prestatu itzatzute, eta Jaunak Moisesi eman zion agintearen araura egin ezazute.

7. Eta Josiasek eman zion erriko jendetza, argi zanari, ogeita amar milla ardi, arkume eta auntzkume, eta auntz, eta iru milla txal.

8. Oiek erregearen gauzaetatik emanak izan zaiozkan erriari, agindua zegoanaren araura; eta apaizai Pazkoan milla ardi eta eun txal.

9. Eta Jekoniasek, eta Semeiasek, eta Natanael anaiak, eta Hasabiasek, eta Ozielek, eta Korabak Pazkoako afarian bost milla ardi, eta bost eun txal.

10. Eta nola oiek galanki egiten ziran, apaiz, eta Lebitak tribuetatik egon ziran legamigabeak zeuzkatela.

11. Eta gurasoak zeukaten eskubidearen araura, erriaren aurrean Jaunari eskeñtzen zioten, Moisesen liburuan eskribitua dagoanaren araura.

12. Eta Pazkoako afariko bildotsak suan erre zituzten, bear zan bezela, eta eskeñtzekoak egosi zituzten topiñetan, eta eltzeetan iritzi onarekin.

13. Eta jendetzakoak ziraden guztiak ekarri zituzten, eta oien ondoan berentzat, eta apaizentzat, prestatu zituzten.

14. Zeren apaizak eskeñtzen zituzten gizenak ordua bukatu arteraño, eta Lebitak berentzat, eta beren anaientzat, Aaronen semeentzat prestatzen zituzten.

15. Eta kantari konsagratuak, Asafen semeak, txandaka zeuden, Dabidek agindu zuen bezela, eta Asaf, eta Zakarias, eta Jeddimus, zeñ erregeagandik zetorren.

16. Eta atezaiak ate bakoitzean, alako moduan, non, batek ere etzuen utzik egingo bere lanean, zeren beren anaiak prestatu ziezten berai.

17. Eta bukatu ziran, Jaunaren sakrifizioari zegokitenak:

18. Egun artan egin zuten Phase afaria, eta Jaunaren sakrifizioaren gañean doañak eskeñtzen zituzten; Josias erregearen agintearen araura.

19. Eta denbora artan arkitu ziran Israelko semeak, Phase afaria egin zuten, eta legamigabeen jaieguna zazpi egunean.

20. Eta alako Phase afaririk, etzan Israelen zelebratu, Samuel profetaren denboratik.

21. Eta errege guzietatik batek ere, etzuen zelebratu alako Pazkoarik, nolakoa egin zuten Joasias, eta apaizak eta Lebitak, eta Jerusalenen egotez arkitu ziran Israeltar guztiak.

22. Emezortzigarren urtean, Josiasek agintzen zuela, Phase zelebratu zan.

23. Eta Joasiasen obrak zuzendu ziran bere Jaunaren aurrera, beldurrez begiratzen zionagana biotz osoarekin.

24. Eta egiazki, bere inguruan eskribitu ziran gauzak anziñako denboretan, bekatu egin zutenakgatik, eta fedegabeak ziradenakgatik Jaunaren kontra, jende guziez gañetik, eta Jaunaren itzak, Israelen gañean billatu etzituztenak.

25. Eta Josiasen egite guzti oien ondoan, Faraon Ejiptoko erregea igo zan, bazetorrela Txarkamisera, Eufratesen gañeko bidetik, eta Josiasek bidera irten zion.

26. Eta Ejiptoko erregeak bialdu zion Josiasi, esaten ziola: Judeako erregea, nere eta zure artean, zer degu?

27. Ez nau Jaunak bialdu zure kontra gudan aritzeko, zeren Eufratesen gañean da nere guda. Agudo jetxi zaite.

28. Eta Josias gurdiaren gañean etzan itzuli, baizik bere kontra gudatzeko asmazioak zerabiltzkean, Jaunaren aoko profetaren itzari begiratu gabe,

29. Baizik asi zuen guda bere kontra Magjedoko kanpoan. Eta prinzipeak Josias erregeagana jetxi ziran.

30. Eta erregeak bere mutillai esan zien: Alde erazi zadazute gudatik, zeren txit eria nagoan. Eta bereala bere mutillak, gudatokitik alde erazi zien.

31. Eta bere bigarren txandako gurdi batera igo zan. Eta Jerusalenera allegaturik, il zan, eta asaben obian lurpetu zuten.

32. Eta Judea guztian Josiasgatik negar egiten zuten, eta agintaritzetan zeudenak, emazteakin, gaurko eguneraño daude negar malko jarioan. Eta Israelko jatorri guztiari, au beti egiteko eskubidea emana izan zitzaion.

33. Oiek berriz, Judako erregeen berrietako liburuan daude adiraziak, eta Josiasek egin zituen obra guztiak eta bakoitza, eta bere gloria, eta bere ezaguera eta jakinduria, Jaunaren legean, eta berak egin zituen gauzak, eta Israelko eta Judako erregeen liburuan eskribituak ez daudenak.

34. Eta Jekonias Josiasen semea artzen zutela jendetzakoak ziradenak, bere aitaren tokian erregetzat jarri zuten Josiasen ordez.

35. Eta iru illa betean Israelen gañean agindu zuen. Eta Ejiptoko erregeak kendu zuen, Jerusalenen erreinatu etzezan.

36. Eta jendetzari jarri zion multa, eun talento zillarrezko, eta urrezko talento bat.

37. Eta Ejiptoko erregeak, Joakin bere anaia, Judako eta Jerusalengo eregetzat jarri zuen.

38. Eta lotuta jarri zituen letraduak Joakin, eta Sarazelem bere anaia; eta eltzen ziela, Ejiptora eraman zituen.

39. Ogeita bost urtekoa zan Joakin agintzen asi zanean Judako eta Jerusalengo lurrean, eta Jaunaren aurrean gaizki egin zuen.

40. Gero etorri zan Nabukodonosor Babiloniako erregea, eta burnizko lokarriakin lotzen zuela, Babiloniara eraman zuen.

41. Eta Nabukodonosorrek Jaunaren ontzi sagraduak artu zituen, eta jarri zituen bere tenploan Babilonian.

42. Bere zikinkeria, eta fede gaiztoaren gañekoa berriz, erregeen denboretako liburuan eskribitua dago.

43. Eta bere tokian Joakin bere semeak erreinatu zuen; Erregetzat jarria izan zanean berriz, emezortzi urte zeuzkan.

44. Jerusalenen berriz iru illa betean, eta amar egunean erreinatu zuen; eta Jaunaren aurrean gaizki egin zuen:

45. Eta urte beteren buruan, Nabukodonosorrek mandatariak bialdurik, Babiloniara eraman zuen Jaunaren ontzi konsagraduakin batean.

46. Eta Sedezias Judako eta Jerusalengo erregetzat jarri zuen, ogeita bat urte zeuzkala: eta amaika urtean erreinatu zuen.

47. Eta Jaungoikoaren aurrean gaizki egin zuen, eta Jeremias profetak Jaungoikoaren aoz esan ziozkan itzen beldurrik etzuen iduki.

48. Eta Nabukodonosor erregeak juramentua eskaturik, gezurrarekin juramentu eginik, alde egin zuen, eta gogorturik bere lepoa eta bere biotza, Israelko Jaun Jaungoikoaren aginte zuzen, ta bidezkoak ausi zituen.

49. Eta Jaunaren erriko agintariak gaiztakeria asko egin zuten, eta gaiztakeriak egin zituzten jentillen zikinkeria guztiez gañetik, eta Jerusalenen zegoan tenplo santua zikindu zuten.

50. Eta beren asaben Jaungoikoak bialdu zien mandatua, aingeru baten bitartez, konturatu eta bide zuzenera etorri zitezten, ala berai, nola beren tabernakuloari barkatzeko.

51. Berak berriz irri egiten zien bere aingeruai, eta Jaunak itz egin zien egunean, farra eta isekak egiten ziezten bere profetai.

52. Jaungoikoa berriz bere jendearekin aserretzera allegatu zan, beren fede gaizto, ta lotsagaldukeriakgatik, eta Kaldeako erregeai agindu zien igo zitezela.

53. Oiek beren mutil gazte guztiak ezpataz il zituzten beren tenplo santuaren inguruan, eta ez gazteri, ez zarrai, ez birjiñari, ez gaztetxori etzien barkatu.

54. Baizik guztiak aien eskuetan erori ziran, baita arturik Jaunaren ontzi eta pitxar bedeikatu guztiak, baitaere erregeren jauregiko gauza eder ta baliotsu guztiak, Babiloniara eraman zituzten.

55. Eta Jaunaren etxeari su eman zien, eta Jerusalengo murruak desegin eta beera aurtiki zituzten, eta dorreak suarekin erazeki zituzten,

56. Eta ondatu zituzten bere gauza onragarri guztiak, eta utzera biurtu zituzten, eta ezpatak ukiturik egin etzienak, Babiloniara eraman zituzten.

57. Eta ziran aien mendekoak, aliketa Persak agintaritza arrapatu zuten arteraño, Jaunak Jeremiasen aoz eman zuen itza kunplitzeko.

58. Aliketa lurrak larunbatak ongi zaitu, ta gorde zituen artean, bere erbesteko denbora guztian, irurogeita amazazpi urtean, gorde zituzten larunbatak, egun aietan lan santuetan ari ziradela.

BIGARREN KAPITULUA

1. Ziro Persiako erregeak erreinatzen zuela, Jaunak Jeremiasen aoz eman zuen itzak betetasuna iduki zezan,

2. Jaunak Siro Persiako erregearen espiritua esnaatu zuen, eta erreinu guztian bat batean, paper eskribituaren bitartez predikatu zuen,

3. Esaten zuela: Siro Persiako erregeak, oiek esaten ditu: Israelko Jaunak, Jaun goratuak, munduko errege egina jarri nau.

4. Eta adirazi dit berari egin dizaiodala etxe bat Jerusalenen, zeñ Judean dagoan.

5. Baldin badago iñor ere zuen jatorrikorik, bere Jauna berarekin Jerusalenera igo bedi.

6. Tokien aldean bizi diran guztiak bada, toki beratan daudenai, urrearekin ta zillarrarekin lagundu bizaie,

7. Emakaiakin, zaldiakin, eta astoakin, eta beste gauzakin, zeñak eskeñtzak bezela, Jerusalenen dagoan Jaunaren etxean ipintzen ziran.

8. Eta zeudela prestatuak Benjaminen tribuko, eta tribuetako, eta errietako prinzipeak, eta apaizak eta Lebitak, zeñai Jaunak barrendiko argitasunak eman ziezten igotzeko, eta Jaunaren etxe, Jerusalenen dagoana egiteko, eta bere inguruan zeudenak,

9. Lagundu zuten beren urre eta zillar guztiarekin eta zamariakin, eta asko botorekin, aiek, zeñak asko diraden, eta zeñaen barrenak zeruko argitasunak mugitu zituzten.

10. Eta Ziro erregeak atera zituen Jaunaren ontzi konsagratuak, zeñak Nabukodonosor Babiloniako erregeak, Jerusalendik eraman zituen, eta bere idoloari konsagratu ziozkan.

11. Eta Ziro Persiako erregeak, ateratzen zituela, eman ziozkan Mithridatori, zeñ bere balio andiko gauzaen gordetzallea zan.

12. Onek berriz, Salmanasaro Judeako agintariari eman ziozkan.

13. Ona zenbat ziraden oiek: Zillarrezko ontzi, eskeñtzak egitekoak, bi milla eta lareun, zillarrezko saskitxoak, ogeita amar; urrezko kopak ogei ta amar, zillarrezkoak bi milla ta lareun; eta beste milla ontzi.

14. Urrezko, ta zillarrezko ontzi guztiak berriz, bost milla, zortzireun, eta irurogei.

15. Eta kontatuak izan zaiozkan Salmanasori, Babiloniako katiberiotik Jerusalenera etorri ziradenakin batean.

16. Artaxerxes Persaen erregearen denboretan berriz, eskribitu zioten, Judean, eta Jerusalenen bizi ziradenakgatik, Balsamuk eta Mitridatusek, eta Sabeliok, eta Ratimusek, Baltemusek, Samelio eskribak, eta gañerako, Samarian,ta beste tokietan bizi ziranak Artaxerxes erregeari, urrengo karta:

17. Jauna, zure serbitzari Ratimo akzidentetakoak, eta Sabelio eskribak, eta beste zure kuriako juezak, Zelesirian, eta Fenizian,

18. Eta orain jakin beza errege Jaunak, nola Juduak, zuetatik gugana irago ziradenak, etortzen ziradela Jerusalen erri igestoki, eta txit gaiztora, beren labeak egiten dituzte, eta murruak jartzen dituzte, eta tenploa jasotzen dute.

19. Baldin erri au, eta murruak bukatzen badirade, ez bakarrik ez dira kotiztariak izango, baitaere erregeai gogor egingo die.

20. Eta nola au dan tenploen gañean, ongi izango dala uste degu, gauza au ez mezpreziatzea,

21. Baizik jakin erazitzea errege Jaunari, baldin baderitza, erregeak asaben liburuak irakurri ditzala.

22. Eta arkituko dituzu oroipengarrietan, oiekgatik eskribitutako gauzak, eta jakingo dezu, nola erri au izan dan mendetik iges egina, eta erregeai eta erriai pakean utzitzen etziena.

23. Eta Juduak mendetik iges eginak, beti bertan gudan ari ziradela; eta argatik erri au iñor ere gabe gelditu zan.

24. Orain bada, kontuan jartzen zaitugu, errege jauna, baldin erri au egiten bada, eta bere murruak jasoak badirade, ezingo zerala Zelesiara eta Feniziara jetxi.

25. Orduan erregeak eskribitu zion Ratimori, zeñak eskribitzen zituen gertakariak, eta Baltemo Eta Sabelio eskribai, eta jarrita zeudenai, eta Sirian, eta Fenizen bizi ziradenai.

26. Bialdu didazuten karta irakurri det. Agindu nuen bada jakiteko, eta arkitu zan, erri hura erregeen kontra beti ibilli zala.

27. Eta gizon mendetasunetik iges eginak, an biltzen ziradela, eta an gudak asmatzen zituztela, eta Jerusalenen zeudela errege txit sendoak, Zelesiriakoak, eta Feniziakoak mendean zeuzkatenak, eta kotizak eskatzen zieztenak.

28. Orain bada, agindu det, galerazitzeko gizon aiei erria egitea, eta galerazi diet onezkero geiago egitea.

29. Eta ez ditezela ere berriz ibilli asmazio eta astruzietan, alako moduan, non, erregeai buruko miñak ekarri litzazkeen.

30. Orduan leiturik Artaxerxes erregek eskribitu zuena, Ratimo, eta Sabelio eskriba, eta berakin elkartuta zeudenak, agudo biltzen ziradela, zaldidiarekin, eta gandetzarekin, eta martiztiarekin, Jerusalenera etorri ziran.

31. Eta asi ziraden, erria egiten ari ziradenai galerazitzen, eta utzi zion Jerusalenen tenploa egiteari, Dario Persiako erregearen erreñuko bigarren urteraño.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Dario erregeak eman zien afari andi bat bere etxekoai, eta Medea, eta Persiako agintari guztiai.

2. Eta soñeko gorridunai, eta juezai, eta konsulai eta bere erreñuan agintaritza zeukatenai, Indiatik Etioparaño, eun eta ogeita zazpi probinziatan.

3. Eta jan zutenean, eta edan zutenean, eta aseak biurtzen ziradenean, orduan Dario erregea bere gelara igo zan, eta lo egin zuen, eta alako batean esnatu zan.

4. Orduan iru mutil gazte aiek, gorputzaren zaitzalleak, erregezaiak, batak besteari esan zien:

5. Esan dezagun bakoitzak gure iritzia izketan eta eskribuz, eta besteak baño jakintsuago agertzen danari, ari Dario erregeak, doañ andiak emango diozka.

6. Soñeko gorriz jantziko du, urrezko edanontzian edango du, urrezko oean lo egingo du, eta idukiko du kotxea urrezko frenuakin; eta lino fin itsasoz ekarritakozko soñekoa, eta lepo inguruan idundea.

7. Eta Dariok bere jakinduriagatik, bigarren tokian eseriko du, eta Darioren aidearen izena emango zaio.

8. Orduan eskribitu zutenetatik bakoitzak bere itza sillutu zuen, eta Dario erregearen oeko burupekoaren azpian jarri zuen,

9. Eta esan zuten: Erregea jaikitzen danean, guk eskribitu deguna berari emango diogu: eta iruretatik erregeak juzgatzen duenari, eta Persiako majistraduak, nola bere itza jakintsuago dan iruretatik, ari garaipena emango zaio, eskribitua dagoan bezela.

10. Batek eskribitu zuen: «Azkarra da ardoa».

11. Bigarrenak eskribitu zuen: «Azkarragoa da erregea».

12. Irugarrenak eskribitu zuen: «Azkarragoak dirade emakumeak, eta oiek guzioez gañetik egia».

13. Eta erregea jaiki zanean, artu zuen bakoitzak berak eskribitu zuena, eta berari eman ziozkaten, eta leitu zituen.

14. Eta mandatariak bialdurik, Persiako majistradu guztiai, eta Medoai, soñeko gorridunai, eta juezai, eta agintariai ots egin zien.

15. Eta eseri ziraden biltzarrean, eta beren aurrean, eskribituak izan ziraden gauzak leituak izan ziraden.

16. Eta esan zuen: Ots egin zaiozute mutil gazteai, eta berak beren itzak adiraziko dituzte. Eta ots eginak izan ziraden, eta sartu ziraden.

17. Eta esan zien: Eskribitu dituzuten gauzak, adirazi zazkiguzute. Eta asi zan lenbizikoa, zeñak ardoaren azkartasunaren gañean itz egin zuen.

18. Eta esan zuen: Gizonak, nolako azartasuna daukan ardoak, bera edatzen duten gizon guztientzat! Adimena engañatzen du.

19. Baita erregearen eta umezurtzaren adimena ere, utsean jartzen ditu. Baita mendekoarena, eta askatuarena, beartsuarena, eta aberatsarena.

20. Eta adimen guztia beldur gabe jartzen du, eta pozera itzultzen du; eta ez da, tristeza guztiarekin, ez zorrarekin oroitzen.

21. Eta biotzeko gura guztiak onak egiten ditu, eta ez da oroitzen erregearekin, ez Majistraduarekin, eta gauza guztiak talentoen bitartez esan erazitzen ditu.

22. Eta etziraden oroitu edan zutenean adiskidetasunarekin, ez anaetasunarekin, baizik andik denbora gutxiren buruan, ezpatak artzen dituzte.

23. Eta ardoan sartuta irtetzen diradenean, etzate gogoratzen zertzuk egin zituzten.

24. O gizonak, badago ardoa baño andiagorik? Nork uste du alakorik egitea? Eta, oiek esanik ixildu zan.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta erregearen azkartasunaren gañean itz egin zuena, asi zan gero itz egiten.

2. O gizonak, zeñ gizon andiagorik, lurra, itsasoa, eta beretan dauden gauza guztiak mendean dauzkana baño?

3. Orain bada, erregea guztien gañean dago, eta guztiai agintzen die, eta berai esaten dien guztia, egiten dute.

4. Eta bidaltzen baditu gerrariakgana, badijoaz, eta mendiak, eta murruak, eta dorreak desegiten dituzte.

5. Naiz berak il dizatela, naiz berak illak izan ditezela, erregearen itza, ez da utsean gelditukо. Bada baldin berak besteak garaitzen baditu; arrapatzen dituzten gauza guztiak, erregeari ekartzen diozkate.

6. Orobat beste guztiak ere, eta martitzak ez diranak ere; eta gudan egiten ez dutenak ere, baizik lurreko lanak egiten dituztenak, atzenean gariak ebakitzeko denboran, kotizak erregeari ekartzen diozkate.

7. Eta berak bakarrik esango balu, il ezazute, iltzen dute. Esango balu, barkatu, barkatu zaiozute, barkatzen zaiotze.

8. Esango balu, jo ezazute, jotzen dute. Esango balu, arras desegin ezazute, arras desegiten dute. Esango balu, egin ezazute au, edo bestea, egingo dute.

9. Esango balu, ebaki ezazute, ebakitzen dute. Esango balu, lurrean jarri ezazute, jartzen dute.

10. Eta jendetza gutiak, eta andizki guztiak obeditzen diote, eta oiekin guziokin bera etzina dago, eta ardoa edatzen du, eta lo egiten du.

11. Oiek berriz inguruan zaitzen dute, eta ez liteke joan bakoitza bere lanak egitera, baizik bere esanera obeditzen diote.

12. Gizonak, alako eskubidea daukana, nola ez da andiena izango? Eta ishildu zan.

13. Asi zan itz egiten irugarrena, zeñak jarri zituen nagusientzat emakumeak, eta egia. Au da Zorobabel.

14. Gizonak, erregea andia ez da, ez beste asko gizon ere; ardoa ere ez da andiena. Zeñ ote da bada, guztiai agintzen diena?

15. Ez al dira emakumeak, erregeak sortu ta egin zituztenak, eta itsasoan, ta leorrean agintzen duten guztiak,

16. Eta beretatik jaio ziran, eta berak eman ziezten argitasunak eta erakutsiak, jarri zituztenai mastiak, zeñatatik ardoa egiten dan?

17. Eta berak egiten dituzte gizon guztien soñekoak, eta berak gizonen gloria egiten dute, eta gizonak emakumeagandik alderik egin ez ditzake.

18. Gizasemeak bilduko balu urrea, zillarra ta gauza eder guztia, eta alaere emakume bat soñeko onakin, eta irudi onekoa ikusiko balu,

19. Oiek guziok utzirik, beragana biurtzen da, eta aoa zabalik, begiratzen dio eta bere gogoa geiago eramaten dio emakumeak, urreak, zillarrak, eta gauza eder guztiak baño.

20. Gizonak bere aita, bera azi zuena, eta bere erria utzitzen ditu, eta emaztearekin biltzen da.

21. Eta emaztearekin animak atsedetzen du, eta ez da bere aitarekin, ez amarekin, ez bere erriarekin oroitzen.

22. Eta argatik jakin bear dezute, emakumeak agintzen dizutela. Onek damu ematen al dizute?

23. Eta gizonak bere ezpata artzen du, eta badijoa bidetik bide lapurretak egitera, eta gizonak iltzera, eta itsasoz eta ibaietatik ibiltzera,

24. Eta leoe bat ikusten du, eta illuntasunetan sartzen da, eta egiten dituenean lapurretak, eta engañuak, eta indarrez besteren gauzak artzen dituenean, bere maiteari eramaten diozka.

25. Baitaere gizonak bere emaztea, aita, edo ama baño geiago maitatzen du.

26. Eta askori zoratu zaie, beren emazteakgatik, eta berakgatik mendeko eginik jarri ziran.

27. Eta asko emazteakgatik galdu ziran, eta urkatu ziran, eta bekatu egin zuten.

28. Eta orain sinistu zadazute, erregea bere eskubidean andia dala, zeren erri guztiak berari ukitzen beldur dirade.

29. Alaere ikusten nuen Apemen Bezazisen alaba, errege miragarriarekin adiskidetasuna zeukana, erregearen alboan, eskuietik eseria.

30. Eta kentzen ziola erregeari burutik bere apaingarria, eta neskaitzak berak jartzen zuela, eta ezkerreko esku zabalarekin, erregea jotzen zuela.

31. Eta oiekin guziokin ere, aoa zabalik begiratzen zion, eta baldin neskaitzak farra egiten bazuen, erregeak ere, eta ikusten bazuen erregeak aserretua zegoala, itz biguñak eta samurrak esaten ziozkan, berarekin adiskidetzera ekartzeko.

32. O gizonak, zergatik emakumeak azkarragoak ez dirade? Andia da lurra, eta zerua goratua da. Nork oiek egiten ditu?

33. Eta orduan erregeak, eta gorriz jantziak, elkarri begiratu zien. Eta egiaren gañean asi zan itz egiten.

34. O gizasemeak, emakumeak ez al dira azkarrak? Lurra andia da, eta zerua goratua da, eta eguzkiaren ibilliak arinak, bada iragotzen du zerua jiran, biurtzen dala bere tokira egun batean.

35. Ez al da txit goratua, oiek egiten dituena, eta egia andia eta guztia baño sendoago ez al da?

36. Lur guztiak egiari ots egiten dio, zeruak ere bera bedeikatzen du, eta obra guztiak mugitzen dira, eta beldurrez begiratzen diote, eta berarekin gauza gaiztorik ez dago.

37. Ardoa gaiztoa, erregea gaiztoa, emakumeak gaiztoak, gizonen seme guztiak gaiztoak, eta beren obra guztiak gaiztoak, eta egiarik beretan ez dago, eta beren gaiztakerian galduko dirade.

38. Eta egiak irautzen du, eta beti indar geiago artuaz dijoa, eta bizi da, eta mendez mendeak iritxitzen ditu.

39. Eta ez du zeñ, zeñ dan begiratzen, ez desberdintasunetara, baizik naiz izan onak, naiz gaiztoak, bakoitzari ematen dio dagokeona; eta guztiai beren obraetan biguñtasuna erakusten die.

40. Eta bere juizioan ez dago gauza gaiztorik, baizik sendotasuna, eta erreñua, eta eskubidea, eta gizaldi guztietatako anditasuna. Bedeikatua egiaren Jaungoikoa.

41. Eta itz egiteari utzi zion. Eta erri guztiak deadar egin zuen, eta esan zuen: Egia andia da, eta beste guztiak garaitzen ditu.

42. Orduan erregeak esan zion: Eskribitua dagoena baño geiago nai badezu, eskatu zadazu eta emango dizut, besteak baño jakintsuagoa arkitua izan zeralako; eta nere alboan eseriko zera, eta nere aidearen izenarekin ots egina izango zera.

43. Orduan erregeari esan zion: Oroitu zaite, erreñua artu zenduen egunean egin zenduen eskeñtzarekin, Jerusalen egitea.

44. Eta biurtzea, Jerusalendik artuak izan ziran ontzi guztiak, zeñak berezituak izan ziran Zirok Babilonia artu zuenean, eta nai izan zuen berak ara bialdu.

45. Eta zuk eskeñi zenduen, Idumeoak erre zuten tenploa egitea, Kaldeatarrak Judea arras desegin zutenean.

46. Eta orain au da, Jauna, eskatzen dedana, au da zuri eskatzen dizudan gauza andi eta goratua, zure aoz Zeruko Erregeari egin ziñion eskeñtza, kunplitu dizaiozula.

47. Orduan jaikitzen zala Dario erregea, laztan bat eman zion, eta kartak eskribitu ziezten partitzalleai, eta agintariai, eta soñeko gorridunai, eraman zezatela, eta berarekin zeudenak ere guztiak igotzen zirala, Jerusalen egin zezaten.

48. Eta Sirian, eta Fenizian, eta Libanon zeuden agintari guztiai kartak eskribitu ziezten, ekarri zitzaten zedrozko zurak Libanotik Jerusalenera, berakin erria egiteko.

49. Eta eskribitu zien askatuak gelditzeagatik, erreñutik Judeara igotzen ziran Judu guztiai, eskubide andiko gizonik, eta majistradurik, ez agintaririk, beren ateetara etzatela joango,

50. Eta iritxitzen zuten alderri guztia berentzat kotizgabea izango zala, eta Idumeakoak zeuzkaten Juduen gazteluak, utzi zitzatela.

51. Eta tenploa egiteko eman zitzatela urteoro ogei talento, bukatu zedin artean.

52. Eta sagrarioaren gañean egunoro eskeñtzak erre zitezela, agindua dagoan bezela, eta urte bakoitzean beste amar talento ere eskeñi ditzatela.

53. Eta Babiloniatik zetozten guztiak erria egitera, bizi ziteztela askatuak eta beren aukeran, bai berak eta bai beren semeak, eta aurretik zijoazen apaiz guztiak.

54. Eskribitu ere zuen zenbata, eta agindu zuen emateko estola bedeikatua, zeñarekin serbituko zuten.

55. Eta Lebitai eskribitu zien, ematen zieztela aginteak, etxea bukatu arteraño eguneraño, eta Jerusalen egin artean.

56. Eta erria zaitzen zuten guztiai, suerteak, eta estipendioak emanak izan bizazkeela.

57. Eta utzi zituen, Zirok Babiloniatik berezitu zituen ontzi guztiak, diradenak, eta Zirok esan zituen guztiak, eta berak egiteko agindu zuena, eta Jerusalenera bialtzeko.

58. Eta mutil gazte hura joan zanean, jasotzen zuela arpegia Jerusalenera, zeruko erregea bedeikatu zuen.

59. Eta esan zuen: Zugandik dator garaipena, eta zugandik datoz jakinduria eta argitasuna. Eta ni zure serbitzaria naiz.

60. Bedeikatua zera, neri jakinduria eman ziñidana, eta zuri, o gure gurasoen Jaun ta Jaungoikoa eskerrak ematen dizkizut.

61. Eta artu zituen kartak, eta Babiloniara joan zan. Eta etorri zan, eta Babilonian zeuden bere anaia guztiai adirazi zien.

62. Eta beren gurasoen Jaungoikoa bedeikatu zuten, barkazioa eta atsedena eman zielako,

63. Igo zezaten, eta Jerusalen egin zezaten, eta tenploa, non aitatua izan zan bere izen santua beragan, eta soñuakin eta gozotasunakin zazpi egunean bozkariotu ziraden.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Oien ondoan berriz, autuak izan ziraden, igo zitezen errietako prinzipeak beren etxe eta tribuetatik, eta beren emazteak, eta beren seme eta alabak, eta beren mendeko morroiak, eta neskameak, eta beren abereak.

2. Eta Dario erregeak bialdu zituen berakin batean milla zaldizko, aliketa pakearekin, eta musikakin, eta atabalakin, eta txirolakin, Jerusalenen sartu zitezen artean.

3. Eta anaia guztiak ari ziran jostaketan, eta egin zuten berakin batean igo zitezela.

4. Eta oiek dira gizakumeen izenak, igo ziradenenak beren errietatik tribuetara, beren agintasunaren partiltasunera.

5. Apaizak: Fineesen semeak, Aaronen semeak, Jesus Josederen semea, Joakin Zorobabelen semea, Salathielen semea, Dabiden etxekoa, Faresen jatorrikoa, Judako tribukoa,

6. Zeñak esan zituen, Dario Persiako erregea zala, izketa arrigarriak, bere erreñuaren bigarren urtean, lenengo ill Nisanen.

7. Oiek dirade berriz igo ziradenak Judeatik beste aldameneko katiberiotik, zeñak Nabukodonosor Babiloniako erregeak eraman zituen beste aldamen bateko katiberiora, Babiloniara, eta Jerusalenera itzuli zan.

8. Eta bakoitzak billatu zuen Judeako tokamena bere errian, etorri ziradenak Zorobabelekin, eta Jesusekin, Nehemiasekin, Areoresekin, Elimeorekin, Emmaniorekin, Mardokeorekin, Beelsurorekin, Mephsatokorrekin, Oliororekin. Emonia beren prinzipeetatik bat zan.

9. Beren zenbata jentilletatik, beren agintarietatik, zeñak ziran Faresen semeak, bi milla eun eta irurogei ta amabi.

10. Aresen semeak, iru milla eun eta berrogei ta amazazpi. 11. Femoren semeak, eun eta berrogeita bi. Jesu, eta Joabesen semeen artean, milla irureun eta bi.

12. Demuen semeak, bi milla lareun eta irurogeita amar; Korabaren semeak, berreun eta bost. Banikaren semeak, eun eta irurogei ta bost.

13. Bebeken semeak, lareun eta iru. Arkaden semeak, lareun eta ogei ta zazpi.

14. Kamen semeak, ogei ta amazazpi. Zoroarren semeak, bi milla eta irurogei ta zazpi. Adinen semeak, lareun eta irurogei ta bat.

15. Aderektisen semeak, eun eta zortzi. Ziaso, eta Zelasen semeak, eun eta zazpi. Azoroken semeak, lareun eta ogei ta emeretzi.

16. Ledarboneren semeak, eun eta ogei eta amabi. Anaren semeak, eun eta ogei ta amar. Asoniren semeak, larogei ta amar.

17. Marsarren semeak,lareun eta ogei ta bi. Zabarusen semeak, larogei ta amabost. Sepolemonen semeak, eun eta ogei ta iru.

18. Nepopasen semeak, berrogei eta amabost. Nekanatoren semeak, eun eta berrogei eta emezortzi. Zebatamoren semeak, eun eta ogei eta amabi.

19. Krearpatrosen, zeñ Enokadies, eta Modizeren semeak, lareun eta iru. Gramas, eta Gabearenak eun eta ogei ta bat.

20. Beselongandikoak, eta Zeagjegandikoak, irurogei eta bost: Bastarogandikoak, eun eta ogei eta bi.

21. Bekenobesegandik, berrogei eta amabost. Siptison semeak, eun eta berrogei ta amabost. Laboniren semeak, irureun eta berrogei eta amazazpi.

22. Sikemen semeak, irureun eta irurogei ta amar. Suadon, eta Kliomoren semeak, irureun eta irurogei eta emezortzi.

23. Erikoren semeak, bi milla eun eta berrogei ta bost. Anaasen semeak, irureun eta irurogei ta amar.

Apaizak.

24. Jedausen semeak, Euterren semeak, Eliasiben semeak, irureun eta irurogei eta amabi. Emeroen semeak, berreun eta berrogeita amabi.

25. Fasurien semeak, irureun eta berrogei ta amazazpi. Kareen semeak, berreun eta ogei ta zazpi.

26. Lebitak. Jesuen semeak, Kaduhelen, eta Bamisen, eta Serebiasen, eta Ediasenak, irurogei eta amalau. Emeroen semeak, berreun eta berrogei ta amabi. Guztiak amabigarren urtetik, ogei ta amar milla lareun eta irurogei ta bi.

27. Semeak, eta alabak, eta emazteak, guztiak batean kontatuta, berrogei milla berreun eta berrogei ta bi.

28. Apaizen semeak, tenploan kantatzen zutenak. Asafen semeak, eun eta ogei ta zortzi.

29. Atezaiak berriz: Esmennoren semeak, Aserren semeak, Amonen semeak, Akubaren semeak, Topa Tobiren semeak, guztiak ogei ta emeretzi.

30. Apaiz, tenploan serbitzen zutenak. Selen semeak, Gasfaren semeak, Toblokeren semeak, Karieren semeak, Suren semeak, Heluren semeak, Labanaren semeak, Armatxaren semeak, Akuben semeak, Utaen semeak, Zetaen semeak, Aggaben semeak, Obaien semeak, Ananien semeak, Kannanen semeak, Jedduen semeak.

31. Anen semeak, Radinen semeak, Desanonen semeak, Nakobaren semeak, Kasebaren semeak, Gazeren semeak, Ozuiren semeak, Suzonerren semeak, Attreren semeak; Hastenren semeak, Akusuren semeak, Asianaren semeak, Maneiren semeak, Nasissiren semeak, Ajistaren semeak, Azuiren semeak, Pabonen semeak, Fasalonen semeak.

32. Meddaren semeak, Fusaren semeak, Kareeren semeak, Barkoren semeak, Sareeren semeak, Koesiren semeak, Nasiten semeak, Ajistiren semeak, Pedonen semeak.

33. Bere seme Salomon, Asofoten semeak, Fasidaren semeak, Kaliren semeak, Dedonen semeak, Gadahelen semeak, Sefejiren semeak.

34. Agjiaren semeak, Sakareten semeak, Sabatenen semeak, Karoneten semeak, Malsiten semeak, Ameren semeak, Susuren semeak, Addusen semeak, Subaren semeak, Euraren semeak, Bahotisen semeak, Fasfeten semeak, Malmonen semeak,

35. Gauza konsagratuetan serbitzen zuten guztiak, eta Salomonen mutikoak, lareun larogei eta bi.

36. Oiek dira Telmela, Telarsatistikan igo ziraden semeak, beren Prinzipeak Karmelam, eta Karet.

37. Eta ezin zuten erakutsi, zeñak ziraden beren erriak, ez beren jatorri, ta aideak, eta nola Israeltarrak ziran Dalarien semeak, Tubalen semeak, Nekodaizien semeak.

38. Apaizetatik, zeñak apaizlanetan ari ziran, eta etziraden arkitu Obiaren semeak, Akisosen semeak, Addinen semeak, zeñak emaztea Jarjeleuren alabaetatik artu zuen.

39. Eta bere izenarekin ots egin zitzaien, eta oien jatorriaren eskribua billatu zan zuzentokian, eta etzan arkitu, eta apaiztzan sartzea galerazi zitzaien.

40. Eta Nehemiasek, eta Astarasek, esan zien: Ez bediz gauza santuetan partale izan, aliketa apaiz jakintsu, erakutsi argiak eman, eta egia zabalduko duenen bat irten dedin artean.

41. Israel guztia berriz, salbu mutil, eta neskaitzak, zan, berrogeita bi milla irureun eta berrogei.

42. Oien morroe ta neskameak berriz, zazpi milla irureun eta ogei ta amazazpi.

43. Gameluak, lareun eta ogei ta amabost. Zaldiak, zazpi milla eta ogeita amairu. Mandoak berreun milla eta berrogeita bost. Uztarrikoak bost milla ta ogei ta bost.

44. Eta agintariak berak errietakoak, Jaungoikoaren tenplora etortzen ziradenean, zeñ Jerusalenen zegoan, bere tokian tenploa egitea eskeñi zuten, beren indarraren araura,

45. Eta tenploari eman gordairu sakratu bat, amabi milla mna, au da, libra urre; eta bost milla mna zillarrezko, au da, libra; eta apaizen estolak eun.

46. Eta bizitu izan ziran apaizak, eta Lebitak, eta Jerusalendik, eta alderri artatik irten zan jendetza, eta elizkantariak, eta atezaiak, eta Israel guztia bere tokietan.

47. Eta zazpigarren illa aldean zanean, nola Israelko seme bakoitza bere gauzaetan ari zan, batbatean bildu ziran, sortaldeko atearen aurrean dagoan atarian.

48. Eta zeudela zutik Jesus Josedek-en semea, eta bere anaia apaizak, eta Zorobabel Salatielen semea, eta onen anaiak, aldarea prestatu zuten,

49. Bere gañean doañak eskeñtzeko. Moises Jaungoikoaren gizonaren liburuan eskribituak daudenen araura.

50. Eta an bildu ziran lurreko beste erreñoetatik ere, eta jaso zuten sagrarioa beren tokian lurreko jende guztiak, eta goizean Jaunari eskeñtzen ziezten doañak eta opariak.

51. Eta egin zituzten eskeñtza oroipengarriak, eta jai andia ere zelebratu zan, legean agintzen dan bezela, eta egunoro eskeñtzak bear zan bezela.

52. Eta erabakiak zeuden oien ondoan larunbatetako, illberrietako, egun eta jai andietarako eskeñtzak.

53. Eta Jaunari ematen zien eskeñtzen zuten guztia, batezere zazpigarren illberrian, asi ziran Jaungoikoari doañak eskeñtzen, oraindikan Jaunaren tenploa egin gabe zegoala.

54. Eta eman zien dirua argiñai, eta arotzai, eta edaria eta janaria bozkarioz.

55. Eta eman ziezten gurdiak Sidontarrai, eta Tiroarrai, ekarri zezaten Libanotik zedrozko zurak, eta egin zitzatela balsak Jopeko portuan, Ziro Persiako erregeak eskribuz eman zien agintearen araura:

56. Eta bigarren urtean, etortzen ziradela Jaungoikoaren tenplora Jerusalenera, bigarren illa betean asi zuten, Zorobabel Salatielen semeak, eta Josue Josedek-en semeak, eta beren anaiak, eta apaizak, eta Lebitak, eta katiberiotik Jerusalenera etorri ziran guztiak.

57. Eta Jaunaren tenploa bukatu zuten bigarren urtean, bigarren illeko illberrian, Judeara eta Jerusalenera etorri ziradenetik.

58. Eta jarri zituzten Lebitak ogei urtekoak Jaunaren obrai begiratzeko, eta egon ziran Jesus eta bere semeak laguntzen zutela, eta egiten zutela legeak agintzen zuena, Jaunaren etxean lanean ari zirala.

59. Eta bazeuden an apaizak, estolak tronpetakin zeuzkatela.

60. Guztiak batean, Dabid Israelko erregearen araura, Jauna alabatzen eta bedeikatzen zutela.

61. Eta kantatzen zioten kantatxoa Jaunari, zeren bere gozotasuna eta honra Israelen gañean diran.

62. Eta erri guztiak tronpeta jo zuen, eta deadar andiakin alabatzen zuen Jauna, bere etxea len bezela arkitzen zalako.

63. Eta etorri ziran apaizetatik, eta Lebitaetatik eta agintarietatik, erriak nolakoak ziran, zarrenak anziñako etxea ikusi zutenak.

64. Eta oraingoa egin zanean, deadar eta negar andiakin; eta asko tronpetakin, eta bozkario andiarekin.

65. Alako moduan, non, erriak etzuen aditzen tronpeta otsa, erriaren negarrakgatik. Bada jendetzak, txit ederki jotzen zituen, alako moduan, non, urrutian aditzen zan.

66. Eta aditu zuten Judako eta Benjamingo tribuen etsaiak, eta tronpeta ots au zer ote zan jakitera etorri ziran.

67. Eta ezagutu zuten, katiberioan egon ziradenak ari ziradela Israelko Jaun Jainkoari tenploa egiten.

68. Eta alderatzen Zorobabel eta Jesusgana errietako agintariak, esan zien: Zuekin batean guk ere etxea egingo degu,

69. Zeren era berdinean aditu giñion zuen Jaungoikoari, eta gu ere berdin ibilli giñan, Asbazaret Asiriako erregearen egunetatik, zeñak onara ekarri ginduen.

70. Eta esan zien Zorobabel, eta Jesus, eta Israelko errietako prinzipeak:

71. Ez dagokigu guri eta zuei batean, gure Jaungoikoaren etxea egitea. Baizik guk bakarrik egingo diogu etxea, Ziro Persiako erregeak agindu zigun bezela, Israelko Jaunari etxea egiteko.

72. Lurreko jendeak berriz, Judean zeudenakin elkartuta, eta jasorik etxea egiteko lana, eta zelatak, eta ekarririk erriak, galerazitzen zien etxea egitea.

73. Eta egiten zituztela erasoak, etorriak, eta sarrerak, galerazi zuten tenploa egin eta bukatzea, Ziro erregearen bizitza guztian, eta Dario erregearen bigarren urteraño, atzeratu zuten tenploa egitea.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Dario erregearen bigarren urtean berriz, profeziak egin zituzten Agjeok, eta Zakarias, Addin profetaren semeak, Judean eta Jerusalenen, Israelko Jaungoikoaren izenean, beren gañean.

2. Orduan zeudela Zorobabel, Salatielen semea, eta Jesus Josedek-en semea, asi ziran, Jerusalenen dagoan Jaunaren etxea egiten,

3. Jaunaren profetak berakin zeudela, eta laguntzen ziela. Denbora artan beratan etorri zan berakgana, Sisenes siriako, eta Feniziako erregetxo mendekoa, eta Satrabuzanes eta bere lagunak,

4. Eta esan zion: Nork agintzen dizutela egiten dezute etxe au, eta tellatu au, eta gañerakoak? Zer eskubiderekin egiten dituzute? Eta etxe au egiten dutenak, etxe onen egilleak, zeñ dira?

5. Eta mesede egin, bisita eginarekin, Juduen zar, Jaunak katiberiotik atera zituenai, au da egin zutena,

6. Eta etzion galerazi tenploa egitea, aliketa oien guzioen berri Dariori eman, eta bere erantzuna artu zedin artean,

7. Au da Dariori bialdu zien kartak zeukana: Sisenes, Siriako eta Feniziako erregetxo mendekoak, eta Satrabuzanes, eta bere lagunak Sirian, eta Feniziako agintariak, Dario erregeari osasuna nai diote.

8. Iduki beza erregeak guzien berria, nola etorri giñanean Judeako erriko aldamenera, eta Jerusalenen sartu giñanean, Jaungoikoarentzat etxe andi bat egiten arkitu giñituen.

9. Eta tenplo bat arri landuakin, eta andiakin, eta paretetan apainduria ederrak.

10. Eta obra aiek beriala egiten dirala; eta guztiak laguntzen diela, eta beren eskuetan aurrera dijoazela, eta gloria guziarekin bukatu bear dutela.

11. Orduan galdetu ginien zarrai, esaten giñiela: Nork eman dizute eskubidea, tenplo au, eta beste gauzak egiteko?

12. Argatik berriz galde oiek egin giñiozkan, adiraztzeko zuri, nolakoak ziraden gizonak, agintariak, eta nolakoa zan gizon agintariak zeukaten agiria.

13. Baña berak erantzun ziguten, esaten zutela: Gu, Jaun, zerua eta lurra egin zituenaren serbitzariak gera.

14. Eta etxe au egiten zuen, orain urte asko dala, Israelko errege andi, eta txit sendo batek, eta egin zan.

15. Eta nola gure gurasoak pake gaiztokoak ziran eta Israelko Jaungoikoaren kontra bekatu egin zuten, Nabukodonosor Babiloniako errege, Kaldeako erregearen eskuetan jarri zituen,

16. Eta etxe au beera aurtikitzen zutela, su eman zien, eta erria katibu Babiloniara eraman zuten.

17. Lenbiziko urtean ziro erregeak Babilonian erreñatzen zuela, Ziro erregeak eskribitu zuen, etxe au egin zedilla.

18. Eta arako ontzi sakratu urrezko, eta zillarrezko, zeñak Nabukodonosorrek Jerusalenen dagoan etxetik atera zituen, eta jarri zituen bere tenploan, berriz atera zituen Ziro erregeak Babilonian zegoan tenplotik, eta Zorobabeli, eta Salmanasaro, erregetxo mendekoari, izan zaiezten emanak.

19. Eta agindua izan zaten berai, ontzi oiek eskeñi zieztela eta jarri zitzatela Jerusalenen zegoan tenploan; eta Jaungoikoaren tenploa bera bere tokian egin zezatela.

20. Orduan Salmanasarok jarri zituen, Jaungoikoaren etxeko zimendu, Jerusalenen dagoanarenak, eta andik onaraño, etxea egiten ari dira, baña ez da oraindik bukatu.

21. Orain bada, baderitzazu zuri, o erregea, billatu bediz erregearen liburutokietan, Ziro erregearenean, zeñak Babilonian dauden.

22. Eta arkituko balitza Ziro erregearen iritzian, Jerusalenen dagoan Jaunaren etxea egiten asi zirala, eta gure errege Jaunari ala baleritza, oien gañean guri eskribitu bizagu.

23. Orduan Dario erregeak agindu zuen, billatu zitzatela liburutokietan, eta arkitu zan Ekbatanis errian, zeñ dan Medeako alderriko toki bat, zeñean oiek zeuden eskribituak.

24. Erreinatzen zuela Siro erregeak lenbiziko urtean, Ziro erregeak agindu zuen egin zezatela Jerusalenen zegoan Jaunaren etxea, non, maiz sua erazekitzen zuten.

25. Zeñaen altuera amar besokoa izango dan; eta zabalera irurogei besokoa; laurkea iru arri landurekin, eta zurezko balkoe, ta ibiltoki berri bat. Kastuak Ziro erregearen etxean emango dira.

26. Eta Jaunaren etxeko ontzi sagratu, ala urrezokak, nola zillarrezkoak, zeñak Nabukodonosorrek eraman zituen Jaunaren etxetik, zeñ Jerusalenen dagoan, non zeuden jarriak, an ipiñi diteztela.

27. Eta agindu zuen, arretaz begiratzeko Sisenne Siriako, eta Feniziako erregetxo mendekoa, eta Satrabuzanes, eta bere lagunak, eta ordenduak izan ziranak agintaritzat Sirian, eta Fenizian, etziteztela alako tokietara allegatu.

28. Eta nik ere agindu nuen etxea guztiz egiteko, eta begiratu nuen, lagundu zitzaiela Juduen katiberiokoak diradenai, aliketa Jaunaren etxeko tenploa bukatu dedin artean.

29. Zelesiria, eta Feniziako kotizetatik artuta, arretarekin eman dizaiela zenbata gizon oiei Jaunaren eskeñtzarako, Zorobabel agintari dala, zezenetarako, aritoetarako eta bildotsetarako,

30. Eta orobat alea, eta gatza, eta ardoa, eta olioa bereala urteoro, nola Jerusalenen dauden apaizak esan zuten, atzerapenikan gabe, egunoro kastatzen zala.

31. Eskeñi dizaiozkagun doañak Jaungoikoari, Jaungoiko andiari erregeagatik, eta bere aurrakgatik, eta beren biziagatik orazio egin dezaten.

32. Eta adirazi bedi, edozeñek ausiko balu emen eskribituak dauden gauzaetatik battxo ere, edo mezpreziatuko balu, artu bedi zura bereetatik, eta esekiak izan bediz, eta beren ondasunak erregeari emango zaiozka.

33. Argatik Jaunak ere, zeñaen izenari an ots egin zaion, an arras desegin dezala errege, eta jende guztia, bere eskua luzatzen duena galeratzitzera, edo Jerusalenen dagoan, Jaunaren etxe hura gaizki tratatzera.

34. Nik Dario erregeak erabaki nuen, arreta txit andiarekin, oien araura egin ditezela.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Orduan Sisennes Zelesiria eta Siriako erregetxo mendekoa, eta Satrabuzanes, eta lagunak, Dario erregearen aginteak nai zituzten zaitu.

2. Arreta andiarekin joan oi ziran lan santuetara, Juduen zarrai, eta Siriako prinzipeai laguntzen ziela.

3. Eta galanki joan ziran lan txit santuak Agjeo, eta Zakariasek profeziak egiten zituztela.

4. Eta guztia bukatu zuten, Israelko Jaun Jaungoikoaren aginduz, eta Ziroen, eta Darioen, eta Artaxerxes Persiako erregearen esanez.

5. Eta bukatua izan zan gure etxea, Adar illaren ogeita irugarren egunerako, Dario erregearen seigarren urtean.

6. Eta egin zuten Israelko semeak, eta apaizak, eta Lebitak, eta katiberiokoak ziraden gañerakoak, zeñak alderatuak jarri ziran, Moisesen liburuan eskribituak dauden bezela.

7. Eta eskeñi zituzten Jaunaren tenploaren Dedikazioan, eun zezen, berreun arito, eta lareun bildots.

8. Eta auntzak Israel guztiko bekatuakgatik, amabi, tribu bakoitzagatik bat.

9. Eta apaizak eta Lebitak egon ziraden estolakin estaliak tribuetatik, Israelko Jaun Jaungoikoaren obra guztiez gañetik, Moisesen liburuaren araura, eta ate bakoitzean atezaia zegoan.

10. Eta egin zuten Israelko semeak, katiberiokoak ziradenakin, arako Phase afaria, lenbiziko illaren amalaugarren illargian, apaizak, eta Lebitak santutu ziranean.

11. Katiberioko seme guztiak etziraden batean santutu, zeren Lebita guztiak batean santutu ziraden.

12. Eta eskeñi zuten Phase afaria katiberioko seme guztiak, eta beren anaia apaizentzat, eta berentzat.

13. Eta jan zuten, katiberiokoak ziraden Israelko seme guztiak, lurreko jentillen madarikazio guztietatik bizirik gelditu ziradenak, Jauna billatzen zutela,

14. Eta zelebratu zuten legamigabeen jaia zazpi egunean, Jaunaren aurrean jaten zutela.

15. Zeren Asiriako erregearen konsejua itzuli zuen beren kontra, Israelko Jaun Jaungoikoaren obraetarako, beren eskuak sendotu itzatzu.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta onen ondoan, Artaxerxes Persiako erregeak erreñatzen zuela, alderatu zan Esdras, Azariaren semea, Helziaren semea, Solomeren semea,

2. Sadoken semea, Akitofen semea, Amerien semea, Azahelen semea, Bokzien semea, Abisuen semea, Fineesen semea, Eleazaroen semea, Aaron, lenbiziko apaizaren semea.

3. Esdras au Babiloniatik igo zan, Eskriba zanean, eta adimen txit iratzarrikoa Moisesen legean, zeñ eman zuen Israelko Jaun Jaungoikoak, erakusteko eta egiteko.

4. Eta erregeak gloria eman zion, arkitu zuelako grazia, diñade eta gura guztian bere aurrean.

5. Eta igo ziran berarekin batean Israelko semeetatik, eta apaizetatik, eta Lebitaetatik, eta tenploko kantari sakratuakin, eta atezaiakin, eta Jerusalengo tenploko serbitzariakin.

6. Zazpigarren urtean Artaxerxesek erreinatzen zuela, bosgarren illabetean, au erreñuko zazpigarren urtea da, bosgarren illeko illberrian Babiloniatik ateratzen ziradela,

7. Jerusalenera etorri ziran aren agintearen araura, Jaungoikoaren laguntasunarekin bidean ongi ibilli ziradelako.

8. Oietan bada Esdrasek asko aurreratzen zuen legeak ongi gordetzean; bada Jaungoikoaren legeak agintzen zuenik batere etzuen utzitzen egin gabetanik, eta Israel guztiari bear zan, eta ongi zetorren guztia erakusten ziola.

9. Alderatzen ziradela berriz, Artaxerxes erregeak nai zuena eskribitzen zutenak, eman zion batek Artaxerxesgandik etorritako karta bat, Esdras apaiz eta Jaunaren legearen irakurtzallearentzat, zeñak esaten zuena zan:

10. Artaxerxes erregeak Esdras apaiz, eta Jaungoikoaren legearen irakurtzalleari, osasuna.

11. Biguñtasun andiagoarekin juzgatzen dedala nik mesedeetan, agindu nien nai zutenai Judeako jendetik beren borondatez, eta apaizetatik eta Lebitaetatik, zeñak nere erreñuan dauden, Jerusalenera zuri lagundu dizazutela.

12. Nai badute bada zurekin joan, bildu bediz, eta bijoaz, nik, eta nere zazpi adiskide, eta konsejarik, nai degun bezela.

13. Ikusi dezaten zertzuk egiten diran Judean eta Jerusalenen, zaitzen dituzutela, Jaungoikoaren legeak agintzen dituenak.

14. Eta eraman dizaieztela doañak Israelko Jaun Jainkoari, zeñak nik eskeñi eta Jerusalengo adiskideak, eta Babiloniako alderrian arkitzen dan urre, ta zillar guztia, eraman bedi berarekin Jerusalenera Jaunarentzat,

15. Zeñ dan jendeak berak emana Jaunaren tenplorako, zeñ dagoan Jerusalenen, bildu dedin urre, eta zillar au zezenetarako, eta aritoetarako, eta bildotsetarako, eta antxumeetarako, eta beste oien antzekoetarako.

16. Eskeñi dizaiozkazan doañak Jaunari, beren Jaunaren aldarearen gañean, zeñ Jerusalenen dagoan.

17. Eta egin nai dezun guztia zure anaiakin, urre eta zillarrekin, zure borondatearen araura; zure Jaun Jaungoikoaren agintearen araura egin ezazu.

18. Eta ontzi txit santuak, zeñak emanak izan zizazkizun, zure Jaun Jaungoikoaren etxeko obra, Jerusalenen dagoanarentzat.

19. Eta zure Jaungoikoaren tenploko obraetarako bear dezun gañerako guztia, erregearen gordairutik emango dezu.

20. Nai dezunean zure anaiakin egin urre, eta zillarrarekin, Jaunaren borondatearen araura egin ezazu.

21. Eta nik Artaxerxes erregeak, Siriako, eta Feniziako zaitzalleai agindu nien, Esdras apaiz, eta Jaungoikoaren legearen irakurtzalleari, kontu andiarekin eman ditzakeola eun talentu zillar, eta berdin urre.

22. Eta eun anega aleraño, eta ardo eun kantaruraño, eta beste gauzak ugari, nai aña.

23. Gauza guztiak Jaungoikoaren legearen araura egin bediz, Jaungoiko txit goratuarentzat, jaiki ez dedin aserrea, erregearen, eta semearen, eta bere semeen erreñuan.

24. Zuei berriz esaten zatzute, apaiz, Lebita, eta elizkantari, eta tenploko serbitzariai, eta tenplo onetako eskribai,

25. Ez kotizik, ez beste zamarik batere jarri dizazutela, eta iñork ez dezala eskubiderik iduki, berai ezerere ezartzeko.

26. Zuk berriz Esdras, Jaungoikoaren jakinduriaren araura, jarri itzatzu juezak, eta zuzen erabakitzalleak Siria eta Fenizia guztian, eta zure Jaungoikoaren legea dakitenai, eman zaieztezu erakutsiak,

27. Legea austen duten guztiak, agudo eta arretarekin kastigatuak izan ditezen, naiz eriotzarekin, naiz oñazeakin, baitaere diruarekin multatu, edo dirua kenduarekin.

28. Eta Esdras eskribak esan zuen: Bedeikatua gure gurasoen Jaungoikoa, zeñak jarri zuen borondate au erregearen biotzean, argitzeko bere etxea, zeñ Jerusalenen dagoan.

29. Eta ni onratu ninduen, erregearen, eta bere konsejarien, eta adiskideen, eta purpuratuen aurrean.

30. Eta ni sendotu nintzan, nere Jaun Jainkoaren laguñtasunarekin, eta bildu nituen Israelko gizonak, nerekin batean joan zitezen.

31. Eta oiek dira agintariak beren errien araura, eta anditasun, tokatzen zaiztenak, nerekin Babiloniatik Artaxerxesen erreñura igo ziradenai.

32. Eta Faresen semeetatik, Jersonio. Siemariten semeetatik, Ameno. Dabiden semeetatik, Ako, Seeziliaren semea.

33. Faresen semeetatik, Zakarias, eta berarekin eun eta berrogei ta amar gizon, itzuli ziran.

34. Moabilion Zarko zuzentzallearen semeetatik, eta berarekin berreun eta berrogeita amar gizon.

35. Zakuesen semeetatik, Jekonias, Zekolei, eta berarekin, berreun eta berrogeita amar gizon.

36. Salaren semeetatik, Maasias Gotolia, eta berarekin irurogeita amar gizon.

37. Sapatiaren semeetatik, Zarias Mitxeli, eta berarekin larogei gizon.

38. Joben semeetatik, Abdias Jeheli, eta berarekin berreun eta amabi gizon.

39. Baniaren semeetatik, Salimot, Josafiaren semea, eta berarekin eun eta irurogei gizon.

40. Beerren semeetatik, Zakarias Rebei, eta berarekin berreun eta zortzi gizon.

41. Ezeaden semeetatik, Joannes Ekzetan, eta berarekin eun eta amar gizon.

42. Adonikamen semeetatik, berak atzenak, eta beren izenak oiek dira, Elifalam Jebelen semea, eta Semeias eta berarekin irurogei ta amar gizon.

43. Eta bildu nituen Thia izena duen ibaiaren aldean, eta an iru egunean egon giñan, eta kontatu nituen.

44. Eta apaizen eta Lebitaen semeetatik, ez nuen an batere arkitu.

45. Eta bialdu nuen Eleazarogana, eta Ekzelongana, eta Masmangana, eta Malobangana, eta Enaatangana, eta Sameagana, eta ioribungana, Natangana, Enuagamgana, Zakariasgana, eta Mosolamungana, berak zuzentzalleak, eta adituak.

46. Eta esan nien, etorri zitezela Loddeogana, zeñ gordairuko tokian zegoan.

47. Eta agindu nien esan zizaiela Loddeori, eta bere anaiai, eta gordairuan zeudenai, bialdu zizagutela, apaiztzan ari ziradenak, gure Jaun Jaungoikoaren etxean.

48. Eta ekarri zizkigun, gure Jaun Jaungoikoaren esku sendoaren araura gizon adituak: Moholien semeetatik, Lebiren semeak, Israhelen semeak, Sebebian, eta semeak, eta anaiak, zeñak emezortzi ziran.

49. Asbiam eta Amin Kanaantarren semeen semeetatikoak, eta beren semeak ogei gizon ziran.

50. Eta tenploa serbitzen zutenetatik, zeñak Dabidek eman zituen, eta prinzipeak berak tenploa serbitzen zuten Lebitai laguntzeko, berreun eta ogei. Guztien izenak eskrituretan adiraziak daude.

51. Eta eskeñi nuen an baraua gazteai Jaungoikoaren aurrean, iritxitzeko bide ona guretzat, eta gurekin zeudenentzat, eta semeentzat, eta abereentzat zelatadakgatik.

52. Zeren lotsa nintzan eskatzen erregeari oñazkoak, eta zaldizkoak laguntzeko guri, etsaien kontra laguntzeko.

53. Zeren erregeari esan giñion, Jaungoikoaren laguntasuna egongo dala, gogo guztiarekin bera billatzen dabenakin.

54. Eta berriz ere erregutu giñion gure Jaun, eta Jaungoikoari gauza oietarako, zeñ gure alde iduki genduen; eta gure Jaungoikoaren partaleak egiñak izan giñan.

55. Eta berezitu nituen jendetzako agintarietatik, eta tenploko apaizetatik amabi gizon, eta Sedebias, eta Asannas, eta berakin beren anaietatik amar gizon.

56. Eta eman niezten urrea eta zillarra, eta gure Jaungoikoaren etxeko apaiz ontziak, zeñak eman zizkiguten erregeak, eta bere konsejariak, eta prinzipeak, eta Israel guztiak.

57. Eta prestatuta jarri nituenean, eman niezten, eun eta berrogei ta amar talentu zillarrezko, eta eun talentu ontzi zillarrezko, eta eun talentu urrezko.

58. Eta urrezko ontziak zazpi alditan ogei; eta brontzezko ontziak, brontze onez argi egiten zutenak, amabi, urrearen kolorera ematen zutenak.

59. Eta esan nien: Eta zuek Jaunarentzat santuak zerate, eta ontziak santuak dirade, eta urrea eta zillarra, gure gurasoen Jaun Jainkoarentzat eskeñtza da.

60. Zaudete esna eta iratzarririk, eta zaitu itzatzute, aliketa jarri ditzatzuten artean jendetzaren agintarien, eta apaizen, eta Lebitaen, eta Israelko errietako prinzipeen eskuetan Jerusalenen, gure Jaungoikoaren etxeko bizitokian.

61. Eta urrea, eta zillarra, eta ontziak artu zituzten apaiz eta Lebitak, Jaunaren tenplora Jerusalenera eraman zituzten.

62. Eta aurreratu giñan Thia ibaietik lenbiziko illeko amabigarren egunean, Jerusalenen sartu giñan arteraño.

63. Eta irugarren eguna egina izan zanean, eta laugarren egunean pisatuak urrea eta zillarra, gure Jaun Jaungoikoaren etxean, Marimot Jori apaizaren semeari emanak izan zitzaiozkan.

64. Eta berarekin Eleazar Fineesen semea zegoan, eta Josado Jesuren semea, eta Medias, eta Ranni Lebitaren semea, sorbaldarako, eta pisu guztirako.

65. Eta beren pisua ordu atan beratan eskribitu zan.

66. Katiberiotik etorri ziradenak berriz, Israelko Jaun Jaungoikoari doaña eskeñi zien, amabi zezen Israel guztiagatik, larogeta sei arito,

67. Irurogei ta amabi bildots; akerrak bekatuakgatik amabi; eta osasunagatik amabi bei. Guztia Jaunaren sakrifiziorako.

68. Eta berriz irakurri zituzten erregearen aginteak erregearen dispensatzalleak; eta Zelesiriako, eta Feniziako erregetxo mendekoak, eta jendea, eta Jaunaren tenploa honratu zituzten.

69. Eta bukaturik oiek, agintariak alderatu ziraden nigana, esaten zutela: Etzituzten berezitu Israelko jatorria, eta prinzipeak, eta apaizak, eta Lebitak,

70. Eta jende arrotzak, eta lurreko erreñuak beren zikinkeriak ikasi zituzten Kanaantarrakgandik, eta Heteotarrakgandik, eta Fereseotarrakgandik, eta Jebuseotarrakgandik, eta Moabtarrakgandik, eta Ejiptoarrakgandik, eta Idumeatarrakgandik.

71. Zeren beren alabakin, berak, eta beren semeak elkartu diran. Eta nahasi da azi santua lurreko jende arrotzakin, eta agintari, eta majistraduak, erreñu aren asieratik, gaiztakeria aren partale izan ziraden:

72. Eta oiek adituta bereala, soñekoak, eta tunika sagradua urratu nituen; eta ateratzen nituela buruko illeak, eta bizarra, atsakabez eta naigabez eseri nintzan.

73. Eta bildu ziraden orduan, Israelko Jaun Jaungoikoaren itzera mugitzen ziran guztiak, nigana, gaiztakeria augatik negarrez nengoan onegana, eta arratsaldeko sakrifizioraño, tristerik eseria nengoan.

74. Eta jaikitzen nintzala barutik, soñekoak eta tunika sakratua etenak neuzkala, belaunikatzen nintzala, eta Jaunagana eskuak luzatzen nituela,

75. Itz oiek esaten nituen: Jauna, lotsatua nago, eta zure arpegiaren aurrean beldurtu naiz.

76. Zeren gure bekatuak ugaritu dira gure buruko illeez gañetik, eta gure gaiztakeriak zeruraño igo dira.

77. Zeren gure gurasoen denboretatik gaurko egunerañ, bekatu andietan bizi gera.

78. Eta gure bekatuakgatik, eta gure gurasoenakgatik, gera emanak gure anaiakin, eta gure apaizakin, lurreko erregeakin ezpatara, katiberiora, eta daukagun guztia arrapatua izatera lotsariakin gaurko egunerañ.

79. Eta orain begiraturik gertatzen zaigunera, iduki ezazu urrikaltasuna gure Jaun, ta Jaungoikoa, eta utzi zaguzu sustraia, eta izena zure santifikazioko tokian.

80. Agertu ezazu gure argia gure Jaun Jainkoaren etxean; eman zaguzu janaria gure serbitzoko denbora guztian.

81. Eta serbitzen genduenean, ez giñan gure Jaun Jaungoikoak utziak izan,

82. Eta argitu gure Jaun Jaungoikoaren tenploa, eta etxez bete Siongo eremuak, Judean eta Jerusalenen egotez bizitea eman.

83. Eta orain, zer esaten degu, Jauna, oiek idukirik? Zeren ausi giñituen zure aginte, zure aur profetaen eskuz eman ziñizkigunak,

84. Esaten zenduela: Zeren lurra, zeñatara sartu ziñaten, bere jabe eginik biziteko, lur kutsutua da lurreko arrotzen zikinkeriakin; eta aien loikeriak, guztia beren loikeriaz bete zuten.

85. Eta orain zuen alabak ez dituzute bilduko beren semeakin; ez beren alabak zuen semeentzat artuko dituzute.

86. Eta ez dezute billauko, pakea idukitzea aiekin denbora guztian, indarrak arturik, lurreko gauzarik obenak jan ditzatzuten, eta herenzia zuen semeai betiko eman dizaiezuten.

87. Eta guri gertatzen zazkigun gauza guztiak, guztiak gure obra gaiztoakgatik, eta gure bekatu andiakgatik gertatzen dira.

88. Eta alako sustraia eman ziñiguten, non berriz itzuli giñan zure agindu onak austen, lur onetako jende arrotzarekin, aien zikinkeriarekin nahasitzen giñadela.

89. Ez al zera aserretuko gurekin, gu galtzeko, aliketa gure sustrairik, ez gure izenik geldituko ez dan?

90. Israelko Jaun Jainkoa, egiatia zera. Zeren gaurko egunerañ sustraia utzia izan dan.

91. Ona non orain zure aurrean gure gaiztakerietan gaude. Zeren ez dan ongi oraindikan oietan zure aurrean egotea.

92. Eta adoratzen zuela, konfesatzen zanean Esdras, negarrez, lurrean etzinda tenploaren aurrean, bildu ziran bere aurrean Jerusalendik talde txit andiak, gizasemeak, eta emakumeak, eta mutil gazteak, eta neskaitz gazteak. Zeren talde artan negar andia zan.

93. Eta deadar eginik Jekonias Jeheli Israelko semeetatikoak, Esdrasi esan zion: Guk Jaunaren kontra bekatu egin degu, matrimonioan jarri ditugulako emakume arrotzak lurreko jendearekin.

94. Eta orain Israel guztiaren gañean zaude. Oiek bada egin bizaioe juramentu Jaunari, gure emazte guztiak arrotzetatikoak diradenak beren semeakin aurtikitzeko.

95. Nola zuri etorri zatzun asabetatik, Jaunaren legearen araura, jaikitzen zerala, adirazi ezazu.

96. Zeren lana zuri dagokizu, eta gu zurekin gera. Gizonkiro portatu zaite.

97. Eta jaikitzen zala, erregu biziak egin ziezten apaizen prinzipeai, eta Lebitai, eta Israel guztiari oien araura egiteko, eta juramentu egin zuten.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Eta jaikitzen zala Esdras tenploko atari aurrean, Jonatas Nasabien semearen bizitokira joan zan,

2. Eta an ostatuz zegoala, etzuen ogirik jan, ez urik edan, jendetza taldearen gaiztakeriagatik.

3. Eta predikatu zaten Judea guztian, eta Jerusalenen, katiberiotik etorrita Jerusalenen bilduta zeuden guztiai,

4. Baldin norbait etorriko ez balitza, bi egun, edo iruan, zar eseriak zeudenen iritzian, kenduko zirala beren eskubideak, eta berak katiberioko taldetik arroztzat iragoko ziradela.

5. Eta bildu ziran Jerusalenen iru egunean, Juda, eta Benjamingo tribukoak ziraden guztiak. Il au da bederatzigarrena, illaren eguna ogeigarrena.

6. Eta eseri zan talde guztia tenploko beean ikaraz, negua zalako.

7. Eta jaikitzen zala Esdras, esan zien: Zuek gaizki egin zenduten artzean zuen ezkontzetarako emazte arrotzak, onela Israelko bekatuak geitzeko.

8. Eta orain gure gurasoen Jaun Jaungoikoari konfesioa ta anditasuna eman zaiozkazute.

9. Eta bere borondatea egin ezazute, eta lurreko jendeetatik, eta emazte arrotzetatik alde egin ezazute.

10. Eta talde guztiak deadar egin zuen, eta boz andiarekin esan zuen: Esan dezun bezela, egingo degu.

11. Baña nola jende taldea andia dan, eta neguko denbora, eta ez gentzake egon zerbait jan gabe. Lan au berriz ez da egun batekoa, ez bikoa, zeren oietan, aspaldian asko bekatu egin degun.

12. Egon bediz taldearen agintariak, eta gurekin bizi diran guztiak; eta emazte arrotzak berakgan dauzkaten guztiak.

13. Eta etorri bediz denbora izendatuan toki guzietatik, apezak eta juezak, aliketa lan augatik Jaunak daukan aserrea bigundu dezaten artean.

14. Eta Jonatas Ezeliren semeak, eta Ozias Tekamek artu zuten oien araura, eta Bosoramo, eta Lebis, eta Sabbatteusek berakin batean lana egin zuten,

15. Eta katiberiokoak ziraden guztiak, oien guzien gisara egon ziran.

16. Eta Esdras apaizak autu zituen beretzat gizasemeak, prinzipe andiak beren gurasoetatik zeuzkaten izenen araura, eta eseri ziran gauza au esaminatzen, amargarren illeko illberrian.

17. Eta erabaki zan, emazte arrotzak zeuzkatenen gañean, lenbiziko illaren ilberriraño.

18. Eta arkitu ziran apaizetatik nahasiak, emazte arrotzak zeuzkatenak.

19. Jesusen semeetatik Josedeken semeak eta bere anaiak: Maseas, eta Eliozero, eta Joribus, eta Joadeo.

20. Eta eskuak ezarri zituzten, beren emazteak aurtikitzeko, eta biguñtzeko erreguakin aritoa beren ezjakinagatik.

21. Eta Semmerien semeetatik, Maseas, eta Esses, eta Jeelek, Azarias.

22. Eta Fosereen semeetatik, Limosias, Hismaenis, eta Natanee, Jussio, Reddus, eta Talsas.

23. Eta Lebitaetatik: Jorabdo, eta Semeis, eta Kolnis, eta Kalitas, eta Fakteas, eta Koluas, eta Elionas.

24. Eta kantari sagraduetatik, Eliasib, Zakarias.

25. Eta atezaietatik, Salumus, eta Tolbanes.

26. Eta Israeltik: Foroen semeetatik, Ozi, eta Remias, eta Jeddias, eta Melkias, eta Mitxelus, Eleazaro, eta Jammebias, eta Bannas.

27. Eta Jolamanen semeetatik: Txamas, eta Zakarias, eta Jezrelus, eta Joddius, eta Erimot, eta Helias.

28. Eta Zatoimen semeetatik, Eliadas, eta Liasamus, Zokias, eta Larimot, eta Zabdis, eta Tebedias.

29. Eta Zebesen semeetatik: Joannes, eta Amanias, eta Zabdias, eta Emeses.

30. Eta Bannien semeetatik: Olamus, eta Malutxus, eta Jeddeus, eta Jasub, eta Azabus, eta Jerimot.

31. Eta Abdinen semeetatik, Nathus, eta Moosias, eta Kaleus, eta Raanas, Maaseas, Mathathias, eta Beseel, eta Bonnus, eta Manasses.

32. Eta Nuaeren semeetatik: Noneas, eta Aseas, eta Melkias, eta Sameas, eta Simon, Benjamin, eta Malko, eta Marras.

33. Eta Asomen semeetatik: Karianeus, Matatias, eta Bannus, eta Elifalak, eta Manasses, eta semei.

34. Bannien semeetatik: Jeremias, eta Moadias, eta Abram, eta Joel, eta Baneas, eta Pelias, eta Jonas, eta Marinot, eta Eliasib, eta Mataneus, eta Eliasis, eta Orizas, eta Dielus, eta semedius, eta Zanbris, eta Jose.

35. Eta Nobeien semeetatik: idelus, eta Matatias, eta Sabadus, eta Zetxeda, Sedmi, eta Jessei, Baneas.

36. Oiek guztiok elkartu ziran emazte arrotzakin, eta semeakin utzi zituzten.

37. Eta apaizak eta Lebitak bizitu ziran, eta Israelkoak ziranak Jerusalenen, eta alderri guzti, eta bakar batean, zazpigarren illeko illargi berrian.

38. Eta talde guztia bildu zan batean, ate sagraduko sortaldean dagoan ondartzan.

39. Eta esan zien Esdras apaizburu, eta irakurtzalleari, ekarri zezala Moisesen lege, Israelko Jaun Jaungoikoak eman zuena.

40. Eta ekarri zion Esdras apaizburuak legea talde guziari, beren senartik emaztera, eta apaiz guztiak aditu zuten legea, zazpigarren illeko illberrian.

41. Eta irakurtzen zuen tenploko ate sagraduaren aurrean dagoan toki lauan, egunsentitik illunduarteraño gizasemeen ta emakumeen aurrean. Eta guztiak sinistea eman zioten legeari.

42. Eta egon zan Esdras apaiz, ta legearen irakurtzallea, zurezko tribunal, egin zan batean.

43. Eta egon ziran berarekin Matatias, eta Samus, Ananias, Azarias, Urias, Ezekias, eta Balsamus eskuietara:

44. Eta ezkerretara Faldeus, Misael, Malakias, Abustas, Sabus, Nabadias, eta Zakarias.

45. Eta Esdrasek artu zuan liburua jende talde guziaren aurrean, zeren guztien aurrean, gloria andiarekin, zegoan guztien buru egiten.

46. Eta bukatu zuenean legea, guztiak zuzendu, eta zutik jarri ziran, eta Esdrasek bedeikatu zuen Jaun Jaungoiko txit goratua, Jaungoiko Sabaoth guzialduna.

47. Eta erri guztiak erantzun zuen, Amen. Eta jasotzen zituztela goruntz eskuak, auzpeztzen ziradela lurrean, Jauna adoratu zuten.

48. Jesus, eta Banaeus, eta Sarebias, eta Jaddimus, eta Akubus,eta Sabbataeus, eta Kalites, eta Akarias, eta Joradus, eta Ananias, eta Filias Lebitak.

49. Jaunaren legea erakusten zutenak; eta jende talde artean Jaunaren legea irakurtzen zuten; eta geiago nai zien bakoitzak, lekzioa aditzen zutenai.

50. Eta esan zien Ataratesek Esdras apaizburuari, eta irakurtzalleari, eta jende taldeari erakutsiak ematen ziezten Lebitai,

51. Esaten zuela: Egun au Jaunarentzat santua da. Eta guztiak negar egiten zuten, legea aditzen zutenean.

52. Eta Esdrasek esan zuen: Joatzen zeratela bada, jan itzatzute gauzarik onen guztiak; eta edan itzatzute edaririk gozoen guztiak; eta bialdu zaiozkazute eskeñtzak, ez daukatenai.

53. Zeren Jaunaren egun au santua dan, eta etzaitezte tristeak egon. Zeren Jaunak argituko zaituzte.

54. Eta Lebitak adiraztzen zuten guztien aurrean, ta guztiai, esaten zutela: Egun au santua da, etzaitezte triste egon.

55. Eta joan ziran guztiak jatera, edatera, afaritzera, eta etzeukatenai eskeñtzak egitera, jan zezaten. Zeren andizkiro goratuak izan ziran itzakin, zeñakin izan ziran irakatsiak.

56. Eta bildu ziran guztiak Jerusalenen, bozkarioa zelebratzera, Israelko Jaun Jaungoikoaren testamentuaren araura. Atzena.

ESDRASEN LAUGARREN LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Esdras profetaren bigarren liburua, Sareien semearena, Azareien semearena, Helzieren semearena, Sadanieren semearena, Sadok-en semearena, Atxitofen semearena,

2. Atxieren semearena, Fineesen semearena, Heliren semearena, Ameriaren semearena, Asielen semearena, Marimoten semearena, Aruaren semearena, Oziasen semearena, Boriten semearena, Abiseiren semearena, Fineesen semearena, Eleazarren semearena,

3. Aaronen semea Lebiko Tribukoa, zeñ katibu izan zan Medoen alderrian, Artaxerxes Persaen erregearen erreñuan.

4. Eta Jaunak itz egin zidan, esaten zidala:

5. Zoaz, eta adirazi zaiozkazu nere erriari beren bekatuak; eta beren semeai, nere kontra egin zituzten gaiztakeriak, beren semeai adirazi dizaiezten,

6. Zeren beren gurasoen bekatuak berakgan azi ziran. Eta nerekin aztuta, Jaungoiko arrotzai eskeñtzak egin ziezten.

7. Ez al nituen nik Ejiptoko lurretik, mendetasuneko etxetik atera? Berak berriz, aserretuerazi zidaten, nere konsejuak mezpreziatu zituzten.

8. Zuk berriz, astindu itzatzu buruko illeak, eta gaitz guztiak aurtiki itzatzu beren gañera, etziotelako nere legeari obeditu. Erria berriz, ezin irakatsia da.

9. Noizarteraño sufrituko ditut aiek, zeñai anbeste mesede egin diedan?

10. Berakgatik asko errege mederatu nituen, Faraon bere aurrakin, eta bere martizdi guztia garaitu nuen.

11. Beren aurrean jende guztiak galdu nituen, eta eguzkiaren Sortaldean bi probinziako erriak Tiro, eta Sidongoak desegin nituen, eta beren etsai guztiak il nituen.

12. Zuk bada itz egin zaiezu berai, esaten diezula: Oiek Jaunak esaten ditu:

13. Nik zuek itsasoz eraman zenduztedan, eta karrikak zuei asieratik sendatuak eman nizkizuten. Agintaritzat Moises eman nizuten, eta Aaron apaiztzat.

14. Argia zuei suzko abe baten bitartez eman nizuten, eta mirari andiak zuekgan egin nituen; zuek berriz nerekin aztu zerate, Jaunak esaten du.

15. Oiek esaten ditu Jaun guzia dezakeanak: Galeperra zuentzat señaletzat izan zan; seguru egoteko gaztelua eman nizuten, eta an gaizki itz egin zenduten.

16. Eta etziñaten atera garai nere izenean, zuen etsaien galmenarekin; baizik orainarteraño murmuratu dezute.

17. Non dirade egin nizkizuten mesedeak? Eremuan gose ziñatenean, nigana deadarrez zuzendu ziñaten,

18. Esaten zendutela: Zergatik ekarri gaituzu eremu onetara, emen gu iltzeko? Obe izango genduen Ejiptoarrak serbitzea, baizik ez eremu onetan iltzea.

19. Ni urrikaldu nintzan zuen negarrakin, eta manna janaritzat eman nizuten.

20. Egarri ziñatenean, ez al nuen arria zulatu, eta urak ugaritasunean ez al ziran irten? Beroagatik zuaitzen ostoakin estali zinduztedan.

21. Eman nizkizuten lur giro eta gizenak. Kanaantarrak, Ferezeoak, eta Filistekoak, zuen aurretik aurtiki nituen. Onezkero zuekin zer egin nezake? Esaten du Jaunak.

22. Jaun guztia dezakeanak oiek esaten ditu: Eremuan zeundenean Amorreo ibaian egarriz, eta nigatik gaizki esaten,

23. Ez nizuten sua bialdu blasfemiakgatik, baizik aurtikirik zur bat uretara, ibaiko ura gozotu nuen.

24. Zer egingo dizut Jakob? Etzenduen obeditu nai Juda. Iragoko naiz beste jende batzuetara, eta nere izena emango diet, nere aginteak zaitu ditzaten.

25. Utzi ninduzutelako zuek, nik ere utziko zaituztet. Urrikaltasuna eskatzen didazutenean, ez naiz urrikalduko.

26. Ots egiten didazutenean, etzaituztet adituko. Zeren zuen eskuak odolez kutsutu dituzute, eta zuen oñak, gizonak iltzeko agudoak dira.

27. Kontu dezagun ez nazutela utzi, baizik zuek zerok, Jaunak esaten du.

28. Jaun guziadezakeanak oiek esaten ditu: Ez al nizuten nik erregutu, aitak semeai bezela, eta amak alabai bezela, iñudeak bere aurrai bezela,

29. Izan zindezen neretzat erritzat, eta ni zuentzat Jaungoikotzat; eta zuek neretzat semetzat, eta ni zuentzat aitatzat?

30. Ala nik bildu zinduztedan, olloak bere txitoak bere egoen azpian bezela. Orain bada zuekin zer egingo det? Nere arpegiaren aurretik aurtikiko zaituztet.

31. Eskeñtzaren bat ekartzen didazutenean, zuekgandik nere arpegiari aldeeraziko diot. Zeren zuen jaiegunak, eta ilberriak, eta zirkunzisioak gaiztotzat eman ditut.

32. Nik bialdu nituen nere aurrak profetak zuekgana; zeñak arturik ill zenduzten, eta zatitu zenduzten beren gorputzak, zeñaen odola eskatuko dedan, Jaunak esaten du.

33. Jaun guztia dezakeanak, oiek esaten ditu: Zuen etxea eremua da. Aizeak lasto ostotxoa bezela aurtikiko zaituztet,

34. Eta ez dute seme alabarik izango: zeren nere agintea mezpreziatu zuten; eta gaiztoa dana nere aurrean, egin zuten.

35. Jarriko ditut zuen etxeak datorren erriaren mendean, zeñak neri aditu gabe, nigan sinistzen duten. Miraririk agertu ez nienak, egingo dute nik agintzen diedana.

36. Profetarik etzuten ikusi, eta beren gaiztakeriakin oroituko dirade.

37. Ziertotzat ematen det datorren erriaren grazia, zeñaen aurrak goraka ari dira bozkarioz, ni ikusten ez nautela aragizko begiakin, baizik esan nituen gauzak, espirituarekin sinistzen dituztela.

38. Eta orain anaia begiratu ezazu, zer gloria, eta eguzkiaren Sortaldetik datorren erria ikusi ezazu,

39. Zeñai zuzentzalletzat emango dieztet Abraham, Isaak Jakob, eta Osee, eta Amos, eta Mikeas, eta Joel, eta Abdias, eta Jonas,

40. Eta Nahum, eta Habakuk, Sofonias, Agjeo, Zakarias, Malakias, zeñ Jaunaren Aingerua ere, ots egina izan dan.

BIGARREN KAPITULUA

1. Jaunak oiek esaten ditu: Nik erri au katiberiotik atera nuen, zeñai aginteak eman niezten nere aur profetaren bitartez, zeñai aditu nai etzien, baizik nere konsejuak utsean utzi zituzten.

2. Sabelean erabilli zituen amak esaten die: Zoazte, ene semeak, zeren ni alarguna eta utzia naizan.

3. Azi zinduztedan bozkarioarekin, eta galtzen zaituztet negar eta tristezarekin, zeren zuen Jaun Jainkoaren aurrean bekatu egin zenduten, eta gauza gaiztoa dana, bere aurrean egin zenduten.

4. Orain bada, zer egingo dizutet? Ni alarguna, ta utzia naiz: zoazte, ene semeak, eta Jaunari urrikaltasuna eskatu zaiozute.

5. Nik berriz zu, aita, testigu jartzen zaitut semeen amaren gañean, zeñak etzuten nai nere testamentua gorde,

6. Berai lotsaria eman dizaiezun, eta beren ama guztien irria eginda galdu ezazu, bere jatorriak iraun ez dezan.

7. Barreiatu bediz jentillen artean beren izenak, kendu bediz lurretik: zeren nere sakramentua mezpreziatu zuten.

8. Ai zure doakabea, Assur, gaiztoak zure etxean eskutatzen dituzuna. Jende gaiztoa, oroitu zaite Sodomari eta Gomorrari zer egin nien,

9. Zeñaen lurra dagoan arrai taldez, eta autz montoiz beterik. Ala jarriko ditut, ez nindutenak aditu, Jaun guzia dezakeanak esaten du.

10. Oiek esaten diozka Jaunak Esdrasi: Adirazi zaiozu nere erriari, Jerusalengo erreinua emango diodala, Israeli emateko nuena.

11. Eta beren gloria neretzat andia da, eta emango dieztet betiko bizitokiak, berentzat prestatu nituenak.

12. Bizitzako zugatza izango da aientzat okenduaren usai, eta ez dira lanean ariko, eta ez dira nekatuko.

13. Zoazte eta artuko dezute. Eskatu itzatzute zuentzat egun gutxi batzuek, egon ditezen. Onezkero erreñua zuentzat prestatua dago, esna zaudete.

14. Zerua ta lurra testiguak izan zaitezte. Zeren zatitu det gauza gaiztoa, eta egin det gauza ona, zeren bizi naiz ni, Jaunak esaten du.

15. Ama, zure semeak laztandu itzatzu; bozkarioarekin erakutsi onak eman zaiozkazu. Usoak bezela sendotu itzatzu beren oñak; zeren zu autatu zindudan, Jaunak esaten du.

16. Eta berriz biztuko ditut illak beren tokietatik, eta obietatik aterako ditut, zeren Israelen nere izena ezagutu nuen.

17. Semeen ama, etzaite beldur izan; zeren autu zaitut, Jaunak esaten du.

18. Bialduko dizkizut lagungarritzat nere aurrak Isaias eta Jeremias, zeñaen konsejura santutu eta prestatu nizkizun amabi zuaitz, asko fruta motaz beteak.

19. Eta beste ainbeste iturri esnea eta eztia daritenak, eta mendi neurrigabeak zazpi, arrosa eta lirioa ugari daukatenak, zeñatan zure semeak bozkarioz beteko ditudan.

20. Andre alarguna justotu ezazu; lagunik gabea juzgatu ezazu; premiatsuari, eman zaiozu; umezurtza, zaitu ezazu; billosa jantzi ezazu,

21. Astuna eta erkia sendotu itzatzu; urgunari etzaiozu farrarik egin, mainguari lagundu zaiozu, eta itsua artu ezazu nere argitasunean.

22. Zarra eta gaztea zure murruen barrenen iduki itzatzu.

23. Illak arkitzen dituzun tokian gurutzearekin, jarri itzatzu obian; eta nere erresurrekzioan lenbiziko tokia emango dizut.

24. Zaude zutik, geldi, nere erria, zeren zure atsedena etorriko dan.

25. Iñude ona, azi itzatzu zure semeak, beren oñak sendotu itzatzu.

26. Eman nizkizun mendekoetatik batere ez dezala iñork ere il, bada zenbat izan ziran, kontuak artuko dizkizut.

27. Etzaite atsekabetu. Zeren datorrenean atsekabe, eta ansiako eguna, beste batzuek negar egingo dute, eta triste egongo dira; zu berriz, bozkarioz eta ugari egongo zera.

28. Jendeak zelatan egongo dira, baña ezerere ezin egingo dute zure kontra, Jaunak esaten du.

29. Nere eskuak estaliko zaituzte, zure semeak infernua ikusi ez dezaten.

30. Gozatu zaite ama zure semeakgatik, zeren nik aterako zaitut, Jaunak esaten du.

31. Oroitu zaite zure seme lotan daudenakin, zeren nik lurreko aldamenetatik aterako ditut, eta berakin urrikaltasuna egingo det, zeren urrikaltsua naiz, Jaun guzia dezakeanak esaten du.

32. Laztandu itzatzu zure semeak natorren artean, eta urrikaltasuna berai eman dizaiedan, zeren nere iturriak ugari ematen dute, eta nere grazia ez da aituko.

33. Nik Esdrasek, Jaunagandik artu nuen agintea Horebko mendian, Israelera joan nendin, zeñakgana etorri nintzanean, gaizki artu ninduten, eta mezpreziatu zuten Jaunaren agintea.

34. Argatik esaten dizutet aditzen, eta konprenditzen dezuten jendeak: itxedon ezazute zuen artzaiakgan, betikoirauneko atsedena emango dizute, zeren aldean dan gizaldiaren atzenean etorriko dana.

35. Prestatuak egon zaitezte erreñuko sarietarako, zeren betiko argiak argi egingo dizute betikoirauneko denboran.

36. Mundu onetako itzaletik iges egin ezazute, zuen gloriako gozotasuna artu ezzute. Nik agirian, nere salbatzallea testigu jartzen det.

37. Doai eskeñia artu ezazute, eta bozkariotu zaitezte, eskerrak ematen diozkazutela, zeruetako erreñura ots egin zizutenari.

38. Jaiki zaitezte, eta zaudete zutik, eta ikusi ezazute, zenbat diran Jaunaren konbitean sillutuak.

39. Munduko itzaletik ara joan ziradenak, tunika argiak Jaunagandik artu zituzten.

40. Artu itzatzu Sion, zureak diradenak; eta bukatu itzatzu aren naiarekin zenduzkanak, zeñak Jaunaren legea zaitu zuten.

41. Zure seme, nai zituenak, guztiak daude. Erregutu zaiozu Jaunaren agintaritzari, santutua izan dedilla zure erri, asieratik ots egina izan zana.

42. Nik Esdrasek, ikusi nuen Siongo mendian talde jendetza andi bat, zein ezin nuen kontatu, eta kanta mota guziakin Jauna alabatzen zuten.

43. Eta beren erdian zegoan mutil gazte bat, gorputz goratua zeukana, beste guztiak baño altuagoa, eta beren bakoitzaren buruan koroeak ipintzen zituen, eta goratuago egiten zan. Ni berriz, mirariakin arritua nengoan.

44. Orduan aingeruari galdetu nion, eta esan nion: Oiek, zeñ dira, Jauna?

45. Berak neri erantzuten zidala, esan zidan: Oiek dira tunika ilkorra utzi zutenak; eta illeziña artu zutenak; eta Jaungoikoaren izena aitortu zuten. Orain koroaz apaintzen dira, eta palmak artzen dituzte.

46. Eta aingeruari esan nion: Arako mutil gazte, besteai koroeak ipintzen zieztena, eta palmak eskuetan jartzen zieztena, zeñ da?

47. Eta erantzuten zidala, esan zidan: «Bera da Jaungoikoaren semea, zein munduan konfesatu zuten»; ni berriz asi nintzan berak goratzen, Jaunaren izenagatik sendaro gudatu ziradenak.

48. Orduan Aingeruak esan zidan: Zoaz, adirazi zaiozu nere erriari, zelako, eta zenbat Jaun Jaungoikoaren mirari ikusi dezun.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Erriaren galmenetik ogeita amargarren urtean nengoan Babilonian, eta nahasi nintzan nere oearen gañean etzinda nengoala, eta nere gogorazioak nere biotzaren gañera igotzen ziran.

2. Zeren Siongo igesa, eta Babilonian bizi ziradenen ugaritasuna, ikusi nituen.

3. Eta aizatu zan txit nere espiritua, eta asi nintzan itz beldurkorrak Jaungoiko txit goratuari esaten,

4. Eta esan nuen: O Jaun, gauza guztien jabea, zuk esan zenduen asieran, jarri zenduanean lurra, eta au bakarrik, eta erriari agindu ziñion,

5. Eta Adani gorputz illa eman ziñion, baña bera ere zure eskuen lana zan, eta itsatsi ziñion bizitzako espiritua, eta zure aurrean bizitzaduna egin zan.

6. Eta jarri zenduen paradisuan, zeñ ipiñi zuen zure eskuiko eskuak, lurra izan baño lenago.

7. Eta oni agindu ziñon, zure bidea maitatu zezala, eta utzi zuen, eta bereala ipiñi zenduen eriotzea beragan, eta bere erreñuetan, eta jaio ziran jendeak, eta Tribuak, eta erriak, eta jatorriak, kontatu ez litezkenak.

8. Eta jende bakoitza ibilli zan gogoak eman zion eran, eta gauza miragarriak egiten zituzten zure aurrean, eta zure aginteak mezpreziatzen zituzten.

9. Berriz ere bere denboran bialdu zenduan ugoldea, munduan bizi ziradenen gañera, eta galdu ziñituen.

10. Eta gertatu zan beretatik bakoitzean, nola Adan il zan, ala oiek ugoldearekin.

11. Utzi zenduan berriz oietatik bat Noe bere etxearekin, eta beragandik justo guztiak.

12. Eta gertatu zan asi ziradenean ugaritzen lurraren gañean bizi ziradenak, ugaritu zituzten semeak, eta erriak eta asko jende, asi ere ziraden berriz lengoak baño gaiztakeria andiagoak egiten.

13. Eta gertatu zan, zure aurrean gaiztakeria egiten zutenean, beretatik zuretzat autatu zenduen gizon bat, zeñaen izena Abraham zan.

14. Eta maitatu zenduen, eta berari bakarrik zure borondatea agertu ziñion.

15. Eta egin ziñion betiko testamentua, eta esan ziñion, etzenduela beñere bere jatorria utziko. Eta eman ziñion Isaak, eta Isaak-i Jakob eta Esau eman ziñiozkan.

16. Eta zuretzat artu zenduen Jakob, Esau berriz berezitu zenduen. Eta Jakob talde andian egin zan.

17. Eta gertatu zan, atera zenduenean bere jatorria Ejiptotik, Sinako mendiaren gañera eraman zenduen.

18. Eta beeratu zenduzten zeruak, eta geldirik jarri zenduen lurra, eta mugitu zenduen mundua, eta dardar jarri ziñituen lizeak, eta guztia nahasi zenduen.

19. Eta zure gloriak irago zituen lau ate, suarena, lurdardarena, espiritua, eta izotza, eman zenezaion Jakoben jatorriari legea; eta Israelko gizadiari prestatasuna.

20. Eta etzenduen berakgandik biotz gaiztoa kendu, beretan zure legeak frutua egin zezan,

21. Zeren biotz gaizto bizkarrekoa, lenbiziko Adanek autsi zuen, eta garaitua izan zan, baita beragandik jaiotako guztiak ere.

22. Eta iraunkorrak egin ziran eritasuna eta legea erriaren biotzarekin, sustraiaren gaiztakeriarekin, eta alde egin zuen ona danak, eta gaiztoa zana gelditu zan.

23. Eta irago ziran denborak, eta bukatu ziran urteak, eta billatu zenduen zuretzat serbitzari bat, Dabid izena zuena.

24. Eta esan ziñion berari, zure izenari erri bat egin zizaiola, eta bertan zuri inzensoa eta doañak eskeñtzea.

25. Eta au urte askoan gertatu zan, eta errian bizi ziradenak utzi zuten.

26. Gauza guztietan egiten zutela, Adanek eta bere jatorriak egin zuten bezela. Zeren berak ere biotz gaiztoa zeukaten.

27. Eta zure erria, zure etsaien eskuetan jarri zenduen.

28. Gauza obeagoak egiten al dituzte Babilonian bizi diradenak? Eta onegatik Sionek agintatuko du?

29. Gertatu zan, onara etorri nintzanean, eta ikusi nituenean neurrigabeko gaiztakeriak, eta bekatari asko ikusi zuen nere animak ogeita amargarren urte oietan, eta nere biotza illa gelditu zan.

30. Zeren ikusi nuen, nola sufritzen diezun oiei bekatarioi, eta barkatu diezun gaizki egiten dutenai, eta galdu zenduen zure erria, eta bizirik utzi ziñien zure etsaiai, eta etzenduen adirazi.

31. Ezererekin ere ez nintzan oroitu, nola bear nuen utzi bide au. Babilonek, Sidonek baño gauza obak egiten al ditu?

32. Edo beste jendek ezagutu al zaitu Israelek baño? Edo zeñ tribuk sinistu zuten zure testamentuetan, Jakobek bezela?

33. Zeñaen ordaña ez da agertu, ez lanak fruturik eman du. Iragotzen nintzala bada, irago nintzan jentillen artetik, eta ikusi nituen aiek ugariak, eta zure aginteakin oroitzen ere etziradela.

34. Orain bada, pisatu itzatzu pisu batean gure gaiztakeriak, eta kanpoan bizi diradenenak, eta ez da zure izena aurkituko, baizik Israelen.

35. Edo noiz utzi zuten bekatu egin gabe lurrean bizi diradenak? Edo ze jendek orrela zure aginteak zaitu ditu?

36. Oiek egiaz, beren izenetatik arkituko dezu, zure aginteak zaitu dituztela, jendeak ordea ez dituzu arkituko.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta erantzun zidan nigana bialdua izan zan aingeruak, zeñaen izena Uriel zan.

2. Eta esan zidan: Geiegian geiegi egin du zure biotzak mundu onetan, eta uste dezu txit goratuaren bidea aditzea?

3. Eta esan nuen: Alashe nere Jauna. Eta erantzun zidan, eta esan zuen: iru bider bialdua izan naiz zuri erakustera; edo zure aurrean iru irudi ipintzera.

4. Zeñatatik bat neri adirazten badidazu, nik erakutsiko dizut ikusi nai dezun bidea, eta esango dizut biotz gaiztoa nondik datorren.

5. Eta esan nuen: Nere Jauna, itz egin ezazu. Eta esan zidan: Zoaz, pisatu ezazu suaren pisua; edo neurtu zadadu neri aizearen ibillitxo bat; edo irago zan eguna ekarri zadazu.

6. Eta erantzun ta esan nuen: Zeñ jaiotakok egin lezake galde oiek neri egitea?

7. Eta esan zidan: Galdetu banizu, esaten dizudala, zenbat bizitoki daude itsasoaren biotzean; edo zenbat zan daude lizearen asieran; edo zenbat zan daude zeruaren gañean; edo paradisuko irteerak zenbat diran.

8. Noaski esango zenezaket, lizera ez naiz jetxi; ezta infernura ere oraindik, zerura ere ez naiz beñere igo.

9. Orain bada ez dizut galderik egin baizik suaren, aizearen, eta egunaren gañean, zeñatatik irago zeran, eta zeñatatik ez dezakezun alderik egin, eta ez didazu beren gañean neri erantzun.

10. Eta esan zidan: Zuk zureak diranak, zurekin gazte denboratik daudenak, ez ditzakezu ezagutu.

11. Eta nola alko du zure ontziak artu txit goratuaren bidea, eta onezkero azaletik usteldurik mundua, usteltasun zierto bat nere arpegian aditu?

12. Eta esan nion: Obeago izango zan, gu ez bagiña izan; ez oraindikan bizi gerala bizi gaiztakerietan, eta sufritu, eta ez aditu zergatik.

13. Eta erantzun, eta esan zidan: Ninjoala joan nintzan kanpoko zurezko baso batera, eta gogorazioak gogoratu zituzten.

14. Eta esan zuten: Atozte, eta goazen, eta itsasoari gerra egin dizaiogun, alde egin dezan gure aurretik, eta beste baso batzuek egin ditzagun.

15. Eta orobat itsasoko bagak, berak ere gogoratu zituen gogorazioak, eta esan zuten: Atozte, igotzen gerala, kanpoko basoak ondatu ditzagun, an iduki dezagun guretzat beste toki bat.

16. Basoaren gogorazioa utsean gelditu zan; zeren etorri zan sua eta autz biurtu zuan.

17. Orobat itsasoko bagaen gogorazioa ere, zeren bitartean ondarra jarri zaten, eta galerazi zien.

18. Baziña oien jueza, zeñ asiko ziñatezke ontzat ematen, eta zeñ gaiztotzat?

19. Eta erantzun, eta esan nuen: Egiaz gogorazio alperra gogoratu zuten. Zeren lurra basoari emana izan zaion; eta itxasoari tokia bere bagak eramateko.

20. Eta erantzun eta esan zidan: Ongi zuk juzgatu dezu, eta zergatik ez dezu zugatik ala juzgatzen?

21. Ala bada nola basoari lurra emana izan zaion, eta itsasoa bere bagai, ala lurraren gañean bizi diranak, lurreko gauzak aditu ditzake; eta zeruan daudenak zerukoak.

22. Eta erantzun eta esan nuen: Erregutzen dizut, Jauna, aditzeko zentzua emana izan dakidala.

23. Zeren ez nituen nai galdeak egin gauza goratuen gañean, baizik gure artean egunoro iragotzen diradenen gañean. Zergatik Israel izan da jentillen lotsaria egina? Maitatzen zenduen erria, izan da tribu gaiztoen mendean jarria, eta gure gurasoen legea desegitera izan da eramana, eta erabakiak beñere ez dira eskribituak izan.

24. Eta irago giñan mundutik, langostak bezela, eta gure bizitza beldurra eta ikara da, eta ez gera diña urrikaltasuna iritxitzeko.

25. Eta zer egingo du bere izenarekin, zeñ gure gañean izan dan ots egina? Eta oien gañean galdetu nuen.

26. Eta erantzun eta esan zidan: Examina asko egingo bazeneza, maiz mirarituko zera, zeren agudo dabil mundua iragotzeko.

27. Eta ezin sufritu ditu, geroko denboretan justoentzat eskeñiak dauden sariak, zeren mundua injustiziaz betea dago, eta au erietan ere.

28. Galdetzen dizkidazunakgatik berriz, esango dizut: Gauza gaiztoa ereina izan da, eta ez da izan desegina.

29. Baldin bada nahasitzen ez bada erein dan tokia, eta alde eraziko ez balitzaio azi gaiztoari, ona erein zan tokian ez da etorriko.

30. Zeren azi gaiztoaren sustraia, asieratik Adanen biotzean ereina izan zan, eta zenbat gaiztakeria ez du sortu orainarteraño, eta munduaren bukaeraraño sortzen du.

31. Begiratu ezazu zugan, azi gaiztoaren sustraiak, zenbat gaiztakeriako frutu sortu duen.

32. Buruak ebakiak diranean, zeñak diran nuerrigabeak, ze larrañ andia asiko dira egiten?

33. Eta erantzun eta esan nuen: Nola, eta noiz oiek? Zergatik urte gutxi, eta gaiztoak gureak?

34. Eta erantzun zidan eta esan zidan: Jaungoiko txit goratuaren gañean, etzaite zu agudo ibilli. Zeren agudo zabiltz alperrik, bere gañean jartzeko. Zeren zure geiegia, andia da.

35. Ez al zituzten egin oien gañean galdeak justoen animak beren itz laburretan, esaten zutela: Noizarteraño itxedotzen det onela? Eta noiz gure mesedearen irabazi ta frutua etorriko da?

36. Oietara Jeremiel Arkanjeluak erantzun, eta esan zuen: Bukatzen danean zuekgan bear dan azia, zeren pisuan mundua pisatu zuen,

37. Eta neurriarekin neurtu zituen denborak, eta zenbatarekin zenbatu zituen denborak, eta etzuen mugitu, ez ukiturik egin, dio, leen esan dan neurria kunplitu dedin arteraño.

38. Eta erantzun, eta esan nuen: O Jaun, menderatzallea, baña gu guztiok ere, gaiztakeriaz beteak gaude.

39. Ez al dirade geldituko gugatik kunplitu gabe justoen irabaziak, lurraren gañean bizi diranen bekatuakgatik.

40. Eta erantzun eta esan zidan: Zoaz, eta galdetu zaiozu aurra egiteko dagoanari, kunplitzen dituenean bere bederatzi illabeteak, oraindik bere sabelak beragan denbora geiagoan idukiko duen aurra?

41. Eta esan nuen: Ez dezake Jauna. Eta esan zidan: infernuan prontuarioak animen sabelaren antzekoak dira.

42. Zeren nola aurra egin bear duenak, nai duen anbat lasterren egitea, ala onek ere anbat lasterren itzuli nai du, eman diotena.

43. Asieratik zuri erakutsiko zatzu, ikusi nai dituzun gauzaetatik.

44. Eta erantzun eta esan nuen: Grazia zure begien aurrean arkitu badet, al baldin, eta adjutua banaiz.

45. Erakutsi zadazu, irago dana baño geiago etorriko dan, ala geiago irago dan etorriko dana baño.

46. Zer igaro dan, badakit; baña zer igaroko dan, ez dakit.

47. Eta esan zidan: Zaude eskuieko aldamenerontz, eta irudiaren azaldaera emango dizut.

48. Eta egon nintzan zutik, eta begiratu nuen, eta ona emen labe erazeki bat nere aurretik irago zan. Eta gertatu zan, garra iragotzen zanean, begiratu nuen, eta ona non kea geiago izan zan.

49. Oien ondoan irago zan nere aurretik odei bat urez betea, eta asko euri indarrarekin aurtiki zuen, eta euriaren indarra irago zanean, tantoak bertan gelditu ziran.

50. Eta esan zidan: Gogoratu ezazu, nola euria azitzen dan tantoak baño geiago, eta sua kea baño geiago, ala ugariago izan zan, neurri irago zana. Tantoak eta kea dira gelditu ziradenak.

51. Eta erregutu eta esan nuen: Uste al dezu egun aietaraño biziko naizala? Edo egun aietan zer izango da?

52. Erantzun zidan, eta esan zuen: Galdetzen didazun siñaleakgatik, batzuek esan ditzakezut; zure bizitzaren gañean berriz, ez naiz zuri esatera bialdua izan, baña ez dakit.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Siñaleen gañean orain, ona non etorriko diran egunak, zeñatan arrapatuak izango diran zenso askoan bizi diranak, eta egiazko bidea ezkutatuko da, eta erregearen fedeagandik soilla izango da.

2. Eta ugarituko da injustizia, zuk ikusten dezun onen gañean, eta zeñi beste denbora batean gorroto ziñion,

3. Eta izango da lorratz jarria, orain erreinatzen duela ikusten dezun erreinua, eta eremutua ikusiko dute.

4. Txit Jaungoiko goratuak berriz bizitza emango balizu, ikusiko dezu irugarren tronpetaren ondoan eta argi egingo du batbatean eguzkiak gauaz, eta illargiak iru alditan egunean,

5. Eta egurrak odola emango du, eta arriak bere boza emango du, eta erria mugituko dirade.

6. Eta erreinatuko du, itxedotzen ez dutenak lurraren gañean bizi dala, eta egaztiak aldakuntza egingo dute,

7. Eta Sodomako itsasoak arraiak aurtikiko ditu, eta emango du boza gauaz, zeñ etzuten askok ezagutzen. Bere boza berriz guztiak adituko dute.

8. Eta nahasia izango da toki askotatik; eta sua maiz indargutxituko da; eta basoabereak aldamen batetik bestera joango dira, eta andre aurdunak gauza arrigarriz erdiko dira.

9. Eta ur gozoetan gaziak arkituko dira, eta adiskide guztiak beren kontra ariko dira. Eta orduan zentzua ezkutatuko da; eta adimena bere prontuariora berezituko da.

10. Eta askok billatua izango da, eta ez da arkitua izango, eta lurraren gañean injustizia eta inkontinenzia ugarituko dira.

11. Eta alderri batek galdetuko dio bere aldamenekoari, eta esango dio: Zugandik iragotzen al da justizia, justoa egiten duela? Eta au ukatuko du.

12. Eta gertatuko da denbora artan, gizonak itxedongo dute, eta ez dute iritxiko, lanean ariko dira, eta beren bideak ez dira zuzenduko.

13. Siñale oiek zuri esatea, laketu zait, eta berriz ere orazio eta negar egiten badezu, orain ere bezela, eta zazpi egunean barur egiten badezu, berriz oiek baño andiagoak adituko dituzu.

14. Eta beillan egon nintzan, eta nere gorputza txit izutu zan, eta nere anima nekau zan, aginte gabe gelditzeko eran.

15. Eta eldu zidan etorri zan aingeruak, zeñak nerekin itz egiten zuen, eta sendotu ninduen, eta nere oñen gañean jarri ninduen.

16. Eta gertatu zan bigarren gauean, eta etorri zan Salatiel erriko agintaria nigana, eta esan zidan: Non ziñan? Eta zergatik zure arpegia triste dago?

17. Ez al dakizu Israel beren aldakuntzako alderrian zure kontura gelditu dala?

18. Jaiki zaite bada, eta ogia jan ezazu, eta ez gaitzatzu utzi, artzaiak bere artaldia otso gaiztoen eskuetan bezela.

19. Eta esan nion: zoaz nigandik,eta etzaite nigana alderatu. Eta aditu zuen, esan nion bezela, eta nigandik alde egin zuen.

20. Eta nik barau egin nuen zazpi egunean inziriaka, eta negarrez, Uriel Aingeruak agindu zidan bezela.

21. Eta gertatu zan zazpi egun iragota, berriz ere nere biotzeko gogorazioak, neretzat txit gogaikarriak ziraden,

22. Berriz artu zuen nere animak aditzako espiritua: eta berriz asi nintzan Jaungoiko txit goratuaren aurrean itz egiten,

23. Eta esan nuen: Jaun Agintaria, lurreko baso guztietatik, eta bere zuaitz guztietatik, masti bakar bat autatu zenduen:

24. Eta munduko lur guztitik, lize bat zuretzat autu zenduen: eta bere zuaitz guztietatik, lirio bat zuretzat autu zenduen:

25. Eta itsasoko ondo guztietatik, ibai bat zuretzat bete zenduen: eta egin ziñituen erri guztietatik, Siongoa zerorrentzat santutu zenduen.

26. Egin ziñituen egazti guztietatik, uso bat zuretzat izendatu zenduen, eta egin ziñituen abere guztietatik ardi bat zuretzat gorde zenduen

27. Eta erri ugaritu guztietatik, erri bat zuretzat artu zenduen, eta guztiak probatutako legea, nai izan zenduen erri oni eman ziñion.

28. Eta orain Jauna, zergatik bat askori eman ziñion? Eta sustrai baten gañean, beste batzuek prestatu ziñituen: eta zure bakarra askotan galdu zenduen.

29. Eta oñen azpian erabilli zuten, zure eskeñiai kontra egiten zienak; eta zure testamentuai sinisterik ematen etzienak.

30. Eta baldin gorrotoarekin zure erria gorrotatu badezu, zure eskuakin kastigatu bear du.

31. Eta gertatu zan, esan nituenean izketak, eta Aingerua nigana bialdua izan zan, zeñ igaro zan gabean nigana bialdua izan zan.

32. Eta esan zidan: Aditu nazazu, eta erakutsiak emango dizkizut; eta begiratu zadazu, eta zure aurrean lengo esanai itsatsiko dieztet.

33. Eta esan nuen: nere Jauna, itz egin ezazu. Eta esan zidan: Asko zuk Israelgatik adimeneko orazioan egin dezu, baña geiago maitatu al dezu, egin zuenak baño?

34. Eta esan nion: Ez Jauna, baña naigabez itz egin det. Zeren ordu guztietan nere guntzurrunak oñazkatzen naute, Jaungoiko txit goratuaren bidea ezagutu nairik, eta bere juizioaren partea billatu.

35. Eta esan zidan, Ez dezakezu. Eta esan nuen, Zergatik Jauna? Zertarako jaiotzen nintzan; edo zertarako nere amaren sabela neretzat obi etzan egiten, Jakoben lana,eta Israelko jatorriaren neke, ez ikusienean?

36. Eta esan zidan: Kontatu zazkidazu, gertatu ez diraden gauzak; eta ur tanto barreiatuak bildu itzatzu; eta lore zimelduak berdetu zazkidazu.

37. Eta idiki zazkidazu prontuario itxiak; eta beretan gelditurik dauden aizeak atera itzatzu, bozaren irudia erakutsi zadazu. Eta orduan erakutsiko dizut ikusteko erregutzen dezun lana.

38. Eta esan nuen, Jaun Agintzallea, zeñ da gauza oiek jakin ditzakeana, baizik gizonakin bizitokia ez daukana?

39. Ni berriz gutxi jakina, eta galdetzen dizkidazun gauzaetara, nola erantzun nezake?

40. Eta esan zidan: Nola ez dezakezun bat egin esan diraden gauzaetatik, ala nere erabakia ezingo dezu arkitu, eta atzenean erriari eskeñi nion karidadea.

41. Eta esan nuen: Baña ona non Jauna, zu atzenean daudenen aldean zaude, eta zer egingo dute ni baño lenago izan ziradenak, gu bezela, edo gure ostean izan diranak?

42. Eta esan zidan: Nere erabakia koroeari idurituko diot. Nola ez dan atzenekoen luzapena; ala ez da lenbizikoen arintasuna ere.

43. Eta erantzun, eta esan nuen: Ezin batera egin ziñitzakean egin zutenak, eta diradenak eta izango diradenak, agudoago zure erabakia erakutsi dezazun?

44. Eta erantzun eta esan zidan: Ez dezakezu agudo ibilli dedilla kreaturea kreatzallearen gañean, ez geldirik iduki ere mundua, bertan batera eginak izango diranak.

45. Eta esan nuen: Nola esan ziñion serbitzariari, bizia emanarekin biztu zenduela kreatura batera egina, eta kreatura sostentzen zan, orain ere eraman alko ditu oraingoak batera?

46. Eta esan zidan: Andrearen sabelari galde zaiozu, eta esango diozu: Eta baldin aurra egiten badezu, zergatik denboragatik. Erregutu zaiozu amar batean eman ditzala.

47. Eta esan nuen: Ziertoro ezin egingo ditu, baizik denboraren araura.

48. Eta esan zidan: Eta nik eman nien lurrezko sabela, erein zutenai bere gañean denboran.

49. Zeren nola aurra ez dan erditzen, zarrenak diradenak, ala nik erabaki nuen, mundua ala egina izan zedilla.

50. Eta galdetu eta esan nuen: Bidea ematen didazunean, zure aurrean itz egingo det, zeren gure ama, zeñgatik itz egin ziñidan, oraindik gaztea da. Onezkero zarra izatea aldean dauka.

51. Eta erantzun zidan, eta esan zuen: Galde zaiozu aurra egin duenari, eta esango dizu.

52. Zeren esango diozu: Zergatik oraintzuan egin dituzun aurrak, ez dira lengoen antzekoak andiak eta sendoak, baizik txikiak eta erkiak?

53. Eta berak esango dizu: Aiek diralako gazte denborako indar sendoan jaioak; oiek berriz, zartzako erkitasunean eta gorputz otzean.

54. Begiratu ezazu bada zuk ere, txikiagoak zeratela, zuen aurretikoak baño.

55. Eta zuek baño geroago diranak, zuek baño txikiagoak izango dira, diralako guraso zartuen seme alabak, gazte denborako sendotasuna galdu zatenenak. Eta esan nuen: Erregutzen dizut, Jauna, baldin zure begien aurrean grazia arkitu badet, erakutsi dizaiozula serbitzari oni, zergatik kreatura bisitatzen dezun.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta esan zidan, lurreko biribiltasunaren asieran; eta munduko irteerak baño lenago; eta aizeen elkartasunak bukatu zitezen baño lenago,

2. Eta turmonaden bozak ots egin zezaten baño lenago; eta tximisten argitasunak argi egin zezaten baño lenago; eta paradisuko zimenduak sendotu baño lenago,

3. Eta lora ederrak ikusiak izan zitezen baño lenago; bertute mugituak sendotu zitezen baño lenago; eta Aingeruen martizti, kontatu ezinak bildu zitezen baño lenago,

4. Eta aizearen alturak goratuak izan zitezen baño lenago; eta firmamenduen neurriak izendatu baño lenago; eta Siongo tximiñiak berotu eta goritu ditezen artean.

5. Eta oraingo urteak esaminatu artean eta lenago; eta arroztu ditezen baño lenago bekatu egiten duten aien asmazioak; eta eskribituak izan artean, fedea montoitzen zutenak.

6. Orduan gogoratu zitzadan, eta nik bakarrik egin nituen, eta ez besteren bitartez, eta atzena nik, eta ez besteren bitartez.

7. Eta erantzun, eta esan nuen: Zeñ izango da denboren bereziera? Edo noiz lenbizikoaren atzena, eta jarraitzen dionaren asiera?

8. Eta esan zidan: Abrahamgandik Isaakganaraño, jaio ziranean beragandik Jakob eta Esau, Jakobek iduki oi zion eskua asieratik Esauri orpoan.

9. Zeren gizaldi onen atzena Esau da; datorrenaren asiera Jakob.

10. Gizonaren eskua, orpoaren eta eskuaren artean. Esdra, ez ezazu besterik billatu.

11. Eta erantzun eta esan nuen: O Jaun Agintzallea, baldin zure begien aurrean grazia arkitu badet,

12. Erregutzen dizut, erakutsi dizaiozula zure serbitzariari, zure siñaleen atzena, zeñaen zati bat, irago dan gabean erakutsi ziñidan.

13. Eta erantzun eta esan zidan: Jaiki zaite, eta jarri zutik, eta bozaren ots txit betea aditu ezazu.

14. Eta mugimendua bezelakoa izango da; baña zu bere gañean zauden tokia, ez da mugituko.

15. Argatik itz egiten duenean, etzaite zu ikaratu, zeren atzenagatik, itza eta lurreko zimendua aditzen da.

16. Zeren berakgatik egiten dan izketak ikaratu, eta mugitzen du, zeren badaki beren atzenak mutatu bear dala.

17. Eta gertatu zan, aditu nuenean, jaiki nintzan, eta nere oñen gañean jarri, eta aditu nuen, eta ona emen boz bat itz egiten zuena, eta bere otsa, ur askoren otsa bezelakoa,

18. Eta esan zuen: Ona non egunak datozten, eta izango da noiz asiko naizan alderatzen, bisitatzera lurrean bizi diranak,

19. Eta noiz asiko naizan billatzen, zertzuk gaizki egin eta kaltetu zuten beren injustiziarekin, eta noiz Siongo humiltasuna aien tokian jarri dan.

20. Eta gañetik sillutzen danean, iragotzen asiten diran gizaldia, siñale oiek egingo ditut, liburuak idikiko dira mundu guztiaren aurrean, eta guztiak batean ikusiko dituzte,

21. Eta urteko aurtxoak itz egingo dute beren mingañakin, eta aurdun daudenak denbora baño lenago aurrak egingo dituzte, iru eta lau illabetekoak, eta biziko dira, eta bizkorrak irtengo dute.

22. Eta supituan agertuko dira ereinak zeuden lurrak, erein gabekoak bezelakoak; eta gordelekuak bereala jarriko dira utsik.

23. Eta tronpeta joko da otsarekin, eta au guztiak aditzen dutenean, supituan ikaratuko dira.

24. Eta gertatuko da denbora artan, adiskideak adiskideakin gudan ariko dira, etsaiak balirade bezela, eta lurra oiekin izutuko da.

25. Eta gertatuko da, zuri lendanaz esan nizun guztietatik utzia dan guztia, hura salbatuko da, eta nere salbazioa, eta zuen gizaldiaren atzena ikusiko ditu,

26. Eta ikusiko dute artuak izan diran gizonak, eta eriotzarik beren jaiotzatik, eta bizi diranen biotzak alde egingo dute, eta beste iritzi batera itzuliko dira.

27. Zeren arras desegingo da gaitza, eta engañioa itzaliko da.

28. Fedea berriz loretuko da, eta usteltasuna garaitua izango da; eta egia anbeste egunean frutu gabe egon dana, agertu, eta erakutsiko da.

29. Eta gertatu zan itz egiten zidanean, eta ona non geldika begiratzen nuen, aurrean neukanaren aurrera.

30. Eta oiek neri esan zizkidan: Etorri naiz datorren gauaren denbora zuri erakustera.

31. Baldin bada berriz erregutuko bazeneza, eta berriz zazpi egunean barautuko baziña, berriz zuri andiagoak oiek baño adiraziko nizkizuke, aditu nuen egunagatik.

32. Zeren zure boza Jaungoiko goratuak aditu du. Zeren sendo ikusi zuen nora zuzentzen ziñan, eta neurriak artu zituen garbitasunagatik, zeñ zure gazte denboratik iduki zenduen.

33. Eta argatik bialdu ninduen, zuri oiek guziok adiraztera eta zuri esatera: itxedon ezazu, eta ez ezazu beldurrik iduki.

34. Eta etzaite agudo ibilli lenbiziko denborakin gauza alperrak gogoratzen, atzeneko denboretan arinegi eta urduri ibilli etzaitezen.

35. Eta oien ondoan gertatu zan, berriz ere negar egin nuela: eta orobat, zazpi egunean barautu nintzan, izan zitezen iru asteren tokian, zeñak esan zizkidaten.

36. Eta gertatu zan zortzigarren egunean, nere biotza nahasitzen bigarren aldiz nigan, eta Jaungoiko txit Goratuaren aurrean izketan asi nintzan.

37. Txit erazekitzen zan bada nere espiritua, eta nere anima ansiatua zegoan,

38. Eta esan nuen: O Jauna, itz eginaz, itz egin dezu kreaturaren asieratik, lenbiziko egunean esaten dezula: Zerua eta lurra egin bediz. Eta zure itza gauza egina da.

39. Eta orduan bazan espiritua, eta illuntasunak inguruan ziran eramanak, eta ixiltasuna, gizonaren bozaren otsik zurea gabe etzegoan.

40. Orduan esan zenduan, zure tesoroetatik, argi argitsu bat atera zedilla, zeñarekin zure lana agertuko zan.

41. Eta bigarren egunean egin zenduen firmamentuko espiritua, eta agindu ziñion, berezitu zezala, eta bereziera egin zezala uren artean, zati batek gorontz alde egin zezan, eta beste zati bat bean gelditu zedin.

42. Eta irugarren egunean urai agindu ziñien lurraren zazpigarren zatian bildu zitezela; sei zati berriz leortu zenduzten, eta oiei iraunerazi ziñien, oietatik izan zitezen zure aurrean zaitzalleak, Jaungoikoak ereinak eta zaituak.

43. Zeren zure itza irtetzen zan, eta lana bereala egiten zan.

44. Zeren irten zan supituan talde neurrigabeko frutua, eta gurarien gozotasun era askotakoak, eta lorak kolore aldatu ezindakoak; eta usaiak usai arkitu ezindakoak, eta irugarren egunean oiek eginak izan ziran.

45. Laugarren egunean berriz, agindu zenduen egin zitezela eguzkiaren argitasuna, illargiaren argia, izarren tokia.

46. Eta agindu ziñien serbitu zitzatela egiteko zegoen gizona.

47. Bosgarren egunean berriz, zazpigarren zatiari, zeñatan urak bilduak zeuden, esan ziñion egin zitzala abereak, eta egaztiak, eta arraiak. Eta ala egiten zan.

48. Ur mutu, eta anima gabeak, zeñai Jaungoikoak agitzen zien, abereak egiten zituen, argatik zure mirariak erreinuak kontatu zitzaten.

49. Eta orduan iraunerazi ziñen bi animari, bataren izena ots egin ziñion Henok; eta bigarrenaren izena zan Lebiatan,

50. Eta berezitu ziñituen elkargandik. Zeren etzitukean berak kabitu zazpigarren zatiak, non zeuden urak bilduak.

51. Eta eman ziñion Henok-i zati bat, zeñ irugarren egunean leortu zan, milla mendi dauden tokian bizi zedin.

52. Lebiatani berriz eman ziñion zazpigarren zatia ezkoa, eta bustia, eta zaitu ziñion izan dedin nai dituzunak, eta nai dituzunean iretsitzeko.

53. Seigarren egunean berriz, lurrari agindu ziñion, zure aurrean abereak, eta zamariak, eta arrastakariak egin zezala,

54. Eta oien gañetik Adan, zeñ egin ziñituen gauza guztien buru, zuzentzalle ta agintari; jarri zenduen, eta beragandik daukagu jatorria guk guziok, eta autu zenduen erriak.

55. Oiek guziok berriz, Jauna, zure aurrean esan ditut, gugatik mundua egin zenduelako.

56. Gañerako jende, Adangandik jaioak berriz, utsa ziradela esan zenduen, eta nola istuari iruditu ziñituen, eta beren ugaritasuna edanontziaren itozureari iruditu ziñion.

57. Eta orain, Jauna, ona non jende oiek, ezertarako ere gaieztzat emanak, asi ziraden gurekin jabetzen, eta iretsi nai genduzten;

58. Gu berriz zure erria, zeñi ots egin ziñion lenbizisortua, bakarra, zure jarraitzallea, beren eskuetan jarriak gera.

59. Eta baldin gugatik mundua egina izan bazan, zergatik ez gera bere jabeak? Noizarteraño oiek?

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan, itz oiek esatea bukatu nuenean, lengo gauetan nigana bialdua izan zan Aingerua, bialdua izan zan,

2. Eta esan zidan: Esdra, jaiki zaite, eta ni zuri egitera natorren izketak aditu itzatzu.

3. Eta esan nuen: Nere Jaungoikoa, itz egin ezazu. Eta esan zidan, itsasoa toki zabalean jarria dago, goratua eta neurrigabea izan zedin.

4. Baña berak sarrera idukiko du toki estuan jarria, ibaien antzekoa izan dedin.

5. Baldin norbaitek nai balu itsasoan sartu, eta bera ikusi, edo berarekin jabetu, toki estutik iragotzen ez bada; zabalera nola joan diteke?

6. Beste bat ere, erria dago egina eta jarria kanpo toki batean; alaere ondasun guztiaz betea dago.

7. Bere sarrera estua da, eta amiltokian jarria, eskuietik sua, ezkerretik ur goratua egon zedin.

8. Eta bidetxigor bat bakarra da beren artean jarria dagoana, au da, suaren eta uraen artean, bidetxigorrak kabitu ez dezan, gizon baten oñak baño.

9. Baldin erri au, gizon bati herenziatzat ematen bazaio, baldin beñere irago ez badu lendanaz dagoan irriskua, nola bere herenzia artuko du?

10. Eta esan nuen: Alaxe da, Jauna. Eta esan zidan: Ala da, Israel ere partale da.

11. Zeren oiekgatik egin nuen mundua, eta Adanek nere aginteak autsi zituenean, juzgatua izan zan, egina izan zana.

12. Eta eginak izan ziran toki onetako sarrerak estuak, minberak, eta nekatsuak, gutxi berriz eta gaiztoak, eta irriskuz beteak, eta arazo andiak eskatzen zituenak.

13. Zeren toki andiko sarrerak zabalak, beldur gabeak, eta illezineko frutua ematen dutenak.

14. Baldin bada sartzen diradenak ez baziran sartu bizi diradela, estuak eta utsak oiek: ezin artuko dituzte gordeak daudenak.

15. Orain bada, zergatik zu nahasiten zera, ustelkorra izanik? Eta zertarako zu mugitzen zera, ilkorra izanik?

16. Eta zergatik ez dezu artu zure biotzean, izango dana, eta ez orain dana?

17. Erantzun eta esan nuen: Jaun agintatzallea, ona non zure legearekin erabaki zenduen, justoak oiek herenziaz artuko dituztela, gaiztoak berriz galduko dirala.

18. Justoak berriz, estuak eramango dituzte, atsedenen itxedopenarekin. Gaizki bizi ziradenak berriz, estuak irago zituzten, eta zabalak ez dituzte ikusiko.

19. Eta esan zidan: Jueza Jaungoikoaren gañetikoa ez da, ez aditua Jaungoiko goratuaz gañetik.

20. Zeren oraingo asko galtzen dirade, Jaungoikoaren lege, aurrena dana, mezpreziatzen dalako.

21. Jaungoikoak zetoztenai, etorri ziradenean agintzen ziela, agindu zien, zer eginarekin biziko ziran, eta zer eginarekin etziraden kastigatuak izango.

22. Oiek berriz etzuten sinistu, eta kontra egin zioten, eta urgulleriako gogorazioa berentzat jarri zuten.

23. Eta erabaki zituzten berentzat, gaiztakerien ingurumariak; eta gañera esan zioten Jaungoiko goratuari, etzegoala alakorik, eta bere bideak etzituzten ezagutu,

24. Eta bere legea mezpreziatu zuten, eta bere eskeñiak ukatu zituzten, eta bere fedezko gauzaetan etzuten federik iduki, eta bere obrak etzituzten egin.

25. Argatik Esdras, utsak utsentzat, eta beteak beteentzat.

26. Ona non denbora etorriko dan, eta izango da noiz etorriko diran siñale, zuri lendanaz adiraziak, eta esposa agertuko da, eta agerturik, erakutsiko da, orain lurra engañatzen duena.

27. Eta lendanaz esan diran gaitzetatik libratzen danak, ark nere mirariak ikusiko ditu.

28. Zeren nere seme Jesus, agertuko da, berarekin daudenakin, eta lareun urtean gozatuko da, utziak izan ziradenakin.

29. Eta, urte oiek iragota, gertatuko da, nere seme Jesus ilko da, eta asnasa daukaten gizon guztiak.

30. Eta biurtuko da mundua anziñako ixiltasunera zazpi egunean, lenbiziko juizioetan bezela, alako moduan, non, iñor ere ez dedilla izan utzia.

31. Eta zazpi urte igarota, gertatuko da, eta esnatua izango da, denbora bellan iragotzen ez duena, eta ustelduta illko da.

32. Eta lurrak biurtuko ditu, bertan lotan daudenak; eta autsak, bertan ixiltasunean bizi diranak, eta prestatokiak itzuliko dituzte, emanak izan zaiezten animak.

33. Eta Jaungoiko goratua agertuko da juizioko esertokiaren gañean, eta doakabeak iragoko dira, eta anima egokida bilduko da.

34. Juizioa berriz bakarrik egongo da; egiak gogor egingo du, eta fedea geituaz joango da.

35. Eta lanak jarraituko du, eta ordaña erakutsia izango da; eta justiziak bellan egongo dira, eta injustiziak ez dute aginduko.

36. Eta esan nuen: Lelengo Abrahamek Sodomarrakgatik orazio egin zuen: eta Moisesek eremuan bekatu egin zuten gurasoakgatik erregutu zuen.

37. Eta bere ondoren izan ziradenak, Israelgatik, Akaz, eta Samuelen egunetan.

38. Dabidek, matxiñatuakgatik, eta Salomonek santututzera etorri ziranakgatik.

39. Eta Eliasek, euria artu zutenakgatik, eta illagatik biztu zedin,

40. Eta Ezekiasek erriagatik Senakeriben egunetan, eta askok askogatik.

41. Baldin orain bada, gauza ustelkorra geitu danean eta injustizia ugaritu danean; eta alaere justoak gaiztoakgatik orazio egin zuten. Zergatik orain ere ez da ala izango?

42. Eta erantzun eta esan zidan: Oraingo gizaldia ez da atzena, gloria bertan maiz gelditzen da. Argatik ezerere ezin zutenakgatik erregutu zuten.

43. Zeren juizioko eguna denbora onen bukaera izango da, eta geroko denborarako illezintasunaren asiera, zeñatan usteltasuna irago zan.

44. Azkatua izan zan geiegirako gura; sinisgogortasuna ebakia. Justizia berriz azi zan. Egia jaio zan.

45. Zeren orduan iñork ere ezin salbatuko du galtzen dana, ez azpiratu garailaria. Eta erantzun nuen,

46. Eta esan nuen: Au da nere lendabiziko eta atzeneko izketa, zeren obe zan, ez Adani lurrik ematea, edo bein eman ezkero, galerazi berari bekatu egitea.

47. Zeren zer balio die gizonai, orain tristezan bizitea, eta ill, ta gero kastigua itxedotzea?

48. O, zuk Adan, zer egin zenduen? Zeren zuk bekatu egin bazenduen, zu bakarrik etziñan erori, baita gu ere, zugandik jatorria daukagulako.

49. Zer balio digu guri, beti biziko gerala eskeñtzea, guk bekatu mortalarekin galtzen badegu?

50. Eta guri eman diguten itxedopena iraunkorra bada ere, guk gure bizitza gaiztoarekin alperra egiten degu.

51. Zer balio digu osasuneko eta seguridadeko bizilekuak guretzat gorderik egotea, gu gaizki bizi bagera?

52. Eta Jaungoiko txit goratuak bere gloria iduki arren laguntzen beragana berandu biurtzen diranai, zer balioko digu bide gaiztoetan bagaude?

53. Eta zeren erakusten dan paradisua, zeñaen frutuak usteltasun gabe irautzen duen, zeñatan ziertotasuna, eta sendogarria dagoan;

54. Gu berriz ez gera sartuko, zeren esker geiztoko tokietan bizi izan gera.

55. Eta izarrak baño argitasun geiago botako badute ere, jan urrian bizi ziranak; gure arpegiak berriz, illuntasunak baño beltxagoak.

56. Zeren ez giñan gogoratzen bizi giñanean, gaiztakeriak egiten giñituenean, il ostean padezitzen asiko gerala.

57. Eta erantzun eta esan zuen, au da, gudaren gogorazioa, gudatuko dana, lurraren gañean jaio zan gizona.

58. Garaitua balitza, irago dezan esan zenduena, garaitzen badu berriz, artuko du esaten dedana.

59. Zeren au da bizitza, zeñ Moisesek esan zion bizi zanean erriari, esaten zuela: Autu ezazu zuretzat bizitza, bizi zaitezen.

60. Baña etzioten berari sinistu, ez da gero profetai ere; ezta neri ere, berai itz egin nienari.

61. Zeren ez liteke tristezarik egongo beren galmenean, nola bozkarioa egongo litekean, salbatu bear dutela sinistu erazi zatenakgan.

62. Eta erantzun eta esan nuen: Badakit, Jauna, nola ots egina izan dan Jaungoiko txit goratua urrikaltsua, urrikaltzen dalako, munduan etorri ez diranakin,

63. Eta urrikaltzen dalako, bere legean biurrera egiten dutelako.

64. Eta biotz andikoa da, zeren biotz andia erakusten die bekatu egin zutenai bere lanai bezela.

65. Eta emallea da, zeren eskatzen dienai ematea nai du.

66. Eta urrikaltasun andietakoa, zeren geiago ugaritzen ditu urrikaltasunak aurrean daudenakin, eta joan ziradenakin, eta izango diranakin.

67. Zeren baldin bere urrikaltasunak ugarituko ez balitu, ez da biztuko mundua, bertan herenzia daukatenakin:

68. Eta ematen du: zeren bere ontasunetik emango ez balu, barkazioa iritzi dezaten bekatu egin dutenak, amar milla gizonetatik batek, ez luke biztuko bere anima bere gaiztakerietatik irtetzen duela.

69. Eta jueza ez balego ezjakinean bere itzarekin sendatu diranen gañean, eta nola errierta taldea paketu duen, noaski ez litezke utziko talde neurrigabean, baizik txit gutxi.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta erantzun eta esan zidan: Mundu au Jaungoiko Goratuak askogatik egin zuen, beste mundua gutxigatik.

2. Esdras, zure aurrean bada, irudi bat esango det. Bazoaz lurragana zerbait eskatzera, eta esago dizu emango dizula lur txit asko, ontzi pitxarrak, eltzeak, eta bear dan guztia; urrea egiteko berriz, autz piska bat ematen dizu. Ala dirade bada gizaldi onetako gauzak ere.

3. Asko egiaz kreatuak izan ziran, baña gutxi salbatuak dira.

4. Eta erantzun, eta esan nuen: Txurrut egin ezazu bada anima zentzua, eta dana dala iretsi ezazu.

5. Elkartu ziñan bada obeditzeko, eta nai izanik profetizatzeko. Zeren ez zatzun zuri betarik eman, baizik bakarrik bizitzeko.

6. O Jauna, ez diozu laketuko zure serbitzariari, zure aurrean orazio egin dezagula, eta dizaguzun azia biotzerako, eta zentzurako jakinduria, nondik frutua egin dedin, nondik bizi litekean usteldu guztia, zeñak gizonaren tokia eramango duen?

7. Zeren bakarra zera, eta gu zure eskuetako lan bat gera, itz egin zenduen bezela.

8. Eta nola orain sabelean egina izan zan gorputza, eta bizigaiak ematen diozkazu, zure kreazioak suan, eta urean irautzen du, eta bederatzi illabetean sufritzen du zure formazioa, zure aur an egina izan zana.

9. Gordetzen duena berriz, eta gordea dana, biak godeak izango dira, eta gordeta noizbait berriz biurtzen da sabela, zeñak an azi ziran.

10. Zeren agindu zenduen gorputz zati beretatik, au da bularretatik titia ematea, bularretako frutuari,

11. Iduki dezan bizitzeko jana egin zenduenak, denbora zati baterako, eta gero zure urrikaltasunaren kontura gelditzen da.

12. Eman ziñion jana zure justiziarekin; eta eman ziñozkan erkutsiak zure legean, eta zure adimenarekin, erriertak egin ziñiozkan.

13. Eta mortifikatuko dezu, zure aurra bezela, eta biztuko dezu, zure lana bezela.

14. Baldin bada galduko bazeneza anbeste lanekin formatu zenduena, zure aginduz gauza erraza da erabakitzea, zerekin au egiten zan, ala zaitu dedilla.

15. Eta orain Jauna, esango det, gizon guztiarena geiago dakizula zuk; zure erriarena berriz, zeñgatik naigabetzen naizan,

16. Eta zure herenziagatik, zeñgatik negar egiten dedan, eta Israelgatik, zeñgatik triste naguan; eta Jakobgatik zeñgatik naigabez nagoan.

17. Argatik asiko naiz zure aurrean orazio egiten nigatik, eta berakgatik, zeren ikusten det zenbat alditan erori geran gu, lurrean bizi geradenok.

18. Baña aditu det, izango dan juezaren arintasuna.

19. Argatik nere boza aditu ezazu, eta izketa konprenditu ezazu, eta zure aurrean itz egingo det.

20. Esdrasen itzen asiera artua izan zedin baño lenago, eta esan nuen: Jaun, zeruan bizi zerana; zeñaen begiak jasoak goietara eta aizera.

21. Zeñaen esertokia, duiñean ez estimatzekoa, eta gloria adituezíña, zeñaen aurrean dagoan ikaraz Aingeruen martizti bat.

22. Zeñaen prestatasuna obedezitzen, aize eta su biurtzen da: zeñaen itza egiazkoa, eta esanak iraunkorrak.

23. Zeñaen agintea sendoa, eta erabakia izugarria: zeñaen arpegiak leortzen ditu oxinak; eta aserreak ikaratuerazitzen ditu mendiak; eta egiak mututu.

24. Aditu ezazu zure serbitzariaren orazioa, eta belarriakin entzun zuk egindakoarekin erregua.

25. Zeren bizi naizan artean itz egingo det, eta konprenditzen dedanean erantzungo det.

26. Zure erriaren gaiztakeriai etzaiezu begiratu, baizik zu egiaz serbitzen zaituztenai.

27. Eta jentillen gura gaiztoetara ere ez ezazu begiratu, baizik zure itzak penakin zaitu zituztenai.

28. Etzaite oroitu zure aurrean gaizki izketan zutenakin, baizik gomutatu zaite zure borondatearekin beldurra ezagutu zutenakin.

29. Ez itzatzu ere galdu nai, abereen oiturak iduki zituztenak, baña begiratu zaiezu zure legea ederki erakutsi zutenai.

30. Eta etzaite ere aserretu, zamariak baño gaiztoagotzat idukiak izan diranakin, baizik maitatu itzatzu, beti zure justizia eta glorian itxedotzen dutenak.

31. Zeren gu, eta gure gurasoak alako gaitzakin eriak gaude; zu berriz, gu bekatariok gatik urrikaltsua zera ots egina.

32. Zeren nai badezu gurekin urrikaldu, orduan urrikaltsua esango zatzu, gurekin, justiziako obrarik ez daukagunokin.

33. Zeren justoak, zeñak dauzkaten obra asko gordeak, beren obrakgatik saria artuko dute.

34. Zeren zer da gizona, berarekin aserretu zaitezen, edo izate ustelkor bat, alako moduan berarekin samindurik egoteko?

35. Zeren egiaz, sortuetatik bat ere ez dago gaizkiren bat egin ez duenik, eta konfesatzen diradenetatik bekatu egin ez duenik.

36. Zeren onetan adiraziko da zure justizia ta zure ontasuna, Jauna, urrikaltzen zeranean obra onik ez daukatenakin.

37. Eta erantzun eta esan zidan: Ederki esan dituzu gauza batzuek, eta zure izketaen araura, ala egingo ere da.

38. Zeren ez det egiaz gogoratuko beren sorreraren gañean, bekatu egin zutenen gañean il baño lenago, juizioa baño lenago, galmena baño lenago.

39. Baizik gozatuko naiz justoen irudiaren gañean, eta gogoratuko naiz ibillerakin ere, eta salbazioarekin, eta ordañaren artzearekin.

40. Nola bada itz egin dedan, ala izango ere da.

41. Zeren nola nekazariak ereitzen ditu lurraren gañean azi asko, eta taldearen ipintzak ipintzen ditu, baizik ez denboran erein diraden guztiak, salbatzen dira, baña ez ipiñi ziran guztiak, sustraiak botako dituzte, ala munduan erein ziradenak, ez dirade guztiak salbatuko.

42. Eta erantzun, eta esan nuen: Grazia arkitu badet, itz egingo det.

43. Nola nekazariaren azia ez bada anditzen, edo zure euria bere denboran artzen ez badu, edo usteltzen bada euriaren ugaritasunarekin,

44. Ala galtzen da, eta orobat gizona, zeñ zure eskuakin egina izan zan, eta zure irudiaren izenarekin ots egina, zeren bere irudia daukazu, zeñgatik gauza guztiak egin ziñituzten, eta nekazariaren aziari iruditu ziñan.

45. Etzaite aserretu gurekin, baizik zure erriari barkatu zaiozu, eta zure herenziarekin urrikaldu zaite. Zu berriz, zure kreaturarekin urrikaltzen zera.

46. Eta erantzun eta esan zidan: Zer dira oraingoak oraingoentzat, eta zer gerokoak gerokoentzat?

47. Zeren oraindik asko bear dezu, maitatzeko nere kreatura ni baño geiago; zuri berriz maiz, eta ni alderatu nintzazun; gaiztoai berriz beñere ez.

48. Baña onetan ere, Jaungoiko txit Goratuaren aurrean miragarria zera.

49. Zeren umillatu ziñan, bear zenduen bezela. Eta etziñen juzgatu, justoen artean txit gloriaz betea izateko.

50. Argatik ezbear asko eta urrikigarriak gertatuko zazkite, atzenetan munduan bizi diradenai, zeren urgulleria andian ibilli ziran.

51. Zuk berriz zugatik aditu ezazu, eta zure irudikoakgatik gloria billatu ezazu.

52. Zeren zuentzat paradisua idikia dago, ipiñi zan bizitzako zuaitza; prestatua dago geroko denbora; prestatua dago ugaritasuna; erria egina dago, atsedena probatua, ontasuna osoa, eta jakinduria goratua.

53. Gaitzaren sustraia zuek sillututa dago. Eritasuna, eta sitsa zuekgandik ezkutatuak daude, eta usteltasunak aztuta, infernura iges egiten du.

54. Irago ziran penak, eta atzenean illezintasunaren tesoroa erakutsi zan.

55. Ez bada ibilli jakin nairik, nolako taldea dan galdu dana.

56. Zeren berak ere, aukera artzen zutela, Jaungoiko Goratua mezpreziatu zuten, eta bere legea autsi zuten, eta bere bideak utzi zituzten.

57. Oraindikan berriz bere justoak oñazpietan erabili zituzten,

58. Eta esan zuten beren biotzetan Jaungoikorik etzegoala, eta ori jakinik iltzen dirala.

59. Nola zuek artuko zaituzten, lendanaz esan diranak, ala berak egarriak, eta oñaze prestatuak daudenak. Zeren etzuen nai gizona galtzea.

60. Baita eginak izan ziradenak, berak kutsutu zuten bere izena, zeñak egin zituen; eta eskergaiztokoak izan ziran, berai bizia prestatu zienarentzat.

61. Argatik nere iritzia orain alderatzen da.

62. Zeñak ez dieztet guztiai agertu, baizik zuri, eta zure antzeko gutxiri. Eta erantzun, eta esan nuen:

63. Ona non orain Jauna, erakutsi didazu atzenetan egiten asiko zeran siñaleen taldea, baña zeñ denboratan ez didazu neri agertu.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Eta erantzun zidan, eta esan zuen: Neurtuaz neurtu ezazu denbora beragan, eta gertatuko da, ikusten dezunean noiz iragotzen dan lendanaz esan diran siñaleetatik zati bat,

2. Orduan adituko dezu hura dala denbora, zeñean asiko dan Jaungoiko goratua bisitatzen mundua, zeñ berak egin zuen.

3. Eta noiz ikusiko diraden munduan tokien mugimendua, eta errien nahasia,

4. Orduan adituko dezu, nola Jaungoiko Goratuak oien gañean itz egin zuen asieratik, zu baño lenago izan ziran egunetatik.

5. Zeren nola munduan egiten dan guztiak asiera daukan, orobat bukaera ere, eta bukaera agiria da.

6. Ala Jaungoikoaren denborak ere nola asierak dituzten agiriak mirarietan eta bertuteetan, ala bukaerak egiteetan, eta siñaleetan.

7. Eta izango da, salbatzen dan guztia, eta iges egin al dezakeana bere obraen bitartez, eta fedearen bitartez, zeñean sinistu zenduten,

8. Utzia izango da lendanaz esandako irriskuetatik, eta ikusiko du nere salbazioa nere lurrean, eta nere inguruetan, zeren betikoiraunetik santutu nintzan.

9. Eta orduan urrikalduko dira, nere bideetatik orain gaizki ibilli diranak, eta oñazeetan egongo dira berak mezpreziatu zituztenak.

10. Zeren ni ezagutu ez nindutenak, bizirik zeudela mesedeak artu zituzten.

11. Eta nere legeari iguiñaz begiratu zienak, oraindikan aukera zeukatela,

12. Eta oraindikan penitenzia egiteko denbora zeukatela, etzuten aditu, baizik mezpreziatu zuten. Bear da oiek ill da gero, oñazeetan ezagutzea.

13. Zu bada, etzaite ibilli jakiten gutxi balio duten gauzak, nola gaiztoak oñazetuak izango diran; baña ikasi ezazu, nola justoak salbatuko diran, eta zeñaena dan betikoirauna; zeñtzuekgatik dan betikoirauna, eta noiz.

14. Eta erantzun, eta esan nuen:

15. Anziña esan nuen, eta orain esaten det, eta gero esango det: geiago diradela galtzen diradenak, salbatzen diradenak baño.

16. Nola itsasoko baga, ur tantoaren gañean ugaritzen dan. Eta erantzun zidan, eta esan zuen:

17. Nolakoak kanpoak, alakoak aziak ere, eta nolakoak lorak, alakoak tinturak ere; nolakoa langillea, alakoa egingo dana ere, eta nolakoa dan nekazaria, alako abustua, zeren denbora mundukoa ala zan.

18. Eta orain nengoala berai prestatzen, orain diradenai, egin baño lenago mundua, zeñatan biziko ziran, eta iñork ere etzidan kontra egin.

19. Zeren orduan bakoitza, eta orain egille mundu prestatu onetan, eta uzta faltagabea, eta lege ezagutu ezinean beren oiturak usteldu ziran.

20. Eta jarri nuen gogoa munduan, eta orra non zeuden irriskuak bertara etorri ziran gogorazioakgatik.

21. Eta ikusi nuen, eta txit barkatu nion. Eta gorde nuen neretzat mordo alea, eta ipintzea asko tribukoa.

22. Galdu bedi bada, talde bidegabe jaio zana, eta gorde bedi nere basiliskoa, eta tribu askoko plantazioa, zeren lan askorekin egin nituen.

23. Zuk berriz, oraindik sartu nai badituzu beste zazpi egun, baña beretan etzera barutuko.

24. Loraen kanpora joango zera, non etserik ez dago eginik, eta jango dezu bakarrik kanpoko loraetatik; eta aragirik ez dezu probatuko; eta ardorik ez dezu edango, baizik bakarrik lorak.

25. Erregutu zaiozu Jaungoikoari aspertu gabe, eta etorriko naiz, eta itz egingo det zurekin.

26. Eta joan nintzan, esan zidan bezela, Ardat ots egiten zaion kanpora, eta an lore artean eseri nintzan. Eta kanpoko belarrak jan nituen, eta beren janaria neretzat asetzeko izan zan.

27. Eta, zazpi egun iragota, gertatu zan, eta ni etzinda nengoan belar leorraren gañean, eta nere biotza len bezela nahasitzen zan berriz.

28. Eta nere aoa idiki zan, eta asi nintzan izketan Jaungoikoaren aurrean, eta esan nuen:

29. O Jauna, zu erakusten zintzagula, erakutsi ziñaten gure asabai eremuan, zeñ ez dan zapaltzen, eta frutu gabean, Ejiptotik irtetzen ziradenean, eta itz egiten zenduela, esan ziñen:

30. Zuk Israel, aditu nazazu, eta Jakoben jatorria, eta nere izketak aditu itzatzu.

31. Ona non nik ereitzen det zuekgan nere legea, eta zuekgan frutua egingo du, eta berean betiko gloriaz beteko zerate.

32. Zeren gure gurasoak artzen zutela legea, etzuten zaitu, eta nere aginteak etzituzten gorde; eta legearen frutua egin zan, ez obeditzea.

33. Zeren artu zutenak, galdu ziran, etzutela zaitzen, beretan erein zana.

34. Eta ona non, oitura da, lurrak azia artzen duenean; edo ontzia itsasoak; edo edanontziren batek janaria, edo edaria, desegina danean, gauza ipini zan, edo erein zana,

35. Erein zan gauza, eta barrenen sartu zana, edo barrenen artu ziradenak, galtzen dira; eta ez oi dira gelditu gugan, baña guri ez zaigu ala gertatu.

36. Gu legea artu genduenok, bekatu egin jendualako, galdu giñan; eta gure biotza artu zuelako.

37. Zeren legea ez da galtzen, baizik badirau bere lanean.

38. Eta oiek nere biotzean esaten nituenean, nere begiakin begiratu nuen, eta ikusi nuen emakume bat eskuieko aldean, eta ona non onek negar egiten zuen, eta egiten zituen suspirioak boz andiarekin, eta biotza txit minberatua zeukan; eta bere soñekoak urratuak, eta autza bere buruaren gañean zeukan.

39. Eta utzi nituen neuzkan gogorazioak, eta itzuli nintzan beragana, eta esan nion:

40. Zergatik negar egiten dezu? Eta zergatik daukazu biotzeko oñazea? Eta esan zidan:

41. Nere Jauna, utzi zadazu, negar egin dezadan, eta oñaze geiago iduki dezadan, txit biotz samiñarekin nagoelako, eta umillatua.

42. Eta esan nion: irago dezuna, zer da? Esan zadazu. Eta esan zidan.

43. Soilla nintzan ni zure serbitzari au, eta ez nuen aurrik egin, eta ez nintzan erdi, ogeita amar urtean senarra idukirik.

44. Nik berriz ordu guztietan, egun guztietan, eta ogeita amar urtean Jaungoikoari gau ta egun erregutzen diot.

45. Eta gertatu zan, ogeita amar urte iragota Jaungoikoak neri bere serbitzari oni aditu zion, eta ikusi zuen nere umiltasuna, eta begiratu zion nere atsekabeari; eta seme bat eman zidan; eta beragatik txit bozkario andia artu nuen nik, eta nere senarrak, eta nere erritar guztiak, eta Forte txit onratzen genduen.

46. Eta neke andiakin azi nuen.

47. Eta gertatu zan azi zanean, eta ezkontzera etorri zanean, jan edaneko eguna egin nuen.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan, sarturik nere semea bere oean, erori, eta il zan.

2. Eta desegin giñituen guztiok argiak, eta etorri ziran nere erritar guztiak ni gozatzera, eta biaramoneko eguneko gaberaño atsedenez egon nintzan.

3. Eta gertatu zan, guztiak gelditzea ni bozkariotzeko, eta ni pakean idukitzeko, baña gauaz jaiki, ta iges egin nuen, eta etorri nintzan kanpo onetara. Zu zera ikusten dezuna.

4. Eta uste det onezkero ez errira biurtzea, baizik egotea emen: eta ezerere ez jan, ez edatea, aspertu gabe negar egitea, eta il arteraño barau egitea.

5. Eta utzi nituen, egiten ari nintzan izketak, eta aserrearekin erantzun nion, eta esan nion:

6. Emakume guztiez gañetik zentzugabea, ez dezu gure lutua ikusten, eta zertzuk gertatzen zazkigun?

7. Nola Sion gure ama, tristeza guztiarekin tristetua dagoan, eta umiltasunarekin umildua, eta txit negar asko egiten duela?

8. Orain bada, guztiok negar egiten degu, guztiok tristeak gaude, zeren guztiok naigabeak dauzkagu; zu berriz seme batgatik tristetzen zera?

9. Zeren lurrari galdetu zaiozu, eta onek esango dizu, au dala negar egin bear duena, anbeste landare ernetzen diranak galtzen zaiozkalako.

10. Eta beragandik asieran guztiak jaiorik, eta beste batzuek etorriko dira, eta ona non, esaterako guztiak galmenera dijoaz; eta beren taldea desegina gelditzen da.

11. Orain bada, nork negar geiago egin bear du, onek, alako talde neurrigabea galtzen duenak, ala zuk, batgatik negar egiten dezunak? Esaten badidazu:

12. Nere negarra lurraren antzekoa ez da, zeren nik nere sabeleko frutua galdu nuen, zeñ tristezakin egin nuen, eta penakin sortu.

13. Lurrak berriz, lurreko bidearen araura, eta beragan oraingo taldea badijoa, beste bat etortzeko. Eta nik zuri esaten dizut:

14. Nola zu penakin erdi ziñan, ala lurrak ere ematen dio gizonari bere frutua asieratik arentzat, zeñaentzat egin zuen.

15. Orain bada, zugan iduki itzatzu zure penak, eta jazo zizazkizun gertakariak, onean eta erruz sufritu itzatzu.

16. Zeren ontzat ematen badezu Jaungoikoaren erabakia; eta bere konsejua bere denboran artuko dezu, eta alakoetan alabatua izango zera.

17. Sartu zaite bada errian zure senarragana. Eta esan zidan:

18. Ez det egingo, ez naiz ere errian sartuko, baizik emen ilko naiz.

19. Eta oraindikan gogoan jarri zitzadan berari itz egitea, eta esan nuen:

20. Ez ezazu ori bezelako izketarik egin, baizik oben egin zaiozu, ongi itz egiten dizunari. Zeren zenbat atsekabe Sionek? Jerusalengo penakgatik gozatu zaite.

21. Zeren ikusten dezu nola gure santutasuna eremutua gelditu dan, eta gure aldarea desegina izan da, eta gure tenploa beera aurtikia,

22. Eta gure salterioa umillatua izan da, eta himnoak ixildu ziran, eta gure bozkarioa joan zan, eta gure kandeleroaren argia itzali zan, eta gure testamentuko kutxa desegina izan zan, eta gure santuak kutsutuak izan ziran, eta gure gañean ots egiten zaion izena lotsagabero aitatua, eta gure semeak lotsariak irago zituzten; eta gure apaizak erreak izan ziran; eta

gure Lebitak katiberiora joan ziran, eta gure birjiñak loituak izan ziran; eta gure andreak indarrez erabilliak; eta gure justoak arrapatuak izan ziran, eta aurrak galduak, eta gure gazteak menderatuak; eta gure sendoak erkituak gelditu ziran.

23. Eta guztien artean andiena, Siongo siñalea, zeren bere gloriatik aurtikia izan zan. Zeren guri gorroto digutenen eskuetan jarria izan zan.

24. Zuk bada aurtiki ezazu zure tristeza andia, eta bota ezazu zugandik penaen talde andia, zurekin paketu dedin Fortis, eta Jaungoikoak atsedena, eta arazoetatik irtetzea emango dizu.

25. Eta gertatu zan berarekin izketan nengoala, bere arpegiak argi egiten zuen supituan eta begirakunea ikarakorra egiten zan, izan nendin beldurkorra beragan, eta au zer zan gogoratu nezan.

26. Eta ona non, supituan eman zuen boz andi baten otsa beldurrez betea, emakume baten otsera lurra mugitu zedin. Eta begiratu nuen,

27. Eta ona non berriz emakumea etzitzadan agertzen, baizik erria egiñaz zijoan, eta zimendu andien tokia erakusten zan: eta beldurtu nintzan, eta boz andiarekin deadar egin nuen, eta esan nuen:

28. Non da Urias Aingeru, asieran nigana etorri zana? Zeren berak etorri erazi zidan taldearen artean, adimen onen geiegian, eta nere azkena usteltasunean, eta nere orazioa nere laido biurtu zan.

29. Eta nengoala ni oiek esaten, ona non nigana etorri zan, eta ikusi ninduen.

30. Eta ona non ipiñia nengoan illa bezela, eta nere adimenak alde egin zidan, eta eskuieko eskutik eldu zidan, eta sendotu ninduen, eta nere oñen gañean jarri ninduen, eta esan zidan:

31. Zer dezu? Eta zergatik zure adimena, eta zure biotzeko zentzuak nahasiak daude? Eta zergatik izutzen zera? Eta esan nuen:

32. Zeren utzi ninduzun, eta nik egiaz egin nituen zuk esan ziñizkidanak, eta kanpora irten nintzan, eta ona non ikusi nuen, eta ikusten dedan adirazi ez dezakedana. Eta esan zidan:

33. Zaude zutik gizonkiro, eta mugituko zaitut. Eta esan nuen:

34. Nere Jauna, itz egin zadazu zuk neri, ez nazazu arren utzi, alperrik ez nadin il,

35. Zeren ikusi nituen ez niekizkianak; eta aditzen ditut ez dakizkidanak.

36. Edo nere zentzuna engañatzen ote da, eta nere anima ametsetan ote dago?

37. Orain bada erregutzen dizut, zure serbitzari oni amets onen gañean itz egin dizadazula. Eta erantzun eta esan zidan:

38. Aditu nazazu, eta erakutsiak emango dizkizut, eta itz egingo dizut, beldur zeran gauzaen gañean, zeren Jaungoikoak zuri ezkutapen asko agertu dizkizu.

39. Zure bide zuzena ikusi zuen, zeren aspertu gabe tristetzen ziñan zure erriagatik, eta Siongatik txit negar asko egiten zenduen.

40. Au da bada, zuri piska bat lensheago agertu zitzatzun ikusmenak adiraztzen duena.

41. Negarrez ikusi zenduen emakumea, bozkariotzen asi ziñan.

42. Orain berriz, emakumearen irudirik ez dezu ikusten, baizik erri bat egiten agertu zatzun.

43. Eta nola kontatzen zizun zuri, nola bere semea erori zan, au absoluzioa da.

44. Ikusi zenduen emakume au, au Sion da; eta nola esan zizun zuri, zeñ orain ere ikusiko dezun, erri egina bezela.

45. Eta nola esan zizun zuri ogeita amar urtean soilla izan zala, zeren ziran urteak, au da, ogeita amar, etzanean oraindik an eskeñtzarik eskeñi.

46. Eta gertatu zan ogeita amar urte igarota, Salomonek erria erriko egin zuen, eta eskeñtzak eskeñi zituen. Orduan izan zan noiz soilla semeaz erdi zan.

47. Eta esan zizuna, nekez azi zuela, au zan, Jerusalengo bizitokia.

48. Eta nola esan zizun, nere semea etorririk bere oean il zan, eta gertatu zaiola erortzea, au da, Jerusalengo ondamen jazo zana.

49. Eta non, bere irudia ikusi zenduen, eta nola semeagatik negar egiten zuen, bera gozatzen asi ziñan, eta gertatu ziraden oietatik, oiek ziraden zuri agertzekoak.

50. Eta orain Jaungoikoak ikusten du, nola gogotik tristetu zeran, eta nola beragatik biotz guztitik sufritu dezun, bere gloriaren argitasuna, eta bere edertasunaren anditasuna erakutsi dizkizu.

51. Argatik esan nizun zuri, egon zindezela kanpoan, non ez dagoan etxea egina.

52. Zeren nik baniekien, nola Jaungoikoa asitzen zan oiek zuri erakusten.

53. Argatik esan nizun, etorri zindezela kanpo batera, zeñatan ez dagoan etxearen zimendurik.

54. Zeren etzitzatekean gizonaren etxe baten lana egon toki batean, non Jaungoikoaren erria asitzen zan agertzen.

55. Zu bada etzaite beldurtu, eta zure biotza ere ez bedi ikaratu, baizik sartu zaite, eta ikusi ezazu jauregiaren edertasun eta anditasuna, gai zeran bestean begiakin ikusteko.

56. Eta gero adituko dezu, zure belarriak aditu al ditzaken guztia.

57. Zeren zu doatsuago zera beste asko baño, eta Jaungoikoak ots egin dizu gutxiri bezela.

58. Biar izango dan gauean berriz, emen geldituko zera.

59. Eta erakutsiko dizkizu Jaungoikoak goietako ikusketa, Jainkoak egingo dieztenak, atzeneko egunetan lurraren gañean bizi diradenai.

60. Eta lo egin nuen gau artan, eta bestean, berak esan zidan bezela.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Eta egin nuen amets bat, eta ona non igotzen zan itsasotik agila bat, zeñak amabi ego lumazko, eta iru buru zeuzkan.

2. Eta ikusi nuen, eta ona non zabaltzen zituen bere egoak lur guztira, eta zeruko aize guztiak bera jotzen zuten, eta bilduak ziraden.

3. Eta begiratu nuen, eta bere lumetatik jaiotzen ziran kontrako lumak, eta berak ego txiki, eta zee egiten ziran.

4. Zeren buruak ziran geldirik zeudenak, eta buru erdia zan beste buruak baño andiago, baña besteakin geldi zegoan.

5. Eta ikusi nuen, eta ona non agiliak egan egin zuen bere egoakin, eta lurraren gañean, eta lurraren gañean bizi diranakgan erreinau zuen.

6. Eta ikusi nuen, nola zeuden bere mendean zeruaren azpiko gauza guztiak, eta iñork ere kontrarik etzion egiten, ez da lurraren gañean dagoan batek ere.

7. Eta ikusi nuen, eta ona non, jaiki zan agilia bere erpeen gañean, eta ots egin zuen bere egoakin esaten zuela:

8. Etzaitezte guztiok batean beillan egon, bakoitzak bere tokian, eta aldizka beillan egon zaitezte.

9. Buruak berriz atzenerako gorde bediz.

10. Eta ikusi nuen, eta ona non bozik etzan irtetzen bere buruetatik, baizik bere gorputzaren erdiunetik.

11. Eta bere kontrako egoak kontatu nituen, eta ona non berak zortzi ziran.

12. Eta ikusi nuen, eta ona non eskuieko aldamenetik jaiki zan ego bat, eta lur guztiaren gañean agindu zuen.

13. Eta gertatu zan erreinatzen zuenean, etorri zaion atzena, eta bere tokia etzan agertu, eta jarraiturik jaiki zan, eta erreinatu zuen. Berak denpora luzean iduki zuen.

14. Eta gertatu zan erreinatzen zuenean, eta bere atzena zetorrenean, len bezela ez agertzea.

15. Eta ona non boza egin zaion berari, esaten duena:

16. Aditu ezazu zuk, anbeste denboran lurra iduki dezuna. Oiek lendanaz adiraztzen dizkizut, asi zaitezen baño lenago ez agertzen.

17. Zure odoan iñork ere ez du zure denbora idukiko, ezta bere erdia ere.

18. Eta jaiki zan irugarren aldiz, eta iduki zuen nagusitasuna, leengoetan bezela; eta etzan bera ere agertu.

19. Eta gertatzen zaien beste guztiai ere, ala banakan nagusi izatea, eta berriz beñere ez agertzea.

20. Eta ikusi nuen, eta ona non andikan denboran jarraitzen zuten egoak, zuzentzen ziran eskuieko aldamenetikan, berak ere nagusitasuna iduki zezaten. Eta oiektatikoak ziraden zeuzkatenak, baña alaere, bereala etziraden agertzen.

21. Zeren alako batzuek ere goratuak izan oi ziraden, baña nagusitasunik ez oi zuten iduki.

22. Eta begiratu nuen oien ondoan, eta ona non amabi ego, eta bi egotxo agertu ziran.

23. Eta agilaren gorputzean ezerere etzan besterik gelditu, baizik bi buru geldirik zeudenak, eta sei egotxo.

24. Eta ikusi nuen, eta ona non sei egotxotan berezitu ziran biak, eta gelditu ziran eskuieko aldamenean dagoan buruaren azpian. Zeren lau beren tokian gelditu ziraden.

25. Eta ikusi nuen, eta ona non egopekoak pensatzen zuten, berak goratuko ziradela, eta agintaritza idukiko zutela.

26. Eta ikusi nuen, eta ona non bat zuzendu zan, baña bereala etzan agertu.

27. Eta bigarrenak agudoagoak lenbizikoak baño, etziran agertu.

28. Eta ikusi nuen, eta ona non, gelditu ziraden biak, beren artean pensatzen zuten, berak ere erreñatu bear zutela.

29. Eta onetan gogorazioak zeuzkatela, ona non, geldirik zegozten buruetatik bat, zeñ erdian zegoan, beillan zegoan; zeren au zan buru bietatik andiena.

30. Eta ikusi nuen, nola buru biak beren artean osotu ziran.

31. Eta ona non biurtu zan burua berarekin zeudenakin, egopeko bi, zeñak erreinetako gogorazio ta asmazioetan, jan zituzten.

32. Buru onek berriz, txit izitu zuen lur guztia, eta bertan agintzen zien, lan andiarekin lurrean bizi diradenai, eta mundu guztian eskubidea zeukan, izan ziran beste ego guztiak baño geiago.

33. Eta ikusi nuen oien ondoan, eta ona non buru erdia bereala ezkutatu zan, eta au egoa bezela.

34. Bi buru berriz gelditu ziran, zeñak ere berdin, lurraren gañean, eta bertan bizi ziradenen gañean agindu zuten.

35. Eta begiratu nuen, eta ona non, eskuieko aldameneko buruak, ezkerreko aldamenekoa iretsi zuen.

36. Eta aditu nuen boz bat esaten zidana: Zure aurkez begiratu ezazu, eta gogoratu ezazu zer ikusten dezun.

37. Eta begiratu nuen, eta ona emen leoe amorratu bat bezelakoa basotik zetorren orroaka, eta ikusi nuen nola gizasemearena bezelako bozarekin itz egiten zion agilari. Eta itz egiten zuela, esan zuen:

38. Aditu ezazu zuk, eta itz egingo dizut zuri, eta Jaungoiko andiak esango dizu:

39. Ez al zera zu, garaitu ziñituena lau abere egin nituenak erreñatu zezatela nere gizaldian, eta beren denboren atzena beren bitartez etorri zedilla?

40. Eta laugarrenak, etorririk, garaitu zituen irago ziraden abere guztiak, eta bere eskubidearekin iduki zuen mundua ikara andiarekin, eta lur guztia lan gaiztoarekin, eta anbeste denboran lurrean marroz bizitu izan zan.

41. Eta juzgatu zenduen lurra ez egiarekin.

42. Zeren atsekabetu ziñituen otsanak, eta gaitz egin ziñien geldirik zeudenai, eta gezurtiak maitatu ziñituen, eta desegin ziñituen frutuak ematen zituztenen bizitokiak, eta umillatu ziñituen, gaitzik egin etzutenen murruak.

43. Eta igo zan zure lotsaria Jaungoiko txit andiagana, eta zure urgulleria Fortem-gana.

44. Eta begiratu zien Jaungoikoak denbora urgullutsuai, eta ona non aitu ziraden, eta bere gaiztakeriak konpletatu ziran.

45. Argatik zu agilia etzaite agertu. Eta zure ego izugarriak, eta zure luma txit gaiztoak, eta zure buru biurriak, eta zure erpe txit kaltegarriak, eta zure gorputza, guztia utsa;

46. Errefreskatzeko lur guztia, eta itzuli dedin zure indarretik libratuta, eta itxedon beza juizioa, eta urrikaltasuna, bera egin zuenagandik.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan, leoiak agilleari itz oiek esaten ziozkan artean, eta ikusi nuen;

2. Eta ona non burua zan gelditu zana; eta lau ego aiek beragana irago ziradenak, eta erregeak izan ziradenak erreinatzeko, etziraden agertu. Eta beren erreñua erkia, ta nahasiz betea zan.

3. Eta ikusi nuen, eta ona berak etziran agiri, eta agilaren gorputz guztia erazekia zegoan, eta lurra txit ikaratzen zan, eta ni beillan egon nintzan nahasiagatik, eta adimeneko geiegiagatik, eta beldur andiagatik, eta nere espirituan esan nuen:

4. Ona non zuk au eman ziñidan, Jaungoikoaren bideak esaminatzen zebillan onegan.

5. Ona non oraindik gogoz nekatua nagoan, eta nere espiritutik txit gaieza nago, eta ez da txikia nigan, beldur andiaren indar, bart iduki, eta arritu nauena.

6. Orain bada, erregutuko diot Jaungoiko txit goratuari, atzeneraño sendatu naizala.

7. Eta esan nuen: Jaun Agintatzallea, baldin zure begien aurrean grazia arkitu badet. Eta baldin justotua banago zugan askoren artean; eta baldin nere erregua zure arpegiaren aurrera igo bada,

8. Sendatu nazazu, eta erakutsi zaiozu zure serbitzariari azaldaera ta argitasuna, ikusketa izigarri onetarako, nere anima osotoro gozatu dezazun.

9. Zeren diña iduki ninduzun, denboran atzenak neri erakusteko. Eta esan zidan:

10. Ikusketa onen azaldaera au da.

11. Itsasotik igotzen zala ikusi zenduen agilia, au da erreñua, zeñ zure anaia Danieli ikuskizunean agertu zaion.

12. Baña etzitzaion berari azaldatu, nik zuri orain azaldatzen dizudalako.

13. Ona non egunak datozten, eta jaikiko da erreñu bat, lurraren gañean, eta izango dute beldur saminago bat, bera baño len izan ziran erreñu guztiak.

14. Amabi erregek berriz, bata bestearen ondoan erreñu artan agintatuko dute.

15. Zeren bigarrena erreñatzen asiko da, eta berak beste amabiak baño denbora geiagoan aginduko du.

16. Amabi ego ikusi dituzunen azaldaera, au da.

17. Eta aditu zenduen boz, itz egin zuena, ez bere buruetatik, baizik bere gorputzaren erditik irtetzen zala,

18. Au da azaldaera; erreñu aren denbora zati bat iragota, errierta ez txikiak jaioko dira, eta erortzeko irriskuan jarriko da. Eta ez da orduan eroriko, baizik berriz bere asieran jarriko da.

19. Eta nola ikusi ziñituen zortzi egoazpiko bere egoai itsasiak,

20. Azaldaera au da: beragan jaikiko dira zortzi errege, zeñaen denborak laburrak izango diran, eta urteak kontatuak, eta beretatik bi galduko dira.

21. Alderatzen zala berriz denboraren erdia, lau gordeko dira denboran, asitzen danean alderatzen bere denbora, bukatua izan dedin, baña bi atzenerako gordeko dira.

22. Eta iru buru geldirik zeudenak nola ikusi ziñituen,

23. Azaldaera, au da: bere atzenetan jasoko ditu Jaungoiko txit goratuak iru erreñu, eta kenduko ditu bertan asko gauza, eta lurraren jabe izango dira.

24. Eta an bizi diranak lan askorekin, berak baño lenago izan ziranak baño andiagoakin. Argatik aiek agilaen buruak ots eginak izan ziran,

25. Zeren oiek izango diran, bilduko dituztenak bere gaiztakeriak, eta bere atzenekoak egingo dituztenak.

26. Eta nola ikusi zenduen bururik andiena etzala agiri, bere azaldaera au da; zeren beretatik bat bere oearen gañean ilko da, eta alaere oñazeakin.

27. Zeren bi elkarrekin egotzen badira, ezpatak jango ditu.

28. Zeren bataren ezpatak, berarekin dagoana jango du, baña au ere atzenean ezpataz eroriko da.

29. Eta nola ikusi ziñituen egopeko bi, iragotzen ziradela, eskuieko aldamenean dagoan buruaren gañera,

30. Azaldaera, au da: oiek dira Jaungoikoak gorde zituenak bere asmazioetarako, au erreñu erki eta nahasiz betea da.

31. Nola ikusi zenduen leoia ere, zeñ ikusi zenduen basotik azarria zetorrela, eta orroaka, eta agiliari itz egiten ziola, eta berari argudioak jartzen, eta bere gaizki eginak gatik erriertan, bere sermoe guztien bitartez aditu zenduen bezela:

32. Au da Jaungoiko txit goratuak gorde zuen aizea, berak, eta beren gaiztakeriak ondatzeko, eta argudioak jarriko diezte, eta beren disputak beren aurrean erabakiko ditu.

33. Zeren jarriko ditu juizioan oraindikan bizirik daudela. Eta gertatuko da, argudioak jartzen dieztenean, orduan erriertak egingo diezte.

34. Zeren gañerako nere erria, libratuko da doakabearekin, salbatuak izan ziranak nere gogorazioakgatik, eta gozatuko ditu aliketa etorri dedin artean juizioko egunaren atzena, zeñgatik asieratik zuri itz egin nizun.

35. Au da egin zenduen ametsa, eta oiek bere azaldaerak dira.

36. Zu bakarrik bada, Jaungoikoaren ezkutuko gauza au jakiteko diña izan ziñan.

37. Eskribitu itzatzu bada gauza guzti oiek, ikusi zenduen liburuan, eta toki ezkutu batean jarri itzatzu.

38. Eta erakutsiko diozkazu zure erriko jakintsuai, zeñaen biotzak dakizun artu ditzakela, eta gauza ezkutu oiek gorde.

39. Zu berriz, oraindik zaude emen beste zazpi egunean, erakutsi dakizun, zuri erakustea Jaungoikoak nai duen edozeiñere gauza.

40. Eta joan zan nigandik. Eta gertatu zan, aditu zuenean erri guztiak zazpi egunak irago zirala, eta ni ez nintzala errira etorri, eta bildu ziran txikienetik asi, eta andieneraño, eta nigana etorri zan, eta itz egin zidaten, esaten zutela:

41. Zer bekatu egin degu zure kontra, edo ze bidegabetasun egin dizugu, gu utzirik toki onetan egoteko?

42. Zeren zu bakarrik geiegi zera guretzat erri guztietatik, mastiko mordoa bezela, eta toki illunean argia bezela, eta portua bezela, eta ontzia itsasanditik salbatua.

43. Ala gertatzen zazkigun gaitzak, guretzat asko ez al dira?

44. Baldin zuk utziko bagaituzu, zenbat obetoago izango genduen, gu ere Siongo suarekin erazekiak izan bagiña.

45. Zeren gu ere ez gera obak an il ziranak baño. Eta deadar andiakin negar egin zuten. Eta erantzun nien eta esan:

46. Itxedon ezazu Israel, eta etzaite tristetu zu Jakoben etxea.

47. Jaungoikoaren aurrean zuen oroipena badago, eta Fortis tentazioan ez da zuekin aztu.

48. Nik berriz etzaituztet zuek itxi, eta ez det ere zuekgandik alderik egin, baizik etorri nintzan toki onetara, erregutzera Siongo ondamenagatik, urrikaltasuna billatu nezan, zuen santutasuneko umiltasunagatik.

49. Eta orain zoazte bakoitza zuen etxeetara, eta ni egun oiek iragota zuekgana etorriko naiz.

50. Eta erria errira joan zan, esan nion bezela.

51. Ni berriz egon nintzan kanpoan zazpi egunean, agindu zidan bezela, eta jaten nituen bakarrik kanpoko lorak, egun aietan belarrakin nere janaria egin zan.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan zazpi egun iragota, gauaz amets bat egin nuen.

2. Eta ona non itsasotik aize bat irtetzen zan, bere baga guztiak nahasitzeko.

3. Eta ikusi nuen; eta ona non gizon hura sendotzen zan zeruko millakin, eta bere arpegia itzultzen zuen tokian gogoratzeko: bere mendean ikusten ziraden gauza guztiak ikaraz jartzen ziran.

4. Eta edonon bere aoko boza irtetzen zanean, erazekitzen ziran bere bozak aditzen zituzten guztiak, lurra geldirik jartzen dan bezela, sua sentitzen duenean.

5. Eta oiek iragota ikusi nuen, eta ona non biltzen zan gizaseme talde bat, neurririk etzeukana, zeruko lau aizeetatik, gudatzeko itsasotik irten zan gizona.

6. Eta begiratu nuen, eta ona non bere beretzat egin zuen mendi andi bat, eta bere gañera egan joan zan.

7. Nik berriz, nai nuen ikusi alderria, edo erria, nondik artu zan mendia, eta ezin izan nuen.

8. Eta oien ondoan begiratu nuen, eta ona non, beragana bildu ziran guztiak bere kontra gudatzeko, txit beldur ziraden; alaere azartzen ziraden gudatzera.

9. Eta ona non, ikusi zuenean jende talde, zetorrenaren erasoa, etzuen bere besoa jaso, eta etzeukan ere dardorik, ez beste gerrako armarik, baizik bakarrik ikusi nuen bezela,

10. Bere aotik ateratzen zuela suzko asnasea, eta bere españetatik garrezko espiritua, eta bere mingañak aurtikitzen zituen txingarrak, eta ekaitzak; eta guztiak batean bildu ta nahasi ziran, emen suzko asnasea, eta garrezko espiritua, eta ekaitz taldea.

11. Eta erori zan jende taldearen gañean batbatean, zeñ prestatua zegoan gudarako, eta guztiak erazeki zituen, alako moduan, non, supituan, etzan ezerere ikusten jende talde neurrigabetik; baizik bakarrik autza, eta su usaia. Eta ikusi nuen, eta ikaratu nintzan.

12. Eta oiek iragota, ikusi nuen gizona bera menditik jetxitzen zala, eta beste talde paketsu bat beragana ots egiten zuela.

13. Eta alderatzen zan beragana gizon askoren arpegiera, batzuek bozkarioz, beste batzuek tristezaz, batzuek lotuta, batzuek eramaten zituztela eskeñiak izango ziradenak. Eta eritu nintzan beldurraren ugaritasunarekin, eta esnaatu nintzan, eta esan nuen:

14. Zuk asieratik erakutsi ziñiozkan zure serbitzariari mirari oiek, eta diña iduki ninduzun nere erregua artzeko.

15. Eta orain agertu zadazu oraindik amets onen azaldaera.

16. Zeren nola nere iritzian uste dedan, ai, egun aietan utziak izan diradenen doakabeak, eta asko doakabeagoak utziak izan etziradenak,

17. Zeren utziak izan etziradenak, tristeak zeuden.

18. Aditzen det orain, zertzuk dauden gordeak atzeneko egunetan, eta berai bidera irtengo die; baña baita ere utziak izan ziradenai.

19. Argatik etorri ziran bada irrisku andietara, eta premia askotara, amets oiek erakusten duten bezela.

20. Alaere errazago da, perillean dagoana etortzea augana, irago baño. odeia betiko bezela, eta orain ikusi, atzenean gertatzen diradenak. Eta erantzun, eta esan zidan.

21. Eta ikusketaren azaldaera esango dizut, eta zeñaen gañean itz egin zenduen idikiko dizut.

22. Zeren oiekgatik esan zenduen, utziak izan ziradenak. Au da azaldaera:

23. Denbora artan perilla kentzen duena, au gorde da. Perillan erori ziradenak, oiek dira obrak eta fedea Fortisimoentzat dauzkatenak.

24. Jakin ezazu bada, doatsuagoak dirala utziak izan diradenak, illak izan diradenak baño.

25. Oiek dirade ikusketaren azaldaerak, zeren gizaseme bat itsasoaren biotzetik igotzen zala, ikusi zenduen.

26. Bera da, zeñ Jaungoiko txit goratuak daukan zaituta denbora andietan, zeñak bere bitartez bere kreatura libratuko duen, eta berak erabakiko du, zeñak utziak izango diraden.

27. Eta nola ikusi zenduen, bere aotik irtetzen zala espiritua, eta sua, eta ekaitza bezelakoa:

28. Eta nola etzeukan dardorik, ez gerrako erremientarik, zeren bere erasoak bere kontra gudatzera etorri zan jende taldea desegin zuen. Azaldaera au da.

29. Ona emen non badatozan egunak, noiz asiko dan Jaungoiko goratua, libratzen lurraren gañean daudenak.

30. Eta etorriko da adimeneko geiegian lurrean bizi diradenen gañera.

31. Eta batzuek besteakin gerran egiteko gogorazioak idukiko dituzte, erriak erriarekin, eta tokiak tokiarekin,eta jendea jendearen kontra, eta erreñua erreñuaren kontra.

32. Eta gertatuko da, oiek egiten diradenean, eta gertatuko dira,len erakutsi dizkizudan siñaleak; eta orduan agertuko da nere seme, ikusi zenduena gizaseme igotzen dana bezela.

33. Eta gertatuko da, bere boza jende guztiak aditzen dutenean, eta utziko du bakoitzak bere alderrian daukan bere gerra, elkarrekin daukatena.

34. Eta bilduko da batean talde neurrigabea,etorri nai balute bezela, eta bere kontra gudatu.

35. Bera berriz, Siongo mendiaren erpiñaren gañean egongo da.

36. Sion berriz etorriko da, eta erakutsiko zaie guztiai prestatua eta egina, nola ikusi zenduen mendia esku gabe egina.

37. Nere semeak berak berriz argudioak jarriko diezte, jendeak egindako asmazioai, beren gaiztakeriak, zeñak ekaitzari alderatu zitzaiozkan beren gogorazio gaiztoakgatik eta oñazeak, zeñakin asiko diraden oñazetuak izaten.

38. Zeñak iruditu zitzaiozkan garrari, eta galduko ditu neke gabe, suaren antzeko legearen bitartez.

39. Eta nola ikusi zenduen beragana biltzen beste talde paketsu bat,

40. Oiek dira amar tribuak, zeñak katigu eginak izan ziran beren erritik, Oseas erregearen egunetan, zeñ katibu eraman zuen Salmanasar Asiriako erregeak, eta eraman zituen ibaiaren andiko aldamenera, eta beste lur batera eramanak izan ziran.

41. Berak berriz berai eman zien konseju au, utzi zitzatela jentillen taldea, eta joan zitezela aurreragoko alderri batera, non Adanen semerik etzan beñere bizi izan.

42. Edo an gorde beren lege onak, zeñak beren errian ere etziran gordetzen.

43. Berriz Eufrates ibaiaren sarrera estuetatik sartu ziran.

44. Zeren egin ziezten orduan Jaungoiko txit goratuak umeatzeak ibaian irago zezaten artean,

45. Zeren alderri artatik zegoan bide asko bideko, urte bete ta erdikoa, zeren alderri ark Arsaret izena du.

46. Orduan bizi izan ziran an atzeneko denboraraño, eta orain berriz etortzen asitzen diradenean,

47. Berriz Jaungoiko txit goratuak jarriko ditu umeatzak ibaian, irago al ditezten. Argatik ikusi zenduen jende taldea pakean.

48. Baitaere utziak izan ziranak zure erritik, oiek dira nere lurreko mugetan arkitzen diranak.

49. Gertatuko da bada, asitzen danean galtzen beren taldea, zeñak bildu zituzten jendeak, lagunduko die erria garaitu zutenai.

50. Eta orduan mirari asko, txit asko erakutsiko diezte.

51. Eta nik esan nuen: Jaun Agintatzallea, au erakutsi zadazu, zergatik ikusi nuen gizon bat itsasoaren biotzetik igotzen. Eta esan zidan:

52. Nola ezin ziñitzake oiek esaminatu edo jakin, itsasoaren barrenen daudenak, ala ezingo du iñork ere lurraren gañean nere semea ikusi, edo berarekin daudenak, baizik bere denborako egunean,

53. Au da egin zenduen ametsaren azaldaera, eta zergatik zu bakarrik argitua izan zeran.

54. Zeren zurea utzi zenduen, eta nerearen gañean alde egin zenduen legetik, eta billatu zenduen.

55. Zeren zure bizitza jakindurian prestatu zenduen, eta zure zentzuari ama ots egin ziñion.

56. Eta argatik erakutsi nizun zuri ordaña Jaungoiko txit goratuagan. Izango da bada beste iru egunen barrenen, zuri beste gauza batzuek esango dizkizut, eta andiak eta miragarriak adiraziko dizkizut.

57. Eta joan nintzan, eta kanpora irago nintzan, gloriaz bete alabatzen nuela asko Jaungoko txit goratua; bere denboran egiten zituen miragarriakgatik.

58. Eta bera gobernatzen duelako, eta denboretan eramanak izan ziran gauzak, eta an iru egunean egon nintzan.

AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan irugarren egunean, eta arte baten azpian eseria nengoan.

2. Eta ona non, boz bat irten zan sasitik, eta esan zuen: Esdras, Esdras. Eta esan nuen: Ona emen ni Jauna. Eta jaiki nintzan nere oñen gañera. Eta esan zidan:

3. Errebelatzen niola errebelatu nion Sasiaren gañean, eta itz egin nion Moiesi, nere erriak Ejipton serbitzen zuenean,

4. Eta bialdu nuen bera, eta nere erria Ejiptotik atera nuen, eta Sinako mendiaren gañera eaman nuen, eta asko egunetan nerekin idukitzen nuen.

5. Eta asko mirari kontatu niozkan, eta denboren ezkutuak eta atzena erakutsi nion, eta agindu nion esaten niola:

6. Itz oiek agirian egingo dituzu, eta oiek ezkutuan idukiko dituzu.

7. Eta orain esaten dizut:

8. Erakutsi nizkizun siñaleak, eta ikusi ziñituen ametsak, eta eman nizkizun azaldaerak, zure biotzean ezkutatuak iduki itzatzu.

9. Zeren zu guztiak artua izango zera, biurtuko zera gañerakoak bezela nere konsejuarekin, eta zure antzekoakin, denborak bukatu ditezen artean.

10. Zeren munduak bere gazteeria galdu du, eta denborak alderatzen dira zartzera.

11. Zeren amabi zatitan berezitua dago munduko denbora, eta bere amarrak, eta amargarren zatiaren erdian irago ziran.

12. Beratatik oraindik daude, amargarren zatia erdi ostean.

13. Orain bada prestatu ezazu zure etxea, eta errierta egin zaiozu zure erriari; eta beren umillak bozkariotu itzatzu, eta onezkero usteltasunari utzi zaiozu,

14. Eta aurtiki itzatzu zugandik gogorazio ilkorrak, eta kendu itzatzu zugandik gizonen pisuak; eta bota ezazu izate erkia; eta jarri itzatzu toki batean gogorazio zuretzat txit gogaikarriak, eta zabiltz agudo denbora oietatik iragotzeko.

15. Zeren ikusi zenduzanak orain gertatu zirala. Gaitzak, berriz oiek baño gaiztoagoak egingo dituzte.

16. Bada zenbat argalago egiten dan gizaldia zaartzagatik, bertan bizi diranen gañean gaitzak anbat ugarituko dira.

17. Zeren egia geiago urrutiratu da, eta gezurra alderatu. Zeren onezkero agudo dabil etortzeko, ikusi zenduen ikuskizuna.

18. Eta erantzun nuen, eta esan nuen, Jauna, zure aurrean,

19. Ona emen ni joango naiz, agindu zidan bezela, eta aurrean dagoan erriari errierta egingo diot. Baña berriz jaiotzen diranai, nork konseju onak emango diezte?

20. Gizaldia bada illuntasunetan jarria dago, eta bertan bizi diradenak, argi gabe daude.

21. Zeren zure legea erazekia dagoan, argatik iñork ere ez daki, zuk zertzuk egin dituzun, ez zer obra asiko diran.

22. Baldin bada grazia zugan arkitu badet, bialdu ezazu nigana Espiritu Santua, eta eskribituko det, asieratik munduan gertatu dan guztia; zertzuk zeuden zure legean eskribituak, gizonak bidetxidorra arkitu al zezaten, eta atzenetan bizi nai dutenak, bizi ditezela.

23. Eta erantzun zidan eta esan zuen: Joatzen zerala bildu ezazu erria, eta esango diezu, berrogei egunean etzaitzatela billatu.

24. Zuk berriz, prestatu itzatzu zuretzat ezpel asko, eta zurekin artu itzatzu, Saream, Dabriam, Salemiam, Etxanum, eta Asiel bost oiek agudo eskribitzeko prestatuak daudenok.

25. Eta onara etorri zaite, eta eraziko det zure biotzean adimeneko argia, zeñ ez dan itzaliko, aliketa eskribitzen asi zeranak bukatu ditezten artean,

26. Eta orduan perfektoak diradenai, batzuek agertuko dizkitzu; batzuek jakintsuai ezkutuan erakutsiko dizkitzu. Zeren biar ordu onetan asiko zera eskribitzen.

27. Eta joan nintzan agindu zidan bezela, eta bildu nuen erri guztia, eta esan nion:

28. Israel, itz oiek aditu itzatzu:

29. Gure gurasoak asieratik Ejipton bideantez ibilli ziran, eta andik libratu ziran.

30. Eta artu zuten bizitzako legea, zeñ etzuten zaitu, eta au zuek beren ondoan ausi dezute.

31. Eta lurra suertez emana izan zatzuten, eta Siongo lurra, eta zuen gurasoak, eta zuek gaiztakeria egin zenduten, eta Jaungoiko txit goratuak agindu ziñizuten bideak etziñituzten zaitu,

32. Eta nola juez justoa dan, kendu zizuten eman zizuten denboran.

33. Eta orain zuek emen zerate, eta zuen anaiak zuen barrendiko aldamenetik dira.

34. Baldin bada aginduko baziñie zuen zentzuari, eta emango baziñie erakutsiak zuen biotzari, bizirik iraungo dezute, eta illda gero urrikaltasuna iritxiko dezute.

35. Zeren juizioa eriotzearen ondoan etorriko da, berriz biztzen geradenean, eta orduan justoen izenak agertuko dira, eta gaiztoen egitadak erakutsiko dira.

36. Nigana bada ez bedi iñor ere alderatu orain, eta ez bedi ibilli nere billa berrogei egunera artean.

37. Eta artu nituen bost gizaseme, agindua izan zatan bezela, eta joan giñan kanpora, eta an egon giñan.

38. Eta allegatu zan biaramona, eta ona emen boz batek ots egin zidan, esaten zuela: Esdras, zure aoa idiki ezazu, eta esan ezazu, edateko ematen dizudana.

39. Eta nere aoa idiki nuen, eta ona emen non kaliza beteriko bat luzatzen zitzadan neri. Au zegoan betea urarekin bezela: bere kolorea berriz suaren irudikoa.

40. Eta artu nuen, eta edan nuen. Eta beratan edan nuenean, nere biotza oñazetzen zan aditzarekin, eta nere bularrean geitzen zan jakinduria. Bada nere espirituak irautzen zuen gomutan.

41. Eta idikia izan zan nere aoa, eta etzan berriz beñere itxi.

42. Jaungoiko txit goratuak eman zien adimena bost gizonai, eta eskribitu zituzten, esaten ziraden gabeko geiegi, etziekitenak.

43. Gauaz berriz ogia jaten zuten, nik berriz egunaz itz egiten nuen, eta gauaz ez nintzan ixiltzen.

44. Berrogei egunean berriz, berreun eta lau liburu eskribitu ziran.

45. Eta gertatu zan kunplitu zituztenean berrogei egunak, Jaungoiko txit goratuak itz egin zuen, esaten zuela: Lenengo eskribitu ziñituenak, agirian jarri itzatzu, eta diñak eta ezdiñak irakurri bitzate.

46. Irurogeita amar atzenekoak berriz, gordeta idukiko dituzu, zure erriko jakintsuai emateko.

47. Zeren oietan dago adimeneko zana, eta jakinduriako iturria, eta aditzako ibaia. Eta ala egin nuen.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Begira, esan itzatzu nere jendetzaren belarrietan, zure aoan ipintzen ditudan profeziako itzak, esaten du Jaunak.

2. Eta egin ezazu paperean eskribitu ditezela, zeren leialak, eta egiazkoak dira.

3. Etzaite beldurtu zure kontrako gogorazioakgatik, etzaite ere nahasia gelditu, esaten dutenen sinisgogortasunak.

4. Sinisgogorra dan guztia bere sinisgogortasunean ilko dala.

5. Ona non bialtzen ditudan, esaten du Jaunak, lur guztiaren gañera gaitzak, ezpata, eta gosea,eta eriotza, eta ondamena.

6. Argatik txit kutsutu du gaiztakeriak lur guztia, eta beren obra kaltegarriak konpletatu dira.

7. Argatik Jaunak esaten du:

8. Onezkero ez naiz ixillik egongo errelijioaren kontrako gauzak egiten dituztenen gaiztakeriakin; ez ditut ere sufrituko, gaizki egiten dituzten gauzaetan. Ona non odol obengabeak eta onak deadar egiten duen nigana, eta justoen animak aspertu gabe deadar egiten dute.

9. Bengatzen naizala bengatuko naitzate,esaten du Jaunak, eta artu odol obengabe guztia beretatik niganako.

10. Ona non nere erria artaldea bezela, iltokira eramana da. Onezkero ez det sufrituko bera Ejiptoko lurrean bizi dedilla:

11. Baizik aterako det esku sendoarekin, eta beso goratuarekin, eta zaurituko det plagarekin len bezela, eta bere lur guztia ustelduko det.

12. Negar egingo du Ejiptok, bere zimenduak izurriarekin azotatuak, eta Jaungoikoak bialduko diozkan kastiguakin.

13. Negar egingo dute nekazariak, lurreko lanetan ari diradenak, zeren beren aziak uts emango duten gorniarekin, txingorrarekin, eta izar ikaragarri batekin.

14. Ai munduaren, eta bertan bizi diranen doakabeak.

15. Zeren ezpata eta beren damua alderatu dan, eta jaikiko da jendea jendearen kontra gudarako, eta burni oker billosak beren eskuetan.

16. Zeren gizonak aldakorrak izango dira, eta batzuek besteak garaitzen dituztela, beren erregearen ajolarik ez dute idukiko, eta prinzipeak beren egiteen bideak beren eskubidean.

17. Zeren gizonak naiko du errira joatea, eta ezingo da joan.

18. Zeren beren urgulleriagatik erriak nahasiko dirade, etxeak zatituko dirade, gizonak beldurrez egongo dirade.

19. Ez da urrikalduko gizona bere projimoarekin, zaitzeko beren etxeak ezpatatik beren, gauza guztiak arrapatzen dieztenean, ogi goseagatik, eta naigabe andiakgatik.

20. Ona non nik biltzen ditudan, esaten du Jaungoikoak, lurreko errege guztiak, neri lotsa artu dizadaten, zeñak diran Sortaldekoa, Egerdikoa, Egoa, eta Libanokoa, berakgan biurtu ditezen, eta biurtu ditzaten eman ziezten gauzak.

21. Nola egiten duten gaurko eguneraño nere autuakin, ala egingo det, eta berai biurtuko diet. Jaun Jainkoak oiek esaten ditu.

22. Ez die barkatuko nere eskuieak bekatariai, ez da aspertuko ezpata, lurraren gañean odol obengabea isuritzalleakin.

23. Irten zan sua bere aserretik, eta lurreko zimenduak, eta bekatariak lasto igarra bezela iretsi zituen.

24. Ai bekatu egiten dutenen, eta nere aginteak gordetzen ez dituztenen zorigaiztokoak, esaten du Jaunak.

25. Ez diot barkatuko. Alde egin ezazute semeak eskubidetik. Nere santifikazioa ez ezazute kutsutu,

26. Zeren ezagutzen ditu Jaunak, bere kontra bekatu egiten duten guztiak. Argatik eriotzara eta illak izatera eman zituen.

27. Zeren onezkero gaitzak etorri ziran lur guztiaren gañera, eta beretan iraungo dezute, zeren etzaituzte libratuko Jaungoikoak, bere kontra bekatu egin zendutelako.

28. Ona emen ikusketa ikaragarria, eta bere arpegia sortaldetik.

29. Eta irtengo dira Arabiako dragoien erreñuak gurdi askotan, eta asnasa bezela, ugari izango dirade berak lurraren gañean, alako moduan, non, beldur eta ikaraz dauden beren izena aditu duten guztiak.

30. Karmonio aserrean zoratuak, irtengo dira basaurdeak menditik bezela, eta indar andiarekin etorriko dira, eta gudan ariko dira berakin, eta Asiriako lurraren zati bat desegin ta ondatuko dute.

31. Eta oien ondoan geiago izango dira, ta garaituko dituzte dragoeak, beren jaiotzarekin oroiturik, eta biurtuko dira prestatzera indar andiakin berai persegitzeko.

32. Oiek nahasiko dira, eta aien indarrarekin ixilduko dira, eta beren oñak iges egingo dute.

33. Eta Asiriako lurrean jarri danak ingurutuko ditu, eta beretik bat desegingo du, eta beren martiztian beldurra eta ikara izango da, eta errientak beren erregeen kontra.

34. Ona emen odeiak sortalde, eta ifarretik egoeraño, eta beren irudiak txit ikaragarriak, aserre eta ekaitzez beteak,

35. Eta elkar joko dute, eta elkar jotze onekin izango da ekaitz ugaria lurraren gañean, eta aien ekaitza, eta ezpatatik sabeleraño odola izango da.

36. Eta gizonaren zimaurra gameluaren etzintokiraño, eta beldur eta ikara andia lurraren gañean izango da.

37. Eta arrituko dira aserre hura ikusten dutenak, eta beldurrak arrapatuko ditu. Eta gero euri ekaitz ugariak izango dira,

38. Egoetik, ifarretik, eta zati bat sartaldetik.

39. Eta sortaldeko aizeak indar geiago arturik, eta zarratuko dute, eta aserrean atera zuen odeia, eta ekaitza ikaratzeko sortaldeko, eta sartaldeko aizea urratuko du.

40. Eta goratuko dira odei andiak eta sendoak, aserrez beteak, eta ekaitzak, lur guztia eta bertan bizi diradenak ikaratzeko, eta toki goratu eta eregi guztiaren gañera ekaitz ikaragarria aurtikiko dute,

41. Sua, eta kaskabarra, eta ezpata oker egatiak; eta ur askoak, kanpo guztiak, eta erreka guztiak ur askoren betetasunarekin bete ere ditezen.

42. Eta desegingo dira erriak, eta murruak, eta mendiak, eta murruak, eta basoetako egurrak, eta landaetako belarra, eta beren aleak.

43. Eta iragoko dira sendotasunarekin Babiloniaraño, eta desegingo dute.

44. Bilduko dira bertan, eta ingurutuko dute, eta aurtikiko dute ekaitza, eta aserre guztia bere gañera, eta autsa eta kea zeruraño igoko da, eta guztiak inguruan beragatik negar egingo dute.

45. Eta bere mendean gelditzen diranak, ikaratu zituztenak serbituko dituzte.

46. Eta zu Asia, Babiloniaren itxedopenean laguna, baita bere personaren glorian,

47. Ai zure doakabea, urrikalgarria, bere antzeko egin ziñalako, eta apaindu ziñituen zure alabak fornikazioan gozatu eta gloriaz betetzeko zure maitatzallaetan, zeñak nai izan zuten zurekin beti fornikazioko bekatua egin.

48. Gorrotogarria imitatu zenduen bere obra guztietan, eta bere asmazioetan. Argatik Jaungoikoak esaten du.

49. Bialduko dizkizut zuri gaitzak andre alarguntza, pobreza, eta gosea, eta ezpata, eta izurria, zure etxeak ondatzera gaitzarekin, eta eriotzarekin, eta zure bertutearen gloriarekin.

50. Lorea bezela leortua izango da, zure gañera bialdua izan dan berotasuna jaikitzen danean,

51. Erituko zera pobretxo zauritua, eta emakumeak kastigatua bezela, sendoak eta maitatzalleak artuko etzaiken eran.

52. Nik zu ala zelatuko al zaitut, esaten du Jaunak.

53. Il ez baldin baziñitu nere autuak denbora guztian, goratzen eskuen jotzea, eta esaten dezula beren eriotzaren gañean, moskortu ziñanean,

54. Zure arpegiko irudia apaindu ezazu!

55. Zure fornikazioko ordaña zure kolkoan, argatik saria artuko dezu.

56. Nola egiten diezun nere autuai, esaten du Jaunak, ala egingo dizu Jaungoikoak, eta jarriko zaitu gaitzaren eskuetan.

57. Eta zure semeak gosez ilko dira, eta zu ezpata oker batekin eroriko zera, eta zure erriak deseginak izango dira, eta zure guztiak kanpoan ezpataz eroriko dira.

58. Eta mendietan daudenak, gosez eroriko dira, eta beren aragiak jango dituzte, eta odola edango dute ogiaren gosearekin eta uraren egarriarekin.

59. Doakabea, itsatsoetatik etorriko zera, eta berriz gaitzak artuko dituzu.

60. Eta iraitzean zeatzen dute erri illa, eta txikitzen dute zure lurraren zatiren bat, eta zure gloriaren zatiren bat desegingo dute, berriz itzultzen diradela Babilonia deseginera.

61. Eta berak beera aurtikia izango zera lastotzat, eta berak zuretzat sua izango dira.

62. Eta iretsiko zaituzte zu, eta zure erriak, zure lurra, eta zure mendiak, eta zure baso guztiak, eta zur frutuemallea suaz erreko dute.

63. Zure semeak katibu eramango dituzte, eta zure kotiza lapurretarako izango dute, eta zure arpegiko gloria desegingo dute.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Ai zuen doakabeak Babilon, eta Asia; ai zuen doakabeak Ejipto eta Siria.

2. Lotu itzatzute zuen gerrietan zakuak, eta zilizioak, eta negar egin ezazute zuen semeakgatik; eta damuz egon zaitezte, zeren zuen zatituak izatea alderatu da.

3. Aurtiki zatzute ezpata, eta zeñ da zuekgandik kenduko duena?

4. Bota zatzute sua zuei, eta zeñ da itzaliko duena?

5. Bialdu zatzute gaitzak, eta zeñ da kenduko dizkizutena?

6. Nork basoan leoe gose dan bat aurtikiko du beragandik, edo itzaliko du sua lastatzan, erazekitzen danean?

7. Izango ote da iñor, saeta saetari sendo batek aurtikia atzera botako duenik?

8. Jaungoiko sendoak gaitzak bialtzen ditu, eta zeñ da atzera aurtikiko dituena?

9. Irten da sua bere aserretik, eta zeñ da itzaliko duena?

10. Tximistatzen du, eta zeñ ez da beldurtua? Turmonada egiten du, eta nor ez da izutuko?

11. Jaunak zematzen du, eta zeñ ez da arras zatitua geldituko bere aurrean?

12. Lurra dardaratu zan, eta bere zimenduak, itsasoak ondotik bagak ematen ditu, eta bere olatuak nahasiko dira, eta bere arraiak Jaunaren aurrean, eta bere indarraren gloriara.

13. Zeren azkarra dan bere eskui, uztaia jartzen duena, bere sarietak zorrotzak berak aurtikitzen dituenak, ez dute utsik emango, asitzen danean lur guztira aurtikitzen.

14. Ona non gaitzak bialtzen diran, eta ez dira itzuliko aliketa lurraren gañera etorri ditezen artean.

15. Sua erazekitzen da, eta ez da itzaliko, aliketa lurraren zimenduak desegin ditzan artean.

16. Nola ez dan itzultzen saieta, saietari sendoak aurtikia, ala ez dira itzuliko gaitzak lurrera bialduak.

17. Ai nere doakabea, ai nere doakabea, egun aietan nork libratuko nau?

18. Penaen asiera, eta asko suspirio; gosearen asiera, eta asko eriotza, gerraen asiera eta eskubidedunak beldur izango dira; gaitzen asiera eta guztiak izutuko dira.

19. Oietan zer egingo det, gaitzak datozanean?

20. Ona emen gosea, eta izurria, eta atsekabea, eta antsia bialduak izan ziran azoteak emendatzeko.

21. Eta oietan guzioetan, ez dute bera bere gaiztakerietatik aterako; eta ez dituzte ere azoteak beti gogoan idukiko.

22. Ona non izango dan lurraren gañean janariaren zatartasuna, usteko balute bezela pakea zuzendu zatela, eta orduan irtengo dute gaitzak lurraren gañean, ezpata, gosea, eta nahasi andia.

23. Zeren goseak lurrean bizi diranetatik asko galduko ditu, eta goseak bizirik utzitzen dituenak, ezpatak ilko ditu.

24. Eta illak zimaurra bezela aurtikiak izango dira, eta ez da izango nork bozkariotu ditzan. Zeren lurra eremutua utzia izango da, eta bere erriak aurtikiak.

25. Ez da utziko lurra nork gijau, eta azia nork erein.

26. Zurak frutuak emango ditu, eta nork mendainduko ditu?

27. Matsa zorituko da, eta nork oñazpian zapalduko du? Zeren tokietan eremutz andia egongo da.

28. Zeren gizonak naiko du gizona ikusi, edo bere boza aditzea.

29. Zeren erritik amar utziko dira, eta bi kanpotikan, baso zarratuetan, eta aitz bitarteetan ezkutatzen diradenak.

30. Nola utzitzen diran oliboetan, eta zuaitz bakoitzean iru, edo lau olibo,

31. Edo nola masti mendainduan mordoak utzitzen dituzten mastian arretarekin begiratzen dutenak.

32. Ala beren etxeen aztertzalleak ezpatarekin egun aietan iru, edo lau utziko dituzte.

33. Eta lurra eremutua utzia izango da, eta bere kanpoak zartuko dira, eta bere bideak, eta bere bidetxidor guztiak, emango dituzte arantzak, andik gizonik iragotzen etzalako.

34. Negar egingo dute donzellak esposorik ez idukirik; negar egingo dute emazteak, senarrik ez daukatelako; beren alabak negar egingo dute, ez daukatelako nork adituak izan.

35. Beren esposoak gerran ilko dira, eta beren senarrak gosearekin izango dira deseginak.

36. Aditu itzatzute berriz oiek, eta ezagutu itzatzute Jaunaren serbitzariak.

37. Ona emen Jaunaren itza, artu ezazute. Etzaiezu sinistu Jaungoikoai, zeñakgatik Jaunak esaten duen:

38. Ona non gaitzak alderatzen dira, ez dira luzatzen.

39. Nola aurdun batek bederatzigarren illean bere semea egiten duenean, alderatzen danean bere aurraegitea ordu bi, edo irurekin, bere sabela penak ingurututzen dute, eta aurra sabeletik irtetzen danean punto bat ere ez dira luzatuko.

40. Ala, ez dirade luzatuko gaitzak, lurraren gañera irtetzeko, eta munduak negar egingo du, eta penak inguruan artuko dute.

41. Aditu ezazute itza, nere jendea, gudarako prestatu zaitezte, eta gaitzetan ala egon zaitezte, nola lurreko arrotzak.

42. Saltzen duenak, iges egiten duenak bezela, eta erostzen duenak, galduko duenak bezela.

43. Erosten duenak, frutua artuko ez balu bezela; eta etxea egiten duenak, an ez biziteko bezela.

44. Ereitzen duenak, bilduko ez balu bezela; eta mastia podatzen duenak, mendainduko ez balu bezela.

45. Ezkontzen diradenak, semerik ez izateko bezela, eta ezkontzen ez diradenak, alargunak bezela.

46. Argatik lanean ari diranak, alperrik lanean ari dira.

47. Zeren beren frutuak arrotzak bilduko dituzte; eta beren gauzak arrapatuko dituzte; eta etxeak desegingo dituzte, eta beren semeak katigu egingo dituzte, zeren beren semeak izaten dituzte katiberioan eta gosean.

48. Eta merkataritzan lapurretan egiten dutenak, zenbat luzaro apaintzen dituzten erriak, eta beren etxeak, eta dauzkaten tokiak, eta berak,

49. Anbat kontu ziatzagoak artuko dieztet beren bekatuakgatik, Jaunak esaten du.

50. Nola azeloan egoten dan emakume fornikaria andre txit garbi ta onagatik,

51. Ala azelatuko du justiziak gaiztakeria beregantzen danean, eta salatzen duenean arpegian, datorrenean zaituko duena bekatu guztia lurraren gañean billatzen duena.

52. Argatik etzaitezte jarri aren, ez bere obraen antzekoak.

53. Zeren oraindik denbora piska bat irago, eta lurretik gaiztakeria kendua izango da, eta justiziak zuekgan erreñatuko du.

54. Ez bekatariak esan, ez duela berak bekaturik egin, zeren bere buruaren gañean ikatzak erreko ditu, esaten duenak. Jaun Jaungoikoaren, eta bere gloriaren aurrean ez det bekaturik egin.

55. Ona non Jaunak ezagutzen dituen gizonen obra guztiak, eta beren asmazioak, eta beren gogorazio guztiak, eta beren biotzak.

56. Zeren esan zuen, lurra egin bedi, eta egin zan, zerua egin bedi, eta egin zan.

57. Eta bere itzera izarrak fundatu ziran, eta jakin zuen, izarrak zenbat ziran.

58. Lizea aratzen duena eta beren tesoroak, itsasoa eta bere izatea neurtu zituzanak.

59. Itsasoa uren erdian sartu zuenak, eta lurra bere itzarekin uraen gañean zinzilika ipiñi zituenak.

60. Zabaltzen duenak zerua ganbara bezela, uraen gañean fundatu zuen.

61. Eremuan urezko iturriak ipiñi zituena, eta mendien erpiñen gañean ainzira, ibaiak aurtikitzeko aitz goratu batetik, lurrak edan zezan.

62. Gizona egin zuenak, eta jarri zuenak bere biotza gorputzaren erdian, eta espiritua, bizitza, eta adimena bialdu ziozkanak,

63. Eta Jaungoiko guziadezakeanaren gauza guztiak egin zituenaren, eta lurreko ezkutuetan gauza ezkutuak aztertzen dituenaren irudia.

64. Onek dakizki zuen asmazioak; eta zuen biotzetako gogorazioak, bekatuak egiten dituzutela, eta zuen bekatuak ezkutatu nai dituzutela.

65. Argatik Jaunak arreta andi batekin begiratu zien zuen obra guztiai, eta zuek guztiak gaizki erabilliko zaituzte.

66. Eta zuek lotsatuak egongo zerate, zuen bekatuak gizonen aurrean agertzen diranean, eta gaiztakeriak izango dira, zeñak egun artan salatzeak egongo diran.

67. Zer egiten dezute? Eta Jaungoikoaren eta bere Aingeruen aurrean, nola zuen bekatuak ezkutatuko dituzute?

68. Begira Jaungoikoa jueza dala, bere beldur izan zaitezte. Utzi zaiezute zuen bekatuai; eta aztu zaitezte betiko onezkero zuen gaiztakeriak egitearekin, eta atsekabe guztietatik libratuko zaituzte.

69. Zeren ona non zuen gañean talde ugari baten berotasuna erazekitzen dan, eta zuetatikoren batzuek arrapatuko dituzte, eta idoloentzat illak jango dituzte.

70. Eta berai oben egiten dienak, izango dirade aientzat farragarri, lotsagarri, eta oñazpirako.

71. Zeren tokiak tokia idukiko dute, eta aldeko errietan jaikitze andia Jaunaren beldur diradenen gañean.

72. Izango dira txoroak bezela iñori ere barkatzen ez diela, oraindik Jaunaren beldur diradela arrapatzeko eta ondatzeko.

73. Zeren ostu eta desegingo dituzte gauzak, eta beren etxeetatik berak aurtikiko dituzte.

74. Orduan agertuko da nere autatuen probazioa, urrea suarekin probatzen dan bezela.

75. Aditu ezazute, esaten du Jaunak, ona emen non dauden atsekabeko egunak, eta oietatik libratuko zaituztet.

76. Ez ezazute beldurrik iduki; etzaitezte ere ezbaietan eta atzerapenetan egon, zeren Jaungoikoa zuen zuzentzallea da.

77. Eta nere aginte eta mandatuak gordetzen dituenak, Jaun Jaungoikoak esaten du, zuen bekatuak ez dizutela geiago egin, ez ditezela zuen bekatuak zuek baño gorago eregi.

78. Ai beren bekatuak estututzen dituztenen, eta beren gaiztakeriak estaliak diradenen zorigaiztokoak, nola kanpoa dan basoak estutua, eta arantzaz betetzen dan gizonik iragotzen ez dan bidetxigorra, eta kanpora ateratzen da, eta suak iretsia izatera bialtzen da. Atzena.

TOBIASEN LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Tobias Neftaliko tribu, eta errikoa (zeñ dagoan Galilea goikoan Naasonen gañean, Sartaldera dijoan bidearen ostean, ezkerretara daukala Sefetko erria),

2. Izanik katibu egiña Salmanasar Asiriako erregearen denboran, katiberioan arkitu arren, egiaren bidea etzuen utzi,

3. Alako moduan, non, iduki al zuen guztitik, ematen zien egunoro, bere jatorriko, berarekin katibu zeuden anaiai.

4. Eta izanik gazteenetatikoa Neftaliko tribuko guztien artean alaere, bere egitetan aur usairik batere etzuen agertu.

5. Atzenean, guztiak zijoazenean, Jeroboam Israelko erregeak egin zituen urrezko txalak adoratzera, onek bakarrik iges egiten zuen besteakgandik,

6. Eta joan oi zan Jerusalenera Jaunaren elizara, non Israelko Jaun Jainkoa adoratzen zuen, leialkiro eskeñtzen ziozkala bere primizia, eta bere amarren guztiak.

7. Alako moduan, non, iru urte bakoitzean ematen zien bere federa biurtuai, eta arrotzai, berai zegokien amarren guztia.

8. Oiek, eta oien irudiko beste gauza, Jaungoikoaren legearen erakoak, gaztetxotatik gordetzen zituen.

9. Eta allegatu zanean gizon izatera, ezkondu zan bere tribuko emakume, Ana zeritzan batekin, zeñagandik iduki zuen seme bat, zeñi jarri zion bere izena,

10. Zeñi, oraindikan aurra zala, erakutsi zion Jaungoikoaren beldur izaten, eta bekatu guztitik alde egiten.

11. Eta katibu eramana izan zanean gero, bere emazte, eta seme, eta tribu guztiarekin Ninibeko errira,

12. Beste guztiak jentillen janariak jaten bazituzten ere, Tobiasek garbi gorde zuen bere anima, beren janariakin beñere kutsutu gabe.

13. Eta Jaunarekin oroitu zalako, eta bere biotz guztitik maitatu zuelako, Jaungoikoak Salmanasar erregearen gogoko egin zuen,

14. Zeñak eman zion, nai zuen tokira joateko, eta nai zuen guztia egiteko baimena.

15. Joaten zan bada katibu zeuden guztiak gana, eta konseju onak ematen ziezten.

16. Allegaturik bada Rajes Medotarren errira, eta idukirik amar zillarrezko talentu, erregeagandik artu zituen emaitzetatik;

17. Ikusirik Gabelo bere tribukoa premian, bere erreñuko jende askoren artean, bere agiri batekin eman zion, aitatu dan zillarrezko dirua.

18. Denbora askoren buruan, il ezkero Salmanasar erregea, bere seme Senakerib, Israeltarrak txit aier zituenak, aren lekuan erreñatzen zuela,

19. Tobias egunoro joan oi zan bere aideak gana, eta gozatzen zituen, eta ematen zion bakoitzari al zuena bere ondasunetatik.

20. Gose ziranai jaten ematen zien, billosik zeudenai soñekoak ematen ziezten, eta zeukan ardura andia, berez iltzen ziranak, eta bestek illak ziranak obiratutzeko.

21. Eta nola Senakerib erregeak, itzulirik igesi Judeatik, Jaungoikoak bere blasfemiakgatik eman zion kastiguagatik, aserreturik, Israeltar asko iltzen zituen, Tobiasek obiratzen zituen beren gorputzak.

22. Eta adirazi ziotenean au erregeari, agindu zuen il zezatela, eta kendu ziozkan bere ondasun guztiak.

23. Tobias berriz, ezerere gabetanik, iges eginik bere emazte eta semearekin, ezkutatua egon zan; zeren askok ongi nai zioten.

24. Berrogeita bost egun iragorik, il zuten erregea bere semeak;

25. Orduan Tobias itzuli zan bere etxera, eta biurtuak izan zitzaiozkan bere ondasun guztiak.

BIGARREN KAPITULUA

1. Oiek iragota, Jaunaren jai egun batean, zeñean zegoan prestatua bazkari eder bat Tobiasen etxean,

2. Esan zion onek bere semeari: Zoaz, eta ekarri itzatzu, onara gure tribuko, Jaungoikoaren beldurreko batzuek, gurekin jan dezaten.

3. Eta joanik bera, itzuli zanean adirazi zion, nola Israelko semeetatiko, lepoa ebakita illa izan zan bat, zetzan karrikan. Eta bereala, maietik jaikirik, janaria utzita, joan zan korrika, mokadurik ere probatu gabe, gorputz illa zegoan tokira;

4. Eta artzen zuela bizkarrean, eraman zuen ixiltxorik bere etxera, kontuz obiratzeko, eguzkia sartzen zanean.

5. Eta ezkutatu zuenean gorputzilla, jarri zan jaten negarrez eta ikara,

6. Oroiturik, Jaunak Amos profetaren bitartez esan zituen itz aiekin: Zuen jai egunak zizpuru eta negarrera itzuliko dira.

7. Eta eguzkia sartu zanean, joan zan, eta obiratu zuen.

8. Bere aide guziak berriz errierta egiten zioten, esaten zutela: Len gauza augatik agindu dute zuri bizia kentzeko, eta nekez libratu zera eriotzatik, eta berriz zoaz gorputz illak obiratzera?

9. Baña Tobiasek, izanik erregearen baño Jaungoikoaren bildurrago, ostutzen zituen illak izan ziranen gorputzak, eta bere etxean ezkutatzen zituen, eta gau illunean obiratzen zituen.

10. Gertatu zan bada egun batean, itzulirik bere etxera nekatua, obiratzen arita, etzitea pareta baten babesean, eta loak artu zuen;

11. Eta lo zetzala, erori zitzaion enada kabi batetik zimaur zirin beroa begien gañera, eta itsutu zan.

12. Eta Jaungoikoak nai izan zuen neke berri au berari etortzea, erakusteko gerokoai, zenbaterañokoa zan aren eraman, Job santuarenaren antzekoa.

13. Zeren, nola bere aur denboratik bizi zan beti Jaungoikoaren beldurrean, eta gordetzen zituen bere aginduak, etzuen esparik eman Jaungoikoaren kontra, bialdu zionean itsutasuneko zorigaitza;

14. Baizik sendo iraun zuen Jaungoikoaren beldurrean, bere biziko egun guztietan, eskerrak ematen ziozkala.

15. Eta nola Job santuari erregeak erasotzen zioten, ala Tobiasi lotsabajekeriak esaten ziozkaten bere bizieragatik bere aide odoleko ta ezkontzakoak, esaten zutela:

16. Non dago zure itxedopena, zeñagatik egiten ziñituen limosnak, eta obiratzak?

17. Tobiasek berriz errierta egiten zien, esaten zuela: Ez ezazute arren orrela itz egin:

18. Santuen semeak geran ezkero, eta itxedotzen degulako arako bizitza, Jaungoikoak emango diena beragan beren fedeari beti irauneraziten diotenai.

19. Bitartean Ana bere emaztea joan oi zan egunoro eunetara, eta ekartzen zuen, bere eskuetako lanarekin, irabazi zezakean janaria.

20. Eta ala gertatu zan, artzea onek ezneko antxume bat, eta ekartzea etxera,

21. Zeñaen beekak aditu zituenean bere senarrak, esan zuen: Begira ezazute ez dedilla baldinere ostua izan, itzuli zaiezute bere jabeai, zeren etzagu zillegi gauza osturik jatea, ez berari ukiturik egitea.

22. Zeñatara bere emazteak, aserretuta, erantzun zion: Txit gauza argia da, zure itxedopenak utsean gelditu dirala, eta orain ikusten da zure limosnen irabazia.

23. Eta onelako eta oien antzeko itzakin lotsagabekiro erasotzen zion.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Orduan Tobias jarri zan zizpuruz, eta malkoak zeriozkiola asi zan otoitz egiten,

2. Esaten zuela: Justoa zera, Jauna, eta zure erabaki guztiak justoak dira; eta zure bide guztiak urrikaritasuna, eta egia, eta justizia.

3. Orain bada, Jauna, oroitu zaite nerekin, eta ez ezazu artu nere bekatuen benganzarik, eta ez ezazu berriztatu, nere, ez nere gurasoen gaiztakerien oroipenik.

4. Zeren ez giñiotelako obeditu zure aginduai, argatik arrapatu digute geneukana, eta izan gera eramanak katiberiora, eta eriotzara, eta etorri gera izatera barreiatu gaituzun erreñu guztietako ipuia eta iseka.

5. Eta andiak dira, Jauna, eta ikaragarriak orain zure erabakiak, zeren ez gera bizi zure aginduen erara, eta ez gabilza ere zuzen zure bideetatik.

6. Eta orain, o Jauna, egin ezazu nerekin zure gogokoa dana; eta agindu ezazu nere espiritua pakean artua izan dedilla, zeren obetoago dagokit iltzea, bizitzea baño.

7. Eta egun beratan gertatu zan, Sara Ragelen alaba, Rajes Mediako errian zegoanak, aditzea bere aitaren neskame batek esan ziozkan isekak.

8. Zeren zazpi senar iduki zituen, eta Asmodeo zeritzan demonio batek il zituen, beragana alderatu nai zuten denboran.

9. Errierta egiñik bada neskameari utsegiteren batgatik, onek erantzun zion, esaten zuela: Arren bada ez al dezanagu ikusiko igandik, ire senarren iltzalle orre gandik, jaiotako semerik, edo alabarik.

10. Ni ere il al nai naun, il itunan bezela zazpi senarrak? Aditurik itz oiek joan zan Sara bere etxeko gelarik goratuenera; eta iru egun eta iru gau irago zituen ezerere jan, ez edan gabe,

11. Baizik iraunik orazioan, negarrakin erregututzen zion Jaungoikoari, arren libratu zezala lotsari onetatik.

12. Gertatu zan bada irugarren egunean, bukaturik bere orazioa, Jauna bedeikatzen zuela,

13. Esan zuen: Bedeikatua izan dedilla zure izena, o gure gurasoen Jaungoiko, zure aserrearen ondoren errukitutzen zerana, eta naigabeko denboran bekatuak barkatzen dieztezuna, zuri ots egiten dizutenai.

14. Zugana, Jauna, itzultzen det nere arpegia, zugana zuzentzen ditut nere begiak.

15. Erregututzen dizut, o Jauna, askatu nazazula lotsari onen loturatik, edo gutxienez mundu onetatik atera nazazula.

16. Zuk dakizu, Jauna, ez dedala iñoiz nai izan gizonik batere, eta aragiaren gurari zikin guztitik nere anima garbi gorde dedala.

17. Beñere ez nintzan nastu jende lasaiarekin, eta ez det ere zer ikusirik izan buru ariñakin.

18. Senarra artzeko baimena eman banuen, izan zan zure beldur santuan, eta ez aragiaren gura asetzeagatik.

19. Ala bada, edo ni ez nintzan beren diña izan, edo menturaz berak etziran izan nere diña, zeren bearbada beste senarren batentzat gordea naukazu.

20. Zeren gizonak ezin ditzake ezagutu zure erabakiak.

21. Au da ziertotzat daukana zu adoratzen zaituen edozeñek; bere bizia probatua bada, izango dala koroetua; naigabean badago, izango dala libratua; eta kastiguaren azotea erortzen bada bere gañera, zuzendu daitekela zure urrikaltasunera.

22. Zeren zu etzera gozatzen gure galmenean, zeren itsasandiaren ondoren, egiten dezu itsasbarea; eta negar ta zizpuruen ostean, itsasten dezu poza.

23. Izan bedi beti bedeikatua, o Israelko Jaungoikoa, zure izena.

24. Denbora artan adituak izan ziran bien eskariak Jaungoiko andi eta goratuaren aurrean.

25. Eta Jaunaren aingeru San Rafael bialdua izan zan, biak libratu zitzan, zeñaen erreguak izan ziran eramanak denbora batean Jaunaren aurrera.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Tobiasek bada uste izanik Jaungoikoak aditua izan zala, mundu onetatik bera ateratzeko egin zion erregua, ots egin zion bere aldera bere seme Tobiasi,

2. Eta esan zion: Aditu itzatzu, ene semea, nere aoko itzak, eta jarri itzatzu zure biotzean, zimendutzat bezela.

3. Jaungoikoak nere anima artzen duenean, obiratu ezazu nere gorputza; eta honratuko dezu zure ama bere bizitzako egun guztietan.

4. Zeren gogoan iduki bear dezu, zenbat irrisku eta zeñ andiak irago zituen zugatik, eramaten zinduela bere sabelean.

5. Eta bera ere, bukatzen duenean bere bizitzako denbora, obiratuko dezu nere aldean.

6. Zure bizitzako egun guztietan idukiko dezu Jaungoikoa zure gogoan; eta iduki ezazu ardura andia beñere ez egiteko bekaturik, eta ez ere autsitzeko gure Jaun Jaungoikoaren agindurik.

7. Daukazunetik egin ezazu limosna, eta ez ezazu apartatu zure arpegia beartsu batgandik ere, zeren ala izango da, Jaunaren arpegia ere ez apartatzea zugandik.

8. Al dezun adiñan izan zaite urrikaltsua.

9. Asko baldin badaukazu, eman ezazu ugari; gutxi idukiko bazeneza, egin ezazu alegiña gutxia ere gogo onarekin emateko.

10. Zeren ordañ andi bat biltzen dezu premiako egunerako.

11. Zeren limosnak libratzen du bekatu guztitik, eta eriotzatik, eta ez du utziko erori dedilla anima illuntasunetan,

12. Baizik limosnak emango dio itxedopen andia Jaungoiko goratuaren aurrean, egiten duen guztiari.

13. Alde ezazu, ene semea, aragizko bekatu guztitik; eta zure emazteaz ostean, ez ezazu iñoiz egin, beste emakumerik ezagutuaz egiten dan gaiztakeriarik.

14. Etzaiozu iñoiz utzi arrokeriari zure biotzaren, edo zure itzen jabe egiten, zeren beragandik artu zuen asiera galmen guztiak.

15. Zuretzat lanen bat egin duenari, eman zaiozu bereala bere irabazia, eta iñolaere ez bedi gelditu zugan, zure alogerariaren saria.

16. Iduki ezazu kontu andia ez egiteko iñoiz besteri, bestek zuri egitea nai ez dezun gauzarik.

17. Jan ezazu zure ogia gosetsu eta premiadunakin, eta zure soñekoakin billosak estali itzatzu.

18. Jarri itzatzu zure ogia eta zure ardoa justoaren obiaren gañean, eta ez ezazu jan, ez edan beratatik bekatariakin.

19. Billatu ezazu beti konsejua gizon jakintsuagandik.

20. Denbora guztian Jauna alabatu ezazu, eta eskatu zaiozu, zuzendu ditzala zure bideak, eta beragan iraun dezatela zure asmo guztiak.

21. Jakin ere erazitzen dizut, ene semea, nola nik eman niozkan, oraindikan zu aurtxoa ziñala, amar talentu zillarrezko, Gabelori, Rajes Medoen errian, eta daukat nere mendean bere eskuz egindako agiria.

22. Argatik egin ezazu ara joateko modua, eta kobratzeko beragandik, goian esan dan zillarrezko dirua, eta biurtuko diozu bere eskuz firmatutako agiria.

23. Etzaite estutu, ene semea, egia da premian bizi gerala; baña ondasun andien jabe izango gera, Jaungoikoaren beldurra badaukagu, eta bekatu guztietatik alde egiten badegu, eta gauza onak egiten baditugu.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Orduan erantzun zion Tobiasek bere aitari: Aita, egingo det, agindu didazun guztia.

2. Baña ez dakit nik nola kobratuko dedan diru ori. Zeren ez berak ezagututzen nau ni, ez nik ezagututzen det bera. Zer siñale emango diot? Oraindikan geiago, arako biderik ere ez dakit.

3. Orduan aitak erantzun, eta esan zuen: Nigan daukat bere eskuz egindako agiria. Erakusten diozunean, bereala pagatuko dizu.

4. Orain bada zoaz, eta egin ezazu alegiña billatzeko gizon leial bat, zurekin joan dedin, pagatzen diozula bere alogera; oraindik ni bizi naizela kobratu dezazun.

5. Orduan aterarik Tobias, arkitu zuen galai galant bat, soñekoak gerrian lotuta, bideantea zirudiana.

6. Eta ez jakinik Jaungoikoaren aingeru bat zala, diosal egin, eta esan zion: Kaixio, galai ona, nongoa zera?

7. Eta berak erantzun zuen: Israelko semeetatikoa. Eta Tobiasek esan zion: Badakizu Medoen errirako bidea?

8. Bai badakit, erantzun zuen, eta asko alditan ibilli naiz bide guzti aietatik, eta egon naiz ostatuz gure anaia Gabeloen etxean, zeñ bizi dan Rajes Medoen errian, zeñ dagoan Ekbatanako mendietan.

9. Tobiasek esan zion: Egin zadazu mesede, piska baten itxedotzeaz, nere aitari au guzia adirazi dizaiodan artean.

10. Onenbesterekin sarturik Tobias etxean, kontatu ziozkan gauza guzti oiek bere aitari. Mirariturik onekin bere aita, bialdu zuen erregututzera bere etxean sartu zedilla.

11. Eta sartu zanean agur egin zion Tobiasi, eta esan zion: Poza izan bedi zurekin.

12. Eta Tobiasek esan zuen: Ze poz iduki nezake nik illuntasunetan nagoan, eta zeruko argia ikusten ez dedan onek?

13. Zeñatara erantzun zuen gazteak: Auzu biotz on, zeren txit aldean dago, Jaungoikoak sendatua zu izateko denbora.

14. Esan zion orduan Tobiasek: Eraman al zenezake nere semea Gabeloren etxera, Rajes Medoen errian? Nik pagatuko dizut alogera itzultzen zeranean.

15. Aingeruak erantzun zuen: Nik eramango det, eta itzulierazi (sic) diot zugana onara.

16. Eta Tobiasek esan zion: Esan zadazu arren, zeñ familiatakoa, edo zeñ tributakoa zera zu?

17. Eta Rafael aingeruak esan zion: Billatzen al dezu alogerariaren jatorria, ala zure semearekin joango dan alogeraria bera?

18. Baña kezkaz egon etzaitezen, ni naiz Azarias, Ananias andiaren semea.

19. Eta Tobiasek erantzun zuen: Jatorri goratukoa zera zu. Erregututzen dizut, ez dezazula txartzat eraman, jakin nai izan dedalako zure jatorria.

20. Eta aingeruak esan zion: Nik eramango det osasunarekin zure semea, eta osasunarekin itzuliko dizut.

21. Eta itz egiten zuela Tobiasek, esan zuen: Zoazte ordu onean, eta Jauna izan dedilla zuen bidean, eta bere aingeruak lagundu dizazutela.

22. Onenbesterekin, prestaturik bidean eraman bear ziran gauza guztiak, agur egin zien Tobiasek bere aitari, eta bere amari, eta asi ziran ibiltzen biak batean.

23. Eta joan ziranean, asi zan negarrez bere ama, eta esan zuen: Kendu diguzu, eta bialdu gugandik urrutira gure zartzako laguntza.

24. Arren bada sekula izan ez balitza alako dirurik, zeñagatik urrutitu dezun gure semea.

25. Zeren gu pozik geunden gure ezereztasunean, eta ondasun anditzat geneukan gure semea ikustea.

26. Esan zion Tobiasek: Ez ezazu negarrik egin: Gure semea osasunarekin allegatuko da, eta osasunarekin itzuliko da gugana, eta zure begiak ikusiko dute.

27. Zeren sinisten det Jaungoikoaren aingeru onak laguntzen diola, eta ongi begiratzen duela berari dagozkion gauza guztiakgatik, gugana pozik itzuli dedin.

28. Itz oietara, utzi zion amak negar egiteari, eta ixildu zan.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Joan zan bada Tobias, eta txakurrak jarraitu zion, eta gelditu zan lenbiziko ostatuan Tigris ibaiaren aldean.

2. Eta atera zan oñak garbitzera, eta ona non irten zan arrai txit andi eta izugarri bat bera irestera.

3. Zeñ ikusita Tobiasek, ikaraturik, deadar andi bat egin zuen, esaten zuela: Jauna, iretsi bear nau.

4. Eta aingeruak esan zion: Eldu zaiozu egatsetik eta ekarri ezazu zuganontz. Egin zuenean au, atera zuen arrastaka leorrera, eta ikaraz zegoan bere oñetan.

5. Orduan esan zion Aingeruak: Atera zazkiozu arrai orri tripak, eta gorde itzatzu bere biotza, eta beazuna, eta gibela, bada gauza oiek premiazkoak dira asko gaitz sendatzeko.

6. Au eginik, bere aragien zati bat erre zuen, eta eraman zuten berakin biderako; eta gañerakoari gatza eman zioten, iduki zezaten bear zutena, Rajes Medoen errira allegatu artean.

7. Orduan Tobiasek galdetu zion aingeruari, eta esan zion: Esan zadazu arren, nere anaia Azarias, zeñ miñantz sendatzeko izango dira onak, gordetzeko agindu didazun arraiaren zati oiek?

8. Eta erantzunik aingeruak, esan zion: Jartzen badezu txingarren gañean arraiaren biotzaren zatitxo bat, bere keak igeserazitzen dio demonio mota guztiari, ala gizonagandik, nola emakumeagandik, alako moduan, non, ez dira berriz alderatzen berakgana.

9. Eta beazuna da, lausoa daukatenen begiak igortziteko, eta sendatuko dira.

10. Eta Tobiasek esan zion: Zeñ ostatutan nai dezu gelditu gaitezen?

11. Eta erantzuten zuela aingeruak esan zuen: Bada emen gizon bat Ragel deritzana, zure aidea, zure tribukoa, zeñak daukan alaba bat, Sara deritzana, eta ez du besterik, ez gizasemerik, ez emakumerik, berau baizik.

12. Zuri dagokizu bere atzienda guztia, eta zuk emaztetzat artu bear dezu.

13. Eskatu zaiozu bada bere aitari, eta emango dizu emaztetzat.

14. Orduan Tobiasek erantzun, eta esan zuen: Aditu det zazpi senarrekin ezkondu dala, eta il diradela; baita aditu ere det, demonio batek il zituela.

15. Beldur naiz bada, neri ere au bera gertatu ez dizadan; eta izanik ni nere gurasoen seme bakarra, bear baño lenago jetxierazi ez dizaiodan beren zartzari obira naigabearekin.

16. Esan zion orduan aingeru Rafaelek: Aditu nazazu, eta nik erakutsiko dizut, zeñ diran beren gañean demonioak eskubidea daukan aiek.

17. Ezkontzen diranak alako prestaerarekin, non, alde erazitzen dioten berakgandik, eta beren gogotik Jaungoikoari, eta beren aragiaren gurak ala ase nai dituztenak, adimenturik ez duten zaldi eta mandoak bezela. Oiek dira zeñaen gañean daukan eskubidea demonioak.

18. Baña zu, artzen dezunean emaztetzat, sarturik gelan, etzaite allegatu beragana iru egunean, eta etzera beste gauzatan ariko, baizik orazio egiten berarekin batean.

19. Eta gau artan berean, errerik arraiaren gibela, iges egingo du demonioak.

20. Bigarren gabean izango zera artua aitalen santuen elkartasunean.

21. Irugarrenean iritxiko dezu bendizioa, jaio ditezen zuekgandik seme osasuntsuak.

22. Iragorik irugarren gaua, artuko dezu donzella, semeak izateko amorio geiagorekin, aragiaren gurak asetzeko baño; iritxi dezazun semeakgan, Abrahamen jatorriari dagokion bendizioa.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Sartu ziran bada Ragelen etxean, eta Ragelek pozez artu zituen.

2. Eta begiraturik Ragelek Tobiasi, Anna bere emazteari esan zion: Nere lengusuaren, zeñ antz andia daukan galai onek!

3. Au esanik, galdetu zien: Nongoak zerate, o gazte gure anaiak? Erantzun zioten: Neptaliko tribukoak, Ninibeko katibuetatikoak gera.

4. Esan zien Ragelek: Ezagututzen badezute Tobias nere lengusua? Badazaugu, erantzun zuten berak.

5. Eta esanik berak alabantza andiak Tobiasgatik, esan zion aingeruak Rageli: Tobias, zeñgatik galdez zauden, da onen aita.

6. Orduan Ragelek artu zuen besoartean, negarrez laztandu zuen; eta zotinka ari zala eldurik bere lepoari,

7. Esan zuen: Bedeikatua zera zu, ene semea, zeren zera gizon on baten, eta txit on baten semea.

8. Eta Anna bere emazteak, eta Sara bien alabak ere, negar egin zuten.

9. Izketan egon ezkero, agindu zuen Ragelek ari bat il, eta aparia maneatzeko. Eta leiatzen zitzaiela maiean esertzeko,

10. Tobiasek esan zion: Ez det nik gaur jango, ez edango emen, eskatzen dizudana egiten ez badidazu, eskeñtzen dizadazula ematea zure alaba Sara.

11. Aditurik Ragelek itz oiek, ikaratu zan, jakiñik zer gertatu zitzaien bere alabarekin ezkondu ziran zazpi senarrai; eta asi zan beldurtzen, zorigaitz bera oni gertatu etzekion. Zegoala bada zalantzan, eta erantzuerarik batere eman gabe,

12. Aingeruak esan zion: Ez ezazu beldurrik iduki oni emateko; zeren Jaungoikoaren beldur dan au da, zeñi eman bear zaion zure alaba emaztetzat. Argatik ez da besterik onen diña izan.

13. Orduan Ragelek esan zuen: Ez det dudatzen, Jaungoikoak bere aurrean ontzat artu dituela nere erregu, eta negarrak.

14. Eta uste det, argatik ekarri zaituztela nere etxera, nere alaba onek artu dezan bere aideen arteko senarra, Moisesen legearen araura. Argatik ez ezazu onezkero, emango dizudan dudarik iduki.

15. Eta arturik bere alabaren eskuia, jarri zuen ukitzen ziola Tobiasen eskuiara, esaten zuela: Abrahamen Jaungoikoa, eta Isaaken Jaungoikoa, eta Jakoben Jaungoikoa izan bedi zuekin, eta berak elkartu zaitzatela, eta kunplitu dezala zuekgan bere bendizioa.

16. Eta arturik papera, egin zuten ezkontzako eskritura.

17. Eta oien ondoan egin zituzten eztaiak, Jaungoikoa bedeikatzen zutela.

18. Eta Ragelek ots egin zion bere aurrera Anna bere emazteari, eta agindu zion, beste gela bat prestatu zezala;

19. Zeñean sartu zuen bere alaba Sara, eta negar egin zuen.

20. Eta esan zion: iduki ezazu biotz on, ene alaba, Zeruko Jaunak pozez bete zaitzala, irago dituzun naigabeakgatik.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta apaldu zutenean eraman zuten gizon gaztea bere emaztea zegoan gelara.

2. Eta oroiturik Tobias aingeruaren itzakin, atera zuen bere zakutxotik gibelaren zati bat, eta jarri zuen ikatz erazekien gañean.

3. Orduan Rafael aingeruak eldu zion demonioari, eta ipiñi zuen lotuta Egipto goiko eremuan.

4. Orduan Tobiasek, zuzenturik donzellagana, esan zion: Ea, Sara, jaiki zaite, eta egin dizaiogun otoiz Jaungoikoari gaur, eta biar, eta etzi; zeren iru gau oiek iragoko ditugu Jaungoikoarekin bildurik, eta iragorik irugarren gaua, biziko gera senar emazteen gisara,

5. Zeren gu santuen semeak gera, eta ezin gintezke elkartu, jentil, Jaungoikorik ezagututzen ez dutenen gisatara.

6. Eta jaikitzen zirala batean, txit gogotik erregututzen zuten biak batean, osasunean iraunerazi zizaiela Jaungoikoak.

7. Eta Tobiasek esan zuen: Gure gurasoen Jaun Jainkoa, bedeikatu zaitzatela zeruak eta lurrak, eta itsasoak, eta iturriak, eta ibaiak, eta beretan dauden, zuk egindako gauza guztiak.

8. Zuk egin zinduen Adan lurrezko lokatzatik, eta eman ziñion Heba bere laguntzat.

9. Eta orain Jauna, zuk badakizu artzen dedala nere arreba au emaztetzat; ez lujuriagatik, baizik bakarrik semeen amorioagatik, zeñatan izan dedin bedeikatua zure izena gizaldien gizaldietan.

10. Sarak ere esan zuen: Urrikaritu zaite arren gurekin, Jauna, urrikaritu zaite arren gurekin, eta biok batean zartu gaitezela osasunarekin.

11. Eta gertatu zan ollarrak kantatzen duen denboraren aldean, agindu zuen Ragelek otsegiteko bere morroioai (sic), eta joan ziran berarekin batean sepultura bat idikitzera.

12. Zeren esaten zuen: Noaski nere alabagana alderatu ziran beste zazpi senarrai bezela, gertatu izango zaio.

13. Idikirik sepultura, itzuli zan etxera Ragel, eta bere emazteari esan zion:

14. Zure neskame bat bialdu ezazu, il ote dan ikustera, enterratu dezagun, eguna argitu baño lenago.

15. Berak bereala bialdu zuen bere neskame bat, zeñak, sarturik gelan, arkitu zituen ongi, eta osasunarekin, biak batean lo zetzatela.

16. Eta itzuli zan albista ematera, eta orduan alabatu zuten Jaungoikoa, ala Ragelek, nola Anna bere emazteak,

17. Eta esan zuten: Alabatzen zaitugu, Israelko Jaun Jainkoa, ez dalako gertatu, uste genduen bezela;

18. Baizik urrikaritu zera gurekin, eta bota dezu gugandik, persegitzen ginduen etsaia.

19. Eta urrikaritu zera bi seme alaba bakarrakin. Egin ezazu, Jauna, berak geiago eta geiago bedeikatu zaitzatela, eta eskeñi dizazutela alabanzako doaña, beren osasunagatik, ezagutu dezan mundu guztiak, zu zerala lur guztian Jaungoiko bakarra.

20. Eta bereala agindu zien Ragelek bere morroiai, eguna argitu baño lenago, bete zezatela, egin zuten zuloa,

21. Eta esan zion bere emazteari, prestatu zezala konbit bat, eta maneatu zezala, bideanteak jan bear duten guztia.

22. Illerazi ere zituen bi bei gizen, eta lau ari, eta otsegin zien janedanera bere auzoko eta adiskide guztiai.

23. Gero Ragelek juramentuerazi zion Tobiasi, berarekin bi astean geldituko zala.

24. Eta Ragelek eman zion Tobiasi, zeuzkan ondasun guztien erdia, eta egin zuen eskritura bat, gelditzen zizaion beste erdiaren jabe izango zala Tobias, berak iltzen ziranean.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Orduan Tobiasek ots egin zion beragana aingeruari, zeñ berak ziertoro zeukan gizontzat, eta esan zion: Ene anaia Azarias, erregututzen dizut, arren aditu ditzatzula nere itzak.

2. Zure mendekotzat jarriko banintzake ere, ezin pagatuko nituzke zure mesedeak.

3. Alaere erregututzen dizut, artu ditzatzula zurekin abereak, eta morroiak, eta joan zaitezela Gabelogana Rajes Medoen errira, eta biurtu dizaiozula bere erreziboa, eta artu dirua, eta erregutu etorri dedilla nere eztaietara.

4. Zeren zerorrek dakizu nere aita dagoala egunak kontatzen, eta egun bat geiago luzetzen badet, bere anima naigabetuko da.

5. Ikusten ere dezu nola juramentu eginerazi didan Ragelek, eta juramentu au ezin nezake gutxitan iduki.

6. Orduan Rafael, arturik Ragelen lau morroe, eta bi gamelu, zuzendu zan Rajes Medoen errira: eta arkiturik Gabelo, biurtu zion bere erreziboa, eta artu zuen, onek eman zion diru guztia.

7. Eta adirazi zion, Tobias Tobiasen semearekin irago zan guztia, eta berarekin eztaietara etorrierazi zion.

8. Eta sarturik Ragelen etxean, arkitu zuen Tobias maiean eseria zegoala, zeñ bereala jaikirik, elkar laztandu zuten; eta Gabelok negar egin zuen, eta bedeikatu zuen Jaungoikoa.

9. Eta esan zuen: Israelko Jaungoikoak bedeikatu zaitzala, zeren gizon txit on, eta justo, eta Jaungoikoaren bildurreko, eta limosnak egiten dituenaren semea zeran,

10. Eta bendizio au erori dedilla zure emaztearen gañera, eta zuen gurasoen gañera;

11. Eta ikusi ditzazutela zuen semeak, eta zuen semeen semeak, irugarren eta laugarren giza aldiraño, eta zuen jatorria izan bedi, Israelko Jaungoiko, mendez mende bizi danak bedeikatua.

12. Eta erantzunik guztiak Amen, maiean jarri ziran; eta zelebratu zituzten eztaiak, Jaungoikoaren beldurrean.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Baña nola Tobiasi luzetzen zaion eztaiakgatik, bere aita Tobias zegoan arduratan, eta esaten zuen: Nork daki zergatik luzetzen zaion nere semeari, edo zergatik an gelditu dan?

2. Gabelo il ote da, eta ez ote dago nork itzuli dizaion dirua?

3. Eta asi zan txit tristetutzen, eta Anna bere emaztea berarekin, eta biak batean negarrez asi ziran, beren semea egun izendatuan berakgana etzetorrelako.

4. Batezere bere amak, iñolaere poztu ezinik, negar egiten zuen, eta esaten zuen: Ai, ai nere zorigaiztokoa, ene semea! Zertako lur urrutietara

bialdu zindugun gure begien argia, gure zarzaroko laguntza, gure bizitzaren pozgarria, gure ondorearen ustea?

5. Zugan geneuzkan ezkero gauza guztiak batean, ez giñizun utzi bear gugandik joaten.

6. Tobiasek berriz esaten zion: ixillikan zaude arren, etzaite estutu, gure semea osasunarekin dago. Txit leiala da gizon hura, zeñarekin bialdu genduen.

7. Baña bera iñolaere ezin gozatu zan, baizik egunoro iges eginik kanpora, alde guztietara begiratzen zuen, eta ingurututzen zituen bide guztiak, zeñatatik itxedotzen zuen itzuli litekeala, ikusteko etortzen, al baldin bazan, urrutitikan.

8. Ragelek berriz esaten zion bere suiari: Emen zaude, eta nik bialduko diot zure aita Tobiasi mandatari bat, zure osasunaren berriakin.

9. Baña Tobiasek erantzun zion: Nik badakit nere aita, eta nere ama daudela orain egunak kontatzen, eta beren espiritua dagoela apurtzen berakgan.

10. Eta itz askorekin erreguturik Ragelek Tobiasi, eta berak iñolaere ez nairik aditu, eman zion Sara, eta bere atzienda guztiaren erdia, mendeko gizaseme eta emakumeetan, abereetan, gameluetan, eta beietan, eta diru zati andi batean; eta utzi zion osasunarekin, eta pozik bere etxetik joaten,

11. Esaten zuela: Jaunaren aingeru santua izan bedi zuen bidean, eta zuzendu zaitzatela osasunarekin, eta arkitu ditzazutela izaera txit onean zuen gurasoak, eta beren gauza guztiak, eta nere begiak ikusi ditzatela zuen semeak, il nadin baño lenago.

12. Eta arturik gurasoak beren alaba, laztandu zuten, eta utzi zioten joaten,

13. Esaten ziotela: Ait-amagiarrabak onratu zitzala, senarra maitatu zezala, etxekoak zuzen azi zitzala, etxea zintzo gobernatu zezala, eta gauza guztiak barrendiko kezka gabe egin zitzala.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Jarririk bada bidean, allegatu ziran amaika egunean Txaranera, zeñ dagoan, Ninibera dijoan bidearen erdian.

2. Eta aingeruak esan zion: Ene anaia Tobias, badakizu zer izaeratan utzi zenduen zure aita.

3. Argatik baderitzazu, aurreratu gaitezen, eta geldika geldika betoz jarraituaz gure bideari morroiak, zure emazte eta abereakin batean.

4. Erabakirik bada onela bidean joatea, Rafaelek Tobiasi esan zion: Ekarri ezazu zurekin arraiaren beazuna, zeren bearko da. Artu zuen bada Tobiasek beazun hura, eta joan ziran.

5. Anna berriz joan oi zan egun guztietan esertzera bidearen aldean mendi baten tontorrean, nondik urrutira begiratu zezakean.

6. Zegoala bada bein batean toki goratu artatik begira, ote zetorren bere semea, urrutitik ikusi zuen, eta berealaxe ezagutu zuen, eta korrika joan zan, bere senarrari berria ematera, esaten zuela: Begira ezazu, zure semea badatorrela.

7. Eta Rafaelek Tobiasi esan zion: Zure etxean sartzen zeranean, bereala adoratu ezazu zure Jaun Jainkoa; eta eskerrak emanik, alderatu zaite zure aitagana, eta laztandu ezazu.

8. Eta bereala igortzi itzatzu bere begiak, zurekin dakarzun, arraiaren beazun onekin, zeren jakin ezazu, laster idikiko zaiozkala bere begiak, eta ikusiko du zure aitak zeruko argia, eta zu ikusiarekin poztuko da.

9. Orduan, biajean berakin joan zan txakurra, korrika aurreratu zan, eta albistarekin zetorren mandataria bezela, jostatzen zan, bere isatsarekin pozkeriak egiten zituela.

10. Eta jaikitzen zala aita itsua, asi zan korrika joaten bere oñakin estropezuka, baña mutil bati eskua emanik, bere semeari bidera atera zitzaion.

11. Eta laztandurik, musu eman zion, orobat egiten zuela amak ere, eta biak pozarren negarrez asi ziran.

12. Eta Jaungoikoa adoratu, eta berari eskerrak eman ezkero, eseri ziran.

13. Orduan Tobiasek, artzen zuela arraiaren beazuna, bere aitaren begiak igortzi zituen.

14. Zeñ egon zan ala itxedotzen ordu erdi bezelatsu, eta asi zan irtetzen bere begietatik lausoa, arraultza baten mintzaren antzekoa.

15. Eta eldurik berari Tobiasek, begietatik atera zion, eta bereala argitu zan.

16. Eta Jaungoikoari eskerrak ematen ziozkaten, ala berak, nola bere emazteak, eta ezagututzen zuten guztiak.

17. Eta Tobiasek esaten zuen: Bedeikatzen zaitut, o Israelko Jaun Jainkoa, zeren zuk kastigatu nazu, eta zuk sendatu nazu; eta nik onezkero ikusten det nere seme Tobias.

18. Eta andik zazpigarren egunean, Sara bere semearen emaztea ere allegatu zan, eta familia guztia osasunarekin, eta abereak, eta gameluak, eta emaztearen diru asko, baitaere Gabelori kobratu zion diru hura:

19. Eta kontatu ziezten Tobiasek bere gurasoai, bera bidean zuzendu zuen gizon aren bitartez, Jaungoikoagandik artu zituen mesede guztiak.

20. Etorri ziran gero Akior eta Nabath, Tobiasen lengusuak, poztu eta gozatzera berarekin, Jaungoikoak egin ziozkan mesede guztiak gatik.

21. Eta eginik jan edanak zazpi egunean, guztiak txit poz andiarekin jostatu ziran.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Orduan Tobiasek ots egin zion beragana bere semeari, eta esan zion: Zer eman dizaiokegu, zurekin etorri dan gizon santu oni?

2. Erantzuten zuela Tobiasek, esan zion bere aitari: Aita, zer ordaiñ emango diogu? Edo zer izan daiteke bere mesedeen duiñ?

3. Berak osasunarekin eraman, eta ekarri nau, berak Gabeloren dirua eskuratu zidan, berak emaztea eratu dit, berak onegandik demonioa aienatu du, bere gurasoak poztu ditu, berak arraiaren ortz-agiñetatik gorde ninduen, zuri ere egin dizu ikusi dezazula zeruko argia, eta bere bitartez ondasun andien jabe egin gera. Oiekgatik, zer gauza duiñ eman dizaiokegu?

4. Ala bada eskatzen dizut, ene aita, erregutu dizaiozula, artu naiko ote dituen beretzat, ekarri diran gauzetatik erdiak.

5. Eta ots egiten ziotela, au da, aitak eta semeak, artu zuten bakarrean, eta asi zitzazkion erregututzen, ontzat iduki zezala artzea, ekarri zuten guztiaren erdia.

6. Orduan berak ixillean esan zien: Bedeikatu ezazute zeruko Jaungoikoa, eta alabatu ezazute bizidun guztien aurrean, bere urrikaltasuna zuekin egin duelako.

7. Zeren erregeak esandako ixilgauza ezkutuan idukitzea, ongi da; baña agertu, eta alabatzea Jaungoikoaren gauzak, da gauza onratsua.

8. Ona da orazioa, baraua lagun duela; eta limosna ematea, urrezko tesoroak gordeta idukitzea baño asko obeagoa,

9. Zeren limosnak libratzen du eriotzatik, eta bera da bekatuak garbitzen dituena, eta iritxitzen duena urrikaltasuna, eta betiko bizitza.

10. Bekatu eta gaiztakeria egiten dutenak berriz, beren animaren etsaiak dira.

11. Egia agertzen dizutet bada, eta ixilleko gauza bat ez dizutet estaliko.

12. Erregututzen zenduenean malkoakin, eta obiratzen ziñituenean illak, eta utziten zenduenean zure janaria, eta ezkutatzen ziñituenean illak egunaz zure etxean, eta gauaz obiratzen ziñituenean, nik jartzen niozkan aurrean Jaunari zure erreguak.

13. Eta Jaungoikoaren gogokoa ziñalako, gauza bearra zan tentazioak probatu zinzala.

14. Eta orain bialdu nau Jaunak, zu sendatzera, eta Sara zure semearen emaztea demonioagandik libratzera.

15. Zeren ni naiz Rafael aingerua, Jaunaren aurrean gauden zazpiretatik bat.

16. Itz oiek aditzean, nasatu ziran, eta beldurrez ikara erori ziran lurrean beren arpegien gañean.

17. Eta aingeruak esan zien: Pakea izan bedi zuekin, etzaitezte beldur izan.

18. Zeren zuekin nengoanean, Jaungoikoaren borondatez nengoan. Bedeikatu ezazute bera, eta bere alabanzak kantatu zaiozkazute.

19. Zirudian egiaz nik zuekin jaten eta edaten nuela; baña ni bizi naiz, ikusi ezin lezakean janari bat janda, eta gizonek ikusia ezin izan lezakean edari bat edanda.

20. Denbora da bada, ni itzultzeko, bialdu ninduenagana; Zuek berriz bedeikatu ezazute Jaungoikoa, eta kontatu itzatzute bere mirari guztiak.

21. Eta au esan zuenean, ezkutatu zan beren begietatik, eta ezin ikusi izan zuten geiago.

22. Orduan auzpezturik beren aupegien gañean iru orduan, bedikatu zuten Jaungoikoa, eta jaikitzen ziradela, kontatu zituzten bere mirari guztiak.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Eta idikitzen zuela bere aoa Tobias zarrak, bedeikatu zuen Jauna, eta esan zuen: Andia zera, Jauna, betiko, eta zure erreñua mendez mende.

2. Zuk zauritzen dezu, eta ematen dezu osasuna. Zuk eramaten dezu sepulturaraño, eta berriz biztutzen dezu, iñork igesik ezin egin dezakeala zure eskuetatik.

3. Bedeikatu ezazute Jauna, Israelko semeak, eta alabatu ezazute jendeen aurrean.

4. Zeren argatik zabaldu zaituzte, ezagututzen ez duten jendeen aurrean, zuek kontatu ditzazuten bere miriariak, eta jakinerazi dizaiezuten, ez dala beste Jaungoiko, guzia al dezakeanik, bera baizik.

5. Berak kastigatu ginduen gure gaiztakeriak gatik, eta berak salbatuko gaitu bere urrikaltasuna gatik.

6. Ikusi itzatzute, bada, gurekin egin dituen gauzak, eta beldurrez eta ikaraz alabatu ezazute, eta goratu ezazute mendeen erregea zuen obretan.

7. Nik berriz nere katiberioko errian alabatuko det, erakutsi duelako bere anditasuna jende bekatari baten gañean.

8. Itzuli zaitezte, bada, bekatariak, eta egin itzatzute gauza justoak Jaungoikoaren aurrean, sinisten dezutela, bere urrikaritasuna zuekin egingo duela.

9. Bada ni, eta nere anima beragan poztuko gera.

10. Bedeikatu ezazute Jauna bere autu guztiak, iduki itzatzute pozezko egunak, eta alabatu ezazute.

11. O Jerusalen, Jaungoikoaren erria, Jaunak kastigatu zaitu zure eskuetako obrakgatik.

12. Gloriaz bete ezazu Jauna, egin dizkizun mesedeakgatik, eta bedeikatu ezazu mendeen Jaungoikoa, berriz egin dezan zugan bere tabernakuloa, eta itzuli ditzan zugana katibu guztiak, eta gozatu zaitezen mendeen mendeetan.

13. Distiatuko zera argi txit eder batez, eta adoratua izango zera lurreko muga guztietan.

14. Urrutiko erreñuak zugana etorriko dira, eta ekartzen dituztela doañak, adoratuko dute zugan Jauna, eta zure lurra idukiko dute santutzat.

15. Zeren zure barrenen ots egingo diote izen andiari.

16. Madarikatuak izango dira mezpreziatzen zaituztenak, eta kondenatuak izango dira blasfematzen zaituztenak; eta berriz egiten zaituztenak, izango dira bedeikatuak.

17. Eta zu poztuko zera zure semeetan, zeren guztiak izango dira bedeikatuak, eta bilduko dira Jaunarekin.

18. Doatsuak maitatzen zaituzten guztiak, eta zure pakeagatik gozatzen diradenak.

19. Nere anima, bedeikatu ezazu Jauna, libratu zuelako Jerusalen bere erria bere naigabe guzietatik, gure Jaun Jaungoikoak.

20. Zorionekoa izango naiz ni, nere jatorriko kutsuren batzuek gelditzen badira, ikusteko Jerusalenen argitasuna.

21. Jerusalengo ateak safiroz, eta esmeraldaz egiñak izango dira, eta bere murruen inguru guztia arri baliotsuz.

22. Bere karrika guztiak arri zuriz eta garbiz izango dirade arlosatuak, eta bere alde guzietan kantatuko da Aleluia.

23. Bedeikatua izan dedilla goratu duen Jauna: eta mendez mende erreñatu dezala bertan. Amen.

AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Onela bukatu zuen Tobiasek bere kantatxoa. Berrogeita bi urtean bizi izan zan Tobias, begiak argituak izan zitzaiozkan ezkero; eta ikusi zituen bere illoben semeak.

2. Kunpliturik bada eun eta bi urteak, obiratua izan zan Niniben onra txit andiarekin.

3. Zeren berrogeita amasei urtekoa zan itsutua gelditu zanean, eta irurogei urtekoa zala, argitua izan zan.

4. Bere bizitzaren gañerako denbora guztia, pozezkoa izan zan, eta txit asko aurreraturik Jaungoikoaren beldurrean, eriotza on bat izan zuen.

5. Eta bere eriotzako orduan ots egin zien beragana bere seme Tobiasi, eta zazpi galai, onen seme, bere illobai, eta esan zien:

6. Aldean egon bear bide du Niniberen galmenak, zeren Jaunaren itza ezin gelditu daiteke utsean, eta gure anaia, Israelko lurretik kanpora barreiatuak daudenak, itzuliko dira bertara.

7. Eta bere lur, eremutua dagoan guztia, izango da berriz jendez betea, eta bertan errea izan dan Jaungoikoaren etxea, izango da berriz egiña. Eta Jaungoikoaren beldurra daukaten guztiak ara itzuliko dira,

8. Eta jendeak utziko dituzte beren idoloak, eta Jerusalenera etorriko dira, eta bertan biziko dira.

9. Eta an gozatuko dira lurreko errege guztiak, Israelko erregea adoratzen dutela.

10. Aditu nazazute bada, ene semeak, ni zuen aita. Serbitu ezazute Jauna biotz ziñarekin, eta ikasi ezazute nola egingo dituzuten bere gogokoak diran gauzak.

11. Eta agindu zaiezute zuen semeai, egin ditzatela justiziako obrak, eta eman ditzatela limosnak, Jaungoikoa gogoan erabilli dezatela, eta bedeikatu dezatela denbora guztietan biotz ziñarekin, eta alegin guztiarekin.

12. Ea bada, nere semeak, aditu ezazute esaten dizutedana, eta etzaitezte emen gelditu, baizik zuen ama nere aldean sepultura batean obiratzen dezuten egunean, egun orretan zuzendu itzatzute zuen pausoak emendik ateratzera.

13. Zeren ikusten nago, bere gaiztakeriak daramatela erri au bere galmenera.

14. Ala bada Tobiasek, bere ama il zitzaionean, alde egin zuen Ninibetik bere emazte, seme, eta bere semeen semeakin, eta biurtu zan bere Ait-amagiarrabakgana.

15. Eta arkitu zituen osasunarekin zartza onean, eta zaitu zituen, eta berak itxi ziezten begiak, eta Ragelen etxeko gauza guztien jabe izatera allegatu zan. Eta ikusi zituen bere semeen semeak bosgarren gizaaldiraño.

16. Atzenean kunpliturik larogeita emeretzi urte Jaunaren beldurrean, pozez obiratu zuten.

17. Eta bere aide guztiak, eta bere jatorriko guztiak iraun zuten bizitza onean, eta obra onak egiten zituztela, alako moduan, non, izan ziran Jaungoikoaren, eta gizonen, eta lurrean bizi ziraden guztien gogokoak.

JUDITHEN LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Arfaxad Medoen erregeak bada jarri zituen bere mendean erreñu asko; eta egin zuen erri txit sendo bat, zeñi ipiñi zion izena da Ekbatana,

2. Zeñaen murruak egin zituen arri, eskuadran landuakin, zeñak zeuzkaten irurogei beso zabaleran, eta ogeita amar alturan, eta jaso zituen bere dorreak eun besoko alturaraño.

3. Ziran oiek lau aurkezkoak, eta alde bakoitza zan ogei oin zabaleran, eta eman zien ateai dorreen altura.

4. Eta, altsua bezela, alabatzen zituen bere ejerzitua, eta bere, gerrako gurdi ospatsuak.

5. Bere erregetzaren amabigarren urtean bada, Nabukodonosor Asiriarren errege, Ninibeko erri andian erreñatzen zuena, gudatu zan Arfaxaden kontra, eta garaitu zuen

6. Ragau deritzan zelai andian, Eufrates, eta Tigris, eta Jadasonen aldean, Eriok Elikoen erregearen zelaian.

7. Orduan txit sendotu eta ospatsua egin zan Nabukodonosorren erreñua; eta arrotu zan bere biotza; eta bialdu ziozkaten mandatariak, Zilizian, Damaskon, eta Libanon bizi ziran guztiai,

8. Eta Karmelon, eta Zedarren dauden guztiai, eta Galilean Esdrelongo zelai andian egotez arkitzen diranai,

9. Eta Samarian, eta Jordango errekaren beste aldean Jerusaleneraño dauden guztiai, eta Jeseren lur guztira Etiopiako mugetaraño allegatu artean.

10. Oiei guztioi bada bialdu ziozkaten mandatariak Nabukodonosor Asiriarren erregeak,

11. Baña guztiak, elkar adituta, ezetz erantzun zien, eta bialdu zituzten esku utsakin, eta mezprezioz aurtiki zituzten berakgandik.

12. Orduan aserreturik Nabukodonosor erregea lur guzti aren kontra, juramentu egin zuen bere tronuagatik, eta bere erreñuagatik, erreñu guzti oiei bengatuko zitzaiela.

BIGARREN KAPITULUA

1. Nabukodonosorren erregetzako amairugarren urtean, lenbiziko illaren ogeita bigarrenean, iduki zuten batzarre bat Nabukodonosor Asiriako erregearen jauregian, erabakitzeko nola artuko zan benganza.

2. Eta bildu zituen zar guztiak, eta bere agintari eta gerrari guztiak; eta agertu zien batzar ixillean, gogoan zeukan asmoa.

3. Eta esan zien, bere agintaritzaren mendean lur guztia ipintzeko gogoa zeukala.

4. Izanik guztien gogokoa adirazi zien itz au, Nabukodonosor erregeak ots egin zion Holofernes, bere ejerzituetako agintari nagusiari,

5. Eta esan zion: Atera zaite sartaldeko erreñu guztien kontra, eta batez ere nere aginduak mezpreziatu dituzten aien kontra.

6. Ez diozu barkatuko erreñu bati ere, eta erri sendo guztia nere mendean jarriko dezu.

7. Orduan Holofernesek bildu zituen Asiriarren ejerzituko kapitanak, eta agintariak, eta autu zituen gerra onetarako, erregeak agindu zion bezela, eun eta ogei milla soldadu oñazko, eta amabi milla saietari zaldizko.

8. Eta joanerazi zion gerra onetarako zeukan jende guztiari bere aurretik ezin kontatu zezakean gamelu talde batekin, ejerzituentzat asko ziran janari ugariakin, baitaere idiak, beiak, eta artaldeak ezin kontatu bestean.

9. Agindu ere zuen biltzeko garia ugari Siria guztian, bera iragotzen zaneko.

10. Baitaere artu zuen erregearen etxetik, urre eta zillar txit asko.

11. Eta jarri zan bidean bera, eta ejerzitu guztia gurdiakin, eta zaldizko jendearekin, eta saietariakin, estalitzen zutela, langosten gisara, lurraren gaiña.

12. Eta iragorik Asiriako mugak, allegatu zan Anjeko mendi andi, Ziliziaren ezkerretara daudenetara, eta sartu zan beren gaztelu guztietan, eta artu zituen erri eta toki sendotu guztiak.

13. Eta desegin zuen Melothi erri txit ospatsua, eta arrapatu ziezten beren gauzak Tharsisko seme guztiai, eta Ismaelen seme, eremuaren aurkez, eta Zelongo lurraren egoerontz bizi ziradenai.

14. Eta irago zuen Eufrates, eta etorri zan Mesopotamiara, eta desegin zituen an zeuden erri sendo guztiak, Manbreko errekatik itsasoraño.

15. Eta alderri guzti aren jabe egin zan Ziliziatik Jafethen mugetaraño, zeñ dagoan Egoerontz.

16. Eta eraman zuen Madiango jende guztia, eta ostu zituen beren ondasu guztiak, eta ezpataren puntatik irago zituen gogor egiten zioten guztiak.

17. Eta oien ondoren jetxi zan Damaskoko zelaietara, gariak ebakitzeko denboran, eta su eman zien guztiai, eta arrasatu zituen zuaitz, eta masti guztiak.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Orduan erri eta probinzia guztietako erregeak, eta prinzipeak, au da, Siria Mesopotamiakoak, eta Siria Sobalkoak, eta Ziliziakoak, bialdu zituzten beren mandatariak, zeñak joanik Holofernesen aurrera, esan zuten:

2. Itzali bedi zure aserrea gure kontra, zeren obe da bizirik serbitu dezagula Nabukodonosor errege andia, eta egon gaitezela zure mendean, guztiok il, eta katiberioko atsekabeak sufritu baño.

3. Zure agindura daude gure erri guztiak, gure etxe guztiak, gure mendi eta muñatz guztiak, eta kanpoak, eta idi, eta ardi, eta auntz, eta zaldi, eta gamelu talde guztia; gure ondasun guztiak, eta gure familia guztiak,

4. Gure gauza guztiak egon bitez zure legearen mendean.

5. Gu eta gure semeak, zure mendekoak gera.

6. Atoz gugana jaun paketsua bezela, eta jarri gaitzatzu zu serbitzen, nai dezun eran.

7. Orduan jetxi zan mendietatik zaldidiarekin, eta ejerzitu andiarekin, eta gelditu zan alderdi artako erri guztien, eta beretan bizi ziradenen jabe eginik.

8. Eta erri guztietatik artu zituen gizon sendo, eta autuak gerrarako.

9. Ain andia izan zan probinzia aien gañera erori zan izua, non, erri guztietan bizi ziran andizkienak, eta aberatsenak, alderatzen zanean, irtetzen zitzaiozkan bidera erriakin batean,

10. Artzen zutela koroeakin, eta argi erazekiakin, dantzan ari ziradela danbolinen, eta txilibituen otsean.

11. Baña oiek guztiak egiten bazituzten ere, ezin izan zuten bigundu bere bularreko gogortasuna.

12. Zeren desegin zituen beren erriak, eta arrasatu zituen beren basoak,

13. Zergatik Nabukodonosor erregeak agindu zion, guztiz desegin zitzala lurreko jainko guztiak, Holofernesen indarrak menderatzen zituen erreñu aiek, bera bakarrik jainkotzat iduki zezaten.

14. Eta iragorik Sobalko Siria, eta Apamea guztia, eta Mesopotamia guztia, allegatu zan Idumeoetara Gabaako lurrera.

15. Eta artu zituen beren erriak, eta gelditu zan an ogeita amar egunean, eta denbora onetan agindu zuen, bildu zedilla bere ejerzituko indar guztia.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Aditu zituztenean bada gauza guzti oiek Israelko seme, Judeako lurrean bizi ziranak, bere etorreraren txit beldur izan ziran.

2. Beren biotzak ikaratu eta izutu ziran, Jerusalenekin eta Jaunaren tenploarekin, beste erriakin eta beren tenploakin egin zuena bera, egingo ote zuen beldurrez.

3. Argatik bialdu zuten jendea Samariako mugetara Jerikoraño, eta lendanaz artu zituzten mendien tontor guztiak.

4. Eta murruz inguratu zituzten beren erriak, prestatzen zirala gerrarako.

5. Baitaere Eliazim apaizak eskribatu zien Esdrelonerontz zeuden guztiai, zeñ dagoan Dothainen aldean zelai andiaren aurkez, eta irago al zitekean bideetan zeuden toki guztietakoai.

6. Artu zitzatela mendietako igoerak, zeñatatik irago al zitekean Jerusalenera, eta jarri zitezela sendotuta, mendi artean egon zitzakean iragotzeko bide estuetan, berak zaitzeko.

7. Eta egin zuten Israelko semeak, Eliazim Jaunaren apaizak agindu zien bezela.

8. Eta erri guztiak ots egin zion Jaunari txit gogotik, eta umillatu zituzten beren animak barauakin, eta otoizakin, ala berak nola beren emazteak.

9. Eta apaizak zilizioz jantzi ziran, eta aurrak jarri zituzten auzpez lurrean Jaunaren elizaren aurrean, eta Jaunaren aldarea zilizioz estali zuten.

10. Eta guztiak ao batez ots egin, eta eskatu zioten Israeleko Jaun Jainkoari, arren ez dizaiozkateela kenduak izan beren semeak, ez ostuak beren emazteak, ez desegiñak erriak, ez profanatua santuarioa, ez berak ekarriak erreñuen burlagarriak izatera.

11. Orduan Eliazim, Jaunaren apaiz nagusiak, inguratu zuen Israel guztia, eta itz egin zion,

12. Esaten zuela: Jakin ezazute, Jaunak adituko dituela zuen erreguak, sendo irautzen badezute, barauak eta erreguak egiñaz Jaunaren aurrean.

13. Oroitu zaitezte Moises Jaunaren serbitzariarekin, zeñak ez ezpataz gudatzen zala, baizik otoiz eginik erregu santuakin, garaitu zituen Amalektarrak. Zeñak itxedotzen zuten beren indarrean, eta beren sendotasunean, eta beren ejerzituan, eta beren ezkutuetan, eta beren gurdietan, eta beren zaldidian.

14. Ala izango dirade Israelen etsai guztiak irauten badezute, asi dezuten lanbide onetan.

15. Egiten ziezten izketa oiekin bada, irauten zuten Jaunari laguntasuna eskatzen, bere aurretik alderik egin gabetanik,

16. Alako moduan, non, Jaunari holokaustoak eskeñtzen ziozkatenak ere, jartzen zituzten bere aurrean doañak, zilizioak gerrian zituztela, eta beren buruak autsez estalirik.

17. Eta guztiak beren biotz guztitik erregututzen zioten Jaungoikoari, bisitatu zezala arren Israel bere erria.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Eta gaztigua emana izan zitzaion Holofernes Asiriarren ejerzituko agintari nagusiari, Israelko semeak prestatzen zirala berari gogor egiteko, eta mendietako bideak artuak zeuzkatela.

2. Eta aserreturik, txit sumindu zan, eta ots egin zien Moabko prinzipe guztiai, eta Ammontarren agintariai,

3. Eta esan zien: Esan zadazute, ze erri dan, mendiak itxita dauzkan ori, edo ze uri diran bereak, nolakoak, eta zeñ andiak, nolakoa ere dan beren indarra, edo zenbat diran berak, edo zeñ dan bere tropen erregea:

4. Eta zergatik, sortaldean bizi diran guztien artean, oiek mezpreziatu gaituzte, eta ez digute bidera irten, adiskideak bezela gu artzeko?

5. Orduan Akior Ammonen seme guztien agintariak erantzuten zuela, esan zuen: Baldin ontzat badaukazu neri aditzea, ene jauna, zure aurrean egia esango det, mendietan bizi dan erri orren gañean, eta ez du irtengo nere aotik ziertoa ez dan itzek.

6. Erri ori Kaldeoen jatorrikoa da.

7. Bizi izan zan lenengo Mesopotamian, etzieztelako jarraitu nai, beren gurasoen, Kaldeako lurrean zeudenen, jaungoikoai.

8. Utzirik bada beren gurasoen, jainko asko adoratzen zituztenen zeremoniak,

9. Adoratu zuten Zeruko Jaungoiko bakar bat, zeñak agindu ere zien andik atera zitezela, eta bizi zitezela Txaranen. Baña nola gero etorri zan alderdi guzti artara gosete andi bat, jetxi ziran Egiptora; non lareun urteko denboran alako moduan ugaritu ziran, non, ezin kontatu zitekean erri bat egin zan.

10. Eta nola Egiptoko erregeak gogor tratatzen zituen, eta zerabiltzan indarrez lanean buztiñean eta adrilluetan bere erriak egiteko, ots egin zioten beren jaunari, zeñak zauritu zuen Egiptoko lur guztia zorigaitz andi batzuekin.

11. Atzenean ijitoak bota zituzten berakgandik. Baña ikusirik gelditu zirala plagak, nai izan zituzten berriz menderatu, eta jarri len bezelako katiberioan.

12. Baña berak iges egin zuten, eta zeruko Jaungoikoak idiki zien itsasoa, alako moduan, non, alde batetik eta bestetik gogortu ziran urak murru bat bezela, eta berak irago ziran zijoazela itsasoaren ondotik oin leorrez.

13. Eta persegitzen zieztela toki beratatik ijitoen ejerzitu ezin kontatu zitekean batek, urez estalia izan zan au, alako moduan non, bat bakarra ere etzan gelditu, gerokoai gertaera kontatzeko.

14. Aterarik Itsasgorritik, gelditu ziran Sinako mendiko eremuetan, zeñaetan gizonik iñoiz ezin bizi zitekean, ez gizonen semek iñoiz atseden ere.

15. An iturri mingoitzak gozotu zitzaiezten edateko, eta berrogei urteko denboran, artu zuten janaria zerutik.

16. Sartu ziran toki guztietan, uztai gabe, saeta gabe, eta ezkutu gabe, eta ezpatarik ere gabe, beren Jaungoikoa gudatu zan berakgatik, eta izan zan garailari.

17. Eta etzan izan iñor, gaitz egin zitzakiokenik erri oni, baizik utziten zionean berak, bere Jaun Jainkoa adoratzeari.

18. Eta zenbat alditan adoratu zuten beren Jaun Jainkoa baño besterik, anbatetan arrapatu zieten zeukatena, eta izan ziran illak, eta irainez beteak.

19. Baña zenbat alditan damutu ziran utzi ziotelako beren Jaungoikoa adoratzeari, zeruko Jaungoikoak eman zien gogor egiteko indarra.

20. Atzenean berak menderatu zituzten kanaango, eta Jebusko, eta Ferezko eta Heteko eta Hebeko, eta Amorko erregeak, eta Hesebongo indartsu guztiak, eta gaurko egunean dirade beren lurren eta errien jabeak.

21. Eta beren Jaungoikoaren kontra bekaturik egin ez duten artean, ongi joan zaie, zeren beren Jaungoikoak gorrotatzen du gaiztakeria.

22. Eta urte gutxi dala ere, alde egiñik berak Jaungoikoak erakutsi zien bidetik, bertatik ibilli zitezen, izan ziran erreñu askok desegiñak gudetan, eta beretatik txit asko izan ziran katibu eramanak erri arrotzetara.

23. Baña atzenean, oraindikan denbora gutxi dala, itzulirik beren Jaun Jaungoikoagana, biurtu ziran barreiatuak izan ziran toki guztietatik, eta bizi dira mendi guzti oietan, eta berriz dira Jerusalenen jabeak, non dagoan beren santukarioa.

24. Orain bada, ene Jauna, arduraz jakin ezazu, beren Jaungoikoaren kontra bekaturik egin ote duten. Eta onela bada, guazen beren kontra, zeren ziertoro beren Jaungoikoak jarriko ditu zure eskuetan, eta zure eskubidearen uztarriaren mendean geldituko dira.

25. Baña erri onek bere Jaungoikoaren kontra bekaturik egin ez badu, beren kontra ezin gogor egingo degu; zeren beren Jaungoikoak zaituko du, eta etorriko gera mundu guztiaren iseka izatera.

26. Eta bukatu zituenean Akiorrek itz oiek, aserretu ziran Holofornesen andizki guztiak, eta il nai zuten, esaten ziela batak besteari:

27. Zeñ da esaten duen au, Nabukodonosor erregeari eta bere ejerzituai aurkeztu datzazkiotekela Israelko semeak, arma gabeko, indar gabeko, eta soldadutzako gauzetan jakituria gabeko gizon batzuek?

28. Ezagutu dezan bada Akiorrek nola engañatzen gaituen, igo gaitezen mendietara, eta beretatik bulardetsuenak katibu egiñak diradenean, orduan berakin batean izango da ezpataz iragoa.

29. Mundu guztiak jakin dezan, Nabukodonosor dala lurreko erregea, eta ez dagoala bera baño besterik.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta bukatu zituztenean berak itz oiek, Holofernesek, txit aserreturik, Akiorri esan zion:

2. Profetizatu digukan ezkero esaten dikala, Israelko erria bere Jaungoikoak zaitua dikala, erakutsi dikikagun ez dagokala beste Jaungoikorik, Nabukodonosor baizik,

3. Eta ezpataren puntatik iragotzen ditzakagunean aiek guztiak, gizon bat bakarra balitzatek bezela, orduan i ere, Asiriarren ezpataz illa izango aiz, eta Israel guztia irekin izango dek arras desegiña.

4. Eta egiteakin ikusiko dek Nabukodonosor dikala lur guztiko Jauna. Orduan nere soldaduen ezpatak iragoko zetik ire saietsak, eta iragorik batetik bestera, eroriko aiz Israelko zaurituen artean, asnasarik onezkero artu ezinik, galtzen aizala berakin.

5. Orain bada ire profezia ziertotzat badaukak, ez bedik mudatu ire arpegiko kolorea, eta bota ezak igandik urrutira, ire arpegia estalitzen dikan ubeltasun ori, sinistzen badek nere itz oiek ez zetitekala idukiko betetasuna.

6. Jakin dezakan bada, berakgan batean sufrituko dekala esan dan guztia, orra emen non oraindandik izango aizan erri arekin bildua. Nere ezpatak ematen dizaiekatenean berai diña ditukan kastigua, i ere nastua izan adin benganzan.

7. Orduan Holofernesek agindu zien bere morroiai, eldu zizaiotela Akiorri, eta eraman zezatela Betuliara, eta jarri zezatela Israelko semeen eskuetan.

8. Eta Holofernesen morroiak eldurik Akiorri, joan ziran zelaitik, baña mendietara allegatu ziranean, atera ziran beren kontra aballariak.

9. Baña berak alde eginik mendiaren alde batera, zuaitz bati lotu zioten Akior eskuetatik eta oñetatik, eta onela sokakin lotuta utzi zuten, eta beren Jaunagana itzuli ziran.

10. Israelko semeak berriz, joan ziran beragana eta askatutzen zutela, eraman zuten Bethuliara, eta erriaren erdian jartzen zutela, galdetu zioten, zergatik Asiriarrak lotuta utzi zuten.

11. Denbora artan ango prinzipeak ziran Ozias Mitxaren semea Simeonen tribukoa, eta Txarmi Gothoniel ere zeritzana.

12. Zegoala bada Akior zarren erdian, eta jende guztiaren aurrean, esan zuen Holofernesen galdeetara erantzun zuen guztia; eta nola Holofernesen jendeak il nai izan zuen, ala itz egin zuelako;

13. Eta nola Holofernesek berak, aserreturik, agindu zuen jarri zezatela Israeltarren eskuetan, iltzeko gero pena mota askoren indarrez, Israeltarrak garaituak ziranean, esan zuelako: Zeruko Jaungoikoa da Israelko semeen gordetzallea.

14. Akiorrek gauza guzti oiek adirazirik, erri guztia auzpeztu zan lurrean beren arpegiaren gañean, adoratzen zutela Jauna, eta guztiak zotinka eta negarrez ari zirala, egin zituzten batean beren erreguak Jaunaren aurrean,

15. Esaten zutela: Zeruko eta lurreko Jaun Jainkoa, begiratu zaiozu arren oien arrokeriari, eta itzuli itzatzu begiak gure umillaziora, eta ikusi ezazu zure santuen arpegia; eta adirazi ezazu ez dituzula utzitzen zugan itxedotzen dutenak, eta umillatzen dituzula berakgan ustea daukatenak, eta beren indarragatik arrotzen diranak.

16. Ixildu ziranean bada negarrak, eta bukaturik erriaren otoiza, zeñak egun guztian iraun zuen, gozatu zuten Akior,

17. Esaten zutela: Gure gurasoen Jaungoikoak, zeñaen eskubidea predikatu dezun, berak emango dizu ordañ au, zuk lenago ikusi dezazula beren galmena.

18. Eta gure Jaun Jaungoikoak jartzen dituenean bere serbitzariak beren aukeran, zure Jaungoikoa ere bera izan dedilla gure erdian, ongien deritzazun eran, ala bizi zaitezten gurekin zu, eta zure guztiak.

19. Orduan Oziasek, bukaturik batzarrea, artu zuen bere etxean, eta apari eder bat eman zion.

20. Eta otseginik zar guztiai, iragorik barau denbora, elkarrekin jan zuten.

21. Eta gero erri guztiari ots egin zitzaion, eta gau guztian egon ziran orazioan elizaren barrunen, Israelko Jaungoikoari laguntasuna eskatzen ziotela.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Holofernesek berriz biaramonean agindu zien bere ejerzituai, aurreratu zitezela Betuliaren kontra.

2. Zeuzkan bada eun eta ogei milla gerrari oñazko, eta ogeita bi milla zaldizko, kontatu gabe katibuen artetik artu zituen gizon aiek, eta probinzia eta errietatik indarrez eraman zuen gazteeri (sic) guztia.

3. Guztiak batean prestatu ziran gudatzeko Israelko semeen kontra, eta etorri ziran mendiaren ertzetik, Dothainera begira dagoan altura bateraño, Belma deritzan toki batetik, Txelmon Esdrelonen aurkez dagoaneraño.

4. Israelko semeak berriz ikusi zutenean jende talde ain andia, auzpeztu ziran lurrean, botatzen zutela autsa beren buruen gañera, gogo batekin erregututzen ziotela Israelko Jaungoikoari, agertu zizaiola bere urrikaltasuna bere erriari,

5. Eta arturik armak, jarri ziran bide estuko bidetxigorrera dijoazen tokietan mendien artean, eta egon ziran zaitzen egun guzti artan eta gauean.

6. Holofernesek berriz, zebillala inguruak aztertzen, arkitu zuen, barruna ura zeraman iturri bat zijoala, erritik kanpora egoearen aldetik zeukaten ur odi batetik. Eta agindu zuen ebaki zizaiotela ur odia.

7. Alaere gelditzen ziran murruetatik urrutian gabe iturri batzuek, zeñatatik ikusten zan artzen zutela ura ixiltxorikan, obeto egarria gutxitzeko, kentzeko baño.

8. Baña Ammontarrak eta Moabtarrak joan ziran Holofernesgana, esaten zutela: Israelko semeak ez dute ipintzen beren itxedopena beren lanzaetan, ez beren fletxetan, baizik beren gordeleku eta gazteluak dira mendi eta muñatz aldapatsu eta latzak.

9. Garaitu ditzazun bada eskuartera allegatu gabe, jarri itzatzu zaitzalleak iturrietan, beretatik urik artu ez dezaten, eta ezpata gabe ilko dituzu, edo gutxienez egarriak estututa, ipiñiko dute zure eskuetan beren erria, zeñ mendietan dagoalako, uste dute, iñork ezin artu lezakeala.

10. Ongi iritzi zitzaien itz oiek Holofernesi, eta bere agintariai, eta jarri zituen eun gizon iturri bakoitzaren inguruan.

11. Eta egonik onela zaitzalleak ogei egunean, agortu ziran putzuak, eta Betulian bizi ziran guztiak bilduta zeuzkaten urak, alako moduan non, etzeukaten erriaren barrunen, egun bakar bateko egarria iltzeko bear zan urik ere, zeren ematen zitzaion erriari ura neurtuta.

12. Orduan guztiak nastuta joanik Oziasgana, gizasemeak, eta emakumeak, gazteak eta aurrak, guztiak ao batez

13. Esan zuten: Jaungoikoa izan bedi testigu zure eta gure artean, zeren zu zera gaitz oiek ekarri dizkiguzuna, Asiriarrakin pakearen gañean itzik egin nai izan ez dezulako, eta argatik Jaungoikoak utzi gaitu beren eskuetan.

14. Eta alan ez daukagu orain nork lagundu, beren begien aurrean gaudenean egarriz itotzen, eta premia txit andian.

15. Orain bada bildu itzatzute errian dauden guztiak, borondatez jarri gaitezen guztiok Holofernesen ejerzituaren mendean.

16. Zeren obe da katibu bizitea, eta Jauna bedeikatu, il, eta mundu guztiaren lotsaria izatea baño, gure emazteak eta gure aurrak, gure begien aurrean iltzen ikusi ezkero.

17. Eskatzen dizugu bada, jarririk testigutzat zerua eta lurra, eta gure gurasoen Jaungoikoa, zeñak kastigatzen gaituen gure bekatuen araura, bereala jarri dezazutela erria Holofernesen ejerzituaren eskuetan, eta laburtu bitez laster ezpataren puntaz gure pena, luzetzen diranak geiago eta geiago egarriaren berotasun andiarekin.

18. Eta oiek esan zituztenean, asi ziran guztiak elizan negar eta alarau andiak egiten, eta ordu askotan ao batez deadarrez ots egin zioten Jaungoikoari, esaten zutela:

19. Bekatu egin degu gure gurasoakin, gaiztoak izan gera, gaiztakeriak egin ditugu.

20. Zu, biotzbera zeralako, errukitu zaite gurekin, edo gutxienez zerorrek kastigatu itzatzu gure gaiztakeriak; baña ez itzatzu arren utzi ezagutzen etzaituen erri baten eskuetan, zu aitortzen zaituztenak.

21. Esan ez dezaten erreñuak, non dago beren Jaungoikoa?

22. Eta ainbeste deadar eta negarrekin nekatuta, ixillik gelditu ziranean,

23. Jaikitzen zala Ozias guztia negarretan urturik, esan zuen: iduki ezazute arren pazienzia, ene anaiak, eta itxedon dezagun Jaunagandik errukia bost egun oietan,

24. Zeren bearbada bigunduko da bere aserrea, eta argieraziko dio bere izenaren gloriari.

25. Iragorik ordea bost egunak ez badator laguntasunik, esan dezutena egingo degu.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Itz oiek allegatu ziran Judith andre alargunaren belarrietara, zeñ zan Merarien alaba, Merari Idoxen semea, Joseren semea, Oziasen semea, Elairen semea, Jamnorren semea, Jedeonen semea, Rafaimen semea, Akitoben semea, Melkiasen semea, Enanen semea, Nathanfasen semea, Salathielen semea, Simeonen semea, Rubenen semea,

2. Eta bere senarra izan zan Manases, zeñ il zan garagarrak igitaitzen diran egunetan.

3. Zeren zegoala kanpoan, arin ibillierazitzen garibalak lotzen zituztenai, denbora sargoriko aize bat etorri zan, zeñak txit berotu zion bere burua, eta il zan Bethulia bere errian, eta an obiratua izan zan bere gurasoakin.

4. Eta iru urte, eta sei illabete ziran, Judith beragandik alargun gelditu zala.

5. Eta bere etxeko tokirik goratuenean egin zuen beretzat bizileku berezi bat, non bakartadean egon oi zan bere neskameakin.

6. Eta iduki oi zuen bere gerrian zilizio bat, eta barautzen zan bere bizitzako egun guztietan, ez izanenean larunbatetan, eta ilberrietan, eta Israelko etxeko jai andietan.

7. Eta zan txit galanta, eta bere senarrak utzi ziozkan ondasunak ugari, eta familia andia, eta lur barruti, abere beiki, eta artaldez beteak.

8. Eta zan berau guztien artean txit ospatsua, zeren Jaungoikoaren txit beldur zan, eta etzuen beragatik iñork ere itz txar bakar bat esaten.

9. Onek bada aditu zuenean Oziasek eskeñi zuela, iragorik bost egun emango ziela Asiriarrai erria, bialdu zuen ots egitera Txabri eta Txarmi gizon zarrai.

10. Eta etorri ziran beragana, eta esan zien: Ze eskari da au, zeñatara baietza eman duen Oziasek, jartzeko erria Asiriarren eskuetan, bost egun barru laguntasunik ez badaukazute?

11. Eta zeñ zerate zuek, ala Jauna tentatzen dezutenok?

12. Ez da ori bere urrikaltasuna ekartzeko bidea, baizik biztutzeko bere aserrea, eta erazekitzeko bere sumintasuna.

13. Zuek jarri diozute epea Jaunaren urrikaltasunari, eta izendatu diozute eguna zuen burutazioen araura.

14. Baña Jauna sufritua dan ezkero, damutu gaitezen beraugatik, eta negarretan urturik, eskatu dizaiogun berari barkazioa.

15. Zeren Jaunak ez du keiñatzen gizonak bezela, eta ez da ere bera aserrean erazekitzen gizonen semeak bezela.

16. Argatik umillatu dizazkiogun berari gure animak, eta jarririk umiltasuneko espirituan bere mendekoak bezela,

17. Negarrez esan dizaiogun Jaunari, nola dan bere borondatea, ala egin dezala gurekin bere errukitasuna, eta nola etsaien arrokeriak jarri dituen nastuak gure biotzak, ala gloriatu ere gaitezen gure umiltasunaz.

18. Ez diegun ezkero jarraitu gure gurasoen bekatuai, zeñak beren Jaungoikoa utzi zuten, eta jainko arrotzak adoratu zituzten.

19. Eta gaiztakeria augatik izan ziran jarriak beren etsaien ezpataren mendean, berak ostu ziezten zeuzkaten gauzak, eta lotsariz bete zituzten; guk berriz ez degu ezagutzen beste Jaungoikorik bera baizik.

20. Itxedon dezagun bada umiltasunarekin bere gozotasuna, eta bengatuko du gure odola gure etsaiak gauzkaten naigabeetatik, eta azpiratuko ditu gure kontra jaikitzen diran erreñu guztiak, eta lotsariz estaliko ditu gure Jaun Jainkoak.

21. Eta orain, ene anaiak, zuek zeraten ezkero Jaungoikoaren erriko zarrak, eta nola zuekgandik zinzilika dagoen beren anima, sendotu itzatzute beren biotzak zuen itzakin, oroitu ditezela gure gurasoak tentatuak izan ziradela, ikusteko, egiaz onratzen ote zuten beren Jaungoikoa.

22. Oroitu bear dira, nola gure aita Abraham tentatua izan zan, eta nola naigabe askorekin probatua izan ezkero, Jaungoikoaren adiskide izatera allegatu zan.

23. Ala Isaak, ala Jakob, ala Moises, eta Jaungoikoaren gogokoak izan ziran guztiak, naigabe askotatik irago ziran, beti leial irautzen zutela.

24. Baña tentazioak Jaunaren beldurrarekin artu etzituztenak, baizik agertu zutenak beren eramanik eza, eta asi ziranak Jaunaren kontra murmurazio bidegabekoak egiten,

25. Aingeru arrasariak arrasatuak izan ziran, eta sugez galduak izan ziran.

26. Argatik bada ez gaitezen gu ari espa, eta murmurazioka, daramazkigun nekeakgatik.

27. Baizik uste izanik kastigu oiek gure bekatuak baño txikiagoak diradela, sinistu dezagun, Jaunaren azoteak, zeñakin mendekoak bezela kastigatuak geran, etorri zazkigula ondu gaitezen, eta ez gure galmenerako.

28. Eta esan zioten Oziasek, eta zarrak: Egia andia da esan dezun guztia, eta ez dago zure itzetan aitzakiatzeko gauzarik.

29. Orain bada erregutu ezazu gugatik, andre santa, eta Jaungoikoaren beldurreko bat zeran ezkero.

30. Eta Judithek esan zien: Ezagututzen dezuten bezela Jaungoikoarena dala orain esan dedana,

31. Ala jakingo dezute ikusiaren gañera, Jaungoikoarena dala, egitea erabakita daukadana, eta bitartean erregutu zaiozute Jaungoikoari, egiztatu dezan nere asmoa.

32. Zuek gau onetan egongo zerate atean, eta ni aterako naiz neskamearekin, eta otoiz egin ezazute, bost egun barru, esan dezuten bezela, Jaunak begiak itzuli ditzan Israelko bere erriaganontz.

33. Baña ez det nai ibilli zaitezela aztertzen egitera noana, eta berriz abisatu zaitzadan bitartean, ez bedi beste gauzarik egin, baizik erregutu nigatik gure Jaun Jainkoari.

34. Eta Ozias Judako prinzipeak esan zion: Zoaz ordu onean, eta Jauna zurekin izan bedi, bengatu gatzakizkioten gure etsaiai. Onenbesterekin, agur eginik, joan ziran.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Oiek alde egin zutenean, Judith sartu zan bere oratorioan, eta zilizioz jantzirik, jarri zuen autsa bere buruaren gañean, eta auzpezturik Jaunaren aurrean, deadarrez erregututzen zion Jaunari, esaten zuela:

2. Nere aita Simeonen Jaun Jaungoiko, eman ziñiona ezpata bat bengatzeko arako gizaseme arrotzez, zeñak griña zikin bat gatik, indarrez galdu eta desloratu zuten birjiña bat, lotsariz betetzen zutela.

3. Argatik egin zenduena beren emazteak ostuak izan zitezela, eta beren alabak katiberiora eramanak; eta berai artuta gauza guztiak partitu ziñituena zure serbitzari, zure onraren zeloan erazekiak egon ziranai, lagundu zadazula arren, erregutuzen dizut, o nere Jaun Jainkoa, neri andre alargun oni.

4. Zu zeran ezkero egin ziñituena anziña gauza aiek, eta gero beste batzuek egitea erabakita daukazuna, eta egin da zuk nai izan dezuna.

5. Zeren zure bide guztiak prestatuak daude, eta zure probidenzian jarri dituzu zure erabakiak.

6. Itzuli itzatzu bada orain zure begiak Asiriarren etzauntzetara, ontzat iduki zenduen bezela beste denbora batean, Egiptoarren etzauntzetara itzultzea, armakin korrika zijoazenean zure serbitzarien ondoren, itxedotzen zutela beren gurdietan, eta beren zaldidian, eta beren gerrarien ugaritasunean.

7. Baña begiratu zenduen beren etzauntzen gañera, eta gelditu ziran illuntasunez inguratuak.

8. Leizak geratu zituen beren oñak, eta urak estali zituzten.

9. Ala izan bedi ere, Jauna, beren ugaritasunean itxedotzen duten, eta beren gurdietan, eta pikaetan, eta ezkutuetan, eta beren saietaetan, eta lanzaetan gloriatzen diran oiekin.

10. Eta ezagututzen ez duten oiekin, zu zerala gure Jaungoiko, anziñatik ejerzituak desegiten dituzuna, eta izentzat daukazuna Jauna.

11. Jaso ezazu zure besoa beste bein egin zenduen bezela, eta zure eskubidearekin desegin ezazu beren indarra. Erori bedi lurrera beren eskubidea zure aserrearen otsarekin, eskeñtzen duten ezkero zure eliza kutsutzea, eta zure izeneko tabernakuloa profanatzea, eta beren ezpatarekin botatzea zure aldarearen kantoea.

12. Egizu, Jauna, bere ezpatarekin ebakia izan dedilla bere arrokeria.

13. Izan bedi arrapatua nigan bere begietako txibistarekin, eta zauritu ezazu nire ezpañetako itz gozoakin.

14. Jarri ezazu indarra nere biotzean, bera mezpreziatzeko, eta indarra, bera desegiteko.

15. Zeren au izango da zure izenaren oroikarria, beera botatua danean emakume baten eskuz.

16. Zeren ez dago zure eskubidea, Jauna, askotasunean, eta etzera ere gozatzen zaldidiaren indarrean, eta munduaren asieratik etziran izan zure gogokoak arroak, baizik beti izan zan zure gogokoa umillen eta otsanen eskaria.

17. O zeruetako Jaungoikoa, uren Egillea, eta izatea daukaten gauza guztien Jauna, aditu ezazu, zuri erregututzen dizun, eta zure urrikaltasunetik guztia itxedotzen duen doakabe au.

18. Oroitu zaite, Jauna, zure elkartasunarekin, eta jarri zazkidazu zuk itzak nere aoan, eta sendotu ezazu nere biotza lanbide onetan; zure etxeak iraun dezan zure santutasunean.

19. Eta erreñu guztiak ezagutu dezaten, zu zerala Jaungoikoa, eta zu ez izanenean, ez dagoala besterik.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Utzi zionean Jaunari ots egiteari, jaiki zan, Jaunaren aurrean auzpeztuta zegoan tokitik.

2. Eta ots egin zion bere neskameari, eta jetxirik bere etxera, kendu zuen beragandik zilizioa, eta eranzi zituen bere alarguntzako soñekoak.

3. Eta garbitu zuen bere gorputza, eta igortzi zan okendu balio andiko batekin, eta txirikordatu zuen bere buruko illea, eta jarri zuen bere buruan kofia txit eder bat, eta jantzi zituen bere galako soñekoak, eta ipiñi zituen zapatak bere oñetan, eta artu zituen eskumuturretakoak, eta besoapaingarriak, eta zarzilloak, eta errastunak, eta apaindu zan bere edergarri guztiakin.

4. Gañera Jaunak geitu zion bere edertasuna: zeren apainduria guzti onen jatorria etzan aragiaren griña, baizik birtutea. Eta argatik Jaunak geitu zuen beragan edertasuna, alako moduan, non, zirudian guztien begietan edertasun berdiñik gabekoa.

5. Eta eramanerazi ziozkan bere neskameari botella bete ardo, eta baso bete olio, eta iriña, eta pikupasak, eta ogiak, eta gazta; eta bidean jarri zan.

6. Eta allegatu ziranean erriko atera, arkitu zituzten Ozias, eta erriko zarrak bere zai zeudela.

7. Zeñak, ikusi zutenean, bere edertasunarekin txit mirarituak gelditu ziran.

8. Baña ezerere galdetu gabe utzi zioten iragotzen, esaten zutela: Gure gurasoen Jaungoikoak eman dizazula bere grazia, eta sendotu ditzala bere indarrarekin zure biotzeko asmazio guztiak, zurekin gloriatu dedin Jerusalen, eta zure izena ipiñia izan dedin santuen eta justoen artean.

9. Eta an zeuden guztiak, ao batez esan zuten: Ala izan bedi, ala izan bedi.

10. Judit berriz Jaunari erregututzen ziola, atera zan ateetatik kanpora bere neskamearekin.

11. Eta jetxitzen zala menditik beera egunsentiaren aldean, irten zizkioten bidera Asiriarren zentinelak, eta gelditu zuten esaten ziotela: Nondik zatoz? Eta nora zoaz?

12. Zeñak erantzun zuen: Hebreotarren alaba bat naiz, eta berakgandik iges egin det, dakidalako zuen eskuak arrapatuko dituztela, zuek mezpreziatzen zaituztela, ez dutelako borondatez jarri nai izan zuen eskuetan, zuen aurrean urrikaltasuna arkitzeko.

13. Argatik gogoratu zitzadan, eta esan nuen nere artean: Joan bear naiz Holofernes Prinzipearen aurrera, adiraztera Hebreotarren ezkutuko gauzak, eta erakustera, zeñ sarreratik arrapatu ditzaken, bere ejerzituko gizon bakar bat ere galdu gabe.

14. Eta aditu zituztenean gizon aiek bere itzak, gelditu ziran bere arpegiari kontuz begira, eta beren begietan irakurtzen zan zeñ mirarituak zeuden; ain arrituak zeuden bere edertasunarekin.

15. Eta esan zioten: Zure bizia salbatu dezu, gure jaunaren aurrera etortzeko asmo orrekin.

16. Iduki ezazu bada ziertotzat, bere aurrean agertzen zeranean, ongi artuko zaituela, eta irabaziko dezula bere biotza. Eta eraman zuten Holofernesen etzauntzera, adirazten ziotela nor zan.

17. Jarri zaneko Judit bere aurrean, bereala Holofernes gelditu zan bere begiakin lotua.

18. Eta bere agintariak esan zioten: Nork idukiko du gutxitan Hebreotarren erria, zeñak dauzkaten emakume ain ederrak? Ez al dira emakume oiek, berak iduki ditzagun, gizon aien kontra gu gudatzeko duiñak?

19. Ikusirik bada Juditek Holofernes eltxakenlean eseria, zeñ zan purpurazkoa, urrezko ariak eotzean bitartetan jarrita zeuzkana, eta esmeralda eta arri baliotsuz apaindua zegoana:

20. Eta zuzendurik begiak Holofernesen arpegira, agur egin zion auzpezten zala lurrean, baña Holofernesen morroiak jaikierazi zioten, beren jaunak aginduta.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Orduan Holofernesek esan zion: Zaude ardura gabe, eta kendu ezazu zure biotzetik beldur guztia, zeren nik ez diot beñere gaitzik egin, Nabukodonosor erregea serbitu nai duen gizoni.

2. Eta zure erriak mezpreziatu ez banindu, ez nuen eskuan artuko nere lanza bere kontra.

3. Baña orain esan zadazu arren, zergatik utzi dituzu berak, eta etorri zera gugana?

4. Erantzun zion Juditek: Aditu itzatzu zure serbitzariaren itzak, zeren egiten badituzu zure serbitzariaren esanak, Jaunak emango dizu bukatuta lanbidea.

5. Zeren bizi da Nabukodonosor lurreko erregea, eta bizi da bere eskubide zugan dagoena, kastigatzeko bidea uts eginda dijoazen guztiak, zeren ez bakarrik gizonak zugatik serbitzen duten, baita kanpoko abereak ere obeditzen diote.

6. Bada zure animako prudenzia erreñu guztietan da zelebratua, eta mundu guztitik zabaldu da, zu bakarrik zerala ona, eta altsua bere erreñu guztian, eta zure soldadutzako jakinduria da alabatua probinzia guztietan.

7. Ez daude ezjakiñean Akiorrek esan zuenaren gañean, ezta ere zuk berarekin egiteko agindu zenduenaren gañean.

8. Zeren gauza ziertoa da, gure Jaungoikoa gure gaiztakeriak gatik dagoela aserretua, alako moduan non, bialdu duen erriari esatera bere profeten bitartez, utzitzen duela bere bekatuak gatik.

9. Eta nola Israelko semeak dakiten beren Jaungoikoa ofenditua daukatela, zure beldurrez ikara daude.

10. Gañera gosez amorratuak daude, eta urik ezagatik, illak bezela arkitzen dira.

11. Atzenean erabaki dute iltzea beren abereak, beren odola edateko.

12. Orobat beren Jaun Jaungoikoari konsagratutako gauzak, zeñai ukiturik ez egiteko agindu zuen Jaungoikoak, nola diran garia, ardoa, eta olioa, pensatu dute berak gastatzea, eta jan ta edan nai dute, eskuakin ukitu ere bear ez lioketena.

13. Ezaguturik au nik zure serbitzari onek, iges nuen berakgandik, eta Jaunak bialdu nau auguztia (sic) zuri adiraztera.

14. Zeren nik zure serbitzariak adoratzen det Jaungoikoa, orain zure mendean nagoanean ere; eta ala zure serbitzaria aterako da kanpora Jaungoikoari orazio egitera.

15. Zeñak esango dit noiz kastigatu naiko dituen beren bekatuakgatik, eta ni etorriko naiz zuri adiraztera, eta ala neronek eramango zaitut Jerusalenen erditik, eta ikusiko dezu zure aurrean Israelko erri guztia, artzai gabeko ardiak bezela, txakur batek ere zure kontra zangarik egin gabe:

16. Zeren oiek guztiak Jaungoikoaren pobidenziak esanak izan zazkit.

17. Eta Jaungoikoa berakin aserretua dagoelako, nerau bialdua izan naiz gauza oiek zuri adiraztera.

18. Eta itz guzti oiek izan ziran Holofernesen, eta bere morroien gogokoak, eta miraritutzen ziran bere jakinduriarekin, eta batak besteari esaten zion:

19. Ez dago lurraren gañean au bezelako emakumerik lirañtasunean, edertasunean, eta izketa begiratuan.

20. Eta Holofernesek esan zion: Ongi egin du Jaungoikoak bialtzea zu zure erriaren aurretik, zuk jarri dezazun gure eskuetan:

21. Eta zure eskeñia ona dan ezkero, zure Jaungoikoak au egiten badit, bera izango da nere Jaungoikoa ere, eta zu izango zera andia Nabukodonosorren etxean, eta zure izena izango da aitatua mundu guztian.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Orduan agindu zuen sartu zezatela bere tesoroak gordeta zeuden tokian, eta an gelditu zedilla, eta izendatu zuen bere maietik emango zitzaiona.

2. Juditek erantzun, eta esan zion: Orain ezin jan nezake, neri emateko agintzen dezun gauza orietatik, etorri ez dedin nere gañera Jaungoikoaren aserrea.

3. Eta Holofernesek esan zion: Eta zurekin ekarri dituzun gauza oriek aituko balitzazkizu, zer egingo dizugu?

4. Eta Juditek esan zuen: Zure biziagatik juramentu egiten det, o nere Jauna, ez dituela gastatuko zure serbitzariak gauza guzti oiek, Jaungoikoak nere eskuz egin gabe, pensatu ditudan gauzak. Eta Holofernesen morroiak eraman zuten agindu zuen etzauntzera.

5. Eta sartzen zanean eskatu zuen baimena, kanpora irtetzeko gauaz, eta egunsentia baño lenago orazio egitera, eta Jaunari erregututzera.

6. Holofernesek bada agindu zien bere gelazaiai, utzi zizaiotela irtetzen, eta sartzen nai zuen bezela bere Jaungoikoa adoratzera, iru egunean.

7. Eta irtetzen zan gauetan Betuliako ibarrera, eta garbitzen zan iturri batean.

8. Eta igotzen zanean, erregututzen zion Israelko Jaun Jainkoari, zuzendu zezala bere bidea bere erria libratzeko.

9. Eta biurturik bere etzauntzera garbituta, egoten zan an, aliketa, illuntzean janaria artzen zuen artean.

10. Eta laugarren egunean Holofernesek eman zien apari bat bere etxeko serbitzariai, eta Uagao bere txikiratuari esan zion: Zoaz, eta ekarri ezazu emakume hebreotar hura, baimena ematera borondatez erabakitzera nerekin batean bizitea.

11. Zeren gauza itsusia da Asiriarren artean, emakume batek gizon bati burla egitea, iristen duela bere eskuetatik libre irtetzea.

12. Orduan Uagao sartu zan Judit zegoan tokira, eta esan zion: Ez bedi beldur izan, dama ederra, nere jaunaren etxera etortzen berak onratua izatera, eta berarekin batean jatera, eta pozez ardoa edatera.

13. Erantzun zion Juditek: Nor naiz ni, nere jaunari kontra egiteko?

14. Egingo det berak nai duen guztia, eta ongien deritzana, eta bere gogoko dan guztia, ori izango da neretzat oberena nere bizitzako egun guztietan.

15. Jaiki zan bada, eta apaindu zan bere soñekoakin, eta sarturik, joan zan bere aurrera.

16. Eta Holofernesen biotza txit mugitu zan; zeren aren gurarietan kiskaltzen zegoan.

17. Eta Holofernesek esan zion: Edan ezazu orain, eta eseri zaite pozez jateko, zeren gogoan sartu zatzat.

18. Eta Juditek esan zion: Edango det, jauna, zeren gaur artzen det nik gloria andiagoa, nere bizitzako beste egun guztietan baño.

19. Artu zuen gero bere neskameak prestatu zionetik, eta beratatik jan eta edan zuen bere aurrean.

20. Eta Juditgatik Holofernes txit poz zan, eta edan zuen ardoa neurrigabe, bere bizitza guztian iñoiz edan zuen baño geiago.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Eta berandu egin zanean, arin joan ziran Holofernesen morroiak beren etzauntzetara, eta Uagaok itxi zuen gelako atea, eta joan zan.

2. Zeuden berriz guztiak ardoz moskortuak.

3. Eta Judit bakarrik zegoan gelan.

4. Eta Holofernes zetzan oean, lo txit gogorrean moskor guztiz andi batekin.

5. Eta Juditek esan zion bere neskameari, egon zedilla azeloan kanpoan gelako atean.

6. Eta Judit zutik jarri zan oearen aurrean, otoiz egiten zuela negarrez, eta ezpañak ixillean mugitzen zituela,

7. Esaten zuela: Israelko Jaun Jainkoa, indarra indazu, eta Jerusalengo zure erria goratzeko, eskeñi dezun bezela, nere eskuak egitera dijoazen lan oni ordu onetan begira zaiozu, eta egiztatu dezadan pensatu dedan lanbidea, sinisturik zure laguntasunarekin egin lezakeala.

8. Eta oiek esanik, alderatu zan Holofernesen oearen oapuruan zegoan abera, eta beratatik zinzilika zegoan ezpata askatu zuen.

9. Eta aterarik ezpata zorrotik, bere buruko illeetatik eldu zion, eta esan zuen: Nere Jaun Jaungoikoa, sendotu nazazu ordu onetan.

10. Eta bi ots eman ziozkan lepoan, eta burua ebaki zion, eta abeetatik eltxakentzallea kendu zuen, eta bota zuen zorura bere gorputz moztua.

11. Eta andik denbora gutxi barru irten zan, eta bere neskameari Holofernesen burua eman zion, eta agindu zion bere zakuan sartzeko.

12. Eta atera ziran biak kanpora beren oituraren araura, oraziora joateko bezela, eta irago zituzten etzauntzak, eta inguruturik ibarra, allegatu ziran erriko atera.

13. Eta Juditek urrutitik deadarrez esan zien murruetako bealariai: Ateak idiki itzatzute, zeren Jaungoikoa gurekin da, eta Israelen mirari bat egin du.

14. Eta bealariak bere boza ezagutu zutenean, ots egin zieten erriko zarrai.

15. Eta guztiak txikienetik andieneraño beragana korrika etorri ziran, zeren onezkero etzuten itxedotzen bera itzuliko zanik.

16. Eta bizturik zuzi argiak bere inguruan guztiak jarri ziran, eta igorik bera toki goratuago batera, agindu zuen ixiltzeko. Eta guztiak ixildu ziranean,

17. Onela itz egin zuen: Alabatu ezazute zuen Jaun Jainko, beragan itxedotzen dutenak, utzi ez dituena,

18. Eta nere, bere mendeko onen bitartez egiztatu du bere urrikaltasun, Israeleko etxeari eskeñi ziona, eta nere eskuz gaurko arratsean bere erriaren etsaia il du.

19. Eta Holofernesen burua zakutik aterarik, erakutsi zien, esaten zuela: Ara emen Holofernes Asiriarren ejerzituko agintari nagusiaren burua, eta ona emen bere eltxakentzallea, zeñaen barrunen zetzan dana moskortua, non gure Jaun Jainkoak emakume baten eskuz lepoa ebaki dion.

20. Eta Jauna beragatik juramentu egiten dizutet, bere aingeruak gorde nauela, ala emendikan joaneran, nola an nengoala, baitaere andik onara itzulieran, eta ez duela permititu Jaunak ni bere serbitzaria kutsutua izan nendilla, baizik itzulierazi didala zuekgana bekatuaren mantxa gabetanik, pozez beteta, ikusirik nere Jaungoikoa garaipenarekin gelditzen dala, nik iges egin dedala, eta zuek libratuak gelditzen zeratela.

21. Guztiok alabatu ezazute bere ontasunagatik, eta bere urrikaltasuna betikoa dalako.

22. Orduan guztiak Jauna adoratzen zutela, esan zuten: Jaunak bere birtutearekin bedeikatu zinduen, zeren zure bitartez desegin dituen gure etsaiak.

23. Eta Ozias Israelko erriko buruak esan zion: Jaun Jaungoiko goratuak bedeikatua zera zu, o alaba, lurreko andre guztiez gañetik.

24. Bedeikatua, zerua eta lurra egin zituen Jauna, zeñak zuzendu zuen zure eskua, gure etsaien gidaren burua ebakitzeko,

25. Zeren gaur zure izena ain ospatsua egin du, non, ez dioten utziko zure alabantzak adirazteari, geroko gizaldietan Jaunaren mirariakin oroitzen diran gizonak; zeren etzeran beldur izan, zure erriagatik zure bizia irriskuan ipintzen, ikusirik zure jendearen antsiak eta naigabeak, baizik gure Jaungoikoagana zuzendu zeralako, bere galmena galerazitzeko.

26. Eta erri guztiak erantzun zuen: Ala izan bedi, ala izan bedi.

27. Gero Akior, izanik deitua, etorri zan, eta Juditek esan zion: Israelko Jaungoiko, bere etsaiai bengatuko zitzaiela zuk esan zenduen ark, berak gaur arratsean nere eskuz sinist gogor guztien gidariari burua ebaki dio.

28. Eta ezagutu dezazun ala dala, ona emen Holofernesen burua, zeñak bere arrokeriako mezprezioarekin Israelko Jaungoikoa mezpreziatu zuen, eta zu eriotzeaz keñatzen zinduen, esaten zuela: Israelko erria katibu egiña danean, aginduko det zure saietsak ezpataz iragoak izan ditezela.

29. Eta ikusirik Akiorrek Holofernesen burua, beldurrez antsiatuta, lurrean erori zan bere arpegiaren gañean, eta kordegabetu zan.

30. Baña berriz asnasa etorri zitzaionean eta beregandu zanean, auzpeztu zan Juditen oñetan, eta adoratu zuen, eta esan:

31. Zure Jaungoikoak bedeikatua zera zu Jakoben tabernakulo guztietan, zeren zure izena aditua dan erreñu guztietan, Israelko Jaungoikoa zugatik izango da gloriatua.

AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Eta esan zion Juditek erri guztiari: Aditu nazazute anaiak, buru au gure murruen gañean zinzilika jarri ezazute.

2. Eta eguzkia irtetzen danean, artu bitza bakoitzak bere armak, eta ots andiarekin atera zaitezte, ez beera jatxitzeko, baizik berai erasotzera joango baziñate bezela.

3. Orduan abanzadak korrika joan bearko dute beren agintari nagusia esnatzera gudarako.

4. Eta beren kapitanak dijoazenean Holofernesen etzauntzera, eta buru gabe arkitzen dutenean, bere odoltzan sartu eta bustirik, geldituko dira izututa.

5. Eta ezagutzen dezutenean igesi dijoazela, korrika joan zaitezte beren ondoren beldurrikan gabe, zeren Jaunaren laguntasunarekin puskatuko dituzute zuen oñen azpian.

6. Orduan Akiorrek ikusirik Jaungoikoak Israelen alde egin zuen miraria, utzirik jentillen elizkizunak, Jaungoikoagan sinistu zuen, eta zirkunzidatu zan, eta gelditu zan Israelko erriaganatua, bere jatorri guztia gaurko eguneraño dagoen bezela.

7. Eta eguna zabaldu zuenetik laster, Holofernesen burua murruen gañean zinzilika jarri zuten, eta bakoitzak bere armak artu zituzten, eta atera ziran kanpora ots eta deadar andiakin.

8. Ikusirik au bealariak, Holofernesen etzauntzera korrika joan ziran.

9. Eta etzauntzean zeudenak, alderaturik, eta otsak egiten zituztela gelaren sarreran, nai zioten berariaz loa galerazi, deitu gabe berari, otsarekin esnatu zedin.

10. Zeren etzan iñor atrebitzen jotzen, ez idikitzen Asiriarren agintari nagusiaren gelako atea barrunen sartzeko.

11. Baña etorririk ara kapitanak, eta tribunoak, eta Asiriako erregearen ejerzituko agintari andi guztiak, esan zieten gelazaiai:

12. Sartu zaitezte, eta esnatu ezazute, zeren saguak beren zuloetatik atera dira, eta atrebitzen dira guri gudarako aup egiten.

13. Orduan Uagao, sarturik gelan, gelditu zan zutik kortinaren aurrean, eta egin zituen txaloak bere eskuakin, zeren uste zuen Holofernes Juditekin lo zegoala.

14. Baña nola belarriarekin azeloan jarrita ere etzuen aditzen mugimenturik txikienikan, lo dagoanak egiten duen bezela, alderatu zan geiago kortinara, eta au altxaturik, eta ikusirik Holofernesen gorputza buru gabe, lurrean zetzala, eta bere odolez dana bustita, asi zan egiten deadar eta negar andiak, eta bere soñekoak urratu zituen.

15. Eta sarturik Juditen etzauntzean, etzuen arkitu, eta korrika atera zan kanpora jendeagana,

16. Eta esan zuen: Hebreotar emakume batek lotsariz bete du Nabukodonosor erregearen etxea, zeren ona non datzan lurrean Holofernes buru gabe.

17. Asiriako ejerzituaren prinzipeak au aditu zutenean, guztiak beren soñekoak urratu zituzten, eta guztiz beldurtu, eta ikaratu ziran, eta beren gogoak txit nastuak gelditu ziran.

18. Eta etzauntzetako guztiak deadar ikaragarriak egiten asi ziran.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Jakin zuenean ejerzitu guztiak Holofernes illa izan zala, gelditu ziran zoratuta, eta zer egin etziekitela, eta izu eta ikara bakarrarekin nastuta, etzuten arkitu biziarekin gelditzeko beste biderik, baizik iges egitea,

2. Alako moduan non etzuen iñork bere aldekoarekin itzik egiten, baizik burua makurtuta, utzirik guztia, arin zebilzan iges egiteko Hebreotarrakgandik, zeñak beren kontra armatuak zetozela aditzen zuten, iges egiten zutela kanpoetako bideetatik, eta muñoetako bidetxigorretatik.

3. Israeltarrak bada ikusirik igesi zijoazela, ondoren jarraitu zieten. Eta jetxi ziran tronpetak jotzen zituztela, eta deadar andiak egiten zituztela beren billa.

4. Eta nola Asiriarrak barreiatuta zijoazen arin igesi, Israeleko semeak elkartuta jarraitzen zietela, zauritzen zituzten arkitu al zituzten guztiak.

5. Eta Oziasek bialdu zituen mandatariak Israelko erri, eta probinzia guztietara.

6. Onekin probinzia eta erri guztietako gazteri autatu guztia armakin atera zan etsaien ondoren, eta persegitu zieten ezpataz iragotzen zituztela erriaren atzeneko mugetara allegatu artean.

7. Eta Betulian gelditu ziranak berriz, Asiriarren etzauntzetan sartu ziran, eta artu zuten aiek utzi zuten guztia, eta ongi zamatuak itzuli ziran.

8. Berebat etsaia garaituta Betuliara itzuli ziranak, ekarri zuten berakin Asiriarrai artu zieten guztia, alako ugaritasunarekin, non, ezin zitezkean kontatu abereak, eta zamariak, eta trasteak. Eta ala, arrapatu ziotenarekin, guztiak txikienetik andieneraño gelditu ziran aberastuta.

9. Eta Joakin apaiz nagusia, bere gizon zar guztiakin etorri zan Jerusalendik Betuliara, Judit ikustera.

10. Eta aterarik Judit berari bidera, guztiak ao batez bedeikatu zuten esaten zutela: Zu zera Jerusalengo gloria, zu Israelko poza, zu gure erriaren onra,

11. Gizonkiro portatu zeralako, eta biotz sendoa iduki dezulako, kastidadea maitatu dezulako, eta zure senarra baño beste gizonik ezagutu ez dezulako. Argatik Jaunaren eskuak ere sendotu zaitu, eta argatik beti bedeikatua izango zera.

12. Eta erri guztiak erantzun zuen: Ala izan bedi, ala izan bedi.

13. Eta ogeita amar egun ozta asko izan ziran Israelko erriarentzat, biltzeko Asiriarrak utzi zituzten gauzak.

14. Holofernesenak bereak zirala ezagutu zan gauza guztiak, ala urrean, nola zillarrean, eta arri baliotsuetan, eta traste mota guztietan, Juditi eman zizkioten, guztia eman zion erriak.

15. Eta guztiak, ala gizasemeak, nola emakumeak, neskatxak, eta mutillak, poztzen ziran organu eta zitara soñuetan.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Orduan Juditek Jaunari kantatxo au kantatu zion, esaten zuela:

2. Asi zaitezte Jauna alabatzen panderoakin, kantatu zaiozute Jaunari zinbaloakin, zuzendu zaiozute himno berri bat, goratu ezazute, eta ots egin zaiozute bere izenari.

3. Jauna da ejerzituak desegiten dituena. Bere izena da Jauna.

4. Berak jarri zituen bere etzauntzak bere erriaren erdian, gure etsai guztien eskuetatik gu libratzeko.

5. Asiriarra mendietatik etorri zan, ifarraren aldetik, bere indar ugariakin, zeñaen ugaritasunak leortu zituen errekak, eta bere zaldidiak estali zituen ibarrak.

6. Juramentu egin zuen, nere erria erreko zuela, eta nere gazteera ezpataz iragoko zuela, ostuko zizkidala nere aurrak, eta katibu eraman birjiñak.

7. Baña Jaungoiko txit altsuak zauritu zuen; eta jarri zuen emakume baten eskuetan, zeñak ebaki zion burua.

8. Zeren beren arteko almentsua etzan izan mutil gazteen eskuz ezarria, eta etziran Titanen semeak ere izan zauritu zutenak, eta ain gutxi zentoi gorputz andikoak aurkeztu zitzaiozkanak, baizik Judit Merarien alaba da, bota duena bere arpegiko edertasunarekin.

9. Zeren bere alarguntzako soñekoa kendu zuen, eta pozezko egunetako jantzia artu zuen, Israelko semeak pozez saltoka ari zitezen.

10. Igortzi zuen bere arpegia okenduarekin, eta beren tokian jarri zituen bere kizkurrak kofiarekin, soñeko berriak artu zituen bera engañatzeko.

11. Bere zapatak llilluratu zizkioten begiak; bere arpegiko edertasunarekin katibutu zion biotza; eta bere ezpatarekin ebaki zion burua.

12. Izutu ziran persiarrak bere sendotasunarekin, eta medoarrak bere ausardiarekin.

13. Orduan Asiriarren etzauntzak asi ziran alarauka; nere erritar umill, egarriz leortuak, agertu ziranean.

14. Andre gazteen semeak ezpataz irago zituzten, eta il zituzten, igesi dijoazen mutill aurrak bezela: galduak izan ziran gudan, nere Jaun Jainkoaren aurrean.

15. Kantatu dizaiogun himno bat Jaunari, himno berri bat kantatu dizaiogun gure Jaungoikoari.

16. Adonai Jauna andia zera zu, eta txitez argitua zure eskubidean, eta iñork garaitua izan ezin zaitekeana.

17. Serbitu zaitzala kreatura guztiak, zeren zuk esan zenduen, eta izan ziran egiñak, bialdu ziñien zure espiritua, eta artu zuten izatea, eta ez dago zure bozari aurkeztu dakiokenik.

18. Mendiak urakin mugituko dira zimenduetatik, arriak urtuko dira argizaia bezela zure aurrean.

19. Baña zure beldur diradenak, andiak izango dira zure aurrean gauza guztietan.

20. Nere jatorriaren kontra jaikitzen dan erriaren doakabea! Zeren Jaungoiko txit altsua bengatuko zaie, eta bisitatuko ditu juizioko egunean.

21. Bialduko ditu sua eta arrak beren aragien gañera, kiskaldu ditezen, eta irago ditzaten betiko penak.

22. Oien ondoan irago zan erri guztia, irabazirik garaitza, Jerusalenera, Jauna adoratzera, eta garbituak izan ziranetik laster, guztiak eskeñi zituzten holokaustoak, eta kunplitu boto eta promesak.

23. Eta Juditek eskeñi zituen aztuak izatearen anateman, erriak eman ziozkan, Holofernesen gerra tresna guztiak, eta berak aren oetik artu zuen eltxakentzallea.

24. Eta erria poztzen zan santuarioari begiraturik, eta iru illabetean Juditekin zelebratu zan garaitza onen poza.

25. Eta egun aiek iragorik, bakoitza bere etxera itzuli zan, eta Judit Betulian ospatsua izan zan, eta zan Israelko lur guztiko argitsuena.

26. Bere balorearekin biltzen zuen kastidadea, alako moduan non, bere bizitzako egun guztietan etzuen gizonik ezagutu, Manases bere senarra il ezkero.

27. Jai egunetan ateratzen zan agirira, gloriaz beteta.

28. Eta bere senarraren etxean egon zan eun eta bost urtean, eta bere neskamea bere aukeran ipiñi zuen, eta il zan, eta Betulian bere senarrarekin izan zan obiratua.

29. Eta beragatik erriak zazpi egunean negar egin zuen.

30. Eta bere bizitzako denbora guztian, eta bera ilda urte asko iragota, etzan izan Israeli pake eta atsedena galduerazi zizaionik.

31. Garaitza onen jaiaren eguna da Hebreoak señalatua egun santuen artean, eta Juduak denbora artatik gaurko eguneraño onratzen dute.

ESTERREN LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Asueroen egunetan, zeñak erreñatu zuen Indiatik Etiopiaraño eun eta ogeita zazpi probinzien gañean.

2. Bere erreñuko tronuaren gañean eseri zanean, bere erreñuko nagusi eta burua Susan erria izan zan.

3. Berak agintzen zuenetik irugarren urtean bada, eman zien bazkari andi bat, zeñean bera arkitu zan, prinzipe guztiai, bere agintari guztiai, Persaetatik sendoenai, eta Medoen arteko argitsuenai, eta probinzietako gobernatzalleai,

4. Erakusteko bere erreñuko gloriaren aberastasunak, eta bere eskubidearen anditasun, eta arrokeria, denbora luzean, au da, eun eta larogei egunean.

5. Zegoala bada bukaeraren aldean, konbidatu zuen Susanen arkitu zan erri guztia, andienetik txikieneraño, eta agindu zuen prestatu zekiela zazpi eguneko janedana, baratzeko eta basoko atarian, zeñ zegoan erregeren eskuz, eta anditasunarekin jarria.

6. Eta zeuden esekita alde guztietatik zeru koloreko itzalkaiak, eta zuriak, eta ubelurdiñak, liño txit fiñezko eta purpurazko kordoeakin lotuak, zeñak iragotzen ziran marfillezko anilloetatik, eta marmolezko abe batzuei lotzen ziozkaten. Zeuden ere prestatuak urrezko eta zillarrezko etzintokiak, esmeralda koloreko, eta Parosko marmol koloreko arriz arlosatutako zelaien gañean; zeñak egiten zituen irudi mota askoak, txit edertzen zuten.

7. Eta konbidatuak izan ziranak, urrezko ontzietan edaten zuten, eta janariak ekartzeko maiontziak beti aldatzen ziran. Ardoa ere, errege baten anditasunari zegokion bezela, ugari eta obena ipintzen zan.

8. Etzion iñork edanerazitzen nai etzuenari, baizik bakoitzak artzen zuen nai zuenean, erregeak agindu zuenaren araura, zeñak onetarako bere andizkietatik bat jarri zuen mai bakoitzeko maipuruko.

9. Basthi erregiñak ere eman zien bazkari bat emakumeai, Asuero erregea bizi oi zan jauregian.

10. Eta zazpigarren egunean, egonik erregea pozagorik, eta geiegi edanarekin ardoz berotueguia, agindu zien Maumam, eta Bazatha, eta Harbona, eta Bagatha, eta Abgata, eta Zethar eta Txartxas, zazpi txikiratu bere inguruan serbitzen zutenai,

11. Eraman zezatela bere aurrera Basthi erregiña, buruan koroea zuela, erri guztiai eta andizkiai bere edertasuna erakusteko, zeren txit ederra zan.

12. Berak etzuen joan nai izan, eta txikiratuak erregearen agintea adirazi bazioten ere, mezpreziatu zuen. Argatik aserreturik erregea, eta guztia sumintasunean erazekirik,

13. Galdetu zien, erregeak oi duten bezela beti inguruan zeuzkan jakintsuai, zeñaen esanaz egiten zuen guztia,zeren zekizkiten legeak, eta beren asaben oiturak.

14. (Beren artean nagusienak eta alderengoak ziran, Txarsena, eta Sethar, eta Admatha, eta Tharsis, eta Mares, eta Marsana, eta Mamutxan, Persaen eta Medoen zazpi andizki, zeñak joaten ziran erregeagana nai zutenean, eta eseri oi ziran lenbiziak erregearen ondoan)

15. Zer penaren mendean zegoan Basthi erregiña, etzuelako egin nai izan Asuero erregearen agindu, txikiratuen bitartez bialdu ziona.

16. Eta Mamutxanek, erregeak eta andizkiak aditzen zutela, erantzun zuen: Basthi erregiñak ez bakarrik ofenditu du erregea, baitaere Asuero erregearen probinzia guztietan dauden erri eta jaun guztiak.

17. Zeren erregiñak egin duenaren berria andre guztiak gana allegatuko da, beren senarrak mezpreziatu ditzaten, eta esan dezaten: Asuero erregeak agindu zion Basthi erregiñari bere aurrera etortzeko, eta berak etzuen nai izan.

18. Eta ejenplu onekin Persiarren eta Medoarren andizkien emazte guztiak gutxitan idukiko dituzte senarren aginteak. Argatik erregearen aserrea bidezkoa da.

19. Ongi baderitzazu, egin ezazu lege bat, eta eskribatu bedi, Persiarren eta Medoarren legeen, iñork autsi ezin ditzakenen araura, Basthi erregiña ez dedilla berriz iñoiz ere agertu erregearen aurrean, eta bere koroea artu dezala, bera baño obeago dan batek.

20. Eta jakinerazi bizaiote au zure erreñu txit andiko probinzia guztiai, emazte guztiak ala andienak nola txikienak beren senarrak onratu ditzaten.

21. Ongi iritzi zitzaien erregeari, eta andizkiai onen konsejua, eta erregeak Mamutxanen konsejuaren araura egin zuen,

22. Eta bere erreñuko probinzia guztietara bialdu zituen kartak, izkuntza eta letra banaetan, erreñu bakoitzak aditu eta irakurri zitzakean eran, senarrak iduki bear zutela eskubide eta agintaritza guztia beren etxeetan, eta au aditzen eman zedilla erri guztietan.

BIGARREN KAPITULUA

1. Iragorik onela guza oiek, Asuero erregearen aserrea bigundu zanean, Basthirekin oroitu zan, eta egin zuenarekin, eta irago zituenakin.

2. Eta erregearen morroe eta bere ministroak esan zuten: Billatu bitez erregearentzat neskatx donzella eta ederrak.

3. Eta bialdu bitez probinzia guztietatik mandatariak autu ditzaten neskatx irudi onekoak eta donzellak: eta ekarri bitzate Susango errira, eta jarri bitzate emakumeen etxean, Ejeo txikiratuaren mendean, zeñaen kontura dauden erregearen emakumeak, eta artu bitzate emakumeen apaingarriak, eta bear duten gañerako guztia.

4. Eta guztien artean erregearen gogokoen dana, hura izango da erregiña Basthiren lekuan. Ongi esana iruditu zitzaion erregeari, eta agindu zuen egin zezatela, adirazi zioten bezela.

5. Bazan Susango errian gizon Judu Mardokeo zeritzan bat, Jairren semea, Semeiren semea, Zisen semea, Jeminiren jatorrikoa,

6. Jerusalendik eramana izan zana, Nabukodonosor Babiloniako erregeak Jekonias Judako erregea katibu eraman zuenean,

7. Onek azi zuen Edisa, bere anaia baten alaba, beste izen batez Ester zeritzana, eta zan umezurtza, ederregia, eta arpegi politekoa. Eta il zitzaiozkanean bere aita eta bere ama, Mardokeok bere alabatzat artu zuen.

8. Zabaldurik erregearen agindua, nola ziran eramanak Susanera neskatx donzella eder asko, erregearen agintearen araura, eta jarriak Ejeo txikiratuaren mendean, emana izan zitzaion beste neskatx donzellen artean Ester ere, besteakin zaitua izateko.

9. Au gogoan sartu zitzaion Ejeori, eta arkitu zuen grazia bere begietan. Eta agindu zion txikiratu bati, bereala prestatu zizazkiola emakumeen apaingarriak, eta eman zizaiola berari zegokiona, eta zazpi donzella erregearen etxekoetatik irudi obenekoak, eta ala bera, nola bere neskameak ongi tratatu zitzala, eta begiratu zezala beren apainduriagatik.

10. Eta berak etziozkan adirazi nai, ez bere erria, ez bere erreñua, zeren Mardokeok agindu zion, gauza onen gañean txit ixillik egon zedilla.

11. Mardokeo egunoro paseatzen zan, neskatx donzella autuak zaituak zeuden etxeko atariaren aurrean, Esterren osasunaren arduraz, eta zer gertatuko zitzaion jakin nairik.

12. Eta allegatzen zanean denbora, zeñean donzella bakoitza, bere txandan, izan bear zan erregeagana eramana, egin ezkero emakumeen apainduriari zegokion guztia, izan oi zan amabigarren illabetea, zeren sei illabetean mirrazko olioaekin igortziten ziran, eta beste sei illa betean egon oi ziran apainduria arrotz eta aromazko asmazio batzuetan.

13. Eta erregearen aurrera eramanak izango ziradenean, ematen zitzaioten, berak apaintzeko eskatzen zuten guztia, eta ongien zeritzaten eran galanturik, emakumeen bizilekutik erregearen barrungo gelara iragotzen ziran.

14. Eta arratsaldean sartzen zana, goizean ateratzen zan, eta andik zan eramana beste bigarren bizileku, Susagazi txikiratuaren kontura zegoanera, zeñaen mendean zeuden erregearen bigarrengo emazteak, eta bera ezin berriz biurtu zitekean Erregeagana, Erregeak nai ez bazion, eta bere izenez etortzeko agintzen ez bazion.

15. Iragorik bada denboratsu bat, alderatzen zan onezkero eguna, zeñean izan bear zan eramana erregearen aurrera Ester Abihailen Mardokeoren anaiaren alaba, zeñ onek artu zuen bere alabatzat. Esterrek etzuen eskatu emakumeen apaingarririk, baizik Ejeo txikiratuak, zeñaen kontura zeuden donzellak, eman zion apaintzeko, berak nai izan zuena. Zeren zan txit liraña eta sinistu ere ezin lezakean edertasunekoa, eta zirudian guztien begietan moduzkoa eta maitagarria.

16. Izan zan bada eramana Asuero erregearen barrengo gelara, Tebeth deritzan amargarren illean, bere erregetzako zazpigarren urtean.

17. Eta erregeak beste emakume guztiak baño geiago maitatu zuen, eta graziatan erori zitzaion, eta egin ziozkan beste emakume guztiai baño mesede andiagoak, eta jarri zion bere buruaren gañean erregiñaren koroea, eta egin zuen erregiña, Basthiren lekuan.

18. Eta agindu zuen bazkari txit eder bat ipintzeko andizki guztientzat, eta bere serbitzarientzat Esterren ezkontza eta eztaiakgatik. Eta gutxitu zituen probinzia guztien kotizak, eta egin zituen, alako prinzipe bati zegozkion doañak.

19. Eta bigarren aldiz birjiñak billatu eta toki baten biltzen ziran bitartean, Mardokeo zegoan erregearen atean.

20. Esterrek, Mardokeok agindu zion bezela, etzuen oraindikan agertu, zeñ erreñutakoa, ez zeñ erritakoa zan. Zeren Esterrek egiten zuen Mardokeok agintzen zion guztia, eta gauza guztiak egiten zituen, egin oi zituen bezela, oraindik aurra zala bere osabak erakutsiak ematen ziozkanean.

21. Mardokeo erregearen atean egon oi zan denboran bada, Bagathan eta Thares, erregearen bi txikiratu, atezaiak ziradenak, eta jauregiko lenbiziko sarreran agintzen zutenak, ez egonik ongi erregearekin, nai izan zuten jaiki erregearen kontra, eta berari bizia kendu.

22. Jakiñik au Mardokeok, bereala adirazi zion Ester erregiñari, eta onek erregeari Mardokeoren izenean, zeñak eman zion gertakariaren gaztigua.

23. Egin ziran azterrenak, eta agertu zan egia zala, eta biak izan ziran urkamendi batean esekiak. Gertakari au izan zan historietan jarria, eta eskribatua urteoroko berrietan, erregea begira zegoela.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Oiek irago ezkero, Asuero erregeak goratu zuen Aman Amadathiren semea, zeñ zan Agagen jatorrikoa, eta eman zion esertokia, zeuzkan jaun andi guztien gañean.

2. Eta jauregiko atetan egon oi ziran erregearen serbitzari guztiak, belaunikatzen ziran, eta Aman adoratzen zuten erregeak ala agindu zuelako. Mardokeo bakarrik etzan belaunikatzen, eta bera bakarrik zan adoratzen etzuena.

3. Eta jauregiko atetan agintzen zuten erregearen serbitzariak esan zioten: Zergatik besteen artean señalatzen zerala, ez dezu egiten erregeak agindu duena?

4. Eta nola maiz esaten zioten au, eta berak etzituen aditu nai, Amani adirazi zioten, jakin nairik iraungo ote zuen, berak erabaki zuenean, zeren esan zioten Judua zala bera.

5. Aditurik au Amanek, eta ikusirirk bere begiakin, Mardokeo etzala belaunikatzen, eta etzuela ere adoratzen, txit aserretu zan.

6. Baña ezereztzat iduki zuen Mardokeori bakarrik eskuak egotzitzea, zeren aditu zuen esaten, Juduen erreñukoa zala. Eta naiago izan zuen, Asueroen erreñuan bizi ziran Juduen erreñu guztia galdu.

7. Lenbiziko illean (zeñaen izena dan Nisan) Asueroen erregetzaren amabigarren urtean, bota ziran Amanen aurrean ontzi batean suerteak, hebreoz Phur deitzen zaiotenak, jakiteko zeñ egunetan, eta zeñ illatan izan bear zuten illak Juduak, eta irten zan amabigarren illa, Adar zeritzana.

8. Eta esan zion Amanek Asuero erregeari: Bada erri bat, zure erreñuko probinzia guztietatik zabaldua, elkargandik berezitua, lege eta zeremonia berriak dauzkana, eta gañera erregearen aginduak mezpreziatzen ditu. Eta txit ongi dakizu zuk, ez datorkiola ongi zure erreñuari, sufritzea bere lotsagaldukeria.

9. Ongi baderitzazu, agindu ezazu illa izan dedilla, eta nik pisatuko dieztet zure tesoruaren gordetzalleai, amar milla talentu.

10. Atera zuen bada erregeak bere beatzetik, sillutzeko iduki oi zuen errastuna, eta eman zion Aman Amadathi Agagen jatorrikoaren seme, Juduen etsaiari,

11. Eta esan zion: Eskeñtzen dezun zillarra zuretzat izan bedi: erri orren gañean berriz, egizu nai dezuna.

12. Deituak izan ziran bada erregearen sekretarioak Nisan lenbiziko illean, illaren amairugarren egunean, eta Asuero erregearen izenean eskribatu zieten, Amanen aginduaren araura, erregearen agintari guztiai, eta zeuden probinzia, eta erreñuetako juezai, bakoitzaren izkuntzaren araura, erreñu bakoitzekoak irakurri eta aditu al zezaten. Eta kartak erregearen errastunarekin sellatuak,

13. Eraman zituzten errege beraren korreoak probinzia guztietara, il eta desegin zitzaten Judu guztiak, gazteak eta zarrak, aurrak eta emakumeak, egun bat batean, au da, amabigarren il, Adar zeritzanaren amairuan, eta beren ondasunak arrapatu zitzaten.

14. Eta au da kartetan esaten zana, probinzia guztiak jakin zezaten, eta esan dan egun artarako prestatu zitezen.

15. Bialduak izan ziran korreoak arin zebiltzan erregearen agindua kunplitzen. Eta bereala ipiñi zan Susanen agirian agindua, erregea eta Aman bazkari andi baten zeudela, eta errian zeuden Judu guztiak, negar egiten zuten.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Aditu zituenean oiek Mardokeok, urratu zituen bere soñekoak, eta zilizioz jantzi zan, zabaltzen zuela autsa bere buruaren gañean, eta erriko plazaren erdian deadar andiak egiten zituen, bere biotzeko samintasuna agertzen zuela,

2. Eta alarau oiekin joaten zan jauregiko ateraño. Zeren ezin iñor sartu zitekean erregearen jauregian zilizioz jantzita.

3. Erregearen agindu gogorra allegatu zan probinzia, erri eta toki guztietan ere, zeuden Juduak txit izutuak, egiten zituzten barauak, ari oi ziran alarauka, eta negarrez, etzaten zirala asko zilizio eta auts artean oearen lekuan.

4. Eta Esterren donzellak, eta txikiratuak sartu ziran, eta berria eman zioten. Eta aditurik au, arritua gelditu zan, eta soñeko bat bialdu zion, zakua kendurik jarri zizaioten, baña berak etzuen artu nai izan.

5. Eta ots eginik Athatx txikiratuari, zeñ erregeak eman zion bera serbitzeko, agindu zion Mardokeogana joan zedilla, eta beragandik jakin zezala, zergatik au egiten zuen.

6. Eta ateratzen zala Athatx, joan zan Mardokeogana, zeñ zegoan erriko plazan, jauregiko atearen aurrean.

7. Zeñak adirazi ziozkan irago ziran gertakari guztiak, eta nola Amanek eskeñi zuen sartzea zillar asko erregearen tesoroetan Juduak iltzeagatik.

8. Eman ere zion, Susanen jarria zegoen erregearen aginduaren kopia bat, erregiñari erakutsi zizaion, eta adirazi zizaion joan zedilla erregearen aurrera, bere erriagatik erregututzera.

9. Itzulirik Athatx, adirazi ziozkan Esterri, Mardokeok esan ziozkan gauza guztiak.

10. Zeñak erantzun zion, eta agindu zuen Mardokeori esan zizaiola:

11. Erregearen morroe guztiak, eta bere agindura dauden probinzia guztiak dakite, edozeñere gizon edo andre, deitua izan gabe, sartzen danak erregearen barrungo gelan, bereala luzapenikan batere gabe izan bear duela illa, baldin erregeak, errukiaren siñaletzat, luzatzen ez badu beraganontz bere urrezko zigorra, onela biziarekin gelditu dedin. Nola bada ni sartu naiteke erregea dagoan tokian, ogeita amar egunean beragana deitua izan ez naizan au?

12. Aditu zuenean au Mardokeok,

13. Berriz bialdu zuen Esterri esatera: Ez dezazula uste izan erregearen jauregian zaudelako, zuk bakarrik bizia salbatu alko dezula Judu guztien artean,

14. Zeren orain ixillikan bazaude, beste moduren batean salbatuko dira Juduak; baña zu, eta zure aitaren etxea, galduko zerate. Eta nork daki erregiña izatera allegatu ote zeran, onelako estutasunean serbitu gaitzazun?

15. Eta berriz Esterrek bialdu zuen, itz oiek Mardokeori esatera:

16. Zoaz, eta Susanen arkitzen dituzun Judu guztiak bildu itzatzu, eta nigatik otoiz egin ezazute. Ez ezazute jan, ez edan iru egunean eta iru gauean, eta nik nere neskameakin era berean barau egingo det; eta orduan sartuko naiz erregeagana, legea autsitzen dedala, bada sartuko naiz deitua izan gabe, jartzen naizala irriskuan, eta illa izateko zorian.

17. Mardokeo bada joan zan, eta Esterrek agindu zion guztia egin zuen.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Irugarren egunean Esterrek jantzi zituen ergiñaren soñekoak, eta joanik erregearen barrungo bizilekura, gelditu zan, erregea bere tronuan eseria zegoan sala aurrean, zeñ zegoan salaren erdian atearen aurkez.

2. Eta ikusi zuenean Ester erregiña gelditua, gogo onarekin begiratu zion, eta luzatu zuen beraganontz, eskuan zeukan urrezko zigorra. Alderatu zan Ester, eta muñ egin zion errege zigorraren juntari.

3. Eta erregeak esan zion: Zer nai dezu Ester erregiña? Zer eskari da zurea? Erreñuaren erdia eskatzen badidazu ere, emana izango zatzu.

4. Eta Esterrek erantzun zuen: Erregeari ongi baderitza, erregututzen diot etorri dedilla gaur nere bizilekura, prestatua daukadan bazkaria jatera, eta Aman berarekin eraman dezala.

5. Erregeak bereala esan zuen: Agudo ots egin zaiozute Amani, Esterren borondaterari obeditu dizaion. Etorri ziran bada erregea eta Aman, erregiñak prestatua zeukaioten bazkarira.

6. Eta esan zion Esterri erregeak, ardoa ugari edan zuenean: Zer ematea, nai dezu agindu dezadala? Zer gauza eskatzen dezu? Nere erreñuaren erdia eskatzen badezu ere, iritxiko dezu.

7. Esterrek erantzun zion: Nere eskaria, eta nere erreguak oiek dirade:

8. Erregearen aurrean grazia arkitu badet, eta erregeak nai badit eman eskatzen dedana, eta nere eskaria kunplitu. Etorri bitez erregea eta Aman prestatua daukaiotedan bazkarira, eta biar erregeari nere borondatea agertuko diot.

9. Aman bada egun artan atera zan gozaro eta pozik. Eta ikusirik Mardokeo eseria jauregiko atetan, eta ez bakarrik etzitzaiola jaiki, ezta mugimenturik ere etzuela egin bere esertokitik, txit aserretu zan,

10. Baña estalirik aserrea, itzuli zanean etxera ots egin zien bere gelara bere adiskideai, eta Zares bere emazteari.

11. Eta adirazi zien zeñ andiak ziran bere ondasunak, nola zituen seme asko, eta zeñ gloria andira gañerako andizki eta bere serbitzarien artean erregeak goratu zuen.

12. Eta gañera esan zuen: Ester erregiñak ere, ez dio besteri otsegin erregeari ematen dion bazkarira, niri baño, eta biar ere jango det bere gelan erregearekin.

13. Baña oiek guztiak badauzkat ere, uste det ezerere ez daukadala, ikusten dedan artean Mardokeo Judua jauregiko ateen aurrean eseria.

14. Eta Zares bere emazteak, eta beste adiskideak erantzun zioten: Agindu ezazu prestatu dedilla abe andi bat berrogeita amar beso alturakoa, eta esan zaiozu biar erregeari, berean esekia izan dedilla Mardokeo, eta onela pozik joango zera bazkaritara. Bere gogokoa izan zan konsejua, eta agindu zuen abe andi bat prestatu zezatela.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Erregeak gau hura irago zuen lorik egin gabe, eta agindu zuen ekarri zizazkiotela, irago ziran denboretako gertaera, eta berrietako liburuak. Zeñak izanik bere aurrean irakurriak,

2. Allegatu ziran toki artara, non zegoan eskribatua, nola Mardokeok agertu zituen, Bagathan eta Thares txikiratuak Asuero erregea iltzeko zerabiltzaten asmazioak.

3. Aditu zuenean au erregeak, esan zuen: Zer onra, eta zer ordañ artu du Mardokeok leialtasun augatik? Bere serbitzari, eta ministroak esan zioten: Ez du ordañikan batere artu.

4. Eta bereala erregeak esan zuen: Zeñ dago gela aurrean? Zeren Aman sartu zan erregearen etxeko barrendiko gelan, eskatzeko erregeari, agindu zezala, esekia izan zedilla Mardokeo, prestatua zeukaion urkamendian.

5. Morroiak erantzun zioten: Aman dago gela aurrean. Eta erregeak esan zuen: Sartu dedilla.

6. Eta sartu zanean, esan zion: Zer egin bear da, erregeak onratu nai duen gizon batekin? Eta Amanek uste izanik bere biotzean, eta sinisturik erregeak etzuela naiko onratu besterik batere, bera baizik,

7. Erantzun zuen: Erregeak onratu nai duen gizonak,

8. Izan bear du errege soñekoakin jantzia, eta igo bear da, erregea igotzen dan zaldietatik baten gañera, eta bere buruaren gañean erregearen koroea eraman bear du:

9. Eta erregearen prinzipe eta andizkietatik lenbizikoak eraman dezala bere zaldia bridari elduta, eta erriko plazatik dabillela, boz altuan esan dezala: Onela onratzen da, erregeak onratu nai duena.

10. Eta erregeak esan zion: Arin ibilli zaite, eta arturik errege mantua, eta zaldia, egin ezazu esan dezun guztia Mardokeo judu, jauregiko atean dagoanarekin. Kontu gero, ez dezazula egin gabe utzi, esan dituzun gauzaetatik batere.

11. Artu zituen bada Amanek errege mantua eta zaldia, eta jantzirik Mardokeori erriko plazan, eta zaldian igoerazirik, bazijoan bere aurretik, eta deadar egiten zuen: Onra onen diña da, erregeak onratu nai duena.

12. Eta Mardokeo itzuli zan jauregiko atera, eta Aman joan zan arin bere etxera negarrez, eta burua estalirik.

13. Eta kontatu zien Zares bere emazteari, eta adiskideai, gertatu zitzaion guztia. Eta konsejaritzat zeuzkan jakintsuak, eta bere emazteak erantzun zioten: Baldin Mardokeo, zeñaen aurrean asi zeran erortzen, Juduen jatorrikoa bada, ezin aurkeztuko zatzaio, baizik bere aurrean eroriko zera.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Erregea bada, Aman laguntzat zuela, sartu zan erregiñaren bazkarira.

2. Zeñi esan ere zion erregeak bigarren egun onetan, ardoz berotu ezkero: Zeñ da zure eskaria, Ester, eta zer nai dezu eman datzakizun? Nere erreñuaren erdia eskatuko bazeneza ere, iritxiko dezu.

3. Zeñi Esterrek erantzun zion: Baldin zure begietan grazia arkitu badet, o erregea, eta zuk nai badezu, utzi zadazu nere bizia, zeñagatik erregutzen dedan, eta nere erriarena, zeñaen bitarteko naizan.

4. Zeren ni, eta nere erria izan gera emanak, desegiñak, illak, eta galduak izateko. Eta arren bada gizaseme eta emakumeok mendekotzat salduak bakarrik bagiña: gaitz iragokarri bat izango litzate, eta zizpuruz arita ixillik egongo nintzateke, baña orain, bada gure etsai bat, zeñaen gaiztotasuna erregearen gañera erortzen dan.

5. Eta erantzuten zuela Asuero erregeak, esan zuen: Zeñ da ori, eta nolakoa da bere eskubidea, onelako gauzarik egiteko ausardia iduki dezan?

6. Eta Esterrek esan zuen: Aman txit gaizto ori da gure persegitzalle, eta etsaia. Aman, au aditzean, arritua gelditu zan, erregearen eta erregiñaren begirakuneak sufritu ezinik.

7. Eta aserreturik erregea, jaiki zan, eta bazkariaren lekutik baratzeko ariztian sartu zan. Aman ere jaiki zan, bere bizia gatik Ester erregiñari erregutzera, zeren ezagutu zuen, erregeak bera kastigatzea erabaki zuela.

8. Itzuli zanean erregea baratzeko ariztitik, eta sartu bazkaltokian, arkitu zuen Aman, Ester zetzan oearen gañean eroria, eta esan zuen: Ni aurrean nagoala ere, nai dik neronen etxean, erregiña indarrez galdu. Erregearen aotik itz au atera zaneko, bereala arpegia estali zioten.

9. Eta Harbona, erregea serbitzen zeuden txikiratuetatik batek, esan zuen: Amanen etxean dago jasota, berrogeita amar beso alturako abe bat, Mardokeo, erregearen alde itz egin zuenarentzat prestatua zeukana. Eta erregeak esan zion: Eseki ezazute bertan.

10. Aman bada izan zan esekia, Mardokeorentzat prestatu zuen urkamendian, eta erregearen aserrea irago zan.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Egun artan Asuero erregeak eman zion Ester erregiñari Aman juduen etsaiaren etxea, eta Mardokeo sartu zan erregearen aurrean. Zeren Esterrek adirazi zion, zala aitaren aldeko bere osaba.

2. Eta erregeak artu zuen, Amani kentzeko agindu zuen errastuna, eta Mardokeori eman zion. Eta Esterrek Mardokeo bere etxeko nagusi jarri zuen.

3. Eta onenbesterekin gelditu gabe, erregearen oñetan etzin zan, negarrez itz egin eta erregutzen ziola, arren agindu zezala, egiztatu gabe gelditu zitezela Aman Agagen semearen gaiztakeria, eta Juduen kontra erabilli zituen asmazio biurriak.

4. Eta berak, oi bezela, luzatu zuen bere eskuarekin urrezko zigorra, zeñ zan biguntasunaren siñalea, eta jaikitzen zala bera, jarri zan zutik erregearen aurrean,

5. Eta esan zuen: Erregearen gogokoa bada, eta bere begietan grazia arkitu badet, eta nere eskaria bidegabea dala ez baderitza, erregututzen det, karta berriakin izan ditezela indargatuak, Aman juduen persegitzalle eta etsaiaren lenbiziko kartak, zeñakin agindu zuen arras desegiteko erreñuko probinzia guztietan.

6. Zeren, nola nik sufritu nezake nere erriaren eriotza eta galmena?

7. Eta Asuero erregeak erantzun zien Ester erregiñari, eta Mardokeo juduari: Nik eman diot Esterri Amanen etxea, eta agindu det au gurutzean ipiñia izan dedilla, Juduen kontra bere eskua luzatzen atrebitu zalako.

8. Eskribitu zaiezute bada Juduai erregearen izenean, ongien deritzazuten eran, sellatzen dituzutela kartak nere errastunarekin. Zeren au zan oitura, erregeren izenean, eta bere errastunarekin sellatuta zijoazen kartai, iñor ere etzedilla ausartatu kontra egiten.

9. Eta otsegiñik erregearen sekretarioai eta eskribariai (eta zan irugarren ill, Siban zeritzana) onen ogei ta irugarren egunean, izan ziran kartak eskribatuak Mardokeok nai zuen bezela, Juduai, eta prinzipeai, eta prokuratzalleai, eta Indiatik Etiopiarañoko eun eta ogeita zazpi probinziak gobernatzen zituzten juezai, probinziatik probinzia, erritik erri, beren izkuntza eta eskribatueraren araura, eta Juduai, irakurri eta aditu zitzaketean eran.

10. Karta oiek berok, erregearen izenean eskribatuak, izan ziran bere errastunarekin sellatuak, eta korreoakin bialduak, zeñak ibillirik arin probinzia guztietatik, aurrea artu zizaiezteen lenbiziko kartai agindu berriakin.

11. Eta erregeak agindu zien, erri bakoitzean joan zitezela juduakin egotera, eta agindu zizaietela, bildu zitezela guztiak batean, eta egon zitezela gertuak beren biziak zaitzeko, eta il, ta desegin zitzatela beren etsai guztiak, beren emazte eta semeakin, eta beren etxe guztiakin, eta arrapatu zitzaieztela beren ondasunak.

12. Eta izendatu zan probinzia guztietan egun bat benganzarako, au da, Adar amabigarren illaren amairugarren eguna.

13. Eta au zan kartaetan zegoana, Asueroren agintaritzaren mendean zeuden lur, eta erri guztiai adirazi dizaietela, Juduak prestatuak zeudela beren etsaiai bengatzeko.

14. Eta korreoak arin atera ziran berriak zeramazkitela, eta erregearen agindua Susanen jarri zan.

15. Eta Mardokeo ateratzen zala jauregitik eta erregearen aurretik, distiatzen zan errege soñekoakin, au da, jazintozko eta zeru kolorekoarekin, buruan urrezko koroe bat zeramala, eta sedazko eta purpurazko mantu batekin estalirik. Eta erri guztia gozatu eta poztu zan.

16. Eta iduritzen zitzaien Juduai, jaioten zitzaiela argi berri bat, poza, onra, eta jostaketa.

17. Erregearen aginduak allegatzen ziran erri, ziudade, eta probinzia guztietan, zegoan poz miragarria, janedanak, konbitak, eta festa egunak, ainbesteraño, non, beste erreñu eta sektaetako asko iragotzen ziran beren erlijio eta zeremonietara. Zeren andia zan, Juduen izenak guztiakgan sartu zuen izua.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Ala bada, amabigarren illaren amairugarren egunean, zeñi len esan degun bezala, zeritzan Adar, zegoanean prestatua ilkintza Judu guztientzat, eta beren etsaiak antsiaz nai zutenen beren odola, Juduen izaerak eginik trukada, asi ziran garai gelditzen, eta bere etsaiakin bengatzen.

2. Bildu ziran bada ziudade, erri eta toki guztietan; beren etsai eta persegitzallai erasotzeko. Eta etzan iñor ausartatu kontra egiten, zeren erri guztiak zeuden beren anditasunaz beldurtuak.

3. Zeren probinzietako juezak ere, eta gobernadoreak, eta prokuratzalleak, eta diñaderen bateko, toki bakoitzean zeuden lantegien begirale guztiak, goratzen zituen Juduak Mardokeoren beldurrez,

4. Zeñ jauregiko lenena zala baziekiten, eta eskubide andia zeukala, eta bere izenaren ospea egunoro azitzen zan, eta guzien aoetatik egan zebillan.

5. Onekin Juduak beren etsaietan galmen andi bat egin zuten, eta il zituzten, itzultzen zietela, berai egiteko prestatua zeukatena.

6. Alako moduan, non, Susanen bertan il zituzten bosteun gizon, kontatu gabetanik Aman Agagen jatorriko, Juduen etsaien amar semeak, zeñaen izenak diran oiek:

7. Farsandatha, eta Delphon, eta Esphatha,

8. Eta Foratha, eta Adalia, eta Aridatha,

9. Eta Fermestha, eta Arisai, eta Aridai, eta Jezatha.

10. Eta il zituztenean, etziezten ukiturik egin nai izan beren atziendai.

11. Eta bereala erregeari esan zioten, zenbat izan ziran illak Susanen.

12. Zeñak erregiñari esan zion: Juduak Susango errian bosteun gizon il dituzte, Amanen amar semeez gañera. Zeñ andia bada uste dezu izango dala, probinzia guztietan egin izango duten ilkintza? Zer geiago eskatzen dezu, edo zer beste gauzarik nai dezu agindu dezadala?

13. Eta berak erantzun zuen: Erregeren gogokoa baldin bada, utzi bizaiete Juduai, gaur Susanen egin duten bela, ala biar ere egin dezaten, eta Amanen amar semeak urkamendietan zinzilika jarriak izan ditezela.

14. Eta erregeak agindu zuen, ala egin zedilla. Eta bere bereala Susanen jarri zan agintea itsatsita, eta Amanen amar semeak izan ziran zinzilika jarriak.

15. Bildurik Juduak Adar illaren amalaugarren egunean, irureun gizon Susanen illak izan ziran, baña berak etzituzten artu aien ondasunak.

16. Eta era berean erregearen mendean jarriak zeuden probinzia guztietan, Juduak beren biziak zaitu zituzten, beren etsai eta persegitzalleak iltzen zituztela. Eta ain asko non, illak izan ziranak allegatu ziran irurogeita bost millara, eta beren gauzaetatik bati ere etzion iñork ukiturik egin.

17. Eta Adar illaren amairugarren eguna izan zan toki guztietan ilkintzaren lenbiziko eguna, eta amalaugarren egunean utzi zioten iltzeari. Erabaki zuten egun au jaia izan zedilla, eta beti geroko denboretan janedan, pesta eta konbitakin zelebratu zedilla.

18. Eta Susango errian ilkintza egin zutenak, il beraren amairugarren eta amalaugarren eguna ilkintzan irago zituzten, eta amabosgarren egunean iltzeari utzi zioten. Eta argatik erabaki zuten, egun au ere jai izan zedilla, eta irago janedanetan eta jostaketetan.

19. Baña murru gabeko ziudade eta errietan bizi ziran Juduak, izendatu zuten Adar illaren amalaugarren eguna janedan eta jostaketetarako, alako moduan, non, egun onetan dauzkate pesta andiak, eta elkarri bialtzen diezte beren janedanetako gauza batzuek.

20. Mardokeok bada gauza guzti oiek eskribatu zituen, eta txartel batean jarririk, bialdu zien, erregearen probinzia guztietan, ala aldekoetan nola urrutikoetan bizi ziran Juduai,

21. Adar illaren amalaugarren eta amabosgarren egunak jai egunen artean artu zitzaten, eta beti urteoro onra ospatsuarekin zelebratu zezaten.

22. Zeren egun aietan Juduak beren etsaien benganza artu zuten, eta negarra ta tristeza, itzuli zitzaiezten gozotasun eta pozean, eta egun oiek janedan eta jostaketetakoak izan zitezela, zeñaetan elkarri bialdu bear zioten zerbait janari, eta doañtxoak beartsuai eman.

23. Jarri zuten bada Juduak jai andi bat, denbora onetan egiten asi ziradenen, eta Mardokeok bere txartelean agindu zienaren araura,

24. Aman Amadathiren seme, Agagen jatorriko, juduen etsai eta persegitzalleak, beren kontra gogoan erabilli zuen gaitzagatik, berak il eta arras desegiteko. Eta onetarako bota zuen Phur, gure izkuntzan suertea esango balitza bezela.

25. Eta gero Ester erregeagana joan zan, erregutzen ziola, Amanen asmazioak utsean geldu zitezela, erregeren txartel baten bitartez. Eta Juduai egin nai izan zien gaitza, bere buruaren gañera erori zedilla. Geroenean bera eta bere semeak gurutze baten jarri zituzten.

26. Eta denbora artatik, egun oiei itz egiten zitzaien phurim, au da, suerteetakoak, zeren phur, au da, suertea, izan zan egotzia ontzi batean. Eta irago ziran gauza guztiak daude txartel batean, au da, liburu onen izaeran,

27. Eta sufritu zutenaren, eta gero izan zan aldakuntzaren oroipenean, Juduak artu zuten beren, eta ondokoen, eta beren erlijioratu ziradenen kontura, etzitzaiola iñori zillegi izan, egun bi oiek jai andi egin gabe iragotzea, eskribu onetatik agiri dan, eta urtetik urterako denbora izendatuak eskatzen duen bezela.

28. Oiek dirade iñoiz aztuko ez diran egunak, eta munduko probinzia guztietan gizalditik gizaldira zelebratuko diranak, eta ez da errirakan batere, zeñean phurim, au da, suerteetako egunak, ez diran, Juduak, eta zeremonia oietara lotu ziranen jatorrikoak gordeak.

29. Eta Ester erregiña, Abihailen alabak, eta Mardokeo Juduak, oraindikan bigarren karta bat bialdu zuten, ardurarik andienarekin egun au gelditu zedin jai anditzat geroko denboretarako.

30. Eta Asuero erregearen eun eta ogeita zazpi probinziatan bizitu ziran Judu guztiai bialdu zien, pakean bizi zitezen, eta leialak izan zitezen eskeñia kunplitzean,

31. Gordetzen zituztela suerteen egunak, eta bere denboran pozez zelebratzen zituztela. Obligatu ziran bada Juduak, Mardokeo eta Esterrek erabaki zuten bezela, zaitzera berak eta beren jatorrikoak, suerteen egunetako barauak, eta deadarrezko erreguak,

32. Eta Esterrena deitzen zaion liburu onetako berrietan dagoan guztia.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Eta Asuero erregeak egin zuen kotiztari lur guztia itsasoko islakin.

2. Eta bere eskubidea eta agintaritza, eta zeñ anditasun goratura jaso zuen Mardokeo, Medoarren eta Persiarren liburuetan daude eskribatuak,

3. Eta nola Mardokeo au, Juduen erreñukoa, izan zan bigarrena Asuero erregeraren ondoan: eta andia Juduen artean, eta bere anaien taldeak maitatua, bere erriaren ona billatzen zuena bezela, eta bere erriaren ongi izateari gogotik begiratzen ziona.

4. Eta esan zuen Mardokeok: Jaungoikoa da oiek egin dituena.

5. Oroitzen naiz egin nuela amets bat, zeñak au bera adirazten zuen, eta beretatik batere ez da gelditu kunplitu gabe.

6. Iturri txiki azi zana ibai egiteraño, eta argi eta eguzki biurtu zana, eta ur txit ugari isuri zituena, da Ester, zeñ erregeak emaztetzat artu zuen, eta nai izan zuen erregiña izan zedilla.

7. Eta dragoe biak, ni, eta Aman gera.

8. Bildu ziran jendeak, dira, Juduen izena arras desegin nai zuten aiek.

9. Eta nere jendea da Israel, zeñak deadarrez ots egin zion Jaunari, eta Jaunak bere erria salbatu zuen, eta gaitz guztietatik libratu ginduen, eta jendeen artean mirari eta biukarri andiak egin zituen.

10. Eta agindu zuen jarri zitezela bi suerte, bata Jaungoikoaren erriarentzat, eta bestea gañerako erreñuentzat.

11. Eta bi suerteak atera ziran kanpora Jaunaren aurrean jende guztientzat, denbora artatik izendatua zegoan egunean.

12. Eta Jauna, bere erriarekin oroitu zan, eta bere herenziaren urrikalmendua iduki zuen.

13. Argatik Adar illaren amalaugarren, eta amabosgarren egunak irago bear dira jai andiak bezela, debozio andiarekin eta erriaren pozarekin, zeñ bilduko dan batzarre batean beti, Israelko erriaren jatorririk dagoan artean.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Ptolomeo eta Kleopatrak erreñatzen zutenetik laugarren urtean, Dositheo, zeñak esaten zuen zala apeza, eta Lebiren jatorrikoa, eta Ptolomeo bere semeak, ekarri zuten Phurim karta au, zeñ esan zuten izan zala Lisimako Ptolomeoren semeak Jerusalenen azaldua.

2. Bigarren urtean, Artajerjes txit andiak erreñatzen zuela, Nisan illaren lenbiziko egunean, Mardokeo Jairren semeak, Semeiren semeak, Zisen semeak, Benjamingo tribukoak, amets bat egin zuen.

3. Zan Mardokeo Judua, Susango errian bizi zan, eta gizon altsu bat, eta erregearen jauregian lenenetatikoa izatera allegatu zan.

4. Eta zan Nabukodonosor Babiloniako erregeak, Jekonias Judako erregearekin Jerusalendik eraman zituen katibuetatikoa.

5. Eta bere ametsa au izan zan: iduritu zitzaion sentitzen zituela bozak, eta nasteak, eta turmoiak, eta lurrikarak, eta turbazioa lurraren gañean.

6. Eta agertu ziran bi dragoe txit andi, elkarren kontra gudatzeko prestatuak.

7. Zeñaen txistuetara erreñu guztiak mugitu ziran, justoen jendearen kontra gerran egiteko.

8. Eta illuntasunezko, eta irriskuzko, eta naigabezko, eta antsiazko, eta beldur andikoa izan zan egun hura lurrarentzat.

9. Justoen erreñua bere gaitzen beldurrez nastu zan, oroiturik illa izan bear zuela.

10. Eta deadarrez Jaungoikoari ots egin zioten, eta berak deadarrez ari ziradela, iturri txiki bat azi zan ibai txit andi egiteraño, zeñak ur askoakgatik gañez egin zuen.

11. Agertu ziran argi bat, eta eguzki bat, eta umillak izan ziran goratuak, eta iretsi zituzten argitsuak.

12. Mardokeok ikusketa au iduki zuenean, oetik jaikirik, jarri zan pensatzen, zer ote zan Jaungoikoak egin nai zuena; eta bere gogoan itsatsia zeukan ametsa, jakin nairik zer adirazten ote zuen.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta zegoan orduan erregearen jauregian Bagatha eta Thara erregearen txikiratuakin, zeñaen kontura zeuden jauregiko ateak.

2. Eta aditurik beren gogorazioak, eta begiraturik osoz beren asmazioai, ezagutu zuen, Artajerjes erregeari bizia kendu nairik zebiltzala, eta eman zion bere gañean gaztigua erregeari.

3. Zeñak azterturik biak, eta aitortzen zutela, agindu zuen, illak izatera eramateko.

4. Eta eskribatueraso zuen urteoroko berrietan irago zana, eta Mardokeok ere jarri zuen eskribuz gertaeraren oroipenerako.

5. Eta agindu zion erregeak, jauregian bizi zedilla, ordaindu ezkero salaketagatik.

6. Baña Aman Amadathi Bujearraren semea, zan erregearen kutuna, eta gaitz egin nai zien Mardokeori, eta bere erriari, illak izan ziran erregearen txikiratuakgatik, eta artu zituzten beren ondasun, edo atziendak. Eta au zan kartaren kopiak esaten zuena.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Artajerjes errege txit andi, Indiatik Etiopiaraño erreñatzen duenak, bere agintaritzaren mendean dauden eun eta ogeita zazpi probinziatako prinzipe eta gobernariai, Osasuna.

2. Idukirik nik erreñu askotako agintaritza, eta jarririk nere mendean lur guztia, ez det nai izan iñolaere nere eskubidearen anditasunaz gaizki usatu, baizik nere mendekoak erruki eta biguntasunarekin ongi gobernatu, atsedenez bizia iragorik, gizon guztiak opa duten pakea gozatu dezaten.

3. Eta galde eginik nik nere konsejariai, nola au iritsi nezakean, besteak baño jakintsuago eta leialago batek, eta erregearen ondoan bigarrena zanak, Aman zeritzanak,

4. Adirazi zidan, bazegoala erri bat lur guzitik zabaldua, lege berriakin gobernatzen zana, eta jende guzien oituraren kontra joanik, mespreziatzen zituena erregeen aginduak, eta bere asmazio besteenen kontrakoakin, erreñu guztietako elkartasuna galtzen zuena.

5. Aditu genduenean au, ikusirik erreñu bat dijoala mundu guztiaren kontra, dauzkala lege txit gaizto batzuek, eta gure aginteai kontra egiten diela, eta gure mendean dauden probinzietako pake eta elkartasuna galtzen duela,

6. Agindu degu, Amanek señalatzen dituen guztiak, zeñ dan probinzia guztietako begirale nagusia, erregeaz ostean bigarrena, eta aitaren lekuan onratzen deguna, bere etsaiak desegiñak izan ditezela, beren emazte eta semeakin batean, urte onetako Adar amabigarren illaren amalaugarren egunean, eta iñor ere ez dedilla berakin errukitu.

7. Egun bat batean gizon gaizkille oiek infernuetara jetxirik, gure erreñuari itzuli dizaioten, kendu zioten pakea. Eta Mardokes joan zan, eta Esterrek agindu zion guztia egin zuen.

8. Eta Mardokeok Jaunari otoiz egin zion, gogora ekarten ziozkala egin zituen mirari guztiak,

9. Eta esan zuen: Jauna, o Jaun errege guztiz altsua, gauza guztiak zure eskubidean daude, eta ez dago zure borondateari gogor egin dizaiokenik, Israel salbatzea erabaki badezu.

10. Zuk egin ziñituen zerua eta lurra, eta zeruaren inguruaren barrenen dagoan guztia.

11. Gauza guztien Jauna zera, eta ez dago zure anditasunari gogor egin dizaiokenik.

12. Guztia ezagutzen dezu, eta dakizu, Aman txit arroa ez adoratzea, ez dedala egin urgulleriaz, ez desdiñaz, ez gloriaren eresiaren batekin,

13. (Zeren Israel salbatzeagatik, prestatua egongo nintzake bere oñazpiai pozik muñ egiteko ere).

14. Baña ni beldur izan naiz, ematen gizon bati, nere Jaungoikoari zor zaion onra, eta nere Jaungoikoa baño besterik iñorere adoratzen.

15. Argatik orain, o Jauna, erregea, Abrahamen Jaungoikoa, errukitu zaite zure erriarekin, zeren gure etsaiak galdu nai gaituzte, eta zure herenzia nai dute desegin.

16. Ez ezazu mespreziatu zure herenzia, zuk Egiptotik erreskatatua.

17. Aditu itzatzu nere erreguak, eta agertu zatzakio errukior zure herenziatzat autu dezun erreñu bati, eta gure negarra pozera biurtu ezazu, bizi gerala, zure izena adoratu dezagun; eta ez itzatzu itxi, zure alabanzak kantatzen dituztenen aoak.

18. Israel guztiak ere deadarrez Jaunari otsegin zion, biotz bat batekin otoiz egiten zuela, ikusirik, guztiak ziertoro illak izan bear zutela.

AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Ester erreginа ere, izuturik aldean zegoan irriskuarekin, zuzendu zan Jaunagana.

2. Eta utzirik erregiñaren janziak, negar eta zizpuruai zegokioten soñeko bat artu zuen; eta era askotako okenduen lekuan, autsez eta likiskeriaz bere burua estali zuen, eta bere gorputza barauakin umillatu. Eta burutik ateratzen zituen illez betetzen zituen, len poztu oi zan toki guztiak.

3. Eta Israelko Jaun Jainkoari erregututzen zion, esaten zuela: O nere Jauna, zuk gure errege bakarra zeran orrek, lagundu zadazu arkitzen naizan bakartasunean, zeren ez daukat beste mesedegillerik zu baño.

4. Nere peligroa aldean da.

5. Nik aditu nion nere aitari kontatzen, nola zuk, o Jauna, autu zenduen Israel erreñu guztien artean, eta gure gurasoak beren anziñako guztien artean, izateko beti beren jabe zure herenzia bezela, eta eskeñi ziñien bezela, ala egin zenduen berakin.

6. Guk zure aurrean bekatu egin genduen, eta argatik gure etsaien eskuetan jarri ginduzun,

7. Beren Jaungoikoak adoratu giñituelako. Justoa zera Jauna.

8. Eta orain ez dute asko idukitzea gu katiberio txit gogor batekin menderatuak, baizik egotzirik beren idoloen eskubideari beren besoen sendotasuna,

9. Zure eskeñtzak desegin nai dituzte, eta zure herenzia ondatu, eta zu alabatzen zaituztenen aoak itxi, eta zure etxearen eta zure aldarearen gloria itzali,

10. Jentillen aoak idikitzeko, eta beren idoloen eskua alabatzeko, eta aragizko errege bat beti zelebratzeko.

11. Etzaiezute eman, o Jauna, zure zigorra, utsa diraden aiei, gure galmenagatik farra egin ez dezaten, baizik beren asmazioak beren kontra biurtu itzatzu, eta gu ain gogor persegitzen asi dan hura galdu ezazu.

12. Oroitu zaite, Jauna, gurekin, eta gure naigabeko denboran erakutsi zaitzaguzu, eta eman zadazu sendotasuna, o Jaun, jainkoen eta eskubide guztiaren erregea.

13. Jarri itzatzu nere aoan itz egokiak leoiaren aurrera noanean, eta bere biotza aldatu ezazu, gure etsaia gorrotatzera, galdu dedin au, eta bere gaiztakeriako lagun guztiak.

14. Eta libratu gaitzatzu zure eskuarekin, eta lagundu zadazu neri, o Jauna, zuk nere laguntasun bakarra zeran orrek, zuk gauza guztiak dakizkizun orrek,

15. Eta badakizu gaiztoen gloriari gorroto natzaiola, eta zirkunzidatu gabekoen, eta arrotz guztiaren oeari iguin natzaiola.

16. Zuk dakizu nere premiaren berri, eta gorrotatzen dedala arrokeriaren eta nere gloriaren señale, eramaten dedana nere buruaren gañean nere argitasuneko egunetan, eta iguin dedala illodoldunaren oiala bezela, eta beñere ez dedala ipintzen nere bakartadeko egunetan;

17. Amanen maiean ez dedala beñere jan, eta ez naizela ere gozatu erregearen bazkarietan, eta ez dedala ere edan libazioetako ardorik.

18. Eta zure serbitzaria, onara ekarria izan nintzan egunetik orain artean, beñere ez dala poztu, baizik zugan, Abrahamen Jaun Jainkoagan.

19. Jaungoiko sendoa guzien gañetik, aditu ezazu arren, beste itxedopenik batere ez duten aien boza, eta gaiztoen eskutik libratu gaitzatzu, eta nere beldurretik atera nazazu.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Eta bialdu zion esatera (duda gabe Mardokeo izango zan) erregearen aurrera joan zedilla, eta erregutu zizaiola bere erriagatik eta bere erreñuagatik.

2. Oroitu zaite, esan zion, izaera umillean arkitzen ziñan denborarekin, eta nola nere besoen artean azia izan ziñan, zeren Aman, erregearen ondoan bigarrenak, gure kontra itz egin du, bizitza kendu datzakigun.

3. Argatik zuk Jaunari ots egin zaiozu, eta erregeari gugatik itz egin zaiozu, eta eriotzatik libratu gaitzatzu.

4. Eta irugarren egunean, utzi zituen zeramazkien soñekoak, eta bere gloriakoakin apaindu zan.

5. Eta erregiña baten apaingarrien argitasunarekin distiatzen zala, ots egiten ziola Jaungoikoari, zeñ dan guztien gobernatzalle eta salbatzallea, bere neskameetatik bi artu zituen.

6. Eta bazijoan batari elduta, argaltasun andi eta indarrik ezagatik, gorputza oñen gañean iduki eziñik bezela.

7. Beste neskamea zijoan bere etxekoandrearen ostean, lurrean arrastaka zijoan falda zeramaiola.

8. Berak berriz bere arpegiko arrosa kolorearekin, eta bere begietako modu on, eta argitasunarekin, estalitzen zuen bere biotzeko tristeza, beldur txit andi batekin estutua.

9. Eta irago zituenean banan banan ate guztiak, allegatu zan erregearen aurrean jartzera, zeñ bere errege tronuan zegoan eseria, errege mantuarekin jantzia, urrez eta arri baliotsuz argi egiten zuela; eta bere begitartea beldurgarria zan.

10. Eta jasorik berak arpegia, eta erakutsirik bere begi erazekietan bere bularreko sumintasuna, erreginа desmaiatu zan, eta kolorea ubeltasunean aldaturik, etzin zuen bere buru nekatua neskamearen gañean.

11. Orduan Jaungoikoak aldatu zuen erregearen biotza, biguntasunera etzinerazitzen ziola; eta arin eta beldurturik, salto egin zuen tronutik, eta arturik Ester bere besartean beregandu zan artean, esaten ziozkan itz samur oiek:

12. Zer dezu Ester? Ni naz zure anaia, etzaite beldur izan.

13. Etzera ilko, zeren lege au etzan izan ipiñia zuretzat, baizik beste guztientzat.

14. Alderatu zaite bada, eta zetroari ukitu zaiozu.

15. Eta nola Ester ixillik zegoan, urrezko zetroa artu zuen, eta bere lepoaren gañean jarri zion, eta musu eman zion, eta esan zuen: Zergatik ez didazu itz egiten?

16. Berak erantzun zuen: ikusi zaitut, Jauna, Jaungoikoaren aingeru bat bezela, eta nere biotza ikaratu da zure anditasunaren beldurrez.

17. Zeren zu, Jauna, txit miragarria zera, eta zure arpegia graziaz betea dago.

18. Eta oraindikan izketan ari zala, berriz desmaiatu zan, eta gutxi falta zitzaion kordegabetua gelditzeko.

19. Eta erregea nastzen zan, eta bere ministro guztiak Ester konsolatzen zuten.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Artajerjes andi, Indiatik Etiopiarañoko erregeak, gure aginteari obeditzen dioten eun eta ogeita zazpi probinzietako gobernari eta prinzipeai, osasuna.

2. Asko, arrotzeko, prinzipeen ontasunaz, eta eman zaioten onraz, gaizkirako baliatu dira.

3. Eta ez bakarrik leiatzen dira erregeen mendekoak azpian sakatzen, baizik ez izanik diñak, eman zitzaien gloria oñean idukitzeko, dabiltza, eman ziotenen beren kontra saldukeriak egiteko asmazioetan.

4. Eta ez dirade aspertzen mesedeetara esker txarrekoak izateaz, ezta berakgan gizatasunaren eskubideak autsiteaz; baizik arrokeriaz uste ere dute iges egin dizaioketela, Jaungoiko guztia ikusten duenaren juizioari.

5. Eta erakeria ain andira allegatu ziran, non, beren gezurrezko asmazioakin desegin nai izan dituzte, eman zitzaiezten karguak txit ongi kunplitzen dituztenak, eta gauza guztietan portatzen diranak alako moduan, non, guztien alabantzen duiñ egiten diran,

6. Engañatzen dituztela beren arte eta astruzia ezkutukoakin, prinzipeen belarri ziñ eta tolesgabeko, berak bezelakoak diradela besteak uste dutenak.

7. Au egiztatzen da anziño berriakin, baitaere, egunoro gertatzen danarekin, nola erregeen borondate ona gaitzera biurtzen dan, batzuen konseju gaiztoakin.

8. Argatik artu bear dirade, probinzia guztiak pakean idukitzeko neurriak.

9. Ez dezute ere sinistu bear, lengo aginteen kontrakoak ematen baditugu, au datorrela gure buru ariñetik, baizik gure aginduak dirala, denboren izaera eta premiak eskatzen dituztenen araukoak, erreñuaren onerako egin bear dan bezela.

10. Eta argiroago aditu dezazuten esaten dizuguna, Aman Amadathiren seme, biotzez eta jatorriz Mazedoniarra, eta Persiarren odolik etzeukana, eta bere odolgirotasunarekin gure biguntasuna kutsutu zuena, izanik arrotza, artu genduen gugan.

11. Eta borondate ain ona erakutsi giñon, non, izan zan deitua gure aita, eta guztiak adoratua, erregearen ondoan bigarrena bezela.

12. Au bada arrotu zan urgulleria ain andiarekin, non, erreñua eta bizia kendu nai zigun.

13. Zeren Mardokeo, zeñaren leialtasun eta mesedez bizi geran, eta Ester gure erreñuko laguna, eta bere erreñu guztia, eskatu zituen illak izateko, asmazio berri eta iñoiz aditu gabeko batzuez baliatzen zala.

14. Zeukala gogoa, oiei bizia kendurik, eta gu bakarrik geldituta, gure biziari zelatadak jartzeko, eta Persiarren erreñuari Mazedoniarretara iragoerazitzeko.

15. Guk berriz ez degu arkitu kulparik txikienik ere juduen artean, zeñak zeuden, gizonik gaiztoenak eriotzara kondenatuak, baizik kontrara lege justoakin gobernatzen diradela;

16. Eta diradela Jaungoiko txit goratu, txit andi, eta beti bizi danaren semeak, zeñaen mesedez emana izan zitzaien gure gurasoai, eta guri erreñua, eta gaurko eguneraño gugan irautzen du.

17. Argatik jakin bear dezute, berak gure izenean bialdu zituen kartak utsa balio dutela.

18. Eta gaiztakeria augatik, ala asmatu zuena bera, nola bere aideera guztia, urkamendietan zinzilika daude, Susan erri onetako atetan; ez izanik gu, baizik Jaungoikoa, diña zana eman diona.

19. Eta orain bidaltzen degun aginte au, erri guztietan publikatuko da, bizi al ditezen juduak beren legeen araura.

20. Zeñai laguntasuna eman bear diezute, Adar deritzan amabigarren illaren amairugarren egunean, il ditzaketen, berak iltzeko prestatuak zeudenai.

21. Zeren Jaungoiko guztia dezakeanak, tristeza eta negarrezko egun au pozera aldatu zien.

22. Argatik zuek ere kontatu ezazute egun au jai andien artean, eta jostaketa mota guziarekin zelebratu ezazute, gerokoak ere jakin dezaten,

23. Persiarrai leialkiro obeditzen dieten guztiak, beren leialtasunaren diña dan ordaña artzen dutela, eta beren erreñuari zelatadak jartzen diozkatenak, beren erruz galtzen diradela.

24. Eta jai andi onetan partill izan nai ez duen probinzia eta erri guztia, suz eta odolez galdua izan dedilla, eta arrasatua izan dedilla alako moduan, non, betiko gelditu dedilla bertatik irago ezin lezakean izaeran, ez bakarrik gizonik, ezta abererik ere, mespreziatzalle eta desobeditzalleen eskarmenturako.

JOB SANTUAREN LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Bazan Husko lurrean gizon bat, Job zeritzana, eta zan gizon hura tolesgabea, eta zuzena, eta Jaungoikoaren beldurrekoa, eta gaitzetik alde egiten zuena.

2. Eta zazpi seme eta iru alaba jaio zitzaiozkan;

3. Eta zan zazpi milla ardi, eta iru milla gamelu, eta bosteun idi uztarri, eta bosteun astaemeren jabea, eta zeuzkan mirabe txit asko; eta gizon au zan andia eguzkiaren sortaldeko guztien artean.

4. Eta bere semeak biltzen ziran, eta egiten zituzten bazkariak beren etxeetan, bakoitzak bere egunean. Eta bialtzen zituzten beren iru arrebai otsegitera, berakin jan eta edan zezaten.

5. Eta iragotzen zanean bazkari egunen txanda, bialtzen zituen Jobek berai otsegitera, eta santututzen zituen, eta jaikirik goizean goiz, beretatiko bakoitzagatik holokaustoak eskeñtzen zituen. Zeren esaten zuen: Ez al dute nere semeak bekatu egin, eta beren biotzetatik Jaungoikoa bota. Ala egiten zuen Jobek egun guztietan.

6. Baña egun batean, etorririk Jaungoikoaren semeak Jaunaren aurrean egotera, Satanas ere beren artean arkitu zan.

7. Zeñi Jaunak esan zion: Nondik ator? Berak erantzun zuen, esaten zuela: Lurra inguratu det, eta guztitik ibilli naiz.

8. Eta Jaunak esan zion: Gelditu al aiz arretaz begira Job nere serbitzariari, ez zeagokala bere antzekorik lurrean, gizon tolesgabea, eta zuzena, eta Jaungoikoaren beldur dikana, eta gaitzetik alde egiten dikana?

9. Eta Satanasek erantzun, eta esan zuen: Job doan Jaungoikoaren beldur al da?

10. Ez al daukazu zuk alde guztietatik gordea gaitz guzitik, ala bera, nola bere etxea, eta bere atzienda guztia? Ez al dezu bota bendizioa bere eskuetako lanen gañera, zeñarekin ugaritu diran bere ondasunak lurrean?

11. Baña luzatu ezazu piskatxo bat zure eskua, eta jabe dan gauza guztiai ukitu zaiezu, eta ikusiko dezu nola mezpreziatzen zaituen arpegiz arpegi.

12. Jaunak bada Satanasi esan zion: Begira ezak, zeaukan guztia ire eskuan zeagokala, baña ez dek luzatuko ire eskua bere gorputzaren kontra. Eta Satanas Jaungoikoaren aurretik atera zan.

13. Eta egun batean bere seme eta alabak beren anaia lenbizisortuaren etxean jaten, eta ardoa edaten zeudela,

14. Etorri zan mandatari bat, eta esan zion: idiak arean ari ziran, eta astaemeak beren aldean zeuden bazkatzen,

15. Eta Sabeoarrak eraso bat egin dute, eta eraman dute guztia, eta morroiak ezpataz irago dituzte, eta nik bakarrik iges egin det, zuri berri au emateko.

16. Eta oraindikan au izketan ari zala, beste bat allegatu zan, eta esan zuen: Jaungoikoaren sua zerutikan erori da, eta ardiak eta artzaiak auts biurtu ditu, eta nik bakarrik iges egin det, berria zuri emateko.

17. Eta oraindikan au izketan ari zala, beste bat etorri zan, eta esan zuen: Kaldeoarrak iru taldetan jarririk, gameluen gañera erori dira, eta eraman dituzte, baita morroiak ere ezpataz irago dituzte, eta nik bakarrik iges egin det, zuri berria emateko.

18. Oraindikan hura izketan ari zan, eta ona non beste bat sartu zan, eta esan zuen: Zure seme eta alabak beren anaia lenbizisortuaren etxean jaten eta ardoa edaten zeudela,

19. Bat batetan eremuko aldetik aize bolada bat sortu da, eta etxearen lau aldeak oñetik atera ditu, eta bera erortzen zala, zure seme alabak lertu ditu, eta il dirade, eta nik bakarrik iges egin det zuri berria emateko.

20. Orduan Job jaiki zan, eta bere soñekoak urratu zituen, eta burua mozturik, eta Jaunaren egiñak adoraturik,

21. Esan zuen: Nere amaren sabeletik larrugorrian irten nintzan, eta larrugorrian ara itzuliko naiz. Jaunak eman zidan, eta Jaunak kendu dit. Jaunak nai izan duen bezela, ala egin da. Jaunaren izena bedeikatua izan bedi.

22. Gauza guzti oietan etzuen Jobek bere ezpañakin bekaturik egin, eta etzuen ere itz bidegabekorik Jaungoikoaren kontra esan.

BIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan, egun batean Jaungoikoaren semeak etortzea, eta Jaunaren aurrean agertzea, eta Satanas ere beren artean etorri zan, eta bere aurrean jarri zan.

2. Eta Jaunak Satanasi esan zion: Nondik ote ator i? Berak erantzun zuen: Lurra inguratu det, eta guztitik ibilli naiz.

3. Eta Jaunak Satanasi esan zion: Gelditu al aiz arretaz Job nere serbitzariari begira, ez zeagokala bere antzekorik lurrean, gizon tolesgabea, eta zuzena, eta Jaungoikoaren beldurrekoa, eta gaitzetik alde egiten dikana, eta oraindikan bere errugabetasunean irauten dikana? Ik berriz mugitu nauk bere kontra, diña izan gabe ansiatu nezakan.

4. Eta Satanasek erantzun zuen esaten zuela: Larruagatik larrua, eta daukan guztia emango du gizonak bere biziagatik.

5. Ezperen, zure eskua luzatu ezazu, eta bere ezurrai eta aragiari ukitu zaiezu, eta orduan ikusiko dezu nola arpegiz arpegi mezpreziatzen zaituen.

6. Jaunak bada Satanasi esan zion: Ona non ire eskuan zeagokan; baña kontu, bizirik utzi zaiok.

7. Onenbesterekin ateratzen zala Satanas Jaunaren aurretik, jarri zuen Job, oñaren azpitik buruaren tontorreraño zauri izugarri bat eginik;

8. Eta berak, zimaurtegi batean eseririk, arras kentzen zuen zorna tella zati batekin.

9. Eta bere emazteak esan zion: Oraindikan ere ire txotxakerietan ago? Bai bai, bedeikatu ezak Jaungoikoa, eta il adi.

10. Berak esan zion: Emakume gangar baten antzera mintzatu zera. Baldin Jaunaren eskutik onak artu baditugu, zergatik gaitzak ere artuko ez ditugu? itz guzti oietan etzuen Jobek bekaturik egin.

11. Joben iru adiskidek bada aditu zutenean nolako gaitz andiak gertatu zitzaiozkan, bakoitza bere lekutik etorri ziran. Elifas Temandik, Baldad Subatik, eta Sofar Naamat-tik: zeren erabaki zuten beren artean, elkarrekin bisitatzera etorri, eta bera gozatzea.

12. Eta urrutitikan begiak jaso zituztenean, etzuten ezagutu, eta aiezko deadarrak eginik, negarrari eman zioten, eta beren soñekoak urraturik, bota zuten autsa zerurontz beren buruen gañera.

13. Eta zazpi egunean, eta zazpi gauean egon ziran berarekin lurrean eseriak, eta etzion iñork itzik egiten: zeren ikusten zuten bere miñak txit biziak ziradela.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta oien ondoan, Jobek bere aoa idiki zuen, eta madarikatu zuen bere jaiotzako eguna:

2. Onela itz egiten zuela:

3. Zorigaitz, ni jaio nintzan eguna; eta gaua zeñean esan zan: Gizaseme bat sortua izan da.

4. Arren bada illuntasunera biurtuko al da egun hura, ez dezala Jaungoikoak goitik bere konturik iduki, eta ez dedilla izan argiz argitua.

5. Illuntasunak eta eriotzaren itzalak illundu bezate; laño zarratuak estali beza, eta mingoiztasunean nastua izan bedi.

6. Aize bunbada nastu illun bat erabilli beza gau artan; ez bedi bera urteko egunen artean aitatu, ez illen artean kontatu.

7. Gau hura izan bedi bakarra, eta ez alabantzaren diña.

8. Madarikatu bezate, eguna madarikatzen dutenak, Lebiatan esnatzeko gertuak daudenak.

9. Bere illuntasunarekin illundu bitez izarrak, argia itxadon beza, eta ez beza ikusi, ezta ere egunsentiko argi gora dijoana ere.

10. Ni eraman ninduen sabeleko ateak itxi etzituelako, eta nere begietatik gaitzak kendu etzituelako.

11. Zergatik emasabelean ez nintzan il, edo sabeletik irtenda bereala ez nintzan galdu?

12. Zergatik belaunetan artu ninduten? Zergatik alderatu ninduten bularrera titia artu nezan?

13. Zergatik ni orain lo egongo nintzan ixiltasunean; eta nere loan atsedengo nuen,

14. Lurreko errege eta andizki, toki bakarretan berentzat etxeak egiten dituztenakin batean,

15. Edo urrea montoitzen duten, eta beren etxeak zillarrez betetzen dituzten Prinzipeakin,

16. Edo aurgaldu, ezkutetan dutena bezela, ez nintzate bizirik egongo; edo sortuak izanik, argirik ikusi etzutenak bezela.

17. An bukatu zan gaiztoen ots andia, eta an atseden zuten indar nekatuak.

18. Eta an daude atsekaberik irago gabe, eta begirale gogorraren boza aditu gabe, beste denbora batean grilluakin elkarrekin zeudenak.

19. Txikia eta andia an daude; eta mendekoa, bere nagusiagandik irtenda.

20. Zergatik errukarriari argia emana izan zitzaion, eta bizia animako samintasunean daudenai?

21. Zeñak dauden eriotzearen zai, eta ez dator, tesoro baten billa aitzurrean ari diradenak bezela.

22. Eta txit poztzen dira, sepultura arkitzen dutenean.

23. Dabillan bidea ikusten ez duen bati, Jaungoikoak illuntasunez inguratu zuenari?

24. Jan baño lenago zizpuru egiten det, eta nere orroa, gañez egiten duten urak bezelakoa.

25. Zeren gertatu zat, beldur nintzana. Egiztatu dira nere errezeloak.

26. Ez al nuen ezjakiña egin? Ez al nintzan ixillik egon? Ez al nuen pazienziarekin irago? Eta alaere aserrea nere gañera etorri zan.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta Elifaz Temangoak erantzun zuen, esaten zuela:

2. Azten bagera zurekin izketan, menturaz gaizki artuko dezu; baña aora datozkion itzak, nork geldituko al ditu?

3. Zu ziñan len askori erakutsiak ematen ziñieztena, eta sendotu ziñituen naigabez azpiratuak zeudenak:

4. Zure itzak gogortu zituzten zalantzan zebiltzanak, eta eman ziñien sendotasuna, ikaraz zeuden belaunai.

5. Orain berriz etorri da zugana naigabea, eta erori zera, ukitu dizu, eta nastu zera.

6. Non da zure beldurra, zure sendotasuna, zure pazienzia, eta zure bideen perfekzioa?

7. Erregututzen dizut, arren begiratu dezazula arretaz. Zeñ kulpa gabeko galdu da iñoiz? Edo justoak noiz deseginak izan dira?

8. Kontrara ikusi dedana da, eta penak ereitzen dituztenak, eta berak igitaitzen dituztenak,

9. Jaungoikoaren asnasarekin galduak izan dirala, eta desegiñak izan dirala bere aserrearen espirituaz.

10. Eta leoearen orroa, eta leoeemearen (sic) boza, eta leoekumetxoen ortzak izan ziran desegiñak.

11. Katamotza galdu zan, zer arrapatu etzuelako, eta leoetxoak bakoitza bere aldetik joan ziran.

12. Egiaz itz estali bat neri esana izan zat, eta nere belarriak bere burrunbaren zatitxo bat aditu zuen.

13. Gaueko ikusketa baten izuan, lo gogor batek gizonak artzen dituenean,

14. Beldurrez eta ikaraz jarri nintzan, eta nere ezur guztiak dardaratu ziran;

15. Eta espiritu bat nere aurretik iragotzen zala, nere aragiko illeak laztu zitzazkidan.

16. Aurrean gelditu zitzadan bat, zeñaen arpegia ez nuen ezagutzen; irudi bat nere begien aurrean, eta aditu nuen aizetxo bigun batena bezelako boz bat.

17. Gizon bat, Jaungoikoarekin konparatuta, izango ote da justotzat idukia, edo sinistu ote lezake, bere Egillea baño garbiagoa dala?

18. Begira ezazu, bera serbitu dutenak ez dirala izan sendoak, eta bere aingeruetan gaiztakeria arkitu zuela.

19. Zenbat geiago buztiñazko etxeetan bizi diranak, eta lurrezko zimendua daukatenak, izango dira desegiñak sitsaz bezela?

20. Goizetik arratsaldera izango dira ebakiak, eta nola ez dituen iñork arretaz gogoan erabiltzen, betiko galduko dira.

21. Eta gelditzen diran gañerakoak, izango dirade berakgandik arrapatuak. Beren erakerian ilko dira.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Ots egin ezazu bada, nork erantzunik baldin badago, eta santuren batgana itzuli zaite.

2. Egiaz eroa aserreak iltzen du, eta aurra ondamuak.

3. Nik ikusi nuen eroa sustrai sendoakin, eta bereala madarikatu nuen bere edertasuna.

4. Bere semeak osasunetik urrutian egongo dira, eta ateetan zapalduak izango dira, eta ez da egongo nork lagundu dizaioten.

5. Bere uztak goseti batek jango ditu, eta armarekin dagoan batek bera arrapatuko du, eta egarriz daudenak edango dituzte bere ondasunak.

6. Ez da lurrean ezer egiten motibo gabe, eta lurretik ez da jaiotzen pena.

7. Gizona lanerako jaiotzen da, eta egaztia egan egiteko.

8. Argatik nik Jaunari erregutuko diot, eta nere itza Jaungoikoagana itzuliko da.

9. Berak egiten ditu gauza andiak, eta jakiñezinak, eta miragarriak zenbatik gabe.

10. Berak isurtzen du euria lurraren gañera, eta guztia bere urakin urtutzen du.

11. Berak jartzen ditu goian umillak, eta tristeak jasotzen ditu osasunarekin.

12. Berak utsera biurtzen ditu gaiztoen gogorazioak, beren eskuak ez ditzaten kunplitu asi zutena.

13. Berak arrapatzen ditu jakintsuak beren astruzian, eta utsera botatzen ditu gaiztoen asmazioak.

14. Egunaz arkituko dira illuntasunetan, eta egunaren erdian ibilliko dira itsumuka gauaz bezela.

15. Berak berriz salbatuko du beartsua beren aoko ezpatatik, eta pobrea aserretsuaren eskutik.

16. Eta izango da itxedopena premiatsuarentzat, eta gaiztakeriak estutuko du bere aoa.

17. Doatsua Jaungoikoak zuzentzen duen gizona, ez egizu bada txartzat iduki Jaunaren zuzenbidea.

18. Zeren berak egiten du zauria, eta ematen du sendagarria. Zauritzen, eta sendatzen du bere eskuakin.

19. Sei naigabeetatik libratuko zaitu, eta zazpigarrenean ez dizu gaitzak ukiturik egingo.

20. Gosetean libratuko zaitu eriotzatik, eta gerratean ezpataren eskutik.

21. Egongo zera estalia mingañaren azotetik, eta etzera zorigaitzaren beldur izango, etortzen danean.

22. Galmenean eta gosetean farraz egongo zera, eta etzera lurreko pistien beldur izango.

23. Kanpoetako arriakin ere zure elkartasuna idukiko dezu, eta lurreko pistiak zuretzat paketsuak izango dira.

24. Eta ikusiko dezu pakeak erreñatzen duela zure bizilekuan; eta ez dezu utsik egingo zure etxea gobernatzean.

25. Jakingo ere dezu zure jatorria ugarituko dala, eta zure seme alabak lurreko belarra bezela.

26. Sartuko zera ugaritasunarekin sepulturan; sartzen dan bezela gari montoia bere denboran.

27. Begira, adirazi deguna ala dala, esan degun bezela, beren gañean pensatu, eta gogoan erabilli ezazu zure artean.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta erantzuten zuela Jobek, esan zuen:

2. Arren bada pisatuko balirade pisu batean nere bekatuak, zeñakin kastiguaren diña egin naizan, eta iragotzen nagoan naigabea.

3. Ikusiko litzate, nere naigabea dala astunagoa, itsasoko ondarra bezela, argatik nere itzak ere miñez beteak daudela,

4. Zeren nigan daude Jaunaren saietak, zeñaen aserreak estututzen duen nere espiritua, eta Jaunaren izuak ari dira gudan nere kontra.

5. Basastoak arrantza egingo al du belarra daukanean? Edo orroa egingo du idiak ganbela betearen aurrean dagoanean?

6. Edo jan al dezake jaki geza, gatzarekin ipiñia ez dagoena? Edo gustatu al dezake iñork, gustatuta eriotza ematen duena?

7. Nere animak len ukitu nai etzien gauzak, dira orain nagoan estutasunagatik nere janaria.

8. Nork eman lezan kunplitu dedilla nere eskaria, eta Jaungoikoak eman dizadala itxedotzen dedana?

9. Eta asi zuenak, berak zeatu nazala: bere eskua askatu dezala, eta ebaki nazala?

10. Eta nere poza izango litzake, neri parkatu gabe, penaz ni atsekabetuaz joango balitza, eta ni ere ez nintzate joango santuaren erabakien kontra.

11. Zeren nolakoak dira nere indarrak, gaitz ain andiak eraman al izateko? Edo noiz bukatuko dira nere penak, pazienzia idukitzeko?

12. Ez da nere sendotasuna aitzena bezelakoa, eta nere aragia ere ez da bronzezkoa.

13. Begira nola nik nerez ezin egin dezakedan neretzat ezerere, eta nere aiderañokoak ere alde egin duten nigandik.

14. Bere adiskideagandik urrikalmendua apartatzen duenak, utziten dio Jaungoikoaren beldurrari.

15. Nere anaiak irago ziran nere aldetik neri kasorikan egin gabe, ibarretatik arin dijoan ugolde bat bezela.

16. Inziarraren beldur diranen gañera, eroriko da ugari elurra.

17. Desegiñak diraden orduan, galduko dira, eta bero egiten asten danetik bereala, urtuko dira.

18. Bere pausoen bidetxigorrak ingurumaitsuak dira, geldituko dira utsera biurtuta, eta galduko dira.

19. Arretaz gogoan iduki itzatzute Temako bidetxigorrak, Sabako bideak, eta piskatxo bat itxedon ezazute.

20. Lotsatu dira, ikusirik nere itxedopena. Etorri ere dira nere aldera, eta gelditu dira lotsaz beteak.

21. Orain etorri zerate, eta ikusirik orain nere zauria, beldur zerate.

22. Esan al det nik: Ekarri, eta eman zazkidazute zuen ondasunak?

23. Edo, libratu nazazute etsaiaren eskutik, eta sendoen eskutik atera nazazute?

24. Erakutsi zadazute, eta ni ixillik egongo naiz. Eta baldin zerbaiten ezjakiñean egon banaiz, argitu nazazute.

25. Zergatik egiazko itzai kontra egin diezute, ez dagoan ezkero zuen artean iñor, nere itzai kontra egin dizaiokenik?

26. Bakarrik apaintzen dituzute izketak neri gaizki esateko, baña alperrik itz egiten dezute.

27. Umezurtz bati erasotzen diezute, eta zuen adiskidea galtzeko leiatzen zerate.

28. Alaere bukatu ezazute asi dezutena. Kontuan zaudete, eta ikusi ezazute gezurrik esaten ote dedan.

29. Erregututzen dizutet erantzun zadazutela leia gabe, eta eman ezazute erabakia justiziaren araura.

30. Eta ez dezute gaiztakeriarik nere mingañean arkituko, eta ez dezute ere nere aotik erakeriarik adituko.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Gizonaren bizia lurraren gañean betiko gerra bat da; eta bere egunak, langille batenak bezelakoak dira.

2. Nola mendekoak itzala nai duen, eta nola langilleak bere lanaren atzena itxedotzen duen,

3. Ala nik ere atseden gabeko illak irago ditut, eta gau nekatsuak kontatzen nago.

4. Lotara banoa, esaten det: Noiz jaikiko ote naiz? Eta berriz arratsaldea itxedongo det, eta penaz beteko naiz gaberaño.

5. Nere aragia zornaz, eta autsaren zikinkeriaz janzi da, nere larrua leortu da, eta zimurtu.

6. Nere egunak euleak euna ebakitzen duen baño ariñago irago dira, eta joan dira itxedopenik batere gabe.

7. Oroitu zaite nere bizia aizea dala, eta nere begiak ez duela berriz ikusiko zoriontasuna.

8. Ez naute ere berriz ikusiko gizonen begiak, zuk ezarri dezu nigana begirakune bat, eta onezkero ezin iraun nezake.

9. Nola odei bat desegiten dan, eta dijoan, ala sepulturara jetxitzen dena ez da igoko,

10. Eta ez da ere berriz bere etxera itzuliko, eta ez du ere zegoan tokiak geiago ezagutuko.

11. Argatik nik askatuko det nere mingaña; nere espirituaren antsiaren gañean itz egingo det; eta nere animako samintasunaren gañean izketan ariko naiz.

12. Itsasoa, edo balia al naiz ni, karzela batean sartua iduki nazazun?

13. Nik esaten badet: Jarririk nere oean gozotasuna arkituko det, eta nere oean obetasuna idukiko det, nerekin itz egiten dedala,

14. Ametsakin ikaratuko nazu, eta dardaratuko nazu ikusketa izugarriakin.

15. Argatik nere animak urkamendia autu zuen, eta nere ezurrak eriotza.

16. Geiago bizi al izateko itxedopena galdu nuen. Parkatu zadazu, zeren nere egunak utsa dira.

17. Zer da gizona, zuk ain andi bera egiteko? Edo zergatik jartzen dezu zure biotza bere gañean?

18. Bisitatzen dezu egunsentiaren asieran, eta bereala ansiatzen dezu.

19. Noizarteraño ukatuko didazu zure errukia, utziten ez didazula nere txistua iresten bederik?

20. Bekatu egin det, zer egingo det zurekin, o gizonen gordetzallea? Zergatik jarri nazu zure etsaia, eta egin nazu astuna neronentzat?

21. Zergatik ez dezu kentzen nere bekatua, eta zergatik ez diozu aldeerazitzen nere gaiztakeriari? Ona non ni orain autsean lo egitera noan, eta biar goizean billatzen banazu, ez naiz ni izango munduan.

ZORTIGARREN KAPITULUA

1. Eta asirik orduan izketan Baldad Suhakoa, esan zuen:

2. Noizarteraño itz egingo dezu orrela, eta izango dira aize bunbada bat bezelakoak zure aoko itzak?

3. Jaungoikoak biurritzen al du juizioa? Edo guztia- dezakeanak goibetzen al du justizia?

4. Zure semeak bere kontra bekatu egin badute ere, eta beren gaiztakeriaren eskuan utzi baditu ere,

5. Zu laster Jaungoikoagana zuzentzen bazera, eta umiltasunarekin guztiadezakeanari erregututzen badiozu;

6. Bizi bazera aurrerontzean garbi eta zuzen, bereala itzuliko ditu zugana begiak, eta paketsua egingo du zure justiziako bizilekua.

7. Ainbesteraño non, zure asierak txikiak izan baziran, zure atzenak asko aziko dira.

8. Bestela galde zaiezu irago diran gizaldiai, eta arretaz aztertu ezazu gurasoen oroipena.

9. (Zeren gu atzokoak gera, eta ez dakigu; zeren gure egunak dijoaz lurraren gañean itzala bezela.)

10. Zeren berak erakutsiko dizute, itz egingo dizute, eta beren biotzetik aterako dituzte itzak.

11. I batek iraun al dezake berderik ezetasun gabe? edo azi al diteke ugarriza ur gabe?

12. Oraindikan loran dagoala, eskuk ukitu gabe, leortzen da beste belarrak baño lenago.

13. Alakoa da Jaungoikoarekin aztutzen diraden guztien izaera; eta ala utsean geldituko da hipokritaren itxedopena.

14. Bere gogokoa ere ez da izango bere erakeria; eta bere itxedopena desegingo da amama bezela.

15. Bere etxearen kontra zutik egon naiko da, eta ondatuko da. Zurak jarriko diozka idukitzeko, baña ez da zuzen geldituko

16. Dirudi ezetua, eguzkia etorri baño lenago, eta bere jaiokeran bere muskilla irtengo da.

17. Bere sustraiak ugaritzen dira arritzetatik, eta bera bizi da aitzen erdian.

18. Baldin iñork bere tokitik ateratzen badu, ez du bera ezagutuko, eta esango du: Etzaitut ezagutzen.

19. Bere bidearen poza alakoa da, non, berriz beste batzuek erneko dira lurretik.

20. Jaungoikoak ez du gizon ona utziten, eta ez die ere bere eskua luzatzen gaiztoai.

21. Egunen batean zure aoak farraz gañez egingo du, eta pozez zure ezpañak.

22. Orduan gorrotatzen zaituztenak lotsariz beteak izango dira, eta gaiztoen bizilekuak ez du iraungo.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Eta erantzuten zuela Jobek, esan zuen:

2. Nik dakit egiaz ala dala, eta ez dagoala gizon justorik Jaungoikoarekin konparatzen bada.

3. Nai balu berari kontuak artzen asi, ezin erantzungo dio milla gauzatatik bati.

4. Bera da biotzez jakintsua, eta sendoa, eta almentsua. Nork iduki zuen pakerik, berari arpegi eman ezkero?

5. Berak alde erazitzen die mendiai batetik bestera, eta berak igarri ere gabe, bere sumintasunak azpiratuak dira.

6. Berak mugitzen du lurra bere tokitik, eta bere abeak dardaratzen dira.

7. Berak agintzen dio eguzkiari, eta ez da irtetzen, eta itxitzen ditu sartuta izarrak silluaren azpian bezela.

8. Berak bakarrik zabaldu zituen zeruak, eta bera bakarrik dabil itsasoko bagen gañean.

9. Berak egin zuen norteizarra, eta oriona, eta urizarrak eta egoealdeko tokirik ezkutuenak.

10. Berak egiten ditu, ezin kontatu adiña gauza andi, adituezin, eta miragarri.

11. Etorriko balitza nigana, ez det ikusiko: alde egiten badu, ez det ezagutuko.

12. Batbatean galdetuko balu, nork erantzungo dio? Edo nork esan dizaioke: Zergatik egiten dezu au?

13. Bera da Jaungoikoa, zeñaen aserreari ezin iñork arpegi eman dizaiokean, eta zeñaen azpian makurtzen diran mundua beren gañean daramatenak.

14. Zeñ naiz bada ni berari erantzuteko, eta nere itzakin berari itz egiteko?

15. Eta justiziaren piska bat baneuka ere, ez det erantzungo, baizik nere juezari erregutuko diot.

16. Eta adituko banindu ere otsegiten diodanean, ez det sinistzen nere boza aditu duela.

17. Zeren aize bunbada batekin desegingo nau, eta ugarituko ditu nere zauriak, zergatik dan esan gabe.

18. Ez dio atsedenik ematen nere espirituari, eta samintasunez betetzen nau.

19. Sendotasuna billatzen bada, txit sendoa da. Billatzen bada zuzentasuna juzgatzean, ez da atrebitzen iñor nere alde itz egiten.

20. Justotu nai baldin banintzake, nere aoak kondenatuko nau. Kulpa gabea erakutsiko banintzake, berak adiraziko du gaiztoa naizala.

21. Kulpa gabea banintza ere, au bera ez du nere animak jakingo, eta nere bizia nazkagarria izango zat.

22. Gauza bakar bat esan det, eta da, berak desegiten dituela ala ona, nola gaiztoa.

23. Azotatzen nauen ezkero, il nazala batbatean, eta ez dezala kulpa gabekoen penaen farrarikan egin.

24. Lurra jarria dago gaiztoen eskuetan, zeñak estaltzen dituen bere juezen begiak. Eta bera ez bada, zeñ da bada?

25. Nere egunak joan ziran posta bat baño ariñago, iges egin zuten gauza onik ikusi gabe.

26. Irago ziran, frutaz beteriko ontziak bezela, bere janariagana egan dijoan agila bezela.

27. Esango banu: Ez det onezkero onela itz egingo, aldatzen det nere arpegia, eta penak oñazkatzen nau.

28. Nere obra guztien beldurra neukan nik, jakinik ez diozula zuk barkatzen gaizgilleari.

29. Eta onela ere gaizto bat banaiz, zergatik nekatu naiz alperrik?

30. Garbituko banintza ere elurraren urakin bezela, eta nere eskuak garbienak bezela distiatuko balira,

31. Alaere loikeriakin zikinduko nazu, eta nere soñekoak nazka idukiko lidakete.

32. Zeren ez da nere antzeko gizon bat, erantzungo diodana, ezta nerekin berdiñean juizioan aditua izan ditekeana ere.

33. Ez dago bataren, eta bestearen juez izan ditekeanik, ez bere eskua jarri dezakeanik bioen artean.

34. Alde dezala nigandik bere zigorra, eta bere beldurrak ez nazala ikaratu.

35. Itz egingo det, eta ez naiz bere beldur izango, zeren beldurrez egon ezkero, ezin erantzun nezake.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Nazka ematen dit onezkero biziteak, asiko naiz izketan nere kontra, itz egingo det nere animako samintasunarekin.

2. Esango diot Jaungoikoari: Ez nazazu kondenatu. Erakutsi zadazu zergatik onela juzgatzen nazun.

3. Ongi al deritzazu gaiztoz gezurrak asmatu dizazkidazula, eta lertu nazazula, izanik ni zure eskuetako obra, eta gaiztoen gogorazioari lagundu dizaiozula?

4. Aragizko begiak al dauzkazu, edo gizonak gauzai begiratzen dien bezela, zuk ere ala begiratzen al diezu?

5. Zure egunak gizonaren egunak bezelakoak al dirade, eta zure urteak gizadenborak bezelakoak,

6. Nere gaiztakeriaren billa ibilli zaitezen, eta nere bekatuak jakiten?

7. Jakinik ez dedala nik gaiztakeriarik batere egin, eta ez dagoela iñor ere zure eskuetatik atera nazakenik.

8. Zure eskuak egin ninduten, eta formatu ninduten guziau ingurumaian. Eta onela ain laster amilka bota nai al nazu?

9. Erregututzen dizut arren oroitu zaitezela buztiña bezela egin ninduzula, eta auts biurtuko nazula.

10. Ez al ninduzun exprimitu esnea bezela, eta gatzatu gazta bezela?

11. Larruz eta aragiz jantzi ninduzun, eta ezurrez eta nerbioz maneratu ninduzun.

12. Eman ziñidan bizitza, eta egin zenduen urrikalmendua nerekin; eta zure laguntasunak iraunerazi dio nere espirituari.

13. Gauza oiek zure biotzean estalitzen badituzu ere, nik ongi dakit guztiak gogoan dauzkazula.

14. Bekatu egin banuen, eta ordu artan barkatu baziñidan, zergatik ez dezu utziten nere gaiztakeriatik garbi egon nadilla?

15. Eta baldin gaizto bat banintza, ai ene! eta justoa banaiz, ez det burua altxatuko, naigabe eta doakabez asetu onek.

16. Eta nere urgulleriagatik eizean arrapatuko nazu leoiemea bezela, eta berriz oñazkatuko nazu era izugarri batean.

17. Berriz ekarriko dituzu lekukoak nere kontra, eta ugarituko dezu zure aserrea nere kontra, eta penaen talde batek erasoa arkituko naiz.

18. Zergatik emasabeletik atera ninduzun? Arren bada galdu banintza, begik ikusi ninzan baño lenago.

19. Izango nintzan, izan ez banintza bezela, sabeletik sepulturara aldatua.

20. Nere egun laburrak ez al dirade laster bukatuko? Utzi nazazu bada, negar puska bat egin dezadan nere miñagatik;

21. Joan nadin baño lenago ara, nondik itzuliko ez naizan, lur illun, eta eriotzaren itzalez estalitako artara,

22. Doakabetasun eta illuntasunetako lurrera, non dagoan egotez eriotzaren itzala, eta non guztia dagoan manera gabe, eta betiko izu batean.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Eta erantzuten zuela Sofar Naamatkoak esan zuen:

2. Itz asko esaten duenak, ez al du adituko ere? Edo askoko ote du gizonak erausle andia izatea justotutzeko?

3. Zugatik bakarrik isillik egongo ote dira gañerako gizonak? Eta zuk besteai irri egin ezkero, ez al da izango zu lotsatuko zaituenik?

4. Zeren zuk esan dezu: Garbia da nere izketa, eta garbia nago zure aurrean.

5. Eta arren bada Jaungoikoak itz egingo balizu, eta idikiko balitu bere ezpañak zurekin itz egiteko,

6. Eta bere jakinduriako ezkutuak zuri erakusteko, eta bere legea era askotakoa dala, eta aditu dezazula, askozaz gutxiago dala berak ematen dizun kastigua, zure gaiztakeriak merezi duena baño.

7. Jarraituko al diezu Jaungoikoaren oñatzai, eta arkituko al dezu osotoro Guztiadezakeana?

8. Zerua baño altuagoa da, eta zer egingo dezu? infernua baño sakonagoa, eta nola ezagutuko dezu?

9. Bere neurria lurra baño luzeago, eta itsasoa baño zabalagoa da.

10. Gauza guztiak goibetuko balitu, edo estutu gauza bakar batean, nork gogor egingo dio?

11. Zeren berak ezagutzen du gizonen arrokeria, eta ikusirik gaiztakeria, ez al du kontuan jartzen?

12. Gizon arroa altxatzen da urgulleriara, eta uste du libre jaioa dala basa astokumea bezela.

13. Zuk berriz zure biotza gogortu dezu, eta zure eskuak Jaunaganontz jasoten dituzu.

14. Alde eraziko baziñio zugandik zure eskuan dagoen gaiztakeriari, eta injustizia zure bizilekuan egotez arkituko ez balitza,

15. Orduan bai, mantxa guztitik garbi egonik, altxatuko al dezula zure arpegia, eta iraun sendo ta beldurrik batere gabetanik;

16. Orobat aztuko zera zure doakabetasunarekin, eta berarekin oroituko zera, irago ziran urakin bezela.

17. Eta zure gañean arratsaldean jaikiko da argitasun bat eguerdikoa bezelakoa, eta uste dezunean desegiña zaudela, jaikiko zera egunsentiko izarra bezala.

18. Eta idukiko dezu konfianza, zuri proponitutako itxedopenean, eta izanik obiratua beldur gabe lo egingo dezu.

19. Atsedengo zera, eta ez da izango beldurtu zaitzanik; eta txit asko joango dira zugana eskariakin.

20. Gaiztoen begiak berriz litxigatuko dira, eta ez da berentzat igestokirik egongo, eta beren itxedopena izango da animaren nazka.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta erantzuten zuela Jobek esan zuen:

2. Beraz zuek bakarrik zerate gizonak, eta zuekin ilko da jakinduria?

3. Bada nik ere badet zentzua, zuek bezela, eta ez naiz zuek baño gutxiago; zeren zuek dakizuten ori, nork ez daki?

4. Bere adiskideak isekatua danak, ni bezela, Jaungoikoari ots egingo dio, eta aditua izango da: zeren justoaren tolesgabetasuna isekatua dan.

5. argizuzi mezpreziatua aberatsen gogorazioetan, denbora izendaturako gertutua.

6. Lapurren etxeetan ondasunak ugari daude, eta berak lotsagabekiro Jaungoikoari aup egiten diote, bera izanik gauza guztiak beren eskuetan jarri zituena.

7. Galde zaiezu bada abereai, eta irakatsiko dizute, zeruko egaztiai, eta erakutsiko dizute.

8. Lurrari itz egin zaiozu, eta erantzungo dizu, eta itsasoko arraiak kontatuko dizute.

9. Nork ez daki, gauza guzti oiek Jaunaren eskuak egin zituela?

10. Bere eskuan dauka bizilari guztiaren anima, eta gizonaren aragi guztiaren espiritua.

11. Ez al da belarria distingitzen dituena itzak; eta jaten duenaren mingaña, saboreak?

12. Zarretan dago jakinduria, eta edade luzean zentzua.

13. Beragan daude jakinduria eta sendotasuna, berak dauzka konsejua eta adiera.

14. Desegiten badu, ez dago iñor egin dezakenik. Gizon bat itxian jartzen badu, ez dago idiki dizaiokenik.

15. Gelditzen baditu urak, guztia leortuko da; eta utziten badie joaten, nastuko dute lurra.

16. Beragan daude sendotasuna, eta jakinduria. Berak ezagutzen ditu engañatzen duena, eta engañatua dana.

17. Daramazki konsejariak atzen ero batera, eta juezak zentzu eta adieragabetasunera.

18. Kentzen die banda erregeai, eta sokaz lotzen ditu beren gerriak.

19. Eramaten ditu apaizak gloria gabe, eta andizkiak lurrera botatzen ditu.

20. Aldatzen du egia esaten dutenen ezpaña, eta zarren dotrina kentzen du.

21. Prinzipeen gañera mezprezioa isuritzen du, berriz jasotzen dituela menderatuak izan ziranak.

22. Berak agertzen ditu illuntasunik sakonenean daudenak, eta eriotzaren itzala argitara ateratzen du.

23. Berak ugaritzen ditu erreñuak, eta desegiten ditu, eta nastu ezkero, beren lenbiziko izaerara itzultzen ditu.

24. Berak aldatzen du lurreko erriko prinzipeen biotza, eta engañatzen ditu, alperrik ibilli ditezen biderik ez dagoan tokitik.

25. Ibilliko dira itsumakillaz illunpetan baleude bezela, eta ez argitan, eta utseraziko diote orduak bezela.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Ona non nere begiak gauza guzti oiek ikusi dituen, eta nere belarriak entzun dituen, eta guztiak aditu ditut.

2. Zuek dakizutena, nik ere badakit, eta zuek baño gutxiago ez naiz.

3. Alaere Guzialdunari itz egingo diot, eta Jaungoikoarekin disputatu nai det.

4. Lenago ikusi erazirik, gezur asmatzalle, eta siniste gaiztoen jarraile batzuek zeratela.

5. Eta arren bada isillik egongo baziñate, jakintsutzat idukiak izan zindezten.

6. Aditu itzatzute bada nere itz, zuenen kontrakoak, eta begiratu zaiozute nere ezpanetako erabakiari.

7. Zuen gezurren bear al da, Jaungoikoa, bere alde engañuz itz egin dezazuten?

8. Jaungoikoaren arpegiaren beldur al zerate, eta argatik leiatzen zerate bere alde erabakia ematen?

9. Edo izango al da au, ezerere ezin ezkutatu al zaion aren gogokoa? Edo engañatua izango al da gizon bat bezela zuen losentxakin?

10. Berak kondenatuko zaituzte, zeren ezkutuan bere alde jartzen zerate.

11. Mugitzen daneko, ikaratuko zaituzte, eta bere izuak erasoko dizute, erortzeko zuen gañera.

12. Zuen oroipena autsaz iduritua izango da, eta zuen buruak basatsa biurtuak izango dirade.

13. Piska batean isillik zaudete, gogora datorkidan guztia esan dezadan.

14. Zertarako zatituko ditut nere aragiak nere ortzakin, eta erabilliko det nere anima eskuetan?

15. Berak ilko banindu ere, beragan itxedongo det, baña alaere salatuko ditut bere aurrean nere bideak.

16. Eta bera izango da nere salbatzallea, zeren ez da agertuko bere aurrean hipokritarik batere.

17. Aditu itzatzute nere arrazoeak, eta alderatu itzatzute zuen belarriak nere izketa nastuetara.

18. Juzgatua banaiz, badakit justoa arkituko naizala.

19. Zeñ da nerekin juzizioan sartu nai duena? Betor. Zergatik isillik litxigatuko naiz?

20. Bi gauza bederik ez itzatzu nerekin egin, eta orduan ez naiz ezkutatuko zure arpegitik.

21. Urrutiratu ezazu zure eskua nigandik, eta zure izuak ez nazala ikaratu.

22. Otsegin zadazu, eta erantzungo dizut, edo bestela nik itz egingo det, eta zuk erantzun zadazu.

23. Erakutsi zadazu zenbat gaiztakeria eta bekatu daukadan; zeñ diran nere okerregiñak, eta kulpak.

24. Zergatik ezkutatzen dezu zure arpegia, eta uste dezu zure etsaia naizala?

25. Aizeak daraman orbel baten kontra agertzen dezu zure eskubidea, eta lasto igar bat persegitzen dezu,

26. Eskribitzen dituzun ezkero nere kontra samintasunak, eta desegin nai nazu nere gazte denborako bekatuakgatik.

27. Zepo batean jarri dituzu nere oñak, eta nere egite guziai begira egon zera, eta nere oñen aztarnetan arretaz pensatzen egon zera:

28. Izanik ni, zorna bezela desegiña izango naizana, eta sitsak jana dan soñekoa bezela.

AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Emakumeagandik jaiorik gizona, denbora laburrean bizi da, eta doakabe askoz betetzen da.

2. Bera ateratzen da lore bat bezela, eta da mastrikatua; itzala bezela iges egiten du, eta ez dirau iñoiz izaera batean.

3. Eta zure diña dala uste al dezu, onelako izate baten gañean zure begiak idikitzea, eta ekartzea bera juiziora zurekin?

4. Nork garbi jarri dezake, azi zikindutik sortua izan dana? Nork zuk bakarrik baizik?

5. Gizonaren egunak laburrak dira, bere illen zenbata zugan dago. Jarri ziñituen bere muga, iragoak ezin izango diradenak.

6. Alde egin ezazu beragandik piskatxo bat, atseden dezan, allegatu dedin artean berak opa duen eguna, langillearena bezela.

7. Zuaitz batek itxedopena badu, ebakia baldin bada, berriz berdetzen da, eta bere erramak moteatzen dira.

8. Bere sustraiak lurrean zartuak egon arren, eta bere ondoa autsean illa,

9. Uraren usaiera birterneko da, eta botako ditu erramak, lenbiziko aldiz ipiñia izan zanean bezela.

10. Baña gizona bein il ezkero; eta izanik aragigabetua, eta desegiña, esan zadazu arren, non dago?

11. Nola itsasoko urak alde egingo balute, eta agortu ibaiak geldituko litzatekean leortuak;

12. Ala gizona iltzen danean, ez da berriz biztuko: zerua desegiña izan dedin artean, ez da iratzartuko, eta ez da ere bere lotatik jaikiko.

13. Nork eman lezakedan infernuan estali nazazula, eta ezkutatu, zure aserrea irago dedin arteraño, eta izendatu dizadazula, nerekin oroitzeko denbora?

14. Uste al dezu il ezkero gizona, berriz biztuko dala? Nere soldadutza onetako egun guztietan nago zai, nere aldakuntza allegatu artean.

15. Ots egingo didazu, eta nik erantzungo dizut: zure eskuen obrari eskuiea luzatuko diozu.

16. Zuk egiaz kontatuak dauzkazu nere pausoak, baña nere bekatuak barkatu zazkidazu.

17. Dauzkazu sellatuak zakutxo batean bezela nere kulpak, baña sendatu dezu nere gaiztakeria.

18. Mendi bat erortzen danean, desegiten da, eta aitz bat bere tokitik eramaten da.

19. Urak zulatzen dituzte arriak, eta lurra ugoldeakin geldika geldika konsumitzen da. Bada era berean galduko dezu gizona.

20. Sendotu zenduen piska bateko, betiko irago zedin. Mudatuko dezu bere arpegia, eta irtenerazi ko diozu.

21. Bere semeak diradela argitsuak edo zatarrak, ez du berak jakingo.

22. Baña bizi dan artean bere aragiak min izango du, eta bere animak negar egingo du bere gañean.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Eta erantzuten zuela Elifaz Temangoak, esan zuen:

2. Gizon jakintsu batek erantzungo al du, aizeari itz egingo balio bezela, eta erazekitzen duela aserrearen sua bere bularrean?

3. Zuk itzakin kontra egiten diozu zure ideko ez danari, eta itz egiten dezu konbeni ez zatzuna.

4. Zugan danez alde erazi diozu Jaungoikoaren beldurrari, eta utzi dituzu egin bear zaiozkan erreguak.

5. Zeren zure gaiztakeriak erakutsi dio zure aoari, eta imitatzen dezu blasfemoen izketa.

6. Zure aoak kondenatuko zaitu, eta ez nik, eta zure ezpañak erantzungo dizute.

7. Zu al zera jaio zan lenbiziko gizona, eta muñoak baño lenago formatua izan al ziñan?

8. Jaungoikoaren konsejuan sartu al zera, edo bere jakinduria zurea baño txikiagoa ote da?

9. Zer da zuk dakizunetik guk ez dakiguna? Zer aditzen dezu guk ez dakigunik?

10. Gure artean ere badira gizon edade andiko, eta zarrak, zure gurasoak baño, egunetan askozaz aurreratuagoak.

11. Gauza gaitzen bat izango al litzake Jaungoikoarentzat zu gozatzea? Baña zure itz gaiztoak galerazitzen diote au.

12. Zergatik zure biotza arrotzen da, eta gauza andiak arretaz gogoan darabilzkian gizonak bezela, dauzkazu begi arrituak?

13. Zergatik zure espiritua dago puztua Jaungoikoaren kontra, onelako arrazoiak zure aotik ateratzeko?

14. Zer gauza da gizona kutsu gabea izan dedin, eta justotzat agertu dedin emakumeagandik jaioa?

15. Begira ezazu nola bere santuen artean ere ez dagoan erori ezin ditekeanik, eta zeruak berak ere ez dira garbiak bere aurrean.

16. Zenbat gutxiago gizon nazkagarri, eta ezertarako gauza ez dan, gaiztakeria ura bezela edaten duena?

17. Erakutsiko dizut, aditu nazazu: kontatuko dizut, ikusi dedana.

18. Jakintsuak agirian esaten dute dakitena, eta ez dute ezkutatzen beren gurasoakgandik ikasi dutena.

19. Zeñai bakarrik emana izan zaioten lurra, eta arrotzik etzan beren erditik irago.

20. Gaiztoa arrotzen da bere egun guztietan, eta iñork ez daki bere naigabezko urteen zenbata.

21. Bere belarrietan beti dago izuaren otsa, eta pakea egonik, bera beti dago saldukerien sospetxan.

22. Ez du sinisten, illuntasunetatik argitara itzuli ditekeala, ezpataz ingurutua dagoala iruditurik.

23. Mugitzen danean ogiaren billan, uste du bere eskuan prestatua dagoela illuntasunetako eguna.

24. Naigabeak ikaratuko du, eta antsiak ingurutuko du, gudarako prestatzen dan errege bat bezela.

25. Jaungoikoaren kontra bere eskua luzatu zuelako, eta uste zuelako, bazala Guztiadezakeanari kontra egiteko adiña.

26. Joan zan korrika bere kontra lepo zutarekin, eta urgulleria andi batekin armatua.

27. Bere gizentasunak estali zion arpegia, eta bere saietsetatik dago zinzilika gantza.

28. Bizi izan zan erri arrasatuetan, eta iñor gabeko etxe, arri montoi egiñak zeudenetan.

29. Ez da aberastuko, eta ez dute ere iraungo bere atziendak, ezta ere bota beren sustraia lurrean.

30. Beti egongo da illuntasunetan. Bere erramak leortuko ditu sugarrak, eta galdua izango da bere aoko asnasarekin.

31. Utsegite alper batekin engañaturik, ez du sinistuko dagoela ezerere bera erreskatatua izateko.

32. Bere egunak kunplituak izan ditezen baño lenago, galdua izango da, eta bere eskuak igartuko dira.

33. Berari kalte egingo zaio, mats mordoari lenbiziko lorean bezela, eta olibo, bere lorea botatzen duenari bezela.

34. Zeren hipokritaren familia solla izango da, eta suak iretsiko ditu, doañak gogotik artzen dituztenen bizilekuak.

35. Berak konzebitu zuen dolorea, eta argitara eman zuen gaiztakeria, eta bere sabela dago engañuak prestatzen.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Eta erantzuten zuela Jobek, esan zuen:

2. Oiek bezelako gauzak maiz aditu ditut, zuek guztiok poztzalle astunak zerate.

3. Bukatuko ote dira noizbait itz aizetsu oriek? itz egiten dezun bezela itz egitea baño gauza errazagorik al dago?

4. Zuen gauzen irudikoak nik ere esan nitzake, eta arren bada zuen anima nerearen lekuan balego.

5. Nik ere konsolatuko zinduteket arrazoiakin, eta mugituko nuke nere burua zuen gañean.

6. Nere itzakin sendotuko zinduteket, eta nere itzakin adiraziko nizuteke nere errukia.

7. Baña zer egingo det? Nik itz egin arren ez da gutxituko nere miña; eta isillik banago ere, ez du nigandik alderik egingo.

8. Eta orain txit ansiatu nau nere doloreak, eta ezerezeratuak daude nere zentzun guztiak.

9. Nere zimurrak dirade nere kontra lekukoak, eta egia ez dana itz egiten duena jaikitzen da, nere arpegian neri kontra egiteko.

10. Bildu zuen bere sumintasuna nere kontra, eta keñatzen ninduela, egin zituen nere kontra bere ortzakin karraskotsak, begi ikaragarriakin begiratu zidan nere etsaiak.

11. Idiki zituzten beren aoak nere gañean, eta lotsagaldukeriak esaten zizkidatela jotzen zuten nere masalla, nere penaz ase ziran.

12. Jaungoikoak enzerratu nau gaiztagillearen mendean, eta jarri nau biotzgogorrekoen eskuetan.

13. Ni egun batean ain aberatsa, batbatean izan naiz ezerezera biurtua. Eldu zidan lepotik, autsi ninduen, eta jarri ninduen beretzat señaletzat bezela.

14. Bere lantzaz ingurutu ninduen, zauriz estali zituen nere alboak errukirik gabe, nere erraiak lurrean zabaltzeraño.

15. Zatitu nau eginik zauria zauriaren gañean, eta eraso dit goiante batek bezela.

16. Nik daramat zilizioa nere larruari josita, eta nere burua autsez estali det.

17. Nere arpegia anditu zan negarrakin, eta nere betazalak illundu ziran.

18. Oiek irago ditut nere eskuan gaiztakeria gabe, eskeñtzen niozkanean garbiak nere erreguak Jaungoikoari.

19. Lurra, ez ezak estali nere odola, eta ez deikala arkitu igan ezkutatzeko lekurik nere deadarrak.

20. Bada ona non nere lekukoa zeruan dagoen, eta goietan, ezagututzen nauena.

21. Erausleak dira nere adiskideak, Jaungoikoagana zuzentzen dira negarrez nere begiak.

22. Eta arren bada, Jaungoikoaren eta gizonaren arteko juizioa egingo balitza, egiten dan bezela gizonaren seme batena, bere lagunarenarekin.

23. Zeren ona non urte laburrak iragotzen diran, eta nabil, berriz itzuliko ez naizan bidetxigor batetik.

AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Nere espiritua erkituaz dijoa: nere egunak laburtzen dira, eta sepultura bakarrik da gelditzen zatana.

2. Ez det nik bekaturik egin, eta nere begiak ez dakuste samintasunaz besterik.

3. Libratu nazazu, o Jauna, eta jarri nazazu zure aldean, eta nai duenaren eskua gudatu bedi nere kontra.

4. Urrutiratu zenduen beren biotza erakutsitik, argatik ez dirade goratuak izango.

5. Eskeñtzen diezte lagunai, arrapatutako gauzak, eta bere semeen begiak desmaiatuko dira.

6. Berak jarri nau jendetzaren ipui eginik, eta bere begien aurrean eskarmentu bat naiz.

7. Aserreagatik illundu dira nere begiak, eta nere zentzunak gelditu dira, ezerezera biurtuak izateko zorian.

8. Arrituko dira onekin justoak, eta kulpa gabea jaikiko da hipokritaren kontra.

9. Baña justoak bere bideari jarraituko dio, eta esku garbiai sendotasuna itsatsiko die.

10. Argatik zuek guztiok itzuli, eta etorri zaitezte eta ez det arkituko zuekgan jakintsurik batere.

11. Nere egunak irago ziran, nere gogorazioak disipatu dira, nere biotza oñazkatzen dutela.

12. Gaua egun biurtu zuten, eta berriz illuntasunen ondoan argia itxedotzen det.

13. Sufritzen badet ere, sepultura izango da aurki nere etxea, eta illuntasunetan daukat prestatuta nere oia.

14. Zornari esan diot: Zu zera nere aita; eta arrai zuek zerate nere ama, eta nere arreba.

15. Non dago bada orain nere itxedopena, eta zeñek arretaz begiratzen dio nere pazienziari?

16. Sepulturaren barreneneraño jetxiko dira nere gauza guztiak. Sinistzen al dezu zuk, an bederik atsedena idukiko dedala?

EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta erantzuten zuela Baldad Suhakoak, esan zuen:

2. Noiz bukatuko ote dezute zuen izketa? Lenago aditu ezazute, eta gero itz egin dezagun.

3. Zergatik gauzkazu aberetzat, eta zuen begietan zimaurra bezela gera?

4. O zu zure aserrean zure anima galtzen dezuna, uste al dezu zugatik utzia izango dala lurra, eta aitzak beren tokietatik aldatuak izango dirala?

5. Gaiztoaren argia ez al da izango itzalia? Eta bere suaren garrak argi egingo al du?

6. Bere bizilekuan argia illunduko da, eta bere gañean dagoan lanpara, itzaliko da.

7. Bere eskubidearen pausoak estutuko dira, eta bere konsejuak amiltokira eramango du.

8. Zeren bere oñak sartu ditu sarean, eta dabil bere mallen artean.

9. Bere oña arrapatua geldituko da artean, eta egarriz erazekia egongo da arrapatzeko.

10. Ezkutatua dago lurrean bere piguala, eta bere atzikaia bidetxigorraren gañean.

11. Alde guztietatik izutuko dute beldurrak, eta nastuko diozkate oñak.

12. Gutxitu bedi gosearekin bere indarra, eta jan ezak eraso bizaie bere saietsai.

13. Eriotza txit gogorrak iretsi beza bere larruaren edertasuna, eta konsumitu bitza bere besoak.

14. Bere bizilekutik ateratua izan bedi bere itxedopena, eta eriotzak, erregea bezela, jarri bitzaio oña lepoaren gañean.

15. Ez danaren lagunak bizi bitez bere egonlekuan, sufrez lurrindu bedi bere bizitokia.

16. Igartu bitez bean bere sustraiak, eta goian bere uzta izan bedi desegiña.

17. Bere oroipena izan bedi lurretik kendua, eta ez bedi izan bere izena karrikaetan zelebratua.

18. Botako du argitatik illuntasunetara, eta mundutik eramango du beste toki batera.

19. Ez dute iraungo bere jatorriak, ez bere ondorengoak bere errian, eztaere bere kutsuk bere erreñuetan.

20. Bere egunean ikaratuko dira atzenak, eta lendabizikoai izuak erasoko die.

21. Oiek izango dirade gaiztoaren etzauntzak, eta au Jaungoikoa ezagutzen ez duenaren tokia.

EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Eta erantzuten zuela Jobek, esan zuen:

2. Noizarteraño atsekabetuko dezute nere anima, eta ansiatuko nazute erausiakin.

3. Ona amargarren aldiz leiatzen zerate ni konfunditzeko, eta etzerate lotsatzen ni azpian sakatzeaz.

4. Demagun nik utsegin dedala, nere utsegitea nerekin geldituko da.

5. Baña zuek nere kontra jaikitzen zerate, eta nere lotsariakin arpegian eman didazute.

6. Orain bederik aditu ezazute, Jaungoikoak ez nauela atsekabetu, eta ez dituela ere bota nere gañera bere azoteak, juezaren araura.

7. Ona non iragotzen ditudan penaen anditasunarekin, deadar egiten det, eta ez nau iñork aditzen. Deitzen det, eta ez dago justizia egin dagidanik.

8. Itxi du alde guztietatik nabillen bide txigorra, eta ezin det arkitu nondik irten, zeren illuntasunez bete du daramadan bidea.

9. Utzi ninduen nere gloria gabetanik, eta nere buruko koroea kendu zidan.

10. Alderdi guztietatik desegin ninduen, eta galtzen naiz, eta nere itxedopena kendu dit, sustraitik ateratako zuaitz bat bezela.

11. Bere aserrea nere kontra erazeki zan, eta ala iduki ninduen bere etsaia bezela.

12. Elkar artuta etorri ziran bere lapurrak, eta nere gañetik iragotzeko idiki zuten bidea, eta inguratu zuten ingurumaian nere egolekua.

13. Nere anaiai nigandik urrutiratu erazi zien, eta nere ezagunak, arrotzak balirade bezela, nigandik alde egin zuten.

14. Nere aideak utzi naute, eta ezagututzen nindutenak, nerekin aztu dirade.

15. Nere etxean bizi ziranak, eta nere neskameak iduki ninduten arrotza bezela, eta beren begietan nintzat, iñoiz ikusi gabeko gizona bezela.

16. Nere morroe mendekoari ots egin nion, eta etzidan erantzun, neronen aoz erregutzen nion.

17. Nere emazteak nere asnasaren nazka iduki zuen, eta nere erraietako semeai erregututzen nien.

18. Tontoak ere mezpreziatzen ninduten, eta berakgandik alde egiten nuenean nigatik gaizki esaten zuten.

19. Beste denbora batean nere konsejariak ziranak gorrotatu naute, eta geien maite nuenak, atzea eman dit.

20. Nere ezurrak, konsumiturik aragiak, nere larruari itsatsiak daude, eta nere ortzen inguruan ezpañak bakarrik gelditu zazkit.

21. Urrikaritu zaitezte nerekin, urrikaritu zaitezte nerekin, zuek nere adiskideak bederik, zeren Jaunaren eskuak ukitu dit.

22. Zergatik Jaungoikoak bezela persegitzen nazute, eta nere aragiz asetzen zerate?

23. Nork eman lezakedan nere itzak eskribatuak izan ditezela? Nork eman lezakedan liburu batean inprimituak izan ditezela

24. Burnizko eztenaz, edo berunezko plantxa batean, edo zizelarekin suarrian otallutuak izan ditezela?

25. Zeren nik badakit nere salbatzallea bizi dala, eta atzeneko egunean lurretikan berriz biztuko naizala.

26. Eta berriz nere larruz inguratua izango naizala, eta nere aragian nere Jaungoikoa ikusiko dedala.

27. Zeñ ikusiko dedan nik neronek, eta nere begiak begiratuko diote, eta ez bestek. Nere itxedopen au dago nere bularrean jarria.

28. Zergatik bada orain esaten dezute: Persegitu dezagun, eta itz andiren batetik eldu dizaiogun, bera salatzeko?

29. Iges zazute bada ezpataren aotik, zeren gaiztakerien ezpata bengatzalle bat bada: eta jakinik iduki ezazute badala juizio bat.

OGEIGARREN KAPITULUA

1. Eta erantzuten zuela Sofar Naamatkoak, esan zuen:

2. Argatik nere asko gogorazio bata bestearen ondoren datozkit, eta nere adimendua asko gauzatara indarrez eramana da.

3. Adituko det erakutsia, zeñakin arguitzen nazun, baña nik gauzak aditzeko daukadan espirituak, nigatik erantzungo du.

4. Asieratik, gizona lurraren gañean jarria izan zanetik dakit,

5. Gaiztoen gloriak gutxi dirauela, eta hipokritaen poza, instante batekoa baño ez dala.

6. Bere arrokeria zeruraño igotzen bada, eta bere buruak odeiai ukitzen badie ere,

7. Atzenean zimaurra bezela aurtikia izango da, eta ikusi zutenak, esango dute: Non dago?

8. Egan dijoan ametsa bezela, ez da arkitua izango, gaueko ikusketa bezela iragoko da.

9. Ikusi izan zuen begiak, ez du ikusiko, eta bizi izan zan lekuak ere, ez du ezagutuko.

10. Bere semeak premia txit andiak desegiñak izango dirade, eta bere eskuak diña dan pena emango diote.

11. Bere ezurrak bere gazte denborako oitura gaiztoz beteko dira, eta berarekin autsean lo egingo dute.

12. Zeren gaiztakeria bere aoarentzat gozoa danean, bere mingañaren azpian estaliko du.

13. Beragan saboreatuko da, eta ez du iretsiko, baizik bere eztarrian geldituko du.

14. Ogi au bere sabelaren barrenen suge lotarien beazun biurtuko da.

15. Iretsi zituen aberastasunak, gonbitatuko ditu, eta Jaungoikoak bere sabeletik indarrez aterako diozka.

16. Suga lotarien burua miaztuko du; eta bibora baten mistoak bizia kenduko dio.

17. Ibaizko korrontak ez bitza ikusi, ezta ere estizko eta gurizko errekak.

18. Egin zuen gaitz guztia pagatuko du, alaere ez da konsumitua izango, bere gaiztakerien ugaritasunaren araura, ala izango da bere pena.

19. Zeren beartsuak mendean iduki, eta billostu zituen, eta ostu zituen, egin etzituen etxeak.

20. Bere sabela ere etzan ase, eta allegatzen danean idukitzera nai zuena, beren jabe ezin izango da.

21. Bere janaritik etzuen utzi, eta argatik bere ondasunetatik batere ez da iraunkorra izango.

22. Asetzen danean, estutuko da, kiskalduko da, eta dolore mota guztiak erasoko dio.

23. Arren bada bere sabela beteko balitza, bere aserrearen sumintasuna berari bota dizaion, eta egotzi ditzan bere gañera benganzak euriaren ugaritasunarekin.

24. Burnizko armetatik iges egingo du, eta bronzezko uztaian erorriko da.

25. Ezpata ateratutako, eta bere zorrotik irtetzen duena, eta bere samintasunean distiatzen dana: izugarriak joango dira, eta bere gañera etorri.

26. Bera ezkutatzen dan tokian guztia da illuntasuna, argi egiten ez duen suak, erreko du. Bere etzauntzean gelditzen dana, antsiatua izango da.

27. Zeruak bere gaiztakeria agertuko dute, eta lurra bere kontra jaikiko da.

28. Bere etxeko muskilla agirian geldituko da, Jaungoikoaren sumintasuneko egunean kendua izango da.

29. Onelakoa da Jaungoikoak gaiztoarentzat prestatua daukan izaera, eta onelakoa bere obrakgatik artuko duen ordaña.

OGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Eta erantzuten zuela Jobek esan zuen:_

2. Erregututzen dizutet, arren aditu ditzazutela nere itzak, eta damutu zaiteztela.

3. Sufritu nazazute, eta nik ere itz egingo det, eta gero, baderitzazute, nere itzai farra egin zaiezute.

4. Gizonen batekin al da nere disputa, arrazoiarekin tristetu bear ez nadin?

5. Begiratu zadazute, eta arritu zaitezte, eta zuen aoaren gañean beatza jarri ezazute.

6. Bada ni nerau ere oroitzen naizanean, arritzen naiz, eta ikarak nere aragia dardaratzen du.

7. Zertarako bada bizi dira gaiztoak, eta dira goratuak, eta ondasunez beteak?

8. Beren semeak diraute beren aurrean, eta aide ta illoba talde bat dakuse beren begiak.

9. Beren etxeak beldurrik gabe, eta pakean daude, eta Jaungoikoaren zigorra ez dago beren gañean.

10. Beren beia ernaritu zan, eta etzuen txala galdu. Beiak txala egin zuen, eta txal gabe etzan gelditu.

11. Beren mutillak, artaldeak bezela irtetzen dira, eta beren aurrak ari dira goraka, eta jostaketan.

12. Panderoa eta kitarra daramazkite, eta dantzan egiten dute itxusoñuan.

13. Beren egunak gozaro iragotzen dituzte, eta bat batean infernuetara jetxitzen dirade.

14. Berak Jaungoikoari esan zioten: Alde egin ezak gugandik, eta ire aginteetatik ezerere ez dikagu jakin nai.

15. Zeñ dek guzialdun ori, serbitu dizakagun? Eta zer mesede aterako dikagu berari laguntasuna eskatzearekin?

16. Baña nola beren ondasunak ez dauden beren eskuetan, argatik utikan nigandik beren usteizateko era.

17. Oh zeñ maiz gaiztoen lanpara batbatean itzalitzen dan, eta gaitzezko ugolde bat datorren beren gañera, eta Jaungoikoak bere aserrearen sumintasunean, dolorea ugari zabaltzen duen beren artean!

18. Izango dira aizetan jarritako lastoak bezela, eta aize bunbada batek zabaltzen duen geldoa bezela.

19. Jaungoikoak gordeta idukiko du bere semeentzat aitaren pena, eta ematen dienean diña diradena, orduan konturatuko dira.

20. Bere begiak ikusiko dute bere galmena, eta guztia dezakeanaren sumintasunetik edango du.

21. Zeren zer dio bere etxeagatik bera il ezkero, bere illen zenbata erdiratuko balitza ere?

22. Jaungoiko, andizkiak juzgatzen dituenari, iñork jakinduria erakutsiko al dio?

23. Au ilten da egonik indartsu, sendo, aberatz eta doatsu.

24. Bere erraiak gantzez estaliak daude, eta bere ezurrak muñen ezetasunez beteak.

25. Eta beste bat iltzen da animako samintasunean, ondasunik batere gabe.

26. Eta alaere elkarrekin autsean lo egingo dute, eta arrak estaliko dituzte.

27. Ziertoro ezagututzen ditut zuen gogorazioak, eta zuen erabaki gaiztoak nere kontra.

28. Zeren esaten dezute: Non dago prinzipe aren etxea? Eta non gaiztoen etzauntzak?

29. Edozeñ bideanteri galde zaiozute, eta arkituko dezute, au bera pensatzen duela.

30. Zeren gaiztoa galmeneko egunerako dago gordea, eta sumintasuneko egunera izango da eramana.

31. Nork salatuko du bere aurrean bere bidea? Eta nork emango dio, egin zuenaren ordaña?

32. Bera izango da sepulturetara eramana, eta illaen montoian beillan egongo da.

33. Gozoa izan zan bera Kozitoko ondarrentzat, eta bere ondoren arrastaka eramango du gizon guztia, eta bere aurretik ezin kontatu adiña.

34. Nola bada utsean gozatzen nazute, gauza agiria danean, zuen arrazoiak egiaren kontrakoak dirala?

OGEITA BIGARREN KAPITULUA

1. Eta erantzuten zuela Elifaz Temangoak, esan zuen:

2. Gizon bat Jaungoikoarekin konparatu al diteke, jakinduria guztia duena balitza ere?

3. Zer mesede dakarkio Jaungoikoari, zu justoa izateak? Edo zer ematen diozu berari, zure biziera aitzakia gabekoa izatean?

4. Izango ote da, zu kastigatzera, eta zuri kontuak artzera etortzeko beldurren bat daukalako?

5. Eta ez al du egiten obekiago zure gaiztakeria txit andi, eta zure bekatu kontatu ezin adiña diradenakgatik?

6. Zeren zuk arrazoe gabe kendu ziñien prenda zure anaiai, eta billosak utzi ziñituen beren soñeko gabe.

7. Egarri zanari etziñion urik eman, eta gose zanari ogia ukatu ziñion.

8. Zure besoaren indarragatik ziñan lurraren jabe, eta altsuago ziñalako, iritxitzen zenduen.

9. Andre alargunak utsik bialtzen ziñituen, eta autsi ziñituen umezurtzen besoak.

10. Argatik zaude artez inguratua, eta batbateko izuak nastutzen zaitu.

11. Eta pensatzen al zenduen zuk etziñiela iñoiz illuntasunetan erorriko, eta etziñiela ere izango urezko ugolde sendoz estutua?

12. Ez al dezu pensatzen Jaungoikoa zerua baño altuagoa dala, eta izarrik goratuena baño gorago allegatzen dala?

13. Eta esaten dezu: zer daki bada Jaungoikoak? illuntasunean bezela juzgatzen du berak.

14. Odeietan dauka bere ezkutatokia, eta ez du gure gauzakgatik begiratzen, eta zeruko alde batetik bestera paseoan dabil.

15. Jarraitu nai al diozu, gaiztoak jarraitu zioten anziñako bideari?

16. Zeñak izan ziran beren denbora baño lenago arrapatuak, eta ibai batek beren zimendua desegin zuen.

17. Jaungoikoari esaten ziotenak: Alde adi gugandik, eta guztia dezakeanak ezerere ezin egin al balu bezela, alakoa uste zuten zala bera;

18. Izanik bera ondasunaz beren etxeak bete zituena, zeñaen uste izateko modua, nigandik urrutian izan bedi.

19. Justoak ikusiko dituzte, eta beren galmenarekin poztuko dira, eta kulpa gabeak berai iseka egingo diete.

20. Beren andiustea ez al zan izan ebakia, eta beren kutsuak suak iretsiak?

21. Egon zaite bada bere mendean, eta pakea idukiko dezu, eta ala fruturik obenak bilduko dituzu.

22. Bere aotik legea artu ezazu, eta bere itzak zure biotzean jarri itzatzu.

23. Guztia dezakeanagana biurtzen bazera, zure lenbiziko izaerara itzulia izango zera, eta zure bizilekutik gaiztakeria urrutiratuko dezu.

24. Lurraren lekuan muger arria emango dizu, eta muger arriaren lekuan urrezko errekak.

25. Eta Guztiadezakeana zure etsaien kontra egongo da, eta zillarra montoika idukiko dezu.

26. Orduan Guztiadezakeanagan gozotasunak ugari idukiko dituzu, eta zure arpegia Jaungoikoagana jasoko dezu.

27. Erregutuko diozu, eta adituko zaitu, eta zure eskeñtzak kunplituko dituzu.

28. Gauza bat erabakiko dezu, eta kunplituko zatzu, eta zure bideetan argiak argi egingo dizu.

29. Zeren umillatzen dana, gloriaz betea izango da; eta begiak beeratzen dituena, ori salbatuko da.

30. Kulpa gabea salbatuko da, eta bere eskuetako garbitasunagatik salbatuko da.

OGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta erantzuten zuela Jobek, esan zuen:

2. Oraindik ere nere izketa samintasunez betea dago; eta oraindik nere zauriaren pena andiagoa da nere zizpuruak baño.

3. O nork eman lezakedan, nola arkitu jakitea, eta bere tronuraño allegatzea?

4. Esango nituke bere aurrean nere gauzak, eta kejaz nere aoa beteko nuke.

5. Jakiteko erantzungo lizkidaken itzak, eta aditzeko esango lidakena.

6. Ez det nai, gogortasun andiarekin nerekin leiatu dedilla, ezta bere anditasun txit pisuarekin azpian lertu nazala ere.

7. Izan bedi nerekin justoa, eta orduan irabaziko det nik auzia.

8. Sortalderontz joaten banaiz, ez da agiri; banoa sartalderontz, ez det arkituko.

9. Ezkerrerontz banoa, zer egingo det? Ez det atzituko, eskuiera itzultzen banaiz, ez det ikusiko.

10. Baña berak dakizki nere pausoak, eta probatu nau, sutik iragotzen dan urrea bezela.

11. Nere oñak bere aztarnai jarraitu zien, bere bidea zaitu nuen, eta beratatik ez nuen alderik egin.

12. Bere ezpañetatik atera diran aginduak beti gorde ditut, eta ezkutatu ditut nere biotzean bere aoko itzak.

13. Zeren bera, bakarra da; eta bere gogorazioak ezin iñork nastu ditzake, eta egin zuen, nai zuen guztia.

14. Nerekin nai duena egiña duenean, bere eskuan dauka oien antzeko beste gauza asko egitea ere.

15. Eta argatik ni bere aurrean ikaratzen naiz, eta berarekin oroitzen naizanean, beldurrez dardara jartzen naiz.

16. Jaungoikoak nere biotza bigundu du, eta guztia dezakeanak nastu nau.

17. Zeren ez naiz galdu nere gañean dauden illuntasunakgatik; eta laño trinkoak ere ez du nere arpegia estali.

OGEITALAUGARREN KAPITULUA

1. Guztiadezakeanarentzat ez daude denborak ezkutatuak, eta ezagutuzen dutenak, bere egunak ez dakizkite.

2. Batzuek mugak irago zituzten, abereak ostu zituzten, eta eraman zituzten bazkatzera.

3. Humezurtzen astoa eraman zuten, eta andre alargunaren idia prendatzat artu zuten.

4. Beartsuen bidea nastu zuten, eta estutu zituzten elkartuta lurreko otsanak.

5. Beste batzuek basa astoak eremuan bezela, beren lanbidera ateratzen dirade, ernaiak lapurretarako, prestatzen diete janaria beren semeai.

6. Berena ez dan kanpoa igitaitzen dute, eta mendeniatutzen dute, indarrez menderatu zutenaren mastia.

7. Utzitzen dituzte billosik gizonak, kentzen dieztela soñekoak, otz egiten duenean zerekin estali ez daukatenai.

8. Zeñak mendietako euriak mainatzen dituzten, eta ez idukirik zerekin estali, aitz zuloetan berotzen dira.

9. Indarrez kendu zien zeukatena humezurtzai, eta erriko jende premiatsua ezerere gabe utzi zuten.

10. Billosai, eta soñeko gabe zijoazenai, eta gosez zeudenai kendu ziozkaten galburuak.

11. Jarri ziran baraskalondoko loa egiten, tolareak zapaldu ezkero egarriz daudenen montoien artean.

12. Errietako gizonai zizpuruak erasi ziezten, eta zaurituen animak deadarrak egin zituzten, eta Jaungoikoak ez oi du utzi au, kastigu gabe iragotzen.

13. Berak gogor egon ziran argiaren kontra, bere bideak etzituzten ezagutu, eta etziran ere etorri bere bidetxigorretatik.

14. Goizean goiz jaikitzen da erallea, iltzen ditu beartsua ta premian dagoena, eta gauaz lapurra bezelakoa izango da.

15. Ezkonduarekin bekatu egin nai duenaren begia dago illuntasunaren zelatan, esaten duela: Ez nau begik ikusiko, eta bere arpegia estaliko du.

16. Illuntasunean etxeak zulatzen ditu, egunaz elkar adituta gelditu ziran bezela, eta etzuten argia ezagutu.

17. Ustekabean egunsentia etortzen bazaie, uste dute dala eriotzaren itzala, eta ala dabiltza illuntasunetan, nola argitan.

18. Uraren gaña baño aldakorragoa da. Madarikatua izan bedi bere atzienda lurrean, eta mastien bidetik ez dedilla joan.

19. Elurren uretatik bero andi batera irago bedi, eta bere bekatua infernuetaraño joan bedi.

20. Aztu bedi berarekin urrikaltasuna, arrak izan bitez bere gozotasuna; ez bedi iñor berarekin oroitu, baizik izan bedi zeatua, fruturik ez daraman zuaitza bezela.

21. Emakume soil, aurrik egiten ez duenari jaten eman ziolako, eta andre alargunari etziolako mesede egin.

22. Bota zituen sendoak bere indarrarekin, eta zutik dagoenean ere, ez dio sinistuko bere biziari.

23. Jaungoikoak eman zion penitenzia egiteko denbora, eta berak gaizki usatzen du berarekin urgulleriarako, baña Jaunak dauzka jarriak begiak bere ibillera gaiztoetan.

24. Denbora gutxi baterako goratu ziran; baña ez dute iraungo; baizik izango dira umillatuak, eta indarrez eramanak gauza guztiak bezela, eta galburuak bezela izango dira puskatuak.

25. Eta au onela ezpada, nork arguituko dit gezurra esan dedala, eta nere itzak Jaungoikoaren aurrean salatuko ditu?

OGEITA BOSGARREN KAPITULUA

1. Eta erantzuten zuela Baldad Suhakoak, esan zuen:

2. Eskubidea eta izua daude, bere goietan elkartasunari iraunerazitzen dionaren eskuan.

3. Bere soldaduak zenbatik al daukate? Eta zeñ ez da bere argiaren partale?

4. Nola justotu diteke gizona, Jaungoikoarekin konparatuta, edo emakumeagandik jaioa garbi agertu?

5. Illargiak berak ere ez du argi egiten bere aurrean, eta izarrak ez daude garbiak bere begietan.

6. Zenbat gutxiago zorna dan gizona, eta ar bat dan gizonaren semea?

OGEITA SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta erantzuten zuela Jobek, esan zuen:

2. Zeñi lagundu nai diozu? Argalari ote? Edo eldu nai al diozu besotik indarrik ez duenari?

3. Zeñi ematen diozu konsejua? Jakinduriarik ez duenari ote? Erakutsi nai al dezu zentzu txit andiren bat?

4. Zeñi erakutsi nai izan diozu? Asnasa duen guztia egin zuenari ez al?

5. Begira nola zentoiak dauden negarrez uraen azpian, berakin dauden besteakin batean.

6. Infernua bere aurrean agertua dago, eta ez dago estalkirikan batere galmenarentzat.

7. Bera da zabaldu zuena ifarra utsaren gañean, eta daukana zinzilika lurra ezerezaren gañean.

8. Bera da bere odeietan urak lotutzen dituena, guztiak batera beerontz erori ez ditezen.

9. Bere tronua ikustea galerazitzen duena, eta bere lañoa aren gañean zabaltzen duena.

10. Urai mugak inguruan jarri ziozkaten, argia eta illuntasunak bukatu ditezen artean.

11. Zeruko abeak dardaratu eta ikaratzen dira bere begirakune batera.

12. Bere indarrarekin itsasoak batbatean bildu ziran, eta bere jakinduriak zauritu zuen arroa.

13. Bere espirituak apaindu zituen zeruak, eta bere eskuaren laguntasunarekin suga jirabiraduna izan zan argitara ateratua.

14. Oraindaño esan dan guztia bere obraen zati txiki bat da, eta beragatik esan ditekeanaren tanto txiki bat ozta aditu badegu, nork aditu dezake bere anditasunaren turmoia?

OGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Jarraitu ere zion oraindik Jobek bere parabolari, eta esan zuen:

2. Nere zuzenbidea kendu didan Jaungoikoa, eta nere anima samintasunera ekarri duen Guztiadezakeana bizi dan bezela esaten det,

3. Nigan asnasarik, eta nere sudurretan Jaungoikoaren espiriturik dagoan artean,

4. Nere ezpañak gauza gaiztorik ez dutela esango, eta nere aotik gezurrek ez duela irtengo.

5. Urrutian dago nigandik, zuek justotzat idukitzea, indargabetu nadin artean, ez det nik nere garbitasunetik alderik egingo.

6. Egiten asi naizan justifikazioari ez diot utziko, zeren nere bizitza guztian nere animako kezkarik batere ez daukat.

7. Izan bedi gaiztotzat idukia nere etsaia, eta justoeztzat nere kontrakoa.

8. Zeren zer itxedopen gelditzen zaio hipokritari gutiziarekin bere lapurretan egin ezkero, Jaungoikoak bere anima salbatzen ez badu?

9. Bere deadarrak Jaungoikoak adituko al ditu, antsia gañera datorkionean?

10. Edo gozotasunik Guztiadezakeanagan arkitu alko ote du, eta denbora guztian Jaungoikoari ots egin?

11. Erakutsiko dizutet Jaungoikoaren laguntasunarekin, eta ez dizutet ezkutatuko Guztiadezakeanak daukana.

12. badakust, zuek guztiok dakizkizutela, zergatik bada premia gabe itz alperrak esaten dituzute?

13. Aditu ezazute zeñ dan Jaungoikoak gaiztoarentzat erabakita daukan ordaña, eta gizon setatiak Guztiadezakeanagandik artuko duten saria.

14. Beren semeak ugaritutzen badirade, ezpatarentzat izango dira, eta beren illobak ez dira ogiz aseak izango.

15. Beragandik gelditzen diranak, galmenean enterratuak izango dira, eta beren andre alargunak ez dute negarrik egingo.

16. Zillarra lurra bezela montoitu badu ere, eta basa bezela soñekoak prestatu.

17. Egiaz prestatuko ditu, baña justoak jantziko ditu, eta bekatugabeak errepartituko du zillarra.

18. Sitsak bezela bere etxea egin zuen, eta zaitzalleak bezela txaola egin zuen.

19. Iltzen danean aberatza, deus ez du berarekin eramango; bere begiak idikiko ditu, eta ez du ezerere arkituko.

20. Doakabezko ugoldeak arrapatuko du, eta ekaitzak gauaz ansiatuko du.

21. Aize erregarri batek jaso eta eramango du, eta aize bunbada batek bezela arras aterako du bere tokitik.

22. Eta bere gañean deskargatuko du, eta ez dio barkatuko. Alegin guztiak egingo ditu bere eskuetatik iges egiteko.

23. Jartzen danak begiratzen gaiztoa zegoan tokiari, txaloak egingo ditu, eta txistuka ariko zaio.

OGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Zillarrak dauzka bere betak meatzetan, eta urreak dauka toki bat, zeñean formatzen dan.

2. Burnia lurretik ateratzen da, eta arri sutan urtua, kobre biurtzen da.

3. Illuntasunentzat denbora jarri zuen, eta berak konsideratzen du gauza guztien buka, baita illuntasuneko arria, eta eriotzako itzala ere.

4. Ugolde batek berezitzen du bideanteagandik, eta beartsuaren oña ez da beretara alderatzen, egonik, dauden bezela bertara joan ezin litekean tokietan.

5. Lurra, zeñatatik jaiotzen zan ogia bere tokian, suaz desegiña izan zan.

6. Bada toki bat, zeñean arririk geienak zafiroak diran, eta bere zokorrak urrez beteak dauden.

7. Bere bidetxigorra etzuen egaztik ezagutu, eta arranoaren begik etzion begiratu.

8. Merkatarien oñak etzuten zapaldu, eta etzan ere leoeemerik beratatik irago.

9. Aitz bizira bere eskua luzatu zuen, eta mendiak sustraiz nastu zituen.

10. Ebakirik arkaitzak, ibaiak atera zituen, eta gauza baliotsu guztia bere begiak ikusi zuen.

11. Izan ere zan nork aratu zituen ibaietako osinak, eta an ezkutatuak zeuden gauza ederrak argitara atera zituena.

12. Jakinduria berriz, non arkitzen da? Eta zeñ da adieraren tokia?

13. Gizonak bere balioa ez du ezagutzen; eta ez da ere bera arkitzen, atsegiñetan bizi diradenen tokian.

14. Toki ondorik gabeak dio: Ez dago nigan. Eta itsasoak esaten du: Ez dago nerekin.

15. Ez da erosten urre txit fiñarekin, eta ez da ere ganbiatzen zillarraren pisuz.

16. Ez da izango iduritua Indiako kolorerik bizienakin, ez sardonis arririk baliotsuenarekin, ez safiroarekin.

17. Ez da berarekin berdinduko urrea, edo kristala, eta ez dira ere bere ordez emango urrezko ontziak.

18. Gauzarik goratu eta baliotsuenak ez dira aitatzeko duiñak bere konparazioan; jakinduriak berriz toki txit ezkutuetatik dakar bere jatorria.

19. Etiopiako topazioa etzaio berari berdinduko, eta kolorerik bizienarekin ere ez da izango konparatua.

20. Nondik dator bada jakinduria? Eta adieraren tokia zeñ da?

21. Bizi diraden guztien begietatik estalia dago, zeruko egaztientzat ere dago ezkutatua.

22. Galmenak eta eriotzak esan zuten: Gure belarriakin bere ospea aditu degu.

23. Bera arkitzeko bidea Jaungoikoak badaki, eta bera da aren egolekua ezagututa daukana.

24. Zeren berak ikusten ditu munduaren mugak, eta zeruaren azpian dagoan guztiari begiratzen dio.

25. Berak eman zien pisua aizeai, eta urak pisatu zituen neurriaz.

26. Euriai legea, eta ekaitz aundiai bidea izendatzen zienean:

27. Orduan ikusi, eta adirazi, eta prestatu, eta agertu zuen.

28. Eta gizonari esan zion: Ona non Jaunaren beldurra dan jakinduria ori, eta gaitzetik alde egitea, adiera.

OGEITA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Eta jarraitu zion Jobek bere parabolari, eta gañera esan zuen:

2. Nork eman lezakedan neri, izan nendilla anziñako illetan bezelakoa, Jaungoikoak gordetzen ninduen egunen araura!

3. Bere lanparak nere buruaren gañean argi egiten zuenean, eta bere argitara illunean nenbillenean.

4. Nintzan bezelakoa nere gazte denborako egunetan, Jaungoikoa isillean nere bizilekuan egotez zegoanean,

5. Guztia dezakeana nerekin zegoanean, eta nere semeak nere inguruan,

6. Nere oñak guriaz garbitzen nituenean, eta arriak neretzat oliozko errekak isurtzen zituenean,

7. Erriko atera irtetzen nintzanean, eta karrikan esertokia prestatzen zidatenean.

8. Gazteak ikusten ninduten, eta ezkutatzen ziran, eta zarrak jaikitzen ziradela, zutik gelditzen ziran.

9. Prinzipeak utzitzen zioten itz egiteari, eta beren aoen gañean beatza jartzen zuten.

10. Agintariak gelditzen ziran itzik egiten ausartatu gabe, eta beren mingaña beren aosapaiari itsatsita.

11. Nere itzak aditzen zituen guztiak, doatsua deitzen zidan; eta begiratzen zidan guztiak, nigatik ongi esaten zuen.

12. Zeren nik libratu izan nuen deadar egiten zuen beartsua; eta nork lagundu etzeukan emazurtza.

13. Galtzera zijoanaren bedeikazioa nere gañera zetorren, eta andre alargunaren biotza poztu nuen.

14. Justiziaz jantzi nintzan, eta gañetik nere zuzentasunaz jantzi nintzan erregeren mantu eta fajaz bezela.

15. Itsuarentzat begia, eta errenarentzat oña izan nintzan.

16. Premian zeudenen aita nintzan, eta ardura andi batekin informatzen nintzan, ez nekian auziaren gañean.

17. Gaiztoen matrallezurrak zatitutzen nituen, eta ortzetatik kentzen nien arrapatuta zeramatena,

18. Eta esaten nuen: Nere kabiatxoan ilko naiz; eta palmak bezela nere egunak ugarituko ditut.

19. Nere sustraia uren aldean agiria dago, eta nere igitaitzean intza egotez egongo da.

20. Nere gloria beti berriztuko da, eta nere uztaia nere eskuan sendotuko da.

21. Aditzen nindutenak, nere iritziaren zai egon oi ziran, eta isillean arretaz entzuten zuten nere konsejua.

22. Nere itzai ezerere eratxekitzen etziran benturazen, eta nere arrazoiak intza bezela beren gañera erortzen ziran.

23. Euriari bezela itxedotzen zidaten, eta euri berandukorrari bezela beren aoa idikitzen zidaten.

24. Baldin noizbait berakin farra egiten banuen, etzuten sinistzen; eta nere arpegiko argitasuna etzan frutu gabe gelditzen.

25. Beren batzarretara joan nai banuen, lendabiziko tokian esertzen nintzan; eta egonik eserita errege bat ejerzitua ingurumai duela bezela, alaere naigabetuen poztzallea nintzan.

OGEITA AMARGARREN KAPITULUA

1. Orain berriz burla egiten didate mutil gazte batzuek, zeñaen gurasoak nere artaldeko txakurrakin ere ez nituen jarri naiko.

2. Zeñaen eskuen indarra neukan nik ezereztzat, eta bizitzeko ere diñak etziradelakotzat ziran idukiak,

3. Premia eta gosez illak, zebiltzanak eremutik zerbaiten billan ortzka zeatzeko, doakabe eta zorigaitzez txit argaldu, eta eroriak.

4. Eta jaten zituzten belarrak, eta zuaitzen azalak, eta enebroaren sustraiakin bazkatzen ziran.

5. Onelako gauzaen billa zijoazen ibarretatik, eta alakoren bat arkitzen zutenean, algaraz eta korrika zijoazen bera arrapatzera.

6. Bizi oi ziran ugoldeak egindako zulo zakonetan, eta lurreko kobetan, eta larra artetan.

7. Alako gauzetan beren poza arkitzen zuten, eta sasien azpian bizitea atsegintzat zeukaten.

8. Jende zentzugabeko eta moldakaiz, eta lurraren gañean agertu ere egiten ez diradenen semeak.

9. Bada ni etorri naiz orain beren kantaen gaia izatera, eta berak iseka egitera.

10. Nazka naute; ikusten nautenean, nigandik urrutira iges egiten dute, eta ez dira beldur nere arpegira istua botatzen.

11. Zeren idiki zuen bere fletxatokia, eta saietatu ninduen, eta nere aoari brida jarri zion.

12. Sortaldeko eskuiean, bereala jaiki ziran nere naigabeak, nere oñak nastu zituzten, eta ugolde batek bezela azpian artu naute.

13. Nere bideak ebaki zituzten, zelatadak jarri zizkidaten, eta geiago egin zidaten, eta laguntasunik nork eman etzan izan.

14. Murru urratu eta ate idikitik bezela egotzi ziran nere gañera, eta txit gozatu ziran nere doakabetasunetan.

15. Utsera biurtua nago, aize bunbada batek bezela arras kendu didazu maitatzen nuen guztia, eta nere zoriontasuna odei bat bezela irago da.

16. Eta orain nere anima neronen barrenen antsiaz urtutzen dago, ikusirik doakabetasunak nerekin jabetu diradela.

17. Gauaz nere ezurrak penaz zulatuak dirade, eta jaten nautenak, ez dute lorik egiten.

18. Oien ugaritasunarekin nere soñekoa desegitzen da, eta tunikaren lepoertzarekin bezela inguratu naute.

19. Basatzat idukia naiz, eta autsari eta errautsari iduritua.

20. Deadarrez ots egitzen dizut, eta ez nazu aditzen. Zure aurrean nago, eta ez didazu begiratzen.

21. Biotz gogorreko egin zera neretzat, eta zure eskuaren astuntasunean agertzen dezu nere etsaia zerala.

22. Goratu ninduzun, eta aizearen gañean jarri baninduzu bezela, indarrez bota eta zatitu nazu.

23. Badakit jarriko nazula eriotzaren eskuan, zeñatara dijoazen bizi diraden guztiak.

24. Alaere ez dezu zuk eskua luzatzen arras desegiteko; eta erortzen badira, zerorrek salbatuko dituzu.

25. Beste denbora batean negar egiten nuen naigabez zegoanagatik, eta nere anima beartsuarekin urrikaltzen zan.

26. Ondasunak itxedotzen nituen, eta gaitzak etorri zazkidan. Argiaren zai nengoan, eta illuntasunez estalia gelditu naiz.

27. Nere erraiak erretzen daude atsedenaren piskarik ere ez didatela ematen, antsiako egunak uste gabean arrapatu naute.

28. Tristerik nabil, baña sumindu gabe. Jaikitzen naiz, eta deadar egiten det jendearen erdian.

29. Dragoien anaia naiz, eta arranoen laguna.

30. Beltzitua dago nere larrua nere gañean, eta nere ezurrak leortu dira daukadan berotasun geiegiagatik.

31. Nere kitarra lantura itzuli da, eta nere organua negar egiten dutenen bozera.

OGEITA AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Egin nuen elkartasuna nere begiakin, pensatu ere ez egiteko birjiñagan.

2. Zeren zer parte idukiko luke nigan Jaungoikoak goitik, eta zer emango lidake Guztiadezakeanak zeruko ondasunetatik?

3. Zer bada, ez al dago gaiztoentzat galmena erabakita, eta desheredazioa bekatu egiten dutenentzat?

4. Ez al dago nere bideai begira, eta nere pauso guztiak kontatzen?

5. Urgullerian ibilli banaiz, eta nere oña arin joan bada iñor engañatzera,

6. Pisatu nazala Jaungoikoak balanza justoan, eta ezagutu beza nere tolesgabetasuna.

7. Nere pausoak bidetik alde egin bazuten, eta nere biotzak nere begiai jarraitu ez bazien, eta mantxarik nere eskuai itsatsi bazitzaien,

8. Erein dezadala nik, eta beste batek jan dezala, eta nere jatorria sustraitik ateratua izan dedilla.

9. Baldin nere biotza andregatik engañatua izan bada, eta nere adiskidearen atean zelatan ibilli banintzan,

10. Izan bedi nere emaztea beste baten oelaguna, eta makurtu bitez beste batzuk bere gañean.

11. Zeren au bekatu neurrigaitza, eta gaiztakeria txit andia da.

12. Da su bat, guztia arras iretsitzen duena, eta muskil guztiak sustraitik ateratzen dituena.

13. Mezpreziatu banuen nere mendeko morroe eta neskamearekin kontuak egitea, nere kontra auzitan ari ziranean.

14. Zeren zer egingo det Jaungoikoa jaikitzen danean ni juzgatzera? Eta galdetzen didanean, zer erantzungo diot?

15. Nere amaren erraietan egin ninduena, ez al da hura egin zuena bera? Eta ez al zan izan bat amaren sabelean formatu ginduena?

16. Beartsuai nai zutena ukatu banien, eta andre alargunaren begiak zai iduki banituen.

17. Nere mokadua bakarrik jan banuen, eta humezurtzak beratatik jan ez bazuen,

18. (Zeren nere aur denboratik asi zan nerekin urrikaltasuna, eta nere amaren sabeletik nerekin atera zan).

19. Zer jantzirik etzuelako galtzera zijoana, eta estali gabe zegoan beartsua mezpreziatu banituen;

20. Bere gorputzeko zentzunak bedeikazioz bete ez baninduten, ikusirik nere ardien illearekin berotuak ziradela;

21. Nere eskua humerzurtzaren kontra jaso banuen, ikusten nintzanean bera baño goratuago atean,

22. Nere solbarda bere giltzatik erori dedilla, eta nere besoa bere ezurrakin zatitu dedilla.

23. Zeren beti izan nintzan ni Jaungoikoaren beldur, nere kontrako baga arroa bat balira bezela; eta bere pisua ezin sufritu nuen.

24. Sinistu banuen nere indarra urrean zegoala, eta urrerik garbienari esan banion: Nere itxedopena aiz.

25. Poztu banintzan nere aberastasun ugarietan, eta nere eskuak arkitu zituzten ondasun askoetan.

26. Begiraturik eguzkiari argi egiten zuenean, edo illargiari argitasunik andienean zijoanean;

27. Nere biotza ezkutuan poztu bazan, eta nere eskuari nere aoarekin muñ egin banion.

28. Zeñ dan bekatu txit andi bat, eta Jaungoiko txit goratua ukatze bat;

29. Poztu banintzan gorrotatzen ninduenaren galmenarekin, eta gozatu, etorri zitzaion gaitzagatik.

30. Zeren ez nuen utzi nere eztarriak bekatu egin zezala, bere eriotza madarikazioakin eskatzen nuela.

31. Nere etxeko jendeak esan ez bazuten: Nork eman litzagukean, bere aragietatik ase gaitezen?

32. Arrotzik etzan gelditu kanpoan, nere atea bideantearentzat idikia egon zan.

33. Gizona bezela nere bekatua estali banuen, eta nere gaiztakeria nere bularrean ezkutatu banuen.

34. Jendetza andiak beldurtu baninduen, edo aideen mezprezioak ikaratu, eta obekiago egon ez banintzan isillik, eta nere atetik irten gabe.

35. Nork eman lezakedan aditu nazan bat, eta guztia dezakeanak entzun ditzala nere gurariak, eta juzgatzen duenak, berak liburua eskribatu dezala?

36. Eraman nezan nere sorbalden gañean, eta ipintzeko nere inguruan koroe bat bezela.

37. Nere pausu bakoitzean errezatzen joango nintzake, eta prinzipe bati bezela presentatuko nioke.

38. Nere lurrak nere kontra deadar egiten badu, eta bere maizterrak berarekin negar egiten badute.

39. Bere frutuak diru gabe jan banituen, eta estutu banituen bertan lanean ari ziran nekazariak.

40. Gariaren lekuan sasilarrak, eta garagarraren lekuan arantzak erne bizazkit.

Joben itzen bukaera.

OGEITA AMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta iru gizon oiek utsi zioten Jobi erantzuteari, ikusirik zegoala ain gogor bere burua justotzat idukitzean.

2. Orduan Eliu, Barakelen seme, Buziarra, Ramen jatorrikoa, kejatu eta aserretu zan. Eta sutu zan Joben kontra, Jaungoikoaren aurrean justoa zala esaten zuelako.

3. Orobat bere adiskideen kontra ere aserretu zan, etzutelako arkitu arrazoezko erantzuerarik, aspertzen ziradela Job kondenatzeaz bakarrik.

4. Eliu bada egon zan Jobek izketa bukatzearen zai, len itz egin zutenak bera baño zarrago ziradelako.

5. Baña ikusirik irurak ezin erantzun izan ziotela Jobi, txit aserretu zan.

6. Eta asten zala izketan Eliu, Barakelen seme, Buztarra, esan zuen: Gazteagoa naiz edadean, eta zuek zarragoak zerate; argatik nere burua beeratu det, nere iritzia adiratzen beldur nintzala.

7. Zeren nik itxedotzen nuen edade andiagoak itz egingo zuela, eta urte askoak jakinduria erakutsiko zutela.

8. Baña ikusten dedanez, espiritua dago gizonakgan, eta Guztiadezakeanaren ispirazioak adiera ematen du.

9. Ez da berdin izatea zarra, zeñ jakintsua, eta edade andia idukitzeak ere, ez du juizio ona idukierazitzen.

10. Argatik itz egingo det: aditu nazazute, zeren nik ere nere jakinduria erakutsiko dizutet.

11. Itxedon det bada nik zuen itzak bukatu artean; aditu ditut zuen arrazoiak, iraun duen artean zuen ezdabaida itzezkoak.

12. Eta uste nuen artean, zuek zerbait esaten zendutela, nengoan aditzen, baña, ikusten dedanez, ez dago zuen artean Jobi argudioak jarri, ez bere arrazoiai erantzun dizaiokenik.

13. Eta ez daukazute zetan neri esan: Arkitu degu jakinduria, Jaungoikoak bota du, ez gizonek.

14. Ez dit neri ezerere esan, eta nik ez diot erantzungo zuen arrazoien araura.

15. Beldurtu ziran, eta etzuten berriz erantzuerarikan eman, eta itzik gabe gelditu ziran.

16. Eta gero nik itxedon det, eta ez dute itz egin. Gelditu dira zutik, eta ez dute ezerere erantzun.

17. Nik ere nere aldetik erantzungo det, eta nere jakinduria erakutsiko det.

18. Zeren arrazoez betea nago, eta ez dira nere bularrean kabitzen.

19. Nola muztioak, aizeak irtetzeko zulorikan ez daukanean, ontzi berriak austen dituen, ala gertatzen da nere sabelean.

20. Itz egingo det bada asnasa piska bat artzeko. Nere ezpañak idikiko ditut, eta erantzungo det.

21. Ez naiz iñorenganatuko, eta ez det ere berdinduko gizona Jaungoikoarekin.

22. Zeren ez dakit noizarteraño izango naizan, eta emendikan denbora gutxi barru, nere Egilleak eramango banau ere.

OGEITA AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Aditu itzatzu bada, Job, nere itzak, eta zaude kontuan nere arrazoietara.

2. Ona non nere aoa idiki dedan, itz egin beza nere mingañak nere eztarzuloetan.

3. Nere itzak biotz tolesgabe batetik irtengo dute, eta nere ezpañak esango dituzte egia utsak.

4. Jaungoikoaren espirituak egin ninduen, eta Guztiadezakeanaren asnasak bizia eman zidan.

5. Erantzun zadazu, al badezu; eta prestatu zaite neri kontra egiteko.

6. Ongi dakizu Jaungoikoak ni egin ninduela zu bezela, eta buztiña artatik beratatik ni ere formatua izandu nintzala.

7. Eta ala ez dezu nigan ikusiko ikaratuko zaituen gauza miragarririk; eta nere iztundea ez zatzu izango astuna.

8. Esan zenduen bada nere belarrietan, eta aditu nituen zure itz oiek:

9. Garbia nago ni, eta bekatu gabe, mantxa gabe, eta gaiztakeriarik ez da nigan.

10. Nere kontra espak arkitu dituelako, argatik uste izan du, ni bere etsaia naizala.

11. Nere oñak zepo batean ipiñi ditu, zaitu ditu nere bidetxigor guztiak.

12. Au da bada zeñean etzeran justoa izan. Nik erantzungo dizut, Jaungoikoa gizona baño andiagoa dala.

13. Eta berarekin elean asi nai al dezu, zure itz guzietara erantzun ez dizulako?

14. Jaungoikoak bein itz egiten du, eta bigarren aldiz ez du gauza bera esaten.

15. Ametsetan, gauetako ikusketakin, lo gogor batek artzen dituenean gizonak, eta beren oetan lotan daudenean,

16. Orduan idikitzen ditu gizonen belarriak, eta jartzen dituela erakusle eginik, ematen diezte jakin bear dutenaren argibideak.

17. Alderazitzitzeko gizonari, egiten duenetik, eta urgulleriatik libratzeko,

18. Apartatzen duela bere anima usteltasunetik, eta bere bizia, ezpatara irago ez dedin.

19. Errierta ere egiten dio doloreen bitartez oean, eta bere ezur guztiak leortuerazitzen ditu.

20. Nazkagarria egiten zaio bere bizitzako ogia, eta bere animak len nai zuen janaria.

21. Bere aragia desegiñaz joango da, eta estaliak zeuden ezurrak, joango dira agertuaz.

22. Bere anima usteltasunera alderatu zan, eta bere bizitza eriotza dakarren gauzara.

23. Baldin orduan aingeru batek, millaen artean autuak ematen badiozka gizon oni argitasunak, eta bere eginbearrak erakusten badiozka,

24. Berarekin errukituko da, eta esango du: Libratu ezazu, usteltasunera jetxi ez dedin. Arkitu det zergatik berari barkatu.

25. Bere aragia penakin konsumitua izan da, bere gazte denborako egunetara itzuli bedi.

26. Jaungoikoari barka eskatuko dio, eta bigunduko da Jaungoikoa berarekin, eta bere arpegia pozez ikusiko du, eta bere justizia itzuliko dio.

27. Begiratuko die gizonai, eta esango du: Bekatu egin det, eta egiaz gaizki egin det, eta ez naiz izan kastigatua, diña nintzan bezela.

28. Libratu zuen nere anima eriotzarontz joan etzedin, baizik bizitzen zala, argia ikusi zezan.

29. Ona emen non, gauza guzti oiek bakoitzarekin Jaungoikoak iru alditan egiten dituen.

30. Beren animak usteltasunetik ateratzeko, eta bizien argiarekin argitzeko.

31. Kontuan zaude, Job, eta aditu nazazu, eta zaude isillik, nik itz egiten dedan artean.

32. Eta baldin zer esanik badaukazu, erantzun zadazu, itz egin ezazu; zeren nik nai det justoa agertu zaitezela.

33. Eta ez badaukazu, aditu nazazu. Isillik zaude, eta jakinduria erakutsiko dizut.

OGEITA AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Eta jarraitzen ziola Eliuk itz egiteari, oiek ere esan zituen.

2. Aditu itzatzute, jakintsuak, nere itzak; eta zuek gizon adituak, entzun nazazute.

3. Zeren belarriak aztertzen ditu itzak, eta mingañak guztotik ezagutzen ditu jaten diran gauzak.

4. Aztertu dezagun gauza au, eta ikusi dezagun gure artean zer obe dan.

5. Zeren Jobek esan du: Justoa naiz ni, eta Jaungoikoak utzi du nere lanbidea.

6. Zeren nigatik egiten dan juizioan, gezurra dago. Txit gogorra da sartuta daukadan saeta, ez arkiturik nigan bekaturik batere.

7. Zeñ gizon dago Joben antzekorik, ura edango balu bezela, iseka egiten duenik?

8. Gaiztakeria egiten dutenen laguna danik, eta gizon bekatariakin dabillenik?

9. Zeren esan zuen: Ez da gizona Jaungoikoaren gogokoa izango, berarekin korrika joango balitza ere.

10. Argatik, gizon zentzudunak, aditu nazazute: Urrutian dago Jaungoikoagandik gaiztakeria, eta Guztiadezakeanagandik justoa ez dan gauza guztia.

11. Zeren berak emango die gizonaren obrai saria, eta ordainduko du bakoitza bere bideen araura.

12. Izanik, dan bezela, egia, ez duela Jaungoikoak arrazoe gabe iñor kondenatzen; eta Guztiadezakeanak ere ez duela justizia goraberatzen.

13. Zeñ besterik jarri du lurraren gañean? Nor ipiñi du, egin zuen mundua gobernatzen?

14. Beragana zuzenduko balu bere biotza, ekarriko luke norberagana bere espiritua eta asnasa.

15. Aragi guztia batbatean galduko litzate, eta auts biurtuko litzake gizona.

16. Baldin bada adimenturik badaukazu, aditu ezazu esaten dana, eta nere itzak entzun itzatzu.

17. Sendatua izan al liteke, justizia maitatzen ez duena?

18. Erregeari esaten diona, fede ukalaria, andizkiai gaiztoen izenaz deitzen diena.

19. Prinzipeakganatutzen ez dana, eta andizkia ere ezagutzen ez duena, beartsuaren kontra auzitan ari diranean, zeren guztiak dira bere eskuak egiñak.

20. Batbatean ilko dira, eta gauaren erdian erriak nastuak izango dira, eta iragoko dira, eta esku gabe kenduko dute bidegabe agintzen zuena.

21. Zeren bere begiak daude gizonen bideai begira, eta dauzka kontatuak beren pauso guztiak.

22. Ez dago illuntasunik, ez da eriotzaren itzalik, an ezkutatzeko gaiztakeria egiten dutenak.

23. Zeren onezkero ez dago gizonaren eskuan, Jaungoikoagana juiziora etortzea.

24. Berak puskatuko du ezin kontatu adineko talde bat, eta beren lekuan beste batzuek jarriko ditu.

25. Zeren ezagutzen ditu beren obrak. Eta argatik bialduko du gaua, eta zeatuak izango dirade.

26. Gaiztoak bezela kastigatu zituen mundu guztiaren aurrean.

27. Berariaz bezela beragandik alde egin zutenak, eta bere erabaki guztietatik ezerere jaki nai izan etzutenak,

28. Allegatu erazi zitzaien beragana premiatsuaren deadarrai, eta beartsuen boza aditu zezan.

29. Zeren baldin berak pakea ematen badu, zeñ da kondenatuko duena? Eta bere arpegia ezkutatzen duenean, zeñ da begiratu dizaiokena, naiz izan dedilla au jendeen gañean, naiz gizon guztien gañean?

30. Bera da erreñatuerazitzen diona gizon hipokrita bati, erriaren bekatuak gatik.

31. Orain bada, nik ere Jaungoikoaren gañean itz egin dedan ezkero, zuri ere ez dizut galeraziko.

32. Uts egin badet, erakutsi zadazu utsa. Gaizki itz egin badet, ez det geiago esango.

33. Jaungoikoak zuri, bere kontua artuko al dizu, zure gogokoa izan ez dalako? Baña zu izan ziñan lenbizikoa itz egiten, eta ez ni, eta gauza oberik badakizu, itz egin ezazu.

34. Gizon adituak itz egin bizatet, eta gizon jakintsuak aditu naza.

35. Jobek berriz gaizki itz egin du, eta bere itzak ez daukate erakutsi onaren otsa.

36. Ene aita, izan bedi Job naigabetua atzeneraño, etzaiozu pakean utzi gizon gaizto orri.

37. Zeren gañerako bere bekatuai blasfemia itsasten die. Guk bitartean estutuko degu, eta zuzendu bedi gero bere izketaetan Jaungoikoaren juiziora.

OGEITA AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Eliuk bada berriz, oiek esan zituen.

2. Justoa deritzazu dala zure gogorazioa, esatea zuk: Ni Jaungoikoa baño justoagoa naiz?

3. Zeren zuk esan zenduen: Ez da zure gogokoa zuzena dan gauza: edo zer dizu zuri nik bekatu egiñaz?

4. Argatik nik erantzungo diet zure izketai, eta zure adiskideai zurekin?

5. Altxatu itzatzu zure begiak zerura, eta begiratu ezazu, eta zaude arretaz aizearen tokia ikusten, zu baño zenbat goratuago dagoan.

6. Bekatu egiten badezu, zer kalte egingo diozu? Eta zure gaiztakeriak ugaritzen badira, zer egingo dezu bere kontra?

7. Gañera, ongi egiten badezu, zer ematen diozu, edo zer artzen du berak zure eskutik?

8. Zure gaiztakeriak zure antzekoa dan gizonari kalte egingo dio, eta zure justizia gizonaren semearentzat izango da mesedegarria.

9. Berak deadar egingo dute gezur asmatzalleen ugaritasunagatik, eta negar egingo dute erregeen agintaritza gogorragatik.

10. Eta iñork ere etzuen esan: Non da egin ninduen Jaungoikoa, zeñak eman zituen kantak gauean?

11. Erakusten diguna lurreko abereai baño geiago, eta zeruko egaztiai baño adiera andiagoa ematen diguna?

12. Orduan deadar egingo dute, eta ez du adituko, gaiztoen urgulleriagatik.

13. Ez du bada Jaungoikoak alperrik adituko, eta ikusiko ditu Guztia dezakeanak bakoitzaren kausak.

14. Esango bazeneza ere: Ez du begiratzen, esamiñatu zaite bere aurrean, eta itxedon ezazu.

15. Zeren orain ez du agertzen bere sumintasuna, eta ez ditu ere kastigatzen bekatuak gogortasunarekin.

16. Beraz Jobek alperrik idikitzen du bere aoa, eta ugaritu ditu, ezerere ez dakian bati dagozkion itzak.

OGEITA AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Jarraitzen ziola oraindik Eliuk izketari, esan zuen:

2. Itxedon zadazu piska bat, eta adiraziko dizut, zeren badaukat oraindik Jaungoikoaren alde zer itz egin.

3. Lenengotik asita, berriz esango ditut nere jakinduriako itzak, eta erakutsiko det nere egillea justoa dala.

4. Zeren egiaz ez dago gezurrik nere esanetan, eta erakutsiko zatzu nere jakinduria ziertoa dala.

5. Jaungoikoak ez ditu botatzen almentsuak, bera ere almentsua izanik.

6. Baña ez ditu gaiztoak salbatzen, eta beartsuai justizia egiten die.

7. Bere begiak justoagandik ez ditu kenduko, eta erregeak tronuaren gañean betiko jartzen ditu, eta berak dira goratuak.

8. Eta kateetan egongo balirade, eta pobrezako sokakin lotuak,

9. Erakutsiko diezte beren obrak, eta beren gaiztakeriak, gogortasunak egin zituztelako.

10. Belarriak ere idikiko diezte, berak zuzendu ditezen, eta itz egingo die, beren gaiztakeriakin damutu ditezen.

11. Adituko balute, eta kunplitu, bukatuko dituzte beren egunak onean, eta beren urteak glorian,

12. Baña adituko ez balute, ezpataz iragoak izango dira, eta galduak beren ezjakiñean.

13. Hipokritak eta biotz tolesdunak Jaungoikoari aserretuerazitzen diote, eta ez diote ots egingo lotuta daudenean.

14. Beren anima ilko da ekaitzean, eta beren bizia emakumetuen artean.

15. Aterako du beartsua bere ansiatik, eta naigabean belarrira itz egingo dio.

16. Ala bada salbatuko zaitu ao estu eta bere azpian ondorik ez daukanetik, eta zure mai oparoan berriz eseriko zera.

17. Zure kausa juzgatua izan da gaizto batena bezela, kausa eta erabakia artuko dituzu.

18. Aserreak bada etzaitzala mugitu norbait azpian idukitzeko, eta doañen ugaritasunak etzaitzala iñorganatu.

19. Utzi ezazu zure anditasuna naigabe baga, eta menderatu itzatzu indarrean sendoak diran guztiak.

20. Ez ezazu gaua luzatu, erriak igo ditezen beren billa.

21. Kontu iduki ezazu gaiztakeriarontz ez zeartutzearekin; bada oni jarraitzen asi ziñan zure doakabetasunean erori ezkero.

22. Begira nola Jaungoikoa bere sendotasunean altua dan, eta ez dago batere bere antzekorik lege emalleen artean.

23. Nork iduki dezake bere bideen berri? Edo nork esan dizaioke: Bidezo ez dan gauza bat egin dezu?

24. Oroitu zaite ez dezula ezagutzen bere obra, zeñagatik gizonak kantatu zuten.

25. Gizon guztiak ikusten dute, bakoitzak urrutitik begiratzen dio.

26. Ona zeñ andia dan Jaungoikoa, gure jakinduria garaitzen duena, bere urteen zenbata jakineziña,

27. Berak gelditzen ditu euri tantoak, eta isurtzen ditu zerutik eurijasak ugoldeen gisara.

28. Zeñak erortzen diran, gañetik guztia estalitzen duten odeietatik.

29. Zabaldu nai balitu odeiak bere etzauntza bezela,

30. Eta tximistatu bere argiarekin goitik, itsasoaren opoak ere estaliko ditu.

31. Zeren oien bitartez juzgatzen ditu erriak, eta jaten ematen dio ilkor askori.

32. Bere eskuetan ezkutatzen du argia, eta berriz etortzeko agintzen dio.

33. Bere adiskideari adierazten dio, aren jabe dala, eta beratara igo ditekela.

OGEITA AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Onen gañean nere biotza ikaratu zan, eta bere tokitik mugitu.

2. Arretaz aditu ezazute bere boz ikaragarria, eta bere aotik ateratzen dan otsa.

3. Bera dago zeruaren azpian dagoan guztiari begira, eta bere argia lurraren mugetaraño.

4. Onen ondoren otsak orroa egingo du, eta turmonatuko du bere anditasunaren bozarekin, eta aditzen danean ezin konprendituko da.

5. Miragarriro bere bozarekin egingo ditu turmonadak Jaungoikoak, gauza andi eta ezagutu eziñak egiten dituenak.

6. Elurrari agintzen dionak, jetxi dedilla lurrera, eta neguko euriai, eta bere sendotasuneko eurijasai.

7. Gizon guztien eskuan sillu bat ipintzen duena, ezagutu ditzan bakoitzak bere obrak.

8. Sartuko da pistia bere ezkutatokian, eta bere koban biziko da.

9. Toki ezkutuetatik aterako da ekaitza, eta otza ifarretik.

10. Jaungoikoaren asnasara gogortzen da izotza, eta berriz erortzen dira urak ugaritasun andiarekin.

11. Gariak nai ditu odeiak, eta odeiak barreatzen dute beren argia.

12. Odeiak dijoaz inguratuaz toki guztiak, gobernatzen dituenak zuzentzen dituen edozeñ tokitatik, bere aginteak lurraren zabalera guztian betetzeko prestatuak.

13. Naiz tribu batean, naiz bere lurrean, naiz bere urrikaltasunak arkitu ditezela erabakitzen duen edozeñ tokitan.

14. Aditu ezazu au Job, gelditu zaite, eta konsideratu itzatzu Jaungoikoaren miraríak.

15. Badakizu noiz agindu zien Jaungoikoak euriai agertuerazi zitzaiotela argiari bere odeietan?

16. Ezagutzen al dituzu odeien bidetxigor andiak, ezagera goratuak, eta osoak?

17. Zure soñekoak ez al daude beroak egoia darabillenean lurraren gañean?

18. Zuk egin al ziñituen berarekin zeruak, zeñak diraden txit gogorrak, menast urtuzkoak balirade bezela?

19. Erakutsi zaguzu zer esango diogun, zeren gu illuntasunez inguratuak gaude.

20. Nork kontatuko dio nik itzegiten dedana? Gizonak itz egingo balu ere, iretsia izango da.

21. Orain berriz ez dute ikusten argia. Aizea batbatean gogortu eta odei biurtzen da, eta iragotzen dan aize batek igeseraziko die.

22. Ifarretik dator urrea, eta eman dizazkiogun Jaungoikoari begirunez alabantzak.

23. Ez gera gu iritxitzeko diñak. Bera da andia bere eskubidean, eta bere erabakietan, eta bere justizian, eta esan ezin lezakeana.

24. Argatik gizonak bere beldur izango dira, eta beren buruak jakintzutsat dauzkenetatik batere ez da ausartatuko bera kontenplatzen.

OGEITA EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta erantzuten ziola Jaunak Jobi aizebunbada batetik, esan zuen:

2. Zeñ da, esaera ederrak ezerere ez dakianaren itzakin nastutzen dituen ori?

3. Lotu ezazu gizona bezela zure gerria. Galde egingo dizut, eta erantzun zadazu.

4. Non zeunden nik ipintzen nituenean lurraren zimenduak? Jakinerazi zadazu, baldin badezu adierarik.

5. Badakizu nork jarri zituen bere neurriak? Edo nork zabaldu zuen soka bere gañean?

6. Zeren gañean daude bere ondopeak? Edo nork jarri zuen bere kantoiarria,

7. Alabatzen ninduenean batean goizeko izarrak, eta Jaungoikoaren seme guztiak poztzen ziranean?

8. Nork itxi zuen itsasoa ateakin, kanpora ateratzen zanean, sabeletik ateratzen dana bezela?

9. Jartzen nionean nik odei bat soñekotzat, eta illuntasunean biltzen nuenean, aur bat zapietan bezela?

10. Nere mugaz inguratu nuen, eta jarri niozkan morrolloak eta konportak,

11. Eta esan nuen: Onaraño allegatuko aiz, eta ez aiz aurrera iragoko, eta ire baga arroak emen autsiko dituk.

12. Zu jaio ezkero eman al ziñon legea goizeko argiari, eta erakutsi baziñion egunsentiari bere lekua?

13. Eta artu al zenduen lurra bere ertzetatik, dardaran zenerabillela, eta astinduta bota al ziñituen gaiztoak beratatik?

14. Sillua biurtuko da basa izatera, eta iraungo du soñeko batek bezela.

15. Kendua izango zaie gaiztoai beren argia, eta beren esku goratua ezereztua izango da.

16. Itsasoaren ondoetan sartu al zera, edo lurraren barrenik beerengoenetan ibilli al zera?

17. Eriotzako ateak idikiak izan al zazkizu, eta sarrera illunak ikusi al dituzu?

18. Jakin badezu zenbat dan lurraren zabalera? Adirazi zazkidazu, baldin badakizkizu, gauza guzti oiek,

19. Zeñ tokitan dagoan egotez argia, eta zeñ dan illuntasunen lekua.

20. Eraman dezazun bakoitza bere tokira, dakizkianak bezela beren etxeetarako bideak.

21. Al zenekian orduan, jaioko ziñala? Eta zure egunen zenbataren berririk al zeneukan?

22. Elurraren tesoroetan sartu al zera? Edo kazkabarraren tesoroak ikusi al dituzu?

23. Zeñak dauzkadan nik prestatuak etsaiaren denborarako, ele eta gudaren egunerako?

24. Zeñ bidetik zabaltzen da argia, eta nola dijoa berotasuna lurraren gañeko tokietara?

25. Nork erakutsi zion joateko lekua ugolde andi bati, eta bidea turmoi otspetsuari?

26. Euria egin zezan lur eremu baten gañean, non ez dagoan gizonik batere, non ez dan ilkorrik batere bizi,

27. Urez betetzeko, izan arren bidegabea eta bakarra, eta belar berdeak erne zitezen?

28. Zeñ da euriaren aita? Edo, zeñgandik sortuak izan ziran intz tantoak?

29. Zeñ sabeletik irten zan izotza? Edo zeñgandik izan zan sortua zeruko izoztea?

30. Urak gogortzen dira arriaren antzera, eta itsasoaren gaña estututzen da.

31. Bildu alko ote dituzu zazpi izar argitsuak, edo gelditu alko ote dezu Orionaren ingurumaia?

32. Zu al zera agertuerazitzen diozuna bere denboran Egunsentiko izarrari, edo igoerazizen diozuna illunabarreko izarrari lurreko semeen gañera?

33. Zuk aditzen al dituzu zeruen mugimenduak, eta emango al dezu beren arrazoia lurrean?

34. Jasoko al dezu zure boza odeietara, euri ugarietan biurtuerazitzeko?

35. Iñusturiak bialduko al dizutzu, eta joango al dira, eta biurtzen diranean esango al dizute: Emen gaude?

36. Nork jarri zuen gizonaren erraietan jakinduria? Edo nork eman zion ollarrari adiera?

37. Nork adirazi dezake zeñ ederki dauden zeruak beren tokietan jarriak, eta nork geldituerazi lezake zeruaren mugimentu ederra?

38. Noiz zijoan autsa eroriaz lurraren gañera eta gogortu ziran zokorrak?

39. Ibilliko al zera zu leoeemearentzat eiza arrapatzen, eta bere humeen gosea aseko al dezu

40. Beren kobetan etziñak daudenean, eta beren arrizuloetatik azeloan?

41. Nork dauka prestatua belearentzat bere janaria, bere humetxoak deadarrez Jaungoikoagana zuzentzen diradenean, batetik bestera dabiltzala, zer janik ez daukatelako?

OGEITA EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Basauntzak aitzarteetan humeak noiz egiten dituzten al dakizu, edo egon izan bazera oriñai begira humeak egiten dituztenean?

2. Kontatu al dituzu beren humeduntzako illak, eta beren hume egiteko denbora al dakizu?

3. Makurtzen dira argitara emateko beren humeak, eta orroika ari diradela egiten dituzte humeak.

4. Beren humeak berakgandik berezitzen dira, eta dijoaz bazkatzera. Ateratzen dira, eta ez dira berakgana itzultzen.

5. Nork utzi zuen aukeran basa astoa, eta nork askatu zituen bere lokarriak?

6. Nik eman nion etxea eremuan, eta bere bizilekuak lur soillean.

7. Berak mezpreziatzen du errietako jendetza, nagusi gogorraren deadarra ez du aditzen.

8. Begiratzen du bera bazkatzen dan mendietatik inguruetara, eta berde guztiaren billa dabil.

9. Rinozeronteak serbitu naiko al zaitu, edo egongo ote da egotez zure ganbelan?

10. Lotuko al dezu rinozerontea zure uztarhedearekin areatu dezan? Edo autsiko al ditu ibarretako zokorrak zure ondoren?

11. Fiatuko al zera bere indar andiarekin, eta zure lanak bere kontura utziko al dituzu?

12. Sinistuko al diozu berak biurtuko dizula ereiñ dezuna, eta larraña beteko dizula?

13. Arranoaren luma zigoñaren, eta gabillaiaren lumaen antzekoa da.

14. Utzitzen dituenean lurrean bere aurraultzak, zuk berotuko al dituzu autsaren gañean?

15. Aztutzen da oñen batek zapalduko dituela, edo autsiko dituela kanpoko pistiaren batek.

16. Gogortzen da bere humeakganako, bereak ez balirade bezela, alperrik nekatu zan, beldur batek ere onetaratzen etzuela.

17. Zeren Jaungoikoak kendu zion jakinduria, eta adierarik etzion eman.

18. Denbora danean, jasotzen ditu gora egoak. Burla egiten die zaldiari eta zaldunari.

19. Emango al diozu zaldiari sendotasuna, edo irrintzaz bere lepoa inguratuko dezu?

20. Salto eragingo al diozu matxisaltokariak bezela? Bere sudurretako bufak ikaraerazitzen du.

21. Aztertzen du lurra azkazalaz, zut jartzen da erruz. Korrika dijoa armatuai bidera irtetzera.

22. Mezpreziatzen du beldurra, eta ezpatari ez dio atzera egiten.

23. Aditzen ditu bere gañean fletxategiaren otsa, lanzaren distia, eta ezkutuaren erabillierak.

24. Aparra dariola, eta frenoa taska darabillala, lurra iretsi nai du, eta tronpetaren otsa ez du itxedotzen.

25. Aditzen duenean bozina, esaten du: Ola, guda usaia dago urrutitikan, agintarien alai itzak, ejerzituaren deadarrak.

26. Zure jakinduriaz gabillaia lumaz betetzen al da, egoak egoarontz zabaltzen dituela?

27. Zure agindura goratuko al da agilia, eta bere kabia toki altuetan jarriko al du?

28. Bera egon oi da sasilarren artean, eta dauka bere bizilekua goietako aitz aldapatsu eta latzetan, eta iñor allegatu ezin litekean arkaitzdietan.

29. Andik dago janariaren azeloan, zeren bere begiak urrutitikan ikusten dute.

30. Bere humetxoak odola miaztzen dute, eta aragi illa dagoan edozeñ tokitan, laster da gañean.

31. Jarraitu zion Jaunak itz egiteari, eta esan zion Jobi:

32. Nola Jaungoikoarekin leiatzen danak, ain erraz utzitzen dio, eta gelditzen da mututua? Egiaz Jaungoikoarekin argudioan ari danak, erantzun bear dio.

33. Jobek orduan erantzuten ziola Jaunari, esan zuen:

34. Nik ganora gabetanik itz egin dedan onek, zer erantzun dezaket? Nere eskua nere aoaren gañean jarriko det.

35. Gauza bat esan det, eta arren bada esan ez baldin banu: eta beste bat ere bai, zeñai ezerere geiago ez diet itsatsiko.

BERROGEIGARREN KAPITULUA

1. Eta erantzuten ziola Jaunak Jobi aize bunbada batetik, esan zuen:

2. Lotu ezazu zure gerria gizona bezela, galdetuko dizut, eta erantzun zadazu.

3. Nere juizioa utsera botako al dezu, eta ni kondenatuko al nazu, zu zerori justotzeko?

4. Jaungoikoarena bezelako besorik al dezu, eta zure bozaren otsa bere turmoiaren antzekoa al da?

5. Gañetik argitasunez jantzi zaite, eta goira igo zaite, eta gloriaz galantu zaite, eta apaindu soñeko ederrakin.

6. Desegin itzatzu arroak zure aserre sumiñarekin, eta begirakune bakar batekin andiustedun guztia umillatu ezazu.

7. Jarri itzatzu zure begiak urgulleritsu guztietan, eta lotsatu itzatzu, eta ezereztu itzatzu gaiztoak, dauden edozeñ tokitan.

8. Ezkutatu itzatzu guztiak batean autsaren azpian, eta beren buruak sartu itzatzu zulo zakonaren barrenen.

9. Orduan aitortuko det zure eskuiko eskuak salbatuko al zaituela.

10. Begira Behemothi zeñ egin nuen zu egin zindudanean, belarra jango du idiak bezela.

11. Bere indarra dago bere bizkarrean, eta bere sendotasuna bere sabeleko zilean.

12. Estututzen du bere atzekia zedroa bezela, bere istarretako goi zañak daude barrendik elkarri itsatsiak.

13. Bere ezurrak bronzezko kañaberak bezelakoak, bere mamiezurrak burnizko plantxak bezelakoak.

14. Bera da Jaungoikoaren bideen asiera, egin zuena serbitu da bere ezpatarekin.

15. Oni mendiak belarra ematen diote, kanpoko abere guztiak an jostatuko dira.

16. Lo egiten du itzalean, kañaberadiko ezkutuan, eta toki ezeetan.

17. Zuaitz itzaltsuak estaltzen dute bere egolekua, errekondoetako saratsak inguratuko dute.

18. Ona non ibai bat edango duen, eta ez da mirarituko. Eta uste du Jordana ere bere aotik sartuko duela.

19. Bere begietatik amuarekin bezela arrapatuko du, eta makilla zorrotzakin zulatuko dio bere muturra.

20. Atera alko dezu kanpora amuarekin Lebiathan, eta sokarekin bere mingaña lotu?

21. Bere sudurrean burniarrazka jarriko al diozu, edo bere masallezurra burnikakoarekin zulatu?

22. Erregu asko egingo al dizu, edo esango al dizkizu itz samurrak?

23. Zurekin elkartasuna egingo al du, eta zure mendekotzat betiko artuko al dezu?

24. Jostatuko al zera berarekin txori batekin bezela, eta lotuko al dezu zure mendeko neskameentzat?

25. Zure adiskideak zatituko al dute, ete zatiak merkatariak artuko al dituzte?

26. Bere larruarekin sareak beteko al dituzu, eta bere buruarekin arrai naza?

27. Zure eskua bere gañean jarri ezazu. Oroitu zaite gerrarekin, eta ez ezazu itz geiago egin.

28. Ona non bere itxedopena utsean geldituko dan, eta guztiak ikusten dutela aurtikia izango dan.

BERROGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Biotzgogorrekoa bezela ez det esnatuko, zeren nork gogor egin dizaioke nere begitarteari?

2. Nork lendanaz eman zidan neri, nik biurtu dizaiodan? Nerea da, zeruaren azpian dagoan guztia.

3. Ez diot barkatuko, ezta begirunerik ere idukiko bere itz eragille, urrikaltasunera mugitzeko ederki prestatuai.

4. Nork agertuko du bere soñekoaren gañeko aldea? Eta bere aoaren erdira nor sartuko da?

5. Nork idikiko ditu bere arpegiko ateak? Bere ortzen inguruan izua dago.

6. Bere gorputza bronze urtuzko ezkutuak bezelakoa, eta dago beren artean estututako eskamaz bildua.

7. Bata dago bestari itsatsia, eta asnasa bide bat ere ez da beretatik iragotzen.

8. Bata egongo da besteari itsatsia, eta elkarri eldurik daudela, iñolaere elkargandik ezin berezituko dira.

9. Bere txintxa suzko argitasuna da, eta bere begiak, egunsentiaren arrosa kolorea bezela.

10. Bere aotik irtetzen dira illeti erazekiak bezelako garrak.

11. Bere sudurrak botatzen dute, garren artean irakitzen dagoan eltzeak bezelako kea.

12. Bere asnasak erazekitzen ditu ikatzak, eta bere aotik suzko garrak ateratzen dira.

13. Bere lepoan dago sendotasuna; eta premia dijoa bere aurretik.

14. Bere gorputzaren zatiak beren artean ongi elkartuak daude. Bere gañean oñazkarrak eroriko dira, baña ez dira beren tokitik mugituko.

15. Dauka biotza gogorra arria bezela, eta estutua errementariaren ingudea bezela.

16. Jaikitzen danean aingeruak beldur izango dira, eta ikaraturik garbituko dira.

17. Iñork eraso nai badio, ez dute balio bere kontra ezpatak, ez lanzak, ez korazak.

18. Zeren burnia da beretzat lastoa bezela, eta bronzea egur igarra bezela.

19. Ez dio igesik eraziko fletxaririk trebeenak; aballaren arriak garibizar biurtu zitzaiozkan.

20. Garibizartzat idukiko du mallukia, eta beraganontz punterian dagoan lanzari farra egingo dio.

21. Bere azpian egongo dira eguzkiaren argierrañuak, eta ibilliko da urrearen gañetik, basatsaren gañetik bezela.

22. Itsasoaren barrenari irakineraziko dio eltze bati bezela, eta jarriko du okenduak borborran dirakitenean bezela.

23. Bere ondoan utziko du bidetxigor argitsu bat, eta artueraziko dio itsasoari ulezuri baten kolorea.

24. Ez dago lurraren gañean berarekin konparatu ditekean indarrik, zeren iñoren beldur ez izateko egiña izan zan.

25. Goratu guztia ikusten du, urgulleriaren seme guztien errege bera da.

BERROGEITA BIGARREN KAPITULUA

1. Eta erantzuten ziola Jobek Jaunari, esan zuen:

2. Badakit guztia dezakezuna, eta gogorazio bat ere etzatzula ezkutatzen.

3. Zeñ da jakituria gabe konsejua estalitzen duen ori? Argatik nik zentzugabekiro itz egin det, eta nere jakinduria baño nerrigabe gorago zeuden gauzaen gañean.

4. Aditu ezazu, eta nik itz egingo det, galdetuko dizut, eta erantzun zadazu.

5. Entzutez ezagutzen zindudan, orain berriz nere begiakin ikusten zaitut.

6. Argatik nerau salatzen naiz, eta penitenzia egiten det autsean eta errautsean.

7. Eta Jaunak Jobi itz oiek esan ezkero, esan zion Elifaz Temangoari: Txit aserretua nago zure kontra, eta zure bi adiskideen kontra, ez dezutela itz egin zuzen nere aurrean, nere serbitzari Jobek bezela.

8. Artu itzatzute bada zazpi zezen, eta zazpi txikiro, eta zoazte nere serbitzari Jobgana, eta eskeñi ezazute holokaustoa zuekgatik. Eta Job nere serbitzariak zuekgatik otoiz egingo du. Nik ontzat artuko det bere erregua, kastigatuak izan etzaitezen zuen bekatuagatik, ez dezutela zuzen itz egin nigatik, nere serbitzari Jobek bezela.

9. Joan ziran bada Elifaz Temantarra, eta Baldad Suhatarra, eta Sofar Nahamatarra, eta egin zuten Jaunak agindu zien bezela, eta Joben bitartekotasunaz Jauna bigundu zan.

10. Jauna ere Jobekin errukitu zan bere adiskideakgatik erregututen egon zanean, eta Jaunak eman zion Jobi iduki zuen guztia, besteanbestetuta.

11. Eta etorri ziran beragana bere anaia guztiak, eta bere arreba guztiak, eta len ezagutu zuten guztiak, eta jan zuten berarekin bere etxean. Eta agertu zioten beren errukia, gozatzen zutela Jaunak bialdu ziozkan naigabe guztiakgatik, eta beretatiko bakoitzak eman ziozkan ardi batna, eta urrezko belarrietako batna.

12. Eta Jaunak bota zuen bere bendizioa Joben gañera bere azkenengo izaeran, lenbizikoan baño askozaz ugariago. Eta allegatu zan idukitzera amalau milla ardi, eta sei milla gamelu, eta milla idi uztarri, eta milla asto eme.

13. Eta iduki zituen zazpi seme eta iru alaba.

14. Eta beretatik lenbizikoari jarri zion izena da Dia, bigarrenarena Kasia, eta irugarrenarena Kornustibia.

15. Eta etzan arkitu lur guztian, Joben alabak bezin emakume ederrik. Eta eman zien beren aitak herenzia beren anaiai bezela.

16. Gauza oien ondoan bizi izan zan Job eun eta berrogei urtean eta ikusi zituen bere semeak, eta bere semeen semeak laugarren gizaldiraño, eta zartuta, eta egunez beterik il zan.

SALMOETAKO LIBURUA

LENBIZIKO SALMOA

1. Zorionekoa, gaiztoen konsejuan ibilli etzan gizona, eta bekatarien bidean gelditu etzana, eta erakutsi txarren alkian eseri etzana,

2. Baizik bere borondatea Jaunaren legean jarria daukana, eta bere legean gau ta egun meditatzen duena.

3. Eta izango da, ur korronten aldean ipiñitako zuaitza bezelakoa, bere denboran frutua emango duena.

Eta bere ostoa ez da eroriko, eta berak egiten duen guztia doatsu joango da.

4. Ez ala gaiztoak, ez ala, baizik lurraren gañetik aizeak botatzen duen autsa bezela.

5. Argatik ez dira jaikiko gaiztoak juizioan, ezta bekatariak ere justoen batzarrean.

6. Zeren Jaunak ezagutzen du justoen bidea, eta gaiztoen bidea galduko da.

BIGARREN SALMOA

1. Zergatik orroaka ari dira erreinuak, eta erriak erabilli dituzten asmazio alperrak?

2. Bildu dira lurreko erregeak, eta elkartu dira prinzipeak Jaunaren kontra, eta bere Kristoaren kontra.

3. Urratu ditzagun beren lokarriak, eta bota dezagun gugandik bere uztarria.

4. Zeruan bizi danak irri egingo die, eta Jaunak iseka egingo die.

5. Orduan itz egingo die berak bere aserrean, eta bere sumintasunean izuz beteko ditu.

6. Ni berriz berak erregetzat jarria izan naiz Sion bere mendi santuaren gañean, bere legea predikatzeko.

7. Jaunak esan zidan: Nere semea zera zu, nigandik gaur sortua izan zera.

8. Eskatu zadazu, eta emango dizkizut jendeak zure herenziatzat, eta zu izango zera lurraren mugetarañoko jabe.

9. Burnizko zigorrarekin gobernatuko dituzu, eta zeatuko dituzu eltzegiñaren ontzia bezela.

10. Eta orain erregeak aditu ezazute, jakintsuak izan zaitezte lurra juzgatzen dezutenak.

11. Beldurrez serbitu ezazute Jauna, eta ikaraz beragan poztu zaitezte.

12. Erakutsi onari eldu zaiozute, atzenean aserretu ez datzakion Jaunari, eta galdu etzaitezen justiziako bidetik alde eginda.

13. Laster erazikitzen danean bere aserrea, doatsuak beragan itxedotzen duten guztiak.

IRUGARREN SALMOA

1. Dabiden salmoa, bere seme Absalonen igesi zijoanean.

2. Jauna, zergatik ugaritu dira ni naigabetzen nautenak? Asko nere kontra jaikitzen dira.

3. Askok esaten diote nere animari: ez dago salbaziorik beretzat bere Jaungoikoagan.

4. Baña zu, Jauna, zera nere anparatzallea, nere gloria, eta nere burua jasotzen dezuna.

5. Nere bozarekin deitu nion Jaunari, eta bere mendi santutik aditu ninduen.

6. Nik lo egin nuen, eta egon nintzan lo gogorrean, eta jaiki nintzan, Jaunak anparatu ninduelako.

7. Inguratua nauka jendetza neurrigabearen beldur ez naiz ni izango, jaiki zaite Jauna, salba nazazu nere Jaungoikoa.

8. Zeren zuk zauritu dituzu, arrazoe gabe gerra egiten didaten guztiak, bekatarien ortzak puskatu dituzu.

9. Salbazioa Jaunagandik datorkigu; eta zuk bedeikatuko dezu zure erria.

LAUGARREN SALMOA

1. Atzenerako: Dabiden Salmo eta Kantatxoa.

2. Otsegin nionean, aditu ninduen nere justiziako Jaungoikoak, naigabean zabaldu ninduzun.

Errukitu zaite nerekin, eta nere otoitza aditu ezazu.

3. Gizonen semeak, noizarteraño izango zerate biotz astunekoak? Zergatik maitatzen dezute arrokeria, eta gezurraren billa zabilzate?

4. Jakin ezazute bada Jaunak miragarria egin duela bere santua: Jaunak adituko nau berari otsegiten diodanean.

5. Aserretu zaitezte, eta ez ezazute bekaturik egin, artu ezazute zuen oietan, zuen biotzetan esaten dezutenaren damua.

6. Eskeñi itzatzute justiziako doañak, eta Jaunagan itxedon ezazute. Askok esaten dute: nork erakutsiko dizkigu ondasunak?

7. Sillutua dago, Jauna, gure gañean zure arpegiko argia, eman ziñion poza nere biotzari.

8. Beren gari, ardo, eta olioaren frutuakin, aberastu dira.

9. Pakean batean lo egingo det, eta atsedengo naiz.

10. Zeren zuk, Jauna, zuk bakarrik sendotu dezu nere itxedopena.

BOSGARREN SALMOA

1. Atzenerako: herenzia iritxitzen duen hurarentzat.

2. Alderatu itzatzu, Jauna, belarriak, nere itzetara, aditu ezazu nere deadarra.

3. Zaude zur nere erreguaren bozera, nere erregea eta nere Jaungoikoa.

4. Zeren zuri erregutuko dizut, goizean, Jauna, adituko dezu nere boza.

5. Goizean jarriko naiz zure aurrean, eta ikusiko det, zeren etzera zu, gaiztakeria nai duen Jaungoikoa.

6. Ez da ere biziko zure aldean gaiztoa, eta injustoak ere ezin egongo dira zure begien aurrean.

7. Gorrotatzen dituzu gaiztakeriaren egille guztiak, gezurra esaten duten guztiak galduko dituzu.

Gizon odolgiro eta engañalariari nazka izango dio Jaunak:

8. Baña ni, zure urrikaltasunaren ugaritasunean,

sartuko naiz zure etxean, adoratuko zaitut zure tenplo santurontz zure beldurrarekin.

9. Erabilli nazazu Jauna zure justiziatik, nere etsaiak gatik zuzendu ezazu zure aurrera nere bidea.

10. Zeren beren aoan ez dago egiarik, beren biotza dago arrokeriaz betea.

11. Beren eztarria da sepultura idiki bat, beren mingañakin engañatzen ari ziran. Juzgatu itzatzu, o Jaungoikoa. Beren gogorazioak utsean gelditu bitez, beren gaiztakeriak gatik diña diran bezela bota itzatzu; aserretuerazi dizutelako, Jauna.

12. Eta poztu bitez zugan itxedotzen duten guztiak, beti gozatuko dira, eta beretan biziko dira.

Eta zugan idukiko dute gloria zure izena maitatzen duten guztiak,

13. Zeren zuk bedeikatuko dezu justoa.

Jarri dizkiguzu, Jauna, zure borondate oneko koroeak, ezkutuak bezela.

SEIGARREN SALMOA

1. Atzenerako kantatxoen artean: Dabiden salmoa zortzigarrenerako.

2. Jauna, ez zadazu errierta egin zure sumintasunean, eta ez nazazu ere kastigatu zure aserrean.

3. Urrikaritu zaite arren nerekin Jauna, zeren eria nagoan: sendatu nazazu, Jauna, zeren nere ezurrak mugimenduan ari diran.

4. Eta nere anima txit izutua dago, baña, zuk Jauna, noizarteraño?

5. Itzuli zaite, Jauna, eta nere anima libratu ezazu, salbatu nazazu zure urrikaltasunagatik.

6. Zeren eriotzan ez dago zurekin oroitzen danik, eta infernuan, nork alabatuko zaitu?

7. Txit nekatua nago nere negar ta zizpuruen indarrez, gauero nere oia garbituko det, erregatuko det nere atsedentokia nere malkoakin.

8. Sumintasunaz nastu da nere begia, nere etsai guztien erdian zartu naiz.

9. Alde egin ezazute nigandik gaiztakeria egiten ari zeratenak, zeren Jaunak nere negarraren boza aditu duen.

10. Aditu du Jaunak nere erregua, Jaunak nere otoitza artu du.

11. Lotsatu bitez, eta txit izutuak jarri bitez nere etsai guztiak, biurtu bitez eta txit lotsatu berealaxe.

ZAZPIGARREN SALMOA

1. Dabiden salmo, Kuz Jeminiren semearen itzak gatik Jaunari kantatu ziona.

2. Jaun Jaungoiko nerea, zugan itxedon nuen, salbatu nazazu persegitzen nauten guztiakgandik, eta libratu nazazu.

3. Noizbait arrapatu ez dezan nere anima, leoiak bezela, ez dagoenean nork erredimitu, eta nork salbatu dezan.

4. Jaun nere Jaungoikoa, baldin nik ori egin banu, nere eskuetan gaiztakeriarik baldin badago,

5. Gaitzakin pagatu banien egiten zidatenai, erori nadilla arrazoiarekin nere etsaien azpian itxedopen gabe.

6. Persegitu beza etsaiak nere anima, eta iritsi beza, eta zapaldu beza lurrean nere bizia, eta nere gloria auts biurtu beza.

7. Jaiki zaite Jauna zure aserrean, eta erakutsi ezazu zure anditasuna zure etsaien erdian.

8. Eta erri taldeak inguratuko zaitu. Eta oien amorioz berriz goira igo zaite.

9. Jaunak juzgatzen ditu erriak.

Juzgatu nazazu, Jauna, nere justiziaren araura, eta nigan dagoan kulpa gabetasunaren araura.

10. Bukatu bedi onezkero bekatarien gaiztakeria, eta zuk, o Jaungoiko, biotzak eta gurarik ezkutuenak, aztertzen dituzun orrek, bidetik eramango dezu justoa.

11. Justoa da nere laguntasun, Jaunagandik datorrena, zeñak salbatzen dituen biotz zuzenekoak.

12. Jaungoiko, juez justo, sendo, eta sufritzallea, egunoro aserretzen al da?

13. Zuek biurtzen ez bazerate, distiatueraziko dio bere ezpatari, sendo eldu dio bere uztaiari, eta punterian jarri da, 14. Eta berean prestatu ditu eriotzako edontziak, egin ditu bere saietak erretzen diradenentzat.

15. Ona nola berak injustizia argitara eman zuen, sortu zan beragan dolorea, eta erdi zuen gaiztakeria.

16. Berak idiki, eta zakondu zuen leize obia, eta erori zan, egin zuen leize obian.

17. Bere dolorea bere buruaren kontra itzuliko da, eta bere buruaren gañera jetxiko da bere gaiztakeria.

18. Gloriaz beteko det Jauna bere justiziaren araura, eta Jaun txit altuaren izenari kantatuko diot.

ZORTZIGARREN SALMOA

1. Atzenerako, tolaretarako, Dabiden salmoa.

2. Jauna, gure Jauna, zeñ miragarria dan zure izena lurraren inguru guztietan.

Zeren zure anditasuna zeruen gañeraño goratu dan.

3. Aurren eta titikoen aotik irtenerazi ziñion zuk alabantza on osoari, etsaia eta bengatzallea desegiteko.

4. Zeren nik ikusiko ditut zure zeruak, zure beatzen lanak, zuk egin ziñituen illargia eta izarrak.

5. Zeñ da gizona, zeñarekin oroitzen zeran? Edo gizonaren semea, zeñ bisitatzen dezun?

6. Aingeruak baño gutxi txikiago egin zenduen, jarri ziñion gloriazko eta onrazko koroia.

7. Eta ipiñi zenduen zure eskuak egindako obraen gañean.

8. Guztiak jarri ziñituen bere oñen azpian, ardi eta bei guztiak, eta gañera kanpoko abereak:

9. Zeruko egaztiak eta itsasoko arrai, itsasoko bagaen artean dabiltzanak.

10. Jauna, gure Jauna, zeñ miragarria dan zure izena lurraren inguru guztietan!

BEDERATZIGARREN SALMOA

1. Atzenerako: Semearen ezkutuko isilgauzakgatik, Dabiden Salmoa.

2. Nik alabatuko zaitut, Jauna, nere biotz guzitik, kontatuko ditut zure gauza miresgarri guztiak.

3. Poztuko naiz, eta gozatuko naiz zugan, kantatuko diot zure izenari, o txit altua.

4. Nere etsaiari atzera biurtuerazi ziñiolako, erituko dira, eta galdu zure aurrean.

5. Zeren zuk justizia egin didazu, eta artu dezu zure kontura nere kausa zaitzea, eseri zera tronuaren gañean, zu, justiziaren araura juzgatzen dezuna.

6. Errierta egin ziñien jendeai, eta galdu zan gaiztoa, borratu zenduen beren izena betiko, mendeen mendetarako.

7. Etsaiaren sorbaldak gelditu ziran betiko indargatuak, eta beren erriak desegin ziñituen, beren oroipena aitu zan otsarekin.

8. Eta Jaunak beti dirau. Gertutu zuen bere tronua zuzen juzgatzeko.

9. Eta bera da juzgatuko duena zuzentasunarekin lurraren ingurua; justiziarekin juzgatuko ditu erriak.

10. Eta Jauna, bera egin da beartsuaren anparua, laguntzallea denbora egokietan, naigabean.

11. Itxedon bezate bada zugan zure izena ezagutzen dutenak. zeren zuk Jauna etziñituen utzi billatzen zaituztenak.

12. Kantatu zaiozkazute himnoak, Sionen bere bizilekua daukan Jaunari, adirazi itzatzute erreñuen artean bere egite miragarriak.

13. Zeren bengatzen zala bere serbitzarien odolarekin, ikusierazi du berakin oroitzen dala. Beartsuen deadarrezko eskariakin ez da aztu.

14. Urrikaritu zaite arren, Jauna, nerekin, begira ezazu zeñ azpiratua jarri nauten nere etsaiak.

15. Zuk eriotzaren ateetatik jasotzen nazunak, agirian adirazi ditzadan zure alabanza guztiak Siongo alabaren ateetan.

16. Agertuko det nere poza zuk salbatu nazulako, iltzatuak gelditu dira jendeak neretzat prestatu zuten galmenean.

Neretzat ezkutatua zeukaten artean berean, gelditu zan katigatua beren oña.

17. Ezagutua izango da, Jaunak justizia egiten duela, bere eskuen lanetan bekataria izan zan arrapatua.

18. Bekatariak infernura egotziak izan bitez, baitaere Jaungoikoarekin aztuta bizi diran jende oriek.

19. Zeren beartsua ez da izango betiko aztua, beartsuen eramana ez da betiko galdua izango.

20. Jaiki zaite, Jauna, ez bedi gizona garai gelditu, juzgatuak izan bitez jendeak zure aurrean.

21. Jarri ezazu Jauna beren gañean lege emalle bat, ezagutu dezaten jendeak gizonak diradela.

AMARGARREN SALMOA
HEBREOTARREN ARAURA

1. Zergatik, Jauna, urrutira alde egin dezu, desanparatu nazu denborarik bearrenean, naigabean?

2. Gaiztoa arrotzen dan artean, erazekitzen da beartsua, arrapatuak dira gogoan zerabiltzaten asmoetan.

3. Bekataria alabatua dalako bere animako gurarietan, eta gaiztoa ikusten dalako bendizioz betea.

4. Txit aserretuerazi zion Jaunari bekatariak, ain andia dan ezkero bere arrokeria ez du billatuko.

5. Bere aurrean ez dago Jaungoikorik, eta ala bere bideak beti daude loituak.

Zure erabakiai bere begietatik urrutira alde erazi die, bere etsai guztiak menderatuko ditu.

6. Zeren berak esan du bere biotzean: Ez naiz iñoizere mugitua izango, biziko naiz gaitzik gabe.

7. Zeñaen aoa madarikazioz, eta mingoiztasunez, eta engañuz betea dago, bere mingañaren azpian lana, eta miña.

8. Toki ezkutuetan aberatzakin azeloetan egotez dago, errugabea iltzeko.

9. Bere begiak beartsuaren kontra itzuliak daude, zelatadak jartzen ditu ezkutuan, leoiak bere koban bezela.

Zelatadak jartzen ditu beartsua arrapatzeko, beartsua arrapatzeko, beraganatzen duela.

10. Berak azpiratuko du bere lakioan, makurtuko da, eta eroriko da, beartsuak menderatzen dituenean.

11. Zeren berak bere biotzean esan du: Jaungoikoa onezkero ez da ezerekin oroitzen, itzuli du bere arpegia iñoizere ezer ez ikusteko.

12. Jaiki zaite Jaun Jainkoa, altxatu bedi zure eskua, beartsuakin etzaite aztu.

13. Zergatik aserretuerazi dio gaiztoak Jaungoikoari? Esan duelako bere biotzean: Ez du konturik artuko.

14. Zuk ikusten dezu, zeren zu zaude konsideratzen neke eta miña, jartzeko alakoak zure eskuetan. Zure kontura gelditu da beartsua, humezurtzaren laguntzallea zu izango zera.

15. Autsi ezazu bekatariaren eta gaiztoaren besoa, beren bekatua izango da billatua, eta ez arkitua.

16. Jaunak erreñatuko du beti eta mendez mende, galduak izango zerate bere lurreko erreñuak.

17. Aditu zuen Jaunak beartsuen guraria, zure belarriak aditu zuen beren biotzeko prestaera.

18. Humezurtzari eta azpiratuari justizia egiteko, gizonak onezkero lurraren gañean ez dezan iduki bere eskubidean gozatzeko asmorik ere.

AMARGARREN SALMOA

1. Atzenerako, Dabiden salmoa.

2. Jaunagan itxedotzen det, zergatik esaten diozute nere animari: irago zaite mendira txoria bezela?

3. Zeren begira bekatariai sendo eldu diotela beren uztaiari, eta prestatuak dauzkate geziak beren fletxategietan, saietatzeko illunean biotz zuzenekoak.

4. Zeren zuk egin zenduen gauza on guztia, desegin dute; justoak berriz zer egin du?

5. Jauna bere tenplo santuan dago, Jaunak bere esertokia zeruan dauka.

Bere begiak beartsuari begiratzen diote, bere betazalak galdetzen diete gizonen semeai.

6. Jaunak galdetzen die justoari eta gaiztoari, gaiztakeria maitatzen duenak berriz bere anima gorrotatzen du.

7. Botako ditu zorigaitzak bekatarien gañera euriaren ugaritasunarekin, sua, eta sufrea, eta aize bunbada, beren kaliziaren saria.

8. Zeren Jauna justoa da, eta justizia maitatu du: bere arpegia beti dago zuzentasunari begira.

AMAIKAGARREN SALMOA

1. Atzenerako zortzigarrenerako Dabiden salmoa.

2. Salbatu nazazu, Jauna, zeren ez da gizon onik arkitzen; zeren gutxitu dira egiak gizonen artean.

3. Bakoitzak lagun urkoari gezurra baizik ez dio itz egiten, itz egin dute ezpañ engañatzalleakin, eta biotz tolesarekin.

4. Galdu bitza Jaunak ezpañ engañatzalle guztiak, eta arrokeriak esaten dituen mingaña.

5. Esan zutenak: Goratuko degu gure mingaña, gure ezpañak gureak dira, zeñ da gure Jauna?

6. Baña Jaunak begiraturik desanparatuen premiari eta beartsuen negarrai, esaten du: Oraintxe jaikiko naiz ni.

Toki seguruan jarriko ditut, itxedopena artueraziko diet.

7. Jaunaren itzak itz garbiak dira, sutatik iragotako zillarra, lurrean garbitua, eta berriz zazpi alditan garbitua.

8. Zuk, Jauna, salbatuko gaituzu, eta gizaldi onetatik gordeko gaituzu betiko.

9. Gaiztoak ingurumai dabiltza, zuk zure anditasunaren araura ugaritu dituzu gizonen semeak.

AMABIGARREN SALMOA

1. Atzenerako, Dabiden salmoa.

Noizarteraño Jauna, idukiko nazu ain aztua? Noizarteraño nigandik zure arpegiari aldeeraziko diozu?

2. Zenbat denboran ibilliko naiz nere artean pensatzen, egun guztian nere biotza penatzen?

3. Noizarteraño egongo da nere etsaia garai nere ganean?

4. Begiratu zadazu, eta aditu nazazu nere Jaun Jainkoa.

Argitu itzatzu arren nere begiak, artu ez nazan iñoizere eriotzako loak;

5. Nere etsaiak noizbait esan ez dezan: Geiago izan naiz bere kontra. Naigabetzen nautenak txit poztuko dira ikusten banaute zalantzan nagoala.

6. Baña nik zure urrikaltasunean itxedon nuen. Nere biotza pozez saltoka ariko da zugandik etorri zatan salbazioagatik, kantatuko diot Jaun, nere ongilleari, eta soñuakin kantatuko diozkat salmoak Jaun txit goratuaren izenari.

AMAIRUGARREN SALMOA

1. Atzenerako, Dabiden salmoa.

Gizon zentzugabeak bere biotzean esan zuen: Ez dago Jaungoikorik. Usteldu dirade, eta egin dira nazkagarriak bere gurai jarraitzeagatik, ez dago gauza onik egin dagienik; bat bederik ez dago.

2. Jaunak zerutik gizonen semeen gañera begiratu zuen, ikusteko ote dagoan zentzua duenik, edo Jaungoikoa billatzen duenik.

3. Guztiak bidetik alde egin zuten, batean ezertarako gaiezak egin ziran, ez dago gauza onik egin dagienik, bat bederik ere ez dago.

Sepultura idikia da beren eztarria, beren mingañakin engañuak asmatzen ari dirade, suga lotarien pozoia beren ezpañen azpian. Zeñaen aoa dagoan madarikazio eta mingoiztasunez betea, beren oñak dirade ariñak odola isurtzera joateko. Beren alegin guztiak zuzentzen dira besteak naigabetu, eta estututzera, eta pakeko bidea etzuten ezagutu, beren begien aurrean Jaungoikoaren beldurrik ez dago.

4. Ez al dirade ezagerara etorriko gaiztakeria egiten dutenak, ogi zati bat bezela, nere erria iresten dutenak?

5. Etzioten Jaunari otsegin, beldurtu bearrik etzegoan tokian, an jarri ziran beldurrez ikara.

6. Jaungoikoa justoen jatorriarekin dagoalako, zuek lotsatu zenduten beartsuaren erabakia, zeren bere itxedopena Jauna dan.

7. Nork emango du Siondik Israelko osasuna? Jaunak bere erriaren katiberioari atzena ematen dionean, Jakob poztuko da, eta Israel gozatuko da.

AMALAUGARREN SALMOA

1. Dabiden salmoa:

Jauna, nor biziko da zure tabernakuloan? Edo nork zure mendi santuan atsedengo du?

2. Mantxa gabe dabillena, eta justiziako obrak egiten dituena.

3. Bere biotzean daukan egia esaten duena, eta bere minganarekin engañurik asmatu ez duena.

Bere projimoari ere gaitzik egin etziona, eta bere projimoak lotsatuak izaten utzi etzuena.

4. Bere iritzian gaiztoa ezereztzat daukana, baizik Jaunaren beldur diranak onratzen dituena. Bere projimuari juramentu egiten diona, eta bera engañatzen ez duena.

5. Bere dirua usuran eman etzuena, eta errugabearen kontra doañak artu etzituena.

Oiek egiten dituena, ez da iñoiz mugitua izango.

AMABOSGARREN SALMOA

1. Aurrean jarri zion izena, Dabid beretzat.

Salbatu nazazu, Jauna, zeren zugan itxedon det.

2. Nik Jaunari esan nion: Nere Jaungoikoa zu zera, zeren nere ondasunen premiarik ez daukazu.

3. Miragarriro bete ditu nere gurari guztiak, bere lurrean bizi diran santuetan.

4. Beren eritasunak ugaritu ziran, gero ibilli ziran arin.

Beren batzarre odolgiroak ez ditut nik bilduko, eta beren izenak aotan ere ez ditut artuko.

5. Nere herenziaren, eta nere kaliziaren tokamena Jauna da, zu zera nere herenzia biurtuko didazuna.

6. Toki ederrak erori zitzazkidan suertean, egiaz ederra da nere herenzia neretzat.

7. Alabatuko det adimentua eman zidan Jauna, gañera gauaz ere nere biotzak onetara mugitzen ninduen.

8. Ni beti oroitzen nintzan Jauna nere aurrean neukala, nere eskuiean dagoana bezela neri eltzeko.

9. Onegatik nere biotza poztu zan, eta nere mingaña gozatu: eta gañera nere aragia ere itxedopenaz atsedengo da.

10. Zeren nere anima infernuan ez dezu utziko, eta ez dezu ere permitituko zure santua usteldua izan dedilla.

11. Ezagutuerazi ziñizkidan bizitzako bideak, zure arpegiaren ikusmenarekin pozez beteko nazu, zure eskuiean gozotasun betikoak daude.

AMASEIGARREN SALMOA

1. Dabiden otoitza.

Aditu ezazu Jauna nere justizia, zaude zur nere erreguetara.

Alderatu itzatzu belarriak nere oraziora, onirudi utsezko ezpañakin egiten ez dedanera.

2. Zure arpegitik nere epaia atera bedi, zure begiak ikusi bitzate nere justiziak.

3. Probatu zenduen nere biotza, eta bisitatu zenduen gauaz, suan garbitu ninduzun, eta etzan gaiztakeriarik nigan arkitua izan.

4. Urrutian nere aoak itz egitea gizon mundutarren obraen araura, zure ezpañetako itzen amorioz jarraitu diet nik bide aldapatsuai.

5. Beti ibillierazi zaiezu nere pausoai zure bideetatik, irristatu ez ditezen nere oñak.

6. Nik deadar egin nuen, o Jaungoikoa, zeren beti aditu nazu: niganontztu itzatzu zure belarriak, eta nere itzak aditu itzatzu.

7. Egizu, zure urrikaltasunak miragarriak izan ditezela, zuk salbatzen dituzunak zugan itxedotzen dutenak.

8. Zure eskuieari kontra egiten diotenakgandik gorde nazazu, begiko ninia bezela.

Zure egoen itzalaren azpian anparatu nazazu,

9. Atsekabetu nauten gaiztoakgandik.

Nere etsaiak nere anima inguratu dute,

10. Itxi dituzte beren erraiak, beren aoak arrokeriaz itz egin du.

11. Berak ni len kanpora botata, orain inguratua naukate, erabaki dute ni lurrera botatzea.

12. Nere zelatan daude, zerbait arrapatzeko prestatua dagoen leoia bezela, eta toki ezkutuetan zai dagoen leoitxoa bezela.

13. Jaiki zaite, Jauna, aurrea artu zaiozu, eta eman zaiozu zankokoa, gaiztoagandik nere anima libratu ezazu, zure ezpata,

14. Zure eskuaren etsaietatik.

Berezitu itzatzu, Jauna, bizi diraden artean, lurrean gutxi diranetatik, zure gauza ezkutuz beren sabela betea izan da

Semez ase ziran, eta beren illobatxoai utzi ziozkaten beren kondarrak.

15. Baña ni justizian agertuko naiz zure aurrean, zure gloria agertzen danean aseko naiz.

AMAZAZPIGARREN SALMOA

1. Atzenerako. Dabid, Jaunaren serbitzariaren salmoa, zeñaen gloriara zuzendu zituen kantatxo onen itzak, Jaunak bere etsai guztien eskuetatik, baita Saulen eskutik ere, libratu zuenean; eta esan zuen:

2. Maitatuko zaitut, Jauna, nere sendotasuna.

3. Jauna da nere sendotasuna, eta nere igestokia, eta nere libratzallea.

Nere Jaungoikoa, nere laguntzallea, eta beragan itxedongo det.

Nere gordetzallea, eta nere osasunaren indarra, eta nere anparatzallea.

4. Ots egingo diot Jaunari alabatzen dedala, eta nere etsaiakgandik salbatua izango naiz.

5. Eriotzako oñazeak inguratu naute, eta gaiztakeriako ugoldeak izutu naute.

6. Infernuko oñazeak inguratu naute, eriotzaren arteetan erortzeko zorian egon nintzan.

7. Nere naigabean Jaunari ots egin nion, eta deadar egin nion nere Jaungoikoari.

Eta bere tenplo santutik nere boza aditu zuen, eta nik bere aurrean egin nuen deadarra bere belarrietatik sartu zan.

8. Lurra mugitu zan, eta jarri zan dardaraz, mendien zimenduak ikara egin zuten eta mugitu ziran, beren kontra aserretu zalako.

9. Bere aserrean kea igo zan, eta irten zan sua bere arpegitik, ikatzak izan ziran, berak irazekiak.

10. Beeratu zituen zeruak, eta jetxi zan, bere oñen azpian laño illun bat zeramala.

11. Eta kerubiñen gañera igo zan, eta egaan egin zuen. Egaan egin zuen aizeen egoen gañean.

12. Bere esertokia illuntasunen artean jarri zuen; alderdi guztietatik eztalitzen zuen etzauntztzat zeukala, aireko odeietan zinzilika zegoan ur illun bat.

13. Bere aurreko argitasunagatik odeiak desegin ziran arrite, eta suzko ikatzetan.

14. Eta Jauna zerutik turmoatu zan; eta txit altuak atera zuen bere boza, eta erori ziran arria, eta suzko ikatzak.

15. Eta bialdu zituen bere saietak, eta desegin zituen, ugaritu zituen tximistak, eta izutu zituen.

16. Eta agertu ziran uren iturburuak, eta gelditu ziran desestaliak lurraren zimenduak:

Zure keñadara, o Jauna, zure aserreko asnasa sendora.

17. Luzatu zidan bere eskua goitik, eta eldu zidan, eta ur askoetatik atera ninduen.

18. Libratu ninduen nere etsai txit sendoakgandik, eta gorrotatzen ninduten guztietatik, zeren ni baño sendoagoak egin ziran.

19. Nere esturasuneko egunean nere gañera bat batean etorri ziran, baña Jauna nere gordetzalle egin zan.

20. Toki zabalera atera ninduen, salbatu ninduen, nai zidalako.

21. Eta ordainduko nau Jaunak nere justiziaren araura, eta nere eskuetako garbitasunaren araura saristatuko nau,

22. Zaitu nituelako Jaunaren bideak, eta nere Jaungoikoaren kontra ere gauza txarrik egin ez nuelako,

23. Zeren bere erabaki guztiak nere aurrean dauzkat, eta bere aginte santuak ere ez ditut iñoiz nigandik bota.

24. Eta bere aurrean garbi biziko naiz, eta gordeko naiz nere gaiztakeriatik.

25. Eta Jaunak ordainduko nau nere justiziaren araura, eta nere eskuetako garbitasun, bere begien aurrean dagoanaren araura.

26. Santuarekin santua izango zera, eta gizon gaitz gabearekin, izango zera gaitzgabea.

27. Autuarekin autua izango zera, eta biurriarekin biurrituko zera.

28. Zeren zuk erri umilla salbatuko dezu, eta arroen begiak umillatuko dituzu.

29. Zuk, Jauna, argituten dezun ezkero nere lanpara, nere Jaungoikoa argitu itzatzu nere illuntasunak.

30. Zeren zure bitartez tentaziotik libratua izango naiz, eta nere Jaungoikoarekin iragoko det murrua.

31. Nere Jaungoikoa, mantxa gabekoak dira bere egiteak, bere itzak sutatik iragoak, bera da, beragan itxedotzen duten guztien laguntzallea.

32. Zeren Jaunaz landara, zeñ da Jaungoikoa? Edo gure Jaungoikoaz landara, ze Jaungoiko dago?

33. Bera da sendotasuna eman zidan Jaungoikoa, eta egin du nere bidea kutsu gabea izan zedilla.

34. Nere oñai oreñaen arintasuna eman ziena, eta alturaen gañean jarri nauena,

35. Nere eskuak gadarako trebetzen dituena. Eta egin ziñituen nere besoak, bronzezko uztaia bezelakoak.

36. Eta eman ziñidan salbazioa zure laguntasunarekin, eta zure eskuiak artu ninduen.

Eta zure erakutsiak zuzendu nau beti, eta zure erakutsi orrek berak emango dizkit argitasunak.

37. Joan ziñan neri bidea idikiaz, ninjoan toki guztietatik, eta etziran indargabetu nere oñak.

38. Persegituko ditut nere etsaiak, eta iritxiko ditut, eta ez naiz atzera biurtuko, osoz desegin ditzadan artean.

39. Puskatuko ditut, ezin kontrarik egingo didate, nere oñen azpira eroriko dira.

40. Zeren zuk eman ziñidan gudarako indarra, eta nere mendean jarri ziñituen, nere kontra jaikitzen ziradenak.

41. Eta egin dezu nere etsaiak bizkarrak itzuli zizazkidatela, eta desegin dituzu gorrotatzen nindutenak.

42. Deadarrez ots egin zuten, baña etzegoan nork salbatu zitzaten, deadarrez ots egin zioten Jaunari, eta etzituen aditu.

43. Zeatuko ditut, autsa aizeak jotzen duenean bezela, karrikaetako loia bezela desegingo ditut.

44. Libratuko nazu erriaren kontraetatik, zuk jarriko nazu Erreñuen gidari.

45. Ezagutu ez nuen erri batek, serbitu ninduen, nere boza aditu zueneko, obeditu zidan.

46. Besteen semeak gezurra esan zidaten, besteen semeak zartu ziran, eta beren bidetxidorretatik erren egin zuten.

47. Bizi bedi Jauna, eta bedeikatua izan bedi nere Jangoikoa, eta goratua izan bedi nere osasuneko Jaungoikoa.

48. Zu, o nere Jaungoiko, benganzak ematen dizkidazuna, eta jartzen dituzuna nere mendean erriak, zu, nere etsaien aserretik libratu ninduzuna.

49. Zuk jarriko nazu nere kontra jaikitzen diradenak baño gorago, gizon gaiztoagandik libratuko nazu.

50. Argatik nik alabatuko zaitut, Jauna, erreñuen artean, eta zure izenari himnoak kantatuko diozkat,

51. Bere erria miragarriro salbatu duen hurari, eta Dabid bere igortziari urrikaltasuna egiten dionari, eta bere jatorriari ere mendez mende egingo dionari.

EMEZORTZIGARREN SALMOA

1. Atzenerako, Dabiden salmoa.

2. Zeruak agertzen dute Jaungoikoaren gloria, eta firmamenduak adirazten ditu bere eskuen obrak.

3. Egun batek itz egiten dio beste egun bati, eta gau batek erakusten dio jakinduria beste gau bati.

4. Ez dago izkuntzarik, ez mintzoerarik, zeñatan bere boz oiek ez diran adituak.

5. Beren otsa zabaldu da lur guztitik, eta munduaren azkeneraño aditu dirade beren itzak.

6. Eguzkian ipiñi zuen bere bizilekua; eta bera da, bere toki ederretik irtetzen dan esposoa bezela.

Saltoka ari zan goiantea bezela, bidean korrika joateko,

7. Bere irteera da zeruaren ertz batetik.

Eta korrika dijoa bere beste ertzeraño, eta ez dago bere berotasunetik ezkutatu ditekeanik.

8. Jaunaren legea mantxa gabekoa, animak konbertitzen dituena, Jaunaren itza leiala, txikitxoai jakinduria ematen diena.

9. Jaunaren aginteak zuzenak, biotzak poztzen dituztenak, Jaunaren agindua argitsua, begiak argitutzen dituena.

10. Jaunaren beldur santua mendez mende dirauena, Jaunaren erabakiak egiazkoak, berak beretan justotuak.

11. Opagarriak dira urrea eta arri baliotsuak ugari idukitzea baño geiago, eta eztia eta abaraska baño gozoagoak.

12. Zeren zure serbitzariak gordetzen ditu, berak gordetzean dago sari andia.

13. Zeñ da bere utsegiteak ezagutzen dituena? Nere ezkutukoetatik garbitu nazazu,

14. Eta besteenak barkatu zaiozkazu zure serbitzariari. Berak mendean artuko ez banindute, orduan egongo nintzake kutsu gabe, eta utsegite txit andi batetik garbitua.

15. Orduan izango dira zure gogokoak nere aoko itzak, eta nere biotzeko meditazioa zure aurrean izango da beti.

Jauna, nere laguntzallea, eta salbatzallea.

EMERETZIGARREN SALMOA

1. Atzenerako, Dabiden salmoa.

2. Naigabeko egunean Jaunak aditu zaitzala, anparatu zaitzala Jakoben Jaungoikoaren izenak.

3. Bidaldu dizazula laguntasuna santuariotik, eta Siondik zaitu zaitzala.

4. Oroitu dedilla zure eskeñtza guztiarekin, eta zure holokaustoa gizena izan dedilla.

5. Eman dizazula zure biotzak nai duena, eta kunplitu ditzala zure erabaki guztiak.

6. Poztuko gera zure osasunagatik, eta gure Jaungoikoaren izenean gozatuko gera.

7. Kunplitu ditzala Jaunak zure eskari guztiak. Orain ezagutzen det, Jaunak salbatu duela bere Kristoa.

Bere zeru santutik adituko du, almentsuetan osasuna da bere eskuiarena.

8. Batzuek daukate itxedopena beren gurdi armatuetan, besteak beren zaldietan; guk berriz gure Jaun Jainkoaren izenari ots egingo diogu.

9. Berak izan ziran lotuak, eta erori ziran; gu berriz jaiki gera, eta jarri gera zuzen.

10. Jauna, salbatu ezazu erregea, eta aditu gaitzatzu ots egiten dizugun egunean.

OGEIGARREN SALMOA

1. Atzenerako, Dabiden salmoa.

2. Jauna, zure eskubidean poztuko da erregea, eta zure osasunean txit gozatuko da.

3. Zuk kunplitu diozu bere biotzeko guraria, eta ez dezu egin alperra izan dedilla bere ezpañetako eskaria.

4. Zeren zuk aldeaurrez prestatu zenduen gozotasuneko bedeikazioakin, jarri ziñion bere buruaren gañean arri baliotsuzko koroe bat.

5. Bizia eskatu zizun, eta zuk eman diozu luzatzea bere egunak mendez mende.

6. Andia da zure gloria bere osasunean, gloria eta edertasun andia jarriko dezu bere gañean.

7. Zeren zuk egingo dezu bera izan dedilla betiko bendizioa, pozez beteko dezu zure arpegia erakutsiaz.

8. Erregeak Jaunagan itxedotzen duelako, argatik mugitu gabe atsedengo du txit Altuaren urrikaltasunean.

9. Zure etsai guztiak arkitua izan dedilla zure eskua: zure eskuiak arkitu ditzala gorrotatzen zaituzten guztiak.

10. Zure arpegia erakusten diezunean, egingo dezu berakin labe irazeki batek bezela, Jaunak bere aserrean izutuko ditu, eta iretsiko ditu suak.

11. Beren frutua lurretik galduko dezu, eta beren jatorria gizonen semeen artetik.

12. Zeren zuri gaitz egitea erabaki zuten, gogoan erabilli zituzten, egiztatu ezin izan zituzten asmazioak.

13. Zuk berriz igeseraziko diezu, eta zure uztaiaren fletxak prestatuak idukiko dituzu beren kontra.

14. Goratu zaite, Jauna, zure eskubidean, kantatuko degu, eta soñuakin zelebratuko ditugu zure miraríak.

OGEITA BATGARREN SALMOA

1. Atzenerako, goizeko laguntasunerako, Dabiden salmoa.

2. Jaungoikoa, nere Jaungoikoa, zergatik utzi nazu? Nere bekatuen bozak urrutiratzen dute nigandik osasuna.

3. O nere Jaungoikoa, deadarrez ots egingo dizut egunaz, eta ez nazu adituko, gauaz, eta ez nere kulpaz.

4. Zu berriz toki santu batean bizi zera, o Israelko gloria.

5. Gure gurasoak zugan itxedon zuten, itxedon zuten, eta libratu ziñituen.

6. Zuri deadarrez ots egin zizuten, eta salbatuak izan ziran: zugan itxedon zuten, eta etziraden lotsatuak gelditu.

7. Ni berriz naiz ar bat, eta ez gizona, gizonen lotsaria, eta jendetzaren iguiña.

8. Ikusten ninduten guztiak, burla egin zidaten: ezpañakin itz egin zuten, eta mugitu zuten burua.

9. Jaunagan itxedon zuen, libratu beza, libratu beza, maitatzen duen ezkero.

10. Zeren zu zera sabeletik atera ninduzuna, nere itxedopena nere amaren bularretatik.

11. Zure besoetan botatua izan nintzan amaren sabeletik, nere amaren sabeletik zauzkat nere Jaungoikotzat.

12. Etzaite nigandik urrutiratu,

Zeren naigabea aldean dagoan; eta ez dago iñor laguntasuna eman dizadakenik.

13. Asko idiskok inguratu naute, setiatu naute zezen gizenak.

14. Idiki zuten beren aoa nere kontra, leoi arrapari, eta orroatzalleak bezela.

15. Ura bezela izan naiz isuria, eta nere ezur guztiak beren tokietatik izan dirade ateratuak.

Nere biotza jarria izan da, nere sabelaren erdian urtutzen dagoan argizagia bezela.

16. Nere berdetasuna leortu zan pegar bat bezela, eta nere mingaña nere aosapaiari itsatsi zitzaion; eta obiako autseraño eraman ninduzun.

17. Txakur askok inguratu nindutelako, eta setiatu ninduelako gaiztoen batzarreak.

Nere eskuak, eta nere oñak zulatu dituste.

18. Nere ezur guztiak kontatu dituzte.

Berak berriz jarri ziran neri begira, eta ni arretaz ikusten:

19. Partitu zituzten beren artean nere soñekoak, eta nere soñekoen gañean txotx egin zuten.

20. Zuk berriz Jauna ez egizu arren urrutiratu nigandik zure laguntasuna, ni zaitzeaz begiratu ezazu.

21. Nere anima, o Jaungoikoa, ezpatatik libratu ezazu, eta txakurren atzaparretatik nere ....

22. Leoiaren aotik salba nazazu, eta adarbakotxaren adarretatik nere anima errukarria.

23. Adiraziko diet zure izena nere anaiai, elizaren erdian alabatuko zaitut.

24. Jaunaren beldur zeratenak alabatu ezazute, gloriaz bete ezazute zuek, Jakoben jatorriko guztiok.

25. Israelen jatorri guztia bere beldur izan bedi, etzuelako mezpreziatu, ez begiratu gabe utzi beartsuaren erregua.

Etzion ere bere arpegiari nigandik aldeerazi, eta deadarrez berari ots egiten nionean, aditu ninduen.

26. Zugana zuzenduko dira nere alabanzak eliza andian, kunplituko ditut nere eskeñtzak bere beldur diradenen aurrean.

27. Jango dute beartsuak, eta aseko dira, eta alabatuko dute, billatzen duten Jauna, beren biotzak biziko dira mendez mende.

28. Oroituko da, eta biurtuko da Jaunagana lurraren zabalera guztia,

Eta auzpeztuko dira bere aurrean jendeen familia guztiak.

29. Erreñua Jaunarena dalako, eta berak idukiko du jendeen agintaritza.

30. Jan zuten, eta adoratu zuten lurreko aberatz guztiak, bere aurrean auzpeztuko dira ilkor guztiak.

31. Eta nere anima beretzat bizituko da, eta nire jatorriak hura bera serbituko du.

32. Etorriko dan giza aldia Jaunaren izenaz deitua izango da, eta zeruak adiraziko diote bere justizia jaioko dan erri, Jaunak egindakoari.

OGEITA BIGARREN SALMOA

1. Dabiden salmoa.

Jaunak zuzentzen nau, eta ez zat ezer faltatuko.

2. Berak jarri nau bazkaen tokian.

Eman dizkit erakutsiak ur sendotzallearen gañean.

3. Nere animari itzulierazi dio.

Zuzentasuneko bidetxidorretatik eraman ninduen, bere izenaren amorioz.

4. Zeren eriotzako itzalaren erdian ibilliko banintza ere, ez naiz gaitzen beldur izango, zu nerekin zeralako.

Zure zigorrak, eta zure eskumakillak, berak gozatu ninduten.

5. Prestatu zenduen mai bat nere aurrean, naigabetzen ninduten aien kontra.

Olio gizenarekin nere burua igortzi zenduen, eta nere kaliza, orditzen duena, zeñ ederra dan!

6. Eta zure urrikaltasuna nere ondoren joango da, nere bizitzako egun guztietan.

Jaunaren etxean bizi nadin, denbora luzean.

OGEITA IRUGARREN SALMOA

1. Astearen lenbiziko egunerako, Dabiden salmoa.

Jaunarena da lurra, eta bertan dagoan guztia, mundua, eta bertan bizi diraden guztiak.

2. Zeren berak itxasoaz gañetik jarri zuen, eta ipiñi zuen ibaiak baño gorago.

3. Nor igoko da Jaunaren mendi santura? Edo nor egongo da bere toki santuan?

4. Eskuz kulpa gabea, eta biotz garbikoa; bere anima alperrik artu etzuena, eta bere projimoari engañuz juramentu egin etziona.

5. Onek artuko du Jaunagandik bendizioa, eta urrikaltasuna bere Jaungoiko Salbatzallea gandik.

6. Au da bera billatzen dutenen jatorria, Jakoben Jaungoikoaren arpegia billatzen dutenena.

7. Jaso itzatzute, o prinzipeak, zuen ateak, eta goratu zaitezte zuek, o betiko ateak, eta gloriako erregea sartuko da.

8. Zeñ da gloriako errege au? Jaun sendo, eta altsua, Jaun gudan sendoa.

9. Jaso itzatzute, o prinzipeak, zuen ateak, eta goratu zaitezte zuek, o betiko ateak, eta gloriako erregea sartuko da.

10. Zeñ da gloriako errege au? Ejerzituen Jauna, ori da gloriako erregea.

OGEITA LAUGARREN SALMOA

1. Azkenerako, Dabiden salmoa.

Zugana, Jauna, jaso nuen nere anima.

2. Zugan, nere Jaungoikoa, itxedotzen det, ez nadilla ni izan lotsatua.

3. Ez dizadatela ere burlarik egin nere etsaiak, zeren zugan itxedotzen duenik, ez da nastua geldituko.

4. Lotsariz beteak izan ditezela, alperrik gaiztakeriak egiten dituzten guztiak.

Erakutsi zazkidazu, Jauna, zure bideak, eta zure bidetxidorrak irakatsi zazkidazu.

5. Zuzendu nazazu zure egiaren araura, eta eman zazkidazu erakutsiak, zeren zu zera nere Jaungoiko salbatzallea, eta egun guztian zure zai egon naiz.

6. Oroitu zaite, Jauna, zure biguntasunakin, eta irago diraden mendeetan egindako zure urrikaltasunakin.

7. Etzaite oroitu nere gazte denborako bekatuakin, ezta nere ezjakiñakin ere.

Zure urrikaltasunaren araura oroitu zaite nerekin zu, o Jauna, zure ontasunagatik.

8. Gozoa eta zuzena da Jauna. Argatik emango die legea, bidean bekatu egiten dutenai.

9. Zuzenduko ditu umillak justiziako bidetik, erakutsiko diezte bere bideak paketsuai.

10. Jaunaren bide guztiak urrikaltasuna eta egia dira, bere elkartasuna eta bere aginduak billatzen dituztenentzat.

11. Zure izenagatik, Jauna, barkatuko didazu nere bekatua, zeren andia dan.

12. Zeñ da Jaunaren beldur dan gizona? Berak jarri dio legea, autatu zuen bidean.

13. Bere animak ondasunen artean atsedengo du, eta bere jatorria izango da lurraren jabe.

14. Irezogarri sendoa da Jauna bere beldur diranentzat, eta berai agertzen diezte bere gauza ezkutuak.

15. Nere begiak beti Jaunagana, zeren berak nere oñak artetikan aterako ditu.

16. Begiratu zadazu, eta urrikaritu zaite nerekin, zeren bakarra eta beartsua naiz ni.

17. Nere biotzeko naigabeak ugaritu dira, nere ausietatik atera nazazu.

18. Begiratu zaiezu nere umiltasunari eta nere nekeari, eta nere bekatu guztiak barkatu itzatzu.

19. Begira ezazu nola ugaritu diran nere etsaiak, eta gorroto gaizto batekin aier nauten.

20. Gorde ezazu nere anima, eta libratu nazazu, ez nadilla lotsatua gelditu, zugan itxedon dedalako.

21. Kulpa gabeak eta justoak nerekin bildu dira, itxedon dizudalako.

22. O Jaungoikoa, libratu ezazu Israel bere naigabe guztietatik.

OGEITA BOSGARREN SALMOA

1. Atzenerako, Dabiden salmoa.

Juzgatu nazazu, Jauna, zeren nere errugabetasuneko bidetik ibilli naizan, eta Jaunagan itxedon ezkero ez naiz erkituko.

2. Probatu nazazu, Jauna, eta tentatu nazazu, erre itzatzu nere guntzurrunak eta nere biotza.

3. Zeren zure urrikaltasuna nere begien aurrean daukat, eta zure egian arkitzen ditut nere atsegin guztiak.

4. Ez nintzan eseri jende arroaren batzarrean, eta ez naiz ezertan sartuko gauza gaiztoak egiten ari diradenakin.

5. Gaiztoen laguntasuna gorrotatzen det eta biotzgogorrekoakin ez naiz eseriko.

6. Garbituko ditut nere eskuak errugabekoen artean, eta zure aldarearen inguruan, Jauna, egongo naiz,

7. Zure alabanzako boza aditzeko, eta zure mirari guztiak kontatzeko.

8. Jauna, maitatu det zure etxeko edertasuna, eta zure gloriako bizilekuko tokia.

9. Ez ezazu galdu nere anima, o Jaungoikoa, gaiztoakin, eta nere bizia gizon odolgiroakin.

10. Zeñaen eskuetan gaiztakeriak dauden, eta zeñaen eskuiea dagoan eskeñtzaz betea.

11. Ni berriz ibilli naiz nere kutsugabetasuneko bidetik, salbatu nazazu, eta errukitu zaite nerekin.

12. Nere oña egon da zuzentasuneko bidean, elizetan, Jauna, bedeikatuko zaitut.

OGEITA SEIGARREN SALMOA

1. Dabiden salmoa, igortzia izan zan baño lenago.

Jauna da nere argitasuna, eta nere salbazioa, zeñaen beldur izango naiz? Jauna da nere bizitzaren gordetzallea, nork ikaratuko nau?

2. Gaizkilleak nigana allegatzen diran artean, nere aragiak jateko.

Nere etsai naigabetzen nindutenak, berak erkitu dira, eta erori dira.

3. Nere kontra ejerzituak etzauntzetan jartzen badira ere, ez da ikaratuko nere biotza.

Nere kontra asitzen badirade gudan, onetan itxedongo det nik.

4. Gauza bakar bat eskatu diot Jaunari, berriz ere au eskatuko det, Jaunaren etxean bizi nadilla ni nere bizitzako egun guztietan.

Jaunaren gozotasuna ikusteko, eta bere tenploa bisitatzeko.

5. Zeren bere tabernakuloan ezkutatu ninduen, gaitzen egunean jarri ninduen estalita bere tabernakuloko tokirik ezkutuenean.

6. Goratu ninduen arkaitz baten gañera, eta orain nere etsaien kontra garai jarri nau.

Argatik egongo naiz bere tabernakuloaren inguruan, pozezko doañak eskeñtzen, kantatzen, eta Jaunari salmoak esaten.

7. Aditu ezazu, Jauna, nere boza, zeñarekin deadarrez ots egin dizudan zuri, urrikaritu zaite nerekin, eta aditu nazazu.

8. Nere biotzak zurekin itz egin du, nere begiak zure billa ibilli dira. O Jauna, zure arpegia da nik billatzen dedana.

9. Etzaiozu arren zure arpegiari nigandik alde erazi, etzaite apartatu aserretuta zure serbitzariagandik.

Izan zaite nere laguntzallea, ez nazazu desanparatu, ez mezpreziatu, Jaungoiko nere Salbatzallea.

10. Zeren nere aitak, eta nere amak utzi ninduten, baña Jaunak bere kontura artu nau.

11. Jarri zadazu, Jauna, legea zure bidean, eta eraman nazazu bidetxigor zuzenetik nere etsaiakgatik.

12. Ez nazazu jarri naigabetzen nautenen gurarien mendean, zeren lekuko gaiztoak nere kontra jaiki diran, eta gaiztakeriak bere kontra gezurra esan duen.

13. Sinisten det Jaunaren ondasunak ikusiko ditudala bizien lurrean.

14. Itxedon zaiozu Jaunari, eta gizonkiro portatu zaite, eta zure biotza sendotu bedi, eta zaude Jaunaren zai.

OGEITA ZAZPIGARREN SALMOA

Dabidentzat beretzat salmoa.

1. Zuri, Jauna, deadarrez ots egingo dizut; nere Jaungoikoa, etzaite nere eskarietara gortu, zuk neri ez begiratuta, iduritu ez nadin obira jetxitzen diranakin.

2. Aditu ezazu, Jauna, nere erreguaren boza otoitz egiten dizudanean, luzatzen ditudanean goira nere eskuak zure eliza santurontz.

3. Ez nazazu arren arrapatu bekatariakin batean eta gaiztakeria egiten dutenakin ez nazazu galdu.

Zeñak beren projimoakin pakearen gañean itz egiten dute, beren biotzetan gaiztakeriak asmatzen ari diran artean.

4. Eman zaiezu oiei ordaña beren egiteen araura, eta beren gaiztakeriaren asmazioen araura.

Biurtu zaiezu berai beren eskuen obraen araura, itzuli zaiezu beren saria.

5. Etzituztelako konsideratu Jaunaren obrak, ez bere eskuak egindako gauzak. Zuk desegingo dituzu, eta ez dituzu berriz jarriko.

6. Bedeikatua Jauna, zeren nere erreguaren boza aditu duen.

7. Jauna da laguntzen dedana, eta zaitzen nauena, nere biotzak beragan itxedon zuen, eta lagundu zidan.

Eta berriz biztu zan nere aragia, eta nere gogo guziarekin alabatuko det.

8. Jauna da bere erriaren sendotasuna, eta asko aldi estutan bere Kristoa salbatzen duen laguntzallea.

9. Salbatu ezazu, Jauna, zure erria, eta bedeikatu zure herenzia, eta zuzendu itzatzu, eta goratu itzatzu betiko iraun guztian.

OGEITA ZORTZIGARREN SALMOA

Dabiden salmoa.

1. Tabernakuloa bukatu zuenean.

Ekarri zaiozkazute Jaunari, o Jaungoikoaren semeak, ekarri zaiozkazute Jaunari bildotsak.

2. Eman zaiozute Jaunari gloria eta onra, eman zaiozute Jaunari, bere izenari zor zaion gloria. Adoratu ezazute Jauna bere santuarioko atarian.

3. Jaunaren boza uren gañean, anditasuneko Jaungoikoa turmoatu zan, Jauna ur askoen gañean.

4. Jaunaren boza eskubidean, Jaunaren boza anditasunean.

5. Jaunaren boz, zedroak zatitutzen dituena, eta zatituko ditu Jaunak Libanoko zedroak.

6. Eta zeatuko ditu Libanoko txal bat bezela, eta maitatua izango da adarbakoitzaren semea bezela.

7. Jaunaren boz, suzko garra ebakitzen duena,

8. Jaunaren boz, eremua astintzen duena, eta Jaunak dardaratuko du kadesko eremua.

9. Jaunaren boz, oriñak prestatzen dituena, eta agertuko ditu itxiak, eta guztiak adiraziko dute gloria bere tenploan.

10. Jaunak ugoldeari etorri erazitzen dio, eta eseriko da Jauna erregea bezela betiko.

11. Jaunak emango dio sendotasuna bere erriari, Jaunak bedeikatuko du bere erria pakean.

OGEITA BEDERATZIGARREN SALMOA

1. Dabiden salmoa, Dabiden etxearen dedikazioan kontatua.

2. Goratuko zaitut nik, Jauna, anparatu nazulako, eta ez diezulako utzi nere etsaiai nere kontura gozatzen.

3. Nere Jaun Jainkoa, deadarrez ots egin nizun, eta sendatu ninduzun.

4. Zuk, Jauna, atera zenduen nere anima infernutik, zuk salbatu ninduzun erori ez nendin leizera jetxitzen diradenakin.

5. Jaunaren santuak, kantatu zaiozkazute himnoak soñuakin, eta zelebratu ezazute bere santutasunaren oroipena.

6. Zeren bere aserretik dator kastigua, eta bere borondate onean dago bizitza.

Arratsalderaño iraungo du negarrak, eta egunsentiaren asieran izango da poza.

7. Nik berriz nere ugaritasunean esan nuen: iñoiz ere ez naiz mugitua izango.

8. Jauna, zure borondateagatik eman ziñion sendotasuna nere ugaritasunari.

Zure arpegiari nigandik alde erazi ziñion, eta nastua jarri nintzan.

9. Zuri, Jauna, deadarrez ots egingo dizut, eta nere Jaungoikoari erregutuko diot.

10. Zer mesede ekarriko dizu nere eriotzak, eta usteltasunera ni jetxitzeak?

Autsak kantatuko al ditu zure alabanzak, edo adiraziko al ditu zure egiak?

11. Jaunak aditu ninduen, eta nerekin errukitu zan. Jauna jarri zan nere laguntzalle eginik.

12. Nere negarra pozean itzuli ziñidan, urratu zenduen nere zilizioa, eta guztiau gozotasunez inguratu ninduzun.

13. Nere gloria izan dedin zure alabanzak kantatzea, eta iñoizere penarik iduki ez dezadan. O nere Jaun Jainkoa, nik beti alabatuko zaitut.

OGEITA AMARGARREN SALMOA

1. Atzenerako, Dabiden salmoa, extasis batgatik.

2. Zugan, Jauna, itxedon det, ez nadilla iñoiz lotsatua gelditu, libratu nazazu, bada justoa zera.

3. Alderatu ezazu niganontz zure belarria, atoz arin ni libratzera.

Izan zaite neretzat Jaungoiko gordetzalle bat, eta igeslekuko etxe bat, salbatu nazazun.

4. Zeren zu zera nere sendotasuna, eta nere anparua, eta zure izenagatik zuzenduko nazu, eta bazkatuko nazu.

5. Aterako nazu, neretzat ezkutuan jarri duten lazo onetatik: zeren zu nere gordetzallea zeran.

6. Zure eskuetan enkomendatzen det nere espiritua, zuk erredimitu ninduzun, o Jaun, egiaren Jaungoikoa.

7. Gorrotatzen dituzu arrokeriak gordetzen dituztenak alperkiro.

Baña nik Jaunagan itxedon nuen.

8. Zure urrikaltasunean gozatuko naiz, eta poztuko naiz.

Nere urrikaltasunari begiratu ziñiolako, salbatu zenduen estutasunetik nere anima.

9. Eta ez ninduzun ere utzi etsaiaren eskuetan itxita, baizik nere oñai bide zabala idiki ziñien.

10. Errukitu zaite arren, Jauna, nerekin, zeren ansiatua arkitzen naizan, damuz izutuak daude nere begia, nere anima, eta nere sabela.

11. Penaren indarrez aituaz dijoa nere bizia, eta nere urteak negarrakin.

Nere indarra premiagatik erkitu da, eta nere ezurrak nastuak daude.

12. Nere etsai guztientzat, batezere aldekoentzat lotsaria egiña izan naiz, eta nere ezagunentzat beldurgarria.

Ikusten nindutenak, nigandik urrutira iges egin zuten,

13. Bere biotzean aztua izan naiz illa dan bat bezela. Ontzi autsi bat bezela izan naiz begiratua.

14. Zeren nik aditzen nituen nire inguruan zeuden askoren irainak. Eta neri kontra egiteko bildu ziranean, erabaki zuten beren artean neri bizia kentzea.

15. Baña nik zugan itxedon nuen, Jauna. Esan nuen: Nere Jaungoikoa zera zu.

16. Nere suerteak zure eskuetan daude.

Libratu nazazu nere etsaien, eta persegitzen nautenen eskutik.

17. Distiatu bedi zure arpegiko argitasuna zure serbitzariaren gañean, zure urrikaltasuna gatik salba nazazu.

18. O Jauna, ez nadilla ni nastua gelditu, zuri ots egin dizudan ezkero.

Gaiztoak bai izan bitez lotsatuak, eta botatuak izan bitez infernura.

19. Mututu bitez ezpañ engañatzalleak. Justoaren kontra gaizki esaten dutenak, arrokeriaz, eta mezprezioz.

20. Zeñ andia dan, Jauna, zure beldur diradenentzat ezkutatua daukazun zure gozotasunezko ugaritasuna!

Zuk eman diezu ugari, gizonen semeen aurrean, beren itxedopena zugan jarrita daukatenai.

21. Ezkutatuko dituzu zure arpegiko toki ezkutuan gizonen naspilletatik.

Zaituko dituzu zure tabernakuloan mingañ gaizki esaleetatik.

22. Bedeikatua Jauna; zeren miragarriro egin du nerekin bere urrikaltasuna erri sendotuan.

23. Nik berriz esan nuen nere animako kordegabetze batean: botatua naiz zure begien aurretik.

Argatik aditu zenduen nere erreguaren boza, deadarrez zuri ots egin nizunean.

24. Maitatu ezazute Jauna bere santu guztiak, zeren Jaunak billatuko du egia, eta emango die ordañ ugaria arrokeriaz obratzen dutenai.

25. Gizonkiro portatu zaitezte zuen itxedopena Jaunagan jarrita daukazutenak, eta zuen biotza sendotu bedi.

OGEITA AMAIKAGARREN SALMOA

Dabid berarena, aditzakoa.

1. Zorionekoak aiek, zeñaen gaiztakeriak izan diran barkatuak, eta zeñaen bekatuak izan diran estaliak.

2. Zorionekoa, Jaunak bekatuaren argudiorik egiten ez dion gizona; eta zeñaen espirituan ez dagoan engañurikan.

3. Ixilik egon nintzalako, zartu ziran nere ezurrak, egun guztian deadarrez ari nintzala.

4. Zeren gau ta egun zure eskua nere gañean astundu zan, nenbillan jiran nere naigabean, arantza sartua neukan artean.

5. Ezagutuerazi nizun nere gaiztakeria, eta ez nuen ezkutatu nere justiziarik eza.

Esan nuen: aitortuko diot Jaunari neronen kontra nere justiziarik eza. Eta zuk barkatu zenduan nere bekatuaren gaiztakeria.

6. Argatik erregutuko dizu zuri santu guztiak, denbora egokian.

Eta egiazki ur askoren ugoldean, ez dirade oiek beragana alderatuko.

7. Zu zera nere igestokia, ingurutua naukan naigabean, zuk, o nere poza, atera nazazu, ingurutua naukatenetatik.

8. Aditza emango dizut, eta erakutsiko dizut ibilliko zeran bidea, zugan sendo josita idukiko ditut nere begiak.

9. Etzaitezte izan zaldiaren eta mandoaren irudikoak, zeñak ez daukaten aditzarikan.

Kabrestu eta frenuarekin sendo lotu itzatzu, zugana alderatzen ez diradenen masallezurrak.

10. Asko dirade bekatariari itxedotzen dioten azoteak, berriz urrikaltasunak ingurutuko du Jaunagan itxedotzen duena.

11. Poztu zaitezte Jaunagan, eta txit gozatu zaitezte justoak. eta beragan gloriaz bete zaitezte biotzez zuzen guztiak.

OGEITA AMABIGARREN SALMOA
DABIDEN SALMOA

1. Txit poztu zaitezte justoak Jaunagan, zuzenai zaizkate bera alabatzea.

2. Alabatu ezazute Jauna zitararekin, amar sokako salterioarekin kantatu zaiozute.

3. Kantatu zaiozute kanta berri bat, ongi eta boz leunarekin kantatu zaiozute.

4. Zeren Jaunaren itza zuzena da, eta bere obra guztiak egiñak leialtasunarekin.

5. Urrikaltasuna eta zuzentasuna maitatzen ditu, lur guztia dago Jaunaren urrikaltasunez betea.

6. Jaunaren itzarekin zeruak izan ziran sendatuak, eta bere aoko espirituaz beren indar guztia.

7. Berak dauzka bilduak itsasoko urak, zagi baten bezela, eta gorderik ipiñiak leizeak.

8. Lur guztia Jaunaren beldur izan bedi, bere aurrean ikara egin bezate, munduan bizi diraden guziak.

9. Zeren berak itz egin zuen, eta guztia izan zan egiña, berak agindu zuen eta guztiak artu zuten izatea.

10. Jaunak desegiten ditu jendeen asmazioak, gaizkitzat ematen ditu errien gogorazioak, eta utsean utzi prinzipeen erabakiak.

11. Jaunaren erabakiak berriz beti dirau, bere biotzeko gogorazioak mendez mende.

12. Doatsua arako erreñua, zeñaen Jaungoikoa dan Jauna, arako erri, bere herenziatzat autatu zuena.

13. Zerutik Jaunak begiratu zuen, ikusi zituen gizonen seme guztiak.

14. Bere bizileku txit sendotik, ezarri zuen begirakune bat, lurrean bizi ziraden guztien gañera.

15. Bera da bakoitzaren biotza egin zuena, egiten duten guztia ezagutzen duena.

16. Ez da salbatzen erregea bere eskubide andia gatik, eta goiantea ere ez da salbatuko bere indar andiagatik.

17. Engañakorra da zaldia berean salbatzeko, txit errutsua izanagatik ez du salbatuko zaldizkoa.

18. Ona emen Jaunaren begiak bere beldur diradenen gañean; eta bere urrikaltasunean itxedotzen dutenetan.

19. Beren animak eriotzatik libratzeko; eta gosetean berak bazkatzeko.

20. Gure animak sendo itxedotzen du Jaunagan, zeren bera dan gure gordetzallea eta bitartekoa.

21. Zeren gure biotza beragan poztuko da, eta bere izen santuan daukagu jarria gure itxedopena.

22. Betor, o Jauna, gure gañera zure urrikaltasuna, zugan itxedon degun bezela.

OGEITA AMAIRUGARREN SALMOA

1. Dabidena, itxusitu zuenean bere arpegia Akimeleken aurrean, eta utzi zion, eta joan zan.

2. Denbora guztian Jauna bedeikatuko det, bere alabantza beti izango da nere aoan.

3. Jaunagan gozatuko da nere anima. Aditu bezate otsanak, eta poztu bitez.

4. Anditu ezazute nerekin Jauna, eta guztiok batera goratu dezagun bere izena.

5. Arretaz zuzendu nintzan Jaunagana eta aditu ninduen, eta atera ninduen nere estutasun guztietatik.

6. Alderatu zaitezte beragana, eta argituak izango zerate, eta zuen arpegiak ez dirade izango gorrituak.

7. Beartsu onek deadarrez eskatu zuen, eta aditu zuen Jaunak; eta bere naigabe guztietatik libratu zuen.

8. Jaunak bere Aingerua jarriko du bere beldurra daukatenen inguruan, eta gaitzetik libratuko ditu.

9. Probatu eta ikusi ezazute zeñ leuna dan Jauna, zorionekoa, beragan itxedotzen duen gizona.

10. Jaunaren beldur izan zaitezte zuek bere santu guztiak, zeren bere beldur diradenentzat ez dago premiarik.

11. Aberatsak iduki zuten premia eta gose izan ziran; Jauna billatzen dutenak berriz, ez dute gauza on baten ere premiarik izango.

12. Atozte, ene semeak, aditu nazazute, Jaunaren beldurra erakutsiko dizutet.

13. Zeñ da bizia nai duen gizona, eta maitatzen duena egun onak ikustea?

14. Bada gorde ezazu garbi zure mingaña gaitz guzitik, eta zure ezpañak ez bezate esan gezurrikan batere.

15. Iges ezazu gaitzetik, eta egin itzatzu obra onak, pakea billatu ezazu, eta gogotikan saiatu zaite bera iritxitzera.

16. Jaunaren begiak daude justoen gañean; eta bere belarriak zurrak beren eskarietara.

17. Jaunaren arpegia berriz gaizki egiten diotenai begira dago, beren oroipena lurretik galtzeko.

18. Deadarrez eskatu zuten justoak eta Jaunak aditu zituen, eta libratu zituen beren naigabe guztietatik.

19. Jauna dago biotz naigabetua daukatezen aldean, eta espirituz umillak salbatuko ditu.

20. Justoen atsakabeak asko dira, baña guztietatikan Jaunak libratuko ditu.

21. Beren ezur guztiak zaitzen ditu Jaunak, beretatik bat bakarra ere ez da puskatua izango.

22. Txit gaiztoa da bekatarien eriotza, eta justoa gorrotatzen dutenak, desegiñak geldituko dira.

23. Jaunak erredimituko ditu bere serbitzarien animak, eta beragan itxedotzen dutenak, ez dirade galduko.

OGEITA AMALAUGARREN SALMOA

1. Dabid beraren salmoa.

Juzgatu itzatzu, o Jauna, gaizki egiten didatenak, eraso zaiezu, nere kontra elean ari diradenai.

2. Artu itzatzu armak, eta ezkutua, eta atera zaite neri laguntzera.

3. Atera ezazu magitikan ezpata, eta desegin itzatzu persegitzen nautenak. Esan zaiozu nere animari: Zure Salbatzallea naiz ni.

4. Nastau eta lotsatu bitez, nere animaren billa dabiltzanak.

Alde egin bezate atzerontz eta lotsatu bitez, nere kontra gaizkiak asmatzen ari diradenak.

5. Izan bitez egiñak aizeak daraman autsa bezela, eta Jaunaren aingeruak estutu bitza.

6. Beren bidea illuna, eta labañkorra izan bedi: eta Jaunaren aingeruak persegitu bizaiote.

7. Beren lazo eriotzakoa doan jarri zidatelako, eta iraindu zutelako gaizkiro nere anima.

8. Erori bedi, jarrita dagoala ez dakian lazoan, eta ezkutatu zuen marroak arrapatu beza, eta bere lazoan atxitua gelditu bedi.

9. Nere anima berriz poztuko da Jaunagan, eta gozatuko da bere Salbatzalleagan.

10. Nere ezur guztiak esango dute: Jauna, zeñ da zure antzekoa?

Libratzen dezuna gizagaxoa bera baño geiago diradenen eskuetatik; premian dagoena eta beartsua, zeukana arrapatzen ari ziradenetatik.

11. Jaikitzen ziradela lekuko gaiztoak, ez nekizkien gauzak galdetzen zizkidaten.

12. Itzultzen zizkidaten gaitzak mesedeen ordañtzat, bizia neri kentzeko alegiñak egiten zituztela.

13. Baña ni, berak atsekabetzen ninduten bitartean, zilizioz estalitzen nintzan.

Umillatzen nuen nere anima baruarekin, nere biotzean erregu egitez aspertu gabe.

14. Nere adiskide eta nere anaia baten amorioarekin bezela, ala tratatzen nituen: lutu eta tristezan dagoena bezela, ala umillatzen nintzan.

15. Baña berak jolasean ari ziran, eta elkartu ziran nere kontra, ezarri zituzten nere gañean azoteak, zergatik jakin gabe.

16. Barreiatuak gelditu ziran, baña ez damutuak, tentatu ninduten, isekaz isekatu ninduten, nere kontra egin zituzten beren ortzen karraskotsak.

17. O Jauna, noiz begiratuko didazu? Libratu ezazu nere anima gizaseme oien gaiztakeriatik, leoe oietatik nere anima.

18. Aitortuko zaitut eliza andi batean, erri ugari baten erdian kantatuko ditut zure alabantzak.

19. Ez bezate iduki ni mendean artzearen gozotasuna nere etsai gaiztoak, bidegabekiro gorrotatzen nautenak; eta beren begiakin poza erakusten dutenak.

20. Neri egiazki esaten zizkidaten pakeko itzak, baña beren lurrezko bijotzean, aserrez eztanda eginda, asmatzen zituzten engañoak.

21. Eta zabaldu zituzten nere kontra beren aoak, esaten zutela: Ea, ez, gure begiak ikusi dute.

22. O Jauna, zuk ikusi dezu, etzaite ixillikan egon denbora geiagoan, Jauna, etzaite nigandik urrutitu.

23. Jaiki eta begiratu ezazu nere juiziora, nere gauzan, o nere Jaungoikoa eta nere Jauna.

24. Juzgatu nazazu zure justiziaren araura, o Jauna, nere Jaungoikoa, eta ez bitez gozatu nere galmenean.

25. Ez bezate esan beren biotzetan: Ea, ea, ederki gabiltza. Ez bezate ere esan: iretsi dikagu.

26. Gelditu bitez izu eta lotsariz beteak, nere gaitzetan poztutzen diraden guztiak.

Izan bitez lotsariz gorrituak, nere kontra gauza andiak esaten dituztenak.

27. Poztu eta gozatu bitez, nere arrazoiaren alde daudenak, eta bere serbitzariaren pakea nai dutenak; beti esan bezate: Jauna gloriaz betea izan bedi.

28. Eta nere mingañak adiraziko du zure justizia, egun guztian zure alabanzak.

OGEITA AMABOSGARREN SALMOA

1. Atzenerako, Dabid Jaunaren serbitzari beraren salmoa.

2. Erabaki zuen gaiztoak bere biotzean gaizki egitea, bere begien aurrean Jaungoikoaren beldurrikan ez dago.

3. Bere aurrean engañuz ibilli dalako, bere gaiztakeria nazkagarriago egin da.

4. Bere aoko itzak gaiztakeria eta engañua dirade, ez du argitu nai zan bere adimena, ongi obratzeko.

5. Bere oean zerabillan gogoan gaiztakeria, ibilli zan pauso gaizto mot guzian, etzion berriz gaiztakeriari gorrotorik izan.

6. O Jauna, zure urrikaltasuna allegatzen da zeruraño; eta zure egia odeietaraño.

7. Zure justizia mendi txit goratuak bezela, eta zure erabakiak leize txit zakona.

Gizonai eta abereai ematen diezu iraupena, Jauna:

8. Zeñ ugaritasun andiaz geitu dezun, o Jaungoikoa, zure urrikaltasuna!

Argatik gizonen semeak itxedongo dute zure egoen itzalaren azpian.

9. Zure etxeko ugaritasunarekin ordituak geldituko dirade, eta emango diezu edaten zure atsegiñen korrontetik.

10. Zeren bizitzako iturria zugan dago, eta zure argian argia ikusiko degu.

11. Ezarri ezazu zure urrikaltasuna ezagutzen zaituztenakgana, eta zure justizia, biotz zuzena daukatenen alde.

12. Ez ditzadala nik eman arrokeriako pausoak, eta ez nazatela mugitu bekatariaren egiteak.

13. An erori ziraden gaiztakeria egiten dutenak, kanpora aurtikiak izan dirade, eta berriz ezin jaikiko dirade.

OGEITA AMASEIGARREN SALMOA
DABID BERAREN SALMOA

1. Etzaite egon gaiztoen bizitza gozatsuaren gurariz, eta ez ezazu iduki gaiztakeria egiten dutenen zelorik;

2. zeren txit laister elbitza bezela igartuko dira; eta belar samurra bezela, leortuta, bereala eroriko dira.

3. Jarri ezazu zure itxedopena Jaunagan, eta egin itzatzu obra onak, eta lurrean bizituko zera, eta bere aberastasunetan bazkatuko zera.

4. Gozatu zaite Jaunagan; eta emango dizu, zure biotzak opa duen guztia.

5. Adirazi zaiozu Jaunari, zu arkitzen zeran egoera, eta beragan itxedon ezazu, eta berak egingo du.

6. Eta zure justiziari distiatueraziko dio, argiari bezela; eta zure juizioari eguerdiaren gisara.

7. Egon zaite bada Jaunaren mendean, eta erregutu zaiozu:

Ez ezazu iduki, bere bidean ongi dijoakionaren, injustiziak egiten dituen gizonaren ondamurikan.

8. Kendu ezazu aserrea, eta utzi sumintasuna, ez ezazu iduki, gaitza egiteko gurarik.

9. Bada gaizki egiten dutenak izango dirade erbestetuak, Jaunagan itxedotzen dutenak berriz, izango dira herenziaz lurraren jabeak.

10. Itxedon ezazu piska batean, eta ikusiko dezu ez dala bizi bekataria, eta billatuko dezu zegoan tokia, eta ez dezu arkituko.

11. Otsanak bada izango dira herenziaz lurraren jabeak; eta gozatuko dirade pakearen ugaritasunean.

12. Bekataria egongo da justoaren azeloan, eta egingo ditu bere kontra bere ortzen karraskotsak.

13. Jaunak berriz iseka egingo dio, lendanaz ikusten duenak bezela elduko zaiola bere eguna.

14. Bekatariak atera zuten magitik ezpata, jarri ziraden punterian, beren uztaiarekin,

beera botatzeko beartsua, eta ezer ez zedukana, triskatzeko biotz zuzenak.

15. Beren ezpata sartu bedi beren biotzetan, eta beren uztaia piskatua izan bedi.

16. Geiago balio dio justoari gutxibatek, bekatariari ondasun askok baño.

17. Zeren bekatarien besoak puskatuak izango dirade; justoak berriz Jaunak sendatzen ditu.

18. Badakizki Jaunak obenik gabeenen egunak, eta beren herenzia betikoa izango da.

19. Ez dirade lotsatuak izango denbora gaiztoan, goseteko egunean asetuak izango dirade.

20. Zeren bekatariak galduak izango dirade, Jaunaren etsaiak berriz onratuak eta goratuak izanda bereala, izango dirade beeratuak, eta kea bezela izango dirade ezereztuak.

21. Bekatariak artuko du epean, eta ez du pagatuko, baña justoa errukituko da, eta emango dio beartsuari.

22. Argatik Jauna bedeikatzen dutenak, herenziaz artuko dute lurra; bere gaizki esaleak berriz, galduak izango dirade.

23. Jaunagana zuzenduko dirade gizaseme onaren pausoak: eta bere bideak ontzat emango ditu.

24. Erortzen danean, ez du miñik artuko, zeren Jaunak azpian jarriko dio bere eskua.

25. Gaztea izan nintzan, eta onezkero zarra naiz, baña ez det beñere ikusi justoa desanparatua; ez bere semeak ogiaren billa.

26. Eguna iragotzen du urrikaltasuneko lanean, eta lendanaz ematen; eta bere jatorria bedeikatua izango da.

27. Alde egin ezazu gaitzetik, eta on egin ezazu, eta biziko zera mendez mende.

28. Zeren Jaunak maitatzen du justoa dana, eta ez ditu desanparatuko bere santuak, beti izango dute laguntasuna.

Gaiztoak izango dirade kastigatuak, eta dongen jatorria galduko da.

29. Justoak herenziaz artuko dute lurra, eta bertan biziko dira beti.

30. Justoaren aoak zabalduko du jakinduria, eta bere mingañak zentzuarekin itz egingo du.

31. Bere Jaungoikoaren legea dauka bere biotzean, eta sendo ibilliko da bere pausoetan.

32. Bekataria beti dabil justoaren azeloan, eta dabil berari bizia kentzeko eraren billa.

33. Baña Jaunak ez du bekatariaren eskuetan utziko; eta ez du ere kondenatuko juzgatua danean.

34. Jaunagan itxedon ezazu, eta gorde ezazu bere legea, eta goratuko zaitu, herenziaz artu dezazun lurra. Bekatariak galduak diradenean, ikusiko dezu.

35. Ikusi nuen gaiztoa txit goratua; eta jasoa Libanoko zedroak bezela.

36. Andikan laister irago nintzan, eta etzan agiri. Billatu nuen, baña bere aztarnarik ere ezin izan nuen arkitu.

37. Iraunerazi zaiozu obengabetasunari, eta begiratu ezazu justiziagatik, zeren gizon paketsuak bere oroipena utziten du.

38. Gaiztoak berriz guztiak galduko dirade, dongen kutsuak izango dirade desegiñak.

39. Justoen salbazioa Jaunagandik dator, eta naigabeko denboran bera da beren laguntzallea.

40. Jaunak lagunduko die, eta libratuko ditu, eta bekatarien eskuetatik libratuko ditu, eta salbatuko ditu; beren itxedopena beragan jarri zutelako.

OGEITA AMAZAZPIGARREN SALMOA

1. Dabiden salmoa oroipenerako; larunbatean.

2. O Jauna, zure sumintasunean ez zadazu agiraka egin; eta zure aserrean ez nazazu kastigatu.

3. Zeren sartu zazkit nigan zure saietak, eta kargatu dezu nere gañean zure eskua.

4. Ez dago nere aragian eritu gabeko tokirik, zu nerekin aserretu zeralako, ezurrak ikara egiten didate, nere bekatuakin oroitzen naizanean.

5. Zeren nere gaiztakeriak nere buruaren gañera igo dute, eta zama astun batek bezela, naukate azpiratua.

6. Gorrotatu ziran eta usteldu nere zauriak, nere erokeriagatik.

7. Nago eginik urrikari bat, eta lurreraño makurtua, egun guztian nabil tristezaz estalia,

8. Zeren nere erraiak berotasunez beteak daude, eta ez dago nere gorputzean eri gabeko tokirik.

9. Naigabetua nago, eta txitez umillatua. Orroaka ari nintzan, nere biotzeko suspirioakgatik.

10. O Jauna, ongi ikusten dituzu nere gura guziak, eta nere suspirioak ez daude zugandik ezkutatuak.

11. Nere biotza nasia dago, gelditu naiz nere indarrak gabe, eta gutxi bear det nere begietako argia bera gabe gelditzeko.

12. Nere adiskideak eta nere aideak alderatu zitzadan, eta zutik jarri ziran nere kontra; eta nere aldean zeudenak jarri ziran urrutian.

13. Eta ni il nai nindutenak, egiten zituzten alegiñak guztiak:

Eta neri gaitz egin nai zidatenak, gaizki esaka ari ziran, eta egun guztian zeuden engañoak asmatzen.

14. Baña nik, gorra banintza bezela, ez nuen aditzen, eta mutua bezela, nengoan, aoa idiki gabe.

15. Eta egin nintzan ezerere aditzen ez duena bezela; eta itzikan ere zer erantzunikan ez duena bezela.

16. Zeren zugan, Jauna, daukat nik jarria nere itxedopena, zuk adituko nazu, o nere Jaun Jainkoa.

17. Bada nik esan nuen: Ez al dirade nere etsaiak nere gañean garai geldituko, zeñak nere oñak loka dabiltzanean, nigatik gaizki andiak esan zituzten.

18. Egia da, ni azotetarako gertua nagoela, eta nere dolorea beti dago nere aurrean.

19. Neronek aitortuko det nere bekatua, eta ibilliko naiz nere bekatua gogoan dedala.

20. Bitartean nere etsaiak bizi dira, eta ni baño sendoago egin dirade, eta gaizki gorrotatzen nindutenak ugaritu dirade.

21. Onagatik gaitza itzultzen dutenak, nigatik gaizki esaka ari ziran, birtuteari jarraitzen niolako.

22. Ez nazazu arren desanparatu, o nere Jaun Jainkoa, ez ezazu nigandik alderik egin.

23. Atoz agudo neri laguntzera, o nere Jaun Jainko salbatzallea.

OGEITA EMEZORTZIGARREN SALMOA

1. Atzenerako, iditun berari, Dabiden kantatxoa.

2. Esan nuen: Zaituko ditut nere bideak, nere mingañarekin bekaturik egin ez dezadan. Jarri nion nere aoari gordetzalle bat, bekataria nere kontra aurrean jartzen zitzadanean,

3. Mututu eta umillatu nintzan, eta ez nituen erantzun gauza onak berak ere, eta nere pena berriztatu zan.

4. Nere biotza nere barrenen berotu zan; eta nere meditazioan suzko garrak erazekitzen ziran.

5. Esan nuen nere mingañarekin: Jauna, ezagutuerazi zadazu nere atzena,

eta zelakoa dan nere egunen zenbata, jakin dezadan zenbat denborako bizia daukadan.

6. Begira zeñ laburrak egin dituzun nere egunak, eta nere izate guztia zure begien aurrean utsa bezela da.

Egiaz gizon bizi guztia, arrokeriarik andiena da.

7. Egiaz itzala bezela iragotzen da gizona, eta argatik alperrik nekatzen da.

Ondasunez betetzen da; eta ez daki zeñaentzat biltzen dituen.

8. Orain bada, zeñ da nere itxedopena? Ez al zera zu, o Jauna, zeñagan dagoan nere on guztia?

9. Nere gaiztakeria guztietatik libra nazazu, zuk jarri ninduzun txoroaren lotsari eginik.

10. Mututu nintzan eta nere aoa ez nuen idiki, guztia zuk egiten zenduelako.

11. Kendu itzatzu nigandik zure azoteak,

Zure eskuaren ots sendoakin aldigaiztoa eginda gelditu nintzan errierta egiten ziñidanean. Bekatuagatik zuk gizona kastigatu zenduen.

12. Eta egin zenduen bere bizia konsumitu zedilla armiarma bezela, alaere alperrik nasitzen da gizon guztia.

13. Aditu ezazu, o Jauna, nere erregua eta nere eskaria, begira ezazu nere negar malkoetara.

Etzaite ixilikan egon, ni zure aurrean naizan ezkero arrotz eta erbesteko bat bezela, nere asaba guztien gisan.

14. Bigundu zaite piska bat nerekin, eta asnasa artzen utzi zadazu, joan nadin baño lenago, izaterik berriz ez idukitzeko.

OGEITA EMERETZIGARREN SALMOA

1. Atzenerako: Dabid beraren Salmoa.

2. Gogo txit andiarekin Jaunaren zai egon nintzan: eta atzenean ere, alderatu zituen niganontz bere belarriak.

3. Eta biguñtasunarekin aditu zituen nere eskariak, eta atera ninduen urrikigarritasuneko aintziratik, eta lokatza loietik.

Eta jarri zituen arriaren gañean nere oñak, eta zuzendu zituen nere pausoak.

4. Jarri zuen nere aoan kantatxo berri bat, gure Jaungoikoaren alabantzako kantatxo bat.

Askok au ikusiko dute, eta Jaunaren beldur izango dirade, eta beragan ipiñiko dute beren itxedopena.

5. Doatsua gizona, zeñaen itxedopen guztia dan Jaunaren izena, eta etzituena itzuli bere begiak arrokeria, eta txorakeria engañakorretara.

6. Asko dirade zuk, o gure Jaun Jainkoa, egin dituzun mirariak, eta zure gogorazioetan ez dago zure antzekorik.

Jarri nintzan berak adirazi eta erakusten, kontatu al baño geiago dira.

7. Ez dituzu zuk nai izan eskeñtzak eta doañak, baña belarri onosoak eman dizkidazu.

Etzenduen ere eskatu holokaustorik, ez oparirik bekatuagatik.

8. Nik orduan esan nuen: Emen nago, Ni banator. (Liburuaren buruan nigatik eskribatua dagoen bezela)

9. Egiteko zure borondatea. Ori nai izan det, o nere Jaungoikoa, eta zure legea daukat nere biotzaren erdian.

10. Adirazi det zure justizia eliza andi batean, ez ditut iñoiz nere ezpañak itxiak idukiko, Jauna, zuk badakizu.

11. Ez det iduki zure justizia nere biotzean ezkutatua, agirian erakutsi nuen zure egia, eta zugandik datorren salbazioa.

Ez nion estali zure urrikaltasuna eta zure egia, batzarre ugariari.

12. Baña zuk, o Jauna, ez itzatzu urrutitu nigandik zure urrikaltasunak. Zure errukiak eta zure egiak beti lagundu didate.

13. Zeren zenbatik ez duten gaitzak ingurutu naute, arrapatu ninduten nere gaiztakeriak, eta ezin ongi ikusi nituen.

Nere buruko illeak baño ugariago egin ziran, eta nere biotza gelditu zan indargabetua.

14. Ontzat iduki ezazu, o Jauna, nere lagundutzea, itzuli itzatzu niganontz zure begiak neri lagunduteko.

15. Gelditu bitez batbatean naasiak eta lotsatuak; neri bizia kentzeko asmazioetan dabiltzan guztiak.

Itzuli bitez atzerontz eta gelditu txit lotsatuak, neri gaitza nai didatenak.

16. Artu bezate bereala, diña diraden lotsaria, esaten didatenak: Ea, ea.

17. Gozatu bitez zugan, eta pozez saltoka ari bitez zuri jarraitzen dizutenak, eta zure salbatzallea maite dutenak esan bezate beti: Jauna gloriaz betea izan dedilla.

18. Ni berriz naiz eskale bat, eta beartsua, Jaunak begiratutzen dau nigatik.

Zu zera nere laguntzallea eta bitartekoa, nere Jaungoikoa etzaite geldiro ibilli.

BERROGEIGARREN SALMOA

1. Atzenerako; Dabid beraren Salmoa.

2. Doatsua, beartsuaren eta premian dagoanaren ajola daukana: egun txarrean libratuko du Jaunak.

3. Gorde beza Jaunak, eta sendotu beza, eta egin beza zorionekoa lurrean, eta ez beza jarri bere etsaien mendean.

4. Poztu beza Jaunak bere penazko oean datzanean, zerorrek biguñtzen ziñion bere oe guztia bere eritasunean.

5. Esan nuen nik: Jauna, urrikaritu zaite nerekin, sendatu ezazu nere anima zure kontra bekatu egin dedalako.

6. Nere etsaiak esan zituzten nere kontra gaizkiak: noiz ilko da au, esaten zuten, eta galduko da bere oroipena?

7. Baldin iñor sartzen bazan ni bisitatzera, gezurrarekin itz egiten zuen; asmatzen zituela bere biotzean gaiztakeriak.

Ateratzen zan kanpora, eta egon oi zan ipuiak esaten

8. Besteakin.

Ixillean nere kontra gaizki esaka ari ziran nere etsai guztiak, guztiak zebiltzan neri gaizki egiteko gogorazioetan.

9. Erabaki gaiztoa eman zuten nere kontra, baña lo dagoena ez al da berriz jaikiko?

10. Oraindikan geiago dana, gizon batek, zeñarekin bizi nintzan ni pake gozoan, zeñagan fiatzen nintzan, eta zeñak nere ogitik jaten zuen, asmatu du saldukeria andi bat nere kontra.

11. Baña zu, o Jauna, urrikaritu zaite nerekin, eta berriz biztu nazazu, zeren nik emango diet berai diña diradena.

12. Onetan ezagutu izango det zuk maite nazula, ez dalako gozatuko nere etsaia nerekin.

13. Zeren zuk artu nazu zure bitartekotasunaren mendean nere obengabetasunagatik; eta beldurrik gabeko tokian jarri nazu zure aurrean betiko.

14. Bedeikatua izan bedi Israelko Jaungoikoa mendez mende. Ala izan bedi! Ala izan bedi!

BERROGEITA BATGARREN SALMOA

Atzenerako.

1. Koreren semeai erakutsiak emateko.

2. Egarri dan oreña urezko iturrien guraz dagoen bezela, ala, o Jaungoikoa, nere anima zure guraz dago:

3. Nere anima Jaungoiko sendo eta biziaren egarriz dago, noiz joango ote naiz eta agertu, Jaungoikoaren arpegiaren aurrean?

4. Nere malkoak ogitzat serbitu didate gau ta egun; aspertu gabe egunoro esaten didaten ezkero: Non dago zure Jaungoikoa?

5. Oiekin oroitu nintzan, eta zabaldu nuen nere barrenen nere espiritua, zeren ni allegatuko naiz, esan nuen, Tabernakulo miragarriaren tokira, nere Jaungoikoaren etxeraño.

Poz eta aitorrerako bozean, jan edaneko soñuan.

6. Zergatik zaude triste, o nere anima? Eta zergatik turbatzen nazu?

Jaungoikoagan itxedon ezazu, zeren oraindikan bere alabantzak kantatuko ditut, dalako nere aurrean daukadan salbatzallea,

7. Eta nere Jaungoikoa.

Nere barrenen nere anima naasia dago. Argatik zurekin oroituko naiz, Jordandik Hermon eta mendi txikiraño dagoen lurrean.

8. Zure urjaiotzak desegiten diraden otsean bezela, eurite batek deitzen dio beste eurite bati, ala zure ekaitz guztiak eta zure baga guztiak joan dirade nere gañean eroriaz.

9. Egunaz erabakiko du Jaunak etorri dedilla bere urrikaltasuna; eta nik gauaz zure alabantzak kantatuko ditut.

Erregu egingo diot neregan Jaungoiko nere biziaren emalleari.

10. Esango diot Jaungoikoari: Zu zera nere gordetzallea:

Zergatik aztu zera nerekin? Eta zergatik ni triste ibilliko naiz, etsaiak atsekabetzen nauen artean?

11. Nere ezurrak zatitutzen diraden artean; nere etsai oñazkatzen nautenak, aspertu gabe iseka egiten didate.

Esaten didatela egun guztietan: Non da zure Jaungoikoa?

12. O nere anima, zergatik zaude triste? Zergatik naasitzen nazu?

Jaungoikoagan itxedon ezazu, zeren oraindikan alabantzak kantatuko diozkat, dalako nere aurrean beti dagoan salbatzallea, eta nere Jaungoikoa.

BERROGEITA BIGARREN SALMOA

1. Dabiden Salmoa.

2. Juzgatu nazazu, o Jaungoikoa, eta berezitu ezazu nere kausa, santua ez dan jendetik, gizon gaizto eta engañakorragandik libra nazazu.

3. Zeren zu, o Jaungoikoa, zera nere sendotasuna, zergatik bota nazu zugandik? Eta zergatik triste ibilliko naiz, etsaiak atsekabetzen nauen artean?

4. Bialdu zazkidazu zure argia eta zure egia. Oiek zuzenduko naute, eta eraman zure mendi santura, zure tabernakuloetaraño.

5. Eta alderatuko naiz Jaungoikoaren aldarera, nere gaztetasuna poztzen duen Jaungoikoagana.

Zitarekin zure alabantzak kantatuko ditut, o Jaungoikoa, o nere Jaungoikoa.

6. Zergatik zaude itun, o nere anima? Eta zergatik naasitzen nazu?

Jaungoikoagan itxedon ezazu, zeren oraindikan alabantzak kantatuko diozkat, bera dalako, nere aurrean beti dagoan Salbatzallea, eta nere Jaungoikoa.

BERROGEITA IRUGARREN SALMOA

1. Atzenerako Koreren semeentzat, aditzako Salmoa.

2. Guk, o Jaungoikoa, aditu ditugu gure belarriakin, gure gurasoak kontatu dizkigute zuk egin ziñituen obrak beren egunetan, eta anziñako denboretan.

3. Zure eskuak galdu zituen jende aiek, eta jarri ziñituen berak: atsekabetu ziñituen erri aiek, eta bota ziñituen.

4. Beren ezpataren bitartez etziran allegatu lur onen jabe izatera; eta beren besoa ere etzan izan salbatu zituena.

Baizik zure eskuia eta zure besoa, eta zure arpegiko argia: zeren berakgan gozatu ziñan.

5. Zu zera, zu zerori nere erregea eta nere Jaungoikoa, zu Jakoben garaipenak erabakitzen dituzuna.

6. Zure laguntasunarekin aurtikiko ditugu gora, eta jiran erabilliko ditugu gure etsaiak, eta zure izenean mezpreziatuko ditugu, gure kontra jaikitzen diradenak.

7. Bada ez det nik itxedongo nere uztaian, eta nere ezpatak ez nau salbatuko.

8. Zeren zuk salbatu ginduzun atsekabetzen ginduenetatik, eta zuk utzi ziñituen lotsatuak gorrotatzen gindutenak.

9. Jaungoikoagan gozatuko gera egun guztian, eta zure izena alabatuko degu beti.

10. Baña orain bota gaituzu eta lotsariz bete; eta onezkero etzera ateratzen, o Jaungoikoa, gure martiztien aurretikan.

11. Gure etsaiai atzeak emanerazi ziñiguzun, eta izan gindezela, gorrotatzen gindutenak arrapatuak.

12. Jarri ginduzun beren eskuetan ardiak arategirako bezela, eta erreñuen artean barreiatu gaituzu.

13. Doan saldu dezu zure erria, eta etzan jende andirik izan erian.

14. Jarri gaituzu egiñik, gure aldekoen lotsaria, gure inguruan daudenen iseka eta farra.

15. Egin dezu izan gaitezela erreñuen ipuia, eta errien lotsaria.

16. Egun guztian daukat nere begien aurrean nere lotsaria, eta nere arpegia dago naasiz estalia,

17. Aditzen dedala iseka eta esakune gaiztoz betetzen nauenaren boza, eta ikusten dedala arro eta garai nere etsai eta persegitzallea.

18. Oiek guztiak etorri dira gure gañera, baña alaere ez gera zurekin aztu; eta ez degu ere gaiztakeriarik egin zure elkartasunaren kontra.

19. Eta ez du alderik egin atzerontz gure biotzak, eta ez dezu ere utzi alderik egin zezatela gure pausoak zure bidetxidorretatik.

20. Umillatzen baginduzun ere atsekabeko toki batean, non geunden eriotzako itzal batez estaliak.

21. Gure Jaungoikoaren izenaz aztu bagera, eta luzatu baditugu gure eskuak Jainko arrotzagana,

22. Ez al digu Jaungoikoak gauza oien konturikan eskatuko? Zeren berak ezagutzen ditu biotzeko ezkutuak.

Beinik bein zure amorioz egunero gaude eriotzarako izendatuak, gara idukiak ardiak iltokirako bezela.

23. Jaiki zaite, o Jauna, zergatik sinisterazitzen dezu lo bazeunde bezela? Jaiki zaite, eta ez gaitzatzu betiko utzi.

24. Zergatik alde erazitzen diozu gugandik zure arpegiari; eta aztutzen zera gure premiaz eta gure atsekabeaz?

25. Zeren gure anima auturaño umillatua dago, eta gaude auzpeztuak lurrean gure bularra lurrari itsatsita.

26. Jaiki zaite, o Jauna, lagun zatzakigu, eta erredimitu gaitzatzu zure izenaren amorioz.

BERROGEITA LAUGARREN SALMOA

1. Atzenerako: aldatuak izango diraden aientzat Koreren semeai, aditzako Salmoa, maitearen alabantzan.

2. Irakiten dago nere biotza gogorazio goratuetan, erregeari konsagratzen diot nik obra au.

Nere mingaña da, txit arin eskribatzen duen eskribatzalle baten luma.

3. O zu, zeñaen irudia dan ederrena gizonen semeen artean, grazia izan da isuria zure ezpañetan. Argatik bedeikatu zaitu Jaunak betiko.

4. Lotu ezazu zure ezpata zure gerrian, o txit almentsua.

5. Zure irudi txit eder eta galant orrekin ibilli zaite, zoaz aurrera txit ongi, eta erreñatu ezazu,

Egiaren, otsantasunaren eta justiziaren bitartez; eta zure eskuieak zuzenduko zaitu gauza arrigarrietara.

6. Zure saieta zorrotzak iragoko dituzte, o erregea, bere etsaien biotzak, erriak zure mendean jarriko dira.

7. Zure esertoki goratuak, o Jaungoikoa, irautzen du mendez mende, zure erreñuko erregezigorra zuzentasuneko erregezigorra da.

8. Maitatu zenduen justizia eta gorrotatu gaiztakeria. Argatik igortzi zinduen, o Jaungoikoa, zure Jaungoikoak, poztasuneko olioarekin, zure lagunez gañetik.

9. Mirraren, zabilaren eta kanelaren usaia botatzen dute zure soñekoak, ateratzean marfillesko egolekuetatik, zeñatan gozatu zaituzten beren usaiarekin.

10. Zure onradamak erregeen alabak dira, zure eskuiean dago erregiña urrez bordatutako, eta apaingarri askoz edertutako soñekoarekin.

11. Aditu ezazu, o alaba, eta begira, eta zaude zur beraganontzturik belarria, eta zure erriarekin eta zure aitaren etxearekin aztu zaite.

12. Eta erregea zure edertasunaren guran jarriko da, zeren bera da zure Jaun Jaungoiko, guztiak adoratuko dutena.

13. Tiroko alabak eskeñtzakin etorriko dira, erriko aberats guztiak, umiltasunarekin egingo dizkizute eskariak.

14. Erregearen alabaren gloria guztia barrenen dago, bera dago apaingarri asko dauzkan, eta urrezko frankakin edertutako

15. Soñeko batekin estalia. Erregearen aurrera eramanak izango dira, berari jarraituko dioten birjiñak, beren lagunak izango dira ekarriak zure aurrera.

16. Jolas eta piestakin izango dirade eramanak, erregearen jauregira izango dirade ekarriak.

17. Zure gurasoen lekuan semeak jaioko zazkizu, zeñak jarriko dituzu prinzipe egiñik, mundu guztiaren gañean.

18. Oiek iraunerazi diote zure izenaren oroipeñari, gizaldi guztietan.

Argatik erriak kantatuko dizkizute alabanzak beti, mendez mende.

BERROGEITA BOSGARREN SALMOA

1. Atzenerako, Koreren semeentzat gauza ezkutuetarako.

2. Gure Jaungoikoa da igestokia eta indarra, laguntzallea, txit arkitu gaituzten naigabeetan.

3. Argatik ez gera beldur izango, lurra mugitua dan bitartean; eta mendiak itsasoaren erdira eramanak.

4. Beren urak ots egin zuten eta naasi ziran, bere sendotasunera mendiak jarri ziran dardaraz.

5. Ibaiaren bultzadak poztutzen du Jaungoikoaren erria, txit goratuak santutu zuen bere tabernakuloa.

6. Jaungoikoa dago bere erdian, ez da mugitua izango, lagunduko dio Jaungoikoak goizean egunaren sentian.

7. Jendeak naasi ziran, eta erreñuak jarri ziraden zabuka, eman zuen bere boza, mugitu zan lurra.

8. Eskubideen Jauna gurekin: gure laguntzallea Jakoben Jaungoikoa.

9. Atozte, eta ikusi itzatzute Jaunaren obrak, lurraren gañean ipiñi zituen mirariak,

10. Kentzen dituena gerrak, lurraren ertzeraño.

Puskatuko du uztaia, eta autsiko ditu armak, eta ezkutuak sutan erreko ditu.

11. Zaudete geldirikan, eta ikusi ezazute ni naizala Jaungoikoa, goratua izango naiz erreñuetan, eta goratua izango naiz lurrean.

12. Eskubideen Jauna gurekin, gure laguntzallea Jakoben Jaungoikoa.

BERROGEITA SEIGARREN SALMOA

1. Atzenerako, Koreren semeentzat salmoa.

2. Jende guztiak eskuakin txaloka ari zaitezte, egin zaiozkazute jolasak Jaungoikoari pozezko bozakin.

3. Zeren Jauna goratua eta beldurgarria dan, Errege andia, lur guztiaren gañean.

4. Jarri zituen gure mendean erriak; eta gure oñen azpian jendeak.

5. Autatu zuen guretzat bere soroa; Jakoben edertasun, maitatu zuena.

6. Igo zan Jaungoikoa pozezko bozakin, eta Jauna tronpetaren bozarekin.

7. Jo zaiozkazute Salmoak gure Jaungoikoari, jo zaiozkazute salmoak, jo zaiozkazute salmoak gure erregeari, jo zaiozkazute salmoak.

8. Zeren Jaungoikoa lur guziko erregea da, jo zaiozkazute salmoak jakinduriarekin.

9. Jaungoikoak erreñuen gañean erreñatuko du, Jaungoikoa bere tronu santuaren gañean eseria dago.

10. Errietako prinzipeak Abrahamen Jaungoikoarekin bildu ziran, zeren lurreko jainko sendoak txit izan ziran goratuak.

BERROGEITA ZAZPIGARREN SALMOA

1. Kantatxoko salmoa Koreren semeentzat astearen bigarren egunean.

2. Andia da Jauna, eta alabantzaren txitez diña gure Jaungoikoaren errian, bere mendi santuan.

3. Egiña dago lur guztiko pozarekin Siongo mendia, ifarraren aldamenak, errege andiaren erria.

4. Ezagutua izango da Jaungoikoa bere etxeetan; artzen duenean.

5. Zeren ona non lurreko erregeak bildu ziraden, jarri ziraden, batean.

6. Berak ikusi zutenean onela, miraritu ziraden, naasi ziraden, mugitu ziraden.

7. Ikara berakin jabetu zan.

An ziraden erditzen dagoanarenak bezelako miñak.

8. Aize gogor batekin zatituko dituzu, Tarsisko ontziak.

9. Aditu genduen bezela, ala ikusi genduen eskubideen Jaunaren errian, gure Jaungoikoaren errian: Jaungoikoak betiko egin zuen.

10. Artu genduen, o Jaungoikoa, zure urrikaltasuna, zure tenploaren erdian.

11. Zure izenaren araura, o Jaungoikoa, ala zure alabantza ere lurraren ertzetaraño, justiziaz betea dago zure eskuiea.

12. Poztu bedi siongo mendia, eta gozatu bitez Judako alabak, zure erabakiakgatik, o Jauna.

13. Jira eman zaiozute inguruan Sioni, eta abarkatu ezazute, kontatu itzatzute bere dorreak.

14. Jarri itzatzute zuen biotzak bere indarrean, eta partitu bere etxeak, kontatu dezazuten, beste gizaldi batean.

15. Zeren au da Jaungoikoa, gure Jaungoikoa betiko, eta mendez mende, berak zuzenduko gaitu gizaldietan.

BERROGEITA ZORTZIGARREN SALMOA

1. Atzenerako, Koreren semeai, Salmoa.

2. Aditu oiek, erreñu guztiak, belarriakin entzun itzatzute, lurrean bizi zeraten guztiak.

3. Ala nekazariak, nola andizkiak, bat batean aberatsak eta beartsuak.

4. Nere aoak jakinduriako itzak esango ditu, eta nere biotzeko meditazioak zentzua:

5. Alderatuko det parabolara nere belarria, argituko det salterioarekin nere proposizioa.

6. Zergatik beldur izango naiz egun txarrean? nere orpoaren gaiztakeriak ingurutuko nau.

7. Ala beren indarrean itxedotzen dutenak, eta beren aberastasunen ugaritasunean gozatzen diradenak.

8. Anaiak ez du libratzen, libratuko du gizonak? Ez dio emango Jaungoikoari bere eskeñtza biguñgarria,

9. Ezta bere animaren erospena ere, eta beti egongo da penetan.

10. Eta oraindik biziko da atzeneraño.

11. Ez du ikusiko eriotza, ikusi arren iltzen jakintsuak. Zentzugabea, eta jakinduriarik ez duena, berdin galduko dira.

Eta beren ondasunak, arrotzai utziko diozkate.

12. Eta beren obiak, izango dira beren etxeak betiko.

13. Eta gizonak onran zegoanean etzuen aditu, abere zentzugabekoai iduritua izan zan, eta bere antzekoa egiñik gelditu zan.

14. Beren bide au da berentzat galmena, eta gero beren aoan gozatuko dira.

15. Ardiak bezela izan ziran infernuan ipiñiak, berak eriotzaren bazka izango dira.

Eta justoak idukiko dute agintaritza beren gañean goizean, eta beren gloriaren ondoan, beren laguntasun guztia zaartuko da infernuan.

16. Baña Jaungoikoak egiaz libratuko du nere anima infernuaren eskutik, artzen nauenean.

17. Etzaite beldur izan, aberastutzen danean gizona, eta azitzen danean bere etxeko gloria.

18. Zeren iltzen danean, ez du berarekin ezerere eramango, eta bere gloria ere, ez da berarekin jatxiko.

19. Zeren bera bizi dan bitartean, bere anima alabatua izango da, alabatuko zaitu, ongi egiten diozunean.

20. Sartuko da bere gurasoen gizaldietaraño, eta ez du beñere ikusiko argirikan.

21. Gizonak onran zegoanean etzuen aditu, zentzugabeko abereai izan zan iruditua, eta beren antzekoa egiña.

BERROGEITA BEDERATZIGARREN SALMOA

1. Asafen salmoa.

Jaungoikoen Jaungoikoak, Jaunak itz egin zuen, eta ots egin zion lurrari,

Eguzkiaren irteeratik, bere sarreraraño,

2. Siondik bere edertasunaren gloria.

3. Jaungoikoa agirian etorriko da, gure Jaungoikoa, eta ez da ixillik egongo.

Bere aurrean sua erazekiko da, eta bere inguruan ekaitz andia.

4. Goitik ots egingo dio zeruari, eta lurrari bere erria juzgatzeko.

5. Bildu zaiozkazute bere santu, berarekin elkartasuna egiten dutenak doañetan.

6. Eta zeruak bere justizia lendanaz adiraziko dute, Jaungoikoa jueza dalako.

7. Aditu ezazu, o nere erria, eta itz egingo det, Israel, eta testiganza emango det zure kontra, Jaungoikoa, zure Jaungoikoa naiz ni.

8. Ez dizkizut argudioak jarriko zure eskeñtzen gañean, zeren zure holokaustoak beti daude nere aurrean.

9. Ez ditut artuko zure etxetik txalak, ezta ere zure artaldetatik auntz akerrak.

10. Zeren basoetako pistia guztiak nereak dirade, abereak mendietan eta idiak.

11. Ezagutzen ditut zeruko egazti guztiak, eta kanpoko edertasuna nerekin dago.

12. Gose izango banintza, ez dizut esango, zeren lurraren biribiltasuna, eta bere betetasuna nereak dirade.

13. Zezenen aragiak jango al ditut? Edo auntz akerren odola edango al det?

14. Eskeñi zaiozu Jaungoikoari alabanzako eskeñtza, eta kunplitu zaiozkazu txit goratuari zure doañak.

15. Eta naigabeko egunean ots egin zadazu, libratuko zaitut, eta onratuko nazu.

16. Bekatariari berriz esan zion Jaungoikoak: Zergatik itz egiten dezu nere aginteen gañean, eta artzen dezu nere legea zure aoan?

17. Zuk gorroto izan diezun ezkero nere erakutsiai, eta bota dituzun ezkero bizkarrera nere itzak.

18. Ikusten bazenduan lapur bat, agudo joan oi ziñan berarekin, eta adulteroak ziraden zure lagunak.

19. Zure aoa ugaria zan gaiztakerian, eta zure mingañak asmatzen zituen engañoak.

20. Eserita zure anaiaren kontra itz egiten zenduan, eta zure amaren semearen kontra, jartzen zenduan beaztopoa.

21. Au egin zenduen, eta ixillik egon nintzan.

Gaizki sinistu zenduen zu bezelakoa izango nintzala, argudioak ipiñiko dizkizut, eta jarriko dizut zure arpegiaren aurrean.

22. Aditu ezazute au Jaungoikoarekin aztuta zaudetenak, arrapatu etzaitzaten, eta arkitu ez dedin nork libratu.

23. Alabanzako eskeñtzak onratuko nau, eta an dago bidea, nondik Jaungoikoaren osasuna erakutsiko diodan.

BERROGEITA AMARGARREN SALMOA

1. Atzenerako Dabiden salmoa.

2. Natan Profeta beragana etorri zanean, Betsabeen sartuta gero.

3. Urrikaritu zaite arren nerekin, o Jaungoikoa, zure urrikaltasun andiaren araura.

Eta zure urrikaltasunaren ugaritasunaren araura, borratu ezazu nere gaiztakeria.

4. Geiago eta geiago garbitu nazazu nere gaiztakeriatik, eta zuritu nere bekatutik.

5. Zeren nik ezagutzen det nere gaiztakeria, eta nere bekatua beti dago nere aurkez.

6. Zure kontra bakarrik bekatu egin det, eta egin det gaizkia zure aurrean, zure itzetan justotua izan zaitezen, eta juzgatua zeranean, garaitu dezazun.

7. Bada ona non ni gaiztakerietan sortua izan naizan, eta bekatuetan sortu ninduen nere amak.

8. Ona emen non zuk egia maitatu dezun, zure jakinduriaren estaliak, eta ezkutuak, agertu dizkidazu.

9. Hisopoarekin intzatuko nazu, eta garbitua izango naiz, garbituko nazu, eta geldituko naiz elurra baño zuriago.

10. Gozotasuna eta poza emango diozkazu nere belarriari, eta txit atsegin andia artuko dute nere ezur umillatuak.

11. Alde ezazu zure arpegia nere bekatuetatik, eta borratu itzatzu nere gaiztakeria guztiak.

12. Berriz egin ezazu nigan, ene Jaungoikoa, biotz garbi bat, eta espiritu zuzen bat berriztatu ezazu nere erraietan.

13. Ez nazazu arren bota zure arpegiaren aurretik; eta ez ezazu kendu nigandikan zure Espiritu Sandua.

14. Zure osasuneko poza itzuli zadazu, eta sendotu ezazu zure berarizko espiritu batekin.

15. Erakutziko dizkiotet gaiztoai zure bideak, eta dongak zugana itzuliko dirade.

16. Odoletatik libra nazazu, o Jaungoikoa, o nere osasuneko Jaungoikoa, eta nere mingañak zure justizia goratuko du.

17. O Jauna, nere ezpañak idikiko dituzu, eta nere aoak adiraziko du zure alabanza.

18. Zeren eskeñtza nai izan bazeneza, dudarikan gabe emango nuen, doañakin etzera zu gozatuko.

19. Jaungoikoarentzat eskeñtza da espiritu naigabetua, zuk, o Jaungoikoa, biotz damutu eta umildua ez dezu mezpreziatuko.

20. O Jauna, ongi egin zaiozu Sioni zure borondate onarekin, egiñak izan ditezen Jerusalengo murruak.

21. Orduan ontzat artuko dituzu justiziako eskeñtzak, doañak, eta holokaustoak. Orduan jarriko dituzte txalak zure aldarearen gañean.

BERROGEITA AMAIKAGARREN SALMOA

1. Atzenerako, aditzakoa Dabidentzat.

2. Doeg idumtarra etorri zanean, eta adirazi zionean Sauli: Dabid etorri da Akimeleken etxera.

3. Zergatik gozatzen zera txarkerian, zu gaiztakerian almentsua zeran ori?

4. Zure mingaña egun guztietan egon zan gaiztakeriako gogorazioetan, labaña zorrotzak bezela egin zenduan engañoa.

5. Gauza ona baño gaiztoa naiago izan zenduan gaiztakeriako izketa, zuzentasunekoa baño.

6. Amiltokiko itz guziak maitatu ziñituen, o mingañ engañatzallea.

7. Argatik Jaungoikoak desegingo zaitu betiko, aterako zaitu, eta eramango zaitu zure bizilekutik, eta zure sustraia bizien erritik.

8. Ikusiko dute justoak, eta beldur izango dirade, eta berari irri egingo diote, eta esango dute:

9. Ona emen, Jaungoikoa bere laguntzalletzat artu etzuen gizona,

Baizik bere aberastasunen ugaritasunean itxedon zuena, eta txit goratu zana bere arrokerian.

10. Baña nik, olibo frutuemalleak Jaungoikoaren etxean bezela, Jaungoikoaren urrikaltasunean itxedon nuen beti, eta mendez mende.

11. Beti alabatuko zaitut egin dezuna gatik, eta zure izenean itxedongo det, ona dalako bere santuen aurrean.

BERROGEITA AMABIGARREN SALMOA

1. Atzenerako, Maeletgatik, aditzakoa, Dabidena.

Zentzugabeak bere biotzean esan zuen: Ez da Jaungoikorik.

2. Usteldu dira, eta nazkagarriak egin dira beren gaiztakerietan, ez da gauza ona egin dezanik.

3. Jaungoikoak zerutik begiratu zuen gizonen semeen gañera, ikusteko ote dagoan zentzua duenik, edo billatzen duenik Jaungoikoa.

4. Guziak alde egin zuten, batean gaiezak egin ziraden, ez da gauza onik egiten duenik, ez da bat bakarra ere.

5. Zer bada, ez al dirade ezaguerara etorriko gaiztakeria egiten duten guziak, iretsiten dutenak nere erria ogizko janaria bezela?

6. Etzioten Jaungoikoari ots egin, beldurrez ikaratu ziran, beldurtu bearrik ez zegoan tokian.

Zeren Jaungoikoak barreiatu zituen, gizonen borondatea egin nai zutenen ezurrak. Lotsatuak gelditu ziran, zeren Jaungoikoak mezpreziatu zituen.

7. Nork bialduko du Siondik Israelko salbatzallea? Jaungoikoak itzuli erazitzen dionean katiberiotik bere erriari, gozatuko da Jakob eta poztuko da Israel.

BERROGEITA AMAIRUGARREN SALMOA

1. Atzenerako, aditzako kantatxoen gañean Dabidi.

2. Zifetarrak etorri ziradenean, eta Sauli esan ziotenean: Dabid gure artean ezkutatua al dago?

3. Salba nazazu, o Jaungoikoa, zure izenagatik, eta zaitu zure eskubidearekin.

4. Aditu ezazu, o Jaungoikoa, nere orazioa, entzun itzatzu nere aoko itzak.

5. Zeren arrotzak nere kontra jaiki dirade, eta sendoak ibilli dirade kendu nairik neri nere bizia, Jaungoikoari begiratu gabetanik.

6. Baña ona emen non Jaungoikoak laguntzen didan, eta Jauna da nere animaren gordetzallea.

7. Itzuli itzatzu gaitzak nere etsaien gañera, eta zure egiaren onran galdu itzatzu.

8. Nik eskeñiko dizut borondatezko doañ bat, eta alabatuko det zure izena, Jauna, ona dalako.

9. Zeren naigabe guzitik atera ninduzun; eta onezkero nere begiak mezprezioarekin begiratzen dien nere etsaiai.

BERROGEITA AMALAUGARREN SALMOA

1. Atzenerako, aditzako kantatxoen gañean Dabidi.

2. Aditu ezazu, o Jauna, nere orazioa, eta ez ezazu mezpreziatu nere eskaria.

3. Begiratu zadazu, eta aditu nazazu.

Tristetu naiz nere arazoan, eta naasia izan naiz.

4. Nere etsaiaren deadarrakgatik, eta gaiztoen persekuzioagatik.

Zeren biurtu zituzten gaiztakeriak nere gañera, eta aserrearekin ziran gogaikarriak neretzat.

5. Nere biotza naasia dago nere barrenen, eta eriotzaren beldurra, erori zan nere gañera.

6. Beldurra eta ikara etorri ziran nere gañera, eta illuntasunak estali ninduten,

7. Eta esan nuen: Nork emango dizkit usoarenak bezelako egoak, eta egan egingo det, eta atsedengo naiz?

8. Ona emen non igesi joanik urrutiratu nintzan, eta egin nuen egotaldea bakartadean.

9. Nengoan, animako eroritasunetik eta ekaitzetik salbatu ninduenaren zai.

10. Aurtiki itzatzu, o Jauna, berezitu itzatzu beren iritziak, zeren ikusi det gaiztakeria eta elkar ikusi eziñez betea dagoela erria.

11. Gau ta egun ibilliko da bere inguruan gaiztakeria bere murruen gañean, eta mendean idukitzea bere erdian,

12. Eta justiziarik eza.

Eta ez zan faltatu bere karrikaetatik lukurreria eta engañoa.

13. Zeren baldin nere etsaiak gaizki esan balu ni gatik, egiaz iragoko nuen.

Eta gorroto zidanak lotsagabekeriaz itz egin balu nigatik, noaski ezkutatuko nintzan beragandik.

14. Baña zuk nerekin biotz bateko gizona, nere zuzentzallea, eta nere ezaguna.

15. Nerekin batean janari gozoak artzen ziñituena, Jaunaren etxean lagunak giñana,

16. Betor eriotza beren gañera, eta bizirik jetxi bitez infernura.

Zeren gaiztakeriak daude beren bizilekuetan, beren erdian.

17. Baña nik Jaungoikoari ots egin diot, eta Jaunak salbatuko nau.

18. Arratsaldean, eta goizean eta eguerdian kontatuko diozkat eta adirazi nere premiak, eta berak adituko du nere boza.

19. Erredimituko du pakean nere anima, libratzen duela alderatzen zatzazkidatenetatik, zeren askoren artean nerekin zeuden.

20. Adituko nau Jaungoikoak, eta umillatuko ditu, gizaldiak baño lenagotikan danak.

Zeren ez dago berakgan aldatzerik, eta Jaungoikoaren beldurrikan etzuten iduki.

21. Luzatua dauka bere eskua, berak diña diradena emateko.

Urratu zuten berarekin egindako elkartasuna.

22. Bere arpegiko aserrearekin barreiatuak izan ziraden, eta bere biotzak iritxi zituen.

Bere itzak olioa baño leunagoak dirade, baña egiaz dirade dardoak.

23. Utzi zaiozu Jaunari zure ajola, eta berak bazkatuko zaitu, ez du idukiko justoa atsedengabe beti.

24. Zuk berriz, o Jaungoikoa, eramango dituzu galmeneko putzura.

Gizon odolisuritzalle eta engañatzalleak ez dira allegatuko beren egunen erdira; nik berriz, o Jauna, zugan itxedongo det.

BERROGEITA AMABOSGARREN SALMOA

1. Atzenerako,

Gauza santuetatik urrutiratua izan dan erriagatik, Dabidena tituluaren inskripziorako, arrotzak Jeten iduki zutenean.

2. Urrikaritu zaite arren nerekin, o Jaungoikoa, zeren gizonak oñazpian erabilli nau, naigabetu nau, egun guztian nere kontra ari dala.

3. Nere etsaiak egun guztian oñazpian erabilli naute, zeren asko dirade nere kontra elean ari diradenak.

4. Egunaren sentitikan nago beldurrez, baña nik zugan itxedongo det.

5. Jaungoikoagan alabatuko ditut nere itzak, Jaungoikoagan itxedon det, aragiak nerekin egin dezakeanaren beldurrik ez det idukiko.

6. Egun guztian nazkatzen zituzten nere itzak, beren gogorazio guztiak nere kontra, gaitzerako.

7. Barrenen biziko dira, eta egongo dira ezkutatuak, zelatatuko dituzte nere pausoak.

Nere animaren zai egon ziraden bezela.

8. Ezergatik ere ez dituzu salbatuko, aserrearekin zatituko dituzu erriak.

9. O Jaungoikoa, zuri agertu dizut nere bizia, zuk ipiñi ziñituen zure aurrean nere negar malkoak,

Zure eskeñiaren araura.

10. Orduan biurtuko dira atzerontz nere etsaiak.

Ots egin dizudan edozeñere egunean, ona non ezagutu dedan, zu zerala nere Jaungoikoa.

11. Goratuko det, Jaunak egin dizkidan eskeñtzakgatik, berakgatik alabatuko det Jauna. Ez naiz, gizonak egin lezakedanaren beldur izango.

12. Nere gañean daude, o Jaungoikoa, zure eskeñtzak, zeñak kunplituko ditudan kantatzen ditudala zure alabanzak.

13. Libratu dezulako nere anima eriotzatik, eta nere oñak erortzetik, izan nadin Jaungoikoaren gogokoa bizi diradenen argian.

BERROGEITA AMASEIGARREN SALMOA

Atzenerako,

1. Ez ezazu desegin, Dabidena tituluaren inskripziorako, Saulen aurretik lizera iges egiten zuenean.

2. Urrikaritu zaite arren nerekin, o Jaungoikoa, urrikaritu zaite arren nerekin, zeren nere animak zugan itxedotzen du.

Eta zure egoen itzalean itxedongo det, gaiztakeria irago dedin bitartean.

3. Deadarrez ots egingo diot Jaungoiko txit goratuari, mesedeak egin zizkidan Jaungoikoari.

4. Zerutik bialdu zuen, eta libratu ninduen, lotsariz bete zituen oñazpian neranbiltenak.

Bialdu zuen Jaungoikoak bere urrikaltasuna eta bere egia.

5. Eta atera zuen nere anima leoe gazteen erditik, naasia lo egin nuen.

Gizonen semeak, beren ortzak armak eta saietak dirade, eta bere mingaña ezpata zorrotza.

6. Goratua izan zaitezela, o Jaungoikoa, zeruen gañera, eta zabaldu ezazu zure gloria mundu guzitik.

7. Prestatu diote lazo bat nere oñai, eta makurtu zuten nere anima.

Egin zuten nere aurrean zulo bat, eta bertan erori ziran.

8. Prestatua dago nere biotza, o Jaungoikoa, prestatua dago nere biotza, kantatuko det, eta salmoak esango ditut.

9. Jaiki zaite, nere gloria, jaiki zaite salterioa eta zitara, ni goiz jaikiko naiz.

10. Alabatuko zaitut errien artean, Jauna, salmoak esango dizkizut zuri erreñoen artean.

11. Zeren zure urrikaltasuna goratua izan da zeruetaraño, eta zure egia odeietaraño.

12. Goratua izan zaite, o Jaungoikoa, zeruen gañera; eta zure gloria lur guzitik.

BERROGEITA AMAZAZPIGARREN SALMOA

Atzenerako.

1. Ez ezazu desegin, Dabiden tituloaren inskripziorako.

2. Baldin egiaz justiziaren gañean itz egiten badezute, egin ezazute zuzen justizia, o gizonen semeak.

3. Baña zuek gaizkiak egiten dituzute zuen biotzetan, zuen eskuak injustiziako asmazioetan ari dirade lurrean.

4. Pekatariak apartatu ziran jaiotzatik, uts eginda dabiltza amaren sabeletik, esan zituzten etziraden gauzak.

5. Beren sumintasuna da sugearenaren antzekoa, suge lotari gor, bere belarriak estalitzen dituenarena bezelakoa,

6. Ez duenarena adituko enkantarien boza; ez sorgin, enkantatzen trebearena.

7. Jaungoikoak txeatuko ditu beren ortzak beren aoetan, Jaunak puskatuko ditu leoien agiñak.

8. Utsera biurtuko dirade, korrika dijoan ura bezela, tiran dauka bere uztaia eritu ditezen artean.

9. Desegiñak izango dirade, urtutzen dan argizagia bezela, goitikan sua erori zan, eta etzuten ikusi eguzkirik.

10. Zuen arantzak sasi egin ditezen baño lenago, dauden bezela bizirik, Jaunak bere aserrean iretsiko ditu.

11. Pozutuko da justoa, benganza ikusten duenean, pekatariaren odolean garbituko bere eskuak.

12. Orduan esango dute gizonak: Egiaz justoarentzat ordaña badago, ziertoro bada lurrean, berak juzgatzen dituen Jaungoiko bat.

BERROGEITA EMEZORTZIGARREN SALMOA

Atzenerako.

1. Ez ezazu desegin, Dabidena tituloaren inskripziorako, Saulek bialdu zituenean, eta zaitu zuenen bere etxea, Dabid iltzeko.

2. Atera nazazu, o nere Jaungoikoa, nere etsaietatik, eta nere kontra jaikitzen diradenetatik libra nazazu.

3. Atera nazazu gaiztakeria egiten dutenetatik, eta gizon odolgiroetatik salba nazazu.

4. Bada ona non arrapatu zuten nere anima, eraso zidaten gizon sendoak.

5. Ez da au, Jauna, nere gaiztakeriagatik, ez nere bekatuagatik, gaiztakeria gabe jarraitu nion nere bideari, eta zuzendu nituen nere pausoak.

6. Jaiki zaite, eta atoz neri bidera irtetzera, eta ikusi ezazu, eta zuk, ejerzituen Jaun Jainkoa, Israelko Jainkoa,

Artu ezazu erreñu guztiak bisitatzeko gogoa, etzaite errukitu, gaiztakeria egiten dutenetatik batekin ere.

7. Berak itzuliko dirade arratsalderontz, eta gose izango dirade txakurrak bezela, eta ingurutuko dute erria.

8. Ezkutuan itz egingo dute, beren ezpañen barrenen labaña zorrotz bat daukatela, eta esango dute: iñork aditzen al gaitu?

9. Eta zuk, Jauna, irri egingo diezu, jende guziak ezereztuko dituzu.

10. Zuretzat gordeko det nere sendotasuna, zeren zu, o Jaungoikoa, zera nere anparatzallea.

11. Nere Jaungoikoaren urrikaltasuna, lendanaz etorriko da neri laguntzera.

12. Jaungoikoak agertuko dizkit, nere etsaien gañean dauzkan asmoak, ez itzatzu il, nere erriak aztu ez ditezen.

Barreiatu itzatzu zure eskubidearekin, eta azpiratu itzatzu, o Jaun, nere gordetzallea.

13. Beren aoko gaiztakeriagatik, beren ezpañetako itzakgatik, eta beren urgullerian arrapatuak izan bitez.

Eta beren arnegu eta gezurragatik izango dirade lotsarituak

14. Galmeneko egunean, galmenera bialduko ditu Jaungoikoaren aserreak, zeñak desegingo dituen, eta ez dirade izango.

Eta jakingo dute, Jaungoikoak erreñatuko duela Jakoben gañean, eta lurraren ertzetaraño.

15. Itzuliko dirade beren etxeetara arratsaldean, eta txakurrak bezelako gosea idukiko dute, eta ingurutuko dute erria.

16. Berak barreiatuak ibilliko dira jateko, eta aseten ez badirade, oraindikan gaizki esango dute.

17. Bitartean nik zure eskubidea kantatuko det, eta egunsentian zelebratuko det pozarekin zure urrikaltasuna.

Nere gordetzallea eta igestokia izan zeralako, nere naigabeko egunean.

18. Salmoak kantatuko dizkizut zuri, o nere gordetzallea, Jaungoiko nere laguntzallea zeralako, nere Jaungoikoa, nere urrikaltasuna.

BERROGEITA EMERETZIGARREN SALMOA

Atzenerako.

1. Aldatuak izango diradenentzat, tituluaren inskripziorako, Dabid berarena, erakutsiak emateko.

2. Siriako Mesopotamia, eta Sobal erre zituenean, eta biurturik Joab, desegin zuenean Idumea Gatzagako ibarrean, amabi milla gizon iltzen ziozkatela.

3. O Jaungoikoa, bota ginduzun, eta desegin ginduzun, aserretu ziñan, eta errukitu ziñan gurekin.

4. Mugitu zenduan lurra, eta naasi zenduan, sendatu itzatzu bere autsiak, zeren txit mugitua dagoan.

5. Erakutsi ziñiozkan zure erriak gauza gogorrak, edanerazi ziñigun mingoiztasuneko ardoa.

6. Zure beldur ziradenai eman ziñien senale bat; uztaiaren aurretik iges zezaten,

Zure maiteak libratuak izan zitezen.

7. Salbatu nazazu zure eskuiearekin, eta aditu nazazu.

8. Jaungoikoak bere santuarioan itz egin zuen: Poztuko naiz, eta partituko det Sikem, eta neurtuko det etzauntzetako ibarra.

9. Nerea da Galaad, eta nerea da Manases, eta Efraim nere buruko sendotasuna.

Juda nere erregea.

10. Moab nere itxedopeneko pertza.

Idumeara luzatuko det nere oñetakoa, arrotzak nere mendean daude.

11. Nork eramango nau erri murruturaño? Nork eramango nau Idumearaño?

12. Nork, zuk baizik, o Jaungoiko, bota ginduzuna, ez al zera etorriko zu gure ejerzituetan?

13. Lagundu zaguzu arren naigabean, zeren utsa balio du, gizonagandik datorren salbazioak.

14. Jaungoikoagan egingo ditugu gauza arrigarriak, eta berak ezereezera biurtuko ditu naigabetzen gaituztenak.

IRUROGEIGARREN SALMOA

Atzenerako,

1. Dabiden kantatxoetan.

2. Aditu ezazu, o Jaungoikoa, nere erregua, entzun ezazu nere orazioa.

3. Lurreko atzeneko mugetatik zuri ots egin nizun, nere biotza txit naigabetua zegoanean, aitz goratu baten gañean jarri ninduzun. Zuzendu ninduzun,

4. Nere itxedopena izan zeralako, sendotasuneko dorrea etsaiaren kontra.

5. Bizituko naiz zure tabernakuloetan gizaldietan, zure egoen estalkiarekin zaitua izango naiz.

6. Zeren zuk, o nere Jaungoikoa, aditu dezu nere orazioa, eman diezu herenzia zure izenaren beldur diradenai.

7. Eratxekiko diezu egunak erregearen egunai, bere urteak gizaldi baten, eta bestearen egunerañó.

8. Bera beti dago Jaungoikoaren aurrean, bere urrikaltasuna eta egia, nork aditu ditzake?

9. Ala esango diozkat salmoak zure izenari mendez mende, eta nere eskeñtzak kunplitzen arituko naiz beti.

IRUROGEITA BATGARREN SALMOA

Atzenerako,

1. Iditunentzat, Dabiden salmoa.

2. Nola ez da nere anima Jaungoikoaren mendean egongo? beragan dagoen ezkero nere salbazioa.

3. Bada bera da nere Jaungoikoa eta nere salbatzallea, nere gordetzallea, ez naiz berriz mugituko.

4. Noizarteraño egongo zerate erasoten gizon bati guztiok batean, bera desegiteko, paret zeartua, edo lurresi sakatua bezela?

5. Baña berak ibilli ziran, nik geien nai nuena kentzeko burutazioetan. Joan nintzan korrika, egarri nintzala. Beren aoakin bedeikatzen zuten, eta beren biotzakin madarikatzen zuten.

6. Baña zu, o nere anima, zaude Jaungoikoaren mendean, bada beragandik dator nere pazienzia.

7. Zeren bera da nere Jaungoikoa, eta nere Salbatzallea, nere laguntzallea, ez naiz arroztuko.

8. Jaungoikoagan dago nere salbazioa, eta nere gloria, Jaungoikoa da laguntzen didana, Jaungoikoagan dago nere itxedopena.

9. Itxedon ezazute beragan zuek, emen bilduak zaudeten erri guziak, isuri itzatzute zuen biotzak bere aurrean, Jaungoikoa da beti gure laguntzallea.

10. Bestera, utsak eta engañakorrak dirade gizonen semeak, gezurtiak dirade gizonen seme, balanzan jarriak, guztiak batean ariñagoak dirade, arrokeria bera baño.

11. Ez ezazute itxedon gaiztakerian; eta ez ezazute ere lapurreten gurarik iduki. Aberastasunak ugari badauzkazute, ez ezazute biotza beretan jarri.

12. Bein itz egin zuen Jaungoikoak, bi gauza oiek aditu nituen, eskubidea Jaungoikoarena dala,

13. Eta zugan, Jauna, urrikaltasuna badagoela, zeren zuk emango diozu bakoitzari ordaña, bere egiteen araura.

IRUROGEITA BIGARREN SALMOA

Dabiden salmoa,

1. Idumeako eremuan zegoanean.

2. Jaungoikoa, o nere Jaungoikoa, zure gurariz nago, eta zugana zuzentzen naiz egunaren sentitik.

Zure egarriz dago nere anima,

Eta zenbat eratara ote dagoan nere gorputz au ere!

3. Lur eremuan, eta bidegabekoan, eta urik gabekoan, an jartzen naiz zure aurrean, eliza batean bezela, ikusteko zure eskubidea eta zure gloria.

4. Zure urrikaltasuna, bizia baño obe dalako, nere ezpañak alabatuko zaituzte.

5. Eta ala bedeikatuko zaitut nere bizian, eta zure izenean altxatuko ditut nere eskuak.

6. Gantzez eta gizentasunez bezela izan bedi nere anima txit betea, eta pozezko ezpañaqin alabatuko zaitu nere aoak.

7. Nere oean zurekin oroitu nintzan, zugan nerabillan nere gogoa eguna argituta laster.

8. Nere laguntzallea izan ziñalako,

Eta zure egoen estalkipean gozatuko naiz,

9. Nere anima zuri itsatsia gelditu zan, zure eskuieak lagundu dit.

10. Baña berak alferrik billatu zuten nere anima, lurraren beenera sartuko dira,

11. Ezpaten puntetan jarriak izango dirade, izango dirade azerien bazka.

12. Bitartean erregea gozatuko da Jaungoikoagan, juramentu egiten diotenak izango dira alabatuak, zeren onela gelditu zan itxia, gaizki itz egiten zuten guztien aoa.

IRUROGEITA IRUGARREN SALMOA

Atzenerako;

1. Dabiden salmoa.

2. Aditu ezazu, o Jaungoikoa, nere eskaria zuri ots egiten dizudanean, etsaiak ematen didan beldurretik libratu ezazu nere anima.

3. Zaitu ninduzun gaiztoen batzarretik, gaiztakeria egiten dutenen taldetik.

4. Zeren beren mingañak ezpata bezela zorroztu zituzten, jarri ziran punterian uztaiarekin, gauza samiña,

5. Saietatzeko ezkutuan obengabea.

6. Supituan saietatuko dute, eta ez dirade beldur izango, leiatu ziran gauza gaizto batean.

Itz egin zuten, nola jarriko zituzten lazoak ezkutuan, eta esan zuten: Nork ikusiko ditu?

7. Asmatu zituzten gaiztakeriak, lertu ziran asmazioak asmatu ezinik,

Alderatuko da gizona bere biotzeko zakonera,

8. Eta Jaungoikoa izango da goratua.

Beren zauriak dirade txikitxoen fletxak bezela,

9. Eta indar gabe gelditu ziran beren kontra beren mingañak.

Ikusi zituzten guztiak arrituak gelditu ziran,

10. Eta gizon guztia beldurtu zan.

Eta adirazi zituzten Jaungoikoaren obrak, eta aditu zituzten bere egiteak.

11. Justoa poztuko da Jaunagan, eta beragan itxedongo du, eta alabatuak izango dirade, biotzez zuzen guziak.

IRUROGEITA LAUGARREN SALMOA

Atzenerako, Dabidentzat salmoa,

1. Jeremias eta Ezekielen kantatxoa, toki arrotzera zijoan erriarentzat, irtetzen azten zanean.

2. O Jaungoikoa, zuri dagokizu ongi himnoa Sionen, eta presentatuko zazkizu eskeñtzak Jerusalenen.

3. Aditu ezazu nere erregua, zugana etorriko da aragi guztia.

4. Gizon biurrien itzak indar geiago iduki zuten gure gañean, baña zuk barkatuko dizkiguzu gure gaiztakeriak.

5. Zorionekoa zuk autu zenduena, eta artu zenduena, bizituko da zure atarietan.

Zure etxeko ondasunez beteak izango gera, zure tenploa santua da,

6. Arrigarria bere justiziagatik.

Aditu gaitzatzu, o Jaungoiko, gure salbatzallea. Zuk zeran orrek, lurreko erreñu guztien, eta itsasoko tokirik urrutienen itxedopena.

7. Zuk, ematen diezun orrek, mendiai sendotasuna zure eskubidearekin, zuk zure sendotasunaz

8. Mugitzen dituzunak itsasoaren ondoa, eta bagen abarrotsa.

Erreñuak nastuko dirade,

9. Eta lurraren atzeneko ertzetan bizi diranak beldurtuko dira, zure mirariak ikusita. Poza zabalduko dezu sortaldetik sartalderaño.

10. Bisitatu zenduen lurra eta orditu zenduen, eta ondasun mota guztiaz bete dezu.

Jaungoikoaren ibaia urez betea dago, bertan bizi diradenai prestatu diezu janaria, alakoa da kanpoen giroa.

11. Ugaritu itzatzu bere urbideak; geitu ezazu berak ematen duena, intz gozatsuakin poztuko dira landare guztiak.

12. Jarriko diozu koroea zure ontasuneko urteari, eta zure kanpoak txitez ugariak izango dirade.

13. Eremuko edertasuna izango da ugaria, eta txit ederki jantziko dirade muñoak.

14. Geituko dira ari, eta ardi taldeak, eta ibarretan alea ugari izango da. Guztiak deadar egingo dute, eta kantatuko dituzte alabantzako himnoak.

IRUROGEITA BOSGARREN SALMOA

Atzenerako,

1. Biztuera berriko salmo eta kantatxoa.

Lurrean bizi zeraten guztiak, zuzendu zaiozkazute Jaungoikoari pozezko bozak.

2. Kantatu zaiozkazute salmoak bere izenari, eman zaiozkazute alabantza andiak.

3. Esan zaiozute Jaungoikoari: zeñ arrigarriak diran, o Jauna, zure obrak! Zure eskubide andiaren indarrarekin gezurtatuak geldituko dira zure etsaiak.

4. Lur guztiak adoratu zaitzala, eta kantatu ditzatzula salmoak, esan bizazkiola salmoak zure izenari.

5. Atozte, eta ikusi itzatzute Jaungoikoaren obrak. Beldurgarriak dirade, gizonen semeen gañean dauzkan erabakiak.

6. Zeñak itsasoa lur legor biurtu zuen, ibaitik oñaz igaroko dirade, an poztuko gera berarekin.

7. Berak dauka betiko agintaritza bere eskubidea gatik, bere begiak erreñuen gañera begira daude. Aserretu erazitzen diotenak, ez bitez arrotu beren barrenetan.

8. Erreñuak, bedeikatu ezazute gure Jaungoikoa, eta egin ezazute aditua izan dedilla bere alabantzako boza.

9. Berak itzuli dio bizia nere animari, eta ez die utzi nere oñai mugitzen.

10. Zeren zuk, o Jaungoikoa, probatu gaituzu, sukatilluz garbitu gaituzu, zillarra garbitzen dan bezela.

11. Utzi ziguzun txibistan erortzen, bota ziñituen naigabeak gure gañera,

12. Gizonen uztarriaren mendean jarri ginduzun.

Irago giñan sutatik, eta uretik, baña eraman gaituzu otz aroko tokira.

13. Sartuko naiz zure tenploan doaña ezkeñtzera, eta kunplituko dizkizut nere botoak,

14. Zeñak argiro nere ezpañakin egin nituen,

Nere naigabeko denboran nere aotik atera ziran botoak.

15. Doañ gizenak eskeñiko dizkizut, arien keari zugana igoerazitzen diodala, idiak eta akerrak eskeñiko dizkizut.

16. Atozte, eta aditu ezazute zuek, Jaungoikoaren beldur zeraten guztiok, eta kontatuko dizutet, zeñ gauza andiak egin dituen Jaunak nere animagatik.

17. Jaunari ots egin nion nere aoarekin, eta goratu det nere mingañarekin.

18. Baldin nik ontzat eman banu gaiztakeria nere biotzean, ez ninduen adituko Jaunak.

19. Argatik aditu nau Jaungoikoak, eta nere eskarien bozari begiratu dio.

20. Bedeikatua Jaungoikoa, etziona alde eragin nere eskariari, eta bere urrikaltasunari nigandik.

IRUROGEITA SEIGARREN SALMOA

Atzenerako,

1. Himnoen gañean, Dabiden kantatxoko salmoa.

2. Jaungoikoa errukitu dedilla gurekin, eta bedeikatu gagizala, argitu erazi dizaiola bere arpegiko argiari gure gañean, eta errukitu dedilla gurekin.

3. Ezagutu dezagun lurrean zure bidea, eta erreñu guziak zure salbazioa.

4. Alabatu zaitzatela, erriak, alabatu zaitzatela erri guziak.

5. Poztu eta gozatu bitez erreñuak, erriak justiziaz juzgatzen dituzula, eta erreñuak lurrean zuzendu.

6. Alabatu zaitzatela, o Jaungoikoa, erriak, alabatu zaitzatela erri guziak.

7. Lurrak eman zuen bere frutua.

Bedeikatu gaitzala Jaungoikoak, gure Jaungoikoak,

8. Bedeikatu gaitzala, Jaungoikoak, eta lurreko bazter guziak bere beldur izan bitez.

IRUROGEITA ZAZPIGARREN SALMOA

Atzenerako,

1. Kantatxoko salmoa Dabid berari.

2. Jaiki bedi Jaungoikoa, eta bere etsaiak barreiatu bitez, eta bera gorrotatzen dutenak, iges egin bezate bere aurretik.

3. Kea desegiten dan bezela, ala desegin bitez argizagia suaren aurrean urtzen dan bezela, ala galdu bitez bekatariak Jainkoaren aurrean.

4. Justoak berriz iduki bitzate janedanak, eta poztu bitez Jaunaren aurrean, eta jostatzen ari bitez gozotasunean.

5. Kantatu zaiozute Jaungoikoari, esan zaiozkazute salmoak bere izenari. Prestatu zaiozute bidea sartaldearen gañera igotzen danari, Jauna da bere izena.

Poztu zaitezte bere aurrean, nasiak geldituko dira bere arpegia ikusita, arena,

6. Zeñ dan humezurtzen aita, eta alargunen jueza.

Jaungoikoa bere toki santuan dago.

7. Jaungoikoa, zeñak bizierazitzen dien etxe baten barrenen, oitura batzuetako askori.

Ateratzen dituena lotuta daudenak, bere sendotasunarekin, baita aserretuerazitzen diotena ere aiei, zeñak obietan bizi diran.

8. O Jaungoikoa, ateratzen ziñanean zure erriaren aurrera, basomortua iragotzen zenduanean,

9. Lurra dardaratu zan, eta zeruak jarioan jarri ziran Sinaiko Jaungoikoaren aurrean, Israelko Jaungoikoaren aurrean.

10. O Jaungoikoa, zuk emango diozu euri ugari eta giro bat zure soroari, bera atsekabetua egon da; baña zuk gozatu dezu.

11. Zure abereak an biziko dira, o Jaungoikoa, zuk prestatu zenduen beartsuarentzat, zure ontasunagatik.

12. Jaunak emango die itza sendotasun andiarekin, berri onak ematen dituztenai.

13. Ejerzituen erregea izango da maite maitearena, eta arrapatutako gauzak partitzea, dagokio etxeko edertasuna danari.

14. Lo egingo bazenezate irriskuen erdian, izango zerate usoaren ego zillartuak bezelakoak, eta bere sorbaldako ostea urrezko oritasunarekin.

15. Erregeak juzgatzen dituenean Zerukoak bere gañean, Selmongo elurra baño zuriago geldituko dira.

16. O Jaungoikoaren mendia, mendi ugaria,

Mendi betea, mendi ugaria;

17. Baña zergatik zabiltzate mendi beteen gogorazioetan?

Au da mendi bat, zeñean bizitea ontzat iduki zuen Jaungoikoak, zeren Jauna biziko da bertan atzeneraño.

18. Jaungoikoaren gurdia dijoa amar millako askorekin, eta jostaketan ari diradenen millakin, Jauna dago beren artean Sinain, Santuarioan.

19. Igo ziñan goira, arrapatu zenduen katiberioa, artu ziñituen doañak gizonentzat.

Baitaere gure artean Jaun Jainkoa bizi dala sinisten ez ebenentzat.

20. Bedeikatua Jauna egun batean, eta egun guztietan, gure osasuneko Jaungoikoak bide giro ona emango digu.

21. Gure Jaungoikoa da gu salbatzeko indarra duena, eta Jaunari, eta bakarrik Jaunari txit dagokio eriotzatik libratzea.

22. Jaungoikoak autsiko ditu bere etsaien buruak, beren bekatuetan dabiltzanen kopeta illetsua.

23. Jaunak esan zuen: Basandik itzulieraziko diotet, itzulieraziko diotet itsasoaren barreneraño.

24. Desegiñak izango dirade gorritu arteraño zure oñak zure etsaien odolean, eta zure txakurren mingañak miaztuko dute.

25. Ikusi zuten, o Jaungoikoa, zure sarrera: santuarioan dagoan, nere erregearen, nere Jaungoikoaren sarrera.

26. Aurretik zijoazen prinzipeak, salmoak kantatzen zituztenakin batean, eta erdian neskatxatxoak panderoak jotzen.

27. O, zuek, Israelko jatorrikoak zeratenak, bedeikatu ezazute Jaun Jainkoa Elizetan.

28. An arkitzen zan Benjamin gaztetxoa, bere senetik irtenda.

Judako agintariak zijoazen zuzentzalletzat, Zabulongo agintariak, Neftaliko agintariak.

29. Agertu ezazu, o Jaungoikoa, zure eskubidea. Sendotu ezazu gugan egin dezun obra au.

30. Jerusalengo zure tenploari begiraturik, erregeak doañak eskeñiko dizkizute.

31. Errierta egiezu kañaberadiko pistiai, zezenen batzarrea beien artean, da erriena, kanpora botatzeko, zillarra bezela probatuak daudenak.

Desegin itzatzu, gerrak nai dituzten erreñuak.

32. Etorriko dira bialkiñak Egiptotik, Etiopia aurreratuko da Jaungoikoaren mendean jartzera.

33. Lurreko erreñuak, kantatu zaiozute Jaungoikoari, jo zaiozkazute salmoak Jaunari, jo zaiozkazute salmoak,

34. Zeruko zeruaren gañera igo danari sortalderontz.

Jakin ezazute andik egingo duela bere boza izan dedilla, guzia al duen boz bat,

35. Eman zaiozute gloria Jaungoikoari, Israelen egin duenagatik, bere anditasun eta bere eskubidea igotzen dirade odeietaraño.

36. Miragarria da Jaungoikoa bere santuetan. Israelko Jaungoikoak, berak emango dio indarra eta sendotasuna bere erriari. Bedeikatua izan dedilla Jaungoikoa.

IRUROGEITA ZORTZIGARREN SALMOA

1. Atzenerako, aldatuak izango diradenentzat, Dabidi.

2. Salba nazazu, o Jaungoikoa, zeren urak sartu dira nere arimaraño.

3. Sartua nago txit barreneko lokatsan, nere oña non jarri ez dedala.

Etorri nintzan itsasbarrenera, eta itsasandiak ondatu ninduen.

4. Nekatu nintzan deadarrez, katarrotu zatan nere eztarria, indargatuta beera erori zitzadan nere begiak, Jaungoikoagan itxedotzen nuela, zerura begira idukiaz.

5. Nere buruko illeak baño ugarituago egin dirade, bidegabe gorrotatzen nindutenak.

Sendotu dira nere etsaiak, nere persegitzalle gaiztoak, orduan pagatzen nuen, ostu ez nuena.

6. O Jaungoikoa, zuk daukazu nere premiaren berri, eta nere gaiztakeriak ez daude zuretzat ezkutuan.

7. Ez ditezela lotsatu nigatik zugan itxedotzen dutenak, o Jauna, o eskubideen Jauna.

Ez bitez nasiak gelditu nigatik, zu billatzen zaituztenak, o Israelko Jaungoikoa.

8. Zeren zugatik irago ditut desonrak, lotsariak nere arpegia estali zuen.

9. Nere anaiak, nere amaren semeak, ez naute ezagutu, eta iduki naute arroztzat.

10. Zeren zure etxeko zeloak iretsi ninduen, eta zuri egiten zizkizuten iraiñak, nere gañera erori ziran.

11. Penatzen nintzan barauarekin, eta lotsari biurtu zitzadan.

12. Zilizioz jantzi nintzan, eta etorri nintzan beren irria izatera.

13. Nere kontra itz egiten zuten, atean eseritzen ziradenak, eta ardoa edaten zutenak, nigatik kantatzen zuten.

14. Baña nik bitartean, Jauna, zuri nere orazioa zuzentzen nizun, au da, o nere Jainkoa, paketzeko denbora.

Aditu nazazu zure urrikaltasunaren anditasunaren araura: ni salbatzeko eginda daukazun eskeñtza leialaren araura.

15. Atera nazazu lokatzatikan, bertan sartuta gelditu ez nadin. Libratu nazazu gorrotatzen nautenetik, eta uren zakontasunetik.

16. Urezko ekaitzak ez nazala ondatu, eta oxinak ez nazala iretsi, eta putzuak ez dezala sendo itxi nere gañean bere aoa.

17. Aditu nazazu, o Jauna, zeren zure urrikaltasuna ongillea da. Begiratu zadazu arren neri, zure biguñtasunen ugaritasunaren araura.

18. Eta ez ezazu apartatu zure arpegia zure serbitzariagandik, agudo aditu nazazu, naigabez nagoelako.

19. Begiratu zaiozu nere animari, eta libratu ezazu, nere etsaiakgatik atera nazazu toki segurura.

20. Zuk badakizu nolako destañak egiten dizkidaten, eta nere desonra, eta nere lotsaria.

21. Naigabetzen nauten guztiak zure ikusbegian daude. Lotsari eta premien zai egon zan beti nere biotza

Eta itxedon nuen, norbait tristetu zedin nerekin, eta etzan izan, eta norbaitek gozatu nazala, eta ez nuen arkitu.

22. Eta janaritzat beazuna eman zidaten, eta nere egarrian eman zidaten edaten ozpiña.

23. Izan bedi beren maia beren aurrean lazotzat, eta ordañtzat, eta beaztopotzat.

24. Beren begiak illundu bitez, ikusi ez dezaten, eta makurtu ezazu beti beren bizkarrezurra.

25. Isuri ezazu beren gañera zure aserrea, eta zure aserrearen suminta sunak iritxi bitza.

26. Basomortu eginik gelditu bedi beren bizilekua, eta ez bedi arkitu nor bizi, beren etzauntzetan.

27. Zeren zuk zauritu zenduena persegitu zuten, eta geitu zuten nere zaurietako miña.

28. Zuk utziko diezu gaiztakeria gaiztakeriaren gañean egin dezatela, eta ez ditezela sartu zure justizian.

29. Izan bitez borratuak bizien liburutik, eta justoakin ez ditezela izan eskribatuak.

30. Ni naiz beartsua eta eriz betea, baña zuk, o Jaungoikoa, salbatu nazu.

31. Alabatuko det Jaungoikoaren izena kantatxo batekin, eta goratuko det eskerrakin.

32. Eta au Jaungoikoaren gogokoago izango da, eskeñiko banio baño txaltxo bat, adarrak eta beatzalak irtetzen asitzen zaiozkanean.

33. Ikusi bezate au beartsuak, eta poztu bitez. Billatu ezazute Jaungoikoa, eta berriz biztuko da zuen anima.

34. Jaunak aditu zituen ezkero beartsuak, eta etzituen ezkero mezpreziatu beragatik lotuta zeudenak,

35. Alabatu bezate zeruak, eta lurrak, itsasoak, eta beretan mugitzen diraden guztiak.

36. Zeren Jaungoikoak salbatuko du Sion, eta Judako erriak izango dirade berriz egiñak.

37. Eta bere serbitzarien jatorria izango da bere jabe, eta bertan bizi-ko dira, bere izena maite dutenak.

IRUROGEITA BEDERATZIGARREN SALMOA

Atzenerako, Dabidentzat salmoa.

1. Oroitzeko nola Jaunak salbatu zuen.

2. O Jaungoikoa, begira zaiozu, neri laguntzeari. Atoz arin, Jauna, neri laguntzera.

3. Nasiak eta lotsatuak gelditu bitez, neri bizia kendu nairik dabiltza-nak.

4. Atzera biurtu erazi bizaiote, eta lotsatu bitez, neri gaitzak opa diz-kidatenak.

Bijoaz atzererontz lotsatuta, esaten didatenak neri: Galanki, galanki.

5. Poztu eta gozatu bitez zugan, zu billatzen zaituzten guziak, eta beren salbatzallea maitatzen duten guziak esan bezate aspertu gabe: Goratua izan bedi Jauna.

6. Baña ni beartsua eta premiaz betea naiz. O Jaungoikoa, lagun zadazu.

Nere laguntzallea eta libratzallea zera zu. O Jauna, etzaite berandu-tu.

IRUROGEITA AMARGARREN SALMOA

Dabiden salmoa.

1. Jonadaben semeena, eta lenbiziko katiboena.

Zugan Jauna itxedon det, ez nadilla arren ni betiko lotsatua gelditu.

2. Zure justiziagatik libra nazazu, eta atera nazazu.

Alderatu ezazu niganontz zure belarria, eta salba nazazu.

3. Izan zaite neretzat Jaungoiko gordetzalle bat, eta toki murrutu bat, zuk salbatu nazazun;

Zeren nere sendotasuna, eta nere igeslekua zera zu.

4. Nere Jaungoikoa, bekatariaren eskutik libra nazazu, eta legearen kontra dijoanaren eta gaiztoaren eskutik.

5. Zeren nere pazienzia zu zera, o Jauna: Jauna, nere itxedopena nere gazte denboratik.

6. Zugan sendatua izan naiz sabeletik, bere erraietan nengoanetik nere laguntzallea zera zu.

Zure gañean da beti nere kanta.

7. Mirari bat bezela, ala naiz askok begiratua, baña zu gordetzalle almentsu bat zera.

8. Nere aoa alabantzaz bete bedi, zure gloria kantatu dezadan: egun guztian zure anditasuna.

9. Zartzako denboran ez nazazu bota, nere indarrak aitzen zazkida-nean, ez nazazu utzi,

10. Zeren nere etsaiak nere kontra itz egin dute, eta batzarrea egin dute, nere bizitzaren azeloan zeudenak,

11. Esaten zutela: Jaungoikoak utzi dik, zoazte korrika bere ondoren, arrapatu ezazute; zeren ez zeagok nork libratu dikan.

12. O Jaungoikoa, etzaite urrutitu nigandik. O nere Jaungoikoa, itzu-li itzatzu zure begiak neri laguntzeko.

13. Gelditu bitez nastuak eta galdu bitez, nere animari gaizkiak asma-tzen diozkatenak, nastu eta lotsatu bitez kalte egin nai didatenak,

14. Baña nik beti itxedongo det, eta alabantza berriak ematen beti ariko naiz.

15. Nere aoak predikatuko du zure justizia egun guztian, eta zugan-dik datorren osasuna.

Ez ditudalako ezagutzen letrak

16. Sartuko naiz Jaunaren eskubidearen obren barrenen. O Jauna, zure justiziarekin bakarrik oroituko naiz.

17. Zu, o Jauna, izan ziñan nere erakuslea nere gazte denboratik, eta zabalduko ditut, orainarteraño ikusi ditudan mirariak.

18. eta zartzaraño eta edade andiraño. O Jaungoikoa, ez nazazu desanparatu.

Adirazi dizaiodan zure eskuaren indarra, etorriko dan gizaldi guztia-ri;

19. Arako zure eskubidea eta justizia, zeruak baño goratuagoak, eta arako egin dituzun gauza andiak. Zeñ zure antzekorik, o Jaungoikoa?

20. Zenbat atsekabe, eta zeñ andiak probatuerazi dizkidazu! Eta itzulirik nigana, berriz bizia eman didazu, eta lurraren barren barrenetatik berriz atera nazu.

21. Adirazi dezu milla eratara zure gloriaren anditasuna, eta itzulirik nigana gozatu nazu.

22. Argatik nik ere zelebratuko det soñuaren otsean zure leialtasuna eskeñtzetan. Kantatuko dizkizut salmoak zitararekin, o Israelko santua.

23. Txit poztuko dirade nere ezpañak kantatzen dizudanean, eta zuk erredimitu zenduen nere anima.

24. Baita nere mingañak ere, egun guztian zure justizia gogoan erabilliko du, neri kalte egin nairik, ibilli diradenak, desonraz eta lotsariz beteak gelditzen diradenean.

IROGEITA AMAIKAGARREN SALMOA

Salmoa,

1. Salomonen gañean.

2. Eman zaiozkazu, o Jaungoikoa, erregeari zure legeak, juzgatu dezan, eman zaiozu erregearen semeari zure justizia.

Berak justiziarekin juzgatu dezan zure erria, eta zure beartsuak zentzuarekin.

3. Artu bezate mendiak pakea erriarentzat, eta muñoak justizia.

4. Juzgatuko ditu erriko beartsuak, eta zaituko ditu beartsuen semeak, eta gaizkien asmatzallea humillatuko du.

5. Eta berak iraungo du eguzkiarekin, eta illargiaren aurrean, gizaldiz gizaldi.

6. Jatxiko da, euria ari larruaren gañera bezela, eta lurraren gañera tantoka erortzen dan eurilanbroa bezela.

7. Bere egunetan jaioko da justizia, eta pakearen ugaritasuna, illargia kendua izan dedin bitartean.

8. Eta aginduko du itsaso batetik bestera, eta ibaitik lurraren biribiltasunaren mugetaraño.

9. Bere aurrean Etiopiakoak auzpeztuko dira, eta bere etsaiak miaztuko dute lurra.

10. Tarsisko eta ugartetako erregeak doañak eskeñiko diozkate; Arabiako eta Sabako erregeak, opariak ekarriko diozkate.

11. Eta lurreko errege guziak adoratuko dute, serbituko dute erreñu guziak.

12. Zeren libratuko du beartsua indar andikoagandik, eta laguntzallerik etzeukan beartsua.

13. Urrikarituko da beartsu eta premiatsuarekin, eta beartsuen animak salbatuko ditu.

14. Lukreriatik eta gaiztakeriatik libratuko ditu beren animak, eta beren izena honratua izango da bere aurrean.

15. Eta bizituko da, eta Arabiako urrea emana izango zaio, eta beti adoratuko dute. Egun guztian beteko dute bendizioz.

16. Eta bere errian, mendien erpiñetan ere, egongo da janaria, bere frutuak ikusiko dirade Libanoren tontorrean, eta ugarituko dira errian landaetan belarra bezela.

17. Bere izena mendez mende izan bedi bedeikatua, eguzkia baño lenago, izatea zeukan izen bat.

Eta lurreko erri guziak izango dira beragan bedeikatuak. Erreñu guztiak emango diote gloria.

18. Bedeikatua izan bedi Israelko Jaun Jainkoa, berak bakarrik mirariak egiten dituena.

19. Eta bedeikatua beti bere anditasuneko izena. Eta lur guztia izango da bere anditasunaz txit betea. Ala izan bedi! Ala izan bedi.

20. Aitu ziran Dabid Jeseren semearen alabantzak.

IROGEITA AMABIGARREN SALMOA

1. Asafen salmoa.

Zeñ ona dan Jaungoikoa Israelentzat, biotz zuzenekoak diradenentzat!

2. Gutxigatik mugitu ez zazkidan nere oñak, gutxigatik irristatu ez ziran nere pausoak.

3. Zeren zeloz bete nintzan begiraturik gaiztoai, bekatarien pakea ikusirik.

4. Berak ez daukate eriotzaren beldurrik. Ez dago iraupenik beren zaurian.

5. Ez dirade egoten gizonen lanetan, eta beste gizonakin ez dirade izango azotatuak.

6. Argatik berakin jabetu zan urgulleria, beren injustiziaz eta gaiztakeriaz estaliak daude.

7. Gantzetik bezela irten zan beren gaiztakeria. Irago ziran beren biotzen gurarietara.

8. Beren gogorazio eta itz guzia gaiztakeria da. Toki txit altuan gaiztakeria esaten zuten.

9. Beren aoa zeruan ipiñi zuten, eta beren mingaña dijoa lurra iragoaz.

10. Argatik nere erria onara itzuliko da, eta egun beteak beretan arkituak izango dirade.

11. Eta esan zuten: Ote dakizki Jaungoikoak gauza guzti oiek? Eta txit Altuak, oien berririkan ote dauka?

12. Begiratu ezazute, nola oiek, izanik bekatariak dauzkaten ugari munduan ondasunak, eta aberastasunak metatuta.

13. Nik ere esan nuen: Beraz alferrik garbitu det nere biotza, eta garbitu ditut nere eskuak obengabeak lagun ditudala.

14. Bada azotatua izan naiz egun guztian, eta nere kastigua asitzen da egunsentitik.

15. Esaten banuen: Onela itz egingo det, ona non gaiztotzat emango dedan zure semeen erreñua.

16. Pensatzen nuen au aditzean: lana da au neretzat;

17. Sartu nadin bitartean Jaungoikoaren santuarioan, eta ezagutu zer atzen idukiko duten.

18. Ziertoa da zuk eman ziñiela ongi izate engañakor bat, bota ziñituen, tokirik gorengoenean zeudenean.

19. O, eta nola ondamen oso batera itzuliak izan ziran! Batbatean ezereztu ziran, beren gaiztakeriagatik galdu ziran onela.

20. Esnatzen dan baterloa bezela, ala, o Jauna, ezerezera biurtuko dezu zure errian beren irudia.

21. Zeren nere biotza gartu zan, eta nere erraiak mugitu ziran.

22. Eta ni gelditu nintzan utsera biurtua, jakin gabe zergatik.

23. Zamari bat bezela izan naiz zure aurrean, eta ni beti zurekin.

24. Zuk eldu ziñidan eskuieko eskutik, eta zure borondatearen araura zuzendu ninduzun; eta artu ninduzun gloriarekin.

25. Eta egiaz zer zeruko gauza nai izan neike nik, edo zer opa izango det lurrean, zu ez izanenean?

26. Desalaitu ziran nere aragia eta nere biotza. O nere biotzeko Jaungoikoa, o Jaungoiko nere herenzia zerana, beti betiko.

27. Zeren ona non galduko diran, zugandik urrutiratzen diranak, aurtikiko dituzu galmenera, fedea ausitzen dizuten guztiak.

28. Neretzat berriz gauza ona da Jaungoikoari itsatsia egotea, jartzea Jaunagan nere itxedopena;

Adirazteko zure alabantza guztiak, Siongo alabaren atetan.

IRUROGEITA AMAIRUGARREN SALMOA

1. Aditzakoa Asaferi.

Zergatik, o Jaungoikoa, bota gaituzu betiko? Zergatik erazeki da zure sumintasuna, zure larreko ardien kontra?

2. Oroitu zaite batzarre onekin, onako erriarekin, zeñaen jabe asieratik izan zeran.

Zuk berriz artu zenduen zure herenziako zetroa: Siongo mendi, zure bizilekuko tokia.

3. Jaso itzatzu zure eskuak beren urgullerien kontra betiko. Zenbat gaiztakeria egin ote ditu ere etsaiak santuarioan!

4. O, eta nola gozatzen ziran zure jai andiko tokian bertan, gorrotatzen zindutenak!

5. Jarri zituzten ezagutu gabe, beren estandarteak señaletzat, tokirik goratuenaren gañean, irteeran bezela.

6. Zuaitzezko baso batean bezela, aizkorakin desegin zituzten batean bere ateak. Aizkora eta trabesarekin bota zuten.

7. Sutan erre zuten zure santuarioa. Zure izenaren tabernakuloa lurrean zikindu zuten.

8. Bildurik elkarren artean erreñu orretako jendeak, esan dute beren biotzean: Kendu ditzagun lurretik, Jaungoikoaren jai egun guziak.

9. Ez degu ikusten len gure artean maiz ikusi oi zan miraririk, ez dago onezkero profetarik, eta emendikan aurrera ez gaitu ezagutuko.

10. Noizarteraño, o Jaungoikoa, iñakinduko gaitu etsaiak? Gure kontra dagoena beti ariko al da zure izenagatik gaizki esaka?

11. Zergatik atzeratuten dezu zure eskua? Zergatik ez dezu ateratzen bein betiko zure kolkotikan zure eskuia?

12. Baña Jaungoiko, gure erregea danak gizaldien asieratik, egin ditu salbazioko lanak lurraren erdian.

13. Zuk eman ziñion sendotasuna itsasoari zure eskubidearekin, zuk ausi ziñituen dragoien buruak, uren erdian.

14. Zuk zatitu ziñituen dragoiaren buruak, eman ziñien janaritzat Etiopiako erriai.

15. Zuk atera ziñituen aitzetatik iturriak eta errekak: zuk leortu ziñituen Etamgo ibaiak.

16. Zurea da eguna eta zurea gaua, zuk egin ziñituen egunsentia eta eguzkia.

17. Lurreko alderri guztiak zuk egin ziñituen, uda eta udaberria zure eskuetako lanak dirade.

18. Oroitu zaite onekin, o Jauna, etsaiak lotsagabekeriak esan dizkizula, eta erri zentzugabeko batek, gaizki esan duela zure izenagatik.

19. Ez itzatzu jarri abereen mendean, zu alabatzen zaituzten animak, eta ez itzatzu aztuta iduki zure beartsuen animak.

20. Itzuli itzatzu begiak zure elkartasunera, zeren lurreko gizonik illunenak aberastu dirade gaizkiro, gure ondasunakin.

21. Ez bedi itzuli lotsatuta humildea. Beartsuak eta laguntasunik ez duenak, zure izena alabatuko dute.

22. Jaiki zaite, o Jauna, eta zure kausa juzgatu ezazu, oroitu zaite zure kontra egindako lotsagabekeriakin, erri zentzugabeko batek egunoro egindakoakin.

23. Etzaite aztu zure etsaien bozakin, zu gorrotatzen zaituztenen urgulleria, gora dijoa beti.

IRUROGEITA AMALAUGARREN SALMOA

1. Atzenerako, ez ezazu desegin, salmo eta kantatxoa Asaferi.

2. Alabatuko zaitugu, o Jauna; alabatuko zaitugu; eta zure izenari ots egindo diogu.

Zure mirariak kontatuko ditugu.

3. Nere denbora allegatzen danean, nik justiziak juzgatuko ditut.

4. Urtu da lurra eta bertan bizi diraden guziak. Nik bere abeak sendotu nituen.

5. Esan nien gaiztoai: Ez ezazute gaiztakeria geiago egin. Eta bekatariai: Ez ezazute goratu zuen eskubidea.

6. Ez ezazute gora jaso zuen eskubidea, ez ezazute Jaungoikoaren kontra gaizki itz egin.

7. Zeren ez sortaldetik, ez sartaldetik, ez basomortuko mendietatik, egindo dezute igesik;

8. Zeren jueza Jaungoikoa da:

Berak beeratutzen du bata, eta goratutzen du bestea,

9. Zeren Jaunak bere eskuan dauka, ardo garbi, naspillaz beterikozko kaliza bat.

Eta iragoerazitzen dio batagandik besteagana, baña alaere, bere liak ez dirade aitu. Lurreko bekatari guziak edango dituzte.

10. Nik ordea adirazi eta kantatuko diozkat beti alabantzak, Jakoben Jaungoikoari.

11. Eta nik beeratuko det bekatarien urgulleria guzia, eta egingo det, justoak altxatu dezatela burua.

IRUROGEITA AMABOSGARREN SALMOA

1. Atzenerako, alabatzeko, Asaferi salmoa.

Asiriarren gañean kantatxoa.

2. Ezagutua da Jaungoikoa Judean, Israelen bere izena andia da.

3. Jarri zuen bere bizilekua Pakean, eta bera egoteko tokia Sionen.

4. An urratu zituen uztaien indarrak, ezkutua, ezpata eta gerra.

5. Ematen zenduela zuk argi miragarri bat betiko mendietatik,

6. Biotz gatzgabeko guztiak, nasiak gelditu ziran.

Egiñ zuten beren loa, eta aberastasunen gizon guzti oiek, beren eskuetan etzuten ezerere arkitu.

7. Zure erriertara, o Jakoben Jaungoikoa, konortgabe gelditu ziran, zaldi errutsuen gañean zeudenak.

8. Beldurgarria zera zu, eta zeñ da leiatuko zatzuna, aserretzen zeran unetik?

9. Zerutik adituerazi zenduen zure erabakia. Lurra dardaratu zan, eta atseden zuen.

10. Jaiki zanean Jaungoikoa juiziorako, lurreko otsan guztiak salbatzeko.

11. Gauza oiek gogoan darabiltzan gizonak, alabatuko zaitu, eta gogorazio oiekgatik, zure honran jai egunak zelebratuko ditu.

12. Egin zaiozkazute botoak, eta kunplitu zuen Jaun Jainkoari, bere inguruan doañak ekartzen dituzuten guziak,

13. Beldurgarriari, eta prinzipeai asnasa kentzen diotenari; lurreko erregeentzat beldurgarria danari.

IRUROGEITA AMASEIGARREN SALMOA

1. Atzenerako, iditunentzat, Asafen salmoa.

2. Nere bozarekin deadarrez ots egin nion Jaunari, nere bozarekin Jaungoikoari, eta aditu ninduen.

3. Nere naigabeko egunean, ajolarekin zuzendu nintzan Jaungoikoagana, gauaz nere eskuak beraganontz altxatu nituen, eta ez nintzan izan engañatua.

Etzuen nai gozatua izan nere animak.

4. Oroitu nintzan Jaungoikoarekin, eta gozatu nintzan, jarraitu nion meditazioari, eta nere espiritua desmaiatu zan.

5. Nere begiak idikiak zeuden egunsentia baño lenago, nengoan arritua, eta itzik egin gabe.

6. Pensatu nuen anziñako egunetan, eta betiko urteak gogoan iduki nituen.

7. Onetan aritu oi nintzan, an nere biotzean gauaz, eta ausnartzen nuen, eta esamiñatzen nuen nere barrenen.

8. Eta Jaungoikoak, utzi genzakeala betiko! Edo ez dala gurekin berriz errukituko!

9. Edo urrikaltasun gabe, betiko utziko dituela geroko gizaldiak!

10. Edo aztuko ote da Jaungoikoa biguñtasuna idukitzeaz? Edo geldituko ote ditu bere aserrearekin bere urrikaltasunak?

11. Eta esan nuen: Orain asitzen naiz, aldaera au txit goratuaren eskuiarena da.

12. Oroitu nintzan Jaunaren obrakin. Bai, gogora ekarriko ditut zuk asieratik egin ziñituen mirariak.

13. Eta gogoan erabilliko ditut zure obra guztiak; eta konsideratuko ditut zure asmazioak.

14. O Jaungoikoa, santua da zure bidea. Ze Jaungoiko andi dago, gure Jaungoikoa bezelakorik?

15. Zu zera Jaungoikoa, mirariak egiten dituzuna.

Zuk agertu ziñien erriai zure eskubidea.

16. Zure besoarekin erredimitu zenduen zure erria, Jakoben eta Joseren semeak.

17. Urak ikusi zinduten, o Jaungoikoa, urak ikusi zinduten, eta beldurtu ziran; eta leizeak dardaratu ziran.

18. Andia izan zan uren otsa, izan ziran turmonadak odeietan,

Zeren zure saietak iragotzen dira.

19. Zure turmoiaren otsa jiran.

Argi egin zuten zure tximistak lurraren inguru guztian, dardaratu eta ikaratu zan lurra.

20. Idiki zenduen bidea itsasoaren erdian, ibilli ziñan ur askoren erditik; eta zure aztarnak ez dirade ezagutuak izango.

21. Zuzendu zenduen zure erria, ardiak bezela, Moises eta Aaronen bitartez.

IRUROGEITA AMAZAZPIGARREN SALMOA

1. Aditzakoa, Asaferi.

Aditu itzatzute nere legea, o nere erria, alderatu ezazute zuen belarria nere aoko itzetara.

2. Idikiko det irudietan nere aoa, esango ditut munduaren asieratikan ezkutatuak dauden gauzak.

3. Zeñak entzun eta aditu ditugu, eta kontatu zizkiguten gure gurasoak.

4. Oiek etziozkaten ezkutatu beren semeai, ez beren jatorriari.

Kontatzen zituztela Jaunaren alabantzak, eta bere eskubideak, eta berak egin zituen mirariak.

5. Berak egin zuen elkartasuna Jakobekin, eta Israeli legea eman zion.

Au guztia agindu zien gure gurasoai; ezagutuerazi zizaietela beren semeai.

6. Beste gizaldiak ezagutu zezan,

Jaioko eta aziko diran semeak, orobat kontatuko diozkate beren semeai.

7. Jaungoikoagan beren itxedopena jarri dezaten, eta Jaungoikoaren obrakin ez ditezen aztu, eta bere aginteak arretaz gorde ditzaten.

8. Izan ez ditezen, beren gurasoak bezela, jatorri biurri eta gaiztoa,

Jatorri bat, etzuena beñere iduki biotz zuzena, ez bere espiritua leiala Jaungoikoarentzat.

9. Efraimen semeak, trebeak uztaia punterian jartzen eta aurtikitzen, itzuli ziran gudako egunean.

10. Jaungoikoarekin egindako elkartasuna etzuten zaitu, eta bere legeko bidetik etzuten nai ibilli.

11. Eta aztu ziran bere mesedeakin, eta beren aurrean egin zituen mirariakin.

12. Beren gurasoen aurrean egin zituen mirariak, Egipton, Taneosko kanpoan.

13. Berezitu zuen itsasoa, eta irago zituen, eta ipiñi zituen urak, zagi batean bezela.

14. Eta eraman zituen egunaz odei baten bitartez, eta gau guztian suaren argitasunarequin.

15. Basomortuan aitz bat arrakatu zuen, eta eman zien edaten, ibai andi bat bezela.

16. Eta atera zuen ura aitz batetik, eta korrika joanerazi zien urai ibaiak bezela.

17. Eta berriz ere, bere kontra bekatu egin zuten, aserretuerazi zioten txit Goratuari, ur gabeko toki batean.

18. Eta tentatu zuten Jaungoikoa beren biotzetan, eskatzen zutela janaria beren animentzat.

19. Eta Jaungoikoagatik gaizki itz egin zuten, esan zuten: Jaungoikoak basomortuan mai bat prestatu al dezake?

20. Zeren jo zuen aitza, eta irten ziran urak, eta erreka andiak egin ziran.

Ogia ere eman al dezake, edo prestatu maia bere erriarentzat?

21. Argatik aditu zuen Jaunak, eta atzeratu zuen, eta su bat erazeki zan Jakoben kontra, eta igo zan bere aserrea Israelen kontra.

22. Etzutelako Jaungoikoagan sinistu, eta etzutelako ere beragandik itxedon osasuna.

23. Eta agindu zien goiko odeiai, eta zeruko ateak idiki zituen.

24. Eta manazko euria egin zien jateko, eta eman zien zeruko ogia.

25. Aingeruen ogia jan zuen gizonak, janaria ugari bialdu zien.

26. Eraman zuen zerutik toki batetik bestera erriko aizea, eta bere eskubidearekin ekarri zuen egoia.

27. Eta egin zuen beren gañera aragizko euria autsaren ugaritasunarekin, eta egodun egaztiena itsasoko ondarra bezela.

28. Eta erori ziran beren kanpoaren erdian, beren etzauntzen inguruan.

29. Eta jan zuten, eta txit ase ziran, eta beren guraria bete zuten.

30. Nai zutena gabe etziran gelditu.

Oraindikan beren janariak beren aoan zeuden,

31. Eta Jaungoikoaren aserrea erori zan beren gañera;

Eta beren andizkiak il zituen, eta Israelko autatuai eman zien oñetik.

32. Alaere berriz bekatu egin zuten, eta bere mirarietan etzuten sinistu.

33. Eta irago zituzten beren egunak urgullerian, eta beren urteak laster aitu ziran.

34. Iltzen zituenean billatzen zuten, eta berakgan biurtzen ziran, eta goiz etorri oi ziran Jaunagana.

35. Eta oroitu ziran Jaungoikoa dala beren laguntzallea; eta Jaungoiko txit goratua beren salbatzallea dala.

36. Eta beren aoarekin maitatu zuten; eta gezurra esan zioten beren mingañarekin.

37. Baña beren biotza etzan zuzena Jaunaren aurrean, eta etziran leialak izan bere elkartasunera.

38. Baña bera urrikaltsua da, eta beren bekatuak barkatuko ditu; eta ez ditu galduko.

Eta berak maiz gelditu zuen bere aserrea; eta bere sumintasun guztia etzuen erazeki.

39. Eta oroitu zan diradela aragia; irtetzen dan, eta itzultzen ez dan asnasa bat.

40. Zenbat aldiz aserretuerazi zioten baasomortuan; sumintasunera mugitzen zuten ur gabeko tokian?

41. Eta berriz ere itzuli ziran Jaungoikoa tentatzera; eta Israelko santuari aserretuerazitzera.

42. Etziran oroitu egin zuenarekin arako egunean; zeñean atera zituen atsekabetzen zituenaren eskuetatik.

43. Nola agertu zituen bere mirariak Ejipton, eta bere egite arrigarriak Tanisko kanpoetan.

44. Eta beren ibaiak eta urak odol biurtu zituen; edan etzezaten.

45. Bialdu zituen beren gañera euli mota guziak, zeñak jan zituzten; eta igelak, zeñak desegin zituzten.

46. Eta eman ziozkan beren frutuak gorniari; eta beren larrak langostari.

47. Eta desegin zituen beren mastiak arritearekin; eta beren masustabeak ...zarekin.

48. Eta beren abereak desegin zituen arritearekin, eta beren gauzak oñazkarrakin.

49. Bialdu zuen beren gañera bere aserreko sumintasuna, aserrea, eta sumintasuna, eta atsakabea: aingeru gaiztoen bitartez.

50. Bide zabala idiki zion bere aserreari, beren bizitzai etzien barkatu, eta beren zamariak eriotean sartu zituen.

51. Eta lenbizisortu guztia zauritu zuen Egiptoko lurrean, beren lur guztiaren lenbiziak, Kamen bizilekuetan.

52. Eta bere erria, ardiak bezela, atera zuen, eta eraman zituen artaldeak bezela basomortutikan.

53. Eta atera zituen kanpora itxedopenarekin, eta etziraden beldur izan, eta itsasoak estali zituen beren etsaiak.

54. Eta eraman zituen bere santutasuneko mendira. Bere eskuieko indarrarekin, irabazi zuen mendira.

Eta beren aurretik bota zituen erreñuak, eta partitu zien suertean lurra, ematen ziela soka batekin neurtuta.

55. Eta bizierazi zien beren etzauntzetan, Israelko tribuai.

56. Eta tentatu zuten, eta aserretuerazi zioten Jaungoiko txit goratuari, eta bere aginteak etzituzten gorde.

57. Eta atzera biurtu ziran, eta etzuten gorde, elkartasuna, beren gurasoak bezela, uts eman zuten uztai okertu baten gisara.

58. Aserretu erazi zioten beren muñoetan, eta idoloak adoratzearekin, zeloak artuerazi ziozkaten.

59. Aditu zuen Jaungoikoak eta mezpreziatu zituen, eta txit ezereeztu zuen Israel.

60. Eta Siloko tabernakuloa bota zuen. Bere tabernakuloa, non bizitu izan zan gizonen artean.

61. Eta beren indarra katiberioan jarri zuen. Beren gloria guztia ipiñi zuen etsaien eskuetan.

62. Eta begiratu gabe onezkero bere herenzia zan erri batgatik; ezpataren puntan jarri zuen.

63. Beren mutil gazteak suak iretsi zituen, eta beren neskatxakgatik etzan egin negarrik.

64. Beren apaizak ezpataz illak izan ziran: eta beren andre alargunakgatik etzuen iñork malkorik bota.

65. Eta esnatu zan Jauna lo egiten duen bat bezela, gerrari errutsu baten gisara, ardoarekin sendotuta.

66. Eta zauritu zituen etsaiak atzeko aldean. Betiko lotsarian ipiñi zituen.

67. Eta bota zuen Joseren tabernakuloa, eta Efraimen tribua etzuen autatu.

68. Baizik Judaren tribua autatu zuen, Siongo mendi maitatu zuena.

69. Eta egin zuen, adarbakoitza bezela bere santuarioa, gizaldietarako fundatu zuen lurrean.

70. Eta autatu zuen bere serbitzari Dabid, ardi taldeetatik ateratzen zuela, bazkatzen zerabiltzanean arkumeakin.

71. Bazkatu zezan Jakob bere serbitzaria; eta Israel bere herenzia.

72. Eta bere biotzeko obengabetasunarekin bazkatu zituen, eta zuzendu zituen bere eskuetako jakinduriarekin.

IRUROGEITA EMEZORTZIGARREN SALMOA

1. Asafentzat salmoa.

Jaungoikoa, jentillak sartu dira zure herenzian, zikindu dute zure tenplo santua, utzi dute Jerusalen, baratz-zai baten txosna eginik.

2. Zure serbitzarien gorpuak eman ziozkaten janaritzat zeruko egaztiai, zure santuen aragiak lurreko abereai.

3. Isuri zuten beren odola Jerusalengo inguruan ura bezela, eta ez zegoan nork obiratu zitzan:

4. Jarri gera gure auzokoen lotsari egiñik, gure inguruan daudenen farra eta irria.

5. Noizarteraño, o Jauna, iraungo du zure aserre paketu eziñak? Noizarteraño egongo da irazekia, sua bezela, zure zeloa?

6. Bota ezazu zure aserrea, ezagutzen etzaituzten jendeen gañera, eta zure izenari ots egin etzioten erreñuen gañera,

7. Zeren Jakob iretsi dute, eta bere bizilekua ondatu.

8. Etzaite oroitu gure anziñako gaiztakeriakin. Betoz lenbaitlen gugana zure urrikaltasunak, zeren txit beartsuak gelditu gera.

9. Lagun zaguzu, o Jaungoiko, gure Salbatzallea, eta zure izenaren gloriagatik libratu gaitzatzu, o Jauna, eta barka zazkiguzu gure bekatuak, zure izenaren amorioagatik,

10. Ez dezaten esan jentillen artean: Non da orien Jaungoikoa? izan ere bedi agiria erreñuen artean, eta ikusi bezate gure begiak,

Nola artzen dezun, zure serbitzarien odolaren, isuria izan zanaren bengatza.

11. Igo beza zure aurrera, zepoakin daudenen aienak

Zure besoaren sendotasunarekin, zaitu itzatzu illak izan diradenen semeak.

12. Itzuli zaiezu, o Jauna, gure auzokoai, bialdurik gaitzak zazpitan anbat, zure kontra esan dituzten itz gaiztoakgatik;

13. Guk berriz, zure erria, eta zure larreko ardiak geradenok; kantatuko ditugu beti zure alabantzak.

Gizalditik gizaldira, adiraziko ditugu zure gloriak.

IRUROGEITA EMERETZIGARREN SALMOA

1. Atzenerako, aldatuak izango diradenentzat, Asafek esaten duena. Salmoa.

2. Israel gobernatzen dezuna, aditu ezazu, zuk zuzentzen dezunak Jose, ardia bezela.

Kerubinen gañean eseria zaudena; agertu zaite

3. Efraim, Benjamin, eta Manasesen aurrean.

Erakutsi ezazu zure eskubidea, eta atoz gu salbatzera.

4. O Jaungoikoa, itzuli gaitzatzu zugana, eta erakutsi zaguzu zure arpegia, eta salbatuak izango gera.

5. O Jaun, ejerzituen Jaungoikoa, noizarteraño egongo zera aserretua; aditu gabe zure serbitzariaren eskaria.

6. Negarrezko ogiarekin bazkatuko al gaituzu; eta emango al diguzu negarrezko ogia neurriarekin?

7. Jarri ginduzun gure auzokoakin elean; eta gure etsaiak iseka egin ziguten.

8. Ejerzituen Jaungoikoa, itzuli gaitzatzu zugana, eta erakutsi zaguzu zure arpegia; eta salbatuak izango gera.

9. Ekarri zenduen Egiptotik onara masti bat; bota ziñituen kanpora erreñuak, eta ipiñi zenduen.

10. Zuzentzallea izan ziñan bidean bere aurrean, sustraiak botaerazi ziñiozkan, eta bete du lurra.

11. Bere itzalak mendiak estali zituen; eta bere aienak Jaungoikoaren zedroak.

12. Zabaldu zituen bere sarmentuak itsasoraño; eta bere matsburugaiak ibairaño.

13. Zergatik desegin dezu bere esia; eta bidetikan iragotzen diraden guztiak mendaintzen dute?

14. Basoko basaurdeak desegin zuen; eta pisti bakartade zale onen bazka da.

15. O ejerzituen Jainkoa, itzuli zaite guganontz, begiratu ezazu zerutikan, eta ikusi ezazu, eta bisitatu ezazu masti au.

16. Berriztatu ezazu, zeren zure eskuieak ipiñi zuen; eta zuk autatu zenduen, gizonaren semeari begiraturik.

17. Suaz errea izan da eta sustraitik ateratua; zure begirakune garratz batekin galduko dirade.

18. Luzatu ezazu zure eskua zure eskuieko gizasemearen gañera; zuk autatu zenduen gizasemearen gañera.

19. Eta ez degu zugandik alderik egingo, emango diguzu bizitza berri bat, eta zure izenari ots egingo diogu.

20. O ejerzituen Jaun Jainkoa, itzuli gaitzatzu zugana, eta erakutsi zaguzu zure arpegia; eta salbatuak izango gera.

LAROGEIGARREN SALMOA

Atzenerako,

1. Dolaretarako, Asaf berarentzat. Salmoa.

2. Poztu zaitezte, alabatzen dezutela Jainko gure laguntzallea; kantatu zaiozute bozkarioakin Jakoben Jaungoikoari.

3. Kantatu ezazute salmoa, jo ezazute panderoa; salterio gozagarria zitararekin.

4. Jo ezazute tronpeta illargiberrian, zuen jai andiko egun ospatsuan.

5. Zeren Israelen agintea dago; eta Jakoben Jainkoaren erabakia.

6. Ipiñi zuen oroipengarritzat Joseren jatorrikoentzat, Egiptoko lurretik irteeran, aditzen ez zuten itzauntza bat entzun zutenean.

7. Libratu zituen bere bizkarrak zamaetatik, eta bere eskuak lanetarako zeuzkaten zumakaetatik.

8. Naigabean ots egin ziñidan eta libratu zindudan, biguntasunarekin aditu zindudan ekaitzeko illuntasunean, probatu zindudan kontradizioko uren aldean.

9. Aditu ezazu, nere erria, eta emango dizkizut erakutsiak, o Israel, aditzen banazu,

10. Ez du egon bearko zugan jainko berririkan, eta ez dezu ere jainko arrotzikan adoratuko,

11. Zeren ni naiz zure Jaun Jainko, Egiptoko lurretikan atera zindudana. Zabaldu ezazu zure aoa eta nik beteko det.

12. Eta nere erriak etzuen aditu nere boza, eta Israelek etzidan obeditu nai.

13. Eta utzi nituen ibilli zitezela beren biotzaren gurarien araura, beren asmazioetan ibilliko dirade.

14. Nere erriak aditu izan banindu, Israel nere bideetatik ibilli izan balitza,

15. Ezerere egiten ez duenak bezela, aurki humillatuko nituen nik beren etsaiak, eta ezarriko nuen nere eskua berai naigabeak ematen ziezтenen gañera.

16. Jaunaren etsaiak gezurra esan zioten, eta beren denbora gizaldietan izango da.

17. Eta eman zien jaten gari ederra, eta aitzai erioten eztiarekin ase zituen.

LAROGEITA BATGARREN SALMOA

1. Asafen salmoa.

Jaungoikoa jarri zan jainkoen batzarrean, eta erdian juzgatzen ditu jainkoak.

2. Noizarteraño jarraituko diozute gaizki juzgatzeari, eta begiratzen diozute bekatarien arpegiai?

3. Egin zaiozute justizia premian dagoenari, eta umezurtzari. Aditu zaiozute humillak eta beartsuak daukaten arrazoiari.

4. Atera ezazute beartsua, eta libratu ezazute bekatariaren eskutik premian dagoena.

5. Baña ez daukate ezauerarik, ez jakinduriarik, illuntasunetan dabiltza. Lurraren zimendu guztiak mugituak izango dirade.

6. Nik esan nuen: Jainkoak zerate, eta txit Goratuaren semeak guztiok.

7. Zuek berriz, gizonak bezela, ilko zerate, eta prinzipeetatik bat bezela, eroriko zerate.

8. Jaiki zaite, o Jaungoikoa, juzgatu ezazu lurra, zeren zureak dira herenziaz erreñu guztiak.

LAROGEITA BIGARREN SALMOA

1. Asafen kantatxo eta salmoa.

2. O Jaungoikoa, zeñ izango da zure antzekoa? Etzaite ixillikan egon, eta etzaite ere egon geldirik, o Jaungoikoa.

3. Zeren ona non zure etsaiak otska ari diran, eta gorrotatzen zaituztenak, jaso dituzte beren buruak.

4. Asmazio gaiztoak iduki dituzte zure erriaren gañean, eta zure santuen kontrako gogorazioetan ibilli dirade.

5. Esan zuten: Atozte, eta desegitzen ditugula, kendu ditzagun erreñuen artetik, eta Israelen izenaren oroipenik ere, ez bedi gelditu.

6. Zeren guztiak batean pensatu zuten: diradenak elkartu ziran zure kontra.

7. Idumtarren, eta Ismaeltarren etzauntzak, Moab, eta Agartarrak.

8. Jebal, eta Ammon, eta Amalek; arrotzak, Tiron bizi ziradenakin.

9. Assur berakin etorri zalako, bildu dirade laguntzeko Loten semeai.

10. Egin zaiezu berai Madiango eta Sisarakoai bezela; Jabineri Zissongo errekan bezela.

11. Endorren galdu ziran. Lurreko zimaurra bezela izan ziran egiñak.

12. Egin ezazu beren agintariakin Oreb eta Zeberi egin ziñien bezela; eta Zeb, eta Zebee, eta Salmanari,

Beren agintari guztiai,

13. Zeñak esan zuten: Artu dezagun herenziatzat Jaungoikoaren santuarioa.

14. O nere Jainkoa, jarri itzatzu kurpill bat bezela, edo orbela bezela aizea darabillenean.

15. Baso bat erretzen duen sua bezela, mendiak kiskaltzen dituen garra bezela.

16. Ala persegituko dituzu zure ekaitzean, eta zure aserrean arrituak utziko dituzu.

17. Bete itzatzu lotsariz beren arpegiak; eta zure izena billatuko dute, o Jauna.

18. Lotsatuak eta nasiak gelditu bitez betiko, gorrituak, eta galdu bitez.

19. Eta ezagutu bezate zure izena Jauna dala, zu bakarrik txit goratua lur guztian.

LAROGEITA IRUGARREN SALMOA

Atzenerako,

1. Dolaretarako, Koreren semeentzat salmoa.

2. Zeñ maitagarriak diraden zure etzauntzak, o birtuteen Jauna!

3. Nere anima, Jaunaren atarien gurariz erretzen dago, eta adore gabe gelditzera dijoa.

Nere biotza eta nere aragia txit poztu ziraden, Jaungoiko biziagan.

4. Zeren txoriak arkitu zuen etxea beretzat; eta usatortolak beretzat kabia, non ipiñi bere umetxoak.

Zure aldareak, o birtuteen Jauna; o nere erregea eta nere Jaungoikoa.

5. Doatsuak, o Jauna, zure etxean bizi diradenak, alabatuko zaituzte mendez mende.

6. Doatsua zugan bere laguntasuna daukan gizona; eta egin dituena bere biotzean,

7. Negarrezko ibar onetan, mallak igotzeko, Jaungoikoak beretzat prestatu zuen toki santuraño.

8. Zeren lege egilleak bendizioa emango dio, joango dira birtutetik birtute. Jaungoikoen Jaungoikoa ikusia izango da Sionen.

9. O Jaun, birtuteen Jaungoikoa, aditu ezazu nere orazioa, arretaz entzun ezazu, o Jakoben Jaungoikoa.

10. Berriz ere begiratu zaguzu, o Jaungoiko gure laguntzallea, eta jarri itzatzu begiak zure Kristoaren arpegian.

11. Zeren obe da egun batean zure atarietan egotea, millatan andik kanpora baño.

Autatu nuen azpiratua egotea nere Jaungoikoaren etxean; gaiztoen dendetan bizi baño lenago.

12. Zeren Jaungoikoak urrikaltasuna eta egia maitatzen ditu. Jaunak emango ditu grazia eta gloria.

13. Ez diozkate ondasunak kenduko obengabetasunean dabiltzanai. O birtuteen Jauna, zorionekoa, zugan itxedotzen duen gizona.

LAROGEITA LAUGARREN SALMOA

1. Atzenerako, Koreren semeentzat salmoa.

2. O Jauna, bedeikatu zenduen zure lurra. Zuk libratu dezu katiberiotik Jakob.

3. Barkatu zenduen zure erriaren gaiztakeria, beren bekatu guztiak estali ziñituen.

4. Bigundu zenduen zure aserre guztia, alde egin zenduen zure aserrearen sumintasunetik.

5. Itzuli gaitzatzu zugana, o Jaungoiko gure Salbatzallea, eta alde erazi zaiozu gugandik zure aserreari.

6. Betiko aserretua egongo al zera gurekin? Edo luzatuko al dezu zure aserrea gizalditik gizaldira?

7. O Jaungoikoa, itzuli ezkero zuk guganontz zure arpegia, bizitza emango diguzu, eta zure erria gozatuko da zugan.

8. Erakutsi zaguzu, o Jauna, zure urrikaltasuna, eta zure osasuna eman zaguzu.

9. Adituko det Jaun Jainkoak itz egiten didana, zeren pakeko itzak esango ditu bere erriarentzat,

Eta bere santuentzat, eta biotzez biurtzen diradenentzat.

10. Ala bada bere osasuna egongo da bere beldur diradenen aldean, gure lurrean gloria bizi dedin.

11. Urrikaltasuna eta egia arkitu ziraden batean, justiziak eta pakeak elkarri musu eman zioten.

12. Egia lurretik jaio zan, eta justiziak zerutik begiratu zuen.

13. Zeren Jaunak emango du biguntasuna; eta gure lurrak emango du bere frutua.

14. Justizia joango da bere aurretik; eta bere pausoak zuzenduko ditu.

LAROGEITA BOSGARREN SALMOA

Dabid beraren orazioa.

1. Alderatu ezazu niganontz, o Jauna, zure belarria, eta aditu nazazu, zeren atsekabetua eta premiaz betea arkitzen naizan.

2. Zaitu ezazu nere anima, zeren santua naizan. Salbatu ezazu, o nere Jainkoa, zugan itxedotzen duen serbitzari au.

3. Jauna, urrikaritu zaite arren nerekin, zeren zuri otska ari naiz egun guztian.

4. Poztu ezazu zure serbitzariaren anima, zeren zuganontz, o Jauna, altxatu det nere anima.

5. Zeren zu, o Jauna, beraa eta biguña zeran, eta urrikaltasun andikoa, ots egiten dizuten guzientzat.

6. Aditu ezazu, o Jauna, nere orazioa; eta begiratu zaiozu nere eskariaren bozari.

7. Nere naigabeko egunean ots egin nizun zuri, zeren aditu ninduzun.

8. Ez dago zure antzekorik jainkoen artean, o Jauna, eta ez dago zure obrakin berdindu ditekeanik.

9. Egin ziñituen jende guztiak, etorriko dirade, eta adoratuko zaituzte, o Jauna, eta zure izena gloriaz beteko dute.

10. Zeren zu andia zeran, eta mirarien egillea, zu bakarrik zera Jaungoikoa.

11. Zuzendu nazazu, o Jauna, zure bidean, eta zure egian ibilliko naiz. Poztu bedi nere biotza, zure izenaren beldur izan dedin.

12. Alabatuko zaitut, o nere Jaun Jainkoa, nere biotz guzitik; eta gloriaz beteko det beti zure izena.

13. Zeren zure urrikaltasuna nere gañean andia dan, eta atera zenduen nere anima infernu zakonetik.

14. O Jaungoikoa, gaiztoak nere kontra jaiki ziran, eta indartsuen batzarre bat ibilli zan nere animaren billan, eta etzinduten jarri zu beren aurrean.

15. Baña zu, o Jaun Jainkoa, kupidakorra, eta urrikaltsua; sufritua, eta urrikaltasun andikoa eta egiatia.

16. Begiratu zadazu, eta urrikaritu zaite nerekin, zure agintaritza zure serbitzariari eman zaiozu; eta salbatu ezazu zure mendeko emakumearen semea.

17. Egizu nerekin mirari bat onerako, ni gorrotatzen nautenak ikusi dezaten, eta gelditu ditezen lotsatuak, zeren zuk, o Jauna, lagundu didazu eta poztu nazu.

LAROGEITA SEIGARREN SALMOA

1. Koreren semeentzat, kantatxoko salmoa.

Bere zimenduak mendi santuetan.

2. Jaunak maitatzen ditu Siongo ateak, Jakoben etzauntz guztiez gañetik.

3. Gauza gloriaz beteak izan dirade esanak zugatik; o Jaungoikoaren erria!

4. Oroituko naiz Rahab eta Babilonia; ezagutzen nautenakin.

Ona non arrotzak, eta Tiro, eta Etioptarren erria, oiek an egon ziran.

5. Ez al da esango Sionen: Gizona, eta gizona jaio zan beratan, eta txit goratuak berak fundatu zuen?

6. Jaunak errien eta prinzipeen eskrituretan kontatuko ditu, bertan egon diradenak.

7. Egiaz zugan bizi diran guztiak; pozez bizi dira.

LAROGEITA ZAZPIGARREN SALMOA

Kantatxoa eta salmoa.

1. Koreren semeentzat, atzeneraño, Maeleten gañean, Aldizka kantatzeko. Heman Ezraitarraren instrukzioa.

2. Nere osasuneko Jaun Jainkoa, gau ta egun deadarrez ari naiz zure aurrean.

3. Sartu bedi nere orazioa zure aurrean, alderatu ezazu zure belarria nere eskarira.

4. Zeren nere anima gaitzez txit betea dago, eta nere bizia infernura alderatu da.

5. Aintzirara jatxitzen diradenakin kontatua izan naiz, etorri naiz izatera, guztiak utzitako gizon bat bezela.

6. Illen artean berezitua;

Obietan lo egiten duten zaurituak bezela, zeñakin etzeran onezkero geiago oroitzen, zure eskutikan aurtikiak bezela.

7. Leize zakon batean ipiñi naute, toki illunetan, eta eriotzaren itzalean.

8. Zure aserrea portizki dator nere gañera, eta bota dituzu nere gañera zure baga guztiak.

9. Urrutiratu dituzu nigandik nere ezagun guztiak. Iduki naute, berentzat nazkagarria bezela.

Arrapatua nago, eta irteerarik ez det arkitzen.

10. Nere begiak premien indarrez lausotu zazkidan.

Zuri ots egin nizun, o Jauna egun guztian. Nere eskuak zuganontz luzatu ditut.

11. Illakin mirariak egingo al dituzu, edo sendagilleak berriz biztuko al dituzte, eta alabatuko al zaituzte?

12. Kontatuko al du iñork zure urrikaltasuna obian eta zure egia galmenean?

13. Zure mirariak ezagutuak izango al dirade illuntasunetan, ez zure justizia aztutasuneko lurrean?

14. Eta nik, Jauna, zuri ots egin dizut, eta egunsentia baño goizago ibilliko naiz, zuri nere erregua egiteko.

15. Zergatik, Jauna, botatzen dezu nere orazioa, eta alde erazitzen diozu nigandik zure arpegiari?

16. Beartsu bizi izan nintzan ni, eta nekeetan azi nintzan nere gazte denboratik, eta goratua izandako ondoan, izan naiz beeratua eta nasia.

17. Zure aserrea nere gañera erori da; eta zure izugarriak nasi naute.

18. Ingurutu naute oiek egun guztian ugoldeak bezela, ingurutu naute guztiak batera.

19. Urrutiratu dituzu nigandik nere adiskideak, aideak, eta ezagunak, nere zorigaitzakgatik.

LAROGEITA ZORTZIGARREN SALMOA

1. Hetan Esrahitarrari aditza.

2. Jaunaren urrikaltasunak; kantatuko ditut beti.

Adiraziko det zure egia nere aoz; gizalditik gizaldira.

3. Zeren zuk esan zenduen: Urrikaltasuna beti sendo egongo da zeruetan. Beretan zure egia sendotua izango da.

4. Elkartasuna daukat eginda nere autatuakin. Juramentu egin nion, Dabid nere serbitzariarekin:

5. Zure jatorriari beti indarra emango diot.

Eta iraun eraziko diot zure tronuari; gizalditik gizaldira.

6. Zeruak zelebratuko dituzte, Jauna, zure mirariak; baita zure egia ere santuen elizan.

7. Zeren zeñ odeietan berdinduko da Jaunarekin? Zeñ Jaungoikoaren semeen artean izango da Jaungoikoaren antzekoa?

8. Jaungoikoaren, zeñ dan gloriaz betea Santuen batzarrean, andia eta beldurgarria bere inguruan dauden guztiez gañetik.

9. Birtuteen Jaun Jainkoa, zeñ zure antzekorik? Almentsua zera, Jauna, eta zure egia zure inguruan.

10. Zuk agintzen diozu itsasoaren eskubideari. Bere bagen mugimentua, zuk baretzen dezu.

11. Zuk humillatu zenduen urgullutsua, zauritu bat bezela, zure eskubidearen besoarekin barreiatu ziñituen zure etsaiak.

12. Zureak dirade zeruak, eta zurea da lurra. Lurraren biribiltasunari, eta bertan dagoan guztiari, zuk ipiñi ziñiezten zimenduak.

13. Ifarra eta itsasoa zuk egin ziñituen,

Tabor eta Hermon zure izenean pozez saltoka ariko dirade.

14. Zure besoa indarrarekin dago.

Sendotua izan bedi zure eskua, eta goratua zure eskuia.

15. Justizia eta zuzentasuna dirade, zure esertokiaren sendogarriak.

Urrikaltasuna eta egia; joango dirade zure arpegiaren aurretik.

16. Zorionekoa, zuri bozkarioz kantatzen dakian erria.

Zure arpegiaren argira ibilliko dirade, Jauna.

17. Eta zure izenean txit poztuko dira egun guztian; eta zure justizian goratuak izango dirade.

18. Zeren eskubidearen gloria zu zera, eta zure borondate onagatik, gure indarra goratua izango da.

19. Zeren beretzakotzat artu gaitu Jaunak, Israelko Santuak: zeñ dan gure erregea.

20. Orduan itz egin ziñien ikusketan zure santuai, eta esan zenduen: Nik daukat prestatua laguntasuna, gizon almentsu batean, eta goratu det nere erriaren artetik autu nuena.

21. Nere serbitzari Dabid arkitu nuen, igortzi nuen nere olio santuarekin.

22. Zeren nere eskuak lagunduko dio; eta nere besoak sendotuko du.

23. Ez du ezerere aurreratuko etsaiak beragan; eta gaiztakeriaren semeak ezin onezkero gaitzik egingo dio.

24. Eta arras kenduko ditut bere aurretikan bere etsaiak, eta bera gorrotatzen dutenak igesian ipiñiko ditut.

25. Eta nere egia eta nere urrikaltasuna izango dirade berarekin, eta nere izenean goratua izango da bere indarra.

26. Eta ipiñiko det bere eskua itsasoan, eta bere eskuia ibaien gañean.

27. Berak ots egingo dit, esaten didala: Zu zera nere aita, nere Jaungoikoa, ta nere osasunaren laguntzallea.

28. Eta nik jarriko det bera lenbizi sortutako semetzat; eta lurreko erregeen artean goratuena.

29. Beti gordeko diot nere urrikaltasuna; eta nere elkartasuna berarekin, iraunkorra izango da.

30. Eta egingo det bere jatorriak iraun dezala mendez mende; eta bere tronuak zeruaren egunak bezela.

31. Baña baldin bere semeak utziko balute nere legea; eta nere agintetan ibilliko ez balirade,

32. Autsiko balituzte nere erabakiak, eta nere aginteak gordeko ez balituzte,

33. Nik kastigatuko ditut zigorrarekin beren gaiztakeriak; eta azoteakin beren bekatuak.

34. Baña ez det beragandik kenduko nere urrikaltasuna, eta ez diot ere kalterik egingo nere egian.

35. Ez det autsiko nere elkartasuna; eta ez ditut ere kunplitu gabe utziko, nere aotik atera diran eskeñtzak.

36. Bein juramentu egin nuen nere santutasuna gatik; ez diot gezurrik esango Dabideri.

37. Bere jatorriak, beti iraungo du,

38. Eta bere tronua izango da betiko eguzkia bezela nere aurrean, eta illargi betea bezela, eta zeruan lekuko leiala bezela.

39. Alaere zuk bota eta mezpreziatu dezu zure igortzia; aserretu zera bere kontra.

40. Urratu dezu zure serbitzariaren elkartasuna, bota dezu lurrera bere santuarioa.

41. Desegin dituzu bere esi guztiak; eta bere sendotasuna izu biurtu dezu.

42. Ostu zioten, bidetik iragotzen ziran guztiak. Bere auzokoen lotsaria izatera allegatu zan.

43. Bera estututzen dutenen eskubidea goratu dezu; eta pozez bete dituzu bere etsai guztiak.

44. Alde erazi diozu bere ezpataren laguntasunari; eta ez diozu lagundu gerran.

45. Utsera bota zenduen bere argitasuna, eta zatitu dezu lurraren kontra bere tronua.

46. Bere denborako egunak laburtu dituzu, estali dezu lotsariz.

47. Noizarteraño, Jauna, egongo zera beti gurekin aserretua? Egongo da irazekia; sua bezela, zure sumintasuna?

48. Oroitu zaite zeñ argala dan nere izatea. Alperrik egin al dituzu gizonen seme guztiak?

49. Zeñ da gizona, biziko dana, eta eriotza ez duena ikusiko? Bere anima libratuko duena, infernuaren mendetik?

50. Non daude zure anziñako urrikaltasunak, o Jauna? Zure egiagatik Dabidi juramentu egin ziñion bezela?

51. Oroitu zaite, o Jauna, erreñu askotakoakgandik zure serbitzariok artu ditugun lotsariakin, nere bularrean sillututa dauzkadan lotsariak.

52. Lotsariak, zeñakin arpegian ematen diguten, Jauna, zure etsaiak, zeñak esaten diguten gure aurrean zure Txristoaren aldakuntza.

53. Bedeikatua izan bedi Jauna betiko. Ala izan bedi, ala izan bedi.

LAROGEITA BEDERATZIGARREN SALMOA

1. Moises Jaungoikoaren gizonaren orazioa.

Jauna, zu izan zera gure igestokia; gizalditik gizaldira.

2. Zu, o Jaungoikoa, zera, mendiak egiñak izan ziraden baño lenagotik; edo lurrak, edo mundu guztiak izatea artu zuten baño lenagotik, betitik betiraño.

3. Ez ezazu jarri gizona azpiratua; bada esan zenduen: Konbertitu zaitezte, gizonen semeak.

4. Zeren milla urte zure begien aurrean dirade, atzoko egun, irago zana bezela.

Eta gaueko bealaria bezela;

5. Utsa balirade bezela idukiak diraden gauzak; ala izango dirade beren urteak.

6. Goizean iragoko da belarra bezela, goizean loretuko da, eta iragoko da. Arratsaldean eroriko da, gogortuko da, eta leortuko da.

7. Zure aserrearen berotasunera indargabetu gera; eta zure sumintasunaren indarrera, gelditu gera aituak.

8. Zure aurrean ipiñi dituzu gure gaiztakeriak, gure gizaldia zure arpegiaren argitasunean.

9. Zeren gure egun guztiak joan ziran; eta gu ere indargatuak gelditu gera zure aserrean.

Gure urteak, amama bezela izan dirade begiratuak.

10. Gure bizitzako egunak dira berakgan; irurogeita amar urte.

Eta sendoenetan badirade larogei urte, eta oietatik iragotzen dana neke ta pena.

Orrela laster izango gera indarrez eramanak; bada allegatuaz dijoa zartzako argaltasuna.

11. Baña nork ezagutu dezake zure aserrearen anditasuna; eztaere aditu zure sumintasuna zeñ beldurgarria dan?

12. Eta ala egin ezazu izan dedilla ezagutua zure eskuiea; eta eman zaguzu biotz bat, jakinduriaz arkitua.

13. Itzuli zaite, o Jauna, noizarteraño? izan zaite zure serbitzarien eskariakin erraz mugitzekoa.

14. Zure urrikaltasunaz beteak izan gera goizetik, eta poztuko gera, eta jostatuko gera, gure bizitzako egun guztietan.

15. Poztu gera, humillatu ginduzun egunakgatik, gaitzak ikusi ginduen urteakgatik.

16. Jarri itzatzu begiak zure serbitzarietan, eta zure egitetan: eta zuzendu itzatzu beren semeak.

17. Eta gure Jaun Jainkoaren argitasuna izan bedi gure gañean; eta zuzendu itzatzu gugan gure eskuen obrak, eta zuzendu ezazu gure eskuen obra.

LAROGEITA AMARGARREN SALMOA

Dabiden alabantza eta kantatxoa.

1. Txit goratuaren laguntasunean bizi dana; zeruko Jaungoikoaren estalpean beti egongo da.

2. Esango dio Jaunari: Nere laguntzallea eta nere igestokia zera zu; nere Jaungoikoa, zeñgan itxedongo dedan.

3. Zeren berak libratu ninduen eiztarien lakiotik; eta itz garratzetik.

4. Bere egoakin itzala egingo dezu, eta bere lumen azpian itxedopenarekin egongo zera.

5. Ezkutuarekin ingurutuko zaitu bere egiak; gabetako izuen beldurrik ez dezu idukiko,

6. Ez dezu ere idukiko, egunaz aurtikitako saietaren, ez illuntasunen artean dabillan etsaiaren, ez egunaren erdiko demonioaren erasoen beldurrik.

7. Eroriko dira milla saieta zure ezkerreko aldean, eta amar milla zure eskuiean; baña batek ere ez dizu zuri ukituko.

8. Ziertoro zure begiakin begiratuko dezu; eta ikusiko dezu bekatariai ematen zaien ordaña.

9. O, eta nola zu, o Jauna, zeran nere itxedopena! Zuk, justoa, autatu dezu zure igestokitzat txit goratua.

10. Ez da allegatuko zugana gaitzik, eta azotea ere ez da alderatuko zure bizilekura.

11. Zeren bere aingeruai zure gañean agindu zien; zaitu zaitzatela zure bide guzietan.

12. Eskuetan eramango zaituzte; zure oñak arrien beaztoporik egin ez dezan.

13. Suga lotariaren eta ersugearen gañetik ibilliko zera, eta leoia eta dragoia zapalduko dituzu.

14. Nigan itxedon duelako, libratuko det, nik lagunduko diot; nere izena ezagutu duelako.

15. Neri ots egingo dit, eta nik adituko diot, atsekabean berarekin nago, libratuko det, eta gloriaz beteko det.

16. Bizitza txit luze batekin aseko det, eta erakutsiko diot, bialduko dedan Salbatzallea.

LAROGEITA AMAIKAGARREN SALMOA

Kantatxoko salmoa.

1. Larunbat egunerako.

2. Ongi da Jauna alabatzea; eta jotzea salmoak zure izenari, o txit goratua.

3. Adirazteko zure urrikaltasuna goizean; eta zure egia gauean:

4. Amar sokakoarekin, salterioarekin, kantatxoarekin, zitarekin.

5. Gozatu nazulako, o Jauna, zure irudian, eta zure eskuetako obretan poztuko naiz.

6. Zeñ andiak diraden, o Jauna, zure obrak! geiegiaz zakonak dirade zure gogorazioak.

7. Gizon zentzugabeak ez ditu ezagutuko; eta jakinduriarik ez duenak, ez ditu gauza oiek adituko.

8. Ozta bekatariak agertuko dira, belarra bezela; eta distiatuko dira, gaiztakeria egiten duten guziak:

Ona non galduko diran gizaldiaren gizaldirako.

9. Baña zu, o Jauna; beti izango zera txit Goratua.

10. Bada ona emen non zure etsaiak, o Jauna, ona emen nola zure etsaiak galduko diran; eta barreiatuak izango dira, gaiztakeria egiten duten guziak.

11. Eta goratua izango da nere indarra adarbakoitzarena bezela; eta nere zartza urrikaltasun ugariarekin.

12. Eta nere etsaiai mezprezioarekin begiratuko diet; eta nere belarriak ajola gabe adituko dituzte, nere kontra jaikitzen diraden gaiztoen asmazioak.

13. Justoa palma bezela loretuko da; eta ugarituko da, Libanoko zedrok bezela,

14. Ipiñita Jaunaren etxean, gure Jaungoikoaren etxeko atarietan loretuko dira.

15. Baita beren zartza ugarian ere geituko dirade eta txit sendoak egongo dirade.

16. Adirazteko,

Gure Jaun Jainkoa zuzena dala, eta ez dagoela gaiztakeriarik beragan.

LAROGEITA AMABIGARREN SALMOA

Dabid beraren kantatxoa larunbata baño lenagoko egunerako, lurra egiña izandu zanean.

1. Jaunak erreñatu zuen, edertasunez jantzi zan; sendotasunaz jantzi zan Jauna, eta berarekin lotu zuen gerria.

Zeren egin zuen gogorra lurraren biribiltasuna; zeñ ez dan mugitua izango.

2. Ordutikan gelditu zan zure tronua prestatua. Zu zera betikoiraunetik.

3. Altxatu zuten ibaiak, o Jauna; altxatu zuten ibaiak beren boza.

Altxatu zituzten ibaiak beren bagak,

4. Beren ur askoen otsagatik.

Miragarriak dira itsasoaren goragorakak, miragarriagoa Jauna goietan.

5. Zure itzak txit sinisgarriak egin dira. Zure etxeari, Jauna, santutasuna dagokio egunen luzeeran.

LAROGEITA AMAIRUGARREN SALMOA

Dabid beraren salmoa, astearen laugarren egunerako.

1. Jauna da bengantzen Jaungoikoa, eta bengantzen Jaungoikoak egin du nai zuena eragozketa gabe.

2. Jaiki zaite zu, lurra juzgatzen dezuna. Eman zaiezu urgullutsuai berai dagokiena.

3. Noizarteraño, o Jauna, bekatariak; noizarteraño egongo dirade gozatzen?

4. Ariko dirade erausian, eta gaizki itz egingo dute, itz egingo dute gaiztakeria egiten duten guziak?

5. Zure erria, o Jauna, humillatu dute, eta zure soroa gaizki tratatu dute.

6. Andre alarguna, eta lagun arrotza il zituzten, eta umezurtzai bizia kendu zien.

7. Eta esan zuten: Ez du Jaunak ikusiko, eta ez du ere jakingo Jakoben Jaungoikoak.

8. Arretatu zaitezte, o erriko gizon zentzugabeak, noizbait ezagutu ezazute; eta zuek, barbulloak, koturatu zaitezte.

9. Belarriak eman dituenak ez al du adituko? Begiak eman dituenak, ez al du ikusiko?

10. Ez al dizute juiziora ots egingo, erreñu guztiak kastigatzen dituenak? Gizonari jakinduria ematen dionak?

11. Jaunak ezagutzen ditu gizonen gogorazioak, nola diraden alferrak.

12. Zorionekoa, o Jauna, zuk argibideak ematen diozkazun gizona, eta zure legea erakusten diozuna.

13. Leuntzeko beretzat egun gaiztoak, bekatariarentzat zuloa egiten dan bitartean.

14. Zeren ez du Jaunak utziko bere erria, eta ez da egongo bere soroagatik begiratu gabe.

15. Baizik juizioa justiziarekin egingo da; eta biotz zuzen guztiak jarraituko diote.

16. Nor jaikiko da nigatik gaiztoen kontra? Nor jarriko da nere alde, gaiztakeria egiten dutenai erasotzeko?

17. Jaunak lagundu zidalako izan ez balitza, gutxigatik infernua izango zuen nere animak bere bizilekua.

18. Baldin nik, o Jauna, esaten banizun: Nere oña irristatzera dijoa, zure urrikaltasuna zetorren neri laguntzera.

19. Nere biotzean neuzkan penen ugaritasunaren neurrian, zure gozotasunak poztu zuten nere anima.

20. Eseria bai al zaude gaiztakeriako esertokiren batean; aginte nekatsuak ipintzen dizkiguzunean?

21. Joango dirade justoaren animaren eizan; eta odol obengabea kondenatuko dute.

22. Baña Jauna izan da nere igestokia, eta nere Jaungoikoa izan da nere itxedopenaren laguntzallea.

23. Eta beren gañera erorieraziko die beren gaiztakeriai. Eta beren gaiztakeriagatik egingo du, galduak izan ditezela. Galduko ditu gure Jaun Jainkoak.

LAROGEITA AMALAUGARREN SALMOA

Dabid beraren alabantza, edo kantatxoa.

1. Atozte, txit poztu gaitezen Jaunagan, kantatu ditzagun bozkarioarekin, Jaungoiko gure salbatzallearen alabantzak.

2. Korrika goazen bere aurrean jartzera, ematen dizkiogula grazia, eta kantatzen diozkagula himnoak bere gloriari.

3. Zeren Jauna da Jaungoiko andia, eta errege bat jainko guztiak baño andiagoa.

4. Zeren bere eskuan dauka lurraren zabalera guztia, eta mendirik goratuenak bereak dira.

5. Berea da itsasoa, eta bere eskuen obra; eta bere eskuak egin zuten leorra.

6. Atozte, adoratu dezagun, eta auzpeztu gaitezen, eta negar egin dezagun, gu egin ginduen Jaunaren aurrean,

7. Zeren bera da gure Jaun Jainkoa, eta gu bere larreko erria; eta bere eskuko ardiak.

8. Baldin gaur bere boza aditzen badezute; ez itzatzute gogortu nai izan zuen biotzak;

9. Aserretuerazi zidatenean bezela tentazioko egunean basomortuan; non zuen gurasoak tentatu ninduten, probatu ninduten, eta ikusi zituzten nere obrak.

10. Berrogei urtean egon nintzan aserretuta jende arraza onen kontra, eta esan nuen: Oiek beti biotzez uts egiten dute.

11. Eta berak etzituzten ezagutu nere bideak, nere aserrean juramentu egin nuen bezela: Ez dira sartuko nere atsedenean.

LAROGEITA AMABOSGARREN SALMOA

Dabid beraren kantatxoa, kantatu zana,

1. Berriz Jaungoikoaren etxea egiña izan zanean katiberioaren ondoan.

Kantatu zaiozute Jaunari kantatxo berri bat, kantatu bizaio Jaunari lur guztiak.

2. Kantatu zaiozute Jaunari, eta bere izena bedeikatu ezazute, adirazi ezazute egun guztietan, beragandik datorkigun salbazioa.

3. Adirazi ezazute erreñuen artean bere gloria, erri guztietan bere mirariak.

4. Zeren Jauna andia da, eta alabantzaren txit diña. Jainko guztiez gañetik da beldurgarria.

5. Zeren erreñu guztietako jainkoak demonioak dirade; Jaunak berriz zeruak egin zituen.

6. Gloria eta argitasuna daude bere inguruan, bere santuarioan dist egiten dute santutasunak eta anditasunak.

7. O zuek jendeen familiak, atozte eskeiñtzera Jaunari, atozte eskeiñtzera honra eta gloria.

8. Eman zaiozute Jaunari, bere izenari dagokion gloria.

Eraman itzatzute doañak, eta sartu zaitezte bere atarietan.

9. Adoratu ezazute Jauna bere atari santuan.

Bere aurrean lur guztia mugitu bedi.

10. Esan ezazute erreñuetan, Jaunak erreñatu duela.

Zeren berak zuzendu zuen lurraren biribiltasuna, zeñ ez dan mugitua izango, juzgatuko ditu erriak zuzentasunarekin.

11. Poztu bitez zeruak, eta txit gozatu bedi lurra, mugitu bedi itsasoa, eta bertan dagoen guztia.

12. Gozatuko dira kanpoak, eta beretan dauden gauza guztiak.

Orduan txit poztuko dira basoetako zuaitz guziak,

13. Jauna ikusita, etorri zalako, lurra juzgatzera etorri zalako.

Juzgatuko du lurraren biribiltasuna zuzentasunarekin, eta erriak bere egiarekin.

LAROGEITA AMASEIGARREN SALMOA

1. Dabiden salmoa, berriz jarria izan zanean bere erria.

Jaunak erreñatu du, poztu bedi lurra, gozatu bitez ugarte taldeak.

2. Odeiak eta illuntasuna bere inguruan, justizia eta juizioa dirade bere tronuaren sostena.

3. Sua joango da bere aurretik, eta kiskaliko ditu inguruan bere etsaiak.

4. Bere tximistak argitu zuten lur guztia, ikusi zituen lurrak eta dardaratu zan.

5. Mendiak argizagia bezela urtu ziran Jaunaren aurrean, Jaunaren aurrean urtuko da lur guztia.

6. Zeruak adirazi zuten bere justizia, eta erri guztiak ikusi zuten bere gloria.

7. Lotsatu bitez, idoloak adoratzen dituzten guztiak, eta beren jainkoirudietan itxedopena daukatenak.

Adoratu ezazute bere aingeru guztiak,

8. Aditu zuen, eta poztu zan Sion.

Eta txit gozatu ziran Judako alabak, zure erabakiakgatik, o Jauna.

9. Zeren zu zera Jaun txit goratua lur guztiaren gañean, zu zera asko goratuago jainko guztiak baño.

10. Jauna maitatzen dezutenak gorrotatu ezazute gaiztakeria. Jaunak zaitzen ditu bere santuen animak, bekatarien eskuetatik libratuko ditu.

11. Agertu zan argia justoarentzat; biotz zuzenekoentzat poza.

12. Poztu zaitezte, justoak, Jaunagan; eta alabatu ezazute bere santutasuneko oroipena.

LAROGEITA AMAZAZPIGARREN SALMOA

1. Dabid beraren salmoa.

Kantatu zaiozute Jaunari kantatxo berri bat, mirariak egin dituelako.

Bere eskuiak, eta bere beso santuak; salbatu dute.

2. Jaunak agertu zuen bere Salbatzallea, erreñuen begietan ezagutuerazi du bere justizia.

3. Oroitu zan bere urrikaltasunarekin, eta bere egiarekin; Israelko etxearen alde.

Lurreko muga guziak ikusi zuten, gure Jaungoikoaren salbatzallea.

4. Kantatu zaiozu pozez Jaungoikoari lur guzia. Kantatu zaiozute, eta bozkarioz saltoka ari zaitezte, eta jo itzatzute salmoak.

5. Jo zaiozkazute salmoak Jaunari zitararekin; zitararekin eta salmoaren bozarekin.

6. Metalezko tronpetakin, eta txaranbelaren otsarekin.

Pozez kantatu ezazute erregearen aurrean, zeñ dan Jauna.

7. Pozez mugitu bedi itsasoa, eta bertan dagoen guztia, lur guztia, bertan bizi diraden guztiakin.

8. Ibaiak ontzat emango dute txaloakin, mendiak batean pozez gora goraka ariko dirade,

9. Ikusirik Jauna, lurra juzgatzera etorri zalako.

Berak juzgatuko du lur guztia justiziarekin, eta erriak zuzentasunarekin.

LAROGEITA EMEZORTZIGARREN SALMOA

1. Dabid beraren salmoa.

Onezkero Jaunak erreñatzen du, ikaratu bitez erriak. Onezkero kerubinen gañean eseria dagoenak erreñatzen du, mugitu bedi lurra.

2. Jauna Sionen andia da, goratua dago erri guztien gañetik.

3. Alabatu bezate zure izen andia, zeren bera ikaragarria eta santua dan.

4. Eta errege baten gloria dago, justizia maitatzean.

Zuk ipiñi dituzu lege txit zuzenak, zuk egin ziñituen juizioa eta justizia Jakoben errian.

5. Goratu ezazute gure Jaun Jainkoa, eta adoratu ezazute bere oñen azpiko aulkia; zeren bera santua dan.

6. Moises, eta Aaron bere apaizen artean, eta Samuel bere izenari ots egiten diotenen artean.

Jaunari ots egiten zioten, eta berak aditzen zituen,

7. Odeizko abe batean itz egiten zien.

Gordetzen zituzten bere esanak; eta eman zioten agintea.

8. Gure Jaun Jaungoikoa, zuk aditzen ziñituen. O Jaungoikoa, zu egon ziñan beren alde, eta izan ziñan beren asmazio guzien bengatzallea.

9. Goratu ezazute gure Jaun Jaungoikoa, eta adoratu ezazute bere mendi santuan, zeren gure Jaun Jainkoa santua dan.

LAROGEITA EMERETZIGARREN SALMOA

1. Alabantzako salmoa.

2. Pozez kantatu zaiozute Jaunari lurreko guztiak, bozkarioz serbitu ezazute Jauna.

Bere aurrean gozotasunarekin sartu zaitezte.

3. Jakin ezazute, Jauna bera dala Jaungoikoa, berak egin ginduen; eta ez gu gerok.

Bere erria, eta bere larreko ardiak,

4. Sartu zaitezte bere ateetatik, alabantzak kantatzen dituzutela, atozte bere atarietara himnoakin, eman zaiozkazute eskerrak.

Bedeikatu ezazute bere izena,

5. Zeren ontasunez beteriko Jaun bat da, bere urrikaltasuna da betikoa, eta bere egiak argi egingo du gizalditik gizaldira.

EUNGARREN SALMOA

1. Dabid beraren salmoa.

Kantatuko ditut, Jauna, zure urrikaltasunaren eta zure justiziaren alabantzak.

2. Kantatuko ditut musika soñuakin, eta ikasiko det ontasuneko bidea. Noiz etorriko zera nigana?

Nenbillan nere biotzeko garbitasunean, nere etxekoen erdian.

3. Ez det jarri nere begien aurrean gauza gaiztorik, gorrotatzen nituen, legea ausitzen zutenak.

4. Biotz biurririk ez da nigana allegatu. Nigandik alde egiten zuen gaiztorik, ez nuen ezagutzen.

5. Ixillean lagun urkoagatik gaizki esaten zuena, onelakoa persegitzen nuen.

Begi urgullutsu, eta biotz aseeziñeko gizonarekin, onelakoarekin ez nuen jaten.

6. Nere begiak zeuden erriko gizon leialakin, eseri zitezen nerekin, obengabeko bidean zebillanak, orrek serbitzen ninduen.

7. Ez da biziko nere etxean urgulluarekin obratzen duenik, eta ez du graziarik arkituko nere begietan, gaizki itz egiten duenak.

8. Goizean goiz iltzen nituen erriko bekatari guztiak, Jaunaren erritik kanpora botatzeko, gaizki egiten duten guztiak.

EUNTA BATGARREN SALMOA

1. Beartsu baten orazioa, naigabean arkiturik, Jaunaren aurrean bere erreguak egiten dituenean.

2. Jauna, aditu ezazu nere orazioa, eta nere deadarra allegatu bedi zugana.

3. Etzaiozu alde erazi zure arpegiari nigandik, naigabetua arkitzen naizan edozeñere egunean, alderatu ezazu nigana zure belarria.

Ots egiten dizudan edozeñere egunean, bereala aditu nazazu.

4. Zeren nere egunak desegiñak izan dira kea bezela, eta nere ezurrak abarraren gisara leortu dira.

5. Azpiratua nago zimaurra bezela, eta nere biotza leortu da, nere ogia jateaz aztu naizalako.

6. Anbeste deadar eta negarrarekin, nere ezurrak nere larruari itsasiak gelditu dira.

7. Biurtu naiz, basomortuan bizi dan txori illezuriaren antzekoa: izan naiz mozolloaren antzekoa bere tokian.

8. Iragotzen nituen gauak lorik egin gabetanik, eta bizitu izan nintzan, tellatuaren gañean bakarrik dagoen txoriaren gisara.

9. Egun guztian ari ziran neri lotsagabekeriak esaten nere etsaiak, eta alabatzen nindutenak, nere kontra jarri dira.

10. Zeren autsa ogia bezela jaten nuen, eta nere edaria nastutzen nuen nere negarrarekin,

11. Zure sumintasun eta aserrea ikusita, zeren gora jaso ninduzun, beera bota eta puskatuteko.

12. Nere egunak itzala bezela irago dira, eta ni leortu naiz, elbitza bezela.

13. Zuk berriz, Jauna, irautzen dezu beti, eta zure oroipena gizalditik gizaldira iragoko da.

14. Zu jaikiko zera, eta errukituko zera Sionekin, zeren allegatu zan berarekin errukituteko denbora, bete zan epea.

15. Zeren bere arriak zure serbitzarien gogokoak izan dira, eta bere lurrarekin errukituko dira.

16. Eta erreñuak, o Jauna, zure izenaren beldur izango dira: eta lurreko errege guztiak zure gloriaren.

17. Zeren Jaunak berriz egingo du Sion, eta ikusia izango da bere glorian.

18. Begiratu zion humildeen orazioari, eta beren eskaria etzuen mezpreziatu.

19. Eskribatu bitez gauza oiek geroko gizaldiarentzat, eta egiña izango dan erriak, Jauna alabatuko du.

20. Bere santuarioaren toki goratutik begiratu zuelako, Jaunak zerutik lurraren gañera begiratu zuen,

21. Kateen artean zeudenen negarrak aditzeko, azkatzeko eriotzara kondenatuak zeudenen semeak.

22. Adirazi dezaten Sionen Jaunaren izena, eta bere alabantza Jerusalenen.

23. Erriak batean bildu ditezenean, eta erregeak Jauna serbitzeko.

24. Esan zuen justoak bere edaderik onenean: Adirazi zadazu, zeñ gutxi diraden nere egunak.

25. Nere egunen erdian ez zadazu ots egin, betikoak dira zure urteak.

26. Asieran zuk, o Jauna, lurra egin zenduen, eta zeruak zure eskuen lana dirade.

27. Berak galduko dirade, baña zuk iraungo dezu, eta guztiak soñeko bat bezela zartuko dira.

Eta mudatuko dituzu, kapa bat mudatzen dan bezela, eta mudatuak geldituko dira;

28. Baña zu beti zera bat, eta zure urteak ez dute atzenik idukiko.

29. Zure serbitzarien semeak biziko dira pakean Jerusalenen; eta beren jatorria geldituko da betiko, sustraiak botarik.

EUNTA BIGARREN SALMOA

1. Dabid berarena.

O nere anima, bedeikatu ezazu Jauna, eta nere barrenen dauden gauza guztiak, bere izen santua.

2. O nere anima, bedeikatu ezazu Jauna, eta etzaite aztu bere mesede guztiakin.

3. Berak barkatzen ditu zure gaiztakeria guztiak, berak sendatzen ditu zure eritasun guztiak.

4. Berak erreskatatzen du zure bizia eriotzatik, berak ipintzen dizu, urrikaltasun eta biguntasuneko koroa.

5. Berak ondasunez betetzen du zure guraria, zure gaztetasuna berriztatuko da, arranoarena bezela.

6. Jaunak mesedeak egiten ditu, eta justizia egiten die bidegabeak sufritzen dituzten guztiai.

7. Ezagutuerazi ziozkan Moisesi bere bideak, Israelko semeai bere borondateak.

8. Errukiorra da Jauna eta biguña, itxedopen andikoa, eta txit urrikaltsua.

9. Ez da aserretua egongo betiko, eta ez da ere beti keñadaka egongo.

10. Ez gaitu tratatu gure bekatuen araura; eta ez digu ere eman gure gaiztakeriak diña ziran ordaña.

11. Zeren lurretik zerua altu dagoen bestean, ala sendotu du bere urrikaltasuna, bere beldur diradenen gañean.

12. Sortaldetik sartaldera dagoen bidea bestean; anbateam (sic) urrutiratu ditu gugandik gure gaiztakeriak.

13. Nola aita bat urrikaltzen dan bere semeakin, ala urrikaritu da Jauna bere beldur diradenakin.

14. Zeren berak ezaguturik dauka gure argaltasuna.

Oroitu zan autsa gerala.

15. Gizona, zeñaen egunak diran elbitza bezela, kanpoko lorea bezela, ala loretuko da.

16. Zeren espiritua egongo da beragan bidakiñez, eta berak ez du luzaro iraungo, eta andik aurrera ez du ezagutuko bere tokia.

17. Baña Jaunaren urrikaltasunak irautzen du betitik betira; bere beldur diradenen gañean.

Bere justiziak ez ditu beñere utziko semeak, eta illobatxikiak.

18. Bere elkartasuna gordetzen dutenenak,

eta bere aginteakin oroitzen diradenenak, berak gordetzeko.

19. Jaunak zeruan prestatu zuen bere esertokia, eta bere erreñuak aginduko du guztien gañean.

20. Bere aingeru guztiak bedeikatu ezazute Jauna, zuek eskudide eta birtute andikoak, bere aginteen egilleak, gertutuak zaudetenak bere esanen bozari obeditzeko.

21. Bedeikatu ezazute Jauna zeruko ejerzituko soldadu guztiak, bere serbitzari, bere borondatea egiten dezuten guztiak.

22. Bedeikatu ezazute Jauna berak egindako gauza guztiak, berak agintzen duen toki guztian. Bedeikatu ezazu, Jauna, o nere anima.

EUNTA IRUGARREN SALMOA

1. Dabid berarena.

Bedeikatu ezazu Jauna, ene anima, nere Jaun Jainkoa txit goratu zera.

Gloria eta edertasunez jantzi zera.

2. Estalia zaude argiz, soñeko batez bezela,

Zabaltzen dezuna zerua, larru bat bezela.

3. Urez estaltzen dituzuna bere tokirik goratuenak.

Ipintzen dezuna odei bat igoeratzat, aizeen egoen gañean zabiltzana.

4. Aingeruak espiritu egiten dituzuna, eta zure serbitzariak, su erretzalle.

5. Jarri ziñituena lurraren zimenduak bere ondopeen gañean, ez da iñoiz ere desberunduko.

6. Arkitzen zan estalia ur txit ugariz, kapa batez bezela. Oiek mendiak baño gorago zeuden.

7. Zure keñada batera iges egingo dute, zure turmonadaren bozera beldurtuko dira.

8. Igotzen dira mendiak bezela, eta beeratzen dira ibarrak bezela, jarri ziñituen tokian.

9. Jarri ziñien muga bat, iragoko ez dutena, eta ez dute estaliko berriz lurra.

10. Iturriai ibarretan irtenerazitzen diezuna, urak mendien erditik iragoko dira.

11. Kanpoko abere guztiak edango dute, berari itxedotzen egongo dirade basoastoak beren egarrian.

12. Zeruko egaztiak beren gañean biziko dira, aitzen erdietan kantatuko dute.

13. Zuk ureztatzen dituzu mendiak, goietatik bialtzen dituzun urakin, zuk erne erazitzen diezun frutuakin aseko da lurra.

14. Egiten dezuna elbitza abereentzat, eta aledun belarra gizonen janaritzat.

Ogiari atera erazitzeko lurraren barrendik,

15. Eta gizonen biotza poztzen duen ardoari.

Gizonak arpegiari distiatu erazi dizaion olioarekin, eta ogiarekin sendotu dezan bere biotza.

16. Kanpoko zuaitzak ezadez aseko dirade, eta berak ipiñi zituen Libanoko zedroak.

17. An txoriak egingo dituzte kabiak.

Zigoñaren etxea izango da beren zuzentzallea.

18. Mendi altuak oreñentzat, aitza trikuen igestokia.

19. Egin zuen illargia denborentzat, eguzkiak ezagutu zuen bere sarrera.

20. Ipiñi ziñituen illuntasunak, eta gaua egiña izan zan. Berean ibilliko dirade basoko pisti guztiak.

21. Orroaka ari dirade leoikumetxoak, al dutena arrapatzeko; eta deadarrez eskatzen diote Jaungoikoari beren janaria.

22. Atera zan eguzkia, eta bildu ziran, eta jarriko dira beren tokietan.

23. Aterako da gizona bere obrara, eta bere lanera gaberaño.

24. Zeñ goratuak diraden, o Jauna, zure obrak! Gauza guztiak jakinduriaz egin dituzu. Zure ondasunez betea dago lurra.

25. Zurea da itsaso andi, eta zoko zabaldun au, bertan dago ezin kontatu al beste arrai.

Abere txikiak, eta andiak.

26. Andik ibilliko dirade ontziak.

Dragoe au, zeñ egin zenduen bere bagen artean jostaketan ibilteko.

27. Guztiak itxedotzen dute zugandik, eman dizaiezula janaria denbora egokian.

28. Ematen diezula zuk, berak bilduko dute, idikitzen dezula zuk zure eskua, guztiak ondasunez beteko dira.

29. Baña zuk zure arpegiari alde erazitzen badiozu, nastuko dira, kenduko diezu beren espiritua, eta indar gabe geldituko dira, eta gelditzen dira auts egiñik.

30. Bialduko dezu zure espiritua, eta izango dirade berriz egiñak, eta berriztatuko dezu lurraren gaña.

31. Izan bedi betiko Jaunaren gloria, poztuko da Jauna bere obretan.

32. Lurrari begiratzen diona, eta ikaraz ipintzen duena, mendiai ukitzen diotena, eta kea dariotela ipintzen dituena.

33. Kantatuko ditut Jaunaren alabantzak, bizi naizan artean, himnoak esango diozkat nere Jaungoikoari, izatea daukadan artean.

34. Izan bitez bere gogokoak nere itzak; ni berriz gozatuko naiz Jaunagan.

35. Ez bitez berriz ikusi lurrean bekatariak eta gaiztoak, eta gelditu bitez ez balirade bezela. Zuk berriz, o nere anima, bedeikatu ezazu Jauna.

EUNETA LAUGARREN SALMOA

Alleluia.

1. Alabatu ezazute Jauna, eta bere izenari ots egin zaiozute: adirazi itzatzute erreñuen artean bere obrak.

2. Kantatu zaiozute, eta esan zaiozkazute salmoak, kontatu itzatzute bere mirari guztiak.

3. Gozatu zaitezte bere izen santuan, poztu bedi, Jauna billatzen dutenen biotza.

4. Billatu ezazute Jauna, eta sendotu zaitezte, billatu ezazute beti bere arpegia.

5. Oroitu zaitezte berak egin zituen mirariakin; bere gauza arrigarriakin, eta bere aoz esandako itzakin.

6. O Abrahamen jatorria, bere serbitzariak, o Jakoben semeak, bere aututuak.

7. Bera da gure Jaun Jainkoa, bere erabakiak lur guztian dira ezagutuak.

8. Ez da beñere aztu bere elkartasunarekin, arako itz, milla gizaldirentzat esan zuenarekin.

9. Abrahami egindako eskeñtzarekin, eta Isaak-eri egindako bere juramentuarekin.

10. Juramentu bat, sendotu ziona Jakobi, lege bat bezela; eta Israeli, betiko elkartasun bat bezela.

11. Esaten zuela: Zuri emango dizut Kanaango lurra, zuei herenziatzat dagokizutena.

12. Eta au Jakob eta bere semeetatik gutxi kontatu zitezkeanean, txit gutxi ziranean, eta arrotzak bertan.

13. Eta iragotzen ziran jende batetik bestera, eta erreñu batetik beste erri batera.

14. Etzuen utzi iñork gaitzik egin zitzaiela, eta berak gatik, erregeak kastigatu zituen.

15. Begira ezazute, nere igortziai ukitzearekin, ez itzatzute gaizki erabilli nere profetak.

16. Eta goseteari ots egin zion lurrera, eta ogiki guzia desegin zuen.

17. Bialdu zuen beren aurrean gizaseme bat, Jose izan zan saldua Egipton mendekotzat.

18. Humillatu zuten lotzen ziozkatela oñak zepoakin, burniak irago zion bere anima.

19. Bere itza kunplitu zedin bitartean,
Sutu zuen Jaunaren itzak.

20. Erregeak agindu zuen askatu zezatela. Errien Prinzipe onek joaten utzi zion.

21. Jarri zuen bere etxeko nagusitzat, eta zeukan guziaren prinzipetzat.

22. Bere andizkiai eman zitzaiezten erakutsiak berari bezela, eta erakutsi zitzaien zentzua idukitzen bere zarrai.

23. Eta sartu zan Israel Egipton, eta Jakob joan zan Kamgo lurrera, arrotza bezela bizitera.

24. Eta txit ugaritu zuen bere erria, eta egin zuen bere etsaiak baño sendoago.

25. Mudatu zuen bere biotza gorrotoz begiratu zitzaien bere erriari; eta asmatu zitzaten engañoak, bere serbitzarien kontra.

26. Bialdu zuen bere serbitzari Moises; eta Aaron berak autu zuena.

28. Bialdu zituen illuntasunak, eta guztia illundu zan, eta etzuen jan bere itzikan batere.

29. Beren urak odol biurtu zituen; eta il zituen beren arraiak.

30. Beren lurretik irten ziran igelak, erregeen beren gelerañokoetan.

31. Esan zuen, eta etorri zan euli eta eltxo mota guzia; toki guztietara.

32. Beren lurrean, uraen lekuan egiten zuen euria zan kazkabar eta su erretzallezko oñazkarra.

33. Eta erre zituen beren mastiak, eta pikudiak; eta desegin zituen bertako zuaitzak.

34. Esan zuen, eta etorri ziran langosta eta beldartegi kontatu ezin adiñekoak.

35. Eta jan zuten beren lurreko belar guztia, eta jan zituzten kanpoetan zeuden fruta guztiak.

36. Eta eriotzako zauriaz zauritu zituen beren lurreko gizaseme lenbizisortu guztiak; beren lan guztiaren lenbiziak.

37. Eta atera zuen Israel urrez eta zillarrez betea; eta etzegoan ririk bere tribuetan.

38. Poztu zan Egipto bere irteeran, zeren erori zan beren gañera aien beldurra.

39. Zabaldu zuen odei bat beren estalkitzat, eta sua berai gauaz argi egiteko.

40. Eskatu zituzten eta etorri ziran galeperrak, eta zeruko ogiz ase zituen.

41. Arrakatu zan aitza, eta irten ziran ur jarioak; ibaiak korrika joan ziran toki leor artan,

42. Zeren gogoan iduki zuen bere itz santu, Abraham bere serbitzariari eman ziona.

43. Eta atera zuen bere erria pozez; eta bere autuak gozotasunez.

44. Eta eman ziezten erreñuetako lurrak; eta gelditu ziran errietakoen lanen jabe egiñik,

45. Gorde zitzaten bere aginteak, eta billatu zezaten bere legea.

EUNTA BOSGARREN SALMOA

Alleluia.

1. Alabatu ezazute Jauna, zeren ona dan; zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

2. Nork kontatu ditzake Jaunaren eskubidearen obrak? Nork egingo du, adituak izan ditezela bere alabantza guztiak?

3. Doatsuak, legea gordetzen dutenak; eta birtuteko egitetan ari diradenak denbora guztian.

4. Oroitu zaite arren Jauna gurekin zure erriaganako daukazun onginaiaren araura. Bisitatu gaitzatzu zure salbatzallearen bitartez.

5. Ikusi ditzagun zure autatuen ondasunak, eta poztu gaitezen zure jendearen pozarekin, eta gloriaz bete zaitezen, zure herenzia bezela begiratzen diezun aietan.

6. Bekatu egin degu, gure gurasoak bezela; gaizki egin degu; gaiztakeria asko egin degu.

7. Gure gurasoak Egipton etzituzten gogoan erabilli zure mirariak, etziran oroitu zure urrikaltasunaren ugaritasunarekin.

Eta aserretuerazi zizuten zeudela sartzeko itsasoan; itsaso gorrian.

8. Eta berak salbatu zituen bere izenaren amorioagatik; agertzeko bere eskubidea.

9. Eta errierta egin zion itsaso gorriari, eta leortu zan; eta eraman zituen zakontasun aietatik, basomortu batetik bezela.

10. Eta salbatu zituen gorroto zienen eskutik; eta etsaien eskutik erreskatatu zituen.

11. Eta urak estali zituen, atsekabez betetzen zituztenak. Etzan batere beretatik gelditu.

12. Eta sinistu zituzten bere itzak; eta bere alabantza kantatu zuten.

13. Baña laster obrakin aztu ziran; eta etzuten bere konsejua itxedon.

14. Eta basomortuan, Egiptoko janarien txit gurariz egon ziran; eta tentatu zuten Jaungoikoa leorrean.

15. Eta eman zien eskatu ziotena; eta animaraño ase zituen.

16. Zeudela gero etzauntzetan ausartatu ziran Moisesen kontra; eta Aaron, Jaunari konsagratuaren kontra.

17. Lurra idiki zan, eta iretsi zuen Datan; eta estali zituen Abironen batzarrekoak.

18. Eta sua irazeki zan beren batzarrean; eta garrak iretsi zituen bekatariak.

19. Eta egin zuten txekor bat Horeben, eta eskuz egindako irudi bat adoratu zuten.

20. Eta eman zuten beren gloria; belarra jaten duen txekor baten irudiagatik.

21. Aztu ziran arako Jainko salbatu zituenarekin; gauza andiak Egipton egin zituenarekin,

22. Kamgo lurrean mirariak, gauza beldurgarriak itsaso gorrian.

23. Eta esan zuen desegingo zituela; baldin Moises bere autatua, bere aurrean jarri ez balitza ondameneko denboran,

Biguntzeko bere aserrea; desegin ez zitzan.

24. Eta ezerere eztzat zeukaten lur opagarria.

Etzuten sinistu bere itza.

25. Eta murmuratu zuten beren dendetan. Jaunaren boza etzuten aditu.

26. Eta Jaunak jaso zuen bere eskua beren kontra, basomortuan, lurrean etzinik ipintzeko,

27. Eta azpiratzeko beren jatorria jendeen artean, eta erreñuetatik barreiatzeko.

28. Eta konsagratu zitzaiozkan Beelfegorri, eta illai egindako eskeñtzetatik jan zuten.

29. Eta aserretuerazi zioten beren asmazioakin, eta ugaritu zan beretan ondamena.

30. Baña jaiki zan Finees, eta bigundu zuen, eta gelditu zan otskea.

31. Eta egite au onera ezarria izan zitzaion; gizalditik gizaldira, beti.

32. Eta aserretu erazi zioten kontradikzioko uretan; eta berakgatik Moises kastigatua izan zan.

33. Bere espiritua nastu zutelako.

Eta zalanzan egon zan bere ezpañetan.

34. Etzituzten ere desegin; Jaunak agindu ziozkaten erreñuak:

35. Eta nastu ziran erreñuakin; eta beren obrak ikasi zituzten.

36. Eta adoratu zituzten beren idoloak; eta izan zan berentzat beaztopo bat.

37. Eta beren seme eta alabak il; eta eskeñi ziozkaten demonioai.

38. Eta isuri zuten odol obengabea, beren seme, eta beren alaba, Kanaango idoloai sakrifikatuak izan zitzaiozkatenen odola,

Eta lurra gelditu zan; ainbeste odolekin zikindua,

39. Eta kutsutua beren obrakin; eta egin zituzten bekatu ezañak beren asmazioakin.

40. Argatik Jaunaren sumintasuna erazeki zan bere erriaren kontra; eta bere soroari gorrotoz begiratu zion.

41. Eta jarri zituen erreñuen eskuetan; eta egon ziran gorrotatzen zituztenen mendean.

42. Eta beren etsaiak txit gogortasun andiarekin tratatu zituzten; zeñaen eskuen azpian izan ziran humillatuak.

43. Asko alditan libratu zituen.

Alaere berak beren asmazioakin aserretu erazitzen zioten; eta izan ziran azpiratuak beren gaiztakeriakgatik.

44. Eta begiratu zien Jaunak, atsekabetuak zeudenean; eta beren orazioa aditu zuen.

45. Eta oroitu zan bere elkartasunarekin; eta damutu zitzaion bere urrikaltasunaren ugaritasunaren araura.

46. Eta egin zituen berakin urrikaltasunak; berak katibu zeuzkaten guztien aurrean.

47. O gure Jaun eta Jainkoa, salbatu gaitzatzu, eta bildu gaitzatzu erreñuen artetik:

Zure izen santua alabatu dezagun; eta gozatu gaitezen zure alabantzetan.

48. Bedeikatua izan dedilla Israelko Jaun Jainkoa, gizaldi batetik beste gizaldi batera, eta erri guztiak esango du: Ala izan dedilla! Ala izan dedilla!

EUNTA SEIGARREN SALMOA

Alleluia.

1. Alabatu ezazute Jauna, zeren ona dan; zeren betikoa dan bere urrikaltasuna.

2. Esan bezate, Jaunak erredimituak izan ziradenak; etsaiaren eskutik erredimitu dituenak, eta bildu dituenak erreñuen artetik.

3. Eguzkiaren sortaldetik; eta sartaldetik; ifarretik, eta itsasotik.

4. Ibilli ziran galduak basomortutik urik gabe, etzuten arkitu biderik joateko erriren batera, an egotaldi bat egiteko,

5. Zeudela gosez eta egarriz, beren espiritua indargatuaz zijoan.

6. Eta deadarrez ots egin zioten Jaunari, atsekabetuak arkitu ziradenean; eta beren premietatik atera zituen.

7. Eta eraman zituen bide zuzenera; bizi bear zuten errira joateko.

8. Alabatu bezate Jauna bere urrikaltasunakgatik; eta gizonen semeen alde egindako mirariak gatik.

9. Ase zuelako, utsik zegoan anima, eta gosez zegoan anima ondasunez ase zuelako.

10. Libratu zituen, zeudenak egotez illuntasunetan eta eriotzaren itzalean, burniz lotuak atsekabean eta kateetan.

11. Zeren Jainkoaren itzai kontra egin zioten, eta txit goratuaren esanak mezpreziatu zituzten.

12. Eta humillatua izan zan beren biotza lanetan. Indar gabe gelditu ziran, eta etzan arkitu nork sokorritu zitzan.

13. Eta deadarrez ots egin zioten Jaunari, naigabetuak arkitu ziradenean, eta beren premietatik libratu zituen.

14. Eta atera zituen illuntasunetik; eta eriotzaren itzaletik, eta beren kateak urratu zituen.

15. Alabatu bezate Jauna bere urrikaltasunakgatik; eta gizonen semeen alde egindako mirariakgatik.

16. Txeatu zituelako brontzezko ateak; eta autsi burnizko morrolloak.

17. Artu zituen beren gaiztakeriako bidetik, zeren beren injustiziakgatik izan ziran humillatuak.

18. Beren animak nazkaz begiratu zion janari guziari; eta eriotzako ateetaraño alderatu ziran.

19. Eta deadarrez ots egin zioten Jaunari naigabetuak ikusten ziradenean; eta beren premietatik libratu zituen.

20. Bialdu zuen bere itza, eta sendatu zituen; eta salbatu zituen beren galmenetik.

21. Alabatu bezate Jauna bere urrikaltasunakgatik; eta gizonen semeen alde egindako mirariakgatik.

22. Eta eskeñi bizazkiote alabantzako doañ oiek, eta adirazi bitzate pozez bere obrak.

23. Jatxitzen diradenak itsasora ontzietan; eta ari diradenak merkataritzan ur askoetan.

24. Berak ikusi zituzten Jaunaren obrak; eta bere mirariak zakon unean.

25. Esan zuen, eta jaiki zan ekaitzeko aizea; eta gora jaiki ziran bere bagak.

26. Igotzen dira zeruetaraño, eta beeratzen dira itsasondoraño. Estutasun oien artean, beren anima beldurrez ikara zegoan.

27. Nastu ziran eta mugitu ordi bat bezela; eta beren jakinduria guztia utsean gelditu zan.

28. Eta deadarrez ots egin zioten Jaunari larritasunean zeudenean; eta beren premietatik atera zituen.

29. Bere ekaitza aldatu zuen aizetxoan; eta bere bagak gelditu ziran.

30. Eta berak poztu ziran, itsasoa baretu zalako, eta eraman zituen bere borondateko portura.

31. Alabatu bezate Jauna bere urrikaltasunak gatik; eta gizonen semeen alde egindako mirariakgatik.

32. Eta goratu bezate bere gloria erriko batzarrean; eta zarren erakustokian alabatu bezate.

33. Ibaiak eremu biurtu zituen; eta uren jatorriak leorte.

34. Lur frutuemallea gazi biurtu zuen; bertan bizi ziradenen gaiztakeriagatik.

35. Eremua urezko putzudi biurtu zuen; eta urik gabeko lurra urezko jariodi.

36. Eta ipiñi zituen an, gosez zeudenak; eta erri bat egin zuten bizitzeko.

37. Eta erein zituzten kanpoak, eta ipiñi zituzten mastiak; eta eman zituzten berezko frutu ugariak.

38. Eta bedeikatu zituen, eta txit ugaritu ziran; eta etzituen gutxitu beren zamariak.

39. Eta gutxira etorri ziran eta estutuak izan ziran; naigabe eta doloreakin.

40. Erori zan mezprezioa prinzipeen gañera; eta egin zuen ibilli zitezela galduta, toki eremu, biderik ez zegoenetatik.

41. Eta altxatu zuen beartsua bere ezereztasunetik, eta ugaritu zituen familiak, artaldeak bezela.

42. Zuzenak ikusiko dute, eta poztuko dira; eta gaiztakeria guztiak bere aoa itxiko du.

43. Zeñ da jakintsua, gauza oiek gordetzeko, eta adituko ditu jaunaren urrikaltasunak?

EUNTA ZAZPIGARREN SALMOA

1. Dabid beraren kantatxoa eta salmoa.

2. Prestatua dago nere biotza, o Jaungoikoa, nere biotza prestatua dago. Kantatuko det, eta salmoak esango ditut nere glorian.

3. Jaiki zaite nere gloria, jaiki zaite salterio eta zitara. Goiz jaikiko naiz.

4. Eta alabatuko zaitut, Jauna, errien erdian, eta erreñuen artean kantatuko dizkizut himnoak.

5. Zeren zure urrikaltasuna zeruak baño andiagoa da, eta zure egia odeiak baño goratuagoa.

6. Izan zaite eregia, o Jaungoikoa, zeruen gañera; eta lur guztiaren gañera zure gloria,

7. Zure maitatuak libratuak izan ditezen.

Salbatu nazazu zure eskuiearekin.

8. Jaungoikoak bere santuarioan itz egin zuen:

Poztuko naiz, eta partituko det Sikem, eta etzauntzen ibarra neurtuko det.

9. Nerea da Galaad, eta nerea da Manasses; eta Efraim da nere sendotasunik andiena.

Juda nere erregea.

10. Moab nere itxedopeneko eltzea.

Idumearen gañera zabalduko det nere oñetakoa; arrotzak adiskide egingo zazkit.

11. Nork zuzenduko nau erri murrutura? Nork zuzenduko nau Idumearaño?

12. Baña nork zuk baizik, o nere Jainkoa, zuk utzi ginduzun orrek? Ez ote zera etorriko zu, o nere Jaungoikoa, gure ejerzituen aurrean?

13. Lagundu zaguzu naigabean; zeren alperrik itxedotzen da gizonagandik salbazioa.

14. Jaungoikoagan egingo ditugu gauza andiak; eta berak ezerezera biurtuko ditu gure etsaiak.

EUNTA ZORTZIGARREN SALMOA

1. Dabiden salmoa, atzenerako.

2. O Jaungoikoa, ez ezazu ixillik iduki nere alabantza, zeren bekatariaren aoa, eta saltzallearen aoa idiki dira nere kontra.

3. Mingañ engañakorrarekin itz egin zuten nere kontra, eta gorrotozko itzakin ingurutu ninduten; eta bidegabero eraso didate.

4. Ni maitatu bearrean, nigatik gaizki esaten zuten; nik berriz orazio egiten nuen.

5. Itzuli zidaten gaitza mesedearen ordañtzat; eta pagatu zidaten gorrotoarekin, berai nien amorioa.

6. Jarri ezazu bere gañean bekataria; eta deabrua bere eskuietik egon dedilla.

7. Juzgatua danean kondenatua atera dedilla, eta bere orazioa izan dedilla bekatutzat idukia.

8. Laburtuak izan ditezela bere egunak; eta bere apezpikutza beste batek artu dezala.

9. Beren semeak gelditu ditezela umezurtz; eta bere andrea alargun.

10. Beren semeak izan ditezela toki batetik bestera eramanak, eta eskean ibilli ditezela; eta botatuak izan ditezela beren bizilekuetatik.

11. Lukurariak arrapatu beza hazienda guztia; eta arrotzak ostu beza-te bere lanen frutu guztia.

12. Ez beza laguntzallerik iduki; eta ez bedi ere izan bere umezurtzakin urrikalduko danik.

13. Bere semeak illak izan bitez; eta gizaldi bakar batean gelditu bedi borratua bere izena.

14. Berriztatu bedi Jaunaren aurrean bere gurasoen gaiztakeriaren oroipena; eta bere amaren bekatua ez bedi beñere borratua izan.

15. Beren gaiztakeriak egon bitez beti Jaunaren aurrean; eta beren oroipena galdu bedi lurretik,

16. Urrikaltasuna egiteaz, etzalako oroitu,

17. Eta persegitu ziolako gizon beartsu, eta eskean zebillanari, eta biotz atsekabetuarekin zegoanari, hura iltzeko.

18. Eta madarikazioa maitatu zuen, eta etorriko zaio; eta etzuen bedeikazioa nai izan, eta urrutituko da beragandik.

Eta madarikazioz jantzi zan soñeko batekin bezela; eta sartu zan ura bezela bere erraietan, eta olioa bezela bere ezurretan.

19. Izan bitzaio soñekoa bezela, zeñarekin estalitzen dan; eta gerrikoa bezela, zeñarekin beti lotzen dan.

20. Au da irabazten dutena Jaunaganako, nigatik gaizki esaten dutenak; eta neri bizia kentzeko asmazioetan dabiltzanak.

21. Baña zu, o Jauna, nere Jaun Jainkoa, nere alde jarri zaite zure izenaren amorioagatik, zeren zure urrikaltasuna leuna da.

22. Libratu nazazu zeren beartsua naiz, eta premian nago ni; eta nere biotza nere barrenen nastua dago.

23. Igesi dijoan itzala bezela, ala noa ezkutatuaz; eta astintzen naute, langostak bezela.

24. Nere belaunak indargabetuaz dijoaz barauagatik; eta nere aragia aldatua dago, olioagatik.

25. Eta ni beren irria izan naiz. Ikusi ninduten, eta mugitu zituzten beren buruak.

26. Lagun zadazu, nere Jaun Jainkoa, zure urrikaltasunaren araura, salba nazazu.

27. Eta jakin bezate, zure eskua emen dabillala; eta zuk, o Jauna, egiten dezula gauza au.

28. Berak madarikazioak botako dizkidate, eta zuk bedeikatuko nazu, lotsatuak gelditu bitez nere kontra jaikitzen diradenak. Bitartean zure serbitzaria poztuko da.

29. Lotsariz beteak izan bitez, nigatik gaizki esaten dutenak; eta beren desonran bilduak, kapa aforrodun batean bezela.

30. Nere aoarekin Jauna txit alabatuko det, eta askoren aurrean alabatuko det.

31. Beartsu onen eskuietik jarri zalako; bere persegitzalletatik bere anima salbatzeko.

EUNTA BEDERATZIGARREN SALMOA

1. Dabiden salmoa.

Jaunak esan zion nere Jaunari: Nere eskuiean eseri zaite; jarri ditzadan bitartean zure etsaiak, zure oñen azpiko aulki egiñik.

2. Siondik ateraeraziko dio Jaunak zure eskubidearen zetroari, zuk agintatu ezazu zure etsaien erdian.

3. Zurekin dago lenen izatea, zure eskubideko egunean, santuen argitasunen erdian. Nere sabeletik sortua izan ziñan, egunsentiko izarra baño lenago.

4. Juramentu egin zuen Jaunak, eta etzaio damutuko. Zu zera apaiz betikoa, Melkisedek-en agindearen araura.

5. Jaungoikoa zure eskuiean dago; bere aserreko egunean erregeak desegin zituen.

6. Erreñuak juzgatuko ditu, geituko ditu ondamenak; lurraren kontra puskatuko ditu askoren buruak.

7. Errekako uretik edango du bidean dijoanean; argatik bere burua jasoko du.

EUNTA AMARGARREN SALMOA

Alleluia.

1. Zu alabatuko zaitut, o Jauna, nere biotz guzitik; justoak lagun ditudala eta elizbatzarrean.

2. Andiak dira Jaunaren obrak, txit ederrak, berak nai duen guztirako.

3. Gloria da eta anditasuna bere obra bakoitza; eta bere justiziak irautzen du mendez mende.

4. Bere mirarien betiko oroipena utzi zuen, urrikaltsua eta kupidakorra da Jauna.

5. Bazka eman zien bere beldur diradenai.

Beti oroituko da bere elkartasunarekin.

6. Adiraziko diozka bere erriari bere eskubidearen obrak,

7. Emateko berai jendeen herenzia. Bere eskuen egiteak egia eta zuzentasuna dira.

8. Iraunkorrak dira bere aginte guziak, gizalditik gizaldira sendotuak; egia eta zuzentasunean egiñak.

9. Salbatzalle bat bialdu zion bere erriari. Egin du bere elkartasuna betiko.

Bere izena santua, eta beldurgarria da,

10. Jaunaren beldurra da jakinduriaren asiera.

Beldur onekin beren obrak egiten dituzten guztiak, jakintsuak dirade. Bere alabantzak dirau mendez mende.

EUNTA AMAIKAGARREN SALMOA

Alleluia: Agjeo, eta Zakariasen biurreraren gañean.

1. Doatsua, Jaunaren beldur dan gizona, bere aginteak betetzen txit gozatuko da.

2. Bere jatorria lurrean almentsua izango da, justoen seme alabak bedeikatuak izango dirade.

3. Bere etxean gloria eta aberastasuna izango dira; eta bere justiziak beti iraungo du.

4. Illuntasunen artean jaio zan argia zuzenentzat, urrikaltsua, biguna eta justoa.

5. Maitagarria da, urrikaltasuna daukan, eta besteri prestatzen dion gizona; zentzuarekin bere itzak esango ditu,

6. Zeren ez da iñoiz mugitua izango.

7. Justoa beti biziko da Jaungoikoaren eta gizonen oroipenean. Berri txarrak aditzean, ez du beldurrik idukiko.

Bere biotza beti dago prestatua; Jaunagan itxedotzeko,

8. Bere biotza sendotua dago, ez da mugitua izango, aliketa bere etsaiak mezpreziatu ditzan bitartean.

9. Esku betez eman ziezten beartsuai bere ondasunak, bere justiziak dirau mendez mendez, bere eskubidea goratua izango da glorian.

10. Ikusiko du bekatariak, eta aserretuko da, ortz karraskotsak egingo ditu, eta litxigatuko da. Bekatarien guraria utsean geldituko da.

EUNTA AMABIGARREN SALMOA

Alleluia.

1. O gazteak, alabatu ezazute Jauna, alabatu ezazute Jaunaren izena.

2. Bedeikatua izan bedi Jaunaren izena, orainxedandik gizaldien atzeneraño.

3. Eguzkiaren irteeratik sarrerarañó, alabatugarria da Jaunaren izena.

4. Goratua dago Jauna erreñu guztien gañean, eta bere gloria zeruen gañean.

5. Zeñ gure Jaun Jainko, goietan bizi dana bezelakorik,

6. Eta gauza umillai zeruan eta lurrean begiratzen diena?

7. Jasotzen duena premiatsua lurreko autsetik, eta altxatzen duena eskalea zimaurtzatik,

8. Ipintzeko bera Prinzipeen artean, bere erriko Prinzipeen artean.

9. Berak bizierazitzen dio etxean andre aurgabekoari; pozez semeen ama dalako.

EUNTA AMAIRUGARREN SALMOA

Alleluia.

1. Israel Egiptotik atera zanean; irtetzean Jakoben etxea erri arrotz artatik.

2. Konsagratu zuen Jaungoikoak bere serbitzora Judako erria: eta bere agintaritza Israelen ipiñi zuen.

3. Itsasoak ikusi zuen, eta iges zuen. Jordana biurtu zan atzerontz.

4. Mendiak gora goraka ari ziran pozez, ariak bezela; eta muñoak bildotstxoak bezela.

5. Zer dezu zuk, o itsaso, ala iges egin dezun orrek; eta zuk, Jordan, atzera biurtu zeran orrek?

6. O mendiak, zuek pozez gora gora ari ziñaten, ariak bezela; eta zuek muñoak bildotstxoak bezela.

7. Dardaratu zan lurra, Jauna aurrean idukiaz; aurrean idukiaz Jakoben Jaungoikoa.

8. Zeñak itzuli zuen aitza, urezko putzu; eta arroka, urezko iturri.

1. Ez guri, o Jauna, ez guri; baizik zure izenari eman zaiozu gloria.

2. Zure urrikaltasuna eta zure egiagatik, ez dezaten noizbait erreñuak esan: Beren Jaungoikoa non dago?

3. Gure Jaungoikoa berriz zeruan dago, berak egin du, nai izan duen guztia.

4. Erreñuen idoloak ez dirade zillarra eta urrea baizik; gizonen eskuen lana.

5. Badute aoa, eta ez dute itzik egingo. Badituzte begiak, eta ez dute ikusiko.

6. Badituzte belarriak, eta ez dute adituko. Badituzte sudurrak, eta ez dute usaiegingo.

7. Badituzte eskuak, eta ez dute ukituko. Badituzte oñak oñak, eta ez dirade ibilliko, beren eztarriarekin ez dute deadarrik egingo.

8. Izan bitez beren antzekoak, berak egiten dituztenak, eta berakgan itxedotzen duten guztiak.

9. Israelko etxeak Jaunagan itxedon zuen, beren laguntzallea da, eta beren gordetzallea.

10. Aaronen etxeak Jaunagan itxedon zuen, beren laguntzallea da, eta beren gordetzallea.

11. Jaunaren beldur diradenak, Jaunagan itxedon zuten, beren laguntzallea da, eta beren gordetzallea.

12. Jauna gurekin oroitu zan; eta bedeikatu ginduen.

Israelko etxea bedeikatu zuen, Aaronen etxea bedeikatu zuen.

13. Jaunaren beldur diraden guziak, bedeikatu zituen; txikiak andiakin.

14. Geitu bitza Jaunak bere bedeikazioak zuen gañean; zuen gañean, eta zuen semeen gañean.

15. Arako Jaun, zerua eta lurra egin zituenak; bedeikatuak izan zaiteztela zuek.

16. Zeruaren zerua da Jaunarentzat; lurra berriz gizonen semeai eman zien.

17. Illak, o Jauna, etzaituzte alabatuko, ezta obira jatxitzen diranetatik batek ere.

18. Guk, bizi geradenok bai, bedeikatzen degu Jauna; oraindandik, gizaldi guztietan.

EUNTA AMALAUGARREN SALMOA

Alleluia.

1. Maitatu nuen Jauna; nere orazioaren boza adituko duelako,

2. Zeren alderatu duen niganontz bere belarria; eta nere egun guztietan otsegingo diot.

3. Eriotzako penak ingurutu naute; eta arkitu naute infernuko irriskuak.

Atsekabea eta pena arkitu nuen,

4. Eta Jaunaren izenari ots egin nion.

O Jauna, libratu ezazu nere anima.

5. Urrikaltsua eta justoa da Jauna, eta gure Jainkoa urrikaltzen da,

6. Jauna da, txikitxoak zaitzen dituena. Umillatu nintzan, eta libratu ninduen.

7. Itzuli zaite, ene anima, zure atsedenera, Jaunak anbeste mesede egin dizun ezkero.

8. Zeren berak libratu du nere anima eriotzatik, nere begiak negar malkoetatik, eta nere oñak irristatzetik.

9. Jaunaren gogokoa izango naiz ni; bizien errian.

EUNTA AMABOSGARREN SALMOA

Alleluia.

10. Sinistu nuen, argatik itz egin nuen; ni berriz txit umillata izan naiz.

11. Nik esan nuen nere kordegabetasunean: Gizon guztiak gezurtiak dirade.

12. Zer ordañ emango diot nik Jaunari, egin dizkidan mesede guztiak gatik?

13. Osasuneko kaliza artuko det; eta Jaunaren izenari ots egingo diot.

14. Kunplituko diozkat Jaunari nere eskeñtzak; bere erri guztiaren aurrean.

15. Baliotsua da Jaunaren aurrean; bere santuen eriotza.

16. O Jauna, zure serbitzaria naiz, ni zure serbitzaria naiz, eta zure mendeko emakumearen semea.

Zuk urratu ziñituen nere kateak,

17. Zuri eskeñiko dizut nik alabantzazko doañ bat; eta Jaunaren izenari ots egingo diot.

18. Kunplituko diozkat Jaunari nere botoak; bere erri guztiaren aurrean,

19. Jaunaren etxeko atarietan, zure erdian, o Jerusalen.

EUNTA AMASEIGARREN SALMOA

Alleluia.

1. Alabatu ezazute Jauna jende guztiak, alabatu ezazute erri guztiak.

2. Zeren bere urrikaltasuna gure gañean sendotu dan; eta Jaunaren egiak beti dirauen.

EUNTA AMAZAZPIGARREN SALMOA

Alleluia.

1. Alabatu ezazute Jauna, zeren ona dan, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

2. Esan beza orain Israelek Jauna ona dala, eta bere urrikaltasuna betikoa dala.

3. Esan beza orain Aaronen etxeak, bere urrikaltasuna betikoa dala.

4. Esan bezate orain Jaunaren beldur diradenak, bere urrikaltasuna betikoa dala.

5. Naigabean nengoanean ots egin nion Jaunari, eta aditu ninduen Jaunak biguntasun andiarekin.

6. Jauna da nere laguntzallea, gizonek egiten didanaren beldur ez naiz izango.

7. Jauna da nere laguntzallea, eta nik mezpreziatuko ditut nere etsaiak.

8. Obe da Jaunagan itxedotzea; gizonagan itxedotzea baño.

9. Obe da Jaunagan itxedopena ipintzea; Prinzipeetan ipintzea baño.

10. Erreñu guziak ingurutu ninduten, baña ni Jaunaren izenean bengatu nintzaien.

11. Txit estu ingurutu ninduten, baña ni Jaunaren izenean bengatu nintzaien.

12. Ingurutu ninduten erleak bezela; eta erazeki ziran nere kontra, sua arantza igarren artean bezela, baña Jaunaren izenean bengatu nintzaien.

13. Bultzadaka bota nai ninduten, eta erortzeko zorian egon nintzan, baña Jaunak lagundu zidan.

14. Jauna da nere sendotasuna eta nere alabantza, nere salbazio eginik jarri da Jauna.

15. Bozkario eta salbaziokoak dirade; justoen bizilekuetan aditzen diraden bozak.

16. Jaunaren eskuiak gauza miragarriak egin zituen, Jaunaren eskuiak goratu nau, Jaunaren eskuiak gauza andiak egin ditu.

17. Ez naiz ilko, baizik biziko naiz, eta Jaunaren obrak kontatuko ditut.

18. Kastigu latza eman dit Jaunak, baña ez nau illerazi.

19. Idiki zazkidazute justiziako ateak; beretatik sartuta, alabatuko det Jauna.

20. Au Jaunaren atea da, justoak beratatik sartuko dirade.

21. Zu alabatuko zaitut, aditu nazulako, eta nere salbatzallea izan zeralako.

22. Etxe egilleak bota zuten arria. Hura izan da arkantoinaren burutzat ipiñia.

23. Jaunak egiña izan da au, eta da gauza miragarria gure begietan.

24. Jaunak egindako eguna da au. Gozatu eta poztu gaitezen beratan.

25. O Jauna, salba nazazu: eman zaiozu, Jauna, ongi izatea.

26. Bedeikatua izan dedilla Jaunaren izenean datorrena.

Bedeikatu zaituztegu zuek Jaunaren etxekoak.

27. Jauna da Jaungoikoa, eta berak argitu gaitu.

Zelebratu ezazute Tabernakuloen egun andia, zelebratu ezazute, aldarearen aldamenetaraño allegatzen diran zuaitz ostotsuen erramakin.

28. Nere Jaungoikoa zera zu, eta alabatuko zaitut. Nere Jaungoikoa zera zu, eta goratuko zaitut.

Alabatuko zaitut aditu nazulako; eta nere salbatzalle egin ziñalako.

29. Alabatu ezazute Jauna, zeren ona dan, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

EUNTA EMEZORTZIGARREN SALMOA

Alleluia

ALEPH. 1. Zorionekoak mantxa gabe daudenak beren bidean, Jaunaren legean dabiltzanak.

2. Zorionekoak arretaz arteztzen dituztenak bere esanak, biotz guzitik billatzen dutenak.

3. Obra gaiztoak egiten dituztenak; etziran bere bidetik ibilli.

4. Zuk agindu zenduen; zure aginteak txit arreta andiarekin zaituak izan zitezela.

5. Arren bada nere pausoak zuzenduko al dirade; zure lege txit santuak gordetzera!

6. Orduan ez naiz ni lotsatua izango; arretaz begiratzen diedanean zure aginte guziai.

7. Biotz zintzoarekin alabatuko zaitut, zure justiziako erabakiak ikasi ditudalako.

8. Zure erabakiak zaituko ditut; ez nazazu iñoiz utzi.

BETH. 9. Nola enmendatuko du gaztetxoak bere biziera? Zure itzak zaituaz.

10. Nere biotz guzitik billatu zaitut: zure aginteetatik alde egiten ez zadazu utzi.

11. Nere biotzean zure itzak ezkutatu nituen, zure kontra bekaturik ez egitearren.

12. Bedeikatua zera zu, o Jauna; erakutsi zazkidazu zure aginte txit justoak.

13. Nere ezpañakin adirazi ditut; zure aotik atera diran erabaki guztiak.

14. Tesoru guzietan baño poz geiago iduki det; zure aginteen bideai jarraitzean.

15. Zure aginteak kunplitzen ariko naiz; eta gogoan erabilliko ditut zure legeak.

16. Zure aginteetan gozatuko naiz; eta zure itzakin ez naiz aztuko.

GHIMEL. 17. Ongi egin zaiozu zure serbitzariari, eman zadazu bizia, eta zure itzak gordeko ditut.

18. Kendu zaiezu nere begiai estalkia, eta gogoan erabilliko ditut zure legearen mirariak.

19. Lur onen gañeko bidean iragoeraz nabillan bat naiz ni, ez itzatzu ezkutatu nigandik zure aginteak.

20. Nere anima erazekia zegoan zure lege txit justoa maitatzeko gurarietan; denbora guztian.

21. Errierta egin ziñien urgullutsuai, madarikatuak zure aginteen bideetatik alde egiten dutenak.

22. Kendu ezazu nigandik lotsaria eta mezprezioa, zeren zure aginduak arretaz gorde ditut.

23. Prinzipeak ere eserita jarri ziran, nere kontra itz egiteko, baña zure serbitzariak zerabiltzan bere gogoan zure aginte txit justoak.

24. Zeren zure erabakiak nere gogorazioen gaiak dirade; eta zure lege justoak nere konsejua.

DALETH. 25. Nere anima lurrari itsasia gelditu zan, eman zadazu bizia, zure itzaren araura.

26. Adirazi nizkizun zure bideak, eta aditu ninduzun, erakutsi zazkidazu zure erabaki txit justoak.

27. Erakutsi zadazu santutasun eta justiziako bidea, eta zure mirarietan erabilliko det nere gogoa.

28. Iguiaz loak artu zuen nere anima, zure itzakin sendotu nazazu.

29. Aldeerazi zaiozu nigandik gaiztakeriako bideari, eta zure legearen araura biziteaz, mesede egin zadazu.

30. Egiaren bidea autatu det, zure erabakiakin ez naiz aztu.

31. Zure legearen esanetara itsatsi naiz, o Jauna; ez nazazu lotsatu.

32. Pozez korrika joan nintzan zure aginteetako bidetik, zuk nere biotza zabaldu zenduenean.

HE. 33. Legetzat jarri zadazu, o Jauna, zure esanetako bidea, eta beratatik beti joango naiz.

34. Aditza eman zadazu, eta ikasiko det zure legea; eta nere biotz guzitik zaituko det.

35. Zure aginteetako bidetxidorretik zuzendu nazazu, bada ori da nai dedana.

36. Zure esanetara alderatu ezazu nere biotza, eta ez zikoiztasunera.

37. Alde erazi zaiezu nere begiai, urgulleria ikusi ez dezaten, egizu zure bideai jarraituaz bizi nadilla.

38. Egizu, zure serbitzaria bere itzean sendotu dedilla, zure beldur santuaren bitartez.

39. Alde erazi zaiozu nigandik, beldur izan natzaion lotsariari, zeren zure erabakiak gogokoak dira.

40. Begira ezazu nola nagoan zure aginteak zaitzeko gurariz, egizu, zure justiziaren araura bizi nadilla.

BAU. 41. Eta etorri bedi nere gañera zure urrikaltasuna, o Jauna etorri bedi nigana zure salbazioa, zure eskeñiaren araura.

42. Eta emango diet erantzuera lotsagabekeriak esaten dizkidatenai, zure eskeñietan nere itxedopena ipiñia daukadala.

43. Eta iñoizere ez ezazu kendu nere aotik egiaren itza, zure eskeñietan ainbeste itxedon dedan ezkero.

44. Eta zure legea beti gordeko det; betiko, eta gizaldien gizaldiz.

45. Eta zabal zabal nenbillan, zure aginteak billatu nituelako.

46. Eta zure esanen gañean erregeen aurrean itz egiten nuen; eta ez nintzan lotsatuta geldituten.

47. Eta gogoa nerabillan; zure aginte, maitatu nituenetan.

48. Eta jaso nituen nere eskuak zure aginte, beti maitatu nituenetara; eta zure lege justoak gordetzen ari oi nintzan.

ZAIN. 49. Oroitu zaite zure serbitzariari egin ziñion eskeñtzarekin; zeñarekin itxedopena eman ziñidan.

50. Onek poztu ninduen nere umiltasunean, zeren zure itzak bizia eman zidan.

51. Urgullutsuak txit iseka asko egiten zidaten, alaere nik zure legetik ez nuen alderik egin.

52. Oroitu nintzan, o Jauna, zure betiko erabakiakin, eta poztu nintzan.

53. Indargabeturik gelditu nintzan naigabez; zure legeari utziten zioten bekatariakgatik.

54. Zure aginte txit santuak ziran nere kantatxoen gaia; erbestetua nengoan tokian.

55. Gauaz oroitu nintzan, o Jauna, zure izenarekin; eta zure legea gorde nuen.

56. Au irago zan nigan; zure erabaki txit justoak gordetzeko alegiña egiten nuelako.

HETH. 57. Nik esan nuen: O Jauna, nere herenziaren tokamena da, zure lege santua gordetzea.

58. Zure laguntasuna eskatu det nere biotz guzitik; errukitu zaite arren nerekin zure itzaren araura.

59. Begiratu diet nere bideai; eta itzuli nituen nere oñak zure aginteak gordetzera.

60. Erabakita nago gordetzera zure aginteak; ezergatik ere atzeratu gabe.

61. Bekatarien sokak ingurutu naute, baña ni ez naiz zure legeaz aztu.

62. Gauerdian jaikitzen nintzan zu alabatzera; zure erabaki, justiziaz beterikoak gatik.

63. Ni naiz zure beldur diraden guztien, eta zure aginduak gordetzen dituztenen partale.

64. Jauna, zure urrikaltasunez betea dago lurra, erakutsi zazkidazu zure aginte txit justoak.

TETH. 65. Ongi egin diozu, o Jauna, zure serbitzari oni; zure itzaren araura.

66. Erakutsi zazkidazu ontasuna, dotriña eta jakinduria, zeren zure aginteak sinistu ditut.

67. Umillatua izan nintzan baño lenago, nik bekatu egin nuen. Argatik gorde det zure itza.

68. Ona zera zu, zure ontasunagatik bada, erakutsi zazkidazu zure lege txit justoak.

69. Ugaritu da nere gañean urgullutsuen gaiztakeria, baña nik nere biotz guzitik zaituko ditut zure aginteak.

70. Gatzatu da eznea bezela beren biotza; baña zure legean nere gogoa erabilli det.

71. Mesedegarrai izan da neretzat zuk umillatua izatea, onela ikasi ditzadan zure aginte txit justoak.

72. Obeagoa da neretzat zure aotik atera zan legea; urrezko eta zillarrezko milloiak baño.

JON. 73. Zure eskuak egin ninduten, eta eman zidaten irudia. Eman zadazu aditzako doaia, eta ikasiko ditut zure aginteak.

74. Zure beldur diradenak, ikusiko naute, eta poztuko dira, zure itzetan txit itxedopen andia iduki nuelako.

75. Ezagutu det, o Jauna, zure erabakiak txit justoak diradela, eta zure egiaren araura umillatu nazu.

76. Betor bada zure urrikaltasuna ni gozatzera; zure serbitzariari eman ziñion itzaren araura.

77. Betoz nigana zure urrikaltasunak, eta biziko naiz, zeren zure legea da, nik gogoan darabildan gauza.

78. Lotsatuak izan bitez urgullutsuak, zeren bidegabero gaizki egin zuten nere kontra; baña ni zure aginteak kunplitzen ariko naiz.

79. Bildu bitez nerekin zure beldur diradenak; eta zure itz santuak ezagutzen dituztenak.

80. Egin ezazu, nere biotzak iraun dezala garbi zure aginteak kunplitzen dituela; lotsatua izan ez nadin.

KAPH. 81. Indargabetua gelditu zan nere anima, zugandik datorren osasunaren gurari, eta zure itzetan txit itxedopen andia iduki det.

82. Indargabetuak gelditu ziran nere begiak zure eskeñiaren betetasunari ain luzaro itxedotzen. Esaten nuela: Noiz gozatuko ete nazu?

83. Zeren gelditu naiz egiña zagia intziarrean bezela; baña alaere ez naiz aztu, zure aginte txit justoakin.

84. Zenbat dirade zure serbitzariaren egunak? Noiz egingo dezu justizia, nere persegitzalleen kontra?

85. Gaiztoak ipuiak kontatu zizkidaten; baña ez zure legearen araukoak.

86. Zure aginte guztiak egia utsa dira. Bidegabero persegitu naute, lagun zadazu arren.

87. Gutxigatik ez naute lurrera bota, baña nik ez ditut zure aginteak iñoiz utzi.

88. Zure urrikaltasunaren araura eman zadazu bizia, eta zure aotik irtendako aginteak kunplituko ditut.

LAMED. 89. Jauna, zeruan; zure itzak beti dirau.

90. Gizalditik gizaldira zure egia, lurra egin zenduen eta badirau.

91. Zure aginduz dirau egunak, zeren gauza guztiak serbitzen zaituzten.

92. Zure legea nere gogoan erabilli ez banu, orduan ziertoro galduko nintzan nere umiltasunean.

93. Iñoiz ez ez naiz zure lege txit justoakin aztuko; zeren berakin bizia eman didazun.

94. Zurea naiz ni, salba nazazu, zeren zure lege txit justoak ikasteko, asko nekatu naiz.

95. Bekatariak nere azeloan egon ziran ni galtzeko, ni orduan zure esanak aditzen ari nintzan.

96. Ikusia daukat gauzarik oso eta beteenaren atzena, bakarrik zure legeak ez dauka mugarik, ez neurririk.

MEM. 97. Zeñ maitagarria dan neretzat, o Jauna, zure legea! Egun guztian da nere gogorazioaren gaia.

98. Zure agintearekin, o Jaungoikoaren legea, egin nazu nere etsaiak baño zentzu geiagokoa, beti nere begien aurrean daukadalako.

99. Nere erakusla guztiak baño geiago konprenditu det nik, zeren zure aginteetan daukadan nik beti nere gogorazioa.

100. Zarrak baño geiago konprenditu det, zure aginteak billatu ditudalako.

101. Bide gaizto guzitik nere oñai alde erazi nien, zure itzak gordetzeagatik.

102. Zure esanetatik ez det alderik egin, zuk legetzat jarri dizkidazulako.

103. Zeñ gozoak diraden nere aosapaiarentzat zure itzak! Nere aoarentzat eztia baño geiago.

104. Zure aginteen ezagueratik jakinduria andiaren jabe egin nintzan. Argatik gaiztakeriaren bide guztiari aier natzaio.

NUN. 105. Zure itza nere oñentzat da zuzia; eta nere bidezidorrentzat argia.

106. Juramentu egin nuen, eta erabaki nuen, zure aginte txit zuzenak gordetzeko.

107. Txit umillatua izan naiz, o Jauna, biztu nazazu, zure eskeñtzaren araura.

108. Ar itzatzu, o Jauna, gogo onarekin nere ezpañak eskeñtzen dizkizuten borondatezko doañak, eta zure erabakiak erakutsi zazkidazu.

109. Nere anima beti nere eskuan daukat, eta zure legeaz ez naiz aztu.

110. Bekatariak lakioak jarri zazkidaten, baña nik zure aginteetako bidetik ez nuen alderik egin.

111. Herenziaz egin naiz betiko, zure esan santuen jabe, bada berak nere biotzeko poza dira.

112. Zeartu det nere biotza, zure aginte santuak beti kunplitzera, ordañaren itxedopenagatik.

SAMEK. 113. Gorrotatu ditut gaiztoak; eta maitatu det zure legea.

114. Zu zera nere laguntzallea, eta gordetzallea; eta zure itzean txit itxedopen andia iduki det.

115. Utikan nigandik gaiztoak; eta ni nere Jaungoikoaren aginteak ikasten ariko naiz.

116. Artu nazazu zure itzaren araura, eta biziko naiz, eta ez nadilla nere itxedopenarekin lotsatua gelditu.

117. Lagun zadazu, eta salbatuko naiz, eta zure lege justoak aspertu gabe gogoan erabilliko ditut.

118. Mezprezioz begiratu ziñien zure aginte justoetatik alde egiten duten guztiai, zeren beren gogorazioa gaiztoa da.

119. Begiratu nien fede-ausleai bezela lurreko bekatari guztiai. Argatik zure testimonioak maitatu nituen.

120. Irago ezazu nere aragien aldemen batetik bestera zure beldur santua, zeren zure erabakien beldur izan naiz.

AIN. 121. Zuzen eta justiziarekin ibilli naiz, ez nazazu utzi, gaizkiak asmatzen diztenen eskuetan.

122. Eman zaiozu eskua zure serbitzariari obra onetan aritzeko, urgullutsuak gaizkiak asmatu ez dizadaten.

123. Indargatu ziraden nere begiak, nengoala itxedotzen zugandik salbazioa, eta kunplitu zenezala zure itza.

124. Egin ezazu zure serbitzariarekin zure urrikaltasunaren araura, eta zure erabaki txit justoak erakutsi zazkidazu.

125. Zure serbitzaria naiz ni, aditza eman zadazu, ikasi ditzadan zure aginteak.

126. Denbora da, o Jauna, gogortasuna erakusteko, urgullutsuak lurreratu dute zure legea.

127. Argatik maitatu nituen zure aginteak, urrea eta bertori arria baño geiago.

128. Argatik zuzendu nintzan zure aginte guztietara, bide gaizto guzia gorrotatu nuen.

PHE. 129. Miragarriak dirade zure testimonioak. Argatik txit ongi kunplitu ditu nere animak.

130. Zure itzen azaldaerak argitutzen du, eta txikitxoai ematen die aditza.

131. Idiki nuen nere aoa, eta asnasa artu nuen, zure aginteen gura neukalako.

132. Begiratu zadazu, eta errukitu zaite nerekin, zure izena maitatzen dutenakin egiten dezun bezela.

133. Zuzendu itzatzu nere pausoak zure itzen araura, eta egizu ez dezala nigan agindu injustiziak, ezta bat bakarrak ere.

134. Gizonen gezurrezko asmazioetatik libratu nazazu, zure aginduak kunplitu ditzadan.

135. Egin ezazu distiatu dedilla zure serbitziaren gañean zure arpegiko argia, eta zure erabagi txit justoak erakutsi zazkidazu.

136. Negarrezko errekak isuri zituzten nere begiak, zure legea etzutelako zaitu.

TSADE. 137. Justoa zera zu, o Jauna; eta zuzenak zure erabakiak.

138. Agindu zenduen txit gogorki gordetzeko zure esanak; zeñak diraden justizia eta egia bera.

139. Nere zeloak penaren indarrez litxigatua jarri nau, nere etsaiak zure itzakin aztu ziradelako.

140. Zure itza txit erazekia da, eta maitatu du zure serbitzariak.

141. Gaztetxoa naiz ni, eta mezpreziagarria, baña zure lege justoakin ez naiz aztu.

142. Zure justizia betiko justizia da, eta zure legea egia bera.

143. Atsekabe eta estutasunak arrapatu ninduten, zure aginteetan nere gogoa darabilt.

144. Betiko justiziaz beteak daude zure legeko erabakiak, beren aditza eman zadazu, eta biziko naiz.

KOPH. 145. Nere biotz guzitik ots egin nuen, aditu nazazu, o Jauna, zure aginte txit justoak billatuko ditut.

146. Zuri deadarrez ots egin nizun, salba nazazu, zure aginteak gorde ditzadan.

147. Aurreratu nintzan, eta deadarrez goiz ots egin nuen, zure itzetan itxedopen andia neukalako.

148. Egunsentia baño lenago nere begiak zugana zuzendu ziran; zure legea gogoan erabilteko.

149. Aditu ezazu, o Jauna, nere boza zure urrikaltasunaren araura, eta bizia eman zadazu eskeñita didazun bezela.

150. Nere persegitzalleak gaiztakeriara alderatu dira, eta urrutitu dira zure legetik.

151. Aldean zaude zu, o Jauna, eta zure bide guziak egia dira.

152. Asieratik ezagutu nuen, jarri ziñituela zure aginteak; beti iraun dezaten.

RES. 153. Ikusi ezazu nere umiltasuna, eta libratu nazazu, zeren ez naizan aztu zure legeaz.

154. Eman ezazu erabakia nere ezbaian, eta libra nazazu, zure itzaren begiruneagatik itzuli zadazu bizia.

155. Urrutian dago bekatariakgandik salbazioa, zure aginte txit justoak gordetzeko ajolarik iduki ez dutelako.

156. Asko dirade, o Jauna, zure urrikaltasunak, zure eskeñiaren araura bizia eman zadazu.

157. Persegitzen nautenak eta atsekabetzen nautenak asko dirade, baña nik ez det iñoiz ere alderik egin zure aginteetatik.

158. Ikusten nuen nola austen zuten fedea, eta peñaz litxigatzen nintzan, etzituztelako gordetzen zure esanak.

159. Begira ezazu, o Jauna, nola maitatu ditudan zure aginteak, zure urrikaltasunagatik bizia eman zadazu.

160. Zure itzen asiera egia da. Betikoak dirade zure justiziaren erabaki guztiak.

KSIN. 161. Bidegabero persegitu naute Prinzipeak, eta nere biotza zure itzen beldur izan da.

162. Poztzen naiz zure eskeñietan, ondasun andiak arkitzen dituena bezela.

163. Gaiztakeria gorrotatu det, eta berari aier izan natzaio, eta maitatu det zure legea.

164. Egunean zazpi alditan alabatu zindudan, zure justiziaren erabakiakgatik.

165. Txit pake andian daude zure legearen maitatzalleak, eta berentzat ez dago beaztoporikan.

166. Nik itxedotzen nuen, Jauna, zugandik datorren osasuna, eta bitartean zure aginteak maitatzen nituen.

167. Zure aginteak nere animak gorde ditu; eta maitatu ditu gogotikan.

168. Zure aginteak eta esanak gorde ditut, nenkialako nere obra guztiak zure aurrean daudela.

TAU. 169. Allegatu bitez, o Jauna, nere erreguak zure aurrera, zure eskeñtzaren araura eman zadazu, o Jauna, aditzako doaia.

170. Sartu bedi nere eskaria zure aurrera, zure itzaren araura libratu nazazu.

171. Alabantzazko himnoak kantatzen pozez gañez egin artean ariko dirade nere ezpañak, zure itz txit justoak erakusten dizkidazunean.

172. Nere mingañak zure itza adiraziko du, zure aginte guziak justizia bera diradelako.

173. Luzatu ezazu zure eskua ni salbatzeko, zeren zure aginteak autatu ditut.

174. O Jauna, zugandik datorren osasunaren txit guraz egon naiz, eta nere gogorazioaren betiko gaia zure legea da.

175. Nere anima biziko da, eta alabatuko zaitu, eta zure erabakiak lagunduko didate.

176. Uts egin det, ardi galduak bezela. Zure serbitzaria billatu ezazu, zeren zure aginteakin ez naiz aztu.

EUNTA EMERETZIGARREN SALMOA

1. Graduen kantatxoa.

Nere naigabean Jaunari deadarrez ots egin nion; eta aditu ninduen.

2. Libratu ezazu, Jauna, nere anima ezpañ gaiztoetatik; eta mingañ engañatzalletik.

3. Zer emango zatzu, edo zer frutu aterako dezu; mingañ engañatzalletik?

4. Saieta zorrotz, esku sendoz botatuakin iragoa izatea; eta su iretsitzalle batera izatea aurtikia.

5. Ai ene urrikigarria! zeren nere erbestea luzatua izan da. Bizi izan naiz Zedarren bizi diranakin.

6. Denbora luzean egon da nere anima; erri erbestean.

7. Pakea gorrotatzen zutenakin, paketsua nintzan; baña berak, nik itz egiten nieneko, jaikitzen ziran nere kontra.

EUNTA OGEIGARREN SALMOA

Gradu kantatxoa.

1. Nere begiak jaso nituen mendietara; nondik etorriko zatan laguntasuna.

2. Nere laguntasuna dator, zerua eta lurra egin zituen Jaunagandik.

3. Ez du utziko irristatu dedilla zure oña; eztaere logalea iduki dezala, zu zaitzen dagoenak.

4. Begira ezazu ez duela logalerik idukiko eztaere lorik egingo; Israel zaitzen duenak.

5. Jaunak zaitzen zaitu, Jauna da zure laguntzallea, bera dago zure eskuiko eskuan.

6. Egunaz eguzkiak etzaitu erreko; ez gauaz illargiak gaitzik egingo.

7. Jaunak, gaitz guzitik gordeko zaitu, Jaunak zaituko du zure anima.

8. Jaunak zaituko zaitu zure bizitzako pauso guztietan; orain, gero, eta beti.

EUNTA OGEITA BATGARREN SALMOA

1. Gradu kantatxoa.

Txit poz andia iduki nuen esan zitzadanean, Jaunaren Etxera joango gerala.

2. Gure oñak, o Jerusalem; zure atarietan atsedengo dute.

3. Jerusalem, zeña erri bat bezela egiñaz dijoan; zeñaen aldamenak dauden itsatsiak.

4. Bada ara igo ziran tribuak, Jaunaren tribuak, Israeli emana izan zitzaion agintearen araura; Jaunaren izena alabatzera.

5. Zeren an ipiñiak izan ziran justiziako esertokiak; esertokiak Dabiden etxean.

6. Eskatu itzatzute, Jerusalenen pakerako diraden gauzak; eta ugaritasuna maitatzen zaituztenentzat.

7. Pakea egon bedi zure gazteluan, eta zure jauregietan ugaritasuna.

8. Nere anaien eta nere lagun urkoen amorioagatik; eskatzen nuen nik pakea zuretzat.

9. Gure Jaun jainkoaren etxearen begirunez; eskatu nituen zuretzat ondasunak.

EUNTA OGEITA BIGARREN SALMOA

Gradu kantatxoa.

1. Zugana, zeruetan bizi zeran orregana; jaso nituen nere begiak.

2. Ona non nola gizaseme mendekoen begiak beren nagusien eskuetan dauden,

3. Nola neskame mendekoaren begiak dauden bere etxekoandrearen eskuetan; ala gure begiak daude gure Jaun Jaungoikoagan; aliketa guzaz errukitu dedin bitartean.

4. Errukitu zaite arren guzaz, Jauna, errukitu zaite guzaz: zeren lotsariz txit beteak gauden.

5. Zeren berakin txit betea dago gure anima, aberatsen irria, eta urgullutsuen farra egiñik.

EUNTA OGEITA IRUGARREN SALMOA

1. Gradu kantatxoa.

Jauna gurekin egon ez balitza; esan beza orain Israelek:

2. Jauna gurekin egon ez balitza,

Gizonak gure kontra jaiki ziradenean,

3. Aurki bizirik geundela iretsiko ginduen,

4. Aurki urak ondora eramango ginduen,

Beren aserrea gure kontra erazeki zanean.

5. Gure animak erreka irago zuen. Ziertoro ezin irago izango zuen ur aiñ andia.

6. Bedeikatua Jauna; ez ginduelako beren ortzetan arrapatuak utzi.

7. Gure animak iges egin zuen, eiztarien lakiotik txoriak bezela, lakioa urratu zan, eta gu libratuak gelditu giñan.

8. Gure laguntasuna dator; zerua eta lurra egin zituen Jaunaren izenetik.

EUNTA OGEITA LAUGARREN SALMOA

1. Gradu kantatxoa.

Jaunagan itxedotzen dutenak, daude Siongo mendia bezela, ez da beñere mugitua izango, bizi dana

2. Jerusalenen.

Mendiak daude bere inguruan, eta Jauna bere erriaren inguruan oraindandik betiko.

3. Zeren ez du Jaunak luzaro utziko justoen jatorria bekatarien agintaritzaren mendean; gogait eginda gaiztakeriara irago ez ditezen.

4. Bedeikatu itzatzu, o Jauna, onak; eta biotzez zuzenak.

5. Bide okerretara zeartzen diradenak berriz eramango ditu Jaunak gaiztakeriako obrak egiten dituenakin, pakea Israelen gañean.

EUNTA OGEITA BOSGARREN SALMOA

1. Gradu kantatxoa.

Jaunak Siongo katiboai itzulierazitzen dienean; txit pozik geldituko gera.

2. Orduan gure aoa bozkarioz beteko da, eta gure mingaña atsegiñaz.

Orduan erreñuen artean esango da, gauza andiak berakin Jaunak egin dituela.

3. Gauza andiak Jaunak gurekin egin ditu, pozik geldituko gera.

4. Jauna, libratu itzatzu gañerako gure anai katibuak; erreka bat Egoean bezela.

5. Negarrez ereitzen dutenak, pozez igitaituko dute.

6. Zijoazenean, negarrez ateratzen ziran; beren aziak botatzen zituztela.

Itzultzen diradenean berriz pozez etorriko dira; beren gabillak dakarzkitela.

EUNTA OGEITA SEIGARREN SALMOA

1. Salomonen gradu kantatxoa.

Jauna ez baldin bada, etxea egiten duena; alperrik nekatzen dira egiten dutenak.

Jaunak erria zaitzen ez badu; alperrik dago beillan zaitzen duena.

2. Alperrik da zuentzat egunsentia baño lenago jaikitzea, jaiki zaitezte atsedetzen dezutenean, penazko ogia jaten dezutenak.

Jaunak bere maitatuai, loa ematen dienean,

3. Ona non Jaunagandik datorkiten herenzia; semeak, abereak, eta aberekumeak.

4. Nola saietak gizon errutsu baten eskuan; ala atsekabetuen semeak.

5. Zorionekoak beren gañean bere guraria kunplitu duen gizona; ez da lotsatua izango bere etsaiakin atean itz egiten duenean.

EUNTA OGEITA ZAZPIGARREN SALMOA

1. Graduen kantatxoa.

Zorionekoak Jaunaren beldur diraden guztiak; bere bideetatik dabiltzanak.

2. Zure eskuetako lanaren irabazia jango dezulako, zorionekoa zera, eta ongi joango zatzu.

3. Zure emaztea izango da; mazti ugari bat, zure etxearen inguruan bezela.

Zure semeak oliboen moteak bezela; zure maiaren inguruan.

4. Ona emen nola bedeikatua izango dan; Jaunaren beldur dan gizona.

5. Jaunak Siondik bedeikatu zaitzala; eta ikusi ditzatzula Jerusalengo ondasunak zure bizitzako egun guztietan.

6. Eta ikusi ditzatzula zure semeen semeak; pakea Israelen gañean.

EUNTA OGEITA ZORTZIGARREN SALMOA

1. Graduen kantatxoa.

Maiz eraso zidaten nere gazte denboratik; esan beza orain Israelek.

2. Maiz eraso zidaten nere gazte denboratik; baña ezin zuten nerekin.

3. Nere bizkarraren gañean bekatariak ots andiak eman zizkidaten. Denbora andian luzatu zuten beren gaiztakeria.

4. Jaun justoak, bekatarien lepoak ebaki zituen.

5. Izan bitez lotsatuak eta atzera itzuliak, Sioni gorroto dioten guztiak.

6. Izan bitez tellatuetako belarra bezela; zeñ leortzen dan, ateratua izan baño lenago.

7. Zeñarekin igitaitzallek etzuen eskua bete; ez bere besartea gabillak biltzen dituenak.

8. Eta etzuten esan iragotzen ziradenak, Jaunaren bendizioa zuen gañean izan dedilla, Jaunaren izenean bedeikatzen zaituztegu.

EUNTA OGEITA BEDERATZIGARREN SALMOA

1. Graduetako kantatxoa.

Zakon unetatik, o Jauna; deadarrez zuri ots egin nizun.

2. O Jauna, aditu ezazu nere boza,

Egon bitez zur zure belarriak nere erreguen bozera.

3. Jartzen bazera, o Jauna, nere bekatuen azeloan; nork bizirik iraungo du, o Jauna?

4. Zeren zugan egotez bezela biguñtasuna arkitzen da, eta zure legeagatik, o Jauna, zugan itxedon det.

Nere animak bere itzean itxedon du,

5. Jaunagan jarri du bere itxedopena.

6. Egunsentitik gaberaño; Israelek Jaunagan itxedon beza.

7. Zeren Jaunagan urrikaltasuna dago; eta beragan dago erredenzio ugaria.

8. Eta berak erredimituko du Israel; bere gaiztakeria guztietatik.

EUNTA OGEITA AMARGARREN SALMOA

1. Dabiden graduetako kantatxoa.

O Jauna, ez da nere biotza urgulluz bete; eta ez dirade ere arrotu nere begiak.

Ez naiz ere ibilli andizkerietan; ez nerez gañeko gauza goratuetan.

2. Ez baneuzkan nigatik gogorazio umillak, baizik arrotu banuen nere anima.

Nola dagoan titia kendutako aurra bere amaren aldean; ala izan dedilla nere animaren ordaña.

3. Itxedon beza Israelek Jaunagan; oraindandik, gero, eta beti.

EUNTA OGEITA AMAIKAGARREN SALMOA

1. Graduetako kantatxoa.

Oroitu zaite, o Jauna, Dabidekin; eta bere otsantasun guztiarekin.

2. Nola juramentu egin zion Jaunari, eta doaña Jakoben Jaungoikoari eskeñi zion, esaten zuela:

3. Ez naiz sartuko nere etxearen barrenen, ez naiz igoko nere oera atsedetera.

4. Ez diet utziko nere begiai lorik egiten; ez nere betazalai elkartzen.

5. Ez diet emango atsedenik nere aliketa arkitu dezadan artean toki bat Jaunarentzat; tabernakulo bat Jakoben Jaungoikoarentzat.

6. Ona non aditu genduen zegoala bera Efratan, basoko kanpoetan arkitu degu.

7. Bere tabernakuloan sartuko gera, bere oñak egon ziran tokian, adoratuko degu.

8. Jaiki zaite, o Jauna, zure atsedenera, zu eta zure santutasuna distiatzen dan kutxa.

9. Zure apaizak justiziaz jantzi bitez, eta poztu bitez zure santuak.

10. Zure serbitzari Dabiden amorioagatik; ez ezazu apartatu zure arpegia, zure Kristoagandik.

11. Juramentuz egin zion Dabidi Jaunak eskeñtza au, eta ez du kunplitu gabe utziko: Zure sabeleko frututik zure tronuaren gañean jarriko det.

12. Baldin zure semeak nere elkartasuna gordeko balute; eta nik erakusten diozkatedan nere aginte oiek,

Eta beren semeak ere beti gordetzen badituzte; zure tronuaren gañean eseriko dirade;

13. Zeren Jaunak Sion autatu du, autatu du bere bizilekutzat.

14. Au da betiko nere atseden tokia, emen biziko naiz, zeren autatu dedan.

15. Bere andre alargunari bendizio ugaria emango diot, bere beartsuak ogiz aseko ditut.

16. Bere apaizak santutasunez jantziko ditut; eta bere santuak pozez gora goraka ariko dirade.

17. An luzatuko det Dabiden eskubidea, argi bat prestatua daukat nere Kristoarentzat.

18. Bere etsaiak lotsariz estaliko ditut; beragan berriz nere santutasunaren gloriak argi egingo du.

EUNTA OGEITA AMABIGARREN SALMOA

1. Dabiden gradu kantatxoa.

Begira ezazute, zeñ gauza ona eta gozagarria dan; anaiak elkartuta bizitea!

2. Da arako okendu usaitsua bezela; zeñ izanik isuria buruan, dijoan tantoka eroriaz Aaronen bizar beneragarritik beera,

Eta jatxitzen dana, bere soñekoaren ertzeraño,

3. Hermongo mendiaren gañera erortzen dan intza bezela; Siongo mendiaren gañera erortzen dana bezela.

Bada an isuritzen ditu Jaunak bere bendizioak; eta betiko bizitza.

EUNTA OGEITA AMAIRUGARREN SALMOA

1. Graduetako kantatxoa.

Begira, bedeikatu ezazute orain Jauna; Jaunaren serbitzari guztiak.

Jaunaren etxean zaudetenak; gure Jaungoikoaren etxeko atarietan;

2. Jaso itzatzute gauetan zuen eskuak santuariorontz; eta bedeikatu ezazute Jauna.

3. Siondik bedeikatu zaitzala; zerua eta lurra egin zituen Jaunak.

EUNTA OGEITA AMALAUGARREN SALMOA

1. Alleluia.

Alabatu ezazute Jaunaren izena, alabatu ezazute, serbitzariak, Jauna.

2. Zaudetenak Jaunaren etxean, gure Jaungoikoaren etxeko atarietan.

3. Alabatu ezazute Jauna, zeren Jauna ona dan. Kantatu zaiozkazute salmoak bere izenari, zeren leuna dan.

4. Zeren Jaunak beretzat autatu zuen Jakob; Israel bere ondadetzat.

5. Zeren nik ezagutu det Jauna andia dala, eta gure Jaungoikoa dala jainko guztien gañetik.

6. Jaunak egin zituen, nai izan zituen gauza guztiak; zeruan, lurrean, itsasoan, eta txit zakon une guzietan.

7. Berak odeiai etorri erazitzen die lurraren ertzetik; eta tximistak euri biurtzen ditu.

Bera da atera erazitzen diena aizeai beren gordelekuetatik.

8. Zauritu zituena Egiptoko lenbizisortuak; gizasemeetatik abereetaraño.

9. Eta egin zituena señaleak eta mirariak zure erdian, o Egipto, Faraonen kontra; eta onen serbitzari guztien kontra.

10. Erreñu asko desegin zituena; eta errege sendoak il zituena,

11. Sehon Amorreoen erregea, eta Og Basango erregea; eta desegin zituen Kanaango erreñu guziak.

12. Eta beren lurra eman zion herenziatzat; herenziatzat Israel bere erriari.

13. O Jauna, zure izena betikoa da, o Jauna, zure oroipena gizaldiz gizaldi izango da.

14. Zeren Jaunak bere erriaren alde juzgatuko du, eta bere serbitzarien erreguakin garaitzen utziko da.

15. Erreñuen idoloak ez dirade, urre eta zillar; gizonen eskuz egindako irudiak baizik.

16. Aoa badute, baña ez dute itzik egingo. Begiak, baña ez dute ikusiko.

17. Belarriak dauzkate, eta ez dute adituko, zeren beren aoan, bizitzako espirituik ez dagoan.

18. Beren antzekoak izan bitez egiten dituztenak, eta berakgan itxedotzen duten guztiak.

19. Israelko etxea, bedeikatu ezazu Jauna. Aaronen etxea, bedeikatu ezazu Jauna.

20. Lebiren etxea, bedeikatu ezazu Jauna; Jaunaren beldur zeratenak, bedeikatu ezazute Jauna.

21. Siondik bedeikatua izan bedi; Jerusalenen bizi dan Jauna.

EUNTA OGEITA AMABOSGARREN SALMOA

1. Alleluia.

Alabatu ezazute Jauna, zeren ona dan, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

2. Alabatu ezazute jainkoen Jainkoa, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

3. Alabatu ezazute jaunen Jauna, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

4. Mirari andiak bakarrik egiten dituena, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

5. Bere jakinduriarekin zeruak egin zituena, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

6. Lurra uren gañean sendo jarri zuena, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

7. Argigille andi bi egin zituena, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

8. Eguzkia egunaren agintari izateko, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan;

9. Illargia eta izarrak gauaren agintari izateko, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

10. Egipto bere lenbizisortu guztiakin zauritu zuena, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

11. Beren erditik Israel atera zuena, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

12. Esku sendo eta beso goratuarekin, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

13. Bi zatitan itsaso Gorria berezitu zuena, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan;

14. Eta bere erditik Israel atera zuena, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

15. Eta astindu zituena Faraon eta bere ejerzitua itsaso gorrian, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

16. Bere erria basomortutik zuzendu zuena, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

17. Errege andiak zauritu zituena, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

18. Eta errege sendoak il zituena, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

19. Sehon Amorreoen erregea, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.
20. Eta Og Basango erregea, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.
21. Eta beren lurra herenziatzat eman ziena, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.
22. Herenziatzat Israel bere serbitzariari, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.
23. Zeren gure umiltasunean gurekin oroitu zan, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.
24. Eta atera ginduena gure etsaien mendetik, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.
25. Bizia duen guztiari janaria ematen diona, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan:
26. Alabatu ezazute zeruko Jaungoikoa, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.
27. Alabatu ezazute Jaunen Jauna, zeren bere urrikaltasuna betikoa dan.

EUNTA OGEITA AMASEIGARREN SALMOA

Dabiden salmoa, Jeremiasentzat.
1. Babiloniako ibaien aldean, an eseri giñan, eta negar egin genduen; oroitzen giñanean zurekin, o Sion.
2. Bere erdian saratzetatik esekita, jarri genduen gure organuak.
3. Katibu eraman gindutenak, berak eskatzen ziguten; kantatu genezazkiela gure kantatxoak.
Indarrez eraman ginduenak, esan ziguten: Kantatu zaguzute Siongo kantatxoetako himno bat.
4. Nola kantatuko degu Jaunaren kantatxoa, erri arrotzean?
5. Baldin ni, o Jerusalen, zurekin aztuko banintza; aztuta gelditu dedilla nere eskuia.
6. Nere mingaña aosapaiari itsatsia gelditu dedilla, zure .. oroituko ez banintza,
Izango ez balitza Jerusalen; nere poz guztiaren gai ta asiera.
7. Oroitu zaite, o Jauna, Edomgo semeakin; zeñak Jerusalenen galmeneko egunean,
Esaten zuten: Arrasatu, arrasatu ezazute zimenduetaraño.
8. Babiloniako alaba zorigaistokoa! Doatsua izan dedilla zuri ematen dizuna, guri padezituerazi ziguzunaren ordaña.
9. Doatsua izan dedilla; zure aurtxo txikiai eltzen diena, eta puskatzen dituena aitz baten kontra.

EUNTA OGEITA AMAZAZPIGARREN SALMOA

1. Dabid berarena.
Nere biotz guzitik, o Jauna, alabatuko zaitut, nere aoko eskariak aditu ziñituelako.
Aingeruen aurrean himnoak kantatuko dizkizut,
2. Zure tenplo santuan adoratuko zaitut, eta zure izenari alabantzak emango diozkat;
Zure urrikaltasun eta egiagatik, zeren gauza guztiez gañetik, goratu dezu zure izen santua.
3. Ots egiten dizudan edozeñere egunean, aditu nazazu, zuk geituko dezu nere animako sendotasuna.
4. Alabatu zaitzatela, Jauna, lurreko errege guztiak, zeren zure aoko itz guztiak aditu zituzten.
5. Eta Jaunaren bideetan kantatu bezate, Jaunaren gloria andia dala,
6. Goratua dala Jauna, eta beeko gauzai begiratzen diela, eta urrutitikan ezagutzen dituela, goietako gauzak.
7. Naigabearen erdian aurkitzen banaiz ere, zuk sendotuko nazu, zeren nere etsaien sumintasunaren kontra luzatu zenduen zure eskua, eta zure eskuiak salbatu ninduen.
8. Jaunak emango du nigatik ordaña. O Jauna, zure urrikaltasuna betikoa da, zure eskuakin egindako obrak, ez itzatzu mezpreziatu.

EUNTA OGEITA EMEZORTZIGARREN SALMOA

1. Atzenerako, Dabiden salmoa.
O Jauna, probatu ninduzun; eta ezagutu ninduzun.
2. Zuk dakizu egiten dedan guztia; naiz geldi nagoenean, naiz nabillanean.
3. Urrutitikan aditu dituzu nere gogorazioak, nere bidetxidorra eta nere neurri soka esamiñatu dituzu.
4. Eta nere bide guztiak lendanaz ikusi dituzu, nik itzik batere egin gabe ere.
5. Ona non, o Jauna, zuk ezagutu ziñituen gauza guztiak; atzenekoak eta anziñakoak, zuk egin ninduzun; eta jarri zenduen zure eskua nere gañean.
6. Miragarria agertu da zure jakinduria nigan, sendotu da, eta berarekin ezingo det nik.
7. Nora joango naiz ni zure espirituagandik; eta zure aurretik, nora iges egingo det?

8. Zerura igotzen banaiz, zu an zaude, infernura jatxitzen banaiz, an arkitzen zaitut.

9. Egunsentian egoak ipiñiko banitu, eta joango banintza itsasoaren atzeneko mugetara,

10. An ere zure eskuak zuzenduko nau; eta lagunduko dit zure eskuiak.

11. Eta esan nuen: Aurki illuntasunak estaliko naute, baña gaua argi biurtuko da, ni agertzeko nere gozotasunen erdian.

12. Zeren illluntasunak ez dira zuretzat izango, eta gaua izango da eguna bezin argia, illuna eta argia zuretzat berdiñak dira.

13. Zu zera nere gurarien jabea, nere amaren sabeletik zure kontura artu ninduzun.

14. Alabatuko zaitut, txit miragarriro izan zeralako goratua, arrigarriak dirade zure obrak, eta nere animak txit ongi ezagutzen ditu.

15. Nere ezur, ezkutuan egiñak ziradenetatik bat ere ez zatzu izan zuri ezkutatua, ez nere izate, lurraren erraietan formatua.

16. Oraindikan ni moldakaitza nengoan, eta alaere zure begiak ikusten ninduten. Guztiak zure liburuan eskribatuak daude, egunak joan eta etorriko dira, eta batere ez da izango eskribatu gabe utzia.

17. Baña neregango, o Jaungoikoa, txit onratuak izan dirade zure adiskideak, beren agintaritza txit andia izatera allegatu da.

18. Kontatuko ditut, eta ondarra baño geiagoan ugarituko dira. Jaiki nintzan, eta oraindikan zurekin nago.

19. Iltzen badituzu, o Jaungoikoa, bekatariak, gizon odolgiroak, alde ezazute nigandik.

20. Esaten dezutelako zuen gogorazioan, alperrik artuko dituzte zure erriak.

21. Ez al nituen nik, o Jauna, gorrotatzen, zu gorrotatzen zindutenak? Eta ez al nuen nere barrenen gogait egiten, zure etsaiak gatik?

22. Gorroto osoarekin aier nintzaien, eta nere etsaiai bezela, begiratu nien.

23. Probatu nazazu, o Jaungoikoa, eta iduki ezazu nere biotzaren berri, galde zadazu, eta ezagutu itzatzu nere bide txidorrak.

24. Eta begira ezazu, ote dagoan nigan gaiztakeriako biderik, eta betiko bidetik zuzendu nazazu.

EUNTA OGEITA EMERETZIGARREN SALMOA

1. Atzenerako, Dabiden salmoa.

2. Libratu nazazu, o Jauna, gizon gaiztoagandik; libratu nazazu gizon biurriagandik.

3. Biotzean gaiztakeriak gogoratzen zituztenak; egun guztian gudak prestatzen zituzten.

4. Zorroztu zituzten beren miñgañ, suga biborenak bezelakoak, suga lotarien berenoa da, beren azpian daukatena.

5. Gorde nazazu, o Jauna, bekatariaren eskutik, eta gizon gaiztoetatik libra nazazu,

Zeñak lurrera bota nai nauten.

6. Urgullutsuak lakioa ezkutuan jarri zidaten.

Beren sareak zabaldu zituzten, ustekabean ni arrapatzeko, bidearen aldean beaztopoak jarri zizkidaten.

7. Esan nion Jaunari: Nere Jaungoikoa zu zera, aditu ezazu, o Jauna, nere erreguaren boza.

8. Jauna, Jauna, nere salbaziorako sendotasuna, nere buruaren gañean itzala egin zenduen, gerrako egunean.

9. Ez nazazu, o Jauna, jarri bekatariaren eskuetan nere gurariaren kontra, nere kontra asmazioetan dabiltza, ez nazazu utzi, garaitza..kin atera ez ditezen.

10. Inguruan jartzen dizkidaten naste guztiak, beren ezpañetako lanak; beren gañera eroriko dira.

11. Beren gañera txingarrak eroriko dira; sutara botako dituzu, galduko dira ondamenez beteak.

12. Gizon berritsuari etzaio lurrean ongi joango. Gizon gaiztoa arrapatuko dute gaitzak bere galmenerako.

13. Nik dakit ziertoro Jaunak bere kontura artuko dituela nork lagundu ez daukatenen gauzak; eta beartsuen bengantza.

14. Eta ala justoak alabatuko dute beti zure izen santua, eta gizon onak egongo dira zure arpegiari begira.

EUNTA BERROGEIGARREN SALMOA

1. Dabiden salmoa.

O Jauna, deadarrez zuri ots egin dizut, aditu nazazu, entzun ezazu nere boza, zuri ots egiten dizudanean.

2. Igo beza nere orazioak zure aurrera inzensoak bezela, nere eskuen jasoera izan bedi, arratsaldeko eskeñtza bezela.

3. Jarri zaiozu, o Jauna, nere aoari gordetzalle bat, eta nere ezpañai, inguru guztian itxita idukitzeko ate bat.

4. Ez ezazu zeartu nere biotza itz gaiztoetara, bekatuetan aitzakiak billatzeko,

Gizon gaiztoak egiten duten bezela. Ez det nai beren bozkarioen partale izan.

5. Justoak urrikaltasunarekin zuzenduko nau, eta errierta egingo dit, baña bekatariak ez du iñoiz nere burua olioz igortziko.

Zeren nere orazioa ere, beren gogoko diran gauzen kontra izango da.

6. Galdu ziran beren agintariak; aitzen kontra zatituta.

Adituko dute, nola nere itzak eragilleak izan ziran.

7. Nola erpill andia kanpoan zeatzen dan.

Ala gure ezurrak elkargandik berezituak izan dira, egon giñan ilteko zorian.

8. Baña zuganontz, o Jauna, o Jauna (sic), nere begiak zuzendu dira, zugan itxedon det, ez zadazu bizia kendu.

9. Jarri didaten lakiotik gorde nazazu, eta gaizki egiten bizi diradenen beaztopoetatik.

10. Bekatariak beren sareetan eroriko dira, ni aurrera igarota, beldur gabe gelditzen naizan bitartean.

EUNTA BERROGEITA BATGARREN SALMOA

1. Dabiden aditza Koban zegoanean, Orazioa.

2. Nere bozarekin deadarrez ots egin nion Jaunari, nere bozarekin erregutu nion.

3. Bere aurrean nere orazioa isurtzen det, eta adirazitzen diot nere atsekabea.

4. Nere espiritua indargabetuaz dijoan artean, eta zuk nere bide txidorrak ezagutu ziñituen.

Ni nenbillan bide onetan, lakioa ezkutatu zidaten.

5. Nere gogorazioetan eskuieruntz begiratzen nuen, eta ez zegoan ezagutzen ninduenik.

Ez zitzadan gelditu iges egiteko tokirik; eta ez dago nere bizitzaren alde jarriko danik.

6. Zuri, Jauna, ots egin nizun, esan nuen: Zu zera nere itxedopena, nere ondadea bizien errian.

7. Aditu ezazu nere eskaria, zeren txit umillatua izan naizan.

Libratu nazazu persegitzen nautenetatik; zeren ni baño sendoagoak egin dira.

8. Atera ezazu karzela onetatik nere anima, zure izena bedeikatu dezan, justoak nere zai daude, ordaña eman dizadazun artean.

EUNTA BERROGEITA BIGARREN SALMOA

Dabiden salmoa.

1. Absalon bere semeak persegitzen zionean.

Aditu ezazu, o Jauna, nere orazioa; entzun ezazu zure belarriakin nere erregua zure eskeñtzen egiaren araura, aditu nazazu zure urrikaltasunagatik.

2. Eta etzaite zure serbitzariarekin kontuetan sartu, zeren bizi danik bate ere ez da zure aurrean justotzat agertuko.

3. Zeren etsaiak nere anima persegitu du, beeratu du nere anima lurreraño.

Deserritu nau toki illunetara, orain gizaldi bat danean ill ziradenak bezela.

4. Eta nere espiritua nere gañean atsekabetu da, nastu da nigan nere biotza.

5. Baña oroitu nintzan anziñako egunakin, nere gogoa zure obra guztietan neranbillan. Zure eskuak egindako gauzeetan iduki oi nuen nere gogorazioa.

6. Zuganontz nere eskuak jaso nituen. Urik ez daukan lurra bezela, ala dago nere anima zure gurariz.

7. Agudo aditu nazazu, o Jauna, nere espiritua indargabetu da.

Ez ezazu apartatu zure arpegia nigandik, izan ez nadin oraindandik illen artean kontatua.

8. Adituerazi zadazu goizetik zure urrikaltasuna, zeren zugan itxedon dedan.

Erakutsi zadazu zeñ bidetik ibilliko naizan, nere biotza zuganontz jaso dedan ezkero.

9. Nere etsaietatik, o Jauna, libratu nazazu, zeren zugan billatu det nere igestokia.

10. Erakutsi zadazu zure borondatea egiten, zeren zu nere Jaungoikoa zera.

Zure espiritu onak zuzenduko nau; zuzentasuneko lurrera.

11. Zure izenaren amorioagatik, o Jauna, bizia emango didazu; zure eskeñtzen zuzentasunaren araura.

Aterako dezu estutasunetik, nere anima,

12. Eta zure urrikaltasunagatik desegingo dituzu nere etsaiak;

Eta nere anima atsekabetzen duten guztiak galduko dituzu, zure serbitzaria naizan ezkero.

EUNTA BERROGEITA IRUGARREN SALMOA

Dabiden salmoa.

1. Goliaten kontra.

Bedeikatua nere Jaun Jainko, trebatzen dituena nere eskuak gudarako; eta nere beatzak gerrarako.

2. Bera da nere urrikaltasuna eta nere igestokia, nere laguntzallea eta nere libratzallea.

Nere bitartekoa, eta beragan itxedon det, bera da nere erria nere mendean ipintzen duena.

3. Jauna, zeñ da gizona, bada berari agertu zatzaio? Edo gizonaren semea, bera anbestean idukitzeko?

4. Gizona bekatuagatik utsera biurtu da, bere egunak iragotzen dira itzala bezela.

5. Guganontztu itzatzu zeruak, eta jatxi zaite, ukitu zaiezu mendiai, eta kea botako dute.

6. Distiaerazi zaiezu zure oñazkarrai, eta desegingo dituzu. Aurtiki itzatzu zure saietak, eta geldituko dirade nastuak.

7. Luzatu ezazu zure eskua toki goratutik, atera nazazu, eta libratu nazazu ur askoetatik, seme arrotzen eskutik,

8. Zeñaen aoak arrokeriako itzak esaten dituzten, eta zeñaen eskuak gaiztakeriaz beteak dauden.

9. O nere Jaungoikoa, kanta berri bat kantatuko dizut amar sokako salterio batekin, alabantzako himnoak kantatuko dizkizut.

10. Zuk, ematen diezunak zoriontasuna erregeai, libratu zenduenak Dabid zure serbitzaria, ezpata odolgirotik,

11. Salbatu nazazu,

Eta atera nazazu seme arrotzen eskutik, zeñaen aoak esan zituen arrokeriako itzak; eta zeñaen eskuak gaiztakeriaz beteak dauden.

12. Zeñaen semeak diran; landare berriak beren gazte denboran bezela.

Beren alabak apainduak, edertuak inguru guzietatik; tenplo bateko idoloak bezela.

13. Beren janarigelak daude beteak, frutu mota guztiez; gañez egiten dutela.

Beren ardiak umegilleak; talde andietan ateratzen dira bazkatzera.

14. Beren beiak gizenak,

Ez dago zulorik, ez iragotzeko tokirik beren esietan, ez negarrezko deadarrik beren karrikaetan.

15. Doatsua deitu diote, gauza oiek dauzkan erriari, doatsua, Jauna bere Jaungoikotzat daukan erria.

EUNTA BERROGEITA LAUGARREN SALMOA

1. Dabid beraren alabantza.

Goratuko zaitut, o Jaungoiko nere erregea, eta bedeikatuko det zure izena oraindandik, eta gizaldien gizaldietan.

2. Egun guztietan bedeikatuko zaitut, eta alabatuko det zure izena, orain emen lurrean, eta gero beti.

3. Jauna andia da, eta txit alabagarria, eta bere anditasunak ez dauka mugarik.

4. Gizaldi guztiak zure obrak alabatuko dituzte; eta adiraziko dute zure eskubidea.

5. Zure gloria santuko anditasunaren gañean itz egingo dute, eta kontatuko dituzte zure mirariak.

6. Eta esango dute, zeñ beldurgarria dan zure eskubidea, eta zure anditasuna kontatuko dute.

7. Zure biguntasunaren ugaritasunaren gañean aspertu gabe, eta ao betean itz egingo dute, eta zure zuzentasunaren pozez gora goraka ariko dira.

8. Biguña da Jauna, eta urrikaltsua; iragopen andikoa, eta txit barkatzallea.

9. Leuna da Jauna guzientzat, eta bere urrikaltasunak bere obra guztiez gañetikoak.

10. Alabatu zaitzatela, o Jauna, zure obra guztiak; eta zure santuak bedeikatu zaitzatela.

11. Esango dute zeñ andia dan zure erreñuko gloria; eta zure eskubidearen gañean itz egingo dute,

12. Adirazteko gizonen semeai zure eskubidea; eta zure erreñuko anditasun gloriaz betea.

13. Zure erreñua gizaldi guztietako erreñua da, eta zure agintaritzak irautzen du mendez mende.

Leiala da Jauna bere itz guzietan, eta santua bere obra guztietan.

14. Jasotzen ditu Jaunak erortzen diraden guziak; eta zuzentzen ditu errenkuraren bat daukaten guztiak.

15. Guztien begiak zugan itxedotzen dute, o Jauna; eta zuk ematen diezu beren janaria denbora egokian.

16. Zuk idikitzen dezu zure eskua; eta abere guztia bendizioz betetzen dezu.

17. Justoa da Jauna bere bide guztietan; eta santua bere obra guztietan.

18. Jauna dago, ots egiten dioten guztien aldean, egiaz ots egiten diotenenean.

19. Bere beldur diradenen borondatea egingo du; eta adituko du beren erregua, eta salbatuko ditu.

20. Jaunak zaitzen ditu bera maitatzen duten guztiak, eta bekatari guztiak desegingo ditu.

21. Nere aoak Jaunaren alabantzaren gañean itz egingo du, eta aragi guziak bere izen santua bedeikatu beza gizaldiz, eta gizaldiaren gizaldiz.

EUNTA BERROGEITA BOSGARREN SALMOA

1. Alleluia Aggkoena eta Zakariasena.

Alabatu ezazu Jauna, o nere anima, alabatuko det Jauna bizi naizan artean, izatea daukadan artean kantatuko diozkat salmoak nere Jaungoikoari.

Ez ezazute itxedon lurreko andizkietan,

3. Gizonen semeetan; zeñak ez daukaten osasuna beren eskuetan.

4. Aterako da gorputzetik beren espiritua, eta berak auts biurtuko dira. Egun artan utsean geldituko dirade, beren gogorazio guztiak.

5. Doatsua hura, zeñak daukan laguntzalletzat Jakoben Jaungoikoa bere itxedopena jarrita duakana bere Jaun Jaungoiko,

6. Zeruaren eta lurraren, itsasoaren, eta beretan dauden gauza guztien Egilleagan.

7. Zeñak beti gordetzen duen bere eskeñtzen egia, egiten dien justizia injuriaren bat sufritzen dutenai, ematen die jaten gose diradenai.

Jaunak azkatzen ditu lotuta dagozanak.

8. Jaunak arkitzen ditu itxuak.

Jaunak altxatzen ditu eroriak, Jaunak maitatzen ditu justoak.

9. Jaunak zaitzen ditu arrotzak, laguntzen die umezurtzari eta andre alargunari, eta desegingo ditu bekatarien asmazioak.

10. Jaunak aginduko du gizaldietan; zure Jaungoikoak, o Sion, mendez mende.

EUNTA BERROGEITA SEIGARREN SALMOA

1. Alleluia.

Alabatu ezazute Jauna, zeren gauza justoa da berari himnoak kantatzea. Kantatua izan bizaio gure Jaungoikoari, bere gogoko, eta bere diña dan kanta bat.

2. Jaunak Jerusalen egiten duenean; bilduko ditu Israelko seme, barreiatuak dabiltzanak.

3. Bera da sendatzen dituena biotzez damutuak daudenak; eta lotutzen dituena beren zauriak,

4. Izarren talde andia kontatzen duena; eta guztiai beren izenez deitzen diena.

5. Andia da gure Jauna, eta andia bere sendotasuna, eta muga gabekoa bere jakinduria.

6. Jauna da otsanen laguntzallea; eta bekatariak lurreraño beeratzen dituena.

7. Aurreratu zaitezte Jaunari alabantzak kantatzera, jo zaiozkazute salmoak gure Jaungoikoari zitararekin.

8. Bera da zerua odeiz estaltzen duena, eta onela prestatzen duena euria lurrarentzat.

Mendietan erne erazitzen diona elbitzari; eta belarrari gizonen serbitzorako diraden abereentzat.

9. Zaldiai beren janaria ematen diena; baita ere, berari deadarrez eskatzen dien belekumetxoai.

10. Ez da poztuko zaldiaren indarrean; eztaere gozatuko gizonaren oiñ sendoetan.

11. Jauna gozatzen da bere beldur diradenetan; eta itxedotzen dutenetan bere urrikaltasunean.

EUNTA BERROGEITA ZAZPIGARREN SALMOA

Alleluia.

12. Jerusalen, alabatu ezazu Jauna. Sion, alabatu ezazu zure Jaungoikoa.

13. Zeren berak sendotu ditu zure ateen morrolloak, bedeikatu ditu zure seme, zure barrenen bizi diradenak.

14. Bera da, zure lurrean pakea ipiñi duena; eta iriñ lorez asetzen zaituena.

15. Bera da bere itza lurrera bialtzen duena; bere itzak agudo korrika egiten du.

16. Berak ematen digu elurra, abere illeen malotak bezela, eta zabaltzen du inziarra, autsa bezela.

17. Bialtzen du bere kazkabarra mokadutxoetan bezela, bere otzaren aurrean nor da zutik egongo ditekeana?

18. Bialduko du bere itza eta urtuko ditu, aize bero bat aterako du; eta izango dira ur jarioak.

19. Bera da Jakobi bere itza adirazten diona, bere aginteak, eta erabakiak Israeli.

20. Ez du onelakorik egin beste erreñuakin, eta ez diozkate ere berai agertu bere erabakiak. Alleluia.

EUNTA BERROGEITA ZORTZIGARREN SALMOA

1. Alleluia.

Alabatu ezazute Jauna zuek zeruan zaudetenak, alabatu ezazute goietan zaudetenak.

2. Alabatu ezazute bere aingeru guztiak, alabatu ezazute bere ejerzitu guztiak.

3. Alabatu ezazute, eguzkia eta illargia, alabatu ezazute zuek guztiok, izar argitsuak.

4. Alabatu ezazute zeruen zeruak; eta zeruen gañean dauden ur guztiak,

5. Alabatu bezate Jaunaren izena.

Zeren berak esan zuen, eta gauzak egiñak izan ziran. Berak agindu zuen, eta artu zuten izatea.

6. Jarri zituen iraun zezaten beti eta gizaldien gizaldietan, eman zien, beti gordeko zuten aginte bat.

7. Alabatu ezazute Jauna zuek lurrekoak zeratenak, zuek arrai izugarriak, eta itxasoetako sonda guztiak.

8. Sua, kazkabarra, elurra, orma, aize andiak, zuek bere aginteak kunplitzen dituzutenak.

9. Mendiak, eta muño guztiak, zuaitz frutu emalleak, eta zedro guztiak.

10. Pistiak eta abere guztiak, patari arrastakariak eta egazti egodunak.

11. Lurreko erregeak eta erri guztiak, prinzipeak eta lurreko juez guztiak.

12. Mutil gazteak, eta neskaitz donzellak, gizon edade andikoak, eta aur semeak, izatea daukaten guztiak, kantatu bizazkiote alabantzak Jaunaren izenari,

13. Zeren bakarrik Jaunaren izena da goratua izateko diña.

14. Bere gloriak argi egiten du zeruen eta lurraren gañean, eta bera da bere erriaren eskubidea goratu duena.

Himnoak kantatu bizazkiote bere santu guztiak, Israelko semeak, erri berariaz bereak. Alleluia.

EUNTA BERROGEITA BEDERATZIGARREN SALMOA

1. Alleluia.

Kantatu zaiozute Jaunari kanta berri bat, bere alabantzak aditu bitez santuen batzarrean.

2. Poztu bedi Israel, izatea eman zion Jaunagan, eta Siongo semeak gozatu bitez beren erregeagan.

3. Alabatu bezate bere izena soñu gozatsuakin, eta kantatu bizaiote panderoaren eta salterioaren otsean.

4. Zeren Jaunak errukiz begiratu dio bere erriari, eta goratuko ditu umillak eta salbatuko ditu.

5. Poztuko dira santuak glorian, beren bizilekuetan gozatuko dira.

6. Jaungoikoaren alabantzak egongo dira beren aoetan, eta ao biko ezpatak beren eskuetan,

7. Jaungoikoaren bengantza egiteko errietan, eta erri gaiztoak kastigatzeko.

8. Beren erregeak zepoakin lotutzeko, eta beren andizkiak burnizko kateakin eskuak lotuta ipintzeko.

9. Egiztatzeko berakgan, emana dagoan erabakia: au da gloria bat, bere santu guztientzat gordeta dagoena. Alleluia.

EUNTA BERROGEITA AMARGARREN SALMOA

1. Alleluia.

Alabatu ezazute Jauna bere santuarioan, alabatu ezazute, eseria dagoela bere eskubideko tronuan.

2. Alabatu ezazute bere mirariakgatik, alabatu ezazute bere aditasun goratuagatik.

3. Alabatu ezazute tronpeta soñuarekin, alabatu ezazute salterio eta zitararekin.

4. Alabatu ezazute panderoakin eta soñu gozatsuakin, alabatu ezazute sokazko eta aizezko boliñakin.

5. Alabatu ezazute ots ederreko zinbaloakin, alabatu ezazute pozezko zinbaloakin,

6. Espiritu guztiak alabatu beza Jauna. Alleluia.

SALOMONEN PROBERBIOETAKO LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Salomon Dabiden seme, Israelko erregearen parabolak.

2. Ikasteko jakinduria, eta dotriña.

3. Aditzeko prudenziako itzak, eta artzeko dotriñaren jakinduria, justizia, eta zentzua, eta berdintasuna.

4. Emateko aurrai astruzia, gazteari jakinduria, eta aditza.

5. Aditurik jakintsuak, jakintsuago izango da, eta konprenditzen dituela, izango da lemaen jabe.

6. Azertatuko du parabola, eta azaldaera, jakintsuen itzak, eta beren galde nastuak.

7. Jakinduriaren asiera Jaunaren beldurra da. Zentzugabeak mezpreziatzen dute jakinduria, eta dotriña.

8. Aditu ezazu, ene semea, zure aitaren erakutsia, eta ez ezazu utzi zure amaren legea.

9. Berak izango dira zuretzat koroe bat bezela zure bururako, eta apaingarri bat zure leporako.

10. Ene semea, bekatariak balakuak egiten badizkizute, etzaite berakgandu.

11. Esaten badute: Atoz gurekin, jarri gaitezen azeloan lagun urkoa iltzeko, ezkutatu ditzagun eizareak, zergatik iduki gabe, kulpa gabearen kontra.

12. Iretsi dezagun bizirik, sepulturak gorputz illak iresten dituen bezela, eta guztia osorik leize batean eroriko balitza bezela;

13. Arkituko degu ondasun mota guztia, eta beteko ditugu gure etxeak ango gauza ederrez.

14. Elkartu zaite gurekin; bat bakarra izan bedi gure guztioen bolsa:

15. Ene semea, etzaite berakin ibilli, ez ezazu zure oñik ipiñi beren bideetan.

16. Zeren beren oñak korrika dijoaz gaitzera, eta arin egiten dute odola isuritzera.

17. Baña alperrik botatzen da sarea, egoak dauzkatenen begien aurrean.

18. Berak ere ipintzen dituzte ezkutuan beaztopoak beren bizitzen kontra, eta asmatzen dituzte engañuak, beren animen kontra.

19. Ala zikoitz guztiak dabiltzan bideak, daramazki beren animak, gogorki arrapatuta, betiko galmenera.

20. Jakinduriak kanpoan predikatzen du, eta karrikaetan jasotzen du bere boza.

21. Jende taldeen buruan deadar egiten du, erriko ateen sarreretan ateratzen ditu bere itzak, esaten duela:

22. Noizarteraño, o aurrak, maitatuko dituzute aurkeriak, eta zentzugabeak idukiko dituzte, berentzat kaltegarriak diraden gauzen gurariak, eta prudenziagabeak gorroto izango diote jakinduriari?

23. Konbertitu zaitezte nere errierten indarrera. Begira nere espiritua itsatsiko dizutedala, eta erakutsiko dizutet nere dotriña.

24. Ots egin nizutelako, eta esan zendutelako ezetz, luzatu nizuten nere eskua, eta etzan izan nork begiratu.

25. Mezpreziatu zenduten nere konseju guztia, eta nere erriertai etziñioten kasorikan egin.

26. Nik ere zuen eriotzan farra egingo det, eta iseka egingo dizutet, beldur ziñioten hura etortzen zatzutenean.

27. Ustekabean erortzen zatzutenean atsekabea, eta etortzen zatzutenean galmena, ekaitz bat bezela zuen gañera datorrenean estutasuna, eta ansia.

28. Orduan ots egingo didate, eta ez ditut adituko. Goiz jaikiko dira, eta ez naute arkituko,

29. Gorroto iduki ziotelako erakutsiari, eta Jaunaren beldurra etzutelako artu,

30. Etzituztela aditzen nere konsejuak, eta gaizki esaten zutela nere errierta guztiakgatik.

31. Jango dituzte bada beren bideko frutuak, eta beren konsejuz aseko dirade.

32. Alde egiteak aur biurtutako oietatik, ilko ditu, eta zentzugabekoen ongi izateak, galduko ditu.

33. Ni aditzen nauenak berriz, beldur gabe atsedengo du, eta ugaritasunean igeri egingo du; gaitzen beldurra kendurik.

BIGARREN KAPITULUA

1. Ene semea, artuko baziñitu nere itzak, eta ezkutatuko baziñitu zure barrenen nere aginteak,

2. Zure belarriak jakinduria adituko duten eran, etsigi ezazu zure biotza prudenzia ezagutzera.

3. Zeren ots egingo baziñioke jakinduriari, eta makurtuko bazeneza zure biotza prudenziarontz,

4. Billatuko bazeneza dirua bezela, eta aterako bazeneza obitua dagoen tokitik tesoroak bezela,

5. Orduan adituko dezu Jaunaren beldurra, eta arkituko dezu Jaungoikoaren jakinduria.

6. Zeren Jaunak ematen du jakinduria; eta bere aotik prudenzia eta ezaguera.

7. Bera da zuzenen osasunaren gordetzallea, eta tolesgabetasunean dabiltzanen laguntzallea,

8. Irauneraziten diena zuzentasuneko bidetxidorrai, eta santuen bideak gordetzen dituena.

9. Orduan adituko dezu bidetxidor on guztiaren justizia, eta juizioa, eta berdintasuna.

10. Zure biotzean jakinduria sartuko balitza, eta jakinduria balitza zure animaren gogoko gauza,

11. Konsejuak zaituko zaitu, eta prudenziak irauneraziko dizu.

12. Bide txarretik libratu zaitezen, eta gauza gaiztoak esaten dituen gizonagandik.

13. Bide zuzena utzitzen dutenak, eta bide illunetatik dabiltzanak.

14. Gaizki egiten dutenean gozatzen diranak, eta pozez gora goraka ari diradenak gauza txit gaiztoetan.

15. Zeñaen bideak biurriak diraden, eta beren pausoak desonratuak.

16. Besteren andreagandik libratu zaitezen, baita ere itz labañak esaten dituen andre arrotzagandik,

17. Eta bere larrañarako gialaria utzitzen duenagandik,

18. Eta bere Jaungoikoaren elkartasunarekin aztu danagandik. Zeren bere etxea eriotzarontz makurtua dago, eta bere bidetxidorrak infernuetarontz.

19. Beragana sartzen diraden guztiak, ez dira itzuliko, eta ez dituzte berriz artuko bizitzako bideak.

20. Bide onean zu ibilli zaitezen, eta justoen bidetxidorrak zaitu ditzatzun.

21. Zeren zuzenak diradenak, biziko dirade lurrean, eta tolesgabeak beratan iraungo dute.

22. Gaiztoak berriz lurretik desegiñak izango dirade; eta gaiztakeria egiten dutenak, beratatik kenduak izango dirade.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Ene semea, nere legeaz etzaite aztu, eta gorde itzatzu zure biotzean nere aginteak,

2. Zeren berak geituko dizkizute bizitzako egunak, urteak, eta pakea.

3. Ez bitzate zugandik alderik egin urrikaltasunak eta pakeak. Ipiñi itzatzu zure eztarriaren inguruan, eta jarri itzatzu itsatsita zure biotzeko oletan,

4. Eta arkituko dezu grazia eta iritzi ona Jaungoikoaren eta gizonen aurrean.

5. Zure biotz guzitik iduki ezazu itxedopena Jaunagan, eta etzaite irozo zure zentzuan.

6. Zure bide guzietan bera gogoan erabilli ezazu, eta berak zuzenduko ditu zure pausoak.

7. Etzaite jakintsua izan zerorregan, Jainkoaren beldur izan zaite, eta alde egin ezazu gaitzetik.

8. Onela idukiko du zure aragiak osasun sendoa, eta zure ezurrak ezadez beteak egongo dirade.

9. Onratu ezazu Jauna zure aziendarekin, eta eman zaiozkazu berari zure frutuen lenbizietatik,

10. Eta asetasunez beteko dira zure aletegiak, eta zure dolareak ardoz gañez egingo dute.

11. Ez ezazu, ene semea, zugandik bota Jaunaren itz, gaitza zuzentzen duena, eta etzaite ere desalaitu, berak errierta egiten dizunean.

12. Zeren, Jaunak, maitatzen duena kastigatzen du, eta aita bat bere semeagan bezela, ala gozatzen da beragan.

13. Zorionekoa, jakinduria arkitu duen gizona, eta zentzua ugari daukana.

14. Bere jabe eginik gelditzea, obe da, zillarraren merkataritza baño, eta bere frutuak, urrerik onenaren eta garbienarenak baño obeagoak.

15. Balio andiagokoa da aberastasun guztiak baño, eta gura izan ditezken gauza guztiak, ezin litezke berarekin konparatu.

16. Bere eskuiko eskuan dakar bizitza luzea, eta bere ezkerreko eskuan aberastasunak, eta gloria.

17. Bere bideak, bide ederrak, eta bere bidetxidor guztiak paketsuak.

18. Bizitzako zuaitza da, iritxiten dutenentzat, eta zorionekoa da bera itsatsita daukana.

19. Jaunak jakinduriarekin fundatu zuen lurra, jarri zituen eginda zeruak zentzuarekin.

20. Bere jakinduriagatik jarioan jarri ziran urezko jatorri ugariak, eta odeiai intza dariote.

21. Ene semea, ez bezate alderik egin zure begien aurretik gauza oiek; gorde ezazu legea eta nere konsejuak.

22. Eta zure animak idukiko du bizia, eta zure eztarriak grazia ederra.

23. Orduan ibilliko zera itxedopenarekin zure bidean, eta zure oñak ez du beaztoporik egingo.

24. Lo egiten badezu, etzera beldur izango, atsedengo dezu, eta gozoa izango da zure loa.

25. Ez ezazu batbateko izuaren beldurrik iduki, ezta zure gañera etorri litezken gaiztoen eraso sendoenik ere.

26. Zeren Jauna egongo da zure aldean, eta zaituko du zure oña, arrapatua izan etzaitezen.

27. Etzaiozu galerazi on egitea, al duenari. Al badezu, zuk ere egin ezazu.

28. Etzaiozu esan zure adiskideari: Zoaz, eta itzuli zaite, biar emango dizut, gaur eman zenezaiokenean.

29. Etzaite ibilli zure adiskideari gaitz egiteko asmazioetan, berak zugan itxedopena daukan ezkero.

30. Etzaite elean aritu arrazoi gabe, gaitzik batere egin ez dizun gizon huraren kontra.

31. Ez ezazu gizon gaiztoaren enbidiarikan iduki, eta etzaiezu ere bere bideai jarraitu.

32. Zeren Jaunaren nazka da burlari guzia, eta bere izketa tolesgabeakin.

33. Jaunak sartzen du premia, gaiztoaren etxean; justoen bizilekuak berriz bedeikatuak izango dirade.

34. Berak burla egingo die burlariai, eta otsanai emango die grazia.

35. Gloriaren jabe izango dira jakintsuak, jakinduria gabeen gora igoera, lotsaria.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Aditu itzatzute, ene semeak, aita baten erakutsiak, eta arretaz zaudete zentzua ikasteko.

2. Doai on bat emango dizutet, ez ezazute nere legea utzi.

3. Zeren ni ere nintzan nere aitaren semea, samurtxoa, eta bakarra nere amaren aurrean.

4. Eta ematen zizkidan erakutsiak, eta esaten zidan: Artu bitza zure biotzak nere itzak, gorde itzatzu nere aginteak, eta biziko zera.

5. Egin ezazu alegiña jakintsua izateko, eta zentzua iritxitzeko, eta etzaite aztu nere aoko itzakin, eta ez ezazu beretatik alderik egin.

6. Ez ezazu utzi jakinduria, eta berak zaituko zaitu. Maitatu ezazu, eta bera izango da zure salbazioa.

7. Jakinduriaren asiera da bere jabe izatera allegatzeko nekatzea, eta dauzkazun gauza guztiakin egin ezazu alegiña, zentzutua izatera allegatzeko.

8. Zugan dan guztia egin ezazu bera iritxitzeko, eta berak goratuko zaitu. Berak gloriaz betea izango zera, bera laztantzen dezunean.

9. Emango dizkizu zure bururako apaingarri ederrak, eta ipiñiko dizu koroa txit argitsu bat.

10. Aditu ezazu, ene semea, eta artu itzatzu nere itzak, zure bizitzako urteak ugaritu ditezen.

11. Erakutsiko dizut jakinduriako bidea, berdintasuneko bidetxidorretatik zuzenduko zaitut,

12. Zeñaetan zu sartu ezkero, ez dira estutuko zure pausoak, eta korrika ibillirik, ez dezu beaztoporik idukiko.

13. Iduki itzatzu elduta erakutsiak, etzaiozkazu utzi, gorde itzatzu, zeren berak dirade zure bizia.

14. Etzaite gozatu gaiztoen bidetxidorretan, eta ez bedi ere izan zure gogokoa gaiztoen bidea.

15. Iges egin ezazu beratatik, eta etzaite andik irago. Alde egin ezazu, eta utzi ezazu.

16. Zeren gaiztoak ez dute lorik egiten, lenago gaitzen bat egin ez badute, eta lenago norbait galdu ez badute, ezin loak artu ditu.

17. Gaiztakeriako ogia jaten dute, eta biurrikeriako ardoa edaten dute.

18. Justoen bidetxidorra berriz da argi eder, geituaz dijoan, eta egunaren erdiraño azitzen dan bat bezelakoa.

19. Gaiztoen bidea illuna da, non eroriko diran ez dakite.

20. Ene semea, aditu itzatzu nere itzak, eta zeartu ezazu zure belarria nere esanetara.

21. Ez bezate alderik egin zure begietatik, gorde itzatzu zure biotzaren erdian.

22. Zeren arkitzen dituztenentzat bizitza dirade, eta aragi guztiarentzat osasuna.

23. Arreta guztiarekin gorde ezazu zure biotza, zeren beratatik dator bizitza.

24. Alde erazi zaiozu zugandik mingañ gaiztoari, eta ezpañ murmuratzalleak zugandik urrutian egon bitez.

25. Zure begiak gauza zuzenak ikusi bitzate, eta zure betazalak joan bitez zure pausoen aurretik.

26. Zuzendu ezazu bidetxidorra zure oñentzat, eta zure bide guztiak sendoak izango dirade.

27. Etzaite zeartu eskuiera, ez ezkerrera. Alderazi zaiozu zure oñari gaitzetik, zeren Jaunak maitatzen ditu eskuiean dauden bideak; ezkerretik dauden bideak berriz galmeneko bideak dirade. Berak berriz egingo du zure bidea zuzena izan dedilla, eta zure bidean aurrera ongi joan zaitezela.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Zaude arretaz, ene semea, nere jakinduriak erakusten dizunera, eta zeartu ezazu zure belarria nere zentzuaren esanetara;

2. Nere konsejuak gorde ditzatzun, eta nere erakutsiak zure ezpañetatik alderik egin ez dezaten. Ez itzatzu aditu emakumearen labañkeriak.

3. Zeren bordionaren ezpañak dira, eztia darioten abaraska bat bezela, eta bere itzak dira olioa baño leunagoak.

4. Bere atzenak berriz dira samiñak asensioa bezela, eta zorrotzak ao biko ezpata bezela.

5. Bere oñak eriotzara jetxitzen dirade, eta bere pausoak sartzen dirade infernuetaraño.

6. Bizitzako bidetik ez dabiltza, aldakorrak dira bere pausoak eta aditueziñak.

7. Orain bada, ene semea, aditu nazazu, eta ez ezazu alderik egin ematen dizkizudan erakutsietatik.

8. Urrutira iges egin ezazu beragandik, eta etzaite alderatu bere etxeko ateetara.

9. Etzaiozu eman zure onra besteren emakumeari, ezta ere zure urteak emakume biotz gogorreko bati,

10. Baldin ez badezu nai arrotzak aberastu ditezen zure ondasunakin, eta beste baten etxera joan ditezela zure izerdiakin irabaziak.

11. Eta negar egin ez dezazun zure atzeneko egunetan, galdu dituzunean zure aragiak, eta zure gorputza, eta esaten dezunean:

12. Zergatik gorrotatu nuen nere gaiztakeriak zuzentzen zituena; eta etziena oben egin nere biotzak erriertai,

13. Eta ez nuen ere aditu erakutsiak ematen zizkidatenen boza, eta ezta ere zeartu nere belarria erakusleakgana?

14. Gauza gaizto guztian baño ez asko gutxiagoan arkitu nintzan, elizaren eta sinagogaren erdian.

15. Edan ezazu zure urpetegiko ura, eta zure putzuko jario ugariak.

16. Gañez egin bezate zure urjatorriak; eta zabaldu bitez zure urak plazetatik.

17. Iduki itzatzu zuk bakarrik, eta arrotzak ez bitzate izan beretan partale.

18. Izan bedi bedeikatua zure zaña, eta poztu zaite zure gazte denborako emaztearekin.

19. Izan bedi oreñ emea bezela txit maitatua, eta oreñkumetxo ar txit polita bezelakoa. Bere pozkeriak orditu zaitzala denbora guztian; bere amorioan billatu ezazu beti zure gozotasuna.

20. Zergatik, ene semea, utziko zera besteren emakumeak engañatzen, eta atsedengo dezu besteren emakumearen altzoan?

21. Jauna dago arretaz begira gizonaren bideai, eta astiro dauzka gogoan bere pauso guztiak.

22. Bere gaiztakeriak arrapatzen dute gaiztoa, eta bere bekatuen lokarriakin da estutua.

23. Bera ilko da, etzuelako iduki erakutsi onik, eta bere zorakeria ugarian engañatua izango da.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Ene semea, zure adiskidearen fiatzalle jarri bazera, lotu dezu zure eskua arrotz batekin.

2. Zure aoko itzakin izan zera lakioan nastua, eta zure esanakin arrapatua.

3. Egin ezazu bada, ene semea, esaten dizudana, eta libratu zaite zerori, zure projimoaren eskuetan erori zeran ezkero. Korrika aritu zaite toki batetik bestera, ibilli zaite arin, esnatu ezazu zure adiskidea.

4. Etzaiezu utzi lorik egiten zure begiai, ez itxiten logalez zure betazalai.

5. Iges egin ezazu oreñak bezela bere eskutik, eta egaztiak bezela eiztariaren eskutik,

6. Zoaz txindurriagana, o alferra, eta konsideratu itzatzu bere bideak, eta ikasi ezazu jakinduria.

7. Txindurriak ez idukirik zuzentzallerik, ez erakuslerik, ez gialaririk,

8. Prestatzen du beretzat janaria udan, eta uztako denboran biltzen du jango duena.

9. Noizarteraño, alferra, egongo zera lotan? Noiz jaikiko zera zure lotatik?

10. Piskatxo batean egongo zera lotan, piskatxo batean egongo zera logalez, piskatxo batean idukiko dituzu eskuak gurutzez lo egiteko,

11. Eta ona non etorriko dan zure gañera premia bideko lapurra bezela, eta pobreza gizon armadun bat bezela. Zurra bazera berriz, zure uztak, iturrija bezelakoak izango dirade, eta premiak urrutira zugandik iges egingo du.

12. Fedea ausi duen gizona da gizon txit kaltegarri bat, ez du gaiztakeria baizik esaten.

13. Begiakin keñu egiten du, oñakin egiten ditu siñuak, beatzakin itz egiten du.

14. Biotz gaiztoarekin gaitz egiteko asmazioetan ari da, eta denbora guztietan da pakegaltzalle bat.

15. Oni ustekabean bere galmena etorriko zaio, eta batbatean piskatua geldituko da, sendagarririkan onezkero idukiko ez duen eran.

16. Sei dirade Jaunak gorrotatzen dituen gauzak, eta zazpigarrena aier du bere animak,

17. Begi goratuak, mingañ gezurtia, obengabeko odola isurtzen duten eskuak,

18. Gauza gaiztoak nola egin asmatzen egon oi dan biotza, gaitzera korrika joateko ariñak diraden oñak,

19. Gezurrak esaten dituen testigu falsoa, eta anaien arteko pakegaltzallea.

20. Gorde itzatzu, ene semea, zure aitaren aginteak, eta ez ezazu utzi zure amaren legea.

21. Iduki itzatzu beti lotuta zure biotzean, eta ipiñi itzatzu zure eztarriaren inguruan.

22. Ibiltzen zeranean, joan bitez zurekin; lotan zaudenean, zaitu zaitzatela; eta esnatzen zeranean, berakin itz egin ezazu.

23. Zeren agintea, zuzia da, eta legea argia, eta onean iraun erazitzeko errierta, bizitzako bidea.

24. Gorde zaitzaten emakume gaiztoagandik, eta besteren emakumearen mingañ labañetik.

25. Ez beza iduki zure biotzak bere edertasunaren gurarik, eta etzaitezela ere izan bere keñuak arrapatua.

26. Zeren bordion baten balioa ozta da ogi batena: emakumeak berriz mendean artzen du gizonaren anima baliotsua.

27. Gizonak ezkutatu al lezake sua bere kolkoan, bere soñekoak erazekiak geldituko ez diran eran?

28. Edo ibilli txingarren gañean, bere oñazpiak erre gabe?

29. Ala bere projimoaren andreagana sartzen dana, ez da garbi egongo ukitzen dionean.

30. Ez da bekatu ain andia batek zerbait ostutzea, zergatik eze ostutzen du bere gosea asetzeko.

31. Alaere arrapatzen badute, pagatuko du zazpitan anbat, eta gañera bere etxean daukan guztia emango du.

32. Baña adulteroa danak bere biotz txikiagatik bere anima galduko du.

33. Biltzen du beretzat izen gaiztoa, eta desonra, eta bere lotsaria ez da beñere borratuko.

34. Zeren senarraren zeloak eta sumintasunak ez diote barkatuko, bengatzeko era arkitzen duenean.

35. Ez da ere paketuko iñoren erreguakgatik, eta ez ditu ere artuko doañak ordañean, oiek txit asko izan arren.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Ene semea, gorde itzatzu nere itzak, eta zure barrenen nere aginteak ezkutatu itzatzu. Ene semea,

2. Gorde itzatzu nere mandamentuak, eta biziko zera, eta nere legea zure begiko ninia bezela.

3. Lotu ezazu zure beatzetan, eskribitu ezazu zure biotzeko oletan.

4. Esan zaiozu jakinduriari: Nere arreba zera zu; eta zentzuari, zure adiskidea deitu zaiozu,

5. Emakume arrotza gandik gorde zaitzan, eta bere itzak gozotzen dituen besteren emakumeagandik.

6. Zeren nere etxeko leiotik begiratu nuen leiakeretatik,

7. Eta ikusirik aur gizon batzuek, nago mutil gazte zentzugabeko bati begira,

8. Zeñ iragotzen zan plazatik kantoiaren aldetik, eta zebillan batetikan bestera emakume gaizto aren etxearen aldean.

9. Illunean, eguna gautuaz zijoanean, gabaren illuntasunetan eta argigean.

10. Eta ona non irtetzen zaion bidera emakume bat, bordion baten apaindurian, animak arrapatzeko prestatua, berritsua, eta ibiltatua,

11. Atseden ezin duena, zeñaen oñak etxean geldirik egon ezin ditezken.

12. Azeloan egon oi dana batzuetan kanpoan, beste batzuetan plazetan, eta beste batzuetan kantoietan.

13. Eta eldurik mutil gazteari, musu ematen dio, eta arpegi lotsagalduko batekin, egiten diozka pozkeriak esaten duela:

14. Doañak eskeñi ditut zure osasunagatik, gaur kunplitu ditut nere botoak.

15. Argatik irten natzatzu bidera, zu ikusi nairik, eta arkitu zaitut.

16. Nere oea egiñik daukat kordoien gañean, eta gañetik ipiñi diozkat Egipton lorez apaindutako estalkiak.

17. Nere gela intzatu det mirraz, eta zabilaz, eta zinamomoz.

18. Atoz, bada, atsegiñez ase gaitezen, eta gozatu gaitezen ain gura ditugun amorioakin, eguna zabaldu artean.

19. Zeren nere senarra ez dago bere etxean, txit urrutira joan da.

20. Diruzakutxo bat berarekin eraman du, illargibetea dan egunean bere etxera itzuliko da.

21. Itz askorekin nastu zuen, eta bere ezpañetako labañkeriakin arrastaka eraman zuen.

22. Bereala jarraitzen dio emakumeari, iltzera daramaten idiak bezela, eta pozez goraka ari dan bildotsa bezela, eta zentzungabeko arek ez daki zepora daramatela,

23. Aliketa saieta batek iragotzen dion artean batetik bestera bere gibela, lakiora arin dijoan egaztia bezela, begiratu gabe, bere animako bizitza galtzeko asmoetan ari dirala.

24. Orain bada, ene semea, aditu nazazu, eta arretaz entzun itzatzu nere aoko itzak.

25. Etzaiozu utzi zure biotzari bere bideetatik arrastaka joaten, eta bere bidetxidorretan etzaite engañañatua izan.

26. Zeren asko zaurituta bota zituen, eta sendoenak izan ziran berak illak.

27. Bere etxea infernurako bideak, sartzen diradenak eriotzaren erraietaraño.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Jakinduria ez al dago deadarrez, eta zentzuak ez al du jasotzen bere boza?

2. Zutik jarrita erpiñik altuenetan eta goratuenetan, bidearen gañean, bidetxidorren erdian,

3. Erriko ateen aldean, ateetan beretan itz egiten du, esaten duela:

4. O gizonak, zuei nagotzute deadarrez, eta nere boza zuzentzen da gizonen semeakgana.

5. Ikasi ezazute, o aurrak, jakinduria, eta zuek, zentzugabeak, arretaz aditu nazazute.

6. Entzun ezazute, zeren gauza andien gañean noa itz egitera; eta nere ezpañak idikiko dirade gauza zuzenak adirazteko.

7. Nere aoak zabalduko du, gogoan erabilli dedan egia, eta nere ezpañak gorrotoz begiratuko diote gaiztakeriari.

8. Justoak dirade nere itz guztiak, ez dago beretan gauza oker, ez gaiztorikan batere.

9. Zuzenak adituentzat, eta justoak jakinduriaren billan dabiltzanentzat.

10. Artu itzatzute nere erakutsiak, dirua artuko bazenezakete baño gogo obeagoarekin. Naiago izan ezazute jakinduria, urrea baño.

11. Zeren obeagoa da jakinduria ondasun txit eder guztiak baño, eta gura izan litezkean gauzetatik batere ez dago berarekin konparatu ditekenik.

12. Ni jakinduria bizi naiz konseju onetan, eta nago gogorazio jakintsuak dauden tokian.

13. Jaunaren beldurrak gorrotatzen du gauza txarra, ni aier natzaio urgulleriari, eta arrokeriari, eta bide gaiztoari, eta bi mingañeko aoari.

14. Nerea da konsejua, eta berdintasuna, nerea da zentzua, nerea da sendotasuna.

15. Nigatik erreñatzen dute erregeak, eta Legegilleak erabakitzen dituzte gauza justoak.

16. Nigatik agintzen dute Prinzipeak, eta Juezak egiten dute justizia.

17. Nik maitatzen ditut, maitatzen nautenak, eta goiz dabiltzanak nigana etorteko, arkituko naute.

18. Nerekin daude ondasunak, eta gloria, aberastasuna, eta zuzentasuna.

19. Zeren obeagoa da nere frutua urrea, eta arri baliotsuak baño, eta nik nigandik ematen ditudanak zillar autua baño.

20. Justiziako bideetan nabil, zentzuko bidetxidorren erdian,

21. Aberastuteko maitatzen nautenak, eta beren gordairuak betetzeko.

22. Jaunak berarekin iduki ninduen beren obren asieran, asieratik, gauzarik batere egin baño lenago.

23. Betikoiraunetik daukat nik agintaritza, eta anziñatik, lurra egiña izan zan baño lenagotik.

24. Oraindikan etzeukaten izaterik zakontasunak, eta ni ordurako sortuta nengoan. Oraindikan etziran irten urezko iturriak.

25. Mendi pisu andikoak ere etzeuden tokietan jarriak, muñoak baño lenago nintzan ni argitara emana.

26. Oraindikan etzuen berak lurra egin, ez ibaiak, eztaere lur biribillaren ardatzak.

27. Berak zeruak prestatzen zituenean, an nengoan, lege zierto batekin zarratutzen zituenean itsasoak inguru biribil baten erdian,

28. Goian zeruak sendotzen zituenean, eta urezko iturriak pisu berdiñean jartzen zituenean,

29. Jartzen zuenean itsasoa bere mugaen barrenen, eta ipintzen zienean legea urai irago etzitzaten beren atzeneko bazterrak, zinzilika ipintzen zituenean lurraren zimenduak.

30. Berarekin nengoan ni guztia erabakitzen nuela; eta poztzen nintzan egun bakoitzean, gozatzen nintzala bere aurrean denbora guztian.

31. Gozatzen nintzala lurraren biribiltasunean, eta nere atsegiñak gizonen semeakin egotea.

32. Orain bada, ene semeak, aditu nazazute, doatsuak nere bideai jarraitzen diotenak.

33. Aditu itzatzute nere erakutsiak, eta jakintsuak izan zaitezte, eta ez itzatzute aurtiki.

34. Zorionekoa, ni aditzen nauen gizona, eta nere etxeko atetan beti bellan dagoena, eta nere ateko atalburuetan azeloan dagoena.

35. Ni arkitzen nauenak bizitza arkituko du, eta iritxiko du salbazioa Jaunagandik.

36. Nere kontra bekatu egiten duenak berriz, bere animari kalte egingo dio. Gorrotatzen nauten guztiak, eriotza maitatzen dute.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Jakinduriak egin zuen etxea beretzat, ebaki zituen zazpi abe.

2. Il zituen doañtzat bere abereak, nastu zuen ardoa, eta prestatu zuen bere maia.

3. Bialdu zituen bere neskameak, ots egin zezaten gaztelurako, eta erriko murruetara.

4. Aurra dana, betor nigana. Eta jakinduriagabeai esan zien:

5. Atozte, nere ogia jan ezazute, eta edan ezazute prestatu dizutedan ardoa.

6. Utzi itzatzute aurkeriak; eta bizi zaitezte eta ibilli zaitezte juizioko bideetatik.

7. Ematen diozkanak erakutsiak burlariari, dakar bere gañera lotsaria; eta gaiztoari ontzeko errierta egiten dionak, loitzen du bere burua.

8. Etzaiozu errierta egin burlariari, gorroto iduki ez dizazun. Errierta egin zaiozu jakintsuari, eta maitatuko zaitu.

9. Eman zaiozu jakintsuari ikasteko era, eta jakintsuago egingo da. Erakutsi zaiozu justoari, eta prestatua egongo da ikasteko.

10. Jakinduriaren asiera Jaunaren beldurra da, eta santuen jakindea, zentzua.

11. Zeren nigatik ugarituko dira zure egunak, eta itsatsiko zazkizu bizitzako egunak.

12. Jakintsua bazera, zuretzat bakarrik izango zera; baña burlaria bazera, zuk bakarrik eramango dezu gaitza.

13. Emakume ero, deadarti, eta balakuz beteriko bat, eta ezerere etziekiena,

14. Eseri zan bere etxeko ateetan silla baten gañean, erriko toki goratu batean.

15. Ots egiteko kaletik iragotzen ziradenai, eta zijoazenai beren bidera.

16. Aurra dana, betor nigana. Eta zentzungabeko bati esan zion:

17. Ur ostuak eztitsuagoak dirade, eta ezkutuko ogia gozoagoa.

18. Eta etzuen jakin an zeudela eraldoiak, eta bere konbidatuak infernuko zakonean.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Seme jakintsuak aita poztzen du; seme ezjakiña berriz bere amaren tristeza da.

2. Ezerere ez dute balioko gaiztakeriako ondasun ugariak; justiziak berriz eriotzatik libratuko du.

3. Ez du Jaunak gosearekin atsekabetuko justoaren anima, eta desegingo ditu gaiztoen arte txarrak.

4. Esku alferrak ekartzen du eskale izatera; esku langilleak berriz, biltzen ditu ondasunak.

Gezurra zimendutzat daukana, au aizez bazkatzen da, eta onek beronek egan dijoazen egaztiai jarraitzen die.

5. Uztako denboran biltzen duena, seme jakintsua da, baña udan lotan zurrunga dagoena, lotsariaren semea da.

6. Jaunaren bendizioa justoaren buruaren gañean; gaiztoaren arpegia berriz, gaiztakeriak estalitzen du.

7. Justoen oroipena alabantzakin zelebratua izango da; gaiztoen izena berriz izango da nazkagarria.

8. Biotzez jakintsuak, aginteak artzen ditu; zentzungabea berriz, ezpañetatik zauritua da.

9. Tolesgabe dabillana, beldurrik gabe dabil, baña bere bideak gaiztotzen dituena, agertua izango da.

10. Begiarekin keñu egiten duenak, gaitza beragana ekarriko du; eta ajolagabea, ezpañetatik azotatua izango da.

11. Justoaren aoa bizitzako zaña da, eta gaiztoen aoak gaiztakeria ezkutatzen du.

12. Gorrotoak ipintzen ditu erriertak; eta karidadeak utsegite guztiak estalitzen ditu.

13. Jakintsuaren ezpañetan jakinduria arkituko da, eta zentzunik ez daukanaren bizkarrean, zigorra.

14. Jakintsuak ezkutatzen dute jakinduria; ezjakinaren aoa berriz, lotsariaren aldean dago.

15. Aberatsaren idukia, bere sendotasunaren erria da; beartsuen premiak, izuz betetzen ditu.

16. Justoaren obra, bizitzarako da; gaiztoaren frutua berriz, da bekaturako.

17. Egiten zaion errierta artzen duena, bizitzako bidetik dijoa; egiten zaiozkan erriertak utzitzen dituena berriz, galduta dabil.

18. Ezpañ gezurtiak, gorrotoa ezkutatzen dute, itz gaiztoa besteari bere aurrean esaten diona, zentzun gabea da.

19. Itz ugaria, ez da bekatu gabe arkituko; bere ezpañetan begiratua berriz, txit zentzu andikoa da.

20. Justoaren mingaña zillar autua da; gaiztoen biotzak berriz, utsa balio du.

21. Justoaren ezpañak txit askori erakutsi onak ematen diezte; ezjakiñak diradenak berriz, beren ezjakiñean ilko dirade.

22. Jaunaren bendizioak aberatsak egiten ditu; eta atsekabeak ez die beñere lagunduko.

23. Zentzungabeak egiten du gaiztakeria farraz bezala; jakinduriak berriz, egiten du gizona zentzu andikoa.

24. Etorriko da gaiztoaren gañera, beldur zaion gaitza, justoai, beren gura emango zaiote.

25. Ekaitz iraitzekoa bezela joango da gaiztoa; justoa berriz betiko zimendua bezelakoa da.

26. Nola dan ozpiña ortzentzat, eta kea begientzat, ala da alferra bialtzen dutenentzat.

27. Jaunaren beldurrak luzetzen du bizitza, eta gaiztoen egunak, laburtuak izango dirade.

28. Justoen itxedopena, poza da; gaiztoen itxedopena berriz, galdua izango da.

29. Jaunaren bidea, sendotasuna da obengabearentzat; eta izua, gaizki egiten dutenentzat.

30. Justoa ez da iñoiz mugitua izango; gaiztoak berriz, ez dute iraungo lurraren gañean.

31. Justoari aotik jakinduria jarioko zaio, gaiztoen mingaña galdua izango da.

32. Justoaren ezpañak, gogoko itzak esaten aritu oi dirade; gaiztoen aoa berriz, gauza txarretan.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Balanza engañatzallea, nazka da Jaunaren aurrean, eta pisu berdiña, da bere borondatea.

2. Urgulleria dagoan tokian, an desonra ere egongo da; umiltasuna dagoan tokian berriz, an jakinduria ere.

3. Tolesgabetasuna izango da justoentzat zuzentzallea bezelakoa, eta tolestasunak ekarriko die bekatariai beren galmena.

4. Utsa balioko dute aberastasunak, benganzako egunean; justiziak berriz, eriotzatik libratuko du.

5. Tolesgabearen justiziak zuzenduko du bere bidea, eta gaiztoa, bere gaiztakerian eroriko da.

6. Zuzenen justiziak libratuko ditu, eta beren zelatadetan arrapatuak izango dirade gaiztoak.

7. Il ezkero bein gaiztoa, ez du geiago itxedopenik idukiko; eta besteen gauzeen gura txarra daukatenak, galduko dirade.

8. Justoa izango da ansiatik libratua, eta bere lekuan gaiztoa ipiñia izango da.

9. Beste gauzarik iduritzen duenak aoarekin, engañatzen du bere adiskidea; justoak berriz, beren jakinduriagatik libratuak izango dirade.

10. Justoai ongi dijoakenean, poztuko da erria, eta gaiztoen galmena, kantakin zelebratuko da.

11. Justoen bendizioarekin, izango da erria goratua, eta desegiña, gaiztoen aoz.

12. Bere adiskidea mezpreziatzen duena, biotz txikikoa da; gizon zentzunduna berriz, ixillik egongo da.

13. Fede txarrarekin dabillanak, agertzen ditu ixilgauzak, baña biotz leialekoa danak, ixillean idukiko du, adiskideak adiskideari bezela agertu ziona.

14. Gobernatzallerik ez dagoen tokian, erria eroriko da, baña osasuna dago, konseju askoetan.

15. Arrotzaren fiatzalle jartzen danak, kaltea idukiko du, baña lakioetatik alde egiten duena, beldur gabe biziko da.

16. Emakume sonak, gloria arkituko du, eta gizaseme sendoak, aberastasunak idukiko dituzte.

17. Gizon urrikaltsuak, bere animari ongi egiten dio; biotz gogorrekoak berriz, aideak ere botatzen ditu.

18. Gaiztoaren obrak, iraupen gabekoak dirade; justiziako obrak ereitzen dituenari berriz, ordañ ziertoak itxedotzen dio.

19. Biguñtasunak prestatzen du bizitzarako, eta gaiztoen jarraipenak eriotzarako.

20. Biotz gaiztoa, Jaunarentzat nazkagarria da, eta ziñez dabiltzanak, dira bere gogokoak.

21. Eskua eskuaren gañean egon arren, ez da gaiztoa obenikan gabe arkituko; justoen jatorria berriz, salbatuko da.

22. Nola urrezko errastuna urdearen muturrean, ala da emakume eder, eta zentzugabea.

23. Justoen gurari guztia onera zuzentzen da, gaiztoen itxedopena, beren sumintasuna agertutea.

24. Batzuek ematen diezte besteai beren ondasunetatik, eta aberatsago egiten dira. Besteak ostutzen dute berena ez dana, eta beti daude premian.

25. Anima ongillea, onez betea izango da, eta orditzen duena, bera orditua izango da.

26. Garia ezkutatzen duena, errietan madarikatua izango da; saltzen dutenen buruaren gañera berriz, etorriko da bendizioa.

27. Ordu onean goiz jaikitzen da, ongi egin nairik dabillana, baña gaizki egin nairik dabillana, gaitzak mendean artu eta sakatuko du.

28. Bere aberastasunetan itxedotzen duena, eroriko da; justoak berriz, osto berdezko zuhaitzak bezela, loretuko dira.

29. Gaizki darabillana bere etxea, aizeen jabe izango da, eta zentzugabeak jakintsua serbitu bearko du.

30. Justoaren frutua, bizitzako zuaitzarena bezelakoa da, eta animak Jainkoarentzat irabazten dituena, jakintsua da.

31. Justoa kastigatua bada lurrean, zenbat geiago izango dirade gaiztoa eta bekataria?

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Zuzendua izatea maite duenak, jakinduria maite du; egiten zaiozkan erriertak gorrotaten dituena berriz, zentzugabea da.

2. Ona danak, artuko du grazia Jaunagandik, bere gogorazioetan fiya danak berriz, gaizki egiten du.

3. Ez da sendotua izango gizona gaiztakeriagatik; justoen sustraia berriz, ez da mugitua izango.

4. Andre langillea, bere senarraren koroa da, eta lotsariaren diña diran gauzak egiten dituena, bere ezurretan usteltasuna izango zaio senarrari.

5. Justoen gogorazioak zuzenak dirade, eta gaiztoen konsejuak engañatzalleak.

6. Gaiztoen itzak, odolari azeloak jartzen diozkate, justoen aoak, libratuko ditu.

7. Goibetu itzatzu gaiztoak, eta ez dira izango; justoen etxeak berriz, iraungo du.

8. Bere erakutsitik ezagutua izango da gizona; urgullutsua eta zentzugabea berriz, mezpreziatua izango da.

9. Obe da beartsu, beretzat bear duena irabazten dakiana, panparroi, ogiaren premian dagoena baño.

10. Justoak begiratzen du bere abereen biziagatik; gaiztoen erraiak berriz, gogorrak dirade.

11. Bere lurra landutzen duena, ogiz aseko da; alferrerian bizi dana berriz, da txit zentzugabea.

Bere gogoa ardoan egotean daukanak, bere gazteluetan utzitzen du lotsaria.

12. Gaiztoen guraria da, gizonik gaiztoenak sendotu ditezela, baña justoen sustraia, aziaz joango da.

13. Ezpañetako bekatuakgatik, alderatzen zaio galmena gaiztoari: baña justoak, iges egingo du naigabetik.

14. Bere aoko frututik onez betea izango da bakoitza; eta bere eskuetako obren araura, ordaña emana izango zaio.

15. Zentzungabekoaren bidea zuzena da bere begietan; jakintsua danak berriz, aditzen ditu konsejuak.

16. Txoroak bereala agertzen du bere aserrea, baña injuriari ez aditua egiten dionak, zentzua dauka.

17. Dakiana esaten duena, da justiziaren agertzalle bat; gezurra esaten duena berriz, da testigu engañatzallea.

18. Bada eskeñtzen duena, eta konzienziak akulutua da ezpatarekin bezela; jakintsuen mingaña berriz, osasuna da.

19. Egiaren ezpaña, beti iraunkorra izango da, baña testigu ajolagabea dana, gezurrezko izketa asmatzen ari da.

20. Engañioz betea dago, gaitza asmatzen ari diradenen biotza, baña pakeko konsejuetan tratatzen dutenai, pozak jarraitzen die.

21. Ez da tristetuko justoa gertatzen zaion edozeñere gauzagatik; gaiztoak berriz, gaitzez beteak egongo dirade.

22. Ezpañ gezurtiak, nazka dirade Jaunarentzat, baña leialkiro obratzen dutenak, oriek dirade bere gogokoak.

23. Gizon begiratuak, estalitzen du bere jakinduria, eta zentzugabekoen biotzak, kanpora ateratzen du beren jakiñeza.

24. Sendoen eskuak aginduko du, baña esku nagia, izango da petxaria.

25. Biotzeko tristezak, azpiratzen du gizona; eta izketa onarekin, poztuko da.

26. Kaltea mezpreziatzen duena adiskideagatik, justoa da; gaiztoen bideak berriz, engañatuko ditu.

27. Engañalariak, ez du irabazirik arkituko; gizon onak daukana berriz, urre txit baliotsu izango da.

28. Justiziako bidetxidorrean, dago bizitza; bide gaiztoak berriz, eriotzara eramaten du.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Seme jakintsuak, aditzen ditu aitaren erakutsiak; gaiztoak berriz, ez die kasorikan egiten bere erriertai.

2. Gizon ona, aseko da, bere aoko irabazien ondasunez; fedea austen dutenen anima berriz, gaiztoa da.

3. Bere aoa zaitzen duenak, bere anima zaitzen du, baña itz egiteko arretagabea danari, gaitzak etorriko zaiozka.

4. Nai du, eta ez du nai alferrak; lanzaleen anima berriz, gizendua izango da.

5. Justoak gorrotatuko du gezurrezko itza; gaiztoak berriz lotsatzen du, eta lotsatua izango da.

6. Justiziak gordetzen du obengabearen bidea; gaiztakeriak berriz, lurrera botatzen du bekataria.

7. Bada aberatsa dirudiana, ez idukirik ezerere; eta bada pobrea dirudiana, ondasun andiak idukirik.

8. Gizonaren bizitzaren erreskata, bere ondasunak dira; baña pobrea danak, ez du sufritzen zemairik.

9. Justoen argiak, poza ematen du; gaiztoen argiontzia berriz, itzaliko da.

10. Urgullutsuen artean, beti daude erriertak; gauza guztiak konsejuz egiten dituztenak berriz, jakinduriarekin zuzentzen dira.

11. Arin bildutako ondasunak, gutxituko dira; berriz, geldika geldika eskuarekin irabazten diradenak, ugarituko dira.

12. Luzetzen dan itxedopenak, atsekabetzen du anima, bizitzako zuaitza, kunplitzen dan guraria.

13. Aitzakiatzen duena gauzaren bat, bera lotzen da geroko; aginteaaren beldur dana berriz, pakean bizituko da.

Anima malmutsak, galduak dabiltza pekatutik pekatura; justoak ordea, biguñak dirade eta urrikaltzen dirade.

14. Jakintsuaren legea, bizitzako iturria, zeartutzeko eriotzako galmenetik.

15. Erakutsi onak, gizona maitegarria egingo du, mezpreziatzalleen bidean, lurzuloa dago.

16. Begiratuak, gauza guztiak konsejuarekin egiten ditu; zentzugabea danak berriz, bere zentzugabetasuna agertzen du.

17. Gaiztoaren mandataria, gaitzean eroriko da; mandatari leialak berriz, osasuna dakar.

18. Pobreza eta lotsaria, korrekzioa utzitzen duenarentzat; berriz ontzat artzen duena egiten zaion errierta, gloriaz betea izango da.

19. Gurariak, kunplitzen bada, anima gozatzen du. Zentzun-gabeak gorrotoz begieratzen diote, gaitzetatik iges egiten dutenai.

20. Jakintsuakin dabillana, jakintsua izango da, zentzungabekoen adiskidea, berak bezelako bat egingo da.

21. Gaitzak jarraitzen die bekatariai, eta justoak ondasunakin izango dirade ordañduak.

22. Gizon onak, utzitzen ditu herederotzat bere semeak, eta illoba txikiak, eta justoarentzat gordetzen da bekatariaren hazienda.

23. Gurasoak goldeatutako lurretan ogi asko dago; eta biltzen da, beste zentzungabeko batzuentzat.

24. Zigorra gutxitan darabillanak, gaizki nai dio bere semeari; eta maitatzen duenak, maiz kastigatzen du.

25. Justoak jaten du, eta asetzen bere gogoa; gaiztoen sabela berriz, ase eziña da.

AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Emakume jakintsuak, sendotzen du bere etxea; zentzungabeak berriz, egindako etxea ere bere eskuakin desegingo du.

2. Bide zuzenetik dabillana, eta Jainkoaren beldur dana, mezpreziatzen du pauso txarretan dabillanak.

3. Zentzungabearen aoa, urgulleriaren zigorra da; jakintsuen ezpañak berriz, zaitzen dituzte.

4. Idirik ez dagoen tokian, gainbela utsa dago, baña uzta asko dagoen tokian, an agirian dago idiaren indarra.

5. Testigu leialak, ez du gezurrik esaten; testigu engañalariak berriz, gezurra esaten du.

6. Burlariak, jakinduria billatzen du, eta ez du arkitzen: zentzudunen dotriña, erraza da.

7. Gizon zentzungabearen kontrara joan zaite, berak ez dakizki zentzuko itzak.

8. Zentzundunaren jakinduria da, aditzea bere bidea; eta zentzugabekoen zentzugabetasuna, bidea uts egiñik dabil.

9. Zentzugabeak irri egingo dio bekatuari; eta justoen artean, grazia egotez egongo da.

10. Bakoitzaren biotza da, bere animako mingoiztasuna sentitzen duena; bere atsegiñetan arrotzak zer ikusirik ez duen bezela.

11. Gaiztoen etxea, arrasatua izango da; justoen bizilekuak berriz, loretuko dira.

12. Bada bide bat, gizonari zuzena deritzana; bere atzenak ordea, eriotzara eramaten du.

13. Farra negarrararekin nastua dabil, eta pozaren bukaera, pena da.

14. Gizon zentzugabeak aseko ditu bere gura gaiztoak, baña gizon ona, hura baño obeto biziko da.

15. Tolesgabeak, itz guztia sinisten du, baña gizon begiratuak, ikusten du non ipintzen duen bere oña.

Seme engañalariari, ez dio ezerk ere ongi irtengo, baña mirabe begiratuari guztia ongi etorriko zaio, eta bide zuzenetik ibilliko da.

16. Jakintsua beldur da, eta gaitzetik alde egiten du. Zentzungabea aurrera dijoa, eta itxedotzen du.

17. Zazpikia danak, zorakeriak egingo ditu; eta gizon solapatua gorrotogarria da.

18. Aurrak izango dira zentzugabetasunaren jabe; eta begiratuak, jakinduria itxedongo dute.

19. Gizon onen oñetan etzinik egongo dira gaiztoak; eta biurriak, justoen ateen aurrean.

20. Bere aideentzat ere izango da eskalea gogaikarria; aberatsak berriz, adiskide asko dauzkate.

21. Bekatu egiten du, bere lagun urkoa mezpreziatzen duenak; baña beartsuarekin urrikaltzen dana, zorionekoa izango da.

Jaunagan sinistzen duenak, urrikaltasuna maitatzen du.

22. Gaizki dijoaz, gaitza egiten dutenak. Urrikaltasunak eta egiak, ondasunak prestatzen dituzte.

23. Lan guztian izango da ugaritasuna; baña itz txit asko dagoen tokian, an maiz premia egon oi da.

24. Jakintsuen ondasunak, koroa dira berentzat; zentzugabeen erotasuna, zentzugabetasuna da.

25. Testigu leialak, animak libratzen ditu; engañatzalleak, gezurrak esaten ditu.

26. Jaunaren beldurrean itxedopen sendoa dago; eta beren semeak, itxedopena idukiko dute.

27. Jaunaren beldurra bizitzako iturria da, eriotzako galmenetik zeartu ditezen.

28. Erriaren ugaritasunean, dago errege baten gloria; eta erriaren urritasunean, Prinzipe baten lotsaria.

29. Sufritua dana, gobernatzen da zentzu andiarekin; baña sufritua ez danak, agirian ipintzen du bere zentzugabetasuna.

30. Biotzeko osasuna, da aragiaren bizia; ondamua, da ezurren usteltasuna.

31. Beartsuari gezurra asmatzen diona, bere Egilleaz lotsagabetzen da; beartsuarekin urrikaltzen danak berriz, honratzen du.

32. Gaiztoa bere gaiztakeriagatik izango da botatua; justoak berriz, bere eriotzan itxedotzen du.

33. Zentzundunaren biotzean, jakinduriak atsedetzen du, eta ez dakiten guztiai erakutsiak emango diezte.

34. Justizia, da erreñuak goratzen dituena; bekatuak berriz, zorigaiztokoak egiten ditu erriak.

35. Ministro aditua erregearen gogokoa da; gaiezari ordea, aserrez begiratuko dio.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Erantzute biguñak, gozatzen du aserrea; itz gogorrak, biztutzen du sumintasuna.

2. Jakintsuen mingañak, argitasuna ematen dio jakinduriari; txoroen aoak, barbullkeriak baizik ez ditu esaten.

3. Toki guzietan Jaunaren begiak onai eta gaiztoai begira daude.

4. Mingañ paketsua, bizitzako zuaitza da; mingañ luzeak berriz, biotza ausitzen du.

5. Zentzungabeak farra egiten dio bere aitaren erakutsiari; korrekzioa aditzen duena, begiratuagoa izango da.

Justiziaren ugaritasunean, bertute txit andia dago; gaiztoen gogorazioak berriz, arras ateratuak izango dirade.

6. Justoaren etxea, gaztelu txit sendoa da, eta gaiztoaren irabazietan beti dago kezka.

7. Jakintsuen ezpañak, jakinduria ereingo dute, ez ala barbullen biotzak.

8. Gaiztoen eskeñtzak, gorrotogarriak dira Jaunarentzat, justoen botoak, biguñtzen dute.

9. Nazka da Jaunarentzat, gaiztoaren bidea; justiziari jarraitzen diona, berak maitatua da.

10. Bizitzako bidea utziten duena, ez da erakutsi onaren zalea, korrekzioari gorroto diona, galduko da.

11. Infernua eta galmena Jaunaren aurrean daude, zenbat geiago gizonen biotzak?

12. Izurrituak, ez du maitatzen zuzentzen duena, eta ez dijoa ere jakintsuen billan.

13. Biotz gozotsuak, poztutzen du arpegia; biotzeko tristezarekin, espiritua erortzen da.

14. Jakintsuaren biotzak, erakutsia billatzen du, eta zentzugabeen aoa, barbullkeriakin bazkatzen da.

15. Beartsuaren egun guztiak, nekatsuak dirade, anima garbia, beti irautzen duen konbit bat bezelakoa da.

16. Geiago balio du gutxitxok Jainkoaren beldurrarekin; ondasun ugari, iñoiz asetzen ez dutenak baño.

17. Obeago da deitua izatea barazkietara, amorioarekin; txal zebatua jatera, gorrotoarekin baño.

18. Gizon aserrekorrak, erriertak ipintzen ditu; sufritua danak, ipiñiak ere kentzen ditu.

19. Nagien bidea, elorrizko esia bezelakoa. Justoen bidea, beaztopo gabekoa.

20. Seme jakintsuak, aita poztutzen du, eta gizon zentzungabeak, mezpreziatzen du bere ama.

21. Barbullkeria, pozgarria da zentzungabearentzat; gizaseme begiratuak, bere pausoak zuzentzen ditu.

22. Utsera biurtzen dirade gogorazioak, konsejurik ez dagoen tokian; konsejari asko dagoen tokian berriz, sendotzen dirade.

23. Gizona zaletzen da, agertua daukan iritzira; itz onena berriz da, ongien datorrenean esaten dana.

24. Gizon jakintsua, goirontz zuzentzen da bizitzako bidetik; tokirik zakoneneko infernutik alde egiteko.

25. Botako du Jaunak urgullutsuen etxea, eta sendotuko du, andre alargunaren soroa.

26. Jaunak gorrotatzen ditu gogorazio gaiztoak, eta itz garbia, txit ederra bezela, berak ontzat emana izango da.

27. Zikoiztasunari jarraitzen dionak, bere etxea nastutzen du; eskeñtzai gorroto diena berriz, biziko da.

Urrikaltasunarekin eta fedearekin garbitzen dira bekatuak, eta Jaunaren beldurragatik guziak gaitzetik alde egiten dute.

28. Justoen biotzak, obedienzia dauka gogoan; gaiztoen aoak, gaitzez gañez egiten du.

29. Gaiztoakgandik urrutian dago Jauna, eta justoen erreguak adituko ditu.

30. Begietako argiak, anima poztutzen du. Fama onak, gizentzen ditu ezurrak.

31. Errierta mesedegarriak aditzen dituen belarria, jakintsuen artean egotez egongo da.

32. Instrukzioa artu nai ez duenak, bere anima mezpreziatzen du, baña korrekzioak artzen dituzana, bere biotzaren jabe da.

33. Jaunaren beldurrak, erakusten du jakinduria; eta umiltasunak ibilli bear du gloriaren aurretik.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Gizonari dagokio, anima prestatzea, eta Jaunari, mingaña gobernatzea.

2. Gizonaren bide guztiak agirian daude bere begietan, Jaunak pisatzen ditu espirituak.

3. Agertu zaiozkazu Jaunari zure obrak, eta zure gogorazioak zuzenduak izango dirade.

4. Gauza guztiak egin ditu Jaunak beretzat, eta gaiztoa bera ere egun txarrerako.

5. Jaunak gorrotatzen du urgullutsu guzia. Eskua eskuaren gañean duela egon arren, ez da obengabea.

Bide onaren asiera, justizia egitea da, zeñ Jaungoikoaren gogokoagoa dan, doañak eskeñtzea baño.

6. Urrikaltasun eta egiarekin pagatzen da bekatuaren zorra, eta Jaunaren beldurrarekin gaitzetik alde egiten da.

7. Gizonaren bideak Jaunare gogokoak diradenean, etsaiak berak ere pakera itzuliko ditu.

8. Obe da gutxi justiziarekin, irabazi asko gaiztakeriarekin baño.

9. Gizonaren biotzak egiten ditu bere erabakiak; baña Jaunari dagokio, bere pausoak zuzentzea.

10. Jaungoikoaren itza dago erregearen ezpañetan. Bere aoak ez du utsik egingo juizioan.

11. Pisua eta balanza dira Jaunaren juizioak, eta bere obrak zakutxoko arri guztiak.

12. Gorrotogarriak dira erregearentzat, gaizki egiten dutenak, zeren justiziarekin izan oi da tronua sendotua.

13. Erregearen gogokoak dira, justoa dana esaten duten ezpañak. Zuzen dana itz egiten duena, maitatua izango da.

14. Erregearen aserrea, eriotzaren mandatariak; eta gizon jakintsuak, bigunduko du.

15. Erregearen arpegiko pozean, dago bizitza, eta bere biotzeko biguntasuna, beluko euria bezelakoa da.

16. Jarraitu zaiozu jakinduriaren jabe izateari, zeren urrea baño obeagoa da, eta zureganatu ezazu zentzua, zeren zillarra baño balio andiagokoa da.

17. Justoen bidea, gaitzetik berezitua dago, ez du beratatik alderik egiten, bere anima gordetzen duenak.

18. Erortzearen aurretik, dabil urgulleria, eta galmena baño lenago, goratuko da espiritua.

19. Obe da otsanakin umillatua izatea, urgullutsuakin ondasunetan partale izan baño.

20. Aditua danak lanbide batean arkitzen ditu ondasunak, eta Jaunagan itxedotzen duena, doatsua da.

21. Biotzez jakintsua danari, deituko zaio gizon zentzuduna; eta bere izketan gozoa danak, gauza andiagoak artuko ditu.

22. Bizitzako iturria da jakinduria, bere jabe danarentzat; zentzugabekoen erakutsia, txorakeria da.

23. Jakintsuaren biotzak, emango diozka erakutsiak bere aoari, eta itsatsiko die grazia, bere ezpañai.

24. Itz ederrak ezti abaraska dirade; animako gozotasuna, ezurren osasuna.

25. Bada bide bat gizonari zuzena deritzana; eta bere atzenak, eriotzara eramaten dute.

26. Lanean ari dan gizonak, beretzat lan egiten du, zeren bere aoak onetara beartzen du.

27. Gizon gaiztoak aitzurtzen du gaitza, eta bere ezpañetatik sua ateratzen da.

28. Gizon biurriak auziak ipintzen ditu, eta berritsuak berezitzen ditu prinzipeak.

29. Gizon gaiztoak balakatzen du bere adiskidea, eta ona ez dan bidetik darama.

30. Begi ikaratuakin gaitzak egiteko asmazioetan dagoenak, bere ezpañai utsikika ari dala gaitza egiten du.

31. Diñadeko koroa da, justiziako bideai jarraitu dienaren zartza.

32. Obeagoa da gizon sufritua, sendoa baño, eta bere biotzaren jabe dana, erriak menderatzen dituena baño.

33. Zorteak sartzen dira kolkoan; baña Jauna da berakin zer izango dan agintzen duena.

AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Obe da ogi siku mokadu bat pozez, etxe bat bete doañ erriertakin baño.

2. Mendeko jakintsuak, seme zentzugabeai aginduko die, eta anaien artean herenziaren partale izango da.

3. Nola zillarra probatua dan suan, eta urrea sutegian, ala Jaunak probatzen ditu biotzak.

4. Gaiztoak obeditzen dio mingañ biurriari; eta engañalaria elkartzen da ezpañ gezurtiakin.

5. Premiatsua mezpreziatzen duena, bere Egillearekin lotsagabetzen da, eta bestearen galmenaz poztutzen dana, ez da kastigu gabe geldituko.

6. Zarren koroa, semeen semeak dirade, eta semeen gloria, beren gurasoak.

7. Ez datorkio ongi gizaseme zentzugabeari izketa ederra, ezta Prinzipe bati ere, ezpañ gezurtia.

8. Estimatua da arri baliotsua bezela, doañ gura biziarekin itxedon zana, itzultzen dan edozeñere tokitan, begiratzen du beratan zentzuarekin.

9. Besteen utsegiteak ezkutatzen dituenak, egiten ditu adiskideak; kontatzen duenak, baita berriz, berezitzen ditu elkartuta zeudenak.

10. Probetxu geiago ateratzen du zentzundunak errierta batetik, zentzungabeak eun zauritik baño.

11. Gaiztoa beti dabil errierten billan, baña aingeru biotz gogorrekoa bialdua izango da bere kontra.

12. Obe da arkitzea norbait, umeak ostu diozkaten artz eme batekin; bere zentzungabetasunean itxedotzen duen zentzun gabeko batekin baño.

13. Ez du gaitzak alderik egingo, mesedeakgatik kalteak biurtzen dituenaren etxetik.

14. Ura soltatzen duena, errierten jatorria da, eta gaitzik egin baño lenago, utziten dio auziari.

15. Gaiztoa justotutzen duena, eta justoa kondenatzen duena, biak dira gorrotogarriak Jaungoikoaren aurrean.

16. Zer balio dio zentzugabeari ondasunak idukitzea, ezin badu erosi jakinduria?

Bere etxea goratua egiten duena, galmenaren billa dabil, eta ikasi nai ez duena, gaitzetan eroriko da.

17. Denbora guztietan maitatzen du adiskidea danak, eta anaia estutasunetan ezagutzen da.

18. Gizon zentzugabeak txaloak egiten ditu,bere adiskidearen fiatzalle jarri danean.

19. Auziak ipiñierazitzen dituena, errierten adiskidea da; eta bere atea goratzen duena, galmenaren billan dabil.

20. Biotz gaiztokoa danak, ez du onik arkituko; eta mingaña biurtzen duena, gaitzean eroriko da.

21. Zentzugabea bere lotsarirako jaioa da, bada aita bera ere ez da poztuko seme zentzugabeagan.

22. Biotz gozotsuak irauneraziten dio edade loretsuari, espiritu tristeak, ezurrak leortzen ditu.

23. Gaiztoak artzen ditu doañak kolkotik, juizioaren bidea biurritzeko.

24. Zentzudunaren arpegian jakinduriak argi egiten du; zentzugabeen begiak lurraren atzenetan.

25. Aitaren aserrea da, seme zentzugabea, eta egin eban amaren samintasuna.

26. Ez da gauza ona justoari kalte egitea, ez otsak ematea, zuzen juzgatzen duen Prinzipeari.

27. Gizon jakintsu eta zentzudunak bere itzak neurtzen ditu, eta gizon aditua ixiltasunaren zalea da.

28. Jakiñeza ere, ixillik badago, jakintsutzat iragoa izango da, eta aditutzat, ezpañak itxiten baditu.

EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Aitzakiak billatzen ditu, adiskideagandik alde egin nai duenak. Denbora guztian lotsarien diña izango da.

2. Zentzugabeak ez ditu artzen zentzuko itzak, bere biotzean iragotzen danaren araura itz egiten ez badiozu.

3. Gaiztoak allegatu ezkero bekatuen ondora, ez du kasorikan egiten, baña desonrak eta lotsariak jarraitzen dio.

4. Ur andi eta zakon bat bezelakoak, gizon jakintsuaren aotik ateratzen diran itzak, eta jakinduriako iturri au erreka andi bat da.

5. Ez da ongi lotsaz begiratzea gaiztoari, juizioaren egiatik zeartzeko.

6. Zentzugabearen ezpañak, errierteta nastutzen dirade, eta bere aoak, eleak ipintzen ditu.

7. Zentzugabea aoak galtzen du, eta bere ezpañak dira bere galmena.

8. Gizon tolesaren itzak tolesgabeak dirudite, baña berak erraien barreneraño sartzen dirade.

Beldurrak beeratzen du nagia; emetuen animak berriz gosea idukiko dute.

9. Bere lanetan alperra eta nagia dana, bere obrak desegiten dituenaren anaia da.

10. Jaunaren izena, dorre txit sendo bat da. Beratan sartzen da gizon justoa, eta goratua izango da.

11. Ondasunak aberatsarentzat gaztelu sendo bat bezelakoak dirade, eta inguruan daukan murru gogor bat bezelakoak.

12. Gizonaren biotza arrotutzen da, beeratua izan baño lenago, eta umillatzen da, gloriaz betea izan baño lenago.

13. Aditu baño lenago erantzuten duenak, erakusten du zentzugabea dala, eta lotsariaren diña.

14. Gizonaren espirituak sendotzen du bere argaltasuna, baña nork sufritu dezake aserretzen erraza dan espiritu bat?

15. Biotz zentzuduna jakinduriaren jabe izango da, eta jakintsuen belarria, jakinduriaren billa dabil.

16. Gizonaren eskeñtzak bidea zabaltzen dio, eta Prinzipeen aurrean egiten dio leena.

17. Justoa da bere lenbiziko salatzallea, badator bere adiskidea eta esamiñatuko du.

18. Suerteak bukatzen ditu ezbaiak, eta erabakitzen ditu andizkietan ere.

19. Anaia anaiaren laguntasunarekin uri sendo bat bezelakoa da, eta bere iritziak errietako morrolloak bezelakoak dira.

20. Gizonaren sabela bere aoko frutuakin betea izango da, eta aseko da bere ezpañetako irabaziakin.

21. Eriotza eta bizitza mingañaren eskuetan, maitatzen dutenak, beren frutuak jango dituzte.

22. Andre on bat arkitu duenak, onera andi bat arkitu du, eta artu du Jaungoikoagandik pozezko jatorri bat.

Andre ona botatzen duenak, onera andi bat botatzen du; andre adultera berarekin daukana berriz, txoro eta gaizto bat da.

23. Erreguakin itz egingo du beartsuak; eta aberatsak garraztasunarekin itz egingo dio.

24. Lagun artean maitagarria dan gizona, izango da anaia bat baño adiskideago.

EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Obeagoa da beartsu, bere toleskabetasunean dabillana, aberats bere ezpañak izurtzen dituena eta zentzungabea baño.

2. Animako jakinduriarik ez dagoen tokian, ez dago gauza onik, eta oiñ ariñetakoa danak, beaztopo egingo du.

3. Gizonaren zentzugabetasuna da galmenerontz bultzakada ematen diona, eta bere biotzean Jaungoikoaren kontra irakitzen dago.

4. Ondasunak, geitzen dituzte adiskideak; beartsuagandik berriz len zeuzkanak ere, alde egiten dute.

5. Testigu falsoa ez da kastigu gabe geldituko; eta gezurrak esaten dituenak ez du igesik egingo.

6. Asko dirade eskubide andia daukana ingurutzen dutenak, eta doañak ematen dituztenen adiskideak.

7. Beartsua bere anaiak ere gorrotatzen dute; eta adiskiderañokoak urrutiratuaz dijoaz beragandik.

Ez du iñoiz ezerere idukiko, itzak bakarrik billatzen dituenak;

8. Gizon begiratu eta zentzundunak berriz, orrek bere anima maitatzen du; eta zentzuari irauneraztzen dionak, ondasunak iritxiko ditu.

9. Testigu falsoa ez da kastigu gabetanik geldituko; eta gezurrak esaten dituena, galduko da.

10. Zentzugabeari ez dagozkio ongi atsegiñak, ezta mendekoari ere Prinzipeai agindutea.

11. Gizonaren dotriña pazienziatik ezagutzen da, eta bere gloria da gauza gaiztoen gañetik iragotzea.

12. Leoiaren orroa bezela, alakoa da erregearen aserrea; bere arpegi argia berriz belarraren gañeko intza bezelakoa.

13. Seme zentzugabea aitaren miña da, eta beti itozuraz betetako tellatua, andre erriertaria.

14. Etxea eta ondasunak gurasoak ematen dituzte, baña emakume zentzuduna, Jaunak bakarrik ematen du.

15. Nagitasunak logalea dakar, eta anima ajolagabeak idukiko du gosea.

16. Aginteak gordetzen dituenak, bere bizia gordetzen du, baña bere eginbearretan arretagabea dana, iltzeko irriskuan arkitzen da.

17. Beartsuarekin urrikaltzen danak, Jaunari prestatuta ematen dio; eta onek pagatuko dio bere irabaziakin.

18. Eman zaiozkazu erakutsiak zure semeari, ez ezazu desesperatu, baña ez ezazu eraman zure gogortasuna, bera iltzeraño.

19. Pazienziarikan ez duena, gaizki biziko da, eta kentzen duenean, beste bat itsatsiko dio.

20. Aditu ezazu konsejua, eta artu ezazu korrekzioa, zure atzenetan jakintsua izan zaitezen.

21. Gizonaren biotzean gogorazio asko daude; Jaunaren borondateak berriz, iraungo du.

22. Premian dagoen gizona urrikaltsua da, eta obeago da beartsua, gezurtia baño.

23. Jaunaren beldurra bizitzarako da, eta justoak ugaritasunean igeri egingo du, gaitz batek ere ukitu gabe.

24. Nagiak bere eskua galtzarbearen azpian ezkutatzen du, eta ez du bere aora eramaten.

25. Azotatu ezkero gizon gaiztoa, zentzungabea jakintsuago izango da, baña ematen badiozu erakutsia jakintsuari, onek adituko du.

26. Aita atsekabetzen duena, eta amari iges erazitzen diona, desonratua da eta doakabea.

27. Aditu ezazu dotriña, ene semea, aspertu gabe, eta etzaite egon jakin gabe jakinduriako itzak.

28. Testigu gaiztoak juizioari burla egingo dio; eta gizon biurrien aoak, gaiztakeria iretsitzen du.

29. Prestatuak daude juizioak burlarientzat, eta mallu mallumariak, zentzungabekoen gorputzentzat.

OGEIGARREN KAPITULUA

1. Ardoa lujuriazko gauza da, eta moskorra matxiñadaria. Gauza oietan gozatzen diradenak, ez dirade jakintsuak izango.

2. Leoiaren orroa bezela, ala erregearen aserrea, aserretu erazitzen dionak, bere animaren kontra bekatu egiten du.

3. Honra da gizonarentzat erriertetatik alde egitea; zentzugabeko guztiak, aserreetan nastatzen dira.

4. Alferrak etzuen goldeatu nai otzagatik, eskean ibilliko da bada udan, eta etzaio emana izango.

5. Ur zakona bezela, ala konsejua gizonaren biotzean, baña gizon jakintsuak aterako du.

6. Asko gizon dirade urrikaltsuak deituak, baña gizon leial bat, zeñek arkituko du?

7. Bere tolesgabetasunean dabillan justoak, seme zorionekoak bere ondoan utziko ditu.

8. Justiziako tronuaren gañean esertzen dan erregeak, bere begirakune bakar batekin gaitz guzia desegitzen du.

9. Zeñek esan dezake: Garbia dago nere biotza, bekatuaren orbanikan gabe arkitzen naiz?

10. Pisu eta neurri bat emateko, eta pisu eta neurri bat artzeko, Jaungoikoak gorrotatzen dituen bi gauza dirade.

11. Bere griñaetatik ezagutzen da aur bategan, bere obrak garbiak eta zuzenak izango ote diran.

12. Aditzen duen belarria, eta ikusten duen begia, biak egin zituen Jaunak.

13. Etzaite izan lo zalea, premiaz estuturik ikusi etzaitezen. Idiki itzatzu zure begiak, eta ogiz ase zaite.

14. Txarra da, txarra da, esaten du erosle guztiak; eta alde egiten duenean, orduan gozatuko da.

15. Bada urrea eta badirade arri baliotsu asko, eta jakinduriaren ezpañak, dirade ontzi baliotsuak.

16. Artu ezazu arrotz baten fiadore irten zanaren soñekoa, eta eraman ezazu bere etxetik prendaren bat arrotzaren zorragatik.

17. Gozoa da gizonarentzat gezurreko ogia, eta gero bere aoa ondarrez beteko da.

18. Erabakiak konsejuakin sendotzen dirade, eta gerrak zentzuarekin tratatu bear dirade.

19. Etzaite adiskidetu ixill gauzak agertzen dituen, marroz dabillan, eta eskeñtza andiak egiten dituen gizonarekin.

20. Bere aitari, edo bere amari maldizioa egiten dionari, kandela itzaliko zaio, illuntasunen erdian.

21. Asieran arin biltzen dan herenziak, ez du atzenean bedeikaziorik idukiko.

22. Ez ezazu esan: Bengatuko natzaio, baizik Jaunagan itxedon ezazu, eta libratuko zaitu.

23. Nazkagarriak dira Jaunarentzat pisu falsoak, balanza engañatzallea, ez da ona.

24. Jauna da gizonen pausoak zuzentzen dituena, eta ze gizon da, ezagutu dezakeana, ze bide eraman bear duen?

25. Gizonarentzat galmena da santuak iretsitzea, eta eskeñtzak egin da garbatutzea.

26. Errege jakintsuak desegiten ditu gaiztoak, eta beren gañetik iragoerazitzen du uztaia.

27. Gizonaren espiritua da Jaunaren zuzi bat, barreneko gauza ezkutu guztiak esaminatzen dituena.

28. Urrikaltasunak eta egiak zaitzen dute erregea, eta bere tronua sendotzen da biguntasunarekin.

29. Gazteen poza, beren indarra da, eta ille zuriak dirade zarren diñadea.

30. Gaitzak garbitzen dira zauriakin, eta erraietaraño sartzen diran epaiakin.

OGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Erregearen biotza dago Jainkoaren eskuan; toki batetik aldamen askotara dijoan ura bezela, nai duen edozeñ tokitarontz makurtuko du.

2. Zuzenak iritzitzen zaiozka gizonari bere bide guztiak, baña Jaunak pisatzen ditu biotzak.

3. Urrikaltasuna eta justizia egitea Jaungoikoaren gogokoago da, eskeñtzak baño.

4. Begiak gora erabiltzea biotzeko arrokeriatik dator, eta gaiztoen argitasuna bekatua da.

5. Gizon egillearen gogorazioak beti dakarte ugaritasuna; alper guztiak berriz beti bizi dira premian.

6. Mingañ gezurtiarekin tesoroak biltzen dituena, ezjakin eta zentzugabeko bat da, eta eriotzako lakioetan topo egingo du.

7. Gaiztoen lapurretak beren galmena izango dira, etzituztelako egin gura izan beren obrak justiziaren araura.

8. Gizon biurriaren bidea besterena da, baña gizona garbia bada, bere obra zuzena da.

9. Obe da bizitea sabaiko zoko batean, etxe batean emakume errriertari batekin baño.

10. Gaiztoaren animak, gaitza opa du, eta berak ez du bere lagun urkoaren errukirik idukiko.

11. Kastigatu ezkero eskandalosoa, aurra begiratuago egingo da, eta jakintsuagana alderatzen bada, jakinduria ikasiko du.

12. Gaiztoaren etxeko justoak gogorazioa artzen du, alde erazitzeko gaitzari gaiztoakgandik.

13. Beartsuaren deadarrari belarriak zarratzen diozkanak, deadar egingo du berak ere, baña ez da aditua izango.

14. Eskeñtza ixillekoak, biguñtzen ditu aserreak; eta doañ besteren kolkoan sartuak, sumintasunik andiena.

15. Poza da justoarentzat justizia egitea, eta izua, gaiztakerietan ari diradenentzat.

16. Dotriñako bidetik alde egiten duen gizona, eraldoien batzarrean egotera joango da.

17. Janedanak ematen zalea dana, eskale biurtuko da; ardoa eta mokadu ona maitatzen dituena, ez da aberastuko.

18. Gaiztoa da justoagatik emana: eta zuzenak gatik biurria.

19. Obe da lur eremu batean bizitea, emakume erriertari eta aserrekor batekin baño

20. Badago tesoro opagarri bat, eta olioa justoaren etxean, baña gizon zentzugabeak, guztia ondatuko du.

21. Justiziari eta urrikaltasunari jarraitzen dienak, arkituko ditu bizitza, justizia eta gloria.

22. Maiz gizon jakintsua, gerrariz betetako erri baten jabe egin da; eta erri hurak itxedopena zeukan indarrak desegin ditu.

23. Bere aoa eta bere mingaña gordetzen dituenak, gordetzen du bere anima ansietatik.

24. Urgullutsu eta arroari zentzugabearen izena ematen zaio, sumintasunaz beteta, erokeriak egiten dituztelako.

25. Gurariak iltzen dute nagia, bere eskuak lanik batere egin nai etzutelako.

26. Egun guztian dago gurari eta naietan; justoa danak berriz, emango du, eta ez da aspertuko.

27. Gaiztoen doañak nazkagarriak dirade, gauza txarretatik eskeñiak diradelako.

28. Testigu gezurtia galduko da; gizon esanekoak garaipena kontatuko du.

29. Gizon lotsagaldukoak ez dio beñere utziten bere asmo gaiztoari, baña zuzena dana, bide onera biurtzen da.

30. Ez dago jakinduriarik, ez dago zentzurik, ez dago konsejurik Jaunaren kontra balio duenik.

31. Gudako egunerako prestatzen da zaldia, baña Jaunak ematen du osasuna.

OGEITA BIGARREN KAPITULUA

1. Obe da izen ona, ondasun andiak baño, eta kleitu onak, urreak eta zillarrak baño geiago balio du.

2. Aberatsak eta pobreak elkar arkitu zuten, Jauna da bataren eta bestearen egillea.

3. Gizon zentzudunak ikusi zuen gaitza zetorrela, eta ezkutatu zan; ajolagabea aurrera irago zan, eta kaltea etorri zitzaion.

4. Modu onaren atzena da Jaunaren beldurra, ondasunak, eta gloria, eta bizitza.

5. Armak eta ezpatak gaiztoaren bidean, baña bere anima gordetzen duenak, beretatik urrutira iges egiten du.

6. Esangia da: Gazteak asieran ibiltzeko artu zuen bidetik, andik beratatik ibilliko da zartuta ere.

7. Aberatzak agintzen die pobreai, eta zerbait prestatuta artzen duena, prestatzen dionaren mendekoa da.

8. Gaiztakeria ereitzen duenak, gaitzezko uztak izango ditu, eta bere aserreko zigorrarekin desegiña izango da.

9. Urrikaltasunerontz makurtua dana, bedeikatua izango da, bere ogietatik pobreari eman ziolako.

Garaitza eta honra irabaziko ditu, doañak ematen dituenak, zeren artzen dituztenen animak arrapatzen ditu.

10. Kanpora bota ezazu gaizto burlaria, bada berarekin irtengo dira erriertak, eta geldituko dira auziak, eta irainak.

11. Biotzeko tolesgabetasuna maite duenak, bere izketa gozo eta maitagarriagatik Erregea adiskidetzat idukiko du.

12. Jaunaren begiak jakin..x..itzen dute, eta gizon gaiztoaren itzak, oñazpietan ipiñiak dirade.

13. Esaten du alperrak: Leoia dago kanpoan, plazen erdian ilko nau.

14. Leize zakona da besteren andrearen aoa, Jaungoikoa berarekin aserretuta dagoena, eroriko da beratan.

15. Itsatsia dago mutillaren biotzari zentzugabetasuna; baña kastiguaren zigorra, kanpora botako du.

16. Gezurrak asmatzen diozkanak pobreari bere ondasunak ugaritutzeko, berak emango dio aberatsagoari, eta premian geldituko da.

17. Zeartu ezazu zure belarria, eta aditu itzatzu jakintsuen itzak; eta egon bedi arretaz zure biotza nere dotriñara,

18. Zeñ izango zatzu ederra, zure biotzean gordetzen dezunean, eta gañez egingo du zure ezpañetatik,

19. Jaunagan ipiñi dezazun zure itxedopena; eta argatik erakutsi dizut gaur zuri ere.

20. Ona non adirazi dizudan iru eratara gogorazioakin eta jakinduriarekin,

21. Ezagutuerazitzeko zuri beren ziertotasuna, erantzun dizaiezun arrazoi oiekin, bialdu zaituenai.

22. Etzaiozu egin gogortasunik pobreari, pobrea dalako, eta ez ezazu galdu atean premian dagoena.

23. Zeren Jaunak juzgatuko du bere kausa, eta traspasatuko ditu, bere anima traspasatu zutenak.

24. Etzaite izan gizon aserrekorraren adiskidea, eta etzaite ere ibilli gizon sumiñarekin,

25. Bere bideak ikasi ez ditzatzun, eta artu ez dezazun eskandaloa zure animarako.

26. Etzaite egon beren eskuak estututzen dituztenakin, eta eskeñtzen diradenakin zorren fiadoretzat,

27. Zeren baldin ez badaukazu zerekin pagatu, zer arrazoi dago zure oeko estalkia kendu ditzatzun?

28. Ez itzatzu irago anziñako muga, zure gurasoak jarri zituztenak.

29. Ikusi badezu bere lanean begiratua dan gizon bat? Erregeen aurrean egongo da, eta ez da egongo jendediaren aurrean.

OGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Esertzen zeranean jateko Prinziperen batekin, arretaz begiratu ezazu, zer ipintzen dizuten aurrean.

2. Eta ipiñi ezazu kanibet bat zure eztarrian; baldin zure animaren jabe bazera.

3. Ez ezazu iduki, gezurrezko ogia beragan daukanaren janarien gurarik.

4. Etzaite lanean ari aberastutzeko; baizik jarri zaiozu neurria zure zentzuari.

5. Ez itzatzu goratu zure begiak, iduki ez ditzakezun ondasunetara, zeren berak egingo dituzte agilarenak bezelako egoak, eta zerura egan egingo dute.

6. Etzaite joan jatera enbidia daukan gizonarekin; eta ez ezazu ere bere maiaren gurarik iduki.

7. Zeren azti eta igarlearen gisara, ez dakiana juzgatzen du.

Jan zazu, eta edan zazu, esango dizu, ta bere biotza ez dago zugan.

8. Gonbitatuko dezu jan dezun guztia; eta zure izketa ederrak, galduko dituzu.

9. Ez ezazu itz egin zentzugabeen belarrietara; zeren zure itzen dotrina, mezpreziatuko dute.

10. Etzaiezu ukiturik egin aurtxoen mugarriai, eta etzaite ere sartu umezurtzen kanpoan:

11. Zeren beren aidea sendoa da, eta berak juzgatuko du beren kausa zure kontra.

12. Eman bizaio sarrera zure biotzak dotriñari, eta zure belarriak jakinduriko itzai.

13. Etzaiozu urritu mutil gazteari kastigua, zeren zigorrarekin otsak ematen badiozkazu ere, ez da ilko.

14. Zuk zigorrarekin joko dezu, eta libratuko dezu bere anima infernutik.

15. Ene semea, zure anima jakintsua bada, nere biotza zurearekin gozatuko da.

16. Eta nere erraiak txit gozatuko dira; zure ezpañak gauza zuzenak esaten dituztenean.

17. Ez beza zure biotzak bekatarien enbidiarik iduki, baizik egun guztian zaude sendo Jaunaren beldurrean,

18. Zeren zure atzeneko orduan itxedopena idukiko dezu, eta zure itxedopena ez zatzu kendua izango.

19. Aditu ezazu, ene semea, eta izan zaite jakintsua, eta zure biotza bidean zuzendu ezazu.

20. Etzaite arkitu edaleen konbitetan; eztaere elkarrekin jateko aragizko eskoteak eramaten dituztenen janedanetan.

21. Zeren denbora iragorik edaten eta eskoteak ematen, ezerere gabe geldituko dira; eta beren bizitza lotia, soñeko zatarrez jantzia izango da.

22. Aditu zaiozu sortu zinduzan zure aitari, eta ez ezazu mezpreziatu zure ama, zartzen danean.

23. Egia erosi ezazu, eta ez ezazu saldu jakinduria, ez dotriña, ez aditza.

24. Pozez gora goraka ari da justoaren aita, seme jakintsua sortu zuena, beragan gozatuko da.

25. Poztu bediz zure aita eta zure ama, eta txit gozatu bedi sortu zinduzan emakumea.

26. Eman zadazu, ene semea, zure biotza, eta zure begiak nere bideak zaitu bitzate.

27. Zeren leize zakona da bordiona, eta putzu estua, besteren andrea.

28. Azeloan egon oi da bera bidean lapurra bezela; eta ilko ditu ikusten dituenak arretagabe daudela.

29. Zeñaentzat dirade aiak? Zeñ gurasorentzat dirade zorigaitzak? Zeñaen kontra izango dirade erriertak? Zeñaentzat amiltokiak? Zeñaentzat biderikan gabeko zauriak? Zeñak darabiltzki begiak erazekiak?

30. Ez al dirade oiek luzaro daudenak ardoa edaten; eta kopak ustutzen beren atseginа ipintzen dutenak?

31. Etzaiozu begiratu ardoari gorri dagoenean, ez bere koloreak zist egiten duenean bidrioan. Bera leunkiro sartzen da,

32. Baña azkenean utsikiko du sugeak bezela; eta pozoia isuriko du, ersugearen gisara.

33. Zure begiak besteren andreak ikusiko dituzte, eta zure biotzak gauza gaiztoak esango ditu.

34. Eta izango zera, itsasoaren erdian lo egiten duena bezelakoa; eta piloto loak artua bezelakoa, galdurik lema.

35. Eta esango dezu: Azoteak eman zizkidaten, eta ez nuen miñik artu. Eraman ninduten arrastaka, eta ez nuen sentitu. Noiz iratzartuko naiz, eta berriz ardoak arkituko ditut?

OGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Ez ezazu iduki gizon gaiztoen enbidiarik, eta ez ezazu ere iduki berakin egoteko gurariric.

2. Zeren beren adimentua dago lapurretak nola egin asmatzen, eta beren ezpañak engañatzeko gauzak esaten dituzte.

3. Jakinduriarekin etxea egingo da, eta sendotuko da zentzuarekin.

4. Dotriñaren bitartez beteko dira ganbarak gauza baliotsu eta txit eder guztiarekin.

5. Gizon jakintsua sendoa da, eta gizon asko dakiana, indartsua eta azkarra,

6. Zeren neurri egokiak artuta gerran egiten da, eta konseju asko dagoan tokian, an gauzak ongi joango dira.

7. Zentzugabearentzat gauza gaitza da jakinduria, ez du berak aoa atean idikiko.

8. Zentzugabearen izena emango zaio, gaitz egiteko asmazioetan dabillanari.

9. Bekatu egiten du zentzugabeak, bere gogoraziorañokoetan, eta gaizki esalea, gizonentzat nazka da.

10. Itxedopena galtzen badezu desalaitzen zerala atsekabeko egunean, zure sendotasuna laburra da.

11. Libratu itzatzu eriotzara eramanak diraden aiek, eta etzaite aspertu alegiñak egitez, libratzeko bizia kentzera arrastatuak diranak.

12. Esango bazeneza: Nere indarrak ez dirade orretara allegatzen; biotzak ikusten dituenak ezagutzen du; eta etzaio ezerere ezkutatzen zure animako gordetzalleari, eta emango dio ordaña gizonari bere obren araura.

13. Jan ezazu eztia, ene semea, zeren ona dan, eta abaraska zure eztarriarentzat txit gozoa izango da.

14. Alakoa ere izango da jakinduria zure animarentzat, zeñ arkitzen dezunean, itxedopena idukiko dezu zure atzenetan, eta zure itxedopena ez da utsean gelditukо.

15. Etzaite egon azeloan, eta etzaite ere ibilli gaiztakeriaren billan justoaren etxean, eta etzaiozu galerazi bere atsedena.

16. Zeren zazpi alditan eroriko da justoa, eta jaikiko da; gaiztoak, gaitzera amilduko dira.

17. Zure etsaia erortzen danean, etzaite poztu; eta ez bedi ere gozatu zure biotza bere galmenean:

18. Au ikusten duen Jainkoak gaizki eraman ez dezan, eta bere aserrea huragandik apartatu ez dezan.

19. Etzaite elean jarri gizaseme biurriakin, eta ez ezazu ere iduki gaiztoen enbidiarikan:

20. Zeren gaiztoak ez daukaten etorkizunaren itxedopenik, eta dongen kandela itzaliko dan.

21. Izan zaite, ene semea, Jaunaren eta Erregearen beldur; eta gaizki esaleakin etzaite nastu.

22. Zeren batbatean eroriko da beren gañera galmena, eta nork dakizki iragoko dituzten penak?

23. Gauza oiek ere jakintsuentzat, begiratzea juizioan bakoitza nor dan, ez da ongi egiña.

24. Esaten diotenak gaiztoari: Ona zera zu; izango dirade erriak madarikatuak, eta tribuak gorrorotatuak.

25. Errierta egiten diotenak, alabatuak izango dirade; eta beren gañera bendizioa etorriko da.

26. Itz zuzenakin erantzuten duenak, ezpañen gañean musuak emango ditu.

27. Prestatu ezazu zure kanpoko obra, eta egin itzatzu arreta andiarekin zure kanpoko lanak, gero zure etxea egin dezazun.

28. Etzaite testigu falsoa izan zure projimoaren kontra, eta etzaiozu ere iñori lausengarik esan.

29. Ez ezazu esan: Nola berak ni tratatu ninduen, ala nik bera tratatuko det, bakoitzari bere obraren araura itzuliko diot.

30. Gizon alper baten kanpotik irago nintzan, eta zentzugabeko gizon baten mastitik,

31. Eta ikusi nuen guztia zegoala asunez beterik, eta arantzak estalia zeukatela bere gaña, eta arrizko esia desegiña zegoan.

32. Au ikusirik, jarri nintzan nere biotzean gogoratzen, eta ejenplo onekin dotriña ikasi nuen.

33. Lo gutxi egin ezazu, esan nuen, etzaite luzaro arrauzika egon; eta gutxitxo batean idukiko dituzu eskuak gurutzez, atsedetzeko.

34. Eta gero etorriko zatzu premia korreoa bezela, eta eskale ibilli bearra, gizon armaduna bezela.

OGEITABOSGARREN KAPITULUA

1. Oiek ere dirade Salomonen parabola, Ezekias Judako erregearen gizonak bilduta, eskribatu zituztenak.

2. Jaungoikoaren gloria da bere itza ezkutatzea, eta erregeen gloria, billatzea esan nai duena.

3. Nola zerua bere alturan, eta lurra bere zakontasunean, ala Erregeen biotza da aditu eziña.

4. Kendu zaiozu zillarrari sarra, eta irtengo da ontzi txit garbi bat.

5. Alde erazi zaiozu gaiztakeriari erregearen aurretik, eta bere tronua sendotua izango da justiziaren bitartez.

6. Ez ezazu andi egin zure burua erregearen aurrean, eta etzaite jarri andizkien tokian.

7. Zeren obe da, esan dizazutela: igo zaite onara, eta ez humillatua izan zaitezela Prinzipearen aurrean.

8. Etzaite joan bereala korrika kontatzera, erriertaren bat izan dezulako, zure begiak ikusi dutena, zure adiskidea desonratuta, arkitu etzaitezen erremediatu ezin dezun eran.

9. Zure gauzen gañean tratatu ezazu zure adiskidearekin; eta zure ixillgauza arrotz bati ez zaiozu agertu.

10. Onek aditzen dituenean, iñakindu etzaizan, eta arpegira botatzen zuri aspertu gabe ari ez dedin.

Mesedeak eta adiskidetasunak libratzen dute gizona. Gorde itzatzu zuretzat, mezpreziagarri eginik jarri etzaitezen.

11. Urrezko sagarrak zillarrezko oetan bezela, bere denboran itza esaten duena.

12. Urrezko zirzillua, eta perla argitsua, zuzentzen duena gizon jakintsua, eta belarri esanekoa.

13. Elurraren otsak uztako denboran bezela, ala mandatari leialak, bialdu zuenari, atseden erazitzen dio bere anima.

14. Euririk ez dakarten aizezko odeiak bezelakoa da, gizon panparroi, bere eskeñtzak kunplitzen ez dituena.

15. Pazienziarekin bigunduko da prinzipea, eta mingañ leunak autsiko du gogortasuna.

16. Eztia arkitu dezu? Jan ezazu, asko dan beste zuretzat, berarekin aseta, gonbitatu ez dezazun.

17. Kendu ezazu zure oña zure auzoko etxetik, zugaz aseta gorrotatu ez zaitzan.

18. Dardoa, eta ezpata eta saieta zorrotza, bere projimoaren kontra gezurrezko testimonioa esaten duen gizona.

19. Atsekabeko egunean desleialagan itxedotzen duena, da ortz usteldua, eta oiñ giltzagetua.

20. Eta kapa galtzen du, otz egiten duen egunean.

Ozpiña gatzuan, kantak kantatzen diozkana biotz txit gaizto bati.

Sitsak soñekoari, eta zerrenak zurari bezela, ala tristezak kalte egiten dio gizonaren biotzari.

21. Zure etsaia gose bada, eman zaiozu jaten; egarri bada, eman zaiozu ura edateko.

22. Zeren bere buruaren gañera txingarrak bilduko dituzu, eta Jaunak ordaiñduko zaitu.

23. Ifar aizeak desegiten ditu euriak, eta arpegi tristeak mingañ murmuratzallea.

24. Obe da bizitea sabaiko zoko batean, andre erriertari batekin etxe batean baño.

25. Urrutitikan datorren albista berri bat, da egarri danarentzat ur freskoa bezelakoa.

26. Bekatuan erortzen dan justoa, gaiztoak ikusten duela, da iturri bat oñakin loitua, eta jatorri atsitua.

27. Nola eztiak gaitz egiten dien, beratatik geiegi jaten dutenai; ala Jaungoikoaren anditasuna aztertzen sartzen dana, bere gloriaren pisuak azpian sakatu eta estutua izango da.

28. Nolakoa dan erri idiki eta murruzko esi gabekoa, alakoa da izketan bere espiritua mendetu ezin duena.

OGEITA SEIGARREN KAPITULUA

1. Nola elurra udan, eta euriak uztako denboran, ala ez dagokio ongi gloria, zentzugabeari.

2. Norbaiten kontra, biderik eman gabe, egiten dan madarikazioa, iragoko da bere gañetik, egan beste toki urruti batera dijoan egaztia bezela, eta nai duen lekura dijoan txoria bezela.

3. Latigua zaldiarentzat, eta kabrestua astoarentzat, eta zigorra zentzugabekoen bizkarrarentzat.

4. Etzaiozu erantzun zentzugabeari bere barbulltasunaren araura, bere antzeko egin etzaitezen.

5. Erantzun zaiozu zentzugabeari bere barbulltasunaren araura, jakintsua dala berak sinistu ez dezan.

6. Oñetatik errena, eta gaiztakeriaren edalea, bere itzak mandatari zentzugabearekin bialtzen dituena.

7. Nola erren batek alperrik dauzkan berna ederrak, ala gaizki datorren gauza da parabola, zentzugabearen aoan.

8. Merkurioen montoian arri bat botatzen duena bezela, ala zentzugabeari honra ematen diona.

9. Moskortutako baten eskuan arantza erneko balitza bezela, ala itza zentzugabeen aoan.

10. Juizioak erabakitzen ditu auziak, eta zentzugabea ixiltzen duenak, aserreak biguntzen ditu.

11. Nola berak gonbitatu duenera itzultzen dan txakurra; ala bere barbullkeria berriz esaten duen zentzugabea.

12. Ikusi badezu gizon bat, bera jakintsua dala sinistzen duena? Berak baño, ezjakin batek itxedopen andiagoa idukiko du.

13. Nagiak esaten du: Kalean zeagok leoia, eta leoi emea bideetan.

14. Nola ateak bere opoaren gañean jira egiten duen, ala alperrak bere oean.

15. Nagiak ezkutatzen du eskua bere galtzarbearen azpian, eta nekea dauka, bere aora eramango badu.

16. Iduritzen zaio nagiari, jakintsuago dala, zazpi gizon, sentenziak esaten dituztenak baño.

17. Nolakoa dan txakur bati belarrietatik eldutzen diona, alakoa da, iragotzean, aserretzen dana, eta nastutzen dana beste baten erriertan.

18. Nola dan obenduna, aurtikitzen dituena saetak eta lantzak iltzeko,

19. Ala bere adiskidea marroz engañatzen duen gizona. Eta arrapatua danean, esaten du: Txantxetan egin ziat.

20. Egurra aitzen danean, itzaliko da sua, eta kendurik txismeroa, ez da izango erriertarik.

21. Nola ikatzak txingar egiteko, eta egurra sutarako, ala da gizon aserrekorra eleak ipintzeko.

22. Txismeroaren itzak gaitzgabeak dirudite; baña berak sartzen dirade erraien tokirik barrendikoenerañ.

23. Naiko bazeneza bezela apaindu lurrezko ontzi bat zillar erdoitsuarekin; alakoak ezpañ anditu, biotz txit gaizto batek laguntzen dienak.

24. Bere ezpañetatik da ezagutua etsaia, biotzean engañatzeko asmazioak darabiltzkianean:

25. Bere boza beeratzen duenean, etzaiozu sinistu, zeren zazpi gaiztakeria dauden bere biotzean.

26. Bere gorrotoa engañuz ezkutatzen duenaren gaiztakeria, agertua izango da batzarrean.

27. Zuloa egiten duena, bertara eroriko da, eta arria eroriko da mugitzen duenaren gañera.

28. Mingañ gezurtia, ez da egiaren zalea, eta ao lausenkariak galmenak dakarzki.

OGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Etzaite gozatu biarko egunean egingo dezun gauzaren gañean; bada ez dakizu, zer emango duen beragandik, etortzeko dagoen egunak.

2. Alabatu zaitzala bestek, eta ez zure aoak, arrotzak, eta ez zure ezpañak.

3. Pisutsua da arria, eta pisutsua da ondarra, baña gauza oiek baño oraindikan pisutsuagoa da zentzugabearen sumintasuna.

4. Aserre eta sumintasun goratuak ez diote ematen lekurik urrikaltasunari, baña gizon zeloz urduritu baten erasoa, nork sufritu dezake?

5. Obe da korrekzio agiria, amorio ezkutua baño.

6. Obeagoak dira maitatzen duenaren zauriak, norberari gorroto dionaren musu engañatzalleak baño.

7. Ongi janda dagoenak eztiari ere iguiaz begiratzen dio, baña gose danari, mingoitza ere gozo iruditzen zaio.

8. Bere kabiatik beste toki batera iragotzen dan egaztia bezela, ala bere lekua utzitzen duen gizona.

9. Biotza gozatzen da okenduakin, eta usai mota askorekin; eta anima gozatzen da adiskidearen konseju onakin.

10. Etzaiozu utzi zure adiskideari, ez zure aitaren adiskideari; eta etzaite sartu zure anaiaren etxean atsekabeko egunean.

Obe da auzoa aldean, anaia urrutian baño.

11. Ikasi ezazu jakinduria, ene semea, eta poztu ezazu nere biotza, erantzun dizaiokezun, arpegian ematen dizunari.

12. Gizon zentzuduna ikusirik gaitza, ezkutatu zan; ajolagabeak, aurrera iragorik, iduki zituzten kalteak.

13. Kendu zaiozu bere soñekoa arrotzaren fiatzalle atera zanari, eta atera zaiozu kanpotarrakgatik eman zuen prenda.

14. Deadar andiakin bedeikatzen duena bere auzoko gizona gauaz, jaikita, madarikatzen duenaren antzekoa da.

15. Neguko denboran itozurak dauzkan etxea, eta emakume errietaria, elkarrekin dijoaz.

16. Nai izatea au onera ekartzea, da, aizea gelditu nai izatea bezela; edo nekatzea, estututzeko olioa bere eskuaren barrenen.

17. Burnia burniarekin zorroztzen da; eta gizonak zorroztzen du bere adiskidearen aditza.

18. Pikoa zaitzen duenak, bere frutua jango du, eta bere nagusia ongi zaitzen duena, honratua izango da.

19. Nola ikusten diran uretan, an begiratzen dutenen arpegiak; ala gizonen biotzak zentzugabeentzat agirian daude.

20. Infernua eta eriotza ez dirade beñere betetzen; ala gizonen begiak ere ase eziñak dirade.

21. Nola zillarra probatzen dan urtutzeko tokian, eta urrea sutegian, ala da gizona probatua alabatzen duenaren aoz.

Gizon gaiztoaren biotzak, gaitzak billatzen ditu; baña gizon zuzenaren biotzak jakinduria billatzen du.

22. Piskatuko bazeneza ere zentzugabea motrairu batean, eskuz piskatutako garagar aleak bezela; etzaio kenduko berari bere zentzugabetasuna.

23. Ongi ezagutu itzatzu zure ardiak, eta iduki itzatzu begien aurrean zure artaldeak.

24. Zeren ez dezu idukiko beti, egiteko indarra, baña beragatik artuko dezu betiko koroa bat.

25. Zure agindura dauzkazu larreak, belar berdeak erne dira, eta bildu da mendietako elbitza.

26. Bildotsak zure jantzirako, eta antxumeak kanpoaren pagurako.

27. Asko dezu zure auntzen esnea zure janarirako, eta zure etxeko gauza premiatsuetarako; eta zure neskameai jaten emateko.

OGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Gaiztoak iges egiten du, iñork ere persegitzen ez diola; justoa berriz itxedotzen duen leoia bezela, beldur gabe egongo da.

2. Lurreko bekatuakgatik izan oi dira bertan prinzipe asko, bizitza laburrekoak, baña luzeagoa izango da prinzipearen bizitza, jakintsua bada; eta ikasten badu, emen erakusten diran gauzen aditza.

3. Gizon pobre, pobreai gezurrak asmatzen diztena, da eurijasa gogor bat bezelakoa, zeñak dakarren gosea.

4. Legeari utzitzen diotenak, alabatzen dute gaiztoa; gordetzen dutenak, bere kontra erazekitzen dira.

5. Gizon gaiztoak ez dute juizioan pensatzen; Jauna billatzen dutenak berriz, gauza guztiai arretaz begiratzen die.

6. Obeagoa da pobre, bere tolesgabetasunean dabillana, aberatza bide gaiztoetan baño.

7. Legea gordetzen duena, seme jakintsua da, baña tripontziai jaten ematen dienak, bere aita lotsatzen du.

8. Ondasunak montoitzen dituenak lukuru eta bidegabeko irabazien bitartez, biltzen ditu pobreentzat ugaria danarentzat.

9. Itxiten dituena bere belarriak, legea ez adituteko, Jaungoikoak madarikatua izango da bere orazioa.

10. Justoak bide txarrean engañatzen dituena, bere galmenean eroriko da, eta tolesgabeak bere ondasunen jabe izango dirade.

11. Aberatsari iduritzen zaio bera jakintsua dala, baña pobre zentzudunak, bere barrena ezagutuko du.

12. Justoak goratuak izatean, dago erreñoen gloria andia; gaiztoak erreñatzen dutenean, gizonak korrika dijoaz beren galmenera.

13. Bere gaiztakeriak ezkutatzen dituena, ez da ongi zuzendua izango; baña konfesatzen dituenak, eta utzitzen dituenak, urrikaltasuna iritxiko du.

14. Zorionekoa, beti beldurrez dagoen gizona, baña biotz gogorrekoa dana, gaitzean eroriko da.

15. Leoi orroakaria, eta artz goseak illa, da Prinzipe gaizto, erri pobre baten gañean agintzen duen bat.

16. Zentzugabeko Prinzipeak, asko gaizki erabilliko du bidebageakin; zikoiztasuna gorrotatzen duena berriz, urte askotan biziko da.

17. Gezurrezko asmazioakin iñoren odola isurtzen duen gizonari, leize baten ertzera igesi joaten bada ere, iñork ez dio elduko erori ez dedin.

18. Tolesgabetasunarekin dabillana, salbatuko da; bide okerretik dabillana, noizbait eroriko da.

19. Bere lurra lantzen duena, ogiz aseko da; baña alperreria maitatzen duena, premiaz beteko da.

20. Gizon leiala txit alabatua izango da, baña arin aberastu nai duena, ez da bekatu gabe egongo.

21. Juizioan arpegiari begiratzen dionak, ez du ongi egiten: onek ogiaren mokadurañoko bat gatik, utziko du egia.

22. Arin aberastu nai duen, eta besteen ... daukan gizonak, ez daki gero premia etorriko zaiola.

23. Gizon bat zuzentzen duenak, arkituko du gero beraganako grazia andiagoa, mingañaren balakuakin engañatzen duenak baño.

24. Bere aitari eta bere amari zerbait kentzen dionak, eta esaten duenak ez dala au bekatu, gaiztakeria au da gizona iltzen duenaren gaiztakeriaren antzekoa.

25. Urgullutu eta arrotzen danak, erriertak iminten ditu, baña Jaunagan itxedotzen duenari, guztiak ongi irtengo dio.

26. Bere konsejuan fiatzen dana, zentzugabea da, baña jakinduriaren erara dabillana, au salbatuko da.

27. Pobreari ematen dionari, etzaio ezerere faltatuko, baña erreguz eskatzen duena mezpreziatzen duena, premian arkituko da.

28. Gaiztoak jaikitzen diranean, ezkutatuko dira gizon onak. Aiek galtzen diradenean, justoak ugarituko dira.

OGEITA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Lepo gogorreko gizon, bera zuzentzen duena mezpreziatzen duenari, batbatean bere galmen osoa etorriko zaio, iñoizere ez da sendatuko.

2. Justoen ugaritasunean jendedia poztuko da; gaiztoak agintaritza artzen dutenean, erriak negar egingo du.

3. Jakinduria maitatzen duen gizona, bere aitaren atsegiña da, baña emakume galduak mantentzen dituenak, galduko du daukan guztia.

4. Errege justoak egiten ditu zorionekoak bere erriak; gizon zikoitzak, galduko ditu.

5. Bere adiskideari itz biguñak eta labañak esaten diozkanak, sarea bere oñetan zabaltzen dio.

6. Gizon bekatari eta gaiztoa bere lazoan eroriko da, eta justoak kantatuko ditu alabantzak eta gozatuko da.

7. Justoak begiratzen du pobreen gauzak gatik; gaiztoak ez du onelakorik egiten.

8. Gizon gaiztoak, erriaren galmena dirade; jakintsuak berriz galmenetik salbatzen dute.

9. Gizon jakintsua zentzugabearekin elean ari bada, naiz aserretu dedilla, naiz farra egin dezala, ez du atsedenik arkituko.

10. Gizon odolzaleak, tolesgabea gorrotatzen dute; justoak berriz, beren anima billatzen dute.

11. Zentzugabeak bereala esaten du bere bularrean daukan guztia, baña jakintsuak atzeratzen du, eta utzitzen du geroko.

12. Gezurrezko itzak pozik aditzen dituen Prinzipeak, konsejari guztiak gaiztoak dauzka.

13. Pobrea eta artzekoduna arkitu ziran. Biak argitzen ditu Jaunak.

14. Egiaren araura pobreak juzgatzen dituen erregeak, betiko bere erreñua sendotzen du.

15. Kastiguak eta erriertak jakinduria ematen dute, baña bere borondatera utzia dan mutillak, lotsatzen du bere ama.

16. Gaiztoen ugaritasunean gaiztakeriak ugaritzen dira, eta justoak aien galmena ikusiko dute.

17. Asi ezazu ongi zure semea, eta izango da zure atsegiña, eta zure animako gozotasuna.

18. Profezia faltatu ezkero, erria arretagabea izango da, baña zorionekoa izango da, Legea gordetzen duena.

19. Mendekoa ez da allegatuko jakintsua izatera itzakin, esaten diozuna aditzen duelako, baña ez du erantzun nai.

20. Ikusi badezu gizon urduri bat itz egiteko? Obetoago itxedongo dirade beragandik barbulkeriak, emendatzea baño.

21. Aur denboratik bere mendekoa mizkinkerietan azitzen duenak, gero muker arkituko du.

22. Gizon aserrekorrak, erriertak ipintzen ditu; eta erraz sumindutzen danak, errazago bekatu egingo du.

23. Urgullutsuari humillazioak jarraituko dio; espirituz humilla, gloriaz betea izango da.

24. Lapur batekin elkartzen danak, bere anima gorrotatzen du, aditzen dio, juramentoa artzen dionari, eta ez du ezerere agertzen.

25. Gizonaren beldur dana, laster eroriko da; Jaunagan itxedotzen duena, goratua izango da.

26. Askok Prinzipearen arpegia billatzen dute, baña bakoitzaren juizioa Jaunagandik aterako da.

27. Justoak gizon gaiztoa gorrotatzen dute, eta gaiztoak gorrotatzen dituzte bide zuzenean daudenak.

Dotriña au gordetzen duen semeak, ez du zertan iduki galtzeko beldurrikan.

OGEITA AMARGARREN KAPITULUA

1. Biltzen dituenaren, jakinduriak gañez egiten dionaren semearen itzak.

Jaungoikoa berarekin dagoan gizon batek azaldu zuen ikusketa, eta berarekin dagoen Jaungoikoak sendotua izanik, esan zuen:

2. Gizonik zentzugabeena ni naiz, eta gizonen jakinduria ez dago nerekin.

3. Ez nuen ikasi jakinduria, eta santuen aditza ez det ezagutzen.

4. Zeñ igo zan zerura, eta jetxi zan? Zeñek iduki zuen aizea bere eskuen barrenen? Zeñek bildu zituen urak soñeko batean bezela? Zeñek jaso zituen lurraren muga guztiak? Zeñ da onen izena? Eta nolako izena dauka bere semeak? Esan ezazu zuk, baldin badakizu.

5. Jaungoikoaren itz guztia, erazekia sua bezela, da, beragan itxedotzen dutenen ezkutua.

6. Etzaiozu ezerere itsatsi bere itzai, errierta egin ez dizazun, eta izan ez zaitezen gezurrean arkitua.

7. Bi gauza eskatu dizkizut, etzazkidazu ukatu ni il nadin baño lenago.

8. Urgulleria eta itz gezurtiak urrutiratu itzatzu nigandik.

Eskale izateko biderik, ez aberastasunik etzadazu neri eman, baizik eman zadazu biziteko bear dedana:

9. Asetzen naizanean, tentatua izan ez nadin zu ukatzera, eta esan ez dezadan: Zeñ da Jauna? Edo premiaren indarrez egin ez dezadan lapurretan, edo nere Jainkoaren izenagatik gezurrarekin juramentu egin ez dezadan.

10. Ez ezazu salatu mendekoa bere Jaunaren aurrean, madarikatu etzaizan, eta erori etzaitezen.

11. Bada jende mota bat, bere aita madarikatzen duena, eta bere ama bedeikatzen ez duena.

12. Bada jende mota bat, berak bera garbitzat daukana, eta alaere ez dago bere orbanetatik garbitua.

13. Bada jende mota bat, zeñaen begiak diran arroak eta betazalak gorontz dauzkatenak.

14. Bada jende mota bat, ortzen lekuan ezpatak dauzkana, eta bere agiñakin maskatzen duena, jateko nork lagundurik lurrean ez daukatenak, eta gizonen arteko beartsuak.

15. Bi dirade izaiaren alabak, esaten dutenak: Eman zadazu, eman zadazu.

Iru gauza daude ase eziñak, eta laugarrena beñere esaten ez duena: Asko da.

16. Infernua, emasabelaren aoa, eta iñoiz urez asetzen ez dan, lurra, gañera suak ez du iñoiz esaten: Asko da.

17. Bere aitari farra egiten dionari, eta bere amaren aurregitea mezpreziatzen duenari, erreketako belak atera bizaieztela begiak, eta agila kumeak jan.

18. Iru gauza dirade neretzat gaitzak, eta laugarrena batere ez dakit.

19. Agilaren bidea airean, sugearen bidea aitzaren gañean, ontziaren bidea itsasoaren erdian, eta gizonaren bidea gazte denboran.

20. Alakoa ere da andre adulteraren bidea, zeñak jaten du, eta bere aoa garbiturik, esaten du: Ez det gaiztakeriarik egin.

21. Iru gauzagatik mugitzen da lurra, eta laugarrena ezin sufritu du.

22. Mendekoagatik, erreñatzen duenean, zentzugabeagatik, janariz aseta dagoenean,

23. Andrekume gorrotatuagatik, ezkontzen danean; eta neskameagatik bere etxekoandraren heredera danean.

24. Lau dirade lurreko gauza txikitxoak, eta oiek dirade, jakintsuak berak baño ere jakintsuagoak.

25. Txingurriak, erri erkiña, uztako denboran bere janaria prestatzen duena.

26. Erbitxoa, erri indar gutxikoa, zeñak egiten duen bere oea aitzean.

27. Langostak ez dauka erregerik, eta alaere irtetzen dira guztiak batera, eta berdin, beren taldetan.

28. Larjalea, zeñ dijoan bere oñen gañean, eta bizi dan erregeen jauregietan.

29. Iru gauza dirade ongi dabiltzanak, eta laugarrena bidean ederki dijoana.

30. Leoia, zeñak, nola dan abere guztietatik sendoena, ez daukan beldurrik edozeiñ arkitu arren.

31. Ollarra, zeñ dabillan bera danaz betea; eta aria; eta erregea, zeñarekin iñork ezin ditzaken indarrak neurtu.

32. Bada agertu zuena zentzugabeko bat zala gora jasoa izanda gero; eta aditu balu, bere aoan eskua ipiñiko zuen.

33. Gogor estututzen duenak errapea, esnea ateratzeko, guria ateratzen du, eta indar andiarekin txintx egiten duenak, ateratzen du odola, ala aserrerako bideak ematen dituenak, ipintzen ditu aierkuneak.

OGEITA AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Samuel erregearen itzak. Zeruko ikusketa, zeñarekin bere amak erakutsiak eman ziozkan.

2. Zer gauza, nere maitea, zer gauza nere erraietako maitea, zer gauza nere gurarien maitea?

3. Etzaieztezu eman dauzkazun ondasunak emakumeai, eta ez bediz ere izan zure aberastasunak erregeen galmenerako.

4. Etzaiezu eman, o Samuel, etzaiezu eman ardorik erregeai, zeren ez dago ixilleko gauzarik ordikeriak erreñatzen duen tokian.

5. Eta gertatu ez dedin, ongi edanda egonik, aztu ditezela justizia egiteaz, eta alabatu ez dezaten pobreen kausa.

6. Eman zaiezute garagar ardoa triste daudenai; eta ardoa, biotzeko mingoiztasunean daudenai.

7. Edan bezate, eta aztu bediz beren premiarekin, eta ez bediz geiago oroitu beren miñarekin.

8. Idiki ezazu aoa mutuarentzat, eta bideante guztien semeen gauzetan.

9. Idiki ezazu zure aoa, erabaki ezazu justo dana, eta juzgatu itzatzu nork begiratu ez daukana eta pobrea.

10. Emakume sendo bat, nork arkituko du? Balio andiagokoa da, urrutitik, eta lurraren atzeneko mugetatik ekarritako gauzarik ederrenak baño.

11. Beragan ipintzen du itxedopena bere senarraren biotzak, eta kondarren premiarik ez du idukiko.

12. Ongi egingo dio, eta ez dio gaitzik egingo bere bizitzako egun guztietan.

13. Billatu zituen ardi illea eta liñoa, eta bere eskuetako mañarekin egin zituen lanak.

14. Egin zan merkatariaren ontzi, urrutitikan bere ogia dakarrena bezelakoa.

15. Eta gauaz jaiki zan, eta eman zien aragi zatia etxekoai, eta janaria neskameai.

16. Ipiñi zituen begiak kanpo batean, eta erosi zuen. Bere eskuz egindako irabaziakin jarri zuen masti bat.

17. Gizonkiro sendotu zan, eta indartu zuen bere besoa.

18. Probatu eta ikusi zuen bere merkataritza ona zala. Bere argia gauaz ez da itzaliko.

19. Eldu zien bere eskuakin etxeko lan neke andikoai, eta bere beatzak liñaia artu zuten.

20. Idiki zuen bere eskua eskalearentzat, eta zabaldu zituen bere besoak premiatsuari laguntzeko.

21. Ez da elurraren otzen beldur izango etxekoentzat, zeren bere etxeko guztiak daude forrodun soñekoakin.

22. Egin zuen beretzat soñeko koltxatu bat. Liño txit fiñez eta purpuraz jantziten da.

23. Bere senarra ezagutua izango da ateetan, lurreko Senadoreakin.

24. Egin zituen eun txit fiñak, eta saldu zituen, eta eman ziozkan gerrikoak Kanaantarrari.

25. Sendotasuna eta garbitasuna dira bere apaingarriak, eta pozez egongo da atzeneko egunean.

26. Bere aoa jakinduriari idiki zion, eta biguntasuneko legea dago bere mingañean.

27. Begiratu zuen nola bizi ziran bere etxekoak; eta etzuen ogia alperrik jan.

28. Jaiki ziran bere semeak, eta ao batez esan zuten, txit doatsua zala, bere senarrak ere; eta alabatu zuen.

29. Askok bildu zituzten ondasunak: zuk atzera utzi dituzu guztiak.

30. Engañakorra da irudi ona, eta utsa balio duena edertasuna. Jaunaren beldur dan andrea, hura izango da alabatua.

31. Eman zaiozute bere eskuen frututik, eta bere obrak ateetan alabatu bezate.

EKLESIASTESEN LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Eklesiastes, Dabiden semearen, Jerusalengo erregearen itzak.

2. Urgulleria txit andia, esan zuen Eklesiastesek, urgulleria txit andia, eta guzia da urgulleria.

3. Zer ateratzen du gizonak bere lan guzitik, zeñean arazoz nekatzen dan eguzkiaren azpian?

4. Gizaldi bat iragotzen da, eta beste gizaldi bat dator; lurra berriz beti dago geldirik.

5. Eguzkia ateratzen da, eta sartzen da, eta bere tokira itzultzen da. Eta andik berriz aterarik,

6. Egoerontz zuzentzen da, eta gero zeartzenda ifarrerontz. Aizea dabil lurraren inguru guztitik, eta berriz asitzen ditu bere jirak.

7. Ibai guztiak itsasoan sartzen dirade, eta itsasoak ez du gañezik egiten: irtetzen diraden tokira biurtzen dirade ibaiak, berriz ere korrika joateko.

8. Gauza guztiak dirade gaitzak, ez ditzake gizonak itzez adirazi. Ez da begia asetzen ikustez, eta ez da ere belarria betetzen aditzez.

9. Zer da izan zana? izango dana bera. Zer da egiña izan zana? Egiña izango dana bera.

10. Ez dago gauza berririk eguzkiaren azpian, eta ez dezake iñork esan: Ona emen au gauza berria da, zeren gu baño lenagoko gizaldietan izandu zan.

11. Ez dago lenbiziko gauzen oroipenik, eta geroko gauzen oroipenik ere ez da izango, atzenean izango diradenetan.

12. Ni Eklesiastes izan nintzan Israelko erregea Jerusalenen,

13. Eta erabaki nuen nere biotzean, egitea azterren eta billakuntzak jakinduriarekin, eguzkiaren azpian gertatzen diraden gauza guztien gañean. Lantegi txit nekau au eman zien Jaungoikoak gizonen semeai, beratan ari zitezen.

14. Ikusi nuen eguzkiaren azpian egiten dan guztia eta ona emen non guztia dan urgulleria eta espirituko atsekabea.

15. Anima txit gaiztotuak nekez ondutzen dira; eta atzengabea da zentzurik ez daukatenen zenbata.

16. Itz egin nuen nere biotzean, esaten nuela: Ona emen non andia egin naizan, eta atzera utzi ditut jakindurian, Jerusalenen ni baño lenago

izan ziran guztiak, eta nere espiritua arreta andiarekin egon da gauza askori begira, eta asko ikasi det.

17. Orobat nere biotza itsatsi det ezagutzera zentzua, eta dotrina, eta utsegiteak eta errakuntzak. Baña ikusi det au bera ere nekea, eta espirituko atsekabea dala.

18. Jakinduria andiak berarekin naigabe asko dakarren ezkero, eta jakinduria geitzen duenak, lana ere geitzen du.

BIGARREN KAPITULUA

1. Orduan esan nuen nik nere biotzean: Joango naiz, eta idukiko ditut atsegiñak ugari, eta ondasunetan gozatuko naiz. Eta ikusi nuen, au ere utsa balio duen gauza zala.

2. Farra iduki nuen gezurtzat, eta gozotasunari esan nion: Zergatik alferrik engañatzen aiz?

3. Pensatu nuen nere biotzean ez ematea ardorik nere aragiari, nere biotza jakinduriaganatzeko, eta errakuntzan ez erortzeko, ikusi artean, zer gauza izango zan onena gizonen semeentzat; zer egingo duten eguzkiaren azpian bizi diran egunetan.

4. Agindu nuen obra txit andiak egiteko, etxeak egin nituen, eta ipiñi nituen mastiak,

5. Egin nituen baratzak eta jardinak, eta ipiñi nituen zuaitz mota guztiak.

6. Egin nituen urak idukitzeko putzuak, ernetzen ziran zuaitzen basoa erregatzeko.

7. Izan nintzan mendeko gizaseme eta emakumeen Jauna, eta familia andia iduki nuen, baitaere abere eleak, eta ardi talde andiak, ni baño lenago Jerusalenen izan ziran guztiak baño geiago.

8. Montoitu nituen zillarra eta urrea; eta erregeen eta probinzietako ondasunak; autu nituen gizaseme eta emakume kantariak, eta gizonen semeentzat gozagarria izan liteken guztia, basoak eta pitxarrak ardoa serbitzeko.

9. Eta ondasun geiago iduki nuen, ni baño lenago Jerusalenen izan ziran guztiak baño. Jakinduriak ere iraun zuen nerekin.

10. Ez nien ukatu nere begiai gura izan zuten gauzarikan batere, ez nion ere nere biotzari galerazi atsegin guztia iduki zezala, eta gozatu zedilla, nik prestatu nituen gauzetan, eta uste nuen au zala nere zoriontasuna, nere lanak neronek gozatzea.

11. Eta biurtu nintzanean nere eskuak egin zituzten obra guztietara, eta ni alferrik izerditu nintzan lanetara, ikusi nuen guztiak utsa balio zuela, eta etzegoala beretan biotzeko atsekabea baizik, eta etzegoala eguzkiaren azpian gauza iraunkorrik batere.

12. Emendikan irago nintzan jakinduriari arretaz begiratzera, eta gizonen errakuntzai, eta zentzugabetasunari; (baña zeñ da gizona, esan nuen, bere Egilla Erregearen obrai jarraitu al izateko?),

13. Eta ikusi nuen, ainbeste eramaten diola jakinduriak zentzugabetasunari, nolako desberdintasuna dagoen argiagandik illuntasunetara.

14. Jakintsuaren begiak bere buruan, zentzugabea illuntasunetan dabil, eta ikasi nuen, bat bera zala bataren eta bestearen eriotza.

15. Eta esan nuen nere biotzean: Zentzugabearen eta nere eriotza bat izango bada, zer balio dit jakinduria iritxitzeko alegin geiago egin izateak? Eta nere biotzarekin itz egin ezkero, ezagutu nuen, au ere utsa balio zuen gauza zala.

16. Zeren jakintsuaren oroipena ez da betikoa izango, nola zentzugabearena ere ez dan; eta geroko denborak guztia estaliko dute aztutzearekin. Jakintsua, ezjakiña bezela iltzen da.

17. Eta argatik nazkagarria zan nere bizitza neretzat, ikusirik eguzkiaren azpian gaitz mota guztiak zeudela, eta gauza guztiak diradela utsa eta espirituko atsekabea.

18. Berriz gorrotoz begiratu nien nere alegin guziai, zeñtzuekin egin nuen nigan zan guztia, nere ondoren primu bat idukitzeko,

19. Zeñ ez dakit izango ote dan jakintsua, ala zentzugabea; baña bera izango da nere lanen jabe, zeñatan nik ainbeste izerdi bota nuen, eta ainbeste arazo iduki nuen. Eta gauza ain alferrikan bai al dago?

20. Argatik utzi diet gauza guzi oiei, eta erabaki det nere biotzean, ez berriz arazorikan batere artzea mundu onetako gauza batgatik ere.

21. Ikusirik nekatu ezkero bat, lanean jakinduria eta dotriñarekin, eta egin ezkero beloak, utzitzen diola batek irabazi duena alfer bati, zeñ dan egiaz utsa balio duen gauza, eta zorigaitz andia.

22. Zeren, zer balioko dio gizonari beren lan guziak, eta espirituko atsekabeak, zeñarekin dan oñazkatua eguzkiaren azpian?

23. Bere egun guztiak oñazez eta doakabez beteak daude, eta gauaz ere ez du bere gogorazioak atsedetzen, eta ez al da au utsa balio duen gauza bat?

24. Ez al da obe jatea, eta edatea, eta ezagutu erazitzea bere animari bere lanen ondasunak? Baña doai au Jaungoikoaren eskutik dator.

25. Nork ala iretsiko ditu, eta idukiko ditu gozotasunak nik bezin ugari?

26. Jaungoikoak, bere gogokoa dan gizonari, ematen diozka jakinduria, eta aditza, eta poza; bekatariari berriz bialtzen diozka atsekabea eta ajola alperrak bildu eta montoitzeko ondasunak, utziteko Jainkoak dakianari, baña au ere da utsa balio duen gauza, eta animako arazo alperra.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Gauza guztiak dauzka beren denbora, eta guztiak beren tokietatik iragotzen dira eguzkiaren azpian.

2. Bada jaiotzeko denbora, eta iltzeko denbora.
Landatzeko denbora, eta landatu dana ateratzeko denbora.

3. Iltzeko denbora, eta sendatzeko denbora.
Desegitzeko denbora, eta egiteko denbora.

4. Negar egiteko denbora, eta farra egiteko denbora.
Suspirioetako denbora, eta dantzan egiteko denbora.

5. Arriak zabaltzeko denbora, eta biltzeko denbora.
Laztantzeko denbora, eta laztantzetatik urrutiratzeko denbora.

6. Irabazteko denbora, eta galtzeko denbora.
Gordetzeko denbora, eta botatzeko denbora.

7. Urratzeko denbora, eta josteko denbora.
Ixillik egoteko denbora, eta itz egiteko denbora.

8. Amorioaren denbora, eta gorrotoaren denbora.
Gerrarako denbora, eta pakeko denbora.

9. Zer geiago dauka gizonak bere lanetik?

10. Ikusi det Jaungoikoak gizonen semeai eman dien atsekabea, berarekin bete ditezen.

11. Gauza guztiak egin zituen onak bere denboran, eta eman zuen mundua beren ezbaietarako, ez dezan gizonak arkitu, Jaungoikoak asieratik azkeneraño egin zuen obra.

12. Eta ezagutu nuen, ez zegoala gauza obeagorik, nolakoa dan poztutzea, eta ongi egitea bizi dan artean.

13. Zeren jaten eta edaten duen edozeñere gizonek, bere nekeen frutua gozatzen duela, au da jaungoikoagandik artzen duen doai bat.

14. Ikasi nuen, Jaungoikoak egin dituen obra guztiak, beti irautzen dutela. Ezerere ezin itsatsi ez kendu genezakiokegu, Jaungoikoak egin zuenari, bera beldurrez begiratua izan zedin.

15. Egiña izan zanak, orrek irautzen du, izango diraden gauzak, izan ziran onezkero, eta Jaungoikoak berriztatzen du, irago zana.

16. Ikusi nuen eguzkiaren azpian juizioaren lekuan gaiztakeria, eta justiziaren lekuan bidegabetasuna.

17. Eta nere biotzean esan nuen: Justoa eta gaiztoa Jaungoikoak juzgatuko ditu, eta gauza guztiak zuzentzeko denbora orduan izango da.

18. Esan nuen nere biotzean gizonen semeen gañean, Jaungoikoak probatuko zituela, eta erakutsiko zuela, zirala abereen antzekoak.

19. Zeren gizona abereen antzera iltzen da eta il bear izatean, biak dirade berdiñak; bada nola iltzen dan gizona, ala berak ere iltzen dirade. Era batean guztiak asnasa artzen dute, eta ez dauka gizonak abereak baño geiago, guztia dago urgulleriaren mendean.

20. Eta guztia toki batera dijoa, gauza guzti oiek lurraz egiñak izan ziran, eta berriz ere orobat lur izatera itzultzen dirade.

21. Nork daki Adanen semeen espiritua goira igotzen ote dan, eta abereen espiritua beera jetxitzen ote dan?

22. Eta aditu nuen, ez dagoela gauza obeagorik batere, nolakoa dan poztutzea gizona bere lanean, eta au dala berari dagokiona. Zeren nork imiñi dezake, bere egunak iragota gertatuko dana ezagutzeko eran?

LAUGARREN KAPITULUA

1. Itzuli nintzan beste gauza batzuetara, eta ikusi nituen eguzkiaren azpian iragotzen diran bidegabetasunak, eta obengabeen negarrak, eta ez zegoela gozatzallerik batere, eta berak ere zeudela ezin gogor eginik erasoari, egonik, dauden bezela, iñoren laguntasunik gabe.

2. Eta geiago alabatu nituen illak, biziak baño.

3. Eta bata ta bestea baño doatsuagotzat iduki nuen, oraindikan jaio ez zana; eta ikusi ere ez dituena, eguzkiaren azpian egiten diran gaiztakeriak.

4. Berriz jarri nintzan arretaz begira gizonen lan guztiai, eta ikusi nuen bakoitzaren eginalai ondamuz begiratzen diela lagun urkoak, eta onetan ere urgulleria eta ajola alferra daude.

5. Zentzugabeak bere eskuak gurutzez ipintzen ditu, eta jaten ditu bere aragiak, esaten duela:

6. Obe da eskubetetxo atsedenarekin, esku biak bete nekearekin, eta biotzeko atsekabearekin baño.

7. Pentsatzen nengoala, utsa balio duen beste gauza bat ere arkitu nuen eguzkiaren azpian.

8. Badago bat bakarrik, eta ez dauka bigarrenik, ez semerik, ez anaiarik; eta alaere ez da lan egitez aspertzen, eta bere begiak ere ez dirade ondasunez aspertzen, eta ez da ere beregantzen, esaten duela: Zeñarentzat ari naiz lanean, eta utzitzen det nere anima ondasun oiek gabe? Au ere utsa balio duen gauza, eta atsekabe txit andia da.

9. Obe da bada bi elkarrekin egotea, bat bakarrik baño, zeren beren elkartasuneko laguntasuna daukate.

10. Bat erortzera badijoa, besteak eltzen dio. Ai, bakarrik dagoenaren urrikigarria! Zeren erortzen danean, ez dauka nork jaso dezan.

11. Eta bi elkarrekin lo badatzate, elkar berotuko dute, bat bakarra nola berotuko da?

12. Eta norbaitek geiago egiten badio bati, bik gogor egingo diote: iru toleseko soka bat, nekez urratutzen da.

13. Obeago da mutil beartsu eta jakintsua, Errege zar eta zentzugabeko, gero ongi izateko neurriak artzen ez dakiena baño.

14. Zeren karzelatik eta kateetatik irtetzen da batzuetan norbait, erreñatzeko, eta beste bat izan arren erregeen jauregian jaioa, premian iltzen da.

15. Ikusi nituen nik, eguzkiaren azpian bizi diran gizon guztiak, aitaren lekuan erreñatuko duen gazteari laguntzen diotela.

16. Neurrigabea da, bere aurretik joan ziraden guztien erriaren zenbata; eta gero egongo diradenak, ez dirade beragan poztuko. Baña au ere urgulleria eta espirituko atsekabea da.

17. Zaitu ezazu zure oña Jaungoikoaren etxean sartzen zeranean, eta alderatu zaite aditzera. Zeren asko obeago da obediezenzia, zentzugabeen eskeñtzak baño, zeñak ez duten ezagutzen zeñ gaizki egiten duten.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Ez ezazu itzik egin oarkabe, eta zure biotza ere ez bedi ariña izan itza esateko Jaungoikoaren aurrean. Zeren Jaungoikoa zeruan dago, eta zu lurraren gañean. Argatik gutxi izan bitez zure arrazoiak.

2. Ajola askori amesak jarraitzen diezte, eta itz askoan barbullkeria arkituko da.

3. Jaungoikoari eskeñtzaren bat ekin badiozu, ez ezazu luzatu kunplitzea, zeren Jaungoikoa ez da doañ desleial eta ajolagabearen zalea. Baizik kunplitu ezazu eskeñi dezun guztia.

4. Eta asko obeago da ez botorik ekitea, botoa egin eta gero eskeñia ez kunplitzea baño.

5. Ez bizaio zure mingañak zure gorputzari bekatu ekiñerazi. Eta ez ezazu ere esan Aingeruaren aurrean: Ez dago Probidenziarik. Aserreturik Jaungoikoa zure itzen kontra, desegin ez ditzan zure eskuen lan guztiak.

6. Ames asko dagoen lekuan, an gauza uts txit asko dago, eta ezin kontatu adiña itz: baña zu Jaungoikoaren beldur izan zaite.

7. Ikusiko baziñitu beartsuak menderatuta, eta gogortasun geiegik agintzatzen duela erabakietan, eta justizia goibetua dagoela probinzian, etzaite egite onekin miraritu, zeren goikoa baño gorago dago beste bat; eta oien gañean ere beste goratuago batzuk daude,

8. Eta gañera Erregeak agintzen dio, bere mendean dagoen lur guztiari.

9. Zikoitza ez da diruz aseko, eta aberastasunak maitatzen dituenak, ez du beretatik fruturikan batere aterako, eta au ere utsa balio duen gauza da.

10. Aberastasun asko dagoen tokian, an daude ere berak jaten dituzten asko. Eta zer mesede ateratzen du beren jabe danak, bere begiakin aberastasunak ikustea baizik?

11. Gozoa da loa langillearentzat, naiz asko jan dezala, nai gutxi; asetasunak ordea ez dio utziko aberatzari lorik egiten.

12. Bada ere beste eritasun txit gaizto bat, eguzkiaren azpian ikusi nuena, aberastasunak gordeak bere jabearen kalterako.

13. Zeren ikusten ditu ezkutatzen dirala bere atsekabe ikaragarri batekin. Beragandik sortutako semeak ikusiko du bere burua premiarik andienean.

14. Nola larrugorrian atera zan bere amaren sabeletik, ala itzuliko da, eta bere lanetik ezertxoere ez du berarekin eramango.

15. Egiaz zorigaitz txit negargarria da au: nola etorri zan, ala itzuliko da. Zer balio dio bada aizearentzat lanean aritu izateak?

16. Bere bizitzako egun guztietan jan zuen illuntasunean, eta kezka askoren erdian, eta urri eta itun.

17. Argatik nik ongi egintzat daukat, gizonak jan eta edan dezala, eta pozez gozatu dedilla bere lanean, zeñean nekau zan bera, Jaungoikoak eman ziozkan bere bizitzako egunetan, eta au da berari dagokiona.

18. Eta Jaungoikoak ematen diozkanean gizon bati ondasunak eta azienda, eta ematen ere dionean beretatik jateko eskubidea, eta gozatzea berari dagokiona, eta bere lanean poztutzea, au Jaungoikoaren doai bat da.

19. Zeren bere bizitzako egunakin ez da asko oroituko, zeren Jaungoikoak ipintzen du bere biotza gozotasunez betea.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Oraindik badago beste gaitz bat ere, eguzkiaren azpian ikusi nuena, eta egiaz maiz izan oi dana gizonen artean.

2. Gizon bat, zeñi Jaungoikoak eman diozkan ondasunak, eta idukia eta onra, eta bere animak dauzkana nai dituen gauza guztiak, eta etzion eman Jaungoikoak beratatik jateko eskubiderik, baizik gizon arrotz batek iretsiko du. Arrokeria da au, eta zorigaitz andia.

3. Kontu dezagun norbaitek dauzkala eun seme, eta bizi dala urte askotan edaderik andieneraño; baña bere anima ez dedilla gozatu jabe dan ondasunetan, eta atzenean etorri dedilla obirikan ere ez idukitzera, augatik esaten det nik, bera baño zori obeagokoa dala, amaren sabelean galdutako aurra.

4. Zeren utserako etorri zan, eta illuntasunetara dijoa, eta bere izena aztuta oroipenikan gabe geldituko da.

5. Etzuen ikusi eguzkia, eta etzuen ere ezagutu onaren eta gaitzaren arteko desberdintasuna.

6. Bi milla urtean bizi izan bada ere, eta gozatu ez bada bere ondasunetan; gauza guztiak ez al dijoaz arin atzen batera?

7. Gizonaren lan guztia bere aorako da; bere anima berriz ez da beteko.

8. Zer dauka jakintsuak jakinduriagabeak baño geiago? Eta zer beartsuak, baizik jarraitzea arako bideari, non bizitza dagoen?

9. Obe da ikustea nai dezuna, ezagutzen ez dituzun gauzen gura idukitzea baño; baña au ere urgulleria da, eta espirituko antustea.

10. Izango dana, Jaungoikoak bere izenez ezagutua dauka, eta jakiña da gizona izango dala, eta eziñ leiatuko dala juizioan bera baño sendoago danaren kontra.

11. Txit asko dirade itzak, eta urgulleria asko daukate elean.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Zer premia dauka gizonak ibiltzeko bera baño andiagoak diraden gauzen billan, ez jakiñik zer dagokion berari bere bizitzan, bideantez dagoen bere egun laburretan, eta itzala bezela iragotzen dan denboran? Eta nork agertu dizaioke, zer gertatuko dan eguzkiaren azpian bera ilda gero?

2. Obeagoa da izen ona lurrinkairik baliotsuenak baño; eta eriotzako eguna, jaiotzako eguna baño.

3. Obe da joatea lutua dagoen etxera, jostaketakora baño, zeren artan oroitzen da gizon guztien atzena, eta bizi danak pensatzen du, zer izango dan berarekin.

4. Obe da aserrea, farra baño, zeren arpegiko tristezarekin zuzentzen da bekatu egiten duenaren biotza.

5. Jakintsuen biotza dago tristeza dagoen lekuan; eta zentzugabeen biotza, poza dagoen lekuan.

6. Obe da jakintsuak bati errierta egitea, zentzugabeen labañkeriarekin engañatua izatea baño.

7. Zeren nolakoa dan eltzearen azpian erretzen dauden arantzen otsa, alakoa da zentzugabearen farra, baña au ere utsa balio duen gauza da.

8. Gezurrezko asmazioak nastutzen du jakintsua, eta bere biotzeko sendotasuna galduerazitzen dio.

9. Obeagoa da orazioaren atzena, asiera baño, obeagoa da sufritua, panparroia baño.

10. Etzaite izan aserretzen erraza; zeren sumintasuna dago atsedetzen, zentzugabearen biotzean.

11. Ez ezazu esan: Zergatik lendabiziko denborak oraingoak baño obeagoak izan ziran? Zeren bidegabekoa da onelako galdea.

12. Jakinduria ondasunakin mesedegarriagoa da, eta onera geiago ekartzen diote eguzkia ikusten dutenai.

13. Zeren nola jakinduria dan ezkutu bat, ala da dirua ere. Baña au geiago daukate Jainkoaren aditza eta jakinduriak, beren jabe diradenai bizitza ematen diela.

14. Arretaz oartu zaite Jaungoikoaren obrakin, eta iñork ere ezin dezakela zuzendu, berak bere eskutik utzi duena.

15. Zu bada egun ona daukazunean, gozatu zaite ondasunetan, eta lendanaz prestatu zaite egun gaiztorako, zeren nola hura Jaungoikoak egin zuen, ala egin zuen au ere, arkitu ez dezan gizonak bere kontra bidezko esparik.

16. Oiek ere ikusi ditut nere bizitza argal eta badezpadako egunetan, justoa bere justizian galtzen dala, eta gaiztoa bere gaiztakerian bizi dala denbora luzean.

17. Etzaite izan justoegia, eta ez ezazu ere jakin, bear dan baño geiago, kordegabetua gelditu etzaitezen.

18. Ez itzatzu egin bekatuak bekatuen gañean, eta etzaite ere izan zentzugabea, atzeratutzen dezula Jaungoikoagana biurtzea, uste dezun baño lenago il etzaitezen.

19. Ongi da lagundu dizaiozula justoari, baña argatik ez ezazu zure eskua atzeratu ez diradenakgandik; bada Jaungoikoaren beldur danak, ez du iñor ere beragandik botatzen.

20. Jakinduriak egin zuen jakintsua, erri bateko amar Prinzipe baño sendoagoa.

21. Zeren ez dago gizon justorik lurrean, ongi egiten duenik, eta bekaturik beñere egiten ez duenik.

22. Ez ezazu berriz alderatu zure belarria esaten diraden itz guzietara, aditu ez dezazun zure mendeko gizasemeak zugatik gaizki esaten duela.

23. Zeren zure konzienziak badaki, zuk ere maiz besteakgatik gaizki esan dezula.

24. Al nuen guzia egin nuen jakinduria iritxitzeko. Esan nuen neregango: Jakintsua egingo naiz baña berak nigandik urrutira alde egin zuen,

25. Zegoen baño asko geiago; eta andia da bere zakontasuna. Nork ukituko dio bere ondoari?

26. Nere espiritua ibilli zan korrika gauza guztietatik, jakiteko, eta arretarekin begiratzeko, eta billatzeko jakinduria eta arrazoia; eta ezagutzeko zentzugabearen gaiztakeria, eta adimengabekoen errakuntza.

27. Eta arkitu nuen emakumea zala eriotza baño mingoitzagoa, zeñ dan eiztarien lakioa, eta bere biotza sarea, bere eskuak zepoak. Jaungoikoaren gogokoa danak, beragandik iges egingo du; baña bekataria dana, berak arrapatua izango da.

28. Ona emen nik arkitu dedana, esan zuen Eklesiastesek, elkarturik gauza bat bestearekin, arrazoia arkitzeko,

29. Zeñ oraindikan nere animak billatzen duen, eta ez det arkitu, zeren milla gizonen artean bat arkitu nuen; eta emakume guztien artean batere ez.

30. Au bakarrik arkitu nuen, Jaungoikoak gizona justizian egin zuela, eta bera nastu zala gogorazio gaizto askotan. Zeñ da jakintsuarekin berdintzekoa? Nork ezagutzen du parabola gaitz onen azaldaera?

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Gizonaren jakinduriak bere arpegian argi egiten du, eta Guztia dezakeanak argituko du bere begitartea.

2. Ni arretaz nago aditzeko erregearen itza, eta Jaungoikoaren aginte, juramentuarekin sendotuak.

3. Ez ezazu iduki, bere aurretik arin alde egiteko gurarik, eta ez ezazu ere iraun obra gaiztoan, zeren nai duen guztia egingo du.

4. Bere itza eskubidez betea dago, eta iñork ezin esan dizaioke: Zergatik egiten dezu au?

5. Bere aginteak gordetzen dituenak, ez du gaitzikan batere idukiko. Eta jakintsuaren biotzak, denbora eta erantzuna ezagutzen ditu.

6. Gauza bakoitzak dauka bere denbora eta era, eta andia da gizonaren atsekabea,

7. Zeren igaro diraden gauzak ez dakizki, eta ez dago mandataririkan batere, gero izango diradenak ezagutuerazi ditzazkiokeanik.

8. Ez dago gizonaren eskuan bere espirituari geldituerazitzea; eta ez dauka eskubiderikan batere, bere eriotzako egunaren gañean, eta etzaio ere itxedotzerik ematen, keñatuaz jatorkan gerran, eta gaiztoa ere, ez du bere gaiztakeriak salbatuko.

9. Gauza guzti oiek arretaz pensatu nituen, eta ipiñi nuen nere biotza, eguzkiaren azpian egiten diran gauza guztietan. Gizonak gizona menderatzen du batzuetan bere kalterako.

10. Ikusi nituen gaiztoak obiratuak, oraindikan bizi ziranean ere toki santuan zeudenak, eta errian obra onetakoak bezela alabatuak ziradenak, baña au ere urgulleria da.

11. Zeren gaiztoen kontrako sentenzia bereala emana ez dalako, gizonen semeak egiten dituzte gaiztakeriak beldurrikan batere gabe.

12. Baña bekatariak eun alditan gaizki egiten badu ere, iragopenarekin sufritua izateak, onek beronek ezagutuerazi dit neri, doatsuak izango diradela Jaungoikoaren beldur diradenak, eta bere anditasunari beldurrez begiratzen diotenak.

13. Ez dezala onik iduki gaiztoak, eta bere egunak ere ez ditezela izan luzetuak; baizik itzala bezela irago ditezela Jaunaren arpegiaren beldur ez diradenak.

14. Bada beste arrokeria bat ere lurraren gañean egiten dana. Badirade justoak, gaitzak irago oi dituztenak, gaiztoen obrak egin izan balituzte bezela; eta badirade gaiztoak alako moduan beldur gabe bizi diradenak, justoen obrak egiñak baleuzkate bezela. Baña au ere juzgatzen det nik gauza txit alpertzat.

15. Argatik alabatu nuen justoaren poza; ikusirik ez dagoela bizitza onetan gizonarentzat beste onik, baizik neurriz jatea eta edatea, eta pozik egotea, eta au bakarrik dala bere lanetik aterako duena bere bizitzako egun, Jaungoikoak lurrean eman diozkazanetan.

16. Eta jarri nuen nere biotza jakinduria ikastera, eta aditzera lurrean dagoan ajolagabetasuna. Badago gizona ez egunaz ez gauaz bere begietan lorik artzen ez duena.

17. Eta aditu nuen, gizonak ezin arkituko duela Jaungoikoaren obra guztien arrazoirikan batere, eguzkiaren azpian egiten diraden aienik, eta zenbat geiago nekatzen dan arkitzeko, anbat gutxiago arkituko duela, eta esango balu ere jakintsuak, berak badakiala, ezin arkituko du.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Gauza guzti oiek tratatu nituen nere biotzean berak aditzeko. Justoak, eta jakintsuak eta beren obrak Jaungoikoaren eskuetan daude; eta alaere ez daki gizonak amorioaren ala gorrotoaren diña dan,

2. Baizik guztia gelditzen da badezpadan geroko; zeren orain gauza guztiak berdin gertatzen zaiozka justoari, nola gaiztoari, onari eta biurriari, garbiari eta garbi ez dagoenari, doañak eskeñtzen dituenari, eta eskentzak mezpreziatzen dituenari. Ala da tratatua obengabea, nola bekataria, eta egiarekin juramentu egiten duena, nola gezurrarekin egiten duena.

3. Au da eguzkiaren azpian egiten diran gauza guztien artean gaiztoena, gauza batzuek berak guztiai gertatzea. Eta ala gizonen semeak, gaiztakeriaz eta mezprezioz betetzen dute beren biotza beren bizitzan, eta onen ondoan infernuetara eramanak izango dirade.

4. Ez dago gizonik beti bizi danik, eta onen itxedopena daukanik. Obe da txakur bizia, leoe illa baño.

5. Zeren bizi diradenak badakite ilko diradela; illak berriz batere geiago ez dakite, eta ez daukate ere onezkero ordañik, zeren beren oroipena, aztuta gelditu da.

6. Amorioa, eta gorrotoa, eta ondamuak ere berakin batean galdu ziran, ez daukate ezerere gizaldi onetan, ez eguzkiaren azpian egiten dan obran.

7. Zoaz bada, eta jan ezazu pozez zure ogia, eta edan ezazu gozotasunez zure ardoa; zeren zure obrak Jaungoikoaren gogokoak dirade.

8. Denbora guztian izan bitez zuriak zure soñekoak, eta ez bedi faltatu olioa zure burutik.

9. Gozatu zaite zure bizitzan zure emazte maitea lagun dezula, zure bizitza argaleko egun guztietan; zeñak emanak izan zazkizun eguzkiaren azpian zure urgulleriako denbora guztirako; zeren au da zuri dagokizuna bizitzan eta zure lanean, zeñarekin nekatzen zeran eguzkiaren azpian.

10. Zure eskuak egin al dezakean edozeñere gauza, egin ezazu denborarik galdu gabetanik, zeren ez obrarik, ez arrazoerik, ez jakinduriarik, ez aditzarik izango da obian, nora arin zoazan.

11. Itzuli nintzan beste gauza batera, eta ikusi nuen eguzkiaren azpian, ez dala lenengo allegatzea arin dabiltzanena, ez gerrako garaitza sendoena, ez ogia jakintsuena, ez aberastasunak adituenak, ez langilla onena ospea; baizik guztia dala badezpada eta ustekabea.

12. Ez daki gizonak bere atzena, baizik nola arraiak arrapatzen diran amuarekin, eta nola egaztiak erortzen diran lakioan; ala gizonak dira arrapatuak denbora gaiztoan, gaitza beren gañera ustekabe etortzen zaiotenean.

13. Baitaere ikusi nuen eguzkiaren azpian jakinduria au, eta ontzat eman nuen txit andia zalako.

14. Bazan erri txiki bat eta beratan gizon gutxi. Etorri zan bere kontra errege andi bat, eta ingurutu zuen, eta gazteluak egin zituen inguruan, eta osoz ingurututa gelditu zan.

15. Eta arkitu zan beratan gizon pobre eta jakintsu bat, eta libratu zuen erria bere jakinduriarekin, eta gero iñor ere etzan gizon pobre arekin oroitu.

16. Eta nik esaten nuen, obeagoa dala jakinduria indarra baño. Nola bada izan da mezpreziatua pobrearen jakinduria, eta bere itzak ez dirade adituak izan?

17. Jakintsuen itzak ixillean adituak dirade Prinzipearen deadarrak baño obekiago zentzugabeen artean.

18. Obeagoa da jakinduria, gerrako armak baño; eta gauza batean bekatu egiten duenak, ondasun andiak galduko ditu.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Lurrinkaian ildako euliak, galerazitzen diote bere usai gozoa, ala zentzugabetasun txiki eta iragankor batek gutxitzen du jakinduria eta gloria.

2. Jakintsuaren biotza beti dago bere eskuieko eskuan, zentzugabearen biotza bere ezkerrekoan.

3. Gañera bere bide okerrari jarraitzen dion zentzugabeak, nola bera zentzugabeko bat dan, besteak ere alakotzat dauzka.

4. Eskubidea daukanaren espiritua zure gañera igoko balitza, ez ezazu zure tokia utzi, zeren egonik kontuan, bekaturik andienetatik libratuko zera.

5. Badago eguzkiaren azpian beste gaitz bat ere nik ikusi nuena, zeñ errakuntzaz bezela Prinzipearen aurretik ateratzen dan:

6. Zentzugabea dago diñade goratuan, eta aberatzak daude toki beeratuan.

7. Ikusi nituen mendekoak zaldien gañetan, eta Prinzipeak oñaz zebiltzala, mendekoak balira bezela.

8. Zuloa egiten duena, beratan eroriko da, eta luebagana desegiten duenari, sugeak utzikiko dio.

9. Arriak batetik bestera daramazkianari, berak min emango diote, eta egurra txikitzen duena, berak zauritua izango da.

10. Burnia moztua badago, eta ez badago len bezela, baizik ziagetua badago, lan andia bearko da zorroztzeko. Jakinduria ere lanaren ondoan etorriko da.

11. Besteagatik ixillean gaizki esaten duena, ez da gutxiago, ots gabe utsikitzen duen sugea baño.

12. Jakintsuaren aoko itzak graziaz beteak irtetzen dira, zentzugabearen ezpañak amiltoki batean botako dute.

13. Bere itzen asiera, zentzugabetasuna da, eta bere aoko atzena, errakuntza txit gaiztoa.

14. Zentzugabeak ugaritzen ditu itzak. Ez daki gizonak zer izan zan bera baño lenago, eta zer izango dan gero. Nork erakutsi dizaioke?

15. Zentzugabearen nekean irabazia, atsekabea izango da, zeren ez dakite errira joateko bidea bederik.

16. Ai zure doakabea, o lurra, zeñaen erregea dan aurra, eta zeñaen Prinzipeak goizean jaten duten!

17. Doatsua lurra, zeñaen erregea dan odolgarbikoa, eta zeñaen prinzipeak bere denboran jaten duten; gorputza sendotzeko, ez atsegiñez asetzeko.

18. Nagitasunagatik eroriko da tellatua, eta lanerako ajolagabetasunagatik, etxe guztia itozura bat izango da.

19. Baliatzen dirade aiek ogiarekin, eta ardoarekin janedanean aritzeko, eta guztia dago diruaren mendean.

20. Ez ezazu gaizki esan erregeagatik zure gogorazioan, eta ez ezazu ere gaizki esan aberatzagatik zure gelako ezkutuan, zeren zeruko egaztinak berak ere eramango dute zure boza, eta egoak dauzkanak, zure iritziaren berriak emango ditu.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Bota ezazu zure ogia iragotzen diran uren gañera, zeren denbora askoren buruan arkituko dituzu.

2. Eman zaiezu zazpiri, baita zortziri ere, zeren ez dakizu zuk nolako gaitzak etorri ditezken lurraren gañera.

3. Odeiak beteak badaude, isuriko dute euria lurraren gañera. Zura erortzen bada Egoerontz, edo Ifarrerontz, erortzen dan edozeñere tokitan, an geldituko da.

4. Nolako aizea darabillan begira dagoenak, ez duen ezer ereitzen, eta odeiak daudela kontu ateratzen duenak, ez duen iñoiz ere uzta igitaituko:

5. Nola ez dakizun zeñ dan espirituaren bidea, eta nola elkartzen diran aurregiteko dagoenaren sabelean ezurrak; ala ez dakizkizu ere Jaungoikoaren obrak, zeñ dan gauza guztien Egillea.

6. Goizean erein ezazu zure azia, eta arratsaldean ez bedi gelditu zure eskua, zeren ez dakizu zeñ erneko dan lenago, au ala hura; eta bata eta bestea batean, obeago izango ote dan.

7. Gozoa da argia, eta gauza atsegingarria begientzat, Eguzkia ikustea.

8. Gizona biziko balitza urte askotan, eta guztiak pozez iragoko balitu ere, oroitu bear da denbora illunarekin eta egun luzeakin. Bada berak etortzen diradenean, ezagutua geldituko da, utsa balio dutenak izan zirala irago diran gauzak.

9. Gozatu zaite bada, o mutilla, zure gaztetasunean; zure anima atsegiñez ase bedi zure gazte denborako egun loretsuetan; jarraitu zaiezu zure biotzeko griñai, eta zure begientzat atsedengarria danari; baña jakin ezazu gauza guzti oien kontua eskatuko dizula Jaungoikoak, juzgatzen zaituen egunean.

10. Argatik atera ezazu zure biotzetik aserrea, eta alde erazi zaiozu gaiztakeria guziari zure aragitik. Gaztetasuna eta atsegiñak, utsa balio duten gauza batzuek baño ez diraden ezkero.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Oroitu zaite zure Egillearekin zure gazte denborako egunetan, atsekabeko denbora etorri dedin baño lenago, eta alderatu ditezen baño lenago arako urteak, zeñakgatik esango dezun: Ez dirade nere gogokoak.

2. Illundu ditezen baño lenago eguzkia, eta argia, eta illargia, eta izarrak, eta itzuli ditezen baño lenago odeiak, euriaren ondoan.

3. Mugitzen diradenean etxeko gordetzalleak, eta zalanzan egongo diradenean gizon txit sendoak, eta alperrik daudenean gutxi eotzen dutenak, eta illuntzen diradenean leioetatik begiratzen dutenak.

4. Eta ateak itxiko dituzte plazan, eotzen duenaren boz gutxiagatik, eta jaikiko dirade egaztiaren bozera, eta gortuko dira kantaren alaba guztiak.

5. Toki goratuak ere beldur izango dirade, eta beldurra idukiko dute bidean, loretuko da almendrua, gizenduko da langosta, eta desegingo da alkaparra; zeren gizona joango da bere betikoirauneko etxera, eta adiagilleak plazan ingurutuko dute.

6. Urratu dedin baño lenago zillarrezko soka, eta atzerontz joan dedin baño lenago urrezko benda, eta ausi dedin baño lenago pegarra iturriaren gañean, eta zatitu dedin baño lenago kurpilla urpetegiaren gañean,

7. Eta itzuli dedin artean autsa bere lurrera, nongoa zan, eta espiritua eman zion Jaungoikoagana biurtu dedin artean.

8. Urgullerien urgulleria, esan zuen Eklesiastesek, eta guztia urgulleria.

9. Eta izanik txit jakintsua Eklesiastes, erakutsi zion erriari, eta kontatu zituen egin zituen gauzak; eta erabillirik berak gogoan, ipiñi zituen parabola asko.

10. Billatu zituen itz mesedegarriak, eta eskribatu zituen izketa txit zuzenak, eta egiaz beteak.

11. Jakintsuen esanak dira akulloak bezelakoak, eta txit barrenera sartutako iltzeak bezelakoak; eta esan oiek eman dizkigu Artzai bakarrak erakusleen erakutsiaren bitartez.

12. Ez ezazu billatu, ene semea, oiek baño. Liburuak neurrigabe ugarituaz dijoaz, eta maiz egiten dan meditazioa, aragiaren nekagarria da.

13. Guztiok batean aditu dezagun izketaren atzena. Izan zaite Jaungoikoaren beldur, eta gorde itzatzu bere aginteak, zeren au da gizonaren guztia.

14. Eta egiten dan guztia, Jaungoikoak juiziora ekarriko du edozeñere errakuntzagatik, naiz izan dedilla hura gauza ona, naiz gaiztoa.

SALOMONEN KANTEN KANTA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Musu eman bizat bere aoko musuarekin; zeren zure (ire) bularrak ardoa baño obeak dira (dituk).

2. Usaigozodunak okendurik onenak bezela. Olio isuria da (dek) zure (ire) izena; orregatik neskatx gazteak maitatu zinduten (indukaten).

3. Ekar nazazu (nazak); zure (ire) ondoren korrika joango gera (gaituk) zure (ire) okenduen usaiera. Barnartetu ninduen (nintxiokan) erregeak bere geletan; bozkariatuko eta poztuko gera (gaituk) zugan (igan) oroiturik zure (ire) bularrakin ardoa baño obeak: zuzenak maite zaituzte (aute).

4. Beltza naiz, baña ederra, Jerusalemgo alabak, Zedarko dendak bezela, Salomonen larruak bezela.

5. Ez konsideratu beltxarana naizela, zeren eguzkiak deskoloretu ninduen; nere amaren semeak gudatu zuten nere kontra, jarri ninduten mastien zaitzat; nere mastia ez nuen zaitu.

6. Erakutsi zadazu (zadak), zuk (ik) nere animak maite duenak (dikenak), non bazkatzen dezun (dekan), non egerdiera egiten dezun, asi ez nadin (naikan) orron ibiltzen zure (ire) lagunen taldeen ondoren.

7. Ez badakizu (badakin), o emakumeen artean txit ederra, atera zaite (adi), eta zoaz (oa) taldeen oñatzen ondoren, eta bazkatu itzatzu (itzan) zure (ire) antxumeak artzaien etxolen ondoan.

8. Irudierazi zindudan (indunadan), nere adiskidea, nere zaldidiari Faraonnen gurdietan.

9. Ederrak dira (ditun) zure (ire) masallak, ala nola usatortolarenak; zure (ire) lepoa lepandeak bezela.

10. Urrezko katetxoak egingo dizkizugu (dizkiñagu) zillarrezko artxoz margainduak.

11. Erregek bere etzinkaian zegoan bitartean, nere nardoak eman zuen bere usaia.

12. Mirrazko sortatxoa da nere maitea neretzat, nere bularren artean geratuko da.

13. Ziprozko mordoa da nere maitea neretzat, Engadiko mastietan.

14. Ai zeñ ederra zeran (aizan), nere adiskidea, ai zeñ ederra zeran (aizan)! Zure (ire) begiak usoenak dira (ditun).

15. Ai zeñ ederra zeran (aizakan) nere maitea, eta emaguritsua! Gure oea loratsua da (dek).

16. Gure etxeen olkaiak zedrozkoak dirade (dituk), goiaspillatuak zipresezkoak.

BIGARREN KAPITULUA

1. Ni naiz kanpoko lorea, eta ibarretako lirioa.

2. Nola lirioa arantzen artean, ala nere adiskidea alaben artean.

3. Nola sagarrondoa basoetako zuaitzen artean, ala nere maitea semeen artean. Nai izan nuenaren itzalaren azpian, eseri nintzan, eta aren frutua gozoa da nere eztarriarentzat.

4. Barnartetu ninduen ardoaren gelan, zuzendu zuen nigan karidadea.

5. Sendotu nazazute lorekin, ingura nazazute sagarrez, zeren amodioz kordegabetzen naiz.

6. Aren ezkerra nere buruaren azpian, eta beraren eskuiak laztanduko nau.

7. Otoizmendutzen zaituztet, Jerusalemgo alabak, kanpoetako basauntzak, eta oreñak gatik ez dezazutela eraiki, ez esnatuerazi ere maitea, berak nai duen arteraño.

8. Nere maitearen boza, ona emen non saltoka datorren mendietatik, muñoak igaroz.

9. Basauntzaren, ta orenkumearen antzekoa da gure maitea. Ona emen non dagoan gure paretaren atzean, leioetatik begira, leiakeretatik zelatan.

10. Ona emen nere maiteak itz egiten dit: Jaiki zaite (adi), presakatu zaite (adi), nere adiskidea, nere usoa, nere ederra, eta atoz (ator).

11. Zeren onezkero negua irago zan (unan), euria joan zan (unan), eta aldendu.

12. Loreak agertu ziran (itunan) gure lurrean, pudaren era etorri da (den); usatortolaren boza aditua izan da (den) gure errian.

13. Pikondoak moteatu zituen bere uztapikoak; mastiak loretan eman zuten (ziñaten) beren usaia. Jaiki zaite (adi) nere adiskidea, nere ederra, eta atoz (ator).

14. Nere usoa arkaitzetako zuloetan, arriesiko utsunean, erakutsi zadazu (zadan) zure arpegia, soñu egin beza zure (ire) bozak nere belarrietan; zeren zure (ire) boza gozoa da (den), eta zure (ire) arpegia ederra.

15. Atzitu zazkiguzute mastiak lurreratzen dituzten azeri txikitxoak; bada gure mastia loretu da.

16. Nere maitea neretzat, eta ni lirioen artean bazkatzen dan arentzat.

17. Eguna zabaldu, eta itzalak erori ditezen arteraño. Biurtu zaite (adi) iduri zatzakie nere maitea, basauntzari, eta orenkumeari Beterko mendien gañean.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Nere oean billatu nuen gauetan nere animak maite duena; billatu nuen, eta ez nuen arkitu.

2. Jaikiko naiz, eta inguratuko det erria; kaleetatik eta plazetatik billatuko det nere animak maite duena; billatu nuen, eta ez nuen arkitu.

3. Arkitu ninduten erria zaitzen zuten gordetzalleak. Ikusi bai al dezute nere animak maite duena?

4. Piskatxo bat igaro nituenean, arkitu nuen nere animak maite duena; eldu nion, eta ez diot utziko, alik eta barnartetu dezadan bitartean nere amaren etxean, eta ni erdi ninduenaren gelan.

5. Otoizmendutzen zaituztet, Jerusalengo alabak, kanpuetako basauntzak, eta oreñak gatik, ez dezazutela eraiki, ez esnatuerazi ere maitea, berak nai duen arteraño.

6. Zeñ da igotzen dan au eremutikan mirrazko, eta intzentzozko, eta usaigozogillearen auts guztiko aromaen keezko zigortxoa bezela?

7. Ona emen non inguratzen duten Salomonen oea irurogei errutsuk Israelko errutsuenetatikoak.

8. Guziak dituztela ezpatak, eta gudetarako txit ongi ikasiak; bakoitzaren ezpata beraren isterraren gañean gauetako beldurrak gatik.

9. Bidekoe bat egin zuen beretzat Salomon erregeak Libanoko zurakin.

10. Beraren abeak egin zituen zillarrezkoak, etzintokia urrezkoa, igoera purpurazkoa; erdikoa estali zuen amodioz Jerusalemgo alabak gatik.

11. Atera zaitezte eta ikusi ezazute, Siongo alabak, Salomon erregea bere amak jarri zion koroarekin ezkontza itzeko, eta bere biotzaren pozeko egunean.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Zeñ ederra zeran (aizan), nere adiskidea, zeñ ederra zeran (aizan)! zure (ire) begiak usoenak dira (ditun), barrenen ezkutaturik zeagoana (zeagona) gabe. Zure (ire) illeak Galaadko menditikan igo zuten (itunan) auntz taldeak bezelakoak.

2. Zure (ire) ortzak garbitokitik igo ziran (itunan) artalde moiztuak bezelakoak, guztiak ume bikiakin, eta ume gaberik ez da (den) beren artean.

3. Zure (ire) ezpañak, granazko lokarria bezelakoak, eta zure (ire) izkuntza, gozoa. Granadaren akatsa bezela, ala dira (ditun) zure (ire) masallak, barrenen ezkutaturik dagoena

(zeagona) gabe.

4. Dabiden torrea bezela zure (ire) lepoa, egiña dagoena (zeagona) baluarteakin; milla ezkutu daude (zeauden) zinzillika beratatikan, errutsuen armapilla guztia.

5. Zure (ire) bular biak, lirio artean bazkatzen diran (ditun) basauntzkume biki biak bezelakoak.

6. Eguna argitu, eta itzalak alde ditezten (diteztenan) bitartean, joango naiz (naun) mirrako mendira, eta intzentzoaren muñora.

7. Guziori zera (aiz) ederra, nere adiskidea, eta mantxarik ez da (den) zugan (igan).

8. Atoz (ator) Libanotik, nere ezkongaia, atoz (ator) Libanotik, atoz (ator); izango zera (aiz) koronatua Amanako buruarekin, Sanir eta Hermongo tontorrarekin, leoen saizuloakin, eta leoearren mendiakin.

9. Zauritu dezu (den) nere biotza, nere arreba ezkongaia, zauritu dezu (den) nere biotza zure (ire) begietatik batekin, eta zure (ire) lepoko ille batekin.

10. Zeñ ederrak diran (ditun) zure (ire) bularrak, nere arreba ezkongaia! Ederragoak dira (ditun) zure (ire) titiak ardoa baño, eta zure (ire) okenduen usaia, aroma guzien gañetikoa.

11. Zure (ire) ezpañak, ezkongaia, abaraska jarioa dutenak (ditenak), eztia eta esnea zure (ire) mingañaren azpian; eta zure (ire) soñekoen usaia intzentzoaren usaia bezelakoa.

12. Baratz itxia zera (aiz) nere arreba ezkongaia, baratz itxia, iturri sillutua.

13. Zure (ire) moteak granadazko berjela sagarren frutuakin. Ziproak nardoarekin.

14. Nardoa eta azafraia, kañabera usaitsua, eta kanela Libanoko zur guztiakin, mirra eta zabila okendurik onen guztiakin.

15. Baratzetako iturria; Libanotikan bultzadaka dijoazen (zijoazen) ur bizien putzua.

16. Jaiki zaite (adi), ifarra, eta atoz (ator) Egoa, zabiltza (abill) nere baratzetik, eta jario bitez beraren aromak.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Betor nere maitea bere baratzera, eta jan beza bere sagarren frutua. Atoz nere baratzera, nere arreba ezkongaia, igitaitu det (diñat) nere mirra nere aromakin; jan det (diñat) abaraska nere eztiarekin, edan det (diñat) nere ardoa nere esnearekin; jan ezazute, adiskideak, eta edan ezazute, eta orditu zaitezte, txit maiteak:

2. Ni lotan nago, eta nere biotza esna da; nere maite itz egiten duenaren boza. Idiki zadazu (zadan), nere arreba, nere adiskidea, nere usoa, nere mantxagabea; zeren nere burua intzez beterik dago (zeagon), eta nere kartzetak gauetako tantoz.

3. Erantzi det (dikat) nere tunika, nola jantziko det (dikat)? garbitu ditut (zetikat) nere oñak, nola zikinduko ditut (zetikat)?

4. Nere maiteak sartu zuen bere eskua zulotikan, eta nere erraiak ikaratu ziraden bere ukituarekin.

5. Jaiki nintzan, idikitzeko nere maiteari; nere eskuai zerioten mirra, eta nere beatzak mirra txit autatuz beterik daude.

6. Idiki nion nere maiteari nere atearen kisketa, baña berak alde egin zuen, eta irago zan. Nere anima urtu zan itz egin zueneko; billatu nuen, eta ez nuen arkitu; deitu nion, eta etzidan erantzun.

7. Arkitu ninduten erria inguratzen duten gordetzalleak; jo ninduten, eta zauritu ninduten; eraman zidaten nere mantua murruen gordetzalleak.

8. Otoizmendutzen zaituztet Jerusalemgo alabak, arkitzen badezute nere maitea, adierazi zaiozutela amodioz kordegabetzen naizela.

9. Nolakoa da zure maitea maitatuak baño geiagoko emakumeen artean ederrena? Nolakoa da zure maitea maitatuak baño geiago ala gu otoizmentzeko?

10. Nere maitea da zuria, eta gorria, millen artean autatua.

11. Bere burua urre txit ona; bere illeak palmen moteak bezela, beltzak belea bezela.

12. Bere begiak, usoak ur errekatxoen gañean bezela, zeñak dauden esnearekin garbituta, eta egoten diraden ur ugari arin dijoazenen aldean.

13. Bere masallak, aromen larrañtxo usaigozogilleak jarritakoak bezela. Bere ezpañak lirio mirrarik garbiena dariotenak.

14. Bere eskuak urrezkoak tornutuak, jazintoz beteak. Bere sabela marfillezkoa, zafiroz apaindua.

15. Bere ankak marmolezko abeak, jarririk daudenak urrezko ondopeen gañean. Bere edertasuna Libanorena, autatua zedroak bezela.

16. Bere eztarria txit gozoa, eta guztia deseagarria; alakoa da nere maitea, eta bera da nere adiskidea, Jerusalengo alabak.

17. Nora joan da (den) zure (ire) maitea, o emakumeen artean ederrena? Nora alde egin du (diñ) zure (ire) maiteak, eta billatuko degu (diñagu) zurekin (irekiñ)?

SEIGARREN KAPITULUA

1. Nere maitea jatsi zan bere baratzera usai gozozko larrañtxora, baratzetan bazkatzeko, eta lirioak artzeko.

2. Ni nere maitearentzat, eta nere maite lirioen artean bazkatzen duenarentzat.

3. Ederra zera (aiz), nere adiskidea, eztia, eta emaguritsua Jerusalen bezela; ikaragarria ejerzitu jertua bezela.

4. Alde itzatzu (itzan) zure (ire) begiak neregandik, zeren berak egan eragin zidaten (zidanaten). Zure (ire) illeak dira (ditun) Galaadtikan agertu zan auntz taldea bezela.

5. Zure (ire) ortzak garbitokitik igo ziran (itunan) ardien taldea bezela, guztiak ume bikiakin, eta umegaberik ez da (den) beren artean.

6. Granadaren azala bezela, ala zure (ire) masallak, zure (ire) ezkutukoak gabe.

7. Irurogei dira (ditun) erregiñak, eta larogei oelagunak, eta neskatx gazteen zenbatik ez da (den).

8. Bat bakarrik da nere usoa, nere on osoa, bakarra da bere amarena, erdi zuenarentzat autatua. Ikusi zuten alabak, eta txit doatsua predikatu zuten; erregiñak eta oelagunak ere alabatu zuten.

9. Zeñ da dijoan au egunsentia jaikitzen dan bezela, ederra illargia bezela, autatua eguzkia bezela, ikaragarria ejerzitu gertutua bezela?

10. Jatsi nintzan intxaurren baratzera, ibarretako sagarrak ikusteko, eta loretu ote zan mastia, eta moteak irten ote zien granadai begiratzeko.

11. Ez nuen jakin, nere animak ikaratu ninduen Aminadaben gurdiak gatik.

12. Itzuli zaite (adi), itzuli zaite (adi) , Sulamita; itzuli zaite (adi), itzuli zaite (adi), begiratu dizugun (azanagun).

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Zer ikusiko dezu Sulamitagan, gudarien taldeak baizik? Zeñ ederrak diran (ditun) zure (ire) pausoak oñetakoetan, Prinzipearen alaba! Zure (ire) isterren giltzak, langillearen eskuz egiñak izan diran (ditun) eskumuturrekoak bezela.

2. Zure (ire) zila uraska tornuan egiña, edari gabe iñoiz ez dagoana (zeagona). Zure (ire) sabela gari muntoia bezelakoa, lirioz inguratua.

3. Zure (ire) bular biak, basauntzkume biki bi bezelakoak.

4. Zure (ire) lepoa marfillezko torrea bezelakoa. Zure (ire) begiak arrantzatokiak bezela, Hesebonen dauden (zeauden) taldearen alabaren atean. Zure (ire) sudurra, Libanoko torrea bezela dagoena Damaskorontz begira.

5. Zure (ire) burua Karmelo bezelakoa, eta zure (ire) buruko illeak, erregeren purpura erreketan lotua bezela.

6. Zeñ ederra zeran (aizan) eta zeñ emaguritsua, txit maitea, atsegiñetan!

7. Zure (ire) luzeera iduritzen zitzaio (zitzaionan) palmarenari, eta zure (ire) bularrak mordoai.

8. Esan nuen (niñan): igoko naiz (naun) palmara, eta artuko ditut (zetiñat) beraren frutuak, eta izango dira (ditun) zure (ire) bularrak mastiko mordoak bezela; eta zure

(ire) aoko usaia sagarrena bezela.

9. Zure (ire) eztarria ardorik onena bezelakoa, nere maiteak edateko, eta beraren ezpañ eta ortzakin txupatzeko diña.

10. Ni nere maitearena, eta beraren itzuliera niganontz.

11. Atoz (ator), nere maitea, atera gaitean (gaitekan) kanpora, bizi gaitean (gaitekan) baserrietan.

12. Jaiki gaitean (gaiteken) goiz mastietarako, ikusi dezagun mastia loretu ote dan (dekan), loreak granotu, granadak loretu badira (badituk); an emango dizkitzut (ziozkat) nere bularrak.

13. Urriloak eman zuten (zikaten) usaia. Gure ateetan fruta guztiak daude (zeaudek), berriak eta zarrak, nere maitea, gorde dizkitzut (dizkikat).

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Nork emango zinduke niri nere anaia nere amaren bularrak artzen, arkitu zaitzadala (azakadala) kanpoan, eta musu eman dizazudala (dizadakala), eta onezkero ez nazala (naukala) iñork mespreziatu?

2. Elduko zaitut (aut), eta eramango zaitut (aut) nere amaren etxera; an erakutziko didazu (didak), eta emango dizut (dikikat) ardo ongituaren edaria, nere granaden mustioa.

3. Beraren ezkerra nere buruaren azpian, eta aren eskuiak laztanduko nau.

4. Otoizmendutzen zaituztet, Jerusalemgo alabak, ez dezazutela eraiki, ez esnatuerazi ere nere maitea, berak nai duen arteraño.

5. Zeñ da igotzen dan au eremutik, gozotasunez beterik, bere maiteagan sostengaturik? Sagarrondo baten azpian esnatu zindudan (indunadan); an izan zan (unan) galdua zure (ire) ama, an izan zan (unan) bortxatua erdi zinduena (indunana).

6. Jarri nazazu sillua bezela zure (ire) biotzaren gañean, sillua bezela zure (ire) besoaren gañean; zeren sendoa da (den) amorioa eriotza bezela, gogorra zeloa infernua bezela; bere lanparak dira (ditun) suzkoak eta garrezkoak.

7. Ur askok ezin izan zuten (ziñaten) itzali karidadea, eta ibaiak ere ez dute urpetuko; emango balu (baliñ) ere gizonak bere etxeko izate guztia amorioa gatik, deus bezela mespreziatuko du (diñ).

8. Gure aizpa txikia da (dek), eta ez du (dik) bularrikan. Zer egingo diogu (ziokagu) gure aizpari itz egingo zaion (zaiokan) egunean?

9. Murrua bada (baden), egin ditzagun (ditzakagun) bere gañean zillarrezko torretxoak; atea bada (baden), apaindu dezagun (dezakagun) zedrozko olakin.

10. Ni naiz (nauk) murrua, eta nere bularrak dira (dituk) torrea bezela, izan naizan (naukan) ezkero bere aurrean pakea arkitu duena (dikena) bezela.

11. Paketsuak iduki zuen (zikan) mastia, erriak dauzkan argan; eman zioten (ziotekan) gordetzalleai; gizonak dakarzki (dakarzkik) beraren frutua gatik milla diru zillarrezko.

12. Nere mastia nere aurrean dago (zeagok). Zure (ire) millak paketsuarenak, eta berreun beraren frutuak gordetzen dituztenentzat (zetikanentzat).

13. O zu (i) baratzetan bizi zerana (aizana) adiskideak aditzen dute (diten); entzunerazi zadazu (zadan) zure (ire) boza.

14. Iges ezazu (ezak), nere maitea, eta iduritu zatzakie (akiek) basauntzari, eta oreñkumetxoari usaigozoen mendien gañean.

JAKINDURIAKO LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Justizia maitatu ezazute, lurra juzgatzen dezutenak. Iduki ezazute Jaunagatik iritzi ona, eta biotzeko tolesgabetasunean billatu ezazute.

2. Zeren tentatzen ez dutenak, arkitzen dute; eta beragan fedea daukatenai, agertzen zaiote,

3. Zeren gogorazio gaiztoak, Jaungoikoagandik berezitzen dute; eta bere eskubide probatuak, zuzentzen ditu zentzugabeak,

4. Zeren anima gaiztoan ez da jakinduria sartuko, eta ez da ere egotez egongo, bekatuaren mendean dagoen gorputzean.

5. Zeren erakutsiak ematen diozkan Espiritu Santuak, iduripen utsetatik iges egingo du, eta alde egiten du, adimen gabeko gogorazioetatik, eta ofendituko da, gero etorriko dan gaiztakeriarekin.

6. Egiaz, izanik dan bezela, Jakinduriako Espiritua guzia ontasuna, ez ditu kastigu gabe utziko gaizkiesalearen ezpañak; zeren Jaungoikoa da bere barrendiko guraen testigua, eta da, bere biotzaren egiazko aztertzallea, eta bere mingañaren aditzallea.

7. Zeren Jaunaren Espirituak mundu guztia betetzen du, eta nola gauza guztiak konprenditzen dituen, dauka boz baterañoko ezaguera.

8. Argatik ez ditzaioke ezkutatu, gauza gaiztoak esaten dituena, eta ez du ere igesik egingo, juizio bengatzalletik.

9. Zeren gaiztoaren gogorazioen galdetaldea egingo da, eta bere itzak Jaungoikoaren belarrietara allegatuko dirade, bere gaiztakerien kastigurako.

10. Zeren Jaungoikoaren belarri zelotsuak, guztia aditzen du, eta ez dizaioke ezkutatu murmurazioen otsa.

11. Kontu bada, gorde zaitezte murmuraziotik, zeñak utsa balio duen, eta alderazi zaiozute mingañari gaizki esatetik; zeren itz ezkutatua ere, utsera ez da joango, eta gezurra esaten duen aoak, anima iltzen du.

12. Ez ezazute arazoz billatu eriotza zuen bizitzeko errakuntzan, eta ez ezazute ere galmena irabazi, zuen eskuetako lanakin.

13. Zeren Jaungoikoak etzuen eriotza egin, eta ez da ere poztutzen bizien galmenarekin.

14. Zeren gauza guztiak egin zituen izan zitezen, eta egin zituen osasungarriak munduan ernetzen diraden gauza guztiak, eta ez dago beretan galmenduko pozoirik, ez infernuetako erreñurik lurrean.

15. Zeren justizika betikoa, eta illeziña da.

16. Baña gaiztoak eskuakin, eta itzakin ots egin zioten; eta adiskidetzat idukirik, etorri ziran usteltzera, berarekin elkartasuna egiteraño, zeren bere aldamenekoak izateko diña diraden.

BIGARREN KAPITULUA

1. Zeren esan zuten, beren artean pensatzen ari ziradela ez ongi: Laburra eta iguitsua da gure bizitzako denbora; eta ez dago gozotasunik gizonaren atzenean, eta ez da ere ezagutu, infernuetatik itzuli danik,

2. Zeren ezerere ezetik jaioak gera; eta onen ondoan izango gera, izan ez bagiña bezelakoak, zeren kea da asnasa gure sudurretan; eta izketa txinpart bat, gure biotza igitzeko,

3. Zeñ itzalirik, gure gorputza errautsa izango da, eta espiritua, aize mea bezala zabalduko da, eta gure bizitza iragoko da odeiaren aztarna bezela, eta desegiña izango da, eguzkiaren errañuak igeserazitzen dion, eta bere beroak estututzen duen lañoa bezela.

4. Eta gure izena denborarekin aztuta geldituko da; eta iñork ere ez du gure obren oroipenikan idukiko.

5. Zeren gure bizitzako denbora, iragotzen dan itzal bat da, eta ez dago ere itzulierarik eriotzaren ondoan, zeren zigillu ipintzen zaio, eta iñor ere ez da atzera biurtzen.

6. Atozte bada, eta gozatu gaitezen, orain dauzkagun ondasunetan, eta urduriz egin dezagun nai deguna mundu onetako gauzakin gazte denboran bezela.

7. Ardo onez, eta lurrinkaiz bete gaitezen; eta ez bizagu irago denboraren lorea.

8. Arrosaz koroatu gaitezen, zimeldu ditezen baño lenago, ez bedi gelditu landarik, beratatik gure lujuria irago ez danik.

9. Gure artetik bat ere ez bedi gelditu, gure lujurian nastu gabetanik, edonun utzi ditzagun pozaren ezagungarriak, gure primutsa eta guri dagokiguna au dan ezkero.

10. Gaizki erabilli dezagun justo beartsua, eta ez dizaiogun pakean utzi andre alargunari, eta ez dizaiegun ere lotsaz begiratu, egun asko dauzkan zarraren ille zuriai.

11. Gure indarra izan bedi justiziako lege bakarra; zeren argalak, ikusten danez, deus ez du balio.

12. Jarri dizaiozkagun bada lazoak justoari, guretzat utsa balio duena dalako, eta gure obrai kontra egiten diotena, eta arpegian ematen digu legearen kontrako bekatuakin; eta kentzen digu gure kleitua zabaldurik gure gaiztakerien berriak.

13. Berriz eta berriz esaten du Jaungoikoaren jakinduria daukala, eta berak bere buruari Jaungoikoaren semearen izena ematen dio.

14. Gure gogorazioakgatik gaizki esaka ari da.

15. Ikusi ere ezin degu; zeren bere bizitza ez da besteenaren antzekoa, eta bere bideak txit desberdiñak dirade.

16. Begiratzen digu, utsa balio degun eta farragarriak bezela; eta gure bideetatik alde egiten du, loikerietatik bezela; naiago du justoak eriotzako orduan itxedotzen dutena; eta gozatzen da Jaungoikoa bere Aitatzat idukitzean.

17. Ikusi dezagun, bada, bere izketak egiazkoak ote diran, eta probatu dezagun, zer etorriko ote zaion, eta jakingo degu nolakoak izango diran beste atzenak.

18. Zeren Jaungoikoaren seme egiazkoa baldin bada, berak zaituko du, eta libratuko du etsaien eskuetatik.

19. Lotsariz eta oñazez txit bete dezagun, jakin dezagun bere otsantasuna, eta bere iragopena probatu dezagun.

20. Eriotzarik desonragarrienera kondenatu dezagun. Bada bere itzen araura, idukiko du nork begiratu dizaion.

21. Alako gauzak pensatu zituzten, eta alako errakuntzetan aritu ziran, zeren beren gaiztakeriak itsutu zituen.

22. Eta etzituzten aditu Jaungoikoaren gauza ezkutuak, eta etzuten ere sinistu justoarentzat ordañik zegoela, eta etzuten ere kontuan iduki, anima santentzat prestatua zegoen gloria.

23. Zeren Jaungoikoak egin zuen gizon ezerereztu eziña, eta bere irudiaren antzera egin zuen.

24. Baña deabruaren ondamuagatik, sartu zan eriotza munduan.

25. Eta bera imitatzen dute, bere aldamenekoak diradenak.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Justoen animak berriz Jaungoikoaren eskuetan daude, eta eriotzaren oñazeak ez die ukiturik, egingo.

2. Zentzugaben (sic) begiai iduritu zitzaien iltzen ziradela; eta beren irteerari mundu onetatik, begiratu zitzaion zorigaitz bati bezela,

3. Eta berak egiten duten bideari gugandik alde eginda, ezereztutzea; berak berriz pakean daude.

4. Eta gizonen aurrean oñazeak irago bazituzten ere, beren itxedopena betiko bizitzaren ziurtasunez betea dago.

5. Beren naigabea ariña izan da, eta beren ordaña izango da andia; zeren Jaungoikoak probatu zituen; eta bere diñak arkitu zituen.

6. Probatu zituen urrea sukatilluan bezela, eta ontzat artu zituen beretzat eskeñtza osoa bezela; eta bere denboran saria emango zaie.

7. Orduan justoak eguzkiak bezela argi egingo dute, eta kañaberadi batean korrika dabiltzan txinpartak bezela, ala egan ibilliko dirade toki batetik bestera.

8. Erreñuak juzgatuko dituzte, eta izango dirade errien Jaunak; eta Jaunak berakin beti erreñatuko du.

9. Beragan sinistutzen dutenak, egin adituko dute; eta amorioan leialak, atsedengo dute beragan, zeren doaia eta pakea bere autuentzat da.

10. Gaiztoak, berriz, pensatu zutenaren araura, kastigua idukiko dute: justoa dana mezpreziatu zutenak, eta alde egin zutenak Jaunagandik.

11. Zeren doakabea da, jakinduria eta erakutsia botatzen dituena, eta alperra da beren itxedopena, eta lanak frutu gabeak, eta beren obrak utsa balio dutenak.

12. Beren emazteak zentzugabeak dirade, eta beren semeak txit gaiztoak.

13. Madarikatua beren arraza; doatsua andre soilla; eta orbangabekoa, bere oeari garbi iraunerazi diona; zeren berak artuko du bere kastidadearen ordaña, Jaungoikoak anima santak bisitatzen dituenean.

14. Berebat oraindikan doatsuagoa txikiratua, zeñaen eskuak ez duten gaiztakeriarik egin, eta zeñak ez duen gauza gaizto eta Jaungoikoaren kontrakorik pensatu; zeren emango zaio bere leialtasunagatik doai balio andiko bat, eta laguntza txit gogoko bat Jaungoikoaren tenploan.

15. Zeren gloriaz betea da lan onen frutua; eta jakinduriaren sustraia, ez da beñere leortzen.

16. Adulteroen semeak berriz, ez dirade edade andira allegatuko, eta oe gaiztoko arraza, desegiña izango da.

17. Eta bizitza luzekoak balirade ere ezereztzat idukiak izango dirade, eta beren atzeneko zartza, honra gabea izango da.

18. Eta lenago ilko balirade, ez dute idukiko itxedopenik, ez atsegiñezko itzik ezagerako egunean.

19. Zeren gaiztoen arrazak, atzen txit zorigaiztoko bat dauka.

LAUGARREN KAPITULUA

1. O ze ederra dan leñu garbia argitasunarekin! Bada bere oroipena illeziña da, dalako ezaguna Jaungoikoaren aurrean, eta gizonen aurrean.

2. Aurrean dagoenean, imitatzen dute; eta alde egiten duenean, bere falta ezagutzen da, eta koroatuta dago beti garaipenez betea, irabazten duela ordaña garbitasunaren gañeko erriertetan.

3. Gaiztoen talde ugaritua berriz, ez da mesedegarria izango, eta urtume bortak ez dute sustrai zakonik botako, eta sendotasun iraunkorrik ere ez dute idukiko.

4. Eta denbora zati batean moteak botatzen badituzte errametan, nola sendo ez dauden, aizeak mugituak izango dirade, eta aize geiegiak sustraitik ateratuak.

5. Argatik beren erramak ausiak izango dirade, osoz egin ditezen baño lenago; eta beren frutuak ezertarako ere gaiezak, eta latzak jateko, eta ezertarako ere ez onak.

6. Zeren amets gaiztoetatik jaiotzen diraden semeak, gaiztakeriaren testiguak dirade, gurasoen kontra galdetzen zaiotenean,

7. Justoa berriz goiz-eriotzak arrapatua balitza ere, atsedenean egongo da.

8. Zeren ez egun askoak, ez urte askoak ez dute egiten zartza beneragarria, bada gizonaren ille zuriak, bere asmo zentzuz beteak dirade,

9. Eta zartzako edadea, obengabeko bizitza da.

10. Jaungoikoaren gogokoa zana, berak maitatua izandu zan, eta bekatarien artean bizi zala beste toki batera eramana izandu zan.

11. Arrapatua izan zan, gaiztakeriak bere aditzari alde erazi etzitzaion, edo irudi utsak bere anima engañatu ez zezan.

12. Zeren urgulleriaren llilluramenduak illuntzen ditu gauza on egiazokak, eta gurarien iraupenik ezak, goibetzen du tolesgabearen iritzia.

13. Bizitu izan zan denbora gutxian, ibilli zan denbora luzeetako bideetan.

14. Zeren bere anima Jaungoikoaren gogokoa zan; argatik agudo ibilli zan ateratzeko bere gaiztakerien erditik. Erriak berriz ikusirik, eta ez aditurik, eta ez oarturik ere beren biotzetan alako gauzak,

15. Jaungoikoaren grazia, eta errukia daudela bere santuen gañean, eta bere begirakunea autatuen gañean.

16. Justo illak berriz kondenatzen ditu gazito biziak, eta gaztetasun laster bukatuak, gaiztoaren bizitza luzea.

17. Zeren ikusiko dute gizon jakintsuaren atzena, eta ez dute adituko, zer gogoratu duen Jaungoikoak beragatik, eta zergatik Jaunak toki seguruan ipiñi duen.

18. Ikusiko dute, eta mezpreziatuko dute; Jaunak berriz berai irri egingo diote.

19. Eta oien ondoan, onra gabe ilko dira, eta beti egongo dira illen artean desonraz beteak, zeren eztanda eragingo diote itzikan gabe anditutua, eta zimenduetatik mugituko ditu, eta txit soillduak izango dirade.

20. Eta agertuko dirade izuz beteak beren bekatuen kezkaz, eta beren gaiztakeriak jaikiko dirade beren kontra, berak salatzeko.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Orduan justoak sendotasun andiarekin egongo dirade, berak antsiaz bete zituztenen, eta beren lanen irabazia kendu ziotenen kontra.

2. Zeñak ikusirik, beldur ikaragarri batez naasiak izango dirade, eta arrituko dirade, berak itxedotzen etzuten berealako salbazioarekin,

3. Beren barrenen esaten dutela, damutuak daudela, eta espirituko atsekabearekin negar egiten dutela: Oiek dirade, beste denbora batean iduki giñituenak farragarritzat, eta gure irainen tokitzat.

4. Guk erook gendukan beren bizitza zorakeriatzat, eta beren atzena onragabekotzat.

5. Ona emen nola kontatuak izan diran Jaungoikoaren semeen artean, eta beren egoera da santuen artean.

6. Beraz egiaren bidea utsegin degu, eta justiziako argiak ez digu argi egin, eta aditzako eguzkia ez da guretzat jaio.

7. Gaiztakeria eta galmeneko bidean nekau gera, eta bide aldapatsuetatik ibilli gera, eta Jaunaren bidearen berririkan ez degu iduki.

8. Urgulleriak zer serbitu izan digu? Edo gure aberastasunetan arrokeriaz gozatzek zer onera ekarri digu?

9. Gauza guzi aiek irago ziraden itzala bezela, eta korrika dijoan mandataria bezela,

10. Edo itsasoko bagen artetik dijoan ontzia bezela, zeñaen aztarnarik, bein irago ezkero, ez diteke arkitu, ez bere killak egin duen biderik bagetan,

11. Edo airetik aldamen batetikan bestera egan dijoan egaztiaren gisara, zeñak irago duen bidearen aztarnarikan batere ez dan arkitzen, baizik bakarrik egoakin azotatzen duen aize ariñaren otsa, eta urraturik aizea bere egoen indarrarekin, irago zan egok gora eta beera zerabiltzala, eta onen ondoan ez da arkitzen bere bidearen aztarnarik batere,

12. Edo toki izendatu baten kontra aurtikitako saieta bat bezela, aize berezitua bera beragan bereala zarratzen da, alako moduan, non, ez daki iñork nondik irago dan.

13. Ala gu ere, jaiota bereala, izate gabetanik gelditzen gera; eta egiaz bertutearen siñalerikan batere ezin genduen erakutsi, baizikan gure gaiztakerian izandu giñan utsera biurtuak.

14. Onelako gauzak esan zituzten infernuan, bekatu egin zuten oiek.

15. Zeren gaiztoaren itxedopena da, aizeak daraman goroldioa bezela; eta itsasandiak zabaltzen duen apar mea bezela; eta aizeak desegiten duen kea bezela; eta iragotzen dan egun batean ostatuz dagoen baten oroipena bezela.

16. Justoak ordea beti biziko dirade, eta beren ordaña Jaunagan dago, eta beren gogorazioa txit Goratuagan.

17. Argatik Jaunaren eskutik artuko dute onrazko erreñoa, eta edertasunezko koroa, zeren bere eskuiearekin estaliko ditu, eta bere beso santuarekin zaituko ditu.

18. Bere zelo guziaz armatuko da, eta berak egindako gauza guziak ere armatuko ditu, bere etsaien benganza artzeko.

19. Artuko du justizia soiburnitzat, eta utsik ez dezaken juizioa burantzatzat.

20. Artuko du ezkutu, ezer sartu ezin litzakiontzat, zuzentasuna,

21. Bere aserre, bigundu ez lezakeanarekin egingo du Jainkoak lanza zorrotz bat, eta mundu guztia berarekin ariko da gudan, zentzugabekoen kontra.

22. Berakgana zuzen joango dirade oñazkarren tiroak, zeñak aurtikiak izango diraden odeietatik uztai, ongi prestatutako batetikan bezela, eta ondoren etorriko dirade toki izendatu batera.

23. Eta arria egiten duen aserreak, aurtikiko du kaskabar andia, urgulleriaz jaikiko dirade beren kontra itsasoko bagak, eta ibaiak batean aserrearekin joango dirade korrika.

24. Birtutearen espiritua jaikiko da beren kontra, eta aize bunbadak bezela barreiatuko ditu, eta bere gaiztakeriak, eremu biurtuko du lur guztia, eta gaiztakeriak goibetuko ditu andizkien esertokiak.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Obeagoa da jakinduria, indarrak baño, eta gizon zentzunduna, sendoa baño.

2. Entzun ezazute, bada, erregeak, ikasi ezazute zuek lur guztiko Juezak.

3. Eman zaiozkazute belarriak nere itzai zuek, erriak zuzentzen dituzutenak; eta erreñoen ugaritasunean gozatzen zeratenak,

4. Zeren Jaunak emana izan zatzute eskubidea, eta txit Goratuak indarra; zeñak galde egingo dizuten zuen obren gañean, eta egingo du gogorazioen billakuntza zorrotza,

5. Zeren izanik bere erreñuko ministroak, etzenduten zuzen juzgatu, eta etzenduten zaitu justiziako legea, eta etziñaten ere ibilli Jaungoikoaren borondatearen araura.

6. Izuarekin eta batbatean agertuko zazute, zeren besteen gañean eskubidea dutenak, txit gogorkiro juzgatuak izango dirade.

7. Zeren txikitxoarentzat badago urrikaltasuna; andizkiak ordea, andizkiro penatuak izango dirade.

8. Zeren Jaungoikoak ez du batere juzgatu gabe utziko, eta ez da ere iñoren aunditasunen beldur izango, zeren berak txikia, eta andia egin zituen, eta berak guzien ajola berdiña dauka.

9. Alaere andiagoai kastigu andiagoak itxaroten die.

10. Zuekgana bada, o erregeak, nere arrazoe oiek zuzentzen dirade, jakinduria ikasi dezazuten, eta irrist egin ez dezazuten.

11. Zeren obra justoak justiziaz egiten dituztenak, justotzat emanak izango dirade; eta au ikasten dutenak, zer erantzun arkituko dute.

12. Iduki ezazute bada nere itzen guraria, maitatu itzatzute, eta jakinduria idukiko dezute.

13. Zeren argitsua da jakinduria, eta beñere zimeltzen ez dana, eta aisa ikusten dute, maitatzen dutenak, eta arkitzen dute, billatzen dutenak.

14. Aurreratzen zaiote, bere gura daukatenai, bera aurrean jartzen zaiotela.

15. Goizean goiz jaikita bera billatzen duenak, ez du izango nekerikan zer artu, zeren bere ateetan eseria arkituko du.

16. Erabiltzea bada gogorazioa jakindurian, da zentzu osoa idukitzea, eta bere amorioz bellan dagoena, laister arkituko da atsedenean.

17. Zeren berak ingurutzen ditu, bere diña diradenak billatzen dituela, eta bideetan pozez agertzen zaiote, eta garai guzietan bidera irtetzen die.

18. Zeren bere asiera, jakintsua izateko gura txit egiazko bat da.

19. Ikasteko alegiña egitea, da jakinduria maitatzea. Maitatzea, bere legeak zaitzea da, eta lege oiek zaitzea, garbitasun osoa da.

20. Garbitasun osoak, Jaungoikoagana alderatzen du.

21. Eta ala jakinduriaren gurariak, betiko erreñura zuzentzen du.

22. Arkitzen badezute bada gozatunik, o errietako erregeak, tronu eta zetroetan, jakinduria maitatu ezazute, beti erreñatu dezazuten.

23. Jakinduriaren argia maitatu ezazute, errien agintaritza daukazuten guziok.

24. Adiraziko dizutet zer dan jakinduria, eta nola egiña izan zan, eta ez dizkizutet ere ezkutatuko Jaungoikoaren misterioak, baizik berak ongi ezagutzeko alegiña egingo det, beren jaiotzaren asieratikan; eta argitan ipiñiko det beren jakinduria, egia ezkutatu gabe.

25. Ez naiz ere bidean ibilliko, ondamuz guzia usteltzen danarekin, zeren alako gizon bat, ez da jakinduriaren partale izango.

26. Gizon jakintsuen ugaritasuna, munduaren zorintasuna da, eta errege jakintsu bat, bere erriaren sendotasuna.

27. Argatik nere itzakin jakintsuak egin zaitezte, eta zuen onerako izango da.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Ni ere egiaz gizon ilkorra naiz, besteen antzekoa, eta lurrarekin egiña izandu zan, lenbiziko gizonaren jatorrikoa, eta amren sabelean artu nuen aragiaren irudia.

2. Amar illabeteko denboran izan nintzan, odol gogortuz, eta gizonaren izatez egiña, loaren gozotasunak ere onetarako laguntzen zuela.

3. Eta jaio nintzanean, besteak bezelako aizeaz asnasa artu nuen, eta guztiak oi diraden lurraren gañera erori nitzan, eta nere lenbiziko boza, beste aur guztiena bezela, negarrezkoa izan zan.

4. Pisoialetan, eta ajola andiakin azi ninduten,

5. Zeren erregeetatik batek ere ez du, au baño beste jaiotzako asierarik iduki.

6. Bat da, bada, guztientzat bizitzako sarrera, eta irteera elkarren antzekoa da.

7. Argatik iduki nuen zentzuaren gura, eta emana izan zitzadan, eta ots egin nion jakinduriaren espirituari, eta nigana etorri zan.

8. Eta erreñoen, eta esertokien aurretikan ipiñi nuen, eta uste izan nuen ondasunak berarekin irudituta, utsa diradela.

9. Eta arri baliotsuak ere ez nituen berarekin berdindu; zeren urre guztia bere aldamenean ipinita, ondar piska bat da, eta zillarra bere aurrean, basatza bezela idukia izango da.

10. Osasuna, eta edertasuna baño geiago maitatu nuen, eta erabaki nuen argitzat idukitzea, zeren bere argitasuna ez dezake itzali.

11. Eta gauza on guztiak berarekin batean etorri zitzazkidan, eta kontatu ez dezaken adina aberastasun bere eskuz.

12. Eta gauza guzietan bozkariotu nintzan, zeren jakinduria onek zuzentzen ninduen; eta ez niekien, gauza guzi oien ama nola zan.

13. Asmazio gabe ikasi nuen, eta ondamu gabe irakurten det, eta bere ondasunak ez ditut ezkutatzen.

14. Zeren dan gizonentzat mugarikan ez duen tesoro bat, berarekin baliatu diradenak, Jainkoaren adiskidetasunaren partale egiñak izan dirade, alabagarriak erakutsiaren doañakgatik.

15. Neri Jainkoak eman dit, uste dedana esatea, eta artu ditudan doanen diña diraden gogorazioak idukitzea; zeren jakinduriaren zuzentzallea bera dan, eta jakintsuai erakutsiak ematen dizkiena.

16. Zeren bere eskuetan ala gu, nola gure itzak, eta gure jakinduria guztia, eta lanetako argitasuna, eta irakasdea.

17. Zeren berak eman zidan neri gauza oien jakinduria egiazko; zeñak diraden, jakin dezadan nola dagoen mundua, eta bertako gauzen indarra,

18. Denboren asiera, eta bukaera eta barrena, eta urtearen zatien aldakuntzak, eta denboren goraberak,

19. Urtearen joanera, eta izarren tokiak,

20. Abereen izateak, eta pistien sumintasunak, aizeen indarra, eta gizasemeen gogorazioak, landaren desberdintasuna, eta sustraien birtuteak,

21. Eta ikasi nituen, ezkutatuak, eta agertu gabe dauden gauza guztiak, zeren eman zizkidan erakutsiak jakinduriak, gauza guztien egillea danak.

22. Zeren beragan dauka egoteko tokia aditzako espirituak, zeñ dan santua, bakarra, asko eratakoa, mea, zurra, ariña, orbangabea, utsik ez dezakena, bera, gauza onen maitatzallea, ziurra, zeñi ezerk ere ez dion eragozketarik ipintzen, ongikillea,

23. Gizonen maitatzallea, urrikaltsua, iraunkorra, sendoa, segurua, eskubide guztia daukana, guztia ikusten duena, eta espiritu guziak bere barrenen dauzkana, adikorra, garbia, mea.

24. Zeren jakinduria, gauza mugikor guziak baño ariñagoa da: eta toki guzietara allegatzen da bere garbitasunagatik.

25. Izanik, dan bezela Jaungoikoaren bertutearen tximist bat bezelakoa, edo Jaungoiko guzia dezakenaren jatorri uts bat bezelakoa; eta argatik gauza kutsuturik batere ez da beragan erortzen.

26. Zeren betiko argiaren distiadura dan, eta Jaungoikoaren anditasunaren ispillu orbanikan gabea, eta bere ontasunaren irudia.

27. Eta izanik bat bakarra, guzia dezake, eta irautzen duela beregan, gauza guziak berriztzen ditu, eta erreñoetatik isurtzen da anima santen artean, egiten dituela Jaungoikoaren adiskideak, eta profetak.

28. Zeren iñor ere ez du Jaungoikoak maitatzen, baizik jakinduriarekin bizi dana,

29. Zeren au da eguzkia baño ederragoa, eta izarren tokien ipiñiera guziez gañetikoa, argiarekin berdintzen bada, bera lenengo arkitzen da.

30. Ikusirik gauak iritxitzen duela argia; baña gaiztakeriak ez du beñere garaitzen jakinduria.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Berak, bada, iritxitzen du sendotasunarekin muga batetikan besterañokoa, eta guzia biguñtasunarekin erabakitzen du.

2. Au maitatu, eta billatu nuen gazte denboratik, eta alegiñak egin nituen nere esposatzat artzeko, eta bere edertasunaren maitatzalle egin nintzan.

3. Txit goratzen du bere jatorri argitsua, Jaungoikoarekin daukan elkartasun itsatsiak, eta gañera gauza guzien Jaunak adirazi du maitatzen duela.

4. Zeren bera dan Jaungoikoaren jakinduriaren erakuslea, eta bere obraen autatzallea.

5. Eta baldin bizitzan ondasunen gura iduki oi bada, zer gauza aberatsagorik jakinduria baño, zeñak gauza guztiak egiten dituen?

6. Eta mañarekin egiten badirade obrak, nork jakinduriak baño obekiago erakutsi zituen arte, eta maña, orain izatea daukaten gauza oietan?

7. Eta baldin iñork justizia maitatzen badu, onen nekeak dauzkate birtute andiak, zeren erakusten du izaten begiratua, eta idukitzen zentzua, justizia eta sendotasuna, zeñak baño mesedegarriagorik, bizitzan gizonentzat ez dagoen.

8. Eta baldin iñork asko jakin nai badu, bera da dakiena irago dana, eta gerokoaren juizioa egiten du. Ezagutzen ditu izketen asmazio gaiztoak, eta nola askatu argudioak, badakizki siñaleak eta miriariak gertatu baño lenagotikan, eta denboretako eta gizaldietako jazoerak.

9. Erabaki nuen, bada, neregana ekartzea, berarekin batean bizitutzeko, jakiñik bere ondasunen partale egingo nauela, eta atsegiña izango dala, nere atsekabe eta penetan.

10. Argatik jendeen artean gloria idukiko det, eta onra zarren artean, gaztea naizala.

11. Eta ezagutuko naute adimen argikotzat juzgatzean, eta Andizkien begietan miragarria izango naiz, eta Prinzipeak beren arpegietan agertuko dute, nola dauden nerekin arrituak.

12. Itxedongo didate, ixillikan nagoenean, eta itz egiten dedanean, begiratuko didate, eta luzetzen naizanean nere sermoean, beren aoetan eskuak ipiñiko dituzte.

13. Gañera, augatik idukiko det betikoirauna, eta ni ez naizanean, etorriko diradenai, betiko oroipena utziko diotet.

14. Izango naiz errien Gobernaria, eta erreñoak nere mendean egongo dirade.

15. Errege beldurgarriak, nere izena aditzean, ikaraz egongo dirade, jendediak ontzat idukiko nau, eta gerran izango naiz errutsua.

16. Nere etxean sartzen naizanean, berarekin atsedena idukiko det, zeren ez bere izketak dauka mingoiztasunik, ez iguirik berarekingo artuemanak, baizik bozkarioa, eta gozotasuna.

17. Oiek nere artean gogoratzen nituela, eta berriz ta berriz nere biotzean erabillirik, betikoirauna arkitzen zala jakinduriaren elkartasunean,

18. Eta atsegin santu bat bere adiskidetasunean, eta tesoro agortu eziñak bere eskuen obretan, eta zentzua berarekin izketan aritutzean, eta izen ospatsua bere arrazoizko izketetan partale izatean, ingurumai nenbillan, nerekin nola iduki billan.

19. Aur denboratik nintzan ni adimen onekoa, eta suertez anima on bat eratu zitzadan.

20. Eta azitzen nintzala ontasunean, nere gorputzari orbanik gabetanik iraunerazi al izan nion.

21. Eta aditu nuen bezin laister, garbi izan ez nintekeala, Jaungoikoak bere grazia ematen ez baldin bazidan, eta bera ere jakinduriarena zela, zeña zan doai au jakitea, Jaunagana zuzendu nitzan, eta erregutu nion, eta nere biotz guzitik esan nuen:

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Nere gurasoen Jaungoikoa, eta urrikaltasuneko Jauna, gauza guztiak zure itzaren bitartez egin ziñituena,

2. Eta zure jakinduriarekin gizona egin zenduena, zuk egiñak izan ziraden gauzen Jauna izan zedin,

3. Erabaki zezan mundu guzian egingo zana berdintasunean, eta justizian, eta egin zezan juizioa biotzeko zuzentasunean,

4. Eman zadazu arako jakinduria, zure tronuan oi dagoena, eta zure serbitzarien artetik ez nazazu aurtiki.

5. Zeren naizan ni zure serbitzaria, eta zure mendeko emakumearen semea, gizon argala, eta denbora gutxikoa, eta gutxi egokia juizioa, eta legeak aditzeko.

6. Zeren baldin norbait gizonen semeen artean balitza ere aldamen guzietatik gañe-gañekoa, jakinduriak beragandik alde egiten badu, utsa balio dio.

7. Zuk autu ninduzun zure erriaren erregetzat, eta zure seme, eta alaben Jueztzat.

8. Eta esan zenduen, nik egingo nuela tenplo bat zure mendi santuan, eta aldare bat zure bizilekuko errian, zuk asieratikan prestatu zenduen tabernakulo santuaren antzera.

9. Zurekin zegoela zure jakinduria, zeñak zure obrak ezagutzen dituen, zeñ zurekin arkitzen zan orduan mundua egiten zenduanean ere, eta baziekien zer zan zure begien gogokoa, eta zer gauza zan zure aginteen erakoa.

10. Bialdu ezazu zure zeru santuetatik, eta zure anditasunaren esertokitik, nerekin egon dedin, eta nerekin ari dedin lanean, jakin dezadan nik, zer gauza dan zure gogokoa;

11. Berak gauza guztiak dakizkian ezkero, eta aditzen duen ezkero guztia, eta zuzendu nau nere obretan zentzuarekin, eta bere eskubidearekin zaituko nau.

12. Onenbesterekin nere obrak oniritziak izango dirade, eta zure erria justizian juzgatuko det, eta nere aitaren tronuaren diña izango naiz.

13. Zeren, Zeñ da gizonetatik, Jaungoikoaren erabakiak jakin ditzakena? Edo, Zeñek iritxi dezake Jaungoikoak nai duena?

14. Zeren beldurtiak dirade gizonen gogorazioak, eta gure erabakiak badezpadakoak.

15. Zeren gorputz ustelkorraren pisuak beerontz sakatzen du anima, eta lurreko bizilekuak azpiratzen du, asko gauza gogoan darabiltzkian adimena.

16. Eta nekez iritxitzen degu lurrean dagoena, eta lana da guretzat aurrean daukaguna arkitzea. Bada, nork idukiko du, zeruan dauden gauzen berririkan?

17. Eta nork jakingo du zure iritzia, baldin zuk jakinduria ematen ez badiozu, eta gorengo tokitik ez badiozu bialtzen Espiritu Santua,

18. Zeñarekin zuzenduak izan ditezen, lurrean bizi diradenen bideak, eta ikasi ditzaten gizonak, zure gogoko diraden gauzak?

19. Zeren jakinduriagatik salbatuak izan ziran, asieratikan, Jauna, zure gogokoak izan ziran guziak.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Onek zaitu zuen, Jaungoikoak berak egiña izandu zan gizona, munduko lenbiziko aita, bera bakarra izanik egiña.

2. Eta berak atera zuen bere bekatutik, eta eman zion eskubidea, gauza guztiak mendean idukitzeko.

3. Onegandik gaiztoak bere sumintasunean alde egin zueneko, galdu zan, bere anaia il zuelako sumintasunagatik.

4. Eta gero beragatik lurra urez estalia gelditu zanean, berriz ere jakinduriak sendatu zuen, zuzentzen zuela justoa zur mezpreziagarri batean.

5. Berak orobat jendeak elkar artu zutenean gaizki egiteko, justoa ezagutu zuen, eta obenikan gabe Jaungoikoarentzat gorde zuen, eta sendo iraunerazi zion semearen urrikaltasunean.

6. Onek justoa libratu zuen, galtzen ziraden gaiztoetatik igesi zijoanean, Pentapolisen gañera sua jetxitzen zanean.

7. Zeñaen gaiztakeriaren ezagungarritzat, oraindikan irautzen du lurrak kea dariola, eremutua, eta zuaitzak ematen dituztela zoritu gabeko frutak, eta gatzezko emakume irudia zutik dagoena, anima sinisgaitz baten oroipenean.

8. Zeren utzirik berak aldamen batera jakinduria, ez bakarrik etorri ziraden birtutea ez ezagutzera, baitaere utzi zioten gizonai beren jakinduriarikan ezaren oroipena, alako moduan, non, egin zituzten bekatuak ezin izan zituzten estali.

9. Jakinduriak berriz penetatik libratu zituen onratzen dutenak.

10. Onek eraman zuen bide zuzenetatik justoa, bere anaiaren aserretik igesi zijoanean, eta Jaungoikoaren erreñua erakutsi zion, eta eman zion satuen jakinduria, aberastu zuen bere nekeetan, eta bere lanen ordañ ugaria eman zion.

11. Inguruan jarri ziozkaten marroetatikan libratu zuen, baitaere aberastu.

12. Etsaietatik gorde zuen, eta engañatzalleetatik zaitu zuen, eta guda sendo bat eman zion irten zedin garaipenarekin, eta jakin zezan, gauza guztietatik sendoena jakinduria zala.

13. Onek etzuen utzi justo, saldua zegoena, baizik bekatarietatik libratu zuen, eta berarekin lizera jetxi zan.

14. Eta lokarrietan etzuen bakarrik utzi, erreñuko zetroa eman arteraño, eta eskubidea, bera mendean iduki oi zutenen kontra, eta berak gezurtatu zituen, gezurrak asmatu ziozkatenak, eta betiko argitsu egin zuen.

15. Onek libratu zituen erri justoa, eta jatorri aitzakiagabea, mendean jarri nai zituzten errietatik.

16. Jaungoikoaren serbitzariaren animan sartu zan; eta onek goibetu zituen errege beldurgarriak mirari, eta siñaleakin.

17. Eta eman zien justoai beren lanen ordaña, eta bide miragarritik eraman zituen, eta izandu zan berentzat itzalgaia egunaz, eta izarren argia gauaz.

18. Irago zituen itsas Gorritik beste erriberara, eta zuzendu zituen urezko mendien artetik.

19. Beren etsaiak ordea itsasoan ondatu zituen; eta gero atera zituen itota itsasoaren ondotik. Argatik justoak eraman zituzten gaiztoen gauzak.

20. Eta kantakin zelebratu zuten, Jauna, zure izen satua, eta guztiak batean zure esku garailaria alabatu zuten.

21. Zeren jakinduriak mutuen aoak idiki zituen, eta egin zituen iztun ederrak aurren mingañak.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Jakinduriak berak zuzendu zituen beren obrak, Profeta Santuaren eskuz.

2. Ibilli ziraden, iñor bizi etzan eremuetatik, eta jarri zituzten etzauntzak basomortuetan.

3. Beren etsaiai aurkatu zitzaiezten, eta beren kontra zeudenen benganza artu zuten.

4. Egarri izan ziran, eta ots egin zizuten , eta aitz txit goratu batetik ura emana izan zitzaten, eta egarriaren otzaroa arri txit gogor batetik.

5. Zeren beren etsaiak kastigatuak izan ziraden gauza arekin etzeukatela urik zer edan, berarekin bozkariotu ziraden Israeltarrak, ugari zeukatela.

6. Argatik aiek urik gabe zeudenean, artu zuten oiek mesede ain andia.

7. Zeren egiaz agortzen ez dan ibai baten iturriaren lekuan, eman ziñien gaiztoai giza odola.

8. Eta oiek galtzen ziradenean Hebreotar aurrak il zituztelako, eman ziñien zureai ura ugari ustekabean.

9. Erakusten zenduela, orduan iduki zuten egarriaren bitartez, nola goratzen ziñituen zureak, ala galtzen ziñituela beren etsaiak.

10. Zeren probatuak izan ziradenean Hebreotarrak, eta artu zutenean kastigua, egiaz urrikaltasunarekin, ezagutu zuten, nolako kastiguak iragotzen zituzten gaiztoak, aserrearekin juzgatuak izan ziradenak.

11. Oiek egiaz probatu ziñituen, kontuan ipintzen dituzten aitak bezela; besteak berriz kondenatu ziñituen egiten ziñiozkala galdeak errege gogor batek bezela,

12. Berdin penatuak ziradela, naiz egon aurrean, naiz toki arrotzean.

13. Zeren kastigatuak izan ziran bi alditan naigabe eta negarrekin, iragotako gauzen oroipenagatik.

14. Zeren aditzean besteentzat ona zala, berentzat pena izan zana, Jaunarekin gomutatu ziran, miraríturik gertaeraren atzenarekin.

15. Ala gertatu zan arako erri eta bere gidaria, zeñai irri egiten zioten aurtikiak bezela, krudelkiro aurrak iltzera eramanak ziradenean, gertaera au irago zanean, mirariz begiratu zioten, berak ere egarria iragotzen zutela, ez justoen antzera.

16. Eta beren idolatriako iritzi zoroen kastiguan, zeñaen araura batzuek, uts egiten zutela, adoratzen zituzten suga mutuak, edo deus balio ez duten pistiak, bialdu zenduen beren kontra bengantzan abere mutu talde bat.

17. Ezagutu zezaten, bat bekatu egiteko nolako gauzakin baliatzen dan, oriek berok gero penatuak izan oi diradela.

18. Zeren zure esku, guzia dezakean, iñoiz ikusi gabeko gai batekin mundua egin zuenak, ez zeukan eragozketarikan, bidaltzeko beren gañera artz, edo leoe odolgiroak,

19. Edo pisti mota berri, ezagutzen etziradenak, sumintasunez beteak, edo suzko garrak asnasarekin botatzen zituztenak, edo kee (sic) beltza ugari zeriotenak, edo begietatik oñazkarri izugarriak aurtikitzen zituztenak.

20. Zeñak ez bakarrik desegin zitzaketen berak egindako kaltearekin, baita izuz ill ere berak ikusita beste gabetanik.

21. Eta gauza oiek gabetanik ere asnasa bakar batekin, illak izan zitzaketean, beren gaiztakerien kezkak persegitzen zituztela, eta barreiatuak zure birtutearen espirituaz, baña zuk gauza guztiak erabakitzen dituzu neurriz, zenbatez, eta pisuz.

22. Zeren zuk bakarrik daukazu beti eskuen indar guztia, eta zure besoaren indarrari, nor aurkatu dizaioke?

23. Zeren mundu guztia zure aurrean da, balantzan granotxo bat bezela, edo goizean lurraren gañera jetxitzen dan intzaren tanto bat bezela.

24. Baña zuk guztien urrikaltasuna daukazu, guztia dezakezulako, eta gizonen bekatuak ikusiko ez baziñitu bezala egiten dezu, penitenzia egin dezaten.

25. Zeren zuk izatea daukan guzia maitatzen dezu, eta ez diozu gorrotoz begiratzen, egin ziñituen gauzaetatik bati ere, eta baldin gauzaren bati gorroto izan baziñiozu, etzenduen beñere erabakiko, ez egingo.

26. Eta ¿nola iraungo luke gauza batek ere, zuk nai ez bazeneza? Edo nola jarraituko luke izatearekin, zuk ots egingo ez baziñioke?

27. Baña zuk guziai barkatzen diezu, Zeren gauza guziak diraden zureak, o Jaun, animen maitatzallea.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. O ze ona eta beraa dan, Jauna, zure espiritua gauza guztietan!

2. Eta argatik aldizka zuzentzen dituzu uts egiten dutenak, eta kontuan ipintzen dituzu, bekatu egiten duten gauzen gañean, eta itz egiten diezu, utzirik gaitzkeria, zugan sinistu dezaten, o Jauna.

3. Ala zure lur santuan anziña bizi ziradenak, zeñai gorroto ziñien,

4. Zuretzat nazkagarriak ziraden obrak egiten zituztelako beren sorginkeria eta eskeñtza gaiztoakin,

5. Eta erruki gabe beren semeak iltzen zituztelako, eta gizonen erraiak jaten zituztelako, eta iretsitzen zutelako odola zure juramentoaren erdian,

6. Onelakoak, zeñak ziran denbora batean gurasoak eta bertan beera utziak ziraden aurren, guraso iltzalleak, galdu nai izan ziñituen gure gurasoen bitartez,

7. Zuk maiteen zenduen lurrak, artu zitzan, Jaungoikoaren semeen maizter diñak.

8. Baña oiei ere barkatu ziñien gizonai bezela, eta listorrak bialdu ziñiezten zure ejerzituko bidaikusleak bezela, geldika geldika desegin zitzaten.

9. Ez ezin jarri ziñituelako gaiztoak justoen mendean armakin, edo desegin batbatean pisti odolgiroakin, edo itz garratz batekin.

10. Baña aldizka juzgatzen ziñituela, penitenziarako lekua ematen zenduen, baziñiekien ere, beren arraza gaiztoa zala, eta berezkoa beren biurritasuna, eta beren gogorazioak ezingo zuela aldakuntzarik iduki.

11. Zeren beren arraza asieratikan madarikatua zan, eta iñoren beldur izan gabe, beren bekatuatan luzapenak ematen ziñiezten.

12. Zeren nork esango dizu zuri: Zer egin dezu? Edo zure juizioari, nor aurkatuko zaio? Edo nor jarriko da zure aurrean gizon gaiztoen gor-

detzalletzat? Edo nork kontuak artuko dizkizu, zuk egindako erreñoak galduko balirade?

13. Zeren ez dago beste Jaungoikorik baizikan zu, gauza guziak zaitzen dituzuna, erakusteko, zure juizioetan ez dagoela justiziagabetasunik.

14. Ez dago erregerik, ez prinziperik kontua eskatu lizazukenik, zuk galduerazi dituzunen gañean.

15. Izanik bada zu justoa, justiziaz gauza guztiak erabakitzen dituzu; eta sinisten dezu, zure eskubideari ez dagokiola kondenatzea, kastiguaren diña ez dan hura.

16. Zeren zure eskubidea justiziaren asiera da; eta argatik, nola gauza guztien Jauna zeran, guztiakin egiten zera biguña.

17. Zeren zuk zure eskubidea agertzen dezu, sinisten ez dizutenean, eskubidean nagusiena zerala, eta nastutzen dezu ezagutzen etzaituztenen azarkeria.

18. Baña zu nola guztien Jaun goratua zeran, juzgatzen dezu pake andi batekin, eta txit ongi begiratuta gobernatzen gaituzu, zeren eskuan daukazun eskubidea, nai dezunean.

19. Zure erriari berriz erakutsi ziñion alako obrakin, izan bear dala justoa, eta biotz beraa; eta zure semeai itxedopen ona idukierazi ziñien, zeren juzgatzen dezula, leku ematen dezu bekatuen penitenziarako.

20. Baldin bada zure serbitzarien, eta eriotzaren diña ziradenak kastigatu baziñituen alako modu onarekin begiratuta, ematen ziñiotela denbora eta lekua, zeñean alde egin zitezkean gaiztakeriatik,

21. Nolako ajolarekin juzgatu ziñituen zure semeak, zeñaen gurasoai egin ziñiezten eskeñtza onak juramentuakin eta elkartasunakin?

22. Eta ala erriertaren bat egiten diguzunean, gure etsaiak milla eratara azotatzen dituzu, arretaz zure ontasunean pensatu dezagun; eta juzgatuak geranean, itxedon dezagun zure urrikaltasunean.

23. Argatik zentzugabeko eta gaiztoak bezala bizitu izan ziraden aiei ere, penarik andienak eman ziñiezten, berak adoratu zituzten gauza aien bitartez.

24. Eta ala denbora luzean ibilli ziran bide zuzenetik alde eginda, sinistzen zutela abererik zatarrenak Jaungoikoak ziradela; eta iragotzen zutela bizitza, aurrak bezela, zentzuaren piskarik gabe.

25. Argatik mutil eroai bezela kastigu bat eman zinien lotsariz bezela.

26. Ondu etziradenak berriz ez lotsariakin, ez erriertakin, Jaungoikoaren diñako juzio bat iduki zuten.

27. Zeren aserreturik padezitzen zutenarekin, eta ikusirik Jaungoikotzat zeuzkaten gauzak berak oñazkatzen zituztela, eta berak ziradela beren galmena, ezagutu zuten Jaungoiko egiazoka zala, beste denbora batean ezagutu nai izan etzutena. Argatik atzenean aurtiki zuen beren gañera atzeneko kondenazioa.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Arrokeria, eta ez besterik dirade egiaz, Jaungoikoaren jakinduria beretan arkitzen ez dan gizon guztiak, eta ikusten diraden gauza onetatik ezagutu ezin izan zutenak, Dana, eta gogoan erabilli arren obrak, etzuten ezagutu nor zan egillea,

2. Baizik iduki zituzten Jaungoiko munduaren gobernaritzat, edo sua, edo asnasa, edo aize mugitua, edo izarren jirak, edo ur askoak, edo eguzkia, edo illargia.

3. Beren edertasunarekin zoratuta, Jaungoikoak ziradela uste izan bazuten, ezagutu bezate, oiek baño zenbat ederragoa dan beren Jauna dana. Zeren edertasunaren asmatzalleak, gauza guzti oiek egin zituen.

4. Edo miraritu baziraden beren bertute, eta obrakin, beretatik ezagutu bezate, oiek egin zituena, berak baño sendoagoa dala.

5. Zeren edertasunaren eta egindako gauzaren anditasunetik, argiro etorri liteke bere Egillearen ezagerara.

6. Baña alaere alakoak errierta gutxiagoren diña dirade. Zeren alakoak noaski uts egiten dute, Jaungoikoa billatzen dutela, eta bera arkitu nairik.

7. Zeren billatzen duten, gogoan darabiltzatela bere obrak, eta ziertoro uste dute, onak diradela, ikusten diraden gauzak.

8. Baña oiei ere ez zaiote barkatu bear,

9. Zeren beren jakinduriarekin allegatu bazitezkean munduko gauzak nolakoak diraden ezagutzera, nola erraztasun andiagoarekin bere Jauna etzuten arkitu?

10. Baña doakabeak dirade, eta illen artean daukate itxedopena, Jaungoikotzat iduki zituztenak gizonen eskuen obrak, urrea eta zillarra, artearen asmazioak, eta abereen irudiak, eta utsa balio duen arri, anziñako eskuaren lana.

11. Nola arotz jakintsu batek ebakitzen duenean basoan aritz zuzen bat, eta kontuz ta poliki kendurik kortika guzia, eta bere artearekin baliaturik, egiten duenean mañaz bere etxeko lanetarako gai dan tresna bat,

12. Eta kastatuko balitu lan aren kondoak jatekoa prestatzen,

13. Eta onen gañerako, ezertarako gai ez dan, zur oker, eta korapilloz beteriko bat, joango balitza kontu andiarekin leunduaz, eta bere arte ta jakinduriarekin emango balio zerbaiten irudia, eta emango balio gizon baten antz eta sena,

14. Edo emango balio abere baten irudia, ipintzen duela bermellondurik, eta kolore gorriz, eta berak dauzkan mantxa guztiak estaltzen dituela,

15. Eta egingo balio berari dagokion nitxo bat, eta ipiñirik paretean, eta iltzez gogorturik,

16. Arturik berarekin neurri oiek, erori ez dedin, jakiñik bera ez dala ezertarako gai, irudi bat bakarrik dan ezkero, eta berak bear duelako laguntasuna:

17. Eta egiñik berari eskeñtzak, egingo baliozka galdeak bere haziendaren, eta bere semeen, eta bere eztaien gañean. Ez dauka lotsarik, anima gabe dagoan arekin itz egiten.

18. Eta osasunagatik erregututzen dio egiaz eri bati, eta bizitzagatik eskatzen dio il bati, eta laguntasuna eskatzen dio ezertarako gai ez dan bati.

19. Eta norabait joateko erregututzen dio, ibilli ezin dan bati; eta bere irabazietarako, eta haziendentzat, eta bere gauza guztiak ongi irten dizaioten, eskatzen dio laguntasuna, deustarako balio ez duen bati.

AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Baitaere artu du norbaitek gogoa itsasoz ibiltzeko, eta baga arroen artetikan joateko dagoenean, ots egiten dio zur bati, bera daraman zura baño argalago bati.

2. Zeren irabazteko gurariak asmatu zuen, eta arotzak egin zuen bere jakinduriarekin.

3. Baña zure Probidenziak, o Aita, gobernatzen du, zeren itsasoaren erdian ere bidea idiki zenduen, eta bidetxidor txit segurua bagen artean.

4. Erakusten dezula, almentsua zerala irrisku guzitik salbatzeko, norbait arterikan gabe, itsasoan sartuko balitza ere.

5. Baña zure jakinduriaren obrak utsak izan ez ditezen, argatik ere gizonak ipintzen dituzte beren bizitzak zur txiki baten pentzudan, eta iragotzen zutela itsasoa, ontzi batean libratu ziran.

6. Eta asieran galdu ziradenean goiante arroak, ontzi bat izan zan, mundu guztiak salbatzeko zeukan itxedopena. Ontzi bat, izanik zure eskuz zuzendua, gordeko zuena azi bat, zeñatatik mundua berriz jaioko zan.

7. Zeren bedeikatua da zura, zeñaen bitartez justizia egiten dan.

8. Baña madarikatua da, eskuz egindako idolo baten zura, ala bera nola egillea; au, egin zuelako, eta hura, ez izanik gauza argal bat baño, Jaungoikoaren izena artu zuelako.

9. Zeren gaiztoa eta bere gaiztakeria orobat dirade Jaungoikoarentzat gorrotogarriak.

10. Eta argatik ala egiña izandu zan lana, nola bera egin zuena, kastigatuak izango dira.

11. Argatik erreñoetako idoloetan etzaio ezeri begiratuko: zeren Jainkoak egindako gauzak nazkagarri itzuli dirade, eta gizonen animen tentazio, eta zentzugabekoen onen lakio.

12. Zeren idoloen asmazioa, idolatriaren asiera izandu zan, eta bere arkituera izan zan bizitzaren usteltasuna.

13. Zeren asieran etzeuden, eta gero ere ez dira beti egongo.

14. Zeren gizonen andiusteak sartu ditu munduan; eta argatik beren atzena aurki arkitua da.

15. Arkitzen zala guraso bat pena txit andi batekin iragorik, bere seme baten batbateko, eta añ gaztetako eriotzarekin, egin zuen bere irudi bat, eta gizona bezala orantzuan il zana, asi zan Jaungoikoa bezela adoratzen , eta ipiñi zituen bere norroien artean zeremoniak eta eskeñtzak.

16. Gero denborak iragota, oitura gaizto ark indarra arturik, utsegite au izan zan legea bezela gordea, eta tiranoen aginduz, irudi oiek ziraden adoratuak.

17. Eta ala urrutitikan ekarrierazten ziezten, aurrean ez idukitzeagatik berai begira zeudela onratu ezin zituztenen irudiak; eta guzien begien aurrean ipintzen zuten, onratu nai zuten erregearen irudia, beren ajolarekin adoratzeko arrotza, aurrean egongo balitza bezela.

18. Ezerere etziekitenak ere eraman zituen berak adoratzera, egillearen arreta txit andiak.

19. Zeren gusto eman nairik onek berarekin baliatu zanari, alegiñak egi zituen bere mañarekin, ateratzeko irudia albait ondoen.

20. Eta lanaren edertasunarekin engañatua izanik gizon talde ezjakiña, asi zan Jaungoikotzat idukitzen, denbora gutxi bat lenago gizon bat bezela onratzen zuena.

21. Eta au izandu zan gizonen bizitzaren engañoa, zeren gizonak, edo beren gurariren bat betetzearren, edo erregeen naia egitearren, eman ziezten arriai eta zurai, besteri eman ez lezakion izena.

22. Eta etzan asko izan, berak Jaungoikoaren ezageraren gañean uts egitea, baizik oraindikan jakiñezaren gerra andian bizi ziradela, anbeste gaitz, eta ain andiai, pakea ots egiten diote.

23. Zeren, edo sakrifikatzen zituztela beren semeak, edo sakrifizio illunak egiten zituztela, edo zelebratzen zituztela bella zorakeriaz beteak,

24. Ez dute onezkero bizitza garbian irautzen, ez matrimonio onetan, baizik batak bestea ondamuz iltzen du, edo naigabetzen du bere adulterioarekin.

25. Eta naasia dago gauza guzti au, odola, gizon iltzea, lapurreta, eta engañoa, usteltasuna, eta desleialtasuna, naspilla, eta gezurrezko juramentua, onen matxinada,

26. Jaungoikoarekin aztuta egotea, animen loikeria, jaiotzen trukada, matrimonioen iraupenik eza, adulterioaren eta loikeriaren zuzengabetasunak.

27. Zeren idoloen adoratze nazkagarria, da, gaitz guziaren asiera eta bukaera.

28. Zeren, edo poztzen diradenean, sumintzen dirade, edo gutxienez iruditzen dituzte azti gezurrezkoak, edo justiziarik ezean bizi dirade, edo aisa egiten dituzte gezurrezko juramentoak.

29. Zeren anima gabeko idoloetan beren itxedopena ipintzen dutela, gaizki juramentoa eginarren itxedotzen dute, ez dutela gaitzik artuko.

30. Baña bata eta besteagatik diña diradena artuko dute, Jaungoikoaren iritzi gaiztoa iduki zutelako, idoloai begiratzen ziotela, eta gaizki juramentoak egin zituzten, engañoarekin justizia mezpreziatzen zutela.

31. Zeren ez da gizon biurrien gaiztakeria persegitzen duena, berak beren izenean juramentoak egin zituztenen eskubidea, bekatarien kontra, baizik bekatu egiten dutenen pena.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Baña zu, o gure Jaungoikoa, beraa eta egiatia eta sufritua zera, eta urrikaltasunarekin gauza guztiak erabakitzen dituzu.

2. Zeren baldin bekatu egiten badegu, zureak gera, zure anditasuna ezagututzen degula; eta baldin bekaturik egiten ez badegu, badakigu zuk gure kontua daukazula.

3. Zeren zu ezagututzea da, justiziaren osotasuna, eta zure justiziaren, eta zure eskubidearen berriak idukitzea, beñere ez iltzearen sustraia.

4. Zeren ez gaitu gaitzera eraman gizonen arte gaiztoaren asmazioak, ez pintura baten itzalen apainduria utsa danak, ez irudi otallutu, eta kolore askotakoak,

5. Zeñ ikusita zentzugabeko batek artzen du bere guraria, zeñak maitatzen duen anima gabeko, eta illa dagoen irudi bat.

6. Gaitza maitatzen dutenak, dirade beren itxedopena alako gauzetan idukitzeko diñak, eta egiten dituztenak, eta maitatzen dituztenak, eta adoratzen dituztenak.

7. Ala da buztingilla batek, darabillela buztin biguña, egiten du berarekin, bere lanaren kostuan, gure premietarako bear degun ontzi mota guzia; eta buztiña batbatetik egiten ditu ontzi batzuek gauza garbietan serbitzen dutenak, eta orobat beste batzuek alakoak ez diraden gauzetarako; egonik buztingillearen eskuan erabakitzea ontzi bakoitza nolako lanetarako izango dan.

8. Eta neke alferrarekin buztin batbatetik egiten du gizon ilkor oraindikan denbora gutxi dala buztiniarekin (sic) egiña izan zanak, eta txit laster bera izarera biurtuko danak, artu zuen animaren zorra pagatu bear duelako, Jaungoiko bat.

9. Baña berak ez dio begiratzen, ez artu bear duen nekeari, ez bizitza laburra dala, baizik urregin eta zillargiñak adiña izan nai du, eta brontzegilleak ere imitatzen ditu, eta bere gloria utsa balio duten gauzak egitean ipintzen du.

10. Zeren bere biotza autsa da, eta deusik balio ez duen lurra, bere itxedopena, eta lokatza baño zatarrago bere bizitza,

11. Ez duelako ezagutzen bera egin zuena, eta lana egiten duen anima eman ziona, eta asnasaz itsatsi ziona bizitzako espiritua.

12. Baitaere oiek sinistu dute itzjostatze bat dala gure bizitza, eta gure alegiñak guztiak zuzendu bear dutela aberastasun andiak biltzera, eta irabaziak egin bear diradela edozeñ modutan, gaizkiak badira ere onetarako neurriak.

13. Zeren lurrarekin ontzi auskorrak eta irudiak egiten dituenak, badaki guziak baño bekatu andiagoa egiten duela.

14. Zeren zure erriaren etsaiak, eta mendean daukatenak, guziak dirade barbullak eta doakabeak, eta uste izan lezakean baño arroagoak.

15. Zeren Jaungoikotzat iduki zituzten erreñoetako idolo guztiak, zeñak ez diraden baliatzen begiakin ikusteko, ez sudurrakin aizea artzeko, ez belarriakin aditzeko, ez eskuetako beatzakin ukitutzeko, eta ibiltzeko ere, beren oñak nagiak dirade.

16. Zeñak egin zituena gizon bat da; eta prestatuta artu zuen espiritua egin zituenak; eta beñere ezin egingo du gizonek, bere antzeko Jaungoiko bat.

17. Zeren ilkorra izanik, esku gaiztoakin gauza il bat egiten du. Zeren bera obeagoa da, adoratzen dituenak baño, zeren bera egiaz bizi izan zan, izanik ilkorra, baña aiek beñere ez.

18. Baita abererik zatarrenak ere adoratzen dituzte, zeñak iruditurik beste abere zentzugabekoakin, berak baño gaiztoagoak dirade.

19. Eta ez dago ere arkitu dezakeanik gauza onik patari oiei begiratuta. Eta bota zuten berakgandik Jaungoikoaren alabanza, eta bere bendizioa.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Oiek, eta oien antzeko gauzakgatik arrazoiarekin izan ziraden, adoratzen zituzten gauza aien beren bitartez penatuak, eta pisti talde batek desegiñak.

2. Zure erriari berriz, tormentu oien lekuan, mesedeak egin ziñiozkan, ematen ziñiozkala nai zituen gozotasunak, ekarririk jateko galeper gizen txit gozoak.

3. Aiek jan nairik zeudela, premiazko gauza jateko gogoa ere galdu zezaten, erakutsi eta bialtzen zizaiozkateen gauza aiek gatik. Oiek ordea, jarririk premian denpora piska batean, iritxi zuten gero, janari berri eder bat.

4. Zeren gauza egokia zan etorri zedilla aitzakia gabeko galmena, indarrez agintzen zutenen gañera. Eta oiei berriz erakustea bakarrik, nola ziraden beren etsaiak desegiñak.

5. Zeren etorri zanean beren pistien aserre gogorra, suga gaiztoen usikiakin ziraden desegiñak.

6. Baña zure aserreak etzuen beti iraun, baizik denbora gutxian izan ziran beldurtuak ondu zitezen; osasuneko siñale bat zeukatela, zure legeko agintearen oroipenerako.

7. Zeren argana itzultzen zana, etzan sendatua gelditzen ikusten zuenagatik, baizik zugatik, guzien salbatzallea.

8. Eta onetan gure etsaiai erakutsi ziñien, zu zerala gaitz guzitik libratzen dezuna.

9. Zeren aiek il zituzten langosten eta eulien usikiak, eta beren animetarako etzan osasunik arkitu, zeren onela desegiñak izateko diñak ziran.

10. Zure semeak ordea dragoi pozoitsuen ortzak ere etzituzten garaitu, etorririk laister zure urrikaltasuna, sendatzen zituen.

11. Eta probatuak izaten ziraden, zure aginteakin oroitu zitezen, aurki alaere sendatuak gelditzen ziraden, gertatu etzedin, zure legeaz guziz aztuta, zuk lagunduak ezin izan zitzaten.

12. Zeren etzan izan belarren bat, edo loizoki leunen bat sendatu zituena, baizik zure itza, o Jauna, izan zan, zeñak gauza guztiak sendatzen dituen.

13. Zeren zu, o Jauna, zera bizitzaren eta eriotzaren jabea, eta eramaten gaituzu eriotzaren atetaraño, eta andik atzera itzulierazitzen digu-zu.

14. Gizon batek beste bat gaiztoz il lezake; baña bein anima ateratzen bada, ezin itzulierazi lizaioke, eta ezin biurtuko du anima, artua izan dan toki artatik.

15. Zure eskutik iges egitea berriz, ez dateken gauza da.

16. Argatik zu ezagutzen zendutela ukatzen zuten gaiztoak, zure besoaren indarrez azotatuak izan ziran, persekuzioa padezitzen zutela ur berriakin, eta arriteakin, eta euri jasakin, eta suaz desegiñak ziradela.

17. Eta miragarriena zan sua uretan, zeñak guzia itzalitzen duen, biziagoa izatea, zeren mundu guztia da justoen bengatzallea.

18. Batzuetan bada sua malsotutzen zan, gaiztoen kontra bialdutako abereak erre ez zitzan. Ikusirik au berak, ezagutu zezaten noisbait Jaungoikoaren juizioz persegituak ziradela.

19. Beste batzuetan sua, berez daukan indarraren kontra, zegoan erazekia urean, lur madarikatu artan erne zana desegiteko.

20. Kontrara, bazkatu zenduen zure erria aingeruen janariarekin, eta bialdu ziñion zerutik, bera nekau gabe prestatuta ogi bat, zeñak zeukan beragan gozotasun guztia, eta sabore guziaren leuntasuna.

21. Zeren zure izateak erakusten zuen, zure seme guzientzat daukazun gozotasuna; eta bakoitzak nai zuenera biurturik, bakoitzak jaten zuen, zale zana.

22. Eta elurra eta jela aurkatzen zitzaiozkan suaren indarrari, eta etziraden urtzen; jakin zezaten, kaskabar eta euriaren artean erazekia zegoen, eta argi egiten zuen suak desegiten zituela etsaien frutuak.

23. Baña emen, kontrara, aztu zan sua bere berezko indarrarekin, justoak zer jan iduki zezaten.

24. Zeren izatea eman ziñion sua serbitzen zaitula zu, bere Egillea beroago egiten da gaiztoak kastigatzeko, eta epeltzen da, zugan itxedotzen dutenen onerako.

25. Argatik orduan mannak ere janari guztien saborea artzen zuela, serbitzen zuen zure borondate ongille guztien bazkatzallea, zugana zuzentzen ziraden guztien gurara eratzen zala.

26. Zure semeak, o Jauna, zuk aiñ maitatuak, ezagutu zezaten, etziradela anbeste lurreko frutuak gizonak bazkatzen ditueztenak; baizik zure itza dala zugan sinistzen dutenai janaria ematen diotena.

27. Eta egiaz manna hura suaz desegiña ezin izan zitekena, eguzkiaren argi errañurik txikienarekin berotuta, bereala desegiten zan,

28. Jakin zezaten guztiak, eguzkia baño aurrerago ibilli bear zala zure bendizioa arrapatzeko, eta zu adoratzeko eguzkiak irtenda bereala.

29. Zeren eskertxarrekoaren itxedopena, neguko jela bezela desegingo da; eta galdu, bear ez dan ura bezela.

AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Andiak dirade, o Jauna, zure juizioak, eta esaneziñak zure itzak. Argatik jakinduria gabe zeuden animak uts egin zuten.

2. Gaiztoak bada uste zutenean azpian artu, eta sakatu zezaketela erri santua, izan ziraden lotuak illuntasunezko kateakin eta gau luze batekin, beren etxeen barrenen zarratuta, eta zeudela bertan betiko probidenziak beragandik botata bezela.

3. Eta uste zutela zeudela ezkutatuak beren bekatuen illuntasunean, izan ziran barreiatuak aztutasunaren estalki beltzarekin, izu ikaragarriz beteak, eta beldur txit andi batekin naasiak.

4. Zeren arkitzen ziraden lurruspeak ere, etzituzten beldur gabe gordetzen, zeren jetxitzen zan dunbotsak beldurtzen zituen, eta agertzen zitzaiezten zomorro ikaragarriak, zeñak izuz betetzen zituzten.

5. Eta egiaz surik bizienak ere ezin eman lizaiotekeen argirik; ezta izarren gar andiak ere ez zezaketean argitu gau ikaragarri hura.

6. Gañera batbatean agertzen zitzaien su bat, izuz betetzen zituena, eta arriturik oztargian ikusten zituzten gauza aien beldurrarekin, uste zuten beldurgarriagoak ziradela, aurrean jartzen zitzaiezten gauzak.

7. Mirariak egiteko zeukatela uste zuten eskubidea, irriz gelditu zan, eta beren jakinduriaren antustea, lotsariz izandu zan kastigatua.

8. Zeren eskeñtzen zutenak gozatuko zituztela beldurrez eta ikaraz zeudenak, oiek berok zeuden izuz beteak, eta eroriak iñakiñez.

9. Zeren zomorroak beldurtzen ez bazituzten ere, txit izuturik, iragotzen ziran abereakin, eta sugaen txistuakin, beldurrez beteak iltzen ziraden, eta begiratu ere etzioten nai aizeari, eta iñork ere au ezin lezake.

10. Zeren nola gaiztakeria beldurtia dan, berarekin dakar bere kondenazioaren aitorrera, zeren konzienzia nastu bat, beti dago gauza gaiztoen beldurrez.

11. Zeren beldurra ez da beste gauzarik, baizik uste izatea ez daukala batek iñor ere nork lagundu.

12. Eta zenbat laguntasun gutxiago itxedotzen duen gizonak bere barrenen, anbat andiago iruditutzen zaio penatzen daukan, eta ezagutzen ez duen gauza hura.

13. Beñikbein gauza ziertoa da, gau sufritu ezindako, eta infernuaren barren eta ondarretik irtendako artan lo bat batean zeudenak,

14. Batzuetan ikaratzen ziran ikusgarrien beldurrarekin, beste batzuetan beren animak indargatuak gelditzen ziran tristezaz, zeren batbatean eta ustekabean izu txit andi batek artzen zituzten.

15. Gañera, baldin norbait erortzen bazan, gelditzen zan karzela batean sartuta bezela, lotuta burni gabe.

16. Zeren baldin kanpoan zegoana, edo artzaia zana, edo bere lanetan ari zana, ustekabe arrapatua baldin bazan, arkitzen zan premia txit andian.

17. Guztiak bada gelditzen ziran lotuta, illuntasunen kate batbatekin. Eta aizearen txistuak; edo egaztien ots leun, zuaitz ostotsuen erramaen artekuak; edo ibai andi arin zijoazenen indarrak,

18. Edo erortzen ziraden aitzen dunbots andiak; edo jostaketan ari ziraden abereen korrika ikusi ezin zan batek; edo orroaka zeuden pistien boz gogorrak; edo mendirirk goratuenetako durundiak. Oiek guziok utzitzen zituzten beldurrez indargabetuak.

19. Zeren mundu guztia zegoan argitasun garbi batean, eta bakoitza, eragozketa gabe, ari oi zan bere lanetan.

20. Baña bakarrik beren gañean, zegoan jarria gau astun bat, gero beren gañera, etorriko ziraden illuntasunen irudia. Ala berak berentzat ziran sufritu eziñagoak, illuntasunak baño.

EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Zure santuak berriz argi txit andi bat zeukaten, eta oien boza aditzen zuten; baña beren iduria etzuten ikusten. Eta berak gauza oiek etzituztelako irago, goratutzen zinduzten.

2. Eta len gaizki tratatuak izan ziradenak, eskerrak ematen zitzazkizuten, orain etziralako; eta eskatzen zizuten mesedez desberdintasun onek iraun zezala.

3. Argatik, etziekiten bide baten gialaritzat, su erazekizko abe bat iduki zuten; onela zeukatela, beren egotaldietako atsedenean gaitzik egiten etzioten eguzki bat.

4. Egiaz beste argirikan gabetanik gelditzeko txit diñak ziraden, baitaere karzela illun batean egoteko, berak ere zure semeak karzelan zeuzkaten ezkero, zeñaen bitartez asitzen zan ematen munduari, zure lege garbiaren argia.

5. Artu zituztenean justoen aurrai bizitza kentzeko gogorazioak, eta beren kastigurako libratu zenduenean bat, aurtikiak izan ziradenetik, zuk kendu ziñiezten bere seme txit asko; eta berak ere itsasoko ondarretan ito ziñituen.

6. Gau hura gure gurasoai lendanaz adirazia izan zitzaien, onela ezaguturik juramentuz egindako eskeñtzen egia, zeñai sinistea eman zitzaien, itxedopen geiago iduki zezaten.

7. Eta zure erriak egiaz artu zuen onen osasuna, eta gaiztoen galmena.

8. Zeren nola kastigatu ziñituen etsaiak, ala gu goratu ginduzun, ots egiten ziñigula.

9. Zeren justoak, santuen semeak, ezkutuan egiten zizuten eskeñtza, eta guzien iritziz jarri zuten justiziako lege au, justoak eskeñtzen ziradela era berdiñean artzera onak, naiz gaitzak, kantatzen zituztela beti gurasoen alabanzak.

10. Bitartean egiten zituzten etsaiak deadar andi eragabeak, eta aditzen ziran aurren eriotzagatik negarrez zeudenen lantuak.

11. Pena berarekin atsekabetuak zeudela mendekoa, eta nagusia; eta erriko gizonak irago zituen erregeak bezelako atsekabeak.

12. Guztiak bada zeuzkaten kontatu ezin adiña, eriotza mot bat batekin il ziradenak. Zeren biziak etziraden asko obiratzeko, zeren batbatean desegiña izan zan beren jatorriaren zatirik argitsuena.

13. Zeren len sinisgaitzak ziradenak sorginkeriak gatik, lenbizisortuen ondamena gertatuta bereala, aitortu zuten hura zala Jaungoikoaren erria.

14. Eta ixiltasun paketsu batean zeudenean gauza guziak, eta gaua, jarraitzen ziola bere ibillerari, bidearen erdian zegoanean,

15. Zure itz guzia dezakeana, zerutik, zure errege esertokietatik, gerralari sendoak, salto egin zuen galmeneko lurraren erdira;

16. Zure ezpata zorrotz, aginte iduri utsekoa ez zana zeramanak, aurrean jarri zitzaienean, guzia eriotzaz bete zuen, eta lurrean zegoala zeruraño allegatzen zan.

17. Orduan ames gaiztoetako ikusmenak batbatean nastu zituzten, eta itxedotzen etzituzten beldurrak beren gañera etorri ziran.

18. Eta izanik aurtikiak bata aldamen batera, eta bestea bestera, oraindikan bizirik zeudela, erakusten zuten zergatik ziran illak.

19. Zeren nastuak utzi zituzten ikusmenak, lendanaz au adirazten zien, galdu etzitezten, gaitzak zergatik iragotzen zituzten jakin gabe.

20. Justoai ere orduan eriotzako eraso batek ukitu zien, eta jende taldearen matxinada bat eremuan izan zan, baña zure aserreak etzuen denbora luzean iraun.

21. Zeren gizon txit on bat joan zan arin erriagatik erregututzera, eldu zion bere langintzari zegokion ezkutuari, eskeñtzen zituela orazioa eta erregua inzensoarekin, eta aserreari kontra egin zion, eta premiari eman zion atzena, adirazten zuela nola zan zure serbitzaria.

22. Eta laster matxinada paketu zuen, ez gorputzeko indarrakin, ez armen eskubidearekin, baizik itz bakarrarekin kendu zion arma, atsekabetzen zuen aingeru ondatzalleari, gogoratuerazitzen ziola Jaungoikoari, nolako juramentoak eta elkartasuna zeuzkan Aitalenakin eginda.

23. Zeren illda gero erori ziradenean muntoika bata bestearen gañera, erdian jarri zan Aaron, eta ebaki zuen kolera, eta biziakganontz joatea galerazi zion.

24. Zeren zeraman soñeko luzean zegoan mundu guztia iruditua; baita Aitalenen izen otspatsuak ere zeuden otalluz jarriak arrizko lau errenkadetan, eta zure izen santua ere zegoan tinkatua bere buruko tiaran.

25. Gauza oietara bata jarri zan geldituta aingeru ondatzallea, eta oien beldur izan zan. Zeren asko zan onezkero agertua zegoan Jaungoikoaren aserre au.

EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Gaiztoen gañera berriz autiki zuen bere aserrea urrikaltasunikan gabe atzeneraño; Jaunak lendanaz baziekielako gertatuko zitzaiotena.

2. Zeren berak, utzi ezkero hebreotarrai joaten, baitaere agudo irtenerazirik, damuturik gero, beren ondorik zijoazen,

3. Alako moduan non, oraindikan lutuarekin zeudela, illen obien gañean negar egiten zutela, artu zuten beste asmazio, beren zorakeriaren diñako bat, eta joan ziran persegitzera igesi joango balirade bezela, erreguz joanerazi ziotenai berai.

4. Onetara zeramazkian, txit diña ziraden premia batek; eta allegatu ziran galtzera, gertatu zitzaiezten gauzen oroipena, gañean zeukaten kastiguak bete zezan beren tormentuen neurria,

5. Eta ala zure erriak miratiz irago zezala itsasoa, zeñean berak arkituko zuten eriotza mota berri bat.

6. Zeren gauza guztiak, bakoitzak bere motaren araura, obedezitzen zitzaieztela zure aginteai, artzen zuten irudi berri bat, zure semeak gaitzikan gabe iraun zezaten;

7. Eta ala odei batek beren etzauntzai itzal egiten zioten; eta len ura zegoen tokian, lur leorra agertu zan, eta beaztoporikan gabeko bide bat itsaso gorrian, eta landa berde bat itsasoaren ondarretan.

8. Argatik irago zuen erri guztiak, zure eskuak lagunduta, zure mirari eta gauza arrigarriak ikusten zituela.

9. Argatik zaldi ongi bazkatutako, edo bildotstxoen gisara, egiten zituzten pozezko gora gorakak, alabatzen zinduztela zu, o Jaun, libratu ziñituena.

10. Zeren oraindikan oroitzen ziraden, arrotzak bezela bizitu izan ziraden toki artan gertatutako gauzakin; aberekumeen lekuan, euliak lurrak eman zituenean; eta ibaiak arraien lekuan igel talde andia kanpora bota zuenean.

11. Eta atzenean ere ikusi zuten egazti mota berri bat egiña izan zala, beren gura eragabekoaren indarrez, janari gozoak eskatu zituztenean.

12. Zeren beren jateko gura betetzeko, itsasotik egan etorri ziran galeper andiak; bekatarien gañera ordea etorri ziran ugari atsekabeak, lendanaz agertzen ziradela lengoak bezelako ikusikizunak, au da, oñazkarrezko ekaitzak: zeren ongi egiña zan beren gaiztakerien araura padezitzea.

13. Zeren eman zien ostatu lekua izan zan gaiztoena; zeren batzuek etzituzten artu arrotz ezezagun batzuek; eta besteak mendean jartzen zituzten ostatuz zeuzkaten lagun on batzuek.

14. Eta ez bakarrik au, baitaere bazegoan beste desberdintasun bat aietatik; arrera gaiztoa egiten ziela arrotz batzuei.

15. Oiek berriz atsekabetzen zituzten lan txit nekatsuakin, pozez artu zituztenak berak, eta lege bat batzuen mendean bizi ziradenak.

16. Argatik itsutasunarekin kastigatuak izan ziraden, besteak bian ziraden bezela Lot justoaren atearen aurrean, ingurutu zituztenean illuntasun andiak, bakoitza bere etxeko atearen billan zebillanean.

17. Zeren gauza batzuek besteetara biurtzen diradenean, gertatzen da kitarra batean iragotzen dana, zeñaen otsak aldatzen diran, eta bakoitzak bere otsa gordetzen du, zeñaen gañeko iritzi ziertoa ikusiarekin bakarrik egin lezake.

18. Zeren lurreko gauzak ureko gauza biurtzen ziran; eta igerian zebiltzatenak, lurrera iragotzen ziran.

19. Suak, iragotzen zuela bere izatea, iraunerazitzen zion bere berotasunari uraren erdian; eta ura aztutzen zan, itzalitzeko zeukan berezko indarrarekin.

20. Bestera garrak etzien kalterikan egiten abereen gorputz, berez errekorrak ziradenai, beren erdian ibilli arren; eta etzuten urtzen arako janari gozo, lanzurdea bezin aisa desegiten zana. Eta ala, o Jauna, gauza guzietan goratu zenduen zure erria, eta onratu zenduen, eta etzenduen mezpreziatu, denbora guzietan, eta toki guzietan languntzen ziñiola.

EKLESIASTIKUAREN LIBURUA

JESUS SIRAK-EN SEMEAREN EKLESIASTIKUA

Gauza asko eta andiak erakutsi dizkigute jakintsuro Legeak, eta Profetak, eta berai jarraitu dieten gañerakoak, zeñatan arrazoiarekin alabatu bear da Israel bere dotriña ta jakinduriagatik, zeren ez bakarrik itz oiek eskribitu zituztenak berak izan bear dute adituak eta jakintsuak; baita arrotzak ere beren bitartez allegatu litezke txit gaiak izatera, ala itz egiteko, nola eskribitzeko. Nere aiton Jesusek, irakurri ezkero txit gogotik Legeko liburuak, eta Profetaenak, eta gure gurasoak eskutik eskura eman zizkiguten beste batzuek. Berak ere eskribitu nai izan zuen, dotriña eta jakinduriari dagokion zerbait, gauza aiek ikasi eta berak aditu nai zituztenak, geiago ta geiago begiratu dizaioten beren eginbearrai, eta sendotu ditezen bizitzeko Legearen araura. Erregututzen dizutet bada, borondate onarekin allegatu zaiteztela, eta barka zaguzutela, baldin noizbait badirudizute, jakinduriaren iduripen au aldatzean, desalaitzen gerala izkuntzaren apaindurian; zeren hebreoen itzak beren indarretik asko galtzen dute, beste mintzoeraren batera aldatzen diradenean. Eta ez bakarrik oiek, baita Legeak berak, eta Profetak, eta beste liburu batzuetakoak ere, ez daukate desberdintasun gutxi, beren izkuntzan adirazten diradenetik. Ejiptora allegatu nintzanetik gero, ogeita emezortzigarren urtean, Ptolomeo Eberjetes erregeak agintzen zuela, nola denbora andian egon nintzan an, arkitu nituen, utzi zituzten liburu, dotriña txikia eta mezpreziagarria ez zeukatenak. Eta ala nik ere sinistu nuen, gauza mesedegarria ta premiazkoa izango zala, nere arreta eta lana ipintzea, gure izkuntzara aldatzean liburu au; eta denbora guzti artan, maiz egon nintzan bellan, eta ari nintzan ez lan txikian, liburu au bukatu eta argitara emateko, nai dutenentzat bera irakurri, eta ikasi nolakoak izan bear duten, Jaunaren legearen araura beren bizitza egitea erabaki dutenen oiturak.

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Jakinduria guztia Jaun Jainkoagandik dator, eta berarekin beti egon zan, eta dauka izatea mendeak bano lenagotikan.

2. Nork kontatu ditu itsasoko ondarrak, eta euri tantoak, eta mendeen egunak? Zeruaren altuera, eta lurraren zabalera, eta lizearen zakontasuna, nork neurtu ditu?

3. Eta bada, Jaungoikoaren jakinduria gauza guzien aurretik dijoana, zeñ da aditu duena?

4. Jakinduria, gauza guztiak baño lenago izan zan egiña, eta adimentuaren argitasunak betikoiraunetik dauka izatea.

5. Jaungoikoaren Berboa goietan jakinduriaren iturria da, eta bere korrontak betiko aginteak.

6. Jakinduriaren jatorria nori izan zaio agertua? Eta nork bere ezkutuak ezagutzen ditu?

7. Nori iñoiz desestali eta agertua izan zaio artea, zeñarekin egiten dituen obrak jakinduriak? Eta nork aditu al izan zuen bere asmazioen ugaritasuna?

8. Bakarrik Egille, txit goratu, guzia dezakean, eta errege andi eta txit ikaragarri, bere tronuaren gañean eseria dagoenak, eta da Jaun Jainkoa.

9. Au da Espiritu Santuagan izatea eman ziona, eta aditu zuen, eta kontatu zuen, eta neurtu zuen.

10. Eta bere obra guzien gañera isuri zuen, baitaere aragi guziaren gañera, bere ugaritasunaren araura, eta bere partale egin zituen bera maitatzen zutenak.

11. Jaunaren beldurra da gloria, eta gozatzea, eta poztasuna, eta bozkarioaren koroa bat.

12. Jaunaren beldurrak biotza gozatuko du, eta emango du bozkarioa, atsegiña, eta bizitza luzea.

13. Jaunaren beldur danari, ederki joango zaio bere atzenetan, eta bere eriotzako egunean bedeikatua izango da.

14. Jaungoikoaren amorioa, jakinduria gloriaz beteriko bat da.

15. Bera agertzen zaienak, maitatzen dute ikusten duteneko, eta bere obra andiak ezagututzen dituzteneko.

16. Jaunaren beldurra jakinduriaren asiera da, zeñ dan egiña leialak diradenakin amaren sabelean, eta emakume autuai laguntzen die, eta ezagutuerazitzen da justo, eta leialen bizieran.

17. Jaunaren beldurra, jakinduriaren santutuera da.

18. Errelijioak zaitu eta justotuko du biotza, poza eta gozotasuna emango ditu.

19. Jaunaren beldur dana, doatsua izango da, eta izango da bedeikatua iltzen dan egunean.

20. Jaungoikoaren beldur izatea da jakinduriaren osotasuna, eta bere frutuen betetasuna.

21. Bere etxe guztia ondasunez beteko du, eta bere tesoroakin janarigela guziak.

22. Jaunaren beldurra jakinduriaren koroa da, zeñak ematen dituen pake osoa, eta osasuneko frutuak.

23. Eta berak ikusi zuen, eta kontatu zuen; baña bata eta bestea Jaungoikoaren doaiak dirade.

24. Zentzuzko aditza, eta ezagera emango ditu jakinduriak, eta bere jabe diradenen gloria geitzen du.

25. Jakinduriaren sustraia Jaunaren beldurra da, eta bere erramak iraupen luzekoak dirade.

26. Jakinduriaren tesoroetan, aditza eta ezagera arkitzen dirade; bekatarientzat ordea, jakinduria nazka da.

27. Jaunaren beldurrak bekatua arroztzen du.

28. Beldur au ez daukana, ezin justoa izango da, zeren indarrak ematen diozkan sumintasuna, bere galmena da.

29. Denbora zati batean sufrituko du padezitzen duenak; baña gero poza beragana itzuliko da.

30. Juzio onekoak denbora zati batean bere itzak ezkutatuko ditu, eta askoren ezpañak bere zentzua kontatuko dute.

31. Jakinduriaren tesoroetan bizitza on bat egiteko erakutsiak daude.

32. Bekatariak berriz Jaungoikoa serbitzea gauza nazkagarritzat dauka.

33. Ene semea, jakinduria nai badezu, gorde itzatzu aginteak, eta Jaungoikoak emango dizu.

34. Zeren jakinduria, eta aditza Jaunaren beldurretik datoz, eta beretzat oniritzia dana,

35. Fedea eta otsantasuna, eta bere tesoroak gañez eginda ipiñiko ditu.

36. Ez zatzakio sinisgaitza izan Jaunaren beldurrari, eta etzaite beragana alderatu biotz tolesarekin.

37. Etzaite hipokrita izan gizonen aurrean, eta ez ezazu ere zure gañera zure galmena ekarri zure ezpañakin.

38. Beren ajola iduki ezazu, erori etzaitezen, eta ekarri ez dezazun zure gañera lotsaria;

39. Agertzen dituela Jaungoikoak zure ixil gauzak, eta azpiratzen zaituela sinagogaren erdian,

40. Alderatu zeralako Jaunagana gaiztakeriarekin, zure biotza tolesez eta engañioz betea zegoela.

BIGARREN KAPITULUA

1. Ene semea, asitzen zeranean Jaungoikoa serbitzen, sendo iraun ezazu justizian, eta beldurrean, eta zure anima tentaziorako prestatu ezazu.

2. Zure biotza umillatu ezazu, eta sufritu. Zeartu ezazu zure belarria, eta adimentuko itzak artu itzatzu; eta illuntasuneko denboran, etzaite arin ibilli.

3. Itxedon zaiezu Jaungoikoaren luzapenai, bildu zaite Jaungoikoarekin, eta sufritu ezazu, atzenean zure bizitza azi dedin.

4. Artu ezazu pozez, bialtzen dizun guztia; eta penetan sendo iraun ezazu, eta zure umiltasunean iduki ezazu pazienzia.

5. Zeren urrea eta zillarra suan probatuak dirade; gizon Jaungoikoaren gogokoak berriz umiltasuneko labean.

6. Jaungoikoagan itxedon ezazu, eta berak gordeko zaitu, eta zure bidea zuzendu ezazu, eta itxedon beragan, bere beldurrari iraunerazi zaiozu zure egunen atzeneraño.

7. Jaungoikoaren beldur zeratenak, bere urrikaltasuna itxedon ezazute; eta beragandik ez ezazute alderik egin, erori etzaitezten.

8. Jaunaren beldur zeratenak beragan sinistu ezazute; eta zuen ordaña ez da alperrik galduko.

9. Jaunaren beldur zeratenak, beragan itxedon ezazute, eta zuen pozerako bere urrikaltasuna etorriko zazute.

10. Jaunaren beldur zeratenak, maitatu ezazute, eta zuen biotzak argituak izango dirade.

11. Gogoan erabilli itzatzute, ene semeak, gizonen gizaldietako denborak; eta jakin ezazute, Jaunagan itxedon dutenetatik bat ere ez dala gelditu lotsatua.

12. Zeren, nork iraun zuen bere aginteetan, eta desanparatua izandu zan? Edo nork ots egin zion, eta berak mezpreziatua izan zan?

13. Zeren Jaungoikoa biguña eta urrikaltsua da, eta naigabeko egunean bekatuak barkatuko ditu, eta da egian billatzen dutenen laguntzallea.

14. Ai biotz toleseko, eta ezpañ gaiztoetako, eta esku gaizki egilleetakoa danaren, eta bi bideetatik lurraren gañean dijoan bekatariaren doakabea!

15. Ai biotz epeleko gizon, Jaungoikoagan itxedotzen ez dutenen zorigaiztokoak! Bada beragatik ez dirade berak lagunduak izango.

16. Ai, iragopena galtzen dutenen, eta bide zuzenak utzitzen dituztenen, eta bidetxidor okerretatik dijoazenen urrikigarriak!

17. Zer egingo dute, Jaunak bere juizioa asitzen duenean?

18. Jaunaren beldur diradenak, ez dirade bere itzera sinisgaitzak izango; eta maitatzen dutenak, bere bideetatik beti ibilliko dirade.

19. Jaunaren beldur diradenak, egingo dituzte alegiñak jakiteko zeñ diran bere gogoko gauzak, eta bera maitatzen dutenak, bere legeaz beteak egongo dirade.

20. Jaunaren beldur diradenak, beren biotzak prestatuko dituzte, eta bere aurrean beren animak santutuko dituzte.

21. Jaunaren beldur diradenak, bere aginteak gordetzen dituzte, eta idukiko dute pazienzia, berak bisitatzen dituen eguna etorri artean,

22. Esaten dutela: Egiten ez badegu penitenzia, eroriko gera Jaunaren eskuetan, eta ez gizonen eskuetan.

23. Zeren nolakoa dan bere anditasuna, alakoa da bere urrikaltasuna ere berarekin.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Jakinduriaren semeak, justoen batzarrea dirade; eta beren guraria obedienzia eta amorioa.

2. Aditu itzatzute, ene semeak, zuen aitaren aginteak, eta ala egin ezazute salbatu nai badezute.

3. Zeren Jaungoikoak nai izan zuen, aita semeak onratua izatea, eta zaitu eta sendotzen du, amak beren gañean daukan eskubidea.

4. Jaungoikoa maitatzen duenak, bekatuen barkazioa iritxiko du, eta beretan ez da berriz eroriko, eta eguneroko orazioan aditua izango da.

5. Eta ondasunak biltzen dituena bezela, ala da bere ama onratzen duena.

6. Bere aita onratzen duena, poztuko da bere semeetan, eta bere orazioko denboran aditua izango da.

7. Bere aita onratzen duenak, bizitza luzeagoa idukiko du; eta aitari obedezitzen dionak, gozatuko du ama.

8. Jaunaren beldur danak, gurasoak onratzen ditu, eta bere Jaunak bezela serbitzen ditu, bera sortu zutenak.

9. Onratu ezazu zure aita obrakin, eta itzakin eta pazienzia guziarekin;

10. Bere bendizioa zure gañera etorri dedin, eta bere bendizioak atzeneraño iraun dezan.

11. Aitaren bendizioak semeen etxeak sendotzen ditu; amaren madarikazioak berriz, desegiten ditu zimenduetaraño.

12. Etzaite gozatu zure aitaren desonran, zeren ez da zure gloria bere lotsaria.

13. Zeren gizonaren gloria bere aitaren onratik dator, eta semearen lotsaria da, onra gabeko aita bat.

14. Ene semea, lagundu zaiozu zure aitari zartzan, eta bere bizitzan ez ezazu tristetu.

15. Eta aurra bezela jarriko balitza, errukitu zaite berarekin, eta beñere ez ezazu mezpreziatu, berak baño indar geiago daukazulako; zeren egiten zaion mesedea, ez da aztuta geldituko.

16. Iragotzeagatik amaren zartzako utsegiteak, zure ordaña artuko dezu.

17. Ala justizia izango da zure etxearen zimendua; eta atsekabeko egunean izango da nor gomutatu zurekin; eta nola egualdi epel batean jela desegiten dan, ala zure bekatuak desegiñak izango dirade.

18. O ze desonratua dan bere aita desanparatzen duena! Eta nola dan madarikatua bere amari aserretuerazitzen diona!

19. Ene semea, otsantasunarekin zure obrak egin itzatzu, eta alabatua izateaz gañera, izango zera gizonak maitatua.

20. Zenbat andiagoa zeran, gauza guzietan umillatu zaite, eta Jaungoikoaren aurrean grazia arkituko dezu.

21. Zeren Jaunaren eskubidea da bakarrik andia, eta umildeak onratua da.

22. Etzaite ibilli jakin nairik zure gañekoa dan gauzarik, ezta ere zure indarrak baño geiago diran gauzak aztertzen; baizik erabilli ezazu beti gogoan Jaungoikoak agindu dizuna; eta bere asko obraen jakin naia etzaite izan.

23. Zeren ez da zuretzat premiazko gauza zure begiakin ikustea Jaungoikoaren ezkutuko gauzak.

24. Alperrikako gauzen berriak jakiten etzaite era askotara ibilli, eta bere obra askotan etzaite izan jakin naia.

25. Zeren gizonen adimentuaz gañetiko gauza txit asko izan zazkizu erakutsiak.

26. Asko engañatu zituen berakgatik egin zituzten iritzi gaiztoak.

27. Biotz gogorra gaizki ibilliko da atzenean, eta irriskua maitatzen duena, beratan galduko da.

28. Bi bidetan sartzen dan gizonak, ez du gertaera onik idukiko; eta biotz gaiztokoak, beretan beaztopo egingo du.

29. Biotz biurria penaz beteaz joango da, eta bekatariak bekatuak bekatuai itsatsiko diozka.

30. Antusteen batzarrea ez da onduko; zeren bekatuaren landareak beretan sustraiak botako ditu, berak igarri ere gabe.

31. Jakintsuaren biotza, jakinduria ikasten da ezagutua, eta belarri ongi prestatuak, adituko du jakinduria gurari guziarekin.

32. Biotz jakintsu eta adituak ez du bekaturik egingo, eta justiziako obretan gertaera onak idukiko ditu.

33. Urak itzalitzen du su erazekia, eta limosna aurkatzen zaiote bekatuai.

34. Eta Jaungoikoa da, ongi egiten dionari begiratzen diona, eta berarekin oroitzen da geroko, eta erortzen dan denboran, irozogarria arkituko du.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Ene semea, ez ezazu utzi beartsua limosna eman gabetanik, eta etzaiezu zure begiai beartsuak gandik alde erazi.

2. Ez ezazu mezpreziatu gosez dagoena, eta etzaiozu gogaiterazi beartsuari, bere premian.

3. Ez ezazu atsekabetu ezertarako gai ez danaren biotza, eta ez ezazu ere luzatu naigabez dagoenari laguntzea.

4. Etzaite gortu penaz dagoenaren erregura, eta premiatsuari etzaiozu arpegia itzuli.

5. Etzaiezu alde erazi zure begiai premiatsuagandik aserreagatik; eta etzaiezu ere eman biderik eskatzen dizutenai, ostetikan gaizki esateko.

6. Zeren bere animako mingoiztasunean madarikatzen zaituenaren biraoa aditua izango da; eta bere Egilleak entzungo du.

7. Abegi ona erakutsi zaiozu beartsu taldeari, eta zarrari umillatu zaiozu zure biotza, eta andizkien aurrean beeratu ezazu zure burua.

8. Zeartu ezazu zure belarria beartsuaganontz desdiña gabe, eta erantzun zaiozkazu gauza biguñak otsantasunarekin.

9. Libratu ezazu gizon arroaren eskutik injuria sufritzen duena; eta au egitea ez dakizula astun egin.

10. Juzgatzean izan zaite urrikaltsua umezurtzakin aita baziña bezela, eta beren amarentzat senarra bezela.

11. Eta izango zera zu txit Goratuaren seme esaneko bat bezela, eta au izango da zurekin ama bat baño urrikaltsuagoa.

12. Jakinduriak bizia ematen die bere semeai, eta beragan artzen ditu billatzen dutenak, eta justiziako bidean beren aurretik dijoa.

13. Ala, maitatzen duenak, bizitza maitatzen du, eta gogotikan billatzen dutenak, bere biguñtasunean gozatuko dirade.

14. Bere jabe diradenak, iritxiko dute betiko bizitza; eta bera sartzen dan tokian, an Jaungoikoak bere bendizioa botako du.

15. Serbitzen dutenak, Santuari obedituko diote; eta Jaungoikoak maitatzen ditu, maitatzen dutenak jakinduria.

16. Aditzen dionak, erreñoak juzgatuko ditu; eta beragan begiak ipiñirik dauzkanak, atsedengo du beldurrik gabe.

17. Bere itxedopena beragan ipintzen badu, herenziaz idukiko du, zeñaren jabetasuna bere semeetan sendotua izango da.

18. Zeren jakinduria berarekin dabil, eta asieratik probatzen du, tentazioen erdian.

19. Bera probatzeko beldur, eta ikaraen artetik darama, eta estututa ipintzen du, bere erakutsiaren gogortasunarekin, iduki dezan arteraño bere gogorazio guztien berri, eta bere biotzarekin fiya dedin artean.

20. Orduan sendotuko du birtutean, eta bide zuzenetik beragana etorriko da, eta poztuko du.

21. Eta bere ixilgauzak agertuko diozka, eta aberastuko du jakinduriako tesoru batekin, eta justiziaren ezageraz.

22. Bidetik alde egingo balu berriz, bertan beera utziko dio, eta ipiñiko du bere etsaiaren eskuetan.

23. Ene semea, iduki ezazu denboraren kontua, ongi irago ezazu, eta iges egin ezazu gaitzetik.

24. Ez ezazu iduki egia esateko beldurrikan, zure animari dijoazkion gauzetan,

25. Zeren bada lotsa bat berarekin bekatua dakarrena, eta bada ere lotsa bat ekartzen dituena gloria eta Jaungoikoaren grazia.

26. Etzaiozu bada iñori ere begiratu, zure kaltean izango bada, eta ez ezazu ere gezurrik esan, zure anima kostatzen zazunean.

27. Ez ezazu iduki zure projimoaren begirunerik erortzen danean.

28. Errierta egin zaiozu, eta ez bedi gelditu zure itza irten gabe, mesedegarria izan ditekeanean.

29. Zeren jakinduria mingañean ezagutzen da; eta zentzua, eta aditza, eta erakutsia begiratuaren esanean; eta sendotasuna dago justiziako obretan.

30. Iñoizere etzaiozu kontra egin egiaren itzari, eta lotsatu zaite, ezjakiñean esandako gezurragatik.

31. Zure bekatuak aitortzeko lotsarik ez ezazu iduki; baña etzaiozu iñori ere oben egin bekaturako.

32. Ez zatzakio bere aurrean aurkatu almentsuari, eta etzaite ere jarri gelditzen ibai andi baten beeruntzko indarra.

33. Justiziagatik ari zaite elean atzeneko asnasaraño zure animaren onerako, gudatu zaite justiziagatik eriotzaraño; zeren Jaungoikoa gudan ariko da zugatik zure etsaien kontra.

34. Etzaite izan urduria izketan, eta nagia eta ajolagabea zure obretan.

35. Etzaite izan zure etxean leoia bezelakoa, beldurrez dauzkazula zure etxekoak, eta azpiratuta zure mendekoak.

36. Ez bedi egon zure eskua luzatua artzeko, eta zuganatua emateko.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Ez ezazu ipiñi zure itxedopena ondasun gaiztoetan, eta ez ezazu esan: Badaukat biziteko adiña, zeren ez dizu orrek ezertarako ere balioko Jaungoikoaren benganzako egunean, eta eriotzako illuntasunean.

2. Eskubide andikoa zeranean, zure biotzeko gurari gaiztoai etzaiezu jarraitu.

3. Etzaite ere ibilli esaten: Andia da nere eskubidea! Nork emanerazIko dit neri nere obren kontua? Zeren Jaungoikoak txit segurki artuko du benganza ikargarria.

4. Ez ezazu ere esan: Pekatu egin det, eta zer gaitz etorri zat? Zeren txit goratuak itxedotzen badu ere, ematen du bakoitza diña dan ordaña.

5. Bekatu barkatuaren beldurrikan gabe etzaite egon, eta etzaiozu bekatuari bekatua itsatsi.

6. Eta ez ezazu esan: Jaungoikoaren urrikaltasuna andia da, berak barkatuko dizkit nere bekatuak asko izan arren.

7. Zeren bere aserrea ala dago prestatua, nola bere urrikaltasuna, eta bere aserrea bekatariai begira dago.

8. Etzaite luzaroegi egon Jaungoikoagana biurtu gabetanik, eta ez ezazu ere egun batetikan bestera atzeratu,

9. Zeren batbatean etortzen da bere aserrea, eta bengantzako denboran galduko zaitu.

10. Ez ezazu bada ondasun gaiztoen jabe izatera allegatzeko ansiarik iduki; zeren utsa balioko dizkizu illuntasun eta benganzako egunean.

11. Aize guztira etzaite itzuli, eta etzaite ere bide guztietatik joan, zeren ala da probatua bekataria bere mingañ tolesean.

12. Zaude sendo Jaunaren bidean, eta zure iritzietako egian, eta jakindurian; eta pake eta justiziako itza zure ondorik bijoa.

13. Zaude zur esaten dizuten itzera , aditu dezazun; jakinduriarekin eman dezazun erantzute egiazkoa.

14. Galdearen aditza bedezu, erantzun zaiozu projimoari; bestela, zure eskua egon bedi zure aoaren gañean, gatzikan gabeko itzen batean arrapatua izan ez zaitezen, eta gelditu etzaiten lotsatua.

15. Onra eta gloriak laguntzen die gizon zentzudunaren izketari; zentzugabekoaren mingaña berriz, bere galmena izatera dator.

16. Etzaite izan itzez pakegaltzallea, eta etzaitezela izan zure mingañak arrapatua eta lotsatua.

17. Zeren lapurra gelditzen da lotsatua eta damutua, eta mingañ toleseko gizona, kleitu txit gaiztoan, eta itzez pakegaltzalleak ekartzen ditu bere gañera gorrotoa, eta aserrea, eta deshonra.

18. Egin zaiezu berdintasunarekin justizia andiai, eta txikiai.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Etzaite egin projimuaren adiskidearen lekuan, etsaia, zeren gizon gaiztoak idukiko ditu herenziatzat lotsaria eta desonra; batezere bekatari ondamutsu, eta mingañ tolesekoak.

2. Zure biotzeko gogorazioan etzaite goratu, zezena bezela; gertatu ez dedin, zure indarra desegiña izatea zure erokeriagatik,

3. Eta berak jan ez ditzan zure ostoak, eta galdu ez ditzan zure frutuak, eta utzi ez zaitzan zuaitz igartu bat eremuan bezela.

4. Zeren anima gaiztoak galduko du bera daukana, eta egingo du pozgarria bere etsaientzat, eta gaiztoen tokira eramango du.

5. Itz gozoak ugaritzen ditu adiskideak, eta bigundu etsaiak; eta mingañ graziatsuak asko balio du gizon on bategan.

6. Bizitu zaite adiskidetasunean askorekin; zure konsejaritzat ordea millatatik bat artu ezazu.

7. Adiskide bat egin nai badezu, egin ezazu, bere berri ongi jakinda, eta etzaite aisa berarekin fiya.

8. Zeren badirade adiskideak adiskide diradenak ongi dijoakenean, eta alakotzat irautzen ez dutenak naigabeko denboran.

9. Eta badira ere adiskideak, etsai biurtzen diradenak, eta badira alako adiskideak gorrotoak, eta erriertak, eta esate gaiztoak agertzen dituztenak.

10. Bada ere adiskideren bat, maiean laguntzen duena, eta bera premiako denboran ez du iñork ikusiko.

11. Adiskidea, zintzoa bada, izango da zuretzat berdin bat bezelakoa, eta zure etxeko gauzetan itxedopenarekin sartuko da.

12. Zure aurrean umillatzen bada, eta zure aurretik noizbait alde egiten badu, arkitu dezu beragan adiskidetasun on eta sendo bat.

13. Urrutitu zaite zure etsaietatik, eta zure adiskideakin ere kontuan egon zaite.

14. Adiskide leiala, gordetzalle sendo bat da, arkitzen duenak, tesoro bat arkitu du.

15. Ez dago adiskide leialarekin berdindu diteken gauzarik; eta ez dago ere urrezko, ez zillarrezko pisurik, bere fedearen zintzotasunarekin balanzan ipintzeko diña danik.

16. Adiskide leiala, bizitzako eta betikoirauneko balsamua da; eta Jaunaren beldur diradenak arkituko dute.

17. Jaungoikoaren beldur danak, berdin iritxiko du, adiskide onak idukitzea; zeren oiek bere antzekoak izango dirade.

18. Ene semea, zure aur denboratik ar zazu erakutsi ona, eta idukiko dezu jakinduria bat zure bizitzaren atzeneraño iraungo duena.

19. Alderatu zaite beragana goldeatzen, edo azia ereitzen ari dana bezela, eta frutu onak itxedon itzatzu.

20. Zeren neke piska bat idukiko dezu bera landutzean; baña gero laster bere frutuak jango dituzu.

21. O zeñ txit latza dan jakinduria ezerere ez dakitenentzat! Zentzugabeak ez du bera ikasten iraungo.

22. Oientzat izango da pruebako arri astun bat bezela, zeñ geiegi luzatu gabe botako duten.

23. Zeren erakutsiak ematen dituen dotrina, bere izenaren araukoa da; eta ez da askok ezagutua; ezagutzen dutenakin berriz irautzen du Jaungoikoaren aurreraño.

24. Aditu ezazu, ene semea, eta ar zazu nere erakutsi jakintsu bat, eta ez ezazu bota nere konsejua.

25. Sartu itzatzu zure oñak bere zepoetan, eta zure lepoa bere burniarrasketan.

26. Makurtu itzatzu zure sorbaldak, eta eraman ezazu lepoan, eta bere kateak ez bitez izan zuretzat gozakaitzak.

27. Zure biotz guziarekin allegatu zaite beragana, eta zure indar guztiarekin gorde itzatzu bere bideak.

28. Billatu ezazu, bada bera agertuko zatzu; eta zurekin daukazunean, etzaiozu utzi.

29. Zeren atzenetan beragan atsedena arkituko dezu, eta poz biurtuko zatzu.

30. Eta zepoak izango dirade zuretzat gordetzalle sendoa, eta bertutearen ondapea, eta bere burni arraskak gloriako estola.

31. Zeren beragan dagoan bizitzako edertasuna, eta bere lokarriak dira osasuneko lokarriak.

32. Berarekin jantziko zera gloriako estola bezela, eta zure gañean ipiñiko dezu pozezko koroa bezela.

33. Ene semea, arretaz aditzen badidazu, ikasiko dezu; eta zure gogoa beretan badaukazu, jakintsua izango zera.

34. Aditzen banazu, artuko dituzu erakutsiak, eta entzun zalea bazera, izango zera jakintsua.

35. Joan zaite maiz gizon zaar zentzukoen batzarrera, eta elkartu zaite biotzez beren jakinduriarekin, aditu dezazun Jaungoikoagatik esaten duten guztia, eta igesik egin ez ditzatzuten alabanzako esangiak.

36. Eta ikusten badezu zentzua daukan gizonen bat, goiz jaiki zaite beragana joateko, eta kastau bitzate zure oñak bere ateko mallak.

37. Jaungoikoaren aginduetan zure gogoa iduki ezazu, eta bere aginteetan txit maiz egon zaite, eta berak emango dizu biotz sendo bat onean, eta jakinduriaren gura kunplituko dizu.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Ez ezazu gaitzik egin, eta gaitzik ez da zure gañera eroriko.

2. Alde ezazu gizon gaiztoagandik, eta gaizki egitetik urrutian egongo zera.

3. Ene semea, ez ezazu erein gaiztakeria injustiziako erretenetan, eta ez dezu ebaki bearrik idukiko ugarituta.

4. Etzaiozu Jaunari eskatu besteen gialari izatea, ezta- ere erregeari onrazko esertokirik.

5. Ez ezazu iduki zure burua justotzat Jaungoikoaren aurrean, zeren bera biotzai begira dagoen; eta erregearen aurrean ere ez ezazu erakutsi zure burua jakintsutzat.

6. Ez ezazu aleginik egin Juez izateko, ez bazera arkitzen sendotasunarekin, bidegabetasunai arpegi emateko; gizon almentsuaren arpegiaren beldurrez, jarri etzaitezen justiziaren kontrako gauzak egiteko irriskuan.

7. Ez ezazu bekaturik egin erri bateko jende taldearen kontra, eta erriaren matxinadan etzaite sartu.

8. Etzaiozu bekatuari bekatua itsatsi; zeren bat bakarragatik ere etzera kastigu gabe geldituko.

9. Etzaite izan biotz gutxikoa.

10. Ez itzatzu mezpreziatu orazio egitea eta limosna ematea.

11. Ez ezazu esan: Nere eskeñtzen ugaritasunari begiratuko dio Jaungoikoak, eta eskeñi ezkero nik Jaungoiko txit goratuari, nere doañak artuko ditu.

12. Etzaiozu irririkan egin bere biotza atsekabetua daukan gizonari; zeren Jaungoiko, guztia ikusten duena da umillatzen, eta goratzen duena.

13. Ez itzatzu gezurrak asmatu zure anaiaren kontra, eta zure adiskidearen kontra ere ez ezazu egin.

14. Ez ezazu gezurrikan batere esan, zeren orretara oitutzea gauza txit gaiztoa dan.

15. Zarren artean ez ezazu itz asko egin, eta ez ezazu itza berriz esan zure izketan.

16. Ez ezazu lan nekatsuen gorrotorik iduki, eta ain gutxi kanpoko nekazaritza Jaungoikoak asmatu zuenarenik ere.

17. Etzaite izan gizon erakutsion gabekoen artekoa.

18. Oroitu zaite Jaungoikoaren aserreaz, bada laster izango da.

19. Txit umillatu ezazu zure espiritua, zeren sua eta arra izango dirade gaiztoaren aragia kastigatuko dutenak.

20. Etzaite gaizki ibilli, dirua biurtzea luzatzen duen adiskidearen kontra, eta ez ezazu ere mezpreziatu urreagatik zure txit maitatua.

21. Ez ezazu alderik egin andre zentzudun eta on, Jaunaren beldurrean iritxi zenduenagandik, zeren bere lotsaren graziak urre guziak baño geiago balio duen.

22. Ez ezazu gaizki erabilli, leialtasunarekin lan egiten duen mendekoa, eztaere zugatik bizia ematen duen alogerekoa.

23. Gizon mendeko zentzuduna maitatu ezazu zure anima bera bezela: etzaiozu bere aukera ukatu, eta ez ezazu ere bota, ezerere gabe utziten dezula.

24. Abereak dauzkazu? Zaitu itzatzu, eta baldin mesedegarriak badirade, egon bitez aurrerontz ere zure etxean.

25. Semeak dauzkazu? Erakutsi zaiezu dotriña, eta ezi itzatzu beren gazte denboratik.

26. Alabak dauzkazu? Zaitu ezazu beren gorputzeko onestasuna, eta etzaiezu arpegi alegreegia erakutsi.

27. Ezkondu ezazu zure alaba, eta eman zaiozu zentzua daukan gizon bati, eta lan andi bat egin izango dezu.

28. Baldin badaukazu zure biotzaren arauko emaztea, ez ezazu bota. Eta nazkagarria danarekin etzaite fiya. Zure biotz guzitik

29. Onratu ezazu zure aita; eta zure amaren lantuakin etzaite aztu.

30. Oroitu zaite, berakgatik izan ez balitza, etziñala jaioko; eta ongi erantzun zaiezu, berak ere zugatik egin zuten bezela.

31. Zure anima guzitik Jaungoikoaren beldur izan zaite, eta beneratu itzatzu bere sazerdoteak.

32. Zure indar guziakin maitatu ezazu zure Egillea, eta bere ministroak ez itzatzu desanparatu.

33. Onratu ezazu, Jaungoikoa zure anima guzitik, eta errespetatu itzatzu sazerdoteak, eta garbitu zaite eskeñtzen dituzula doañean abereen espaldak.

34. Eman zaiezu beren tokamena, aginduta dagotzun bezela, ala primizietatik, nola espiazioko eskeñtzetatik, eta zure utsegitetatik garbitu zaite gutxiakin.

35. Eskeñiko diozkazu Jaunari doañean bezela zure abereillen espaldak, eta santutasuneko sakrifizioa, eta gauza santaen primiziak.

36. Eta beartsuari zure eskua luzatu zaiozu osoa izan dedin zure propiziazioko sakrifizioa eta zure bendizioa.

37. Mesede egitea ongi dirudio mundu guziari, eta illai ere etzaiezu ukatu.

38. Etzaiozu utzi negarrez daudenak gozatzeari, eta lagundu zaiezu atsekabetuai.

39. Ez dakizula astun egin eria bisitatzea, zeren alako gauzakgatik karidadean sendotua izango zera.

40. Zure obra guztietan zure atzenakin oroitu zaite, eta iñoiz ere ez dezu bekaturik egingo.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Gizon almentsuarekin etzaite auzitan ari, bere eskuetan erori etzaitezen.

2. Gizon aberatsarekin ez ezazu erriertarikan iduki, auziren bat zure kontra ipiñi ez dezan.

3. Zeren urreak eta zillarrak asko galdu ditu, eta erregeen biotzetaraño zabaltzen da galmen au, eta aldatzen ditu.

4. Mingañ gaiztoko gizonarekin etzaite auzitan ibilli, eta ez ezazu bere suan egurrik bota.

5. Gizon ezjakinarekin ez ezazu artu emanik iduki, zure jatorriagatik gaizkirik esan ez dezan.

6. Ez ezazu mezpreziatu, bekatuarekin damututzen dan gizona, eta etzaiozu ere arpegian eman. Oroitu zaite guziok erriertaren diña gerala.

7. Ez ezazu mezpreziatu gizona bere zartzan, zeren gugandik gazteokgandik zarrak egiten dirade.

8. Zure etsaiaren eriotzarekin etzaite poztu, jakiñik guztiok iltzen gerala, eta orduan ez degula nai gugatik iñor poztutzea.

9. Ez ezazu mazpreziatu gizon zar jakintsuak kontatzen dutena, eta beren esangiak ikasi itzatzu,

10. Bada ala berakgandik ikasiko dezu jakinduria, eta prinzipeak serbitzen, aitzakiatua izan gabe.

11. Zarrak kontatzen dutena ez dakizula irago, zeren berak beren gurasoakgandik ikasi zuten.

12. Zeren ala berakgandik ikasiko dezu idukitzen zentzua, eta nola eman erantzuna, bear danean.

13. Ez itzatzu erazeki bekatarien ikatzak, errierta egiten diezula, eta beren bekatuen suan etzaite errea izan.

14. Ez zatzakio aurkez jarri itz gaiztoakoari, azeloan egon ez dedin itzen batean zu arrapatzeko.

15. Zuk baño geiago al duenari etzaiozu prestatu; eta zerbait prestatu badiozu, kontu egin ezazu galdu dezula.

16. Zure indarrez gañetiko fianzarik ez ezazu egin; eta baldin egin badezu, begiratu ezazu nola pagatuko dezun.

17. Juezaren kontra ez ezazu juzgatu, zeren berak gauza justoa danaren araura juzgatzen du.

18. Gizon ausartatuarekin etzaite bidean joan, berak egiten dituen ondamenak zu ere arrapatu etzaitzaten; zeren bera bere borondate aldakorrari jarraituaz dijoa, eta zu bere zorakeriagatik berarekin galduko zera.

19. Aserrekorrarekin etzaite erriertan jarri, eta ausartatuarekin etzaite toki eremura joan, zeren beretzat odola utsa da, eta zatituko zaitu, nork lagundu ez daukazunean.

20. Tontoakin etzaite konsejatu, zeren oiek ezin maitatuko dituzte, baizik beren gogokoak diraden gauzak.

21. Arrotzaren aurrean ez ezazu konsejurik artu; zeren ez dakizu, ark bere barrenen nolako asmazioak darabiltzkian.

22. Etzaiozu gizon guztiari zure biotza agertu, adiskidetasun iduri utseko bat erakutsi ez dizazun, eta iraindu etzaitzan.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Ez ezazu iduki zure emazte maitearen zelorik, zuk ematen diozkazun erakutsi gaiztoakin baliatu ez dedin.

2. Ez zaiozu zure emazteari zure animaren gañeko eskubiderik eman; zure nagusitasunaren kontra jaiki ez dedin, eta lotsatua gelditu etzaitezen.

3. Askori nai dien emakumeari ez zaiozu begiratu; bere lazoetan erori etzaitezen.

4. Emakume dantzariarekin ez ezazu artu eman aundirik iduki, bere losentxakin galdu etzaitezen.

5. Ez itzatzu ipiñi zure begiak birjiñagan; bere edertasuna zure galmena izan ez dedin.

6. Iñolaere etzaiezu sarrerarik eman zure animan bordionai, zu eta zure herenzia galdu etzaitezten.

7. Etzaite ibilli erriko karrikaetatik batera eta bestera begira, ez plazatik plazara jo batera ta jo bestera.

8. Emakume apainduagandik zure begiai alderazi zaiezu, eta besteren edertasunari etzaiozu arretaz begiratu.

9. Emakumearen edertasunagatik asko galdu ziran, eta emendik aragizko atsegiñen gura, sua bezela erazekitzen da.

10. Aragizko bekatuetan ari dan edozeñere emakume, guziak oñazpian darabilde, zimaurra bidean bezala.

11. Asko, besteren emaztearen edertasunarekin arrituta, gaiztotu ziran, zeren berarekin egiten dan izketak, suak bezela erretzen du.

12. Besteren andrearekin etzaite beñere egotez egon, eta etzaite ere berarekin ukalondoz etzin.

13. Eta etzaite ere berarekin elean ari ardoan, zure biotza beragandu ez dedin, eta zure biziaz batean, betiko galdua gelditu etzaitezen.

14. Anziñako adiskidea ez ezazu utzi, zeren berria ez da bere antzekoa izango.

15. Adiskide berria, ardo berria da, zartuko da, eta orduan gogotik edango dezu.

16. Etzaite bekatariaren gloria eta ondasunen ondamuz egon, zeren ez dakizun bere galmena nolakoa izango dan.

17. Ez bitez izan zure gogokoak, gizon gaiztoak egiten dutuzten injuriak. Zuk badakizu, gaiztoa bere bizitza guztian iñoizere ez litekeala gogokoa izan.

18. Zu illerazitzeko eskubidea daukan gizonagandik urrutira alde egin ezazu, eta eriotzaren beldurrez etzera egongo.

19. Eta beragana alderatzen bazera, ez ezazu gauza txarrikan batere egin, bizitza kendu ez dizazun.

20. Jakin ezazu, eriotzarekin izketan zaudela, zeren lazoen erdiko bidetik joango zeran, eta gizon aserratuen armen gañetik ibilliko zeran.

21. Kontuan ibilli zaite artu emanak dauzkazun lagunakin, eta zure izketak izan bitez gizon jakintsu, eta zentzudunakin.

22. Zure konbidatuak gizon justoak izan bitez, eta zure gloria Jaunaren beldur izatean egon bedi.

23. Jaungoikoaren gogorazioa egon bedi beti tinkatua zure animan, eta Jaungoiko txit goratuaren aginteen ganian zure izketa izan bedi.

24. Obrak, beren egilleen eskuetan izango dirade alabatuak, eta Prinzipea izango da erriak alabatua bere esanen jakinduriagatik, eta gizon zarren itzak zentzuagatik.

25. Beldurgarria da bere errian mingañ gaiztoko gizona, eta edozeñ itz esaten duena, gorrotatua izango da.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Juez jakintsuak justizia egingo dio bere erriari, eta zentzua daukan gizonaren agintaritza iraunkorra izango da.

2. Nolakoa dan erriko Jueza, bere ministroak ere alakoak dirade, eta nolakoa dan iriko Gobernaria, alakoak dirade bertan bizi diradenak ere.

3. Zentzugabeko erregeak, bere erria galduko du, eta iriak izango dirade, zentzua daukaten andizkien jendez beteak.

4. Lurreko eskubidea Jaungoikoaren eskuetan dago, eta berak bere denboran billatuko du, nork ongi gobernatu dezan.

5. Jaungoikoaren eskuetan dago gizonaren ongi izatea; eta berak egiten du bere gloriaren partale bere legea besteai erakusten diena.

6. Etzaite oroitu projimoagandik artu dituzun injuria batekin ere, eta ez ezazu ezertxoere egin besteren kaltean.

7. Andiustea Jaungoikoak eta gizonak gorrotatua da, eta jendeen gaiztakeria guztia nazkagarria.

8. Erreño bat da jende batetik bestera aldatua justizia egiten ez dalako; eta gogortasunagatik eta irañakgatik, eta asko eratako engañoakgatik.

9. Ez dago gizon zikoitza baño gazuza gorrotogarriagorik. Zergatik arrotzen da lurra eta autsa?

10. Ez dago gauza gaiztoagorik, dirua maitatzen duena baño. Zeren onek bere anima ere salgai daukan; eta bere bizitzan ere bere erraiak beragandik botatzen ditu.

11. Andizki guzien bizia laburra da. Gaitz luzea gogaitkarria da sendatzallearentzat.

12. Gaitz laburra Medikuak sendatzen du, ala erregea ere gaur bada, eta biar ilko da.

13. Gizona iltzen danean, sugeak, eta sugelindak, eta arrak idukiko ditu bere ondasuntzat.

14. Gizonaren urgulleriaren asiera, Jaungoikoagandik iges egitea da,

15. Zeren bere biotzak, bera egin zuenagandik alde egin zuen. Zeren bekatu guziaren asiera urgulleria da, bera daukana, madarikazioz betea izango da, eta atzenean nastuko du.

16. Argatik Jaunak iraiñez bete zituen gaiztoen biltzarreak, eta arras desegin zituen.

17. Desegin zituen Jaungoikoak Prinzipe urgullutsuen sillak, eta beren lekuan otsanai eserierazi zien.

18. Igartu zituen Jaungoikoak erreñu urgullutsuen sustraiak, eta erreño aietako beretako umillak ipiñi zituen.

19. Nastu zituen Jaunak jendeen lurrak, eta desegin zituen zimenduetaraño.

20. Beretatik batzuek igartu zituen, eta desegin, eta aztuerazi zuen beren oroipena lurraren gañetik.

21. Desegin zuen Jaungoikoak urgullutsuen oroipena, eta iraunerazi zion biotzez umillen oroipenari.

22. Urgulleria etzan Jaungoikoak egiña izan, eta ez dagokite ere berez gizonai, ezta aserrea ere emakume argalaren semeari.

23. Jaungoikoaren beldur danaren jatorria onratua izango da; Jaunaren aginteak ausitzen dituenarena ordea, izango da desonratua.

24. Anaien artean nagusiena da onratua, ala gertatuko da Jaunaren aurrean, bere beldur diradenakin.

25. Aberatsen, onratuen, eta beartsuen gloria, Jaungoikoaren beldurra da.

26. Ez ezazu mezpreziatu justoa, pobrea dalako; eta ez ezazu ere askotan iduki bekataria, aberatsa dalako.

27. Andizkiak, eta Juezak, eta eskubide andikuak onraz beteak egon oi dirade, baña iñork ere ez dauka onra andiagorik, Jaungoikoaren beldur danak baño.

28. Mendeko zentzuduna, libre daudenak serbituko dute, eta gizon begiratu eta ongi erakutsiak ez du gaizki esango zuzenbideak ematen diozkatenean, ezerere ez dakianari berriz etzaio onelako onrarik egingo.

29. Etzaite arrotu zure lanak ongi irtetzen dizunean, eta etzaite ere alperrik egon premiako denboran.

30. Obeagoa da lanean egiten duena, eta gauza guztiak ugari dauzkana, urgullutsua eta ogiaren premian dagoena baño.

31. Ene semea, iraunerazi zaiozu zure animari otsantasunean, eta onratu ezazu, bera diña dan bezela.

32. Nor jarriko da, bere animaren kontra bekatu egiten duenaren alde? Eta nork onratuko du, bere anima desonratzen duena?

33. Pobrea onratua da bere oitura onakgatik, eta daukan Jaungoikoaren beldur santuagatik, eta badirade gizonak beren ondasunakgatik onratuak.

34. Pobrezan onratua dana berriz, zenbat geiago izango litzate aberatza izatera allegatuko balitza? aberastasunean bere gloria ipintzen duena berriz, pobrezaren beldur izan bedi.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Umillatuaren jakinduriak bere burua altxatuko du, eta andizkien erdian eseri dedilla egingo du.

2. Ez ezazu gizona alabatu bere iduri ederragatik, eta ez ezazu ere iñor mezpreziatu dirudianagatik.

3. Egaztien artean erlea txikia da, baña bere frutuak gozotasunaren asieria dauka.

4. Etzaite iñoizere gozatu zure soñekoagatik, eta etzaite ere urgullutsua egon zure onrako egunean, zeren bakarrik Jaungoiko txit goratuaren obrak dirade arrigarriak, eta berak dirade gloriaz beteak, eta ezkutatuak, eta ez beñere ongi ezagutuak.

5. Asko tirano tronuan eseri ziran, eta iñork uste etzuenak eraman zuen koroa.

6. Bestera berriz asko errege lotsari andian erori ziran, eta andizkiak izan ziran ipiñiak besteen eskuetan.

7. Etzaiozu iñori errierta egin, gauza jakin baño lenago, eta ongi jakinda gero, justiziaz errierta egin zaiozu.

8. Aditu dezazun baño lenago, ez ezazu itzik erantzun, eta bestea izketan ari dan artean, zaude ixillik.

9. Ezerere ez dijoakizun gauzaren gañean ez ezazu tematu; eta etzaite ere bekatariakin bildu juzgatzeko.

10. Ene semea, etzaite arazo askotan sartu, eta aberastutzen bazera, etzera obenikan gabe arkituko. Asko gauzaren ondoren joanik, ez dezu batere atxituko; eta aleginik geien egiñagatik ere, ez diezu guziai irteera emango.

11. Bada gizona lanean egiten duena, eta betea dagoena, eta oñazez betetzen da errukirikan gabe, eta argatik ere ez du ugariago idukiko.

12. Bada beste bat erkitua, eta laguntasunaren premian dagoena, indarrik ez daukana, eta txit beartsua.

13. Eta Jaungoikoaren begiak urrikaltasunarekin begiratu zion, eta altxatu zuen zegoen toki beeratutik, eta bere burua jaso zuen: eta gauza onekin asko miraritu ziran, eta Jaungoikoa gloriaz bete zuten.

14. Onak eta gaitzak, bizitza eta eriotza, pobreza eta ondasunak Jaungoikoagandik datoz.

15. Jaungoikoarenak dira jakinduria, eta erakutsia, eta legea aditzea; eta bereak dirade ere karidadea, eta onak egiten dituzten obrak.

16. Iritzigaiztoa eta illuntasunak bekatariakin egiñak izan ziraden, eta gaitzetan poztzen diradenak, gaitzean zartzen dirade.

17. Jaungoikoaren doañak justoakgan irautzen du, eta txit ongi aziaz joango da.

18. Bada aberastutzen dana kastu urriarekin, eta au da bere ordañaren irabazi bakarra,

19. Zeren esaten duen: Nere atsedena arkitu det, eta orain jango det nere ondasunetatik bakartxorik.

20. Eta ez daki denbora iragotzen dala, eta alderatzen zaiola eriotza, eta besteai guztia utziko diela, eta ilko dala.

21. Sendo iraun ezazu zure elkartasunean, eta bere gañean maiz itz egin ezazu, eta zartu zaite egiten ari zerala aginduta dagotzuna.

22. Ez ezazu egotaldirikan egin bekatarien obretan, Jaungoikoagan itxedon ezazu, eta zure tokian zaude.

23. Zeren gauza erraza dan Jaungoikoaren aurrean, beartsua batbatean aberastutzea.

24. Jaungoikoaren bendizioa arin dabil justoa ordañtzeko, eta denbora laburrean azi, eta frutua emanerazitzen dio.

25. Ez ezazu esan: Onezkero zer gelditzen zat egiteko, eta zer ondasun etorriko zat aurrerontzean?

26. Ez ezazu esan: Asko naiz ni neretzat, eta zer gaitzen beldur izan nindeke ni aurrerontzerako?

27. Egun oneetan etzaite txarrakin aztu, eta egun txarretan onakin oroitu zaite.

28. Zeren aisa egiten dan gauza dan Jaungoikoaren aurrean, ematea bakoitzari eriotzako egunean ordaña bere egiteen araura.

29. Ordu bateko gaitzak atsedenik andienak aztuerazitzen ditu, eta gizonaren atzenean bere obrak agertzen dirade.

30. Ez ezazu alabatu gizonik batere bera il dedin artean, zeren gizona bere semeakgandik dan ezagutua.

31. Ez ezazu zure txean sartu gizon mota guzia, zeren engañalariak asko azelo dauzkaten.

32. Zeren nola urdall utsitu batek upatzak botatzen dituen, eta nola eperra kaiolara eramana dan, eta basauntz emea lazora, ala gertatzen da urgullutsuaren biotzarekin, zeñ ikusbegi batetikan bezela dago, bere projimoa nola erortzen dan begira.

33. Eta ona gaitzean biurtzen duela, azeloak jartzen dago; eta aitzakiak ipiñiko ditu autuetan beretan ere.

34. Txinpart batetik erazekitzen da sua, eta gizon marrotsu batgatik odol asko isuritzen da, zeren bekatariak bere anaien bizitzari azeloak jartzen diozka.

35. Gizon galduarekin kontuan ibilli zaite, zeren gaitzak asmatzen ari dan; betiko lotsariz bete ez zaitzan.

36. Artzen badezu etxean gizon arrotza, txirimola batek bezela nastuko zaitu, eta zure gauzarik ere gabe utziko zaitu.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Gauza onik iñori egitea nai badezu; begira ezazu nori egiten diozun, eta irabazi andia idukiko dezu beratan.

2. Justoari ongi egin zaiozu, eta idukiko dezu ordañ andi bat, beragandik ez bada ere, ziertoro Jaunagandik.

3. Ez du ongi iragoko, beti gaitz egiten ari danak, eta limosnak ematen ez dituenak zeren Jaungoiko txit goratuak gorroto dien bekatariai, eta urrikaltzen dan damututzen diradenakin.

4. Izan zaite ugaria urrikaltsuarekin, eta etzaite izan bekatarien laguntzallea; zeren Jaungoikoak emango die diña diradena gaizto eta bekatariai, bengantzako egunerako gordetzen dituela.

5. Eman zaiozu gizon onari, eta etzaite bekatariaren alde jarri.

6. Ongi egin zaiozu gizon umillari, eta etzaiozu eman gaiztoari, galerazi ezazu berari ogia ematea, berarekin zu baño almentsuagoa egin ez dedin.

7. Zeren bi alditan anbat gaitz, arkituko dezu, egin diozkazun mesedeen ordañean, zeren Jaungoiko txit goratuak gorroto die bekatariai, eta gaiztoen benganza artuko du.

8. Adiskidea ez da ezagutua izango gertaera onetan, eta etsaia ez da ezkutatua geldituko gaitzetan.

9. Gizonaren gertakari onetan bere etsaiak tristezun daude; eta bere gaitzetan adiskidea ezagutua da.

10. Beñere etzaiozu zure etsaiari sinistu, zeren kobrezko basoari bezela kupritsa egiten zaio.

11. Eta umillatua badijoa ere, eta buruzbeera, zaude kontuan, eta alde egin ezazu beragandik.

12. Ez ezazu zure aldamenean ipiñi, eta ez bedi ere eseri zure eskuiean, zure kontra biurturik, zure tokia arrapatzeko asmoak artu ez ditzan, atzenean nik esaten dizudanaren kontuan erori etzaitezen eta sumindu ez dizazuten biotza nere erakutsiak.

13. Sugeak zauritutako sorgintzallearen, eta pistietara alderatzen diraden guztien urrikaltasunik, nork idukiko du? Ala izango da, gizon gaizto batekin lagun egiten danarekin; eta bere bekatuetan nastua gelditzen danarekin.

14. Denbora zati batean zurekin egongo da; baña zori onak alde egiten badizu, ez dizu eskua emango.

15. Etsaiak bere ezpañetan eztia dauka, baña bere biotzean asmazioak darabiltza, nola zu zulora botako zaituen.

16. Etsaiari bere begietatik negarrak dariozka, baña era artzen badu, ez da odolez aseko.

17. Eta gaitzen batzuek gertatzen bazazkizu, bera arkituko dezu an aurrena.

18. Etsaiak bere begietan malkoak dauzka; baña lagunduko balizu bezela, emango dizu zanko osteko bat.

19. Bere burua erabilliko du, eta txaloak egingo ditu; eta ortz artean itz asko egiten duela, aldatuko du era askotara arpegia.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Pikeari ukitzen diona, berarekin mantxatuko da; eta urgullutsuarekin izketan egin oi duenari, urgullua itsatsiko zaio.

2. Zama astun bat ipiñiko du bere gañean, bera baño beste almentsuago batekin artu emanak dauzkanak. Eta etzaite izan, zu baño aberatsago danaren laguna.

3. Zer aterako du eltzeak pertzaren aldean egotearekin? Elkar jotzen dutenean, zatituko da hura.

4. Aberatsak egingo dio irain bat norbaiti, eta panparreriak esaten ariko da; beartsu gaizki tratatua berriz, ixillik egongo da.

5. Ugari ematen badiozu, artuko zaitu berarekin; ezerere ez badaukazu ordea, utziko zaitu.

6. Zerbait daukazun artean, zure maiean eseriko da, zure haziendak irautzen duen artean; eta gero ez da zurekin errukituko.

7. Bear bazaitu berak, engañatuko zaitu, eta arpegi argiarekin itxedopena emango dizu, eskeñtzen dizkizula ondasunak ugari, eta esango dizu: Zeren premian arkitzen zera?

8. Eta nastuko zaitu bere janedan andiakin, aliketa bi edo iru alditan, kastatu erazitzen dizun artean daukazun guztia, eta atzenean irri egingo dizu. Eta gero, ikusten zaituenean, atzea emango dizu, eta bere burua mugituko du farra egiten dizula.

9. Jaungoikoari umillatu zatzakio, eta bere eskutik itxedon ezazu.

10. Begira ezazu, engañatua izanda, erori etzaitezen umiltasun eroan.

11. Etzaite beeratu zure jakindurian, umillatua zaudenean, engañatu etzaitzaten eta ekarri zorakeriako gauza egitera.

12. Andizkiren batek ots egiten dizunean, aitzakiak asmatu itzatzu, zeren ala, berriz geiago ots egingo dizu.

13. Ez zatzaio gogaikarria izan, aurtiki etzaitzan beragandik; eta etzaite ere beragandik urrutiratu, aztua izango zeran eran.

14. Kontu ezazu ez dezazula berarekin itz egin zure ideko batekin bezala; eta etzaiezu ere sinisterikan eman bere itz askoai, zeren zuri asko itz esanerazirik, probatuko zaitu, eta denbora iragotzeko bezela aterako dizkizu zure gauza ezkutukoak.

15. Bere biotz odolgiroan irauneraziko die zure itzai; eta gero ez ditu zurekin urri erabilliko tratu gaiztoa eta lokarriak.

16. Ibilli zaite arretaz, eta begira ezazu kontuz aditzen dezunera, zeren zure amiltokiaren ertzean zabiltzan.

17. Gauza aiek aditzen dituzula berriz, amesetakoai bezela begiratu zaiezu, eta esnatu zaite.

18. Zure bizitza guztian Jaungoikoa maitatu ezazu, eta ots egin zaiozu zure osasunerako.

19. Abere guztiak bere antzekoa maitatzen du, ala gizon guztiak ere bere projimoa.

20. Aragi guztia bere antzekoarekin bilduko da; eta gizon guztiak laguntzat idukiko du bere irudikoa.

21. Otsoa eta bildotsa adiskide diradenean, orduan izango dirade bekataria, eta justoa ere.

22. Zer artu eman idukiko du gizon santu batek txakur batekin? Edo nolako elkartasuna egon liteke aberats baten, eta pobre baten artean?

23. Leoiaren eiza da basastoa eremuan, ala pobreak ere dirade aberatzen bazka.

24. Eta nola urgullutsuak umiltasuna aier duen, ala aberatsak ere ez du pobrea ikusi nai.

25. Aberatsa koloka dabillenean, bere adiskideak eltzen diote; pobrea erortzen danean berriz, bere ezagunak ere bultzadaka ariko zaiozka.

26. Irrist egin duen aberatsak, dauzka asko berari lagun egiteko, urgulleriaz itz egin du, eta aiek justotzen dute.

27. Utsik egiten badu berriz pobreak, da gañera gaizki tratatua: ederki itz egin zuen, eta ez diote aditzen.

28. Aberatsak itz egin zuen, eta guztiak ixildu ziran, eta bere itza odeietaraño goratuko dute.

29. Itz egiten du pobreak, eta aiek diote: Zeñ ote dek ori? Eta beaztopo egiten badu, sakadaka ariko zaiozka, lurreratu dezaten artean.

30. Onak dirade ondasunak, bere konzienzian bekaturik ez daukanarentzat; txit gaiztoak berriz, gizon biurriaren iritzian.

31. Gizonaren biotzak mudatzen du arpegia edo onera, edo gaitzera.

32. Biotz on baten ezagungarria, zeñ dan arpegiera on bat, nekez, eta lan andiakin arkituko dezu.

AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Doatsua, bere aoko itzean utsik egin ez duen gizona, eta obenaren tristezak akullatua izan ez dana.

2. Doatsua bere biotzean ez daukana bekatutik datorren tristezarikan, eta erori ere ez zana bere itxedopenetik.

3. Gizon zikoitz eta eutsiari ondasunak deus ez diote balio, eta gizon ondamutsuari, zer balio dio urreak?

4. Montoitzen duenak bere buruari gaizki kenduta, besteentzat biltzen du, eta bere ondasunakin beste bat gozatuko da.

5. Beretzat gaiztoa dana, zeñ besterentzat ona izango da? Eta bere ondasunetan ez da gozatuko.

6. Norberarentzat zikoitza dana, munduko gizonik zatarrena da; eta au da bere gaiztakeriaren ordaña.

7. Eta onik egiten badu, jakin gabe, eta nai ez duela egiten du, eta atzenean agertzen da bere gaiztakeria.

8. Gaiztoa da ondamutsuaren begia, berak itzultzen du arpegia beste aldamenera, beartsua ez ikusteko, eta bere anima mezpreziatzen du.

9. Zikoitzaren begia ez da asetzen gaiztakeriaren zati batekin, ez da aseko aliketa leortzen dala, bere bizitza galdu dezan artean.

10. Zikoitzaren begi gaiztoa beti dago tinkatua gaitzean. Ez da ogiz aseko, egongo da, bai, gosez eta tristezaz bere maiearen gañean.

11. Ene semea, nondik badezu, zu zerorigatik begiratu ezazu, eta egin zaiozkazu Jaungoikoari eskeñtza diñak.

12. Oroitu zaite etzaiola berantzen eriotzari, eta adirazia izan zatzula obira joateko erabakia: zeren guzientzako legea dan, iñor ere il gabe ez gelditzea.

13. Il zaitezen baño lenago, zure adiskideari mesede egin zaiozu, eta luzaturik zure eskua al dezun adiñan, eman zaiozu pobreari.

14. Ez ezazu alperrik galdu egun ona, eta doai onaren zatitxorik ere ez dakizula irago.

15. Ez al dezu ikusten zure izerdi eta nekeen irabazia beste batzuei utziko diezula, eta beren artean txotx eginda partituko dutela?

16. Eman zaiezu pobreai eta artu ezazu zuretzat bear dezuna, eta santutu ezazu ala zure anima.

17. Il zaitezen baño lenago, obra onak egin itzatzu; zeren obian ez diteke janaririk arkitu.

18. Aragi guztia zartzen da belar ebakia bezela; eta landare berdeai irtetzen zaiezten ostoak bezela.

19. Osto batzuek ernetzen dira, eta beste batzuek erori, ala aragiaren eta odolaren gizaldia ere, bata aitzen da, eta bestea jaio.

20. Obra ustelkor guztia atzenean galduko da, eta bera egin zuena, berarekin joango da.

21. Eta obra autu guztia, ontzat emana izango da, eta egiten duena, izango da onratua beragan.

22. Zorionekoa, jakindurian beti irautzen duen gizona, eta urrikaltasuneko obrak egiten dituena, eta darabillena bere gogoan, gauza guztiak ikusten dituen Jaungoikoa,

23. Ikasiaz dijoana bere biotzean jakinduriako bideak, eta bere gauza ezkutuak aditzen dituena, dijoana bere ondoren, aztarnari jarraituko balio bezela, eta egotez dagoena bere bideetan,

24. Bere leioetatik begiratzen duena, eta bere ateetan azeloan dagoena,

25. Bere etxearen aldean atsedetzen dagoena, eta sartzen makilla bat bere paretetan, ipintzen du bere aldean bere etxetxoa, eta etxetxo onetan bere ondasunak idukiko dute betiko atsedena.

26. Bere semeak ipiñiko ditu bere itzalean, eta bere adakien azpian biziko da.

27. Bere itzalean egongo da berotasunetik gordea, eta bere glorian atsedengo du.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Jaungoikuaren beldurra daukanak, obra onak egingo, eta justizia txit ongi zaitzen duena, jakinduriaren jabe izango da.

2. Zeren bera, ama onra andiko bat bezela, aterako zaio bidera, eta ezkontitzatu birjiña bat bezela artuko du.

3. Bazkatuko du bizitzako, eta adimentuko ogiarekin, eta osasuneko jakinduriako ura edaten emango dio; eta beragan sendotuko da, eta bera izango da iraunkorra.

4. Eta eskutik elduko dio, eta ez da lotsatua izango; eta bere auzoen artean goratuko du.

5. Eta elizaren erdian bere aoa idikiko du, eta beteko du jakinduria eta aditzako espirituz, eta gloriako soñekoarekin jantziko du.

6. Atsegiñez eta pozez beteko du, eta emango dio herenzian betiko izen bat.

7. Zentzugabeko gizonak ez dute iritxiko; zentzudunak berriz bidera aterako zaiozka, gizon zentzugabeak ez dute ikusiko, zeren urgulleria eta engañoagandik urrutian dagoen.

8. Gizon gezurtiak berarekin ez dirade oroituko; gizon egiatiak berriz beratan arkituak izango dirade, eta ibilliko dirade onetik obeagora ikusi dezaten artean Jaungoikoaren arpegia.

9. Alabanza ez dago ongi bekatariaren aoan.

10. Zeren jakinduria Jaungoikoagandik atera zan, zeren Jaungoikoaren alabanza jakinduriaren aldean egongo da; eta ao leialean ugari egongo da, eta Jaunak emango dio.

11. Ez ezazu esan: Jaungoikoagan dago, jakinduria nigandik urrutian arkitzea. Ez ezazu zuk egin berak gorrotatzen duena, eta idukiko dezu.

12. Ez ezazu ere esan: Berak utsegin erazi dit, zeren berak ez dauka gizon gaiztoen premiarik.

13. Gorrotatzen du Jaunak gaiztakeria guztia, eta au ez diteke izan, bere beldurra daukatenak maitatua.

14. Asieratikan Jaungoikoak gizona egin zuen, eta utzi zuen bere konsejuaren eskuetan.

15. Gañera bere mandamentu eta aginteak eman ziozkan.

16. Nai badizute zaitu aginteak, eta iduki beti bere gogokoa dan leialtasuna, berak zure salbazioa izango dirade.

17. Ipiñi zizkizun aurrean ura eta sua, nai dezunera luzatu ezazu zure eskua.

18. Gizonaren aurrean daude bizitza eta eriotza, ona eta txarra, bere gogokoa dana emana izango zaio,

19. Zeren Jaungoikoaren jakinduria andia dan, eta bere eskubidea sendoa; eta aspertu gabe dago guziai begira.

20. Jaunak bere begiak ipiñiak dauzka, bere beldur diradenen gañean; eta bera dago, gizonen egite guziai begira.

21. Iñori ere ez dio gaizki egiteko agindu; eta iñori ere ez dio eman denborarik, bekatu egiteko,

22. Zeren ez dan bere gogoko gauza idukitzea asko seme desleial eta alper.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Etzaite poztu ugaritzean zure semeak, gaiztoak badira; eta etzaite ere beretan gozatu, Jaungoikoaren beldurrik ez badaukate.

2. Etzaiozu sinistu beren bizitzari, ezta begiratu ere beren lanai.

3. Zeren obeagoa da Jaungoikoaren beldurra daukan bat, milla seme gaizto baño.

4. Eta obeago da semerikan gabe iltzea, seme gaiztoak utzitzea baño.

5. Gizon zentzudun bakar bat asko da erri bat jendez betetzeko, gaiztoen erreñua iñor gabe geldituko da.

6. Gauza oietatik asko nere begiak ikusi ditu, eta oiek baño sendoagoak aditu ditu nere belarriak.

7. Sugarrak erazekiak egongo dirade bekatarien biltzarrean; eta Jaungoikoaren aserreak eztanda egingo du, sinisgogorren erreñoaren gañean.

8. Etzuten iritxi beren bekatuen barkazioa anziñako erraldoeak, zeñak desegiñak izan ziraden, beren indarrean itxedotzen zutela.

9. Eta etzion ere Jaungoikoak barkatu Lot ostatuz zegoen tokiari, baizik madarikatu zituen bertan bizi ziradenak, beren bekatuen urgulleriagatik.

10. Etzan berakin errukitu, eta desegin zuen, bere bekatuetan gozatzen zan erreñu guzi hura.

11. Eta berebat seireun milla gizon oñazko, beren biotzeko gogortasunean bildu ziradenak, eta bat bakarra izan balitza ere tematia, miraritzekoa izango zan kastigu gabe gelditzea,

12. Zeren urrikaltasuna eta aserrea beragan dauden. Izan liteke biguñdua, eta ezarri lezake bere aserrea.

13. Nola egiten duen urrikaltasuna, ala kastigatzen du, berak juzgatzen du gizona bere obren araura.

14. Ez dio igesik egingo bekatariak bere lapurretaren kastiguari, eta luzatu gabe emango zaio gizon urrikaltsuari, itxedotzen duen ordaña.

15. Urrikaltasuneko egite guziak prestatzen dio bakoitzari tokia, bere obrak diña diraden araura, eta bizitza onetan bidaztiz dagoen denborako zentzuaren araura.

16. Ez ezazu esan: Ezkutatuko natzaio Jaungoikoari, eta goitikan nor oroituko da nerekin?

17. Jende talde andi baten artean ez naiz ezagutua izango, zeren zer naiz ni alako lagun talde neurrigabearen artean?

18. Ona emen non zerua, eta zeruen zeruak, eta leizea, eta lur guztia, eta beretan dauden gauzak mugituko diraden bere aurrean.

19. Orobat mendiak, eta muñoak, eta lurraren zimenduak, Jaungoikoak begiratzen dienean, ikaraz elkar joko dute.

20. Eta gauza guzi oien erdian gizonaren biotza dago sortua; baña Jaungoikoak biotz guziak ikusten ditu;

21. Eta zeñ da bere bideak aditzen dituena? Eta arako atzeneko eguneko ekaitz izugarri, gizonen begirak bera bezelakorik ikusi ez dutena?

22. Baña bere obra txit asko ezkutuak dirade. Nork berriz bere justiziako obrak kontatuko ditu? Edo nork sufrituko ditu? Zeren bere erabakiak askogandik urrutian daude, baña guziai kontua artuko zaie atzeneko egunean.

23. Gizon txoroak gauza alperrak darabilzki gogoan, eta gizon zentzugabeko eta bidegaldukoa dago eragabeko asmazioetan.

24. Aditu nazazu, ene semea, eta ikasi itzatzu zentzua idukitzeko erakutsiak, eta erabilli itzatzu zure biotzean esatera noatsun itzak:

25. Bada nik emango dizkizut erakutsi txit egokiak, eta agertuko dizut jakinduria ezkutatua; eta zaude arretaz nere itzetara zure biotzean; bada nik argiro eta tolesgabe esango dizkizut, Jaungoikoak bere obraetan asieratik ipiñi zituen mirariak, eta adirazitzen dizut egiarekin bere jakinduria.

26. Jaungoikoak asieratik formatu zituen bere obrak jakintsuro, eta berak egiñak izan ziradenetik berezituak ipiñi zituen taldeetan, eta beretatik nagusienak beren familien araura.

27. Apaindu zituen betiko berak egin zituen gauzak, eta ez dute goserik iduki berak, ez dirade ere lanean ari, ezta iñoiz gelditu ere berai dagozkiten eginkizunetan.

28. Eta beretatik guztietatik batek ere ez du iñoiz bestea estutu.

29. Etzaite sinisgaitza izan bere itzera.

30. Oien ondoan Jaungoikoak lurrera begiratu zuen, eta bete zuen bere ondasunez.

31. Ori da erakusten dutena bizi diran, eta bere gañean dauden, eta berriz lurra izatera biurtzen diran abere guztiak.

AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Jaungoikoak gizona lurrarekin egin zuen, eta egin zuen bere irudiaren araura.

2. Eta berriz ere lurra izatera itzulierazi zion. Eta bertutez jantzi zuen bere izatearen araura.

3. Ipiñi ziozkan denbora eta egun izentatuak; eta lurrean dauden gauza guzien gañean eskubidea eman zion.

4. Egin zuen beldurgarria abere guzientzat, argatik dauka agintaritza abereen gañean, eta egaztien gañean.

5. Beragandik egin zuen bere antzeko laguntzalle bat; biai eman zien arrazoia, eta mingaña, eta begiak, eta belarriak, eta biotza pensatzeko, eta adimentuko argiakin bete zituen.

6. Eman ere zien berai espirituetako jakinduria, bete zituen zentzuz beren biotzak, eta erakutsi ziezten gauza onak, eta gaiztoak.

7. Ipiñi zuen bere begia beren biotzen gañean, erakusteko berai bere obren anditasuna,

8. Bere izen santua alabatu zezaten, eta gloria eman lizaioten bere mirarietan, eta bere egiteen anditasuna adirazi zezaten.

9. Gañera eman ere zien berai oituren erakutsia, eta eman zien herenziaz bizitzako legea.

10. Betiko elkartasuna berakin egin zuen, eta erakutsi ziezten bere justizia, eta bere erabakiak.

11. Eta beren begiakin ikusi zituzten bere gloriaren anditasunak, eta beren belarriak aditu zuten bere bozaren anditasuna, eta esan zien: Kontu gero, ez dezazutela gaiztakeriarikan batere egin.

12. Eta beretatik bakoitzari agindu zion bere projimoa maitatzeko.

13. Beren bideak aren aurrean daude beti; bere begietatik ez daude ezkutatuak.

14. Erreñu bakoitzari bere Gobernaria ipiñi zion.

15. Eta Israel izan zan agirian, Jaungoikoaren tokamena.

16. Beren obra guztiak daude agirian eguzkia bezela Jaungoikoaren aurrean, zeñaen begiak jarriak dauden beti beren bideetan.

17. Bere elkartasuna etzan ezkutatua gelditu beren gaiztakeriagatik, eta beren gaiztakeria guztiak Jaungoikoaren begien aurrean daude.

18. Gizonaren limosna gordetzen du Jaungoikoak sillu bat bezela, eta zaituko ditu gizonaren obra onak, bere begietako niniak bezela.

19. Jero jaikiko da juzgatzera, eta ordaña emango die gaiztoai, bakoitzari berezian, eta lurraren tokirik barrenengoetara.

20. Damututzen diradenai berriz ematen die eskubidea, justiziako bidera biurtzeko; eta ematen diezte indarrak, oiek galtzen dituztenean, aurrera joateko, eta dauka izentatua berentzat justiziari zor zaion saria.

21. Biurtu zaite Jaunagana, eta zure bekatuak utzi itzatzu.

22. Egin ezazu orazioa Jaunaren aurrean, eta kendu itzatzu beaztopogaiak.

23. Itzuli zaite Jaunagana, eta alde egin ezazu zure gaiztakeriatik, eta txit gorrotatu ezazu Jaungoikoarentzat nazkagarria dan guztia.

24. Eta ikasi itzatzu Jaungoikoaren aginteak, eta erabakiak, eta sendo iraun ezazu ipiñia izan zatzun bertuteko estadu doatsuan, eta Jainko txit goratuari orazio egitean.

25. Sartu zaite gizaldi santuko lagunen artean, biziakin eta Jaungoikoari alabantzak ematen diozkatenakin.

26. Etzaite egon egotez askoren iritzi gaiztoan. Alabatu ezazu Jaungoikoa il zaitezen baño lenago. Zeren utsa bezela galtzen da illaren alabantza.

27. Bizirik, bizirik zaudela alabatuko dezu, eta osasunarekin zaudela aitortuko dezu, eta alabatuko dezu Jaungoikoa, eta bere urrikaltasunetan gozatuko zera.

28. Zeñ andia dan Jaunaren urrikaltasuna, eta bere biguñtasuna beragana biurtzen diradenentzat!

29. Zeren gizonak ez ditzake gauza guziak iduki, ez dagoan ezkero gizonaren semerikan batere illeziña danik, eta gozatzen ez danik urgulleria eta gaiztakerian.

30. Zer gauza argitsuagorik eguzkia baño? Bada onek ere izan oi ditu argike aldiak. Edo zer gauza gaiztoagorik aragiak eta odolak pensatu zuena baño? Baña ez dirade berak kastigu gabe geldituko.

31. Berak ikusten ditu bere inguruan zeru txit goratuko bertuteak: gizon guztiak berriz autsa eta errautsa dirade.

EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Beti bizi danak, gauza guziak, batere salbutua utzi gabe, egin zituen. Jaungoikoa bakarrik beti justoa arkitua izango da, eta bera da errege iñork garaitu ezin duen, beti dirauana.

2. Zeñ da bere obra guziak adirazi ditzakena?

3. Zeren nork iduki dezake bere mirarien berri ziatza?

4. Eta nork adirazi dezake bere anditasunaren eskubidea? Edo nor jarriko da bere urrikaltasuna kontatzen?

5. Ez dago zer kendurik, ez zer itsatsirik Jaunaren obra miragarrietan, eta ez dago ere nork aditu ditzaken.

6. Bukatzen duenean gizonak, orduan egongo da asieran; eta gelditzen danean, arritua egongo da.

7. Zer da gizona? Eta zertan izan diteke Jaungoikoarentzat mesedegarria? Zer dijoakio Jaungoikoari bere onean, edo bere gaitzean?

8. Gizonaren egunen zenbata, danik geien ere, eun urtekoa da, zeñak datozten izatera itsasoko uretako tanto bat bezela, eta ondar gramotxo bat bezela, alako laburrak dirade egun oiek, betikoirauneko egunarekin konparatuta.

9. Argatik Jaungoikoak dauka berakin pazienzia, eta bidaltzen du beren gañera bere urrikaltasuna.

10. Ikusi zuen beren biotzetako antuztea, zeñ dan gaiztoa, eta ezagutu zuen beren irabioa, zeñ dan biurria.

11. Argatik agertu zion osotoro bere biguñtasuna, eta bere berdintasuneko bidea erakutsi zien.

12. Gizonaren urrikaltasuna bere projimoagana zuzentzen da: Jaungoikoaren urrikia berriz, zabaltzen da aragi guztira.

13. Berak urrikaltasuna dauka, erakusten du, eta ots egiten die, artzaiak bere artaldeari bezela.

14. Bera da biguña urrikaltasuneko erakutsia aditzen dutenakin, eta ajolatsuak diradenakin bere aginteak betetzen.

15. Ene semea, egiten dezun mesedearekin ez ezazu errierta bildu; eta ez bitez ere joan zure doañak itz gaiztoen garraztasun lagun dutela.

16. Intzak ez al du epeltzen berotasuna? Ala itz ona ere, doaña baño obeagoa da.

17. Ez al dezu ezagutzen itz biguñak doañak baño geiago balio duela? Baña joango dira gizon justoarekin.

18. Gizon zentzugabeak esaten ditu lotsagabekeriak garraztasunarekin; eta aziera gaiztoko gizonaren doañak, begietatik malkoak ateratzen ditu.

19. Juiziora joan baño lenago, ziurtatu zaite arrazoia daukazula; eta itz egin baño lenago, ikasi ezazu.

20. Eritu zaitezen baño lenago, ar zazu sendagarria, eta juizioa egin baño lenago galdetu zaiozu zure buruari, eta ala Jaungoikoaren aurrean urrikaltasuna arkituko dezu.

21. Eritasuna etorri baño lenago umillatu zaite, eta eritasuneko denboran erakutsi ezazu nolakoa zeran.

22. Ezerk ere etzaitzala gelditu orazio egitetik beti al dezun guzian, eta ez ezazu obra onak egiteko lotsarikan iduki eriotzaraño, zeren Jaungoikoaren ordañak beti irautzen duen.

23. Orazio asi baño lenago zure anima prestatu ezazu, eta etzaite izan Jaungoikoa tentatzen duen gizona bezelakoa.

24. Oroitu zaite atzeneko egunean etorriko dan sumintasunarekin, eta ordañeko denborarekin, Jaungoikoak bere arpegiari gaiztoakgandik aldeerazitzen dionean.

25. Oroitu zaite pobrezarekin ugaritasuneko denboran, eta pobrezaren premiakin ondasunen egunean.

26. Goizetik arratsaldera denbora aldatuko da, eta au guzia txit laister egiten da Jaungoikoaren begietan.

27. Gizon jakintsua gauza guzietan beldur da, eta bekatuen egunetan ez da ajolagabea izango.

28. Zentzua daukan gizon guztiak jakinduria ezagutzen du, eta berak alabatuko du arkitu duena.

29. Gizon begiratuak zentzuarekin itz egiten dute, eta aditzen dituzte egia eta justizia, eta barreiatzen dituzte euria bezala esangiak eta erabakiak.

30. Zure guraen ondoren etzaite joan, eta zure zerorren borondatetik alde egin ezazu.

31. Aspertzen badezu zure anima bere gurarietan, egingo du, zure etsaien gozotasuna izan zaitezela.

32. Etzaite izan iskanbilletan, ezta txikietan ere ibiltzen zalea, zeren beretan maiz erriertak izan oi diraden.

33. Etzaite pobretu, arturik lukuruan besteak adiña izateko asmoz, zizkuan ezerere ez daukazun bitartean, zeren zure bizitzaren ondamutsua izango zeran.

EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Langille edalea ez da aberastuko, eta gauza txikiak mezpreziatzen dituena, geldika geldika eroriko da.

2. Ardoak eta emakumeak fedea galdu erazitzen diote jakintsuai, eta errierta egiten diote zentzua daukatenai.

3. Bordionakin biltzen danak, lotsa guztia galduko du, eta usteltasuna eta arrak izango dirade, oraindikan bizi dala ere, bere herenzia, toki agirian ipiñia izango da besteen izutzat, eta kendua izango da bizien artetik.

4. Arin sinistutzen duena, biotz gutxikoa da, eta galmena idukiko du. Beren animaren kontra bekatu egiten duena, gizon zitaltzat idukia izango da.

5. Desonratua izango da, gaiztakerian gozatzen dana, eta bere utsegitean zuzendua izateari gorroto dionari, bizitza laburtuko zaio; itzontzikeria gorrotatzen duenak berriz, itzalitzen du murmuratzallearen gaiztakeria.

6. Bere animaren kontra bekatu egiten duenari, damutuko zaio, eta gaiztakerian gozotasuna artzen duena, desonratua izango da.

7. Ez ezazu berriro esan itz gaizto eta gogorrik, eta ez dezu galmenikan idukiko.

8. Uste dezuna, ez zaiozu kontatu adiskideari eta etsaiari: eta obenikan badaukazu, ez ezazu agertu.

9. Zeren adituko zaitu, eta zurekin kontuan ibilliko da, eta zure bekatuan kulpa gabea egingo bazindu bezela, gorrotatuko zaitu, eta ala zure aldamenean beti egongo da.

10. Aditu badezu zerbait zure projimuaren kontra? il bedi zugan; itxedotzen dezula etzaituala lertuko.

11. Itz batgatik dago zentzugabea penaetan, aurregitean suspirioz dagoen andrea bezela.

12. Ister aragitsuan tinkatua dagoen saieta bezela, ala da itza zentzugabeko gizonaren biotzean.

13. Zuzendu ezazu oker dijoan adiskidea, noski aditu ez badu ere, eta ez dezan esan: Ez nuen egin; edo egin bazuen, berriz egin ez dezan.

14. Zuzendu ezazu oker dijoan projimoa, noski esan ez badu ere; edo esan badu, berriz esan ez dezan.

15. Kontuan jarri ezazu adiskidea, zeren maiz premian dago.

16. Eta etzaiozu itz guziari sinistu. Bada bat izketan uts egiten duena; baña ez gogo gaiztoarekin.

17. Zeren, zeñ da, bere mingañarekin bekaturik egin ez duena? Kontuan ipiñi ezazu projimua biguñtasunarekin, gogorrean asi baño lenago.

18. Eta lekua eman zaiozu Jaungoiko txit goratu, agintzen dizunaren beldurrari, zeren jakinduria guztia dagoan sartuta Jaungoikoaren beldurrean, eta berarekin Jaungoikoaren beldur izaten da, eta jakinduria guztia Jaungoikoaren beldur izatera zuzentzen da.

19. Eta gaizki egiteko artetsua izatea, ez da jakinduria, eta ez da ere zentzua, bekatarien gogorazioa idukitzea.

20. Da gaiztakeria bat, nazkarekin bildua dijoana, eta Jaungoikoaren jakinduria gabe dagoena barbull bat.

21. Obeagoa da arako gizon somarik ez duena, eta jakinduria gabekoa, Jaungoikoaren beldurra badauka; gizon aditua baño, Jaungoikoaren legea ausitzen badu.

22. Bada astruzia txit andi bat; baña gaiztoa da.

23. Eta bada, ongi eta frutuarekin itz egiten duena, egia adirazirik. Bada gaiztoz humillatzen dana, bere biotza berriz engañioz betea dago;

24. Eta bada geiegi azpiratzen dana, txit makurtua jarrita, eta bada arpegia itzultzen duena, eta iduritzen duena, ez duela ikusten ezkutua dan gauza.

25. Eta indarren ergitasunak galerazitzen badio bekatu egitea, gaizki egiteko era arkitzen duenean, gaizki egingo du.

26. Gizona bere iruditik da ezagutua, eta arpegieratik da ezagutua zentzua daukana.

27. Gorputzeko jantziak, eta ortzetako farrak, eta gizonaren ibilmoduak ematen dituzte bere ezagungarriak.

28. Korrekzio gaistoa da, bat, aserretuta, itz gaizto urtika ari danean; eta egiten du iritzi bat, zeñ ez dala zuzena gero ezagututen dan; eta bada alako denboran ixillikan egon oi dana, eta au da zentzu andikoa izatea.

OGEIGARREN KAPITULUA

1. Zenbat obeago ote dan errierta egitea, aserretua egotea baño, eta bekatua aitortzen duenari itz egiten ez galerazitzea!

2. Txikiratuaren gurariak desbirjiñatuko du neskatx birjiña.

3. Alakoa da indarrarekin juizio ausitzen duena.

4. Zeñ gauza ona dan errierta egiten diotenean bati, damua erakustea! Zeren onela borondatezko bekatutik iges egingo dezu.

5. Bada ixillik egonda jakintsutzat ezagutua dana, eta bada gorrotatua dana, bere jarioagatik izketan.

6. Bada ixillik dagoana, itz egiten ez dakialako; eta bada ixillik dagoana, badakiala zeñ dan era egokia.

7. Gizon jakintsua ixillik egongo da denbora dan artean; gizon buru ariñak, eta zentzugabeak ordea, ez dute denborarik zaituko.

8. Itz asko esaten dituenak, bere animari kalte egingo dio; eta besteren eskubidea arrazoe gabe arrapatzen duena, gorrotatua izango da.

9. Noizbait ongi joan oi zaio gaitzetan gizon gaiztoari; baña arkitzen dituen ondasunak, bere kalterako izan oi dirade.

10. Bada eskeñtza bat, egiten duenarentzat alperrikakoa dana, eta bada eskeñtza bat, bi ordañ dauzkana.

11. Bada goratua danean beeratua gelditzen dana; eta bada umillazioarekin burua jasotzen duena.

12. Bada erosten dituena asko gauza prezio gutxirekin, eta biurtzen dituena zazpitan anbatekin.

13. Jakintsua bere izketarekin maitagarria egiten da; zentzugabekoen donaireak berriz galduak izango dirade.

14. Zentzugabekoaren doañak, ez dizu mesederik ekarriko; zeren bere begiak zazpi aldemenetara (sic) begira daude.

15. Berak gutxi emango du, eta maiz arpegian emango dizu; eta bere aoaren idikiera garmendi bat izango da zure kontra.

16. Gaur bat prestatzen du, eta eskatzen du biar. Alako gizona gorrotogarria da.

17. Zentzugabeak ez du adiskiderik idukiko, eta bere doañak ez dirade esker onarekin erantzunak izango.

18. Zeren bere ogia jaten dutenak mingañ gaiztokoak diraden, O zenbatek, eta zenbat alditan berari irri egingo ote dioten!

19. Zeren zentzugabero ematen du, gorde bear zuena; baita gorde bear etzuena ere.

20. Mingañ gaiztoaren erortzea, sabaitikan beera erortzen danarena bezelakoa da. Ala gaiztoen erortzea, arin baño ariñago etorriko da.

21. Gizon geza da, gatz gabeko ipui bat bezelakoa; aziera gaiztoko jendeen aoetan beti dabiltzanetatikoa.

22. Parabolak ez dauka graziarik zentzugabearen aoan, denbora ez danean esaten duelako.

23. Bada bekatu egiten ez duena, zerekin ez daukalako; eta bere atsedenean akulloarekin zirikatua izango da.

24. Bada galduko duena anima lotsagatik, eta galtzen du gizon zentzugabeko baten begirunez, eta alako gizon bat gatik bera galtzen da.

25. Bada lotsaz adiskideari eskeñtzen diona; eta doan etsaitzat irabazten du.

26. Gezurra gizonagan lotsari txit gaiztoa da, eta beti bezela egongo da aziera gabeko jenderaren aoan.

27. Obeagoa da lapurra, gezurra esaten oitua dagoen gizona baño. Eta biak galmena herenziatzat idukiko dute.

28. Desonratuak eta zatarrak dirade gezurtien oiturak, beti daramate berakin beren lotsaria.

29. Jakintsua bere itzakin ospatsu egiten da, eta gizon zentzuduna andizkien gogokoa izango da.

30. Bere lurra ongi landutzen duenak, egingo du frutuen montoi andiagoa; eta justiziako obrak egiten dituena, goratua izango da; eta andizkien gogokoa danak, iges egin bear du injustiziatikan.

31. Eskeñtzak eta doañak Juezen begiak itxututzen dituzte, eta mutuak bezelakoak egiten dituztela, alderazitzen die beren kastiguai.

32. Jakinduria ezkutuan dagoenak, eta ikusia izandu gabeko tesoroak, biak zer mesede ekarri oi dute?

33. Obeagoa da, bere ezjakiña estaltzen duen gizona, beren jakinduria ezkutatzen duena baño.

OGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Ene semea, bekatu egin dezu? Bada etzaite biurtu berriro bekatu egitera, baizik Jaungoikoari orazio egin zaiozu leengo bekatuakgatik, barkatuak izan dakizkizun.

2. Suga baten aurretik bezela, iges ezazu bekatutik; zeren beragana alderatzen bazera usikiko dizu.

3. Beren ortzak leoien ortzak dirade, zeñak gizonen animak iltzen dituzten.

4. Bekatu guztia ao biko ezpata bezelakoa da, bere zauriak ez ditezke sendatu.

5. Urgulleriak eta injuriak ezereztzen dute hazienda; eta etxerik aberatsena arrokeriagatik desegiña izango da; ala gizon arroaren ondasunak ere, desegiñak izango dirade.

6. Pobrearen orazioa bere aotik Jaungoikoaren belarrietaraño allegatuko da; eta bereala justizia etorriko zaio.

7. Korrekzioa gorrotatzea gizon bekatariaren ezagungarri agiria da; eta Jaungoikoaren beldur dana, damutuko da bere biotz guztitik.

8. Urrutitikan ezagutzen ematen da gizon almentsua, bere mingañ ausartatuagatik; eta gizon zentzudunak, daki alde egiten beragandik geldika geldika.

9. Etxea egiten duena besteren diruakin, da bere arriak biltzen dituena bezela, neguan etxea egiteko.

10. Bekatari guztiak bilduta, dirade mullo montoi bat bezela, suzko garrakin desegiñak izateko.

11. Bekatarien bidea da laua, eta arlanduakin egiña; baña dijoa zuzen infernura, nun dauden illuntasunak eta oñazeak.

12. Justizia gordetzen duenak, ezagutuko du bere espiritua.

13. Jaungoikoaren beldurrik onena, jakinduria eta zentzua da.

14. Onean jakintsua ez dana, ez da beñere ongi erakutsia izango.

15. Bada berriz jakinduria bat, ugaria gaitzean, eta ez dago zentzurik, bekatuaren mingoiztasuna dagoen tokian.

16. Jakintsuaren aditzak, ugolde batek bezela gañez egingo du, eta bere konsejuak irautzen du, bizitzako iturri batek bezela.

17. Zentzugabearen biotza, ontzi autsi bat bezelakoa da, eta ez du beragan geldirik idukiko jakinduriaren piskarik.

18. Edozeñere itz, ongi esandako, jakintsuak aditzen duena, alabatuko du, eta bere buruari itsatsiko dio. Adituko du atsegiñetara emana dagoen gizonak, eta etzaio gustatuko, eta aurtikiko du bere sorbalden ostera.

19. Zentzugabearen izketak gogaikarriak dirade, bidean dijoanarentzat zama astun bat bezela; zentzudunaren ezpañak berriz, graziaz beteak daude.

20. Gizon zentzudunaren aoa batzarretan billatua da; eta bakoitza bere biotzean oartzen da, aditzen diozkan itzakin.

21. Jakinduria zentzugabearentzat, etxe arrasatu bat bezelakoa da; eta txoroaren aditza, aditu ezindako itzetan dago.

22. Nola zepoak oñetan eta katea bere eskuieko eskuan, ala da zentzugabearen aditza.

23. Eroak algaraz farra egiten du; gizon jakintsuak berriz ozta farra piska bat egingo du.

24. Jakinduria zentzua daukan gizonarentzat urrezko apaingarri bat da, eta eskuieko eskuan besagi bat bezelakoa.

25. Eroaren oña erraza da auzoko etxean sartzen; gizon zurrak berriz, beldurrez begiratzen dio gizon almentsuari.

26. Gizon eroak leiotikan begiratuko du etxean; aziera oneko gizona berriz kanpoan egongo da.

27. Gizon eroari dagokiona da, atetikan azeloan egotea, zer esaten duten aditzeko; gizon zentzudunak berriz, desonratzat idukiko du ori egitea.

28. Zentzugabekoen ezpañak, barbullkeriak kontatuko dituzte; gizon zentzu andikoen itzak berriz, balanzan pisatuak izango dirade.

29. Eroen biotza beren aoan dago, eta jakintsuen aoa, beren biotzean.

30. Gaiztoak deabrua madarikatzen duenean, bere burua madarikatzen du.

31. Losengariak, bere anima zikinduko du, eta gauza guztietan gorrotatua izango da, eta gaizki begiratuko zaio berarekin itz egiten duenari; gizon ixilla eta zentzuduna berriz, onratua izango da.

OGEITA BIGARREN KAPITULUA

1. Loiz beteriko arriakin arrika egingo zaio gizon nagiari, eta guztiak beragatik mezprezioarekin itz egingo dute.

2. Idien korotzarekin arrika egin zitzaion gizon nagiari, eta berari ukitzen dion guztiak eskuak astinduko ditu.

3. Aitaren lotsaria da seme gaizki azia, eta alaba moldesteza gutxi estimatua izango da.

4. Alaba zentzuduna da herenzia bat bere senarrarentzat; lotsatzen duena berriz, aitaren desonra da.

5. Alaba lotsagabea aitaren eta senarraren desonra da, eta ez da geldituko, gaiztoak baño beerago; eta batak eta besteak desonratua izango da.

6. Izketa bat denbora ez danean, da musika proguan bezela; azotea eta erakutsi ona berriz, denbora guztian dirade egokiak jakinduriarako.

7. Zentzugabeko bati erakutsiak ematen diozkana, lurrontzi baten zatiak engrudoarekin batutzea bezela da.

8. Kontatzen diona gauzaren bat aditzen ez duenari, lozorro astun batean lo dagoena esnatzen duena bezela.

9. Lo dagoan batekin itz egiten du, gizon zentzugabeari jakinduriaren gañean itz egiten dionak, eta izketaren atzenean esaten du: Zeñ dek au?

10. Negar egin ezazu illagatik, argirirk gabe gelditu dalako, eta eroagatik negar egin ezazu, adimentuko argitasun gabe gelditu dalako.

11. Alaere illagatik negar gutxi egin ezazu; zeren atsedenean dagoan.

12. Zeren gizon ero biurriaren bizitza txit gaiztoa, txarragoa da eriotza baño.

13. Illaren progua zazpi egunekoa da; ero, eta gaiztoarena berriz, beren bizitzako egun guztietakoa.

14. Eroarekin ez ezazu itz asko egin; eta zentzugabearekin etzaite joan.

15. Ibilli zaite kontuz berarekin kezkaz egon etzaitezen, eta bere bekatuak kutsutu etzaitzan.

16. Alde ezazu beragandik, eta atsedena arkituko dezu, eta iguirikan ez dezu idukiko bere barbullkeriagatik.

17. Zer gauza izango ote da astunagoa beruna baño? Zer beste izenik dauka bada zentzugabeak?

18. Errazago da eramatea ondarra, eta gatza eta burni balenkak, gizon zentzugabeko, ero, eta gaiztoa baño.

19. Etxearen zimendurako ipintzen dan abe taldea elkarri lotu eta itsasia, ez da desegingo; ala ez da ere, konseju on eta begiratu batekin sendotua dan biotza.

20. Gizon zentzudunaren pensatzeko modua, ez da iñoizere gaiztotuko beldurragatik.

21. Nola estakak toki goratuetan, eta kasturikan gabe egindako paretak ez duten iraungo aizearen indarraren kontra,

22. Ala zentzugabearen biotza, beldurtia bere gogorazioetan, ezin erasoko zaio beldurraren indarrari.

23. Nola zentzugabearen biotza, beldurtia bere gogorazioetan, ez dan beldur izango denbora guztian, ala Jaungoikoaren aginteetan irautzen duena ere.

24. Begia jotzen duenak malkoak ateratzen ditu, eta biotza jotzen duenak, ateratzen ditu gurak.

25. Egaztiai arriak aurtikitzen dieztenak, andikan botako ditu; ala adiskideagatik gaizki itz egiten duenak ere, desegiten du adiskidetasuna.

26. Ateratzen badezu ere ezpata adiskidearen kontra, etzaite etsi. Zeren badago beragana itzuliera. Adiskideari

27. Idikitzen badiozu aoa gauza tristeetarako, etzaite beldur izan, zeren oraindikan pakeak egin litezke, ez bada izan itz gaiztorik, ez lotsagabekeriarik, ez urgulleriarik, ez ixilgauzak agertzerik, ez marrozko otsik. Gauza guzti oiekgatik bai igesko duela adiskideak.

28. Zaitu zaiozu leialtasuna zure adiskideari bere pobrezan, gozatu zaitezen bere gertakari onetan.

29. Bere naigabeko denboran, iraun ezazu beraganako leialtasunean, bere herenzian ere partale izan zaitezen.

30. Labeko baoa eta kea igotzen dira goira, suaren garra baño lenago; ala odola isuri baño lenago izan oi madarikazioak, iraiñak, eta keñadak.

31. Ez naiz lotsatuko adiskideari agur egiten, bere aurretik ez naiz ezkutatuko, eta beragatik gaitzak etorriko balizkit, sufrituko ditut.

32. Aditzen dion guztia, berarekin kontuz ibilliko da.

33. Nork ipiñiko dio gordetzalle bat nere aoari, eta nere ezpañen gañean sillu sendo bat, beretatik erori ez nadin, eta nere mingañak galdu ez nazan?

OGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. O Jauna, Aita eta nere bizitzaren jabea, ez nazazu utzi beren konsejuen erabakian, eta ez ezazu ere laketu berakgatik ni erori nadilla!

2. Nor izango da azotea erabilliko duena nere gogorazioen gañean, eta jakinduriaren korrekzioa nere biotzaren gañean, alako moduan non, ez dakizkidala barkatu nere utsegiteak, beretatik bekatuak erne ez ditezen,

3. Eta nere ezjakiñak ere azi ez ditezen; eta nere utsegiteak ere ugaritu ez ditezen, eta nere bekatuak geitu ez ditezen, eta argatik ibilli ez nadin ni lurretik nere etsaien aurrean, eta farra egin ez datzakidan nere arerioak?

4. O Jauna, Aita eta nere bizitzako Jaungoikoa, ez nazazu arren utzi beren gogorazioan!

5. Ez ezazu utzi nere begietan antustea, eta gurari gaizto guztia urrutiratu ezazu nigandik.

6. Kendu itzatzu nigandik sabelaren gurariak, eta ez ditezela nerekin jabetu lujuriaren gogoak; eta nazazu ere utzi, anima lotsagalduko, eta bridagabeko baten mendean.

7. Aditu ezazute, ene semeak, mingañaren gañeko erakutsiak; eta gordetzen dituena, ez da galduko ezpañak gatik, eta ez du ere obra txit gaiztoetan beaztoporik egingo.

8. Bekataria bere arrokerian da arrapatua, eta urgullutsuak eta gaizkiesaleak beretan beaztopo egingo du.

9. Zure aoa ez ezazu juramentura oitu; zeren asko diraden argatik erorketak.

10. Eta ez bedi zure aoa aspertu gabe Jaungoikoa izendatzen egon, onratzeko ez izanenean, eta etzaite ere santuen izenetan sartu, zeren etzera onetan utsegite gabe egongo.

11. Zeren, nola morroi mendeko maiz galdetua, odoluri gabe ez dan egongo, ala juramentu egiten duen eta izen hura maiz aipatzen duena, ez da bekatutik guziz garbi egongo.

12. Juramentu asko egiten duen gizona, gaiztakeriaz betea izango da, eta ez du bere etxetik azoteak alderik egingo.

13. Zeren juramentua kunplitzen ez badu, bere gañean iraungo du bekatuak, eta kasorik egiten ez badu bigarren bekatua egiten du.

14. Eta alperrik juramentu egin badu, ez da obengabetzat idukia izango; zeren bere etxea, dagozkion kastiguz betea izango da.

15. Bada ere beste izketa modu bat eriotzari dagokiona, beñere ez bedi aditua izan Jakoben jatorrikoen artean.

16. Ala bada gauza guzti oiek, gizon onakgandik urrutian egongo dirade, zeñak ez diraden onelako bekatuetan nahasitzen.

17. Ez bedi zure aoa oitu izketa zentzugabekora; zeren beti dijoa bekatuaren orbanarekin lagundua.

18. Zure aita eta zure amarekin oroitu zaite, andizkien artean eseria bazaude ere,

19. Jaungoikoa zurekin aztu ez dedin beren aurrean, eta zoraturik zu bere adiskidetasunarekin, arkitu etzaitezen alako lotsariak irago bearrean, non, naiago izango zenduen, mundura etorri ez baziña, eta zure jaiotzako eguna madarikatu ez dezazun.

20. Lotsagabekeriak esatera oitua dagoen gizona, bere bizitza guztian ez da onduko.

21. Bi persona mota dira maiz bekatu egiten dutenak; eta irugarrenak aserrea eta galmena ekartzen ditu.

22. Anima irazekia su izeki bat bezela, ez da itzaliko aliketa zerbait iretsi dezan bitartean.

23. Eta gizon gaiztoa bere aragiaren gurarian ez da geldituko, sua erazeki dezan artean.

24. Gizon emajauzleari ogi guztia gozoa zaio, eta ez dio bekatu egiteari utziko atzeneraño.

25. Bere eztai oea desonratzen duen gizon guztiak, bere anima gutxitan daukanak bezela, esan oi du: Nork ikusten natxiok?

26. Illuntasunak ingurutzen naute, eta paretak estalitzen naute, eta iñor ere ez dago neri begira: Zeñen beldur naiz? Jaungoiko txit goratua ez da nere gaiztakeriakin oroituko.

27. Eta ez du aditzen bere begiak gauza guztiak ikusten dituela; zeren alako giza beldurrak aurtikitzen du beragandik Jaungoikoaren beldurra, eta gizonen begiak dirade beldurtuerazitzen diotenak.

28. Eta etzuen ezagutu, Jaunaren begiak Eguzkia baño asko argiagoak diradela, ikusten dituztenak gizonen bide guztiak, eta leizearen zakontasuna, eta agirian dauzkatenak gizonen biotzen bazterrik ezkutueneraño koak,

29. Zeren gauza guztiak, egiñak izan baño lenago, izan ziran Jaun Jainkoak ezagutuak; eta egiñak izan ezkero ere, guztiai begira dagokee.

30. Onelakoa beragatik kastigatua izango da erriko plazan, eta berak, beorraren ume batek bezela, iges egingo du, eta gutxien uste duen tokian arrapatua izango da.

31. Eta guztien aurrean desonratua izango da, etzuelako ezagutu Jaunaren beldurra.

32. Orobat izango da edozeñere andre, bere senarra utzitzen duenarekin, eta ematen dionarekin, beste andre baten senarragandik izandako herederu bat:

33. Zeren berak lenengo ausi zuen Jaungoiko txit goratuaren legea, bigarren bekatu egin zuen bere senarraren kontra; irugarren zikintzen da adulterioarekin, eta azitzen ditu beste gizon baten semeak.

34. Au izango da erriko batzarrera eramana, eta egingo da bere semeen gañeko azterrena.

35. Bere semeak ez dute sustrairik botako, eta bere erramak ez dute fruturik emango.

36. Berak utziko du madarikazioan bere oroipena, eta iñoizere ez da aztuko bere lotsaria.

37. Eta gelditzen diradenak ezagutuko dute, ez dagoala gauza obeagorik Jaungoikoaren beldurra idukitzea baño, eztaere gauza gozoagorik Jaunaren agiteak gordetzea baño.

38. Jauna serbitzea, gloria andi bat da; bada beragandik artuko da bizitza luzea.

OGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Jakinduriak berak bere alabantza egingo du, eta Jaungoikoagan onratuko da, eta gozatuko da bere erriaren erdian.

2. Berak Jaungoiko txit goratuaren batzarraren erdian bere aoa idikiko du, eta gozatuko da Jaungoikoaren taldeen aurrean.

3. Bere erriaren erdian izango da goratua, eta santuen batzarre osoan miraritua.

4. Eta autatuen taldean alabantza idukiko du, eta bedeikatuen artean bedeikatua izango da; esaten duela:

5. Ni atera nintzan Jaungoiko txit goratuaren aotik, izanik sortua beste kriatura guztiak baño lenago.

6. Nik egin nuen jaio zedilla zeruetan, beti irautzen duen argia, eta laño batek bezela lur guztia estali nuen.

7. Ni goietan bizi izandu nintzan, eta nere esertokia odeizko abe baten gañean.

8. Nik bakarrik ingurutu nuen zeruko jira, eta sartu nintzan leizearen ondora, itxasoko bagetan ibilli nitzan,

9. Eta egon nintzan lur guztian, eta erri guztian,

10. Eta erreñu guzietan agintaritza osoa iduki nuen.

11. Nik menderatu nituen nere eskubidearekin guztien biotzak, andienak eta txikienak; eta oietan guzietan atsedena billatu nuen, eta Jaunaren herenzian biziko naiz.

12. Orduan gauza guzien Egilleak eman zituen bere aginduak, eta itz egin zidan, eta izatea neri eman zidanak, ipiñi zuen nere egolekua,

13. Eta esan zidan: Bizi zaite Jakoben, eta Israel izan bedi zure herenzia, eta nere autuen erdian sendotu zaite.

14. Asieratik eta mendeak baño lenagotik artu nuen nik izatea, eta ez naiz izate gabe egongo, geroko gizaldi guztietan, eta ari nintzan lanean bere aurrean toki santuan.

15. Eta ala ipiñi nuen nere egolekua Siongo mendian, eta nere atsedeneko tokia, erri santua izan zan, eta Jerusalenen dago nere esertokia.

16. Eta sustraiak bota nituen gloriaz beteriko erri batean, eta nere Jaungoikoaren tokamenean, zeñ dan bere herenzia, eta nere bizilekua izan zan santuen batzar osoan.

17. Goratua nago, zedroa Libanoren gañean bezela, eta zipresa Siongo mendiaren gañean bezela.

18. Zabaldu nituen nere erramak Kadesko palma batek bezela, eta Jerikon ipiñitako arrasadi batek bezela.

19. Altxatu nintzan, kanpoetan olibo eder bat bezela, eta platanua uraen aldeko karrikaetan bezela.

20. Zinamomoak eta balsamu aromatsuak bezela, usai ona eman nuen: mirra autatuak bezela, eman nuen usai gozoa.

21. Eta bete nuen nere bizilekua lurrinkai usaitzuz, estorakez, eta galbanoz, eta beltxurikaz, eta malkoz, eta inzenso birjenez, eta nere usai gozoa da balsamo nastu gabearena bezelakoa

22. Nik zabaldu nituen nere erramak terebintoak bezela, eta nere erramak anditasunez eta edertasunez beteak daude.

23. Eta nik mastiak bezela bota nituen usai gozoko frutuak, eta nere lorak onra eta aberastasuneko frutuak dirade.

24. Ni amorio ederraren eta beldurraren, eta aditzaren, eta itxedopen santuaren ama.

25. Nigan dago grazia guztia egiaren bidea ezagutzeko, nigan bizitzaren eta bertutearen itxedopen guztia.

26. Atozte nigana, nere amorian katigatuak arkitzen zeraten guztiok, eta nere frutu gozoz ase zaitezte.

27. Zeren nere espiritua, eztia baño gozoagoa da, eta nere herenzia, ezti abaraska baño leunago.

28. Nere oroipena egingo da mendeen gizaldietan.

29. Jaten nautenak, oraindikan gosea idukiko dute; eta edaten nautenak, oraindik egarria idukiko dute.

30. Aditzen nauena, ez da lotsatua izango, eta ni zuzentzalletzat naukatenak, ez dute bekaturikan egingo.

31. Besteai erakusten nautenak, betiko bizitza idukiko dute.

32. Au guzia da bizitzako liburua, eta Jaungoiko txit goratuaren testamentua, eta egiaren ezagera.

33. Moisesek adirazi zuen justiziako Legea, utziten ziola herenziatzat Jakoben etxeari, Israeli egindako eskeñtzakin.

34. Dabid bere serbitzaria ipiñi zuen, beragandik ateraerazitzeko Errege txit sendo bati, eta eseri zedilla betiko gloriako tronuan.

35. Zeñ dagoan gañez egiten duela jakindurian, Fison eta Tigris frutu berrietako denboran bezela.

36. Berak betetzen du guztia aditzaz Eufratesek bezela, eta geiago ta geiago azitzen da, Jordana garia igitaitzeko denboran bezela.

37. Berak zabaltzen du jakinduria argia bezela, eta guztia betetzen du, Jehonek mendaintzeko denboran bezela.

38. Jaungoikoaren semea da, lenengo ezagutu duena osotoro, eta bera bezin sendo ez danak, ez daike aditu.

39. Zeren itsasoa baño andiagoak diraden bere gogorazioak, eta bere konsejuak leize andia baño zakonagoak.

40. Nik jakituriak isuri nituen ibaiak.

41. Ni ibaitik ateratako neurrigabeko urezko odi bat bezela, eta ibaitik ekarritako erretena bezela, eta urbide bat bezela irten nintzan paraisutik.

42. Nik esan nuen: Botako diet ura nere baratzeko landareai, eta urez aseko ditut nere landako fruta zuaitzak.

43. Eta ona non nere odiko urak gañez egin duen, eta nere ibaia itsaso batekin berdintzen dan.

44. Zeren nere erakutsiaren argia, zeñarekin guztiak argitzen ditudan, da egunsentiko argia bezelakoa eta jarraituko diot bera zabaltzeari denborarik urrutienetaraño.

45. Sartuko naiz lurreko tokirik zakonen guztietaraño, eta ezarriko det begirakune bat lotan daudenen gañera, eta argituko ditut, Jaunagan itxedotzen duten guztiak.

46. Nik jarraituko diot zabaltzeari dotrina, profezia bezela, eta utziko diet, jakinduria billatzen dutenai, eta aspertu gabe adiraziko diot bere jatorri guztiari gizaldi santuraño.

47. Ikusi ezazute ez naizela ni lanean ari neretzat bakarrik, baizikan egia billatzen duten guztientzat.

OGEITA BOSGARREN KAPITULUA

1. Iru gauzatan gozatu da nere biotza, eta iru gauza oiek dirade Jaungoikoaren eta gizonen gogokoak.

2. Pakea anaien artean, projimoen amorioa, eta senar bat, eta emazte bat elkarrekin ongi konpontzen diradenak.

3. Iru lagun mota gorrotatzen ditu nere animak, eta beren biziera da neretzat txit nazkagarria.

4. Pobre urgullutsua, aberats gezurtia, eta zar txoro eta zentzugabea.

5. Zure gazte denboran bildu etzenduena, nola arkituko dezu zure zartzan?

6. O ze apaingarri ederra dan ille urdiñentzat, ongi juzgatzen jakitea, eta zarrentzat konseju ona ematen jakitea!

7. Zeñ ongi dirudian jakinduriak edade andiko gizonakgan; eta toki goratuetan jarriak daudenakgan aditza eta konsejuak!

8. Zarren koroa frogantza andia da, eta Jaungoikoaren beldurra beren gloria.

9. Bederatzi gauza iduki ditut nik estimazio andian, zeñakgatik iñork ere ez duen bere biotzean iritzi gaiztorik egingo, eta amargarrena nere mingañarekin gizonai adiraziko diotet.

10. Gizon bat, bere semeakgan gozatzen dana; eta oraindikan bera bizi dala, bere etsaien galmena ikusten duena.

11. Doatsua, andre zentzudunarekin bizi dana; eta bere mingañak irrist egin ez diona; eta bere diña ez diradenen mendeko izan ez dana.

12. Doatsua, adiskide egiazko bat arkitu duena; eta aditzen duten belarriai justizia azaldutzen diena.

13. O zeñ andia dan, jakinduria eta aditza arkitzen dituena! baña bietatik bat ere ez da, Jaungoikoaren beldur dana baño geiago.

14. Jaungoikoaren beldurra, gauza guzien gañean jartzen da.

15. Doatsua, Jaungoikoaren beldurra idukitzea emana izan zaion gizona, au daukana, zeñekin iruditua izango da?

16. Jaungoikoaren beldurra, bere amorioaren asiera da; baña fedearen asiera itsatsi bear zaio.

17. Biotzeko tristeza plagarik andiena da, eta gaiztakeriarik andiena, emakumearen gaiztakeria da.

18. Zauri guztia sufrituko du batek, baña ez biotzeko zauria.

19. Eta gaiztakeria guztia; baña ez andrearen gaiztakeria;

20. Eta atsekabe guzia; baña ez gorroto dionagandik datorrena;

21. Eta edozeñ kastigu; baña ez etsaiakgandik datorrena.

22. Ez dago bururik, sugearen burua baño gaiztoagorik:

23. Eta ez dago ere aserrerik, emakumearen aserrea baño gaiztoagorik. Obeago izango litzateke bizitea leoi batekin eta sugulma batekin, emakume gaizto batekin bizitea baño.

24. Emakumearen gaiztakeriak bere arpegia aldatuerazitzen dio, eta illundutzen dio bere arpegia artz batena bezela; eta erakusten du zilizio batena bezelakoa. Bere auzokoen artean

25. Suspirioz egon zan bere senarra; eta aditurik, negar piska bat egin zuen.

26. Gaiztakeria guztia txit txikia da, emakumearen gaiztakeriaren aldean; bekatariai dagokiotena erori bedi bere gañera.

27. Gizon zar batentzat ondarrezko mendi batera igotzea bezela, alakoa da gizon paketsu batentzat andre berritsua.

28. Etzaiozu begiratu emakumearen edertasunari, eta ez ezazu emakumearen gurarikan iduki bere edertasunagatik.

29. Andia da emakumearen aserrea, eta andik datorren desonra ta lotsaria.

30. Emakumeak baldin badauka eskubidea, bere senarraren kontrakoa izango da.

31. Emakume gaiztoak atsekabetzen du senarraren gogoa, eta beeratzen dio arpegia, eta zauritu biotza.

32. Bere senarraren gogokoa ez dan emazteak, giltzgabetzen diozka besoak, eta biguñtzen belaunak.

33. Emakumeagandik iduki zuen asiera bekatuak, eta beragatik iltzen gera guztiok.

34. Etzaiozu zulorik txikienik ere utzi zure urari, eta emakume gaiztoari etzaiozu kanpora irtetzen utzi.

35. Zure mendean ez badago beti, lotsatuko zaitu zure etsaien aurrean.

36. Zure oetik alde erazi zaiozu, irri egin ez dizazun.

OGEITA SEIGARREN KAPITULUA

1. Doatsua andre onaren senarra, zeren bere urteen zenbata bi alditan anbat izango da.

2. Emakume sendoa bere senarraren poza da; eta bere bizitzako urteetan pakean bizierazitzen dio.

3. Emakume ona tokamen ona da, Jaungoikoaren beldur santua daukatenen tokamena, gizonari bere obra onakgatik emango zaiona.

4. Naiz izan dedilla aberatsa, naiz beartsua, bere biotza gozotasunez betea idukiko du, eta bere arpegia beti bozkarioz ikusiko da.

5. Iru gauzaren beldur izandu zan nere biotza, eta laugarrenean nere biotzak izua iduki zuen,

6. Iri baten salazioa, eta erri baten matxiñada,

7. Gezurrezko asmazioa, guztiak dirade gauza batzuek, eriotza baño pisuagoak.

8. Biotzeko miña eta negarra da emakume zelotia.

9. Emakume zelotiaren mingaña da azote bat, guziak iritxitzen dituena.

10. Nolakoa dan idien uztarri lokatua dagoena, alakoa da emakume gaiztoa ere, alakoa artzen duena, lupu bat artzen duena bezelakoa da.

11. Moskortzen dan andrea, lotsari andia da, eta bere desonra ta gaiztakeria ez dirade ezkutuan egongo.

12. Emakume zikiña ezagutua izango da bere begirakune lotsagaldukoan, eta begiak goratuak erabiltzean.

13. Begiak beerontz ez darabiltzkian alaba, arreta andiarekin zaitu ezazu; era arkitzen duenean, bere gura gaiztoak bete ez ditzan.

14. Guzien gañetik begiratu ezazu bere begien nabarmenkeriara; eta etzaite arritu mezpreziatzen bazaitu.

15. Berak, bideante egarriz dagoenak bezela, ipiñiko du aoa iturri guzian, eta edango du alderago daukan uretik, au dana dalakoa, eta edozeñ kantoitan eseriko da. Eta edozeñ saietari bere gezitekia idikiko dio, geiago ezin duela jarri dedin artean.

16. Andre langillearen graziak bozkariotzen du senarra, eta bere ezurrak gizenduko ditu.

17. Bere aziera ona, Jaungoikoaren doai bat da.

18. Emakume begiratua eta ixilla, ez dago trukadarik anima jakintsu onentzat.

19. Grazia graziaren gañean da, andre santa eta lotsatia.

20. Ez dago balio añ andiko gauzarik, anima garbi onekin berdindu ditekenik.

21. Eguzkia, Jaungoikoaren bizileku txit goratuetan jaiotzen danean munduarentzat dana bezelakoa, da, andre onaren garboa bere etxeko apaingarrirako.

22. Kandelero santu baten gañean argi egiten duen argia bezelakoa, da, arpegiko edertasuna edade sendo batean.

23. Urrezko abeak zillarrezko ondopeen gañean dirade, emakume iraupen luzeko baten oñazpien gañean atsedetzen duten oñak.

24. Zimendu betikoak aitz sendo baten gañean dirade Jaungoikoaren agiteak emakume santa baten biotzean.

25. Bi gauzatan tristetu zan nere biotza, eta irugarrenetik aserrea etorri zitzadan.

26. Gerra gizon bat premiaz iltzen dana; eta gizon jakintsu bat mezpreziatua danean,

27. Eta justiziatik bekatura itzultzen dan gizona; zeñ Jaungoikoak galmenerako daukan izendatua.

28. Bi gizaseme mota iritzi zazkit gaitzak, eta irrisku andikoak: merkatari bat nekez egongo da animako gauzetan ajolagabetasun gabetanik; eta tabernaria ez da libratuko bere ezpañetako bekatuetatik,

OGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Askok bekatu egin zuten pobrezagatik, eta aberastutzearen billa dabillanak alderazitzen dio bere begiari zuzentasunetik.

2. Nola tinkatzen dan makilla bat arri biren elkartzearen erdian, ala saldu eta erosiaren artean ere estutuko da bekatua.

3. Desegiña izango da bekatua bekatariarekin.

4. Ez bazaude beti sendo Jaunaren beldurrean, zure etxea laster arrasatua izango da.

5. Nola artzea jiran mugitzen danean autsa gelditzen dan, ala gogorazioan egotetik, dator gizonaren estutasuna.

6. Labean probatzen dira lurrezko ontziak, eta atsekabetako tentazioan gizon justoak.

7. Nola zuaitzaren landuera bere frututik agertzen dan, ala, pensatuta esandako itzetik gizonaren biotza.

8. Ez ezazu gizona alabatu, itz egin dezan baño lenago, zeren izketan dirade ezagutuak gizonak.

9. Jarraitzen badiozu justiziari, iritxiko dezu, eta berarekin jantziko zera, onrazko soñeko luze batekin bezela, eta berarekin biziko zera, eta beti lagunduko dizu, eta kontuetako egunean sendotasuna arkituko dezu.

10. Egaztiak joan oi dira biltzera beren antzekoakin, ala egia dijoa bere egingilleak arkitzera.

11. Leoia beti dago eizaren azeloan, ala bekatuak gaiztakeriak egiten dituztenen azeloan daude.

12. Gizon santuak irautzen du jakindurian Eguzkiak bezela; gizon barbullak berriz dauzka aldakuntzak illargiak bezela.

13. Zentzugabekoen artean gorde ezazu itza bere denborarako, baña egon zaite beti, pensatzen dutenen artean.

14. Bekatarien izketa gorrotogarria da, eta beren farra, bekatuaren gozotasunetan.

15. Asko juramentu egiten duen mingañak, laztutzen ditu illeak, eta berari lotsagabekiro begiratzeak, estali erazi egingo diozka edozeñi belarriak.

16. Urgullutsuen erriertan odol isuritzea izan oi da, eta gauza pisua da, beren madarikazioak aditzea.

17. Adiskidearen ixilgauzak agertzen dituenak, eleitua galtzen du; eta bere gogoko adiskiderikan batere ez du arkituko.

18. Adiskidea maitatu ezazu, eta izan zatzakio leiala.

19. Zeren bere ixilgauzak agertzen badiozkazu, ez dezu berriz irabaziko.

20. Zeren nolakoa dan bere adiskidea galtzen duen gizona, alakoa da bere projimoaren adiskidetasuna galtzen duena.

21. Eta txoriari eskutik joaten utzitzen diona bezela, ala utzi ziñion joaten zure projimoari, eta ez dezu berrzi atxituko.

22. Etzaiozu jarraitu; zeren onezkero txit urrutian arkitzen da, zeren iges egin zuen oreinemeak lakiotik bezela, bere anima zauritua izan zalako.

23. Ezin lotuko dozu onezkero, eta bada izketa gaiztoaren ondoan adiskidetasuna,

24. Baña adiskidearen ixillgauzak agertzeak, kentzen dio anima zori-gaiztokoari itxedopen guzia.

25. Batek begiakin keñu egiten du, eta orduanshe bertan gaiztakeriak asmatzen ari da, eta iñork ere ez du beragandik botatzen.

26. Eta zure begien aurrean bere aoa gozatuko du, eta zure izketakin mirarituko da, baña atzenean beste era batekoa izango da bere izketa, eta zure itzetan beaztopoa ipiñiko du.

27. Asko gauza aier ditut; baña alako gizona baño geiago batere ez; eta Jaunak ere aier du.

28. Arri bat goira aurtikitzen duenari, bere buruaren gañera eroriko zaio; eta saldukeriaz egindako zauriak, edegiko ditu saldutzallearen zauriak.

29. Eta lize bat egiten duena, beratan eroriko da, eta bere auzokoari arria ipintzen dionak, beratan beaztopo egingo du; eta beste bati lakioa ipintzen diona, beratan galduko da.

30. Asmazio gaiztoa, asmatzallearen gaitzera biurtuko da, eta ez du jakingo nondik datorkion gaitza.

31. Besteak lotsatu eta berai irri egitea, urgullutsuena da: Jaungoikoaren bengantza berriz, leoiak bezela, ustekabean arrapatuko ditu.

32. Lakioan galduko dira, justoak erortzean gozatzen diradenak, eta oñazeak desegingo ditu, il ditezen baño lenago.

33. Aserrea eta sumintasuna, gauza bitzuak dirade nazkagarriak, eta gizon bekatariak berarekin idukiko ditu.

OGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Bengantza nai duenak, arkituko du Jaunaren bengantza, zeñak iduki du bere bekatuen kontu ziatza.

2. Barkatu zaiozu zure projimoari naigaberen bat ematen dizunean; eta onela zuk barkazioa eskatzen dezunean, zure bekatuak barkatuak izango zazkizu.

3. Gizon batek gordetzen du aserrea beste gizon baten kontra, eta Jaungoikoari osasuna eskatzen dio?

4. Bere antzeko gizon batekin ez da bera urrikaltzen, eta bere bekatuen barkazioa eskatzen du?

5. Izanik bera aragia, dauka beragan aserrea, eta Jaungoikoarekin adiskidetzea nai du? Zeñ da bere bakatuen barkazioa iritxiko diona?

6. Oroitu zaite zure atzenakin, eta utzi zaiozu iñorekin aserretzeari.

7. Zeren usteltasunaren eta eriotzaren zemaiak daude egiñak Jaunaren agintetan.

8. Oroitu zaite Jaungoikoaren beldurrarekin, eta zure projimuaren kontra etzaite aserretu.

9. Oroitu zaite Jaungoiko txit goratuaren legearekin, eta projimuaren ezjakiñarekin etzaite malmetitu.

10. Ez ezazu auzirikan iduki, eta gutxituko dituzu bekatuak,

11. Zeren gizon aserrekorrak ipintzen ditu auziak, eta gizaseme bekatariak, adiskideak aserretzen ditu, eta pakean bizi diradenen artean ereitzen du ikusieziña.

12. Zeren basoko egurraren araura, ala dizeka suari, eta gizonaren eskubidearen araura, ala da bere aserrea, eta bere aberastasunen araura, ala da bere sumintasuna.

13. Errierta urduriak sua erazekitzen du; eta supituko erriertak isurtzen du odola; eta testigantza ematen duen mingañak eriotza dakar.

14. Atsematen badiozu txingar bati, beratatik sua irazekiko da; eta bere gañera istua botatzen badezu, itzaliko da, eta bata ta bestea aotikan ateratzen da.

15. Murmuratzallea, eta bi arpegiko gizona, madarikatuak dirade, zeren naastuak ipintzen dituzten pakean bizi ziran asko.

16. Irugarren baten mingañak asko mugitu zituen, eta jendetik jende barreiatu zituen.

17. Aberatsen erri murrutuak desegin zituen; eta arrasatu zituen zimenduetatik andizkien etxeak,

18. Ezereztu zituen errien indarrak; eta utsera biurtu jende azkarrak.

19. Irugarren baten mingañak bota zituen kanpora andre gizarkoak, eta kendu ziezten beren lanen irabaziak.

20. Aditzen dionak, ez du atsedenik idukiko, eta ez du ere adiskide bat arkituko, zeñarekin gozatu diteken.

21. Azotearen otsak odoluria egiten du; mingañaren otsak berriz, txeatzen ditu ezurrak.

22. Asko erori dira ezpataren aoz; baña ez beren mingañagatik il ziradenak adiña.

23. Doatsua, mingañ gaiztoagandik gordea dagoena; bere aserretik irago etzana; eta bere uztarria bereganatu etzuena, eta bere hedeetan lotua izan etzana.

24. Zeren bere uztarria, burnizko uztarria da; eta bere hedeak, brontzezko hedeak dirade.

25. Bere eriotza, eriotza txit gaiztoa da, eta bera baño iragokarriagoa da infernua.

26. Ez da bera iraupen luzekoa izango; baña gaiztoen bideen jabe izatera allegatuko da; bere garrak ordea ez ditu justoak erreko.

27. Jaungoikoa utziten dutenak, eroriko dira beragan, eta berakgan dizekala egongo da, eta ez da itzaliko, eta aurtikiko da beren gañera leoe bat bezela, eta leoinabar batek bezela kalte egingo diote.

28. Zure belarriak arantzaz ingurutu itzatzu; mingañ gaiztoari etzaiozu entzuterik eman, eta egin zaiozkazu ateak eta morrolloak zure aoari.

29. Urtu itzatzu zure urrea eta zure zillarra, eta egin zaiozkazu zure itzai balanza bat, eta frenu zuzenak zure aoari;

30. Eta begira irristik egin ez dezazun zure izketan, eta argatik erori etzaitezen lurrera, azeloan dauden etsaien aurrean, eta zure erorketa sendatu eziña, eta ilgillea izan ez dedin.

OGEITA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Urrikaltasuna egiten duenak, prestamenez ematen dio bere projimuari, eta eskua zabaldua daukanak emateko, aginteak gordetzen ditu.

2. Prestamenez eman zaiozu zure projimuari bere premiako orduan, eta itzuli zaiozu projimuari bere denboran.

3. Zure itza zaitu ezazu, eta tratatu ezazu leialkiro berarekin; eta denbora guzian arkituko dezu bear dezuna.

4. Askok uste zuten prestamenez emana izan zitzaiotena, arkitutako gauza bat bezela zala, eta atsekabeak eman ziezten, mesede egin ziotenai.

5. Artzen duten artean, eman dezakeanari eskumuñak egiten ari dira, eta boz umillarekin eskeñtza andiak egiten dituzte;

6. Eta biurtzeko denboran, denbora eskatuko du, eta aserre ta murmurazioko itzak esango ditu; eta ipiñiko ditu denboraren aitzakiak.

7. Eta pagatu al badu ere, leiatuko da, artu duenaren erdia ozta biurtuko du, eta kontatuko du arkitutako gauza bat bezela.

8. Eta onela ez danean, utziko du artzeko dan kana bere dirua gabetanik, eta biderik eman gabe etsaitzat idukiko du;

9. Pagatuko dio injuria ta madarikazioakin, eta artu dituen onra ta mesedeagatik, iraiñak itzuliko diozka.

10. Askok utzi zioten prestamenean emateari, ez gogortasunez, baizik emana gabe gelditu etzitezen.

11. Alaere zu izan zaite biotz prestuagokoa umildearekin, eta etzaiozu itxedonerazi egunetan ta egunetan limosna berari egiteko.

12. Jaungoikoaren agintea betetzeko lagundu zaiozu premian dagoenari, eta begiraturik bere premiari ez ezazu utsik bialdu.

13. Galdu ezazu dirua zure anaiagatik, eta zure adiskideagatik, eta ez ezazu ezkutatu arri baten azpian, galdu dedin.

14. Eman itzatzu zure ondasunak, Jaungoiko txit goratuaren aginteen araura, eta orrek geiago balioko dizu urreak baño.

15. Sartu ezazu limosna pobrearen biotzean, eta erregutuko du zugatik gaitz guzitik zu libratzeko.

16. 17. y 18. Zure etsaiaren kontra gudan ariko da gerratari baten ezkutu ta lanza baño obetuago.

19. Gizon prestua, bere projimuaren fiatzalle jartzen da; baña lotsa galdu duenak, bera beragan utziko du.

20. Etzaite aztu zure fiatzalle jarri zanak egin zizun mesedearekin, zeren bere anima zugatik ipiñi zuen.

21. Bekatariak eta zikiñak iges egiten dute beren fiatzalle atera zana gandik.

22. Bekatariak beretutzen ditu fiatzalle jarri zanaren ondasunak; eta nola dan bera eskertxarrekoa, bertan beera utziko du libratu zuena.

23. Gizon bat jartzen da bere projimuaren fiatzalle; eta lotsa galtzen badu, berak utzia izango da.

24. Fianza burugabekoak galdu dituzte, ongi bizi ziraden asko, eta naigabezko itsaso batean ondatu dituzte.

25. Berak dirade nastutzen dituztela gizonik aberatsenak, beste toki batzuetara joanerazi diotenak, eta orron ibilli erazi jende arrotzen artean.

26. Jaunaren agintea ausitzen duen bekataria, fianza gaiztoan eroriko da, eta asko arazotan sartzen dana, auzirikan gabe ez da egongo.

27. Lagundu zaiozu zure projimuari al dezunaren araura; baña begira ezazu erori etzaitezen.

28. Gizonaren bizitzarako premiazkoak dirade ura eta ogia, eta soñekoak, eta etxea, ikusi bear ez dana ezkutuan idukitzeko.

29. Obeagoa da pobrearen janaria txaola baten estalpean, janari ederrak leku arrotz, bizilekurik ez daukan batean baño.

30. Ez ezazu daukazunaren baño geiagoren gurarik iduki, naiz iduki dezazula asko, naiz gutxi, eta ez dituzu adituko arrotzai egiten zaizten farra irriak.

31. Bizitza doakabea etxetik etxe ostatuz dabillanarena; eta ostatuz dagoan tokian, ez da ausartuko nai duena egiten, eta ez du ere aoa idikiko.

32. Ostatuz artuko du, eta jaten eta edaten emango die eskertxarrekoai, eta onen gañean mingoiztuko duten gauzak adituko ditu.

33. Jaiki zaite, ostatuz zaudena, eta maiea ipiñi ezazu; eta erara daukazuna, eman zaiezu jaten besteai.

34. Atera zaite nere adiskide onratuen aurretik. Nere etxea bear det, zeren nere anaia ostatuz artu bear det.

35. Pisuak dirade gauza oiek, zentzua daukan gizon batentzat, etxeko jaunaren errierta, eta prestamenez eman dionaren lotsagabekeriak.

OGEITA AMARGARREN KAPITULUA

1. Bere semea maitatzen duenak, maiz ematen diozka azoteak, bere atzenean gozatu dedin, eta auzokoen atetan otska ibilli ez dedin.

2. Bere semeari erakutsi ona ematen diona, beragan alabatua izango da, eta beragan bozkariotuko da bere etxekoen erdian.

3. Bere semeari aziera ona ematen dionaren ondamuz egongo da bere etsaia, eta bere adiskideen artean beragan gozatuko da.

4. Ill da bere aita, eta ill ez balitza bezela da; zeren bere ondoan bere antzeko bat utzi duen.

5. Bere bizitzan ikusi zuen, eta beragan gozatu zan. Bere eriotzan etzan tristetu, eta etzan ere lotsatu bere etsaien aurrean.

6. Zeren utzi zuen etxearen gordetzalle bat etsaien kontra, eta nor izan zedin esker onekoa adiskideentzat.

7. Semeen animakgatik beren zauriak lotuko ditu, eta edozeñ bozera bere erraiak mugituko dira.

8. Zaldi ezigabea irtetzen da gogorra, eta bertan beera utzitako semea, urduria izango da.

9. Losentxak egin zaiozkazu zure semeari, eta ikara eragingo dizu. Jokatu ezazu berarekin, eta tristetuko zaitu.

10. Ez ezazu berarekin batean farrarik egin, damutu ez dakizun, eta atzenean zure ortzak oskia iduki ez dezaten.

11. Ez zaiozu utzi gazte denboran nai duena egiten, eta ez itzatzu mezpreziatu bere gogorazioak.

12. Makurtu zaiozu lepoa gazte denboran, eta eman zaiozkazu otsak saietsetan , aurra dan artean, gogortu ez dedin, eta mendetasuna ukatu ez dizazun, eta onek zure anima minduko du.

13. Eman zaiozkazu erakutsi onak zure semeari, eta ari zaite lanean berarekin, bere lotsarian beaztopo egin ez dezazun.

14. Geiago balio du pobre osasun oneko, eta indar andikoak, aberats erbal, eta gaitzez beteak baño.

15. Animako osasunak, zeñ dagoan justiziako santutasunean, geiago balio du, urre eta zillar guztiak baño; eta gorputz sendo batek, neurrigabeko ondasunak baño.

16. Ez dago ondasunik, gorputzeko osasunak baño geiago bali duenik; eta ez dago atsegin andiagorik biotzeko gozotasuna baño.

17. Obeagoa da eriotza, bizitza samiña baño, eta betiko atsedena, gaitz luzea baño.

18. Gordeak dauden ondasunak dira itxita dagoan ao batentzat, sepultura baten inguruan ipiñitako janari ederrak bezelakoak.

19. Zer balio diozka idoloari eskeñtzak? Zeren berak ez ditu jango, ezta sentitu ere beren usairik.

20. Ala gertatzen zaio Jaunak kastigatua danari, eta artzen duenari bere gaiztakeriaren ordaña.

21. Ikusten ditu bere begiakin, eta negar egiten du, gizaseme txikiratuak bezela, zeñak laztantzen duen emakume donzella bat, eta suspirio bat egiten du.

22. Etzaiozu utzi tristezari zure animarekin jabetzen, eta etzaite ere zerori estutu gogorazio larriakin.

23. Biotzeko gozotasuna, au da gizonaren bizitza, eta santutasuneko tesoru, iñoizere aitzen ez dan bat, pozak gizonaren bizitza luzetzen du.

24. Zure animaren urrikaltasuna iduki ezazu, Jaungoikoaren gogoko izaten leiatzen zerala, eta garbia izan zaite. Bildu ezazu zure biotza bere santutasunean, eta zugandik urrutira aurtiki ezazu tristeza.

25. Zeren tristezak asko il ditu, eta ezertarako ere ez da ona.

26. Ondamuak eta aserreak egunak gutxitzen dituzte, eta arazoak ekarriko du zartza, denbora baño lenago.

27. Biotz bozkariotsu eta biguña guzientzat beti dago gozotasunez betea, jan edan ugarietan arkituko balitza bezela, eta bere janariak, ongi ta laster gisatzen dira.

OGEITA AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Ondasunen beillan egoteak aragiak usteldueraziko ditu, eta beren gogorazioak kenduko du logalea.

2. Gero gertatu ditekeanaren gogorazioak atsedena galerazitzen dute; gaitz andiak gizonari loa galerazitzen dion bezela.

3. Lanean ari zan aberatsa ondasunak biltzeko, eta bere atsedenean onez betea izango da.

4. Lanean ari da pobrea zer jan iduki dezan, eta lanari utzitzen badio, atez ate asi bear du.

5. Urrea maitatzen duena, ez da justotua izango; eta usteltasunari jarraitzen dionaz berarekin betea izango da.

6. Urreagatik asko erori ziraden; eta bere distiatasuna beren galmena izan zan.

7. Beaztopoko zura da urrea berari doañak eskeñtzen diozkatenentzat. Ai, bere ondoren dijoazenen urrikigarriak! Eta zentzugabeko guztia berak galdua izango da.

8. Doatsua, orbanikan gabe arkitua izan zan aberatsa, eta urrearen ondorik joan etzana, eta etzuena ere ipiñi bere itxedopena diruan, ezta ere tesoroetan.

9. Zeñ da au, eta alabatuko degu? Zeren berak bere bizitzan gauza arrigarriak egin ditu.

10. Bera urrearen bitartez izan zan probatua, eta txit ona arkitua. Argatik betiko gloria emana izango zaio. Berak bekatu egin zezakean, eta etzuen bekaturik egin, gaizki egin zezakean, eta etzuen egin.

11. Argatik bere ondasunak ongi gordeak daude Jaunagan, eta santuen batzarre guztiak bere limosnak zelebratuko ditu.

12. Mai andi batean eseri zera? Etzaite zu lenbizikoa izan, zure eztarria idikitzen.

13. Ez ezazu onela esan: Asko dira bere gañean dauden gauzak.

14. Oroitu zaite txarra dala begi gaizto bat.

15. Alako begia baño gauza gaiztoagorik al dago munduan? Argatik isuriko ditu negar malkoak bere arpegi guzitik begiratzen duenean.

16. Etzaite lenbizikoa izan eskua luzetzen, ondamutsuak aitzakiatua izanda, lotsatua gelditu etzaitezen.

17. Etzaite izan urduria janedanean zaudenean.

18. Zeregandik aditu ezazu, zure aldean daojenari zer dagokion.

19. Aziera oneko batek bezela, artu ezazu aurrean jartzen zazkizunetik, asko jaten dezulako gorrotoz begiratu ez dezazuten.

20. Izan zaite lenbizikoa utzitzean. Eta etzaite geiegia izan, utsegiteren batean erori etzaitezen.

21. Eta askoren artean eseri bazera, ez ezazu zure eskua luzatu besteak baño lenago, eta etzaite ere lenbizikoa izan, edaria eskatzen.

22. O ze ardo gutxi dan asko, ongi azitako gizon batentzat! Eta ala lotan zaudenean, etzera artega egongo, eta ez dezu ere idukiko oñazerik.

23. Beilla, aserreak, eta sabalerrabiak idukiko ditu gizon ase eziñak.

24. Gozaro lo egingo du jan urriko gizonak. Lo egingo du goizeraño, eta biotz gozatuarekin esnatuko da.

25. Eta geiagi janeraziko balizute, jaiki zaite jendearen artetik, eta gonbitatu ezazu, eta atsedengo dezu, eta ez diozu zure gorputzari gaitz bat ekarriko.

26. Aditu nazazu, ene semea, eta ez nazazu mezpreziatu, eta atzenean ezagutuko dezu, egia dala esaten dizudana.

27. Zure obra guztietan bizkorra izan zaite, eta gaitzik batere ez zatzu etorriko.

28. Ugaria dana ogia ematen, askoren mingañak bedeikatuko dute, eta emango dute bere ontasunaren testigantza leial bat.

29. Ogia ematen zikoitza danagatik, erri guztiak murmuratuko du; eta egiazkoa izango da bere zikoiztasunagatik emango duten testigantza.

30. Ardo zaleai etzaiezu edanerazi, zeren ardoak asko galdu dituen.

31. Suak probatzen du burni gogorra, ala ardo moskortzeraño edanak, agertuko ditu urgullutsuen biotzak.

32. Bizitza paketsua da gizonentzat ardo neurriz edana. Begiratua izango zera, gutxitxo edaten badezu.

33. Nolako bizitza da ardorik ez daukanarena?

34. Zer gauza da bizitza gabe utzitzen gaituena? Eriotza.

35. Ardoa asieratik egiña izan zan, poztutzeko, ez moskortzeko.

36. Ardo neurriz edana, da animaren ta biotzaren bozkarioa.

37. Osasuna da animarentzat ta gorputzarentzat ardoa edatea.

38. Ardo geiegitik datoz erriertak, aserreak, eta asko ondamen.

39. Animako mingoiztasuna da ardo geiegi edana.

40. Moskorraren ausardia, gizon zentzugabekoaren beaztopoa da, gutxitzen du indarra, eta zaurietako bideak ematen ditu.

41. Jan ta edan ugarian, etzaiozu errierta egin projimoari, eta ez ezazu ere mezpreziatu bere poztasuneko berotasunean.

42. Etzaiozu esan lotsarizko itzik, eta ez ezazu ere estutu eskatzen diozula zor dizuna.

OGEITA AMABIGARREN KAPITULUA

1. Zuzentzalletzat ipiñi zaituzte? Etzaite urgullutu, izan zaite beren artean beretatiko bat bezelakoa.

2. Zaitu itzatzu, eta zure lanak osotoro bukatuta gero, maiean eseri zaite;

3. Berak poztu zaitzaten, eta ordañean lorezko koroa bat artuko dezu berarizko apainduria bezela, eta biltzen dan anoaren diña egin zaitezen.

4. Itz egin ezazu zuk, zarrena zeranak. Bada zuri dagokizu,

5. Lenbiziko itza jakinduria txit andi batekin, eta ez ezazu musika galerazi.

6. Ez ezazu itzik egin, nork aditu ez dagoen tokian, eta ez ezazu erakutsi jakintsua zerala, garaia ez danean.

7. Musika soñua jan edan ugarian, da kastizte arria urrean tinkatua bezela.

8. Esmeralda urrezko errastunean tinkatua bezala, alakoa da musikaren gozotasuna bozkarioz ardoa neurriz edaten danean.

9. Aditu ezazu ixillik zaudela, eta zure modu onarekin zuganatuko dezu guztien amorioa.

10. Zuk, o gaztea, itz egin ezazu bear danean; baña nekez, zuri dagokizun gauzan.

11. Bi alditan galdetua zeranean, iduki beza asiera zure erantzunak.

12. Asko gauzatan ezjakiña egin zaite, eta aditu ezazu, batzuetan ixillik zaudela, beste batzuetan galdetzen dezula.

13. Andizkien erdian etzaite jakintsu egin, eta zarrak dauden tokian, ez ezazu itz asko egin.

14. Kaskabarra baño lenago joango da tximista; eta lotsariaren aurretik joango da ongi naia, eta zure modu onagatik guziak ongi ikusia izango zera.

15. Eta jaikitzeko orduan danean, etzaite gelditu; zoaz lenengoa zure etxera, eta an ari zaite jostaketan, eta an jokatu ezazu,

16. Eta egin ezazu nai dezuna, bekaturik egin gabe, eta itz lotsagaldukorik esan gabe baldin bada.

17. Eta oien guzioen ondoan, bedeikatu ezazu egin zinduzan Jauna, eta bere ondasun guziez betetzen zaituena.

18. Jaunaren beldur danak, bere dotriña artuko du, eta bere billan goizean goiz dabiltzanak, bere bendizioa iritxiko dute.

19. Legea billatzen duena, berarekin betea izango da; eta on gezurrezkoarekin dabillanak, beragan beaztopo egingo du.

20. Jaunaren beldur diradenak, jakingo dute ezagutzen zer dan ona; eta beren obra onak argi egingo dute, zuzi batek bezela.

21. Gizon bekatariak ez du nai iñork errierta egitea, eta bere borondatearen arauko ejenploak arkituko ditu.

22. Gizon zentzudunak gauzai ongi eta arretaz begiratzen die; zentzugabekoak eta urgullutsuak berriz, beñere ez daukate iñoren beldurrik.

23. Berak berez konseju gabetanik egin ezkero ere, berak erabaki dituen gauzak berak kondenatuko dute.

24. Ene semea, ez ezazu gauzarik batere konseju gabe egin, eta egin ezkero, etzera damutuko.

25. Etzaite bide txarretik joan, eta arrietan ez dezu beaztoporik egingo; eta etzaite ere bide nekatsutik ibilli, zure anima ipiñi ez dezazun erortzeko irriskuan.

26. Zaude zure semeen beillan, eta etzaite fiya zure etxekoakin.

27. Zure obra guztietan jarraitu zaiozu zure konzienziaren iritzi leialari; bada onetan dago aginteak gordetzea.

28. Jaungoikoagan sinistzen duenak, bere aginteai begiratzen die; eta beragan itxedotzen duena, ez da gutxitua izango.

OGEITA AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Jaungoikoaren beldur danari etzaio gero gaitzik etorriko, baizik tentazioan Jaungoikoak gordeko du, eta libratuko du gaitzetatik.

2. Jakintsuak ez die gorrotoz begiratzen aginteai eta legeai; eta ez da piskatua izango ontzia itsasandian bezela.

3. Gizon zentzudunak Jaungoikoaren legean sinisten du, eta legea leiala izango zaio.

4. Galde bat azalduko duenak, lendanaz begiratuko du erantzuna, eta ala, eginik orazioa Jaungoikoari, aditua izango da, eta dotriña onari irauneraziko dio, eta orduan ongi erantzun dezake.

5. Gizon zentzugabearen erraiak gurdi baten gurpilla bezelakoak dirade, eta jiran dabillen burtardatza bezelakoa bere gogorazioa.

6. Adiskide isekaria da zaldi aitagillea bezelakoa, zeñ irrinziaka ari oi dan naiz batak naiz besteak gañera igo dizaiola.

7. Nondik dator egun bata bestea baño naiago izatea, eta egun bateko argia bostekoa baño obeagoa izatea, guztia eguzki bat beragandik etorria?

8. Jaunaren jakinduriak berezituak izandu ziran, egiña izan ezkero eguzkia, zeñak bere agintea gordetzen duen.

9. Berak erabaki zituen egingo ziran estazioak, eta beren jaiegunak eta beretan zelebratu ziran elizkizunak bere orduan.

10. Egun oietatik batzuek egin zituen Jaungoikoak andiak eta sagraduak, eta beste batzuek utzi zituen astegunen artean. Ala gizon guztiak ere egin zituen autsarekin eta lurrarekin, zeñarekin Adan izan zan egiña.

11. Jaunak bere jakinduria andiarekin berezitu zituen, eta besterontz zuzendu zituen bere bideak.

12. Beretatik batzuek bedeikatu eta goratu zituen; eta aietatik beretatik santutu zituen, eta beretzat artu zituen; beste batzuek berriz madarikatu eta beeratu zituen; eta goibetu zituen berezitu ziradenean.

13. Nola buztiña dagoan eltzegillearen eskuetan, berarekin nai duena egin eta erabakitzeko,

14. Eta bere guraren erara berarekin nai duena egiten duen, ala gizona egin zuenaren eskuan dago, eta bere juzioaren araura ordaña emango dio.

15. Gaitzaren kontra dago ona, eta eriotzaren kontra bizitza; ala gizon justoaren kontra ere bekataria; eta onela Jaungoiko txit goratuaren obra guztiak ikusiko dituzute jarriak binaka, eta batak besteari erasotzen diola.

16. Eta ni naiz atzenengo jaiki nintzana; eta mendaintzalleak utzitako mordoak biltzen dituena bezelakoa.

17. Nik ere Jaungoikoaren bendizioa itxedon nuen, eta dolarea bete nuen, mendaintzen duenak bezela.

18. Begira ezazute, neretzat bakarrik ez naiz ala lanean ari, baizik erakutsia nai duten guztientzat.

19. Aditu nazazute zuek, o andizkiak, eta erri guziak; eta zuek biltzarreen agintariak zeratenak, iduki itzatzute kontuan zuen belarriak.

20. Semeari, ez andreari, ez anaiari, ez adiskideari etzaiozu eskubiderik eman zure gañean zure bizitza guztian; eta etzaiozu beste bati eman zure herenzia; damutu etzaitezen, eta berai erregutu ez dizaiezun.

21. Bizi zeran, eta asnasa daukazun artean, iñork ere ez dizazula konseju onetatik alde erazi;

22. Zeren obe da zure semeak zuri erregutu dizazutela, zu bere eskuen lanetara begira egotea baño.

23. Zure obra guztietan iduki ezazu zure nagusitasuna,

24. Ez ezazu zure glorian mantxarik ipiñi. Zure bizitzako egunen bukaerako egunean, eta zure irteerako denboran partitu ezazu zure herenzia.

25. Jataldia, eta makilla, eta zama astoarentzat. Ogia, eta kastigua eta lana mendeko morroiarentzat.

26. Kastigatua danean, lanean ari da eta atsedena billatzen du. Eskuak askatuak utzitzen badiozkazu, libertadea billatzen du.

27. Uztarriak eta hedeak, lepo gogorra makurtzen dute; eta betiko lanak makurtzen dute morroi mendekoa.

28. Eraspen gaiztoko mendekoari azoteak eta zepoa. Lanera bialdu ezazu, eskua eskuaren gañean duela egon ez dedin.

29. Zeren alperreriak gaizkeria asko erakutsi duen.

30. Lanetan egonerazi zaiozu; zeren beretzat au gauza ona dan. Eta zure mandatua egiten ez badu, estutu ezazu zepoan; baña ez ezazu geiegirikan egin aragi baten ere kontra, eta ez ezazu ere pisuko gauzarik egin juizio gabetanik.

31. Baldin mendeko morroi leial bat badaukazu, begiratu zaiozu zure animari bezela, tratatu ezazu zure anaia bezela: zeren zure animako odolarekin erosi zenduen.

32. Bidegabero gaitz egiten badiozu, iges egingo dizu.

33. Eta berak zugandik alde egiten badu, eta joaten bada, ez dezu jakingo zeñi galdetu, ezta ere zeñ bidetatik billatuko dezun.

OGEITA AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Itxedopen alperrak eta gezurrak zentzugabeko gizonarentzat dirade, eta amesak jasotzen dituzte gora, zentzurik ez daukatenak.

2. Itzalarekin laztandutzen dan, eta aizeari persegitzen diona bezela: alakoa da ames engañakorrai begiratzen diena.

3. Gauza bat beste bati dirudiona da amesetako ikusketa, gizonaren irudia gizonaren aurrean.

4. Zer gauza izango da zikindu batek garbitua? Eta zer egia izango da gezurti batek esana?

5. Asmatzen gaiztoak, eta aztinantz gezurrezkoak, eta gaizkillen amesak, urgulleria dirade.

6. Eta zure biotzak, aurregiteko dagoan andreak bezela, izango ditu larritasunak ikusketakin Jaungoiko txit goratuak bidaltzen ez badizkizu alako ikusketak; ez ezazu zure biotza beretan ipiñi.

7. Zeren amesak asko ekarri zituzten uts egitera, eta galdu ziran beren itxedopena beretan ipiñi zutelako.

8. Legeko itza kunplitua izango da gezurrikan gabe, eta jakinduria argia izango da gizon leialaren aoan.

9. Tentatua izan ez danak, zer daki? Asko gauzen berri dagianak, asko gauza pensatuko ditu; eta asko gauza ikasi dituenak, zentzuarekin itz egingo du.

10. Asko gauzaren berriak ez dauzkanak gutxi daki; arazo askotan aritu oi dana berriz, somatsua da.

11. Tentatua izan ez danak, nolako gauzak jakin ditzake? Engañatua izan dana, begiratuagoa izango da.

12. Gauza asko ikusi ditut toki arrotzetatik nabillala; baitaere oitura mota asko.

13. Batzuetan egon naiz iltzeko irriskuan gauza oiekgatik, eta Jaungoikoaren graziak libratu nau.

14. Jaungoikoaren beldur diradenen espiritua zaitua da; eta bedeikatua izango da bere begirakune ongigilleakin.

15. Zeren berak beren salbatzalleagan daukate ipiñia beren itxedopena, eta Jaungoikoaren begiak daude tinkatuak, bera maitatzen daudenakgan.

16. Jaunaren beldur dana, ez du ezerk ere ikaratuko, eta ez du ere izurik idukiko, zeren bere itxedopena hura bera dan.

17. Doatsua da Jaunaren beldur danaren anima.

18. Zeñi begiratzen dio, eta zeñ da bere sendotasuna?

19. Jaunaren begiak bere beldur diradenen gañean daude, bitarteko almentsua, irozgarri sendoa, eguzkiaren berotasunaren kontra estalkia, eta itzala egerdian.

20. Gordetzallea beaztopoaren kontra, laguntasuna erori ez gaitezen, anima jasotzen duena, eta begiak argitzen dituena, ematen dituena osasuna, eta bizitza eta bendizioa.

21. Mantxatua da, gauza gaiztoarekin eskeñtza egiten duenaren doaña, eta ez dirade gozagarriak gizon biurriak egiten dituzten isekak.

22. Jauna, gauza guztiak da, bakarrik pazienziarekin itxedotzen diotenentzat egiaren eta justiziako bidean.

23. Jaungoiko txit goratuak ez ditu artzen gaiztoen doañak, eta ez die ere begiratzen gizon biurrien eskeñtzai; eta ez diezte ere barkatuko beren bekatuak, beren opari askoakgatik.

24. Eskeñtzen duena doaña beartsuen haziendatik, da seme bati bere aitaren aurrean lepoa ebakitzen diona bezela.

25. Pobreen bizitza bear duten ogia da, eta kentzen dion edozeñ gizon, odolgiroa da.

26. Bere izerdiarekin irabazitako ogia besteri kentzen diona, bere projimoa ilko balu bezela da.

27. Odola isurtzen duena, eta alogerariari pagatzen ez diona, anaiak dirade.

28. Batak egiten du etxea, eta besteak desegiten du, zer mesede ateratzen dute berak, lana baizik?

29. Batak orazioa egiten badu, eta besteak madarikazioak botatzen baditu, zeñen boza adituko du Jaungoikoak?

30. Garbitzen danari il bati ukitu diolako, eta berriz ere ukitzen badio, zer balio dio len bera garbitzeak?

31. Berebat bere bekatuak gatik baru egiten duenak, eta berriz beretara biurtzen bada, zer aurreratzen du bera umillatuaz? Nork adituko du bere orazioa?

OGEITA AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Legea gordetzen duenak, eskeñtza asko egiten du.

2. Osasuneko eskeñtza da gordetzea mandamentuak, eta gaiztakeria guztitik alde egitea,

3. Eta injustiziatik alde egitea, da eskeñtzea bezela propiziazioko doañ bat injustiziakgatik eta alde egitea bekatuakgatik diña dan penari.

4. Jaungoikoari eskerrak ematen diozka iriñaren lora eskeñtzen duenak. Ala urrikaltasuneko obrak egiten dituenak ere, doañ bat eskeñtzen du.

5. Txit Jaungoikoaren gogoko gauza da, gaiztakeriatik alde egitea, eta injustiziatik alde egitea, bekatuakgatik erregututzea da.

6. Etzaite agertu Jaunaren aurrean esku utsakin.

7. Zeren gauza guzti oiek, Jaungoikoaren aginduz egiten diraden.

8. Justoaren eskeñtzak, aldarea gizentzen du; eta gozotasuneko usaia da, Jaungoiko txit goratuaren aurrean.

9. Justoaren eskeñtza gogokoa da, eta bere oroipenarekin ez da Jauna aztuko.

10. Biotz onarekin eman zaiozu gloria Jaungoikoari; eta ez itzatzu gutxitu zure eskuetako lenbiziak.

11. Eskeñtza guztian erakutsi ezazu pozez zure arpegia, eta bozkarioarekin santutu itzatzu zure amarrenak.

12. Eman zaiozu Jaungoiko txit goratuari, berak eman dizunaren araura, eta begi onarekin eskeñi zaiozu, zure eskuak arkitzen dutena,

13. Zeren Jauna ordaiñtzallea dan, eta itzuliko dizu zazpitan anbat geiago.

14. Etzaiozkazu eskeñi doaiñ aitzakiatuak; zeren artuko ez dituen.

15. Eta ez ezazu ezertarako iduki eskeñtza gaiztoa; zeren Jauna Jueza dan, eta ez dion iñoren diñadeari begiratzen.

16. Ez dio Jaunak iñori ere begiratuko beartsuaren gaitzean, eta irainduaren orazioa, adituko du.

17. Ez ditu mezpreziatuko umezurtzaren erreguak, ezta andre alargunarenak ere suspuriozko bozarekin itz egiten badu.

18. Andre alargunaren negar malko, bere masalletatik beera erortzen diradenak, ez al dirade beste anbeste diadar, isuri erazitzen diozkanaren kontra?

19. Zeren masallatik zeruraño igotzen diran, eta aditzen dituen Jaunak, ez du beretan gozotasunik idukiko.

20. Borondate onarekin Jaungoikoa adoratzen duenak, izango du laguntasuna, eta bere erregua odeietaño allegatuko da.

21. Umillatzen danaren orazioak, odeiak iragoko ditu, eta ez du atsedenik artuko allegatu dedin artean; eta Jaungoiko txit goratuak begiratu dizaion artean, ez du alderik egingo.

22. Eta Jauna ez da luzaro geldirik egongo; baizik justoen alde jarriko da, eta egingo du justizia. Eta Jaungoiko txit sendoak ez ditu sufrituko beren persegitzalleak, baizik atsekabeakin beren bizkarezurra ausiko du:

23. Eta erreñoai diña diradena emango die, ezereztu dezan bitartean urgullutsuen taldea, eta piskatu ditzan artean gaiztoen zetroak,

24. Eman dizaioten artean ordaña gizonai beren irabazien araura, eta bakoitzaren obren, eta bere urgulluaren araura.

25. Bere erriari justizia egin dizaion artean; eta gozatuko ditu justoak bere urrikaltasunarekin.

26. Ederra da Jaungoikoaren urrikaltasuna, naigabeko denboran, eurizko odeia leorteko denboran bezela.

OGEITA AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Urrikaritu zaite arren gurekin, o gauza guztien Jaungoikoa; eta berriz begiratu zaguzu, eta erakutsi zaguzu zure urrikaltasunen argia.

2. Eta itsatsi zaiezu zure beldurra, billatu etzinduten erreñoai, ezagutu dezaten, ez dagoala beste Jaungoikorik zu baizik, eta kontatu ditzaten zure mirariak.

3. Altxatu ezazu zure eskua erreño arrotzen gañera, zure eskubidearen berri iduki dezaten.

4. Zeren nola zu beren aurrean gugan satutua izan zeran, ala gure aurrean, beretan goratua izan zaitezen.

5. Ezagutu zaitzaten, nola guk ere ezagutu degun, ez dagoala beste Jaungoikorik zu baizik, o Jauna.

6. Berriztu itzatzu gauza arrigarriak, eta berriz egin itzatzu mirariak.

7. Gloriaz bete itzatzu zure eskua, eta zure eskuieko besoa.

8. Esnatu ezazu aserrea, eta isuri sumintasuna.

9. Desegin ezazu kontrarioa, eta atsekabetu etsaia.

10. Laburtu ezazu denbora, etzaite aztu gure gaitzai atzena ipintzeaz, zure mirariak adirazi ditzaten.

11. Garrezko aserrean iretsia izan dedilla iges egiten duena: eta beren galmena arkitu dezatela zure erria aiñ gaizki tratatzen dutenak.

12. Ausi ezazu Prinzipe etsaien burua, esaten dutenena: Gu baño besterik ez dago.

13. Bildu itzatzu Jakoben tribu guztiak, ezagutu dezaten ez dagoala beste Jaungoikorik, zu baizik; eta zure anditasunak adirazi ditzaten, eta zure herenziatzat artuko dituzu asieratikan bezela.

14. Iduki ezazu zure erriaren urrikaltasuna, zeñaen gañean ots egin zaion zure izenari; eta Israelen urrikaltasuna ere, zeñ tratatu dezun zure lenbizisortua bezela.

15. Iduki ezazu Jerusalengo erriaren urrikaltasuna, zure santutasuneko erriarena, zure atsedeneko erriarena.

16. Zure itz esan eziñakin bete ezazu Sion, eta zure gloriaz zure erria.

17. Jarri zaite, asieratik zureak diradenen alde, eta egiztatu itzatzu lenbiziko Profetak zure izenean lendanaz esan zituzten itzak.

18. Ordaiñdu itzatzu, iragopenarekin itxedotzen dizutenai, zure Profetak leialak arkituak izan ditezen; eta aditu itzatzu zure serbitzarien erreguak,

19. Aaronek zure erriaren gañera bota zuen bendizioaren araura, eta justiziako bidera zuzendu gaitzatzu; eta lurrean bizi diraden guztiak jakin dezaten, zu zerala Jaungoiko mendeen begiralea.

20. Sabelak janari guztia jango du; baña bada janari bat, bestea baño obeagoa.

21. Aosapaiak ezagutzen ditu mendiko aragiak; eta biotz argiaz itz gezurtiak.

22. Biotz gaiztoak tristetuko du, eta asko gauzaren berri dakian gizona, erasoko zaio.

23. Emakumeak edozeñ gizon artuko du: baña alaben artean, bata da bestea baño obeagoa.

24. Emaztearen edertasunak poztzen du bere senarraren arpegia, eta biztutzen du beragan eraspen bat, gizonaren gurari guztiez gañetikoa.

25. Bere mingañak esaten baditu itz osasuntsuak, biguñtasun eta urrikaltasuneko itzak, ez dago bere senarrarekin berdintzekorik gizonen semeen artean.

26. Andre on bat daukanak, ematen dio asiera hazienda bati; bere antzeko laguna da; eta abea, atsedena bezela.

27. Esirirk ez dagoen lekuan, ostua izango da soloa, eta emakumerik ez dagoen tokian, gizona premiaz suspirioan dago.

28. Nork sinistutzen dio kabiarik ez daukanari, eta gelditzen danari gaututzen zaion tokian, erritik erri dabillan lapur prestatua bezela?

OGEITA AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Adiskide guztiak esango du: Ni ere zurekin adiskidetu naiz. Baña bada adiskidea izenez bakarrik adiskide dana. Ez al da au eriotzaraño irautzen duen atsekabe bat?

2. Laguna eta adiskidea etsai biurtuko dira.

3. O asmazio txit gaiztoa! Nondik atera aiz, alako gaiztakeria eta bere desleialtasunarekin lurra estalitzeko?

4. Laguna poztutzen da adiskidearekin jostaketetan, eta atsekabeko denboran, bere etsaia izango da.

5. Adiskide bat penatzen da adiskidearekin bere sabelagatik, eta etsaiaren kontra ezkutua artuko du.

6. Ez ezazu zure biotzean zure adiskidea aztu, eta zure aberastasunetan berarekin oroitu zaite.

7. Etzaite konsejatu azeloak jartzen dizkizunarekin; eta zure ondamuz daudenakgandik ezkutatu ezazu zure konsejua.

8. Konsejua eskatzen dioten guztiak, ematen du; baña bada konsejaria, bere buruaren onari begiratuta ematen duena.

9. Ongi begiratu ezazu norekin konsejatzen zeran, aurrena jakin ezazu, zeren premian dagoan; zeren berak ere bere barrenen pensatuko duen.

10. Berak estakaren bat lurrean ipiñi ez dezan, eta esan ez dizazun:

11. Ona da zure bidea, eta egon bedi beste aldamenean, zer gertatzen zatzun ikusteko.

12. Zoaz tratatzera santutasunaren gañean errelijio gabeko gizon batekin, injustoarekin justiziaren gañean; emakume batekin, besteak zeloak ematen diozkanaren gañean; beldurtiarekin, gerraren gañean; merkatari batekin artuemanaren gañean; eroslearekin, salduteen gañean; enbidiaz betearekin, esker onekoa izatearen gañean,

13. Gaiztoarekin, ontasunaren gañean; garbitasunaren gañean zikiñarekin; kanpoaren langillearekin, edozeñere lanen gañean:

14. Urtebeteko alogerariarekin, urte bete barru bukatuko dan lanaren gañean; morroi mendeko alperrarekin, zintzotasunaz lana egitearen gañean, etzaiezu oiei aditu alako konsejuetan.

15. Gizon santuarekin berriz maiz iduki itzatzu artu emanak, Jaungoikoaren beldurra gordetzen duela ezagutzen dezun guziarekin.

16. Zeñaen anima zure animaren araukoa dan, eta zeñak ibilliko baziña noizbait loka eta zabuka illuntasunetan, idukiko duen zure urrikaltasuna.

17. Egin ezazu zure barrenen konseju oneko biotz bat; bada ez daukazu beste gauzarik berak baño geiago balio duenik.

18. Gizon santu baten animak agertzen du batzuetan egia, goian begiratzeko dauden zazpi bealarik baño obeto.

19. Eta gauza guzti oietan erregutu zaiozu Jaungoiko txit goratuari, zuzendu ditzala zure pausoak egiaren bidetik.

20. Zure obra guzien aurretik joan bedi egiaren itza, eta zure egite guzien aurretik konseju sendoa.

21. Itz gaizto batek aldatzen du biotza, zeñagandik jaiotzen diran lau gauza oiek, gauza ona, eta gauza txarra, eriotza eta bizitza; oiek dirade mingañagan beti, edo geienean dauden gauzak. Urlia gai da, askori erakutsiak emateko; eta bere animarentzat utsa balio du.

22. Beste bat zentzu andikoa, eta askori erakutsiak ematen diozka, eta bere animarentzat biguña da.

23. Iduri utseko argudioakin itz egiten duena, gorrotoaren diña da, eta geldituko da esku utsakin.

24. Ez dio Jaunak graziarik eman, zeren jakinduria guztiaz gabetua dagoen.

25. Jakintsua da bere animarentzat dakiana, eta bere zentzuaren irabazia alabagarria da.

26. Gizon jakintsuak bere erriari erakutsiak ematen diozka, eta bere zentzuaren irabaziak iraunkorrak dirade.

27. Gizon jakintsua bendizioz betea izango da, eta ikusten dutenak, alabatuko dute.

28. Gizonaren bizitza, egun izendatu batzuetakoa da, Israelen egunak berriz kontatu ezin bestekoak dira.

29. Erriak jarraituko dio gizon jakintsua onratzeari, eta bere izena beti biziko da.

30. Ene semea, zure bizitzak irautzen duen artean esamiñatu zaite, eta egin ezazu alegiña on egiteko zure animari, eta gaiztakeriara makurtua badago, ez ezazu bere aukeran utzi,

31. Zeren gauza guztiak ez diraden guztientzat mesedegarriak; eta gauza bat batzuek ere, ez dirade guzien gogokoak.

32. Kontu ezazu etzaitezela tripontzia izan janedanetan, eta etzaite ere egotzi datorren janari guztira.

33. Zeren asko jateak gaitzak dakarzki, eta tripontzikeriatik datoz kolikuak.

34. Asko jateagatik asko il dirade, eta janedanean begiratua danak, bizitza luzatuko du.

OGEITA EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Onratu ezazu medikua, bear dezulako, zeren Jaungoiko txit goratuak zure onerako egin duen .

2. Zeren sendagarri guztia Jaungoikoagandik datorren, eta erregeak ordaiñdua izango da.

3. Sendatzallearen jakinduriak, bere burua goratuko du, eta alabatua izango da andizkien artean.

4. Jaungoiko txit goratua da, sendagarriak lurretik egin zituena, eta zentzua daukan gizonak, ez ditu mezpreziatuko.

5. Egur batek ez al zuen gozotu ur samiña?

6. Gizonai dagokien gauza da, beren bertutea ezagutzea, eta Jaungoiko txit goratuak eman zien gizonai jakinduria, bere mirariakin onratu zezaten.

7. Berakin sendatzen du eta gutxitzen ditu penak, eta botikarioak egiten ditu botika biguñak, eta okendu osasuntsuak; eta bere lanak ez dira beñere bukatuko,

8. Zeren Jaungoikoaren bendizioa lur guztiaren gañetik zabaldua dagoen.

9. Ene semea, zure eritasunean etzaite zu zerori mezpreziatu, baizik erregutu zaiozu Jaunari, eta berak sendatuko zaitu.

10. Bekatutik alde egin ezazu, eta zuzendu itzatzu zure egiteak, eta garbitu ezazu zure biotza oben guzitik.

11. Eskeñi itzatzu usai gozoko inzensoa, eta iriñaren lora oroipenean, eta izan bedi zure doaña onean osoa, eta gero leku egin zaiozu medikuari deritzana egin dezan.

12. Zeren bera Jaunak egin zuen, eta ez beza zugandik alderik egin, zeren bere lanak premiazkoak diraden.

13. Zeren badagoan, beren eskuetan eroriko zeran denbora bat.

14. Eta berak Jaunari erregutuko diote, eskatzen diotela eman dizaiela pakea eta osasuna, beren izketagatik.

15. Berari izatea eman zionaren aurrean bekatu egiten duena, eroriko da medikuaren eskuetan.

16. Ene semea, negar malkoak bota itzatzu illaren gañean, eta gertakari doakabe batean bezela asi zaite suspirioak egiten, eta estali ezazu bere gorputza, oi bezela, eta etzaite egon bere obiarekin aztuta.

17. Eta zugatik murmuratu ez dezaten, jarraitu zaiozu egun batean negar mingoitzak egiteari. Gero gozatu zaite tristezatik alde egiteko.

18. Progua egiten dezunean illa diña dan bezela, egin ezazu egun batean, edo bian, gaizki esan ez dezaten.

19. Zeren tristezatik eriotza laster datorren, eta biotzeko tristezak lepoa makurtzen du.

20. Eramaten duten bitartean, tristezan iraun ezazu; eta atsekabetuaren bizitza, bere biotzaren araukoa da.

21. Ez ezazu zure biotza utzi tristezaren eskuetan, aurtiki ezazu zugandik; eta atzenakin oroitu zaite,

22. Etzaite berakin aztu; zeren andikan iñor ere ez dan biurtzen; eta ezertan ere ez diezu besteai lagunduko, eta zuri zerorri kalte egingo zatzu.

23. Oroitu zaite nola ni juzgatua izan naizan, zeren zu ere ala izango zeran, neri atzo, eta zuri gaur.

24. Illaren atsedenarekin atsedenerazi zaiozu bere oroipenari, bere gañean berriz gozatu zaite, bere animaren irtenera (sic) gatik.

25. Letradua jakintsu egiten da arazorik batere ez daukan denboran; eta lan gutxi daukana allegatuko da jakintsu izatera, baña, nolako jakinduriaz betea izan diteke,

26. Goldeari elduta dagoana, eta bere gloria ipintzen duena idiai akullokadak ematean, eta ari dana bere lanetan, eta zeñaen izketa dan zezenen gañean?

27. Bere arreta ipiñiko du ongi goldeatzean, eta bere arazoak beiak gizentzean.

28. Ala langille guztiak, eta etxegiñak, zeñek iragotzen duen gaua eguna bezela, eta tinkatzen dituenak irudiak silluetan, eta sendotasunarekin asko irudi mota egiñaz dijoanak, bere gogoa ipiñiko du pintura imitatzean, eta bere alegin ta beillakin bukatuko du lana.

29. Ala errementariak eserita ingudearen aldean, eta burnizko bere lanari begira dagoala, suaren baoak erreko ditu bere aragiak, eta errementariko beroarekin gudan ari da.

30. Malluaren otsa berriztatzen da bere belarrietan, eta bere begia dago lanaren irudiaren gañean.

31. Bere biotza ipiñiko du bere lanak bukatuak ikustean, eta bere beillakin allegatuko da osotoro egitera.

32. Ala buztingilleak, zeñ eserita bere obran, ari da erabilten jiran kurpilla bere oñakin, zeñ beti arretaz dagoan beti bere lanagatik, lantzen duen guztiaren kontua eramaten duela.

33. Bere besoakin oratzen du buztiñia, eta bere oñen aurrean eziko du bere indarra.

34. Bere gogo guztia ipiñiko du txit ongi bidriatzen obra, eta goiz ibilliko da labea garbitzeko.

35. Oiek guziok itxedon zuten beren eskuetan, eta bakoitza bere lan motan jakintsua da.

36. Oiek guziok gabe ez da erri bat egiten.

37. Baña ez dirade bere erdian biziko, eta ez dirade ere paseatuko, eta batzarrera ere ez dira iragoko.

38. Juezen artean ez dirade eseriko, eta ez dituzte ere adituko juezen legeak, eta ez dituzte ere emango oitura onen gañeko erakutsiak, eztaere legeetakoak, eta ez dirade ere sartuko parabolak azaldatzen;

39. Baizik berriztatuko dituzte munduko gauzak; eta beren botoak izango dirade beren langintzako obrak ongi egiteko, itsasten dutela beren anima Jaungoiko txit goratuaren legea ikastera.

OGEITA EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Jakintsuak billatuko du anziñako guztien jakinduria, eta Profeten liburuak irakurriko ditu.

2. Billatuko ditu gizon argitsuen azalduerak, eta orobat adituko ditu parabolen txorroistasunak.

3. Billatuko ditu esangien ezkutuak, eta arituko da parabolen gauza estalietan.

4. Andizkien erdian egongo da, eta agertuko da agintzen duenaren aurrean.

5. Erreñu arrotzen lurretara iragoko da, ezagutzeko gizonen artean dauden gauza onak, eta gaiztoak.

6. Txit goiz esnatuta, zuzenduko du bere biotza izatea eman zion Jaunagana, eta orazioan jarriko da Jaungoiko txit goratuaren aurrean.

7. Bere aoa idikiko du orazio egiteko, eta bere bekatuen barkazioa eskatuko du.

8. Zeren Jaun andiak nai badu, beteko du aditzako espirituz,

9. Eta berak euria bezela isuriko ditu bere jakinduriako itzak; eta orazioan Jauna alabatuko du.

10. Eta egitez kunplituko ditu bere konseju eta erabakiak, eta meditazioan egongo da bere juizio ezkutuen gañean.

11. Berak agertuko du ikasi zuen dotriña, eta Jaunaren elkartasuneko legean gozatuko da.

12. Askok bere jakinduria zelebratuko dute, eta iñoizere ez da aztua izango.

13. Bere oroipena ez da galduko, eta bere izena aitatua izango da mendez mendez.

14. Erreñoak bere jakinduria adiraziko dute, eta Elizak agertuko du bere alabanza.

15. Bizi dan artean bere izena otspatsuago izango da beste millaena baño, eta bizitza obeagora iragotzen danean, berari balioko dio.

16. Oraindikan ere jarraituko diot nik konsejuak emateari, zeren betea nagoan sumintasunaz bezela.

17. Jakinduriaren boz batek esaten du: Aditu nazazute zuek Jaungoikoaren etorkia zeratenok, eta moteak bota itzatzute, ur korronten aldean ipiñitako arrosadiak bezela.

18. Zabaldu itzatzute usai gozoak Libanon inzensoaren zuaitzak bezela.

19. Loretu zaitezte azuzenak bezela, bota ezazute usai gozoa; eta irten bitzazkizute errama graziatsuak, eta kantatu ezazute alabanzako kantatxo bat, eta bedeikatu ezazute Jauna bere obretan.

20. Goratu ezazute bere izen santua, eta alabatu ezazute zuen ezpañen bozarekin, eta zuen mingañaren kantatxoakin, eta zitaraen otsera, eta onela esango dezute bere alabanzan:

21. Jaunaren obra guztiak txit onak dirade.

22. Bere bozarekin gelditu zan ura montoietan bezela; eta bere aoko esanarekin urezko ontzietan bezela.

23. Zeren bere agindura berak nai duena egiten da; eta berak ematen duen osasuna ez da urria.

24. Aurrean dauzka aragi guztiaren obrak, eta bere begientzat ez dago gauza estalirik.

25. Berak ikusten ditu gizaldi guztiak; eta ez dago gauza miragarririkan batere bere aurrean.

26. Ez dago zer esanikan: Au zer da, edo hura zer da? Zeren gauza guztiak bere denboran agertuko diran.

27. Bere bendizioak, ibaiak bezela gañez egin zuen.

28. Nola ugoldeak orditu zuen lurra, ala bere aserrea izango da billatu etzuten jendeen suertea.

29. Nola berak biurtu zituen urak sikutasun batean, eta lurra leortua gelditu zan; eta egin zuen bide on bat bere errikoak irago zitezen, ala bekatariak Jaungoikoaren aserreagatik arkitu zuten an beaztopoa.

30. Gauza onak onentzat egiñak izan ziran asieratik; eta gauza onak eta txarrak gaiztoentzat.

31. Gizonen bizitzarako gauzarik premiazkoenak dirade ura, sua, eta burnia, gatza, eznea, eta iriñaren lorezko ogia, eta eztia, eta mats mordoak, eta olioa, eta soñekoak.

32. Gauza guzti oiek dirade onak santuentzat, gaizto eta bekatarientzat berriz gaitzera biurtuko dira.

33. Badira espiritu batzuek kastigurako egiñak izan ziranak, zeñak beren sumintasunagatik geitzen dituzte penak.

34. Gauza guztien bukaerako denboran indar guztiak egingo dituzte, eta bigunduko dute, berak egin zituen Jaungoikoaren aserrea.

35. Sua, arritea, gosea, eta eriotza, gauza guzti oiek kastigurako izan ziran egiñak;

36. Nola ere piztien ortzak, lupuak, eta sugarrastak, eta gaiztoak desegiten dituen ezpata bengatzallea.

37. Poztuko dirade Jaungoikoaren aginteak kunplitzean, eta gertutuak egongo dirade lurraren gañean bear danerako, eta denbora allegatzen danean, egingo dute agintzen zaioten guztia.

38. Eta ala asieratikan naiz iritzi onetakoa, eta erabilli det gogoan, eta pensatu det, eta eskribuz utzi,

39. Jaungoikoaren obra guztiak diradela onak, eta obra guztiak bere denboran bere serbizioa egingo du.

40. Ez dago zer esanikan: Au hura baño gaiztoagoa da, zeren gauza guztiak bere denboran ontzat emanak izango diran.

41. Eta orain biotz guzitik, eta ao betean alabatu ezazute guztiok batean, eta bedeikatu ezazute Jaunaren izena.

BERROGEIGARREN KAPITULUA

1. Gauza txit gogaikarri bat daukate gizon guztiak berakgan berez itsatsia, eta uztarri astun batek dauzka geiegi nekatuak, amaren sabeletik ateratzen diran egunetik, beren obiko eguneraño guzioen ama dan lurrean.

2. Beren kezkak, eta biotzeko beldurrak, itxedotzen diotenaren asmazioak, eta eriotzako eguna.

3. Tronu gloriaz beteriko baten gañean eseria dagoanetik, lurrean eta autsean azpiratua dagoaneraño.

4. Jazintoz jantzita dagoanagandik, eta koroa dakarrenagandik, eun gordiñagaz estalitzen danagana, guztia da sumintasuna, zeloak, nasteak, atsekabeak, eta eriotzaren beldurra, aserre gogorra, eta eleak.

5. Bere oean atsedetzeko denboran ere, bere gogoa nastutzen du gaueko loak.

6. Laburra, edo esaterako utsa da bere loa, eta lotan ere dago beillan dagoena bezela.

7. Eta nastuta bere espirituko ikusketakin, eta guda bateko denboran iges egiten duenak bezela, irriskutik iges egin duela uste duenean, esnatzen da, eta gelditzen da miraritua bere beldur alperragatik.

8. Abere guztietan gertatzen da au, gizonagandik piztiaraño; bekatarietan berriz zazpi alditan gaiztoago.

9. Gañera, eriotza, odol isurtzea, erriertak, ezpata, mendean idukitzeak, gosea, galmena, eta azoteak.

10. Gauza guzti oiek gaiztoentzat egiñak izan ziran, eta berakgaitik etorri zan ugoldea.

11. Lurrezkoak diraden gauza guztiak lur biurtuko dira, eta ur guztiak itzuliko dira itsasora.

12. Eskeñi guztiak eta injustiziak bukatuko dira; baña zuzentasunak beti iraungo du.

13. Bekatarien ondasunak leortuko dira, erreka bat bezela, eta ots andi bat egingo dute turmoiak euriarekin bezela.

14. Jueza poztuko da bere eskuak idikitzean; ala atzenean fedea ukatzen dutenak galduko dira.

15. Gaiztoen illobak ez dituzte ugarituko erramak; eta arkaitz baten garaiean dauden sustrai galduak bezela, ots egingo dute.

16. Uren gañean eta ibaiaren erriberan azitzen da barazkia, beste belar guztia baño lenago aterako da.

17. Ongigintza bendizioz betetako paraisu bat bezelakoa da, eta urrikaltasunak irautzen du beti.

18. Gozoa izango da bere suertearekin pozez dagoan langillearen bizitza, eta beratan tesoro bat arkituko du.

19. Semeak, eta erri bat egiteak, egiten dute iraunkorra norbaiten izena, eta au baño geiago estimatua izango da, emakume aitzakia gabea.

20. Ardoak eta musikak biotza poztutzen dute; eta batak ta besteak baño geiago jakinduriaren amorioak.

21. Txirolak eta salterioak gozatsu egiten dute musika soñua; eta gauza biak baño geiago mingañ leunak.

22. Garboa eta edertsuna naiko ditu zure begiak; baña au baño geiago kanpo berdeak.

23. Adiskidea eta laguna elkarrekin baliatzen dirade okasioa danean; eta biak baño geiago emaztea, ta bere senarra.

24. Anaiak elkarri laguntzen diote atsekabeko denboran, eta oiek baño geiago salbatuko du urrikaltasunak.

25. Urreak, eta, zillarak sendotzen dituzte oñak; eta bata eta bestea baño gogokoagoa da konseju on bat.

26. Aberastasunak eta indarrak sendotzen dute biotza, eta gauza oiek baño geiago Jaunaren beldurrak.

27. Jaunaren beldurra daukanak, ezeren premiarik ez dauka, eta berarekin ez dago zertan laguntasunik billatu.

28. Jaunaren beldurra bendiziozko paraisu bat bezelakoa da, eta gloria guztien gañetik gloriaz estalia dago.

29. Ene semea, etzaite atez ate eskale ibilli bizi zeran artean; zeren obe dan iltzea eskale ibiltea baño.

30. Besteren maiean jaten duenak, ez du beñere pensatzen nola irabaziko duen jateko bear duena; zeren besteren jakiakin bazkatzen dan.

31. Baña gizon aziera oneko eta adituak ez du onelakorik egingo.

32. Zentzugabekoaren aoan gozoa izango da pobreza, baña bere sabelean sua erazekia egongo da.

BERROGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. O eriotza, ze samiña dan zure oroipena, bere aberastasunen erdian pakea daukan gizon batentzat!

2. Gizon atsegintsu, bere gurarien erara guztiak irtetzen dion, eta oraindikan jateko indarrakin dagoan batentzat!

3. O eriotza! Zure sentenzia gozoa da, gizon premiatsu eta indargabetuarentzat,

4. Onezkero edade andia daukanarentzat, eta arazoz betea dagoanarentzat, eta obetutzeko itxedopen gabetanik dagoanarentzat, eta eramanik ez daukanarentzat.

5. Etzaite eriotzako sentenziaren beldur izan. Oroitu zaite zu baño lenago izandu zanarekin, eta zu ez zeranean etorriko danarekin, au da, sentenzia bat Jaunak ilkor guztiai emandakoa.

6. Eta, zer gauza etorriko zatzu gero, Jaungoiko txit goratuaren gogokoa dana baizik? Naiz izan ditezela amar, naiz ogei, naiz milla zure urteak.

7. Zeren beste munduan etzaion iñori ere bizi izan dan denboraren konturik eskatzen.

8. Seme nazkagarriak egin oi dirade geienez bekatarien semeak, eta orobat gaiztoen etxeetara maiz joan oi diradenak.

9. Bekatarien semeen herenzia galdua izango da, eta lotsariak jarraituko die beti bere ondokoai.

10. Gaiztoaren semeak bere aitagatik kejatzen dira, beragatik lotsarian bizi diralako.

11. Ai zuen dokabeak, gizon gaizto, Jaun txit goratuaren legea utzi zendutenak!

12. Jaio ziñatenean, madarikazioan jaio ziñaten, eta iltzen zeratenean, zuen herenzia madarikazioa izango da.

13. Lurrekoak diraden gauza guztiak, lur biurtuko dira, ala gaiztoak joango dira madarikaziotik galmenera.

14. Gizonak progua egingo dute beren gorputz illen gañean; baña gaiztoen izena arras kendua izango da.

15. Zure izen onari arretaz begiratu zaiozu; zeren au izango dan zuretzat milla tesoru andi, eta baliotsu baño iraunkorrago.

16. Bizitza onak egun kontatuak dauzka; izen onak berriz beti iraungo du.

17. Ene semeak, gorde ezazute pakean nere erakutsia. Zeren jakinduria estaliak, eta ikusten ez dan tesoroak, bi gauza oiek, zer mesede dakarte?

18. Obeago da bere ezjakiña ezkutatzen duen gizona, bere jakinduria ezkutatzen duen gizona baño.

19. Argatik nere aotik ateratzen diraden lotsa iduki ezazute.

20. Zeren ez dan ongi guztiak gatik lotsa idukitzea, eta ongi egindako gauza guziak ere ez dirade guzien gogokoak.

21. Iduki ezazute zikinkeriaren lotsa aitaren eta amaren aurrean; eta gezurraren lotsa gobernariaren eta andizkiaren aurrean:

22. Oben baten lotsa prinzipe baten eta Juez baten aurrean, legea austearen lotsa sinagogaren eta erriaren aurrean.

23. Injustiziaren lotsa, lagun baten eta adiskide baten aurrean, eta bizi zeran tokian.

24. Iduki ezazu lapurreta baten, Jaungoikoaren egiaren, eta elkartasun baten, eta ukalondoak ogietan ipintzearen, eta artu emanetako nastearen lotsa.

25. Lotsa izan zaite ez erantzuteaz agur egiten dizunari; begiratzeaz emakume nasaiari; eta aidea gandik arpegia itzultzeaz.

26. Etzaiozu alde erazi zure arpegiari zure lagun urkoagandik. Eta lotsatu zaite besteari berea dana kentzeaz, eta ez biurtzeaz.

27. Beste senar baten andreari etzaiozu begiratu; eta etzaiozu bekatuan erortzeko biderik eman bere neskameari, eta etzaite ere bere oera alderatu.

28. Ez itzatzu zure adiskideak itzez iraindu; eta zerbait eman badezu, etzaiozu arpegira egotzi.

BERROGEITA BIGARREN KAPITULUA

1. Ez ezazu zabaldu aditu dezun izketa, agertzen dezula ixillean iduki bear dan gauza, eta ez dezu idukiko zergatik lotsatu; eta arkituko dezu abegi ona gizon guztien aurrean. Etzaite lotsatu esatera noatsun gauzakgatik, Eta iñoren begiruneagatik, dana dalakoa, ez ezazu bekaturik egin.

2. Etzaite lotsatu Jaungoiko txit goratuaren legeagatik, ez bere testamentuagatik, ezta ere juizioan justotzeko gaizto bat.

3. Etzaite ere lotsatu erabakitzen bide dana, zure lagunak zerbait daukatenean arrotz bideanteakin; ez adiskideen artean haziendak berezitutzean.

4. Pisuaren eta pisuen berdintasunaren gañean, asko edo gutxi irabaztearen gañean,

5. Erosleen eta merkatarien engañoen gañean, eta semeai erakutsi andiak ematearen gañean, ez morroi mendekoaren sorbaldak odoldutzeaz.

6. Ongi da emakume gaiztoa etxean zarratuta idukitzea.

7. Esku asko dagoen tokian, giltzpean iduki ezazu guztia; eta ematen dezun guztia kontatu eta pisatu ezazu; eta ematen eta artzen dezun guztia eskribitu ezazu.

8. Zuzentzeaz txoroa eta barbulla, eta jartzeaz zarren alde, gazteak kondenatzen dituztenean, ala jakintsua agertuko zera guztian, eta bizilari guztien artean izango zera ongi ikusia.

9. Alaba ezkongaiak bere aita bellan dauka; bada beragatik daukan arretak loa galerazitzen dio, ezkontzeko edadea irago ez datzakion beldurrez, eta gorrotogarria izan ez dedin, edade andikoa dala senarra artzen duenean.

10. Baitaere birjiña dagoan artean, bere garbitasuna zikindua izan dedin beldurrez, eta aitaren etxean aurdun dagoala arkitu ez dedin, edo ezkonduta dagoala, bekatu egin ez dezan, edo aurki izan ez dedin soilla.

11. Alaba nabarmena txit ongi gorde ezazu, noizbait izanerazi ez dizazun zure etsaien iseka, erriko ipuia, eta jendetzaren irauna; eta lotsatu etzaizan jende askoren aurrean.

12. Etzaiozu iñori ere begiratu edertasunagatik, eta etzaite egotez egon emakumeen artean.

13. Zeren soñekoetatik irtetzen da sitsa, eta emakumeagandik gizonaren gaiztakeria.

14. Zeren kalte gutxiago egingo dizun gizon baten gaiztakeriak, emakume marroz ongigilleak baño, zeñak desonra eta lotsaria ekarten dizun.

15. Orain oroituko naiz ni Jaunaren obrakin, eta agertuko det ikusi dedana. Jaunaren itzagatik diraute, eta izan ziraden egiñak gauza guztiak.

16. Nola eguzki argitsuak gauza guztiak argitutzen dituen, ala Jaunaren obra guztiak bere anditasunez beteak daude.

17. Ez al zuen egin Jaunak santuak kontatu zitzatela bere mirari guztiak, Jaun guztia dezakeanak iraunkorrak egin zituenak, bere gloria betikotutzeko?

18. Bera sartzen da leizen barrenen, eta gizonen biotzetan, eta dauzka ezagutuak gizonen astruziak.

19. Zeren Jaunak dakian, jakin bear dan guztia, eta ikusten ditu berezíro denboren siñaliak. Azaldutzen ditu gauza igaroak eta etortzekoak, eta agertzen ditu ezkutatuak daudenen aztarnak.

20. Ez dio igesik egiten gogorazio batek ere, eta etzaio ere ezkutatzen itz bakar bat.

21. Edertu zituen bere jakinduriaren mirariak. Berak dauka izatea, gizaldiak baño lenago, eta gizaldi guztietan, eta ezerere ez lezakio itsatsi,

22. Ezta gutxitu ere, eta ez dauka iñoren konsejuaren premiarik.

23. Zeñ maitagarriak diraden zure obra guziak! Eta beretatik ezagutu genzakeana, txinpart bat bezela bakarrik da.

24. Gauza guzti oiek bizi dirade, eta irautzen dute betiko, eta premia guzietan guziak obeditzen diote berari.

25. Gauza guztiak dirade bi alditan anbatuak, bata bestearen kontrakoak, eta etzuen egin, ezerere faltatzen zitzaienik.

26. Bakoitzaren onerak sendotu zituen. Eta zeñ aseko da bere gloria ikustez?

BERROGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Zeru txit goratuaren edertasuna da firmamentua. Zeruaren edertasuna da irudi bat, zeñean ikusten dan Egillearen gloria.

2. Eguzkiak irteeran bera ikusiaz adirazten du argia, da ontzi miragarria, Jaungoiko txit goratuaren obra.

3. Egunaren erdian lurra erretzen du; eta bere berotasunaren aurrean, nor sendo egon diteke? Labe erazeki bat daukana bezela, su txit bizia eskatzen duten lanetarako.

4. Iru alditan anbat da mendiak erretzen dituen eguzkia, zeñak aurtikitzen dituen suzko oñazkarrak, eta distiatzen dala bere errañuakin itsutzen ditu begiak.

5. Andia da bera egin zuen Jauna, eta bere aginduz agudo ibiltzen da bere bidean.

6. Eta illargiak gauza guztietan bere denboran, erakusten ditu denborak, eta siñaltu urteak.

7. Illargiak señalatzen ditu jaiak, argikari bat gutxitzen asitzen dana, bere betetasunera allegatuta bereala.

8. Illak beragandik artzen du izena, bera miragarriro azitzen da, betea egoteraño.

9. Izarrezko ejerzitu bat dago goietan, berak gloriaz betea argi egiten du zeruko firmamentuan.

10. Izarren argitasuna zeruko edertasuna da. Jauna da andikan goietatikan mundua argitutzen duena.

11. Santuaren itzetara juiziora etorriko dira, eta ez dirade aspertuko bellan egotez.

12. Begiratu zaiozu ostrellakari, eta bedeikatu ezazu bera egin zuena, txit ederra da bere argitasunean.

13. Jira egin zion zeruari bere gloriako inguru osoarekin, Jaungoiko txit goratuaren eskuak zabaldu zuten.

14. Jaunak bere agintearekin agudo etorrierazitzen dio elurrari, eta aurtikitzen ditu txit arintasun andiarekin oñazkarrak, bere erabakien araura.

15. Argatik bere tesoroak idikiak izan ziraden, eta egan egin zuten lañoak, egaztiak bezela.

16. Bere eskubide andiarekin ipiñi zituen odeiak, eta ausi ziran kaskabarraren arriak.

17. Bere begirakune batekin dardaratuko dira mendiak, eta berak nai duenean Egoia erabilliko du.

18. Bere turmoiaren bozak mugituko du lurra ifarreko urakanak, eta aizeen jiraboillak,

19. Eta beere jetxitzen dan egaztia bezela, bere oñak ipintzeko, zabaltzen du elurra; eta bere jetxiera, lurrerontz beeratzen dan langosta bezela.

20. Begia mirarituko da bere zuritasunaren edertasunarekin, eta biotza arrituko da bere euriaren gañean.

21. Jela isuriko du lurraren gañera, gatza bezela, eta izotza egiten duenean, sasillarren puntak bezela jarriko da.

22. Ifarreko aize otza atera zuen, eta izoztu zan ura kristala bezela, zeñ egongo dan uren batzarre guztien gañean, eta jantziko da urez loarikaz bezela.

23. Eta iretsiko ditu mendiak, eta erreko ditu eremuak, eta leortuko du berdea, suarekin bezela.

24. Guztien sendagarria izango da, laster agertuko dan odei bat; eta gero etorriko dan intz epel batek, urtuko du.

25. Bere itz batera gelditzen dira aizeak, eta bere naiarekin bakarrik baretu zituen itsasoak, zeñaen erdian ipiñi zituen Jaunak isla batzuek.

26. Itsasoz dabiltzanak kontatu ditzatela beren irriskuak, eta aditzen ditugunean gure belarriakin, arrituak geldituko gera.

27. An daude obra andi eta miragarriak, abere mota asko, eta era guzietako pistiak, eta gauza arrigarriak.

28. Berak erabaki du bere bidearen atzena, eta bere itzarekin guztia gelditu zan zuzenduta.

29. Danik geien esaten degula ere, asko geldituko zaigu esateko; baña esan al lezakean guztia da esatea, bera dagoala gauza guztietan.

30. Berari gloria emateko, zer balio degu guk? Zeren bera dan guztia dezakeana bere obra guztiez gañetik.

31. Ikaragarria da Jauna, eta txit andia, eta bere eskubidea miragarria da.

32. Alabatu ezazute Jauna, al dezuten geien; bada oraindikan bera zuen alabantza guztiez gañetik geldituko da; izanik, dan bezela, arrigarria eta berdinikan gabea bere anditasuna.

33. Bedeikatu ezazute Jauna, goratu ezazute al dezuten guztia, zeren alabantza guztien gañetikoa dan.

34. Bera goratutzeko, bildu itzatzute zuen indarrak, eta etzaitezte aspertu; zeren iñoizere etzerate atzeneraño allegatuko.

35. Nork ikusi du, adirazi al izateko nolakoa dan? Eta azaldu bere anditasuna, betiko iraunetik bera dan bezela?

36. Oiek baño asko gauza andiagoak ezkutatuak daude; bada gutxi da bere obretatik ikusi deguna.

37. Baña Jaunak egin zituen guztiak, eta ontasunean bizi diradenai, jakinduria eman zien.

BERROGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Alabatu ditzagun gizon argitsuak, gure asabak, zeñai izatea zor diegun.

2. Gloria andiarekin betea izandu zan Jauna, berakin egin zituen gauza andiak gatik, munduaren asieratik.

3. Berak agintzen zuten beren erreñuetan, izan ziran gizon andiak bertutean, eta zentzuz apainduak, eta nola profetak ziran, adirazi zuten profeten diñadea.

4. Eta agintzen zioten beren denborako erriari zentzuarekin, ematen zieztela erakutsi txit santuak beren mendekoai.

5. Beren jakinduriarekin asmatu zituzten musikako tonuak, eta konpondu zituzten liburu santuetako kantak.

6. Gizon aberatsak birtuteetan, elizetako edertasunean begiratuak, paketsuak beren etxeetan.

7. Oiek guziok beren denboretan gloria iritxi zuten, eta onratu zuten beren gizaldia.

8. Beretatik jaio ziradenak, utzi zuten izen bat, beren alabantzakin oroitu erazitzen duena.

9. Eta badira beste batzuek, zeñaen oroipenik ez dagoan, galdu ziran iñoiz izan ez balira bezela; eta jaio ziran, jaio ez balira bezela, ala berak, nola beren semeak.

10. Baña aiek gizon urrikaltsuak izan ziran, zeñaen obra onak ez diraden aztu:

11. Beren ondokoakin irautzen dute beren gauza onak.

12. Beren illobak erri santu bat dira, eta beren jatorriak sendo iraun zuen Jaungoikoaren elkartasunean;

13. Eta beren semeak aien amorioagatik irautzen dute beti, beren jatorria eta beren gloria beñere ez dirade galduko.

14. Beren gorputzak pakean obiratuak izan ziran; eta beren izena, bizi da mendez mende.

15. Zelebratu bezate erriak beren jakinduria, eta adirazi bitza elizak beren alabantzak.

16. Henok izan zan Jaungoikoaren gogokoa, eta paradisura eramana izandu zan penitenzia predikatzeko.

17. Noe osotoro justoa arkitua izan zan, eta asarreko denboran egiña izan zan bitarteko.

18. Argatik bizirik utziak izan ziraden batzuek lurrean, etorri zanean ugoldea.

19. Berarekin egiña izan betiko elkartasuna, ez lezakeala desegiña izan ugoldearekin aragi guztia.

20. Abraham jende askoren aita andia, eta etzan arkitu bere antzekorik glorian, zeñak gorde zuen Jaungoiko txit goratuaren legea, eta berarekin elkartasunean egon zan.

21. Bere aragian berriz egin zuen elkartasuna, eta tentazioan leiala arkitua izan zan.

22. Argatik juramentu egin zion Jaunak bere familian gloria emango ziola, bera aziko zala lurreko autsa bezela,

23. Eta bere ondokoak goratuak izango ziradela izarrak bezela, eta herenziaz idukiko zuela itsasotik itsasoraño okoa, eta Eufrates ibaietik lurraren mugetaraño.

24. Eta Isaakrekin orobat egin zuen, bere aita Abrahamen amorioagatik.

25. Berari eman ziozkan Jaunak erreñu guztietako bendizioak, eta gero sendotu zuen bere elkartasuna Jakoben buruaren gañean.

26. Zeñ ezagutu zuen, eta zeñi eman ziozkan berarizko bendizioak, eta eman zion herenzia; partitutzen ziola amabi tribuen artean.

27. Eta eman zion, bere jatorrian arkitu zitezela beti gizon on, jende guztiak maitatuak ziradenak.

BERROGEITA BOSGARREN KAPITULUA

1. Moises Jaungoikoak eta gizonak maitatua; zeñaen oroipena dagoan bendizioan.

2. Jaungoikoak egin zuen Santuen antzekoa glorian, eta goratu zuen; eta egin zuen etsaien izua; eta berak bere itzarekin gelditu erazi zituen mirari ikaragarriak.

3. Gloriaz bete zuen Erregeen aurrean, eta mandamentuak eman ziozkan bere erriaren aurrean, eta erakutsi zion bere gloria.

4. Bere fedeagatik eta bere otsantasunagatik santutu zuen, eta autu zuen aragi guztiaren artetik.

5. Argatik Moisesek aditu zuen Jauna, eta bere boza, eta Jaungoikoak odeiaren barrenen sartuerazi zion.

6. Eta eman ziozkan aginteak arpegiz arpegi, eta bizitzako eta dotriñako legea, Jakobi bere elkartasuna erakutsi zezaion, eta bere erabakiak Israeli.

7. Goratu zuen Aaron, Moisesen anaia, eta bere antzekoa, Lebiren tribukoa.

8. Egin zuen berarekin betiko elkartasun bat, eta eman zion erreñuko apaiztza, eta doatsua egin zuen glorian,

9. Ipiñi zion bere gerrian gerriko txit eder bat, eta jantzi ziozkan gloriako soñekoak, eta onratu zuen anditasun goratuko apaingarriakin.

10. Ipiñi zion soñeko luzea, eta barrendiko tunika, eta Efoda, eta ipiñi ziozkan gerriaren inguruan urrezko eskillatxo txit asko,

11. Ots egin zezaten zebillanean, eta beren otsa tenploan aditua izan zedin, bere jendearen semeen oroipengarritzat.

12. Ipiñi ere zion soñeko santua urrezkoa; eta jazintozkoa, eta purpurazkoa; gizon jakintsu, zentzuz eta egiaz apaindutako batek eotako lana.

13. Maesu andiaren lana, purpurazko ari biurtuz egiña, arri baliotsu, urrean tinkatuz, arrigin txit jakintsuaren eskuz itsatsitakoz, anbatez zenbat ziran Israelko tribuak, eta oien oroipenerako.

14. Bere mitraren gañean ipiñi zion urrezko koroa bat, santutasunezko silluz, eta onrazko gloriaz otallutua, lan txit eder eta apainduriaz betetako, begiak bere ondoren zeramazkiana.

15. Ez da iñoizere ikusi au baño lenago gauza aiñ ederrik, mundua mundu danetik.

16. Beste jendeko gizonak etzuen beñere jantzi; baizik bakarrik bere semeak, eta bere illobatxikiak beti beti.

17. Bere sakrifizioak suaz konsumituak ziraden egunoro.

18. Moisesek eskuak bete ta konsagratu ziozkan, eta igortzi zuen olio santuarekin.

19. Berari eta bere etorkiari emana izan zitzaioten betiko elkartasun batekin zeruaren egunak bezela, apaiztzako lanak egitea, eta alabantzak kantatzea, eta bere erria bere izenean bedeikatzea.

20. Bera autu zuen bizilari guztien artean, Jaungoikoari doañak eskeñtzeko, inzensoa, eta usai ona, bere erriarentzat biguñtzeko oroipenean.

21. Eta eman zion eskubidea bere aginteen, eta bere elkartasunaren eta erabakien gañean, Jakobi mandamentuak erakusteko, eta emateko argia Israeli bere legean.

22. Baña jaiki ziran bere kontra gizon arrotz batzuek eremuan, eta ondamuz ta aserrez eraso zioten, datan eta Abironekin zeudenak, eta Koreren taldekoak.

23. Ikusi zuen Jaun Jainkoak, eta etzan bere gogokoa izan, eta desegiñak izan ziran aserrearen bultzakadarekin.

24. Egin zituen beretan mirari arrigarriak, eta desegin zituen suzko garretan.

25. Eta geitu zion gloria berriz Aaroni, eta herenzia izendatu zion, eta eman ziozkan lurreko frutuen lenbiziak.

26. Lenbiziakin ipiñi zuen, ogia ase arteraño zeukala; eta gañera jango dituzte Jaunak berari eta bere jatorriari eman ziozkan eskeñtzak.

27. Baña ez da izango jendeen herederu lurrean, eta ez dauka ere anorikan bere erruñukoen artean: bada Jaungoikoa bera da bere anoa, eta herenzia.

28. Finees Eleazarren semea da irugarrena glorian, imitatzen zuela hura Jaunaren beldurrean.

29. Eta egonik sendo erreñuaren lotsarian, bere animako ontasun eta prestasunarekin bigundu zuen Jaungoikoa Israelen alde.

30. Argatik egin zuen Jaungoikoak berarekin pakeko elkartasun bat, santuarioko eta bere erriko Prinzipea izan zedin, eta berak ta bere jatorriak iduki zezaten betiko Apaiztzako diñadea.

31. Onen antzekoa zan egin zuen elkartasuna Dabid errege, Jeseren seme, Judako tribukoarekin, egin zituenean erreñuko herederu bera ta bere jatorria, gure biotzak jakinduriaz betetzeko, eta bere erria justiziaz gobernatua izan zedin, bere zoriontasuna galdu ez zezan. Onekin egin zuen, beti iraun zezala gizon oien gloriak beren jendeen artean.

BERROGEITA SEIGARREN KAPITULUA

1. Jesus Naberena sendoa gerran, Moisesen ondorengoa profezian, bera izan zan andia bere izenaren araura.

2. Txit andia salbatzean Jaungoikoaren autatuak, aurrean jartzen zitzazkion etsaiak desegitean, Israelek herenzia iritxi zezan.

3. Nolako gloria iritxi etzuen, bere besoa jasorik zeukala, eta zerabillala ezpata erri aien kontra?

4. Nor bera baño lenago ala gudatu zan? Zeren Jaunak berak ipiñi ziozkan bere eskuetan etsaiak.

5. Ez al zan gelditu eguzkia bere sumintasunaren indarrez, eta izan zan egun bat bi bezelakoa?

6. Ots egin zion Jaungoiko txit goratu eta guzia dezakeanari, aldamen guzietatik etsaiakin gudan ari zala, eta aditu zuen Jaungoiko andi eta santuak, bidaltzen zituela kaskabarrezko arri txit andi, eta astunak.

7. Aurtiki zan sendotasunarekin jende etsai baten gañera, eta desegin zituen Betorongo jetxieran kontrioak,

8. Ezagutu zezaten erreñuak bere eskubidea, zeren ez dan gauza erraza Jaungoikoaren kontra gudatzea. Eta joan zan Jaungoiko guzia dezakeanaren ondorik:

9. Eta Moisesen egunetan egin zuen obra txit on bat, Kaleb, Jefoneren semearekin batean, erabakitzen zutela etsaiari kopeta erakustea, eta gelditzen zuela erria bekatu egitetik, eta paketzen zutela murmull matxinaria.

10. Oiek biok izan ziran, irrisku guzietatik kalterikan gabe irten ziradenak seireun milla gizon aietatik, zuzentzeko erria, esnea eta eztia dariozkan lur aren jabetasuna artzera.

11. Eta Kalebi berari eman zion Jaunak indarra, eta sendaro iraun zuen zartzaraño, lurreko toki goratu batera igotzeko, eta bere jatorria herenziaz aren jabe izandu zan.

12. Ikusi zezaten Israelko seme guztiak, zeñ gauza ona dan obeditzea Jaungoiko santuari.

13. Alabatuak izan ere bitez Juezak, bakoitza bere izenez, aiek, zeñaen biotza etzan gaiztotua izan, etzutelako Jaunagandik alderik egin.

14. Beren oroipena bedeikatua izan dedin, eta beren ezurrak berriz berdetuak izan ditezen beren tokitik,

15. Eta beren izenak beti iraun dezan, beren semeetara iragotzen dala, gizon santu aien gloriarekin.

16. Samuel, bere Jainkoaren maite, eta Jaunaren profetak, ipiñi zuen gobernatzeko modu berri bat, eta olioz igortzi zituen Erregeak bere erreñuan.

17. Juzgatu zuen Sinagoga Jaunaren legearen araura, eta Jaungoikoak urrikariz begiratu zion Jakobi, eta Samuel bere leialtasunagatik profetatzat ezagutua izan zan,

18. Izanik leiala arkitua bere itzetan, ikusi zuelako argiaren Jaungoikoa.

19. Eta gudan ari zala, aldamen guzietatik estututzen zuten etsaiakin, ots egin zion Jaun guzia dezakeanari bildots orbanikan gabeko baten eskeñtzarekin.

20. Eta turmonada bat egin zuen Jaunak zerutik, eta ots andi batekin adituerazi zuen bere boza,

21. Eta desegin zituen Tirotarren Prinzipeak, eta Filisteoen gialari guztiak.

22. Eta bere bizitza ta gizaldiko denboraren atzena baño lenago, esan zuen agirian Jaunaren eta bere kristoaren aurrean, etzuela iñorgandik artu dirurik, ezta oñetako batzuk ere, eta iñork ere ezin salatu izan zuen.

23. Eta oiek iragota il zan, eta agertu zitzaion erregeri, eta bere bizitzaren atzena erakutsi zion, eta lurretik altxatu zuen bere boza, profetatzen zuela, erreñuko gaiztakeria desegiña izango zala.

BERROGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Oien ondoan jaiki zan Natan Profeta Dabiden egunetan.

2. Eta nola doañ paketsuaren gantza berezitzen dan aragiagandik, eta Jaunari eskeñia zaion, ala Dabid berezitu eta autua izandu zan Israelko semeen artetik.

3. Bere gazte denboran jostatu zan leoiakin, bildots batzuek balirade bezela; eta orobat egin zuen artzakin bildotstxo atxuriak balirade bezela.

4. Ez al zuen goiantea il, eta ez al zuen kendu erreñuko lotsaria?

5. Jasotzen zuela eskua, abailko arriarekin beeratu zuen Goliaten urgullua,

6. Ots egin ziolako Jaun guzia dezakeanari, zeñak eman zion indarra bere eskuieko eskuari, iltzeko gerran sendoa zan gizon bat, eta bere erreñuko indarrak goratzeko.

7. Ala Jaunak gloriaz bete zuen amar millatan, eta argitsu egin zuen bere bendizioakin ematen ziola gloriako koroa,

8. Zeren desegin zituen aldamen guzietako etsaiak, eta azpiratu zituen Filistintarrak gure kontrakoak gaurko eguneraño; desegin zituen betiko beren indarrak,

9. Bere obra guztietan gloria eman zion Jaungoiko santu, eta goratuari itz gloriaz beteakin.

10. Bere biotz guztitik alabatu zuen Jauna, eta maitatu zuen, izatea eman zion Jaungoikoa, zeñak eman zion indarra etsaien kontra.

11. Eta ipiñi zituen kantariak aldarearen aurrean, eta bere kantai tonu gozoak eman ziozkan.

12. Geitu zuen jaietako anditasuna; eta bere bizitzaren atzeneraño ederkiago ipiñi zituen denbora bakoitzeko jaiak, alabatuerazitzen zuela Jaunaren izen santua, eta zelebratua izan zedilla Jaungoikoaren santutasuna goiz goizetik.

13. Jaunak bere bekatuetatik garbitu zuen, eta goratu zuen betiko bere eskubidea: eta berriz sendotu zuen erreñuaren elkartasuna, eta Israelko tronu gloriaz betea.

14. Bere ondoren jaiki zan seme jakintsua, eta aren amoriogatik desegin zuen etsaien indar guztia.

15. Salomonek agintatu zuen pakeko egunetan, zeñaen mendean jarri zituen Jaunak etsai guztiak, bere izenean etxe bat egin zezan, eta betiko santuario bat prestatu zezaion, nola izan ziñan erakutsia zure gazte denboran,

16. Izan ere ziñan jakinduriaz betea ibaia bezela. Berarekin zure animak agertu zituen lurreko gauza estaliak.

17. Eta zure paraboletan bildu ziñituen galde nastu askoren azaldaerak; Zure izenaren ospea allegatu zan islarik urrutienetaraño, eta maitatua izan ziñan zure agintza paketsuan.

18. Jende guziak mirarituak zeuden zure kantakin, eta esangiakin, eta parabolakin, eta galde nastuen azalduerakin.

19. Alabatzen dutela Jaun Jaungoiko, Israelko Jaungoikoa, izengoitiz daukanaren izena.

20. Bildu zenduen urrea latoia bezela, eta montoitu zenduen zillarra beruna bezela.

21. Baña gero emakume arrotz zale izan ziñan, eta zure gañean nork agindu zezan iduki zenduen.

22. Bota ziñion natu bat zure gloriari, eta ezaindu zenduen zure jatorria, zure semeen gañera aserrea erakarteko, eta aurreratzen zenduela zure zentzugabetasuna,

23. Alako moduan, non, berezitu zenduen erreñua bi zatitan, eta egin zenduen Efraimdik atera zedilla matxiñarien erreñu bat.

24. Baña Jaungoikoak ez du desanparatua utziko bere urrikaltasuna, eta ez ditu desegingo, ez ezereztuko bere obrak, eta ez ditu ere sustraitik aterako bere autuaren illobak, eta ez du desegingo, Jauna maitatzen duenaren jatorria.

25. Argatik utzi ziozkan Jakobi ondorengoak, eta Dabidi bere jatorrikoa.

26. Atzenean Salomon irago zan atsedetera bere gurasoakin,

27. Eta bere ondoan utzi zuen Roboam, bere semeetatik bat, zentzugabetasunaren irudia bere erreñuarentzat.

28. Eta adimen gabeko gizona, zeñak bere kontseju gaiztoarekin alde erazi zion beragandik erriaren biotzari;

29. Eta Jeroboam Nabaten seme, Israeli bekatu egin erazi ziona, eta idiki ziona Efraimi bekaturako bidea, eta txit andia izan zan beren bekatuen ugaritasuna gañez egiteraño,

30. Zeñakgatik asko alditan izan ziran beren erritik aurtikiak.

31. Eta asmatu zuen gaiztakeria mota guzia, aliketa etorri zan artean beren gañera benganza, eta libratu zituen bitartean beren bekatuetatik.

BERROGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta jaiki zan Elias profeta sua bezela; eta bere itzari zitzekan eskozuzi bati bezela.

2. Suari etorri erazi zion beren gañera, eta gutxi batzuetara ekarriak izan ziraden, ondamuz persegitzen ziotenak. Zeren ezin sufritu zituzten Jaunaren aginteak.

3. Jaunaren itzarekin zerua itxi zuen, eta suari erorierazi zion zerutik iru alditan.

4. Alako moduan izan zan goratua Elias bere mirarietan. Eta zeñ besterik gozatu diteke zu bezela?

5. Zuk Jaun Jainkoaren itzaren indarrez, atera zenduen bizirik obitik illa zegoan bat, arrapatzen ziñiola eriotzari.

6. Zuk aurtiki ziñituen erregeak amiltokitik, eta desegin zenduen nekerik artu gabe beren eskubidea, eta beren anditasunaren erdian eraman ziñituen oetik obira.

7. Zuk aditu zenduen Sinaiko mendian Jaunaren juizioa, eta Horebkoan bere bengantzaren erabakiak.

8. Zuk olioarekin igortzi ziñituen erregeak, kastigatu zitzaten gaiztoak, eta zure ondoan utzi ziñituen zure ondoko profetak.

9. Zu izan ziñan eramana suzko txirimola batean, suzko zaldizko gurdian.

10. Zu zaude eskribitua geroko denboren erabakietan, biguntzeko Jaunaren aserrea, adiskidetutzeko gurasoen biotzak semeenakin, eta berriztatzeko Jakoben tribuak.

11. Doatsuak ikusi zindutenak, eta zure adiskidetasunarekin onratuak izan ziradenak.

12. Zeren gu bizitza onetan bakarrik bizi gera; baña eriotzaren ondoan ez da gure izena izango zurea bezelakoa.

13. Atzenean Elias txiribolak estalia izan zan, eta Eliseogan gelditu zan bere espiritua oso osorik, zeñ bizi izan zan artean etzuen Prinzipek beldurtu; eta iñor ere etzan bera baño almentsuagoa izan.

14. Eta etzion ere geiagorik egin mundu onetako gauzak; eta il ezkero ere bere gorputzak mirariak egin zituen.

15. Bere bizitzan egin zituen gauza arrigarriak, eta eriotzan mirari andiak.

16. Gauza guzti oiekin ere etzuen erriak penitenziarik egin, eta etzuten beren bekatuetatik alderik egin, aliketa beren erritik aurtikiak izan ziran artean, eta barreiatuak mundu guzitik.

17. Eta jende txit gutxi gelditu zan, eta Prinzipe bat Dabiden etxean.

18. Beretatik batzuek egin zituzten Jaungoikoaren gogoko gauzak: baña beste batzuek bekatu asko egin zituzten.

19. Ezekiasek murrutu zuen bere erria, eta bere erdira ura ekarri zuen, eta zulatu zuen burniz aitz bat, eta egin zuen urpetegi bat uraentzat.

20. Bere egunetan igo zan Senakerib, eta bialdu zuen Rabsazes, zeñak jaso zuen bere eskua Juduen kontra, eta altxatu zuen bere eskua Sionen kontra, eta urgulluz bete zan bere indar andiarekin.

21. Orduan ikaratu ziran beren biotzak, eta beren eskuak, eta iduki zituzten aurregiten ari diran emakumeak bezelako oñazeak.

22. Eta Jaun urrikaltsuari ots egin zioten, eta luzaturik beren eskuak, jaso zituzten zerurontz, eta Jaun Jainko santuak bereala aditu zuen beren boza.

23. Beren bekatuakin etzan oroitu, eta etzituen ere etsaien eskuetan jarri, baizik garbitu zituen Isaias profeta santuaren eskuz.

24. Desegin zituen Asiriatarren etzauntzak, eta Jaunaren aingeruak piskatu zituen.

25. Zeren Ezekiasek egin zituen Jaungoikoaren gogoko obrak, eta ibilli zan sendaro bere aita Dabiden bidetik, agindu zion bezela Isaias profeta andi, eta Jaungoikoaren aurrean leialak.

26. Bere egunetan atzerontz biurtu zan eguzkia, eta berak erregeari bizitza luzatu zion.

27. Ikusi zituen Isaiasek bere espiritu andi profetenarekin atzeneko egunak, eta gozatu zituen Sionen negar egiten zutenak.

28. Lendanaz adirazi zituen, gero gertatuko ziraden gauzak, eta ezkutatuak zeudenak egiñak izan zitezen baño lenago.

BERROGEITA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Josiasen oroipena alakoa da, nolakoa dan lurrinkaigille jakintsu batek asko aroma motarekin egindako konposizio bat.

2. Bere oroipena guztien aoan gozoa izango da eztia bezela, eta janedan ugarietan musika bezela.

3. Au izan zan Jaungoikoak izendatua erria onera ekarteko, eta kendu zituen gaiztakeriaen nazkagarriak.

4. Eta bere biotza Jaungoikoagana zuzendu zuen, eta bekatuen egunetan sendotu zuen ontasuna.

5. Salbu Dabid, eta Ezekias, eta Josias, beste guztiak bekatu egin zuten.

6. Zeren Judako erregeak utzi zuten Jaungoiko txit goratuaren legea, eta Jaungoikoaren beldurra mezpreziatu zuten.

7. Argatik utzi zien beren erreñua beste batzuei, eta beren gloria erreñu arrotzai.

8. Su eman zioten santutasuneko erri autuari, eta bere karrikak eremutu zituzten, Jeremiasek lendanaz adirazi zuen bezela.

9. Zeren gaizki tratatu zuten, bere amaren sabeletik profetatzat konsagratua izan zana, goibetutzeko, ateratzeko, eta desegiteko, eta gero berriz egin eta berriztatzeko.

10. Ezekiel da ikusi zuena arako gloriako ikusikizun, Jaunak erakutsi ziona, Kerubinen gurdian.

11. Eta itz egin zuen gero euriaren irudiarekin Jaungoikoaren arerioen kastigen gañean, eta Jaunak bere bide zuzenetik dabiltzanai egiten diezten mesedeen gañean.

12. Berriz berdetu ere bitez amabi profeten ezurrak, dauden tokian: zeren berriztu zuten Jakob, eta berak salbatu ziran beren fedearen indarrez.

13. Nola goratuko degu Zorobabel? Zorobabel, zeñ izan zan Jaungoikoaren eskuieko eskuan errastun eder bat bezela?

14. Eta orobat, zer esango degu Jesus, Josedek-en semeagatik? Zeñak beren egunetan egin zuten etxea, eta jaso zioten Jaunari tenplo satua, autatua betiko gloriarako.

15. Nehemiasen oroipenak ere denbora luzean iraungo du, zeñak jaso zituen gure murru eroriak, eta berriztu zituen ateak eta morrolloak, eta altxatu gure etxeak.

16. Etzan lurrean jaio beste gizonik Henok bezelakorik, zeñ ere lurretik eramana izan zan.

17. Ezta Jose bezelakorik ere, zeñ jaio zan izateko bere anaien Prinzipea, erreñuaren sostena, anaien gobernaria, erriaren irozgarri sendoa.

18. Zeñaen ezurrak bisitatuak izan ziran, eta ala il ezkero ere profetizatu zuten.

19. Seth eta Sem izan ziran gizonen artean zelebratuak beren bertuteak gatik, eta guztien gañetik Adan bere jatorriagatik.

BERROGEITA AMARGARREN KAPITULUA

1. Simon, Oniasen seme, apaiz andiak, bera bizi zan artean, egin zuen berriz Jaunaren etxea, eta bere denboretan tenploaren berriztatzallea izan zan.

2. Berak egiña ere izan zan tenploaren altuera; lan, birritan anbatekoa, eta tenploaren murru goratuak.

3. Bere egunetan zerioten urezko putzuai, eta txit bete ziraden, itsaso bat bezela.

4. Onek zaitu zuen bere erria, eta galmenetik libratu zuen.

5. Iritxi zuen erria andiago egitea; erreñuarekin zeuzkan artu emanetan gloria iritxi zuen, eta etxearen eta atariaren sarrerak zabaldu zituen.

6. Argi egiten du egunsentiko izarrak lañoaren erdian bezela, eta illargi beteak bere egunetan bezela.

7. Eta eguzki argitsuak bezela, ala berak argi egiten zuen Jaungoikoaren tenploan.

8. Ostrellakak, odei goitargietan argi egiten duena bezela; eta arrosaren lorea udaberriko denboran bezela; eta azuzenak beerontz iragotzen diraden uren aldean bezela; eta inzensoaren zuaitza bezela, zeñak usai gozoa botatzen duen udako denboran.

9. Gar argitsua bezela; eta inzenso suan dizekana bezela.

10. Urre uts gabeko, arri baliotsu mota guziaz apaindutako, ontzi batek bezela.

11. Olibo moteatzen dana bezela, eta gora igotzen dan zipresa bezela; alakoa zan Simon, berak ipintzen zuenean mantu gloriaz betea, eta jantziten zanean bere diñadeko apaingarri guztiakin.

12. Igotzen zala aldare sagradura, santutasuneko jantzia onratzen zuen.

13. Eta orobat artzen zuenean apaizen eskuetatik anoa, zutik zegoala bera aldarearen aldean. Eta bere anaien koruak ingurutzen zuenean, zan, Libanoko mendian zedrozko landara bezela,

14. Ala bere inguruan, palmaren erramak bezela, zeuden Aaronen seme guztiak beren glorian.

15. Zeñak zeukaten beren eskuetan, Israelko batzarre guztiaren aurrean Jaunari egiña izango zitzaion eskeñtza, eta berak bukaturik doaña aldarearen gañean, errege goratuaren eskeñtza apaintzeko,

16. Luzatu zuen eskua libaziora, eta isuri zuen matsaren likura;

17. Isuri zuen aldarearen oñean, Prinzipe txit goratuarentzat, usai txit gozorako.

18. Orduan Aaronen semeak goratzen zituzten beren bozak, eta asitzen ziraden, malluz egindako tronpetak jotzen, eta adituerazi zuten deadardi andi bat Jaungoikoaren aurrean oroipenerako.

19. Orobat erri guztia bat batean agudo joan zan, eta auzpeztu ziran guztiak beren arpegien gañean, beren Jaun Jaungoikoa adoratzeko, eta erreguak eskeñtzeko Jaungoiko guzia dezakean eta goratuari.

20. Eta kantariak jaso zituzten beren bozak, eta etxe andian geituaz zijoan usai gozoz betetako ots bat.

21. Eta erregutu zion erriak Jaun goratuari eskariakin, Jaungoikoari egiten zitzazkiokan elizkizunak bukatu artean, eta onela atzena eman zioten beren lanari.

22. Orduan jetxi zan, eta jaso zituen bere eskuak eta ipiñi Israelko semeen batzarre guztiaren gañean, bere ezpañakin Jaungoikoari gloria emateko, eta gozatzeko beraren izenean.

23. Eta bere orazioa berriz egin zuen, Jaungoikoaren bertutea erakutsi nairik.

24. Eta orain erregutu zaiozute guztien Jaunari, zeñak egin zituen gauza andiak mundu guztian; zeñak geitu zituen gure egunak gure amaren sabeletik, eta egin zuen gurekin bere urrikaltasunaren araura.

25. Eman dizagula biotzeko poza, eta pakea izan dedilla gure egunetan Israelen betiko egunetan.

26. Sinistu dezala Israelek, gurekin dagoala Jaungoikoaren urrikaltasuna, libratzeko gaitz guzietatik, bere egunetan.

27. Bi jende gorrotatzen ditu nere animak, eta irugarren gorrotatzen dedana, ez da erri bat,

28. Sierko mendian bizi diradenak, eta Filistintarrak, eta Sikemen dagoan erri zentzugabea.

29. Oiek dirade jakinduria eta oitura onen gañeko erakutsi, utzi zituenak eskribatuta liburu onetan Jesus Sirak-en seme, Jerusalentarrak zeñak berriztu zuen jakinduria bere biotzetik isurtzen zuela.

30. Doatsua konseju on oietan gogoa daukana. Bere biotzean gordetzen dituena, beti jakintsua izango da.

31. Zeren gauza oiek egiten baditu, guztirako balioko du, zeren Jaungoikoaren argia da bere aztarna.

BERROGEITA AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Jesus, Sirak-en semearen orazioa: Eskerrak emango dizkizut, o Jaun, eta erregea, eta alabatuko zaitut neure Jaungoiko eta salbatzallea bezela.

2. Eskerrak emango diozkat zure izenari, zu izan zeralako nere laguntzallea, eta nere bitartekoa.

3. Eta libratu zenduelako nere gorputza galmenetik, mingañ gaiztoaren lazotik, eta gezur asmatzalleen lazotik, eta nere salatzalleen aurrean, jarri zeralako egiñik agirian nere gordetzalle.

4. Eta zure urrikaltasun andiagatik, zeñagandik artzen dezun izena, libratu nazu, orroaka ari ziran, eta ni iretsitzeko gertutuak zeuden leoietatik,

5. Neri bizitza nola kendu zebiltzaten aien eskuetatik; eta ingurutu ninduten atsekabe taldetik,

6. Ingurutu ninduen garraren bizitasunetik, eta suaren erdian ez nuen iduki berotasunik,

7. Infernuko leizearen barrendik, eta mingañ zikiñetik, eta itz gezurrezkotik, errege gaizto batgandik, eta mingañ gaiztotik.

8. Nere animak eriotzaraño, Jauna, alabatuko du,

9. Zeren nere bizitza egon zan infernura erortzeko zorian.

10. Ingurutu ninduten aldamen guzietatik, eta ez zegoan iñor ere neri laguntzeko. Nengoan gizonen laguntasunaren begira, eta ez zegoan.

11. Oroitu nintzan, o Jauna, zure urrikaltasunarekin, eta munduaren asierako zure obrakin,

12. Zeren libratzen dituzu, o Jauna, itxedotzen dizutenak, eta ateratzen dituzu erreñu etsaien eskuetatik.

13. Goratu zenduen lurraren gañean nere bizilekua, eta nik erregutu nizun libratu ninzazula guztia desegiten duen eriotzatik.

14. Ots egin nion Jaun, nere Jaunaren aitari, ez ninzala desanparatu nere naigabeko denboran, eta urgullutsuak agintzen duten artean.

15. Alabatuko det aspertu gabe zure izen santua, eta zelebratuko det esker andiakin, nere orazioa aditua izan zalako,

16. Eta libratu ninduzulako galmenetik, eta atera ninduzulako gaiztakeriako denboratik.

17. Argatik eskerrak emango dizkizut, eta kantatuko dizkizut alabantzak, eta bedeikatuko det beti Jaunaren izena.

18. Oraindikan gaztea nintzala, nere erritik irten baño lenago, billatu nuen agirian jakinduria nere orazioan.

19. Ni egon nintzan bera billatzen tenploko atarian, eta esan nuen nere artean: Billatuko det nere atzeneko asnasaraño. Bera laster loretu zan nigan, goizetiko matsa bezela.

20. Nere biotza poztu zan beragan. Nere oña bide zuzenetik ibilli zan, nere gazte denboratik ninjoan bere aztarnari jarraituaz.

21. Zeartu nuen piskatxo bat beraganontz nere belarria, eta aditu nuen.

22. Jakinduria asko arkitu nuen neregan, eta beragan aurrerapen andiak egin nituen.

23. Jakinduria ematen didanari, gloria emango diot.

24. Erabaki nintzan, bada, bere araura obratzera, izan nintzan onaren zelotsua, eta ez naiz lotsatuko.

25. Nere anima beragatik gudan ari zan, eta bera obraz egiten nuela, sendotu nintzan.

26. Nere eskuak gora jaso nituzan, eta negar egin nuen bere ezjakiñagatik.

27. Zuzendu nuen beragana nere anima, eta arkitu nuen ezagueran.

28. Berarekin bereala izan nintzan nere biotzaren jabe. Argatik ez naiz Jaunak utzia izango.

29. Nere erraiak mugitu ziran bere billa. Argatik ondasun aberats onen jabe izango naiz.

30. Jaunak mingaña eman zidan nere ordañean, eta berarekin alabatuko det.

31. Alderatu zaitezte nigana zuek, o jakinduria gabekoak, eta bildu zaitezte erakutsiak ematen diran etxean.

32. Zergaitik zaudete oraindikan geldirik? Eta zer esaten dezute gauza oien gañean? Zuen animak egarri andia daukate.

33. Idiki nuen nere aoa, eta esan nuen: Erosi ezazute zuentzat zillarrikan gabe,

34. Eta jarri ezazute zuen lepoa uztarriaren mendean, eta zuen animak artu beza erakutsia, zeren txit aldean dagoan bera arkitzeko.

35. Ikusi ezazute zuen begiakin, gutxi nekatu nintzala, eta arkitu nuela neretzat atseden andia.

36. Artu itzatzute erakutsiak, zillarra txit ugari, balirade bezela; eta berakin idukiko dituzute urre txit ugaria baño obeagoak diraden ondasunak.

37. Poztu bedi zuen anima Jaungoikoaren urrikaltasunean; eta bera alabatzen badezute, iñoiz ere etzerate lotsatuak geldituko.

38. Egin ezazute egin bear dezutena denbora irago dedin baño lenago; eta berak bere denboran emango dizute zuen ordaña.

ISAIASEN PROFEZIA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Isaias, Amosen semeak iduki zuen ikusketa, Judako eta Jerusalengo gauzen ganean, Josiasen, Joatamen eta Akazen, Judako erregeen denboran.

2. Aditu ezazute, o zeruak, eta zu, o lurra, zaude arreta guziarekin, zeren Jauna dan itz egiten duena. Semeak azi ditut, eta goratu ditut, eta berak mezpreziatu naute.

3. Idiak berak ere ezagutzen du bere jabea, eta astoak bere nagusiaren ganbela, baña Israelek ez nau ezagutzen, eta nere erriak ez du aditzen nere boza.

4. Ai erreñu bekatariaren, gaiztakeriaz betea dagoen erriaren, arraza biurriaren, eta seme dongen doakabeak! Utzi dute Jauna, Israelko Santuagatik gaizki esaka ari dirade, atsea eman diote.

5. Zertarako izango da otsa otsaren gañean zuei ematea, bekatuari bekatua itsasten ari bazerate? Buru guzia eri dago, eta biotz guzia miñez.

6. Oñaren azpitik buruaren garairaño ez dago beragan osasunarekin dagoen gauzarik, baizik zauriak, eta zanbroa eta arraza usteldu, izan ez dana ondatua, ez inguruan lotua, ez balsamuarekin biguñdua.

7. Zuen lurra eremutua dago, zuen erriak suz erazekiak, zuen aurrean iretsiten ditue arrotzak zuen gauzak, eta etsaien gisara arrasatzen dituzte.

8. Eta Siongo alaba geldituko da masti bateko itzaltokia bezela, eta meloidi bateko txaola bezela, eta indarrez arrapatutako erri bat bezela.

9. Alako moduan, non, baldin ejerzituen Jaun Jainkoak utzi izan ez baligu jatorria, Sodoma bezelakoak izango giñan, eta Gomorraren antzekoak.

10. Aditu itzatzute Jaunaren itzak o Sodomako prinzipeak, zaude kontuan belarriakin entzuteko gure Jaungoikoaren legea, zu, o erri Gomorraren antzekoa.

11. Zertarako det nik, esaten du Jaunak, zuen eskeñtzen ugaritasuna? Onezkero nazkatua naukate. Ez naiz ni arien holokaustoen, ez idi gizenen gantzaren, ez txalen, ez bildotsen ez auntz akerren odolaren zalea.

12. Nere aurrean agertzen zeratenean, nork agindu dizute zuen eskuetan alako doañak eramateko, ibilteko nere atarietatik?

13. Etzadazute onezkero eskeñtza alferrikakorikan egin, zeren inzensoa nazka det. Illargiberria, eta larunbata, eta beste jaiak ezin sufritu ditut onezkero denbora geiagoan, zeren zuen batzarreak gaiztoak diraden.

14. Zuen kalendak eta zuen jai andiak aier ditu nere animak; gorroto diotet, nekatua nago sufritzez,

15. Eta niganontz eskuak jasotzen dituzutenean, nik alde eraziko diot zuekgandik nere arpegiari: eta zenbat eskari geiago egiten didazuten, anbat gutxiago adituko zaituztet, zeren zuen eskuak odolez beteak dauden.

16. Garbitu zaitezte bada, zuritu zaitezte, alde erazi zaiozute nere begietatik zuen gogorazioen gaiztakeriari, utzi zaiozute gaizki egiteari.

17. Ikasi ezazute ongi egiten, billatu ezazute zuzentasuna, lagundu zaiozute menderatuari, justizia egin zaiozute umezurtzari, zaitu ezazute andre alarguna,

18. Eta orduan, atozte, eta arkitu zadazute, esaten du Jaunak, zuen bekatuak grana bezela jarri bezaituzte ere, zuen animak geldituko dirade elurra bezela; eta bermejoia bezin gorri jarriko balirade ere, biurtuko dirade illerik zurrenaren kolorea idukitzera.

19. Nai badezute eta aditzen banazute, zuen lurreko frutuakin bazkatuak izango zerate.

20. Baña baldin naiko ez bazendute, eta aserretu eraziko baziñidate, etsaien ezpatak iragoko ditu zuen eztarriak, zeren ala esan du Jaunak bere aoz.

21. Nola erri leial eta zentzu andiko bat itzuli da emakume galdu bat bezelakoa izatera? Bera beste denbora batean justiziaren tokia izan zan, gaur berriz da gizon erallena.

22. Zure zillarra sarra biurtu da, eta zure ardoa uraz nahasi da.

23. Zure juezak desleialak dirade, guziak dirade doañ zaleak. Diruaren ondoren dijoaz. Ez diote justiziarik egiten umezurtzari, eta ez dute zaitzen andre alargunaren auzia.

24. Argatik ejerzituen Jaun Jainkoak, Israelko Jainko sendoak esaten du: Zeñ ederki gozatuko naizan nere etsaien gañean, eta nere arerioai, bengatuko natzaien!

25. Eta zuzenduko det nere eskua zugana, eta garbitzen zaitudala, kenduko det zure sarra, eta berezituko det zugandik estañu guztia.

26. Eta berriz ipiñiko ditut zure juezak, egiten dedala izan ditezela len bezelakoak, eta zure konsejariak anziña izan ziraden bezelakoak. Oien ondoan Justoaren erria, erri leiala deitua izango zera.

27. Bai, Sion izango da juizioan erredimitua, eta justizian berriz bere autakeran jarria.

28. Baña bereala Jaungoikoak desegingo ditu gaiztoak, eta bekatariak, eta ezereztuak izango dirade, Jauna utzi zutenak.

29. Idoloak berak, zeñaen aurrean egin zituzten eskeñtzak, izango dira beren lotsarik andiena, eta lotsatuko zerate autatu dituzuten jardiñakin.

30. Orduan izango zerate, osto gabe gelditu dan artelatza bezelakoak, eta ur gabeko baratza bat bezelakoak.

31. Eta zuen sendotasuna izango da, mulloaren geldoa bezelakoa, eta zuen obrak txinparta bezelakoak, bata ta bestea egongo dirade iñork ere itzaliko ez duen suan erazekiak.

BIGARREN KAPITULUA

1. Isaias Amosen semeak ikusi zituen gauza, Jerusalen, eta Judari dagozkienak.

2. Atzeneko egunetan Jaunaren Etxea bere gañean egiña izango dan mendiak idukiko ditu bere zimenduak mendi guzien gañean, eta muñoen gañera igoko da, eta erreñu guziak beragana joango dirade.

3. Eta erri asko etorriko dirade eta esango dute: Ots, igo gaitezen Jaunaren mendira, eta Jakoben Jaungoikoaren etxera; eta berak erakutsiko dizkigu bere bideak, eta bere bidetxigorretatik ibilliko gera, zeren Siondikan legea aterako dan, eta Jaunaren itza Jerusalendikan.

4. Eta bera izango da jende guzien jueza, eta asko erriri adiraziko die gaizki ibilli diradela, zeñak beren ezpatakin egingo dituzte golde ortzak, eta beren lantzakin igitaiak. Erri batek ez du beste baten kontra ezpata magitikan aterako, eta ez dirade ere berriz gerrako arteak ikasten arituko.

5. O zuek Jakoben etxekoak, atozte, eta Jaunaren argitan ibilli gaitezen.

6. Bada zuk, o Jauna, bota dezu zure erria, Jakoben etxekoak, zeren dauden, anziña bezala gaiztakeriaz beteak; eta iduki dituzte aztiak Filistintarrak bezela, eta gozatzen dirade arrotzak mendean idukitzen.

7. Beren erria zillarrez eta urrez gañez egiña dago, eta beren tesoroak agortu eziñak dirade.

8. Beren lurra zaldiz estalia dago, eta beren kotxeak zenbatu ezin adiña dirade. Eta beren erria idoloz betea dago, eta adoratu dute beren eskuen obra, beren beatzakin egin zutena.

9. Eta obra onen aurrean gizonak lepoa makurtu zuen, eta umillatu zan bere aurrean gizasemea. O Jauna, ez, etzaiozu barkatu.

10. Sartu adi aitzartean, erri desleiala, ezkutatu adi lurraren utsunetan, iges egin ezak Jaun aserretuaren arpegiaren aurretik, eta bere anditasunaren gloriatik.

11. Gizonaren begi goratuak umillatuak izango dirade; eta andizkien andiustea beeratuak geldituko da, eta Jauna bakarrik izango da egun artan goratua.

12. Zeren ejerzituen Jaunaren eguna arrigarria dijoan agertzera arro eta urgullutsu guzientzat, eta andiuste guzientzat, eta umillatuak izango dirade.

13. Eta Libanoko zedrorik goratuen, eta zutatuen guztientzat, eta Basango arte guzientzat;

14. Eta mendi goratu guzientzat, eta muño altu guzientzat;

15. Eta dorre goratu guzientzat, eta murru sendotu guzientzat;

16. Eta Tarsisko ontzi guzientzat, eta begientzat ederra dan gauza guzientzat.

17. Eta gizonen urgulleria azpiratua izango da, eta umillatua andizkien lepoa, eta Jauna bakarrik izango da egun artan goratua.

18. Eta idolo guziak piskatuak izango dirade.

19. Eta sartuko dirade gizonak aitzen zuloetan, eta lurraren utsunetan, Jauna aurrean ikusteak ematen dien beldurragatik, eta bere anditasunaren gloriagatik, jaikitzen danean lurra kastigatzeko.

20. Egun artan arriturik gizonak aurtikiko ditu beragandik urrutira bere idolo zillarrezkoak, eta bere otallu urrezkoak; eta satorren eta sagusiarren irudi, berak adoratzeko egin zituenak.

21. Eta sartuko da arkaizdien bitartetatik, eta aitzen zuloetatik, arriturik Jaunaren beldurragatik eta bere anditasunaren gloriagatik, lurra kastigatzeko jaikitzen danean.

22. Utzi zaiozute bada espiritua sudurretan daukan gizonari aserretu erazitzeari, zeren bera dan izan dana idukia Goratutzat.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Zeren ona non ejerzituen Jaun Nagusienak kenduko ditu Jerusalen, eta Judatik gizon sendo eta errutsu guztiak, eta ogizko janari guztia, eta urezko edari guztia;

2. Eta gizon alai ta gerraria, eta jueza eta profeta eta aztia, eta zarra,

3. Eta berrogeita amar gizonen agintaria, eta gizon irudi beneragarrikoa, eta konsejaria, eta langilla jakintsua, eta gizon zentzuduna gauza onen gañeko izketan.

4. Eta emango dieztet prinzipetzat mutikoak, eta gizaseme emetuak idukiko dituzte berak mendean eta berai agintzen.

5. Eta aurtikiko da sendo erria, gizona gizonaren kontra, eta bakoitza bere projimuaren kontra. Jaikiko da gaztea zarraren kontra, eta giza zatarra odolgarbikoaren kontra.

6. Gertatuko da eltzea batek besotikan bere anaia, bere aitaren etxean azitakoari; esaten diola: Aizazu, zu, ongi jantzia zaude, izan zaite gure prinzipea, zaitu gaitzatzu galmen onetan.

7. Berak orduan erantzungo dio: Ez naiz ni sendagillea, eta nere etxean ez dago zer janikan, ez zer jantzirikan. Ez nazazutela arren erriko prinzipe egin.

8. Zeren Jerusalen eroriaz dijoa, eta galdu bear du Judak, zeren beren mingaña ta beren asmazioak Jaunaren kontrakoak dirade, bere anditasuneko begiai aserretu erazitzeraño.

9. Ipintzen duten arpegiera lotsagaldukoak beren kontra itz egiten du, zeren, Sodomakoak bezela gozatzen dirade beren bekatuak zabaltzen, eta ez dituzte estalitzen. Ai bere animen doakabeak! Zeren emango zaie, diña diraden kastigua.

10. Eman zaiozute gizon justoari ongietorria; zeren berak jango ditu bere obra onen frutuak.

11. Ai gaitzerako gaiztoa danaren doakabea! Zeren emango zaio ordaña, bere egiteak diña diraden araura.

12. Nere erria bere eskaleak ezerere gabe utzi dute, eta bere agintariak emakumeak dirade. Nere erria, doatsua deitzen dizutenak, oriek dirade engañatua zarabiltzatenak, eta desegiten dute zuk jarraitu bear diozun bidea.

13. Ona emen non dagoan Jauna justizia egiteko, ona emen non dagoan erriak juzgatzeko.

14. Jaunak artuko diezte kontuak bere erriko Zarrai, eta bere Prinzipeai. Zeren zuek zerate, esango diote, nere mastia iretsi dezutenak, eta zuen etxeetan daude beartsuai egindako lapurretak.

15. Eta zergatik zatitutzen dezute nere erria, eta beartsuen arpegiak otsakin zapaltzen dituzute, esaten du ejerzituen Jaun Jainkoak?

16. Eta Jaunak esan ere zuen: Siongo alabak goratu diradelako, eta lepo jasoarekin dabiltzalako, begiakin keñuak eta eskuakin siñuak, eta beren oñakin otsak egiten dituztela, eta pausu apainduakin dabiltzalako,

17. Moistuko ditu Jaunak Siongo alaben buruak, eta utziko ditu illerikan gabetanik.

18. Egun artan kenduko diezte Jaunak oñetakoetako eta, buruko illargierdietako apaingarriak,

19. Eta lepandeak, eta soñeko ederrak eta besakiak, eta buruko kofiak;

20. Eta ille berezitzalleak, eta lokarriak, eta katetxoak, eta usai gozozko ontzitxoak, eta zirzilluak,

21. Eta ille berezitzalleak, eta beren kopetetatik zinzilika dauden arri baliotsuak,

22. Eta aldatzeko dauzkaten soñekoak, eta mantuak, eta beloak, eta orratzak,

23. Eta ispilluak, eta eun finak, eta zintak, eta udako soñekoak;

24. Eta usai gozoen lekuan idukiko dute kiratsa, eta gerrikotzat soka bat, eta ille kiskurtuen tokian kasket motsa, eta bularreko fajaren tokian zilizioa.

25. Zure gizonik galantenak ere ezpataren aoz eroriko dirade, eta zure gerraririk sendoenak gudan ari diradela etzunik geldituko dira.

26. Eta Jerusalengo ateak eremutuak, tristezaz eta lutuz beteak egongo dirade, eta Jerusalen bera arrasatua, egongo lurrera eroria.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta egun artan zazpi emakume atxituko dute gizon bat, esaten dutela: Guk jango degu gure ogia, eta gure soñekoakin jantziko gera. Asko degu zure izena guri adiraztea. Gure lotsaritik libratu gaitzatzu.

2. Egun artan Jaunaren muskillak irtengo dira anditasun eta gloriarekin, eta lurreko frutuak goratuak izango dirade, eta izango da Israeltik salbatzen diraden aien bozkarioa.

3. Eta gertatuko da, Sionen utziak diraden guzi aiei eta Jerusalenen gelditzen diradenai, santuen izena emango zaiote, Jerusalen bizitzarako eskribatua dagoen guziari.

4. Eta oiek gertatuko dirade Jaunak garbitzen dituenean Siongo alaben zikinkeriak; eta garbitzen duenean Jerusalen loitua daukan odola justiziazko espirituaren eta zelozko espirituaren bitartez.

5. Eta egin ta ipiñiko du Jaunak Siongo mendiko toki guzietan eta berari ots egiten dioten edozeñ tokitan odei itzalez beteriko bat egunaz, eta argi sutsu bat gauaz, zeren kutxa gloriaz beteriko guziaren gañean argi egingo du bere bitartekotasunak.

6. Eta tabernakuloak balioko du itzaltzat egunazko berotasunaren kontra; eta gordetzalle, eta ezkutatokitzat ekaitz eta euriaren kontra.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Orain kantatuko diot nere maiteari nere aidearen kanta bere mastiaren gañean. Erosi zuen nere maiteak masti bat muño txit ugari batean.

2. Zeñ esiz ingurutu zuen, eta kendu zituen ango arriak, eta ipiñi zituen matszepa autuak, eta bere erdian egin zuen dorre bat, baitaere egin zuen bertan dolare bat, eta itxedon zuen matsak eman artean, eta eman zituen astamatsak.

3. Orain bada Jerusalenen bizi zeratenak, eta o Judako gizonak, izan zaitezte juezak nere, eta nere mastiaren artean.

4. Zer da egin bear nuena, eta egin ez nuena nere mastiagatik? Ote da itxedon nuelako eraman zitzala matsak, eta berak eman zituelako mats zoritu gabeak?

5. Bada orain argiro esango dizutet zer egitera noan nere mastiarekin: kenduko diot bere esia, eta desegiña izango da; botako det bere pareta, eta zapaldua izango da.

6. Utziko diot otadi biurtzen, ez da izango podatua, ez aitzurtua, eta aziko dirade bertan sasiak, eta arantzak, eta agindu diot odeiai, euri tantorik ere ez dezatela bota bere gañera.

7. Orain bada ejerzituen Jaunaren mastia Israelko etxea da, eta Judako gizonak dirade bere muintegi atsegingarria, eta itxedotzen nuen berakgandik zentzua, eta ez ditut ikusten gaiztakeriak baizik, zuzentasuna, eta ez det aditzen menderatuen deadarrak baizik.

8. Ai zuen, etxea etxearekin elkartzen dezutenen, eta soroak soroai, lurrik geiago gelditu ez dedin artean itsasten diezutenen doakabeak! Zuek bakarrik bizituko al zerate lurraren erdian?

9. Gauza oiek nere belarrietara allegatzen dirade, esaten du ejerzituen Jaunak. Iduki ezazute ziertotzat, etxe andi, eta eder asko geldituko dirala eremutuak eta beretan iñor ere bizi ez dala.

10. Zeren amar goldeko mastiak ez du emango pitxar txiki bat bete ardo baizik; eta ogeita amar modio ereinda, ez da artuko iru modio baizik.

11. Ai zuen doakabeak, goizean jaikitzen zeratenenak moskortzeko, eta geiegi edaten egoteko gaberaño, ardoz erreak gelditu artean!

12. Zitara, eta lira, eta zaldabaia eta txirola zuen janedanetan, eta ez diozute begirakune bat bederik egiten Jaunaren obrari, eta ez darabiltzute ere zuen gogoan bere eskuen obrak.

13. Argatik nere erria katibu eramana izandu zan, etzuelako jakinduriarik iduki, eta bere odolgarbiko gizonak gosez il ziran, eta erriko jendea egarriz galdu zan.

14. Argatik infernuak zabaldu zuen bere barrena, eta idiki zuen bere ao neurrigabekoa, eta bertara eroriko dira bere gizonik errutsuenak, eta erria, eta bertan dauden gauzarik argitsuenak eta gloriaz beteenak.

15. Eta makurtu bearko du erriko jendeak, eta umillatu andizkiak, eta beeratuak izango dirade urgullutsuen begiak.

16. Eta ejerzituen Jauna goratua izango da bere erabakien zuzentasunagatik, eta Jaungoikoaren santutasuna izango da ezagutua berak egiten duen justiziagatik.

17. Eta bildotsak bazkatuko dirade beren oituraren araura, eta arrotzenak izango dirade kanpo eremutu, landa ugari biurtuak.

18. Ai zuen doakabeak, arrastaka daramazutenak gaiztakeria urgulleriako sokakin, eta bekatua gurdiaren gisara, zeñi tiraka ari zeraten!

19. Zoaztenak esaten: ibilli bedi arin, eta betor agudo berak egin nai duena, ikusi dezagun bera; eta alderatu bedi, eta egin bedi Israelko Santuak erabakita daukana, eta jakingo degu.

20. Ai zuen doakabeak, deitzen dezutenenak gaitza onari, ta ona gaitzari, eta artzen dituzutenenak illuntasunak argitzat, ta argia illuntasuntzat, eta daukazutenenak samiña gozotzat, eta gozoa samintzat!

21. Ai zuen doakabeak, zauzkatenenak jakintsutzat zuen begietan, eta zentzuduntzat an zuen barrenen!

22. Ai zuen doakabeak, zeratenenak errutsuak ardoa edateko eta gizon sendoak moskortzeko ardo mota askorekin!

23. Zuek, doañak gatik ontzat ematen dezutenak gaiztoa, eta utziten dezutenak justoa berari zegokiona gabe.

24. Argatik, nola suaren mingañak iretsitzen duen mulloa, eta garraren berotasunak erretzen duen; ala beren sustraia izango da geldoa bezela, eta autsa bezela desegingo da bere muintegia. Zeren aurtiki duten ejerzituen Jaunaren legea, eta gaizki esan duten Israelko Santuaren itzagatik.

25. Argatik Jaunaren sumintasuna erazeki zan bere erriaren kontra, eta luzatu zuen bere eskua bere gañera, eta zauritu zuen, eta mendiak dardaraz jarri ziraden, eta beren gorputz illak datzaz zimaurra bezela plazen erdian. Eta gauza guzi oiekin ere ez da bere sumintasuna paketu. Oraindikan bere eskua jasota dago.

26. Eta jasoko du bandera bat, izan dizakion siñaletzat urrutiko erri bati, eta ots egingo dio txirola batekin lurraren atzeneko mugetatik, eta ona non, nola dan arduratsua, agudo etorriko da.

27. Beragan ez dago nekatu, ez arikatuko danik; ez logalea daukanik, ez lotirik. Batek ere ez du kenduko uala bere pretinatik, eta ez du ere askatuko bere oñetakoetako lokarria.

28. Bere saietak zorroztuak daude, eta bere uztai guztiak sendo punterian ipiñiak; bere zaldien beatzalak txingar arria bezelakoak dirade, eta bere gurdien burpillak ekaitz andi bat bezelakoak.

29. Orroa egingo du leoiak bezela, orroa egingo duk leoitxo talde batek bezela, eta egingo ditu orroak, eta aurtikiko da arrapatu nai duen gauzaren gañera, eta elduko dio, eta ezin iñork ere kenduko dio.

30. Eta bere dunbotsa izango da egun artan Israelentzat itsasoaren orroa bezela. Begiratuko diogu lurrari, eta ona non aldamen guztietatik dauden naigabezko illuntasunak, zeñaen illuntasunak illunduko duten egunaren argitasuna.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Ozias erregea ill zan urtean ikusi nuen Jauna zegoala eseria jargoi altu eta goratu batean, eta bere soñekoen franjak betetzen zuten tenploa.

2. Jargoiaren inguruan zeuden serafinak, beretatik bakoitzak sei ego zeuzkan. Birekin estalitzen zuten beren arpegia, eta birekin estalitzen zituzten oñak, eta birekin egan egiten zuten.

3. Eta deadar andiakin kantatzen zuten aldizka, esaten zutela: Santua, Santua, Santua, ejerzituen Jaun Jainkoa, lur guzia dago bere gloriaz betea.

4. Eta dardaratu ziraden ateen ataburu eta opoak kantatzen zuenaren bozera, eta tenploa keez bete zan.

5. Eta esan nuen: Nere zorigaiztokoa! Zeren ez det itzik egin, ezpañ zikinduetako gizona naizelako ni, eta bizi naizelako erri baten erdian, zeñaen ezpañak loituak dauden, eta nere begiakin ikusi det ejerzituen Jaun ta erregea.

6. Eta serafiñetatik bat etorri zan egan niganontz, eta bere eskuan zeukan, aldarearen gañetik orrikakin artu zuen txingar erazeki bat.

7. Eta berarekin ukitu zion nere aoari, eta esan zuen: Ona non txingarrak ukitu dien zure ezpañai, eta kendua izango da zure gaiztakeria, eta zure bekatua garbitua izango da.

8. Eta andik laister aditu zuen Jaunaren boz bat, esaten zuena: Zeñ bialduko det? Eta zeñ joango da gutatik? Eta nik erantzun nuen: Emen nago, bialdu nazazu.

9. Eta orduan esan zuen Jaunak: Zoaz, eta esango diozu erri orri: Adituko dezute, eta geiago adituko dezute, eta ez dezute konprenditu naiko. Eta ikusiko dezute zer jartzen dedan zuen begien aurrean, eta ez dezute ezagutuko.

10. Astundu ezazu erri orren biotza, estali itzatzu bere belarriak, eta itxi zaiozkazu bere begiak, bere begiakin ikusi ez dezan, eta bere belarria-

kin aditu ez dezan, eta bere adimenarekin zenprenditu ez dezan, eta nigana itzuli ez dedin, eta arkitu ez nadin bera sendatzeko premian.

11. Eta esan nuen nik: Noizarteraño, Jauna, iraungo du zure aserreak? Eta erantzun zuen: Aliketa arrasaturik bere erriak, iñor ere beretan bizi ez dala gelditu ditezen bitartean, eta etxeak jende gabe, eta lurra eremutua.

12. Eta Jaunak aurtikiko ditu gizonak beren erritik urrutira, eta lurraren gañean gelditzen diradenak ugarituko dirade.

13. Eta oraindikan oiek ere amarrenduak izango dirade, eta berriz ere biurtuko dirade Jaunagana, eta erakutsiko dute beren lengo anditasuna terebinto batek bezela; eta arte zar, bere erramak txit urrutira luzatzen dituena bezela; eta berakgandik geldituko dan azia, azi santu bat izango da.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan agintzen zuela Judean Akaz Joatanen semeak, Oziasen semeak, etorri zan Rasin Siriako erregea, Fazek Romeliaren Israelko erregearen semearekin Jerusalen gañera bere kontra gudatzera, eta ezin izan zuten arrapatu.

2. Adirazi zioten bada Dabiden etxeari, esaten zutela: Siria elkartu da Efraimekin, eta mugitu ziran Akazen biotza, eta bere erriaren biotza, zuaitzak basoetan mugitzen diraden bezela aize andi batekin.

3. Eta esan zion Jaunak Isaiasi: Zoaz, eta atera zatzakio bidera Akazi, zu eta Jasub, gelditzen zatzun semea, goiko ainzirara ura daraman odiaren atzenera, Bataneroen kanpora zuzentzen dan bidetik.

4. Eta esango diozu: Zaude geldirikan, etzaite beldur izan, aserre sumiñean kea dariotela dauden, ille ikondo bi oiek, Rasin Siriako erregea, eta Romeliaren semea ikusteagatik.

5. Eta danik geien badirade ere zure kontra darabiltzaten asmazio gaiztoak Siriak, Efraimek, eta Romeliaren semeak, esaten dutela:

6. Goazen Judaren kontra, eta aupadak egin dizaiozkagun, eta atera dezagun indarrez, eta bere erdian ipiñi dezagun erregetzat Tabeelen semea.

7. Bada au da Jaun Jainkoak esaten duena: Ez du ongi irtengo, ez da egiztatuko alako asmazioa,

8. Baizik Damasko Siriako errege uria, eta Rasin Damaskoko agintaria, desegiñak izango dirade, eta emendikan irurogeita bost urtera, Efraim ez da erria izango.

9. Eta Samaria ere ez da izango Efraimgo errege-erria, eta Romeliaren semeak ere ez du Samarian agintatuko. Baldin zuek ez badezute sinisten etzerate iraunkorrak izango.

10. Eta berriz itz egin zion Jaunak Akazi, esaten zuela:

11. Eskatu zaiozu zure Jaun Jainkoari siñale eta mirari bat, naiz infernuaren barrenekoa, naiz goikoa zeruaren guenekoa.

12. Eta erantzun zuen Akazek: Ez det alakorik eskatuko, Jauna ez tentatzeagatik.

13. Orduan esan zuen Isaiasek: Aditu ezazu bada zuk orain, o Dabiden jatorria. Gutxi al deritzatzute gogaikarriak izatea gizonentzat, nere Jaungoikoarentzat ere izaten ausartatzen zeratenok?

14. Argatik Jaunak berak siñalea emango dizute, Jakin ezazute birjiña bategan sortua izango dala, eta au aur seme batez erdiko dala, eta bere izena izango da Emmanuel.

15. Guria eta eztia jango ditu, aliketa jakin dezan artean txartzat ematen gauza gaiztoa, eta aututzen gauza ona dana.

16. Zeren aur semeak jakin dezan baño lenago gauza gaiztoa txartzat ematen, eta gauza ona dana autatzen, zuk aier dezun lurra, bere bi erregeak utzia izango da.

17. Bialduko ditu Jaunak Asiriako erregearen bitartez zure gañera, zure erriaren gañera, eta zure aitaren etxearen gañera alako denborak, eta ain samiñak, nolakorik ez dan izan, Efraim Judatik berezitu zan egunetik.

18. Eta gertatuko da egun artan txistu egitea Jaunak, Egiptoko ibaien atzena euliak bezela estalitzen duten erriai, eta beste batzuei, zeñak erleak bezela dauden Asurko lurrean.

19. Eta etorriko dira egan, eta geldituko dira guztiak ibarretako erreketan, eta aitz zuloetan, eta arantzadietan, eta zirritu guztietan.

20. Egun artan Jaunak alogerean artutako labaña batekin, au da Eufrates ibaiaren beste aldamenean bizi diranen bitartez, Asiriatarren erregearen bitartez mostuko ditu buru guztiak, oñetako illeak, eta bizar guztiak.

21. Eta gertatuko da egun artan gizon batek azitzea bei bat, eta bi ardi;

22. Eta ezne geiegiagatik guria jango du, zeren guria eta eztia jango ditu, errian gelditzen dan guziak.

23. Eta gertatuko da egun artan, len milla mats zepak milla diru zillarrezko balio zituzten lekuan, ez ditu emango arantzak eta sasiak baizik.

24. Sartuko dira bertan fletxakin eta uztaiakin, zeren sasiz eta arantzaz betea egongo dan lur guzti hura.

25. Eta aitzurrarekin eta jorraiarekin landutzen ziran mendi guztiak, ez dute onezkero idukiko berak zaitzeko len inguruan zeuzkaten arantza eta sasien izua, baizik izango dira idiak bazkatzeko, eta abereak etzateko.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Esan ere zidan Jaunak: Artu ezazu liburu andi bat, eta eskribatu ezazu bertan letra argietan. Artu itzatzu agudo kutsuak, zoaz arin arrapatua artzera.

2. Eta artu nituen eskribitzen nuenaren testigu leialtzat, Urias apaiza, eta Zakarias Barakiasen semea.

3. Eta bizitu izan nintzan nere emazte profetisarekin, eta bera aurdun gelditu zan, eta aur seme bat egin zuen. Eta Jaunak esan zidan: Jarri zaiozu, zerbait adirazten duen izen bat. Artu itzatzu arin arrapatutako gauzak, ibilli zaite agudo artzeko arrapatu dezuna.

4. Zeren aurrak aitaren eta amaren izenak esaten ikasi baño lenago, Asiriatarren erregeak desegin izango du Damaskoren indarra, eta arrapatu Samariako ondasunak.

5. Eta berriz itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

6. Erri onek nai izan ez dituelako Siloeko ur, Sionen astiro dijoazenak, eta naiago izan dituen ezkero Rasin, Eta Romeliaren semea,

7. Argatik ona non Jaunak ekarriko dituen beren gañera Eufrates ibaiko ur ugari, eta arin dijoazenak (au da Asiriatarren erregea bere indar guztiakin) eta igoko dira bere erreka guzien gañera, eta zabalduko dira beren erribera guztietatik.

8. Eta joango dira Judako erritik, eta iragotzean ondatuta ipiñiko dute guztia, eta eztarriraño allegatuko dira. Eta ibai onek bere egoen zabalerarekin beteko du, o Emmanuel, zure erriaren lurreko zabalera guztia.

9. Bildu zaitezte, o erriak, eta atozte, bada garaituak izango zerate, zuek, o alderririk urrutienekoak, aditu ezazute, alaitu zaitezte, eta izango zerate garaituak; jarri zaitezte gudarako gertuak, eta garaituak izango zerate.

10. Iduki itzatzute batzarreak, eta desegiñak izango dirade zuen asmazioak. Eman itzatzute aginteak, ez dirade kunplituko, zeren Jaungoikoa gurekin dago.

11. Bada oiek esan zizkidan Jaunak, esku sendoarekin esan zidanean, ez nendilla joan erri onen bidetik. Begira,

12. Etzaitezte egon esaten: Matxiñada, zeren erri orrek ez du besteren gañean itzik egiten matxiñaden gañean baizik, bestera, ez ezazute iduki bera beldur dan gauzaren beldurrik, eta etzaitezte ere ikaratu.

13. Ejerzituen Jauna, au alabatu ezazute, bakarrik bera da beldurrez eta ikaraz begiratu bear diozutena. Eta bera da santutuko zaituztena.

14. Bitartean izango da beaztopoko arria, eta eskandaluko arria Israelko bi etxeentzat, eta txibistea, eta galmena Jerusalenen bizi diradenentzat.

15. Eta beretatik txit askok beaztopo egingo dute, eta eroriko dirade, eta zatituko dirade, eta ikusiko dirade txibistean arrapatuak, eta geldituko dirade atxituak.

16. Artu ezazu orain testimonioa, sillutu ezazu legea nere jarraitzalleentzat.

17. Nik alaere itxedotzen det Jaunagan, zeñak ezkutatu duen bere arpegia Jaunagandik, eta itxedopen onetan iraungo det.

18. Ona emen non naukazun ni, eta Jaunak eman zizkidan nere semeak; izan ditezen Israelentzat siñalea eta miraria, Siongo mendian bizi dan ejerzituen Jaunaren aldetik.

19. Baldin berriz esaten badizute: Zoazte galdeak egitera azti ta asmatzalleai, zeñak irringa egiten duten beren sorgindeetan, erantzun zaiezute: Erria ez al da zuzendu bear bere Jaungoikoagana? illakgana joango al da bizien berriak jakitera?

20. Legea da eta kutxa santa, zuzendu bear duten tokia. Eta baldin ez badute itz egiten esan danaren araura, ez da zabalduko berentzat argitasuneko eguna.

21. Eta argia bere etxetik iragoko da gelditu gabe; eta berak eroriko dira lurrera, eta gose izango dira; eta gose diranean suminduko dira, eta madarikatuko dute beren erregea, eta beren Jaungoikoa, eta begiak goirontz altxatuko dituzte,

22. Eta lurrerontz beeratuko dituzte, eta ez dute ikusiko, baizik atsekabea, eta illuntasunak, eta ondamena, eta antsia, eta itzalbeltz persegitzen dituena, eta eginalak eginda ere, ezin libratuko dira bere estutasun anditik.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Lenengoan gutxiago atsekabetuak izan ziran Zabulongo lurra, eta Neptaliko lurra; eta gero txit zauritua izan zan itsas aldea, erreñuen Galilea, Jordandik arontzagokoa.

2. Illuntasunetan zebillan erriak ikusi eban argi andi bat, argitu zitzaien eguna eriotzaren alderri illunean bizi ziradenai.

3. Ugaritu zenduen jendea; baña etzenduen ugaritu poza. Alaere poztuko dirade egunen batean zure aurrean, poztutzen diradenak bezela uztako denboran; edo poztutzen diraden bezela garailariak partitzen dituztenean etsaiai arrapatutako ondasunak.

4. Zeren bere uztarri pisua, eta bizkarrak zauritzen zituen zigorra, eta bere eskateratzallearen eskumakilla, zuk zatitu ziñituen, Madiango egunean bezela.

5. Zeren indarrez eta matxinadarekin arrapatutako gauza guzia, eta odolez mantxatutako soñekoak, izango dira erreak, eta suaren bazka egiñak.

6. Orain jaio zaigunean, aur seme txikitxo bat, eta emana izan zaigunean seme bat, zeñak bere bizkarraren gañean daraman lenendizatea, eta idukiko du izentzat Miragarria, Konsejaria, Jaungoikoa, Sendoa, etortzeko dagoan gizaldiaren Aita, pakeko Prinzipea.

7. Bere agintaritza zabaldua izango da, eta pakeak ez du mugarikan idukiko. Dabiden jargoiaren gañean eseriko da, eta izango da bere erreñuaren jabe sendotzeko, eta indartzeko agintatu erazirik berdintasunari eta zuzentasunari oraindandik betiko. Ejerzituen Jaunaren zeloa da gauza oiek egingo dituena.

8. Aurtiki zuen Jaunak itz bat Jakoben kontra, eta Israelen gañera erori zan.

9. Eta jakingo du Efraimgo erri guztiak, eta Samarian bizi diradenak, zeñak biotzeko andiuste eta urgulleriarekin dabiltzaz esaten:

10. Adrilluak erori dira, baña guk arlanduakin egingo ditugu, pikoarrak ebaki dituzte; baña beren lekuan zedroak ipiñiko ditugu.

11. Bitartean Jaunak egingo du etsaiak Rasin garaitu dezatela, eta bilduko ditu gero nahasian etsaiak berak Efraimen kontra.

12. Sirotarrak eguzkiaren Sortaldetik, eta Filistintarrak Sartaldetik, eta sumintasunez beteak nola egongo diran, iretsiko dute Israel. Oiekin guziokin ere ez da bigunduko bere aserrea, baizik oraindikan bere besoa jasoa dago.

13. Zeren erria ez da biurtu zauritu duenaganontz, eta ejerzituen Jauna ez du billatu.

14. Eta Jaunak desegingo die egun batean burua; eta alla, ala obeditzen dutenai, nola agintzen dutenai.

15. Zarra eta gizon beneragarria, ori da burua: gezurrak saltzen dituen profeta, ori da alla.

16. Eta ala erri oni doatsua deitzen diotenak, engañatzen dutela, nola doatsuak deituak diradenak berak, galduko dirade zorigaitzakin.

17. Argatik ez da samurtuko Jauna erri orretako gaztetxoakin, eta ez du ere idukiko bertako umezurtz, ez andre alargunen errukirik, zeren erri ori guzia da onirudi utsa, eta gaiztoa, eta bere ao guziak ez dute esaten gauza eragabeak baizik. Gauza guzti oiekgatik bere aserrea ez da bigunduko, baizik oraindikan bere eskua jasoa dago.

18. Zeren gaiztakeria erazeki zan, sasi eta arantzak iretsitzen dituen sua bezela, eta baso zarratuan indarra artzen duena, eta kee txit trinkozko txirimola goira dijoana bezela.

19. Lurra dago txit izutua ejerzituen Jaunaren aserreagatik, eta erria izango da suaren bazka bezela; gizonak ez dio barkatuko bere anaiari ere.

20. Eta itzuliko da eskuiera, eta oraindikan gose izango da, eta jango du ezkerrean, eta alaere ezin aseko da, bakoitzak iretsiko du bere besoko aragia. Manassesek Efraim, eta Efraimek Manasses, gero biak Judaren kontra elkartuko dira.

21. Gauza guzi oiekin ere ez dago bigundua Jaunaren aserrea, baizik oraindikan bere besoa jasoa dago.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Ai lege gaiztoak ipintzen dituztenen, eta aspertu gabe sentenzia dongak eskribatzen dituztenen doakabeak!

2. Menderatuteko beartsuak juizioan, eta indar egiteko nere erriko errukarriai, iretsitzeko andre alargunak bazka bezela, eta umezurtzai kentzeko daukatena!

3. Zer egingo dezute, kontuak artzen zazkizuten egunean, eta urrutitikan keñatuaz datorren atsekabean? Zeñgana zuzenduko zerate lagundu dizazuten? Eta non utziko dezute zuen anditasuna,

4. Ez makurtzeko lepoa kateari, eta illen artean ez erortzeko? Gauza guzi oiekin ere ez dago bigundua Jaunaren aserrea, baizik oraindikan bere eskua jasoa dago.

5. ¡Ai Asurren doakabea! Nere aserrearen zigorra eta eskumakilla. Bere eskuan nere aserrea ipiñi det.

6. Bidalduko det itza zaitzen ez duen erri baten kontra, eta nere aserrea biztu duen erri baten kontra, eta emango diozkat aginteak eraman ditzan berari arrapatutako gauzak, eta arrapatu dezan bertan dagoena, eta ipiñi dezala oñazpian zapaltzeko eran plazetako lokatsa bezela.

7. Egia da ez duela berak ala pensatuko, eta bere biotzean ez duela alako usterik idukiko. Bere biotzeko erabakiak bakarrik egongo dirade desegin, eta arrasatzen erreño ez gutxi.

8. Zeren esango duen:

9. Nere jauregitarrak ez al dirade beste anbeste errege? Karkamisi gertatu zaiona ez al zaio gertatu Kalanori? Eta Ematena Arfadi? Samariari ez al zaio irago Damaskorena bera?

10. Nola nere eskuak irabazi zituen idolo askoren erreñuak, era berean garaituko ditut Jerusalengo eta Samariako iduriak ere.

11. Egin nuena Samariarekin eta bere idoloarekin, ez al det egingo Jerusalenekin eta bere iduriakin ere?

12. Baña Jaunak bukatzen dituenean bere obra guztiak Siongo mendian, eta Jerusalenen, berak kontuak artuko diozka Asiriako erregeari bere biotz urgullutsuko asmazioen gañean, eta bere begi arroen andikeriaren gañean.

13. Esan duen ezkero: Nere eskuaren indarrarekin egin nuen, egin nuena, eta nere jakinduriarekin artu nituen neurriak. Eta aldatu ditut errien mugak, eta kendu ditut beren erregeak, eta daukadan eskubidearekin beera aurtiki ditut toki goratuetan zeudenak.

14. Eta errien indarra zan nere sendotasunarentzat txori kabia bat bezelakoa; eta nola biltzen diran utziak izan diran arraultzak, ala jarri nuen nik nere eskubidearen mendean lur guztia, eta etzegoan nork mugitu zezan ego bat, ez nork idikirinokorik, ez nork egin pi-rik.

15. Baña eta aizkora gozatu al liteke berarekin ebakitzen duenaren kontra, edo urgullutuko al da zerra darabillenaren kontra? Ori da jaikiko balitza bezela zigorra eskuan daukanaren kontra, eta arrotuko balitza bezela eskumakilla, zeñ atzenean makilla bat baizik ez dan.

16. Argatik ejerzituen Jaun andiak bialdu die ergitasuna bere gerrari sendoai, eta bere gloriaren azpian egongo da erazekia, su andia bezelako bat, zeñak desegingo dituen.

17. Eta Israelko argia sua izango da, eta bere Santua garra, zeñarekin erazekiko diran eta egongo diran erazekiak Asurko arantza eta sasiak egun bakar batean.

18. Eta baso onetako eta Karmelo onetako gloria izango da ezereztua gorputz eta anima, eta berak (Senakeribek) iges egingo du urduria.

19. Eta baso onetan gelditzen diran zuaitzak kontatu alko dirade gutxi diralako, eta aur batek eskribituta ipiñi alko ditu.

20. Eta orduan izango da noiz Israeltik gelditzen diradenak, eta Jakoben etxekoetatik iges egin dutenak, ez dirade berriz fiatuko zauritzen dituenean, baizik txit gogotik ipiñiko dute beren itxedopena Jaunagan, Israelko Santuagan.

21. Jakoben kutsuak berriz, kutsuak esaten det, Jaungoiko sendoagana itzuliko dirade.

22. Zeren erria, o Israel, itsasoko ondarra adiña balitza ere; bakarrik bee kutsuak dirade nigana biurtuko diradenak, baña ondamenean bizirik gelditzen diradenak, justizian gañez egiñak egongo dirade.

23. Zeren ejerzituen galmena eta gutxituera egingo du Jaunak Judako lur guztian.

24. Argatik au da ejerzituen Jaun Jainkoak esaten duena: Sionen bizi zeran nere erria, ez ezazu Asiriatarren beldurrikan iduki. Berak zigorrarekin joko zaitu, eta altxatuko du zure kontra bere eskumakilla Egiptora dijoan bidetik.

25. Baña denbora gutxiren barrenen, txit laister, bere gaiztariakgatik biztutako nere aserrea, eta nere sumintasuna allegatuko dirade goenengo mallara.

26. Eta ejerzituen Jaun Jainkoak altxatuko du bere besoa Asiriatarren kontra, eta egingo du berakgan, Madiantarrakin Horebko aitzean egin zuen ondamena. Eta nola jaso zuen bere zigorra Itsasgorriaren gañean, era berean jasoko du Egiptoko bidean ere.

27. Eta egun artan kendua izango da zure bizkarren gañetik Asurren pisua, eta bere uztarria zure lepotik, eta uztarria ustelduko da olioaren ugaritasunagatik.

28. Allegatuko da Asiriako erregea Aiaberaño, iragoko da Magronera, Makmasen ipiñiko du bere bagakia.

29. Iragoko dira albait ariñen, eta Gaban ipiñiko dituzte beren etzauntzak, Rama dago arritua, Saulen Gabaat dijoa agudo igesi.

30. Sendo deadar egin ezazu, o Galimgo erria, begiratu ezazu zugatik, o Laisa; eta baita zuk ere Anatot gaixotxoa.

31. Medemena joan da beste toki batera. Zaudete sendo Gabimen bizi zeratenak.

32. Oraindikan badago egun bat Noben gelditutzeko. Andik jasoko du Senakeribek bere eskua, mugituko du keiñatzen dituela Siongo alabaren mendia eta Jerusalengo muñoa.

33. Baña ona non ejerzituen Jaun goratuak desegingo duen sendo, lurrezko ontzia, eta goianteak izango dira ebakiak, eta goian daudenak beeratuak.

34. Eta baso zarratua burniarekin ebakia izango da, eta Libano bere zedro goratuakin eroriko da.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Eta Jeseren sustraitik zigor bat aterako da, eta bere sustraitik igoko da lora bat.

2. Eta bere gañean egonga da atsedetera Jaunaren Espiritua, jakinduriako eta aditzako espiritua, konsejuko eta sendotasuneko espiritua, jakindeko eta biotz beratasuneko espiritua.

3. Eta Jaunaren beldurrezko espirituaz betea geldituko da. Ez du berak juzgatuko, begien aurrean kanpotikan agiri danetik, eta ez du ere iñor kondenatuko, esaten dutela aditzen danagatik bakarrik,

4. Baizikan juzgatuko ditu beartsuak justiziarekin, eta artuko du zuzentasunarekin lurreko umillak zaitzea; eta bere aoko zigorrarekin lurra zaurituko du, eta bere ezpañetako asnasarekin ilko du gaiztoa.

5. Eta justizia izango da bere gerri inguruko lokarria; eta fedea, uala zeñarekin lotuko duen bere gorputza.

6. Otsoa bildotsarekin batean biziko da, eta katamotza egongo da etzinda antxumearen aldean. Txala, leoia eta ardia elkarrekin ibilliko dirade, eta aurtxo bat izango da beren artzaia.

7. Idiskoa eta artza bazka bat batzuetara joango dirade; eta beren umeak toki batean etzinda egongo dirade: eta leoiak lastoa jango du idiak bezela.

8. Eta oraindikan titia artzen duen aurra jostaketan ariko da suga lotari baten zuloan; eta titia kendu berri dagoenak eskua sartuko du ersugearen ezkutatokian.

9. Berak ez diote iñori kalterik egingo eta ez dute ere iñor ilko nere mendi santu guztian, zeren Jaunaren ezagerak beteko du lurra, urak itsasoa betetzen duten bezela.

10. Egun artan erreñuak ots egingo diote Jeseren sustraiko zigor, ipiñita dagoenari siñaletzat errientzat, eta bere obia gloriaz betea izango da.

11. Eta egun artan luzatuko du Jaunak berriz bere eskua erakarteko bere erriko kutsu, gelditzen diradenak Asiriatarren artean, eta Egipton, eta Fetrosen, eta Etiopian, eta Elamen, eta Senaarren, eta Ematen, eta itsasoko ugartetan.

12. Eta zutik ipiñiko du estandarte bat erreñuen artean, eta bilduko ditu Israelko igeslariak, eta batuko ditu Judako barreiatuak lurraren lau aldamenetatik.

13. Eta kendua izango da Efraimgo zeloa, eta desegiñak izango dirade Judaren etsaiak. Efraimek ez du Judaren ondamurikan idukiko, eta Judak ez dio gerrarik egingo Efraimi.

14. Eta egan joango dirade elkarrekin Filistintarren gañera itsasoaren aldamenetik, eta batean arrapatuko diozkate beren ondasunak eguzkiaren sortaldeko semeai. Idumea eta Moabtarrak txit laister izango dirade beren eskuz arrapatuak, eta obedituko diozkate Ammonen semeak.

15. Jaunak leortuko du Egiptoko itsasoaren mingaña, eta luzatuko du bere eskua ibaiaren gañera bere aize sendoarekin, eta bere zazpi aoetan zaurituko du, alako eran non irago alko dan oñustu gabe.

16. Eta geldituko zaie iragotzeko bidea nere erriko kutsu Asiriatarrak bizirik utzi zituztenai, Israelek iduki zuen bezela Egiptoko lurretik atera zan egun artan.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta egun artan esango dezu: Alabatuko zaitut, o Jauna, zeren nerekin aserretua zeunden, eta urrutiratu zan zure sumintasuna, eta gozatu nazulako.

2. Ona emen non Jaungoikoa dan nere salbatzallea. Itxedopenez beterik biziko naiz, eta ez naiz beldur izango, zeren nere sendotasuna eta nere gloria Jauna dan, eta berak bere kontura artu du nere salbazioa.

3. Pozik aterako dezute ura Salbatzallearen iturrietatik;

4. Eta egun artan esango dezute: Eman zaiozkazute eskerrak Jaunari, eta bere izenari ots egin zaiozute, adirazi zazkiezu jendeai bere asmazioak. Oroitu zaitezte bere izena goratua dala.

5. Eman zaiozkazute alabantzak Jaunari, gauza andiak egin dituelako: zabaldu ezazute au mundu guzitik.

6. Pozez goragoraka ari zaite, eta kantatu itzatzu alabantzazko kantak, o Siongo etxea; zeren andia agertzen dan zure erdian Israelko Santua.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Babiloniaren kontra berri garratz, Isaias Amosen semeari zerutikan adirazia.

2. Illuntasunaz estalia dagoen mendiaren gañean jarri ezazute estandartea, altxatu ezazute boza, luzatu ezazute eskua, eta gialariak ateetatik sartu bitez.

3. Nik eman dieztet nere aginteak, prestatuak dauzkadan gerrariai, ots egin diotet nere aserrean nere gudari sendo bozkarioz beteai nere gloria zaitzeko.

4. Jendetza andiaren, erri askorena bezelakoaren murmurra mendien gañean, prinzipeen, eta bilduak dauden erreñoen boz nahasiak. Ejerzituen Jaunak eman diozka bere aginteak gudaritegi gerralariari,

5. Zeñ datorren toki urrutietatik munduaren atzenetik, Jauna eta bere aserreko erremientak datoz lur guztia soildua utzitzera.

6. Ari zaitezte sendo alarauka, zeren Jaunaren eguna aldean dan: ondamena izango da Jaunaren eskuarena bezelakoa.

7. Argatik beso guziak beren bizitasuna galduko dute, eta gizonen biotz guztiak indargatuko dirade,

8. Eta izango dirade autsiak. Ikusiko dirade oñazez eta alaz beteak, eta suspirioz egongo dirade aurregiten ari dan andrea bezela. Bakoitza arritua geldituko da besteari begiratuta, beren arpegiak erkituak eta beltzituak geldituko dirade.

9. Begira ezazute allegatzera dijoala Jaunaren eguna, egun izugarria, eta aserrez, eta iraz eta sumitasunez betea, lurra eremu biurtzeko, eta kentzeko beratatik bekatariak.

10. Zeren zeruko izarrik ederrenak ez dute emango oi duten beren argia, illunduko da eguzkia bere irteeran, eta illargiak ez du bere argiarekin argi egingo.

11. Eta kastigatuko det lurra bere gaiztakeriakgatik, eta gizon biurriak beren biurrikeriagatik; eta jarriko diot bukaera fedegabeen urgulleriari, eta azpiratuko det sendoen arrokeria.

12. Gizona izango da balio andiagokoa urrea baño, eta ongien garbitutako urrea baño.

13. Gañera nastuko det zerua, eta lurra bere opoetatik mugituko da; ejerzituen Jauna aserretua dagoelako, eta zeren dan bere aserre eta bere sumintasuneko eguna.

14. Eta iges egingo dute oreñak bezela, eta izango dirade nork bildu ez dagoen ardiak bezela. Bakoitza bere errira itzuliko da, eta iges egingo du bakoitzak bere lurrera.

15. Errian arkitua dan guztia illa izango da, eta berari laguntzera dijoazen guziak, ezpataz galduak izango dirade.

16. Beren aurrak beren begien aurrean zatituak izango dirade; beren etxeetan daukatena izango da arrapatua, eta beren emazteak indarrez galduak.

17. Ona non nik jasoko ditudan beren kontra medoarrak, zeñak ez duten billatuko zillarrik, eta ez duten ere urrerik naiko;

18. Baizik ilko dituzte aurrak saietakin, eta ez dute idukiko aurdun dauden andren urrikaltasunik, eta beren semetxoai ere ez die barkatuko.

19. Eta arako Babilonia ospatsua, beste erreñoen artean gloriaz betea, eta zeñatan alako moduan urgullutuak zeuden Kaldeatarrak, izango da, Sodoma eta Gomorra bezela, Jaunak desegiña.

20. Beñere berriz ez da iñor bertan bizituko, eta ez da berriz egiña izango mendeen mendeetan; eta Arabiatarrak berak ere ez ditu jarriko bertan bere etzauntzak, eta artzaiak ere ez dituzte egingo saletxeak,

21. Baizik an atsedengo dute pistiak, eta beren etxeak sugulnaz beteak egongo dirade, eta an biziko dirade saieak, eta an jostaketan ariko dirade illetsuak.

22. Eta bere jauregi erorien artean adituko dirade ontzen kantak, eta sirenak atsegiñezko toki aietan.

AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Aldean dago denbora onen allegaera, eta bere egunak ez daude urrutian. Zeren atzenean ere, Jaunak idukiko du Jakoben urrikaltasuna, eta oraindikan Israelko batzuek autuko ditu, eta beren jaioterrian atsedeneraziko diote. Oiekin arrotza bilduko da, eta Jakoben etxeaganatuko da.

2. Eta erriak ostatuz artuko dituzte, eta lagunduko diete beren errira; eta Israelko etxea izango da beren jabe, Jaunaren lurrean, morroi eta neskame mendekotzat. Eta arrapatuko dituzte, berak arrapatu zituztenak, eta mendean idukiko dituzte, berai indarrez kentzen zienak.

3. Eta denbora artan, Jaungoikoak ematen dizunean grazia atsedetzeko zure lanetatik, eta zure estutasunetik, eta egon ziñan mendetasun gogorretik,

4. Kantatuko dezu kantatxo au Babiloniako erregearen kontra, eta esango dezu: Nola da ez agertzea onezkero eskalea, eta kotiza aitua izatea?

5. Jaunak zatitu du gaiztoen zetroa, agintzen zutenen zigorra;

6. Aserretuta erriak azotatzen zituena, egiten zieztela sendatu ezin litezkean zauriak; eta erreñuak mendetasun txit gogorrean zeuzkana, eta laztasunarekin gaizki tratatzen zituena.

7. Lur guztia dago ixillik eta pakean, eta jostaketan ari da, eta arkitzen da bozkarioz.

8. Libanoko abeto eta zedrorañokoak jostatzen dirade zure bizkarretik. Il intzanetik onera, esaten dute, ez datork iñor ere gu ebakitzera.

9. Infernua an bean mugitu zan zuri bidera irten zizunean; bialdu zizkizun goianteak. Jaiki ziran bere tronuetatik lurreko prinzipe guziak, erreñoetako prinzipe guziak.

10. Guztiak, zuzentzen dizutela itza, esango dizute: Beraz zu ere gu bezela zauritua izan zera, eta izan zera egiña gure antzekoa?

11. Zure urgulleria infernuetaraño beeratua izan da, zure gorpua lurrean datza, idukiko dezu usteltasuna koltxoetzat, eta zure estalkia arrak izango dirade.

12. Nola erori ziñan zerutik, o artizar, goizean alako argitasunak botatzen ziñituena? Nola izan ziñan lurrera aurtikia, zu, erreñuen galmena izan zerana?

13. Zu, esaten zenduena zure izotzean: Zerura igoko naiz, Jaungoikoaren izarren gañetik jasoko det nere tronua, eseriko naiz testamentuko mendiaren gañean, zeñ dagoen ifarreko aldamenean.

14. Iragoko det odeien altuera, Jaungoiko txit goratuaren antzekoa izango naiz,

15. Baña zu izan zera aurtikia infernura, lurlizearen zakonenera.

16. Ikusten zaituztenak makurtuko dirade zuganontz, eta begiratuko dizute. Eta, au ote da, esango dute, lurra matxiñadan ipiñi zuen, erreñuak dardaraz jarri zituen,

17. Mundua eremu egiñik utzi zuen, erriak desegin zituen, eta katibu zeuzkanai beñere karzelarik idiki etzioten gizon hura?

18. Erreñuetako errege guztiak, guztiak il ziran, eta izan ziran gloriaz obiratuak; bakoitza dago bere familiaren obian atsedeten,

19. Baña zu aurtikia izan zera zure obitik urrutira, zur, deus balio ez duen eta zikin bat bezela, eta nastua, gorpu usteldua bezela, ezpataz illak izan ziradenakin, eta obiaren zakonenera jetxi ziradenakin.

20. Etzera zu beren lagun izango, ez da obian ere; desegin dezulako zure jaiotlurra; eta galduerazi diozulako zure erriari. Gaizkigillen arrazaren oroipenak ez du iraungo.

21. Gertutu zaitezte iltzeko beren semeak, beren gurasoen gaiztakeriagatik, bada ez dirade aziko, eta ez dirade ere lurraren jabe izango, eta ez dute erriz beteko munduaren gaña.

22. Zeren ni jaikiko naiz beren kontra, esaten du ejerzituen Jaunak, eta desegingo det Babiloniaren izena, eta kutsuak, eta birternea, eta bere arraza guztia, esaten du Jaunak.

23. Eta ipiñiko det trikuen etzauntz, eta ur geldien putzu egiñik, eta garbituko det eskoba ondatzalle batekin, esaten du ejerzituen Jaunak.

24. Juramentu egin zuen ejerzituen Jaunak, esaten zuela: Nola pensatu nuen, ala izango da, eta nola erabaki nuen nere adimenean, ala gertatuko da.

25. Desegingo det Asiriatarra nere lurrean, eta nere mendien gañean zapalduko det. Onenbesterekin kendua izango zaio Israeli uztarria, eta bere bizkarretatik zama hura.

26. Au da pensatu eta erabaki dedana lur guziaren gañean, eta onela luzatuko det eskua erreñu guzien gañera.

27. Ejerzituen Jaunak erabaki du, eta, zeñ da galerazi dizaiokena? Bere besoa altxatua dago, eta nork gelditu dezake?

28. Akaz erregea il zan urtean, albista garratz au egiña izan zan:

29. Etzaite txit poztu, o Filistintarren erria; zauritzen zinduen zigorra zatitua izan dalako, zeren sugearen jatorritik ersugea jaioko da, eta onegandik irtengo danak, egaztiak iretsiko ditu.

30. Eta eskaleen artean lenbizikoak ogia idukiko dute, eta beartsuak beldur gabe atsedengo dute. Eta zure arrazari, o Filistintarra, gosez illeraziko diot, eta zugandik gelditzen dan guztia desegingo det.

31. Alarauka ari bitzate ateak, sendo egin bitzate zure deadarrak erriak, Palestina guzia lurrera eroria dago, zeren ifarraldetik dator kedia, eta ez da egongo bere zaldizko taldetik iges egin dezakeanik.

32. Eta, zer erantzun emango zaiote erreñoen bialkiñai? Jauna dala, Sion egin zuena eta bere erriko umillak beragan itxedotzen dutela.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Berri garratza Moaben kontra. Gau batean Ar, bere errege erria arrasatua izan zalako, Moab mututua gelditu da. Gau batean bere murrua arritua gelditu zalako, Moab mututua gelditu da.

2. Errege etxea, eta Dibon guztia igo dira toki goratuetara, negar egiteko Naboren gañean, eta Medabaren gañean. Moabek alarau andiak egin ditu. Buru guziak moistuak ikusten dirade, eta bizar guziak kenduak.

3. Dabiltza beren karrikaetatik zakuz jantzita, beren sabaien gañean, eta beren plazaetatik bakarrik aditzen dirade txillioak suspirioakin batean.

4. Hesebon eta Elealek deadar andiak egingo dituzte, Jasaraño beren boza aditua izan da. Ikusmen onetara Moabko gerrariak berak txillioka ariko dirade, beretatiko bakoitzaren anima negarrez egongo da bere egoeraren gañean.

5. Nere biotza suspirioetan egongo da Moabgatik. Bere irozleak Segorreraño iges egingo dute iru urteko bigaiaren gisara. Luithko aldapatik igoko da bakoitza negarrez, eta Oronaimgo bidetik joango dirade deadarrez beren penagatik.

6. Nemringo urak utziak izango dirade. Argatik leortu zan belarra, umeldu ziran birterne guziak, berdetasun guzia galdu zan.

7. Beren gaiztakerien anditasunaren araura kastigatuak izango dirade. Saratzen errekara eramanak izango dirade.

8. Deadarrak adituak izan ziran inguruan Moaben muga guztietan. Beren txillioak Galimeraño allegatu ziran, eta beren ojuak Elimgo putzuraño.

9. Zeren Dibongo urak Moabtarren odolez beteak dauden, bada etorri eraziko diotet zorigaitzai Dibonen gañera aziaz; eta Moabtik iges egin izango dutenen gañera, edo errian gelditu diradenen gañera, leoiak bialduko ditut.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Bialdu ezazu, o Jauna, Bildots lurreko agintaria, eremuko aitzetik Siongo alabaren mendiraño.

2. Baña, ai! Gertatuko da Moabko alabak egotea, Arnonen iragoeran, izututa igesi dijoan egazti bat bezela, eta kabiatik kanpora egan egiten duten txorikumeak bezela.

3. Akonsejatu zaite, galde ezazu gertakari onen gañean, itzala egin zaiezu igesi dijoazenai; alako moduan, non, ezkutatu ditezela egunaren erdian, gau illun batean bezela; ezkutatu itzatzu igesi dabiltzanak, eta ez itzatzu jarri etsaien eskuan galduta dabiltzanak.

4. Iduki itzatzu ostatuz zure aldean nere seme igesi dabiltzanak. Izan zaite zu, o Moab, igeslekua ondatzallearen kontra, zeren autsa bezela dago onezkero ezereztua; galdu zan atzenik doakabe hura; izutua dago, lurra kalkatzen zuena.

5. Eta fundatuko da tronu bat urrikaltasunaren gañean, eta eseriko da bertan Dabiden etxean Juez zuzen eta justizia zale bat, zeñak bakoitzari agudo emango dion zuzen dana.

6. Aditu degu itz egiten Moabko urgulleriaren gañean, bera da txit arroa. Bere urgulleria, bere arrokeria, eta bere errutasuna dirade bere indarrak baño andiagoak.

7. Argatik Moab egongo da alarauka Moaben kontra, eta bertan bizi diraden guztiak alarauka ariko dirade. Suan erreko adrilluz eginda beren murrikak dauzkatelako poztutzen diradenai adirazi zaiozkazute beren atsekabeak.

8. Zeren Hesebongo uriaurreak onezkero eremutuak daude, eta erreñuetako prinzipeak arrasatua izan da Sabamako mastia, zeñaen sarmentuak izan dirade eramanak Jazerreraño, eta gelditu ziran maspurukai gutxiak, irago ziran itsasoaren beste aldamenera.

9. Argatik nastuko ditut nere negarrak Jazerrenakin, negar egingo det Sabamako mastiagatik, nere malkoakin bustiko zaitut guztiori, o Hesebon, zu ere, o Eleale, zeren etorri zan erasoa, eta aitu zan mendainak kalkatzen dituztenen, eta uztak traillatzen dituztenen pozezko deadartea.

10. Eta Karmelotik iges egingo du bozkarioak eta gozotasunak, eta ez da onezkero egongo mastietan jostaketarik, ez bozkariorik; eta dolarean matsai ardoa ateratzen zienai, ez die berriz aterako, eta ez dirade onezkero adituko, dolarean kalkatzen ari oi ziradenen kantak.

11. Argatik nere sabelak eta nere erraiak ots egingo dute zitarak bezela Moabko zorigaitzak gatik, eta suan erretako adrilluz agindako murru sendoaren ondamenagatik.

12. Eta gertatuko da, Moab bere toki goratuetara zuzentzeaz aspertuta dagoanean, sartuko da bere tenploetan eskariak egiteko; baña ezerere ezin iritxiko du.

13. Denbora da Jaunak Moaben gañean itz au esan zuela.

14. Eta au da orain Jaunak esaten duena: iru urteren barrenen, urte osoak mirabearen urteak bezela, kendua izango zaio Moabi bere erri andi guztiaren gloria, eta gutxi geldituko dira, eta oiek txikiak eta batere ez sendoak.

AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Berri garratza Damaskoren kontra. Ona emen non Damaskok utziko dion erri izateari, eta geldituko dan arri montoi batean, etxe desegin batean.

2. Aroerko erriak utziak izango zaiezte, beren etzauntzak an idukiko dituzten abereai, eta ez da izango nork berak andik aurtiki.

3. Eta Efraimek galduko du bere sostena, eta aituko da Damaskoko erreñua, eta Siriako kutsuakin izango da, Israelko seme gloriaz beteakin izan zana. Galduko dirade, esaten du ejerzituen Jaunak.

4. Bada egun artan Jakoben gloria gutxituko da, eta bere aragiaren gizentasuna argaldu.

5. Eta gertatuko da, uztan gelditu ziran galburuak batek biltzen dituenean, eta bere eskuarekin artzen dituenean bezela; edo Rafaimgo ibarrean galbatzallen ondorik galburu billa dabillana bezela.

6. Eta bakarrik geldituko da beratatik mordo bat, edo beste mats batzallean ondokoentzat; edo nola oliboa astinduta gelditzen diran bi edo iru azeituna errama baten puntan; edo lau edo bost frutua ematen duen erramaren garaiean, esaten du Israelko Jaun Jainkoak.

7. Egun artan umillatuko da gizona bere Egillearen aurrean, eta bere begiak itzuliko dira Israelko Santuari begiratzeko;

8. Eta ez da auzpeztuko bere eskuen lana izan ziraden aldaren aurrean, eta ez die jaramonik egingo berak egiñak izan ziraden idoloen baso eta tenploai.

9. Egun artan utziak izango dirade bere erri murrutuak, izan ziraden bezela goldeak eta uztak Israelko semeak allegatu ziradenean, era berean izango zera zu ere utzia.

10. Aztu ziñalako Jaungoiko zure salbatzallearekin, eta zure gordetzalle almentsuarekin oroitu etziñalako. Argatik ipiñiko dezu landare ona, eta ereingo dezu azia, jende arrotzentzat izango dana.

11. Eta zuk ipiñi zenduen landaretik basa mats bat irten zan; baña arrapatua izango zatzu uzta bildu bear zanean, eta onek pena andi bat emango dizu.

12. Ai erri talde orien, itsasandi baten baga ugarien antzekoaren doakabea, eta ejerzitu nastu, arin dijoazen uren otsaren antzeko orrena!

13. Erriak egingo dute ots bat, ugolde bateko urena bezelakoa, baña Jaungoikoak errierta egingo die, eta berak urrutira iges egingo dute, eta barreiatuak izango dirade, mendien gañean autsa aizearekin dan bezela.

14. Ez dezute ikusten nola ikaratzen zuten arratsaldeko denboran? Badator goiza, eta onezkero ez daukate izaterik. Alakoa da gu ondatu gaituztenak idukiko duten ordaña; alakoa itxedotzen dioten izaera gure gauzak arrapatu dizkigutenai.

EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Ai arako lur, eskillatxo egodun, Etiopiako ibaien andiko aldamenean dagoanaren doakabea!

2. Zeñak bialtzen dituen mandatariak itsazoz papirozko ontzietan, zeñak korrika dijoazen uren gañean. Zoazte, mandatari agudoak, mugitua eta zatitua dagoen erreñura; arako erri besteak baño beldurgarriagora; arako erreñu itxedotzen duenera, eta bitartean kalkatua danera, zeñaen lurra janaz dijoazen ibaiak.

3. Munduan bizi zeraten guztiak, zuen errian egotez zaudetenak, mendien gañean estandartea altxatua danean, zuek ikusiko dezute, eta adituko dezute tronpetaren ots zurrungatua.

4. Zeren ona emen Jaunak esaten didana: Ni geldi egongo naiz, eta egongo natzaio begira nere esertokitik, egunaren erdiko argi ederra ikusten dan bezela, eta izango naiz intzezko odei bat uztako denboran bezela.

5. Zeren uzta baño lenago guztia loretu zan, eta guztia moteatuko da denbora baño lenago, eta bere zortenak aiotzarekin ebakiak izango dira, eta gelditzen dana izango da zatitua eta aurtikia.

6. Eta bat batean utziak izango zaiezte mendietako egaztiai, eta lurreko pistiai; eta uda guztian egongo dirade egaztiak beren gañean, eta bere gañean iragoko dute negua lurreko pisti guztiak.

7. Denbora artan, erri berezitu eta zatitua; erri beste guztiak baño beldurgarriagoa, itxedotzen eta geiago itxedotzen dagoan erreñua, eta bitartean kalkatua dana (zeñaen lurra dagoen ibaiak erorierazia) eramango diozka doañak ejerzituen Jaun, dagoenari, ejerzituen Jaunaren beraren izenari ots egiten zaion tokian, Siongo mendian.

EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Berri garratza Ejiptoren kontra. Ona non Jauna jarriko dan odei arin baten gañean, eta sartuko da Egipton, eta bere aurrean nastuko dira Egiptoko idoloak, eta Ejiptoren biotza txit ustelduko da bere bularrean.

2. Eta egingo det eskuetara etorri ditezela Egiptoarrak Egiptoarren kontra, eta gudatuko da anaia bere anaiaren kontra, eta adiskidea bere adiskidearen kontra, erria erriaren kontra, eta erreñua erreñuaren kontra.

3. Eta Egipto geldituko da espiritu gabetanik bere erraietan, eta nastuko ditut bere erabakiak, eta galdeak egingo diozkate beren idoloai, eta beren aztiai, beren elizasmatzalle ta mirarigin beltzai

4. Eta ipiñiko det Ejipto Jaun gogorren mendean, eta errege odolgiro batek aginduko diote, esaten du ejerzituen Jaun Jainkoak.

5. Eta itsasoa geldituko da bere ura anbeste igotzen ez dala, eta ala gutxituko da Nilo ibaia, eta etorriko da leortzera.

6. Eta desagertuko dira ibaiak, gutxituaz joango dira, aliketa leortu arteraño lurresien artetik dijoazen odiak, kañabera eta ia mastrikatuko dira.

7. Ibaiaren erretena ur gabe geldituko da, bere jatorria daukan toki artatik, eta erregadioko alor guztia sikatuko da, leortuko da, eta galduko da.

8. Eta arraitzaleak triste ibilliko dirade, eta negar egingo dute amua ibaiean botatzen duten guztiak, eta uretan sareak zabaltzen dituztenak, penaz desegingo dira.

9. Geldituko dira nastuak linoan lanean ari ziradenak, eta txarranatxatzen zutenak, eta berarekin eun fiñak egiten zituztenak.

10. (Zeren erregadioko tokiak ezade gabe geldituko diran) eta triste arraiak artzeko putzuak egiten zituztenak.

11. O zeñ jakinduriagabeak diraden Tanisko prinzipeak! Faraonen konsejari jakintsuak eman diote eragabeko konseju bat. Nola esango diozute Faraoni, esan dezala: Ni naiz jakintsuen semea, ni naiz anziñako erregeen semea?

12. Non daude orain zure jakintsuak? Adirazi ta esan dizazutela, ejerzituen Jaunak zer daukan erabakita Ejiptoren gañean.

13. Tanisko prinzipeak jakinduria gabeak izatera itzuli dirade, nastu eta illunduak daude Memfisko prinzipeak, engañatu dute Ejipto, beren errien baluartea.

14. Jaunak isuri du beren artean zorabillako espiritua, eta berakgaitik erratuaz dijoa Egipto, egiten dituen gauza guzietan, nola ez dakian ordi batek zer iragotzen zaion bomitoan dagoanean.

15. Eta Ejiptok ez du egingo oñik, ez bururik daukan gauzarik, ez agintzen duenak, ez obeditzen duenak.

16. Egun artan Ejiptoarrak izango dira emakume beldurtiak bezelakoak, eta geldituko dira zentzugabeko eta ikarakor egiñik, ejerzituen Jaunaren eskua mugitzean, zein aurtikiko duen beren kontra.

17. Eta Judako lurra izango da Ejiptoren izua; eta bakoitza berarekin oroitzean, dardar jarriko da, ejerzituen Jaunak aren alde egin zituen asmazioak gatik.

18. Egun artan egongo dira Ejiptoko lurrean bost erri Kanaango izkuntzan itz egingo dutenak, eta juramentu egingo dutenak ejerzituen Jaunagatik. Bataren izena izango da Eguzkiaren erria.

19. Egun artan Jaunaren aldarea egongo da Ejiptoko lurraren erdian, eta Jaunaren garaisena bere mugetaraño,

20. Zeñ izango dan Ejiptoko lurrean ejerzituen Jaunari emandako mendetasunaren señale ta aitorrera; zeren Jaunari ots egingo diote mendean dauzkanaren kontra, eta ark bialduko diote libratuko dituen salbatzalle, eta gordetzalle bat.

21. Eta Jauna izango da Ejiptok ezagutua, eta ijitoak aitortuko dute Jauna egun artan, eta honratuko dute doañ eta eskeñtzakin, eta egingo diozkate botoak, eta kunplituko dituzte.

22. Eta Jaunak zaurituko du Ejipto plagakin, eta sendatuko du, eta Jaunagana biurtuko dirade, eta bigunduko da berakin eta sendatuko ditu.

23. Egun artan egongo da idikia bidea Ejiptotik Asiriara, eta Asiriotarra sartuko da Ejipton, eta ijitoak Asirian, eta elkar adituko dira, eta serbituko dute Jauna ijitoak Asiriarrakin.

24. Egun artan Israel izango da bitartekoa ijitoen eta Asiriarren artean; bendizioa egongo da lurraren erdian,

25. Zeñ bedeikatu zuen ejerzituen Jaunak, esaten zuela: Bedeikatua Ejipto nere erria, eta Asiriatarra, zeñ dan nere eskuen lana; baña nere herenzia Israel da.

OGEIGARREN KAPITULUA

1. Tartan, Sargon Asiriatarren erregeak bialdua, Azotora allegatu zan, eta oni eraso zion, eta artu zuen urtean,

2. Denbora artan beratan, itz egin zion Jaunak Isaias Amosen semeari, esaten zuela: Zoaz, eta erantzi ezazu soñean daukazun zakua, eta kendu itzatzu zure oñetakoak. Eta egin zuen ala, zijoala billosik, eta ortozik.

3. Eta Jaunak esan zuen: Nola nere serbitzari Isaias ibilli zan billosik eta ortozik, señalatu eta adirazten zuela iru urteko gerra Ejiptoren kontra, eta Etiopiaren kontra,

4. Ala Asiriatarren Erregeak ere katibu bere aurrean eramango ditu Ejiptoarrak, eta iragoko ditu Etiopiakoak, gazteak eta zarrak, billosik eta ortozik, eta esergarriak agirian dituztela, Ejiptoren lotsarirako.

5. Eta nere errikoak beldurturik egongo dira, eta lotsatuko dira beren itxedopena ipiñi zutelako Etiopian, eta beren gloria Ejipton.

6. Eta isla artan bizi diradenak esango dute egun artan: Begira or ziradenak gure itxedopena, eta nolako gizonakgana zuzendu giñan laguntasunaren billa, libratu gindezen Asiriatarren erregeagandik. Nola bada guk iges egingo dezakegu?

OGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Berri txarra itsasoko eremuaren kontra. Eremu batetik, lur izugarri batetik dator etsaia, Egoetik aize txirimolak datozten bezela.

2. Ikusketa garratz bat adirazia izan zat. Sinisgaitza danak, desleialkiro egiten ditu gauzak; ondatzalleak ondatzen du. Jarri zaite bidean, o Elam, ipiñi zaiozu inguru esia, o Medotarra. Nik emango diet atsedena, berak negarrerazitzen zien guztiai.

3. Argatik minberatuak daude nere erraiak; eta nago aurregiten ari dan andre baten irudiko larritasun batean, beldurtu nintzan adituaz; eta ikusi nuenean, asnasa gabe gelditu nintzan.

4. Biotza urtutzen zat, izuz arritua gelditzen naiz. Babilonia, Babilonia nere maitea da ni ikaratua ipintzen nauena.

5. Jarri ezazu maia, zaude zelatan beatoki batetikan, zuek, o prinzipe, jaten eta edaten zaudetenak, jaiki zaitezte, eldu zaiezute eskutarmai.

6. Zeren Jaunak itz egin dit onela: Zoaz, eta ipiñi ezazu zelatari bat, eta ikusten duen guztiaren berri eman dezala.

7. Eta berak ikusi zituen gerrako bi gurdi, zaldun birekin, bata asto baten gañean, eta bestea gamelu baten gañean, eta denbora luzean egon zan berai adi, eta begira arretarekin.

8. Eta deadar egin zuen leoe batek bezela: Ni naiz Jaungoikoaren aginduz nagoan zelataria. Egunaz beti nago emen, eta iragotzen ditut nere tokian gau osoak.

9. Ona emen non datozten bi zaldizkoak beren zaldietan, eta gañera jarraitu zion itz egiteari, eta esan zuen: Erori zan, Erori zan Babilonia, eta bere jainkoen irudi guztiak lurraren kontra zatituak izan dirade.

10. O zuek, nere tralla, zuek nere larrañako semeak, ejerzituen Jaunagandik, Israelko Jaungoikoagandik aditu dedana, ori adirazi dizutet.

11. Berri garratza Dumaren kontra Seirtik deadarrez daude. Zelataria, Gau onetan zer gertatu da? Zelataria, Gau onetan zer gertatu da?

12. Zelatariak erantzuten du: Goiza etorri da, eta gaua etorriko da. Billatzen badezute, gogotik billatu ezazute; biurtu zaitezte, eta atozte.

13. Berri gogorra Arabiaren kontra: Zuek lo egingo dezute gauaz basoan, Dedaningo bidearen gañean.

14. Bizi zeratenak Egoe aldetik, irten zaitezte bidera, eraman zaiozute ura egarri danari, eta joan zaitezte ogiarekin igesi dijoanari laguntzeko.

15. Zeren igesi dijoaz ezpata billosagandik, gañean daukaten kanibetaren izutik, punterian jarria dagoen uztaiaren izutik, guda odoltsuaren izutik.

16. Zeren au da Jaunak esaten didana: urte beteren barrenen, urte bete egin eginaren, morroi batena bezela, iges egingo du Zedarko gloria guziak.

17. Eta Zedarko fletxari sendoetatik geldituko diranak gutxi izango dira, zeren Israelko Jaun Jainkoak ala esan duen.

OGEITA BIGARREN KAPITULUA

1. Berri garratza Ikusketako ibarrarentzat. ¿Zer da zuk ere daukazuna, zeren zure jende guzia sabaietara igotzen dan?

2. Erri matxinadaz betea, erri txit jende askokoa, bozkarioko erria. Zure illak etziraden galdu ezparen puntaz, eta etziraden ere gudan erori.

3. Zure andizki guziak elkar adituta iges zuten, eta izan ziraden garratz lotuak. Arkituak izan diraden guziak, izan dirade batean kateez lotuak, eta erbestetuak urrutira.

4. Argatik esan nuen: Alde zaitezte nigandik, nik negar mingoitzak egingo ditut, etzaitezte ari ni gozatzen nere eriko alabaren ondamenean;

5. Zeren au dan ilkintzako, eta galmeneko, eta negarretako egun ejerzituen Jaun Jainkoak izendatua ikusketako ibarrarentzat. Bera dijoa barrendik aitzurtuaz murruaren zimenduen billa, eta mendiaren gañean bere gloria agertzen du.

6. Eta Elamtarrak artu du berarekin fletxatokia, eta gerrako gurdia zaldidunarentzat, eta deseseki du paretetik lurresia.

7. Eta zure ibar ederrak egongo dira gerrako gurdiz estaliak, eta zaldidiaren etzauntzak jarriko dira atean.

8. Eta itxiko da Judako kortina, eta joango dira egun artan Basoko jauregiko armen billan.

9. Eta ikusiko dituzute Dabiden erriko bretxak, zeñak txit asko diraden; eta zarratuteko bildu dituzute beeko putzuko urak,

10. Eta kontatu dituzute Jerusalengo etxeak, eta batzuek bota dituzute, murruak sendotzeko.

11. Eta egin dezute erreten bat murru bien erdian, putzu zarreko ura biltzeko, eta ez dituzute altxatu begiak bere Egilleaganontz, eta urrutitik bederik, ez dezute begiratu egin zuenagana.

12. Eta ejerzituen Jaun Jainkoak ots egingo dizute egun artan negarrera, eta suspirioetara, eta burua moistutzera, eta zakuz jantzitera.

13. Baña ona non zuek ez dezuten idikiko zuen gogorazioa beste gauzatan, baizik dantzetan, eta bozkarioetan, eta txalak iltzen eta ariai lepoak ebakitzen, eta beren aragiak jaten, eta ardoa edaten, esaten dezutela: Jan dezagun eta edan dezagun zeren biar ilko gera.

14. Eta nere belarriai adirazia izan zaiote ejerzituen Jaunaren boz au: Ez, etzatzute barkatu gaiztakeria au il zaitezten artean, esaten du ejerzituen Jaun Jainkoak.

15. Esaten ere du ejerzituen Jaun Jainkoak: Zoaz arkitzera tabernakuloan bizi dan hura, Sobna, esaten det, tenploko agintaria, eta esango diozu:

16. Zer egiten dezu zuk emen? Edo, zeñ da zuk emen iruditzen dezuna? Zu, obi bat emen prestatu dezuna zuretzat, landu erazi dezuna kontu andiarekin oriopengarri bat toki goratu batean, tabernakulo bat aitzean.

17. Bada jakin ezazu, Jaunak egingo duela eraman zaitzatela emendik, ollar bat eramana dan gisan, eta eramaten duten bezela gizon gaizto bat arpegia estalita.

18. Ipiñiko dizu buruan sasillarrazko koroea, aurtikiko zaitu pelota plaza zabal ta andian bezela, an ilko zera zu, Jaunaren etxearen desonra zerana, eta an geldituko da zure gloriako gurdia.

19. Nik aurtikiko zaitut zure tokitik, eta kenduko zaitut daukazun langintzatik.

20. Eta egun artan deituko diot nere serbitzari Eliazim, Helziasen semeari.

21. Eta jantziko diot zure tunika, eta apainduko det zure gerrikoarekin, eta bere eskuetan ipiñiko det zure eskubidea, eta bera izango da aita bezela Jerusalenen bizi diradenentzat, eta Judako etxearentzat.

22. Eta bere bizkarren gañean ipiñiko det Dabiden etxeko giltza, eta idikiko du, eta ez da izango nork itxi dezakean; eta itxiko du, eta ez da izango nork idiki dezakean.

23. Eta ipiñiko det iltze tinkatua toki sendoan bezela; eta bera izango da gloriazko tronua bezela bere aitaren etxearentzat.

24. Beragandik zinzilika egongo da beren aitaren etxeko gloria guztia, asko eratako alajak, baso txiki mota guzia, katillu fiñetatik asita, musika jotzeko erremientaetarañoko guztia.

25. Egun artan, esaten du ejerzituen Jaunak, ateratua izango da, toki sendoan sartuta tinkatu zan iltzea, eta ausia izango da; eta lurrean jiran ibilliko da, eta galduko da beratatik esekia zegoen guzia; zeren Jaunak ala esan duen.

OGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Berri gogorra Tiroen kontra. Ari zaitezte alarauka, itsasoko ontziak, zeren arrasatua izan dan etxe hura, zeñatatik itsasora irtetzen ziran. Zetimgo lurretik etorri zaiote berria.

2. Zaudete ixillikan, o zuek ugartean bizi zeratenak, o zu ugarte, Sidongo merkatari, itsasoa iragotzen zeudenez betea zeundena.

3. Niloko ur ugariakin azitzen dan alorra, eta ibai onek ematen dituen uztak beretzat ziraden, eta erreñuen merkatu uri allegatu zan izatera.

4. Lotsatu zaite,o Sidon, bada onela itz egiten du itsasoko erri onek, itsasoko agintariak: Zuk, esaten dezun orrek, etzan nigan sortu, eta ez nuen ere aurregin; eta ez nituen ere mutil gazteak azi, eta ez nituen ere iduki donzellak erakutsiak ematen edade loreturaño:

5. Ejiptora berriak allegatzen diradenean, pena artuko dute, Tiroen gañeko gauzak aditzen dituztenean.

6. Irago itzatzute itsasoak, jaso itzatzute zuen deadarrak ugartean bizi zeratenak.

7. Ote da au zuen erria, arako erri, denbora anditik onera gozatzen zana bera zalako txit anziñakoa? Lur arrotzetatik ibiliko dirade, bidaztiz bertan bizi diradenak.

8. Zeñ da alako gauzak erabaki dituena Tiroen kontra, zeñ beste denbora batean zan itsasoko erregiña, zeñaen merkatariak ziran prinzipeak, eta bere tratalariak lurreko argitsuenak?

9. Ejerzituen Jaunak erabaki zuen au, arro guzien urgullua zapaltzeko, eta lotsarian ipintzeko erriko argitsu guztiak.

10. Korrika irago ezazu zure erria ibai bat bezela, o zuk itsasoaren alaba; ez daukazu onezkero gerriko geiago.

11. Jaunak luzatu du bere eskua itsasoaren kontra, mugitu ditu erreñuak, berak eman ditu bere aginteak Kanaamen kontra, bere gerrarirk sendoenak desegiteko.

12. Eta esan du: Etzera onezkero geiago gloria utsez beteko, o birjiña Siongo alaba, lotsatua ikusten zeranean, jaiki zaite, zoaz itsasoz Zetimera, an ere ez dezu atsedenik idukiko.

13. Begiratu zaiozute Kaldeotarren lurrari, zeren ez da beñere izan hura bezelako erri bat. Assurrek fundatu zuen. Alaere orain katibu eramanak izan dirade bere gudaririk sendoenak, bere etxeak izan dirade izutuak, ondatu zuten guztia.

14. Alarauka ari zaitezte, o itsasoko ontziak, zeren zuen sendotasuna desegiña izan dan.

15. Eta orduan izango da noiz zu, o Tiro, geldituko zeran obitua aztuta irurogeita amar urteko denboran, zeñak izan oi diraden errege baten urteak; eta iragorik irurogeita amar urteak, Tiro izango da, kantatzen dagoan bordion bat bezelakoa.

16. Artu ezan zitara, eman ezan jira bat erritik, o bordion zatarra, onezkero aztua agoana, kantatu ezan pozoiz beteriko gozotazun orrekin; berriz kantatu ezan kantatxo engañatzalle ori, igan pensatu dezaten.

17. Eta irurogeita amar urteren ondoan, bisitatuko du Jaunak Tiro; biurtuko du leengo artuemanera, eta idukiko ditu salduerosiak leen bezela munduko erreñu guziakin, lurraren zabalera guzian.

18. Atzenean Tiro Jaungoikoagana biurtuko da, eta bere saldu erosiak, eta bere irabaziak Jaunari konsagratuak izango zaiozka. Ez dirade aletegian sartuko, ez gero gordeko; zeren beren irabazia izango da, Jaunaren aurrean daudenen onerako, janaria ugari iduki dezaten, eta soñekoak aldatzeko zartzaraño.

OGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Ona non Jaunak arrasatu eta ezerere gabe utziko duen lurra, eta atsekabetua jarriko du bere irudia, eta bertan bizi diradenak barreiatuko ditu.

2. Eta nola erria, ala tratatua izango da apaiza; eta nola morroe mendekua, ala bere nagusia; eta nola neskame mendekoa, ala bere etxekoandra; nola erosten duena, ala saltzen duena; nola epean ematen duena, ala artzen duena; nola artzeko daukana, ala zorduna.

3. Osotoro desegiña gedituko da lurra, eta guziz arrasatua, zeren Jaunak ala esan duen.

4. Lurra negarretan desegiten da, eta ezereztutzen da, eta indargatzen da; ezereztutzen da mundua, ezereztutzen dirade lurreko erriko andizkiak.

5. Kutsutua dago lurra bertan bizi diradenak gatik; bada autsi dituez legeak, aldatu dute araudea, zatitu dute betiko elkartasuna.

6. Argatik madarikazioak iretsiko du lurra, zeren bertan bizi diradenak bekatariak diran, eta argatik zentzua galduko dute bertan bizi diradenak, eta gizon banaka batzuek bakarrik geldituko dirade.

7. Mendaina negarrez dago, aihenak galdu du bere indarra; negarrez daude malko biziak dariozkatela biotzez poztutzen ziradenak.

8. Gelditu zan panderoen soñu pozgarria, aitu zan jende talde zaratatsuen algazara, mututu zan zitararen gozotasuna.

9. Ez dute onezkero ardorik edango kanteen artean. Edari guztia samiña izango da edaleentzat.

10. Urgulleriako erria desegiñaz dijoa, etxe guztiak itxiak daude, iñor ere beretan sartzen ez dala.

11. Deadarrak izango dira kaleetan ardoaren urritasunagatik, poz guztia erbestetua gelditzen da; iges egin zuen lurreko bozkarioak.

12. Erria eremu bat egiña dago, eta desegiñak geldituko dira bere ateak, eta ondamen osoan.

13. Alako gauzak gertatuko dira lurraren erdian, errien barrenen, nola zigorrarekin oliboa astintzen danean azeituna gutxi batzuek arbolan gelditzen diran, eta garapa batzuek mendaina bukatuta.

14. Israelko kutsu oiek beren boza jasoko dute, eta kantatuko dituzte alabantzak. Agertuko dute beren poza itsasotik, Jauna gloriaz betea izanda bereala.

15. Argatik gloriaz bete ezazute Jauna dotrinaren argitasunarekin, adirazi ezazute Israelko Jaun Jainkoaren izena itsasoko ugartetan.

16. Munduaren atzeneko mugetatik aditu ditugu justoaren gloriari kantatzen ziozkaten alabantzak; Eta nik esan nuen: Nere ixilgauza neretzat da, nere ixilgauza neretzat da; ai nere doakabea! fedeausleak ausi dute fedea, eta ausi dute fedea mukerrai dagokien fedeaustearekin.

17. Izua, erretena, eta lazoa daude gordeak zuretzat, zeñ zeran lurrean bizi zerana.

18. Eta gertatuko da ze, boz ikaragarritik iges egiten duena eroriko da lezoian; eta lezoitik iges egiten duena katigatuko da lazoan; zeren idikiko dira goitik ataskak, eta lurraren zimenduak dardaratuko dira.

19. Zatitua izango da lurra dunbots andiarekin; zartatuko da zirritu andiakin; mugituko da nasterik andienakin.

20. Egongo da lurra ordi baten antzeko mugimenduan; eta lekua aldatuko du, gau bat bakarrik iragotzeko ipintzen dan denda batek bezela. Ikusiko da azpiratua bere gaiztakerien pisuarekin, eta eroriko da, eta ez da beñere berriz jaikiko.

21. Eta gertatuko da egun artan, kontua artzea Jaunak agirian, an goian dauden zeruko gudariai; eta emen lurrean dauden munduko erregeai.

22. Eta guztiak izango dira bilduak, eta sortatuak sorta batean, eta aurtikiak putzura, eta an izango dirade karzela baten zarratuak; eta egun asko iragota ere iraungo dute penaetan, eta beti izango dirade kastigatuak.

23. Eta illargia gorrituko da, eta eguzkia illunduko da, ejerzituen Jaun Jainkoa egiten danean erreñuaren jabe Siongo mendian, eta Jerusalenen eta gloriaz betea danean bere zarren aurrean.

OGEITA BOSGARREN KAPITULUA

1. O Jauna, zu zere nere Jaungoikoa; nik goratuko zaitut, eta bedeikatuko det zure izena, egin dituzulako gauza arrigarriak, asmazio anziñako, ta leialak. Amen.

2. Bedeikatua izan zaitezela erria arri montoi egiñik ipiñi dezulako, erri almentsua, erbesteko gizonen gaztelua paret zar erori tegi bat, gelditu dedin erri izan gabe, eta beñere izan ez dedin berriz egiña.

3. Argatik emango dizkizu alabantzak erri sendoak; zure beldur izango da, Jerusalen berria, jende errutsuen erria.

4. Zeren zu izan zeran sendotasuna beartsuarentzat, sendotasuna premian dagoanarentzat bere atsekabean; bere itxedopena itsasandian; bere otzaroa berotasunean; zeren almentsuen erasoa da aize bunbada, paret bat dardaraz jartzen duena bezelakoa.

5. Zuk azpiratuko dezu arrotzen urgulleria, eguzki beroak azpiratzen duen bezela lur leor baten erdian; eta odei erretzalle baten berotasuna bezela, leortu eraziko dituzu txit almentsu orien muskillak.

6. Eta ejerzituen Jaunak emango die mendi onetan erri leial guztiai janari gurizko konbit bat, mendainezko konbit bat, aragi gizen, eta mami askozko, ardo garbi eta naste gabezko konbit bat.

7. Eta mendi onetan urratuko ditu, erri guziak lotuta zeuzkaten kateak, eta erreñu guzien kontra zabaldutako sareak.

8. Aurtikiko du lize baten barrenera eriotza betiko, eta Jaun Jainkoak leortuko ditu arpegi guzietako malkoak, eta borratuko du lur guzitik bere erriaren lotsaria: zeren Jaunak ala esan duen.

9. Eta Jaungoikoaren erriak esango du egun artan: Egiaz au da gure Jaungoikoa, beragan itxedon degu, eta berak salbatuko gaitu au, da gure Jauna, iraun degu itxedopenean, eta orain poztuko gera, eta jostatuko gera beragandik datorren osasunean.

10. Zeren Jaunaren eskuak atsedengo duen mendi onen gañean; eta bere azpian zeatua izango da Moab, gurdi baten azpian trallatzen dan lastoa bezela.

11. Eta zabalduko ditu bere besoak gurdiaren azpian, zabaltzen dituen bezela igerian dabillan batek igerian iges egiteko; baña Jaunak azpiratuko du bere urgulleria, besoak autsitzen diozkala.

12. Eta eroriko dira zure murru goratuen baluarteak, eta izango dira beeratuak, eta lurrera aurtikiak, eta auts biurtuak.

OGEITA SEIGARREN KAPITULUA

1. Egun artan kantatua izango da kantatxo au Judako lurrean: Sion da gure erri sendoa, salbatzallea izango da beretzat murrua eta murruaurrekoa.

2. Ateak idiki itzatzute, eta sartu bedi jende on, egia gordetzen duena.

3. Desegin da anziñako errakuntza. Zuk, o Jauna, pakean idukiko gaituzu, pakean, gure itxedopena zugan daukagun ezkero.

4. Zuek ipiñi zenduten zuen itxedopena Jaunagan, Jaunagan, zeña dan gure betiko sendotasuna.

5. Zeren berak beeratuko ditu, goratuak ikusten diradenak, umillatuko du erri urgullutsua, umillatuko du lurreraño, umillatuko du auts biurtzeraño.

6. Oñak zapalduko dute, beartsuaren oñak; eskaleak zapalduko dute.

7. Justoaren bidea zuzena da, arteza da justoak daraman bidetxidorra.

8. Eta zure erabakien bidetik gabiltzala, zugan, o Jauna, ipiñi degu gure itxedopena. Gure animaren gura guzia dago zure izenaren oroipena erabiltzean.

9. Nere animak gauaz zure gura iduki zuen; eta nere erraietan asnasarik dagoen artean, zugana zuzenduko naiz eguna argitzen danetik. Zure erabakiak kunplitzen dituzunean lurrean, orduan munduan bizi diradenak justizia ikasiko dute.

10. Iduki dezagun gaiztoaren urrikaltasuna, eta ez du beñere justiziarik ikasiko. Berak santuen lurrean gaiztakeriak egin ditu, eta ala ez du Jaunaren gloria ikusiko.

11. Jaso ezazu, o Jauna, zure eskua, eta ez dezatela berak ikusi zure gloria; baña atzenean ikusiko dute zure erriaren ondamua daukatenak, eta lotsatuak geldituko dira; eta zure etsaiak suak iretsiak izango dirade.

12. Guri, Jauna, pakea emango diguzu; zeren gure obra guztiak zuk egin ziñizkigun.

13. O gure Jaun Jainkoa! iduki ditugu zu baño beste nagusi batzuek, zeñak menderatu gaituzten. Egin ezazu, zurekin bakarrik, eta zure izenarekin oroitu gaitezela.

14. Ez bitez berriz bizi il ziradenak; ez bitez ere berriz biztu goianteak, zeren argatik zuk kontuak artu ziñiezten, eta desegin ziñituen, eta arras borratu zenduen beren oroipena.

15. Israelko erriaganontz urrikal, o Jauna, egon ziñan, egon ziñan zure erriaganontz urrikaltsu: eta, berak zu gloriaz bete al zaitu, zabaldu dituzulako bere lurreko mugak?

16. Atsekabean, Jauna, orduan billatu zinduzten; eta orain daukaten naigabe negar erazitzen diotena, da berentzat zure erakutsi bat.

17. Nola beragan aurra sortua izan zaiona, alderatzen zaion aurregiteko oñazeen larritasunarekin, deadarrez ari dan: alakoak gera gu, Jauna, zure aurrean.

18. Gugan ere sortuak izan ziraden, eta penak daramazkigu aurregitekoak bezelakuak, eta aizea da egin deguna, baña ez ditugu egiten lurrean obra osasuntsuak; eta argatik ez dirade izan arras desegiñak gure etsai anziña bertan bizi ziradenak.

19. Zure illak, o Jauna, bizitza berria idukiko dute, berriz biztuko dira nere illak. Esnatu zaitezte, eta kantatu itzatzute himnoak zuek obiko autsean zaudetenak; zeren zure intza, o Jauna, argitasun eta bizitzako intza dan, eta erraldoien lurra zuk arrasatuko dezu.

20. Zoaz, ene erria, sartu zaite zure gelaetan; itxi itzatzu ateak zure ondoren; zaude ezkutatua piskatxo batean; aserrea irago dedin artean.

21. Zeren ona non aterako dan Jauna bere zeruko bizilekutik, bere kontra lurrean bizi danak egin dituen gaiztakeriak kastigatzera, eta lurrak agirian ipiñiko du edan duen odola, eta ez ditu ezkutuan idukiko denbora geiagoan, bertan illak izan ziradenak.

OGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Egun artan Jaunak bere ezpata zorrotz, eta andi eta sendoarekin, kontuak artuko diozka Lebiatani; Lebiatan suga kirimillatuari, eta itsasoan dagoen balea ilko du.

2. Egun artan kantatuko zaio kantatxo bat ardo garbizko mastiari:

3. Ni naiz zaitzen dedan Jauna, eta aspertu gabe ura botako diot. Kalterik artu ez dezan, gau ta egun zaitzen det.

4. Ez dago nigan aserrerikan, nork egin lezake izan nadilla ni arantza bat, edo sasi bat bezelakoa? Aterako al naiz ni bere kontra gudatzera? Su emango al diot?

5. Edo obekiago, ez al du berak nere sendotasuna geldituko? Bai, pakeak egingo ditu nerekin; pakeak egingo ditu nerekin.

6. Gogotik datozenak Jakob arkitzera, loreta eta muskillak bota eraziko diezte Israeli, eta lur guzia frutaz beteko dute.

7. Jaungoikoak gaizki erabilli al zuen, berak gaizki erabillia izan zan bezela? Edo nola berak il zituen illak, ala bera ere illa izan al da?

8. Bere gaiztakerien neurriko neurriarekin egingo dezu juizioa mastiaren kontra, aurtikia danean bere mukerkeriagatik. Jaunak artu du gogortasun justoko bere espirituarekin erabakia bere aserrearen berotasuneko egunerako.

9. Eta ala onekin barkatua izango zaio Jakoben etxeari bere gaiztakeria; eta ori izango da bere frutu guztia, bere bekatua borratua izan dedilla, Jaungoikoak egin ezkero, aldareko arri guziak gelditu ditezela karezko arriak bezela, zeatuak, eta arras desegiñak izan ditezela gezurrezko jainkoen baso eta tenploak.

10. Zeren erri sendoa arrasatua izango da, Jerusalen, erri ederra izango da utzia, eta eremu bat bezela geldituko da. An bazkatuko da idiskua, eta an idukiko du bere etzauntza, eta jango ditu masti utzitako onen zortenen puntak.

11. Bere uztak leortasunarekin galduko dira. Etorriko dira emakumeak, eta izango dira ango erakusleak. Zeren ez dan erri jakintsua. Argatik bera egin zuenak ez du bere urrikaltasunik idukiko; eta ez dio barkatuko formatu zuenak.

12. Eta egun artan Jaunak sentitueraziko du bere azotea Eufrates ibaiaren askatik, Ejiptoko errekaraño, eta zuek, o Israelko semeak, banan banan bilduak izango zerate.

13. Eta egun artan tronpeta andi batek ots egingo du; eta etorriko dirade Elizara, zeudenak erbestetuak, eta katibu Asiriatarren lurrean, eta Ejiptoko lurrera aurtikiak izan ziradenak, eta Jerusalengo mendi santuan Jauna adoratuko dute.

OGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Ai urgulleriako koroearen doakabea, Efraimgo moskortuena, gloriako lore galkorrarena, eta Samarian daudenen poztasunarena, an Samarian ibar txit ugariaren erpiñean, desomatuak ardoagatik.

2. Ona emen Jaun almentsu eta sendoa, arrite urduri bat bezelakoa, aize bunbada arrasalari bat bezelakoa, toki zabal bat bete, eta ondatzen duen ur askoren erasoa bezelakoa.

3. Efraimgo moskortuen urgulleriako koroea, oñakin zapaldua izango da.

4. Eta ibar txit ugariaren erpiñaren gañean dagoen gloria, eta pozezko lore galdukorra izango da, udazkena baño lenago zoritzen dan goiz fruta bezela, zeñ lenengo ikusten duenak, bereala atxitu eta iretsitzen duen.

5. Egun artan ejerzituen Jauna izango da gloriako koroea, eta bozkariozko girnalda bere erriko kutsuentzat.

6. Eta izango da justiziako espiritua, tronuan eseria dagoenarentzat, erriari justizia egiteko, eta sendotasuneko espiritua, etsaien beren ateetan gudatuta itzultzen diran errutsu aientzat.

7. Baña oiek ere galdu zuten adimentua ardo geiegiagatik, eta ibilli ziran ... beren ordikieriagatik. Sazerdoteak eta profetak galdu zuten zentzua beren ordikeriagatik. Sazerdoteak eta profetak galdu zuten zentzua beren ordikeriagatik, ardoak nastu zituen, ordikeriak bidetik alderazi zien. Etzuten ezagutu nai Profeta egiazkoa, ez jakin ere zer gauza dan justizia.

8. Zeren mai guziak gonbituz eta zikinkeriaz beteak dauden, toki garbirikan batere gelditu gabe.

9. Zeñi itsatsiko dio Jaunak jakinduria? Eta zeñi emango dio esaten duenaren aditza? Aur titigetuai, beren amaen bularretatik kenduak diradenai.

10. Esaten duten ezkero isekaz: Agidu ezazu, berriz agindu ezazu, o Profeta, agindu ezazu, berriz agindu ezazu, itxedon ezazu, berriz itxedon

ezazu, itxedon ezazu, berriz itxedon ezazu, piskatxo bat emen, beste piskatxo bat an.

11. Baña Jaunak itz egingo dio beste ezpañ batzukin, eta beste izkuntza arrotz batekin zentzugabeko erri orri.

12. Zeñi egun batean esan zion: Emen daukat nere atsedena, biurtu zaiozkazute indarrak nekaua dagoenari; bada orretan dago nere gogoa, eta ez naute aditu nai izan.

13. Eta Jaunak esango die egunen batean: Agindu ezazu, berriz agindu ezazu; agindu ezazu, berriz agindu ezazu; itxedon ezazu, berriz itxedon ezazu; itxedon ezazu, berriz itxedon ezazu; piskatxo bat emen, beste piskatxo bat an; eta utziko du joan ditezen, eta erori ditezen atzerontz, eta izan ditezen zapalduak, eta lazoetan katigatuak.

14. Argatik aditu ezazute Jaunaren boza, o gizon isekariak, Jerusalenen dagoan nere erria mendean daukazutenak.

15. Bada zuek esan zenduten: Egin degu elkartasuna eriotzarekin, eta batzakunde bat infernuarekin. Azotea datorrenean ugolde bat bezela, ez da gugana allegatuko; zeren gezurrean ipiñi degu gure itxedopena, eta onek zaituko gaitu.

16. Argatik au esaten du Jaunak: Ona emen non nik ipiñiko dedan Sion berriko zimenduetan arri bat, arri autua, arri kantoina, ederra, jarria zimendu txit sendotzat: sinistutzen duena, ez bedi arin ibilli.

17. Eta egingo det juizioa pisuarekin, eta justizia neurriarekin, eta arrite batek nastuko du gezurrean jarritako itxedopena, eta zuen laguntasuna geldituko da naigabezko uretan ondatua.

18. Eta zuek eriotzarekin egindako elkartasuna urratua izango da; eta zuek infernuarekin egindako batzakundeak ez du iraungo, eta azotea datorrenean ugolde bat bezela, arrastaka eramango zaituzte berarekin.

19. Datorrenean, bereala arrapatuko zaituzte; zeren etorriko da txit goiz, eta jarraituko du egunaz eta gauaz; eta atsekabeak bakarrik konprendituerazi ko ditu aditu diran gauzak.

20. Zeren oea alako moduan da estua, non, bietatik bat eroriko da, eta manta ain txikia, non, biak ezin estali litezke.

21. Jakin ezazute Jauna jaikiko dala, egin zuen bezela beste denbora batean Dibisioetako mendian. Aserretuko da, Gabaongo ibarrean egin zuen bezela, egiteko bere obra, obra bat berari ez dagokiona; egiteko bere obra, obra bat, beretzat arrotza dana.

22. Utzi zaiozute bada nere keñadai irri egiteari, zuen lokarriak geiago estutu ez ditezen. Zeren ejerzituen Jaun Jainkoa da, zeñagandik aditu dedan lur guztiko ondamena, denbora gutxiren barrenen gertatuko dan ondamena.

23. Belarriakin entzun ezazute, eta aditu ezazute nere boza; zaudete kontuan, eta aditu itzatzute nere itzak:

24. Nekazaria beti al dago goldeatzen ereitzeko? Beti al dago lurra autsi edo lautzen?

25. Lurraren gaña berdindu duenean, ez al du ereitzen jitha, barreiatzen kuminoa, eta ez al ditu ipintzen berai dagokien eran eta tokietan, garia, garagarra, artatxikia eta illarra?

26. Zeren bere Jaun Jainkoak ematen dio nakazaritzako ezaguera, eta lan oietan erakusla egiten du.

27. Zeren jitha ez da trallatuko burnizko ortzezko olakin; eta kuminoaren gañetik ere ez da jiran ibilliko gurdiaren kurpilla; baizikan jitha astindua izango da zigor batekin, eta kuminoa zigortxo batzukin.

28. Garia berriz traillatua izango da; baña trallatzen ari dana ez da aspertu gabe trallatzen egongo, eta gurdiaren kurpilla ere ez da beti egongo sakatzen, ez abereen beatzalakin zapaltzen.

29. Au da ejerzituen Jaun Jainkoak erabaki duena, zeñak egin dituen arrigarriak bere konsejuak, eta otspatsua bere justizia.

OGEITA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Ai Arielen doakabea! Ariel, Dabidek arrapatu zuen erriarena. Iragoko da urte bat, eta beste bat, eta iragoko dirade jai andiak.

2. Eta nik ingurutuko det Ariel, eta geldituko da doluan eta atsekabean; eta neretzat Ariel bat bezela izango da.

3. Nik ingurutuko zaitut aldamen guzietatik, egiten dedala zure inguruan koroea bezelako bat, eta altxatuko ditut zure kontra lutesiak, eta egingo ditut baluarteak zu setiatzeko.

4. Zu umillatua izango zera. Bean zaudela idikiko dezu zure aoa, eta autsetik aditu erazia izango da zure itza, eta zure boza irtengo da lurraren azpitik pitonisa batena bezelakoa, eta irtengo da lurretik ots erbal eta illunarekin.

5. Eta zu aizetzen zaituztenen taldea barreiatua izango da auts zea bezela, eta aizeak daraman geldo bat bezela zur menderatu zinduztenen taldea.

6. Eta au, gauza supituko eta ustekabea izango da. Ejerzituen Jaunak bisitatuko du jende talde au turmoi eta lurrikaren erdian, eta aizebunbada eta ekaitzen ots txit andiakin, eta su iretsitzalle baten garretan.

7. Eta Arielen kontra gudatu diran jende guzien taldea, eta setiatu duten, eta bere kontra geiago egin duten soldadu guztiak, etorriko dira izatera ames eta gaueko ikusketa bat bezela.

8. Eta nola gose danak ames egiten duen jaten dabela, eta esnatzen danean gosez arkitzen dan; eta nola egarri danak ames egiten duen edaten duela, eta esnatzen danean egarriz arkitzen dan, era berean gertatuko zaiote, Siongo mendiaren kontra gudatu ziran jende guzi aiei ere.

9. Izutu zaitezte eta gelditu zaitezte arrituak, o Israelko semeak, zoazte zalanzan eta koloka, moskortuak bezela, eta ez ardoz; zabiltzate zabuka eta ez ordikeriaz;

10. Zeren Jaunak zuen gañera isuri duen lozorroko espirituak, itxiko ditu zuen begiak; ipiñiko die estalki bat profetai, eta ikusketak dauzkaten zuen prinzipeai.

11. Eta oien guzien ikusketak izango dirade zuentzat liburu sillutu bateko itzak bezela, zeñ ematen dienean irakurtzen dakian bati, eta esaten dienean: irakurri ezazu; erantzungo du: Ez dezaket, zeren sillutua dagoen.

12. Eta emango baliote irakurtzen ez dakian bati, eta esango baliote: irakurri ezazu, erantzungo du: Ez dakit irakurtzen.

13. Eta esan zuen Jaunak: Erri au itzez bakarrik alderatzen zatan ezkero, eta bere ezpañakin bakarrik onratzen nauen ezkero; bere biotza ordea urrutian dago nigandik, eta adoratzen nauten gizonen zeremonia eta erakutsien araura.

14. Ona emen non berriz jarriko dedan erri au arriturik mirari andi eta beldurgarri batekin; zeren beren jakintsuak jakinduriagabe arkituko diran, eta alde egingo du konsejuko doaiak beren gizon zentzukoakgandik.

15. Ai zuen, zuen biotzetan zarratuten zeratenen doakabeak, au egiten dezutela, Jaunari zuen asmazioak ezkutatzeko! Ai beren obrak illuntasunetan egiten dituztenen doakabeak, gero esaten dutela: Nork ikusten gaitu, eta nork agertzen gaitu?

16. Txit gaiztoa da zuen gogorazio au: buztiñia jaikiko balitza bezela eltzegillearen kontra, eta obrak bere egilleari esango balio bezela: Ez nazu zuk egin; eta ontziak esango balio bezela egin duenari: Zuk ez dezu jakin.

17. Ez al da egia, aurki eta denbora gutxiren barrenen Libano biurtuko dala Karmelo batean, eta Karmelo biurtuko dala baso batean?

18. Eta egun artan gorrak adituko dituzte liburuko itzak, eta itsuen begiak argituko dira, ateratzen diradela illuntasun eta argigetik.

19. Eta otsanak poztuko dira egunoro geiago ta geiago Jaunagan; eta len beartsuak ziradenak gozatuko dira Israelko santuagan,

20. Zeren urgullutsua izan zan azpiratua, isekaria izan zan konsumitua, eta desegiñak, gaizki egiteko goiz jaikitzen ziran guztiak.

21. Beren itzakin gizonak bekatu egitera ekartzen zituztenak, eta lazoak jartzen zieztenak, atean errierta egiten zienari, eta biderikan gabe justoagandik alde egin zutenak.

22. Argatik Abraham erreskatatu zuen Jaunak, Jakoben etxeari onela itz egiten dio: Ez da nastua izango Jakob, ez da ere izango orain bere arpegia lotsariz betea.

23. Baizik ikusten dituenean bere erdian bere semeak, nere eskuen lana, zeñak gloriaz beteko duten nere izen santua, eta alabatuko duten Jakoben Santua, eta goratuko duten Israelko Jaungoikoa.

24. Orduan aiek, zeñaen espiritua errakuntzan bizi zan, idukiko dute osasuneko jakinduria, eta ikasiko dute Jaunaren legea, berari iseka egiten ziotenak.

OGEITA AMARGARREN KAPITULUA

1. Ai zuen, seme igeslarien doakabeak, esaten du Jaunak, egiten dituzutenenak asmazioak, nerekin kontatu gabe; eta irazkitzen dezutenak eun bat, eta ez nere guraren araura, ala bekatuak bekatuai itsatsitzeko.

2. Zaudetenak bidean Ejiptora jetxitzeko, eta ez diozutenak galderik egin nere borondateari, itxedotzen dezutela laguntasuna Faraonen indarretik, eta ipintzen dezutela zuen itxedopena Ejiptoko itzalean.

3. Baña Faraonen sendotasuna izango da zuentzat nastea, eta Ejiptoren laguntasunaren itxedopena zuen lotsaria,

4. Zeren zure prinzipeak joan diradenean Taniseraño, eta allegatu diradenean Haneseraño zure mandatariak;

5. Guztiak Israelen geldituko dira lotsatuak, ezertan ere serbitu izan ezin dituen erri batgatik, eta lagundu ere ez dienagatik, eta ezertarako ere mesedegarri izan ez danagatik, baizik naste eta lotsarirako.

6. Berri samiña Egerdiko zama abereentzat. Dijoaz atsekabe eta estutasuneko lurretik (nondik ateratzen diran leoi emea, eta leoi arra, bibora, eta egan egiten duen sugea) daramazkitela zamarien bizkarren gañean beren aberastasunak, eta beren tesoroak gameluen espalda gañean, lagundu ezingo dioten erri batera.

7. Zeren utsa eta alperra izango da Ejiptok ematen dien laguntasuna. Argatik deadar egin nuen nik orren gañean, esaten nuela: Urgulleria baño ez da, etzaite mugitu.

8. Zoaz bada orain, eta eskribatu zaiezu lendanaz esandako gauza au ezpelezko oltxo baten gañean, eta ipiñi ere ezazu arretaz liburu batean, izan dedin geroko egunetan betiko oroipengarri bat.

9. Zeren erri au da aserretuerazitzen didan bat, eta berak dira seme desleialak, Jaungoikoaren legea aditu nai ez duten seme batzuek,

10. Esaten dienak profetizatzen dutenai: Ez ezazute profetizatu. Eta profeta ikusleai: Etzaitezte egon ikusten guretzat gauza zuzenak, esan zazkiguzute gure gogokoak diraden gauzak, eta profetizatu zaguzute gauza alegreak gezurrak izan arren.

11. Kendu zaguzu begien aurretik legearen araura obratzeko modu au. Urrutiratu ezazu gugandik biziteko era au. Etzaite beti gugana etorri esaten dezula Israelko Santuak esaten, edo agintzen duela.

12. Argatik Israelko Santuak onela itz egiten du: Zuek aurtiki dezuten ezkero nik agindu dizutedana, eta zuen itxedopena ipiñi dezuten ezkero, gezurrezko asmazioan eta gaiztakerian, eta gauza oiekin serbitu zeraten ezkero;

13. Argatik gaiztakeria au izango da zuentzat murru goratu batean arraka bat bezela, zeñ dagoan erortzeko zorian, zeñgandik datorren guztien ondamena, gutxien uste dan orduan;

14. Eta guztia gelditzen da zatitua, autsitzen dan bezela ots andi batekin eltzegillearen ontzi bat; bere zatietatik bat ere gai ez dan eran eramateko sukalde batetik txingar bat, edo putzu batetik ur piska bat ateratzeko.

15. Zeren Jaun Jainkoak, Israelko Santuak esaten du: itzultzen baldin bazerate, eta geldirik egoten bazerate, salbatuko zerate. Geldi egotean, eta itxedopenean dago zuen sendotasuna. Baña zuek etzenduten egin nai;

16. Baizik esan zenduten: iñola ere ez; baizik zaldiz iges egingo degu. Bada beragatik zuen etsaiakgandik iges egin bearko dezute. Joango gera, esan zenduten, zaldi txit bizkorren gañean, beragatik bizkorragoak izango dira zuen persegitzalleenak.

17. Gizon bakar batek izuz beteko ditu, eta iges eraziko die zuetatiko millari; eta bost etortzen badira, guziok iges egingo dezute; zuetatik gelditzen diradenak izan ditezen artean, ontziaren zuaitz txit goratu bat bezela, mendi baten erpiñaren gañean, bandera bat muño baten gañean bezela.

18. Argatik luzatzen du Jaunak, zuekin urrikaltasuna egiteko, eta goratzeko bere gloria zuek barkatuaz; zeren Jaun Jainkoa justoa dan, doatsuak beragan itxedotzen duten guztiak.

19. Siongo erria Jerusalenen biziko da, leortuko dituzu zure malkoak. Jaunak, izanik zuretzat biguña, urrikaltasuna egingo du zurekin, zure deadarren boza adituta bereala, erantzungo dizu.

20. Lenago emango dizute Jaunak penazko ogia, eta atsekabezko ura, baña gero egingo du, beñere ez dedilla zugandik urrutiratu zure erakuslea, eta zure begiak beti egongo dira zure jakintsua ikusten dutela.

21. Aditu bitzate zure belarriak bere itzak, zure ondoren dijoala deadarrez esaten dizunean: Au da bidea, ibilli zaitezte bertatik, eta etzaitezte zeartu ez eskuietara, ez ezkerretara.

22. Orduan botako dituzu gauza gaiztoak bezela orrako zillarrezko plantxa zure idoloak estaltzen dituztenak; eta zure urrezko talluen soñeko ederrak. Eta aurtikiko dituzu urrutira zugandik, emakume satsu baten eunik zikiñena bezela. Alde emendik, esango diezu;

23. Eta Jaunak euria bialduko die zure alorrai, lurreko edozeñere toki, erein dituzunetan; uztak emango dute gari ederra eta ugari; eta denbora berean zure arkumeak arkituko dituzte bazka gizen eta zabalak zure soroetan,

24. Eta zure idi ta asto, lurrean lanean ari diradenak, jango dute pentzua grano mota askorekin nastuta, larrañetik aizetuta datozen eran.

25. Eta mendi altu guztitik, eta muño goratu guztitik jetxiko dira korrika urezko errekak egun artan, zeñean egongo dan ilkintza andia, dorreak eroriak diradenean.

26. Illargiaren argia izango da eguzkiaren argia bezelakoa, eta eguzkiaren argia izango da zazpi alditan andiagoa, nolakoa izango litekean zazpi eguneko argia bilduta egun artan, zeñean Jaunak bendatu izango duen bere erriaren zauria, eta sendatu llaga idikia.

27. Begira badatorrela andikan urrutitikan Jaunaren izena; bere sumintasuna dago erazekia eta eraman eziña, bere ezpañak aserrez beteak, eta bere mingaña su iretsitzallea bezela.

28. Bere asnasa da erreka bat bezela (zeñaen ura allegatzen dan estarriraño) ezereztutzeko erreñuak; eta desegiteko erakutsi gezurrezkoaren brida, edo infernuaren indarra, zeñak zeuzkan menderatuta errien masallaezurrak.

29. Baña zuek kantatuko dezute kantatxo bat, jai andi santuko gauean bezela; eta zuen biotzeko poza izango da, txirolaren otsean igotzen danarena bezelakoa, aurkeztzera Jaunaren mendiaren gañean, Israelko Jaungoiko sendoaren tenploan.

30. Eta egingo du Jaunak, aditua izan dedilla bere boz izugarria, eta ezagutua izan dedilla bere beso ikaragarria, bere aserre keñatzallearen, eta bere su iretsallearen erdian, arrasatuko du guzia ekaitzakin eta arriteakin.

31. Zeren Jaunaren bozera, beldurrez ikara geldituko da Asiriatarra Jaungoikoaren bengantzaren zigorrarekin zaurituta.

32. Eta zigor onen zauritzea izango da iraunkorra eta aspertu gabea, eta egingo du Jaunak, zigorrak eman ditzala bere gañean otsak pandero ta zitara soñuarekin. Garaituko du Jaunak guda andi batean.

33. Zeren denbora da prestatua zaiotela Tofetko ibarra, gertutua izan zan Errege andiarentzat, zakona, eta zabala; zeñaen erregaia dan sua eta egur asko, Jaunaren asnasa, sufrezko erreka bezelako bat da erazekitzen duena.

OGEITA AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Ai arako laguntasunaren billa Ejiptora dijoazenen doakabeak, ipintzen dutela itxedopena bere zaldietan, eta daukatela ustea gerrako bere gurdi askoetan, eta bere zaldidian txit sendoa dalako; eta jarri ez dutenena beren itxedopena Israelko Santuagan, eta ez diradenena ere Jauna gana zuzendu.

2. Doakabeak! Bada Jaunak berak, izatez jakintsuak bidaldu diezte atsekabeak, eta ez dio utzi bere itza kunplitzeari, eta jaikiko da gaiztoen etxearen kontra, eta gaiztakeriako lanean ari diradenen laguntzalleen kontra.

3. Ejiptoko erregea gizon bat da, eta ez Jaungoiko bat, eta bere zaldiak aragia dira, ta ez espiritua. Jaunak bada bere eskua luzatuko du, eta aurtikiko du laguntzallea, eta lurrera eroriko da lagundua, eta biak batean galduko dira.

4. Zeren ona emen Jaunak esan didana: Leoe batek, edo leoetxo batek orroa egiten duen bezela arrapatua daukan gauzaren gañean, eta joan arren bere kontra artzai talde bat, nola ez dan koldartzen bere deadarretara, eta nola ez dan beldurtzen danik geien izan arren berari erasotzen diotenak; ala jetxiko da ejerzituen Jauna gudatzera Siongo mendiaren, eta bere muñoen gañean,

5. Bere kabiaren inguruan egan dabillan egazti batek bezela; era berean zaitu du Jerusalen, ejerzituen Jaunak; gordeko du eta libratuko du iragotzen dala aldamen batetik bestera; eta salbatuko du.

6. Biurtu zaitezte bada Jaunagana, o Israelko semeak, alderatzen zeratela beragana, urrutiratu zeraden adiña.

7. Zeren egun artan aurtikiko ditu beragandik bakoitzak bere idolo zillarrezkoak, eta bere idolo urrezkoak; idolo, egin zenduztenak idoloak adoratzeko.

8. Eta eroriko da Asiriatarra ezpataren puntaz; baña ez gizonaren ezpataz; baizik iragoko duen ezpata Jaungoikoaren ezpata izango da, ez gizonen ezpata. Berak iges egingo du; baña ez bere etsaien ezpatak persegitzen diolako. Eta bere gerrari gazteak menderatuak izango dirade.

9. Eta izuagatik etorriko dira beren indarrak galtzera; eta arrituta iges egingo dute beren prinzipeak. Esan du Jaunak, zeñak daukan bere sua Sionen; eta bere sukaldea Jerusalenen.

OGEITA AMABIGARREN KAPITULUA

1. Jakin ezazute Judako errege batek erreñatuko duela justiziarekin, eta bere Juezak ere justizia egingo dutela.

2. Eta gizon au izango da igestoki bat bezela, egoteko ezkutatua aizetik, eta egoteko ezkutatua ekaitzetatik; ur freskozko errekak bezela leortasuneko denboran, eta aitz altu baten itzala bezela basomortu erregarri batean.

3. Ez dirade onezkero llilluratuko ikuslen begiak, eta arretaz adituko dute entzungo duten belarriak.

4. Orduan ezjakiñen biotzak konprendituko du jakinduria, eta motelen mingañak itz egingo du argiro eta arin.

5. Zentzugabeari etzaio onezkero prinzipearen izena emango, eta tranpagilleari ere etzaio Andizkia ots egingo,

6. Zeren jakinduria gabeak txorakeriak esango ditu, eta bere biotzak gaiztakeriak asmatuko ditu gezurrezko ontasuna erakusten duela, marroz itz egiten duela Jaungoikoagatik, eta konsumitzen duela gosetsuaren anima, eta kentzen diola ura, egarriz iltzen danari.

7. Tranpagillearen armak txit gaiztoak dirade, zeren beti dagoan irazkaia asmatzen gezurrezko itzakin galtzeko tolesgabeak; beartsuak ordea itzegin eta eskatzen du justoa dana.

8. Baña nik lendanaz adirazten dedan Prinzipeak, prinzipe baten diña diraden gogorazioak idukiko ditu, eta bellan egongo da bere erriko agintarien gañean.

9. Andre aberatsak, jaiki zaitezte, eta aditu ezazute nere boza. Ondasunetan itxedopena daukazuten alabak, alderatu itzatzute zuen belarriak nere itzetara;

10. Zeren egunen eta urtearen ondoan, zuek alako itxedopen andiarekin bizi zeratenak, arkituko zerate txit nastuak, bada onezkero ez da berriz egongo, mendainik, ez frutak biltzerik.

11. Arritu zaitezte, o andre aberatsak, ikaratu zaitezte zuek, alako itxedopenarekin zeudenak, billostu zaitezte zuen soñekoetatik. Nastuak jarri zaitezte, ipiñi itzatzute magalak gerrian.

12. Negar egin ezazute, zuen bularretan azitzen dituzuten aurrakgatik, negar egin ezazute zuen erri maiteagatik, zuen masti ugarien gañean.

13. Arantzak eta sasiak estaliko dute nere erriko lurra. Zenbat kastigu geiago botako du, Jerusalen urgullutsuko etxe guztien gañera, orrako erri bozkarioan gañez eginik dagoanaren gañera?

14. Zierto dana da, nere etxea utzia geldituko dala, eremu bat egiñik orrako erri jendez betea, bere etxeak laño txit astunez betiko beteak, zeñak geldituko diran arzulo eginik, non ibilliko diran jostaketan basa astoak, eta bazkatuko diran abereak,

15. Aliketa goitik isuria izan dedin artean gure gañera Jaunaren espiritua. Bada orduan eremua Karmelo bat itzuliko da, eta Karmeloa eremu batean.

16. Eta berdintasuna biziko da orduan eremuan, eta justiziak ipiñiko du bere egonlekua Karmelo berrian.

17. Eta justiziaren frutua pakea izango da, eta justizia onek dakarrena atsedena eta betiko seguru egotea.

18. Eta nere erriak atsedengo du pakeko egoleku ederrean, eta itxedopeneko bizilekuetan, eta atseden aberatsean.

19. Baña bean eremuan eroriko da arritea, eta erria txit umillatua geldituko da.

20. Doatsuak zuek ura ugari daukaten lurretan ereiten dezutenak, eta beretan idia eta astoa sartzen dituzutenak landutzeko.

OGEITA AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Ai zure doakabea Senakerib besteai daukatena arrapatzen diezuna! Zer! Ez al dizkizute zuri ere arrapatuko? Eta zu, mezpreziatzen dezuna, ez al zera mezpreziatua izango? Besteen gauzak arrapatzea bukatzen dezunean, arrapatuko zazkizu zureak ere. Onezkero aspertuta mezpreziatzeari utziten diozunean, izango zera zu mezpreziatua.

2. Urrikaritu zaite arren Jauna gurekin, bada beti zugan itxedon degu. Izan zaite gure sendotasuna goizetik, eta gure salbazioa atsekabeko denboran.

3. Aingeruaren bozera erriak iges egin zuten, eta zure besoa goratzean, desegiñak gelditu ziran etsaien erreñuak.

4. Erri urgullutsuak, zuei arrapatutako gauzak bilduak izango dirade, biltzen diradenean bezela langostak alako ugaritasuna dagoenean, non, berakin erretenak betetzen diran.

5. Andi egiña izan da, goian bizi dan Jauna, bete du Sion gañez egin arteraño zuzentasunez eta justiziaz.

6. Eta fedeak erreñatuko du zure denboretan, jakinduria eta aditza dirade zure ondasun osasuntsuak, eta Jaunaren beldurra zure tesoro egiazkoa.

7. Baña ona non kanpotik deadar egingo duten, etsaiak datozela ikusten dutenak. Negar mingoitzak egingo dituzte pakeko aingeruak.

8. Bideak eremutuak daude, iñor ere ez da ikusten bideetan ibiltzen, etsaiak elkartasuna autsi du, arrasatu ditu erriak; ezertan ere ez dauzka gizonak.

9. Erri guztia dago negarrez, eta txit azpiratua. Libano lotsariz betea, eta mezpreziatua, Saron eremu egiña, Basan eta Karmelo arrasatuak.

10. Baña orain jaikiko naiz ni, esaten du Jaunak: orain izango naiz goratua; orain izango naiz gloriaz betea.

11. Erreñu urgullutsuak, zuek artuko dituzute asmazio beroak nere erriaren kontra; eta emendikan irtengo dana, ez da lastoa baizik izango, zuen zeroen (sic) espirituak lastoak bezela iretsiko zaituzte.

12. Eta geldituko dirade erri oiek, autsa su andi baten ondoan bezela, arantzazko sendorrak bezela garren bazka izango dirade.

13. Zuek urrutian zaudetenak, aditu itzatzute nik egin ditudan gauzak; eta ikasi ezazute nere eskubidea ezagutzen, aldean zaudetenak.

14. Arrituak izan dirade Sionen bekatariak: ikara jabetu da gezurrez onakin. Zuetatik zeñ bizi alko da su iretsitzalle batean? Zuetatik zeñ egon alko da beti berotasun erretzalleetan?

15. Justiziako bideetatik dabillana, eta egia esaten duena, gaizki bildutako ondasunai gorroto diena, emaitzakin irabazia izatetik bere eskuak garbi dauzkana; belarriak estaltzen dituena, ez aditzerik emateko odolgiroai; eta bere begiak itxiten dituena gauza gaiztorik ez ikusteko.

16. Au da bere bizilekua goietan idukiko duena, biziko da beldur gabe, aitz goratu batean bezela. Idukiko du ogia ugari, eta beñere ura faltatuko etzaio.

17. Bere begiak ikusiko dute Erregea bere glorian; eta lurrari urrutitikan begiratuko die.

18. Orduan zure biotza oroituko da len iragotako beldurrakin. Non da, esango du berak, letraua? Non urgullutsu, legeko letrak pisatzen zituena? Non eskola maesua?

19. Ez dezu onezkero, o Prinzipea, ikusiko erri lotsagalduko bat, izketa illuneko erri bat, zeñaen izkuntzako algarabia ezin adituko dezun, zeñ dagoen jakinduriarik batere gabe.

20. Itzuli itzatzu zure begiak Sionera, non zelebratzen diran gure jai andiak. Zure begiak ikusiko dute Jerusalen, egoleku txit ederra, tabernakulo bat, beste tokitara aldatu ez ditekeana; bada ez estakak izango dira beñere ateratuak, ez bere soketatik batere ez da autsiko.

21. Zeren bakarrik an erakusten du gure Jaun Jainkoak bere anditasuna. Hura da ibaien tokia; ibai txit zabal, eta txit andiena. Ez da andikan iragoko etsai baten ontzirik arraunaz, eta gutxiago iragoko da, iru errenkada arraunezko galera andik.

22. Bada Jauna da gure Jueza, Jauna gure lege emallea, Jauna gure erregea, bera da salbatuko gaituena.

23. Lasaitu dirade, o ontzi urgullutsua, zure kableak, eta onezkero ez dirade gai. Ain gaizki jarriko dira zure mastak, non, bandera bat ezingo dezun destolestu. Orduan partituko dituzte kutsuak, eta zuk bildu ziñituen ondasun ugariak. Errenak ere beratatik eramango dute.

24. Ez du ere aldekoak esango: Erkiña naiz eramateko. Eta an bizi dan erriak bere bekatuen barkazioa artuko du.

OGEITA AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Atozte onara, o erreñuak, eta aditu ezazute. Erriak, zaudete arretaz, aditu bezate lurrak, eta bertan bizi diraden guztiak, mundu guztiak, eta bertan bizi diraden guztiak.

2. Zeren Jaunaren aserrea erortzera dijoa erreñu guzien gañera, eta bere sumintasuna bere ejerzituen gañera. Ilko ditu, eta ondamen bat egingo du beretan.

3. Kanpora aurtikiak izango dirade beren illak, eta beren gorputs illak kirats andia botako dute; beren odolarekin mendiak kutsutuak geldituko dirade.

4. Indargatua geldituko da zeruko gudaritegi guztia; eta zeruak errollatuko dira pergamino bat bezela, eta erortzen dan ostoa parratik edo pikoondotik, ala eroriko da bere gudaritegi guztia,

5. Zeren nere ezpata moskortu da zeruan. Ona emen non aurtikitzera dijoan orain Idumearen gañera; erri baten gañera, zeñaen ilkintzan señalatuko dedan nik nere justizia.

6. Jaunaren ezpata guztia odolez bustia dago, txurruka dariozkala gantza, eta bildotsen eta akerren odola, baita ari gizenen odola. Zeren Jaunaren eskeñtza biziak Bosran dauden. Berak egingo du ilkintza andi bat Idumeoan lurrean.

7. Eta oiekin eroriko dira lurrera adarbakoitzak, eta zezenak, almentsuakin. Beren odolarekin lurra moskortuko da, eta gorputzen gantzarekin bere landak,

8. Zeren Jaunaren bengantzako eguna allegatua dan, Sioni justizia egiteko urtea,

9. Eta pike erazeki biurtuko dira bere erreketako urak, eta sufre Idumeako autsa, eta bere kanpoai erazekiko zaiote, guziak pikezkoak balirade bezela.

10. Ez egunaz, ez gauaz itzaliko da sua. Beti egongo da keedi andi bat irtetzen, arrasatua iraungo du mendez mende, eta anima bakar bat ez da andik iragoko gizaldien gizaldietan.

11. Baizik bere jabe egingo dira astorroa eta trikua. Mokitaiak, eta erroiak ipiñiko dute an beren bizilekua. Botako da bere gañera neurtzeko soka, ezerezera biurtzeko, eta berdinkaia arras desegiteko.

12. Ez dirade an odol garbikoak berriz ikusiko. Eskatuko dute gogotik errege baten laguntasuna; eta bere prinzipe guztiak ezereztuak izango dirade.

13. Beren etxeen oruetan erneko dira arantzak, eta osinak, eta garduak beren gazteluetan. Eta etorriko da izatera sugulnen igestoki, eta saien bazka.

14. Eta an arkituko dira demonioak, zaldigizonakin, eta auntzgizonak deadar egingo dute bata bestearen kontra; an etzango da lamia, eta bere atsedena arkituko du.

15. An idukiko du bere koba aranzerriak, eta an aziko ditu bere umetxoak, eta aterarik lurra muturrarekin, idukiko du epeletan bere itzalean; an bilduko dira miruak, eta elkartuko dira bata bestearekin.

16. Esamiñatu ezazute arretaz, Jaunaren aginduz orain eskribitzen dedan liburua, eta irakurri ezazute beratan, lendanaz adirazten dizkizutedan gauzaetatik battxo ere ez da geldituko gertatu gabe, eta gauza oietatik battxok ere ez du faltatuko. Bada nere aotik ateratzen dana, Jaunak esan dit, eta bere espirituak berak au guzia bildu du.

17. Bera da emango diena pistiai anoa Idumean. Bere eskuak partituko die lurra neurriz, beti izango dirade bere jabe, mendez mende bertan biziko dira.

OGEITA AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Orduan alderri eremutu eta iragoeziña poztuko da, eta bakartadea bozkarioz saltoka ariko da, eta loretuko da lirioa bezela.

2. Emango ditu frutuak ugari, eta txit gozatuko da bozkarioz beteta, eta himnoak kantatuko ditu. Berari emana izan zaio Libanoko gala, eta Karmeloko eta Sarongo edertasuna. Oiek ikusiko dute Jaunaren gloria, eta gure Jaungoikoaren anditasuna.

3. Sendotu itzatzute esku lasaiak, eta indartu belaun erbalak.

4. Esan zaiezute alai gutxikoai: Sendotu zaitezte, eta ez ezazute beldurrik iduki. Begira zaiozute zuen Jaungoikoari, zeñ datorren bengantza justo bat egitera. Jaungoikoa bera etorriko da, eta salbatuko zaituzte.

5. Orduan idikiko dira itsuen begiak, eta idikiko dira gorren belarriak.

6. Orduan urguna saltoka ariko da oreña bezela, eta askatuko da mutuen mingaña; zeren orduan eremuan ere urak gañez egingo dute, eta bakartadean korrika joango dira errekak.

7. Eta leorra zegoan lurra putzuz betea geldituko da; eta urez, egarriz erazekia zegoena. Len leoien ezkutatokiak ziraden kobetan, kaña berde, eta ija erneko dira.

8. An egongo da bidetxidor eta Erregebide bat, zeñi ots egingo zaion, Bide santua. Gizon kutsutuk ez du bere gañean oñik ipiñiko; eta au izango da zuentzat bide zuzena; alako moduan, non, ez dakitenak ere ez dirade bertan galduko.

9. Ez da an egongo leoirik, ez pisti odolgirorik batere ez da andikan iragoko, eta an ez da arkituko ere; baizik bide artatik ibilliko dira bekatuaren katiberiotik ateratuak izan diradenak.

10. Eta Jaunak erreskatatuak itzuliko dira, eta etorriko dira Sionera alabantzak kantatzen ari diradela, betiko pozezko koroeak dauzkatela, idukiko dute zeruko atseden eta gozotasun bat; eta iges egingo du berakgandik betiko oñazeak eta negarrak.

OGEITA AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan Ezekiasen agintaritzako amalaugarren urtean, Senakerib, Asiriatarren erregeak ingurututzea Judako erri murrutu guztiak eta arrapatu zituen.

2. Eta gero bialdu zuen berak bere agintari nagusi Rabsazes, Lakistik Jerusalenera gudari talde andi batekin Ezekias erregearen kontra, eta jarri zituen ark bere etzauntzak goiko putzuko urodian Batanariaren kanpoko bidean.

3. Eta irten zitzaiozkan bidera Eliazim, Elziasen semea, jauregiko mirabe nagusia, eta Sobna legeko jakintsua, eta Joahe Asaben semea, kanzillera.

4. Eta Rabsazesek onela itz egin zien: Esan zaiozute Ezekiasi: Errege andiak, Asiriatarren erregeak esaten du: Nolakoa da daukazun itxedopena?

5. Edo nolako asmo, edo indarrakin ausartatzen zera neri gerra egiten? Zeñgan daukazu itxedopena, nigandik alde egiteko?

6. Ikusten det zuk daukazula itxedopena Ejipton, zeñ dan kañabera zartatutako bastoe bat bezela, bere gañean sakatzen danari, zulotuko dio eskua, edo iragoko zaio batetik bestera. Ori izango da Faraon, Ejiptoko erregeko, beragan itxedotzen duten guztientzat.

7. Eta erantzungo baziñidate: Guk gure Jaun Jainkoagan itxedotzen degu, ez al da ori hura, zeñaen toki goratuak, eta zeñaen aldareak desegin zituen Ezekiasek, esaten ziela Judari eta Jerusaleneri: Aldare onen aurrean bakarrik adoratuko dezute Jaungoikoa eskeñtzakin?

8. Orain bada jarri zaite nere jaun Asiriako erregearen mendean. Nik emango dizkizut, baldin nai badituzu, bi milla zaldi, eta zuk ezin arkituko dezu erri guztian beren gañera nork igo.

9. Nola bada arpegi eman alko dizaiozu erri bateko gobernariari, nere jaunaren serbitzarien artean txikienetatikoa izan arren ere? Eta baldin zuk itxedotzen badezu Ejipton berak dauzkan gerrako gurdiakgatik, eta bere zaldidia gatik,

10. Etorri al naiz ni nere Jaunak agindu gabetanik erri ori desegitera? Zoaz erri orretara, esan zidan neri Jaunak, eta arras desegin ezazu.

11. Orduan Eliazim, Sobna, eta Joahek esan zioten Rabsasesi: itz egin zaiezu zure serbitzari oiei siriako itzkuntzan; zeren aditzen degu: ez zaiguzu hebreoz itz egin, murruen gañean dagoen erriak aditzen duela.

12. Erantzun zien Rabsasesek: Nere nagusiak bialdu al nau au guzia esatera zure nagusiari eta zuri, eta ez obetoago murruaren gañean dauden erritarrai, zeñak dauden irriskuan, nere mendean jartzen ez badira, jateko beren gorputzetatik irtendako zikinkeriak, eta edateko zuekin beren garnuak?

13. Eta jarri zan zutik Rabsases, eta deadar andiarekin eta Judako izkuntzan, esaten zuela: Aditu itzatzute Errege andiaren, Asiriako Erregearen itzak.

14. Au esaten du Erregeak: Etzaitzatela engañatu Ezekiasek; bada ezin libratuko zaituzte.

15. Ez dizazutela sartu Ezekiasek buruan itxedopena Jaunagan, esaten dizutela: Ez beldurrik iduki, ziertoro libratuko gaitu Jaunak. Erri au ez da jarria izango Asiriako Erregearen eskuetan.

16. Etzaiozute aditu Ezekiasi; zeren au da Asiriako erregeak esaten duena: Artu ezazute eskeñtzen dizutedan pakea, eta atozte nerekin tratatzera nola jarriko zeraten nere mendean, eta bakoitzak bere mastiko frututik jango du, eta bakoitzak bere pikuko frututik, eta zuetatik bakoitzak edango du ura bere putzutik;

17. Nerau joan nadin artean, eta eraman zaitzatedan artean, zuena bezelakoa dan lur batera; ale, eta ardozko lurrera, ogi eta mastizko lurrera.

18. Eta etzaitzatela nastu ere Ezekiasek esaten duela: Jaunak libratuko gaitu, jendeen jainkoak libratu al dituzte bakoitzak bere erria Asiriako erregearen eskuetatik?

19. Non daude Ematen, eta Arfaden jainkoak? Non da Sefarbaimen jainkoa? Libratu bai al dute bere jainkoak Samaria nere eskuetan erortzetik?

20. Zeñ da jainkoa erri guzi oietako jainkoen artean, zeñak libratu al izan duen bere erria nere besoaren indarretik, itxedon dezazuten, Jaunak salbatu alko duela Jerusalen nere eskuetan erortzetik?

21. Guziak ixildu ziran, eta etzioten itzik erantzun; bada ala agindu zien erregeak, esaten zuela: Etzaiozute ezerere erantzun.

22. Eta Eliazim, Elziasen semea, jauregiko mirabe nagusia, eta Sobna Legeko jakintsuak, eta Joahe Asafen seme, kanzillerak, urratu zituzten beren soñekoak, itzuli ziran Ezekiasgana, eta adirazi ziozkaten Rabsasesen itzak.

OGEITA AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta aditu zuenean Ezekias erregeak, urratu zituen bere soñekoak, zilizioz jantzi zan, eta sartu zan Jaunaren etxean;

2. Eta bialdu zituen Eliazim, bere jauregiko mirabe nagusia, eta Sobna Legean jakintsua, eta apaizetatik zarrenak, zilizioz jantzita, Isaias, Amosen semea billatzera,

3. Zeñi esan zioten: Oiek esaten ditu Ezekiasek: Atsekabezko, eta kastiguzko, eta blasfemiazko eguna da au: aurrak daude onezkero jaiotzeko zorian, eta amakgan aitu da indarrak aurrak egiteko.

4. Jarri ezazu bada zure orazioa erriko kutsuen alde, ikusteko, begiratu ote duen zure Jaun Jaungoikoak Rabsasesen itzetara, zeñ dan bere nagusi Asiriako erregeak bialdua, Jaungoiko biziaren izena blasfematzera, eta berari iseka egitera zure Jaun Jaungoikoak aditu dituen itzakin.

5. Joan ziraden bada Ezekias erregearen ministroak Isaias arkitzera;

6. Zeñak esan zien: Ona emen zuen nagusiari eramango diozuten erantzuna: Jaunak esaten du: Etzaite, aditu dituzun itzen beldur izan, zeñakin nigatik blasfematu duten Asiriako erregearen morroiak.

7. Begira ezazu, ni noa, nastuko duen espiritu bat ematera, eta artuko du berri bat, eta joango da bere errira, eta an egingo det ezpataren puntaz galdua izan dedilla.

8. Egiaz aditurik Rabsasesek Asiriako erregeak alde egin zuela Lakistik, bereala joan zan, eta arkitu zuen Lobnaren kontra gudan.

9. Eta aditu zuen esaten Taraka Etiopiako erregeagatik, bere kontra gudatzera zetorrela; eta ala berri au artu zueneko, bialdu ziozkan mandatariak Ezekiasi, esaten ziela:

10. Oiek esango dituzute, Ezekias Judako Erregearen aurrean jartzen zeratenean: Etzaitzala engañatu zure Jaungoikoak zeñgan zuk itxedotzen dezun, esaten dizula: Ez da Jerusalen Asiriako erregearen eskuetan eroriko.

11. Ongi dakizkizu zuk Asiriako Erregeak egin dituzten gauza guztiak, desegin dituen erri guztiakin, eta uste al dezu zu libratu alko zerala bere eskuetatik?

12. Erreñuetako jainkoak libratu al zituzten nere gurasoak arrasatu zituztenak, Gozamgoak, eta Haramgoak, eta Resefkuak, eta Edenen seme Talsarren bizi ziradenak?

13. Non dirade Ematko Erregea, eta Arfadko Erregea, eta Sefarbaimko erriko Erregea, eta Anakoa eta Abakoa?

14. Onetan artu zuen Ezekiasek karta Bialkiñen eskutik, irakurri zuen, eta igo zan Jaunaren tenplora, zeñaen aurrean zabaldu zuen;

15. Eta egin zion Ezekiasek Jaunari orazio au esaten ziola:

16. Ejerzituen Jauna, Israelko Jaungoikoa, daukazuna zure esertokia Kerubinen gañean, bakarrik zu zera munduko erreñu guzien Jaungoikoa. Zu zerua eta lurra egin ziñituena:

17. Jauna, zeartu itzatzu niganontz zure belarriak, eta aditu ezazu, idiki itzatzu, Jauna, zure begiak, eta begiratu ezazu, eta entzun itzatzu Senakeribek adirazita esandako itz guziak Jaungoiko biziagatik blasfematzeko.

18. Egia da, Jauna, Asiriako Erregeak arrasatu zituztela erreñu aiek, eta beren lurrak,

19. Eta suzko garrakin erre zituela beren Jainkoak; baña etziraden jainkoak, baizik gizonen eskuaren irudiak, zura eta arria eta argatik zatitu zituen.

20. Baña zuk orain, geure Jaun Jaungoikoa, salbatu gaitzatzu onen eskuetatik, eta ezagutu bezate lurreko erreñu guztiak, zu bakarrik zerala Jaun ta Jaungoiko egiazkoa.

21. Onetan Isaias, Amosen semeak, bialdu zuen Ezekiasi esatera: Israelko Jaun Jainkoak esaten du onela: Eskatu didazunaren gañean egin dezadala Senakerib Asiriako erregearekin;

22. Au da Jaungoikoak bere kontra eman duen erabakia: Zu mezpreziatu zaitu, eta iraindu zaitu, o birjiña, Siongo alaba. Zure atzetik, o Jerusalengo alaba, mugitu du bere burua, irri egiten dizula.

23. Zeñ iraindu dek ik, prinzipe urgullutsua? Zeñgatik blasfematu dek, eta zeñaen kontra ausartatu aiz jasotzen boza, eta zuzentzen ire begien antustea? Israelko Santuaren kontra izan dek.

24. Ire morroien bitartez iraindu dek Jauna, eta esan dek: Ni, gerrako gurdien ugaritasunarekin igo naiz mendien alturetara, Libanoko mendidien gañera; eta ebakiko ditut bere zedrorik goratuenak, eta bere pagorik sendoenak; eta allegatuko naiz bere erpiñik goratuenera, eta Karmeloko baso otspatsuan sartuko naiz.

25. Nik idiki ditut putzuak eta edan beren urak, eta nere ejerzituarekin oñak ipiñi ditudan tokian, beren erretenetako ur guziak leortu ditut.

26. Baña, zer? Ez al dezu zuk aditu, esaten du Jaunak, denbora dala nik gauza guzi oiek erabaki nituela? Anziñako egunetatik ab aeterno nik erabaki nuen, eta orain egiztatu det; eta alako moduan egin da, non, osotoro desegiñak izan dirade arkaitzik ongien zaituak, eta erri murrutuak.

27. Oietan bizi ziradenak, loturik beren eskuak, ikaratu ziraden, eta gelditu ziran izutuak; leortu ziraden landaetako elbitza, eta larraetako askia bezela, eta tellatuetako belarra bezela, zein leortzen dan zoritu baño lenago.

28. Nik dauzkat ongi ezagutuak zure bizilekua, zure sartuerak, eta irteerak, eta zure txorakeria nere kontra.

29. Zu nere kontra sumintzen ziñanean, igo zan nere belarrietaraño zure urgulleria. Argatik jarriko dizut nik erraztun bat zure sudurretan, eta brida bat zure ezpañetan, eta itzulieraziko dizut etorri zeran bidetik beratatik.

30. Baña zuk, o Ezekias, idukiko dezu siñaletzat orain adituko dezuna: Urte onetan jan ezazu lurrak berez emango duena; bigarrenean jan itzatzu frutak; baña irugarrenean erein ezazute, igitaitu ezazute, eta ipiñi itzatzute mastiak, eta jan itzatzute beren frutuak.

31. Eta Judako etxetik salbatzen danak, gelditzen diraden kutsuak, sustrai zakonak botako dituzte, eta beren besangak gora luzatuko dituzte,

32. Zeren Jerusalen da nondik aterako diran nere erriko kutsuak, eta Siongo menditik salbatuko diradenak. Ejerzituen Jaunaren zeloak au egingo du.

33. Argatik au esaten du Jaunak Asiriako erregearen gañean: Ez du berak oñik ipiñiko erri onetan, eta ez du ere aurtikiko onara saieta bat, ez du ere arrapatuko gudarik ezkutuarekin, eta ez da ere bere inguruan jasoko lutesirik.

34. Etorri zan bidetik, beratatik itzuliko da, eta ez da erri onetan sartuko, esaten du Jaunak.

35. Eta nik zaituko det erri au neri dagotana gatik, eta Dabid nere serbitzariari.

36. Alaxe da, jetxi zan Jaunaren aingeru bat, eta zauritu zituen Asiriatarren etzauntzetan eun eta larogeita bost milla gizon; eta goizean goiz jaikitzean, ona non etzuten ikusi illen gorputzak baño.

37. Argatik alde egin zuen andik Senakerib Asiriatarren erregeak, eta joan zan, eta itzuli zan Ninibeko bere bizilekura.

38. Non gertatu zan, zegoala tenploan Nesrok bere jainkoa adoratzen, bere seme Adramelek eta Sarasarrek, ezpatadaka il zuten, eta iges egin zuten Araratko lurrera, eta bere lekuan artu zuen erreñuko agintaritza bere seme Asarhaddonek.

OGEITA EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Egun aietan arrapatu zuen Ezekias eriotzako gaitzak, eta sartu zan bera bisitatzera Isaias, Amosen semea, eta esan zion: Oiek esaten ditu Jaunak: Erabaki ezazu zer egingo dan zure etxeko gauzakin, zeren iltzera zoaz, eta zure bizitzaren atzenean zaude.

2. Eta Ezekiasek itzuli zuen bere arpegia pareterontz, eta orazio egin zion Jaunari,

3. Esaten ziola: Oroitu zaitezela arren, erregututzen dizut, o Jauna, nola ibilli naizan zure aurrean tolesgabe, eta biotz osoarekin, eta zure begien gogoko zana egin dedala. Eta negar andiak egin zituen Ezekiasek.

4. Eta andik laster itz egin zion Jaunak Isaiasi, esaten ziola:

5. Zoaz, eta esan zaiozu Ezekiasi: Oiek esaten ditu zure Aita Dabiden Jaun Jainkoak: Aditu det zure orazioa, eta ikusi ditut zure malkoak. Ona non emango dizudan beste amabost urteko bizia,

6. Eta libratuko zaitut Asiriako erregearen eskuetatik zu, eta erri ori, eta zaituko det.

7. Eta Jaunak esan duena kunplituko duenaren siñaletzat emango dizu Jaunak berak au:

8. Ona emen non egitera noan, eguzkiaren itzala atzera biurtu dedilla beeratu dan amar arraiatan Akazen erlojuan. Eta atzera biurtu zan erlojua, beeratu zan amar erraiatatik.

9. Ezekias Judako Erregeak, eritu zanean, eta sendatu bere gaitzetik, eskribatuta utzi zuen katatxoa.

10. Esan nuen nik: Nere egunen erdian sartuko naiz obiko ateetatik, nere gañerako urteak gabetua arkitzen naiz.

11. Esan nuen: Ez det onezkero ikusiko nere Jaun Jainkoa bizi diradenen lurrean. Ez det geiago gizonik batere ikusiko; ezta pake gozoan biziko diradenak ere.

12. Kentzen zait bizitea; eta tolestzera dijoaz nere bizia, artzai baten etzauntza bezela. Ebakia izan da nere bizia eunleak euna bezela. Irazkitzen ari nintzala, orduan berak ebaki zidan; goizetik gauera nerekingoa, o nere Jaungoikoa, egingo dezu.

13. Itxedotzen nuen egunsentiraño bizitea. Jaunak, leoi sendo batek bezela, ala zeatu zituen nere ezur guztiak: baña goizean esaten nuen: Gautu baño lenago akabatuko dezu, o Jauna, nere bizia.

14. Deadar egiten nuen nik enada baten umetxoak bezela, nengoan suspirioz usoa bezela. Erbaldu ziraden nere begiak, egotearekin beti goira begira. Jauna, nere egoera larria da, artu ezazu zure kontura ni zaitzea.

15. Baña, zer da nik esaten dedana? Nola artuko nau berak bere bitartekotasunaren mendean, bera danean au egin duena? Bein eta berriz iragoko ditut, o nere Jainkoa, zure aurrean nere animako mingoiztasunean nere bizitzako urte guztiak.

16. O Jauna, au baldin bada bizitea, eta alako estutasunetan arkitzen bada nere animako bizia, kastigatu nazazu, eta gero bizierazi zadazu,

17. Ona emen nola itzuli dan nere pakea atsekabe txit mingoitzean. Eta zuk, o Jauna, libratu dezu galmenetik nere anima; nere bekatu guztiak zure bizkarren ostera aurtiki dituzu.

18. Zeren ez dituzte kantatuko zure gloriak obian daudenak, eta etzaituzte ere alabatuko eriotzaren mendean daudenak; ez da lizera jetxitzen diradenak ere, ez dute itxedongo, ikustea kunplituta zure eskeñtza egiazkoak.

19. Biziak, Jauna, biziak dirade alabantzak emango dizkizutenak, nik egun onetan egiten dedan bezela; aitak adiraziko die bere semeai zure eskeñtzen leialtasuna.

20. O Jauna salbatu nazazu; eta kantatuko ditugu gure salmoak Jaunaren tenploan gure bizitzako egun guztietan.

21. Jakin bear da Isaiasek agindu zuela artu zezatela piko talde bat, eta berakin ore bat egiñik, konpondu zezatela enplastu bat, eta ipiñi zezatela Ezekiasen zauriaren gañean, eta sendatuko zala.

22. Eta orduan izan zan noiz, Ezekiasek esan zuen: Oraindikan tenplora igoko naizanaren, zer siñale nik idukiko det?

OGEITA EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Denbora artan Merodak Baladan, Baladan Babiloniako erregearen semeak, bialdu zituen mandatariak karta, eta eskeñtzakin Ezekiasgana, jakin zuelako, eririk egon zala, eta izan zala sendatua.

2. Eta Ezekias augatik txit poztu zan, eta erakutsi zien tokia, zeñatan zeuzkan aromak, eta zillarra, eta urrea, eta balsamoak, eta okendu baliotsuak, eta bere tresnaen gordeleku guztiak, eta bere ondasunen artean arkitzen zan guztia. Etzuen utzi Ezekiasek bere etxeko, edo bere mendean zegoan gauzarik, erakutsi gabe.

3. Gero berriz sartu zan Isaias profeta, Ezekias Erregea ikustera, eta galdetu zion: Zer esan dute gizon oriek eta nondik datoz? Nigana etorri dirade, erantzun zuen Ezekiasek, toki urrutietatik, Babiloniatik.

4. Eta, zer ikusi dute zure jauregian, esan zuen berriz Isaiasek? ikusi dute bertan dagoen guztia, esan zuen Ezekiasek, nere gauza balio andikoetatik batere ez da gelditu erakutsi gabe.

5. Orduan esan zion Isaiasek Ezekiasi: Aditu ezazu ejerzituen Jaunaren itza:

6. Ona emen non etorriko dan denbora, zeñean zure jauregian dauden gauza guztiak, eta zure gurasoak bildu zuten guztia gaurko eguneraño; guztia izango dan Babiloniara eramana, ez dute or ezertxoere utziko, esaten du Jaunak.

7. Eta zure seme, zugandik jatorri zuzenetik datoztenetatik autatuko dituzte, txikiratutzat serbitu dezaten Babiloniako erregearen jauregian.

8. Eta erantzun zion Ezekiasek Isaiasi: Justoa da Jaunak eman duen erabakia. Pozik gelditzen naiz, gañera esan zuen, pakea izateaz, eta kunplitzeaz nere egunetan Jaunaren eskeñtzak.

BERROGEIGARREN KAPITULUA

1. Poztu zaite, o nere erria, poztu zaite, zeren ona emen zuen Jaungoikoak esan didana.

2. Itz egin zaiozute biotzera Jerusaleni, alaitu ezazute; zeren bere atsekabea bukatua dan, bere gaiztakeria barkatua dago. Berak onezkero Jaunaren eskutik artu du bi alditan anbat bere bekatu guziak gatik.

3. Aditzen det, eremuan deadar egiten duenaren boza. Gertutu ezazute Jaunaren bidea, zuzendu itzatzute eremuan gure Jaungoikoaren bideak.

4. Ibar guztia izango da goratua, eta mendi ta muño guzia beeratua; eta bide okerrak zuzenduko dira, eta aldapatsuak lautu.

5. Orduan agertuko da Jaunaren gloria, eta gizon guztiak batean ikusiko dute, Jaungoikoaren aoa dala itz egin duena profeten bitartez.

6. Aditu nuen boz bat esaten zidana: Deadar egin ezazu. Nik erantzun nuen: Zer da deadarrez esango dedana? Deadar egin ezazu, esan zuen, aragi guzia elbitza dala, eta bere gloria guzia landako lorea bezela.

7. Elbitza leortzen da, eta lorea erortzen da, Jaunaren asnasea bere kontra zuzentzen daneko. Egia guziarekin gizon guzia elbitza bezelakoa da.

8. Elbitza leortu zan, eta lorea erori zan, gure Jaunaren itzak berriz irautzen du beti.

9. Igo zaite mendi goratu batera, zu, Sioni berri onak adirazten diozkazuna; jaso ezazu sendo zure boza, zuk, Jerusaleni Ebanjelioa adirazten diozunak: altxatu ezazu, eta etzaite beldur izan. Esan zaiezu Judako erriai: Ona emen zuen Jaungoikoa.

10. Ona emen badatorrela zuen Jaun Jainkoa neurri gabeko eskubide batekin, eta bere besoko indarrarekin agintatuko du. Begiratu ezazute, berak daramala berarekin bere ordaña jarraitzen diotenentzat, eta begien aurrean dauka bere obra, munduaren salbaziokoa.

11. Nola artzai batek bazkatzen duen bere artaldia; bilduko ditu bere besoarekin arkumetxoak, bere besartean artuko ditu, eta berak eramango ditu ardi ume egin berriak.

12. Zeñ da neurtu dituena itsaso zabaleko urak bere eskuko arraiaren utsunean? Eta luzaturik au pisatu al ditu zeruak? Zeñ da iru beatzekin bakarrik geldi daukana lurraren pisu andia, eta pisatzen dituena mendiak eta muñoak pisakoska batekin bezela?

13. Nork lagundu zion Jaunaren espirituari? Edo, nor izan zan bere konsejaria, edo itsatsi zion jakinduria?

14. Zeñi ots egin zion berak galdetzeko, edo zeñ da berari erakutsiak eman diozkana, edo erakutsi diona justiziako bidea, edo itsasi diona jakinduria, edo ezagutuerazi diona zentzuaren bidea?

15. Ona emen non erreñu guztiak bere aurrean diran pegar bati darion ur tanto bat bezela; eta grano txikitxo bat balantzan bezela. Orobat ugarteak auts granotxo bat bezelakoak dirade.

16. Libanon dauden zuaitz guztiak ez litezke asko izango bere aldareko sua izekitzeko, ezta bere abere guziak ere, bere diña dan holokausto bat egiteko.

17. Lurreko erreñu guziak dirade bere aurrean, ez balirade bezela; eta izaterik ez daukan gauza bati bezela, ala begiratzen die berak.

18. Zer gauzari bada iduritu diozute zuek Jaungoikoa; edo zer gauza bere antzeko aterako dezute?

19. Iduri ta idoloa, ez al da urtzalle baten lana? Bere egilleak ez al du urreaz formatu, edo zillargilleak zillarrezko plantxakin?

20. Bere egille-gaiak aututzen du zur gogor, eta usteltzen ez dan bat, eta egiten ditu alegiñak ipintzeko otallua, eroriko ez dan eran.

21. Ez al dakizute Jaungoikoa zer dan? Ez al dezute aditu itz egiten bere gañean? Ez al zazuten adirazia izan munduaren asieratik? Ez al daukazute berririk, nola berak egin zituen lurraren zimenduak?

22. Jakin ezazute bera dala eseria dagoena lur biribil onen gañean: eta emen bizi diradenak, bere aurrean langosta txiki batzuek bezelakoak dirade. Bera da zabaldu zituena zeruak belo, edo gauza txit arin bat bezela, eta destolestu zituena etzauntz bat bezela, zeñ izango dan bertan biziteko.

23. Bera da nastu eta ezereztutzen dituena mundutar, gauza ezkutuen jakin-naiak, eta utsera biurtzen dituena lurreko juezak.

24. Oiek dirade Jaungoikoarentzat subil bat bezela, zeñ ez dan izan lurrean ipiñia, ez ereina, eta zeñek bertan sustrairik ere ez daukan. Batbatean, Jaunak beren kontra botatako asnasa batekin leortu ziran, eta aizebunbada batek daramazki orbela bezela.

25. Zeñ gauzari bada iruditu nazazute? Zeñ gauzarekin berdindu nazute, esaten du, berez santua danak?

26. Altxatu itzatzute goirontz zuen begiak, eta oartuta gogoan erabilli ezazute, nork egin ote zituen zeruko gauza oriek, nork zuzen joanerazitzen dion izar talde andi orri; eta ots egiten dion beretatik bakoitzari bere izenez, bat ere atzean gelditu gabetanik. Alakoa da bere eskubidearen, bere sendotasunaren, eta bere birtutearen anditasuna.

27. Zergatik bada zuk, o Jakob, esaten dezu; zergatik diozu zuk, o Israel: Ez du Jaunak ezagutzen nolako egoeran arkitzen naizen, eta aztu da nere Jaungoikoa, neri justizia egiteaz?

28. Ez al dakizu zuk, edo ez al dezu aditu, Jaungoikoa dala betiko Jaun, lurraren zabalera egin zuena nekatu gabe, eta adikatu gabe; eta bere jakinduria aditu eziña dala?

29. Bera da, erkia sendotzen duena, eta almen ta indar asko ematen diona, ezertarako ere gai ez diradenai.

30. Indargatu eta desalaituko dirade aurrak, eta argaltasunez eroriko dirade gazteak.

31. Beren itxedopena Jaunagan ipiñita daukatenai berriz, geituko zaiezte indarrak, artuko dituzte, agilarenak bezelako egoak, joango dirade korrika, eta alaere ez dirade nekatuko, ibilliko dirade, eta ez dirade desalaituko.

BERROGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Ixildu bitez nere aurrean ugarteak, eta jendeak artu bitzate indar berriak, alderatu bitez, eta itz egin bezate gero, eta sartu gaitezen batean juizioan.

2. Nork atera zuen Sortaldetik Abraham justoa, eta ots egin zion berari jarraitzeko? Jaunak bere aurrean menderatu zituen erreñuak, eta egin zuen erregeak baño andiago, zeñak jarririk bere ezpataren puntan, eta bere uztaiaren itutzat, gelditu ziran auts eginik, eta aizeak daraman lastoa bezela.

3. Jarraitu zien, irago zan aurrera galmenikan gabe, ain agudo, non, bere oñen aztarnarik ere etzan ikusi.

4. Nork egin eta osotu zituen gauza oiek? Nork asieratik autu zituen, eta gauza artara zuzendu gizaldi guztiak? Nik Jaunak, nik lenbizikoa, eta atzena naizenak.

5. Ikusi zuten ugarteak eta beldurrez bete ziran. Arritu ziran erreñurik urrutienekoak; eta alaere bildu ziran, eta alderatu ziran.

6. Elkarri lagundu zioten, eta bakoitzak bere anaiari esaten zion: Zaude sendo.

7. Bronzegilla malluz lanean ari zanak sendotzen zuen ingudean otska ari zana, esaten ziola: Ongi egiña dago Zoldaera. Orain sartu zaiozkazu iltzeak idoloaren otalluari, mugitu ez dedin.

8. Baña zuk, o Israel, nere serbitzaria, zuk, o Jakob, zeñ autu nuen, zuk, zeranak nere adiskide Abrahamen jatorria,

9. Zuk, ekarri zindudanak lurraren atzeneko mugetatik, eta ots egin nizunak bere urrutieneko alderrietatik, eta esan nizunak: Nere serbitzaria zera zu; nik autatu zaitut, eta etzaitut botako.

10. Ez ezazu beldurrik iduki, esaten det: zeren ni zurekin naizan; ez ezazu alderik egin bidetik, zeren ni zure Jaungoikoa naizan. Nik sendotu zaitut, nik lagundu dizut, eta nere Justoaren eskuieko beso almentsuak gorde zaitu.

11. Jakin ezazu nastuak, eta lotsatuak geldituko diradela, zuri gerra egiten dizuten guztiak, izango dirade, ez balirade bezela, eta galduko dirade zuri kontra egiten dizutenak.

12. Billatuko dituzu zure kontra altxatzen diraden gizon oriek, eta ez dituzu arkituko. Izango dirade ez balirade bezela, eta ezurruts bat bezela geldituko dirade, zuri gerra egiten dizuten guztiak.

13. Zeren ni naizan zure Jaun Jaungoiko, eskutik artzen zaitudana, eta nagokizuna esaten: Etzaite beldur izan, zeren ni naizan zuri laguntzen dizudana.

14. Etzaite beldur izan artxoa, o Jakob, ez dezu artan beldurrikan iduki; ezta zuek ere Israelko il batzuek dirudizutenak. Ni naiz zure laguntasuna, esaten du Jaunak; eta Israelko Santua da zure Salbatzallea.

15. Nik egingo det izan zaitezela zu, uztak traillatzeko gurdi berri bat bezelakoa, bere kurpilletan burnizko ortzak dauzkana. Zuk traillatu eta txetuko dituzu mendiak, eta auts biurtuko dituzu muñoak.

16. Zuk aizetuko dituzu, eta aizeak eramango ditu, eta barreiatuko ditu aize bunbada batek, eta zu egongo zera pozez gañez eginda Jaunagan, eta bozkariotuko zera Israelko Santuagan.

17. Eskaleak eta beartsuak uraen billan dabiltza, eta ez dago urik, beren mingaña egarriz leortu zan. Nik Jaunak, urrikalduta, adituko ditut. Nik, Israelko Jainkoak, ez ditut utziko.

18. Nik irteneraziko diet ibaiai muñorik goratuenetan, eta iturriai kanpoen erdian, eremua urezko putzu biurtuko det, eta lur leor, eta iñor bizi ez ditekeana, erreka ugarietan.

19. Erneeraziko diet bakartadean zedroari, Setimari, eta arraianari, eta oliboari; eta eremuko lurrari emaneraziko diot batean abetoa, zumarra, eta ezpela,

20. Guztiak batean ikusi dezaten, eta jakin dezaten, eta oartu ditezen eta konprenditu dezaten Jaunaren eskua dala alako gauza bat egin duena, eta Israelko Santua dala izatea eman diona.

21. Atera zaitezte orain zuen kausa zaitzera, esaten du Jaunak: ipiñi ezazute, baldin badaukazute arrazoe sendorikan batere, esaten du Jakoben erregeak.

22. Etorri bitez zuen jainkoak, eta lendanaz adirazi bizazkigute oraindikan gertatzeko dauden gauza guztiak. argitu bitzate anziñako izan ziradenak, eta arretaz egongo gerade, eta jakingo ditugu, gero etorriko diraden gertakariak, lendanaz adirazi zaguzute gertatuko dana.

23. Profetizatu ezazute geroko denboretan gertatuko dana, eta orduan ezagutuko degu zuek zeratela Jainkoak. Egin ezazute ona edo gai-

tza, ezerere egin al baldin badezute, eta batean itz egin dezagun, eta diskurritu dezagun zuen eskubidearen gañean.

24. Baña gauza argia da zuek ezerere ezetik egiñak zeratela, eta ezerere ez dan gauza batetikan dator zuen izatea. Nazkagarria da autatu zinduztena Jaungoikoak bezela adoratzeko.

25. Baña nik ots egin nion Abraham justoari Ifarretik, Sortaldetik etorri zedin, berak nere izenari ots egin zion, eta zapaldu zituen prinzipeak loia bezela, eta eltzegilleak buztiñia zapaltzen duen bezela.

26. Zeñak bestek, nik baizik, lendanaz adirazi ditu gauza oiek beren asieratikan, ezagutu ditzagun, eta anziñako denboretatik, esan dezagun: Arrazoia daukazu, justizia zure alde dago? Zuen idoloen artean berriz ez dago profetizatzen duenik, ez geroko gauzak adirazten dituenik, ezta zuen aoko itzak bederik aditzen dituenik.

27. Lenbizikoak Sioni esango dio: Ona emen non dauzkazun, eta emango diot Jerusaleni berri onen eramatzalle bat.

28. Eta ni, Isaias, begira egon nintzan, eta etzan arkitu an idoloen alde zeudenen artean bat bakarra bederik konsejuaren gai zanik, ezta erantzuteko ere itz bakar bat galdetzen zionari.

29. Beraz guztiak gaizto batzuek dirade, eta alperrak dirade beren eskuen lanak, aizea eta urgulleria beren irudiak.

BERROGEITA BIGARREN KAPITULUA

1. Ona emen nere serbitzaria; ni berarekin egongo naiz. Nere autatua, zeñagan nere anima gozatzen dan, bere gañera nere espiritua isuri det; berak erreñuai justizia erakutsiko die.

2. Ez da deadarrez ariko, eta ez du ere iñorgan zeñ zeñ dan begiratuko, ez da karrikaetan adituko bere boza,

3. Kañabera brintzatua ez du autsiko, eta ez du ere itzaliko kea dariola dagoen babila. Egiaren araura juzgatuko du.

4. Ez da izango tristea, ez matxiñaria, lurrean justizia ipintzen duen bitartean, eta ugarteak beragandik Legea itxedongo dute.

5. Gauza oiek esaten ditu, zeruak egin, eta zabaldu zituen Jaun Jainkoak; izatea ematen dionak lurrari, eta bertan ernetzen dan gauza guziari; asnasa ematen diotenak bertan bizi diran erriai, eta espiritua, bertatik dabiltzanai.

6. Nik, Jauna naizan onek, ots egin dizut justiziaren amorioz, eskutik artu zaitut, eta zaitu zaitut, eta jarri zaitut izan zaitezen erriaren pakegillea, eta erreñuen argia,

7. Idiki ditzatzun itsuen begiak, eta atera ditzatzun karzelatik kateekin lotuta zeudenak, eta katibuen egonlekutik, illuntasunetan datzazanak.

8. Ni naiz Jauna, au da nere izena, nere gloria ez diot besteri emango, ez nere onra ere idoloen irudiai.

9. Ikusten dezute kunplitu diradela len adirazi nizkizuten gauzak. Orain nik beste barri batzuek lendanaz adirazten ditut. Eta zuei lendanaz adirazten dizkizutet gertatu ditezen baño lenago.

10. Kantatu zaiozute Jaunari kantatxo berri bat, adirazi itzatzute bere alabantzak lurraren atzeneko mugetaraño, zuek zabiltzatenak itsasoen zabalera anditik, eta zuek, o ugarteak, eta beretan bizi zeraten guziak.

11. Jaiki bedi pozik Eremua bere erri guziakin. Zedar biziko da etxe ederretan. Petran bizi zeratenak, kantatu zaiozkazute alabantzak Jaunari; jaso ezazute boza mendien erpiñetik.

12. Berak Jaunari gloria emango diote, eta adiraziko dituzte ugartetan bere alabantzak.

13. Zeren Jauna aterako da kanpora, gudari, garaitua izan ez dezakean bat bezela; gerrari sendo batek bezela biztuko du bere zeloa, emango ditu bozak, eta deadar egingo du, geiago izango da bere etsaien kontra.

14. Oraindaño, esango du berak, beti ixillik egon naiz, zaitu det ixiltasuna, sufritua izan naiz, baña orain aurregiten dagoen andrearen bozak bezelakoak, alakoak izango dirade nereak. Arrasatuko ditut, eta iretsiko ditut nere etsai guztiak.

15. Nik arras desegingo ditut mendiak eta muñoak, eta leortuko ditut bere belar guztiak, eta ibaiak ugarte itzuliko ditut, eta sikatuko ditut putzuak.

16. Eta zuzenduko ditut itsuak ez dakiten bide batetik, eta ibillierazi-ko diet ezagutzen ez dituzten bidetxigorretatik. Itzuliko det beren begien aurrean argia illuntasun, eta bide okerrak bide zuzen, alako gauzak egingo ditut beren alde, eta beñere ez ditut utziko.

17. Baña berak nigandik iges egingo dute, eta geldituko dirade lotsariz beteak, beren itxedopena idoloen irudietan ipintzen dutenak, berak egin dituzten otalluai esaten dienak: Zuek zerate gure jainkoak.

18. Aditu ezazute, o gorrak, eta zuek itsuak idiki itzatzute begiak ikusteko.

19. Eta, zeñ da itsua, nere serbitzari Israel baizik? Eta, zeñ da gorra, nere mandatariak bialdu niozkan hura baizik? Zeñ da itsua etsaiari saldu zaiona baizik? Eta, zeñ da itsua Jaunaren mendekoa baizik?

20. Zu, ikusten dituzuna anbeste gauza nere profetak lendanaz adiraziak, nola etzera jartzen oarpenean beren gañean? Zuk, belarriak idikita dauzkazunak, nola ez dezu aditzen?

21. Eta ori, Jaunak iduki ezkero Israeli borondate ona, aututzen zuela bera santututzeko, eta ezagutuerazitzeko bere lege santaren anditasun, eta edertasuna.

22. Baña nere erri orri berorri arrapatua izan zaio zeukan guzia, eta bera arrasatua izan da. Katibu egiñak izan dirade bere mutil gazte guztiak, eta karzeletan jarriak. Indarrez kenduak izan dirade, eta ez dago nork berak libratu; ostuak, eta ez dago nork esan dezan: itzuli bizaiezte.

23. Zeñ da zuen artean aditzen duena, eta arretaz dagoena, eta pensatzen duena etorriko dan gauzan?

24. Zeñ izan da utzi dituena Jakob eta Israel, zeukatena kendu ziotenak arrapatua izan zedin? Ez al da Jauna bera, zeñaen kontra bekatu egin degun, nai ez diegula jarraitu bere bideai, ez bere legeari obeditu?

25. Argatik bota du Jaunak erri onen gañera bere aserrearen sumintasuna, eta egiten dio gerra txit gogor bat, eta bere aldamen guzietatik sua eman dio, eta argatik ere ez da kontuan erori Israel, eta su garretan ipiñi du, eta alaere ez da etorri bere bekatuen ezaguerara.

BERROGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta orain ona emen esaten duena Jaunak, zure Egilleak, o Jakob; formatu zinduenak, o Israel: Etzaite bedur izan, bada nik erredimitu zindudan; eta zure izenez ots egin nizun, zu guziori nerea zera.

2. Uren erditik iragotzen zeranean, ni zurekin egongo naiz, eta ibaiak etzaituzte estaliko. Suaren erditik zabiltzanean, etzera erreko, eta garrak ez du idukiko zuretzat berotasunik;

3. Zeren ni naiz zure Jaun Jainkoa, Israelko Santua, zure Salbatzallea, nik eman nituen zu katiberiotik ateratzeagatik, Ejipto, Etiopia eta Saba.

4. Nere begietan maitagarria eta gloriaz betea egin ziñanetik onara, nik maitatu zaitut, eta emango ditut gizonak zugatik, eta erriak zure salbazioagatik.

5. Etzaite bada beldur izan; zeren ni zurekin nagoen, eguzkiaren sortaldetikan zuzenduko ditut zure semeak, eta sartaldetik bilduko ditut.

6. Eman zazkidazu, esango diet Ifarrari eta Egoeari, ez itzatzu zugan iduki, ekarri zazkidazu nere semeak urrutitikan, eta nere alabak munduaren atzenetikan,

7. Zeren nere izen santuari ots egiten dioten guztiai eman nien izatea, berak formatu nituen, eta egin nituen nere gloriarako.

8. Alaere aurtiki ezazu kanpora arako erri, begiak badauzka ere itsua dana, eta belarriak idukiagatik ere, gorra dana.

9. Bildu bitez batean erreñu guziak, eta jarri bitez toki batean tribuak, zuetatik zeñak adiraziko du au, eta aditueraziko du, aurrena gertatu bear dana? Eman bitzate testiguak, justotu bitez alako moduan, non, aditzen dutenak esan dezaketen: Egia da.

10. Zuek, esaten du Jaunak, zerate nere testiguak, eta nere serbitzari, autu nuena, ongi ezagutu, sinistu eta konprenditu dezazuten, ni zaizala Jaungoikoa bera. Etzan Jaungoikorik egiña izan ni baño lenago, eta nere ondoan ere ez da egiña izango.

11. Ni naiz, ni naiz Jauna, eta ez da beste Salbatzallerik izango, ni baizik.

12. Nik lendanaz esan nuen; eta ni izan nintzan salbatu zinduztedana. Ezagutuerazi nizuten, eta etzegoan orduan zuen artean jainko arrotzikan. Zuek zerate nere testiguak, esaten du Jaunak, eta zuek dakizute ni naizala Jaungoiko bakarra, eta egiazkoa;

13. Eta ni naiz leeena bera, betiko iraunaren asieratik, eta ez dago iñor ere nere eskutik iges egin dezakeanik. Nik egingo det gauza bat, eta nork galeraziko dit?

14. Au esaten du zuen Santu eta Salbatzalleak, Israelko santuak: Zuen amorioagatik jendeak Babiloniara bialdu ditut, eta lurrera bota bere murru guziak, eta beren ontzietan gozatzen ziran Kaldeatarrak.

15. Ni Jauna, zuen Santua, Israelen Egillea, zuen Erregea.

16. Oiek esaten ditu itsasoan bidea, eta korront andien erdian bidetxigorra idiki zuen Jaunak.

17. Bera da Ejiptotik ateraerazi ziena gurdi armadunai, eta zaldiai. Zaldi taldeak, eta bere gizon sendo guziak, artu zituen batean eriotzako loak, eta ez dirade esnatuko. Izan ziran mallatuak, liñoa bezela, eta galdu ziran.

18. Baña ez itzatzute aitatu iragotako gauzak, eta etzaiezute ere anziñakoai begiratu.

19. Ona emen non nik berriak egingo ditudan. Orain argitara irtengo dira, eta zuek ikusiko dituzute. Idikiko det bide bat Eremuan, eta ur jarioak basamortuko lurrean.

20. Pisti uzuak, sugulnak, eta saieak bedeikatuko naute; ur jarioak atera ditudalako eremuan, eta ibaiak erri gabeko tokian, edan dezan nere erriak, erri autatuak.

21. Neronek neretzat formatu nuen erriak, eta zeñak nere alabantzak kantatuko dituen.

22. Bada zuk, o Jakob, etziñidan ots egin; eta etziñan ere nerekin oroitu, o Israel.

23. Etziñizkidan neri eskeñi ariak holokaustoan, eta ez nazu ere onratu doañakin. Ez naiz ni zuk opariakin serbitu dezuna, ezta ere eman dizuna inzensua erretzeko lana.

24. Ez dezu zuk neretzat erosi diruarekin kañabera aromatsua, eta ez nazu ere ase zure doañen gantzarekin. Baizikan nerekin serbitu zera zure bekatuetan; eta pena andia eman didazu zure gaiztakeriakin.

25. Alaere ni naiz, ni nerau naiz borratzen ditudana zure gaiztakeriak neronen amorioagatik, eta ez naiz berriz zure bekatuakin oroituko.

26. Bestela ekarri zazkidazu zuk nere gogora zure obrak, sartu gaitezen biok juizioan. Esan esazu baldin badaukazu ezertxoere zure burua garbitzeko.

27. Zure aitak lenengo bekatu egin zuen, eta etzuten zaitu zure bitartekoak, neri emanda zeukaten itza.

28. Argatik zikindutzat argiro eman nituen Santuarioko prinzipeak, eta ipiñi nuen ondatua Jakob, eta lotsatua Israel.

BERROGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Orain bada, aditu ezazu, o Jakob nere serbitzaria, eta zuk, o Israel, zeñ autu nuen.

2. Oiek esaten ditu egin zinduen eta formatu zinduen Jaunak, zure mesedegilleak zure amaren sabeletik: Etzaite beldur izan, o Jakob nere serbitzaria, eta zu, o txit zuzen, autu zindudana,

3. Zeren nik isuriko ditut urak egarriz dagoen lurraren gañera, eta korrika joaneraziko diotet ibai andiai otadietatik, isuriko det nere espiritua zure jatorriaren gañera, eta nere bedeikazioa zure ondokoen gañera.

4. Eta aziko dirade, azitzen diraden bezela zarikak belartzan ur korronten aldean.

5. Onek esango du: Ni Jaunarena naiz. Eta bestea gozatuko da Jakoben izena daramalako, eta besteak eskribituko du bere eskuaren gañean: Jaunarena naiz, eta idukiko du Israelen antzeko izen bat.

6. Oiek esaten ditu Jaunak, Israelko Erregeak, eta bere Salbatzalle, ejerzituen Jaunak: Ni naiz lenengoa, eta ni atzena, eta ez dago ni baño beste Jaungoikorik.

7. Zeñ dago nere antzekorik? Adirazi eta esan dezala; eta argitu ditzala munduko anziñako jendea fundatu nuenetik onarañoko gauzak. Lendanaz adirazi bizaiezte bereai etorkizunak, eta gertatuko diraden gauzak.

8. Etzaitezte bada beldurtu, ez nastu, ni izan naiz, o Israel, asieratikan jakinerazi, eta lendanaz adirazi nizkizuna, zuek zerate nere testiguak. Ni baño beste Jaungoikoren bat al dago, edo gauzeen beste Egille, nik ezagutzen ez dedanen bat?

9. Idoloen egingilla guziak utsa dirade, eta deusik ez diote balioko geien maitatzen dituzten gauza oiek. Berak beren lotsarirako dira testiguak, nola idoloak ez duten ikusten, ez aditzen.

10. Zeñ da bada alako zentzugabea, non, Jaungoiko bat formatzea pensatu zuen, eta egin zuen ezertarako ere gai ez dan otallu bat?

11. Ona non onetan partale diraden guziak, lotsatuak geldituko dirade, zeren langille oiek gizon ezjakin batzuek dirade: bestela bildu bitez guztiak, eta etorri bitez nere aurrera, eta guziak dardaraz egongo dirade, eta geldituko dirade nastuak.

12. Errementariak egiten du idoloa limarekin; errementarian eta mallu otsakin moldetzen du, landutzen duela besoen indarrarekin; eta noizbait gose izango da, eta indargatuko da, eta nekatua egonagatik ere, ez da joango ura edatera.

13. Otallugilleak ipintzen du erregela zuraren gañean; egiten du idoloa zepilloarekin, berdintzen du esquadran, ematen dio bere ingurua konpasarekin, eta ateratzen du gizon baten irudia, egiten duela irudi oneko gizon etxe batean bizi danaren antzekoa.

14. Ebaki zituen zedroak, ekarri zituen basoko zuaitzen artean azitako aritz eta arteak, ipiñi zuen pinu bat, zeñ andi egin zan euriaren bitartez.

15. Zuaitz oiek ditu gizonak sukalderako. Artzen ditu beretatik batzuek eta berotzen da, eta beren suarekin ogia erretzen du. Gañerakoarekin berriz egiten du Jaungoiko bat, eta adoratzen du; egiten du otallu bat, eta auzpeztzen da bere aurrean.

16. Zuaitzaren zati bat suan erretzen du, eta beste batekin aragia egosten du jateko, konpontzen du errea, asetzen da, eta berotzen da, eta esaten du: Ederki! Berotu naiz, su eder bat egin det.

17. Zuaitzaren gañerakoarekin berriz, egiten du beretzat Jaungoiko bat, eta otallu bat; auzpeztzen da bere aurrean, eta adoratzen du, eta erregututzen dio, esaten duela: Salba nazazu, zeren nere Jaungoikoa zu zeran.

18. Dirade ezjakin batzuek, adimentu gabekoak, dauzkate begiak basaz beteak, ez ikusteko, eta zentzurik ere ez idukitzeko.

19. Ez dirade oartzen, ez dute pensatzen, eta ez daukate ere zentzurik, esateko: Nik erdia suan erre nuen, eta erre nituen ogiak bere ikaz-

kanborren gañean, egosi nituen aragiak, eta jan nituen, eta gañerakoarekin nola idolo bat egin nezake? Zur zati baten aurrean auzpeztuko naiz?

20. Onen zati bat onezkero autsa da, eta alaere biotz zentzugabeko batek adoratzen du, eta ez da desengañatzen, esaten duela: Noaski nere eskuz egindako lana gezur bat da.

21. Oroitu zaite gauza oiekin, o Jakob; zu, o Israel, nere serbitzaria zu zeran ezkero. Nik formatu zindudan, nere serbitzaria zera zu, o Israel, etzaite nerekin aztu.

22. Desegin nituen zure gaiztakeriak odeia bezela, eta lañoa bezela zure bekatuak. Itzuli zaite nigana, bada nik erredimitu zaitut.

23. Kantatu itzatzute, o zeruak, alabantzak; zeren Jaunak alako urrikaltasun andia egin duen. Poztu zaite lurra muga batetikan bestera, mendiak, basoak, eta beretako landare guziak, ots erazi zaiezute bere alabantzai; zeren Jaunak erredimitu zuen Jakob, eta izango da gloriaz betea Israelen.

24. Oiek esaten ditu Jaunak, zure Salbatzalle, amaren sabelean formatu zinduenak: Ni naiz Jauna, gauza guztien Egillea, ni bakarrik zeruak zabaltzen ditudana, eta fundatzen dedana lurra, iñoren laguntasun gabe.

25. Utsera biurtzen ditudana aztien esanak, eta asmatzalleai zentzua kentzen diotedana; lotsatuak utzitzen ditudana jakintsuak, eta beren aditza zentzugabetasun biurtzen dedana.

26. Ni naiz nere serbitzariaren itza egiztatzen dedana, eta kunplitzen ditudana nik bialdutakoen profeziak, esaten diodana Jerusaleneri: Biziko da jendea zugan, eta Judako erriai: Berriz egiñak izango zerate, eta nik zuen eremuak jendez beteko ditut.

27. Ni, esaten diodana itsasoari: Leortu zaite, eta sikatuko ditut zure ibaiak,

28. Esaten diodana Zirori: zu zera nere artzaia, zuk kunplituko dituzu nere asmazio guziak, esaten diodana Jerusaleneri: Zu berriz egiña izango zera, eta tenploari: Zu berriz fundatua izango zera.

BERROGEITA BOSGARREN KAPITULUA

1. Oiek esaten diozka Jaunak Ziro nere kristoari, zeñ artu dedan eskutik beragan menderatzeko erreñuak, eta erregeai iges erazitzeko, eta bere aurrean ateak idikitzeko, eta ate oiek ez dirade itxiak izango.

2. Ni joango naiz zure aurretikan, eta umillatuko ditut lurreko andiak, zatituko ditut bronzezko ateak, eta autsiko ditut burnizko balenkak.

3. Eta zuri emango dizkizut tesoro ezkutatuak, eta aberastasun estaliak, jakin dezazun ni naizela Jauna, Israelko Jaungoikoa, oraindandik zure izenarekin ots egiten dizudana.

4. Nere serbitzari Jakoben, eta Israel nere autuaren amorioz, ots egin nizun zure izenarekin, jarri nizun igortziaren izengoitia, eta zuk ez ninduzun ezagutu.

5. Ni Jauna, eta ez dago besterik ni baizik, ez dago beste Jaungoikorik ni baizik. Nik ipiñi nizun gerrian ezpata, eta zuk ez nazu ezagutu.

6. Eta armak eman nizkizun, guztiak sortaldetik Sartalderaño jakin dezaten, ez dagoela beste Jaungoikorik, ni baizik, ni Jauna, eta ez dago besterik,

7. Ni argia egiten dedana, eta illuntasunai izatea ematen diedana, pakea egiten dedana, eta kastiguak bialtzen ditudana. Ni Jauna, ni gauza guzi oiek egiten ditudana.

8. O zeruak! isuri ezazute goitik zuen intza, eta odeiak botatzen duten euria izan bedi Justoa, idiki bedi lurra eta erne bedi Salbatzallea, eta jaio bedi berarekin justizia. Nik Jaunak egin nuen.

9. Ai bere Egilleari kontra egiten dionaren doakabea, ez izanik Samosko lurrezko ontzi bat baizik! Buztiñiak eltzegilleari esango al dio; Zer egiten dezu? Zure lana esku gabe al dago?

10. Ai bere aitari esaten dionaren zorigaistokoa, itz egiten diola onela: Zergatik izan nintzan zugandik sortua? Eta bere amari: Zergatik izan nintzan sortua zure sabelean?

11. Alaere oiek esaten diozkate Jaunak, Israelko Santuak, berak formatu zituen gizonai: Galde zadazute geroko gauzen gañean, kontuak artu zazkidazute nere semeen gañean, eta nere eskuen obren gañean.

12. Bada nik egin nuen lurra, eta gizonari bertan izatea eman nion. Nere eskuak zeruak zabaldu zituzten, eta bertako gudari talde guziari aginteak eman niozkan.

13. Ni naiz ere jasoko dedana gizon bat nere justizia egiteko, eta bere pausu guziak zuzenduko ditut; berak berriz egingo du nere erria, eta askatuko ditu nere seme katibuak erreskata gabe, doañ gabe, esaten du ejerzituen Jaun Jainkoak.

14. Oiek ere esaten ditu Jaunak: Ejiptoko lanak, eta Etiopiako saldu erosia, eta Sabeatarrak, gizon goianteak, iragoko dirade zugana, eta zureak izango dirade. Joango dirade zure ondoren eskuak lotuta, eta adoratuko zaituzte, eta eskariak egingo dizkizute. Zugan bakarrik dago Jaungoikoa, zeñ baño beste Jaungoikorik ez dagoen.

15. Egiaz zu zera Jaungoiko eskutatu bat, Israelko Jaungoikoa, gure Salbatzallea.

16. Nastuak eta lotsatuak gelditu ziraden, idoloak egiten zituzten guztiak, batean lotsariz estaliak izan dirade.

17. Baña Israel, Jaunak salbatua izan da betiko salbazioarekin. Etzerate nastuak izango, eta ez dezute ere iñoiz beñere zergatik lotsatu idukiko.

18. Zeren oiek esaten ditu Jaunak, Zeruen Egilleak, lurra egin zuen eta berari irauneraziten dion Jaungoikoak; bera da bere Egillea; eta alperrikan egin etzuena; baizik egin zuen jendea bizi zedin. Ni Jauna, eta ez dago ni baño besterik.

19. Ez det itz egin ezkutuan, lurreko toki illunen batean, ez nion esan Jakoben jatorriari: Billatu nazazute alperrikan. Ni Jaun, erakusten dedana justizia, eta zuzentasuna predikatzen dedana.

20. Bildu zaitezte, eta atozte, eta alderatu zaitezte zuek guziok erreñuen artetik salbatu zeratenok, aitortu ezazute, zentzugabeko batzuek diradela jasotzen dutenak berak otallututako idolo bat, eta zuzentzen diozkatenak erreguak, berak salbatu ez ditzaken Jaungoiko bati.

21. Itz egin ezazute guztiakin, eta atozte, eta itz egin ezazute batzuek besteakin onela: Zeñek asieratikan lendanaz adirazi zituen gauza oiek? Zeñek denbora artatik lendanaz adirazi zituen? Ez al naiz ni Jauna? Ni baño beste Jaungoikorik al dago? Jaungoiko zuzen eta salbatzen duenik ni baño besterik ez dago.

22. Itzuli zaitezte bada nigana lurreko erri guztiak, eta salbatuko zerate, zeren ni Jaungoikoa naizan, eta ez dago besterik.

23. Juramentu egin det neraugatik, nere aotik irten da itz txit zuzen bat, eta ez det jango.

24. Au da, nere aurrean guztiak belaunikatuko dirade, eta nere izenagatik mingañ guztiak juramentu egingo du.

25. Esango dute bada Jaunagan: Nereak diradela justizia eta agintaritza. Jaunaren aurrean agertuko dirade eta geldituko dirade lotsatuak, berari kontra egiten diotenak.

26. Eta orduan Jaunak justotzat emango du, eta gloriaz beteko du Israelko jatorri guztia.

BERROGEITA SEIGARREN KAPITULUA

1. Bel zatitua dago, nabo auts egiña gelditzen da, beren irudiak dirade zamak abere eta zamarientzat; beren pisu andiarekin zuek mendean lerregin, ta etsirik idukitzen zinduzteen zamak.

2. Jainko oiek lurrera erori dirade, eta zatitu dirade guztiak. Ezin salbatu izan dituzte berak zeramazkitenak; baizik berak ere katibu joan bear izan dute.

3. Aditu nazazute, o Jakoben etxea, eta zuek guztiok, Israelko etxeko kutsuak, zeñak daramazkidan nik nere bularrean, eta dakarzkidan nere erraietan.

4. Nik neronek eramango zaituztet besoetan zartzaraño, zuen illeak zuritu arteraño. Nik egin zinduztedan, eta nik eramango zaituztet. Nik elduta idukiko zaituztet, eta salbatuko zaituztet.

5. Baña, zeñi iduritu, zeñekin berdindu, eta konparatu nazute, eta zeñaen antzekoa egin nazute?

6. Zuek zakutik urrea ateratzen dezutenak, eta balanzarekin zillarra pisatzen dezutenak, eta ajustatzen zeratenak zillargin batekin egin dezan jainko bat, zeñaen aurrean jendea belaunikatuko dan, eta zeñ jendeak adoratuko duen;

7. Zeñ daramaten bizkarren gañean, eta ipintzen duten bere nitxoan, eta bera an egon oi da, ez da ere bere tokitik mugituko; eta berari deadarrez eskatzen badiote ere, ezerere ez du adituko, eta ez ditu ere atsekabetik salbatuko.

8. Oroitu zaitezte oiekin, eta lotsatu zaitezte, zerokgandu zaitezte, o fedeausleak.

9. Berriztatu ezazute nere mirarien oroipena anziñako gizaldietan, zeren ala ikusiko dezute, ni naizala Jaungoikoa, eta ez dagoela beste Jaungoikorik, ez iñorere nere antzekoa danik.

10. Ni naiz munduaren asieratik lendanaz adirazten dedana, atzenean gertatuko dana, eta esaten det denbora asko lenagotik, oraindikan egiteko dagoena. Ni naiz itz egiten dedana, eta nere erabakian irautzen dedana, eta nere gura guziak kunplitu erazitzen ditut.

11. Ni Sortaldetik ots egiten diodana egazti bati, edo nere borondatea egiten duen gizon bati, egan egin erazitzen diodala urrutiko erreñu batetik. Nik esan det au, eta egingo det: nik erabaki det, eta kunplituko det.

12. Aditu nazazute zuek, biotz gogorreko, justiziatik ain urrutian zaudetenak.

13. Nik laster etorri eraziko diot nere justiziari, ez da urrutiratuko; eta ez da luzatuko nigandik datorren osasuna. Nik ipiñiko det osasuna Sionen, eta argi eraziko diot nere gloriari Israelen.

BERROGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Orduan esango diote Babiloniari: O zu birjiña, Babiloniako alaba, jetxi zaite, eta eseri zaite autsaren gañean, eseri zaite lurrean. Ez dago onezkero tronurik Kaldeatarren alabarentzat; ez dizute onezkero emendikan aurrera samurra, eta kuperatia ots egingo.

2. Eldu zaiozu zure besoarekin errotako arriari, eta eo ezazu iriña, agertu ezazu zure buru moitzeko ezaintasuna, desestali itzatzu zure bizkarrak, gerriratu itzatzu magalak, irago itzatzu batetik bestera ibaiak.

3. Orduan agertuko da zure lotsaria, ikusiko da zure desonra. Ni bengatuko natzatzu, eta ez da izango gizonik neri aurrean jartzekorik.

4. Gure Salbatzallea, o Israel, da izentzat daukana, ejerzituen Jauna, Israelko Santua.

5. Zu, Kaldeatarren alaba, zaude ixillikan, eta illuntasunetan ezkutatu zaite; zeren onezkero ez dizuten geiago erreñuen Andrea ots egingo.

6. Zeren ni aserretu nintzan nere erriaren kontra, utzi nuen ez ona bezela nere herenzia, eta jarri nituen zure eskuetan. Alaere zuk etzenduen beren errukirik iduki, txit pisutu zenduen zure uztarria, anziñakoena baño ere oraindikan geiago.

7. Eta esan zenduen: Nik beti agintatuko det, eta etzenduen gauza oietan pensatu, eta etziñan ere oartu, nolako egoerara etorriko ziñan.

8. Orain bada aditu itzatzu gauza oiek zuk, bizi zeran orrek gozotasunetan, eta urgulluz betea zauden orrek, zuk, zure biotzean esaten dezunak: Ni naiz agintzen dedana, eta ez dago besterik ni baizik. Ez naiz beñere alargun geldituko, eta ez det ere iñoiz ezagutuko soilltasuna.

9. Gaitz bi oiek etorriko dira zure gañera supituan egun bat batean. Geldituko zera semerik gabe, eta geldituko zera alargun. Oiek guziok etorriko dira zure gañera zure sorginkerien ugaritasunagatik, eta zure enkantatzalleen gogortasun txit andiagatik.

10. Eta itxedopena iduki zenduen zure gaiztakerian, eta esan zenduen: Ez dago ikusten nauenik. Zure jakinduria, eta aditza alper orrek engañatu zinduen, urgulleriaz zure biotzean esan zenduenean: Ni naiz, Agintaria, eta ez dago besterik, ni baizik.

11. Etorriko da zure gañera zorigaitza, eta ez dezu jakingo nondik datorren; eta eroriko da zure gañera gaitz talde bat, eskeñtzakin ere ezin urrutiratuko dezuna. Etorriko da supituan zure gañera atsekabe mota guzi, ustegabeko bat.

12. Zaude zure enkantatzalleakin, eta zure sorginkerien ugaritasunarekin, zeñatan alako moduan ari zeran zure gazte denboratik, ikusteko onek zerbait lagundu al dizakezun, edo zu sendoago egin al zintzakean.

13. Baña ai! Zure konsejari taldearen erdian zu galdu zera. Eta bestela jaiki bitez, eta salbatu zaitzatela zeruen azti, izarrai begira egon oi ziradenak, eta illak kontatzen zituztenak, zuri gertatuko zatzuna lendanaz adiraztzeko.

14. Ona emen non itzuli diran lastoa bezela, suak iretsi ditu. Ez dute beren bizitza libratuko suzko garren bizitasunetik. Oiek ez dute utziko ikazkanborrik, zeñakin berotu ditezen, ez sukalderik bere aurrean eseritzeko.

15. Onetan geldituko dirade arako gauzak, zeñakgatik zuk anbeste lan artu zenduen. Merkatari aberats, zure gazte denboratik zurekin tratatzen zutenak, iges egin dute bakoitzak bere bidetik. Ez dago iñor zu salbatzeko.

BERROGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Aditu itzatzute gauza oiek Jakoben etxekoak, zuek Israelen izena zuen buruai ematen diezutenak, eta Judaren jatorritik zatoztenak; zuek Jaunaren izenean juramentu egiten dezutenak, eta Israelko Jaungoikoa aitatzen dezutenak; baña ez egiarekin, ez justiziarekin;

2. Eta ots egiten diezutenak zuen buruai erri santuko erritarren izenarekin, eta zaudete Israelko Jaungoikoari itsatsiak, zeñaen izena dan ejerzituen Jauna.

3. Irago diraden gauzak nik denbora asko lenago adirazi nituen, eta lendanaz esan nituen, eta aditu erazi nituen nere aoz; supituan egiztatu nituen, eta etorri ziran.

4. Zeren baniekien nik zu erri gogor bat ziñala, eta zure lepoa zala burnizko goi zañezkoa, eta zure kopeta brontzezkoa.

5. Txit lendanaz adirazi nizkizun, jakinerazi nizkizun gertatu baño lenago, beñere esan ez zenezan: Nere idoloak egin dituzte gauza oiek, eta otalluzko eta urtuta egindako nere irudiak agindu dute ala.

6. Begira egiztaturik, aditu zenduen guztia, eta, zuek zerok ez al dezute au agirian adirazi? Oraindaño agertu dizkizut gauza berriak, gordeak dauzkat zuk ez dakizkizun beste gauza batzuek,

7. Orain da noiz gauza oiek adirazten zazkizun, eta ez lenago; bada oraindaño ez dezu zuk beren gañean itzik aditu, esan ez zenezan: Nik baniekizkien.

8. Etziñituen aditu, eta ez ziñiekizkien, eta orduan ere ez zeneuzkan belarriak idikiak; zeren ongi dakit nik beti jarraituko diozula fedea austeari, eta fedeauslea ots egin nizun amaren sabeletik.

9. Alaere nere izenaren amorioagatik, geldirik idukiko det nere aserrea, eta nere gloriarekin tiratuko dizut frenutik amilka erori etzaitezen.

10. Begira ezazu, nik garbitu zaitut atsekabezko suarekin; baña ez zillarra bezela, baizik probatu zaitut pobrezako labean.

11. Nere begirunez, nere begirunez egingo det au, zuen etsaiak blasfematua izan ez nadin. Bada ez diot nik iñoizere nere gloria besteri emango.

12. Aditu nazazu, o Jakob, eta zuk, o Israel, zeñi nik nere izena ematen diodan. Ni nerau, ni lenengoa, eta ni atzena.

13. Nere eskua izan zan lurra egin zuena, eta nere eskuiea zeruak neurtu zituena, ematen diedan boz batera bereala guztiak presentatuko dirade.

14. Bildu zaitezte zuek erri guztiak, eta aditu nazazute: idolo oietatik zeñek, lendanaz alako gauzak adirazi zituen? Jaunak gizon au maitatu zuen, eta onek Jaunaren borondatea egingo du Babilonian, eta bere besoa izango da Kaldeatarren kontra.

15. Ni, ni izan naiz itz egin diodana, eta ni ots egin niona. Nik zuzendu det, eta lautu diot bidea.

16. Alderatu zaitezte nigana, eta aditu ezazute au: Nik asieratikan beñere ez det ezkutuan itz egin; au gertatu baño denbora asko lenagotik, nengoan ni an; eta orain bialdu naute Jaun Jainkoak, eta bere Espirituak.

17. Oiek esaten ditu zure Jaun Salbatzalleak Israelko Santuak: Ni zure Jaun Jainko, erakusten dizudana dagokizuna, eta zuzentzen zaitut jarraitzen diozun bidetik.

18. Arren bada begiratu baziñie nere aginteai! Zure pakea ibai bat bezelakoa izango zan, eta zure justizia itsasoko ondoak bezin ugaria,

19. Eta bere ondarrak bezela zure jatorria; eta bere arritxoak bezela zure erraietako semeak. Etzan galduko, eta etzan ere borratua geldituko bere izena nere begien aurrean.

20. Atera zaitezte bada orain Babiloniatik, Kaldeatarren artetik iges ezazute, adirazi ezazute pozezko bozakin, jakinerazi ezazute bozkariozko berri au, eta eraman ezazute munduaren atzeneko mugetaraño. Toki guzietan esan ezazute: Jaunak erredimitu ditu Jakob bere serbitzariaren semeak.

21. Eremutik zuzendu zituenean, etzuten egarririk iduki. Autsi zuen aitza, eta ur jario ugariak irten ziran.

22. Baña gaiztoentzat ez dago pakerik, esaten du Jaunak.

BERROGEITA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Aditu ezazute ugarteak, eta zuek urrutiko erriak, zaudete arretaz. Jaunak nere amaren sabeletik ots egin zidan, eta oroitu zan nere izenarekin oraindikan nere amaren altzoan nengoala.

2. Eta egin zuen nere aoa ezpata zorrotz bat bezelakoa, bere eskuaren itzalaren azpian zaitu ninduen; eta egin zuen nerekin saieta ongi zorroztua bezelako bat, eta bere fletxategiaren barrenen gordeta iduki nau.

3. Eta esan zidan: Nere serbitzaria zera zu, o Israel, zugan izango naiz ni gloriaz betea.

4. Baña nik esan nuen: Alperrik nekau naiz nere erriari predikatzen, bidegabero, eta utsean galdu ditut nere indarrak, argatik itxedotzen det Jaunak justizia egingo didala, eta Jaunagan dago jarria nere obraren ordaña.

5. Argatik orain Jaunak, nere amaren sabeletik autu ninduenak bere serbitzari izateko, esaten dit, Jakob berriz beragana zuzendu dezadala, baña Israelek ez du bildu naiko: alaere ni gloriaz betea izango naiz Jaunaren begietan, eta nere Jaungoikoa nere sendotasun egin da.

6. Berak esan dit: Gutxi da zuk serbitu nazazula Jakoben tribuak berriztatzeko, eta Israelen kutsu mezpreziagarriak konbertitzeko. Ona emen non nik autatu zaitudan erreñuen argi izateko, izan zaitezen, nik lurreko mugen atzenaraño bialdu dedan osasuna.

7. Oiek esaten diozka Jaunak, Salbatzalleak, Israelko Santuak, bereen artean mezpreziatua bezela idukia dan gizonari, guziak nazkaz begiratzen dioten erreñuari, mendeko bat bezela prinzipeak tratatua danari. Etorriko da egun bat, zeñean erregeak, eta prinzipeak ikusten zaituztenean jaikiko diran, eta adoratuko zaituzten Jaunaren amorioagatik, zeren bere eskeñtzetan leiala izan dan, eta autu zinduen Israelko Santuaren amorioagatik.

8. Oiek ere esaten ditu Jainkoak: Neri ongi neritzan denboran aditu zindudan, eta salbazioko egunean lagundu nizun, eta iraunerazi nizun, eta jarri zindudan nere erriaren pakegille, lurra berriztatu zenezan, eta izan zendizan soro desegiñen jabe.

9. Esan zenkien karzelan zeudenai: Atera zaitezte kanpora; eta illuntasunen artean daudenai: Atozte argia ikustera. Bideen erdian arkituko dute zerekin bazkatu, eta lau guztietan egongo da zer jan berentzat.

10. Ez dute idukiko goserik, ez egarririk, eta eguzkiaren berotasunak ere ez diote gaitzik egingo; zeren arako Jaun berakin alako urrikaltasunak egiten dituenak zuzenduko ditu, eta eramango ditu edatzera uren jarioetara.

11. Eta bide lauak egingo ditut nere mendi guzietatik iragotzeko, eta nere bidetxidorrak arbide biurtuko dirade.

12. Begira ezazu nola datozen batzuek erri urrutietatik, eta beste batzuek ifarraldetik, eta itsasotik, eta oiek besteak Egoeko alderrietatik.

13. O zeruak, kantatu itzatzute himnoak, eta zu, o lurra, poztu zaite. Zuek, o mendiak, alabantzak ematen ari zaitezte; zeren Jaunak bere erria gozatu duen, eta idukiko duen bere premiatsuen urrikaltasuna.

14. Eta orduan esan zuen Sionek: Jaunak utzi nau, eta aztu da nerekin Jauna.

15. Zer bada, erantzun zuen Jaunak, aztu baleiteke andrea bere aurrarekin, bere erraietako semearen urrikaltasunik iduki gabe? Baña bera aztu baleiteke ere, ni zurekin iñoizere ezin aztuko naiz.

16. Begira ezazu nola zaramadan nik, nere eskuetan tinkatua, zure murruak beti dauzkat nere begien aurrean.

17. Badatoz, berriz egingo zatuzten aiek, desegin eta arrasatzen zindutenak, zugandik urrutiratuko dirade.

18. Jaso itzatzu, o Jerusalen, zure begiak, eta zure ingurura begiratu ezazu, jende guzi oiek bildu dirade zugana etortzeko. Nik juramentu egiten dizut, esaten du Jaunak, guztiakin apainduko zerala soñeko eder batekin bezela, eta berakin edertuko zerala esposa bat bezela.

19. Zeren zure eremuak, eta zure basomortuak, eta zure ondamenakin estalitako lurra, izango dira orduan estuak, zugan bizi dan jende andiarentzat; eta iretsitzen zindutenak, urrutira aurtikiak izango diradela zugandik.

20. Adituko ere dezu, zure soilltasunaren ondoan idukiko dituzun semeak, esango dutela: Estua da neretzat toki au, eman zadazu leku zabal bat, non bizi.

21. Eta zuk zure biotzean esango dezu: Nork eman dizkit seme oiek neri, solla nintzan eta aurrik egiten ez nuen oni, erritik arroztu eta katibua nengoan oni? Nork bada seme oiek azi zituen, ni bakarra eta utzia nengoala? Nondik atera dirade berak?

22. Ona emen Jaun Jainkoak erantzuten duena: Jakin ezazu nik luzatuko dedala nere eskua erreñuakganontz, eta ipiñiko det zuaitz baten erpiñean nere estandartea. Eta zure semeak ekarriko dizkizute besarteetan, eta zure alabak bizkarretan eramango dituzte.

23. Eta erregeak izango dirade bazkatzen zaituztenak, eta erregiñak zure iñudeak. Arpegia lurrean dutela adoratuko zaituzte, eta zure oñetako autsari muñ egingo diote. Eta orduan ezagutuko dezu, ni naizala Jauna, eta nigan itxedotzen dutenak ez diradela lotsatuak geldituko.

24. Kendu al badizaioke gizon sendo bati arrapatu duena? Edo berriz artu balezake, gizon errutsu batek atxitu duena?

25. Bai, zeren oiek esaten ditu Jaunak: Egiaz kenduak izango zaiozka gizon sendoari, egin dituen katibuak, eta berriz artua izango da gizon errutsuak arrapatu zuena. Zu, o Sion, juzgatu zinduenak, nik juzgatuko ditut, eta nik salbatuko ditut zure semeak.

26. Nik zure etsaiai beren aragiak janeraziko dieztet, eta moskortueraziko diotet beren odolean, muztioa balitza bezela, eta aragi guziak jakingo du, ni Jauna, naizala salbatzen zaitudana, eta Jakoben Jaungoiko sendoa dala zure salbatzallea.

BERROGEITA AMARGARREN KAPITULUA

1. Oiek esaten ditu Jaunak: Ze aldekiko liburu da ori, zeñarekin aurtiki dedan zuen ama? Edo zeñ da nere artzekodun ori, zeñari saldu zaituztedan? Aditua iduki ezazute zuen gaiztakeriakgatik salduak izan zeratela, eta zuen obenak gatik aurtiki dedala zuen ama.

2. Zeren ni mundura etorri nintzan, eta etzan izan ni artzekorik; ots egin nuen, eta etzan egon aditu ninduenik. Ote da au, nere eskua laburtu edo txikitu dalako, alako moduan non, ez dezakedan erredimitu? Edo ez al daukat nik eskubiderik zuek libratzeko? Jakin ezazute, nere keñada batekin itsasoa eremu biurtuko dedala, eta leortuko ditudazala ibaiak, ustelduko dirade arraiak urik ez daukatelako, eta sikuan ilko dira.

3. Zeruak illuntasunez estalduko ditut, eta jantziko ditut zakuz.

4. Jaunak eman zidan miñgan jakintsu bat, jakin dezadan sendotzen nere itzakin indargatua dagoena. Berak goizean ots egiten dit, ots egiten du goizean goiz nere belarrietara, aditu dizaiodan erakuslea bezela.

5. Jaun Jainkoak belarriak idiki zizkidan, eta nik ez nion gogorrik egin, ez nintzan atzerontz biurtu.

6. Eman niezten nere bizkarrak azotatzen nindutenai, nere masallak nere bizarrak atzaparka ateratzen zizkidatenai. Ez nion alde erazi nere arpegiari, neri isekan, eta istu urtika ari ziradenai.

7. Jaun Jainkoa da nere laguntzallea. Argatik ez naiz lotsatua gelditu, argatik aurrean jarri nien nere arpegia, otska ari ziradenai, arri txit gogor bat bezela, eta badakit ez naizela lotsatua geldituko.

8. Nere Jaungoiko, eta aita justotzat ipintzen nauena nere aldean dago, zeñ da nere kontra jarriko dana? Presentatu gaitezen batean juzioan. Zeñ da nere etsaia? Allegatu bedi nigana.

9. Jakin ezazute, Jaun Jainkoa dala nere laguntzallea. Zeñ da kondenatuko nauena? Egiaz nere etsai guztiak konsumituak izango dirade soñeko zartu bat bezela, zerrenak jango ditu.

10. Zeñ dago zuen artean Jaungoikoaren beldurra daukanik, eta bere serbitzariaren boza aditzen duenik? Alakoen arteko illuntasunen artean ibilli zanak, eta ez daukanak argirik, Jaunaren izenean itxedon beza, eta egon bedi bere Jaungoikoari itsatsia.

11. Baña ona non zuek guziok ari zeraten erazekitzen Jaungoikoaren bengantzako sua; eta zaudeten garrez ingurutuak. Ibilli zaitezte bada zuen suaren eta erazeki dituzuten garren argitan. Nere etsai bengatzallea da ala tratatzen zaituztena. Oñazeen artean etzango zerate.

BERROGEITA AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Aditu nazazute zuek justiziari jarraitzen diozutenak, eta Jauna billatzen dezutenak, begiratu zaiozute arretaz arrobiari zeñatatik ebakiak izan zeraten, eta urjarioari, zeñatatik atera zeraten.

2. Ipiñi itzatzute zuen begiak zuen aita Abrahamgan, eta Saragan, zeñak egindako aurrak zeraten, zeren berari, zeñ zan bakarra, ots egin nion, eta bedeikatu nuen, eta ugaritu nuen.

3. Jaunak bada gozatuko du Sion, eta jaso ta berriz egingo ditu bere ondamen guziak, eta biurtuko ditu bere eremuak atsegiñezko tokietan, eta bere bakartadea jardin txit eder batean. An izango da bozkarioa, eta gozotasuna, eta eskerrak ematea, eta alabantzazko bozak.

4. Aditu ezazu esaten dizudana, o nere erria eta entzun nazazu, nere erreñua, zeren nigandik lege berria aterako dan, eta nere justizia errietan ipiñia izango dan, berak argitutzeko.

5. Nere justoa etortzeko dago. Nik bialtzen dedan Salbatzallea, bidean dago onezkero, eta nere besoak erriak zuzenduko ditu. Ugarteak egongo dirade nere zai, eta nere besoaren eskubidea itxedotzen.

6. Jaso itzatzute zuen begiak zerura; eta gero beeratu itzatzute lurrera begiratzeko, zeren zeruak kea bezela desegingo dirade, eta lurra ezerezera biurtuko da soñeko bat bezela, eta bertan bizi diradenak galduko dira, gauza oiek bezela. Baña nik bialtzen dedan osasunak beti iraungo du, eta nere justizia ez da beñere faltatuko.

7. Aditu ezazute ezagutzen dezutenak zer dan justoa, zuek nere errikoak, zeñaen biotzetan dagoen nere legea. Etzaitezte gizonen lotsarien beldur izan; etzaitezte ikaratu beren blasfemiak gatik;

8. Zeren soñeko bati bezela, ala ortzka ariko zaiote berari arra, eta ardi illea bezela iretsiko ditu zerrenak, baña nik bialtzen dedan osasunak beti iraungo du, eta nere justiziak mendez mende.

9. Jaiki zaite, jaiki zaite, sendotasunez armatu zaite, o Jaunaren besoa, jaiki zaite anziñako egunetan, eta irago diran gizaldietan bezela. Ez al ziñan zu izan Faraon urgullutsua azotatu zenduena, Ejiptoko sugulna zauritu zenduena?

10. Ez al zera zu leortu zenduena itsasoa, bagaz beteriko ondarreko urak, idiki zenduena bidea itsas berrenen, libratu ziñituenak irago zitezen?

11. Orain bada Jaunak eredimituak izan diradenak, itzuliko dira beren Sion maitatura alabantzak kantatzen ari diradela, betiko bozkarioaren koroak buruan dituztela: beti pozez ta gozotasunez egongo dira; eta oñazeak ta penak iges egingo dute berakgandik.

12. Nik, nik neronek gozatuko zaituztet, zeñ zera zu alako beldurra diozuna gizon ilkor bati, eta elbitza bezela leortuko dan gizonaren seme bati?

13. Zure Jaun eta Egille zeruak zabaldu, eta lurra fundatu zuenarenakin aztu zeralako, argatik egun guztian beti beldurrez ikara egon zera, atsekabetzen zinduen, eta zu galtzera zijoan etsaiaren sumintasuna ikusirik, non da orain gizon gaizto huraren sumintasuna?

14. Aurki allegatuko da, libratzera datorren hura, zeren ez du Jaunak utziko guztiz galdua izan dedilla, eta bere janaria ez da guztiz beñere faltatuko.

15. Atzenean ni naiz zure Jaun Jainko, itsasandia jasotzen dedana, eta bere bagak azitzen ditudana. Nere izena ejerzituen Jauna da.

16. Zure aoan jarri ditut nere itzak, eta zaitu zaitut nere esku sendoaren itzalarekin, zeruak jarri ditzatzun, eta fundatu dezazun lurra, eta Sioni esan dizaiozun: Nere erria zera zu.

17. Jaiki zaite, o Sion, jaiki zaite. Jaiki zaite, o Jerusalen, zu, edan dezuna Jaunaren eskutik bere aserreko kalizia. Ondarretaraño edan dezu zuk, lozorro astun bat ematen duen kalizia, edan dezu apakiñetaraño.

18. Berak egin dituen seme guztietatik ez dago bat, berari laguntzen dionik, eta berak azi dituen seme guztien artean, ez dago nork ezkutik eldu dizaion.

19. Bi alditan anbatekoak dirade gertatu zazkizun gaitzak: nor urrikalduko da zurekin? Zure gañera etorri dirade ondamena, eta galmena, gosea eta ezpata, nork gozatuko zaitu?

20. Zure semeak datzaz etzinda lurrean, lotuta lo egiten dute karrika guzien luzeeran, idiaketz sokakin lotuak bezela, Jaunaren aserrez, eta zure Jaungoikoaren bengantzaz estaliak.

21. Argatik aditu ezazu au zuk, Jerusalen gaxoa, eta orditua zaudena ez ardoz, baizik atsekabez.

22. Gauza oiek esaten ditu zure Agintariak, zure Jaun eta Jaungoiko, bere erriaren alde gudatuko danak. Begiratu ezazu, oraintxe noa ni kentzera zure eskutik, kaliza lozorro emalle ori. Nere aserrearen kalizako apagiñak ez dituzu berriz edango.

23. Nik ipiñiko det zu humillatu zaituztenen eskuan, eta zure larritasunean esan zizutenenean: Auzpeztu adi, gañetik igaro gaitezen. Eta zuk ipiñi zenduen zure gorputza zapaltzen dan lurra bezela, eta bidaztien oñazpietan dagoen bidea bezela.

BERROGEITA AMABIGARREN KAPITULUA

1. Jaiki zaite, jaiki zaite, o Sion; artu itzatzu zure sendotasuneko armak; jantzi itzatzu zure soñekorik ederrenak, o Jerusalen, Santuaren erria, zeren ez da onezkero berriz iragoko zure erditik zirkunzidatu gabea, eta kutsutua.

2. Jaso zaite autsetik, jaso zaite. Ar zazu esertokia, o Jerusalen, astindu eta aurtiki ezazu zure lepotik uztarria, o Siongo alaba mendekoa.

3. Zeren oiek esaten ditu Jaunak: Doan izan ziñaten salduak, eta dirurikan gabe erreskatatuak izango zerate.

4. Geiago ere esaten du Jaun Jainkoak: Nere erria jetxi zan asieran Ejiptora, arrotza bezala an bizi zedin; baña Asurrek gaizki tratatu zuen berak onetarako biderik eman gabe.

5. Eta orain zer egin bear det nik emen, esaten du Jaunak, nere erria utsagatik mendeko eginda eramana izanda gero? Beren nagusiak txit gaizki tratatzen dituzte, esaten du Jaunak, eta egun guzian aspertu gabe daude nere izenagatik gaizki esaten.

6. Argatik etorriko da egun bat, zeñatan nere erriak ezagutuko duen nere izenaren anditasuna, zeren ni, itz egiten ziona bera, ona emen non nagoan.

7. O zeñ ederrak diraden, Israelko mendien gañean pakea adirazi ta predikatzen dutenen oñak! Berri ona adirazten duenarenak, osasunaren berriak ematen dituenarenak, eta esaten dio Sioni: Aurki agintatuko du zure Jaungoikoak, eta zuk berarekin.

8. Orduan adituko da zure bealarien boza; batbatean deadar egingo dute; eta kantatuko dituzte alabantzazko kantak, zeren beren begiakin ikusiko dute, nola Jaunak Sioni katiberiotik itzuli erazitzen dion.

9. Bozkarioz bete zaitezte, eta batean kantatu zaiozkazute alabantzak Jaunari; o Jerusalengo eremuak, zeren Jaunak bere erria gozatu duen, erreskatatu duen Jerusalen.

10. Agertu du Jaunak erreñu guztien begien aurrean bere beso santuaren gloria, eta munduko alderri guztiak ikusiko dute, gure Jaungoikoak bialtzen duen Salbatzallea.

11. Zoazte bereala, zoazte, irten zaitezte ortikan, etzaiezu ukitu gauza kutsuturi, irten zaitezte bere erditik, garbitu zaitezte zuek Jaunaren ontziak darabiltzkizutenak:

12. Etzerate aterako nastean, eta ez dezute ere arin iges egingo; zeren Jauna joango da zuen aurretik, eta Israelko Jainkoak bilduko zaituzte.

13. Jakin ezazute nere serbitzaria egongo dala aditza, eta jakinduriaz betea; izango da altxatua eta goratua, eta allegatuko da gloriako erpiñera.

14. Nola zu, o Jerusalen, izan ziñan zure galmenean, askoren izua; ala bere irudia ere agertuko da gloria gabe gizonen aurrean, eta era mezpreziagarri batean gizonen semeen artean.

15. Berak erreñu asko intzatuko ditu; bere aurrean erregeak ixillik egongo dira; zeren beragatik ezerere adirazi etzaioten aiek ikusiko dute, eta beragatik ezerere aditu etzutenak, egongo dirade berari arretaz begira.

BERROGEITA AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Baña, ai! Nork sinistu du, edo sinistuko du guk emandako berria? Eta nori agertua izan zaio Mesias ori, Jaunaren besoa?

2. Zeren bera aziko da erriaren begietan landatxo txiki bat bezela, eta moteak botako ditu, sustrai batek lur leorrean bezela: ez da irudi ederrekoa, ez argitsua. Guk ikusi degu, esaten dute, eta ez dago gure begiak beraganatzeko gauzarik, ez gure gogoari beraganontz ots egitekorik.

3. Ikusi genduen gero mezpreziatua, eta gizonen kutsua, oñazen gizona, eta badakiana zer dan padezitzea; eta bere arpegia lotsaz eta desonraz betea bezela. Argatik ez genduen alakotzat ere iduki.

4. Egia da berak artu zituela bere gañean gure oñazeak, eta gure penakin zamatu zala, baña guk iduki genduen orduan legenarti bat bezela, eta Jaungoikoaren eskuz zauritu eta umillatua bezela.

5. Izanik gure gaiztakeriak gatik zauritua, eta zatitua gure obenakgatik, Jaungoikoarekin gure arteko pakea jaio bear zan kastigua, egotzi zan bere gañera, eta bere zanbroakin izan giñan gu sendatuak.

6. Ardi barreiatuak bezelakoak izan gera gu guztiok. Bakoitzak alde egin zuen Jaunaren bidetxidorretik, bere bideari jarraitzeko, eta berari bakarrik ipiñi dio Jaunak bizkarren gañean gu guzioen gaiztakeria.

7. Eskeñia izan zan, berak nai izan zuelako, eta etzuen bere aoa idiki. Izango da eriotzara eramana, ardia iltokira bezela, eta ixillikan egongo da, bere aoa idiki ere gabe bildotstxo, mututua dagoana bezela, moistutzen duenaren aurrean.

8. Arturik illa izateko sentenzia gaiztoa, goira jasoa izan zan, baña bere jatorria, nork adirazi lezake? Ateratua izan da bizien lurretik. Nere erriko gaiztakerien barkaziorako zauritu det nik, esaten du Jaunak.

9. Eta obira jetxitako ordañean, emango dio Jaungoikoak, gaiztoak ondutzea; bere eriotzaren irabazitzat gizon aberatsa idukiko du, zeren berak etzuen bekaturik egin, eta etzan ere bere itzetan marrorik egon.

10. Eta nai izan zuen Jaunak naigabez ondatu; baña berak eskeñtzen duenean bere bizia bekatuaren doaña bezela, ikusiko du jatorri luze eta iraunkor bat, eta kunplitua izango da bere bitartez Jaunaren borondatea.

11. Ikusiko du bere animako arazoen irabazia, eta aseko da. Justo onek beronek, nere serbitzariak, esaten du Jaunak, santutuko ditu asko bere dotrinarekin; eta ipiñiko du bere gañean beren bekatuen zama.

12. Argatik emango diot bere anotzat erreñu talde andi bat; eta partituko ditu, sendoai arrapatutako ondasunak; zeren bere bizia eriotzara eman zuen, eta gaiztagiñakin nastua izan zan, eta guztien bekatuak bere gañean artu dituen, eta erregutu duen etsaiakgatik.

BERROGEITA AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Bozkariotu zaite bada zu, o soill, aurrik egiten ez dezuna: kantatu itzatzu alabantza ta bozkariozko himnoak, zuk, emakume ugaria etzeranak, zeren onezkero asko geiago dirade aurtikia izan zanaren semeak, senarra zeukanarenak baño, esaten du Jaunak.

2. Artu ezazu toki andiago bat zure dendaentzat, eta zabaldu itzatzu albait geien zure etzauntzetako larruak, luzatu itzatzu zure sokak, eta sendotu geiago zure estakak.

3. Zeren zu zabalduko zera eskuietara, eta ezkerretara; eta zure jatorria izango da erreñuen agintari, eta jendez beteko ditu, orain eremutuak dauden erriak.

4. Etzaite beldur izan, etzera geldituko nastua, ez gorritua, eta ez dezu ere idukiko zergatik lotsatu; zeren zure gazte denborako lotsariaren oroipenik ere ez dezu idukiko; eta etzera gomutatu ere egingo zure alarguntasuneko desonraz.

5. Zeren zure jabea izango da egin zinduzana, zeñaen izena dan ejerzituen Jauna, eta zure Salbatzalle, Israelko Santua, izango da deitua lur guztiko Jaungoikoa.

6. Zeren Jaunak ots egin dizu beragana, andre aurtiki bat bezelakoa ziñanean, eta espirituz atsekabetua, bere gazte denboratik utzia izan dan andre bat bezela, esaten du zure Jaungoikoak.

7. Egiaz une batean, denbora labur batean utzi zindudan, esaten dio Jaunak, baña orain nik bilduko zaitut nerekin, urrikaltasun andi bat egiten dedala.

8. Nere aserreko unean alde erazi nion nere arpegiari zugandik denbora gutxi baterako; baña andikan bereala urrikaldu naiz zurekin, betiko urrikaltasunarekin, esaten du erredimitu zinduen Jaunak.

9. Egiten det, egiten nuena Noeren egunetan, zeñi juramentoarekin eskeñi nion, ez nituela isuriko berriz lurraren gañera ugoldeko urak. Ala nik juramentu egiten dizut, ez naizala berriz aserretuko zurekin, eta ez dizudala ere geiago isekarik egingo.

10. Mendiak mugituak, eta muñoak dardaratuak izango balirade ere, nere urrikaltasunak ez du zugandik alderik egingo, eta sendoa izango da zurekin egin dedan pakeko elkartasuna, esaten du Jaunak zurekin urrikalduta.

11. Emakume gaxoa, anbeste denboran egon zerana itsasandiaren erdian, iñondik ere gozotasunik iduki gabe, begira ezazu, nik neronek jarriko ditut errenkan arriak, eta egingo dizut etsea (sic) zafiroen gañean,

12. Eta egingo ditut jaspearekin zure baluarteak, eta arri landuakin zure ateak; eta arri baliotsuakin zure inguruak.

13. Zure seme guztiak izango dirade, Jaunak berak erakutsiak, eta pakearen ugaritasunean gozatuko dirade.

14. Eta idukiko dezu zimendutzat justizia, egongo zera iñork estutuko zaituen beldurrik gabe, eta ez dezu izango bere beldurrikan zertan iduki; eta ezda izuarenik ere, zeñak ez duen zugan tokirikan idukiko.

15. Ona non etorriko dan nerekin ez zegoen gizon arrotza, zurekin bilduko da, beste denbora batean zuretzat arrotza zan hura.

16. Jakin ezazu, nik egin nuela errementaria, zeñak puts egiñik auspoakin, erazekitzen dituen ikazkanborrak, egiteko erremienta bat bere lanerako; eta nik egin ere nuen iltzallea, zeñarekin gero baliatzen dan, gizonak iltzeko.

17. Zure kontra prestatutako erremienta batek ere ez dizu gaitzik egingo; eta zuk kondenatuko dezu, juizioan zure kontra presentatzen dan

mingañ guztia. Au da Jaunaren serbitzarien herenzia, eta au da, nigandik itxedon bear duten justizia, esaten du Jaunak.

BERROGEITA AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Egarriz zaudetenak, atozte guziok uretara, eta zuek dirurik ez daukazutenak, agudo ibilli zaitezte, erosi ezazute, eta jan ezazute. Atozte, erosi ezazute dirurikan gabe, eta beste ganbiakida gabe ardoa, eta eznea.

2. Zergatik kastatzen dezute zuen dirua, janari ona ez diraden gauzetan, eta nekatzen zerate ase ezin zaitzaketen gauzan? Aditu nazazute arretaz, eta bazkatu zaitezte janari onarekin, eta zuen anima gozatuko da janaririk ederrenetan.

3. Iduki itzatzute zur belarriak nere itzetara, eta atozte nigana, aditu nazazute, eta zuen animak bizitza arkituko du, eta egingo det zuekin betiko elkartasun bat, Dabidi egindako urrikaltasunak betetzeko.

4. Ona emen non noan ni, bera presentatzera erriai, nere egiaren testigutzat, eta zuzentzalletzat, eta erakusletzat erreñuai.

5. Ona emen non orduan zuk, o Jerusalen, ots egingo diozun, ezagutzen etzenduen erri jentillari; eta ezagutzen etzinduten erreñuak korrika joango dirade zugana zure Jaun Jainkoaren amorioagatik, eta Israelko Santu, gloriaz bete izango zaituenagatik.

6. Billatu ezazute Jauna, arkitua izan litekean artean. Ots egin zaiozute, aldean dagoen artean.

7. Utzi bizaiote gaiztoak bere bideari, eta biurriak bere asmazioai, eta biurtu bitez Jaunagana, zeñ berakin urrikalduko dan; eta gure Jaungoikoagana, zeñ txit gertutua dagoen barkatzeko:

8. Zeren nere gogorazioak, ez dirade zuen gogorazioak; ez zuen bideak, dirade nere bideak, esaten du Jaunak;

9. Baizik zenbat dagoen zerua goratua lurraren gañetik, ala goratzen dirade nere bideak, zuen bideen gañera, eta nere gogorazioak zuen gogorazioen gañera.

10. Eta nola euria eta elurra jetxitzen diraden zerutik, eta ez diraden ara itzultzen, baizik bustitzen duten lurra, eta sartzen diran bere barrenen, eta girotzen duten, eman dezan azia ereitzeko, eta ogia jateko;

11. Ala izango da nere itz, bein nere aotik ateratakoarekin, ez da utsik nigana itzuliko, baizik egingo du nik nai dedan guztia, eta egiztatuko ditu txit ederki gauza aiek, zeñatarako bialdu dedan.

12. Argatik aterako zerate bozkarioz katiberiotik, eta egingo dezute pakean zuen bidajea Jerusalenera. Mendiak eta muñoak ariko dirade zuen aurrean alabantzazko kantak kantatzen, eta erriko zuaitz guziak emango dizute ongietorria beren besangak mugituaz.

13. Ispiliak landare txikiaren lekuan, goratuko da abeto sendoa, eta osinaren lekuan ikusiko da azitzen arraiana, eta Jaunak idukiko ditu ordu artatik izen bat, eta siñale bat, beñere estaliko ez diradenak.

BERROGEITA AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Oiek esaten ditu Jaunak: Zaitu ezazute berdintasuna, eta egin ezazute justizia; zeren bialtzen dedan salbazioa, allegatzeko zorian dago, eta nere justizia agertzera dijoa.

2. Doatsua arako gizona, zeñaen obrak alakoak diraden, eta gizonen seme, onetan sendo dagoena. Gordetzen duena larunbata, eta ez duena gaizki iragotzen, eta gaitzik batere egitetik, bere eskuak zaitzen dituena.

3. Eta ez beza onezkero esan kanpotarraren semeak, fedeagatik Jaunari itsatsia dagoela. Jaunak berezitu nau bere erritik murruzko berezitze batekin, ez beza ere txikiratuak esan: Ona emen non ni zur leor, eta soill bat naizan.

4. Zeren Jaunak txikiratuai ala esaten diote: Nere larunbatak gordetzen dituztenai, eta nik nai dedana egiten dutenai, eta irautzen dutenai sendo nere elkartasunean,

5. Toki berarizko bat emango diet nere Etxean, eta nere murruen barrenen, eta izen bat obeagoa, semeak eta alabak emango lieketeana baño. Emango diet nik betiko izen bat, beñere aztuko ez dana.

6. Eta kanpotarren seme, Jaunarekin biltzen diradenak, bera onratzeko, eta bere izen santua maitatzeko, eta bere serbitzari leialak izateko, larunbata gordetzen duten guziak, eta gaizki iragotzen ez dutenak, eta nere elkartasuna leialkiro zaitzen dutenak,

7. Nik zuzenduko ditut Elizako nere mendi santura, eta nere Etxe oraziokoan bozkarioz beteko ditut. Gogokoak izango zazkit, nere aldarearen gañean eskeñtzen dizkidaten doañ eta opariak, zeren nere etxea, orazioko Etxea deitua izango dan erri guzientzat.

8. Esaten ere du Jaun Jainko, Israelko barreiatuak biltzen dituenak: Nik berari bilduko diozkat oraindikan, egunen batean berari bilduko zaiozkanak.

9. Zuek kanpoko pisti guztiak, basoko abere guziak, atozte arrapatua iretsitzera.

10. Beren bealari guziak dirade itsuak, guziak ezerere ez dakitenak; txakur mutu zangarik egin ez dezaketenak; ikusketariak, lotiak, eta ames alferren zaleak.

11. Eta txakur lotsaren piskarik gabeko oiek, ez dirade beñere asetzen. Artzaiak berak daude aditzarik batere gabe, guziak dijoaz beren bidetik alde eginda, bakoitza bere gauzaen billa andienetik txikieneraño.

12. Atozte, esaten dute, edan dezagun ardoa, eta ederki moskortu gaitezen, eta biar ere egingo degu gaur bezela, eta asko geiago.

BERROGEITA AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Bitartean Justoa galtzen da, eta ez dago nor konturatu dedin onen gañean bere biotzean, eta gizaseme onak arrapatuak dirade, iñork ere sentitu gabetanik, izanik Justoa mundu onetatik arrapatua, gaitzetatik bera libratua izateko.

2. Ah! Betor bere gañera pakea, atseden beza bere tokian obra onak egiten bizi izan dana.

3. Bitartean allegatu zaitezte zuek, Jerusalenen bizi zeratenak, azti baten semeak, aita adulterioan eroritako, eta andre bordion baten arraza.

4. Zeñi iseka egin diozute zuek? Zeñaen kontra idiki zenduten zuen aoa, eta soltatu zenduten mingaña? Ez al zerate zuek seme madarikatuak, eta bortaen arraza?

5. Zuek, gozatzen zeratenak beneratzean atsegin esaneziñakin zuen jainkoak, zuaitz ostotsu guzien itzalean, eskeñtzen dituzutela beren onran zuen semeak erreketan, eta aitz goratuen azpian?

6. An errekaren aldean dago zure herenzia, an dauzkazu zure ondasunak, eta jainko oriei isuri ziñiezten libazioak, eta eskeñi ziñiezten doañak. Nola bada ez naiz aserretuko, alako gauzak ikusita?

7. Mendi altu eta goratu baten gañean ipiñi zenduen zure oea, eta ara igo ziñan eskeñtzak egitera.

8. Eta atearen ostean, eta ataburuaren atzean ipiñi ziñituen idoloak zure oroipenerako. Nere aldean bekatu egin dezu, artzen zenduela adulteroa; zabaldu dezu zure oea, eta berak bezelako beste batzukin oakidatu zera, beren laguntasuna lotsagabegiro maitatu dezu.

9. lurrinakin apaindu ziñan erregeren aurrera joateko, eta ugaritu dituzu edergarri arrotzak. Bialdu ziñituen urrutira zure mandatariak, eta beerartu zera infernuetaraño.

10. Bizi izan zera idolatratzen dezula era askotara, eta nekau zera, eta beñere etzenduen esan: Atsedena artuko det, arkitu ziñituen bizitza, eta zure gozotasunak, zure eskuetako lan idoloetan, eta argatik etzera nigana zuzendu.

11. Zeren beldur izan ziñan alako moduan atsekabetua, non, ala faltatu dezun federa, eta etzera ere nerekin oroitu, eta etzera ere oartu zure biotzean? Ni ixillikan nengoalako, eta nik ez aditua egiten nuelako, argatik zu nerekin aztu ziñan,

12. Baña nik ezagutueraziko det, zeñ dan zure justizia, eta utsa balioko dizute zure idoloak, zure eskuen lanak.

13. Deadarra jasotzen dezunean kejatzen zerala, salbatu zaitzatela orduan, arako zuk bildu ziñituen erreñuetako jainkoak, baña guziak aizeak eramango ditu, desegingo ditu putz batek. Kontrara , bere itxedopena nigan ipintzen duenak, idukiko du lurra herenziatzat, eta izango da nere Mendi santuaren jabe.

14. Orduan esango det nik: idiki ezazute bidea, eman ezazute iragotzeko tokia, garbitu ezazute bidetxidorra, kendu itzatzute beaztopogaiak nere erriaren bidetik.

15. Zeren oiek esaten ditu Goratuak, eta Jaungoiko altu betikoiraunean bizi danak, eta zeñaen izena dan Santua, goietan eta Santuarioan, eta biotz damutu eta umillatuan bizi danak, biztutzeko umildeen espiritua, eta damututa daudenen biotzai bizitza emateko.

16. Zeren ez naizan beti egongo bengatzen, eta ez diot ere atzeneraño irauneraziko nere aserreari; zeren nere aotik espiritua atera zan, eta nik egin nituen animak.

17. Bere zikoiztasun madarikatuagatik ni aserretu nintzan, eta azotatu nuen; ezkutatu diot nere arpegia, eta sumindu nintzan, eta bera joan zan orra, ta onara bere biotzeko guraen ondorik.

18. Nik ikusi nituen bere ibillerak, eta osasuna eman nion, eta ekarri nuen bide onera, eta eman niozkan nere gozotasunak, ala berari, nola, negarrez zeuden, bereai.

19. Pakea egin det, nere ezpañen frutua; pakea urrutian dagoenarentzat, eta pakea aldean dagoenarentzat, esaten du Jaunak, eta guziak sendatu ditut.

20. Baña gaiztoak dirade, itsas nastu, bare egon ezin litekean bat bezelakoak, zeñaen bagak gañez eginda botatzen duten loia eta zikinkeria.

21. Gaiztoentzat ez dago pakerik, esaten du Jaun Jainkoak.

BERROGEITA EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Deadar egin ezazu bada, o Isaias, etzaite ixildu. Ots egin erazi zaiozu zure bozari tronpeta bati bezela, eta agertu zazkiozu nere erriari bere gaiztakeriak, eta Jakoben etxeari bere bekatuak;

2. Egunoro galdetzen didaten ezkero, juizioan bezela, eta jakin nai dituzten ezkero nere erabakiak. Txit ongi bizi izan dan, eta bere Jaungoi-

koaren legea utzi ez duen jende batek bezela, ala eskatzen didate nere justiziaren erabakien arrazoia, eta Jaungoikoagana alderatu nai dute.

3. Nola da barau egin degula, esaten diote Jaunri, eta zuk ez diguzula begiratu, umillatu ditugula gure animak, eta ez aditua egiten dezula? Da, erantzuten du Jaungoikoak, zeren baru egiten dezuten egunean bertan egiten dezutelako gogoak ematen dizuten guzia, eta orduan artzeko diezuten guziai gogorrean eskatzen diezutelako.

4. Da zuek barau egiten dezutelako jarraitzeko auziai, eta erriertai, eta bestea ukabilka urrikaltasunikan gabe zauritzeko. Ez ezazute berau egin gaurko eguneraño bezela, nai badezute zuen deadarrak goian adituak izan ditezen.

5. Nik estimatzen dedan barauan al dago, gizon batek mortifikatzean bere anima egun batean, edo erabiltzean bere burua biurtuta inguru bat egiteko zorian, edo egotean etzinda zilizio, eta autsaren gañean? Oni deituko al diozu zuk baraua, eta Jaunaren gogoko eguna?

6. Ez al da nik estimatzen dedan baraua desegin ditzatzula kontratu gaiztoak, garbitu ditzatzutela lukuruzko irabazi menderatzen dutenak, utzi dizaiezutela pakean maieak autsi dituztenai, eta kendu dezazutela kotiz guztia?

7. Egin dezazula gose dana zure ogiaren partale, eta beartsuak eta etzatokirik ez daukatenak eraman ditzatzula zure etxera, eta jantzi dezazula billosik ikusten dezuna, eta ez dezazula zure aragia mezpreziatu?

8. Au egiten badezu irtengo da zure argia egunsentia bezela, eta aurki sendatuko zera, eta zure aurretik joango da beti zure justizia, eta Jaunaren gloriak bilduko zaitu.

9. Orduan ots egingo dezu, eta adituko zaitu Jaunak, deadar egingo dezu, eta berak esango dizu: Emen naiz. Aurtikitzen badezu katea zugandik urrutira, eta utziko baziñio beatza luzatzeari, eta bear ez dana itz egiteari,

10. Idikitzen dituzunean zure erraiak gosetsuari laguntzeko, eta gozatzen dezunean anima naigabetua, orduan jaioko da zuretzat argia illuntasunetan, eta zure illuntasunak izango dirade egunaren erdia bezela.

11. Eta Jaunak emango dizu betiko atsedena, eta zure anima argitasunez beteko du, eta sendotuko ditu zure ezurrak, eta izango zera baratza, ur ugaria daukana bezela, eta ur jario beti irautzen duen bat bezela, zeñaen urak beñere ez diraden leortuko.

12. Denbora txit luzetik eremutuak zeuden tokiak izango dirade zuk erri biurtuak. Jasoko dituzu zimendu batzuek, mendez mende iraungo dutenak; eta ots egingo dizute murruen berriztatzallea, eta bideak paketsuak jartzen dituena.

13. Utziko baziñio larunbateko egunean bidean ibiltzeari, eta zure borondatea egiteari nere egun santuan, eta ots egingo baziñio larunbatari atsedeneko, eta Jaunaren gloriari konsagratutako eguna, eta zelebratuko bazeneza lengo bideetara itzultzen etzerala, egin ere gabe zure gurak, eta aspertu ere gabe itzakin bakarrik.

14. Orduan idukiko dituzu zure gozatasunak Jaunagan, eta nik jasoko zaitut lurreko altura guzien gañera; eta zu bazkatzeko emango dizut Jakob zure aitaren herenzia, zeren au guzia dago Jaunaren aoz lendanaz adirazia.

BERROGEITA EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Begira ezazute ez dala laburtu Jaunaren eskua, berak salbatu ez dezakean; eta etzaiozka ere astundu bere belarriak aditu ez ditzakean zuen deadarrak,

2. Baizik zuen gaiztakeriak jarri dute berezituerako murru bat zuen artean, eta zuen Jaungoikoaren artean; eta zuen bekatuak itzulierazi diote zuekgandik bere arpegia, ez zuek adituteko.

3. Zeren zuen eskuak odolez kutsutuak dauden, eta gaiztakeriaz beteak zuen beatzak; zuen ezpañak gezurra baño besterik ez dute esaten, eta zuen mingañak bakarrik dauzka gaiztakeriako itzak.

4. Ez dago justiziagatik deadar egiten duenik, ez dago egiarekin juzgatzen duenik, baizik guziak beren itxedopena utsean ipintzen dute, eta beren aoan daukate urgulleria. Ideatu zuten lana, eta eman zuten gaiztakeria.

5. Idikierazi dituzte sugalotariaren arraultzak, eta beren arazoakin eo zituzen armiarmaren eutak. Arraultza aietatik jaten duena ilko da; eta ersuga bat da irtengo dana txitorik jaiotzen bada.

6. Ez dirade onak izango soñekoetarako bere telak; eta ezin estaliko ere dirade bere lanakin. Egiten dituzten lanak, lan alperrak dirade, zeren eskuen artean daukatena, gaiztakeriako obra da.

7. Beren oñak korrika dijoaz gaiztakeriara, eta agudo dabiltza odol obengabea isurtzeko, gogorazio kaltegarriak dirade beren gogorazio guztiak. Iragotzen diraden toki guzietan ondamena eta atsekabea utzitzen dute.

8. Ez dute ezagutzen pakeko bidetxidorra, eta beren pausoak ez dijoaz zuzenduak justiziarontz. Okerrak dirade beren bidetxigorrak, eta beretatik dabillan edozeñek, ez daki zer dan pakea.

9. Argatik urrutiratu zan gugandik erabaki zuzena, eta justiziak ez gaitu bere besartean laztanduko. Argia itxedotzen degu, eta ona emen non arkitzen geran illuntasunakin, egunaren argitasuna, eta ona non gabiltzan bidean illuntasunetan.

10. Goaz ukituaz paretak, itsuak bezela; eta gabiltza itsumustuka, begirik ez bageneuka bezela. Egunaren erdian beaztopo egiten degu, gauaren erdian begeunde bezela. Toki illunetan gaude, illak obietan bezela.

11. Guk guziok artzak bezela orroa egiten degu, eta gogoan erabillirik gure bekatuak, suspirioka gaude usoak bezela. Justiziaren zai gaude, eta bera ez da agiri, osasuna allegatu dedin, eta au gugandik urrutiratu da.

12. Eta da, o Jauna, gure gaiztakeriak zure aurrean ugaritu diradelako, eta gure bekatuak testigantza ematen ari dira gure kontra; gure gaiztakeriak gugan dirauten ezkero, eta ongi ezagutzen ditugu gure obenak.

13. Bekatu egin degu, eta gezurrak esan ditugu Jaunaren kontra, eta atzea eman degu, gure Jaungoikoari ez jarraitzeagatik, eta bai bestera gezurrak asmatzeko, eta gaiztakeriak egiteko asmatzen ditugu, eta ateratzen ditugu biotzetik gezurrezko itzak.

14. Eta ala erabaki zuzena atzera biurtu da, eta justizia gelditu da gugandik urrutian, ikusirik egia lurretik dabillala tribunaletan, eta zuzentasunak ez duela sarrerarik arkitu.

15. Eta egia aztuta gelditu zan, eta gaitzetik alde egin zuena gelditu zan gaiztoak arrapatua. Ikusi zuen au Jaunak, eta zauritu ziozkan begiak, onezkero justiziarik ez egoteak,

16. Eta ikusi zuen, etzala onezkero gelditzen gizon onik; eta arritu zan ez arkitzeaz nor bitarteko jarri zedin; eta besoan bertan arkitu zuen osasuna, eta bere justizia izan zan sendotu zuena.

17. Jarri zan armatua justiziarekin fletxatoki batekin bezela, eta ipiñi zuen buruan osasuneko burantza; bengantza da soñekoa, zeñarekin jantzitzen dan, eta zeloa da, bera estalitzen dan mantua.

18. Aterako da prestatua bengatzeko, eta bere etsaien gañean diña diraden aserrea egotziteko, eta bere kontra dabiltzatenai ordañ justoa emateko. Berak tratatuko ditu ugarteak, diña diran eran.

19. Onenbesterekin Sartaldean dauden erriak Jaunaren izen santuaren beldur izango dirade; eta Sortaldekoak beneratuko dute bere gloria ta anditasuna; datorrenean arin dijoazen ibai bateko urak bezela, Jaunaren Espirituak sakatuta,

20. Allegatu dedin artean Salbatzalle, erredimituko duena Sion, eta arako Jakoben seme, bekatutik itzultzen diradenak, esaten du Jaunak.

21. Eta au da nere elkartasun berria berakin, esaten du Jaunak, nere espiritu zugan dagoena, eta zure aoan nik jarri nituen nere itzak, ez dute alderik egingo zure ezpañetatik, esaten du Jaunak, ez zure semeen aotik, ez zure illoba txikien aotik oraindandik beñere.

IRUROGEIGARREN KAPITULUA

1. Jaiki zaite, o Jerusalen, artu ezazu argia, zeren zure argigillea etorri dan, eta zure gañean jaio dan Jaunaren gloria.

2. Zeren ona emen non lurra egongo dan illuntasunez estalia, eta erreñuak argirikan gabe; zure gañean berriz Jauna jaioko da, eta bere gloria ikusiko da zugan.

3. Eta zure argitan ibilliko dira jendeak bidean,eta Erregeak zure jaiotzaren argitasunean.

4. Zuzendu itzatzu zure begiak zure inguruetara, eta begiratu ezazu. Oriek guziok bildu dira zugana etortzeko. Urrutitikan etorriko dira zure semeak, eta zure alabak aldamen guztietatik zugana zuzenduko dira.

5. Orduan ikusiko zera ugaritasunean; zure biotza arrituko da, eta zabalduko da, zurekin biltzera datoztenean asko erreñu itsasoaren beste aldamenetikan, zugana datoztenean erri almentsuak.

6. Ikusiko zera Madian eta Efako gamelu eta dromedario talde andi batez betea, Sabeotar guztiak etorriko dira ekartzera zuri urrea eta inzensoa, eta zabalduko dituzte Jaunaren alabantzak.

7. Bilduko dira zuretzat Zedarko artalde guztiak, Nabaiotko ariak izango dira zu serbitzeko. Nere proposizioko aldarearen gañean izango dirade eskeñiak, eta nik egingo det gloriaz betea nere anditasuneko Etxea.

8. Zeintzuk dirade oiek egan egiten dutenak odeiak bezela, eta usoak bezela beren kabietara?

9. Badakit, esaten du Jaunak, neri itxedotzen daudela ugarteak, eta itsasoko ontziak asieratik, ekarri ditzadan urrutiko alderrietatik zure seme berriak, eta berakin beren zillarra ta beren urrea, zeñ konsagratzen dioten zure Jaun Jainkoaren izenari, eta Israelko Santu, gloriaz bete zaituenari.

10. Orduan arrotzen semeak zure murruak egingo dituzte, eta beren erregeak zure serbitzariak izango dirade; zeren baldin aserretua nengoanean atsekabetu bazindudan, orain adiskidetuta, egiten det urrikaltasuna zurekin.

11. Eta zure ateak beti idikiak egongo dira; ez gauaz ez egunaz ez dira itxiko, ordu guztietan sartua izan ditekean zugan erreñuen aberastasuna, beren erregeakin batean.

12. Zure mendean jartzen ez dan erri ta erreñu guzia, galdua izango dan ezkero, eta alako jendeak izango dira desegiñak, eta arrasatuak.

13. Zugana etorriko dirade Libanoko gauzarik ederrenak, eta abetoa, eta ezpela, eta pinua nere Santuarioa apaintzeko, eta nik gloriaz beteko det, nere oñak ipiñiko ditudan tokia.

14. Eta makurtuta zugana etorriko dira zu umillatu zindutenen semeak, eta muñ egingo diote zure oñen aztarnai, iseka egiten zizuten guztiak, eta ots egingo dizute Jaunaren erria, eta Israelko Santuaren Siona.

15. Egon ziñalako zu utzia eta gorrotatua, eta etzegoala nor igaro zedin zutatik, nik egingo det izan zaitezela gizaldien gloria, eta geroko mende guzien bozkarioa.

16. Eta bazkatuko zera erreñuen eznearekin, eta aziko zera erregeen titiarekin, eta ezagutuko dezu ni naizala salbatzen zaituen Jauna, zure Erredentorea, Jakoben sendoa.

17. Kobrearen lekuan, urrea ekarriko dizut, eta zillarra burniaren lekuan, eta zuren lekuan kobrea, eta arrien lekuan burnia, eta jarriko det zure gobernaritzat pakea, eta zure agintaritzat justizia.

18. Ez da onezkero aditu ere egingo zure lurrean gaiztakeria, ez ondamenak, ez zure mugen barrenen zauria; baizik beti osasunak erreñatuko du zure murruen barrenen, eta zure ateetan adituko dirade alabantzazko kantak.

19. Ez dezu onezkero idukiko eguzkiaren premiarik argi egin dizazun egunaz, eta ez dizu illagiak ere argi egingo; baizik Jauna bera izango da zure betiko argia, eta zure gloria zure Jaungoikoa bera.

20. Iñoizere ez da sartuko zure eguzkia, eta ez du ere izango zure illargiak ilberarik; zeren Jauna izango da zuretzat zure betiko argia, eta iragoak izango dirade onezkero zure proguko egunak.

21. Zure erria egingo dute justu guztiak, izanik nik ipinitako muskill batzuek, nere eskuetako lana, ni gloriaz betea izan nadin.

22. Beretatik txikienak milla balioko ditu, eta aurtxoak erreñu txit sendo bat. Nik Jaunak au guziau egingo det, denbora allegatzen danean.

IRUROGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Onetarako atseden du nigan Jaunaren espirituak, zeren Jaunak igortzi nau, eta bialdu nau ebanjelioa predikatzera otsenai, sendatzeko biotz damutua daukatenak, eta adirazitzera aukera mendekoai, eta libratuak izatea karzelan daudenai.

2. Publikatzera Jaunarekin adiskidetutzeko urtea, eta gure Jaungoikoaren bengantzako eguna. Nik gozatu ditzadan negarrez dauden guztiak,

3. Zaitzeko Siontar negarrez daudenak, eta emateko berai gloriako koroa bat, beren buruak estalitzen dituen autsezkoaren lekuan; egun andi eta pozezkoetako olioa lutuaren lekuan; gloriako soñeko bat, beren espiritu atsekabezkoaren lekuan; eta bertan biziko diradenak deituak izango dirade errutsuak justizian, Jaunak ipiñitakoak bere gloriarako.

4. Zeñak berriz jendez beteko dituzte, anziñako denboretatik eremutuak dauden tokiak, eta jasoko dituzte anziñatik eroriak zeuden etxeak, eta berriz egingo dituzte basomortu biurtuta gizaldi askotatik onara anima gabe zeuden erriak.

5. orduan etorriko dira jende arrotzak, eta zuen abereak bazkatuko dituzte; eta kanpotarren semeak izango dira zuen nekazariak, eta mastizaitzaleak.

6. Zuek ordea deituak izango zerate Jaunaren apaizak. Zuei emango zatzute Jaungoikoaren Ministroen izena; erreñuen sendotasunarekin bazkatuak izango zerate, eta onratuak beren gloriarekin.

7. Zuen bi alditan anbateko eragabetasun eta lotsaren lekuan, eskerrak emango dituzute tokatzen zatzuten herenziaren zatiagatik; argatik izango zerate zuen lurrean, bi alditan anbaten anoaren jabe, eta zuen gloriak beti iraungo du.

8. Zeren ni naiz, justizia maitatzen dedan, eta lapurreta holokaustoan konsagratua gorrotatzen dedan Jauna; eta nik ordainduko ditut leialkiro beren obrak; eta egingo det berakin betiko elkartasuna.

9. Eta berezitua izango da errien artean beren arraza, eta beren jatorria erreñuen erdian. Ikusten dituzten guztiak beriala ezagutuko dituzte, berak Jaunaren jatorri bedeikatua diradelko.

10. Ni poztuko naiz bozkariorik andienarekin Jaunagan, eta nere anima gozotasunez betea izango da nere Jaungoikoagan; zeren berak osasuneko soñekoarekin jantzi nauen, eta estali nau justiziako mantuarekin, girnaldaz edertutako esposo bat bezela, eta bere soñeko ederrakin apaindutako esposa bat bezela.

11. Zeren nola lurrak ematen dituen bere landareak, eta jardinak erneerazitzen dion, bertan erein dan aziari; ala Jaun Jainkoak loretuerazi ko diozkate bere justiziari eta bere gloriari, erreñu guztien begien aurrean.

IRUROGEITA BIGARREN KAPITULUA

1. Ez naiz bada ni ixillik egongo. Aspertu gabe erregutuko det Sionen alde; eta Jerusalenen amorioz ez det atsedengo aliketa bere Justoa jaio dedin artean egunaren argia bezela, eta dist egin dezala bere Salbatzalleak zuzi argitsu baten gisara.

2. Erreñuak, o Jerusalen, ikusiko dute zure Justoa; eta errege guziak zure Salbatzalle gloriaz betea, eta ipiñiko zatzu izen berri bat, Jaunak bere aoz esango duena.

3. Eta izango zera orduan gloriako koroa bat Jaunaren eskuan; eta errege diadema bat zure Jaungoikoaren eskuan.

4. Onezkero aurrerakoan etzera deitua izango, Utzia, eta zure lurrak ere ez du idukiko Eremuaren izena, baizikan deitua izango zera nere Maitea; eta zure erria jendez betea, zeren Jaunak ipiñi ditu zugan bere gozotasunak, eta zure erria jendez betea egongo da.

5. Zeren nola pakean ta bozkarioz bizi dan galai bat, bere esposatzat autu zuen donzellarekin, ala biziko dirade zugan zure semeak, eta nolakoa dan esposoaren eta esposaren bozkarioa, ala izango zera zu, zure Jaungoikoaren bozkarioa.

6. Zure murruen gañean, o Jerusalen, bealariak ipiñi ditut. Egun guztian eta gau guztian beillan egongo dirade, ez dirade iñoiz ere ixilduko. Zuek bada, Jaunaren oroipena egiten dezutenok, etzaitezte egon ixillikan,

7. Eta etzaitezte egon itzik egin gabetanik bere aurrean. Erregutu zaiozute aliketa berriz jarri dezan artean Jerusalen, eta aliketa ipiñi dezan artean lurrak alabantzak zuzentzen diozkala.

8. Jaunak juramentu egin du, bere eskuieagatik, eta bere beso sendoagatik, esaten duela: Ez det berriz zure garia emango zure etsaiak bazkatzeko, eta ez diote ere aurrerakoan arrotzak edango zure ardoa, zure lanaren irabazia:

9. Baizik garia biltzen dutenak jango dute, eta bedeikatuko dute Jauna, eta ardoa ekartzen dutenak edango dute nere tenplo santuko atarietan.

10. Atera zaitezte, bada, atera zaitezte Jerusalengo ateetatik kanpora, prestatu zaiozute bidea erriari, lautu zaiozute bidetxigorra, alde itzatzute andikan arriak, eta jaso ezazute estandartea errientzat.

11. Ona emen non Jaunak agindu duen adirazi erazitzeko oiek lurraren mugetaraño, eta esan dizaiotela Siongo alabari: Begiratu ezazu, zure Salbatzallea badatorrela, begira ezazu nola dakarren berarekin Saria, eta daukan bere aurrean ordaña bere serbitzarientzat.

12. Orduan zure semeak deituak izango dirade, Jaunaren erredimituak. Eta zuri deituko dizute, guztiak nai zaituzten Erria, eta ez Utzia.

IRUROGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Zeñ da ori, datorrena Edomdik, eta Bosratik soñekoak odolez bustita dauzkala? Ori, ain panparroia, bere jantzitako eran, eta zeñaen ibiltzeko moduan agertzen dan bere sendotasun andia?

2. Zergatik bada dago gorria zure soñekoa, eta jantzia dolarean mendaina zapaltzen dutenena bezelakoa?

3. Nik bakarrik zapaldu det dolarea, jendeen artetik iñor ere nerekin egon gabetanik. Zapaldu nituen etsaiak nere sumintasunean, eta erabilli nituen oñazpian nere aserrearekin, eta bere odolak txipristindu zuen nere soñekoa, eta kutsutu nuen nere jantzi guztia.

4. Zeren ona emen nere biotzean izendatutako eguna bengantza artzeko. Allegatua da onezkero nereak erredimitzeko denbora.

5. Begiratu nuen inguruetara, eta etzegoan nor etorri neri laguntzera. Billan ibilli nintzan, eta ez nuen arkitu iñor, neri laguntzeko, eta bakarrik salbatu ninduen nere besoak, eta artu nuen aserreak, orrek iraunerazi zidan.

6. Eta nere sumintasunean erabili nituen oñazpian erriak, eta beren odolez moskortu nituen nere aserrean, eta beren indarrak lurrera bota nituen.

7. Ni Jaunaren urrikaltasunakin oroituko naiz, eta Jauna alabatuko det gure alde egin dtuen gauza guztiakgatik, eta Israelko etxeari egindako bere mesedeen ugaritasunagatik, bere biguñtasunaren, eta bere biotzberaatasunen talde luzeen araura.

8. Zeren berak esan zuen: Atzenean ere nere erria da au, nere semeak dirade, ez didate onezkero faltatuko leialtasunean, eta onenbesterekin beren salbatzalle egin zan.

9. Eta gertatu zatzazkien atsekabe guzietan, beñere etzan Jauna aspertu berak libratzeaz, baizik bere aurrean dagoen aingeruak salbatu zituen. Eta berak, zien amorioagatik, eta bere biotzeko biguñtasunagatik erredimitu zituen, eta gañean eraman zituen, eta goratu zituen denbora guztian.

10. Baña berak aserretu erazi zioten, eta tristetu zuten bere Santuaren espiritua, eta Jauna etsai biurtu zaien; eta berak desegin zituen.

11. Baña gero laister oroitu zan anziñako denborakin; Moisesekin eta bere erriarekin. Non da orain, esan zuen, itsaso gorritik atera zituena

berak, eta bere artaldearen artzaiak ziradenak? Non da, beren erdian bere Santuaren espiritua ipiñi zuena?

12. Non, Moisesen eskuietik jarrita Ejiptotik atera zituena bere beso txit sendoarekin, beren aurrean itsasoko urak berezitu zituena, zeñarekin irabazi zuen betiko izen bat?

13. Zuzendu zituena itsasoko ondarren erditik, egiten dan bezela zaldi bizkor ta indartsu batekin eremuko toki lau batean, beaztoporikan batere gabe?

14. Nola eramaten dan asto bat kanpoko lurretik beera, ala eraman zituen Jaunaren espirituak. Ala, o Jaungoikoa, zu izan ziñan zure erriaren zuzentzallea, izen gloriaz betetako bat irabazteagatik.

15. Aditu gaitzatzu arren, o Jauna, zerutik, eta aurtiki ezazu begirakune bat guganontz, bizi zeran toki santutik, eta zure gloria dagoen lekutik. Non dago orain zure zeloa,eta zure sendotasuna, zure erraien biguñtasuna, eta zure urrikaltasun andia? Zergatik ez dauzkazu nerekin?

16. Alaere zu zera gure Aita egiazkoa; zeren Abrahamek ez ginduen ezagutu; eta Israelek etzuen gure berririk batere jakin. Bai, zu, o Jauna, zera gure Aita, gure Salbatzallea; au da zure izena betiko iraunetikan.

17. Eta, zergatik, o Jauna, utzi ziñigun zure bidetik alde egiten? Zergatik laketu zenduen gure biotza gogortu zedilla alako moduan, non, allegatuko giñan zure beldur santua galtzera? itzuli zaite gugana zure serbitzarien, eta zure herenziako tribuen amorioagatik.

18. Zure erria, zure aurrean ezerere ez balitza bezela, jabetu dirade berarekin gure etsaiak, oñazpian erabilli dute zure santuarioa.

19. Itzuli gera izatera asieran bezelakoak, zu gure jabe izanda gelditu ziñan baño lenago, eta zure erriaren izena eraman genduen baño lenago.

IRUROGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Arren bada urratuko baziñitu zeruak, eta jetxiko baziña! Zure aurrean urtuko lirake mendiak,

2. Ezereztuko lirake suzko labe batean bezela, urak egongo lirake izekiak garrak bezela, agertua izan zekioten zure izena zure etsaiai, eta dardaraz jarri zitezen zure aurrean erreñuak.

3. Zuk egiten dituzunean mirari oiek, ezin sufrituko ditugu. Zerutikan jetxi zera, eta mendiak urtu dira ikusi zaituztenean.

4. Mundua mundu danetik onara, beñere iñork ez du konprenditu, ez belarri batek ere aditu, ez begi batek ere ikusi du, baizik zuk bakarrik, o Jaungoikoa, prestatuak dauzkazun gauzak zure zai daudenentzat.

5. Zu atera ziñien bidera zugan poztutzen diradenai, eta justizia obrakin erakusten dutenai, baita ere ibillirik pozik zure bideetatik, zurekin oroitzen diradenai. Baña zu orain aserretua zaude gure kontra, bekatu egin degulako, bekatuetan egon giñan beti nastuak, eta alaere zure urrikaltasunagatik, salbatuak izango gera.

6. Gu guztiok egiñak izan gera legenarti zikin bat bezelakoak, eta oial likits eta nazkagarri bat bezela gure justifikazioko obra guziak; eta gure gaiztakeriak aize bunbada andi batek bezela indarrez eraman eta barreiatu gaitu.

7. Ez dago zure izenari ots egiten dionik. Ez dago nor jaiki bitarteko jartzeko, eta zu geldirik idukitzeko. ezkutatu diguzu zure arpegia, eta gure gaiztakerien kontra joerazi, ta zatitu gaituzu.

8. Orain bada, ongi Jauna, zu zera gure aita, gu gera buztiñia, eta zu eltzegillea. Guziok gera zure eskuetako lanak.

9. Etzaite, o Jauna, geiegi aserretu; eta etzaite ere berriz oroitu gure gaiztakeriarekin. Begira ezazu, ta aditu, guziok gerala zure erria.

10. Eremutua gelditu da zure Santuarioko erria. Sion dago basomortu bat eginda, Jerusalen arrasatua dago.

11. Gure santutuerako eta gure gloriako Etxea, non gure gurasoak kantatu zituzten zure alabantzak, dago auts montoi bat eginda, eta gure anditasun guztiak galmen biurtu dira.

12. Eta zu, Jauna, alako gauzak ikusita, geldirik egongo zera? Jarraituko diozu ixillik egoteari, eta alako modu garratzean gu aflijitzeari?

IRUROGEITA BOSGARREN KAPITULUA

1. Etorri dirade nere billan, len nigatik galdetzen etzutenak, arkitu naute billatzen ez nindutenak. Nik esan diot nere izenari ots egiten etzion erreñu bati: Emen nago, ona emen non naukazun.

2. Egun guztian luzatu nituen nere besoak erri sinisgogor, bide onetik ez dabillan, baizik bere guraen ondoren dijoan batganontz,

3. Erri bat arpegiz arpegi beti neri aserretu erazitzen ari dan batganontz, gizon batzuek doañak eskeñtzen dituztenak baratzetan, eta egiten dituztenak opariak adrilluakin egindako aldareen gañean.

4. Sartzen diradenak obietan, lo egiten dutenak idoloen tenploetan, jaten dutenak urdearen aragia, eta botatzen dutenak beren katilluetan salda galerazia.

5. Esaten diotenak besteai: Alde egin ezazu nigandik, etzadazu ukitu, zeren zu zikiña zeran. Oiek guziok kedi biurtuko dirade nere sumintasuneko egunean, beti izekia egongo dan suan.

6. Jakin ezazute, esan dana eskribatua daukadala nere aurrean. Argatik ez naiz ixillik egongo, esaten du Jaunak, baizik biurtuko diet ordaña, eta saria beren kolkoan ipiñiko diet,

7. Beren gaiztakerien, eta beren gurasoen gaiztakerien ordaña batean, zeñak eskeñi zituzten doañak mendien gañean, eta muñoen gañean desonratu ninduten. Nik isuriko det semeen kolkoan, gurasoen anziñako obrai zor zaien saria.

8. Alaere oiek esaten ditu Jaunak: Grano on bat arkitzen danean bezela mordo usteldu batean, eta esaten danean: Ez ezazu alperrik galdu; zeren dan bedeikazio bat, edo Jaungoikoaren doaña. Au bera egingo det nik nere serbitzarien amorioz, ez det arras galduko Israel.

9. Baizik aterako det Jakoben jatorriaren artetik, eta Judatik nork agintatuko duen nere mendien gañean. Eta Siongo lur au izango da nere autuen herenzia, eta bertan biziko dirade nere serbitzari leialak;

10. Eta landak izango dirade artaldeen saretetxeak, eta Akorgo ibai ugarian etzango dira nere erriko abere andiak, nere ondoren joan diradenenak.

11. Baña zuek, Jauna utzi zendutenak, nere mendi satu Sionekin aztu ziñatenak, prestatu ziñiotenak mai bat Fortunaren idoloari, eta bere gañean libazioak isurtzen dituzutenak;

12. Ni joango naiz ipiñiaz zuek banan banan nere ezpataren puntan, eta eriote onetan guziok galduko zerate, nik ots egin nizuten ezkero, eta zuek etziñidaten erantzun; itz egin nizuten, eta etzenduten aditu, eta nere begien aurrean gaiztakeriak egiten ziñituzten, eta autu dituzute ni aier nintzaien gauzak.

13. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Jakin ezazute, nere serbitzariak jango dutela, eta zuek egongo zeratela gosez, nere serbitzariak edango dutela, eta zuek egongo zeratela egarriz.

14. Nere serbitzariak bozkarioz egongo dirade, eta zuek egongo zerate lotsatuak. Eta jakin ezazute atzenik, nere serbitzariak beren biotzetako pozaren indarrez ariko diradela alabantzazko himnoak kantatzen; eta zuek zuen biotzeko penagatik deadar andiak egingo dituzutela, eta alarauak eman eraziko diozkazutela animako atsekabeak.

15. Eta utziko diezute madarikazioz estalia zuen izena nere autuai. Jaun Jainkoak ilko zaitu, o Israel, eta bere serbitzariai beste izen batez ots egingo die:

16. Eta izen onetan bedeikatua dana lurraren gañean, Jaungoiko egiazkoak bedeikatua izango da; eta juramentu egiten duenak lurraren gañean, Jaungoiko egiazkoaren izen onegatik juramentu egingo du, zeren leengo atsekabeak aztuta gelditu dira, eta ezkutatu dirade nere begietatik.

17. Zeren ona emen non ni noan egitera zeru berriak, eta lur berria; eta lenbiziko gauzen oroipenik ez da geiago egingo, ez da berakin gogoratu ere.

18. Baizik poztuko zerate, eta gozatuko zerate beti, egitera noan gauzetan; bada ona non nik egingo dedan Jerusalen pozezko erria, eta bere erria, gozotasuneko erria.

19. Eta ipiñiko ditut nik nere gozotasunak Jerusalenen, eta arkituko det nere bozkarioa nere errian. Beñere ez da adituko bertan negarraren, ez suspirioaren boza.

20. Ez da an berriz ikusiko egun gutxitan bizi dan aurrik; ez zarrik bere bizitzako denbora kunplitzen ez duenik; zeren aurren iltzen danak eun urte idukiko ditu; eta bekataria, edo eun urtean bizi ez dana, madarikatua bezela idukia izango da.

21. Eta etxeak egingo dituzte, eta biziko dirade beretan; eta ipiñiko dituzte mastiak, eta beren frutuak jango dituzte.

22. Ez da gertatuko berak etxeak egin eta beste batzuek beretan bizitea; eta ez dituzte ere landareak ipiñiko, beste batzuek jan dezaten; zeren nere erriaren egunak iraunkorrak izango dirade, bizitzako zuaitzaren egunak bezelakoak, eta beren eskuen obrak denbora luzean iraungo dute.

23. Ez dirade alperrik nekatuko nere autuak, ez dituzte ere idukiko atsekabeak ematen diezten semeak; zeren ala berak, nola beren illoba txikiak, Jaunaren jatorri bedeikatua dirade.

24. Eta berak deadar egin baño lenago, nik adituko ditut, oraindikan aoan itza dutela daudenean, nik emango diet eskatzen didatena.

25. Otsoa eta bildotsa batean bazkatuko dirade, leoiak idiak bezela lastoa jango du: sugearen janaria autsa izango da. Ez da izango nork kalterik egin dezan, ez iñor ilko duenik ere nere mendi santu guztian, esaten du Jaunak.

IRUROGEITA SEIGARREN KAPITULUA

1. Oiek esaten ditu Jaunak: Zerua da nere esertoki goratua, eta lurra nere oñen peadiña. Nolakoa da bada zuek neretzat egingo dezuten etxea, eta zeñ nik nere egonlekua ipiñiko dedan toki hura?

2. Gauza guzi oiek nere eskuak egin zituzten, eta guztiak dirade nere obra, esaten du Jaunak. Eta, zeñgan ipiñiko ditut nik nere begiak, beartsutxoan, eta biotz damutuan, eta nere itzak beldurrez aditzen dituenean baizik?

3. Idi bat ill, eta eskeñtzen didana, gizon bati bizia kentzen diona bezelakoa da bildots bat eskeñtzen duena, da txakur bati burua ebakitzen diona bezelakoa. Eskeñtza bat egiten duena, da urde baten odola aurrean jartzen didana bezelakoa. Neri inzensoa eskeñtzeko oroitzen dana, da idolo bat bedeikatzen duena bezelakoa. Egiaz nere legean galerazitzeko gauza guzi oiek autu dituzte berak, beren guraen erara, eta beren aminak ipiñi ditu bere atsedenak gauza nazkagarri oietan.

4. Argatik ni ere gozatuko naiz, berai irri egitean, eta egingo det gertatu dizaieztela beldur zitzaiezten gauza doakabeak, deitu nuen ezkero, eta etzan ezkero egon nork erantzun; itz egin nuen, eta ez ninduten aditu, eta egin zituzten gaiztakeriak nere begien aurrean; eta nai izan dute, nik gaiztotzat ematen nuena.

5. Aditu ezazute Jaunaren itza zuek beldurrez entzuten dezutenak. Zuen anaia, gorrotatzen zaituztenak eta botatzen zaituztenak nere izenagatik, esan zuten: Erakutsi dezala Jaunak zuekgan bere gloria, eta ezagutuko degu, ikusirik zuen arpegietako poza. Baña etzaitezte beldur izan, berak geldituko dirade lotsatuak.

6. Aditzen det Jerusalengo erriko jendearen negarrezko boza, tenploko boza, Jaunaren boz, bere etsaiai ordaña ematen diotena.

7. Aurregiteko denbora baño lenago egin du aurra Sion berriak. Oñazeak etorri zizkiokan baño lenago, aur seme bat egin du.

8. Nork iñoiz aditu zuen alako gauzarik, eta onen antzeko gauzarik ikusi ere zuen? Lurrak egun bakar batean frutua ematen al du? Edo aurdun gelditu al da iñoiz bat batean erreñu oso bat? Bada ona emen non Sionek ezagutu zuen aurdun zegoala, eta egin zituen bere semeak.

9. Nik besteai aurrak egin erazitzen dieztedanak, ez al ditut nik egingo? Ni, besteai jatorria ematen diedana, soilla izango al naiz, esaten du zure Jaun Jainkoak?

10. Poztu zaitezte bada Jerusalen berriarekin eta bozkariotu zaitezte berarekin maitatzen dezuten guztiak, gozotasunez gañez egin ezazute beragatik negarrez zaudeten guztiak;

11. Miaztu dezazuten ala bere bularretatik bere gozotasun zerukoen ugatsa, aseak gelditu arteraño, eta atera dezazuten atsegin andien ugaritasuna bere gloria osotik.

12. Zeren oiek esaten ditu Jaunak: Ona emen non nik isuriko dedan bere gañera pakea ibai bat bezela eta erreka, guztia ondatzen duen bat bezela erreñuen gloria. Zuek miaztuko dezute bere eznea, bere bularretara eramanak izango zerate, eta egingo dizkizute pozkeriak bere altzoan.

13. Ama batek bere semetxoari nola egiten diozkan balakuak, ala nik gozatuko zaituztet zuek, eta Jerusalenen arkituko dezute zuen pakea eta bozkarioa.

14. Zuek ikusiko dezute, eta poztuko da zuen biotza eta zuen ezurrak berdetuko dira, belarra bezela, eta agirian egongo da Jaunaren eskua bere serbitzarien alde; bere etsaiak berriz berakgan ikusiko dute bere aserrea.

15. Zeren ona emen non Jauna etorriko dan suaren erdian, eta bere gurdia izango da aize bunbada andi bat bezelakoa isuritzeko bere aserrearekin bere sumintasuna, eta bere bengantza, suzko garrakin,

16. Zeren Jaunak suaz ingurututa, eta bere ezpatarekin armatuta juzgatuko ditu munduko guztiak; eta asko izango dirade Jaunak bizia kenduko dienak.

17. Uste zutenak berak santututzea, eta garbi gelditzea baratzetan, eta beren etxeetako atearen ostean garbitzen ziradela, beren barrenen, jaten zutela urdearen aragia, eta gauza nazkagarriak, eta arratoiak, guztiak batean desegiñak izango dirade, esaten du Jaunak.

18. Ni berriz etorriko naiz biltzera beren obrak, eta beren gogorazioak, eta berak batean ipintzera, edozeñ erri eta mintzoerako erreñu guztiakin, eta agertuko dirade nere aurrean, eta nere gloria ikusiko dute.

19. Eta jasoko det beren erdian osasuneko siñale bat, eta salbatzen diradenetatik nik bialduko ditut itsasoaren beste aldameneko erreñuetara, Afrikara, eta Lidiara (zeñak diraden erri fletxariak) Italiara, Greziara, ugarterik urrutienetara nere gañeko itzik beñere aditu ez duten jendeetara, ez da ikusi ere nere gloriarik. Eta mandatari oiek adiraziko diete erreñuai nere gloria;

20. Eta ekarriko dituzte zuen anaia guztiak erreñu guztietatik, eta eskeñiko diezte Jaunari doañ bat bezela, eramaten dituztela zaldietan, eta karrozaetan, eta literetan, eta mandoetan, eta gurdietan Jerusalengo nere mendi Santura, esaten du Jaunak, Israelko semeak ontzi garbi batean eskeñtza Jaunaren etxera eramaten dutenean bezela.

21. Eta oien artetik autuko ditut nik egiteko berak sazerdote, eta lebitak, esaten du Jaunak.

22. Zeren nola zeru berri eta lur berri, nik nere aurrean iraunerazi diedanai, ala, o Jerusalen, zure jatorriak eta zure izen otspatsuak iraungo du, esaten du Jaunak.

23. Eta illetik illera eta larunbatetik larunbatera etorriko da gizon guztia auzpeztutzera nere aurrean, eta adoratuko nau, esaten du Jaunak.

24. Eta aterako dira ikustera fedea autsita nere kontra jarri ziradenen gorputz illak, zeñen arra ez dan beñere iltzen, eta zeñaen sua ez dan iñoizere itzaliko. Eta berak ikusteak, gizon guziari nazka emango dio.

JEREMIAS PROFETAREN LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Jeremias Helziasen semearen, Anatot, Benjamingo lurreko errian bizi ziraden apaizetatik bataren itzak.

2. Jaunak bada zuzendu zion oni bere itza, Josias Amonen seme Judako erregearen egunetan, bere agintaritzako amairugarren urtean.

3. Eta zuzendu ere zion Joakin, Josias Judako erregearen semearen egunetan; Sedezias, Josias Judako erregearen semearen amaikagarren urtea bukatu arteraño; au da, Juduak Jerusalendik Babiloniara eramanak izan ziraden arteraño bosgarren illean.

4. Eta Jaunak itz egin zidan, esaten zuela:

5. Nik egin zindudan baño lenago amaren sabelean, ezagutu zindudan; eta zu jaio ziñan baño lenago santutu zindudan, eta autu zindudan profetatzat erreñuen artean.

6. Onetara nik esan nuen: Ah! Ah! Ah! Jaun Jainkoa! Ongi dakizu zuk, itz egiten ere ozta dakidala; zeren oraindikan gaztetxoa naizan.

7. Eta esan zidan Jaunak: Ez ezazu esan: Gaztetxoa naiz zeren bialtzen zaitudan gauza guztietara joango zeran, eta agintzen dizkizudan gauza guztiak esango dieztezun.

8. Ez ezazu beldurrik iduki agertzeko nik bialtzen zaitudanen aurrean, zeren zurekin nagoen ni, edozeñere eragozketatik ateratzeko, esaten du Jaunak.

9. Gero luzatu zuen Jaunak bere eskua, eta nere ezpañai ukitu zien, eta esan zidan Jaunak: Begira ezazu, nik ipintzen ditut nere itzak zure aoan.

10. Ona emen non gaur ematen dizudan eskubidea errien gañean, eta erreñuen gañean, adirazteko berai, banoala berak sustraitik ateratzera, eta desegitera, eta arrasatzera, eta ezerereztutzera, eta beste batzuek egin, eta ipintzera.

11. Andikan laster itz egin zidan Jaunak, eta esan zuen: Zer da zuk, Jeremias, ikusten dezun ori? Eta erantzun nuen: Ni nago ikusten, beillan dagoen baten zigorra.

12. Eta esan zidan Jaunak: Ala da, zuk ikusi dezun bezela, zeren ni bellan egon naizan nere itza kunplitzeko.

13. Eta berriz itz egin zidan Jaunak, esaten zuela: Zer da zuk ikusten dezun ori? ikusten det, erantzun nuen, eltze bat irakitzen dagoena, eta bera ifarreko aldamenetikan dator.

14. Orduan Jaunak esan zidan: Orrek adirazten du, ifarreko aldamenetikan zabalduko diradela gaitzak lur onetan bizi diraden guztien gañera.

15. Zeren ona emen non nik ots egingo diedan ifarreko aldameneko erreñuetako erri guztiai, esaten du Jaunak; eta etorriko dirade, eta beretatik bakoitzak jarriko du bere etzauntza Jerusalengo ateetako sarreran, eta bere murru guzien inguruan, eta Judako erri guztietan.

16. Eta nik artuko ditut neurriak, berakin kastigatzeko, ni utzi nindutenen gaiztakeria guztia, eta jainko arrotzai libazioak eskeñi ziozkatenena, eta idoloak, beren eskuen lana, adoratu zituztenena.

17. Orain bada lotu itzatzu magalak gerrian, eta zoaz laster, eta predikatu zaieztezu, nik agintzen dizkizudan gauza guztiak. Etzaite gelditu beren beldurragatik; bada nik egingo det, etzaitezela beldur izan beren aurrean.

18. Egun onetan jartzen zaitudan ezkero erri sendo bat bezelakoa, eta burnizko abe bat bezelakoa, eta brontzezko murru bat lur guzti onen kontra; Judako Erregeen, eta bere Prinzipeen, eta apaizen, eta erriko jendearen kontra:

19. Zeñak gerra egingo dizuten; baña ez dirade zu baño geiago izango, zeren ni zurekin nagoen, esaten du Jaunak, zu libratzeko.

BIGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zidan Jaunak, eta esan zidan:

2. Zoaz, eta predikatu zaiozu Jerusaleni, esaten dezula:Oiek esaten ditu Jaunak: Zure gaztetasunarekin urrikaldurik, oroitu naz zurekin, eta iduki nizun amorioarekin, zurekin ezkontzitzatu nintzanean, eta gero jarraitu ziñidanean Eremuan, ezerere ereitzen ez dan lur artan.

3. Israel Jaunari konsagratua dago, eta da bere frutuen lenbiziak bezela, iretsitzen duten guztiak bekatuaren obendun egiten dirade, eta ondamen guztiak beren gañera eroriko dirade, esaten du Jaunak.

4. Orain bada, aditu ezazute Jaunaren itza zuek Jakoben etxekoak, eta zuek Israelen jatorriko familia guziak.

5. Oiek esaten ditu Jaunak: Zer gaiztakeria arkitu zuten nigan zuen gurasoak, urrutiratu ziradenean nigandik, eta idoloen urgulleriaren ondoren joan ziradenean, berak ere zentzugabeak egiten ziradela?

6. Etzuten bederik esan: Non da arako Jaun, Ejiptoko katiberioko lurretik atera ginduena; zuzendu ginduena Eremutik, iñor ere bizi ez litekean lur batetik, bide txigorrik ere ez duenetik; lur leor, eta eriotzaren irudi batetik; gizonek iñoiz zapaldu etzuen, eta biziadaukanik bizi izan ez dan lur batetik?

7. Nik sartu zinduztedan gero lur txit ugari batean, bere frutuak jan ziñitzaten, eta gozatu zintezten bere atsedenetan; eta zuek bertan ziñateneko, kutsutu zenduten nere lurra; eta nere soroarekin gauza nazkagarri bat egin zenduten.

8. Apaizak ere etzuten esan: Non dago Jauna? Nere legearen gordetzalleak ez ninduten ezagutu, eta autsi zuten nere aginteen fedea artzaiak berak; eta profetak profetizatu zuten ots egiten ziotela Baalen izenari, eta idoloen ondoren joan ziran.

9. Argatik ni zuen kontra juizioan sartuko naiz, esaten du Jaunak, eta sendoki zaituko det nere kausaren justizia zuen semeen kontra.

10. Zoazte itsasoz Zetimgo ugarteetara, eta ikusi ezazute. Bialdu itzatzute mandatariak Zedarrera, eta esamiñatu ezazute arreta guziarekin an iragotzen dana, eta ikusi ezazute onelako gauzarik gertatu ote dan.

11. Ikusi ezazute erreñu aietatikoren batek aldatu ote dituen bere jainkoak, berak egiaz jainkoak ez badirade ere, baña nere erriak bere gloriaren trukada egin du, idolo bat gatik.

12. Zeruak, arritu zaitezte au ikusita; eta zuek, o zeruko ateak, txit izutu zaitezte egite augatik, esaten du Jaunak.

13. Zeren nere erriak gaiztakeria bi egin dituen, utzi naute ni, ur bizizko iturria naizen au, eta joan dirade egitera berentzat putzuak, putzu autsi, urik barrenen iduki ez dezaketenak.

14. Israel al da mendekoren bat, edo andre mendekoren baten semea? Zergatik bada izan da emana, etsaiak arrapatua izateko?

15. Marrumaz ari ziraden bere kontra leoiak, eta orroak egin zituzten, beren erria itzuli zuten eremu, erreak izan dirade bere erriak, eta iñor ere ez da beretan bizi.

16. Menfis eta Tafnisko semeak lotsariz eta desonraz bete zaituzte zure buruaren erpiñeraño.

17. Eta, au guziau ez al zatzu gertatu, zure Jaun Jainkoa utzi zenduelako, zuzentzen zinduen denboran, bideantez zenbiltzanean?

18. Eta orain, zer nai dezu Ejiptorontz ibiltzeaz, ur loija edatera? Edo, zer daukazu zuk zer ikusi Asiriako bidearekin, ez zertan joan ere bere ibaiko ura edatera?

19. Zure gaiztakeriak kondenatu zaitu, eta zuk autsi dezun fedeak deadar egingo du zure kontra. Ezagutu ezazu bada, eta begiratu orain, zeñ

gauza gaiztoa eta samiña dan zure Jaun Jainkoa zuk utzi izatea, eta nere beldur ez izatea, esaten du ejerzituen Jaun Jainkoak.

20. Anziñako denboratik zatitu zenduen nere uztarria, autsi ziñituen nere hedeak, eta esan zenduen: Ez det nai Jauna serbitu. Alaxe da, muño goratu guzian, eta zuaitz ostotsu guziaren azpian egin dituzu aragizko bekatuak bordion batek bezela.

21. Nik egiaz ipiñi zindudan masti autu bat bezela, txirmendu onakin, nola bada itzuli zazkit gaizto, masti besterena?

22. Gatzuarekin garbitzen bazera ere, eta erabiltzen badezu ere txit maiz borith belarra, nere begietan beti geldituko zera zikindua zure gaiztakeriagatik, esaten du Jaunak.

23. Nola esaten dezu: Ez nago ni zikindua, ez naiz ni Baalen ondoren joan? Begira zer egin dezun an ibar artan; ezagutu ezazu nola bizitu izan zeran dromedario ... bideetatik jiran zoazana.

24. Baso asto, eremuan oitua bezela, zeñ, bere gurarien berotasunean dijoan usaiko nai duenaren billan. Iñork ere ezin geldituko du. Bere billan dabiltzan guztiak, ez daukate zertan nekatu; bere zikinkeriaren siñaleetatik arkituko dute.

25. Zaitu ezazu zure oña billostasunetik, eta zure eztarria egarritik. Baña zuk esan dezu: Galdu det itxedopena, ezergatik ere ez det egingo, zeren maitatu nituen jainko arrotzak, eta beren ondoren ibilliko naiz.

26. Nola gelditzen dan lotsatua lapur bat, lapurretan arrapatua danean; ala geldituko dirade lotsatuak Israelko semeak, berak, eta beren erregeak, prinzipeak, eta apaizak, eta beren profetak:

27. Zeñak esaten dioten zur bati: Zu zera nere aita; eta arri bati: Zuk eman didazu izatea. Biurtu zidaten atzea, eta ez arpegia; eta beren ansiako denboran, orduan esango dute: Atoz agudo, Jauna, eta salbatu gaitzatzu.

28. Non dirade, erantzungo diet nik, arako zuk zuretzat egin ziñituen zure jainkoak? Betoz berak, eta salbatu zaitzatela zure atsekabeko denboran; zure jainkoak anbeste ziraden ezkero, o Juda, nola zure erriak.

29. Zergatik nai dezute nerekin sartu juizioan? Zuek guziok utzi nazute, esaten du Jaunak.

30. Alperrik kastigatu nituen zuen semeak; berak etzituzten artu nere erakutsiak; baizik zuen ezpatak il zituen zuen profetak, leoe ondatzallea bezela,

31. Alakoa da zuen arraza biurria. Begiratu ezazute zer esaten duen Jaunak: Ni Israelentzat eremuren bat izan al naiz, edo itzaleko lur, berandu frutua ematen duena? Zergatik bada nere erriak esan dit: Guk alde egiten degu, ez gera berriz iñoizere zugana itzuliko?

32. Donzella bat aztu al baliteke bere apainduriakin, edo ezkongai bat bere bularra edertzen duen fajarekin? Nere erria berriz nerekin aztuta egon da, ezin kontatu litezkean egunetan.

33. Zelan nai dezu zuk erakutsi zure egiteak onak izan diradela nere adiskidetasuna zure alde irabazteko, baldin besteai ere zure pauso gaiztoak erakutzi badiezu,

34. Eta zure soñekoaren magaletan arkitu bada anima pobre ta obengabeen odola? Ez nituen arkitu illak toki ezkutuen barrenen, baizik orain esan dedan leku eta parajeetan.

35. Alaere esan zenduen: Bekatu eta obenik gabea nago ni; eta argatik urrutiratu bedi nigandik zure aserrea. Begiratu ezazu, bada, ni zurekin juizioan sartuko naiz, esan dezulako: Ez det bekaturikan egin.

36. O, eta nola zatartu zeran ezingeiagoan itzultzen zerala zure pauso gaiztoetara! Zu izango zera Ejiptok isekatua, Assurrek egiña izan ziñan bezela.

37. Bai, Ejiptotik ere lotsatua biurtuko zera, zure eskuak buruaren gañean ipiñita; zeren Jaunak utzi zaituen zure itxedopenik batere gabe, eta ez dezu an idukiko gauza onik batere.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Maiz esan oi dana da: Gizon batek bere emaztea utziten badu, eta senarragandik berezitua dagoela beste bat artzen badu, gizonak emaztea beñere berriz artuko al du? Alako andrea, ez al da zikindua eta kutsutua geldituko? Egia da zuk, asko maitatzallekin bekatu egin dezula: alaere itzuli zaite nigana, esaten du Jaunak, bada nik artuko zaitut.

2. Jaso itzatzu zure begiak muñoetara, eta ikusi ezazu ote dagoen, zu etzinda egon ez zeran tokirik: bideen erdian egon oi ziñan eserita, bideanteen zai oiei gura gaiztoak betetzen laguntzeko, lapur bat egon oi dan bezela toki bakarrean ostutzeko zai: eta kutsutu dezu lurra zure aragizko bekatuakin, eta zure gaiztakeriakin.

3. Argatik atertu du eta gelditu dira euri ugariak, eta ez du egin udaberrian euririk: Zuk alaere damutu bearrean jartzen dezu emakume bordion baten arpegia: lotsarikan batere ez dezu iduki nai izan.

4. Oraindandik bederik damutu zaite, eta esan zadazu: Zu zera nere aita, zu nere donzellatasunaren gañean bellan zeundena.

5. Beti aserretua egongo al zera, edo zure sumintasunak atzeneraño iraungo ote du? Baña ona non zuk onela itz egin dezun, eta gaiztakeria mota guztiak egin dituzun, ezin geiagoraño.

6. Esan ere zidan Jaunak Josias erregearen denboran: Ez al dituzu ikusi Israel igeslariak egin dituzan gauzak? Joan da idoloak adoratzera mendi goratu guziaren gañera, eta zuaitz ostotsu guziaren azpira, eta an etziñik egon da.

7. Eta berak gauza guzi oiek eginda, esan nion nik: itzuli zaite nigana, eta etzuen itzuli nai izan: Eta bere aizpa Juda fedeausleak ikusi zuen:

8. Utzi nuela nik, eta eman niola aldegiko agiria Israel igeslariari adultera izan zalako; eta argatik ere etzan beldurtu bere aizpa Juda fedeauslea, baizik joan zan, eta berak ere gezurrezko jainkoak adoratu zituen.

9. Eta bere adulterioen ugaritasunarekin lur guzia kutsutu zuen, adoratzen zituela arriak, eta zurak.

10. Eta gauza guzi oiek eginda ere, etzan nigana itzuli, esaten du Jaunak, bere aizpa Juda fedeauslea, bere biotz guzitik, gezurrez baizik.

11. Eta ala esan zidan Jaunak: Israel igeslaria santa bat da, Juda fedeauslearekin berdindu ezkero.

12. Zoaz eta bein ta berriz deadarrez esan itzatzu itz oiek ifarralderontz, eta esan ezazu: Biurtu zaite nigana, o zu Israel igeslaria, esaten du Jaunak: bada ez det nik zeartuko nere arpegia zuri ez begiratzeko: zeren nori santua eta beraa naizan, esaten du Jaunak, eta nere aserreari ez diot beti iraunerazikо.

13. Alaere zure gaiztakeria ezagutu ezazu; bada jan dezu zure: Jaun Jainkoari emandako itza, eta ari izan zera jainko arrotzak adoratzen, zuaitz ostotsu guzien azpian, eta ez dezu aditu nere boza, esaten du Jaunak.

14. Biurtu zaitezte nigana, o seme igeslariak, esaten du Jaunak: zeren ni zuen animen esposoa naizan, eta autuko ditut zuetatik erri bakoitzetik bat, eta familia bakoitzetik bi, eta sartuko zaituztet Sionen.

15. Eta emango dieztezutet nere biotzaren araurako artzaiak, zeñak bazkatuko zaituzten jakinduria eta dotriñarekin.

16. Eta lurraren gañean ugaritu eta azitzen zeratenean, egun aietan, esaten du Jaunak, ez da onezkero itzik egingo Jaunaren Testamentuko Kutxaren gañean: eta ez da beragan pensatu ere egingo, eta ez da bere oroipenikan ere egongo, eta ez da bisitatua ere izango, eta ez da onezkero onelako gauzarik batere egingo.

17. Denbora artan Jerusalen Jaunaren Tronua deitua izango da: eta erreñu guztiak itsatsiko zaiozka berari, Jaunaren izenean, Jerusalenen, eta ez diote jarraituko beren biotz biurriaren gaiztakeriari.

18. Denbora artan Judako familia Israelko familiarekin bilduko da, eta etorriko dira batean ifarreko lurretik, zuen gurasoai eman nien lurrera.

19. Orduan esan nuen nik: O zenbat seme emango ote dizudan! Nik emango dizut lur atsegintsu bat, jendeen gudaritegien herenzia argitsu bat. Eta gañera esan nuen: Zuk Aita ots egingo didazu, eta aspertu gabe jarraitu diozu nere bideari.

20. Baña nola andre batek bera maitatzen duen gizona mezpreziatzen duen, ala mezpreziatu nau ni Israelko familiak, esaten du Jaunak.

21. Deadarrak adituak izan dira bideetan, Israelko semeen negarrak eta alarauak, gaizki bizi izan diradelako, beren Jaun Jainkoarekin aztuta.

22. Biurtu zaitezte nigana, seme igeslariak, bada nik barkatuko dizkizutet nere fedea autsitzea gatik egin dituzuten bekatuak. Ona emen non, o Jauna, biurtzen geran zugana, zeren zu gure Jaun Jainkoa zeran.

23. Egiaz etziraden gezurra baizik muñoetako, eta anbeste menditako idolo guziak. Egiaz Israelko osasuna gure Jaun Jainkoagan dago.

24. Adorazio lotsagarri ark desegin zituen gure gazte denboratik gure gurasoen izerdiak, beren arditaldeak, beren beitaldeak, beren semeak, eta beren alabak.

25. Ilko gera gure desonran, eta gure lotsariaz estaliak geldituko gera: gure Jaungoikoaren kontra bekatu egin degulako guk, eta gure gurasoak, gure gazte denboratik gaurko eguneraño, eta gure Jaun Jainkoaren boza ez degulako aditu.

LAUGARREN KAPITULUA

1. O Israel, damutu baldin bazera zure errakuntzakin, biurtu zaite nigana, esaten du Jaunak. Zure eskandaluak nere aurretik kentzen badituzu, etzera zure lurretik mugitua izango.

2. Eta izan bedi zure juramentua (egiarekin juizioan, eta justiziarekin egiña) bizi bedi Jauna, eta erreñu guziak Jauna alabatu, eta bedeikatuko dute.

3. Zeren oiek esaten diozkate Jaunak Judako, eta Jerusalengo gizonai: Goldeatu itzatzute zuen lurrak, eta ez ezazute erein arantzen gañean.

4. Zirkunzidatu zaitezte Jaunaren amorioa gatik, eta berezitu itzatzute zuen biotzetik zikinkeriak, o zuek Judako gizonak, eta Jerusalenen bizi zeratenak: agertu ez dedin su erretzalle baten gisara nere aserrea; eta gero gar andi biurtu ez dedin, eta arkitu ez dedin nork itzali alko duen, zuen asmazio gaiztoak gatik.

5. Adirazi zaiozute bada au guziau Judari, eta jakinerazi Jerusaleni: Deadar egin ezazute garratz, eta esan ezazute: Bildu zaitezte, eta sartu gaitezen erri murrutuetan.

6. Jaso ezazute Sionen estandartea: murruz ingurutu zaitezte, eta etzaitezte geldirik egon; zeren nik ifarraldetik etorrieraziko diot azoteari, eta ondamen andi bati.

7. Leoia bere ezkutatokitik atera da, eta jendeen triskatzallea altxatu da; bidean jarri da zure lurra arras soiltzeko: desegiñak izango dirade zure erriak, beretan bat bakarra ere bizirik gelditu gabe.

8. Argatik zilizioz jantzi zaitezte, eta asi zaitezte negarrez, eta alarauka, zeren Jaunaren aserre ikaragarriak ez du gugandik alderik egin.

9. Egun artan, esaten du Jaunak, desalaituko da erregearen biotza, desalaituko da prinzipeen biotza, arrituak egongo dirade apaizak, konortgabetuak profetak.

10. Eta nik ori aditzean, esan nuen: Ai!, ai! nere Jaun Jainkoa! Ai! Nola utzi dezu profeta gezurrezkoak engañatu zezatela zure erri au, eta Jerusalen, esaten zutela: Pakea idukiko dezute, etsaiaren ezpata biotzeraño sartu danean?

11. Denbora artan esango zaio erri oni, eta Jerusaleni: Aize erregarri bat dator Eremuaren aldetik, Babiloniatik nere erriko alabagana datorren bidetik, eta ez da aizetzeko, eta alea garbitzeko aizea.

12. Aize andiago bat etorriko zat aldamen artatik, eta orduan nik erakutsi eraziko diet nere juizioen gogortasuna:

13. Ona emen non etsaien ejerzitua etorriko dan odei zarratu bat bezela, eta bere gurdi gerrakoak aizebunbada bat bezelakoak: agilak baño ariñagoak dirade beren zaldiak. Ai gure doakabeak! Esango dute orduan: galduak gera.

14. Garbitu ezazu bada, o Jerusalen, zure biotzeko orban guztia, galdua izan nai ez badezu. Noiz arteraño egongo dirade zugan gogorazio gaiztoak?

15. Begira, aditzen dala Dandik allegatzen dan baten boza, eta esan ta adirazten du, idoloa badatorrela Efraimgo menditik.

16. Esan zaiezute bada jendeai: Jakin ezazute aditua izan dala Jerusalenen, badatozela toki urrutietako gudaritegiak, eta asi diradela deadarrez Judako errien kontra.

17. Gau ta egun bere inguruan egongo dirade, soroetako beillariak bezela: zeren aserretu erazi dit, esaten du Jaunak.

18. Zure egiteak eta zure gogorazioak ekarri dizkizu, o Jerusalen, gauza oiek: zure gaiztakeria ori da zure biotza mingoiztasunez irago duena.

19. Ah! nere erraiak, errai nereak penaz eta ansiaz mugitu dirade: nere biotzaren barrendiko gura guziak nastuak daude: ezin egon nindeke ixillik nere animak aditu duenean tronpeta otsa, gudarako aupada.

20. Galmena galmenaren gañean etorri da, eta lur guztia gelditu da arrasatua: batbatean, supituan izan ziran beera aurtikiak nere denda, eta etzauntzak.

21. Noizarteraño ikusiko ditut igesi nere errikoak, eta adituko det etsaiaren tronpeta otsa?

22. Nere erri txoroak ez nau ezagutu; seme zentzugabeak, eta adingabekoak dirade: gaizki egiteko dirade jakintsuak; berriz gauza onik egiten ez dakite.

23. Egotzi nuen begirakune bat lurrera, eta ikusi nuen utsa, eta ezerere gabe zegoela; eta zeruetara, eta etzegoan beretan argirik.

24. Begiratu nuen mendietara, eta ikusi nuen ikaraz zeudela, eta muño guztiak dardar egiten zutela.

25. Egon nintzan Judeara begira, eta etzan agiri gizon bat bederik, eta alde egin zuten erritik zeruko egazti guztiak.

26. Begiratu nuen, eta ikusi nituen bere soro ugariak eremu biurturik: bere erri guztiak desegiñak gelditu dira Jaunaren aurrean, bere aserrearen sumintasunaren aurrean.

27. Baña ona emen Jaunak esaten duena: Judako lur guztia eremutua geldituko da; baña ez det osotoro arrasatuko.

28. Lurrak negar egingo du, eta zeruak goian lutuz jantziko dira erabaki nuenagatik: artu nuen asmoa, eta ez zat damutu, eta orain ere ez daukat beste iritzirik.

29. Zaldidiaren eta fletxarien otsera erri guziak igesari eman zion: korrika joan ziraden ezkutatzera arkaitzen artean, igo ziran aitzen gañera; erri guziak izan ziran utziak, lagun bizi bat bakarra ere bertan gelditu gabetanik.

30. Eta, zer egingo dezu orain, o Siongo alaba, bakarrik gelditua? Zer egingo dezu? Granaz jantziten bazera ere, urrezko edergarriakin apaintzen bazera ere, eta zure begiak menartarriarekin igortzitzen badituzu ere, alperrik apainduko zera: zure maitatzalleak mezpreziatu zaituzte, zurearekingoa egin nai dute.

31. Zeren aditu ditut aurregiten ari dan andre batenak bezelako deadarrak, ansiak, eta larriak lenbiziko aurra egiten duenarenak bezelakoak; Siongo alaba iltzen dagoenaren boza, eta bere eskuak luzatuta esaten duenarena: Ai nere doakabea! Bada utziten nau nere animak, nere semeen ilkintza ikusirik.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Ibilli zaitezte Jerusalengo karrikaetatik, ikusi, eta begiratu ezazute: eta billatu ezazute bere plazaetan arkitzen ote dezuten gizon bat gauza ona egiten duenik, eta nekatzen danik leiala izateko; eta arkitzen badezute, nik berarekin urrikaltasuna egingo det.

2. Bada oraindikan esaten badute ere: Bizi bedi Jauna, Jaungoiko egiazkoa; orduan ere gezurrarekin juramentu egiten dute.

3. Jauna, zure begiak beti daude leialtasunari begira; azotatu ziñituen gaizto oiek, eta etzuten miñik artu; zatitu ziñituen otska, eta etzuten artu nai erakutsirik; arkaitza baño gogorrago egin zituzten beren kopetak, eta ez dute biurtu nai izan zugana.

4. Orduan esan nuen nik: Noaski oiek dirade Jaunaren bidearen, beren Jaungoikoaren erabakien berririk ez daukaten gaxo eta ezjakiñak.

5. Joango naiz bada erriko andizkietara, eta berai itz egingo diet: bada oiek dudarikan gabe dakite Jaunaren bidea, beren Jaungoikoaren erabakiak. Baña arkitu nuen, oiek oraindikan besteak baño ere geiago, guztiak batean autsi zutela Jaunaren uztarria, eta zatitu zituztela bere hedeak.

6. Baña basoko leoiak zatitu ditu; otsoak illuntzean desegin ditu; leoiarrea dago azeloan beren erriko inguruetan: beretatik irtetzen diran guztiak eroriko dira bere atzaparretan; zeren beren fedea maiz autsi duten, eta gogortu diran beren igesietan.

7. Zergatik iduki nezake nik borondate ona zuretzat, o erri igeslaria? Zure semeak utzi naute, eta egiten dute juramentu jainkoak ez diradenen izenean: nik ondasunez bete nituen; eta berak erori dira adulterioan, eta egon dira lujuriako bekatuak egiten bordionaren etxean.

8. Allegatu dira izatera zaldi aitagale brida gabeko eta bero daudenak bezelakoak: alako amorruarekin dijoa bakoitza bere projimuaren andreagana.

9. Nola bada utziko ditut nik onelako gauzak kastigatu gabe, esaten du Jaunak, eta ez du artuko nere animak alako jendearen bengantza?

10. Igo zaitezte, o Kaldeako erriak bere murruetara, eta aurtiki itzatzute: baña ez ezazute bera arras desegin: kendu zaiozkazute sarmentuak; zeren Jaunarenak ez diraden.

11. Israelko etxeak, eta Judako etxeak bekatu txit andiak nere kontra egin dituzten ezkero, esaten du Jaunak.

12. Ukatu zuten Jauna, eta esan zuten: Ez da bera; ez da ere gure gañera gaitzik etorriko: ezpatarik, ez goserik ez degu ikusiko.

13. Profetak aizeari itz egin zioten, eta etzuten artu erantzunik: gauza oiek bada berai gertatuko zaiozkate.

14. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaun Jainkoak: Zuek onelako itzak esan dituzutelako, ona emen non, o Jeremias, nik orain ipintzen ditudan zure aoan nere itzak su iretsitzalle bat bezela, eta egurtzat ematen diot erri ori, berak desegiña izan dedin.

15. Ni noa ekartzera zuen gañera, o Israelko familia, esaten du Jaunak, urrutiko erreñu bat, erreñu sendo bat, anziñako erreñu bat, erreñu bat, zeñaen izketa ez dezun zuk jakingo, eta ezin adituko ere dezun esaten duena.

16. Beren fletxategia obi idiki bat da; guziak dirade sendoak.

17. Erreñu onek jango ditu zure uztak, eta zure ogia; iretsiko ditu zure semeak, eta zure alabak; jango ditu zure arditaldeak, eta beitaldeak; jango ditu zure mastiak, eta zure piku taldeak; eta arrasatuko ditu ezpatarekin zure erri murrutuak, zeñatan zuk zendukan zure itxedopena ipiñita.

18. Alaere egun oietan etzaituztet osotoro desegingo, esaten du Jaunak.

19. Eta esango bazendute: Zergatik gure Jaun Jainkoak egin ditu gauza guzti oiek gure kontra? Zuk erantzungo diezu: Nola zuek utzi nazuten ni, esaten du Jaunak, eta jainko arrotzak zuen lurrean serbitu dituzuten, ala serbituko dituzute orain lur arrotzean.

20. Adirazi zaiozute au Jakoben etxeari, eta zabaldu ezazute Judan, esaten dezutela:

21. Aditu ezazu, o erri, zentzu eta adimen gabea: zuek, idukirik begiak ikusten ez dezutenak; eta idukirik belarriak aditzen ez dezutenak.

22. Beraz etzerate nere beldur izango, eta etzerate ere damutuko nere aurrean? Ni naiz itsasoari mugatzat ondarra ipiñi niona, betiko lege autsiko ez duena; jaikiko dira bere bagak, eta ez dituzte iragoko bere mugak; eta arrotuko dira, baña ez dira aurrera iragoko.

23. Baña erri oni bere biotza sinisgogor eta igeslari biurtu zaio; alde egin dute nigandik, eta idoloen ondoren joan dira.

24. Esan bearrean beren biotzean: Bizi gaitezen gure Jaun Jainkoaren bildurrean, zeñak ematen digun bere denboran, goizeko eta beluko euria, eta ematen digun urteoro uzta ugari bat.

25. Zuen gaiztakeriak iges erazi dizaiote gauza oiei; eta zuen bekatuak kendu dute zuekgandik ongi izatea:

26. Zeren arkitu diran nere errian gaiztoak, daudenak azeloan eiztariak bezela, ipintzen dituztela lazoak eta oiñualak gizonak arrapatzeko.

27. Nola dagoen eiztariaren kaiola egaztiz betea, ala daude beren etxeak engañuz beteak; berakin andi egin dira, baita aberastu ere.

28. Gizendu ziran eta loditu; eta txit gaizki nere aginteak ausi dituzte. Ez diote justiziarik egin andre alargunari, eta ez dute ere umezurtza zaitu, eta ez diote beartsuari justiziarik egin.

29. Nola ez ditut nik gauza oiek kastigatuko, esaten du Jaunak? Edo nola egon liteke nere anima, alako jende baten bengantza artu gabe?

30. Gauza arrigarria, gutxitan ikusitako gauza da erri onetan gertatu dana.

31. Profetak gezurrak profetizatzen zituzten, eta apaizak txaloka ontzat ematen zituzten; eta nere erriaren gogokoak izan ziran alako gauzak: Zer izango da bada berarekin bere atzena allegatzean?

SEIGARREN KAPITULUA

1. Sendotu zaitezte, o Benjaminen semeak, Jerusalenen erdian, eta jo ezazute gerrako klarina Tekuan, eta altxatu ezazute bandera bat Betakaremen gañean; zeren ifarralderontz ikusten da azote bat, eta galmen andi bat.

2. Nik berdindu det Siongo alaba, donzella eder, eta kuperati batekin.

3. Beragana joango dira artzaiak beren artaldeakin: ipiñiko dituzte bere inguruan beren etzauntzak: bakoitzak idukiko du bere aginteen mendean daudenen ajola.

4. Adirazi zaiozute argiro berarekin gerran gaudela: Goazen, eta sartu gaitezen bere barrenen egunaren erdian. Baña, ai gure doakabeak! Eguna iragoaz dijoa, arratsaldeko itzalak txit zabaldu dira.

5. Ea bada, sartu gaitezen barrenera gauaz, eta desegin ditzagun bere etxeak.

6. Zeren au da ejerzituen Jaunak esaten duena: Ebaki itzatzute bere zuaitzak, idiki itzatzute lutesiak Jerusalengo inguruan. Au da kastigatzera noan erria, bertan arkitzen da gezurrezko asmazio, eta gaiztakeria mota guzia.

7. Nola putzuak bere urari fresko iraunerazitzen dion, ala Jerusalenek bere gaiztakeriari fresko eta berri iraunerazitzen dio. Ez da bertan beste itzik aditzen, bidegabeenak eta lapurretenak baizik: nik beti dakust jende atsekabetua, eta gaizki tratatua.

8. Ondu zaite, o Jerusalen; nere anima zugandik urrutiratu ez dedin: eremu iñor ere bizi ez ditekean batera biurtu ez zaitzadan.

9. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Israelko erriaren kutsuak arrapatuak izango dira, masti mendaindu batean mordo txikitxo bat bezela. Itzuli ezazu, o Kaldeatarra, zure eskua, mendaintzalleak bezela otarrean.

10. Baña, zeñi zuzenduko diot nik itza? Eta, nori esango diot aditu nazala? Ona non beren belarriak estaliak dauzkaten, eta ez ditzake aditu. Gaiztoago dana da, Jaunaren itza lotsaritzat daukatela, eta ez dute artuko.

11. Argatik Jaunaren sumintasunez betea nago; aspertu naiz sufritzez: isuri ezazu kanpora, esaten det nere artean, aurren gañera, baita gazteen biltzarreen gañera ere: zeren arrapatua izango da senarra emaztearekin, zarra agurearekin.

12. Eta beren etxeak beste batzuenak izatera iragoko dirade, baita soroak, eta emazteak ere: zeren nik eskua luzatuko det errian bizi diradenen kontra, esaten du Jaunak.

13. Txikienetik andieneraño zikoiztasunaren zaleak diraden ezkero, eta guztiak ari diran ezkero engañuak asmatzen profetatik apaizeraño.

14. Eta sendatzen dituzte nere erriko alabaren zauriak, berari farra egiñaz, esaten dutela: Pakea, pakea; eta ez dago alako pakerik.

15. Lotsatu al dira egin dituzten gauza nazkagarriakgatik? Ez dute lotsaren piskarik ere iduki, ez dute jakin ere zer dan lotsa. Argatik eroriko dira galtzen diradenen artean, eta izango dirade aurtikiak, esaten du Jaunak, kontuak berai artzeko denbora allegatzen danean.

16. Oiek ere esaten zituen Jaunak: Zaudete geldirik bideetan, ikusi eta galdetu ezazute zeñ diran anziñako bidetxigorrak; zeñ dan bide ona, eta jarraitu zaiozute, eta arkituko dezute atsedena zuen animentzat. Baña berak esan zuten: Ez diogu jarraituko.

17. Nik jarri nituen zuentzat bealariak, esan ere zien: zaudete arretaz beren tronpeta otsera; eta erantzun zuten: Ez diogu aditu nai.

18. Argatik aditu ezazute, o erreñuak, jende guztiak entzun ezazute nolako kastigu beldurgarriak bialduko dieztedan.

19. Aditu ezazu, o lurra, begiratu ezazu, nik bilduko ditut erri orren gañean zorigaitzak, bere asmazio gaiztoen irabaziak, etzituztelako aditu nere itzak, eta bota zutelako nere legea.

20. Zergatik eskeñtzen dizkidazute zuek Sabako inzensoa, eta kañabera usaitsu toki urrutietakoa? Zuen holokaustoak ez dirade nere gogokoak, ezta zuen doañak ere.

21. Argatik ala esaten du Jaunak: Nik aurtikiko ditut doakabetasunak erri onen gañera euriaren ugaritasunarekin: eroriko dirade batbatean gurasoak semeakin, eta auzokoa galduko da bere auzokoarekin batean.

22. Oiek esaten ditu Jaunak: Begiratu ezazute erri bat datorrela ifarretik, eta erreñu andi bat aterako dala lurraren atzeneko mugetatik.

23. Artuko ditu saietak, eta ezkutuak: odolgiroa da, eta iñorekin ere ez da urrikalduko: bere martiztien otsa da itsasoaren otsa bezelakoa, eta etorriko dira zaldien gañean, zeñak egongo diran prestatuak gudan aritzeko soldadu sendoen gisara zure kontra, o Siongo alaba.

24. Aditu degu beren ospea, eta besoak erori zazkigu: uste genduen baño lenago etorri zaigu atsekabea, eta aurregiten ari dan andre batenak bezelako oñazeak.

25. Ah! Etzaitezte kanpoetara atera, eta etzaitezte ere bideetatik ibilli: zeren etsaiaren ezpatak, eta bere izuak aldamen guzietatik ingurutzen zaituzten.

26. O Jerusalen nere erriko alaba! Zilizioz jantzi zaite, estali zaite autsez; egin itzatzu negar samiñak, seme bakar baten eriotzan egiten diran negarrak bezelakoak: zeren ondatzallea gure gañera batbatean erori dan.

27. Zu, Jeremias, jarri zaitut probatzalle sendoa bezela nere erriaren erdian; eta zuk esamiñatu dezu eta probatuko dituzu bere obrak.

28. Erriko andizki guzi oiek barreiatuak dabiltza, eta beren egiteak engañatzekoak dirade: ez dirade kobrea eta burnia baizik: guztia da jende usteldua.

29. Gelditu dirade ausporikan gabe, beruna desegin da suan, alperrik urtu ditu urtzalleak menastak garbilekuan; zeren aien gaiztakeriak ez diraden berezituak izan.

30. Zillar gaiztoa ots egin zaiozute; zeren Jaunak beragandik aurtiki dituen.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Jaunak Jeremiasi esan ziozkan itzak, esaten ziola:

2. Jarri zaite Jaunaren tenploko atean, eta adirazi ezazu an itz au, eta esan ezazu: Aditu ezazute Jaunaren itza zuek guziok, o Judako seme, eta ate oietatik sartzen zeratenak Jauna adoratzera.

3. Onak izan bitez zuen obrak, eta zuen gurak, eta ni zuekin biziko naiz toki onetan.

4. Ez ezazute ipiñi zuen itxedopena itz engañakor aietan, esaten dezutela: Au da Jaunaren tenploa, Jaunaren tenploa, Jaunaren tenploa.

5. Zeren baldin onera zuzentzen badituzute zuen egiteak, eta zuen gurak; justizia egiten badezute gizonagandik gizonagana,

6. Gaitzik egiten ez badiozute erbestekoari, ez umezurtzari, ez andre alargunari, eta ez badezute isurtzen odol obengabea toki onetan, eta ez bazerate ibiltzen jainko arrotzen ondoren zuen galmenerako,

7. Ni biziko naiz zuekin toki onetan, zuen gurasoai mendez mende eman nien lur onetan.

8. Baña zuek daukazute itxedopen txit andia, utsa balio dizuten itz gezurrezkoetan:

9. Zuek egiten dituzute lapurretak, eriotzak, adulterioak; zuek egiten dituzute gezurrezko juramentuak, eskeñtzen diozkazute Baali libazioak, eta joaten zerate ezagutzen ez dituzuten jainko arrotzen ondoren.

10. Eta oien ondoan, oraindikan etortzen zerate, eta jartzen zerate nere aurrean, nere izenari ots egiten zaion tenplo onetan, eta itxedopen alper batekin esaten dezute: Gaitz guzietatik estaliak gaude, nazkagarri guzi oiek egin baditugu ere.

11. Zer bada? Nere tenplo au, zeñean ots egiten zaion nere izenari, etorri al da izatera zuentzat lapurren ezkutatoki? Ni, ni naiz, nik ikusi nituen, esaten du Jaunak.

12. Bestela zoazte Silora, nere bizilekuko tokira, non asieran egon zan nere izenaren gloria, eta begiratu ezazute zer egin nuen berarekin, nere erri Israelen gaiztakeriakgatik.

13. Orain bada ongi; gaiztakeria oiek egin dituzutelako, esaten du Jaunak; eta ikusirik nik predikatu dizutedala, eta kontuan ipiñi zaituztedala adiuntzaz, ots egin dizutedala, eta zuek ez nazutela aditu, deitu dizutedala, eta zuek ez didazutela erantzun:

14. Nik egingo det etxe onekin, zeñean ots egin zaion nere izenari, eta zeñean daukazuten zuek zuen itxedopena; eta zuei eta zuen gurasoai siñalatu nizuten etxe onekin, egingo det, esaten det, Silorekin egin nuena hura bera.

15. Eta aurtikiko zaituztet nere aurretik, aurtiki nituen bezela zuen anai guziak, Efraimen arraza guztia.

16. Ala bada, ez daukazu, Jeremias, zertan erregutu erri augatik, eta ez zadazu ere berakgatik eman alabantzarik, ez egin eskaririk, eta ez zadazu ere kontrarik egin: zeren etzaitudan adituko.

17. Zu zerori ez al zaude ikusten zer egiten duten gizon oiek Judako errietan, eta Jerusalengo plaza agirietan?

18. Semeak biltzen dituzte egurrak, gurasoak erazekitzen dute sua, eta emakumeak egiten dute orea, guriaz nastua, egiteko opillak zeruko erregiñarentzat, eta jainko arrotzai libazioak egiteko, eta neri aserretu erazitzeko.

19. Baña, ni al naiz, esaten du Jaunak, berak aserretu erazitzen didatena, eta kalte egiten didatena? Berak beren buruai ez al diote kalte egiten, onela lotsariz beteak gelditzen diradela?

20. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Onezkero nere sumintasuna eta nere aserrea erortzeko zorian daude kutsutu duten toki orren kontra, gizonen eta abereen kontra, landaetako zuaitzen kontra, eta lurreko frutuen kontra: guztia egongo da erazekia, eta ez da itzaliko.

21. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jaungoikuak: itsatsi zaiezute nai dezuten adiña zuen holokaustoak zuen abereillai, eta beren aragiak jan itzatzute.

22. Atera nituenean Ejiptoko lurretik zuen gurasoak ez nien ezkero itzik egin, ezta ezerere agindu holokausto eta abereillen gañean.

23. Ona emen, orduan eman nien agintea: Aditu ezazute nere boza, esan nien, eta ni izango naiz zuen Jaungoikoa, eta zuek izango zerate nere erria; eta jarraitu zaiozute beti señalatu dizutedan bideari, doatsuak izan zaitezten.

24. Eta berak ez ninduten aditu, eta etzituzten ere niganontz zeartu beren belarriak, baizikan jarri ziran beren gura txarren, eta beren biotz gaiztoaren mendean; eta aurrerontz joan bearrean, atzerontz joan ziran,

25. Beren gurasoak Ejiptoko lurretik atera ziran egunetik, gaurko eguneraño. Eta nik bialdu nizkizuten zuei nere serbitzari profeta guztiak: egunoro agudo nenbillan bialtzeko berak.

26. Baña nere erriko semeak ez ninduten aditu, baizikan gor egin zitzadan, eta gogortu zuten beren lepoa, eta egin ziran beren gurasoak baño gaiztoagoak.

27. Zuk bada itz guzi oiek esango dieztezu, baña etzaituzte adituko: ots egingo diezu, baña ez dizute erantzungo.

28. Eta esango diezu: Au da arako erreñu, bere Jaun Jainkoaren boza aditu ez duena, eta bere erakutsiak ere artu ez dituena. Bere fedea illa dago, erbestetua dago bere aotikan.

29. Ebaki ezazu zure illea, eta aurtiki ezazu, eta jarri zaite negarrez boz goratuan; zeren Jaunak bota eta utzi duen, bere aserrearen diña dan arraza au.

30. Zeren Judako semeak obra gaiztoak egin dituzten nere begien aurrean, esaten du Jaunak: ipiñi zituzten beren idoloak, nere izenari ots egiten zaion tenploan, bera zikintzeko;

31. Eta egin zituzten aldareak, edo toki goratuak Tofeten, zeñ dagoan Ennomen semearen ibarrean, suan desegitzeko beren seme ta alabak: nik agindu ez nuen, eta gogotik ere irago etzitzadan gauza.

32. Argatik badator denbora, esaten du Jaunak, eta etzaio onezkero ots egingo Tofet, ez Ennomen semearen ibarra; baizik ilkintzako ibarra; eta obituko dituzte Tofeten, beste tokirik ez dagoelako.

33. Eta erri onetakoen gorputz illak, zeruko egaztien eta lurreko pistien bazka izango dirade, eta ez da egongo nork iges erazi dizaioten.

34. Eta egingo det ez dedilla aditu Judako errietan, ez Jerusalengo plazaetan bozkariozko, ez gozotasunezko bozik; esposoaren, ez esposaren bozik, zeren lur guztia arrasatua geldituko dan.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Denbora artan, esaten du Jaunak, aurtikiak izango dirade beren obietatik kanpora Judako erregeen ezurrak, eta bere prinzipeen ezurrak, eta apaizen ezurrak, eta profeten ezurrak, eta Jerusalenen bizi ziradenen ezurrak,

2. Eta utziko dituzte kanpoan egon ditezten eguzkitan, eta illargitan, eta zeruko izarren aurrean, zeñak diraden berak maitatu dituzten gauzak, eta zeñak serbitu dituzten, eta zeñaen ondoren joan diran, eta zeñakin konsultatu diran, eta zeñak adoratu dituzten jainkoak bezela. Gorputz illen ezurrak ez dirade izango bilduak, ez obiratuak; geldituko dira lurraren gañean zimaurra bezela.

3. Eta arraza gaizto onetatik gelditzen diraden guztiak, nik aurtiki nituen toki utzitako guztietan, esaten du ejerzituen Jaunak, naiago izango dute il, anbeste atsekabetan bizi baño.

4. Alaere zuk esango diezu: Erortzen dana, ez al da bereala jaikitzen? Eta bidetik alde egin duenak, ez al ditu alegiñak egiten biurtzeko?

5. Zergatik bada Jerusalengo erri au jaiki da nere kontra eta dago alako setati, eta mukerra? Berak gezurrarekin laztandu dira, eta ez dute ondu nai.

6. Ni egon nintzaioten arretaz begira, eta aditu nituen beren itzak: iñork ere ez du gauza onik esaten: ez dago bere bekatuaren penitenzia egiten duenik, esaten duela: Zer egin det nik? Guztiak biurtu dira lengo bidera, ta dijoaz korrika, gudara lauoñean dijoan zaldia bezela.

7. Miruak zerura begiratuta ezagutzen du bere denbora; usatortolak, eta enadak,eta zigoñak zaitzen dute beren etorrerako denbora: nere erriak berriz ez du ezagutu Jaunaren juizioko denbora.

8. Nola esaten dezute: Gu jakintsuak gera, gu gera gordeta daukagunak Jaunaren legea? Engañatzen zerate; Legeko jakintsuen luma, egiaz gezurrezko erakutsiaren luma da, eta ez du gezurrak baizik eskribitu.

9. Zuen jakintsuak nastuak, izutuak, eta lotuak daude, Jaunaren itza aurtiki zutelako; eta ez dago beretan jakinduriaren piskarik ere.

10. Argatik nik jarriko ditut beren emazteak arrotzen mendean; emango dieztet beren lurrak beste heredero batzuei: zeren txikienetik asita andieneraño guziak dirade zikoitzak: profetagandik apaizeraño, guziak gezurrean ari dirade.

11. Eta sendatzen dituzte nere erriko alabaren zauriak, berari irri egiñaz, esaten dutela: Pakea, pakea: ez egonik pakerikan.

12. Eta beren gauza nazkagarrien lotsarik al daukate? Lotsaren piskatxo bat ere ez dute iduki; ez dakite zer dan lotsa ere: argatik nastuak izango dira besteen galmenean, eta aurtikiak bengantzako denboran, esaten du Jaunak.

13. Bada nik biduko ditut guztiak batean berak galtzeko, esaten du Jaunak: mastiak matsik gabe egongo dirade; eta pikuondoak piku gabe; ostoraňokoak erori dira: eta nik eman niezten gauzak eskuetatik iges egin diezte.

14. Zergatik gaude emen geldirik? Esango dute berak. Atozte onara, eta sartu gaitezen erri murrutuan, eta egon gaitezen an ixillikan: gure Jaun Jainkoak ixildu gaituen ezkero, eta eman digun ezkero edaten beazunezko ura, Jaunaren kontra bekatu egin degulako.

15. Pakearen zai gaude, eta gauza on au ez dator: Sendatuak izateko denboraren zai gaude, eta bakarrik ikusten degu izua eta ikara.

16. Dandik aditu da etsaiaren zaldien irrintza; eta bere gudarien ots txit andira lur guztia mugitu da: allegatu dira, eta arrasatu dute erri guzia, eta bere ondasunak; erriak eta beretan bizi diradenak.

17. Zeren ona emen non nik nola bialduko ditudan zuen kontra Kaldeatarrak sugeak, eta ersugeak bezela, zeñaen kontra ez duen enkantuk balio; eta usikiko dizute, esaten du Jaunak.

18. Nere oñazea, oñaze guzien gañetikoa da; nere biotza atsekabez betea dago.

19. Aditzen det nere erriko alaba, toki urrutietatik deadarrez esaten duenaren boza: Ez al dago onezkero Jauna Sionen? Edo ez al dago bere barrenen bere Erregea? Baña, eta zertarako bertan bizi diradenak, erantzuten du Jaunak, aserretuerazi didate beren jainkoen irudiakin, eta beren idolo arrotzakin?

20. Irago zan uzta, esaten dute berak; uda bukatu zan, eta gu ez gera askatuak.

21. Oñazez iragoa nago, eta tristezaz betea, nere erriko alabaren atsekabeagatik: izua nerekin jabetu da.

22. Ez al dago erresinarik Galaaden? Edo, ez al dago an osagillerik batere? Nola bada ez da zarratu nere erriko alabaren zauria?

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Nork emango ote dio ura nere buruari, eta egingo ditu nere begiakin negarrezko bi iturri, negar egiteko gau ta egun, ill dituztelako anbeste nere erriko alabagan bizi ziradenak?

2. Nork emango dit bakartadean, bideanteen txaolatxo bat, utzitzeko nere errikoak, eta beretatik alde egiteko? Bada guztiak dirade adultero batzuek, fedeausleen talde zatar bat.

3. Beren mingaña da uztai bat bezela, aurtikitzeko gezurrak, ez egiak. Egin dirade almentsuak lurrean, iragotzen diradela gaiztakeria batetik bestera, eta ni ez naute ezagutu, esaten du Jaunak.

4. Zaitu bedi bakoitza beren artean bere projimoagandik, eta iñor ere ez bedi bere anaiakin fiatu, zeren anaia guziak saltzallearen lanak egingo dituen, eta adiskide guzia engañuko asmazioetan ariko da.

5. Eta bakoitzak iseka egingo dio bere anaiari; eta ez dute beñere egiarik esango; zeren beren mingaña gezurrak esatera oitua dagoen. Arazoz gaitz egiten zuten.

6. Zu, o Jeremias, engañatzallez ingurutua bizi zera, zeren marro egitea maitatzen duten, ez naute ezagutu nai, esaten du Jaunak.

7. Argatik oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Jakin ezazu, nik urtuko ditudala, eta probatu suan. Zeren, zer beste gauzarik egin nezake konbertitzeko nere erriko alabarenak?

8. Beren mingaña fletxa zorrotz bat bezelakoa da, itz egiten dute beti engañatzeko, ezpañakin pakea adirazten diote beren adiskideari, eta ezkutuan zelatadak jartzen diozkate.

9. Zer bada? Ez al diozkatet nik gauza oien konturik artuko, esaten du Jaunak? Edo utziko ote diot, au bezelako erri bati, bere bengantza artu gabe?

10. Artuko du Jaunak, eta ni egongo naiz negarrez eta alarauka mendien aurrean; eta suspirioak egingo ditut, ikusirirk zelai ugariak eremu biurtuta, zeren guzia errea izan da; alako moduan, non, iñor ere ez dabil andik, eta beren jabeen bozik ere ez da aditzen: zeruko egaztietatik pistietaraño guztia joan da andik, eta guziak alde egin du.

11. Nik jarriko det Jerusalen ondar pilla batzuek eginik, esaten du Jaunak, eta sugulnen ezkutatoki, eta Judako erriak arrasatuko ditut, beretan bizia daukan bat ere gelditu gabe.

12. Zeñ da gizon jakintsu, au aditzen duena, eta Jaunak bere aotik itza itsatsi diona, adirazi dizaien besteai, zergatik izan dan lur au arrasatua, eta dagoan leortua, eta errea, iñor ere andikan iragotzen ez dala?

13. Au da, esaten du Jaunak, utzi zutelako nik eman nien legea, eta ez dutelako aditu nere boza, eta jarraitu ere ez diotelako;

14. Baizik beren biotz gaiztoari berak eramanak izaten utzi diotelako, eta idoloen ondoren joan diradelako; beren gurasoai ikasi zien bezela.

15. Argatik oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jaungoikoak: Ona emen non nik erri orri emango diozkadan jateko asenzioak, eta edateko beazunezko ura.

16. Eta barreiatuko ditut, berak ez beren gurasoak ezagutu etzituzten erreñuetatik; eta bialduko det beren ondoren ezpata, aliketa desegiñak izan ditezen artean.

17. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak: Zoazte emakume negargilleen billa, eta ots egin zaiezute etorri ditezen agudo, eta bialdu itzatzute beren billan, trebeenak etorri ditezen, eta esan zaiezute, arin ibilli ditezela,

18. Eta asi bitez bereala negarrak gure gañean, bota bitzate malkoak gure begiak, eta ur biurtu bitez gure betazalak.

19. Zeren Siondikan aditzen dan boz itzaltsu bat, esaten duena: Oh! Eta nolako ondamenera biurtuak izan ote geran! Eta nolako naste andian ikusten ote geran! Utzitzen degu gu jaio giñan gure lurra, gure bizilekuak desegiñak izan diradelako.

20. Aditu ezazute bada, o nere erriko emakumeak, Jaunaren itza, eta ogi konprenditu ditzatela zuen belarriak, bere ezpañak adirazten dizkizutenak; eta erakutsi zaiezute zuen alabai, eta bakoitzak bere auzokoai kanta tristeak,

21. Zeren eriotza igo da gure leioetara, sartu da gure etxeetan; eta alako ondamena egin du, non, ez dirade onezkero ikusiko aurrak, ez gazteak karrikaetan eta plazaetan.

22. Esan zaiezu bada zuk, Jeremias: Onela itz egiten du Jaunak: Gizasemeen gorputz illak egongo dirade etzinak lurrean, kanpoan, zimaurra bezela, eta belarra ebakitzen duenak botatzen duen bezela bere ostera elbitza, nork bildu dezan ez dagoela.

23. Oiek esaten ditu Jaunak: Ez bedi gozatu jakintsua bere jakindurian; eta ez bedi ere gozatu sendoa bere sendotasunean, ez aberatsa bere aberastasunetan,

24. Baizik gozatu nai dana, gozatu bedi ni ezagutzean, eta jakitzean ni naizala Jauna, urrikaltasunaren egillea, eta juizioarena, eta justiziarena lurrean, zeren oiek diraden nere gogoko gauzak, esaten du Jaunak.

25. Ona emen non datozen egunak, esaten du Jaunak, zeñatan nik kontuak artuko dieztedan zirkunzidatuta dauden guztiai,

26. Ejiptori, Judari, Idumeari, eta Ammonen eta Moaben semeai, eta eremuan bizi diraden, illea ebakia daramaten guziai, zeren baldin erreñu guziak badirade zirkunzidatu gabeak aragiaren aldetik, Israelko semeak dirade zirkunzidatu gabeak biotzean.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Aditu itzatzute Israelko etxekoak, Jaunak zuen gañean esan dituen itzak.

2. Oiek esaten ditu Jaunak: Ez itzatzute imitatu erreñuetako oitura gaiztoak; eta etzaitezte ere zeruko siñaleen beldur izan, jentillak beldur izan oi diraden bezela.

3. Zeren errietako legeak alperrak dirade, ikusirik otallutzalle bat ebakitzen duela aizkorarekin basoko zuaitz bat, eta bere eskuarekin landutzen duela:

4. Zillar, eta urrearekin apaintzen du. Iltzeakin tinkatzen du, mallukiaren otsakin, askatu ez dedin.

5. Otallu au zuzena irten da, palma baten ondoa bezela; baña ez du itzik egiten, eta artzen dute, eta eramaten dute nai duten tokira, zeren bera berez ez diteke mugitu. Alako gauzaen beldurrikan, bada, ez ezazute iduki, zeren ez onik, ez gaitzik ez dezaketen egin.

6. O Jauna! Ez dago zure antzekorikan batere. Andia zera zu, eta andia da zure izenaren eskubidea.

7. Zeñ ez da zure beldur izango, o erreñuetako erregea? Zeren gloria zurea dan. Errietako jakintsu guztien artean, eta erreñu guztietan ez dago zure antzekorik batere.

8. Barbull, eta zentzugabekotzat ezagutuak geldituko dira guztiak. Adoratzen duten zurak, beren urgulleria erakusten du.

9. Tarsistik ekartzen da zillarra plantxa biribilduetan, eta urrea Ofaztik. Langillearen eta zillargillearen eskuak landutzen du. Gero jazintoz, eta purpuraz jantzitzen da. Langilleen lana da ori guzi ori.

10. Baña Jauna da Jaungoiko egiazkoa, bera da Jaungoiko bizia, eta betiko erregea. Bere aserrera dardaratuko da lurra, eta bere arretondoari ezin begiratuko diote erreñuak.

11. Ala bada itz egingo diezute: Zeruak eta lurra egin ez dituzten jainkoak galduak izan bitez lurraren gañetik, eta zeruaren azpian dauden gauzen artetik.

12. Jauna da bere eskubidearekin lurra egin zuena, bere jakinduriarekin zuzendu zuen mundua, eta zabaldu zituen zeruak bere aditzarekin.

13. Boz bakar batekin biltzen du zeruan, uren ugaritasun andi bat, eta jasotzen ditu lurraren ertzetik odeiak. Euri biurtzen ditu oñazkarrak, eta tximistak, eta ateratzen du aizea bere gordelekuetatik.

14. Gizon guzia zentzugabea egin zan bere jakinduria idoloenarekin. Idoloaren irudia bera da egin duen guztiaren lotsaria. Bada irudi uts bat da egin duena, anima gabeko gorputz bat.

15. Utsa balio duten gauzak dirade, eta obra farragarriak: guztiak galduko dirade, bisitatuak diraden denboran.

16. Ez, ez da gauza oiek bezelakoa, Jakobi suertean kabitu zion Jaun hura; bada bera da, egiñak izan diraden gauza guztien egillea, eta Israel da bere herenziaren tokamena. Bere izena da ejerzituen Jauna.

17. O zuk Jerusalen, laster etsaiz ingurutua arkitu zerana, onezkero bildu ziñitzake lur guztitik zure idoloak, zure lotsaria;

18. Zeren begiratu ezazu zer esaten duen Jaunak: Jakin ezazu nik oraingo aldian urrutira aurtikiko ditudala lur onetan bizi diradenak; eta atsekabetuko ditut alako moduan, non, batek ere ez duen igesik egingo.

19. Orduan deadarrez esango dezu: Ai nere doakabea nere naigabean! Txit andia da nere zauria. Baña zorigaitz au, esaten diot gero nere buruari, neronek ekarri det, eta ala irago bear det.

20. Nere etzauntza arrasatua izan da, urratuak bere sokak. Nere semeak alde egin dute nigandik, eta ez dirade agiri. Ez da onezkero iñor ere gelditzen, berriz nere etzauntza jasotzeko, eta altxatzeko nere dendak.

21. Zeren artzai guztiak zentzugabero ibilli dira, eta ez dira joan Jaunaren ondoren. Argatik arkitu ziran aditza gabetanik, eta beren artalde guztia barreiatua izan zan;

22. Zeren ona non aditzen dan boz bat, eta ots andi, ifarraldetikan datorrena, Judako erriak eremu eta dragoien toki egiñik ipintzeko.

23. Ongi ezagutzen det, o Jauna, ez dagoela gizonaren nai bakarrean bere bidea zuzentzea; eta ez dagokio ere gizonari ibiltzea, ezta zuzentzea ere bere pausoak.

24. Kastigatu nazazu, o Jauna, baña izan bedi zure erabaki beraaren araura, eta ez zure aserrearen araura, utsera biurtu ez nazazun.

25. Baizik obekiago isuri ezazu zure aserrea ezagutzen etzaituzten erreñuen gañera, eta zure izen santuari ots egiten ez dioten probinzien gañera; berak Jakoben kontra jarri diran ezkero, eta bera iretsi duten ezkero; eta ezereztu duten ezkero, eta bere gloria guztia desegin duten ezkero.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Jaunak Jeremiasi zuzendu zion itza, esaten zuela:

2. Aditu itzatzute elkartasun onen itzak, eta adirazi zazkiezute Judako gizonai, eta Jerusalenen bizi diradenai;

3. Eta zuk, o Jeremias, esango diezu: Oiek esaten ditu Israelko Jaun Jainkoak: Madarikatua izan bedi, elkartasun onen itzak aditzen ez dituen gizona;

4. Nik egin nuen elkartasuna zuen gurasoakin, atera nituenean Ejiptoko luretik, labe erazeki artatik, eta esan nien: Aditu ezazute nere boza, eta egin ezazute nik agintzen dizutedan guztia, eta ala zuek izango zerate nere erria, eta ni izango naiz zuen Jaungoikoa;

5. Berriztatzeko eta kunplitzeko zuen gurasoai egin nien juramentua emateko lur bat, eznea, eta eztia dariozkiona, gaurko egunean kunplitua ikusten dan bezela. Zeñatara nik Jeremiasek erantzun, eta esan nuen: Ala izan bedi, o Jauna!

6. Orduan esan zidan Jaunak: Predikatu eta adirazi itzatzu boz goratuan itz guzi oiek Judako errietan, eta Jerusalengo plazaetan, esaten dezula: Aditu itzatzute elkartasun onetako itzak, eta zaitu itzatzute;

7. Zeren ni beti egon naiz esaten zuen gurasoai Ejiptotik atera nituen egunetik oneraño, adirazten, eta esaten diedala aspertu gabe: Aditu ezazute nere boza.

8. Baña etzuten aditu, eta etzituzten ere zeartu beren belarriak nere itzaganontz; baizik bakoitzak jarraitu ziezten bere biotz biurriaren gura gaiztoai, eta bota nituen beren gañera, zaitzeko agindu nien, eta zaitu etzuten elkartasun artan eskribituak zeuden gaitz guztiak.

9. Eta andikan laster esan zidan Jaunak: Judako gizonetan, eta Jerusalenen bizi diradenetan konjurazio bat arkitu da.

10. Berak itzuli dira beren gurasoen anziñako gaiztakerietara, zeñak etzien obeditu nai nere itzai. Oiek ere, aiek bezela, joan dirade jainko arrotzen ondoren berak adoratzeko. Eta Israelko etxeak, eta Judako etxeak ausi zuten nere elkartasuna, beren gurasoakin nik egin nuen elkartasuna.

11. Argatik oiek esaten ditu Jaunak: Ona emen non nik aurtikiko ditudan atsekabeak, zeñatatik ezin libratuko diraden; eta deadarrez ots egingo didate neri, baña nik ez ditut adituko.

12. Orduan Judako erriak, eta Jerusalenen bizi diradenak joango dira, eta deadarrez ots egingo die, libazioak eskeñi ziozkaten jainkoai, eta oiek ez dituzte salbatuko atsekabeko denboran.

13. Zeren jakiña dan, zure jainkoak, o Juda, ziradela zure erriak adiña; eta zuk, o Jerusalen, jaso ziñituela zure karrika guzietan lotsarizko aldareak, idoloai doañak eskeñtzeko aldareak.

14. Orain bada ez daukazu zuk zertan erregutu erri augatik; eta ez ezazu ere egin bere alde oraziorik, ez eskaririk, zeren nik ez ditudan adituko ots egiten didatenean beren atsekabeko unean.

15. Nola da erri orrek, zeñ zan nere erri maitea, egin duela anbeste gaiztakeria nere Etxean? Eskeñitako aragiak garbituko al zaituzte zure gaiztakerietatik, zeñtzuetan gozatu zeran?

16. Jaunak eman zizun olibo ugari, eder, frutu-emalle, eta gozagarriaren izena; baña gero bere itz baten bozera su andi bat erazeki zan oliboan, eta erre ziran bere besanga guziak.

17. Eta plantatu zinduen ejerzituen Jaunak, erabaki zituen atsekabeak zure kontra, Israelko etxeak eta Jakoben etxeak egin zituzten gaiztakeriakgatik neri aserretu erazitzeko, idoloai doañak eskeñtzen ziozkatela.

18. Baña zuk, o Jauna, ikusi erazi ziñidan, eta ezagutu nuen, zuk orduan erakutsi ziñizkidan beren asmazio gaiztoak.

19. Eta ni nintzan, iltzera eramana dan bildots otsan bat bezelakoa, eta ez nuen ezagutu, nere kontrako asmazioetan zebiltzala, esaten zutela: Eman dizaiogun egurra ogiaren lekuan, eta arras kendu dezagun bizien lurretik; eta bere izenaren oroipenik ez bedi onezkero geiago gelditu.

20. Baña zuk, o ejerzituen Jauna, juzgatzen dezuna justiziarekin, eta probatzen dituzuna biotzak eta gurak; zuk egingo dezu nik ikusi zaitzadala beren bengantza artzen; zure eskuetan nere gauza jarri dedan ezkero.

21. Argatik onela itz egiten diote Jaunak Anatoten bizi diraden, eta zure bizitzaren kontra asmazioetan dabiltzanai, eta esaten dizutenai: Ez ezak profetizatu Jaunaren izenean, gure eskuetan illa izan nai ez badek.

22. Ona emen bada ejerzituen Jaunak esaten duena: Jakin ezazu, nik kastigatuko ditudala. Beren gazteak ezpataren puntan illak izango dirade, eta beren semeak, eta alabak galduko dira gosez;

23. Beren kutsurikan batere gelditu gabe; zeren nik aurtikiko ditut zorigaitzak Anatoten bizi diradenen gañera, berai kontuak artzeko denbora allegatzen danean.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Egia guziarekin, Jauna, ezagutzen det justoa zerala zu, gauza batzuen arrazoia eskatzen ausartatzen banaiz ere. Alaere nik esango dizut nere keja bat, nere iritzian justoa dana. Zergatik gaiztoai guztiak ongi irtetzen die, eta ongi bizi dirade fedea ausitzen, eta obra gaiztoak egiten dituztenak?

2. Zuk ipiñi ziñituen munduan, eta berak sustrai sendoak bota zituzten. Aziaz dijoaz, eta frutuak ematen dituzte. Maiz beren ezpañetan zarabiltzate; baña beren biotzak txit urrutian daude zugandik.

3. Ni berriz, o Jauna, ezagutzen nazu, ikusi ninduzun, eta obretatikan dakizu nolakoa dan nere biotza zuganako. Bildu itzatzu, artalde bat sakrifikatua izateko bezela, eta iduki itzatzu berezian ilkintzako egunerako.

4. Noizarteraño egongo da lurra negarrez, eta leortuko da belarra alderri guztian, bertan bizi diradenen gaiztakeriagatik? illak izan dirade zamariak eta egaztiak, zeren berak esan zuten: Ez du Jaunak gure atzena ikusiko.

5. Baldin zu, erantzuten du Jaunak, oñazko jendearekin zijoazenean nekau baziñan, nola elean egin zenezake zaldizkoakin? Eta beldurrikan gabe egon ez bazera pakeko lur batean, zer egingo dezu, Jordanen bizi diradenen urgulleriaren erdian?

6. Eta baldin zure anaiak, eta zure aitaren etxeak gerran egin badizute, eta zure kontra deadar andiak egin badituzte, etzaiezu berai sinistu amorioarekin itz egiten dizutenean ere.

7. Berak kastigatzeko, esaten du Jaunak, nere etxea utzi det, eta gelditu naiz nere soroa gabetanik. Nere animako gozotasuna zana, ipiñi det bere etsaien eskuetan.

8. Nere soroa itzuli da neretzat, leoe bat larrartean bezela, altxatu du boza nere kontra; argatik aier izan natzaio.

9. Nere soroa neretzat al da, asko koloretako egaztia bezela? Bera al da egazti pintanua bezela? Atozte lurreko pisti guztiak, zoazte korrika bera iretsitzera.

10. Asko artzaik arras desegin dute nere mastia, nere soroa zapaldu dute, ni bere jabe nintzan toki atsegintsua, biurtu dute eremu soill.

11. Arrasatu dute, eta berak niganontz itzultzen ditu bere begi, malkoz beteak. Txit mortu biurtua dago Judako lur guztia. Ez dagoelako iñor ere bere biotzean oartzen danik.

12. Eremuko bide guztietatik etorri dirade ondamentzalleak, zeren Jaunaren ezpata ibilliko dan ondamenak egiñaz lurraren muga batetikan besteraño. Ez dago pakerikan, bizi dan batentzat ere.

13. Garia erein zuten, eta arantzak ebaki zituzten soro baten jabe egin dirade, baña ez diote onik batere ekarriko, nastuak geldituko zerate, utsera biurtuko da zuen frutuen itxedopena, Jaunaren aserrearen sumintasunagatik.

14. Baña oiek esaten ditu Jaunak nere aldeko txit gaiztoen kontra, zeñak sartzen diraden nik Israelko nere erriari eman nion soroan: Jakin ezazute nik aterako ditudala berak beren lurretik, eta aterako dedala beren erditik Judako etxea.

15. Baña berak desegitzen ditudanean, gero biguñduko naiz, eta urrikalduko naiz berakin, eta berriz jarriko ditut bakoitza bere soroan, eta bakoitza bere lurrean.

16. Eta baldin berak, erakutsiak artuta ikasiko balute nere erriaren legea, alako moduan, non, beren juramentuak egiten dituztela nere izenean, esaten dutela: Jauna bizi dan bezela; berak nere erriari Baalgatik juramentu egiten erakutsi zioten bezela; orduan nik egotez jarriko ditut nere erriaren erdian.

17. Baña adituko ez banindute, aterako det sustraitik jende hura, eta osotoro desegingo det, esaten du Jaunak.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Jaunak onela itz egin zidan: Zoaz, eta erosi ezazu liñozko faja bat, eta lotu ezazu gerria berarekin, eta uretan ez dezu sartuko.

2. Erosi nuen bada faja, Jaunaren agintearen araura, eta lotu nuen berarekin gorputza gerritik.

3. Eta berriz itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

4. Kendu ezazu erosi zenduen eta gerriaren gañean lotuta daukazun faja, eta jaiki zaite, eta zoaz Eufratesera, eta ezkutatu ezazu an aitz baten zuloan.

5. Joan nintzan bada, eta ezkutatu nuen Eufratesen aldean, Jaunak agindu zidan bezela.

6. Egun asko igarota, Jaunak esan zidan: Jaiki zaite, eta zoaz Eufratesera, eta artu ezazu, nik an ezkutatzeko agindu nizun faja.

7. Joan nintzan bada Eufratesera, eta idiki nuen zuloa, eta atera nuen faja, ezkutatu nuen tokitik, eta arkitu nuen zegoala usteldua, alako moduan, non, etzan ezertarako ere gai.

8. Orduan itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

9. Oiek esaten ditu Jaunak: Onela usteldua izan dedilla egingo det nik Judaren andiustea, eta Jerusalenen urgullu andia.

10. Jende txit gaizto au, nere itzik aditu nai ez duena, eta bere biotz gaiztoaren erara dabillana, eta jainko arrotzen ondoren joan dana berak serbitu eta adoratzeko, etorriko da izatera, ezertarako gai ez dan faja ori bezelakoa.

11. Eta ori, nola gizonaren gerrian estu lotutzen dan faja bat, ala lotu nuen nik estu nerekin, esaten du Jaunak, Israelko etxe guztia, eta Judako etxe guztia, izan zitezen nere erria, eta izan nendin ni an ezagutua, alabatua, eta gloriaz betea; eta alaere berak ez ninduten aditu nai.

12. Argatik itz oiek esango dieztezu: Oiek esaten ditu Israelko Jaun Jainkoak: Upadi guztiak ardoz beteak izango dirade. Eta berak erantzungo dizute: Ez al dakigu guk, urte ugarietan upadi guztiak ardoz betetzen diradela? Eta zuk orduan esango diezu:

13. Ala itz egiten du Jaunak: Begira bada, nik ordikeriaz beteko ditut lur onetan bizi diraden guztiak, eta Dabiden jatorriko errege, bere tronuaren gañean eseriak daudenak, eta apaizak, eta profetak, eta Jerusalenen bizi diraden guztiak,

14. Eta barreiatuko ditut erreñuen artean, esaten du Jaunak, berezitzen dedala anaia bere anaiagandik, eta gurasoak beren semeakgandik. Ez diet barkatuko, eta ez naiz ere biguñduko, eta ez naiz urrikaltasunera mugituko berak desegin gabe utzitzeko.

15. Aditu ezazute bada, eta entzun arretarekin: Etzaitezte urgullutu, zuen indarretan itxedotzen dezutela, zeren itz egin duena Jauna dan.

16. Bestera, gloriaz bete ezazute zuen Jaun Jainkoa, damutu zaitezte, atsekabeko illuntasunak etorri ditezen baño lenago, eta zuen oñak beaztopo egin dezaten baño lenago odeiz beteriko mendietan, orduan itxedongo dezute argia, eta Jaunak eriotzaren itzal, eta illuntasun biurtuko du.

17. Onetan obedezitzen ez badezute berriz, nere animak ezkutuan negar egingo du, zuen urgulleria ikusirik. Negar mingoitzak egingo ditu, eta nere begiak malkozko errekak botako dituzte, Jaunaren artaldea katibu jarria izan dalako.

18. Esan zaiezu Erregeari, eta Erregiñari: Umillatu zaitezte, eseri zaitezte lurrean, zeren onezkero zuen gloriako koroea burutik erortzeko zorian daukazuten.

19. Egoaldeko erriak itxiak daude, eta ez dago berak idiki ditzakenik. Judako tribu guztia bere lurretik kanpora eramana izan da, eta guztiak irago dirade toki batetikan bestera.

20. Jaso itzatzute begiak, eta begiratu ezazute, o zuek Egerdiko aldamenetik zatoztenak. Non da, esango diozute Jerusaleni, zure kontura utzi zatzun artalde hura, aberedi eder hura?

21. Zer esango dezu, Jaungoikoak zuri kontuak artzeko ots egiten dizunean? Zeren zuk zerorrek eman ziñiezten erakutsiak etsaiai zure kontra, eta arkitu ziñituen zure galmenerako. Nola bada etzaituzte arrapatuko, aurregiten ari dan adre batenak bezelako oñazeak?

22. Eta baldin zure biotzean esango bazeneza: Zergatik neri alako gauzak gertatu zazkit? Jakin ezazu zure gaiztakerien ugaritasunagatik agirian gelditu diradela zure lotsagarriak, eta zikinduak zure oñak.

23. Etiope beltxa aldatu al balezake bere larrua, edo leoearreak bere natu asko eratakoak, zuek ere ongi egin alko dezute, egonik gaitzera oituak.

24. Eta argatik, esaten du Jaunak: Nik barreiatuko ditut, aizeak eremura daraman lasto txetua bezela.

25. Au da zuri gertatuko zatzuna, eta nigandik artuko dezun ordaña, esaten du Jaunak, nerekin aztu ziñalako, eta itxedon zenduelako gezurrean:

26. Argatik nik neronek agertu nituen zure zikinkeriak zure arpegiaren aurrean, eta agirian gelditu zan zure lotsaria,

27. Zure adulterioak, eta zure garra gura gaiztoetarako; atzenik, zure aragizko bekatuaren gaiztakeria. Kanpoan, eta muñoen gañean ikusi nituen nik zure gauza nazkagarriak. Jerusalen doakabea! Eta oraindikan ere etzera garbitu naiko, neri beti jarraitzen didazula? Noizarteraño zaude au egiteko zai?

AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Jaunak Jeremiasi leortearen gertakariaren gañean esan ziozkan itzak.

2. Judea dago lutuz estalia; eta bere ateak desegiñak, eta lurrera aurtikiak, eta Jerusalenek jasotzen du deadarra zeruaren goiraño.

3. Nagusiak bialtzen dituzte beren morroiak uraen billa. Badijoaz oiek ateratzera, eta ez dute arkitzen, eta itzultzen dirade ontzi utsakin nastuak, eta atsekabetuak eta beren buruak estalita.

4. Lurrak laborerik eman ez duelako euririk ezagatik, nekazariak, beera begira jarrita, estaltzen dituzte beren buruak:

5. Orein emeak berak ere, semea kanpoan eginda gero, utzitzen du umea, belarrik ez dagoelako,

6. Eta basoastoak aitzen gañean jartzen dirade, eta berakganontztutzen dute aizea, sugulnak egiten duten bezela, eta beren begietako argia lausotu da, belarrik ez dagoelako.

7. Gure gaiztakeriak gure kontra deadarrez badaude ere, zuk, o Jauna, urrikaltasunarekin begiratu zaguzu zure izen santuaren amorioagatik, zeren maiz zugandik iges egin degu, eta egin ditugu zure kontra bekatu txit andiak.

8. O Israelen itxedopena, eta bere Salbatzallea atsekabeko denboran! Zergatik egongo zera zure lur onetan arrotz bat bezela, eta gaua iragotzeko bakarrik gelditzen dan bideante bat bezela?

9. Zergatik izango zera zure erriarentzat, orra ta onara dabillan gizon bat bezelakoa; edo bera salbatzeko indarrik ez daukan agintari bat bezelakoa? Dana dala zu, o Jauna, gure artean bizi zera, eta guk daramagu zure erriaren izena. Ez gaitzatzu bada utzi.

10. Oiek esaten diozka Jaunak, orra erri, beti oñak mugitzen alako moduan zalea danari, eta aspertu ez danari, eta Jaungoikoari gogoa bete ez dionari. Orain oroituko da Jauna bere gaiztakeriakin; eta artuko dio bere bekatuen kontua.

11. Eta Jaunak esan zidan: Ez zadazu egin erri onen onerako erregurikan.

12. Barau egiten dutenean, ez ditut adituko beren orazioak; eta eskeñtzen badituzte holokaustoak, eta doañak, ez ditut ontzat artuko; baizik desegingo ditut ezpatarekin, gosearekin, eta izurriarekin.

13. Orduan esan nuen nik: Ah! Ah! Ah! Jaun Jainkoa! Profetak esaten die: Etzaitezte beldur izan, ez dezute zuek ikusiko etsaiaren ezpatarikan. Ez da ere goserik zuen artean izango; baizik Jaunak emango dizute pake egiazko bat toki onetan.

14. Eta Jaunak esan zidan: Gezurrarekin adirazten dituzte etorkizunak nere izenean profeta oriek. Ez ditut nik bialdu, eta ez diet ere ezertxo agindu, eta ez diet ere itzik egin. Adirazten dizkizute profeziatzat ikusketa gezurrezkoak, eta aztinantzak, eta asmazioak, eta beren biotzetako iduripenak.

15. Argatik oiek esaten ditu Jaunak, nere izenean profetizatzen duten profetakgatik, nik bialdu gabe, esaten dutela: Ez da etorriko ezpatarik, ez goserik lur onen gañera. Ezpataren puntarekin eta gosez illak izango dirade alako profetak.

16. Eta oiek profetizatzen zien errietan bizi diradenak, izango dira aurtikiak Jerusalengo kaleetatik, gosez eta ezpataren puntaz illak berak, eta beren emazteak, eta beren seme ta alabak, eta ez da egongo nork obian sartu ditzan; eta beren gañera isuriko det beren gaiztakeriaren kastigua.

17. Eta zuk bitartean itz oiek esango dieztezu: isuri bitzate nere begiak aspertu gabe malkoak gau ta egun, zeren Jerusalen, nere erriko

alaba birjiña, arkitzen dan atsekabe txit andi batean, zauri txit gaizto batekin.

18. Kanpora ateratzen banaiz, ez det nik besterik ikusten baizik, ezpataz iragoa izan dan jende baten gorputz illak. Errian sartzen banaiz, ona emen jendea gosez iragoa. Profeta eta apaizerañokoak dirade katibu eramanak erri ezezagun batera.

19. Zuk, o Jauna, Juda osotoro utzi al dezu? Edo Sioni zure animak nazkaz begiratzen al dio? Zergatik bada azotatu gaituzu alako gogortasunarekin, non, ez zagun gelditzen zauri gabeko tokirik? Pakea itxedotzen degu, eta ez daukagu gauza onik batere; eta sendatzeko denbora da, eta ona emen non gauden guziok nastuak.

20. O Jauna, ezagutzen ditugu gure egite biurriak, eta gure gurasoen gaiztakeriak. Zure kontra bekatu egin degu.

21. Ez zaguzu utzi lotsarian erortzen, o Jauna, zure izenaren amorioagatik. Ez ezazu utzi desonratuak izan gaitezela; eta gutxitan idukia izan dedilla tenploa, zeñ dan zure gloriako tronua. Oroitu zaite aurrerakoan ere idukitzeaz zure anziñako elkartasuna gurekin.

22. Zer bada? Jendeen idoloen artean al dago nork eman dezan euria? Edo berak zeruetatik bialdu al dizakegute ura? Ez al zera zu bialtzen dezuna gure Jaun Jainkoa, zeñagan guk itxedotzen degun? Bai, zeren gauza guzti oiek egin dituzuna, zu zeran.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Orduan esan zidan Jaunak: Moises eta Samuel arrean jarriko balitzazkit ere, ez liteke zeartuko nere anima erri onen alde; aurtiki itzatzu nere aurretik, kanpora joan ditezela.

2. Eta esango balizute: Nora joango gera? Erantzungo diezu: Oiek esaten ditu Jaunak: izurriz iltzeko dagoena, bijoa iltzera, ezpataren puntaz illa izateko dagoena, ezpatara; gosez il bear dana, gosez illa izan bedi: mendeko izateko dagoena, bijoa katiberiora.

3. Eta lau kastigu motarekin kastigatuko ditut, esaten du Jaunak, illak izango dirade ganibetakin, txakurrak zatituko dituzte, eta iretsi ta desegin zeruko egaztiak, eta lurreko pistiak.

4. Eta egingo det txit persegituak izan ditezela lurreko erreñu guztietan, Manases, Ezekiasen seme, Judako erregeagatik, Jerusalenen egin zituen gauza guztiakgatik.

5. Zeren, zeñ zurekin urrikalduko da, o Jerusalen? Edo, zeñ tristetuko da zure amorioagatik? Edo, zeñ joango da zure pakeagatik erregututzera?

6. Zuk utzi ninduzun, esaten du Jaunak, eta atsea itzuli ziñidan; eta nik luzatuko det nere eskua zure gañera, eta arras desegingo zaitut; aspertua nago zuri erregututzez.

7. Eta ala nik, o Jerusalen, barreiatuko ditut zure semeak sardetxearekin lurraren mugetaraño; egin nituen nere errian ilkintzak eta ondamenak; eta onekin guzi onekin ere, bere bide gaiztoetatik ez dirade atzera biurtu.

8. Nik egin det beren artean andre alargun geiago, itsasoak dauzkan ondarrak baño. Bialdu det beren kontra nork egunaren erdian bertan il dizaiezten amai beren semeak, zabaldu det errien gañean batbatean izua.

9. Erkitu zan zazpi seme egin zituen ama; desalaitu zan bere anima, ezkutatu zitzaion eguzkia oraindikan eguna zala, nastua eta lotsaz betea gelditu zan, eta beragandik gelditzen diran semeak nik emango ditut, ganibetaz iragoak izan ditezen beren etsaien aurrean, esaten du Jaunak.

10. Ai ene amatxo, zeñ doakabea naizan ni! Zergatik argitara eman ninduzun, naizen bezela, kontradikzioko gizon bat, eleko gizon bat lur guzti onetan? Ez det nik dirurikan eman irabazian, eta neri ere ez dit iñork eman, eta alaere guztiak madarikatzen naute.

11. Orduan Jaunak erantzun zidan: Nik juramentu egiten det, doatsua izango zerala emendikan aurrerako zure bizitzan, nik lagunduko dizudala atsekabeko denboran, eta naigabeko denboran zaituko zaitudala zure etsaien kontra.

12. Burnia elkartuko al da ifarreko burniarekin? Eta bronzea bronze hurarekin?

13. O Jerusalen, nik emango eta utziko det doan arrapatuak izan dizazkizutela zure aberastasunak, eta zure tesoroak, egin dituzun bekatu guztiak gatik, eta zure mugen barrenen dauzkazun idolo guztiakgatik;

14. Eta ekarriko ditut zure etsaiak, ezezaguna zatzun lur batetik; zeren erazeki dan nere sumintasuneko sua, zeñak bere garrakin erreko zaituzten.

15. Zuk, o Jauna, dakizu nere obengabetasuna, oroitu zaite nerekin, eta zaitu nazazu, eta gorde nazazu persegitzen nautenakgandik. Ez ezazu luzatu neri laguntzea. Ongi dakizu, zure amorioagatik lotsariak irago ditudala.

16. Nik arkitu nuen zure itza, eta berarekin bazkatu nintzan, eta zure itzean arkitu nuen nere gozotasuna, eta nere biotzeko bozkarioa, zeren nik daramat zure profetaren izena, o ejerzituen Jaun Jainkoa.

17. Isekarien batzarretxarretan ez nintzan eseri; eta ez nintzan ere urgullutu zure eskuak egin zuenarekin; bakartxorik nengoan, zeren zuk itz keñatzallez bete ninduzun.

18. Zergatik nere oñazea, beti irautzen duena egin da, eta nere zauri itxedopengabekoarentzat ez dago sendagarririk? Bera egiña izan da neretzat, ur asko engañatzalle batzuek bezela; zeñaen uberatik beldurrez irago bear dan.

19. Argatik onela itz egiten du Jaunak: Nigana biurtzen bazera, nik aldatuko zaitut; eta nere aurrean sendo eta errutsu egongo zera, eta badakizu berezitzen baliotsua zatarragandik, zu izango zera orduan beste nere ao bat bezelakoa. Orduan berak zugana itzuliko dira erreguakin, eta zu etzera itzuliko berakganontz;

20. Baizik egingo det nik izan zaitezela erri orrentzat bronzezko murru sendo bat. Berak zure kontra gudan ariko dirade, baña ez dirade garai jarriko; zeren ni zurekin nagoen salbatzeko, eta libratzeko, esaten du Jaunak.

21. Nik libratuko zaitut bada gaiztoen eskutik, eta salbatuko zaitut sendoen mendetik.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Itz egin zidan gero Jaunak, esaten zidala:

2. Ez dezu emazterik artuko, eta ez dezu idukiko semerik, ez alabarik toki onetan.

3. Zeren oiek esaten ditu Jaunak toki onetan jaioko diran seme, eta alaben gañean, eta berak egingo dituzten amaen gañean, eta alderri onetan berakgandik sortuak izango diraden aitaen gañean:

4. Gaitz mota askorekin ilko dirade, eta ez da berak gatik negarrik egingo, eta ez dirade ere obituak izango, egongo dirade etzunik lurraren gañean zimaurra bezela, eta izango dirade ezpataz eta gosez desegiñak, eta beren gorputz illak izango dirade zeruko egaztien, eta lurreko pistien bazka.

5. Zeren oiek esaten ditu Jaunak: Etzera sartuko illaren etxeko janedanera, eta etzaiete ere joan damuaren partalea emateko, ez berak gozatzera, zeren nik, esaten du Jaunak, erbestetu ditut erri onetatik nere pakea, urrikaltasuna, eta biguñtasunak.

6. Eta ilko dirade andiak eta txikiak alderri onetan, eta ez dirade obiratuak izango, eta ez da ere berakgatik negarrik egingo. Ez da ere egongo nork epaiak egin bere gorputzean, ez nork burua moistu berakgatik.

7. Eta beren artean ere ez da iñor egongo, ogia txikituko duenik, bere illagatik negarrez dagoena gozatzeko, eta beren aitaren eta beren amaren eriotza gatik negarrez daudenai ere ez diote edaririk emango berak gozatzeko.

8. Etzera ere sartuko janedana dagoen etxean, berakin eseritzeko, eta jateko eta edateko;

9. Zeren oiek esaten dituen ejerzituen Jaunak, Israelko Jaungoikoak: Jakin ezazu, nik zuen begietan eta zuen egunetan erbestetuko dedala toki onetatik gozotasunaren boza, eta bozkarioaren boza, eta esposoaren boza, eta esposaren boza.

10. Eta adirazten diozkazunean erri orri gauza guzti oiek, eta berak esaten dizutenean: Zergatik esan du Jaunak aurtikiko dituela gure kontra gaitz guzi ain andi oiek? Zeñ da gure gaiztakeria? Eta, zer bekatu da gure Jaun Jainkoaren kontra egin deguna?

11. Zuk erantzungo diezu: Zeren zuen gurasoak utzi ninduten, esaten du Jaunak, eta joan ziraden jainko arrotzen ondoren, eta serbitu eta adoratu zituzten, eta utzi ninduten ni, eta nere legea etzuten zaitu.

12. Eta zuek zuen gurasoak baño oraindikan gaizkiago egin dezute, zeren ikusia dagoen bakoitzak jarraitzen diola bere biotz gaiztoaren usteltasunari, neri ez obeditzeagatik.

13. Eta ala nik aurtikiko zaituztet lur onetatik, zuek eta zuen gurasoak ezagutu gabeko beste batera, non gau ta egun ariko zeraten serbitzen jainko arrotzak, zeñak beñere ez dizuten utziko atsedenez egoten.

14. Ona emen non etorriko dan denbora, esaten du Jaunak, zeñean ez dan berriz esango: Bizi da, Israelko semeak Ejiptoko lurretik atera zituen Jauna;

15. Baizik: Bizi da Israelko semeak atera zituen Jauna ifarraldeko lurretik, eta alderri guzti aietatik, zeñatatik barreiatu zituen. Eta nik berriz ekarriko ditut beren gurasoai eman nien beren lur onetara.

16. Ona emen non nik bialduko ditudan asko arraitzalle, esaten du Jaunak, zeñak atxituko dituzten; eta bialduko ditut gero asko eiztari, zeñak arrapatuko dituzten mendi guztietatik, eta muño guztietatik, eta aitzetako lizeetatik.

17. Zeren nire begiak beren bide guztietara begira dauden; batere ez dago nere begirakuneetatik ezkutatua; nola ez dan egon beren gaiztakeria nere begietatik ezkutatua.

18. Baña aurrena pagatuko diet, beren gaiztakeria eta bekatuak diña diradenen bi alditan anbat, zeren kutsutu duten nere lurra aragi ilki, beren

idoloai eskeñitakoakin; eta bete duten nere soroa beren gauza nazkagarriakin.

19. O Jauna, nere sendotasuna, eta nere indarra, eta nere igestokia atsekabeko denboran, zugana etorriko dirade jendeak lurraren atzeneko mugetatik, eta esango dute: Egiaz gure gurasoak iduki zituzten berakin gezurra eta urgulleria, zeñak utsa balio izan zieten.

20. Gizon batek bere Jaungoikoak egin al litzake? Ez, oiek ez dirade Jaungoikoak.

21. Argatik ona emen non nik orain ziertotzat iduki eraziko diedan, erakutsiko dieztet nere eskubidea, eta nere sendotasuna, eta ezagutuko dute nere izena dala Jauna.

AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Judaren bekatua eskribitua dago burnizko lumarekin, eta diamantezko puntarekin itsatsia bere biotzeko olaren gañean, eta bere aldareen aldamenetan.

2. Bere semeak oroitu diraden ezkero beren aldareakin, eta beren besoakin, eta mendi goratuetan dauden zuaitz ostotsuakin.

3. Eta eskeñtzen dituzten ezkero doañak kanpoetan, nik egingo det, kenduak eta arrapatuak izan dizazkizula zure azienda, eta zure tesoro guztiak, eta zure toki goratuak, zuk, o Juda, zure lur guzietan egindako bekatuakgatik.

4. Eta geldituko zera, nik eman nizun herenzia gabetanik; eta jarriko zaitut zure etsaien mendeko eginik, ezagutzen ez dezun lur batean; zeren zuk biztu dezun nere aserreko su, beti erazekia egongo dana.

5. Oiek esaten ditu Jaunak: Madarikatua izan bedi, beste gizon batégan itxedotzen duen gizona, eta ez Jaungoikoagan, eta eldutzen diona aragizko beso bati; eta bere biotzari Jaunagandik alde erazitzen diona.

6. Zeren izango dan eremuko millazkia bezela, eta ez da baliatuko gauza onarekin, datorrenean, baizik biziko da eremuko leortasunean, lur gazi, eta iñor bizi ez litekeanean.

7. Bestera, doatsua, bere ustea Jaungoikoagan jarria daukan gizona, eta zeñaen itxedopena Jauna dan.

8. Zeren izango dan erreka bazterrean ipintzeko aldatua izan dan zuaitza bezela, zeñak luzatzen dituen bere sustraiak ezetasunerontz, eta ala ez du beldurrik idukiko udako leortea datorrenean. Eta bere ostoak, beti berdeak egongo dirade, eta ez dio gaitzik egingo leorteak, eta ez dio ere iñoiz utziko, frutuak emateari.

9. Baña, ai! gaiztoa da gizon guztien biotza, eta ezagutu eziña: nork iduki dezake bere berri?

10. Ni Jauna naiz biotzen berri dakidana, eta esamiñatzen ditudana beren gurak, eta ematen diot bakoitzari ordaña, bere irabaziaren araura, eta bere obren frutuaren neurrian.

11. Nola berak etzituen ipiñi, arraultzak txito egiten dituen eperrak, ala da, bide gaiztoetatik aberastasunak biltzen dituena. Bere egunen erdian utzi bearko ditu, eta beren atzenean ikusiko da bere zentzugabetasuna.

12. O txit goratuaren gloriako tronua asieratik, gure santutasuneko tokia!

13. O Jauna, Israelko itxedopena, zu utzitzen zaituzten guziak, nastuak geldituko dirade. Zugandik urrutira dijoazenak, izango dirade eskribatuak lurrean: utzi dutelako Jauna, ur bizien zaña.

14. Sendatu nazazu, Jauna, eta sendatua geldituko naiz: salbatu nazazu, eta salbatua izango naiz, zeren nere gloria zu zeran.

15. Ona emen non berak esaten didaten: Non dago Jaunaren itza? Kunplitu dedilla.

16. Baña alaere ni ez naiz nastua gelditu, jarraitzen diotedala zure aztarnai, o nere Artzaia, zeren beñere ez nuen iduki, gizonaren egunaren gurarik, zuk badakizu. Nere ezpañakin adirazi nuena, beti zure aurrean zuzena izan zan.

17. Etzatzakit bada arren neri beldurgarri izan zu, o Jauna, nere itxedopena atsekabeko denboran.

18. Nastuak gelditu bitez persegitzen nautenak, eta ni ez nadilla nastua gelditu. Berak izutu ditezela, eta ni ez nadilla izutu. Bialdu ezazu beren gañera atsekabeko eguna, eta bi alditan anbateko azotearekin kastigatu itzatzu.

19. Oiek esaten dizkit Jaunak: Zoaz, eta zaude erriko semerik geienen atean, zeñatatik sartzen eta irtetzen diran Judako erregeak, eta Jerusalengo ate guztietan,

20. Eta esango diezu guztiai: Aditu ezazute Jaunaren itza, o Judako erregeak, eta zuek guztiok Jerusalengo erritar, ate oietatik sartzen zeratenak.

21. Begiratu ezazute zer esaten duen Jaunak: Zaitu itzatzute zuen animak; eta ez itzatzute eraman kargak larunbateko egunean, eta etzaiezute ere sartu erazi Jerusalengo ateetatik.

22. Eta ez itzatzute ere atera erazi kargak zuen etxeetatik larunbateko egunean; eta ez ezazute ere lanik batere egin. Santutu ezazute larunbateko eguna, zuen gurasoai agindu nien bezela.

23. Baña berak etzuten nai aditu, ezta zeartu ere nere itzetarontz beren belarriak. Kontrara gogortu zuten beren lepoa ez neri aditzeagatik, eta nere erakutsirik ere ez artzeagatik.

24. Alaere zuek aditzen banazute, esaten du Jaunak, alako moduan, non, ez dezuten sartzen kargarik erri onetako ateetatik larunbateko egunean, eta santututzen badezute larunbateko eguna, lanikan batere beretan egiten ez dezutela;

25. Jarraituko diote erri onetako ateetatik sartzeari Erregeak, eta prinzipeak, esertzen diradela Dabiden tronuan, eta ibiltzen diradela zaldien gañean eta kotxeetan, ala berak, nola beren prinzipeak, Judako gizonak, eta Jerusalengo erritarrak; eta erri au egongo da betiko jendez betea.

26. Eta etorriko dirade Judako beste errietatik, eta Jerusalengo inguruetatik, eta Benjaminen lurretik, eta lauetatik, eta mendietatik, eta Egoealdamenetik ekartzera holokaustoak, eta doañak, eta opariak, eta inzensoa, eta eskeñiko dituzte Jaunaren tenploan.

27. Baña obeditzen ez badidazute larunbateko eguna santututzean, eta kargak ez erabiltzean, eta ez sartzean Jerusalengo ateetatik larunbateko egunean, nik su emango diet ate oiei; su bat, iretsiko dituena Jerusalengo ateak, eta iñork ere itzaliko ez duena.

EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Jaunak Jeremiasi emandako agintea, esaten ziola:

2. Zoaz, eta jetxi zaite eltzegille baten etxera, eta an adituko dituzu nere itzak.

3. Jetxi nintzan bada eltzegille baten etxera, eta arkitu nuen ari zala lanean kurpill baten gañean.

4. Eta egiten ari zan buztiñazko ontzia, bere eskuen artean desegin zan, eta bereala berriz egin zuen buztiñ lurrarekin berarekin, berak nai izan zuen erako beste ontzi bat.

5. Orduan itz egin zuen Jaunak, eta esan zuen:

6. Ez alko det nik egin zuekin, o Israelko etxea, eltzegille onek bere buztiñiarekin egin duen bezela, esaten du Jaunak? Jakin ezazute, eltzegillearen eskuetan buztiñia dana, ori zeratela zuek nere eskuetan, o Israelko etxea.

7. Nik emango det batbatean nere sentenzia alderri baten kontra, eta erreñu baten kontra, arras ateratzeko, desegiteko, eta ezereztutzeko.

8. Baña erreñu ark egiten badu bere bekatuen penitenzia, zeñakgatik nik eman nuen erabakia bere kontra; ni ere damutuko naiz, bere kontra egitea pensatu nuen gaitzarekin.

9. Orobat batbatean tratatuko det alderri bat, eta erreñu bat fundatu, eta jartzearen gañean.

10. Baña baldin onek gaizki egiten badu nere begien aurrean, alako moduan, non, ez duen aditzen nere boza, ni damutuko naiz, egingo niola esan nien onarekin.

11. Zuk bada orain esan zaiezu Judako gizonai, eta Jerusalenen bizi diradenai: Oiek esaten ditu Jaunak: Begiratu ezazute ni nagoela oratutzen galmenak zuen kontra, eta asmazioak erabakitzen zuen kaltean. Biurtu bedi zuetatiko bakoitza bere bizitza gaiztotik, eta ondu itzatzute zuen oitura, eta etsigitasunak.

12. Onetara esan zuten berak: Etsi gera, eta ala jarraituko diegu gure gogorazioai, eta bakoitzak egingo du bere biotz galduaren gaiztakeriak esaten diona.

13. Argatik oiek esaten ditu Jaunak: Galde zaiezute beste erreñuai, nork iñoiz aditu ditu alako gauza, eta ain arrigarriak, nolakoak egin dituen lotsagabekiro Israelko birjiñak?

14. Arkitu al balitezke elurrikan gabe Libanoko aitzak? Edo leortu al balitezke arako jarioak, zeñaen ur otzak dijoazen korrika lurraren gañetik?

15. Bada ona emen non nere erria nerekin aztu dan, eskeñtzen diezтela doañak idoloen urgulleriari, eta beaztopo egiten duela bere bideetan, anziñako bideetan, iñor ere ez dabillan gurdibide bati jarraitzeagatik,

16. Biurtzen duela ala bere lurra ondamenera, eta izatera beti isekagarri, eta izu bideante guztientzat, zeñak ikusten dutenean, arrituta, beren buruak mugituko dituzten.

17. Zeren aize erretzalle batek bezela barreiatuko ditut beren etsaien aurrean. Atsea emango diet, eta ez nere arpegia, beren galmeneko egunean.

18. Baña berak orduan esan zuten: Atozte, eta artu ditzagun gogotikan neurriak Jeremiasen kontra, zeren berak baietz esaten badu ere, ez gera egongo aditu gabe legearen azaldaera apaizaren aotik, konsejua jakintsuagandik, ezta itza ere profeta gandik. Atozte bada, eta irago dezagun batetik bestera gure mingañaren fletxakin, eta ez dezagun aditu bere itzetatik bat ere.

19. O Jauna, begiratu ezazu nigatik, eta aditu ezazu nere etsaiak esaten dutena.

20. Beraz ala itzultzen da gaitza onagatik? Eta ala berak anbeste zor didatenak egin dute lize bat neri bizia galdu erazitzeko? Oroitu zaite, o Jauna, ni zure aurrean jartzen nintzan denborarekin, beren alde itz egiteko, eta zure aserreari berakgandik alde erazitzeko.

21. Argatik utzi zaiozkazu beren semeak goseari, eta ipiñi itzatzu ezpataren puntan. Beren emazteak gelditu ditezela alargun, eta semerikan gabe, eta beren senarrak, eriotza doakabe batekin il ditezela; eta ikusi ditezela, gudan beren semeak ezpataz iragoak.

22. Aditu bitez alarauak beren etxeetan, zeren zuk eramango dezu beren kontra batbatean lapurra; beren kontra, zeñak egin zuten lizea ni arrapatzeko, eta ipiñi zituzten zabaldurik ezkutuan lazoak nere oñentzat.

23. Baña zuk, o Jauna, ongi ezagutzen dituzu beren asmazioak nere kontra ni iltzeko. Etzaiezu barkatu beren gaiztakeria: ez bedi ere borratu zure aurretik beren bekatua. Beera aurtikiak izan bitez zure aurrean. Egin ezazu berakgangoa zure sumintasuneko denboran.

EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Esan ere zidan Jaunak: Zoaz, eta artu ezazu buztiñazko ontzi, eltzegilliaren lana dan bat, eta erriko zar batzuek, eta apaizetatiko zar batzuek;

2. Eta zoaz Ennonen semearen ibar, dagoenera Sortaldean eltzetokiko sarreraren aldean; eta an esango dituzute agirian esatera noatsun itzak.

3. Aditu ezazute, esango diezu, Jaunaren itza, o Judako erregeak, eta Jerusalengo erritarrak: Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jaungoikoak: Jakin ezazute nik aurtikiko ditudala toki onen gañera alako kastiguak, non, berak kontatzen aditzen dituen edozeñi durundiatuko zaiozkan belarriak.

4. Eta berak utzi nautelako, eta toki au kutsutu dutelako, eta bertan egin dieztelako eskeñtzak jainko arrotz, ez berak ezagutzen dituztenai, eta beren gurasoak ere, ez Judako erregeak ere ezagutu ez dituztenai, betetzendutela toki au obengabeen odolez,

5. Eta egin diozkaten ezkero aldareak Baali, beren semeak erretzeko, holokaustoan esan dan Baali; gauza batzuek, ez nituenak nik agindu, ez esan, eta gogoraziotik ere irago ez zazkidanak:

6. Argatik ona emen non, esaten du Jaunak, allegatzen dan denbora, zeñatan onezkero toki onen izena ez dan izango Tofeten Ibarra, ez Ennonen semearen ibarra, baizik ilkintzako ibarra.

7. Eta toki onetan desegingo ditut nik, Judan eta Jerusalenen bizi diradenen asmazioak, eta ilko ditut oiek ezpararekin, beren etsaien begien aurrean, eta beren galmena billatzen dutenen eskuz, eta beren gorputz illak emango ditut izan ditezen zeruko egaztien, eta lurreko pistien bazka.

8. Eta erri au egingo det izu, eta isekagarri. Emendik iragotzen diraden guztiak arrituak geldituko dirade, eta farra egingo diote bere zorigaitz guztiak gatik.

9. Eta emango dieztet jaten beren semeen aragiak, eta beren alaben aragiak, eta adiskideari bere adiskidearen aragia, beren etsai, berak desegin nai dituztenak, ingurututzen dituztenean arkituko diran larritasunean.

10. Eta gero ausiko dezu ontzia, lagundu dizuten gizonen aurrean.

11. Eta orduan esango diezu: Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Onela zatituko ditut nik erri au, eta iri au, buztiñazko ontzi erretako bat zeatzen dan bezela, berriz egin ez lezakean eran; eta obituak izango dirade Tofeten ibar zikiñean, zeren ez dan beste tokirik izango berak obiratzeko.

12. Au da egingo diodana nik erri oni, eta bertan bizitu diradenai, esaten du Jaunak, eta egingo det erri au izan dedilla toki nazkagarri bat, ala nola dan Tofet.

13. Eta Jerusalengo etxeak, eta Judako erregeen etxeak zikinduak geldituko dirade Tofetko tokia bezela. Etxe guzti oiek, esaten det, zeñaen sabaietan eskeñtzen ziozkaten doañak zeruko izar guztiai, eta libazioak jainko arrotzai.

14. Bereala biurtu zan Jeremias Tofetetik, nora bialdu zuen Jaunak profetizatzera, eta gelditu zan Jaunaren tenploko atarian, eta erri guztiari esan zion:

15. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak: Begiratu ezazute ni noala ekartzera erri onen gañera, eta berak mendean dauzkan erri guzien gañera, bere kontra bialduko ditudala aitatu ditudan gaitz guztiak; beren lepoa gogortu duten ezkero, nere itzak ez aditzeko.

OGEIGARREN KAPITULUA

1. Eta Fasur, Emmer apaizaren semeak, eta zeñ izan zan jarria Jaunaren Etxeko nagusi, aditu zion Jeremiasi alako gauzak profetizatzen zituela.

2. Eta aserreturik Fasur, zauritu zuen Jeremias, eta ipiñi zuen, Benjamingo goiko atean, Jaunaren etxean zegoan zepoan.

3. Biaramoneko egunsentian atera eban Jasurrek Jeremias zepotik, zeñak esan zion: Jaunak ez dizu ots egingo Fasur, baizik aldamen guztietatik izutua.

4. Zeren oiek esaten ditu Jaunak: Jakin ezazu nik izuz beteko zaituztedala zu, eta zure adiskide guztiak; zeñak illak izango diraden beren etsaien ezpataren puntarekin, eta au da gauza bat zure begiakin ikusiko

dezuna; eta ipiñiko det Juda guztia Babiloniako erregearen mendean; zeñak eramango dituen Babiloniara, bertan bizi diradenak, eta ezpataz iragoko ditu.

5. Eta erri onetako aberastasun guztiak, eta bertako lan guztiak, eta dauden gauza balio andiko guztiak, eta Judako erregeen tesoro guztiak, jarriko ditut beren etsaien eskuetan; zeñak ostuko diozkaten, eta eramango dituzten Babiloniara.

6. Baña zu, o Fasur, eta zure etxean bizi diraden guztiak katibu joango zerate, eta zu joango zera Babiloniara, eta an ilko zera, eta an izango zera obitua zu, eta zure adiskide guztiak, zeñai gezurrak profetizatu ziñiezkan.

7. O Jauna! Zuk llilluratu ninduzun, eta ni llilluratua gelditu nintzan. Zu izan ziñan ni baño sendoago, eta zurearekin irten ziñan. Ni nago egun guztian farragarri egiña, guziak neri iseka egiten didate.

8. Zeren denbora da onezkero deadarrez nagoela gaiztakeriaren kontra, eta adirazten boz goratuarekin ondamena, eta Jaunaren itzak ez dit ekartzen besterik, baizik aspertu gabeko lotsariak, eta isekak.

9. Eta alan esan nuen nerekingo: Ez det berriz bera aitatuko, eta ez det geiago itz egingo Jaunaren izenean. Baña laster sentitu nuen nere biotzean su erretzalle bat bezelako bat, nere ezurren barrenen sartua, eta desalaitu nintzan, ez idukirik bera sufritzeko indarrik.

10. Zeren askoren madarikazioak aditu nituen, eta izua jabetu zan nerekin aldamen guzietatik. Persegitu zaiozute, eta persegitu dizaiogun, aditu nuen esaten zutela, nerekin pakean bizi ziraden, eta nere aldamenean zeuden guzi aiek. Gauden zai utsen bat egiten ote duen; eta orduan bera baño geiago izango gera, eta bengatuko gera berarekin.

11. Baña Jauna, gudari sendoa bezela, nerekin dago. Argatik eroriko dirade, eta indarrik gabe geldituko dirade persegitzen nautenak; txit lotsatuak geldituko dirade beren asmoa iritxi ez dutelako, betiko desonra, beñere borratu ez danarekin.

12. Eta zuk, o ejerzituen Jaunak, probatzen dezunak justoa; zuk, ezagutzen dituzunak biotzaren barrendiko gurak; egin ezazu nik ikusi zaitzadala beren bengantza artzen; zeren zuri agertu dizut nere gauza.

13. Kantatu zaiozkazute himnoak Jaunari, alabatu ezazute Jauna, zeren bera dan libratu duena beartsuaren anima gaiztoen atzaparretatik, beartsuarena, zeñak konorgatuta bezela, esaten zuen:

14. Madarikatua izan bedi jaio nintzan eguna, ez bedi izan bedeikatua, nere amak egin ninduen eguna.

15. Madarikatua arako gizon, nere aitari berria eman ziona, esaten ziola: Aur seme bat jaio zatzu; uste zuenak bezela bozkarioz beteko zala.

16. Izan bedi alako gizona, Jaunak arrasatu zituen erriak bezela, berakin urrikaltasunik iduki gabe. Aditu ditzala deadarrak goizean, eta alarauak egerdian.

17. Arren bada illerazi banindu Jaungoikoak amaren sabelean; alako moduan, non, nere ama izan zedilla nere obia, eta bere aurduntza izan zedilla betikoa!

18. Zergatik atera nintzan amaren sabeletik nekeak eta oñazeak iragotzera, eta joan zitezela nere egunak betiko lotsarian?

OGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Ona emen Jaunak Jeremiasi erantzun ziona, Sedezias erregeak bialdu zionean esatera Fasur Melkiasen semeagatik, eta Sofonias, Maasiasen seme apaizagatik, itz oiek:

2. Konsultatu ezazu gugatik Jauna; zeren Babiloniako errege Nabukodonosor, bere ejerzituarekin ari da gudan gure kontra, eta jakin ezazu Jaunak egingo ote duen gure alde, bere mirari ugarietatik bat, gugandik joaneraziko diona Nabukodonosorri.

3. Eta Jeremiasek erantzun zien: Ala esango diezute Sedeziasi:

4. Oiek esaten ditu Jaunak, Israelko Jainkoak: Jakin ezazute nik itzulieraziko diotedala zuen kaltean zuen eskuetan dauzkazuten armai, eta zeñakin gudatzen zeraten Babiloniako erregearen kontra, eta zuen murruak ingurutuak dauzkaten Kaldeoen kontra, eta montoituko ditut guztiak erriaren erdian.

5. Eta ni nerau gudatuko naiz zuen kontra, eta desegingo zaituztet luzatzen ditudala nere eskua, eta nere beso sendoa sumintasun, eta gogortasun, eta aserre andiarekin.

6. Zeren aurtikiko det azotea erri onetako auzoen gañera, gizonak eta abereak ilko dirade izurri ikaragarri batekin.

7. Eta oien ondoan, esaten du Jaunak, nik jarriko ditut Sedezias Judako erregea, eta bere serbitzariak, eta bere erria, eta errian gelditu diranak, izurriaz, edo ezpataz edo gosez illak izan gabe, jarriko ditut, esaten det, Babiloniako errege Nabukodonosorren mendean, eta beren etsaien mendean, eta beren billa berak iltzeko dabiltzanen mendean, eta izango dirade ezpataren puntatik iragoak, eta ez da biguñduko, ez du barkatuko, eta ez du ere urrikaltasunik idukiko.

8. Esango ere diozu erri orri: Oiek esaten ditu Jaunak: Ona emen non ipintzen dizutedan aurrean bizitzako bidea, eta eriotzako bidea.

9. Erri onetan gelditzen dana, illa izango da ezpataz, edo gosez, edo izurriz; emendik ateratzen danak, eta jartzen danak, ingurutuak zauzkaten Kaldeatarren eskuetan berriz, salbatuko du bere bizitza, eta au irabazi anditzat idukiko du.

10. Nik dauzkadan ezkero tinkatuak begiak erri onen gañean, esaten du Jaunak, ez on egiteko, baizik gaitz. Nik ipiñiko det Babiloniako erregearen eskuetan, zeñak su emango dion.

11. Esango ere diozu Judako erregearen etxeari: Aditu ezazute Jaunaren itza,

12. O zuek Dabiden etxekoak! Oiek esaten ditu Jaunak: Egin ezazute agudo justizia, eta eskubide andikoak menderatuak dauzkatenak libratu itzatzute menderatzalleen azpitik, erazeki ez dedin zuekgan sua bezela nere aserrea, eta erazekitzen danean, nork itzali arkitu ez dedin, zuen garaen gaiztakeriagatik.

13. Ona emen non nagoen, o Jerusalen, zure kontra nator, o bizi zerana kanpoko ibar murrutuan, zuen kontra, esaten dezutenena: Zeñ izango da onara etorri ditekeana, eta gure etxeak arrapatu ditzakena?

14. Nik kastigatuko zaituztet zuen gura gaiztoak eman duten frutuagatik, esaten du Jaunak, eta nik su emango diet zuen basoai, zeñak iretsiko dituen beren inguru guztiak.

OGEITA BIGARREN KAPITULUA

1. Oiek esaten ditu Jaunak: Jetxi zaite Judako erregearen etxera, eta an onela itz egingo diozu,

2. Eta esango dezu: Aditu ezazu, o Judako erregea, Jaunaren itza, zuk Dabiden tronuaren gañean esertzen zeran orrek, zuk eta zure mirabeak, eta zure erri, eta oietatik sartzen zeratenak.

3. Oiek esaten ditu Jaunak: Juzgatu ezazute zuzentasun eta justiziarekin, eta libratu itzatzute gezur asmatzalleen eskuetatik indarrez menderatuak daudenak; eta ez ezazute bidegabero atsekabetu, ez estutu arrotza, ez umezurtza, ez andre alarguna, eta ez ezazute isuri obengabearen odolik toki onetan.

4. Zeren baldin onela egiten badezute, esaten dizutedan bezela, aurrerakoan Dabiden tronu onetan eseriko dirade Erregeak, eta beren jatorrikoak, eta kotxeetan, eta zaldien gañean sartuko dira etxe onen ateetatik beren serbitzariakin, eta beren erriarekin.

5. Baña baldin zuek obeditzen ez badiezute itz oiei, juramentu egiten det ni neraugatik, esaten du Jaunak, etxe au eremu egiñik geldituko dala.

6. Zeren ona emen Jaunak esaten duena Judako erregearen etxearen kontra. O etxe argitsu, eta aberatza, Galaad bezela, Zu, zeran ori neretzat Libanoko garaia bezela, juramentu egiten dizut, eremu batera itzuliko zaitudala, iñor ere bizi ez ditekean erriak bezela;

7. Eta zuzenduko ditut zure kontra gizonen iltzallea, eta bere armak; eta ebakiko dituzte zure zedro autuak, eta aurtikiko dituzte sutara.

8. Eta jende andia iragoko da erri onetatik, eta bakoitzak bere lagunari esango dio: Zergatik Jaunak tratatu du onela erri andi au?

9. Eta erantzungo zaiote: Utzi zutelako beren Jaun Jainkoaren elkartasuna, eta adoratu ta serbitu zituztelako jainko arrotzak.

10. Ah! ez ezazute negarrik egin illa dan errege Josiasgatik, eta ez ezazute ere beragatik progurikan egin. Negar egin ezazute, bai, dijoana gatik, Joakazgatik, ez dalako itzuliko katiberiotik, eta ez duelako ere ikusiko bere jaiotzako lurra.

11. Argatik oiek esaten ditu Sellum Josiasen seme, Judako erregeagatik, zeñak erreñatu zuen Josias bere aitaren lekuan, zeñ atera zan toki onetatik: Ez da berriz onara etorriko.

12. Baizik aldatu nuen tokian, an ilko da, eta ez du geiago lur au ikusiko.

13. Ai bere etxea bidegabetasunaren gañean, eta bere salak gaiztakeriaren gañean egiten dituenaren doakabea, erabiltzen duela gogorrean lanean doan bere projimoa, eta bere irabazia pagatzen ez diona!

14. Esaten duena: Egingo det neretzat etxe andi bat; eta apaltoki zabalak. Azitzen dituena bere leioak, eta egiten dituena zedrozko goiazpillatuak ematen diela kolore origorria!

15. Uste al dezu zuk, o errege Joakin, denbora luzean erreñatuko dezula, zeren zedroarekin iruditzen zeran? Zure aitak ez al zuen jan eta edan, eta ez al zan izan doatsua agintatu zuenean zuzentasun eta justiziarekin?

16. Zaitzen zuen beartsu eta laguntasunik ez zeukanaren gauza, eta ala bere onerako lana egiten zuen, eta au ez al zan, ni beti ezagutu ninduelako esaten du Jaunak?

17. Baña zure begiak eta zure biotzak ez dute billatzen baizik zikoiztasuna, eta odol obengabea isuritzea, eta gezurrak asmatzea, eta gaiztakeriaren ondoren korrika joatea.

18. Argatik oiek esaten diozka Jaunak Joakin, Josiasen seme Judako erregeari: Ez dute beragatik negar egingo esaten dutela: Ai nere anaia! Ai nere aizpa! Ez dute ere deadarrez esango: Ah, gure Jauna! Ah errege ona!

19. Obitua izango da asto bat bezela, aurtikia izango da Jerusalengo ateetatik kanpora, an usteldu dedin.

20. Igo zaite Libanora, eta deadar egin ezazu, eta Basandik jaso ezazu zure boza; eta deadar egin zaiezu iragotzen diradenai, zeren zure adiskideak ezereztuak izan diraden.

21. Itz egin nizun zure ugaritasunean, eta esan zenduen: Ez det adituko. Au da zuk, zure gazte denboratik egin dezuna, gortutzea nere itzetara.

22. Aizeaz bazkatuko dira zure artzai guztiak, eta zure adiskideak katibu eramanak izango dirade. Nastua geldituko zera orduan, eta zure gaiztakeria guztiak lotsatuko zaituzte.

23. O zu, ipintzen dezuna zure esertokia Libanoren gañean, eta bere zedroetan kabia egiten dezuna, nolakoak izango dirade zure ai! deadarrak, etortzen zazkizunean aurregiten ari dan emakumearen antzeko oñazeak?

24. Juramentu egiten det nik, esaten du Jaunak, Jekonias, Joakin Judako erregearen semea, balitza ere neretzat nere eskuieko eskuko errastuna bezelakoa, aterako nezake beatzetik.

25. Eta nik jarriko zaitut, zure billan, zu iltzeko dabiltzanen eskuetan; eta aien eskuetan, zeñaen arpegiak ikara erazitzen dizun, Nabukodonosor Babiloniako erregearen eskuetan, eta Kaldeatarren eskuetan.

26. Eta zu, eta zure ama, zu egin zinduena bialduko zaituztet lur arrotz batera, zeñatan etziñaten jaio, eta an ilko zerate.

27. Eta Judeara, bere animak itzultzeko alako gurak dauzkan lur onetara, ez dirade iñoiz ere itzuliko.

28. O Jauna! Jekonias gizon ori, buztiñazko ontzi ausiren bat al da? iñork ere nai ez duen tresnaren bat al da? Zergatik izan dirade beeratuak bera, eta bere jatorria, eta berak ezagutzen ez duten erri batera aurtikiak?

29. Lurra, lurra! Aditu ezazu, o lurra! Jaunaren itza.

30. Ona emen Jaunak esaten didana: Eskribatu ezazu, gizon ori solla izango dala, bere bizitza guztian asitzen dituen gauzaetatik batek ere ez diola ongi irtengo, zeren ez dan geldituko bere jatorriko gizonik batere, Dabiden tronuaren gañean eseriko danik, eta aurrerakoan Judan eskubiderikan batere idukiko duenik.

OGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Ai nere larreko artaldea arrasatu, eta desegiten duten artzaien doakabeak, esaten du Jaunak!

2. Argatik ona emen Israelko Jaun Jainkoak esaten diena, nere erria bazkatzen duten artzaiai: Zuek barreiatu dezute nere artaldea, eta kanpora aurtiki dezute, eta ez dezute bisitatu. Bada ona emen non ni etorriko naizan zuek kastigatzera, zuen guraen gaiztakeriagatik, esaten du Jaunak.

3. Eta nik bilduko ditut, nere artaldetik gelditu ziran ardiak, aurtiki ditudan lur guztietatik, eta beren lurretara itzuliko ditut. Eta aziko dira, eta ugarituko dira.

4. Eta egingo ditut berentzat artzai batzuek, larre osasuntsuetan bazkatuko dituztenak. Ez dute onezkero beldurrik, ez izurik batere idukiko, eta beretatik bat ere ez da saletxetik kanpora egongo, esaten du Jaunak.

5. Begiratu ezazute badatorrela denbora, esaten du Jaunak, zeñean nik erne eraziko diodan Dabidgandik muskill bati, bere jatorriko justo bati, zeñak erreñatuko duen Errege bezela, eta izango da jakintsua, eta egingo du juizioa eta justizia lurrean.

6. Egun aietan Juda salbatua izango da, eta Israel biziko da pake oso batean; eta Errege hurari ots egingo zaion izena da: Gure Jaungoiko Justoa.

7. Argatik etorriko da denbora, esaten du Jaunak, zeñatan ez duten onezkero esango: Bizi da arako Jaun, atera zituena Israelko semeak Ejiptoko lurretik,

8. Baizik, bizi da Jauna, atera eta ekarri duena Israelko etxeko jatorria ifarraldeko lurretik, eta alderri guztietatik (zeñatara aurtiki zituen) eta biziko dira beren lurrean.

9. Gezurrezko profeten gañean, nere biotza, esan zuen Jeremiasek, zatitutzen da nere bularraren erdian, nere ezur guztiak dardaraz jarri dirade, arkitzen naiz moskortu bat bezela, ardoz betetako gizon bat bezela, gogoratzen naizanean Jaunaren aserrearekin, eta bere itz santuakin.

10. Zeren lurra adulteroz betea dagoen, eta negarrez blasfemiakgatik; leortu ziran eremuko landak; beren ibillera ariña beti gaitzera zuzentzen da; eta beren sendotasuna da bidebagako gauzak egiteko.

11. Zeren ala profeta, nola apaiza zikinduak gelditu dira, eta nere etxearen barrenen, an arkitu det beren gaiztakeria, esaten du Jaunak.

12. Argatik beren bidea izango da irristalekua bezela illuntasunetan. Beratan bultzaka egingo zaiote, eta eroriko dirade; zeren nik beren gañera ondamenak aurtikiko ditut, kontuak artzen zaiezten denboran, esaten du Jaunak.

13. Eta Samariako profetetan ikusi nuen zentzugabetasuna, profetizatzen zuten Baalgan, eta engañatzen zuten Israelko nere erria;

14. Eta Jerusalengo profetetan ikusi nuen adulterioak egiten zituztenen irudia, eta gezurraren ondoren zijoazela, eta urgulluz betetzen zutela gaizto taldea, bakoitza bere gaiztakeriatik etzedin utzi konbertitzen. Guz-

tiak etorri dira izatera nere begientzat nazkagarriak Sodoma bezela, Gomorrakoak bezelakoak, alakoak dirade bertan bizi diradenak.

15. Argatik ejerzituen Jaunak oiek esaten diezte profetai: Ona emen non nik emango dieztedan jateko asensioak, eta edateko beaztuna; Jerusalengo profetakgandik zabaldu dan ezkero usteltasuna lur guzitik.

16. Jerusalenen bizi zeratenak, ona emen ejerzituen Jaunak esaten dizutena: Ez itzatzute aditu zuen gogoko gauzak profetizatzen dizkizuten, eta engañatzen zaituzten profeten itzak, berak esaten dizkizute beren biotzetako ikusketak, ez Jaunak esan duena.

17. Esaten diete nigatik blasfematzen dutenai: Jaunak esan du: Pakea idukiko dezute. Eta beren biotzetako gaiztakeriari jarraitzen dien guztiai, esan diete: Ez da zuen gañera etorriko ondamenikan batere.

18. Baña, beretatik zeñ da egon zana Jaunaren batzarrean, eta ikusi zuena, eta aditu zuena Jaunak zer esan, eta erabaki zuen? Zeñek aditu eta konprenditu zuen bere erabakia?

19. Ona emen non jaikiko dan Jaungoikoaren aserrearen aizebunbada, eta ekaitza, urratzen duela odeia, eroriko da gaiztoen buruaren gañera.

20. Ez da geldituko Jaunaren sumintasuna, aliketa bete, eta kunplitu dedin bitartean bere borondatearen erabakia. Atzeneko egunetan izango da noiz ezagutuko dituzuten, nolakoak diraden bere asmazioak zuekganako.

21. Ez nituen nik bialtzen gezurrezko profeta oriek. Berak beren buruz zijoazen korrika aldamen guztietatik. Ez nuen nik berakin itz egiten; baizik berak profetizatzen zuten nai zutena.

22. Arkitu balirade nere batzarrean, eta adirazi balizkiote nere erriari nere itzak, nik egiaz alde eraziko nien beren bizitza gaiztotik, eta beren gogorazio txit biurrietatik.

23. Uste al dezu zuk, esaten du Jaunak, ni naizela Jaungoikoa aldetik bakarrik, eta ez naizela Jaungoikoa urrutitik?

24. Ezkutatuko al da gizona zokoren batean nik ikusi gabe, esaten du Jaunak? Ez al ditut nik betetzen, esaten du Jaunak, zerua eta lurra?

25. Aditu det zer esaten dabiltzan, nere izenean gezurra profetizatzen duten profeta aiek. Ames egin det, esaten dute, ames bat iduki det.

26. Eta noizarteraño iraungo du onek gezurra profetizatzen duten, eta beren biotzetako engañuak lendanaz adirazten dituztenen biotzean?

27. Zeñak egin nai duten nere erria nere izenarekin aztu dedilla, bakoitzak bere aldekoari kontatzen diozkan amesakgatik, beren gurasoak Baalen amorioagatik nere izenarekin aztu ziraden bezela.

28. Kontatu dezala bere amesa, ala ames egiten duen profeta hurak, eta predikatu dezala nere itza egia guztiarekin, nere itza artzen duen hurak. Zer dauka zer ikusi lastoak gariarekin, esaten du Jaunak?

29. Nere itzak ez al dirade sua bezelakoak, esaten du Jaunak, eta aitzak ausitzen dituzten mallua bezelakoak?

30. Argatik ikusi nazazute emen, esaten du Jaunak, nere itzak ostutzen dituzten profeta aien kontra, bakoitzak bere aldeenekoari.

31. Ikusi nazazute emen, esaten du Jaunak, arako profeta aien kontra, zeñak artzen dituzten beren mingañetan itz oiek, Jaunak esaten du.

32. Ikusi nazazute ni emen profeta aien kontra, zeñak ames egiten dituzten gezurrak, eta kontatzen dituzten, eta engañatzen duten nere erria beren gezurrakin eta beren mirariakin; izanik ala ez ditudala nik bialdu, eta ez diedala ere agindu alako gizonai, zeñak mesederikan batere ez dioten egin erri oni, esaten du Jaunak.

33. Galdetzen badizu bada erri onek edo profetaren batek, edo apaizen batek, zuri iseka egiten dizula, eta esaten dizula: Zeñ da Jaunaren aldetik adirazten dezun zama? Erantzungo diezu: Zuek zerate zama; eta nik, esaten du Jaunak, aurtikiko zaituztet urrutira nigandik.

34. Eta baldin profetak, edo apaizak, edo errikoren batek esaten badu: Zeñ da Jaunaren zama? Nik gogorki kastigatuko ditut alako gizona, eta bere etxea.

35. Esango diezuna bakoitzak bere aldekoari, eta bere anaiari da: Zer erantzun du Jaunak? Edo, zer da Jaunak egin duen itza?

36. Eta ez da berriz izendatuko Jaunaren zama; bestela bakoitzaren zama izango da bere itz egiteko era, gaitzera biurtu dituzuten ezkero Jaungoiko biziaren, ejerzituen Jaunaren, gure Jaungoikoaren itzak.

37. Galdetuko diozu bada profetari: Zer erantzun dizu Jaunak? Edo, zer da Jaunak esan duena?

38. Baña oraindikan esango bazenezate, irriz: Zeñ da Jaunaren zama? Alakoan, oiek esaten ditu Jaunak, itz au esan zendutelako: Jaunaren zama; bialdu ezkero nik zuei esatera, ez ezazute berriz isekaz esan itz au: Jaunaren zama.

39. Argatik jakin ezazute, nik arrapatuko zaituztedala, eta eramango zaituztedala Babiloniara, eta utziko zaituztedala, aurtikitzen zaituztedala nere aurretik zuek, eta zuei ta gurasoai eman nien erria.

40. Eta egingo zaituztet betiko lotsaria, eta desonra atzengabea, zeñaen oroipena beñere borratuko ez dan.

OGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Jaunak erakutsi zidan ikusketa bat, eta ikusi nituen bi saskitxo pikuz beteak, zeudenak ipiñita atarian Jaunaren tenploaren aurrean; Nabukodonosor Babiloniako erregeak Jekonias, Joakin Judako erregearen semea, eta bere jauregiko andizkiak, eta bere langilleak, eta joiariak Jerusalendik Babiloniara eraman zituen ondoan.

2. Saskitxo batek zeuzkan piku txit onak, nolakoak izan oi diraden lenbiziko denborako pikuak, eta beste saskitxoak zeuzkan piku txit gaiztoak, jan etzitzatekenak, gaiztoak ziradelako.

3. Eta Jaunak esan zidan: Zer da ikusten dezuna, Jeremias? Nik erantzun nuen: Pikuak, piku onak, eta alako moduan onak, non, ez ditezke izan obeagoak; eta beste batzuek gaiztoak, txit gaiztoak, jan ez ditzakenak, gaiztoak diradelako.

4. Orduan itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

5. Oiek esaten ditu Israelko Jaun Jainkoak: Nola piku oriek onak diraden, ala nik on egingo diet Judako erbestetu, nik aurtiki nituenai toki onetatik Kaldeatarren alderrira.

6. Eta nik itzuliko ditut berakganontz nere begiak urrikaltasunarekin, eta lur onetara itzuliko ditut, eta ez bakarrik ez ditut desegingo, baizik bertan sendaro ipiñiko ditut, eta jarriko ditut, eta ez ditut aterako.

7. Eta emango diet biotz bat ezagutu dezaten ni naizela Jauna beren Jaungoikoa; eta berak nere erria izango dirade, eta ni izango naiz beren Jaungoikoa: zeren biotz guztitik nigana itzuliko diran.

8. Eta nola beste pikuak alako moduan gaiztoak diran, non, ez ditezkean jan gaiztoaren gaiztoz; ala nik, esaten du Jaunak, tratatuko ditut Sedezias Judako Erregea, eta bere andizkiak, eta Jerusalengo erri onetan gelditu ziraden gañerako guztiak, eta Ejiptoko lurrean bizi diradenak.

9. Eta egingo det izan ditezela gaizki erabilliak eta tratatuak lurreko erreñu guztietan; eta etorriko dira izatera lotsaria, eta ipuia, eta esangia eta madarikazioa, nik aurtiki nituen toki guzietan.

10. Eta bialduko det berakgana ezpata, eta gosea, eta izurria; arras kenduak izan ditezen bitartean, berai, eta beren gurasoai eman nien lurretik.

OGEITA BOSGARREN KAPITULUA

1. Jeremiasi agertua izan zitzaion profezia, Judako erri guztiaren gañean, Joakin, Josias Judako erregearen semearen laugarren urtean; zeñ dan Nabukodonosor Babiloniako Erregearen lenbiziko urtea,

2. Zeñ predikatu zien Jeremias profetak Judako erri guztiari, eta Jerusalenen bizi ziraden guztiai, esaten zuela:

3. Josias, Ammon Judako Erregearen semearen amairugarren urtetik gaurko eguneraño, zeñatan irago diran ogeita iru urte, Jaunak adituerazi dit bere itza, eta ari naiz zuei adirazten, jaikitzen naizala egunsentia baño lenago, zuei predikatzeko, eta zuek ez nazute aditu.

4. Berebat Jaunak bialdu dizkizute txit garai onean bere serbitzari profeta guztiak; eta bialtzen zituenean, zuek etzinien aditu nai, ezta etziñituen zeartu ere zuen belarriak berakganontz berai entzuteko.

5. Berak esaten zizutenean: Biurtu zaitezte bakoitza bere bide gaiztotik, eta zuen gogorazio txit biurrietatik, eta onenbesterekin biziko zerate mendez mende, Jaunak zuei eta zuen gurasoai eman zizuten lurrean;

6. Eta etzaitezte joan jainko arrotzen ondoren berak adoratzeko, eta serbitzeko; eta etzadazute ere aserretu erazi zuen eskuetako obrakin, eta nik ez dizutet atsekaberik bialduko.

7. Baña zuek, esaten du Jaunak, ez nazute aditu; baizik aserretuerazi didazute zuen eskuetako lanakin zuen gaitzerako.

8. Argatik oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Ez dituzutelako aditu nere itzak,

9. Jakin ezazute nik artuko ditudala nerekin, eta bialduko ditudala, esaten du Jaunak, ifarraldeko familia guztiak Nabukodonosor, Babiloniako Errege, nere morroiarekin, eta zuzenduko ditut erri onen, eta bertan bizi diradenen kontra, eta inguruetako erreñuen kontra; eta ilko ditut, eta biurtuko ditut izatera guztien izu, eta lotsaria, eta betiko eremu bat.

10. Eta kenduko ditut beren artetik bozkarioaren bozak, eta gozotasunaren bozak, esposoaren eta esposaren boza, idorrotaren otsa, eta argiaren argitasuna.

11. Eta lur guzti au eremu izugarri bat egiñik geldituko da: eta jende guzti oiek serbituko dute Babiloniako erregea irurogeita amar urtean.

12. Eta kunplitzen diradenean irurogeita amar urteak, nik kontuak artuko diozkat Babiloniako Erregeari, eta erreñu hurari, esaten du Jaunak, kastigatzen ditudala beren gaiztakeriak, eta Kaldeako erri guztiarenak, basomortu eginda betiko utzitzen dedala.

13. Nik egiztatuko ditut erri aren gañean, bere kontra esan ditudan itz guztiak; liburu onetan eskribitua dagoen guztia, Jeremiasek erreñu guztien kontra profetizatu dituen gauza guztiak,

14. Zeren berak serbitu zituzten, izanik berak erreñu asko, eta errege almentsuak, eta nik emango diet, diña diraden ordaña, egin dituzten gaiztakerien araura.

15. Zeren ejerzituen Jaunak, Israelko Jaungoikoak, oiek esaten ditu: Ar zazu nere eskutik nere aserreko ardozko ontzi ori, eta emango diezu beratatik edaten, nik berakgana bialtzen zaitudan jende guztiai;

16. Eta beratatik edango dute, eta nastuko dirade, eta galduko dute zentzua, ikusirik nik beren kontra magitik aterako dedan ezpata.

17. Artu nuen bada ontzia Jaunaren eskutik, eta eman nien beratatik edaten, Jaunak berakgana bialdu ninduen erreñu guztiai,

18. Jerusaleneri, eta Judako erriai, eta beren erregeai, eta beren andizkiai, biurtuteko beren lurra basomortu izugarri batean, eta lotsari ta madarikazio, ikusten gauden bezela.

19. Eta Faraon Ejiptoko erregeari, eta bere ministroai, eta bere andizkiai, eta bere erri guztiai;

20. Eta batean guztiai; Husko lurreko errege guztiai; eta Filistintarren errietako errege guztiai; eta Askaloni, eta Gazari, eta Akaroni, eta Azoton gelditu diraden gutxiai:

21. Eta Idumeari, eta Moabi, eta Ammonen semeai:

22. Eta Tiroko Errege guztiai, eta Sidongo errege guztiai; eta itsasoaren beste aldamenean dauden ugartetako erregeai,

23. Eta Dedango, eta Themako, eta Buzko probinziai; eta illea koroaren gisara ebakia daramaten guziai,

24. Eta Arabiako errege guziai; eta Sartaldeko errege eremuan bizi diraden guziai;

25. Eta Zanbriko errege guziai, eta Elamgo errege guziai, eta Medoen errege guziai.

26. Eta berebat ifarraldeko errege guziai, aldekoai, eta urrutikoai. Erri oietatik bakoitzari eman nion edaten sumintasuneko ontzitik aserretuerazitzeko bere anaiaren kontra, eta lurraren gañean dauden erreñu guziai; eta Sesak Erregeak beren ondoan edango du.

27. Eta esango diezu berai: Oiek esaten ditu ejerzituen Jaun Jainkoak: Edan ezazute, eta moskortu zaitezte gonbitatu arteraño; eta erori zaitezte, eta etzaitezte jaiki, zuen kontra bialtzera noan ezpataren aurrean.

28. Eta ez balute artu nai zure eskutik nere aserreko ontzia beratatik edatzeko, esango diezu: Aditu ezazute zer esaten duen ejerzituen Jaunak: Naiz nai dezutela, naiz nai ez dezutela, edan bearko dezute.

29. Ongi al da asi dezadala nik kastigua Jerusalendik, nere izenari ots egin zaion erritik; eta zuek, obengabeak baziñate bezela geldituko al zerate kastigu gabe? Etzerate geldituko, ez, kastigatuak izan gabe, zeren nik aterako det nere ezpata magitikan lurrean bizi diraden guzien kontra, esaten du ejerzituen Jaunak.

30. Gauza guzti oiek profetizatuko dieztezu, eta esango diezu: Jaunak goitik orroa egingo du leoiak bezela, eta bere bizileku santutik emango du bere boza. Orroa andiak egingo ditu, Jerusalen bere gloriako tokiaren kontra. Aditua izango da, guztiak egiten duten deadar bat lur onetan bizi diraden guztien kontra; zarata bat, mendainak zapaltzen ari diradenen antzekoa.

31. Munduaren atzeneko mugetaraño allegatu zan Kaldeatarren armen otsa. Zeren Jauna juizioan sartu dan erreñuen kontra. Bera ari da bere gauzaren elean aragi guziarekin. Nik jarri ditut gaiztoak, esaten du Jaunak, ezpataren puntan.

32. Oiek ere esaten ditu ejerzituen Jaunak: Jakin ezazute atsekabea iragoko dala erri batetik beste erri batera, eta lurraren atzeneko mugetatik jaikiko da ekaitz izugarri bat.

33. Eta egun artan Jaunak eriotzara eman dituenak, geldituko dira etzinik lurrean, lurraren muga batetik besteraño. Ez du berakgatik iñork ere negarrik egingo, iñork ere ez ditu bilduko, eta ez dira ere obiratuak izango, egongo dira etzinik lurraren gañean zimaurra bezela.

34. Asi zaitezte alarauak egiten, o artzaiak, eta jaso ezazute deadarra, eta autsez estali zaitezte, o artaldearen zuzentzalleak; zeren kunplitu dirade zuen egunak, illak izan zaitezten, eta zatituak izatera zoazte, eta ontzi baliotsuak bezela lurrean ibilliko zerate.

35. Eta ezin egingo dute igesik artzaiak, eta ezin ere libratuko dirade eriotzatik artaldearen zuzentzalleak.

36. Eta adituko dirade artzaien bozak eta deadarrak, eta artaldearen zuzentzalleen alarauak. Zeren Jaunak beren larreak arrasatu dituen,

37. Eta landa ugariak egongo dirade ixiltasun izugarri batean, ikusirik Jaunaren aserrearen sumintasuna.

38. Zeñak, leoiak bezela, utzi duen toki santua, non bizitu oi zan, eta gero beren lur guztia Usoaren aserreak, eta Jaunaren sumintasun izugarriak eremu biurtua gelditu da.

OGEITA SEIGARREN KAPITULUA

1. Joakin, Josias Judako erregearen semearen agintaritzaren asieran, itz egin zidan Jaunak onela:

2. Oiek esaten ditu Jaunak: Jarri zaite Jaunaren etxeko atarian, eta Judako erri guztiai, zeñatan bizi diradenak datozen adoratzera Jaunaren tenploan, esango diezu, nik berai esateko agindu dizudan guztia; ez gero utzi itz bakar bat ere,

3. Ikusteko aditzen ote dizuten, eta biurtzen ote diran beren bizitza gaiztotik. Eta onela damututzen ote naizan ni, berai bialtzea pensatzen dedan gaitzarekin, beren guraen gaiztakeriagatik.

4. Zuk bada esango diezu: Oiek esaten ditu Jaunak: Baldin zuek aditzen ez banazute, ez badiezute jarraitzen nere lege, nik eman nizutenari,

5. Eta sinisten ez badezute, nere serbitzari profeta, nik gauaz jaikita, bialdu nizkizutenen, eta zuekgana zuzendu nituenen itzetan, eta zeñai zuek sinisterik eman ez diezuten,

6. Nik egingo det etxe onekin, Silorekin egin nuena, eta erri au egingo det, lurreko erreñu guzien madarikazioa.

7. Eta aditu zuten apaizak, eta profetak, eta erri guztiak nola Jeremiasek adirazten zituen alako gauzak Jaunaren etxean.

8. Eta bukatu zituenean Jeremiasek, Jaunak erri guztiari jakin erazitzeko esan ziozkan gauza guztiak, eldu zioten apaizak, eta profetak, eta erri guztiak, esaten zutela: illa izan bedi.

9. Nola profetizatu du Jaunaren izenean, esaten duela: Tenplo au desegiña izango da Silo bezela, eta erri au geldituko da arrasatua alako moduan, non, ez dan izango nor bertan bizi dedin? Eta erri guztia bildu zan Jeremiasen kontra Jaunaren etxean.

10. Eta aditu zituzten Judako prinzipeak itz oiek, eta irago ziraden Erregearen jauregitik Jaunaren Etxera, eta eseri ziran Jaunaren etxeko ate berriko sarreran.

11. Orduan apaizak, eta profetak itz egin zien prinzipeai, eta erri guztiari, esaten zutela: Gizon au eriotzaren diña da, zeren profetizatu duen erri onen kontra zuek zerok aditu dezuten bezela.

12. Eta Jeremiasek itz egin zien prinzipe guztiai, eta erri guztiari, esaten zuela: Jaunak bialdu nau profetizatu nitzan Etxe onen kontra, eta erri onen kontra aditu dituzuten itz guztiak.

13. Orain bada ondu ezazute zuen bizitza, eta garbitu itzatzute zuen gurak, eta aditu ezazute zuen Jaun Jainkoaren boza, eta damutuko zaio Jaunari, eta ez du bialduko zuen gañera, erabakita zeukan kastigua.

14. Neregan danez, zuen eskuetan nago. Egin ezazute nerekin ongien deritzatzutena, eta zuen gogoko dana.

15. Alaere jakin ezazute, eta ziertotzat iduki ezazute, baldin kentzen badidazute bizia, odol obengabea isuriko dezutela, eta erori eraziko diozutela zuen gañera, erri onen gañera, eta bertan bizi diradenen gañera, zeren egiaz Jauna da bialdu nauena zuen belarriai aditu erazitzera aitatu diran itz guztiak.

16. Orduan prinzipeak eta erri guztiak esan zien apaizai eta profetai: Gizon au ez da eriotzaren diña, zeren gure Jainkoaren izenean itz egin digun.

17. Andikan laster jaiki ziran erriko zar batzuek, eta onela itz egin zioten erriari.

18. Mikeas, berez Morastikoa, izan zan profeta Ezekias Judako erregearen denboran, eta itz egin zion Judako erri guztiari, esaten zuela: Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Sion izango da goldeatua kanpo bat bezela, eta Jerusalen geldituko da arri montoi bat eginik, eta Moriako mendia, zeñatan dagoen tenploa, baso zarratu, ta illun bat izango da.

19. Mikeas izan al zan, Ezekias Judako erregeak, eta bere erri guztiak eriotzara kondenatua? Kontrara, ez al ziran berak Jaunaren beldur izan, eta ez al zioten bere urrikaltasunari otz egin, eta Jauna damutu zan, eta ez al zion utzi bialtzeari kastigua, zeñarekin keñatu zituen? Beraz guk bekatu andi bat egingo genezake gure animen gaitzean.

20. Izan ere zan gizon bat Urias izena zuena, berez Kariatiarimgoa, zeñak profetizatzen zuen Jaunaren izenean, eta profetizatu zuen erri onen kontra, eta inguruetako errien kontra Jeremiasek esan duen guztia.

21. Eta aditu zutenean Joakin erregeak, eta bere andizki ta jauregitar guztiak profetizatzen zuena, nai zion Erregeak bizia kendu. Jakin zuen Uriasek, eta beldurtu zan, eta iges egin zuen, eta Ejipton sartu zan.

22. Eta Joakin erregeak bialdu zuen Ejiptora, Urias arrapatzera, Elnatan, Akoborren semea, beste gizon batzuek laguntzen ziotela,

23. Zeñak atera zuten Urias Ejiptotik, eta eraman zuten Joakin erregeagana, zeñak agindu zuen ezpataz iltzeko, eta aurtikitzeko gorputz illa erriko jenderik zatarrenen obietara.

24. Ala bada Ahikan, Safanen semearen laguntasunak zaitu zuen Jeremias, izan etzedin jarria erriaren eskuetan, eta il ez zezaten.

OGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Joakin, Josias Judako erregearen semearen erreñuko agintaritzaren asieran, Jaunak onela itz egin zion Jeremiasi:

2. Oiek esaten dizkit Jaunak: Egin itzatzu lokarri batzuek hedeen gisara, eta katee batzuek lepakaien gisara, eta jarri itzatzu lepoan.

3. Eta bialduko diozkazu Edomgo erregeari, eta Moabko erregeari, eta Ammonen semeen erregeari, eta Tiroko erregerari, eta Sidomgo erregeari, Jerusalenera, Ezekias Judako erregeagana etorri diran mandatarien bitartez;

4. Eta aginduko diezu esan dizaietela beren nagusiai: Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak, eta oiek esango dieztezute zuen nagusiai:

5. Nik egin nituen lurra, eta gizonak, eta lurraren gañean dauden abereak, nere eskubide andiarekin, eta nere beso goratuarekin, eta eman diot beren agintaritza, neri gogoak eman zidanari.

6. Orain bada nik ipiñi ditut lur guzti oiek, Nabukodonosor Babiloniako errege, nere morroiaren mendean; eta eman ere diozkat kanpoko abereak, bera serbitu dezaten.

7. Eta erri guzi oiek izango dira, bere, eta bere semearen, eta bere semearen semearen mendekoak; aliketa allegatu dedin artean bere eta bere lurraren galmeneko epea: bitartean erreñu askok eta errege andiak serbituko dute.

8. Nabukodonosor Babiloniako erregearen mendean jarri nai ez duten erri, ta erreñua berriz, eta Babiloniako erregearen uztarriari bere lepoa makurtzen ez dion edozeñ, nik kastigatuko det, esaten du Jaunak, ezpatarekin, gosearekin eta izurriarekin; aliketa beren bitartez berakingoa egin dezadan artean.

9. Zuek bada ez itzatzute aditu zuen profetak, eta aztiak, eta ameslariak, eta igarleak, eta gaizkigilleak, zeñak esaten dizuten: Ez dezute serbituko Babiloniako erregea.

10. Zeren gezurra profetizatzen dizuten, ipiñierazitzeko zuek zuen lurretik urrutian, eta zuek aurtikiak izateko, eta galduak izan zaitezten.

11. Zeren Babiloniako erregearen uztarriaren azpian bere lepoa jartzen duen, eta bera serbitzen duen jendea, utziko det bere lurrean, esaten du Jaunak, eta landuko du lur hura,eta an biziko da.

12. Sedezias Judako erregeari ere adirazi niozkan gauza guzi oiek, esaten nuela: Jarri itzatzute zuen lepoak Babiloniako erregearen uztarriaren azpian, eta serbitu itzatzute bera, eta bere erria, eta biziko zerate.

13. Zergatik ilko zerate zu, eta zure erria ezpataz, eta gosez, eta izurriz, lendanaz adirazi dion bezela Jaunak, Babiloniako erregea serbitu nai ez duen jendeari?

14. Ez itzatzute aditu profeten itz, esaten dizutenena: Etzerate zuek Babiloniako erregearen morroiak izango, zeren berak gezurra esaten dizuten.

15. Zeren berak ez diraden nik bialduak, esaten du Jaunak, baizik gezurrak profetizatzen dituzten nere izenean; aurtikiak izan zaitezten, eta galduak izan zaitezten, ala zuek, nola geroko gauza gezurrezkoak adirazten dizkizuten profetak.

16. Eta apaizai eta erri oni itz egin nien esaten nuela: Oiek esaten ditu Jaunak: Ez itzatzute aditu zuen profeten itzak, zeñak profetizatzen dizuten, esaten dutela: Jakin ezazute Jaunaren elizako ontzi konsagratuak orainshe bereala Babiloniatik biurtuak izango diradela, zeren gezurra profetizatzen dizute.

17. Ez itzatzute bada aditu beren itzak, baizik Babiloniako erregea serbitu ezazute, zuen biziak galdu ez ditzatzuten: zergatik erri au eremu egiña geldituko da?

18. Eta profetak baldin badira, eta badago berakgan Jaunaren itza, erregutu dizaiotela ejerzituen Jaunari, Jaunaren tenploan, eta Judako erregearen jauregian, eta Jerusalenen gelditu diraden ontziak ere Babiloniara joan ez ditezen.

19. Zeren oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak erri onetan gelditu diran abearri, ondape, itsaso, eta beste ontzien gañean;

20. Zeñak etzituen eraman Nabukodonosor Babiloniako erregeak, aldatu zituenean erri onetara Jerusalendik Jekonias, Joakin Judako erregearen semea, eta Judako eta Jerusalengo andizki guztiak.

21. Ejerzituen Jaunak, Israelko Jaungoikoak bada onela itz egiten du, Jaunaren tenploan, eta Judako erregearen jauregian, eta Jerusalenen gelditu ziraden ontzien gañean:

22. Babiloniara izango dirade eramanak, eta an egongo dirade, aliketa nik bisitatua izan dedin artean, esaten du Jaunak: bada nik orduan biurtu eraziko diozkatet, eta ekarri toki onetara.

OGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Urte artan beratan, Sedezias Judako erregearen agintaritzako asieran, laugarren urteko bosgarren illean, Hananias, Azurren seme, Gabaongo profeta gezurrezkoak esan zidan Jaunaren tenploan apaizen,eta erri guztiaren aurrean.

2. Oiek esatenditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jaungoikoak: Nik zatitu det Babiloniako erregearen uztarria.

3. Bi urte osoen barrenen, nik egingo det toki onetara ekarriak izan ditezela Nabukodonosor Babiloniako erregeak toki onetan artu, eta Babiloniara eraman zituen Jaunaren tenpoko ontzi guztiak.

4. Eta nik itzulieraziko diet toki onetara Jekonias, Joakin Judako erregearen semeari, eta Judatik Babiloniara katibu eramanak izan ziraden guztiai, esaten du Jaunak, zeren nik babiloniako erregearen uztarria zatituko dedan.

5. Eta bereala Jeremias profetak erantzun zion Ananias profetari, Jaunaren etxean arkitzen ziran apaizen, eta erri guztiaren aurrean.

6. Eta Jeremias profetak esan zuen: Amen, arren bada ala egingo al du Jaunak: arren bada egiztatuko al dirade itz oiek zeñakin zuk profetizatu dezun, alako moduan, non, biurtuak izan ditezela ontzi konsagratuak Babiloniatik Jaunaren Etxera, eta katibu eramanak izan ziraden judu guztiak ere toki onetara itzuli ditezela.

7. Alaere aditu ezazu, nik zure belarriai, eta erri guziaren belarriai esaten diedan itz au.

8. Munduaren asieratik, ni eta zu baño lenago izan diran profetak ere, profetizatu ziozkaten berak ere erri askori, eta erreñu andiai gerrak, atsekabeak, eta goseteak.

9. Orain pakea profetizaten duen profeta, egiztatzen bada berak esaten duena, orduan jakingo da, dala profeta bat Jaungoikoak egiaz bialdua.

10. Eta Hananias profetak artu zuen Jeremias profetaren lepotik katea, eta zatitu zuen.

11. Eta au egiñik esan zuen Hananiasek erri guztiaren aurrean: Oiek esaten ditu Jaunak: Onela zatituko det nik emendikan bi urtera, Nabukodonosor Babiloniako erregeak, erreñu guzien lepoen gañean ipiñi duen uztarria.

12. Eta Jeremias profeta joan zan bere bidean. Eta Jaunak, Hananias profetak zatitu ta gero Jeremias profetak lepoan zeraman katea, itz egin zion oni, esaten zuela:

13. Zoaz, eta esan zaiozu Hananiasi: Oiek esaten ditu Jaunak: Zuk zatitu dituzu zurezko lokarriak; eta nik esaten diot Jeremiasi: Zuk beren lekuan egin itzatzu beste batzuek burnizkoak.

14. Zeren oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak: Ni noa ipintzera burnizko uztarri bat erreñu guzti oien lepoaren gañean, serbitu dezaten Nabukodonosor Babiloniako erregea, eta egiaz bere mendean egongo dirade. Lurreko abererañokoak jarri ditut bere agindura.

15. Eta gañera Jeremias profetak esan zion Hananias profetari: Aizazu, Ananias, etzaitu zu Jaunak bialdu, eta alaere arturik zure aoan bere izena, egin dezu erri onek gezurrean itxedon dezala.

16. Argatik oiek esaten ditu Jaunak: Jakin ezazu, nik aterako zaitudala mundu onetatik. Zu ilko zera urte onetan, Jaunaren kontra itz egin dezun ezkero.

17. Alaxe da, Hananias profeta il zan urte artan, zazpigarren illean.

OGEITA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Oiek dira, Jeremias profetak, Jerusalendik, katibu eramanak izan ziradenen artean gelditzen ziran zarrai, eta apaizai, eta profetai, eta Jerusalendik Babiloniara eramana izan zan erri guztiari bialdu zien liburuko itzak:

2. Atera ezkero Jerusalendik Jekonias erregea, eta erregiña, eta txikiratuak, eta Judako eta Jerusalengo prinzipeak, eta langilleak, eta soñekoen gordetzalleak.

3. Jeremiasek bialdu zuen liburu au Elasa Safanen semearen, eta Gamarias Elziasen semaren eskuz, zeñak joan ziran Babiloniara Sedezias Judako erregearen aginduz, Nabukodonosor Babiloniako erregeagana. Liburuan eskribituak zeudenak ziraden oiek:

4. Oiek esaten diozkate ejerzituen Jaunak, Israelko Jaungoikoak, nik Jerusalendik Babiloniara katibu bialdu ditudan guztiai.

5. Jaso itzatzute etxeak, eta beretan bizi zaitezte eta egin itzatzute baratzak eta jan ezazute beren frutuetatik.

6. Egin itzatzute ezkontzak, iduki ditzatzuten semeak, eta alabak, ezkondu itzatzute zuen semeak, eta eman zaiozkazute senarrak zuen alabai, onela jaio ditezen semeak eta alabak; eta ugaritu zaitezte or, eta etzaitezte gelditu gutxi batzuetan.

7. Eta egin itzatzute alegiñak pakean egon dedin erri ori, zeñatara eraman zinduztedan; eta erregutu zaiozute beragatik Jaunari, zeren bere pakean idukiko dezute zuek zuen pakea.

8. Zeren oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak: Etzaitzatela engañatu zuen erdian dauden zuen profetak, ezta ere zuen aztiak. Eta ez ezazute begiratu zuek egiten dituzuten zuen amesetara:

9. Zeren gezurrarekin profetizaten dizute aiek nere izenean; eta nik ez nituen bialdu, esaten du Jaunak.

10. Jaunak esaten duena, au da: Asitzen diradenean kunplitzen, zuek Babilonian zaudeten irurogeita amar urteak, nik bisitatuko zaituztet, eta kunplituko det nere gogoko eskeñtza, zuek toki onetara biurtzeko.

11. Zeren nik badakizkit zuen gañean dauzkadan asmazioak, esaten du Jaunak; pakeko, eta ez atsekabeko asmazioak; ipintzeko zuek askatuak, zeren onetara zuzentzen dirade zuen itxedopenak.

12. Orduan ots egingo didazute, eta joango zerate; eta erregutuko didazute, eta nik biguñtasunarekin adituko zaituztet.

13. Billatuko nazute, eta arkituko nazute, zuen biotz guziarekin billatzen nazutenean:

14. Orduan izango naiz ni zuek arkitua, esaten du Jaunak; eta nik itzulieraziko dizutet katiberiotik, eta bilduko zaituztet, erbestetu zinduztedan erreñu guzietatik, eta toki guzietatik, esaten du Jaunak, eta biurtueraziko dizutet joanerazi nizuten tokitik.

15. Baña zuek esan dezute: Jaunak bialdu dizkigu profetak Babilonian.

16. Ona bada emen esaten duena Jaunak, Sedezias errege, Dabiden tronuan eserita dagoenaren, eta erri onetan bizi dan jende guziaren, au da, zuekin erbestera irago ez diran zuen anaien gañean.

17. Oiek dirade ejerzituen Jaunak esaten dituenak: Jakin ezazute nik beren kontra bialduko dedala ezpata, eta gosea, eta izurria; eta egingo dedala berakin piku gaizto, aurtiki oi diradenakin bezela, jan ezin litezkealako txit gaiztoak diradelako.

18. Eta persegituko ditut ezpatarekin, eta gosearekin, eta izurriarekin; eta jarriko ditut lurreko erreñu guzien mendean gaizki erabilliak izan ditezen; eta izango dirade, aurtikitzen ditudan erreñu guzien madarikazioa, eta izua, eta irria, eta lotsaria,

19. Etzituztelako aditu nai, esaten du Jaunak, nere itz, adirazi nieztenak nere serbitzari profeten aoz, bialtzen nieztela denbora egokian eta lendanaz. Baña zuek etzenduten obeditu nai, esaten du Jaunak.

20. Bitartean zuek guziok, zeñai iragoerazi nien nik Jerusalendik Babiloniara, aditu ezazute Jaunaren itza.

21. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak Akab Koliasen semearen, eta Sedezias Maasiasen semearen, nere izenean gezurrarekin profetizatu zizutenen gañean: Jakin ezazute, nik jarriko ditudala Nabukodonosor Babiloniako erregearen eskuetan, zeñak illeraziko dituen zuen begien aurrean.

22. Alako moduan, non, Judatik Babiloniara eramanak izan diraden guztiak artuko dituzte madarikazioko esangitzat, esaten dutela: Jainkoak jarri aikala Sedezias eta Akab bezela, zeñak suan erre zituen Babiloniako erregeak:

23. Egin zituztelako berak barbullkeriak nazkagarriak Israelen, eta erori ziradelako aragizko bekatuetan beren adiskideen emazteakin, eta gezurrak esan zituztelako nere izenean, nik onetarako aginterik eman gabe. Ni naiz jueza eta testigua, esaten du Jaunak.

24. Esango ere diozu Semeias, Nehelamtarrari:

25. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jaungoikoak: Bialdu ziñiozkalako liburuak zure izenean, Jerusalenen arkitzen dan erri guziari, eta Sofonias, Maasias apaizaren semeari, eta apaiz guztiai, esaten ziñiola Sofoniasi,

26. Jaunak jarri zaitu apaiz nagusi, Joiada apaizaren lekuan zuk eskubidea iduki dezazun Jaunaren etxean, aurkatzeko bere buruz profetatzera datorren gizon guztiari, eta sartzeko zegoan, eta karzelan.

27. Nola da bada ez errierta egitea Jeremias Anatotkoari, zeñak profetizatzen dizuten zuei?

28. Eta gañera bialdu dizkigu mandatariak onara Babiloniara, esatera: Etzera biurtuko denbora andian. Egin itzatzute etxeak, eta beretan bizi zaitezte. Jarri itzatzute zuaitz landareak baratzetan, eta jan itzatzute beren frutuak.

29. Irakurri zuen bada Sofonias apaizak liburu au Jeremias profetaren aurrean.

30. Eta orduan Jaunak onela itz egin zion Jeremiasi:

31. Bialdu ezazu esatera, Babiloniara eramanak izan diraden guztiai: Oiek esaten ditu Jaunak Semeias Nehelamtarraren gañean: Semeiasek profetizatu dizutelako, nik bera bialdu gabetanik, eta gezurren itxedonerazi dizutelako.

32. Argatik oiek esaten ditu Jaunak: Ona emen non nik kastigatuko dedan Semeias Nehelamtarra, eta bere jatorria. Ez du beñere idukiko bere jatorriko gizasemerik, erri onen erdian eseriko danik; eta ez du ere ikusiko, ni nere erriari egitera noan mesedea, esaten du Jaunak, zeren Jaunaren kontra fedeausle batek bezela itz egin duen.

OGEITA AMARGARREN KAPITULUA

1. Jaunak Jeremiasi itz egin zion, esaten zuela:

2. Au da Israelko Jaun Jainkoak agintzen duena: Eskribatu itzatzu liburu batean nik esan dizkizudan itz guziak.

3. Zeren ona non etorriko dan denbora, esaten du Jaunak, zeñean itzulieraziko diedan nik nere erri Israel, eta Judako katibuai, eta biurtueraziko diet, esaten du Jaunak, beren gurasoai eman nien lurrera, eta bere jabe izango dirade.

4. Ona emen Jaunak Israeli, eta Judari zuzendu ziozkan itzak:

5. Onela itz egiten du Jaunak: Egunen batean esango dezute: Aditu ditugu izu, eta ikarazko bozak; eta ez pakekoak.

6. Galde ezazute, eta jakin gizasemeak ote diran aurrak egingo dituztenak. Zeren, nola da ikusten ditudala antsiaz beteak gizaseme guztiak eta beren gerrien gañean eskuak dituztela, aurregiten ari dan andrea bezela, eta beren arpegiak kolore oriko biurtuak?

7. Ai! Zeñ andia dan egun hura, eta ez dago besterik bere antzekorik, atsekabeko denbora Jakobentzat, zeñatatik atzenean libratua izango dan.

8. Eta gertatuko da egun artan, esaten du ejerzituen Jaunak, nik zatituko dedala, Nabukodonosorrek zure lepoaren gañean ipiñi zuen uztarria, eta ausiko ditut bere hedeak, eta etzera berriz egongo arrotzen mendean,

9. Baizik Israelko semeak serbituko dute beren Jaun Jainkoa, eta Dabid beren erregearen semea, zeñ nik jasoko dedan berentzat.

10. Etzaite bada beldur izan zu, o nere serbitzari Jakob, esaten du Jaunak, eta ez ezazu ere beldurrik iduki, o Israel, zeren nik aterako zaitudan, zauden toki urruti orretatik; eta zure jatorria katibu dagoen erreñutik; eta Jakob itzuliko da, eta biziko da atsedenean eta ondasunen ugaritasunean, iñoren beldurrik iduki gabe.

11. Zeren ni zurekin nagoen, esaten du Jaunak, zu salbatzeko, zeren nik desegingo ditut erreñu guziak, zeñaen artean barreiatu zindudan; zu berriz etzaitut osotoro desegingo, baizik kastigatuko zaitut nere erabakien araura, obengabetzat iduki etzaitezen.

12. Ala bada, oiek esaten ditu Jaunak: Sendatu eziña da zure ebakia; zure zauria txit gaiztoa da.

13. Ez dago eman dezakeanik zure gaitzaren erabaki zuzenik, bera sendatzeko, sendagarriak ez dizute onik egiten.

14. Zure maitatzalle guziak zurekin aztu dira, eta etzaituzte billatuko, ikusirik egin dizudala zauri bat etsai eskuarekin bezela, eta azote ikaragarri batekin; zeren zure bekatuetan gogortua zauden, zure gaiztakeriaren ugaritasunagatik.

15. Zergatik deadar egiten dezu zure penetan? Zure oñazea sendatu eziña da. Zure gaiztakerien ugaritasunagatik, eta zure bekatuetan gogortua zeundelako egin nituen zurekin gauza oiek.

16. Zuri usikitzen dizutenak berriz iretsiak izango dirade, eta zure etsai guztiak izango dirade katibu eramanak, eta zu arras desegitzen zaituztenak, arras desegiñak izango dirade; eta zuri zure gauzak arrapatzen dizkizutenai, berai ere arrapatuak izango zaiezte.

17. Zeren nik zure zauria arradizatuko dedan, eta sendatuko ditut zure zauriak, esaten du Jaunak. Berak, o Sion, aurtikia ots egin dizute. Au da, esaten dute, merkataririk ez daukana.

18. Baña oiek esaten ditu Jaunak: Nik egingo det itzuli ditezela, Jakoben etzauntzetan bizi diraden katibuak, eta beren etxeakin urrikalduko naiz, eta erria berriz egiña izango da bere alturan, eta tenploa ere len zegoen bezela izango da egiña,

19. Eta aterako dira beren ezpañetatik bozkariozko alabantza, eta bozak. Eta nik ugarituko ditut, eta ez dirade gutxituko, gloriaz beteko ditut, eta ez dirade berriz zitaltzat idukiak izango.

20. Eta beren semeak asieran bezela izango dirade leialak, eta beren batzarreak sendoki iraungo du nere aurrean; eta kastigatuko ditut atsekabetzen dituzten guztiak.

21. Eta beragandik jaioko da bere Gialaria, eta bere erditik aterako da argitara Prinzipea; zeñ neri itsatsiko dedan, eta bera nerekin estutuko da. Zeren, zeñ da bere biotzarekin nigana alderatzen dana, esaten du Jaunak?

22. Zuek orduan izango zerate nere erri leiala, eta ni izango naiz zuen Jaungoikoa.

23. Baña ona emen non Jaunaren aize bunbada, aize jarioan dagoen sumintasuna, aldean dagoen ekaitza, guztia eroriko da gaiztoen buruen gañera.

24. Ez du alderik egingo Jaunaren aserrearen sumintasunak, aliketa egin eta egiztatu ditzan artean bere biotzeko asmazioak. Denboren atzenean konprendituko dituzute gauza oiek.

OGEITA AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Denbora artan, esaten du Jaunak, ni izango naiz Israelko tribu guztien Jaungoikoa, eta berak nere erria izango dirade.

2. Oiek esaten ditu Jaunak: Arkitu zuen grazia eremuan, ezpatak ukiturik egin etzion erriak. Joango da Israel bere atsedenera.

3. Egia da bisitatu ninduela Jaunak, erantzuten du Israelek, baña denbora andia da. Ez dezu esaten ongi, erantzuten du Jaungoikoak; zeren nik betiko amorioarekin maitatu zaitudan: argatik urrikaltasunarekin ekarri zindudan nigana.

4. Eta berriz ere berriztatuko zaitut, eta izate berria emango dizut, O Israelko birjiña, oraindik aterako zera zure panderoen otsa lagun dezula, eta ibilliko soñulari taldez ingurutua.

5. Oraindikan ipiñiko dituzu mastiak Samariako mendietan, eta ipintzen dituztenak, ez dute mendainik egingo, denbora etorri dedin artean.

6. Zeren denbora etorriko dan, zeñean bealariak deadar egingo duten Efraimgo mendian: Goazen guziok, eta igo gaitezen Sionera, gure Jaun Jainkoaren tenplora.

7. Zeren oiek esaten dituen Jaunak: Bozkariotu zaitezte, eta egin itzatzute jolasak Jakoben amorioz; eta egin itzatzute pozezko deadarrak

erreñuen aurrean. Jo itzatzute soñuak, eta kantatu ezazute, eta esan ezazute: Salbatu ezazu, Jauna, zure erria, salbatu itzatzu Israelko kutsuak.

8. Jakin ezazute, esaten du Jaunak, nik ekarriko ditudala guztiak ifarreko errietatik, eta lurraren atzeneko mugetatik bilduko ditut. Beren artean batean etorriko dirade itsua eta errena, aurduna eta aurra egin duena; andia izango da onara etorriko diradenen taldea.

9. Etorriko dirade negar egiten dutela bozkarioz, eta nik, berakin urrikalduta, zuzenduko ditut datoztenean ur garbizko errekaen erditik, bide zuzenetik, eta beaztoporikan batere gabetanik, zeren Israelko Aita ni naizan, eta Efraim da nere seme lenbizisortua.

10. Aditu ezazute, o erreñuak, Jaunaren itza, eta adirazi zaiozute ugarterik urrutienekoai, eta esan ezazute: Israel barreiatu zuenak berak, bilduko du, eta zaituko du, artzaiak bere artaldea zaitzen duen bezela.

11. Zeren Jaunak Jakob erredimitu duen, eta libratu duen sendoagoaren eskutik.

12. Eta etorriko dirade, eta alabatuko dute Jaungoikoa Siongo mendian. Eta korrika joango dira Jaunaren ondasunak arrapatzera, garia, ardoa, olioa, eta arkumeak, eta beiak, eta beren anima egongo da, ura ugari daukan jardiña bezela; eta ez dirade berriz premian arkituko.

13. Orduan bozkariotuko dirade birjiñak soñulari talden otsean, eta gazteak ere zarrakin batean. Nik biurtuko det beren negarra pozean, eta gozatuko ditut, eta bozkarioz beteko ditut, irago dan beren oñazearen ordez.

14. Eta aseko det apaizen anima beste aragi txit gizen batzuekin, eta nere erria izango da nere ondasunez txit betea, esaten du Jaunak.

15. Zeren oiek esaten dituen Jaunak: Adituak izan dirade an goian Rakelen suspirioen, adiakaen eta aiarien bozak, Rakelenak, bere semeakgatik negarrez dagoanarenak, eta beren gañean gozatua izatea nai ez duenarenak, onezkero ez daudelako bizirik.

16. Jaunak onela itz egiten du: Beude zure ezpañak negarrezko itzik esan gabe, eta zure begiak malkorik bota gabe; zeren zure atsekabeagatik ordaña artuko dezun, esaten du Jaunak; eta berak itzuliko diran etsaien lurretik.

17. Eta zure atzeneko egunetarako gelditzen zatzun itxedopena da, esaten du Jaunak, zure semeak beren etxeetara itzuliko diradela.

18. Arretaz egon naiz Efraimi aditzen, zeñak bere katiberioan esaten duen: Zuk, o Jauna, kastigatu nazu, eta erakutsia izan naiz idisko uzua bezela. Itzuli nazazu zugana, eta ni itzuliko naiz; bada zu, o Jauna, nere Jaungoikoa zera.

19. Zeren orain nago ikusten, zuk biurtu ninduzunean, nik penitenzia egin nuela, zuk arkitu ninduzunean, otsak eman niozkan nere bularrari, eta nastua, ta lotsatua gelditu naiz; zeren iduki det begien aurrean nere gazte denborako lotsaria.

20. Ez al da Efraim neretzat seme maitatua, bozkarioakin azi dedan aurra? itz egin nionetik onara, darabilt beti nere gogoan. Argatik mugitu dira erraiak bere amorioagatik. Eta idukiko ditut beretzat urrikaltasuneko erraiak; esaten du Jaunak.

21. Izan zaite bada, o Efraim, bealari baten gisakoa. Egin itzatzu penitenzia gogorrak, itzuli ezazu zure biotza, len ibilli ziñan bide zuzenera; itzuli zaite, o Israelko birjiña, itzuli zaite zure errietara.

22. Noizarteraño egongo zera ase eta betetzen gozotasunen erdian, o alaba galdua? Bada begira ezazu Jaunak egin duela gauza berri bat lurraren gañean, emakume birjiña batek idukiko du bere barrenen Jaungoiko gizona.

23. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak: Oraindikan adituko dirade itz oiek Judako lurrean, eta bere errietan, nik bere katibuak erredimitzen ditudanean, bedeikatu zaitzala Jaunak, o justiziaren egonleku ederra, o mendi santua.

24. Eta Juda an biziko da, eta bere erri guztiak batean. Ala lurra landutzen dutenak, nola abereak bazkatzen dituztenak.

25. Zeren nik moskortuko det Sionen, egarriz dagoen anima guztia, eta gose dan guztia aseko det.

26. Argatik esnatu nintzan ni ames batetik bezela, eta idiki nituen begiak, eta gozatu nintzan nere amesean.

27. Ona emen non datorren denbora, zeñean ereingo dedan nik Israelko etxean eta Judako etxean gizasemeen azia, eta zamarien azia.

28. Eta nola kontuan egon nintzan berak desegiteko, eta zeatzeko, eta zabaltzeko eta barreiatzeko, eta atsekabetzeko, ala ez det orain denborarik galduko berak ekartzeko eta sendotzeko, esaten du Jaunak.

29. Egun aietan ez da adituko berriz esangai hura. Gurasoak jan zituzten matz zorigabeak, eta semeak egon ziraden ozkiarekin,

30. Baizik bakoitza bere bakatuagatik ilko da. Mats zoritu gabea jaten duen gizonak, orrek idukiko du ozkia.

31. Ona emen non datorren denbora, esaten du Jaunak, zeñean nik egingo dedan elkartasun berri bat Israelko etxearekin, eta Judako etxearekin.

32. Elkartasuna, ez egin nuen bezelakoa beren gurasoakin eskutik arrapatu nituenean, Ejiptoko lurretik berak ateratzeko, elkartasun bat,

berak utsera biurtu zutena, eta argatik iduki nuen beren gañean agintaritza osoa, esaten du Jaunak.

33. Baña au izango da nik egingo dedan elkartasun berri bat, esaten du Jaunak, Israelko etxearekin, etortzen danean denbora hura. Itsatsiko det nere legea beren erraietan, eta tinkatuko det beren biotzetan; eta ni izango naiz beren Jaungoikoa, eta berak izango dirade nere erria.

34. Eta ez du onezkero gizonak izan bearko bere projimuaren erakuslea, ez anaiak anaiarena, esaten duela: Ezagutu ezazu Jauna, zeren guztiak txikienetik andieneraño ezagutuko naute, esaten du Jaunak, zeren nik bere gaiztakeria barkatuko diodan, eta ez naiz berriz bere bekatuarekin oroituko.

35. Oiek esaten ditu Jaunak, arako Jaun, bialtzen duenak eguzkia egunari argia emateko; eta bide zuzenetik darabiltzkianak illargia eta izarrak gaua argitzeko; itsasoa nastutzen duenak, eta bereala bere bagak orroaka ipintzen dituenak, ejerzituen Jaunaren izena daukanak.

36. Nere Probidenziak ipiñitako lege oiek utsean gelditzen diradenean, orduan Israelko jatorria ere utsean gelditu diteke, eta ez izan nere aurrean beti irautzen duen erreñu bat.

37. Oiek ere oraindikan esaten ditu Jaunak: Baldin iñork neurtu al balitzake an goian zeruak, eta esaminatu an bean lurraren zimenduak, orduan aurtiki nezake nik Israelko jatorri guztia bere gaiztakeriakgatik, esaten du Jaunak.

38. Jakin ezazute badatorrela denbora, esaten du gañera Jaunak, zeñean Jaunak egingo duen erria Hananeelen dorretik, Bazterrekoa deritzan ateraño.

39. Eta neurriko arraia egingo da aurrerago, ate orren aurkez, Garebko muñoaren gañean, eta jarraituko du jira egiñaz Goatakotik,

40. Eta gorputz illen eta autsaren Ibar guzitik, eta urkatuak diradenen toki guzitik, eta Sortaldean dagoen zaldien atearen egiraño Jaunaren santuarioa beñere ez da izango ateratua, ez desegiña.

OGEITA AMABIGARREN KAPITULUA

1. Jaunak Jeremiasi esan ziozkan itzak, Sedezias Judako erregearen amargarren urtean, zeñ dagokion Nabukodonosorren emezortzigarren urteari.

(2. Era artan Babiloniako erregearen ejerzituak zeukan Jerusalen ingurutua, eta Jeremias profeta zegoan zarratua Judako erregearen etxean zegoan presoindegiko atarian.

3. Zeren Sedezias Judako erregeak sartu zuen karzelan, esaten zuela: Nola zabiltz profetizatzen, eta esaten, oiek esaten ditu Jaunak: Jakin ezazute nik jarriko dedala erri au Babiloniako erregearen eskuetan, zeñak bera arrapatuko duen.

4. Eta Sedezias Judako erregeak ez du iges egingo Kaldeatarren eskuetatik, baizik Babiloniako erregearen eskuetan eroriko da, eta berarekin aoz ao itz egingo du, eta ikusiko du bere begiakin.

5. Eta Sedezias Babiloniara eramango du, non egongo dan nik bisitatu dezadan artean, esaten du Jaunak? Baldin berriz Kaldeatarren kontra gudatzen bazerate, ez dezute gauza onik idukiko.)

6. Jeremiasek bada karzelan zegoela, esan zuen: Jaunak itz egin dit, esaten duela:

7. Begira ezazu, Hanameel, Selumen seme, zure lengusua aitaren aldetik, etorriko dala zuri esatera, erosi dizaiozula, Anatoten daukan kanpo bat, zuri dagotzulako erostea, zu zeralako aiderik aldekoena.

8. Alashe da; Jaunaren itzaren araura, Hanameel, nere aitaren aldeko osabaren semea etorri zan nerekin itz egitera karzelako atarira, eta esan zidan: Erosi zadazu, Anatot Benjamingo lurrean daukadan kanpoa, zeren zuri dagokizun bere jabe izatea herenziako legez, zu zeralako aiderik aldekoena. Aditu nuen berriz Jaunaren itza zala hura;

9. Eta erosi nion Anameel, nere aitaren aldameneko osabaren semeari, Anatoten zegoen kanpo hura, eta pisatu nion dirua amazazpi ziklo zillarrezko.

10. Eta eskribitu nuen liburuan, eta sillutu nuen, eta ekarri nituen testiguak, eta pisatu nuen zillarra balanzan.

11. Eta artu nuen jabetasuneko liburua sillututa, eta elkartasunak, eta ongitzat emanak, eta kanpotiko silluak.

12. Eta jabetasuneko liburu au eman nion Baruk, Neri, Maasiasen semearen semeari, Hanameel nere lengusuaren aurrean, erosteko liburuan eskribituak zeuden testigen aurrean, eta karzelako atarian zeuden Judu guztien aurrean.

13. Eta beren aurrean agindu nion Baruki, esaten nuela:

14. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jaungoikoak: Artu itzatzu liburu oiek, erosteko liburu au, sillutua, eta idikia dagoen liburu au, eta ipiñi itzatzu buztiñazko ontzi batean, denbora andian iraun dezaten.

15. Zeren oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jaungoikoak: Oraindikan izango dirade lur oietan etxeen, eta kanpoen, eta mastien jabeak.

16. Eta eman nionean Baruk Neriren semeari jabetasuneko liburua, jarri nintzan orazioan, eta esan nuen:

17. Ah! Ah! Ah! Nere Jaun Jaungoikoa. Ah! Ongi ikusten det zuk egin ziñituela zerua eta lurra zure eskubide andiarekin, eta zure beso sendoarekin, gauzarikan batere ez da zuretzat iñoiz gaitza izango.

18. Zu zera urrikaltasuna egiten dezuna milla gizalditan; eta kastigatzen dezuna gurasoen gaiztakeria, oiek ez diradenean, beren semeetan. Zu zera txit sendoa, Andia, Almentsua. Ejerzituen Jauna da zure izena.

19. Andia zera zure erabakietan, eta adituezíña zure asmazioetan, zeñaen begiak idikiak dauden Adanen semeen ibillera guzien gañean, emateko bakoitzari bere egiteen araura, eta bere bizitzako irabazien araura.

20. Zuk egin ziñituen miriariak, eta gauza arrigarriak, beren oroipenak gaurko eguneraño irautzen duenak Ejiptoko lurrean, eta Israelen, eta gizon guztien artean, eta egin zenduen aiñ andia zure izena, nola ikusten dan daukazula gaurko egunean.

21. Zuk atera zenduen Israelko zure erria Ejiptoko lurretik miriariakin, gauza arrigarriakin, esku almentsuarekin, eta beso sendoarekin, eta izu andiarekin;

22. Eta eman ziñien lur au, juramentuarekin beren gurasoai eskeñi ziñien bezela, eznea eta eztia darizkion lurra.

23. Eta berak sartu ziran lur artan, eta izan ziran bere jabeak; baña etzioten zure bozari obeditu, eta etzioten ere zure legeari jarraitu; agindu ziñioten gauzetatik batere etzuten egin, eta argatik etorri zaiezte gaitz guzi oiek.

24. Ona emen non dauden gerrako tresnak erriaren kontra jasota, arrapatua izan dedin; eta nola dagoan Kaldeatarren eskuetan erortzeko zorian, zeñak erasotzen dioten armakin, gosearekin, eta izurriarekin; eta esan ziñituen gauza guztiak, o nere Jaungoikoa, diradenak kunplitu dirade, ikusten zauden bezela.

25. Eta alaere zuk, o nere Jaun Jainkoa, esaten didazu neri: Erosi ezazu kanpo bat, dirua eskuan emanda, testigen aurrean, erria Kaldeatarren eskuetan erortzera dijoanean.

26. Eta orduan Jaunak Jeremiasi itz egin zion, esaten zuela:

27. Begiratu ezazu ni naizala aragi guziaren Jaun eta Jainkoa: neretzat gauza gaitzik batere bai al dago?

28. Argatik oiek esaten ditu Jaunak: Jakin ezazu ni noala ipintzera erri au Kaldeatarren eskuetan, eta Babiloniako erregearen mendean, eta arrapatuko dute.

29. Eta sartuko dirade Kaldeatarrak erri onetan ezpatak eskuetan dituztela, eta su emango diote, eta erreko dute, neri aserretu erazitzeko, Baali doañak, eta jainko arrotzai libazioak eskeñtzen ziozkaten etxe, eta sabaiakin batean.

30. Zeren Israelko semeak eta Judako semeak beren gazte denboratik ari diran gaizki egiten nere begien aurrean; Israelko semeak, esaten det, zeñak oraindaño ez duten besterik egiten baizik neri aserretuerazi beren eskuetako lanakin, esaten du Jaunak.

31. Alako moduan, non, begiratu bear diot erri oni aserre eta sumintasunarekin; bada oien diña da, egiña izan zan egunetik onaraño; orain berriz borratua izango da nere begien aurretik.

32. Israelko semeen, eta Judako semeen gaiztakeriagatik, zeñ egin zuten aserretuerazi zidatenean berak, eta beren erregeak, eta beren prinzipeak, eta beren apaizak, eta beren profetak, Judako gizasemeak, eta Jerusalenen bizi diradenak.

33. Eta beren atzea biurtu zidaten, eta ez beren arpegia, nik goizetik ematen nieztenean erakutsiak, eta kontuan ipintzen nituenean, etzutela berak aditu nai, ez artu zuzenbideak.

34. Eta ipiñi zituzten beren idoloak, nere izenari ots egiten zitzaion etxean, berau kutsutzeko.

35. Eta jaso ziozkaten aldareak Baali Ennonen semearen ibarrean konsagratzeko beren semeak, eta beren alabak Moloki. Nik neretzat beñere agindu ez nien gauza bat, eta gogotikan ere etzitzadan irago, berak alako gauza nazkagarririk egingo zutela, eta ekarriko zutela Juda alako bekaturik egitera.

36. Eta orain gauza oien erdian, onela itz egiten dio Jaunak, Israelko Jaungoikoak erri oni, zeñgatik esaten dezuten zuek Babiloniako erregearen eskuetan eroriko dala armen, eta gosearen, eta izurriaren indarrez.

37. Jakin ezazute bilduko ditudala, barreiatu nituen erreñu guztietatik nere sumintasunean, nere koleran, eta nere aserre andian, eta biurtuko ditut toki onetara non biziko diran pake osoan.

38. Eta berak nere erria izango dirade, eta ni izango naiz beren Jaungoikoa.

39. Eta emango diet biotz bat, eta fede bat, nere bildurrean iraun dezaten beren bizitzako egun guztietan; izan ditezen doatsuak berak, eta beren ondoan beren semeak.

40. Eta egingo det berakin betiko elkartasun bat, eta beñere ez diot utziko, berai ongi egiteari. Eta ipiñiko det beren biotzetan nere beldurra, ez dezaten nigandik alderik egin.

41. Eta nere poza izango da, berai mesedeak egitea; eta ipiñiko ditut lur onetan, egiaz, eta nere biotz guzitik, eta nere anima guzitik.

42. Zeren oiek esaten ditu Jaunak: Nola aurtiki dedan erri onen gañera gaitz andi guzi au, ala beteko ditut eskeñi niezten on guziakin.

43. Eta berriz izango dirade lur onetako kanpoen jabeak; zeñgatik zuek esaten dezuten eremutua dagoela, ez dalako bertan gelditu gizonik, ez abererik, izan zalako utzia Kaldeatarren eskuetan.

44. Kanpoak izango dirade diruaz erosiak, eta eskribituko dira liburuan, eta inprimituko da sillua, eta egongo dira testiguak, Benjaminen lurrean, eta Jerusalengo inguruan, eta Judako errietan, eta mendietako errietan, eta kanpoetako errietan, eta Egoealderontz dauden errietan, nik beren katiberioari atzena ipiñiko diodan ezkero, esaten du Jaunak.

OGEITA AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Berriz itz egin zion Jaunak Jeremiasi, zegoela au oraindikan itxita karzelako atarian, eta esan zion:

2. Oiek esaten ditu Jaunak, egingo duenak, eta egiztatuko duenak, eta gertutuko duenak lendanaz esaten duena, ark, zeñaen izena dan Jauna.

3. Ots egin zadazu, eta nik adituko zaitut, eta agertuko dizkizut zuk ez dakizkizun gauza andiak, eta ziertoak.

4. Zeren oiek esaten ditu Jaunak, Israelko Jaungoikoak, erri onetako etxeen gañean; eta Judako erregearen, desegiñak izan diradenen gañean, eta murruen, eta ezpaten gañean,

5. Kaldeatarren kontra gudatzera joango diradenen gañean, eta zeñak beteko dituzten beren etxeak gizonen gorputz illez, zeñak nik zauritu nituen nere aserre, eta sumintasunean, alde erazirik nere arpegiari erri orregandik bere gaiztakeria guztiak gatik.

6. Ona emen non nik zarratuko ditudan beren zauriak, eta biurtuko diet osasuna, eta sendatuko ditut, eta egingo det egon ditezela pake osoan, egiztaturik nere eskeñiak, berak eskatu duten eran.

7. Eta egingo det biurtu ditezela Judako katibuak, eta Jerusalengo katibuak, eta itzuliko ditut beren lenbiziko egoerara.

8. Eta garbituko ditut gaiztakeria guzietatik, zeñakin bekatu egin zuten nere kontra, eta barkatuko dieztet bekatu guztiak, zeñakin ni ofenditu,eta mezpreziatu ninduten.

9. Onek egingo du, lurreko erreñu guztiak, zeñatara allegatu dan nik egin izango dieztedan mesedeen berria, zelebratuko dute pozez nere izen santua, eta alabatuko naute gozotasunezko bozakin, eta beldur ta izuz beteak geldituko dirade, nik emango dieztedan ondasun ugariakin, eta pake andiarekin.

10. Oiek esaten ditu Jaunak: Toki onetan (zeñi zuek ots egiten diozuten eremua, ez dagoelako bertan gizonik, ez abererik) Judako errietan, eta Jerusalengo inguru, daudenetan arrasatuak, eta gizonik batere gabe, iñor ere bizi ez dala, abererik ere gabe, adituko dira oraindik,

11. Bozkario eta gozotasuneko bozak; esposo eta esposaren bozak, jendeen bozak, esango dutenenak: Eman zaiozkazute alabantzak ejerzituen Jaunari, dalako Jauna aiñ ona; bere urrikaltasunari beti argi erazitzen diolako; baitaere Jaunaren etxean beren doañak eskeñtzera etorriko diradenen bozak, zeren nik biurtuko ditut beren lenengo egoerara, esaten du Jaunak, lur onetatik Babiloniara katibu eramanak izan ziradenak.

12. Oiek ere esaten ditu ejerzituen Jaunak: Toki eremutu onetan, non ez dan ikusten gizonik ez abererik, eta bere erri guztietan, oraindikan berriz ikusiko dira artzaien txaolak, zeñak bilduko dituzten artaldeak beren arditokietan.

13. Mendietako errietan, eta lauetako errietan, eta egoeko errietan, eta Benjamingo lurrean, eta Jerusalengo inguruetan, eta Judako errietan, ikusiko dira abereak, esaten du Jaunak, bere artzaiaren eskuaren azpian, zeñ joango dan kontatuaz.

14. Badatoz onezkero egunak, esaten du Jaunak, zeñatan nik egiztatuko dedan, Israelko etxeari eta Judako etxeari eman nien itz ona.

15. Egun aietan, eta denbora artan nik moteatueraziko diot Dabiden jatorriari Justiziako muskill bat; zeñak egingo duen juizioa eta justizia lurrean.

16. Egun aietan Juda salbatua izango da, eta Jerusalen biziko da pake oso batean, eta au da izena, zeñarekin ots egingo dioten: Gure Jaun Justoa.

17. Zeren oiek esaten ditu Jaunak: Beñere ez da Dabiden jatorria egongo, Israelko etxeko tronuaren gañean eseriko dan gizaseme bat gabe.

18. Eta ez da arkituko apaizen eta lebiten jatorria, holokaustoak neri eskeñtzeko, eta sakrifiziorako sua erazekitzeko, eta denbora guzietan doañerako abereak iltzeko gizaseme gabe.

19. Oraindikan ere itz egin zion Jaunak Jeremiasi, esaten zuela:

20. Oiek esaten ditu Jaunak: Utsean gelditu al badadi egunarentzat ipiñia daukadan erabakia, eta gauarentzat ipiñia daukadan erabakia, alako moduan, non, ez ditezen etorri eguna eta gaua bear duten denboran;

21. Utsean gelditu ere diteke nere elkartasuna Dabid nere serbitzariarekin, alako moduan, non, ez dan jaioko bere jatorritik, bere tronuan

egintatuko ez duen semerik, eta ez dan ere izango Lebita, ez apaiz nere ministrorik.

23. Oraindikan ere itz egin zion Jaunak Jeremiasi, esaten zuela:

24. Ez al dezu aditu zer esan duen erri onek, esaten duela: Jaunak autu zituen bi familiak aurtikiak daude? Alako moduan mezpreziatzen dute berak nere erria, non, beren begietan ez da erreñua.

25. Oiek esaten ditu Jaunak: Nik jarri ez banituen aldatu ez ditekean lege oiek egunaren eta gauaren artean, eta ez baniezten ere jarri legeak zeruari, ta lurrari;

26. Orduan gertatu diteke, nik aurtikitzea Jakoben eta Dabid nere serbitzariaren jatorria, alako moduan, non, utzi dizaiodala nik aututzeari bere jatorritik, Abraham, eta Isaak, eta Jakoben jatorriko prinzipeak. Baña nik itzuli eraziko diet katibu eramanak izan ziradenai, eta berakin urrikaltasuna idukiko det.

OGEITA AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Jaunak Jeremiasi esandako itzak, Nabukodonosor Babiloniako erregeak, eta bere ejerzitu guztiak, eta bere mendean zeuden lurreko erreñu guztiak gerran egiten zutenean Jerusalenen kontra, eta bere erri guztien kontra.

2. Oiek esaten ditu Jaunak, Israelko Jainkoak: Zoaz, eta itz egin zaiozu Sedezias Judako erregeari, eta esango diozu: Oiek esaten ditu Jaunak: Begira ezazu nik jarriko dedala erri au Babiloniako erregearen mendean, zeñak su emango dion.

3. Eta zuk ez dezu bere eskuetatik igesik egingo, baizik ziertoro izango zera arrapatua eta beretan jarria, eta zure begiak Babiloniako erregearen begiak ikusiko dituzte, eta itz egingo dezu berarekin arpeguz arpegi, eta Babilonian sartuko zera.

4. Alaere aditu ezazu Jaunaren itza, o Sedezias Judako erregea: Oiek esaten ditu Jaunak: Zu etzera ezpataz illa izango,

5. Baizik ilko zera berezko eriotzarekin; eta nola erreak izan ziran zure guraso lengo erregeak, zu baño aurreragokoak, ala erreko dute zure gorputz illa, eta negar egingo dute zugatik, deadarrez esaten dutela: Ai Jauna! Zeren, ala nik erabaki dedan, esaten du Jaunak.

6. Gauza guzti oiek esan ziozkan Jeremias profetak Jerusalenen Sedezias Judako erregeari.

7. Bitartean Babiloniako erregearen ejerzituak estututzen zituen, eta arrapatuak izan gabe gelditu ziran Judako erri guztiak, Lakis eta Azeka, zeren Judako erri murrutuetatik, bi oiek bakarrik etziran izan menderatuak.

8. Jaunak Jeremiasi esan ziozkan itzak, Sedezias erregeak egin zuenean elkartasun bat erri guztiarekin Jerusalenen, esaten ziela guztiai:

9. Utzi bear zituztela guztiak beren aukeran beren mendeko hebreotar morroiak, eta neskameak, eta ez zezala iñork ere beren gañean jabetasunik iduki, izanik ziraden bezela Juduak, eta beren anaiak.

10. Egiaz prinzipe guztiak, eta erri guztiak, egin zutenak elkartasuna utzitzeko beren aukeran bakoitzak beren mendeko morroiak, eta neskameak, eta aurrerakoan ez idukitzeko berak mendean, obeditu zuten, eta utzi zituzten beren aukeran.

11. Baña gero damutu ziran, eta indarrez eraman zituzten beren aukeran utzi zituzten mendeko morroiak, eta neskameak, eta berriz jarri zituzten katiberioko uztarriaren azpian.

12. Orduan Jaunak itz egin zion Jeremiasi, esaten zuela:

13. Oiek esaten ditu Jaunak, Israelko Jainkoak: Nik egin nuen elkartasun bat zuen gurasoakin, Ejiptoko lurretik, katiberioko etxetik atera nituen egunean, eta esan nuen:

14. Zazpi urte kunplitzen diradenean, utzi beza bakoitzak bere aukeran bere anaia hebreotar, saldua izan zitzaiona. Berak sei urtean serbituko zaitu, eta gero utziko diozu dagoela bere aukeran. Baña zuen gurasoak ez ninduten aditu, eta etziraden ere leialak izan nere itzetara.

15. Baña gaurko egunean zuek biurtu zerate nigana, eta egin dezute nere begien gogoko zana, esaten zendutela utzitzeko bakoitzak bere projimua bere aukeran, eta sendotu zenduten erabaki au nere aurrean, nere izenari ots egiten zaion etxean.

16. Baña gero atzera biurtu zerate, eta kutsutu dezute nere izena, eta ekarri dituzute berriz bakoitzak bere mendeko morroia, eta bere medeko neskamea, zeñai joaten utzi ziñieten bizi zitezen beren aukeran, eta beren buruen jabe ziradela, baña berriz ipiñi diezute uztarria, egiten dituzutela zuen mendeko morroiak, eta zuen mendeko neskameak.

17. Argatik oiek esaten ditu Jaunak: Zuek ez nazute aditu nai izan, utzirik bakoitzak bere aukeran bere anaia, eta bakoitzak bere adiskidea. Bada ona emen non nik utzitzen zaituztedan zuen aukeran, esaten du Jaunak, alde erazitzeko nigandik, eta gelditzeko zuek ezpataren, izurriaren, eta gosearen mendean, eta bialduko zaituztet barreiatuak lurreko erreñu guzietatik.

18. Eta jarriko ditut nere elkartasuna ausi dutenak, eta ez dituztenak zaitu, nere aurrean egin zuten elkartasuneko itzak, il eta bereziturik bi zatitan idizkoa, eta iragotzen diradela gero beren erditik.

19. Judako eta Jerusalengo prinzipeak, eta txikiratuak, eta apaizak, eta lurreko erri guztia, zeñak irago ziran idiskoaren zatien erditik.

20. Jarriko ditut, esaten det, beren etsaien mendean,eta berai bizia kentzeko gura biziakin daudenen eskuetan, eta beren gorputz illak izango dira zeruko egaztien, eta lurreko abereen bazka.

21. Eta Sedezias Judako erregea, eta bere prinzipeak jarriko ditut beren etsaien eskuetan, berak il nairik dabiltzanen eskuetan, eta zuekgandik alde egin duten, Babiloniako erregearen ejerzituen eskuetan.

22. Bada ona emen non ni noan aginteak ematera, esaten du Jaunak, eta berriz ekarriko ditut erri onen kontra, eta erasoko diote, eta arrapatuko dute, eta su emango diote. Eta Judako erriak eremu biurtuko ditut, alako moduan, non, ez dan geldituko beretan iñor ere bizirik.

OGEITA AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Jaunak Jeremiasi esan ziozkan itzak, Joakin, Josias Judako erregearen denboran, esaten ziola:

2. Zoaz Rekabtarren etxera, eta itz egin ezazu berakin, eta sartuko dituzu Jaunaren etxean, tesoroen geletatik batean, eta emango diezu ardoa edaten.

3. Eraman nituen bada nerekin Jezonias, Jeremiasen semearen, Absaniasen semearen semea, eta bere anaiak, eta bere seme guztiak,eta Rekabtarren familia guztia;

4. Eta sartu nituen Jaunaren etxean, tesoroen gelan, non zeuden Hanan, Jejedeliasen semearen, gizon Jaungoikozkoaren semeak; gela bat zegoena prinzipeen tesoroen aldean, Maasias, Selumen semearen tesorotegiaren gañean, zeñ zan tenploko atarizaia.

5. Eta ipiñi nituen Rekabtarren etxeko semeen aurrean baso eta kopa ardoz beteak, eta esan nien: Edan ezazute ardoa:

6. Berak berriz erantzun zuten: Ez degu edango, zeren Jonadab, Rekaben seme, gure aitak agindu zigun, esaten zuela: iñoiz ere ez dezute ardorik edango; ez zuek, ez zuen semeak.

7. Ez dezute egingo etxerik, ez ereingo alerik, ez ipiñi mastirik, ez dezute ere onelakorik idukiko; baizik biziko zerate etzauntzetan zuen bizitzako egun guztietan, bizi zaitezen denbora andian lurraren gañean, zeñean zuek bideanteak zeraten.

8. Obeditu diogu bada gure aita Jonadab, Rekaben semearen bozari, agindu zigun guztian, eta argatik ez degu ardorik edaten gure bizitza guztian guk, ez gure emazteak, ez semeak, ez alabak.

9. Ez degu ere etxerik egiten gu biziteko, ez daukagu ere mastirik, ez kanporik, ez ereitzerik;

10. Baizik bizi gera etzauntzetan, eta obeditu diegu, gure aita Jonadabek utzi zizkigun aginte guztiai.

11. Baña sartu danean Nabukodonosor Babiloniako erregea gure errian, esan degu: Goazen, eta sartu gaitezen Jerusalenen, iges egiteko Kaldeatarren ejerzitutik eta Siriatarren ejerzitutik; eta argatik gaude Jerusalenen.

12. Orduan Jaunak itz egin zion Jeremiasi, esaten zuela:

13. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak: Ez ote dezute artuko ikasbiderik nere itzai obeditzeko, esaten du Jaunak?

14. Jonadab, Rekaben semeak bere semeai esan ziezten itzak ez ardorik edateko, izan dirade ongi zaituak, eta ez dute gaurko eguneraño ardorik edan, obeditzen diotela beren aitaren aginteari; nik berriz itz egin dizutet zuei aspertu gabe, eta ordu guztietan, eta ez didazute obeditu.

15. Bada bialdu dizkizutet nere serbitzari guztiak profetak lendanaz eta arreta andiarekin, eta bialdu nizkizuten esatera: Alde egin beza zuetatiko bakoitzak bere bizitza txit gaiztotik, eta zuzendu itzatzute zuen gurak; eta etzaitezte ibilli jainko arrotzen ondoren, eta ez itzatzute ere adoratu; eta ala biziko zerate, nik zuei eta zuen gurasoai eman nizuten lurrean, baña zuek ez dezute nai izan neri obeditu, ez aditu.

16. Ala bada Jonadab Mekaben semearen semeak zaitu dute beti beren aitak utzi zien agintea; erri orrek ordea ez dit neri obeditu.

17. Argatik oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak: Oraintxe noa aurtikitzera Judaren gañera, eta Jerusalenen bizi diraden guztien gañera, lendikan esanik dauzkadan atsekabe guztiak, zeren itz egin diet, eta ez naute aditu, ots egin diet, eta ez didate erantzun nai izan.

18. Rekabtarren familiari berriz esan zion Jeremiasek: Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak: Zuek obeditu diozutelako zuen aita Jonadaben aginteari, eta egin dituzutelako bere esanak guztiak, eta kunplitu zendutelako adirazi zizuten guztia;

19. Argatik oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak: Jonadab Rekaben semearen jatorria ez da beñere arkituko, nere aurrean egun guztietan egongo dan gizaseme gabetanik.

OGEITA AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Joakin, Josias Judako erregearen semearen laugarren urtean, Jaunak itz egin zion Jeremiasi, eta esan zion:

2. Artu ezazu papera eta egin ezazu liburu bat, eta eskribitu itzatzu bertan nik esan dizkizudan itz guztiak Israelen kontra, eta Judaren kontra, eta erri guztien kontra, Josiasen egunetatik, zeñatan itz egin nizun gaurko eguneraño.

3. Onela ikusi dezagun Judako etxeko semeak, aditurik nik bialtzea uste dedan gaitz guztiak, biurtzen ote diran bakoitza bere biziera gaiztotik, alako moduan, non, nik barkatu dizaieztekedan beren gaiztakeria eta bekatuak.

4. Ots egin zion bada Jeremiasek Baruk Neriasen semeari, eta Jeremiasek esanda, eskribitu zituen Barukek liburu artan, Jaunak esan ziozkan itz guztiak.

5. Eta eman zion Jeremiasek Baruk aginte au, esaten zuela: Ni itxian nago, eta ez niteke sartu Jaunaren etxera.

6. Zoaz bada zu, eta irakurri itzatzu nik esan dizkizudan, eta zuk liburu orretan eskribitu dituzun Jaunaren itzak, Jaunaren etxean, barau egunean, eta orobat irakurriko dituzu, beren errietatik datozen Judako guztiak aditzeko eran.

7. Ikusteko onela umillatzen ote diran erregututzen dutela Jaunaren aurrean, eta biurtzen ote dan bakoitza bere bizitza gaiztotik. Zeren txit andia dan Jaunak agertu duen aserre eta sumintasuna erri onen kontra.

8. Eta Baruk Neriasen semeak egin zuen, Jeremias profetak agindu zion guztia; eta jarririk Jaunaren etxean, irakurri zituen liburuan Jaunaren itzak.

9. Bada jakin bear da, Joakin, Josias Judako erregearen semearen bosgarren urtean, bederatzigarren illean, predikatua izan zitzaiela baraua Jaunaren aurrean Jerusalengo erri guztiari, eta Judako errietatik Jerusalenera etorri zan jendetza guztiari.

10. Eta orduan irakurri zituen Barukek liburutik Jeremiasen itzak Jaunaren etxean, Gamarias Safanen seme, Legeko erakuslearen kontura dagoen dirutokiaren gañetik, goiko atariaren gañetik, Jaunaren tenploko ate berriaren sarreran, erri guziak aditzen zituela.

11. Eta Mikeas, Gamarias Safanen semearen semeak aditu zituenean, aitatu dan liburuan irakurriak izan ziran Jaunaren itz guztiak,

12. Joan zan erregearen jauregira, eskribitzeko tokira, non arkitzen ziran eseriak prinzipe guztiak: Elisama, eskribaria, eta Dalaias Semeiasen semea, eta Elnatan Akoborren semea; eta Gamarias Safanen semea, eta Sedezias Ananiasen semea, eta prinzipe guztiak.

13. Eta adirazi zioten Mikeasek, Baruken liburuan aditu zuen, eta erriak ere aditu zuen guztia.

14. Onenbesterekin prinzipe guzti aiek bialdu zuten esatera Baruki, Judi Nataniasen semearen, Selemiasen semearen, Kusiren semearen bitartez: Artu ezazu zure eskuan, erriaren aurrean irakurri dezun liburu ori, eta atoz onara. Artu zuen bada Baruk, Neriasen semeak bere eskuan liburua eta joan zan berak zeuden tokira.

15. Zeñak esan zioten: Eseri zaite, eta irakurri zazkiguzu gauza oriek, aditu ditzagun. Eta irakurri zituen Barukek beren aurrean.

16. Aditu zituztenean gauza guzi aiek, arrituak gelditu ziran, elkarri begira; eta esan zioten Baruki: Erregeari adirazi bear diozkagu itz guzi oiek.

17. Eta galde egin zioten esaten zutela: Adirazi zaguzu nola bildu ziñituen zuk bere aotik gauza guzti oiek.

18. Eta Barukek esan zion: Bere aoz esaten zituen neri irakurtzen ariko balitza bezela itz guzti oiek, eta ni nijoan eskribituaz tintarekin liburu onetan.

19. Orduan prinzipeak esan zioten Baruki: Zoaz, eta ezkutatu zaitezte zu eta Jeremias, eta iñork ere ez dezala jakin non zaudeten.

20. Eta berak joan ziran erregea arkitzera atarian, baña liburua utzi zuten dirutokian, Elisama eskribitzallearen gelan; eta adirazi zituzten, erregeak aditzen zituela itz guzti oiek.

21. Bereala bialdu zuen erregeak Judi, liburu hura ekartzera; zeñ aterarik dirutokitik, edo Elisama eskribitzallearen gelatik, irakurri zuen erregearen eta bere inguruan zeuden prinzipe guztien aurrean.

22. Zegoen errege neguko bizilekuan, zalako bederatzigarren illa, eta zegoen bere aurrean brasaontzi bat txingar erazekiz betea.

23. Irakurri zituenean Judik iru edo lau hoja, erregeak zatitu zuen liburua eskribitzallearen ganibetarekin, eta aurtiki zuen brasontziko sutara, non erre zan guztia.

24. Eta ala ez erregea, ez itz guzi oiek aditu zituzten bere jauregiko morroietatik batere, etzan beldurtu augatik, eta etzituzten ere beren soñekoak urratu.

25. Alaere Elnatan, eta Dalaias eta Gamariasek kontra egin zioten erregeari, liburua erre ez zezan; baña etzituen aditu.

26. Baizik agindu zien Jeremiel Ameleken semeari, eta Saraias Ezrielen semeari, eta Selemias Abdeelen semeari, arrapatu zitzatela Baruk eskribitzallea, eta Jeremias profeta; baña Jaunak ezkutatu zituen.

27. Erregeak liburua erre zuenean, eta Barukek Jeremiasek esanda eskribitu zituen itzak, itz egin zion Jaunak Jeremias profetari, esaten ziola:

28. Artu ezazu berriz beste liburu bat, eta eskribitu itzatzu bertan, Joakin Judako erregeak erre duen lenbiziko liburuan zeuden itz guztiak.

29. Eta esango diozu Joakin Judako erregeari: Oiek esaten ditu Jaunak: Zuk erre dezu liburu hura, esaten diozula Jeremiasi: Zergatik ipiñi dezu zuk bertan eskribuz geroko berri ori, keñatzen gaituzula esateaz, agudo etorriko dala Babiloniako erregea, eta arrasatuko duela lur au, gizonik ez abererik utzi gabe?

30. Argatik oiek esaten ditu Jaunak, Joakin Judako erregearen kontra: Ez da ikusiko bere jatorrikorik batere Dabiden tronuan eseria, eta bere gorputz illa aurtikia izango da, eta egongo da eguneko berotasunean eta gaueko jelan.

31. Eta etorriko naiz bere gaiztakerien, eta bere jatorrikoen, eta bere serbitzarien kontuak artzera; eta aurtikiko ditut beren gañera, eta Jerusalenen bizi diradenen gañera, eta Judako erri guztiaren gañera, adiraziak dauzkadan gaitz guztiak, ez nauten ezkero aditu nai izan.

32. Artu zuen bada Jeremiasek beste liburu bat, eta eman zion Baruk, Nerias bere eskribitzallearen semeari; zeñak, Jeremiasek esaten ziozkala, eskribitu zituen bertan, Joakin Judako erregeak erre zuen liburuko itz guztiak, baitaere len zeudenez gañetik beste gauza asko izan ziraden itsatsiak.

OGEITA AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Sartu zan erreñatzera Sedezias Josiasen semea, Jekonias Joakinen semearen lekuan, zeñ ipiñi zuen erregetzat Nabukodonosor Babiloniako erregeak Judako lurrean.

2. Eta ez berak, ez bere serbitzariak, ez erriko jendeak obeditu zien, Jaunak Jeremias profetaren aoz esan zituen itzai.

3. Eta bialdu zituen Sedezias erregeak Jukal Selemiasen semea, eta Sofonias Maasias apaizaren semea, Jeremias profetari esatera: Erregutu zaiozu gugatik gure Jaun Jainkoari.

4. Zebillan orduan Jeremias askatua erriaren artetik, bada oraindikan etzuten karzelan ipiñi. Bitartean Faraonen ejerzitua irten zan Ejiptotik. Aditu zutenean au, Jerusalen ingurutua zeukaten Kaldeatarrak, alde egin zuten Jerusalendik.

5. Orduan Jaunak onela itz egin zion Jeremias profetari:

6. Oiek esaten ditu Israelko Jaun Jainkoak: Onela esango diozute Judako errege, neri galdetzera bialdu zaituztenari: Begira ezazu Faraonen ejerzitu zuei laguntzera atera zana, itzuliko da bere errira, Ejiptora;

7. Eta biurtuko dira onara Kaldeatarrak, eta erasoko diote erri oni, eta arrapatuko dute, eta su emango diote.

8. Oiek esaten ditu Jaunak: Ez ditzatzutela engañatu zuen buruak, esaten dezutela: Joango dira Kaldeatarrak ez biurtzeko, eta pakean utziko digute, zeren jakinik iduki ezazute, ez dirala joango.

9. Baña baldin desegingo bazenezate ere, gerra egiten dizuten Kaldeatarren ejerzitu guztia, eta bakarrik gelditzeko balirade beratatik, zauritutako gutxi batzuek, aterako litezke oiek bakarrik beren etzauntzetatik, eta suaz erreko lukete erri au.

10. Alde egin zuenean bada Jerusalendik Kaldeatarren ejerzituak Faraonen ejerzituagatik,

11. Atera zan Jeremias Jerusalendik, joateko Benjaminen lurrera, partitzeko an bera jabe zan gauza bat errikoen aurrean.

12. Eta allegatu zanean Benjaminen atera, atean beillan txandaz zegoenak, zeñaen izena zan Jerias, Selemiasen, Hananiasen semearen semea, eldu zion Jeremias profetari, esaten zuela: i Kaldeatarretara igesi oa.

13. Ez da egia, erantzun zuen Jeremiasek, ez noa ni Kaldeatarretara igesi. Baña Jeriasek etzuen aditu; baizik arrapatu zuen Jeremias, eta eraman zuen prinzipeakgana.

14. Argatik aserreturik prinzipeak Jeremiasen kontra, azotatu erazi ezkero, sartu zuten Jonatan eskribitzallearen etxean zegoan karzela batean, onek karzela bere kontura zeukalako.

15. Sartu zan bada Jeremias ziega zakon batean, eta lurzulo batean, non egon zan asko egunetan.

16. Gero Sedezias erregeak bialdu zituen mandatariak andik ateratzera, eta galde egin zion ixiltxorikan bere jauregian, esaten ziola: Uste al dezu Jaunak itz egin duela? Bai, erantzun zuen Jeremiasek. Eta gañera esan zuen: Babiloniako erregearen eskuetan jarria izango zera.

17. Eta zertan bekatu egin det zure kontra, esan zuen gañera Jeremiasek, ez zure serbitzarien kontra, ez zure erriaren kontra, zuk agintzeko ni karzelan sartu nazatela?

18. Non dirade zuen profeta aiek zuei profetizatzen zizutenak, eta esaten zutenak: Ez da etorriko zuen kontra, ez lur onen kontra Babiloniako erregea?

19. Orain bada; aditu nazazula erregututzen dizut, o nere Jaun erregea, nere erreguak indarra iduki dezala zure aurrean; eta ez nazazu arren berriz itzuli Jonatanen etxera, an il ez nadin.

20. Agindu zuen bada Sedezias erregeak, ipiñi zezatela Jeremias karzelako atarian, eta eman dizaiotela egunoro ogizko opil bat, jakiaz gañera, errian ogirik zegoen artean. Onenbesterekin egon zan Jeremias karzelako atarian.

OGEITA EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Baña Safatias Matanen semeak, eta Jedelias Fasurren semeak, eta Jukal Selemiasen semeak, eta Fasur Melkiasen semeak aditu zituzten Jeremiasek erri guztiari predikatzen ziozkan itzak,esaten zuela:

2. Onela itz egiten du Jaunak: Erri onetan gelditzen dan guztia, illa izango da ezpataz, edo gosez, edo izurriz: Kaldeatarrakgana iges egiten duena berriz, biziko da, eta bere bizia galtzeko beldur gabe egongo da.

3. Oiek esaten ditu Jaunak: Ziertoro izango da ipiñia erri au Babiloniako erregearen ejerzituaren mendean, zeñ bere jabe egiñik geldituko dan.

4. Orduan prinzipeak esan zioten erregeari: Eskatzen dizugu, gizon au eriotzara kondenatua izan dedilla; zeren berak egiten ditu alegiñak, berariaz gizon errutsuen besoak desalaitzeko; eta erri onetan gelditu diran gerrarien, eta erri guztiaren gudarako gogoa, esaten dituen itzakin. Ikusia dago bada, gizon au ez dabillala erri onen onaren, baizik gaitzaren billan.

5. Eta Sedezias erregeak esan zuen: Or daukazute zuen eskuetan, zeren ez diteke izan erregeak zuei ezerere ukatzea.

6. Arrapatu zuten baten Jeremias, eta sartu zuten Melkias Ameleken semearen putzu leorrean, zeñ dagoan karzelako atarian, eta soken bitartez jatxiarazi zioten Jeremiasi putzu leorrera, non etzegoen urik, baizik lokatza. Ala bada Jeremias gelditu zan lokatzan sartua.

7. Eta Abdemelek, txikiratu etiopiatar, erregearen jauregian zegoenak, jakin zuen Jeremias putzu leorrera bota zutela. Zegoan erregea garai artan, Benjaminen atean eseria.

8. Atera zan bada Abdemelek jauregitik, eta joan zan Erregearekin itz egitera, esaten zuela:

9. O nere Errege eta Jauna, txit gaizki egin dute gizon oiek, Jeremias profetaren kontrako asmazioetan, botatzen dutela putzu leorrera, an gosez il dedin; zeren ez dago onezkero ogirik errian.

10. Ala bada agindu zion erregeak Abdemelek Etiopiatarrari, esaten zuela: Eraman itzatzu emendik zurekin ogeita amar gizon, eta atera ezazu putzu leorretik Jeremias profeta, il dedin baño lenago.

11. Arturik bada berarekin Abdemelekek gizonak, sartu zan erregearen jauregian, tesorutegiaren azpian zegoan lurraren barrendiko toki batean, eta atxitu zituen andik soñeko zar batzuek, eta erdi ustelduak zeuden oial zati batzuek, eta aurtiki ziozkan Jeremiasi putzu leorrera soken bitartez.

12. Eta Abdemelek Etiopiatarrak esan zion Jeremiasi: ipiñi itzatzu soñeko zar oriek, eta oial zati erdi ustelduak zure galtzarbearen azpian, eta soken gañean. Ala egin zuen Jeremiasek;

13. Eta atera zuten Jeremias sokakin, eta irten erazi zioten putzu leorretik, eta gelditu zan Jeremias karzelako atarian.

14. Eta bialdu zituen gero mandatariak Sedezias erregeak Jeremias profetaren billa, eta ekarrierazi zien Jaunaren tenploko irugarren atera; eta esan zion erregeak Jeremiasi: Gauza bat zuri galdetzera noa, ez zadazu ezerere ezkutatu.

15. Eta Jeremiasek esan zion Sedeziasi: Agertzen badizut, ez al didazu bizia kenduko? Eta nik konseju bat ematen badizut, zuk ez nazu adituko.

16. Orduan Sedezias erregeak juramentu egin zion ixillean Jeremiasi, esaten zuela: Juramentu egiten dizut, anima au gugan egin zuen Jaunagatik, ez dizudala bizia kenduko, eta etzaitudala ere ipiñiko, zu il nai zaituzten gizon orien eskuetan.

17. Esan zion bada Jeremiasek Sedeziasi: Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak: irtetzen bazera Jerusalendik, eta jartzen bazera Babiloniako erregearen agintarien eskuetan, biziarekin geldituko zera zu, eta erri au ez da suaz errea izango, eta zu eta zure familia salbatuko zerate,

18. Baña joaten ez bazera Babiloniako erregearen agintariak arkitzera, erria jarria izango da Kaldeatarren eskuetan, eta su emango diote, eta zuk ez dezu beren eskuetatik igesik egingo.

19. Eta Sedezias erregeak esan zion Jeremiasi: Kaldeatarrakgana irago ziran Juduen beldur naiz; beren eskuetan ipiñia izan ez nadin, eta irri egin ez didaten.

20. Baña Jeremiasek erantzun zion: Etzaituzte beren eskuetan utziko. Erregututzen dizut, arren aditu ditzatzula, nik esaten dizkizudan Jaunaren itzak, eta ongi joango zatzu, eta salbatuko dezu zure bizia.

21. Baldin berriz atera nai ez bazera, ona emen Jaunak esan didana:

22. Jakin ezazu, Judako erregearen jauregian gelditu diran andre guztiak, izango diradela eramanak Babiloniako erregearen prinzipeentzat, eta

oiek berak esango dizute orduan: Engañatu zaituzte, eta indar geiago iduki dute zugan pakearen berriak ematen zizkizutenak, zuzendu dituzte zure pausoak toki labañ batera, eta sartu zaituzte lokatza batean, eta gero utzi zaituzte.

23. Eta zure emazte guztiak eta zure semeak Kaldeatarrakgana eramanak izango dirade, eta zuk ez dezu beren eskuetatik igesik egingo, baizik Babiloniako erregearen eskuz arrapatua izango zera, eta erri au suaz erreko du.

24. Sedeziasek esan zion orduan Jeremiasi: Ez ditzala jakin iñork ere gauza oiek, eta onela zu etzera ilko.

25. Eta prinzipeak jakiten badute nik zurekin itz egin dedala, eta joango balitzate zugana, eta esango balizute: Agertu zaguzu erregeari esan diozuna, eta nola itz egin duen zurekin erregeak, ez zaguzu estali, eta etzaitugu ilko;

26. Erantzungo diezu: Auzpezturik erregearen oñetan erregutu nion, arren, ez nizala eraman erazi berriz Jonatanen etxera, il ez nendin ni an.

27. Etorri ziraden bada prinzipe guztiak Jeremiasgana, eta galdetu zioten, eta berak erantzun zien itzez itz erregeak adirazi zion guztia; eta etzioten berriz gogait erazi, zeren etzan ezerere zabaldu.

28. Eta Jeremias egon zan karzelako atarian, Jerusalen artua izan zan eguneraño; bada atzenean ere Jerusalen arrapatua izandu zan.

OGEITA EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Sedezias Judako erregearen bederatzigarren urtean amargarren illean, etorri zan Nabukodonosor Babiloniako erregea bere ejerzitu guztiarekin Jerusalenera, eta erria ingurutu zuen.

2. Eta Sedeziasen amaikagarren urtean, laugarren illaren bosgarren egunean, idikia izan zan erria.

3. Eta sartu ziran Babiloniako erregearen prinzipe guztiak, eta gelditu ziran erdiko atean: Nerejel, Sereser, Semegarnabu, Sarsakim, Rabsares, Nerejel, Sereser, Rebmag, eta Babiloniako erregearen gañerako prinzipe guztiak.

4. Ikusi zitueneko Sedezias Judako erregeak, eta bere gerrari guztiak, iges egin zuten; eta atera ziran gauaz erritik, erregearen jardineko bidetik, eta murru bien erdian dagoen atetik, eta eremuko bidea artu zuten.

5. Baña beren ondoren joan zan Kaldeatarren ejerzitua, eta arrapatu zuten Sedezias Jerikoko eremuko kanpoan, eta eraman zuten katibu Nabukodonosor Babiloniako erregeagana, zeñ zegoan Rablatan, zeñ dagoan Ematko lurrean, non juzgatu zuen.

6. Eta illerazi zituen Babiloniako erregeak Rablatan Sedeziasen semeak, beronen begien aurrean, eta Judako odolgarbiko guztiak il zituen babiloniako erregeak.

7. Sedeziasi ere begiak atera ziozkan, eta lotu zuen zepoakin, Babiloniara eramana izan zedin.

8. Bitartean Jerusalenen zeuden Kaldeatarrak erre zituzten erregearen jauregia, eta erriko jendearen bizilekuak, eta beera bota zituzten Jerusalengo murruak.

9. Eta errian gelditu ziran gizasemeen kutsuak, eta iges eginda beragana joan ziradenak, eta jendediaren gañerakoa, eraman zituen Babiloniara Nabuzardan, ejerzituko agintari nagusietatikoak.

10. Baña ezerere ez zeukan beartsu taldea, Nabuzardan ejerzituko agintari nagusietatikoak, utzi zuen bere autakeran Judako lurrean; eta eman ziezten mastiak, eta ur tokiak egun artan.

11. Jakin ere bear da Nabukodonosor Babiloniako erregeak eman ziozkala bere aginteak, Nabuzardan bere ejerzituetako agintariari Jeremiasen gañean, esaten zuela:

12. Or daukazu gizon ori, ongi artu ezazu, etzaiozu gaitzik batere egin, baizik eman zaiozu nai duen guzia.

13. Argatik Nabuzardan ejerzituko agintariak, eta Nabusezbanek, eta Rabsaresek, eta Nerejelek, eta Sereserrek, eta Rebmajek, eta Babiloniako erregearen andizki guztiak,

14. Bialdu zituzten mandatariak, ateratzera Jeremias karzelako atarítik, eta eman zioten Godolias Ahikamen, Safanen semearen semeari, bere etxera biurtu zezan, eta bizi zedin bere aukeran erriaren erdian.

15. Jeremiasi berriz itz egin zion Jaunak, zegoanean zarratua karzelako atarian, esaten zuela:

16. Zoaz eta esan zaiozu Abdelemek Etiopiatarrari: Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak: Begira ezazu ni noala egiztatzera, lendanaz adirazi dedan guztia erri onen gaitzerako, ez onerako, eta egongo dirade zure aurrean egun artan.

17. Eta egun artan nik libratuko zaitut, esaten du Jaunak, eta ez zera jarria izango gizon aien eskuetan, zeñaen beldur zeran,

18. Baizik libratuko zaitut doakabe guzitik, eta ez zera ezpataz illa izango, baizik zure biziari beldurrikan gabe iraunerazi ko diozu, nigan itxedopena iduki zenduelako, esaten du Jaunak.

BERROGEIGARREN KAPITULUA

1. Jaunak Jeremiasi egin zion itza, Nabuzardan ejerzituko agintari nagusiak utzi zuenean Raman, kateakin lotuta zeramanean Jerusalen eta Judatik zijoazenen gañerakoen erdian nastua, Babiloniara katibu eramanak ziradenean.

2. Jakin ere bear da, ejerzituko agintariak arturik Jeremias, ezagutu zuenean, esan ziola: Zure Jaun Jainkoak lendanaz adirazi zituen erri onen gañera etorriko ziraden gaitz oiek;

3. Eta Jaunak egiztatu ditu, eta kunplitu du esan zuena, Zeren zuek Jaunaren kontra bekatu egin zenduten, eta bere boza etzenduten aditu; argatik gertatu zazkizute oiek.

4. Orain bada ongi, nik kendu dizkizut gaur zure eskuetan zeuzkan kateak. Nai badezu etorri nerekin Babiloniara, atoz; zeren nik zugatik begiratuko det; baña baldin ez badezu nai etorri nerekin Babiloniara, gelditu zaite emen, or daukazu zure begien aurrean erri guztia, aututzen dezun tokira eta zure gogokoen danera, ara joan zinteke.

5. Etzaite bada nerekin etorri, nai ez badezu, baizik bizi zaite Godolias, Ahikanen Safanen semearen semearekin, zeñi Babiloniako erregeak eman dion Judako errien agintaritza, bizi zaite bada berarekin erriaren erdian; edo joan zaite ongien deritzazun tokira. Eman ere ziozkan ejerzituko agintariak jakiak, eta oparitxoak, eta utzi zuen.

6. Joan zan bada Jeremias, Godolias Ahikamen semearen etxera, Masfatera, eta bizi izan zan berarekin lur artan gelditu zan erriaren erdian.

7. Eta aditu zutenean Juduen ejerzituko agintari guztiak, berak eta beren lagun aldamen askotatik barreiatuak zeudenak, Babiloniako erregeak eman ziola alderri artako agintaritza Godolias ahikamen semeari, eta esan ziola, ongi artu zitzala gizasemeak, eta emakumeak, eta aurrak, eta erriko beartsu, Babiloniara eramanak izan etziradenak;

8. Joan ziran Godolias billatzera Masfaten, au da, Ismael Nataniasen semea; eta Johaan eta Jonatan Kareeren semeak, eta Sareas Tanehumeten semea, eta Ofiren seme, Netofatien jaioak, eta Jezonias Maakatiren semea; berak eta beren jendeak.

9. Eta Godolias, Ahikamen, Safanen semearen semeak juramentu egin zien berai eta beren lagunai, esaten zuela: Kaldeatarrak serbitzeko beldurrikan ez ezazute iduki, zaudete zuen errietan, eta serbitu ezazute Babiloniako erregea, eta ongi biziko zerate.

10. Ikusten dezute, ni Masfaten bizi naizala, Kaldeatarrakgandik etortzen zazkigun aginteak kunplitzeko. Eta ala zuek egin ezazute mendaina, eta bildu itzatzute uztak, eta olioa, eta sartu itzatzute zuen lusulletan, eta egon zaitezte len bizi ziñaten errietan.

11. Berebat Judu guztiak, zeudenak Moaben, eta Ammonen semeen artean, eta Idumean, eta beste errietan, aditu zutenak Babiloniako erregeak utzi zuela Judean erriaren zati bat, eta beren agintari Godolias, Ahikanen Safanen semearen semea egin zuela;

12. Judu guzi aiek, esaten det, biurtu ziran joan ziraden erri guzietatik, eta etorri ziraden Judako lurrera Godoliasgana Masfaten, eta egin zuten mendaina, eta bildu zuten uzta txit andia.

13. Denbora onetan Johanan Kareeren semea, eta asko erritan barreiatuak egon ziran ejerzituko agintari guztiak, joan ziraden Godolias Masfaten arkitzera,

14. Eta esan zioten: Jakin bear dezu Baalis Ammontarren erregeak bialdu duela Ismahel Nataniasen semea, zuri bizia kentzera.

15. Orduan Johanan Kareeren semeak, itz egiten ziola berezian Godoliasi Masfaten, esan zion: Ni joango naiz, eta ilko det Ismahel, Nataniasen semea, iñork ere jakin gabe; zu il etzaitzan, eta zugana bildu diran Juduak barreiatu ez ditezen, eta galdu ez ditezen Judako kutsuak.

16. Baña Godolias, Ahikamen semeak, erantzun zion Johanan Kareeren semeari: Ez ezazu orrelako gauzarik egin; zeren ez da egia Ismahelgatik esaten dezuna.

BERROGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Gertatu zan berriz, zazpigarren illean etortzea Ismahel, Nataniasen semearen, Elisamaren semearen semea, zeñ zan erregeen jatorrikoa, eta Erregearen andizkiak, amar gizonekin, Godolias Ahikamen semeagana, Masfatera, eta jan zuten an berarekin.

2. Eta jaiki zan Ismahel Nataniasen semea, eta berari laguntzen zioten amar gizonak, eta il zuten ezpataz Godolias, Ahikamen semearen, Safanen semearen semea kentzen ziotela bizia, Babiloniako erregeak lur artako agintaritza eman zionari.

3. Il ere zituen Ismahelek, Godoliasekin Masfaten zeuden Judu guztiak, eta an zeuden Kaldeatarrak, eta gerrari guztiak.

4. Eta biaramonean, Godolias ilda gero, eta gertakaria jakin baño lenago,

5. Etorri ziran Sikemdik, eta Silotik, eta Samariatik larogei gizon, bizarra ebakita, eta soñekoak urratuta, zurbilduta, zekarzkitela berakin inzensua eta doañak, eskeñtzeko Jaunaren etxean.

6. Ismahel Nataniasen semea bada, ateratzen zala Masfat-tik, jende oni bidera irtetzera, zijoan bidean geldiro, eta negarrez: eta arkitu zituenean, esan zien: Atozte Godolias Ahikamen semeagana.

7. Baña allegatu ziradeneko erriaren erdira, Ismahel Nataniasen semeak il zituen guztiak, berarekin zeuzkan gizon aien laguntasunarekin, eta bota zituen putzu leorraren erdira.

8. Baña beren artean arkitzen ziran amar gizon; zeñak esan zioten Ismaheli: Ez gaitzatzu il; zeren daukagu ugari kanpoan gordeta garia, eta garagarra, eta olioa, eta eztia. Gelditu zan onenbesterekin, eta etzioten bizia kendu beren lagunai bezela.

9. Ismahelek Godoliasgatik il zuen jende guzti aren gorputz illak, aurtiki zituen putzu leorra da, hura bera, Asa erregeak egin zuena, Baasa Israelko erregeagatik, zeñ Ismahel Nataniasen semeak bete zuen, il zituen aien gorputzakin.

10. Eta katibu eraman zituen Ismahelek, Masfaten zeuden gañerako guztiak, erregearen alabakin, eta Masfaten arkitu ziraden guztiak, zeñak Nabuzardan ejerzituko agintariak utzi zituen Godolias Ahikamen semearen kontura.

11. Bitartean Jahanan Kareeren semeak, eta berarekin zeuden ejerzituko agintari guztiak, aditu zuten Ismahel nataniasen semeak egin zuen ondamen guztia.

12. Eta arturik berarekin gizaseme guztiak, joan ziran Ismahel Nataniasen semeari erasotzera, eta arkitu zuten Gabaonen dauden ur askoetan.

13. Eta Ismahelekin zijoan erri guztiak ikusi zituenean Johanan Kareeren semea, eta berari laguntzen zien ejerzituko agintari guztiak, pozez bete zan.

14. Onenbesterekin Ismahelek arrapatu zuen jende guztia biurtu zan Masfatera, eta joan zan Johanan Kareeren semearekin.

15. Alaere Ismahel Nataniasen semeak iges egin zuen Johanangandik zortzi gizonekin, eta joan zan Ammonen semeakgana.

16. Johanan Kareeren semeak bada, berarekin zeuzkan gerrako agintari guztiakin, artu zituen bere agindura Masfaten, Ismahel Nataniasen semeari arrapatu ziozkan erriko jendearen kutsu guztiak, onek Godolias Ahikamen semea ilda gero; eta artu zituen gerrarako gai ziraden gizon guztiak, eta emakumeak, eta aurrak, eta Gabaondik itzulierazi zien txikiratuak.

17. Eta joan ziraden, eta egon ziran bideanteak bezela Kamaamen, zeñ dagoen Bethehemen aldean, gero aurrera joateko, eta sartzeko Ejipton,

18. Kaldeatarren igesi; zeren oien beldur ziraden, Ismael Nataniasen semeak il zuelako Godolias Ahikamen semea, zeñ Babiloniako erregeak utzi zuen Judako lurreko gobernatzalletzat.

BERROGEITA BIGARREN KAPITULUA

1. Eta etorri ziran gerrarien agintari guztiak, eta Johanan, Kareeren semea; eta Jezonias, Osaiasen semea, eta gañerako erriko jendea, txikiak eta andiak,

2. Eta esan zioten Jeremias profetari: Aditu ezazu gure eskaria, eta erregutu zaiozu gugatik zure Jaun Jainkoari, eta gelditu diran guzi oiekgatik, zeren gutxi gelditu gera, giñan askoetatik; zure begiakin zu ikusten zauden bezela,

3. Eta ezagutuerazi dizagula zure Jaun Jainkoak jarraitu bear diogun bidea, eta egin bear deguna.

4. Erantzun zien Jeremias profetak: Ongi dago, orainshe noa orazio egitera zuen Jaun Jainkoari, eskatu didazuten bezela. Jaunak erantzuten didan guztia, nik adiraziko dizutet, ezerere ezkutatu gabe.

5. Eta berak esan zioten Jeremiasi: izan bedi Jauna gure artean gure egiaren, eta leialtasunaren testigua, eta kastigatu gaitzala, zure Jaun Jainkoak, zure aoz esaten digun guztia egiten ez badegu.

6. Naiz izan dedilla guretzat ona, naiz txarra, obedituko diogu gure Jaun Jainkoaren bozari, zeñgana bialtzen zaitugun; onela obediturik gure Jaun Jainkoaren bozari, ongi joan dakigun.

7. Amar egun igarota bada, itz egin zion Jaunak Jeremiasi;

8. Zeñak ots egin zien Johanan Kareeren semeari, eta berarekin zeuden gerrako agintari guztiai, eta erri guztiari, txikiai eta andiai,

9. Eta esan zien: Oiek esaten ditu Jaunak, Israelko Jainkoak, zeñgana bialdu nazuten, bere aurrean zuen eskariak egiteko:

10. Irautzen badezute geldirik lur onetan, nik geituko zaituztet, eta etzaituztet desegingo; sustraiak botaeraziko dizkizutet, eta etzaituztet aterako, zeren bigundua nagoen onezkero, bialdu dizutedan kastiguarekin.

11. Etzaitezte Babiloniako erregearen beldur izan, zeñari alako beldurra diozuten. Etzaitezte bere beldur izan, esaten du Jaunak; zeren ni zuekin nagoen, bere eskuetatik zuek libratu eta salbatzeko.

12. Eta egingo det zuekin urrikaltasuna, eta urrikalduko naiz zuekin, eta egingo det zuen errian bizi zaiteztela.

13. Baña baldin zuek esaten badezute: Ez degu erri onetan bizi nai, ez aditu ere gure Jaun Jainkoak esaten duena;

14. Eta jarraitzen badiozute esateari: Ez, ez; baizik bagoaz gu Ejiptoko lurrera non ez degun ikusiko gerrarik, ez adituko tronpeta otsik, ez idukiko goserik eta an biziko gera,

15. Orrela bada, aditu ezazute orain, o Judako kutsuak, Jaunak esaten duena: Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak: Baldin irautzen badezute Ejiptora joateko, eta an biziteko asmazioetan,

16. An Ejiptoko lurrean arrapatuko zaituzte, emen beldur diozuten ezpatak, eta an Ejipton aurtikiko da zuen gañera gosea, zeñak ikaratzen zaituzten, eta an eriotza arkituko dezute.

17. Eta Ejiptora joateko guran gogortu diraden guztiak, an biziteko, galduak izango dirade ezpataz, gosez eta izurriz; beretatik batere ez da biziarekin geldituko; eta ez dio ere iges egingo, nik beren gañera aurtikiko dedan kastiguari;

18. Zeren oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak: Nere aserre eta sumintasuna erazeki zan bezela Jerusalenen bizi ziradenen kontra, era berean erazekiko da nere aserrea zuen kontra, Ejipton sartzen zeratenean, eta izango zerate begiratuak gorrotoarekin eta izuarekin, eta madarikatuak eta lotsagarriak bezela, eta iñoizere ez dezute berriz toki au ikusiko.

19. O Judako kutsuak, Jauna da esaten dizutena: Etzaitezte Ejiptora joan. Etzaitezte aztu nik gaur ala esan dizutedala,

20. Engañatu dituzutela zuen buruak, zeren bialdu nazuten gure Jaun Jainkoari itz egitera, esaten dezutela: Erregutu zaiozu gugatik gure Jaun Jainkoari, eta gure Jaun Jainkoak esaten dizun guztia, ala adirazi zaguzu, eta egingo degu.

21. Eta gaur adirazi dizutet, eta zuek ez diozute obeditu nai izan zuen Jaun Jainkoak esaten duenari, zuei itz egiteko agindu didan gauza guztien gañean.

22. Orain bada iduki ezazute ziertotzat, ilko zeratela ezpataz, gosez, eta izurriz, an bizitera joan nai izan dezuten tokian.

BERROGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta Jeremiasek esan ziozkanean erriari beren Jaun Jainkoaren itz guztiak; itz batzuek beren Jaun Jaungoikoak esatera bialdu zuenak,

2. Erantzun zuten Azarias Osaiasen semeak, eta Johanan Kareeren semeak, eta gizon urgullutsu guzti aiek, eta esan zioten Jeremiasi: Gezurra esaten dezu zuk. Etzaitu bialdu gure Jaun Jainkoak esatera guri: Etzaitezte joan Ejiptora an bizitera.

3. Baizik Baruk Neriasen semeak zirikatzen zaitu gure kontra, ipintzeko gu Kaldeatarren eskuetan, eta illerazitzeko, eta eramateko gañerakoak Babiloniara.

4. Etzioten bada obeditu Johanan Kareeren semeak, eta gerrako agintari guztiak, eta erri guztiak Jaunaren bozari, geldirik egoteko Judako lurrean;

5. Baizik Johanan Kareeren semeak, eta gerrako agintari guztiak, artu zituzten Judako kutsu guztiak, etorri ziradenak bizitera Judako lurrean, len barreiatuak izan ziraden erreñu guztietatik;

6. Gizasemeak, eta emakumeak, eta aurrak, eta erregearen alabak, eta Nabuzardan ejerzituko agintari nagusiak, Godolias Ahikamen, Safanen semearen semearekin, eta Jeremias profetarekin, eta Baruk Neriasen semearekin utzi zituen lagun guztiak,

7. Eta Ejiptoko lurrean sartu ziran, zeren etzioten obeditu Jaunaren bozari, eta Tafniseraño allegatu ziran.

8. Eta Jaunak itz egin zion Jeremiasi Tafnisen, esaten zuela:

9. Artu itzatzu zure eskuan arri andi batzuek, eta ezkutatu itzatzu, adrilluzko paretaren azpian, Faraonen jauregiko atean, Tafnisen dagoan bobedan, Judu batzuen aurrean.

10. Eta esango diezu oiei: Onela itz egiten du ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak: Nik alako batean bialduko ditut mandatariak, nere serbitzari Nabukodonosor Babiloniako erregeari ots egitera, eta jarriko det bere tronua, ezkutatu ditudan arri oien gañean, eta bere esertokia beren gañean ipiñiko det.

11. Eta etorriko da, eta erasoko dio Ejiptoko lurrari. Iltzeko diradenak, illak izango dirade; katiberiorako diradenak, katiberiora joango dirade; eta ezpataz illak izateko diradenak, ezpataz illak izango dirade.

12. Eta su emango die Ejiptoko jainkoen tenploai, eta erreko ditu, eta katibu eramango ditu beren idoloak; eta jantziko da Ejipton arrapatutako soñekoakin, artzaia bere kaparekin estalitzen dan bezela, eta andikan pakean joango da.

13. Eta zatituko ditu Ejiptoko lurrean dauden eguzkiaren etxeko idoloak, eta su emango die Ejiptoko jainkoen tenploai.

BERROGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Jaungoikoaren itz, adirazia Ejiptoko lurrean, Magdalon, eta Tafnisen, eta Faturesko lurrean bizi ziran Judu guztiai, Jeremias profetaren aoz, zeñak esaten zuen:

2. Onela itz egiten du ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak: Zuek ikusi dituzute, nik Jerusalenen gañera, eta Judako erri guztien gañera bialdu ditudan kastigu guztiak; eta ona emen non berak dauden gaur eremutuak eta animarik gabe,

3. Berak egin zuten gaiztakeriagatik, neri aserretu erazitzeko, joaten ziradela doanak eskeñtzera, eta jainko arrotzak adoratzera, jainko batzuek, ezagutzen etzituztenak berak, ez zuek, ez zuen gurasoak.

4. Nik arreta andiarekin bialdu nizkizuten nere serbitzari profetak; bialdu nituen esatera zuei: Ez ditzatzutela arren egin gauza añ nazkagarri, eta nere animak alako gorrotoa dienak.

5. Baña etzuten aditu nai, ez zeartu onetara beren belarriak, utzitzeko beren gaiztakeriai, eta ez eskeñtzeko doañik jainko arrotzai.

6. Eta biztu zan nere aserrea, eta nere sumintasuna, eta erazeki zan Judako errietan eta Jerusalengo karrikaetan, eta gelditu ziran eremu eta soilltasun biurturik, gaurko egunean ikusten dan bezela.

7. Orain bada oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak: Zergatik egiten dezute alako gaitz andi bat zeroen zuen kontra, ekartzeko eriotza gizasemeai, eta emakumeai, eta aurrai, eta Judan dauden bularreko umeai, zuetatik batere geldituko ez dan eran?

8. Aserretu erazitzen didazutela idoloakin, zuen eskuko lanakin, doañak eskeñtzen diozkazutela jainko arrotzai Ejiptoko lurrean, nora etorri zeraten bizitera, galduak izateko, baitaere izateko lurrean jende guzien madarikazioa eta lotsaria?

9. Aztu al zerate zuen gurasoen bekatuakin, eta Judako erregeen bekatuakin, eta beren emazteen bekatuakin, eta zuen bekatuakin, eta zuen emazteen bekatuakin, Judako lurrean, eta Jerusalengo erri aurreetan egiñakin?

10. Gaurko eguneraño ez dirade garbitu, eta ez dirade beldur izan, eta ez dute zaitu Jaunaren legea, ez zuei ta zuen gurasoai eman nizkizuten aginteak.

11. Argatik oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak: Jakin ezazute nik begiratuko dizutedala arpegi aserretuarekin, eta desegingo dedala Juda guztia.

12. Zuzenduko naiz gero Judako kutsuen kontra, zeñak gogor egon ziran sartzeko Ejiptoko lurrean, an biziteko; eta an Ejiptoko lurrean izango dira desegiñak, galduak diradela ezpataz eta gosez, eta txikienetik asita andieneraño galduak izango dirade, iltzen diradela ezpataz, edo gosez, eta begiratuak izango dirade gorrotoz, izuz, maldizioz, eta lotsariz.

13. Eta kastigatuko ditut Ejipton bizi diraden Juduak, Jerusalengoak kastigatu ditudan bezela, ezpatarekin, gosearekin, eta izurriarekin. Ez du batek ere igesik egingo.

14. Ezta Ejiptoko lurrean bideantez bizi diraden Juduen gañerakoak ere, ez da bat ere itzuliko Judako lurrera, zeñatara bizitera joateko alako gurak dauzkaten, ez dirade ara biurtuko, Ejiptotik iges egiten dutenak baizik.

15. Orduan erantzun zioten Jeremiasi gizon guztiak (zeñak baziekiten beren emazteak eskeñtzen zieztela doañak jainko arrotzai) eta andre guztiak, zeñetatiko talde ugaria zegoan an, eta Ejiptoko lurrean, Faturesen, bizi zan Israelko erri guztiak, eta esan zioten:

16. Jaunaren izenean zuk itz egin diguzunaren gañean, ez dizugu obeditu nai;

17. Baizik egingo degu, ongi deritzagun guztia; eta eskeñiko diozkagu doañak eta libazioak Diana zeruko erregiñari, egin degun bezela guk, eta gure gurasoak, eta gure erregeak, eta gure prinzipeak Judako errietan, eta Jerusalengo plazaetan, zeñarekin iduki genduen ogia ugari, eta izan giñan doatsuak, eta ez genduen ikusi atsekaberik batere.

18. Denbora artatik berriz, utzi giñonetik eskeñtzeari doañak, eta libazioak zeruko erregiñari, arkitzen gera guziaren premian, eta ezpataz eta gosez desegiñak arkitzen gera.

19. Eta baldin guk emakumeak, eskeñtzen badiozkagu doañak eta libazioak zeruko erregiñari, egin al diogu opillen eskeñtza, bera adoratzeko, eta libazioak eskeñtzeko gure senarren baimena gabetanik?

20. Orduan Jeremiasek itz egin zion erri guztiari gizasemeen kontra, eta emakumeen kontra, eta alako erantzuna eman zion erri guztiaren kontra, eta esan zien:

21. Jaunak bere aurrean ez al zituen iduki, eta ez al zan bere biotza aserretu, Judako errietan, eta Jerusalengo plazaetan eskeñtzen ziñituzten doañakin zuek, eta zuen gurasoak, zuen erregeak, eta zuen prinzipeak, eta lur artako erriak?

22. Eta ezin zuen onezkero Jaunak geiago sufritu, zuen etsigitasun ta gura gaiztoakgatik, eta egin ziñituzten gauza nazkagarriakgatik, eta ala zuen erria izan da eremutua, eta izu ta madarikazioz begiratzeko diña, eta iñor ere bertan bizi ez dala, gaurko egunean arkitzen dan bezela.

23. Idoloai doañak eskeñi ziñiozkatelako, eta Jaunaren kontra bekatu egin zendutelako; etzendutelako aditu nai Jaunaren boza, ez zaitu bere

legea, ez bere aginteak, ez bere erakutsiak. Argatik etorri dira zuen gañera, gaurko egunean ikusten diran doakabe oiek.

24. Eta esan zien Jeremiasek erri guztiari, eta emakume guztiai: Aditu ezazute Jaunaren itza, Ejiptoko lurrean zaudeten Judako erriko guztiak,

25. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak: Zuek eta zuen emazteak esan dezute zuen aoz, eta egin dezute zuen eskuakin, esaten zendutena. Kunplitu ditzagun egin giñituen botoak eskeñtzeko doañak eta libazioak zeruko erregiñari. Egiaz zuek kunplitu ziñituzten zuen botoak, eta egiztatu ziñituzten egitez.

26. Argatik aditu ezazute Jaunaren itza, Ejiptoko lurrean bizi zeraten Judako guztiak. Ona emen non nik juramentu egin dedan nere izen andiagatik, esaten du Jaunak, iñolaere ez duela berriz aitatuko Ejiptoko lurrean nere izena bere aoz Judu batek ere, esaten duela: Bizi da Jaun Jainkoa.

27. Begiratu ezazute, Ni egongo naiz beillan beren gañean, beren gaitzerako, eta ez beren onerako; eta Ejipton arkitzen diran Judako gizon guztiak galduak izango dira ezpataz, eta gosez, osotoro desegiñak izan ditezen artean.

28. Baña Ejiptotik aterata, ezpatari iges egiten dioten gutxi aiek, oiek itzuliko dira Judako lurrera; eta Judako eriko kutsu guztiak, Ejipton sartu diradenak an biziteko, ezagutuko dute nere itza ala berena egiztatzen ote dan.

29. Eta ikusi ezazute, esaten du Jaunak, nik toki onetan kastigatuko zaituztedan siñale bat; ezagutu dezazuten, egiaz kunplituko diradela nere itzak zuen kontra zuen kastigurako.

30. Oiek esaten ditu Jaunak: Ona emen non nik ipiñiko dedan Faraon Efree, Ejiptoko erregea, bere etsaien mendean, bere galmenaren billa dabiltzanen eskuetan; ipiñi nuen bezela Sedezias Judako erregea, Nabukodonosor Babiloniako errege, bere etsai, bera nola galduko ote zuen zebillanaren eskuetan.

BERROGEITA SEIGARREN KAPITULUA

1. Jaunak Jeremias profetari esan zion itza erreñuen kontra.

2. Ejiptoren kontra, Faraon Nekao, Ejiptoko erregearen ejerzituaren kontra, zeñ zegoan Eufrates ibaiaren aldean, Karkamisen, eta zeñ garaitu eta desegin zuen Nabukodonosor Babiloniako erregeak, Joakin, Josias Judako erregearen semearen laugarren urtean.

3. Prestatu itzatzute ordu onean ezkutuak, eta rodelak, eta atera zaitezte gudara.

4. Uztartu itzatzute zaldiak gerrako gurdietarako, zaldizko soldaduak igo zaitezte, ipiñi itzatzute morrioiak, zorroztu itzatzute lanzak, jantzi itzatzute gañetik soiburniak.

5. Baña, zer jertatuko ote da? ikusi nituen izuz beteak, eta atzeak ematen zituztela, beren errutsuak ilda. Igesi zijoazen beldurrez ikara, atzera begiratzeko ere itzuli gabe. Izua zabaltzen da aldamen guzietatik, esaten du Jaunak.

6. Ez dago zertan uste izan agudoak iges egingo duela ez salbatuko dala errutsua. Ifarraldean, Eufrates ibaiaren aldean izan dirade desegiñak, eta lurrera ekarriak.

7. Zeñ da ori, ugolde baten gisara urgulluz betetzen dan ori, eta zeñaen jiraboillak ibaietakoak bezela, arrotutzen diradena?

8. Arrotzen da Ejiptoko ibaia bezela, eta bere bagak dirade nastuak, ibaietakoak bezela, zeren berak esan du: Ni aurrera joango naiz, ondatuko det lurra, desegingo det erria, eta bertan bizi diradenak.

9. Igo zaitezte zaldien gañera, eta joan zaitezte korrika txiroen gisara gurdietan, eta bijoaz aurrera Etiopiako eta Libiako gudari sendoak eskuetan ezkutuak dituztela, eta Lidiatarrak eltzen dietela saietai, eta aurtikitzen dituztela.

10. Baña egun hura izango da ejerzituen Jaun Jainkoaren eguna; bengantzako eguna, zeñean pagatu eraziko dien pena bere etsaiai. Ezpatak iretsiko ditu, eta aseko da, eta moiskortuko da beren odolean, zeren ona emen non ejerzituen Jaun Jainkoaren kastigugaia egongo dan ifarraldeko lurrean Eufrates ibaiaren aldean.

11. Igo zaite Galaadera, eta artu ezazu baldamua, o birjiña Ejiptoko alaba, alperrik ugaritutzen dituzu zuk sendagarriak; ez dago onezkero sendagarririk zuretzat.

12. Zabaldua dago jendeen artean zure lotsaria, eta zure alarauz lurra betea dago. Sendoak sendoarekin topo egin du, eta biak batean lurrera erori dirade.

13. Jaunak Jeremias profetari egin zion itza, nola etorriko zan Nabukodonosor Babiloniako erregea, Ejiptoko lurrari erasotzera.

14. Eraman zaiozute berri au Ejiptori, adirazi ezazute Magdalen, eta egin ezazute zabaldu dedilla Memfisen eta Tafnisen, eta esan ezazute: Zutik jarri zaite, eta prestatu zaite; zeren ezpatak iretsiko duen zure inguruetan dagoen guztia.

15. Nola erori da, eta dago usteltzen lurrean zure gudari sendoa? Ez da zutik egon; zeren Jaunak beera aurtiki duen.

16. Beretatik asko beera aurtiki ditu. Batzuek besteen gañera erori dira, eta esan dute: Jaiki gaitezen, biurtu gaitezen gure errira, eta jaio giñan lurrera, alde egiten diogula usoaren ezpatari.

17. Faraon Ejiptoko erregeari izen au ipiñi zaiozute: Nastea, zeren berak egin duen nasteko denbora etorri dedilla.

18. Juramentu egiten det nik nerez, esaten du arako Errege, ejerzituen Jaunaren izena daukanak, Tabor mendietan, eta Karmelo itsasoan bezela, ala etorriko dala.

19. Prestatu ezazu bear dana beste erri batera joateko, o zuk Ejiptoko alaba, eta bertan bizi zerana; zeren Memfis eremu batera biurtua izango dan, utzia izango dan, iñorere bizirik gelditzen ez dala.

20. Txal mizkea, eta ederra da Ejipto: ifarretik etorriko da ezituko duena.

21. Berak erositako soldadu, bere erdian bizi ziradenak idisko gizendua bezela, oiek ere, atzea eman, eta iges egin zuten; eta ezin arpegi eman izan zioten etsaiari, etorri zalako berentzat beren galmeneko eguna, beren kastiguko eguna.

22. Beren bozak ots egingo du brontzeak bezela, zeren Kaldeatarrak agudo joango diran aurrera ejerzituarekin, eta etorriko diran Ejiptoren kontra aizkorakin, egurra ebakitzera dijoana bezela.

23. Arras ebakiko dituzte bere basoak, esaten du Jaunak, zeñaen zuaitzak kontatu ezin adiña diraden. Langostak baño ugariago egin ziraden. Ezin kontatu adiña dirade.

24. Beeratua dago Ejiptoko alaba, eta ifarreko erriaren mendean jarria.

25. Ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak esan du: Ona non nik kastigatuko dedan Alejandriako jende talde naslaria, eta Faraon, eta Ejipto, eta beren jainkoak, eta beren erregeak, eta Faraon, eta beragan itxedotzen dutenak.

26. Eta jarriko ditut, berak nola desegin dabiltzanen eskuetan, au da, Nabukodonosor babiloniako erregearen, eta bere serbitzarien mendean; eta oiek guziok iragota, Ejipto izango da berriz jendez betea anziña bezela, esaten du Jaunak.

27. Baña zu, nere serbitzari Jakob, etzaite beldur izan, etzaite ikaratu, o Israel, zeren nik libratuko zaitudan toki urruti aietan, eta aterako dedan zure jatorria katibu dagoan lurretik, eta itzuliko da Jakob, eta egongo da atsedeten, eta doatsua izango da, iñoren beldurrik zer iduki ez daukala.

28. Etzaite bada beldur izan, o nere serbitzari Jakob, esaten du Jaunak; zeren ni zurekin nagoen; bada nik desegingo ditut jende guztiak, zeñaen artean barreiatu zaitudan; zu berriz etzaitut desegingo, baizik kastigatuko zaitut neurriz; baña etzaitut kastigu gabe utziko, uste izan ez dezazun obengabea zerala.

BERROGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Jaunak Jeremias profetari esan zion itza Filisteoen kontra, Faraonek Gaza arrapatu baño lenago.

2. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Ona non datozen ifarretik urak, guztia ondatzen duen ugolde bat bezela; eta estaliko dute lurra eta bertan dagoen guztia, erria eta bertan bizi diradenak. Gizonak egingo dituzte deadarrak, eta hurrean bizi diraden guztiak alarauka ariko dirade,

3. Aditzen dutenean armen, eta gudarien, eta beren armen gurdien, eta beren kotxe ugarien ots ospatsua, gurasoak, korde guztia galduta, etzuten beren semeakgatik begiratzen.

4. Zeren allegatua da eguna, zeñean arras desegiñak izango diraden Filistintar guztiak, ezereztuak izango diraden Tiro eta Sidon, gelditzen zitzaiezten lagun guztiakin, zeren Jaunak eskubidea eman duen beren gauzak arrapatzeko Filistintar, Kapadoziako ugarteko kutsuai.

5. Gazak darama bere burua moistua, Askalon ixillik dago, baitaere bere ibarretako gañerakoak. Noizarteraño urratuko dituzu zure aragiak?

6. O Jaunaren ezpata! Ez al dezu zuk beñere atsedenik artuko? Sartu zaite zure magian, otzitu zaite, eta zaude ixillikan.

7. Baña nola geldirik egongo da Jaunak eman diozkanean aginteak Askalonen kontra, eta itsasaldeko bere erreñuen kontra, eta agindu badio beren kontra gudan aritzeko?

BERROGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Oiek esaten ditu Moaben kontra ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak: Naboren doakabea! desegiña izan da, eta azpiratua. Arrapatua izan da Kariataim, erri sendoa lotsatua dago eta beldurrez ikara.

2. Ez dago onezkero bozkariorik Moaben; asmazio gaiztoak darabiltzate Hesebonen kontra. Atozte. Arras kendu dezagun erreñuaren erditik. Eta zuk, o Madmen, erri ixilla, ez dezu txitik egingo, eta ezpatak jarraituko dizu.

3. Oronaimgo dunbotsa, eta deadarrak. Ondamena eta galmen andia.

4. Moab izan da beeratua, adirazi zaiezute bere aurtxoai, deadar andiak egin bearko dituztela.

5. Bera igoko da Luitko muñora, aspertu gabe negar egiten duela, aditu dituzte etsaiak urrikigarrien suspirioak Oronaimgo jetxieran.

6. Iges egin ezazute, zaitu itzatzute zuen biziak; izan zaitezte millazkia eremuan bezela.

7. Zeren jarri dezulako zuk, o Moab, itxedopena zure murruetan, beragatik zu ere arrapatua izango zera; eta katibu beste erri batera joango dira Kamos, eta bere apaizak, eta prinzipeak batean.

8. Eta Nabukodonosor lapurra aurtikiko da Moabko erri guztien gañera, eta erri bat bakarra ere ez da salbatuko; eta arrasatuak izango dira ibarrak, eta ondatuak landak, zeren Jaunak esan duen.

9. Ipiñi zaiozkazute lorezko koroak Moabi; baña koroarekin egon arren ere, katiberiorako aterako da; eta bere erriak iñor ere gabe, eta eremutuak geldituko dira.

10. Madarikatua fede gaiztoarekin, eta nagitasunarekin egiten duena Jaunak agintzen diona, eta madarikatua beragatik bere ezpatari galerazitzen diona odola isuritzea.

11. Masti ugaria izan zan Moab bere gazte denboratik: eta bere lietan egon zan, eta lusull batetik bestera aldatua izan etzan, eta erri batetik bestera ere eramana izan etzan ardo bat bezela, iraun du bere gustoak beragan, eta bere gustoa ez da mudatu.

12. Baña ona non allegatzen dan denbora, esaten du Jaunak, zeñatan nik bialduko diozkadan gizon adituak lusullak prestatzen, eta ardoa aldatzen, eta aldatuko dute; eta ustuko dituzte gero lusullak, eta zatituko dituzte.

13. Eta Moab lotsatua izango da Kamosgatik; lotsatua izan zan bezela Israelko etxea Betelgo idoloakgatik, zeñatan zeukan bere itxedopena.

14. Nola esaten dezute zuek: indartsuak gera eta sendoak gudatzeko?

15. Desegiña izan da Moabko alderri guztia, eta arrasatuak bere erriak, eta gazteeri autua illa izan da, esaten du arako erregeak, zeñaen izena dan ejerzituen Jauna.

16. Moaben galmena txit aldean da; eta bereala asitzera dijoaz bere zorigaitzak.

17. Urrikaldu zaitezte berarekin, bere inguruan zaudeten guztiak, eta zuek aditu dezuten guztiak bere izen ospatsua, esan ezazute: Nola izan da zatitua Moaben zetro sendoa, eskuan zerabillan gloriako bastoia?

18. Jetxi zaite gloriatik, eta toki leor batean eseri zaite, o alaba Dibonen bizi zerana; zeren Nabukodonosor, Moaben ondatzallea dator zure kontra, eta zure murruak desegingo ditu.

19. Zaude bidearen erdian, eta urrutira begiratu ezazu, o zuk Aroerren bizi zerana, galde egin zaiezu igesi dijoazenai, eta iges egin dutenai, eta esan zaiezu: Zer da gertatu dana?

20. Nastua gelditu da Moab, erantzungo dute, zeren garaitua izan dan. Egin itzatzute suspirioak, jaso ezazute deadarra, adirazi ezazute Arnongo inguru guztietatik, Moab arrasatua izan dala.

21. Eta lur lauaren gañera etorri dan kastigua: Helonen gañera, eta Jasaren gañera, eta Mefaaten gañera,

22. Eta Dibonen gañera, eta Naboren gañera, eta Deblataimgo etxearen gañera,

23. Eta Kariataimen gañera, eta Betgamulen gañera, eta Betmaonen gañera,

24. Eta Karioten gañera, eta Bosraen gañera, eta Moabko alderriko erri guztien gañera, ala urrutian daudenetara, nola aldean daudenetara.

25. Ezereztua izan da Moaben eskubidea, eta bere besoa ausia, esaten du Jaunak.

26. Moiskortu ezazute Jaungoikoaren aserreko kalizarekin, o Kaldeatarrak, zeren Jaunaren kontra jaiki zan, eta errebesatu dezala berak, eta egin ditzala txaloak bere eskuakin, etsiak bezela, eta irriarekin begiratu dizaiotela.

27. Zeren zuk, o Moab, lotsatu zenduen Israel, lapurren artean arrapatu bazeneza bezala, bere kontra esan dituzun itzakgatik bada, izango zera katibu eramana.

28. Utzi itzatzute erriak, o Moaben bizi zeratenak; joan zaitezte bizitera aitz zuloetara, eta izan zaitezte, aitzaren etendurarik goratuenean bere kabia egiten duen usoa bezela.

29. Aditu degu itz egiten Moaben urgulleriaren gañean, urgulleria bat txit andia dana; bere urgulleriaren, bere arrokeriaren, bere andigoaren, eta bere biotzeko antustearen gañean.

30. Nik ezagutzen det, esaten du Jaunak, bere andiustea, zeñi ez dagokion bere indarra; eta berak egin nai izan dituen gauzatarako ez daukala sendotasunik.

31. Argatik nik kantatuko ditut erostak Moaben gañean, eta Moab guztiari adiraziko diozkat nere bozak; adrilluzko murrua daukan erriko gizonai, zeñak suspirioetan dauden.

32. Nola negar egin nuen Jazergatik, ala negar egingo det zugatik, o Sabamako mastia. Zure txarmenduak irago ziran itsasoaren beste aldamenera, allegatu ziran Jazergo itsasoraño, lapurra aurtiki zan zure uzten gañera, eta zure mendainaren gañera.

33. Karmelo bezelako erri ugari eta gozatsuari, eta Moabko lurrari kendu zaiote bozkarioa, eta atsegiña. Aitu zan ardoa bere dolaretarako, ez ditu kantatuko oi zituen kantak matzaren zapaltzalleak.

34. Hesebondik Eleale eta Jasaraño adituko dira Moabtarren deadarrak, Segortik, zeñ dan iru urteko bigai bat bezela, Oronaimraño, Memringo urak berak ere izango dirade txit gaiztoak.

35. Eta arras desegingo det Moabtik, esaten du Jaunak, opariak alturetan egiten dituena, eta beretako jainkoai doañak eskeñtzen dieztena.

36. Argatik nere biotzak agertuko dio amorioa Moabi boz tristeetan, txirolarena bezela. Eta iruditurik txirolaren ots tristea, eta nere biotzak joko die txirolaren soñua, adrilluzko murrua daukan errian bizi diraden gizonai, zeñak galdu ziran, al zuten baño geiago egin nai zutelako.

37. Zeren buru guztia geldituko da arradatua, eta bizkar guztia ebakia, esku guztiak lotuak ikusiko dira, eta bizkar guztia zilizioz estaliko da.

38. Moabko sabai eta plaza guztietan suspirioak adituko dira; zeren nik egin nituen Moabekin zatiak, ezertarako gai ez dan baso batekin bezela, esaten du Jaunak.

39. Nola izan dan bera desegiña, eta jaso duen deadarra! Nola beeratu duen Moabek bere lepo goratua, eta lotsatua gelditu dan! Moab izango da bere inguruko guztien lotsari eta ejenplua.

40. Oiek esaten ditu Jaunak: Ona emen non Kaldeatarrak, arranoak bezela, zabalduko dituen bere egoak etortzeko egan Moaben gañera.

41. Kariot artua izan da, eta bere murruak irabaziak; eta Moabko gudari sendoen biotza izango da denbora artan, aurregiten ari dan andrearen biotza bezelakoa.

42. Eta Moab ez da erreñu izango, Jaunaren kontra urgullutu dalako.

43. Izua, lurrobia, eta lazoa izango dirade zure kontrarioak, o Moaben bizi zerana, esaten du Jaunak.

44. Izuagandik iges egiten duena, eroriko da lurrobian, eta lurrobitik ateratzen dana, lazoan arrapatua izango da, zeren nik egingo det allegatu dedilla Moaben gañera bere kastiguko denbora, esaten du Jaunak.

45. Hesebongo itzalean gelditu ziran lazotik iges egin zutenak, baña Hesebondik sua atera zan. Sehonen erditik irten ziran garrak, zeñak iretsi zituzten Moaben zati bat, eta matxiñadako semerik nagusienak.

46. Ai zure doakabea, o Moab! Galdua izan zera, o Kamos jainkoaren erria, zeren zure semeak, eta zure alabak katiberiora eramanak izan diran.

47. Baña nik egingo det, esaten du Jaunak, Moabko semeak atzeneko egunetan katiberiotik itzuli ditezela. Onaraño Jaunaren erabakiak Moaben kontra.

BERROGEITA BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Ammonen semeen kontrako profezia. Oiek esaten ditu Jaunak: Ez al dauka Israelek semerik, edo primu gabetanik al dago? Zergatik bada Melkom egin da Gad bere erriaren jabe, eta bizi da tribu onetako errietan?

2. Argatik ona emen non datorren denbora, esaten du Jaunak, zeñean nik adituerazi ko dedan Ammonen semeen Rabbaten gerrako dunbotsa, eta geldituko dan guztia desegina, eta bere alabak erreak izango dirade, eta Israel izango da, bere jabe izan ziradenen jabe.

3. O Hesebon, zaude suspirioetan, ikusirik Hai arrasatua izan dala. Sendo deadar egin ezazute, o Rabbatko semeak, ipiñi itzatzute zilizioak gerrietan, negar egin ezazute, eta ibilli zaitezte jiran lurresietatik, zeren Melkom beste erri batera katibu eramana izango dan, eta berarekin batean bere apaizak, eta bere prinzipeak.

4. Zergatik gozatzen zera zure ibar ugarietan? Desegiñak izan dirade zure ibarrak, o alaba gozotasunen artean azia, zure tesoroetan itxedopena ipiñirik, esaten zenduena: Nor etorriko da nere kontra?

5. Ona emen non nik, esaten du ejerzituen Jaunak, egingo dedan, izuz bete zaitzatela zure inguruko erri guztiak, eta geldituko zerate barreiatuak, bata besteagandik urrutian, eta ez da arkituko, igesi dabiltzanak bilduko dituenik.

6. Eta oiek iragota egingo det, Ammonen semeak beren errira itzuli ditezela, esaten du Jaunak.

7. Idumearen kontra, oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Ez al dago onezkero jakinduriarik Temanen? Ez, ez dago zentzurik bere semeetan; bere jakinduriak deus ez du balio.

8. Iges egin ezazute; ez ezazute berriz atzera begiratu; jetxi zaitezte lurzulorik zakonenetara, o Dedanen bizi zeratenak, zeren nik bialdu dedan Esauren gañera bere galmena, bere kastiguko denbora.

9. Etorri balirade zugana mendaintzalleak, etzuten mordorik utziko. Lapurrak etorri balirade, ostuko zuten bear zutena.

10. Baña nik desestali det Esau, agertu det berak ezkutatu zuena, eta ezin onezkero ezkutatuko du. Desegiñak gelditzen dirade bere jatorria, eta bere anaiak, eta auzoak. Eta bera ez da biziko.

11. Alaere utzi itzatzu zure umezurtzak, eta nik bizitu eraziko diet; eta zure andre alargunak beren itxedopena nigan ipiñiko dute.

12. Zeren oiek esaten ditu Jaunak: Jaunaren aserreko kaliza edatzeko erabakia berakgan etzeukatenak, aiek ere edango dute, eta zuk obengabea bezela utzia izan nai dezu? Ez, etzera zu obengabea bezela tratatua izango, eta edango dezu.

13. Zeren ni neraugatik juramentu egin det, esaten du Jaunak, Bosra izango dala arrasatua, eta lotsariz betea, eta eremu bat egiña, eta madarikatua bezela begiratua; eta bakartasun betiko bat izatera etorriko dira bere erri guztiak.

14. Gauza oiek aditu niozkan nik Jaunari, eta gero Nabukodonosorrek bialdu diezte mandatariak bere jendeai, esaten diela: Bildu zaitezte, eta atozte Bosraren kontra, eta goazen berari erasotzera.

15. Zeren nik egingo det, txikia izan zaitezela erreñuen artean, eta gizonen artean mezpreziagarria.

16. Zure arrokeriak eta zure biotzeko urgulluak engañatu zinduten. Zu aitzen zuloetan bizi zerana, eta igo nai zerana mendiaren erpiñeraño, egingo bazeneza ere zure kabia arranoak baño gorago, andikan aurtikiko zaitut, esaten du Jaunak.

17. Eta Idumea eremutua geldituko da. Andikan iragotzen dan guztia arrituko da, eta bere zorigaitzai irri egingo diote.

18. Nola arrasatuak izan ziraden Sodoma eta Gomorra, eta beren aldekoak, esaten du Jaunak; ala bera ere geldituko da, bertan gizon bat bakarra ere bizi ez dala, iñor ere ez da an biziko.

19. Ona emen non Nabukodonosor, leoi bat bezela etorriko dan Jordan arrotik Idumea eder eta sendoaren gañera erortzera; zeren nik supituan korrika joaneraziko diot beraganontz; eta, zeñ Nabukodonosor baño besterik izango da gizon autua, zeñi nik agindu nion berarekin jabetu zedilla? Zeren, zeñ dago nere antzekorik? Zeñ izango neri aurkatuko zatanik? Zeñ artzai da nere aurrean jarriko dana?

20. Argatik aditu ezazute zer dan, Jaunak Edomen gañean erabaki duena; eta nolako gogorazioak dauzkan Temanen bizi diradenen gañean. Juramentu egiten det nik, esaten du, artaldeko txikitxoak aurtikiko dituztela lurrera, eta desegingo dituztela Idumeatarrak, eta beren bizilekuak.

21. Beren galmeneko otsera, lurra mugitu zan, beren bozak eta deadarrak itsasogorriraño allegatu ziran.

22. Begira, etorriko dala, eta zabaldurik bere egoak, igoko da egan arranoa bezela, eta aurtikiko da Bosraen gañera, eta Idumeako gizon sendoen biotza izango da egun artan, aurregiten dagoen andre baten biotza bezelakoa.

23. Damaskoren kontra, Nastuak izan dirade Emat, eta Arfad. Berri txit gaizto bat aditu dute, itsasoko ugartekoak nastu dirade, bere kezkak ez dio utzitzen atsedenik artzen.

24. Desegiña dago Damasko, igesari eman dio. Bera beldurrez ikara dago, estutasunez eta oñazez betea dago, aurregiten ari dan andrea bezela.

25. Nola utzi duten berak erri ospatsua, gozotasunezko erria!

26. Argatik eroriko dira bere gazteak bere karrikaetan, eta bere gizon gerrari guztiak ixillik geldituko dira egun artan, esaten du ejerzituen Jaunak.

27. Eta itsatsiko diot sua Damaskoko murruari, zeñak desegingo dituen Benadab erregearen murruak.

28. Zedarren kontra, eta Asorko erreñu Babiloniako erregeak desegin zituenen kontra, oiek esaten ditu Jaunak: Jaiki zaitezte, zoazte Zedarren kontra, eta Sortaldeko semeak desegin itzatzute.

29. Arrapatuko dituzte beren etzauntzak, eta beren abereak. Ostuko dituzte beren larruak, eta beren tresnak, eta beren gameluak, eta ekarriko dute aldamen guztietatik izua beren gañera.

30. Iges egin ezzute, joan zaitezte agudo toki urrutira, esaten du Jaunak, zaudete atsedeten arzuloetan, zuek Asorren bizi zeratenak, zeren zuen kontra artu ditu asmazioak, eta darabiltza gaitz egiteko gogoak Nabukodonosor Babiloniako erregeak.

31. Jaiki zaite, esaten die Jaunak Kaldeatarrai, joan zaite geldirik dagoen, eta beldurrikan batere gabe bizi dan erreñu batera. Ez daukate aterik, ez morrollorik. Bakar bakarrik bizi dira.

32. Zuek arrapatuko diozkazute beren gameluak, eta zuen eskuetan eroriko dira beren zamari ugariak. Nik barreiatuko ditut aize guztietara, koroaren gisara beren illeak ebakitzen dituzten oiek, eta beren inguru guztietatik etorri eraziko diot eriotzari beren kontra, esaten du Jaunak.

33. Eta Asor izango da sugulnen bizilekua, beti eremua. Ez da an geldituko gizonik batere, eta ez da ere an biziko gizonen semerik.

34. Jaunak Jeremias profetari esan ziozkan itzak, Elamen kontra, Sedezias Judako erregeak erreñatu zuen denborako asieran.

35. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Ona emen non nik zatituko dedan Elamgo uztaia, zeñ dan bere sendotasunaren zimendua.

36. Eta askatuko ditut Elamen kontra, zeruko lau aldamenetako lau aizeak, eta barreiatuko ditut bertan bizi diradenak aize guzti oietarontz;

eta ez da izango erreñurik batere, zeñatara allegatuko ez diran Elamdik iges egindakoak.

37. Eta egingo det, ikaraz egon dedilla Elam bere etsaien aurrean, eta bere galmenaren billan dabiltzanen begietan. Bialduko ditut zorigaitzak beren gañera, nere aserre sumiña, esaten du Jaunak; eta bialduko det beren ondoren, berak arras desegin arteraño persegituko dituen ezpata.

38. Eta Elamen nere tronua ipiñiko det, eta aurtikiko ditut andikan erregeak, eta prinzipeak, esaten du Jaunak.

39. Baña atzeneko egunetan nik egingo det, itzuli ditezela beren errira Elamgo katibuak, esaten du Jaunak.

BERROGEITA AMARGARREN KAPITULUA

1. Jaunak Babiloniaren, eta Kaldeako erriaren kontra, Jeremias profetaren aoz, egin zuen itza.

2. Eraman ezazute berria erreñuetara, eta egin ezazute, berri au korrika zabaldu dedilla. Jaso itzatzute siñaleak goietan; adirazi, ta zabaldu ezazute, ez ezazute estali, esan ezazute: Arrapatua izan da Babilonia, lotsatua gelditu da Bel, eta azpiratua Merodak; lotsariz beteak gelditzen dirade beren irudiak; beren jaikoak arrituak izan dirade.

3. Zeren etorriko da bere kontra ifarretik erreñu bat, zeñak arrasatuko duen bere erria, iñor ere bizirik gelditu gabe, gizonagandik asita abereraño, guztiak mugitu ziran, eta joan ziran.

4. Egun aietan, eta denbora artan, bilduko dira, esaten du Jaunak, Israelko semeak, eta berakin batean Judako semeak, Jerusalenera biurtzeko; eta bozkarioz negar egiten dutela, ibilliko dirade agudo, eta beren Jaun Jainkoa billatuko dute.

5. Galdetuko dute zeñ dan Sionera dijoan bidea; artara zuzenduko dituzte beren begiak. Biurtuko dira katiberiotik, eta bilduko dira Jaunarekin betiko elkartasun batekin, zeñaen oroipena beñere aztuko ez dan.

6. Artalde galdua izan zan nere erria, bere artzaiak eraman zuten okerreko bidetik, eta joanerazi zioten orra ta onara mendietatik. Ibilli zan mendietatik eta muñoetatik, eta bere atsedeneko tokiarekin aztu zan.

7. Nere erria arkitzen zuten guztiak, iretsitzen zituzten, eta beren etsaiak esaten zuten: Onetan ez degu gauza gaiztorik batere egiten; zeren oiek bekatu egin duten Jaun, justiziako argitasunaren kontra; Jaunaren, beren gurasoen itxedopenaren kontra.

8. Iges egin ezazute Babiloniaren erditik, eta atera zaitezte Kaldeatarren erritik, eta izan zaitezte ar ariak artaldearen aurrean bezela.

9. Zeren ona emen non nik mugituko ditudan, eta bilduta ekarriko ditudan Babiloniaren kontra ifarraldeko lurreko erreñu andietako ejerzituak, zeñak prestatuko diran berari erasotzeko, eta bereala izango da arrapatua, beren saietak, gerrari sendo eta iltzalleen gisara, ez dirade utsean aurtikiak izango.

10. Eta Kaldeako ondasunak arrapatuak izango dirade. Geldituko dirade txit aberastuak beren arrapatzalle guztiak, esaten du Jaunak.

11. Bozkarioz gora goraka ari zeraten ezkero, eta urgulleriarekin itz egiten dezuten ezkero, nere soroa arrasatu dezutelako, jostaketan zabiltzaten ezkero txalak belarraren gañean bezela, eta muuka zaudeten ezkero zezenak bezela,

12. Babilonia zuen ama txit azpiratua gelditu da; eta arrasatua izan da hura, zeñgandik sortuak izan ziñaten. Ona emen non izango dan erreñuen artean mezpreziagarriena, geldituko da eremutua, iragoeziña eta leorra.

13. Jaunaren aserreak utziko du, bertan iñor ere bizi ez dala, eta bakartade bat eginik. Babiloniatik iragotzen dan guztia, arritua geldituko da, eta bere zorigaitz guztiai irri egingo diote.

14. O zuek, uztaia erabiltzen trebeak zaudeten guztiak; prestatu zaitezte aldamen guztietatik Babiloniaren kontra, eraso zaiozute, ez itzatzute saietak urritu; zeren Jaunaren kontra bekatu egin duen.

15. Jaso ezazute bere kontra deadarra. Onezkero luzatzen ditu bere eskuak aldamen guztietatik, garaitua bezela; mugitzen dirade bere zimenduak, desegiñak gelditzen dirade bere murruak, zeren Jaunaren bengantzako denbora dan. Bengatu zaitezte berarekin; egin ezazute berarekin, berak besteakin egin zuena.

16. Il ezazute Babilonian bizia daukan guztia, etzaiozute barkatu ereitzen duenari, ez uztako denboran igitaia darabillanari. Usoaren ezpatak dist egiten duenean, guztiak beren errietara itzuliko dirade, eta bakoitzak bere lurrera iges egingo du.

17. Israel artalde galdu bat da. Leoiak barreaiatu zuten. Lenengo iretsi zuena Asur erregea izan zan: atzena izan da Nabukodonosor Babiloniako erregea, zeñak bere ezurretarañokoakin desegin duen.

18. Argatik oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jaungoikoak: Ona emen non nik kastigatuko dedan Babiloniako erregea, eta bere erria, Asur erregea kastigatu nuen bezela.

19. Eta eramango det berriz Israel, bere anziñako bizilekura, eta gozatuko da Karmeloko bazkaetan; eta aseko ditu bere gurak Basanen, eta Efraimgo eta Galaadko muñoetan.

20. Egun aietan, esaten du Jaunak, eta denbora artan ibilliko dirade Israelko gaiztakeriaren billan, eta ez da arkituko; eta Judako bekatuaren billan, eta ez da arkituko au ere; zeren ni urrikaltsua izango naizan, neretzat gorde dedan erri artako kutsuakin.

21. O Ziro, zoaz zu Kaldearen agindutzalleen lurraren kontra, eta kastigatu itzatzu an bizi diradenak, arrasatu ezazu, eta ill itzatzu berari jarraitzen diotenak, guztiak, esaten du Jaunak, eta egin ezazu emanik daukazkizudan aginteen araura.

22. Gudako dunbotsa aditzen da lurraren gañean, eta galmen andikoa.

23. Nola izan da zatitua eta txeatua Babiloniako erregea, zeñ zan lur guztiko mallua? Nola dago Babilonia eremu bat egiña jendeen artean?

24. Nik arrapatu zindudan lazoan, eta uste izan gabe ikusi zera katigatua, o Babilonia, izan zera arkitua eta atxitua; zeren Jaunari gerra egin ziñion.

25. Idiki du Jaungoikoak bere tesoroa, eta atera ditu andik bere aserreko erremientak; zeren ejerzituen Jaun Jainkoa dijoan egiztatzen bere lana Kaldeako lurraren kontra.

26. Atozte bere kontra erreñurik urrutienekoetatik, leku egin ezazute, atera ditezen zapalduko dutenak; kendu itzatzute bideko arriak, eta montoietan jarri itzatzute. Egin ezazute bertan ilkintza bat, iñor ere bizirik gelditu ez dedin artean.

27. Desegin itzatzute bere gerrari guztiak, iltokira eramanak izan bitez. Ai beren doakabeak! Zeren beren eguna onezkero allegatua dan, beren kastiguko eguna.

28. Igesi dijoazanen boza, eta Babiloniako lurretik iges egin zutenena, eramateko Sionera gure Jaun Jainkoaren bengantzaren, bere tenplo santuko bengantzaren berria.

29. Babilonian uztaia erruz erabilli oi duen jende talde guztiari, esan zaiozute, jarri zaitezte beren kontra inguru guztian, batek ere igesik egin ez dezan. Eman zaiozute beren gaiztakerien ordaña. Egin ezazute berarekin, berak egin duenaren araura; zeren Jaunaren kontra, Israelko Santuaren kontra jaiki zan.

30. Argatik eroriko dirade illak bere karrikaetan bere gazteak, eta bere gerrari guztiak egun artan asnasa gabe geldituko dira, esaten du Jaunak.

31. Emen naiz ni zure kontra, o Baltasar urgullutsua, esaten du ejerzituen Jaunak, zeren allegatua dan zure eguna, zure kastiguko eguna.

32. Eta eroriko da urgullutsua, eta lurra joko du, eta ez da egongo nork jaso dezan, eta bere erriai su emango diet, zeñak iretsiko dituen bere inguru guztiak.

33. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Israelko semeak, Judakoakin batean, ikusten dirade estutuak. Katibu egin zituzten aiek, dauzkate beren mendean, ez dituzte askatuta utzi nai.

34. Baña beren Salbatzalle sendoak, ejerzituen Jaunaren izena daukanak, zaituko du juizioan beren gauza, eta lurra izuz beteko du, eta egingo du Babilonian bizi diradenak dardaraz jarri ditezela.

35. Ezpata, esaten du Jaunak, Kaldeatarren kontra, eta Babilonian bizi diradenen kontra, eta bere Prinzipeen kontra, eta bere jakintsuen kontra.

36. Ezpata bere aztien kontra, eta geldituko dira sorrak. Ezpata bere gudari sendoen kontra, eta geldituko dira izuz beteak.

37. Ezpata bere zaldien kontra, eta bere gerrako gurdien kontra, eta bere barrenen dagoen jendetza guztiaren kontra, eta beldurtiak izango dirade emakumeak bezela. Ezpata tesoroen kontra, eta ustuak geldituko dirade.

38. Sikatu eta leortuko dira bere urak, zeren irudi alperren lurra dan, eta beren gauza arrigarrietan gozatzen diran.

39. Argatik etorriko da izatera sugulnen, eta baso pikuak jaten dituzten faunoen bizilekua, eta saien bizilekua, gelditzen dala betiko iñor ere bertan bizi ez dala, eta beñere berriz egiña izan gabe.

40. Etorriko da bera izatera, esaten du Jaunak, Sodoma, Gomorra, eta beren aldeko errien gisakoa, zeñak desegin zituen Jaunak. Ez da geldituko gizonik batere bertan biziteko, ez gizonaren semerik an egoteko.

41. Ona emen non datozen ifarretik erri bat, eta erreñu andi bat; eta errege asko jaikiko dirade lurraren atzeneko mugetatik.

42. Elduko die uztaiari eta ezkutuari. Biotz gogorrekoak eta urrikaltasun gabekoak dirade, beren bozak izango dirade orroaka ari dan itsaso batenak bezelakoak, eta ibilliko dirade beren zaldien gañean, zure kontra gudatzeko prestatua dagoen gerrari baten eran, o Babiloniako alaba.

43. Aditu zuen Babiloniako erregeak beren ospea, eta gelditu zan asnasa gabe, eta atsekabez eta oñazez betea, aurregiten ari dan andre bat bezela.

44. Ona emen non, errege bat etorriko dan leoia bezela, Jordan arrotik Babiloniako erri eder eta sendoaren gañera erortzera, zeren nik supituan korrika joaneraziko diot beraganontz. Eta, zeñ, Ziro baizik, izango da autua, zeñi nik eman nion agintea berarekin jabetzeko? Zeñ dago bada

nere antzekorik? Zeñ izango da neri aurkeztuko zadana? Eta, zeñ da aurrean jarri zitzakedan artzaia?

45. Argatik aditu ezazute, Jaunak an bere adimenean egiña daukan asmazioa, Babiloniaren kontra; eta bere erabakiak Kaldeatarren erriaren gañean. Juramentu egiten det, esaten du Jaunak, artaldeko artzai gazte txikitxoak lurrera aurtikiko dituztela. Juramentu egiten det desegiñak izango diradela berak, eta bizi diraden erriak.

46. Aditurik berria nola Babilonia arrapatua izan dan, dardaraz jarri da lurra; eta bere deadarrak erreñuen artean adituak izan dirade.

BERROGEITA AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Oiek esaten ditu Jaunak: Ona emen non nik aterako dedan aize izurritsu bat Babiloniaren, eta bertan bizi diranen kontra, zeñak nere kontra jaiki diran.

2. Eta bialduko ditut Babiloniaren kontra aizatzalleak, aizatuko dutenak, eta arrasatuko dutenak beren erria; zeren bere atsekabeko egunean joango dira beragana aldamen guztietatik bere kontra.

3. Bere uztaia punterian jartzen duenak ez beza jarri, ez bedi ere loarikatua joan. Etzaiezute barkatu bere gazteai, il itzatzute bere gudari guztiak.

4. Eta illak eroriko dirade Kaldeatarren errietan, eta zaurituak izango dirade bere alderrietan.

5. Zeren Israel eta Juda ez diraden gelditu beren Jaungoiko, ejerzituen Jaunak utziak; eta Kaldeatarren lurra bekatuz betea dagoelako Israelko santuaren kontra.

6. Iges egin ezazute, o Juduak, Babiloniaren erditik, eta bakoitzak zaitu beza bere bizia. Etzaitezte ixillikan egon bere gaiztakeriaren gañean; zeren allegatua dan Jaunaren bengantzako denbora, zeñak diña dana emango dion.

7. Babilonia izan da oraindaño Jaunaren eskuan, urrezko kaliza bat bezela moskortzeko lur guztia. Erreñu guziak bere ardotik edan zuten, eta gelditu ziraden beren senetik aterata bezela.

8. Babilonia supituan erori da, eta gelditu da zatitua. Egin itzatzute suspirioak bere gañean, artu ezazute iretsa bere zaurietarako, ikusteko sendatzen ote dan.

9. Eman diozkagu botikakoak Babiloniari, eta ez da sendatu. Utzi dezagun bada, eta itzuli gaitezen bakoitza bere lurrera: zeren bere gaiztakeriak odeiak baño arontzago igo diran, allegatu dirade zeruraño.

10. Jaunak agertu erazi dio gure justiziari: atozte, eta argiro adirazi dezagun Sionen gure Jaun Jainkoaren lana.

11. Zorroztu itzatzute, o Babiloniarrak, zuen saietak; berakin bete itzatzute zuen fletxatokiak. Jaunak biztu du Mediako erregeen espiritua, eta artu du onezkero bere erabakia, Babilonia arrasatzeko, zeren Jaunak bengatua izan bear duen, bere tenploak bengatua izan bear duen.

12. Altxatu itzatzute ordu onean banderak Babiloniako murruen gañean, geitu itzatzute gudariak, ipiñi itzatzute bealariak, jarri izatzute zelatadak; baña Jaunak erabaki du, eta egiztatuko du, lendanaz adirazia daukan guztia, Babilonian bizi diradenen kontra.

13. O zu, zure esertokia ipiñita daukazuna ur ugarien artean, ondasunez betea zaudena! Zure atzena allegatu da, allegatu da zure galmeneko ordu izendatua.

14. Ejerzituen Jaunak juramentu egin du berak berez, esaten duela: Nik beteko zaitut gañez egin arteraño gizon talde batez, arrasalariak izango diradenez langostak bezela, eta kantatuko da zure kontra mendaineko kanta.

15. Bera da bere eskubidearekin lurra egin zuena, eta bere jakinduriarekin prestatu zuena mundua, eta zabaldu zituena zeruak bere aditzarekin.

16. Bere boz batera biltzen dirade zeruko urak; berak etorri erazitzen die odeiai munduaren atzeneko mugetatik, tximistak euri biurtzen ditu, eta bere tesoroetatik aizea ateratzen du.

17. Ezjakiñean gelditu zan gizon guztia bere jakinduriarekin. Idoloaren otallua bera da langille guztiaren lotsaria; zeren gauza gezurtia dan berak egin duen lana: ez dago beratan bizitzako espiriturik batere.

18. Lan alperrak dirade oriek, eta farraren diñak, berak kastiguko denboran galduko dirade.

19. Ez da alako obrak bezelakoa Jakoben herenzia dana; zeren bera dan gauza guztiak egin zituena, eta Israel da herenziaz datorkion bere erreñua. Ejerzituen Jauna da bere izena.

20. Zu, o Babilonia, izan zera neretzat mallua, zeñarekin desegin ditudan jende gerralariak, eta zure bitartez nik desegingo ditut jendeak, eta arrasatu erreñuak;

21. Eta zure bitartez akabatuko det zaldiakin, eta zaldi gañekoakin, eta gurdi armadunakin, eta gañean dijoazanakin.

22. Zure bitartez akabatuko det gizasemeakin eta emakumeakin. Zure bitartez akabatuko det zarrakin eta aurrakin, eta zure bitartez akabatuko det mutil gazteakin, eta neskatx donzellakin.

23. Zure bitartez akabatuko det artzaiarekin eta artaldearekin; eta zure bitartez akabatuko det nekazariarekin, eta bere idi uztarriakin, eta zure bitartez akabatuko det agintariakin, eta majistraduakin.

24. Eta gero, zuen begien aurrean, nik pagatuko diet Babiloniari, eta Kaldean bizi diraden guztiai, Sionen kontra egin zuten gaitz guztia, esaten du Jaunak.

25. Emen nago ni zure kontra, esaten du Jaunak, o mendi izurridun, lur guztia izurritzen dezuna, eta luzatuko det zure kontra nere eskua, eta aurtikiko zaitut zure aitzen artetik, eta egingo zaitut, suaren garrak desegin duten mendi baten antzekoa.

26. Ez da zugandik aterako arri onik kantoi baterako, ez arririk zimenduetarako; baizik betiko desegiña geldituko zera, esaten du Jaunak.

27. Altxatu ezazute bandera lurrean, jo ezazute tronpeta erreñuen artean. Prestatu itzatzute erriak gerra santu baterako Babiloniaren kontra. Ots egin zaiozute beren kontra Araratko, Menniko, eta Aszenezko erregeai, kontatu ezazute bere kontra Tafsar; ekarri itzatzute zaldiak, langostak dauzkaten bezelako mistoakin.

28. Prestatu itzatzute gerra santurako bere kontra erriak, eta Mediako erregeak, eta bere agintariak, eta bere andizki guztiak, eta bere mendean dauden probinzia guztiak.

29. Eta bereala izango da lurra mugitua, eta nastua, zeren laister kunplituko dan Jaunaren erabakia, zeñaen bitartez Babiloniako erria geldituko dan eremutua, eta iñor ere bizi ez ditekeala.

30. Babiloniako gizon sendoak utzi dute guda, sartu dirade gazteluetan, aitu da beren indarra, onezkero emakumeak bezelakoak dirade. Beren etxeak erreak izan dirade, eta zatituak beren ateetatko morrolloak.

31. Korrika dijoan bati irtengo zaio beste bat korrika bidera, eta mandatariari mandararia, adirazteko Babiloniako erregeari, bere erria arrapatua izan dala aldamen batetik besteraño;

32. Eta artuak daudela ibaiko uberak, eta su eman diela putzuen aldeko kañaberadiai, eta gerrari guztiak nastuak daudela.

33. Zeren oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak, Israelko Jainkoak: Babiloniako alaba zapaldua izango da uzta larrañean bezela: allegatu da traillatzeko denbora; denbora gutxi bear da ebakitzen asitzeko.

34. Babiloniako erregeak konsumitu nau, iretsi nau; utzi nau ontzi utsik dagoen bat bezela. Sugulnak bezela bere barrenen sartu nau. Bete du bere sabela, nik neuzkan gauzarik ederrenenakin, eta kanpora bota nau.

35. Nerekin egindako bidegabeak, esaten du Siongo alabak, eta nere semeetan egin duen ilkintza, deadarrez daude Babiloniaren kontra; eta nere odolak, esaten du Jerusalenek, deadar egiten du Kaldean bizi diradenen kontra.

36. Argatik oiek esaten ditu Jaunak: Ona emen non nik nere kontura artuko dedan zu zaitzea, eta zuri egindako bidegabeak bengatzea. Nik utziko det urik gabe bere itsasoa; eta leortuko ditut bere urjarioak.

37. Eta geldituko da Babilonia arri eta zatarreriazko montoi eginik, sugulnen igestoki, guztien izu eta lotsaria. Bada oraindikan irautzen du iñor ere bizi ez dala.

38. Orroak egingo dituzte Kaldeatarrak, guztiak batean leoiak bezela. Astindu dituzte beren illeen adatsak leoitxoak bezela.

39. Utziko diet berotu ditezela beren janedanetan, eta moskortu ditezela; onela, konkortuta, egin dezaten betiko loa, zeñatatik ez diran iñoiz ere esnatuko, esaten du Jaunak.

40. Eramango ditut bildotsak bezela iltokira, eta aritoak, eta antxumeak bezela.

41. Nola izan da arrapatua Sesatx, eta garaitua lurreko erririk argitsuena? Nola etorri da Babilonia andi hura erri guztien izua izatera?

42. Itsaso batek ondatu du Babilonia, eta bere bagen ugaritasunak ito du.

43. Bere erriak egin dira izugarriak, lur bat iñor ere ez ditekeana bizi, eta eremutua, zeñean iñor ere bizi ez dan, eta ez dan ere igarotzen gizonaren semerik.

44. Eta kastigatuko det Bel Babilonian; eta gonbitatu eraziko diot sabelean sartu zuena, eta andikan aurrera ez dirade beragana joango erreñuak, zeren Babiloniako murrurañokoak arrasatuak izango dirade.

45. Atera zaite andik, o nere erria; salbatu beza bakoitzak bere bizia, Jaunaren aserre ikaragarritik.

46. Eta egin ezazute alegiña ez desalaitzeko zuen biotza, eta etzaitzatela beldurtu, erritik dabiltzan berriak. Urte batean etorriko da berri bat, eta urte au iragota beste berri bat; eta gaiztakeria ikusiko da lurrean, eta agintzalle bati jarraitzen diola beste agintzalle batek.

47. Orduan bada allegatuko da denbora, zeñatan desegingo ditudan nik Babiloniako idoloak, eta lotsariz betea geldituko da bere lur guztia, zeñaen erdian ilda eroriko diran bere erritar guztiak.

48. Zeruak eta lurrak eta beretan dagoen guztiak kantatuko diozkate alabantzak Jaunari, Babilonian gertatu danagatik, zeren ifarretik etorriko zaiozka bere ondatzalleak, esaten du Jaunak.

49. Eta nola Babiloniak il erazi zituen anbeste Israelen, ala Babiloniakoak ikusiko dira ilda erortzen alderri guztian.

50. Zuek, ezpatatik iges egin zendutenak, atozte, etzaitezte gelditu. Urrutitikan oroitu zaitezte Jaunarekin, eta zuen biotz guztia eraman beza berriz Jerusalenek.

51. Lotsatuak gaude, o Jauna, aditu ditugun irriakin, gure arpegiak lotsariz beteak dirade; zeren arrotzak sartu diran Jaunaren tenploko santuarioan.

52. Argatik esaten du Jaunak: Ona emen non allegatu dan denbora, zeñean nik desegingo ditudan bere irudiak, eta bere lur guztian adituko dirade bere zaurituen negarrak.

53. Babilonia zeruraño altxatuko balitza ere, ta an goian bere indarra sendotuko balu ere, Nik bialduko ditut jendeak, bera desegingo dutenak.

54. Babiloniako deadar andiak adituko dira, eta Kaldeatarren lurreko dunbots andi bat.

55. Zeren Jaunak arrasatu duen Babilonia, eta ixildu duen bere izketa urgullutsua; eta bere bagen otsa izango da, ur txit ugarien antzekoa, alakoa izango da bere deadarren otsa.

56. Zeren lapurra etorri da bere gañera, au da, Babiloniaren gañera, eta bere gizon sendoak arrapatuak izan dirade, eta beren uztaia gelditu da indarrik gabe; zeren bengatzalle almentsua dan Jauna, zeñak emango dien, diña diraden ordaña.

57. Eta moskortuko ditut nere aserreko kalizarekin bere prinzipeak, eta bere jakintsuak, eta bere agintariak, eta bere majistraduak, eta bere gerraririk errutsuenak; eta egingo det betiko lo bat egin dezatela, zeñatatik beñere ez diraden esnatuko, esaten du Jaunak, zeñaen izena dan: Ejerzituen Jauna.

58. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Arako Babiloniako murru txit zabala, desegiña izango da goitik beera, eta bere ate txit goratuak erreak izango dirade; eta utsera biurtua errien lana, eta erreñuen arazoa su garren bazka izatera.

59. Jeremias profetak eman zion agintea Saraias, Neriasen semearen, Maasiasen semearen semeari, Sedezias erregearekin Babiloniara zijoanean, Saraias zan profeziaren prinzipea.

60. Eskribitu zituen Jeremiasek liburu batean, Babiloniaren kontra etorriko ziran zorigaitz guztiak, au da, bere kontra eskribatua gelditzen dan guzi au.

61. Eta esan zion Jeremiasek Saraiasi: Allegatzen zeranean Babiloniara, eta ikusi ta irakurtzen dituzunean itz guzi oiek,

62. Esango dezu: O Jauna, zuk esan dezu desegingo dezula erri au alako moduan, non, ez dan izango iñor ere bertan biziko danik, ez gizonik, ez abererik, eta izan dedilla betiko bakartade bat.

63. Eta liburu au irakurtzea bukatzen dezunean, lotuko diozu berari arri bat, eta Eufratesen erdira aurtikiko dezu;

64. Eta esango dezu: Onela izango da ondatua Babilonia, eta ez da biurtuko bere gañera aurtikitzera noan galmen osotik, eta geldituko da betiko desegiña. Onaraño Jeremiasen itzak.

BERROGEITA AMABIGARREN KAPITULUA

1. Ogeita bat urte zeuzkan Sedeziasek erreñuan agintzen asi zanean, eta amaika urtean agintatu zuen Jerusalenen. bere amaren izena zan Amital, Lobnako Jeremiasen alaba.

2. Eta bekatu egin zuen Sedeziasek Jaunaren aurrean, jarraiturik Joakinek egin zituen gauza guztiai.

3. Zegoen Jauna alako moduan aserretua Jerusalenen kontra, eta Judaren kontra, non, allegatu zan bere aurretik berak aurtikitzera; eta Sedezias jaiki zan Babiloniako erregearen kontra.

4. Eta berak erreñatzen zuenetik bederatzigarren urtean, amargarren illaren amargarren egunean gertatu zan etortzea Nabukodonosor Babiloniako erregea, hura bera bere ejerzitu guziarekin, Jerusalenen kontra; setiatu zuten, eta jaso zituzten bateriak bere inguruan.

5. Eta egon zan erria setiatua, Sedezias erregearen amaikagarren urteraño.

6. Berriz laugarren illean, illaren bederatzigarren egunean, gosea erriaz jabetu zan, eta erriko jendeak ez zeukan zer janik.

7. Eta erria zulatua izan zan, eta bere gerrari guztiak iges egin zuten, irtetzen ziradela gauaz, murru bien erdian dagoen, eta erregearen baratzera dijoan atetik (Kaldeatarrak erria ingurutua zeukaten bitartean) eta artu zuten eremura zuzentzen dan bidea.

8. Baña Kaldeatarren ejerzituak persegitu zion Sedeziasi, eta arrapatu zuten, Jerikoren aldean dagoen eremuan, eta bere lagun guztiak iges egin zuten beragandik.

9. Eta arrapatu zutenean Sedezias, eraman zuten Babiloniako erregeagana Reblatara, zeñ dagoen Ematko lurrean, zeñak eman zuen sentenzia bere kontra.

10. Eta Babiloniako erregeak lepoak ebaki erazi ziozkaten Sedeziasen semeai onen aurrean; eta il erazi ere zituen Reblatan Judako prinzipe guztiak.

11. Eta Sedeziasi atera ziozkan begiak, eta zepoak ipiñi ziozkan, eta Babiloniako erregeak eraman zuen erri onetara, eta ipiñi zuen karzelako etxean bere eriotzako eguneraño.

12. Bosgarren illean, illaren amargarrenean, au da, Nabukodonosor Babiloniako erregeak erreñatzen zuenetik emeretzigarren urtean, etorri zan Jerusalenera Nabuzardan, ejerzituko agintari nagusia, eta Babiloniako erregearen jauregikoetatik lenen bat.

13. Eta erre zituen Jaunaren tenploa, eta erregearen jauregia, eta Jerusalengo etxe guztiak, eta etxe andi guztiak suaz erretzen gelditu ziran.

14. Eta Kaldeatarren ejerzitu guztiak, zeñ zegoan an beren agintari nagusiarekin, arrasatu zuen Jerusalenek inguruan zeukan murru guztia.

15. Eta erriko beartsu eta jendetzaren gañerako, errian gelditu ziranak, eta iges eginda Babiloniako erregeagana irago ziradenak, eta jende taldearen gañerakoa, Nabuzardan ejerzituko agintari nagusiak Babiloniara eraman zituen.

16. Alaere Nabuzardan ejerzituko agintari nagusiak, utzi zituen erriko beartsu batzuek mastizaitzat eta nekazaritzat.

17. Kaldeatarrak ere zatitu zituzten, Jaunaren tenploan zeuden brontzezko abeak, eta irozpeak, eta Jaunren tenploan zegoen brontzezko itsasoa, eta beren kobre guztia Babiloniara eraman zuten.

18. Eta eraman ere zituzten pertzak, eta kakoak, eta salterioak, eta orrikak, eta motrairutxoak, eta tenploan zeuden kobrezko tresna guztiak,

19. Eta pegarrak, eta lurrinkaien brasontzitxoak, eta pitxarrak, eta baziak, eta kandeleroak, eta motrairuak, eta edanontziak, et zegoan urrezko eta zillarrezko gauza guztia eraman zuen ejerzituko agintari nagusiak,

20. Eta abe biak, eta brontzezko itsasoa, eta amabi brontzezko idisko, zeudenak Salomonek Jaunaren tenploan egiteko agindu zuen ondopeen azpian. Neurri gabea zan metalezko tresna guzti oien pisua.

21. Abeen gañean berriz, beretatik bakoitzak zeuzkan alturan emezortzi beso, eta bear zan amabi besoko soka bat bere ingurua neurtzeko; eta zeuzkan lau beatz lodieran, eta beren barrenak utsak ziran.

22. Eta abe bataren, eta bestearen erpiñak brontzezkoak ziraden. Erpiñ bakoitzak zeuzkan, alturan bost beso; eta gañeko inguruan zeuden sareak mingranak, ziran guztiak brontzezkoak. Orobat beste abea, eta mingranak.

23. Eta zinzilika zeuden, eta ikusten ziran mingranak ziran larogeita amasei, baña mingrana guztiak batean ziran eun, sarez ingurutuak.

24. Eta ejerzituko agintariak eraman ere zituen Saraias, zeñ zan lenbiziko apaiza, eta Sofonias, zeñ zan bigarrena, eta atariko iru beillari.

25. Gañera eraman zuen erritik txikiratu bat, zeñ zan soldauen agintaria, eta erregearen jauregiko zazpi lagun andizki, zeñak izan ziran arkituak errian, eta eskribitzallea gudarien agintaria (zeñak ematen ziezten irakatsiak gudari berriai) eta erriko jendetzako irurogei gizon, errian arkitu ziradenak.

26. Arrapatu zituen bada Nabuzardan, ejerzituko agintari nagusiak, eta eraman zituen Reblatara Babiloniako erregeagana.

27. Eta Babiloniako erregeak il erazi zituen guztiak Reblata, Ematko errian. Eta Judaren gañerakoa eramana izan zan bere erritik kanpora.

28. Au da Nabukodonosorrek batetik bestera aldatu zuen erria. Zazpigarren urtean iru milla eta ogeita iru judu.

29. Emezortzigarren urtean eraman zituen Nabukodonosorrek Jerusalendik zortzireun eta ogeita amabi anima:

30. Nabukodonosorren ogeita irugarren urtean, eraman zituen Nabuzardan ejerzituko agintari nagusiak, zazpireun eta berrogeita bost judu. Oiekin izan ziran guztitan lau milla, eta seireun lagun.

31. Ogeita amazazpigarren urtean Joakin Judako erregea eramana izanda gero, amargarren illean, illaren ogeita bosgarrenean, Ebilmerodak Babiloniako erregeak, berak ereñatzen zuen lenengo urtean burua altxatu erazi zion Joakin Judako erregeari, eta karzelatik atera zuen.

32. Eta itz onak esan ziozkan; eta ipiñi zuen eserita, Babiloniako bere errege urian katibu zeuzkan beste errege guztien gañetik.

33. Eta kendu erazi ziozkan, karzelan zeuzkan soñekoak, eta iduki zuen jaten bere maiean, bizitu izan zan denbora guztian.

34. Eta izendatu ere zion egunoroko onenbeste, berak jateko bear zuenerako beti, bere bizitzako egun guztietan.

JEREMIAS PROFETAREN LAMENTAZIOAK

LENBIZIKO KAPITULUA

ALEPH. 1. Nola gelditu da bakarra, len jendez alako moduan betea zegoen erria! Erreñuen andra gelditu da alarguna bezela. Probinzien erregiña da orain kotiztaria.

BETH. 2. Txit negar andiak egin ditu gau guztian, eta bere masallak malko jarioan daude. Bere maitatzalle guztien artean ez dago iñor ere gozatzen duenik. Bere adiskide guztiak mezpreziatu dute, eta bere etsai itzuli zaiozka.

GHIMEL. 3. Aldatu eta barreiatu zan Juda, zegoelako atsekabetua era askotako katiberioarekin. Bizitu izan zan erreñuen artean; baña etzuen atsedenik arkitu. Estutu zuten aldamen guztietatik bere persegitzalle guztiak.

DALETH. 4. Negarrez daude Siongo bideak, ez dagoelako nor etorri bere jai andietara. Bere ate guztiak desegiñak daude, bere apaizak malko jarioan; bere birjiñak zurbilduak, eta bera mingoiztasunez estutua.

HE. 5. Bere etsaiak bere jabe egin dira. Aier ziotenak aberastu dira berari arrapatutako ondasunakin, zeren Jaunak bere kontra erabakia eman zuen, bere gaiztakerien ugaritasunagatik. Bere mutikotxoak katiberiora eramanak izan dira, menderatzalleak zirikatuta.

BAU. 6. Siongo alabak galdu du bere edertasun guztia. Bere prinzipeak etorri dira izatera, bazkarik arkitzen ez duten aritoak bezelakoak; eta joan dirade desalaituak, daramazkiten persegitzallearen aurretik.

ZAIM. 7. Jerusalenek dakarzki bere oroipenera bere atsekabeko egun aiek, eta bere bidegabeak, eta anziñako denboretan iduki zituen ondasun guztiak. Oroitu zan oiekin guziokin, erortzen zanean bere erria etsaien eskuetan, eta etzeukanean nork lagundu. Ikusi zuten bere etsaiak, eta bere jai andiai irri egin zieten.

HETH. 8. Bekatu txit andia zan Jerusalenena, argatik bera koloka gelditu da. Bera alabatzen zuten guztiak mezpreziatu dute, ikusi dituztelako bere zikinkeriak, eta berak negarrez biurtu zuen atzerontz bere arpegia.

THET. 9. Bere oñetaraño allegatzen dira bere zikinkeriak. Bera etzan oroitu bere atzenarekin. Txit azpiratua dago, arkitu gabe nork gozatu dezan. Begiratu zaiozu, Jauna, nere atsekabeari, zeren etsaia urgullutu dan.

JOD. 10. Etsaiak bere eskua ezarri zien, Jerusalenek zeuzkan gauzarik ederrenai, eta ikusi ditu sartzen santuarioan jentillak, zeñakgatik zuk agindu zenduen, etziteztela sartu zure elizan.

KAPH. 11. Bere erri guztia dago negarrez, eta dabil ogiaren billan; zeuzkaten gauzarik onenak eman dituzte, idukitzeagatik mokadu bat, biziarekin gelditzeagatik. Begiratu ezazu arren Jauna, eta oartu zaite, nolako egoera zatarrean nagoen.

LAMED. 12. O zuek bide onetatik iragotzen zeraten guztiak, begiratu ezazute, eta oartu zaitezte, ote dagoen nere oñazea bezelako oñazerik, zeren Jaunak, lendanaz esan zuen bezela, mendaindu nau bere aserre sumiñeko egunean.

MEM. 13. Goitik sartu zuen sua nere ezurren barrenen, eta eman dizkit erakutsiak. Zabaldu zuen sare bat nere oñetan, bota ninduen atzerontz. Utzi nau atsekabetua, egun guztian tristezaz ondatua.

NUN. 14. Nere gaiztakerien uztarria, agudo ibilli zan nere gañera etortzeko; berak bere eskuakin jiran bildu, eta ipiñi zituen nere lepoaren gañean. Indarrikan gabe gelditu nintzan: Jaunak jarri nau, beragandik ezin libratuko naizanaren eskuetan.

SAMEK. 15. Kendu ditu Jaunak nere erditik nere prinzipe guztiak. Epean izendatu du nere kontra denbora, zeñean galduko dituen nere gazte autuak. Jaunak berak zapaldu ditu, dolare batean bezela, kastigatzeko birjiña, Judako alaba.

AIN. 16. Argatik nago ni negarrez, eta nere begiak urezko iturriak dirade, nigandik urrutian dagoelako gozatzalle, nere animari berriz biztu eraziko diona. Galdu dirade nere semeak; zeren etsaia garaipenarekin irten dan.

PHE. 17. Sionek luzatzen ditu bere eskuak, baña ez dago bera gozatuko duenik. Jaunak ots egin die Jakoben etsaiai, bere inguruan jarri ditezen. Emakume ilberakin kutsutua bezela, ala da Jerusalen beren erdian.

SADE. 18. Justoa da Jauna, baña nik, bere aginteen kontra jartzen nintzala, aserretu erazi nion. Erriak guztiak, aditu dezazutela erregututzen dizutet, eta zaudete arretaz nere oñazeari begira. Nere donzellak, eta nere mutil gazteak katiberiora eramanak izan dirade.

KOPH. 19. Zuzendu nintzan nere adiskideetara, eta engañatu ninduten. Nere apaizak, eta nere zarrak erriaren barrenen il dirade; alperrik billatzen dutela janaria, beren biziari irauneraziteko.

RES. 20. Begiratu ezazu, o Jauna, nola nagoen atsekabetua. Nere erraiak mugituak daude. Nastu da nere biotz guztia. Mingoiztasunez

betea nago. Kanpotik ezpatak ematen du eriotza; eta etxearen barrendik dago gosea; zeña dan beste eriotza mota bat.

SIN. 21. Aditu dituzte nere negarrak; eta ez dago iñor ere ni gozatzekorik. Nere etsai guztiak jakin dituzte nere zorigaitzak; poztu dirade, zuk bialdu dizkidazulako. Zuk bialduko didazu bozkarioko eguna; eta orduan berak arkituko dira, ni arkitzen naizan egoeran.

THAU. 22. Ipiñi ezazu zure begien aurrean beren gaiztakeria guztia, eta egin ezazu berakin, nerekin egin dezuna, nere gaiztakeria guztiak gatik, zeren aspertu gabe nago ni negarrez, eta nere biotza desalaituaz dijoa.

BIGARREN KAPITULUA

ALEPH. 1. Nola estali zuen Jaunak illuntasunez, bere aserrearen erdian, Siongo alaba! Berak aurtiki du zerutik lurrera Israel argitsua, eta ez da ere oroitu bere oñen ondopearekin bere aserreko egunean.

BETH. 2. Jaunak desegin du, ezerere utzi gabe, Jakobgan zegoen gauza eder guztia, beera bota ditu bere aserrearen erdian Judako birjiñaren baluarteak, eta arrasatu ditu. Tratatu ditu erreñua eta bere prinzipeak, gauza kutsutu bat bezela.

GHIMEL. 3. Bere aserrearen berotasunaren erdian, auts biurtu du Israelko indar guztia. Eraman zuen atzerontz bere eskuieko esku laguntzallea, etsaia etorri zaneko, eta erazeki zuen Jakoben su bat, bere garrarekin iretsitzen duena, inguruan dagoen guztia.

DALETH. 4. Jarri zuen punterian bere uztaia, etsai batek egiten duen bezela, eta arerioa balitza bezela, sendo jarri zuen bere eskuieko eskua, eta il zuen, Siongo alabaren etzauntzean zegoen, irudi ederreko gauza guztia. Aurtiki zuen sua bezela bere aserrea.

HE. 5. Jauna egin da Jerusalenen etsaia bezela. Aurtiki du Israel, desegin ditu bere murru guztiak; arrasatu ditu bere baluarteak; eta txit azpiratuak jarri ditu Judako alabaren gizasemeak, eta emakumeak.

BAU. 6. Eta desegin du bere etzauntza, baratza bateko txaola bat bezela. Beera bota du bere Tabernakuloa. Jauna aztu da Siongo jai andiakin, eta larunbatakin; eta utzi ditu lotsarian, eta bere aserreko sumintasunean erregea eta apaiza.

ZAIN. 7. Jaunak aurtiki du bere aldarea, madarikatu du bere santuarioa. Ipiñi ditu bere murruak eta dorreak etsaien eskuetan; zeñak ari diraden bozkariozko deadarretan, jai andi batean bezela.

HETH. 8. Erabaki zuen Jaunak desegitea Siongo alabaren murruak, bota zuen bere soka, eta etzuen atzeratu bere eskua, desegin zuen arteraño. Lokatu zan murruaurrea, eta laster gelditu zan murrua ere arrasatua.

THETH. 9. Estaliak gelditzen dirade bere ateak, lur montoien artean. Jaunak desegin eta zatitu zituen bere morrolloak, deserritu zituen erregea, eta bere andizkiak erreñuen artean. Ez dago onezkero legerik; eta bere profetak ez daukate onezkero Jaunaren ikusketarik.

JOD. 10. Eseriak daude lurrean, eta ixiltasun andi batean, Siongo alabaren zarrak. Beren buruak autsez estaliak dauzkate, zilizioz jantzi ziraden, lurreraño beeratua daukate beren burua, Jerusalengo birjiñak.

KAPH. 11. Itsutu ziran nere begiak negarraren negarrez, ikaraz jarri ziraden nere erraiak, isuri zan lurrean nere biotza, ikusirik nere erriko alabaren naigabea, txikitxoak eta titiko aurrak gosez aldigaiztoa eginda, erortzen ziradenean erriko plazaetan.

LAMED. 12. Berak esaten zien beren amai: Non dira ogia eta ardoa? Zaurituak bezela, illaz zijoazenean erriko karrikaetatik, ematen zituztenean beren atzeneko asnasak, beren amaen altzoan.

MEM. 13. Zeñekin berdinduko zaitut, edo zer gauzari irudituko zaitut, o Jerusalengo alaba? Zeñ adiña zerala esango dizut, zu gozatzeko, o birjiña Siongo alaba? Zeren andia da, itsasoa bezela, zure atsekabea. Nork eman dezakezu sendagarririk?

NUN. 14. zure profetak lendanaz adirazi zizkizuten gezurrak, eta erakeriak; eta ez zizkizuten agertzen zure gaiztakeriak, beren penitenzia egin erazitzeko; baizik zure etsaien kontrako gertakari gezurrezkoak, eta galmenak.

SAMEK. 15. Bidetik iragotzen ziraden guztiak, irri egiten zizuten txaloakin. Ari ziran zuri txistuka, eta mugitzen zituzten beren buruak, Jerusalengo alabaren kontra, esaten zutela: Au ote da edertasun osoko, mundu guztiaren bozkarioko erria?

PHE. 16. Idiki zituzten zure kontra beren aoak zure etsai guztiak, txistuka ari ziraden; egiten zituzten ortz karraskotsak, eta esaten zuten: Guk iretsiko degu, allegatua da zai geunden eguna; etorri zan, aurrean daukagu.

AIN. 17. Jaunak egin du erabakita zeukana. Kunplitu du adirazita zeukana anziñako denboretatik; desegin zaitu, eta ez dizu barkatu, poztu du etsaia zure gañean, eta goratu du zuri gorroto zizutenen anditasuna.

SADE 18. Setiatuta zeudenen biotzak, ots egin zion Jaunari deadarrez, Siongo alabaren murruen gañetik: isuri itzatzu malkoak ugolde baten

gisara gauaz ta egunaz; ez ezazu atsedenik artu, eta ez bitez ere aspertu zure begiak negar egitez.

KOPH. 19. Jaiki zaite, deadarrez ots egin zaiozu Jaunari gauaz, beillaen asieratikan. Isuri ezazu ura bezela zure biotza bere aurrean, jaso itzatzu beraganontz zure eskuak, adirazten diozula zure aurtxoen bizia, zeñak dauden gosez iltzen kantoi guztietan, eta karrikaetako bibideetan.

RES. 20. O Jauna, begiratu ezazu arren, eta konturatu zaite, zeñ dan onela arrasatu dezuna. Eta izango ote da egia emakumeak jango dituztela beren semeak, eskuko arraiaren neurriko aurrak? Eta, illak izango diradela Jaunaren santuarioaren barrenen apaiza eta profeta?

SIN. 21. Illda etzinik daude kanpoan mutilla, eta zarra, nere birjiñak, eta nere mutil gazteak ezpataz iragoak izan dirade. Galdu erazi diezu zure aserreko egunean. Eriotzako zauriak egin dieztezu urrikalmendurikan batere gabe.

THAU. 22. Ots egin ziñien, jai andi baterako bezela, ikaratuko nindutenai ingurutik; eta zure aserreko egun artan etzan izan iñor ere, iges egin zezakeanik, eta biziarekin irten zitekeanik. Nik azi nituenak, eta jaten eman nienak, galdu ditu nere etsaiak.

IRUGARREN KAPITULUA

ALEPH. 1. Ni naiz gizon bat, ikusten nagoena nere premia Jaunaren aserreko zigorrean.

ALEPH. 2. Illuntasunetan ibilli erazi dit, eta ez argitan.

ALEPH. 3. Aspertu gabe ari da bere eskua ezarten nere gañera, egun guztian.

BETH. 4. Zartu erazi die nere larruari, eta nere aragiari, eta nere ezurrak zatitu ditu.

BETH. 5. Jaso du pareta bat nere inguruan, ingurutu nau mingoiztasunez eta antsiaz.

BETH. 6. Ipiñi nau toki illun batean, betiko il diradenak bezela.

GHIMEL. 7. Esiz ingurutu ninduen aldamen guztietatik, igesik egin ez nezan, jarri zizkidan zepo astunak.

GHIMEL. 8. Eta nik deadar egin, eta erregutu arren ere, ez die begiratzen nere eskariai.

GHIMEL. 9. Zarratu ditu nere bideak, arlanduakin bezela. Desegin ditu nere bidetxigorrak.

DALETH. 10. Etorri da izatera neretzat, artz bat azeloan bezela, leoe bat toki ezkutuan bezela.

DALETH. 11. Nere bidetxigorrak nastu ditu, eta desegin nau; utzi nau antsia andian.

DALETH. 12. Jarri zuen punterian bere uztaia, eta ipiñi ninduen bere saieten siñaletzat.

HE. 13. Tinkatu ditu nere gerrian, bere gezitokiko fletxak.

HE. 14. Etorri naiz izatera nere erri guztiaren lotsaria, eta egun guztian ari dirade neri kantak ateratzen.

HE. 15. Samintasunez bete nau, moskortu nau asensioz.

BAU. 16. Nere ortz guztiak ausi ditu, ondarrez beteriko ogia emanik: autsa eman dit jaten.

BAU. 17. Urrutiratua dago nere animatik pakea. Ez dakit onezkero zer dan doatsu izatea.

BAU. 18. Eta esan nuen: Joan zan nigandik nere gaitzen bukaera, eta Jaunagan neukan itxedopen guztia.

ZAIN. 19. Oroitu zaite, Jauna, nere premiarekin, eta persekuzioarekin, eta edanerazitzen didaten asensio, eta beazunarekin.

ZAIN. 20. Beti dauzkat gauza oiek gogoan, eta nere anima nere barrenen txit usteltzen da.

ZAIN. 21. Alaere oroitzen naizala gauza oiekin nere biotzaren barrenen, Jaunagan nere itxedopena arkituko det.

HETH. 22. Jaunaren urrikaltasun bat da, ez izatea gu osotoro desegiñak; zeren bere biguñtasunak beñere ez duten uts eman.

HETH. 23. Egunoro daude biguntasun berriak txit goizetik. Andia da, o Jauna, zure leialtasuna.

HETH. 24. Nere herenzia, esaten du nere animak, Jauna da. Argatik nere itxedopena beragan ipiñiko det.

TETH. 25. Ona da Jauna beragan itxedotzen dutenentzat, bera billatzen duten animentzat.

TETH. 26. Ongi da itxedotzea ixiltasunean, Jaungoikoagandik datorren osasuna.

TETH. 27. Ongi da gizonarentzat, bere gazte denboratikan uztarria eraman izatea.

JOD. 28. Geldirik eta ixillik egongo da, bere gañean uztarria artu duelako.

JOD. 29. Bere aoa autsean ipiñiko du, ikusteko orazioarekin iritxitzen ote duen itxedotzen duena.

JOD. 30. Aurkeztuko dio bere masalla jotzen duenari. Lotsariz aseko da.

KAPH. 31. Baña Jaunak ez du beragandik botako betiko.

KAPH. 32. Baldin berriz bota bagaitu, oraindikan errukituko da gurekin, bere urrikaltasunen ugaritasunaren araura.

KAPH. 33. Berak ez dituen ezkero gogotik beeratzen, eta botatzen ere gizonen semeak,

LAMED. 34. Txeatutzeko bere oñazpian lurreko katibu guztiak,

LAMED. 35. Ez du ere pisatzen balantza gaiztoarekin, bere aurrean, gizonaren gauza.

LAMED. 36. Ez dio ere kalterik egiten sentenzia gaiztoarekin gizon bati ere, ori ez daki Jaunak egiten.

MEM. 37. Zeñ da esan duena, gauzaren bat egiten dala, Jaunak agindu gabe?

MEM. 38. Onak eta gaitzak ez al datoz Jaunaren agindutik?

MEM. 39. Zergatik bada murmuratuko du beñere gizon biziak, bere bekatuen kastiguagatik?

NUM. 40. Esamiñatu eta aztertu ditzagun gure pausoak, eta Jaunagana biurtu gaitezen.

NUM. 41. Altxatu ditzagun zerura, Jaunaganontz, eskuakin batean, gure biotzak.

NUM. 42. Guk gaizki egin degu, eta aserretuerazi dizugu. Argatik ez diguzu iñolaere aditu nai.

SAMEK. 43. Sumintasunez estali ziñan, eta kastigatu ginduzun, egin ziñituen eriotzak, iñori ere barkatu gabe.

SAMEK. 44. Ipiñi zenduen odei bat zure aurrean, gure erreguak etzitezen allegatu zure aurrera.

SAMEK. 45. Zuk arras atera gaituzu, eta aurtiki zimaurra bezela, errien erdian.

PHE. 46. Etsai guztiak idiki dute beren aoa, gure kontra.

PHE. 47. Profezia biurtu zan gure izu eta lazo, eta gure galmen.

PHE. 48. Urezko ibaiak irtetzen dira nere begietatik, ikusirik nere erriko alabaren pena.

AIN. 49. Desegiten dira nere begiak betiko negarrarekin, zeren atsedenik batere ez dagoen.

AIN. 50. Aliketa Jaunak itzuli ditzan bitartean zerutik bere begiak, eta jarri dedin artean guri begira.

AIN. 51. Isuri ditudan malko ugariak nere erriko alaba guztien zorigaitzakgatik, leortu dute nigan bizitzako ezade guztia.

SADE 52. Eizatokian egaztiarekin bezela, nere jabe egin ziraden nere etsaiak, nik berai biderik eman gabe.

SADE 53. Erori zan putzuan nere anima, jarri dute nere gañean arlosa.

SADE 54. Atsekabezko urak erori ziran ugolde bat bezela nere buruaren gañean. Nik orduan esan nuen: Galdua naiz.

KOPH. 55. Ots egin nion, o Jauna, zure izen santuari lizearen tokirik zakonenetik,

KOPH. 56. Eta zuk aditu zenduen nere boza, ez itzatzu bada itxi zure belarriak nere negar eta deadarretara.

KOPH. 57. Zuk alderatu ninduzun, ots egin nizun egunean; eta esan ziñidan: Etzaite beldur izan.

RES. 58. Zuk eman zenduen erabakia nere animaren alde, o Jauna, o nere biziaren Salbatzallea.

RES. 59. Ikusi ziñituen, o Jauna, beren gaiztakeriak nere kontra: justizia egin zadazu.

RES. 60. Ikusi ziñituen beren sumintasun guztia, beren asmazio guztiak nere kontra.

SIN. 61. Zuk aditu ziñituen, o Jauna, berak neri emandako lotsariak, bere erabakiak nere kontra,

SIN. 62. Eta gerra egiten didatenen itz gaiztoak, eta nere kontra beti asmatzen ari diran guztia.

SIN. 63. Ikusi itzatzu, o Jauna, beren joanak, eta jirak. Nigana zuzentzen dira beti beren kantak.

THAU. 64. zuk emango diezu, o Jauna, beren eskuetako lanak diña diradena.

THAU. 65. Jarriko dituzu beren biotzaren gañean, ezkutuaren lekuan, bialduko diozkazun atsekabeak.

THAU. 66. Zuk, o Jauna, persegituko diezu aserrearekin, eta arras kenduko dituzu zeruaren azpitik.

LAUGARREN KAPITULUA

ALEPH. 1. Nola illundu da urrea, eta aldatu bere kolore txit ederra? Barreiatuak dabiltza Santuarioko arriak, karrika guztietako kantoietatik.

BETH. 2. Siongo seme ospatsu, urre txit fiñezko tisuz jantzitzen ziradenai, nola begiratzen zaie, balirade bezela buztiñazko ontziak, buztingillaren lana?

GHIMEL. 3. Lamiak berak ere agertzen dituzte beren bularrak, eta ematen die eznea beren umetxoai, baña nere erriko alaba biotz gogorrekoa da, eremuko saiea bezelakoa.

DALETH. 4. Bularreko aurrari itsatsitzen zaion bere mingaña aosapaian, zeukan egarriagatik; gaztetxoak ogia eskatzen zuten, eta ez zegoan iñor ere berai txikitzeko.

HE. 5. Ederki jaten zutenak, gosez il dira karrikaetan; purpura artean azi ziradenak, ikusten dira zimaurtzetan.

BAU. 6. Eta andiagoa izan da nere erriko alabaren gaiztakerien kastigua. Sodomatarren bekatuarena baño, zeñ izan zan batbatean desegiña, gizonaren eskuak ezerere egin gabe.

ZAIN. 7. Bere Nazarenoak ziran, elurra baño zuriagoak, eznea baño distiatsuagoak, anziñako marfila baño origorriagoak, zafiroa baño ederragoak.

HETH. 8. Baña orain ikatza baño baltzago daude beren arpegiak, eta karrikaetatik ez dirade ezagutuak. Itsatsia daukate beren larrua ezurrai, leortu da, eta egin da makilla bat bezelakoa.

TETH. 9. Obeto joan zaten ezpataz illak izan ziradenai, gosez il ziradenai baño, zeren oiek ezereztuaz zijoazen, eta desegiñaz, lurrak ez emanarekin.

JOD. 10. Emakumeen esku urrikaltsuak ipiñi zituzten egositzen beren semeak. Oiek izan ziraden beren janaria, nere erriko alabaren atsekabeko denboran.

KAPH. 11. Ase du Jaunak bere sumintasuna, isuri du bere gozakaitzeko aserrea; erazeki du Sionen su bat, zimenduetarañokoa iretsi duena.

LAMED. 12. Etzuten sinisten lurreko erregeak, ez munduan bizi ziraden guztiak ere, etsai eta kontrarioa Jerusalengo ateetatik sartuko zala,

MEM. 13. Baña sartu zan, beren profeten bekatuak gatik, eta beren sazerdoteen gaiztakeriakgatik; zeñak bere erdian justoen odola isuri zuten.

NUN. 14. Zebiltzan batetik bestera itsuak bezela karrikaetatik, odolarekin zikintzen ziradela, eta ezin ziraden ibilli zikindu gabe, beren soñekoen ertzak jasotzen bazituzten ere.

SAMEK. 15. Alde egin ezazute zikiñak, esaten zien deadarrez besteai, urrutiratu zaitezte, zoazte kanpora, ez zaguzute ukitu, zeren argatik iduki zituzten aserreak beren artean; eta erreñuen artean barreiatuak izan ziradenak, esan zuten: Ez da berriz biziko Jauna beren artean:

PHE. 16. Jaunaren arpegi aserretuak barreiatu ditu. Ez diote onezkero berak begiratuko, ez diote lotsa gorde sazerdoteai, eta zarrakin ere ez dirade urrikaldu.

AIN. 17. Oraindikan zerbait bagiñanean, desalaitzen ziran gure begiak, alperrik itxedotzen zutela gure laguntasuna, geundela begira, ezin salbatu ginduen erreñu bati.

SADE. 18. Ibiltzean gure karrikaetatik, gure oñak arkitzen zituzten beaztopoak. Alderatu zan gure atzena, kunplitu ziran gure egunak, zeren gure muga allegatu dan.

KOPH. 19. Zeruko agilak baño agudoagoak izan dirade gure etsaiak, persegitu gaituzte mendietatik, azeloak jarri dizkigute eremuan.

RES. 20. Jaunaren Kristoa, gure aoko asnasa arrapatua izan da gure bekatuakgatik, esan giñona, zure itzalean biziko gera erreñuen artean.

SIN. 21. Gozatu eta bozkariotu zaite, o Edomgo alaba, Husko lurrean bizi zerana, zuri ere allegatuko zatzu atsekabeko kaliza, moskortua izango zera, eta ondasun guztiez gabetua.

THAU. 22. O Siongo alaba, badauka muga, zure gaiztakerien kastiguak. Jaunak beñere ez dizu berriz, beste erri batera irago eraziko. Baña berak kastigatuko du, o Edomgo alaba, zure gaiztakeria, berak agertuko ditu zure txarto egiñak.

BOSGARREN KAPITULUA

Jeremias profetaren orazioa.

1. Oroitu zaite, o Jauna, gertatu zagunarekin. Begiratu zaiozu, eta ikusi ezazu arretaz gure lotsaria.

2. Gure herenzia irago da jende arrotzen eskuetara, gure etxeak erbestekoen mendean daude.

3. Gelditu gera, umezurtzak bezela, aitarik gabe. Gure amak daude alargunak bezela.

4. Gure ura diruagatik edaten degu, eta diruarekin erosten degu gure egurra.

5. Lepotik lotuta garamazkite, nekatuai etzaiote atsedenik ematen.

6. Luzatzen dieztegu gure eskuak ijitoai, eta Asiriatarrai, ogiz ase gaitezen.

7. Bekatu egin zuten gure gurasoak, eta onezkero ez daude emen; eta beren gaiztakerien kastigua, guk daramagu.

8. Gure morroi mendekoak gurekin jabetu dira; etzan arkitu nork libratu gaitzan beren eskuetatik.

9. Gure bizien irriskuarekin goaz toki eremutuetara ogiaren billan, beti ezpataren beldurra daukagula.

10. Errea, labe bat bezela ipiñi du gure larrua gosearen anditasunak.

11. Desonratzen zituzten andreak Sionen, birjiñak Judako errietan.

12. Zinzilika jarriak eskutik zur batean izan dirade prinzipeak; ez die lotsarikan batere gorde zarrai.

13. Txit gaizki nabarmenkiro erabilli dituzte gizaseme gazteak; eta mutillak erortzen ziran egurraren pisuarekin.

14. Ez dago onezkero gizaseme zarrik ateetan, eta mutil gazteak ez dira ikusten, soñuak jotzen dituztenen koruan.

15. Aitu da gure biotzeko bozkarioa, lutu biurtu dira gure dantzak.

16. Koroeak gure buruetatik erori dira. Ai, gure doakabeak, bekatu egin degulako!

17. Argatik tristezan gelditu da gure biotza; argatik gure begiak galdu zuten argia.

18. Zeren arrasatua dagoen Siongo mendia, azeriak dabiltza an.

19. Baña zuk, o Jauna, beti iraungo dezu; zure tronua izango da mendez mende.

20. Zergatik betiko aztuko zera gurekin? idukiko gaituzu urte luzeetan utziak?

21. Konbertitu gaitzatzu, o Jauna, zugana, eta konbertituko gera: berriztatu itzatzu zuk gure egun doatsuak, asieratikan bezela.

22. Baña zuk, o Jauna, bota gaituzu betiko bezela, ikaragarriro aserretu zera gure kontra.

BARUK PROFETAREN LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Eta oiek dirade Baruk, Neriasen semearen, Maasiasen semearen, Sedeziasen semearen, Sedeiren semearen, Helziasen semearen semeak eskribitu zuen liburuko itzak, Babilonian,

2. Bosgarren urtean, illaren zazpigarrenean, Kaldeatarrak Jerusalen arrapatu, eta erre zutenetik.

3. Eta irakurri zituen Barukek liburu onetako itzak Jekonias, Joakin Judako erregearen semearen aurrean, eta berak aditzera etorri oi zan erri guztiaren aurrean.

4. Eta erregearen jatorriko andizki guztien aurrean, eta zarren aurrean, eta erriaren aurrean txikienetik andieneraño Babilonian bizi diradenetik, Sodi ibaiaren aldean;

5. Zeñak negar egiten zuten aditurik Baruki, eta barauak egiten zituzten, eta orazio egiten zuten Jaunaren aurrean.

6. Eta bildu zuten dirua, bakoitzak ematen zuela al zuena.

7. Eta bialdu zuten Jerusalenera, Joakin Helziasen semearen, Salom apaizaren semearen semeagana, eta apaizakgana, eta berarekin Jerusalenen zegoen erri guztiagana.

8. Barukek artuta gero, Jaunaren Tenploko ontzi, Tenplotik arrapatuak izan ziradenak, Judako lurrera berriz berak itzultzeko, Siban illaren amarrean, Sedezias, Josias Judako erregearen semeak egin zituen zillarrezko ontziak,

9. Nabukodonosor Babiloniako erregeak arrapatu, eta lotuta ipiñi zituenean Jekonias, eta prinzipeak, eta andizki guztiak, eta lurreko erria, eta katibu eraman zituenean Jerusalendik Babiloniara.

10. Eta esan ziezten kartan itz oiek: Ona emen non bialtzen dizugun dirua, zeñarekin erosiko dituzuten holokaustoetarako bear diradenak, eta inzensoa, eta egin itzatzute eskeñtzak, eta il itzatzute aberak, opariak egiteko bekatuagatik gure Jaun Jainkoaren aldarean.

11. Eta erregutuko dezute Nabukodonosor Babiloniako erregearen biziagatik, eta bere seme Baltasarren biziagatik, beren egunak izan ditezen lurraren gañean zerukoak bezelakoak;

12. Eta Jaunak guri sendotasuna eman dizagun, eta erakutsi dizagun argia, ongi bizi gaitezen Nabukodonosor Babiloniako erregearen men-

dean; eta bere seme Baltasarren mendean, eta serbitu ditzagun berak denbora luzean, eta beren begien gogokoak izan gaitezen.

13. Erregutu zaiozute gugatik ere gure Jaun Jainkoari, zeren gure Jaun Jainkoaren kontra bekatu egin degun, eta bere aserreak ez duelako alderik egin gure gañetik gaurko egunerañ̃o.

14. Eta irakurri ezazute liburu au, zeñ bialdu dizuguten, irakurria izan dedin Jaunaren tenploa egon zan tokian, jai andietan, ea denbora egokian.

15. Esango dezute bada: Gure Jaun Jainkoarena da justizia, eta gurea gure arpegietako lotsaria, gertatzen zaioten bezela gaurko egunean Juda guztiari, eta Jerusalenen bizi diranai,

16. Gure erregeai, eta gure Prinzipeai, eta gure apaizai, eta gure Profetai, eta gure gurasoai.

17. Bekatu egin degu gure Jaun Jainkoaren kontra, eta ez giñion sinisterikan eman, beragan itxedopenik iduki ez genduelako.

18. Eta ez giñan bere mendean egon, eta ez genduen ere aditu nai izan gure Jaun Jainkoaren boza, bizi gindezen, berak eman zizkigun aginteen araura.

19. Gure gurasoak Ejiptoko lurretik atera zituen egun artatik gaurko egunerañ̃o, beti ibilli gera erasotzen gure Jaun Jainkoari; eta barreiatuak, alde egin genduen beragandik, ez aditzeagatik bere boza.

20. Argatik itsatsi zazkigu, Jaunak bere serbitzari Moisesen bitartez adirazitako asko ondamen eta madarikazio; Jaunak, atera zituenak Ejiptoko lurretik gure gurasoak, emateko guri eznea eta eztia dariozkion lur bat, madarikazio batzuek gaurko egunean ere gure gañean dauzkagunak.

21. Baña guk ez genduen aditu nai izan, gure Jaun Jainkoaren boza, profetak esaten zutenaren araura, zeñak zeuzkan gugana bialduak.

22. Eta gutariko bakoitza joan giñan gure biotz gaiztoaren guraen ondoren, mendekoak bezela jainko arrotzak serbitzeko, gure Jaun Jainkoaren begien aurrean gaizki egiten genduela.

BIGARREN KAPITULUA

1. Argatik gure Jaun Jainkoak kunplitu zuen bere itza, eman ziguna guri, eta gure Juez Israelko gobernariari, eta gure erregeai, eta gure prinzipeai, eta Israel guztiari eta Judari,

2. Ekarriko zituela Jaunak gure gañera gaitz andiak, alakoak, nola beñere ikusi ez diraden berak bezelakorik zeruaren azpian, Jerusalenen gertatu diradenak bezelakorik, Moisesen legean eskribatua dagoenaren araura.

3. Eta gizonak jango zuela bere semearen aragia, eta bere alabaren aragia.

4. Eta ipiñi zituen Jaunak gure inguruetako errege guztien mendean, ondamenaren eta lotsariaren iruditzat erreñu guztietan, zeñaen artean Jaunak barreiatu ginduen.

5. Etorri gera izatera mendekoak, eta ez nagusiak, gure Jaun Jainkoaren kontra bekatu egin degulako, ez giñiola obeditzen bere bozari.

6. Justizia gure Jaun Jainkoarena da; gurea, eta gure gurasoena berriz gure arpegietako lotsaria, gaurko egunean ikusten dan bezela.

7. Zeren Jaunak lendanaz keñatu ginduen, daramazkigun kastigu guzi oiekin.

8. Baña gu argatik ere ez giñan itzuli gure Jaun Jainkoagana berari erregututzeko, eta biurtutzeko bakoitza beragana utzirik bere bizitza gaiztoa.

9. Orduan bereala eldu zion Jaunak kastiguari, eta aurtiki zuen gure gañera, zeren justoa dan Jauna bere obra guztietan, eta agindu digun guztian,

10. Eta alaere guk ez giñion obeditu nai izan bere bozari, ibilli giñaindezen, Jaunak begien aurrean jarri zizkigun aginteen araura.

11. Orain bada, o Israelko Jaun Jainko, atera zenduena zure erria Ejiptoko lurretik esku sendoarekin, eta gauza arrigarri eta mirarien bitartez, eta zure eskubide andiarekin, eta beso almentsuarekin, eta irabazi zenduena, gaur daukazun izen ospatsua,

12. Bekatu egin degu, o Jauna, gaizki egin degu, txarto portatu gera, o gure Jaun Jainkoa, zure aginte guzien kontra.

13. Urrutiratu bedi gugandik zure aserrea, zeren onezkero gutxi gera gelditzen geradenak, barreiatu ginduzun erreñuen artean.

14. Aditu itzatzu, o Jauna, gure erreguak eta gure orazioak, eta zure amorioagatik libratu gaitzatzu; eta egin ezazu, grazia arkitu dezagula gure erritik atera ginduenen begietan;

15. Onela mundu guztiak ezagutu dezan, zu zerala gure Jaun Jainkoa, eta Israelek eta bere jatorri guziak daramala zure izena.

16. Itzuli itzatzu, o Jauna, zure begiak guganontz zure etxe santutik, eta zeartu itzatzu zure belarriak, eta aditu gaitzatzu.

17. Idiki itzatzu zure begiak, eta begiratu zaguzu, zeren ez diraden obian dauden illak, zeñaen espiritua berezitu zan beren erraietatik, Jaunaren justiziari onra emango diotenak.

18. Baizik atsekabetua dagoen anima, egin dituen gaitzen anditasunagatik, eta dabillana makurtua, eta erkitua, eta begi eroriakin; gosez

dagoen anima, au da, o Jauna, emango dizuna gloria zuri, eta zure justiziari.

19. Egiten ditugun ezkero gure eskariak, eta eskatzen degun ezkero urrikaltasuna zure aurrean, o gure Jaun Jainkoa, ez gure gurasoai justiziaz zor zaiotelako,

20. Baizik zuk aurtiki dituzulako gure gañera zure aserrea eta zure sumintasuna, adirazi zenduen bezela zure serbitzari profeten bitartez, esaten zenduela:

21. Oiek esaten ditu Jaunak: Makurtu itzatzute zuen sorbaldak, eta zuen lepoak, eta Babiloniako erregea serbitu ezazute, eta onela pakean bizi-ko zerate, eta etzerate aurtikiak izango, zuen gurasoai eman nien lurretik.

22. Baldin berriz obedezitzen ez badiozute zuen Jaun Jainkoaren aginteari, Babiloniako erregea serbitzeko, nik egingo det aurtikiak izan zaiteztela Judako errietatik, eta botatuak Jerusalendik;

23. Eta kenduko ditut zuen artetik bozkariozko eta gozotasuneko bozak; eta esposoen eta esposaen kanta atsegintsuak, eta geldituko da alderri guztia, iñor bizi danaren lorratzikan ere gabetanik.

24. Berak ordea etzuten obeditu nai zure agintea, Babiloniako erregea serbitzeko; eta zuk kunplitu ziñituen zure itz, zure serbitzari profetak adiraziak, esan zutenean, gure erregeen ezurrak, eta gure gurasoen ezurrak, etsaiak eramanak izango ziradela beren tokitik.

25. Eta ona non aurtikiak izan diraden eguzkiaren berotasunera, eta gaueko izotzera, eta il ziran oñaze gogorretan, gosez, ezpataz, eta erbestean.

26. Eta zure izen santuari ots egiten zitzaion tenploa, biurtu zenduen, gaurko egunean arkitzen dan egoerara, Israelko etxeko, eta Judako etxeko gaiztakeriakgatik.

27. Eta zuk egin dezu gurekin, o gure Jaun Jainkoa, zure ontasun guztiaren, eta zure urrikaltasun guztiaren araura;

28. Eskeñi zenduen bezela zure serbitzari Moisesen bitartez, Israelko semeen aurrean zure legea eskribitzeko agindu ziñion egunean,

29. Esaten zenduela: Zuek ez badiozute obeditzen nere bozari, jende talde andi au, txiki batera biurtua izango da erreñuetan, zeñaen artean nik barreiatuko dedan.

30. Zeren nik badakit erri orrek ez nauela adituko, lepo gogorreko erri bat dalako; baña bera itzuliko da beragan, bere katiberioko lurrean dagoenean;

31. Eta ezagutuko dute beren Jaungoikoa ni naizala. Eta emango diet biotz berri bat, eta konprendituko dute, eta belarriak, eta adituko dute.

32. Eta alabantzak emango dizkidate beren katiberioko lurrean, eta nere izen santuarekin oroituko dirade.

33. Eta aurtikiko dute berakgandik beren lepoetako gogortasuna, eta beren gaiztakeria, zeren oroituko diran beren gurasoai gertatu zitzaionarekin, nere kontra bekatu egin zutelako.

34. Eta berriz eramango ditut beren guraso, Abraham, Isaak, eta Jakobi juramentuarekin eskeñi nien lurrera, eta bere jabe izango dirade, eta ugarituko dirade, eta ez dirade gutxituaz joango.

35. Eta egingo det berakin beste elkartasun bat, zeñ izango dan betikoa; zeñaen bitartez ni izango naizan beren Jaungoikoa, nola berak ere izango diran nere erria, eta beñere ez det mugituko nere erria, Israelko semeak, eman nien lurretik.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta orain, o Jaun guzia almentsua, Israelko Jainkoa, zugana zuzentzen ditu bere deadarrak nere anima atsekabetuak, eta nere espiritu ansiatuak.

2. Aditu nazazu, o Jauna, eta urrikaldu zaite, zeren zu Jaungoiko urrikaltsu bat zeran; eta urrikaldu zaite gurekin, zeren zure kontra bekatu egin degun.

3. Zeren zuk, o Jauna, beti irautzen dezu; eta gu zure semeak, galduak izango al gera betiko?

4. O Jaun guzia almentsua, Israelko Jaungoikoa, aditu ezazu orain Israelko illen, eta beren semeen erregua, zeñak zure aurrean bekatu egin zuten, eta etzuten aditu nai beren Jaun Jainkoaren boza; argatik gaitz guztiak itsatsi zazkigu.

5. Etzaite arren oroitu gure gurasoen gaiztakeriakin, oroitu zaite, bai, era onetan zure eskubidearekin, eta zure izen santuarekin:

6. Zeren zu gure Jaun Jainkoa zeran, eta guk, o Jauna, alabantzak emango dizkizugu.

7. Argatik gure biotzak beldurrez bete dituzu, zure izen santuari ots egin dizaiogun, eta gure katiberioan alabatu zaitzagun; gorrotoz begiratzen diogun ezkero gure gurasoen, zure aurrean bekatu egin zutenen, gaiztakeriari.

8. Eta ona emen non irautzen degun guk gure katiberioan, non gauzkazun zuk barreiatuak, izan gaitezen bekatarien lotsaria, madarikazioa, eta zatarreria, gure gurasoen gaiztakeria guztien ordañean, zeñak urrutiratu ziran zugandik, o gure Jaun Jainkoa.

9. Aditu itzatzu, o Israel, bizitzako aginteak, alderatu itzatzu zure belarriak zentzua ikasteko.

10. Zergatik zaude, o Israel, etsaien lurrean?

11. Zergatik zartu zera erri arrotzean, kutsutu zera illen artean, eta izan zera kontatua obira jetxitzen diradenakin?

12. Ah! Au da, utzi dezulako zuk jakinduriako iturria,

13. Zeren ibilli izan baziña Jaungoikoaren bidetik, egiaz betiko pake batean bizituko ziñan.

14. Ikasi ezazu bada non dagoen jakinduria, non dagoen sendotasuna, non dagoen aditza, onela jakin ere dezazun non dagoen bizitzaren luzetasuna, eta janaria, non dagoen begietako argia, eta pakea.

15. Nork arkitu zuen, bera bizi dan tokia? Edo, nor sartu da bere tesoroetan?

16. Non dirade erreñuetako prinzipeak, eta lurreko pistien gañean jabetasuna zeukatenak?

17. Zeruko egaztiakin jostaketan ari oi ziradenak?

18. Montoitzen zutenak zillarra eta urrea, zeñatan ipintzen duten gizonak beren itxedopena, eta zeñak billatzeko alegiñetan beñere ez diran asetzen; zillarrezko tresnak egiteko agintzen zutenak, eta arazoz zebiltzanak, iñoizere beren asmazioetan gelditu gabetanik?

19. Desegiñak izan ziraden, eta jetxi ziraden infernuetara; eta beste batzuek beren lekuan jarri ziran.

20. Mutil gazte oiek ikusi zuten argia, eta lurraren gañean bizi izan ziran; baña etzuten ezagutu jakinduriako bidea;

21. Eta etzituzten ere aditu bere bideak, eta beren semeak ere etzuten artu. Beren aurretik urrutiratu zan.

22. Bere itzikan ere etzan aditu Kanaango lurrean, eta etzan ere Temanen ikusia izan.

23. Agarren seme, lurretik datorren zentzuaren billan dijoazenak ere, eta Merra eta Temango merkatariak, eta ipuien egilleak, eta jakinduria, eta aditzaren billan zebiltzanak, etzuten berebat ezagutu jakinduriako bidea, eta bere bidetxigorrak aitatu ere etzituzten.

24. O Israel, ze andia dan Jaungoikoaren etxea, eta ze zabala bera jabe dan tokia!

25. Txit andia da, eta ez dauka mugarik, goratua eta neurrigabea.

26. An bizitu izan ziran, munduaren asierako goiante aiek, altuera andikoak, gerran trebeak.

27. Jaunak etzituen oiek autu, etzuten arkitu dotrinako bidetxidorra; argatik galdu ziran.

28. Etzutelako jakinduriarik iduki, galdu ziran beren barbultasunagatik.

29. Nor zerura igo zan, eta atxitu zuen, eta ekarri zuen odeien gañetik?

30. Nork irago zituen itsasoak, eta arkitu al izan zuen, eta ekarri zuen urre txit garbia baño ere naiago zuela?

31. Ez dago bere bideak ezagutu ditzakeanik, ez ezagutu, nolako bidetxigorretatik dabillan.

32. Baña arako Jaun, gauza guztiak dakizkianak ezagutzen du, eta agertzen du bere zentzuarekin, lurra egin zuenak beti iraun dezan, eta aberez eta lauoñekoz betetzen duenak;

33. Argia botatzen duenak, eta argia bereala badijoa, eta ots egiten dio; eta obeditzen dio berak beldurrez.

34. Izarrak eman zuten beren argia beren egonlekuetan, eta bozkarioz bete ziran,

35. Ots egiñak izan ziran, eta bereala erantzun zuten: Emen gaude, eta argi egin zuten, izatea eman zien Jauna serbitzeko gozotasunarekin.

36. Gure Jaungoikoa au da, eta besterik bat ere ez da alakotzat idukia izango bere aurrean.

37. Onek arkitu zituen dotrinaren bide guztiak, eta eman zion bere serbitzari Jakobi, eta Israel bere maiteari.

38. Alako gauzak igarota gero, lurrean ikusia izan zan, eta gizonakin itz egin zuen.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Jakinduria, au da Jaungoikoaren aginteen liburua, eta beti irautzen duen legea. Bera daukaten guztiak bizitzara allegatuko dirade; bera utzitzen dutenak berriz, eriotzara dijoaz.

2. Konbertitu zaite, o Jakob, eta iduki ezazu elduta. Ibilli zaite bere argian, bere argitasunakin izendatzen dizun bidetik.

3. Etzaiozu eman zure gloria beste erri bati, ezta zure diñadea ere erreñu arrotz bati.

4. Doatsuak gera gu, o Israel, Jaungoikoaren gogokoak diraden gauzak badakizkigulako.

5. Ez ezazu beldurrik iduki, o Jaungoikoaren erria, zu, orain ere Israelen izena daukazuna.

6. Zuek erreñuai salduak izan zerate; baña ez ezereztuak izateko; baizik Jaungoikoari aserretu erazi diozutelako, argatik izan zerate etsaien eskuetan jarriak.

7. Zeren aserretu erazi ziñioten, izatea eman zizuten Jaunari, eta Jaungoiko betikoari, eskeñtzen ziñieztela doañak demonioai Jaungoikoaren lekuan.

8. Zeren aztu ziñaten, azi zinduzten Jaungoikoarekin, eta atsekabez bete zenduten Jerusalen zuen iñudea.

9. Zeren berak ikusi zuen etortzen zuen gañera Jaungoikoaren aserrea, eta esan zuen: Aditu nazazute, o erri Siongo aldekoak: Jaungoikoak atsekabe andi bat bialdu dit,

10. Zeren nik ikusi dedan nere erriaren, nere seme ta alaben katiberioa, zeñatara Jaungoiko betikoak eraman dituen,

11. Zeren nik bozkarioz azi nituen: baña utzi ditut negarrakin eta oñazearekin.

12. Ez bedi iñor ere gozatu, alargunduta eta ansiatua ikusten nauelako. Askok utzi naute nere semeen bekatuakgatik, zeñak Jaungoikoaren legetik alde egin zuten,

13. Eta etzituzten bere aginteak ezagutu, eta Jaungoikoaren aginteen bidetik etziran ibili, eta bere egiaren bidetxigorrai ere justiziarekin etzien jarraitu.

14. Betoz Siongo aldeko erriak, eta arretaz ikusi bezate nerekin, nolako katiberioan jarri dituen Jaungoiko betikoak nere seme eta alabak.

15. Zeren Jaunak etorri erazi zion beren kontra urrutiko erreñu bati, erreñu gaizto, eta bere izkuntza ezagutzen etzuen bati,

16. Zeñak ez dion lotsaz begiratu zarrari, ez duen ere urrikaltasunik iduki aurrakin, eta zeñak kendu diozkan andre alargunari bere seme maiteak, utzitzen duela berak gabe ansiatua.

17. Eta orain, zertan lagundu dezakezutet nik?

18. Baña arako Jaun, gaitzak bialdu zizkizutenak, berak zuen etsaien eskuetatik libratuko zaituzte.

19. Ibilli zaitezte, o ene semeak; zoazte katiberiora, eta ni bakarra geldituko naiz.

20. Kendu nuen pakeko soñekoa, eta jantzi nuen erreguko zakua, eta deadarrez ots egingo diot Jaungoiko txit goratuari nere bizitzako egun guztietan.

21. Ez ezazute beldurrikan batere iduki, o ene semeak; deadarrez ots egin zaiozute Jaunari, eta berak libratuko zaituzte etsai prinzipeen mendetik.

22. Zeren nik nere itxedopena ipiñi dedan Jaungoiko betikoagan, zeñ dan zuen salbazioa; eta Santuak gozatu nau, Jaungoiko betikoak, zuen Salbatzalleak zuekin idukiko duen urrikaltasunaren eskeñtzarekin.

23. Zeren negar eta suspirioakin utzi nizuten joaten: baña Jaunak berriz itzuliko zaituzte nigana bozkario eta gozotasun iraunkor batekin.

24. Eta nola Sionen aldeko erriak ikusi zuten zuen katiberioa Jaungoikoagandik zetorrela; ala txit laster ikusiko dute, etorriko zatzutela Jaungoikoagandik salbazioa onra andi, eta betiko argitasunarekin.

25. Ene semeak, onean eraman ezazute, zuen gañera etorri dan kastigua. Zeren, o Israel, zure etsaiak persegitu zaituen, baña aurki ikusiko dezu zuk bere galmena; eta zuk zure oña bere lepoaren gañean ipiñiko dezu.

26. Nere seme argalak bide latzetatik ibilli dirade; zeren etsaiak ostutako artalde bat bezela izan diran eramanak.

27. Ene semeak, ez ezazute beldurrikan batere iduki, eta deadarrez ots egin zaiozute Jaunari; zeren orrara eraman zaituztena hura bera zuekin oroituko da.

28. Zeren baldin zuen borondateak mugitu bazinduzten iges egitera Jaungoikoagandik, beragana biurtzen zeratenean, bereala billatuko dezute amar aldiz borondate andiago batekin.

29. Zeren gaitz oiek bialdu zizkizutenak, berak ekarriko dizute betiko gozotasun bat, emango dizuten osasunarekin.

30. Zaude sendo, o Jerusalen, zeren poztutzen zaituen arako Jaungoiko, bere erriaren izena eman zizunak.

31. Zu desegin zinduzten gizon gaiztoak, galduko dira, eta kastigatuak izango dirade zure galmenean bozkariotu ziradenak.

32. Arako erriak, zeñak zuen semeak serbitu zituzten, kastigatuak izango dirade, eta kastigatua ere izango da, berakin jabetu zan erri hura.

33. Nola bera gozatu zan zure galmenean, eta bozkariotu zan zu erori ziñanean; ala ansiatua ikusiko da bere ondamenean.

34. Eta utsean geldituko da bere jende taldearen bozkarioa, eta bere gozotasuna negarretara itzuliko da.

35. Zeren Jaungoiko betikoak sua botako duen bere gañera asko egunetan, eta demonioak biziko dira bertan denbora luzean.

36. Begiratu ezazu, o Jerusalen, sortalderontz, eta ikusi ezazu Jaungoikoak bialtzen dizun poza.

37. Zeren ona emen non itzultzen diran zure seme, zuk barreiatuak bialdu ziñituenak. Berak datoz bilduta sortaldetik Sartaldera, Santuaren eskeñtzaren araura, bozkarioarekin Jaungoikoa alabatzen dutela.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Kendu itzatzu, o Jerusalen, lutuzko soñeko, zure atsekabeari dagozkionak, eta jantzi itzatzu Jaungoikoagandik datorkizun betiko gloriako argitsu eta anditasunez beteak.

2. Jaunak jantziko dizu inguruan, justiziako soñeko bi dobletako bat; eta ipiñiko dizu zure buruaren gañean, betiko onrako kapela bat.

3. Zeren zugan emango dien Jaungoikoak ezagutzen bere anditasuna, zeruaren azpian dauden gizon guztiai.

4. Zeren zure izena, Jaungoikoak betiko ipiñiko dizun izena izango da au: Justiziaren pakea, eta biguñtasuneko onra.

5. Jaiki zaite, o Jerusalen, eta jarri zaite alturan, eta zuzendu itzatzu zure begiak sortalderontz, eta begiratu ezazu nola biltzen diran zure semeak sortaldetik sartalderaño santuaren itzean, beren Jaungoikoaren oroipenean gozatzen diradela.

6. Zeren zugandik atera ziran oñaz, etsaiak zeramazkitela; baña Jaunak ekarriko dizkizu zugana, ekarriak diradela onraz beteak, erreñuko semeak bezela.

7. Zeren Jaungoikoak erabaki duen, mendi goratu guztia beeratutzea, baitaere aitz betiko guztia, eta ibarrak betetzea lurrarekin berdindu arteraño; Israel joan dedin bere bidean gelditu gabe, Jaungoikoaren gloriarako.

8. Basoak ere, eta zuaitz usaitsu guztiak, Israeli itzala egingo diote, Jaungoikoaren agintez.

9. Zeren Jaungoikoak zuzenduko duen bozkarioz Israel bere anditasuneko argitasunarekin, beragandik datozten urrikaltasun eta justiziaren bitartez.

SEIGARREN KAPITULUA

Jeremiasek Juduai bialdu zien kartaren kopia, atera bear zutenean Babiloniarako, nora eraman erazitzen zituen katibu Babiloniatarren erregeak, zeñatan jakin erazitzen dien, Jaungoikoak agindu ziona.

1. Jaungoikoaren aurrean egin dituzuten bekatuak gatik, izango zerate, Nabukodonosor Babiloniako erregeak Babiloniara katibu eramanak.

2. Allegaturik bada Babiloniara, egongo zerate an txit asko urtean, eta denbora txit luzean, zazpi gizaldiraño. Denbora au iragota berriz, aterako zaituztet andik pakean.

3. Orain bada, zuek ikusiko dituzute Babilonian urrezko, eta zillarrezko, eta arrizko eta zurezko jainkoak, gizasemeak sorbaldetan daramazkitenak, jendediak beldurrez begiratzen diotela.

4. Kontuan zaudete, bada, ez dezazutela zuek egin, arrotzak egiten dutena; beren beldur zeratela, eta berak daukatela gauza beldurgarriren bat.

5. Ikusten dezutenean, bada, beren ostean, eta beren aurrean jende taldea, berak adoratzen, esan ezazute au zuen biotzean: O Jauna, zu bakarrik, adorazioaren diña zera.

6. Zeren nere Aingerua zuekin dagoen; eta nik neronek zuen animai arretaz begiratuko diet.

7. Idoloen mingaña langilleak limatua izan zan ezkero; eta egon arren berak urrez eta zillarrez beteak, utsa dirade, eta ezin egin dute itzik.

8. Eta nola egiten dan, apainduria zalea dan birjiña batekin, ala urrearen bitartez egiñak dirade eta apainduak.

9. Egiaz, beren jainkoak dauzkate jarriak beren buruen gañean urrezko koroak. Urrea, zein gero zillarrarekin batean kentzen dien apaizak, izan dedin beren kastuetarako.

10. Ematen ere diote beratatik bordionai, eta galotsai; eta noizbait berakgandik berriz artuta, apaintzen dituzte berarekin beren jainkoak.

11. Alaere jainko oiek ez dirade libratzen erdoiagandik, eta sitsagandik.

12. Eta purpuraz berak jantzita gero, garbitzen diote arpegia, beren tenploetan dagoen auts ugariagatik.

13. Badauka ere idoloak bere eskuan zetro bat, erri bateko juezak daukan bezela; baña berak bizitzarik ezin kendu du, ez kalterik egin, berari gaitz egiten dionari.

14. Orobat dauzka bere eskuan ezpata eta aizkora; baña ezin libratu du bere burua gerratik, ez lapurrakgandik. Ala jakinik egon bear zerate, ez diradela Jaungoikoak.

15. Eta ala ez dezute beren bldur izan bear, zeren alako jainkoak dirade, lurrezko ontzi zatitu ezertarako ere gai ez dan bat bezelakoak.

16. Nola dauden ipiñiak etxe batean, beren begiak estalitzen dirade laster, sartzen diradenen oñak jasotzen duten autsez.

17. Eta nola erregea ofenditu duena, asko ateren barrenen sartzen dan, eta nola egiten dan obira eramaten dan il batekin, ala itxitzen dituzte ateak apaizak sarrallakin eta morrolloakin, lapurrak jainkoai daukatena ostu ez dizaioten.

18. Erazekiten diezte aurrean asko lanpara; baña beretatik bat ere ezin ikusi dute. Dirade alako jainkoak, etxe bateko zurak bezelakoak.

19. Esaten dute, lurretik ateratzen diran suga batzuek, miazkatzen diela barrena, jaten dieztenean barrenak, berak sentitu ere gabetanik.

20. Beltxitzen dirade beren arpegiak, beren etxeetan dagoen keagatik.

21. Beren gorputzen gañetik, eta beren buruen gañetik dabiltza egan ontzak, eta enadak, eta beste egazti batzuek, eta katuak ere dabiltza beren gañean.

22. Emendik ezagutu dezakezute, alakoak ez diradela Jaungoikoak; eta argatik etzaitezte beren beldur izan.

23. Gañera, daukaten urrea, da, ongi iruditzeko. Baldin norbaitek ez badie kentzen erdoia, ez dute argitasunik botako. Berak urtzen ari ziradenean ere, etzuten ezerere sentitu.

24. Eta beretan espiriturikan batere ez badago ere, txit garesti erosiak izan ziran.

25. Bizkarren gañean eramanak izan oi dirade, oñik ez daukatelako, agertzen diela onela gizonai, beren ezertarako ere gaiez lotsagarria. Lotsatuak izan bitez, berak adoratzen dituztenak ere.

26. Argatik lurrera erortzen badirade, ez dirade berak berenez jaikitzen; eta norbaitek oñaz ipintzen baditu ere, ez diteke egon berak berenez zutik; eta aurrean doañak ipiñiko diozkate, illai bezela.

27. Doañ oiek saltzen eta gaizki kastatzen dituzte beren apaizak; eta beren emazteak ere berentzat ostutzen dituzte. Ez die beratatik ezertxoere ematen eriari, ez eskaleari.

28. Beren eskeñtzai ukitzen die aurregindako, eta ilberakin dauden andreak. Ezaguturik, bada, gauza guzi oietatik, alakoak ez diradela Jaungoikoak, ez dezute beren beldur izan bear.

29. Nola bada ematen die jainkoen izena? Da andrak eskeñtzen dieztelako doañak, zillarrezko, eta urrezko, eta zurezko jainko oiei;

30. Eta apaizak egon oi dirade beren etxeetan, eramaten diztuztela soñeko etenak, eta arras kendurik buruko illea, eta bizarra, eta burua agirian.

31. Eta ortz karraskotzka ari dira, egiten dituztela deadarrak beren jainkoen aurrean, egiten dan bezela il baten aparian.

32. Apaizak kentzen diezte idoloai beren soñekoak, eta berakin jantzitzen dituzte beren emazteak eta beren semeak.

33. Eta idoloai gaitzen bat, edo mesederen bat egiten bazaiete ere, ez ditzakete oradañikan itzuli. Eta ez ditzakete errege bat ipiñi, ez kendu.

34. Eta orobat, ezin dute eman ondasunikan, ez iñoren bengantzarikan artu. Norbaitek boto bat egiten badie, eta ez badu kunplitzen, onegatik ere ez dira kejatzen.

35. Ezin dute gizon bat eriotzatik libratu, ez lagundu argalari sendoaren kontra.

36. Ez dute argitzen itsu bat ere, ez iñor atera premiatik.

37. Ez dute andre alargunaren urrikalmendurik idukiko, eta ez dirade ere izango umezurtzen ongigilleak.

38. zurezko, arrizko, urrezko, zillarrezko jainko oriek, mendiko arrien antzekoak dirade. Beren adoratzalleak nastuak izango dirade.

39. Nola bada uste izan, ez esan dezake, alakoak jainkoak diradela,

40. Kaldeatarrak berak ere mezpreziatzen dituztenean? Aditzen duteneko norbaitek ezin itzik egin duela, mutua dalako, eramaten diote Beli, erregututzen diotela itz egin erazi dizaiola.

41. Sentidua baleukate bezela, mugimendurikan batere ez daukatenak; eta berak, desengañatzera allegatzen diradenean, utziko dituzte, zeren sentidurikan batere ez daukaten beren jainkoak.

42. Baña emakumeak, kordoiak gerrietan dituztela, eseritzen dirade bideetan, erretzen dituztela oliboen ezurrak.

43. Eta beretatikoren batek, bideanteren batek artuta, berarekin lo egin duenean, irri egiten dio bere lagun emakumeari, bera bezela ez dalako izan autua, eta bere kordoia ez dalako urrutua izan.

44. Eta idoloen onran egiten diran gauza guztiak, gezurrez beteak daude. Nola bada beñere uste izan lezake, edo esan, alakoak jainkoak diradela?

45. Arotzak eta zillargiñak egiñak izan dirade. Ez dirade beste gauzarik izango apaizak nai dutena baño.

46. Idoloen egilleak berak, denbora gutxian irautzen dute. Izan al litezke, bada, Jaungoikoak, berak egiten dituzten gauzak?

47. Gezurra eta lotsaria da, jaioko diradenentzat utzitzen dutena,

48. Zeren etortzen baldin bada gerraren bat, edo zorigaitzen bat, apaizak dabiltza asmatu eziñik nun ezkutatuko diran beren jainko aiekin.

49. Nola bada izan litezke beñere jainkoen iritziaren diñak, ez gerratik libratu litezken, ez zorigaitzetatik alderik egin ditzaken aiek?

50. Zeren izanik, diraden bezela, zurezko, urretu, eta zillartutako gauza bat, ezagutuko dute gero atzenean erreñu guziak eta erregeak, engañio bat baizik ez diradela, ikusirik argiro nola ez diraden jainkoak, baizik gizonen eskuen lanak, eta berak ez dutela ezerere egiten jainkoak diradela erakusteko.

51. Baña, eta nondik ezagutzen da, ez diradela berak jainkoak, gizonen eskuen lanak baizik, eta ez dutela ezerere egiten jainkoak diradela erakusteko?

52. Ez ipintzean berak erregerik iñongo erreñutan ere, eta ez eman al izatean euririk gizonai.

53. Berak egiaz ez dituzte erabakiko eleak, eta ez dituzte ere libratuko probinzia menderatuak, zeren ez dezakete ezerere. Dirade beltzurdatxoak bezelakoak, zeñak ez diraden ez zeruko egaztiak, ez lurreko abereak.

54. Zeren zurezko, zillarrezko eta urrezko jainko orien tenploak suak artzen baditu; nere kontura, beren apaizak iges egingo dutela, eta jarriko diradela gaitzik etorriko etzaien tokian; berak berriz erreko dirade barrenen, zur batzuek bezela.

55. Eta etzaiozkate ere erasoko errege bati gerrako denboran. Nola bada uste izango da, edo idukiko dirade berak jainkotzat?

56. Ez dirade ere libratuko etxelapur, edo bidelapurrakgandik, zurezko, eta arrizko jainko, urretu, eta zillartu batzuek, zeren aiek, berak baño geiago diraden;

57. Eta kenduko die urrea eta zillarra, eta soñekoa, zeñarekin estaliak dauden, eta joango dirade, idoloak beren alde ezerere egin ez dezaketela.

58. Ala bada, geiago balio du, bere eskubidea erakusten duen errege batek; edo etxe batean jabeak estimatzen duen tresna on batek; edo etxeko ate, barrenen dagoena zaitzen duenak; gezurrezko jainkoak baño.

59. Eguzkiak egiaz, illargiak eta izarrak, ipiñita daudenak guri argi egiteko, eta guretzat mesedegarriak izateko, obeditzen diote beren Egilleari.

60. Orobat tximista, agertzen danean, ikusten da; eta aizea dabil erreñu guztietatik.

61. Berebat odeiak, Jaungoikoak agintzen dienean ibilli ditezela mundu guztitik, egiten dute agindu zaiotena.

62. Suak ere, bildua danean goitik erretzeko mendiak eta basoak, kunplitzen du agindu zaiona. Baña idolo oiek ez edertasunean, ez birtutean daukate gauza oien antzik batere.

63. Eta ala, ez da uste izan, ez esan bear, alakoak jainkoak diradela, ezin dutenean ez justiziarik egin, ez serbitu gizonak ezertan ere.

64. Jakinik bada berak Jaungoikoak ez diradela, ez dezute zertan beren beldurrik iduki,

65. Zeren ez diote bialduko erregeai, ez madarikaziorik, ez bendiziorik.

66. Eta ez diezte ere erriai erakusten denboren aldakuntzak, eta ez dute ere argi egiten eguzkiak bezela, ez argia ematen illargiak bezela.

67. Berak baño geiago balio dute abereak, zeñak joan litezkean aterbe batera, eta berakgatik begiratu lezaken.

68. Iñolaere bada ez dirade jainkoak, gauza txit ziertoa dan bezela. Argatik bada ez dezute zertan iduki beren beldurrik.

69. Zeren nola ez dan gordetzalle ona meloidi batean txorimaloa, ala dirade zurezko, zillarrezko eta urrezko beren jainkoak.

70. Dirade, baratza batean arantza zuria bezela, zeñaen gañean egotera datozan txori mota guziak. Dirade ere beren jainko zurezko, urrez, eta zillarrez beteriko oiek, obiko illuntasunetan illik datzan baten antzekoak,

71. Purpura eta eskarlatatik, zeñak ikusten dezuten sitsak jaten dituela beren gañean, ezagutuko dezute argiro, Jaungoikoak ez diradela. Berak ere atzenean sitsaren bazka dira, eta izango dira erriko lotsaria.

72. Au guziau baño obeagoa da gizon justoa, zeñak ez dituen idoloak ezagutzen, zeren lotsariagandik urrutian egongo dan.

EZEKIELEN PROFEZIA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Ogeita amargarren urtean, laugarren illean, illaren bosgarrenean, gertatu zan nengoela ni katibuen erdian Kobar ibaiaren aldean, idiki ziran zeruak, eta ikusi nituen Jaungoikoaren ikusketak.

2. Illaren bosgarrenean, Joakin erregea Babiloniara eramana izan da gero, bosgarren urtean,

3. Zuzendu zion Jaunak bere itza Ezekiel apaiz, Buziren semeari, Kaldeatarren lurrean, Kobar ibaiaren aldean; eta an Jaunaren eskua bere gañean sentitu erazi zan.

4. Eta begiratu nuen, eta ona non zetorren ifarretik aizezko bunbada bat, eta odei andi bat, eta odeiaren barrenen jiran zebillan su bat, eta argitasun bat bere inguruan; eta bere barrenen, au da, suaren erdian, irudi bat, elektroarena bezelakoa,

5. Eta su aren erdian ikusten zan lau abereen antz bat; zeñaen irudia zan au: bazegoen beretan gizona zirudian zerbait.

6. Bakoitzak zeuzkan lau arpegi, eta lau ego.

7. Beren oñak ziran zuzenak, eta bere oñen azpia, idisko baten oñaren azpia bezelakoa; eta botatzen zituzten txinpartak, altzairu txit erazeki batean ikusten dan bezela.

8. Beren egoen azpian, lau aldamenetan, zeuden gizonen eskuak, eta zeuzkaten arpegiak, eta egoak lau aldamenetatik.

9. Eta bataren egoak besteenarenakin biltzen ziran. Etziran itzultzen zebiltzanean, baizik bakoitza joan oi zan bidean aurrera bere arpegia zuzentzen zan erara.

10. Beren arpegien gañean berriz, laurak zeukaten gizonarena; eta laurak zeukaten leoiaren arpegi bat beren eskuieko aldamenean. Ezkerreko aldamenean zeukaten laurak idiaren arpegi bat; eta goiko aldamenean zeukaten laurak agiliaren arpegi bat.

11. Beren arpegiak eta beren egoak zuzentzen ziran, eta zabaltzen ziran goirontz. Biltzen ziran puntatik bakoitzaren bi ego, eta beste biakin beren gorputzak estalitzen zituzten.

12. Eta beretatik bakoitza ibiltzen zan, bere arpegia zuzentzen zan tokirontz. Nora eramaten zituen espirituaren bultzadak, ara oi zijoazen, eta etziraden ere itzultzen bidean ibiltzeko.

13. Eta abere oiek begien aurrean ziruditen, su erazekizko txingarrak bezela, eta zuzi erazekiak bezela. Ikusten zan zebillala abereen erdian suzko argitasun bat, eta sutatik ateratzen ziradela tximistak.

14. Eta abereak bazijoazen, eta itzultzen ziran tximist argitsuen gisara.

15. Eta ni abereai begira nengoen artean, agertu zan kurpil bat lurraren gañean, abere bakoitzaren aldean, zeñak zeuzkan lau arpegi.

16. Eta kurpillak, eta beren gaia zan begien aurrean, itsasoaren kolorekoa bezelakoa; eta laurak ziran elkarren antzekoak; eta beren irudia eta beren egiera ziran, beste kurpil baten erdian dagoen kurpil batena bezelakoa.

17. Beren lau aldamenetatik zijoazen beti, eta etziran itzultzen ibiltzen ziranean.

18. Orobat kurpillak zeukaten alako ingurua, eta altuera, non, ikustea bakarrik asko zan arrituta geldítutzeko; eta lauen inguru guztia zegoan inguruan begiz betea:

19. Eta abereak bidean zijoazenean, orobat ibiltzen ziran kurpillak ere beren aldean; eta abereak lurretik jaikitzen ziradenean, era berean jaikitzen ziran kurpillak ee berakin.

20. Espiritua zijoan edozeñ tokitara, ara zuzentzen ere ziran beren ondoren kurpillak, zeren bizitzako espiritua zegoan kurpilletan.

21. Kurpillak ibiltzen ziran, abereak ibiltzen baziran, gelditzen ziran, berak gelditzen baziran, eta berak lurretik jaikitzen ziradenean, kurpillak ere beren ondoren jaikitzen ziran, zeren kurpilletan bizitzako espiritua zegoan.

22. Eta abereen buruen gañean zegoan firmamentuaren irudi bat; begiratzen zaionean kristal ikaragarri bat zirudiana, zeñ zegoen zabaldua goian beren buruen gañetik.

23. Firmamentuaren azpian berriz, ikusten ziran beren egoak zabalduak, ukitzen ziola bataren egoak bestearenari, eta bakoitzak estalitzen zuela bere gorputza beste ego biakin. Era berean estaltzen zan bakoitza.

24. Eta aditzen nuen nik egoen otsa, ur askoren otsa bezelakoa, Jaungoiko goratuaren turmonada bezelakoa. Bidean zebiltzanean, otsa zan jendedi andi baten irudikoa, edo ejerzitu baten otsa bezelakoa; eta gelditzen ziradenean, beeratutzen zituzten beren egoak.

25. Zeren ateratzen zanean boz bat, beren buruen gañean zegoan firmamenduaren gañetik, berak gelditzen ziran, eta beeratzen zituzten beren egoak.

26. Eta beren buruen gañean zegoan, firmamenduaren gañean zegoan, zafirozko arrizko esertoki goratu bat bezelakoa, eta tronuaren irudiko gauza aren gañean zegoan gizon beneragarri baten irudia bezelakoa.

27. Eta nik ikusi nuen bere irudia, elektro argitsu baten irudia bezelakoa; eta bere barrenen, eta bere gerriaren inguruan goiraño suaren gisako bat; eta gerritik beera ikusi nuen, su erazeki, inguruan argi egiten zuena bezelako bat.

28. Nolakoa agertzen dan ostrellaka, odei batean arkitzen danean egun euritsu batean, alakoa zan, tronuaren inguruan ikusten zan argitasunaren irudia.

BIGARREN KAPITULUA

1. Ikusketa au, Jaungoikoaren gloriaren irudi bat zan. Nik iduki nuen, eta auzpeztu nintzan, ikaratuta, nere arpegiaren gañean, eta aditu nuen, lagun beneragarri, itz egiten zuenaren boza, eta esan zidan neri: Gizonaren semea, zutik jarri zaite, eta zurekin itz egingo det.

2. Eta berak itz eginda gero, sartu zan nigan espiritua, eta nere oñen gañean ipiñi ninduen, eta aditu nion, itz egiten zidan lagun beneragarriari,

3. Eta esaten zuen: Gizonaren semea, nik bialtzen zaitut Israelko semeakgana, jentil eta apostata, nigandik alde egin duten oriekgana. Berak eta beren gurasoak urratu dute gaurko eguneraño, nerekin zeukaten elkartasuna.

4. Arpegi gogorreko, eta biotz ezikaitzeko semeak dirade oriek, zeñgana bialtzen zaitudan. Eta onela itz egingo diezu: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak:

5. Ikusteko berak aditzen ote duten, eta bekatu egiteari utzitzen ote dioten, zeren ori, familia burukoi bat dan, eta jakingo dute, beren erdian profeta bat bederik daukatela.

6. Zu bada, gizonaren semea, etzaite beren beldur izan, eta etzaite beren itzakgatik ikaratu, zeren zuk sinisgogor, eta biurritariakin tratatu bear dezun, eta lupuakin bizi zeran. Etzaite beren itzen beldur izan, eta etzaite ere beren arpegiak gatik ikaratu, zeren bera familia ezikaitz bat dan.

7. Zuk bada, berriz eta berriz esango dieztezu nere itzak, onela ikusteko aditzen ote duten, eta utzitzen ote dioten bekatu egiteari, zeren dan jende bat aserretu erazitzeko egokia.

8. Zuk berriz, o gizonaren semea, aditu ezazu esaten dizudan guztia; eta etzaite ezikaitza izan, familia au dan bezela. Idiki ezazu zure aoa, eta ematen dizudan guztia jan ezazu.

9. Eta begiratu nuen, eta ona emen non zegoan esku bat niganontz luzatuta; zeñean zeukan liburu bat errollatua, eta idiki zuen nere aurrean, eta zegoan eskribitua barrendik eta kanpotik, eta lamentazioak, eta kanta tristeak, eta aiak ziraden beratan eskribituta zeudenak.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta esan zidan Jaunak: Gizonaren semea, jan ezazu arkitzen dezun guztia; jan ezazu liburu ori, eta zoaz Israelko semeai itz egitera.

2. Orduan idiki nuen nere aoa, eta eman zidan jaten liburu hura,

3. Eta esan zidan: Gizonaren semea, nik ematen dizudan liburu orrekin bazkatuko da zure sabela, eta zure erraiak beteko dirade. Jan nuen, bada, eta nere aosapaiak eztia bezela gozoa arkitu zuen.

4. Eta berak esan zidan: Gizonaren semea, zoaz, eta adirazi zaiozkazu Israelko familiari nere itzak,

5. Zeren etzeran zu bialdua izketa arrotz eta mintzoera ezezaguneko erri batera, baizik Israelko etxera:

6. Ez erreñuren batzuetara, zeñaen izkuntza dan zuretzat ezezagutua, eta arrota beren mintzoera, zeñaen itzak ez ditzakezun aditu. Eta oietara bialdua izango baziña ere berak adituko litzazkizuke.

7. Baña Israelko etxekoak etzaituzte aditu nai, zeren ni ere ez nauten aditu nai, zeren Israelko etxe guztia kopet astiñeko, eta biotz gogorrekoa dan.

8. Baña ona emen non nik emango dizudan zuri arpegi sendoago bat, beren arpegia baño, eta kopet gogorrago bat, beren kopeta baño.

9. Emango dizut arpegi bat diamantea, eta txingarria bezelakoa. Ez daukazu zertan beldur izan, ez ikaratu beren aurrean, zeren bera familia ezikaitz bat dan.

10. Eta esan zidan: Gizonaren semea, artu itzatzu zure biotzean, eta ongi aditu itzatzu, nik esaten dizkizudan itz guztiak;

11. Eta zoaz, jarri zaite zure erriko semeen aurrean, zeñak izan ziran katiberiora ekarriak, eta onela itz egingo diezu: Ona emen Jaun Jainkoak esaten duena; ikusteko aditzen ote duten, eta utzitzen ote dioten bekatu egiteari.

12. Eta kordegabetu ninduen espirituak, eta aditu nuen nere atzean boz txit otspatsu bat, esaten zuena: Bedeikatua izan dedilla, bere tokitik dijoan Jaunaren gloria.

13. Eta aditu nuen abereen egoen otsa, zeñatatik batak bestearekin jotzen zuen, eta abereai jarraitzen zien kurpillen otsa, eta dunbada andi baten otsa.

14. Eta berriz sendotu ninduen espirituak, eta artu ninduen, eta nijoan ni mingoiztasunez, eta nere gogoko aserrez betea; baña Jaunaren esku, sendotzen ninduena, nerekin zegoan.

15. Allegatu nintzan bada, uzta berrien montoia deritzan tokira eramanak izan ziraden katibuakgana, non zeuden Kobar ibaiaren aldean bizi ziradenak; eta gelditu nintzan berak zeuden tokian, eta an egon nintzan tristezaz betea, zazpi egunean, beren erdian.

16. Eta irago ziradenean zazpi egunak, itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

17. Gizonaren semea, nik jarri zaitut bealaritzat Israelko etxean, eta nere aotik adituko dituzu nere itzak, eta adiraziko diozkazu berai nere izenean.

18. Baldin nik esango banio gaiztoari: illa izan bear dezu, zuk adirazten ez badiozu, eta ez badiozu itzik egiten, utzi dizaion bere gaizki egiteari, eta bizi dedin; gaizto hura ilko da bere bekatuan; baña nik aren odolaren kontua zuri eskatuko dizut.

19. Baña baldin zuk adirazi badiozu gaiztoari, eta bera ez bada ondu, utzitzen diola bere gaiztakeriari, eta bere bizitza txarrari, bera ziertoro ilko da bere gaiztakerian; zuk berriz zure anima salbatuko dezu.

20. Baitaere justoak utziko balio birtuteari, eta obra gaiztoak egingo balitu, nik ipiñiko diozkat aurrean beaztopoak. Bera ilko da, zuk adirazi ez diozulako, ilko da bere bekatuan, eta berak egin zituen obra oneen oroipenik ez da idukiko; baña nik bere odolaren kontua zuri eskatuko dizut.

21. Baña adirazten badiozu justoari, bekaturik egin ez dezan, eta berak bekaturik egiten ez badu; egiaz berak egiazko bizitza idukiko du adirazi ziñiolako, eta zuk zure anima libratu dezu.

22. Eta Jaunaren eskuak ukitu zidan nere gañean, eta esan zidan: Jaiki zaite, eta atera zaite kanpora, eta an itz egingo det zurekin.

23. Eta jartzen nintzala bidean, atera nintzan kanpora; eta ona emen, non, an zegoan Jaunaren gloria zan, Kobar ibaiaren aldean ikusi nuena bezelakoa, eta auzpeztu nintzan nere arpegiaren gañean.

24. Eta sartu zan nigan espiritua, eta altxatu ninduen, eta jarri ninduen nere oñen gañean, eta itz egin zidan, eta esan zidan: Zoaz, eta sartu zaite zure etxearen barrenen.

25. Eta zuk, o gizonaren semea, begiratu ezazu prestatu dituztela zuretzat lokarriak, eta lotuko zaituzte, eta zu beren artetikan ezin irtengo zera.

26. Eta nik egingo det, zure mingaña, zure aosapaiari itsatsia gelditu dedilla, alako moduan, non, mututua egongo zeran, eta etzaitezen onezkero izan, errierta egiten duen gizon bat, zeren bere familia ezikaitz bat dan.

27. Nik itz egiten dizudanean berriz, zure aoa idikiko det, eta zuk berai esango diezu: Oiek esaten ditu Jaunak: Aditzen duenak, aditu beza; eta lo dagoenak, lo egin beza, zeren au familia ezikaitz bat dan.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta zuk, gizonaren semea, artu ezazu adrillu bat, eta jarri ezazu aurrean; eta an egingo dezu Jerusalengo erriaren irudi bat.

2. Eta ipiñiko dezu bertan, nolako eratan setiatuak izan bear duen, eta jasoko dituzu esindarrak, eta egingo dituzu lutesiak, eta jarriko dezu etzauntz bat bere kontra, eta ipiñiko dituzu bateriak bere muruen inguruan.

3. Artu ezazu gero burnizko zartana bat, eta ipiñiko dezu, burnizko murru bat balitza bezela, zure eta erriaren bitartean; eta oni begiratuko diozu arpegi aserratuarekin, eta bera setiatua geldituko da; bada zuk setioa jarriko diozu. Esan dan guztia da siñale bat, Israelko etxearen kontra.

4. Baitaere zuk lo egingo dezu ezkerreko aldamenaren gañean, eta bere gañean jarriko dituzu Israelko gaiztakeriak, esan dan aldamenaren gañean lo egingo dezun adiña egunean, eta eramango dezu beren gaiztakerien pena.

5. Orain bada nik eman dizkizut irureun eta larogeita amar egun, beste anbeste urteko aien gaiztakeriakgatik, eta zuk eramango dezu Israelko etxeko gaiztakeriaren pena.

6. Iragotzen diradenean egun oiek, berriz lo egingo dezu, eta lo egingo dezu zure eskuieko aldamenaren gañean, eta eramango dezu Judako etxearen gaiztakeria berrogei egunean, urte bakoitzagatik egun bat, zeren urte bakoitzagatik egun bat izendatu dizut.

7. Eta itzuliko dezu zure arpegi aserretua Jerusalen setiatuaren kontra, eta luzaturik zure eskua, bere kontra profetizatuko dezu.

8. Begiratu ezazu nik kateez ingurutu zaitudala, eta ezin itzuliko zera aldamen batetik bestera, setioko egunak kunplitu ditzatzun arteraño.

9. Zuk bada artu itzatzu zuretzat garia, eta garagarra, eta babak, eta dilistak, eta artatxikia, eta albertxigoa, eta ipiñi ezazu guztia lurrezko ontzi batean, eta berakin egingo dituzu ogiak, anbat zenbat egunean lo egingo dezun zure aldamenaren gañean; irureun eta larogeita amar egunean beretatik jango dezu.

10. Eta zuk artuko dezun janaria izango da ogei siklo egunean. Jango dezu egunean beiñ bakarrik.

11. Ura ere neurriz edango dezu, au da, hin baten seigarren partea. Egunean bein bakarrik edango dezu.

12. Eta ogia jango dezu autsaren azpian errea, garagarrezko opil bat bezela. Gizasemearen loiaren azpian erreko dezu, beren aurrean.

13. Eta Jaunak esan zuen: Onela Israelko semeak jango dute beren ogi zikiña jentillen artean, nora nik aurtikiko ditudan.

14. Orduan esan nuen nik: Ah! Ah! Jaun Jainkoa! Ah, begira ezazu arren nere anima ez dagoela kutsutua, eta nere gazte denboratik orainarteraño ez det jan gauza ilkirik, ez pistiak zatitutakorik, eta ez da ere iñoiz sartu nere aoan aragi zikin motarik batere.

15. Eta erantzun zidan Jaunak: Ona emen non giza loiaren lekuan, emango dizut zuri idien zimaurra, zeñarekin erreko dezun zure ogia.

16. Eta gañera esan zidan: Ona non, o gizonaren semea, nik kenduko diodan Jerusaleni ogiaren janaria, eta ogia ontzaz, baita beldurrez ere jango dute; eta edango dute ura neurriz, eta ansiaz beteak.

17. Eta atzenean gelditurik ogi, eta urik gabe, etorriko dira batzuek besteen gañera illik erortzera, eta desegiñak geldituko dira beren gaiztakeriakgatik.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Eta zuk, o gizonaren semea, artu ezazu bizargille baten labana zorrotz bat, eta ebakiko dezu berarekin zure buruko illea, eta zure bizarra. Eta atxitu ezazu gero balanza bat, eta berezituko dezu illea.

2. Irugarren zati bat erreko dezu suan erriaren erdian, setioko egunak bukatuak diradenean, eta arturik beste irugarren zati bat, ebakiko dituzu ganibet batekin erriaren inguruan; eta beste irugarren zatia zabalduko dezu aurtikirik aizetara; eta andikan bereala, aterako det ezpata magitik berai jarraitzean.

3. Eta illeen irugarren zati onetatik artuko dituzu gutxi batzuek, eta zure kaparen ertzean lotuko dituzu.

4. Eta artuko ere dituzu batzuek, eta botako dituzu sutara, eta erreko dituzu, eta andikan sua irtengo da Israelko etxe guztiaren kontra.

5. Ona bada emen Jaun Jainkoak esaten duena: Au da arako Jerusalen, nik jentillen artean egin nuena, ipintzen nituela oien erriak bere inguruan.

6. Baña Jerusalenek mezpreziatu zituen nere erabakiak, eta erreñuak baño ere gaiztoago egin da, eta ausi ditu nere aginteak, bere inguruko erreñuak baño geiago, zeren Israelko semeak mezpreziatu zituzten nere legeak, eta nere aginteen araura ez dirade bizitu izan.

7. Argatik, oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Zuek gaiztakeria geiago egin dezuten ezkero inguruan dauzkazuten erreñuak baño, eta etzeraten ezkero bizitu nere aginteen araura, eta ez dituzuten ezkero zaitu nere legeak, eta zuen obrak ere ez diraden ezkero izan, zuen inguruan bizi diran jendeen legeen araukoak bederik;

8. Argatik, ala itz egiten du Jaunak: Ona emen non nagoen ni, o Jerusalen, zure kontra; eta nik neronek egingo ditut nere kastiguak zure erdian, erreñuen aurrean.

9. Eta egingo det zure kontra, zure gauza nazkagarriakgatik, beñere egin ez dedana, eta alako gauzak, nolakoak iñoizere beren antzekorik egingo ez dedan.

10. Argatik ikusiko da zugan, gurasoak jango dituztela beren semeak, eta semeak jango dituztela beren gurasoak, eta kunplituko ditut nere kastiguak zure erdian, eta aizetuko ditut aize guztira, zugan gelditzen diraden guztiak.

11. Argatik juramentu egiten det nik, esaten dut Jaun Jainkoak, nola zuk kutsutu dezun nere santuarioa zure eskandalu guztiakin, eta zure gauza nazkagarri guztiakin, nik ere desegingo zaitudala, eta ez dizula barkatuko nere begiak, ez naizala zurekin urrikalduko.

12. Zureen irugarren zati bat izurriz ilko da, eta gosez desegiña izango da zure erdian; beste irugarren zati bat galdua izango da ezpataren puntaz zure inguruan; eta zure semeen beste irugarren zatia barreiatuko det aize guztira, eta ezpata ere magitikan aterako det beren ondorean.

13. Eta aseturik geldituko da nere sumintasuna, eta egingo det egotez egon dedilla beren gañean nere aserrea, eta bozkariotuko naiz, eta aurtikitzen dedanean nik osotoro beren gañera nere aserrea, orduan ezagutuko dute, Nik Jaunak itz egin dedala nere gloriagatik zeloz beteta.

14. Nik ipiñiko zaitut, o Jerusalen, eremu bat egiñik, eta ekarriko zaitut izatera inguruetako erreñuen lotsaria, emendikan iragotzen diraden guztien aurrean.

15. Eta zu izango zera zure inguruan dauden erreñuen lotsaria, eta madarikazioa, eta oroipengarria, nik egiztatzen ditudanean zugan nere kastiguak aserre eta sumintasunarekin, eta nere gogortasun bengatzallearekin.

16. Eta ezagutuko dute Nik Jaunak itz egin dedala, aurtikitzen ditudanean nik beren kontra gosearen saieta zorigaiztokoak, zeñak eramango

duten berakin eriotza, zeñak zuek iltzeko aurtikiko ditudan nik, eta montoituko det zuen gañean gosea, eta ogiaren janaria kenduko dizutet.

17. Bialduko ditut bada zuen kontra gosea, eta pisti uzuak, osotoro desegin zaitzatedan artean; eta egurastua artzen ibilliko dira zure erditik, o erri desleiala, izurria eta ilkintza; eta egingo det, ezpata erori dedilla zure gañera. Nik Jaunak esan det.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

2. Gizonaren semea, itzuli ezazu zure arpegia Israelko mendietarontz, eta profetizatu ezazu beren kontra.

3. Eta esango dezu: Israelko mendiak, aditu ezazute Jaun Jainkoaren itza. Oiek esaten diozkate Jaun Jainkoak mendiai, eta muñoai, eta aitzai, eta ibarrai: Begiratu ezazute, nik ezpata zuen gañera aurtikiko dedala, eta desegingo ditudala zuen toki goratuak.

4. Eta arras desegingo ditut zuen aldareak, eta zuek dauzkazuten irudiak zatituak izango dirade, eta zuen erritarrak aurtikiko ditut ilda zuen idoloen aurrean.

5. Zuen irudien aurrean ipiñiko ditut Israelko semeen gorputz illak, ta zuen aldareen inguruan zuen ezurrak barreiatuko ditut,

6. Bizi zeraten toki guzietan, iñor ere gabe geldituko dira erriak, eta izango dira beera botatuak eta arrasatuak toki goratuak, zeñatan doañak eskeñtzen zenduzten; eta zuen aldareak desegiñak eta zatituak; eta utsean geldituko dirade zuen idoloak, eta beera botatuak izango dirade zuen tenploak, eta zuen obrak desegiñak.

7. Eta ilkintza andi bat egingo da zuen artean; eta ezagutuko dezute ni naizala Jauna.

8. Eta zuen arteko, ezpatatik iges egin duten batzuek, utziko ditut erreñuen artean, barreiatzen zaituztedanean erri askotatik.

9. Zuetatiko, eriotzatik libratu diradenak, bada, oroituko dira nerekin, katibu eramanak izan diraden erreñuen artean; zeren zatituko dedan beren biotz adultero, nigandik alde egin zuena; eta umillatuko ditut beren begi, beren idoloen amorio zikiñean beti erazekiak; eta berak beren iguia artuko dute, oroitzen diradenean beren gauza nazkagarri guztietan egin zituzten gaiztakeriakin.

10. Eta ezagutuko dute, Nik Jaunak ez nuela alperrik esan, emango niela kastigu au.

11. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Jo ezazu esku batarekin bestea, eta eman itzatzu otsak zure oñarekin, eta esan ezazu: Ai, Israelko etxearen doakabea, bere gauza nazkagarri gaiztoakgatik, zeren guztiak galduak izango diraden ezpataren puntaz, eta gosez, eta izurriz.

12. Jerusalendik urrutian dagoena, gosez ilko da; eta aldean dagoena, ezpataren puntaren mendean eroriko da; eta libratzen dana, eta setiatua dana, gosez ilko da. Eta aseko da berakgan nere aserrea.

13. Eta zuek ezagutuko dezute, ni naizala Jauna, zuen illak daudenean zuen idoloen erdian, zuen aldareen inguruan, muño goratu guztietan, mendien erpiñ guztien gañean, eta zuaitz ostotsu guziaren, eta arte sendo guztiaren azpian, tokiak, zeñatan erre zitzaiezten inzensu usaitsuak beren idolo guztiai.

14. Eta nik ipiñiko det ongi nere eskua beren gañean, eta biurtuko det eremu, eta utziko det iñor ere gabe beren erria, Deblatako eremutik bizi diraden toki guztietan, eta ezagutuko dute, Ni naizala Jauna.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zidan Jaunak, eta esan zuen:

2. Zuk bada, o gizonaren semea, aditu ezazu, oiek esaten diozka Jaun Jainkoak Israelko lurrari: Atzena badator, badator atzena erri onen lau aldamenetatik.

3. Orain dator atzena zuretzat, eta nik aurtikiko det nere aserrea zure gañera, eta juzgatuko zaitut zure egiteen araura, eta ipiñiko ditut zure aurrean zure gauza nazkagarri guztiak.

4. Eta ez dizu barkatuko nere begiak, eta ez naiz zurekin errukituko; baizik ipiñiko ditut zure gañean zure obrak, eta zure erdian zure gauza nazkagarriak, eta ezagutuko dezute ni naizela Jauna.

5. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: atsekabe bakarra, atsekabea ona emen non datorren.

6. Atzena badator, badator atzena. Esnatu da, eta goiz dabil zure kontra. Ona emen non datorren.

7. Badator galmena, lur onetan bizi zeranaren gañera, allegatzen da onezkero denbora, aldean da ilkintzako eguna, eta ez bozkarioko eguna mendietan.

8. Ni bada onezkero alderatzen naiz isuritzeko nere aserrea zure gañera, eta aurtikiko det zugana nere sumintasun guztia, eta kastigatuko zaitut zure obren araura, eta ipiñiko ditut zure gañean zure gaiztakeria guztiak,

9. Eta ez dizu barkatuko nere begiak, eta ez naiz ere zurekin urrikalduko, baizik jarriko dizkizut bizkarrean zure gaiztakeria guztiak, eta ipiñi-

ko dizkizut zure aurrean zure gauza nazkagarriak, eta ezagutuko dezute ni naizela kastigatzen dedan Jauna.

10. Ona emen eguna, ona emen badatorrela, galmena badator onezkero. Kastiguko zigorra loretu da, urgulleriak bota ditu bere besangak.

11. Gaiztakeria jaiki da biotzgogorreko zigorrean, beretatik batek ere ez du igesik egingo, erriko batek ere ez, ots egiten duten aietatik batek ere ez; beñere ez dirade atsedenez egongo.

12. Badator denbora, alderatzen da eguna. Erosten duenak ez du bozkariortu bear, ez negarrik egin saltzen duenak, zeren Jaunaren aserrea badator bere erri guztiaren gañera.

13. Zeren saltzen duenak ez du berriz artuko saldu duena, oraindikan bizi bada ere, zeren iduki dedan ikusketa, eta zeñak arrapatzen duen bere erriko talde guzia, ez da utsean geldituko; eta ez du batek ere iraungo bere bizitzako gaiztakerien bitartez.

14. Jo ezazute tronpeta ordu onean, prestatu bitez guztiak; baña iñor ere ez dago gudara joango danik, zeren nere aserrea bere erri guztiaren gañera erortzen dan.

15. Kanpotikan ezpata, eta barrendikan izurria ta gosea: landan dagoena, ezpataren puntaz illa izango da; eta izurriak ta goseak iretsiko dute, errian dagoena.

16. Beratatik salbatuko dira iges egiten dutenak; eta joango dira mendietara ibarretako usoak bezela, guztiak beldurrez ikara, bakoitza bere gaiztakeriagatik.

17. Giltzagetuak geldituko dira beso guztiak, eta nola dauden beldurrez beteak, urak belaunetatikan beera joango zaiezte.

18. Eta zilizioz jantziko dira, eta geldituko dira izuz beteak. Arpegi guztietan nastea ikusiko da, eta beren buru guztiak moistuak agertuko dirade.

19. Aurtikia izango da karrikaetik beren zillarra, eta zimaurtzara beren urrea. Zeren ez beren zillarrak, ez beren urreak ezin salbatuko ditu Jaunaren aserreko egun artan; ez ase beren anima, ez bete beren sabelak; zeren beaztopotzat serbitu dien beren gaiztakerian.

20. Eta soñeko ederrak, zeñakin apaintzen ziran, urgullura biurtu zituzten, eta egin zituzten berakin beren gauza nazkagarrien eta beren idoloen irudiak; argatik egingo det nik izan ditezela berentzat zikinkeria bezela;

21. Eta ipiñiko ditut jende arrotzen eskuetan berak arrapatuta, eta etorriko dira lurreko gaiztoak atxituak izatera, zeñak kutsutuko dituzten.

22. Eta alde eraziko diot berakgandik nere arpegiari, eta gaizto aiek esango dituzte nere ixilgauzak, eta sartuko dirade bertan arrapalariak, eta kutsutuko dute.

23. Jarri zaiozu bukaera profezia oni, zeren lurra oben odoltsuz betea dagoen, eta erria gaiztakeriaz betea dagoen.

24. Nik eramango ditut ara erreñuetako gaiztoenak, eta berak izango dirade beren etxeen jabe, eta geldirik idukiko det andizkien urgulleria, eta egingo det, beste batzuek arrapatu ditzatela beren santuarioak.

25. Allegatzen danean ondameneko eguna, pakea billatuko dute, eta ez da pakerik egongo,

26. Baizik nastea nastearen gañean egongo da, eta berri txar batzuek iritxiko dituzte besteak, eta galde egingo diote profetari, zer dan ikusi duena bere ikusketetan; baña ez da onezkero arkituko apaizetan Jaungoikoaren legearen ezagerarikan, ez zarretan ere konseju zuzenik.

27. Erregea negarrez egongo da, eta prinzipea tristezaz betea, eta erriaren eskuak beldurrez betak. Tratatuko ditut nik, diña diraden bezela, eta beren obren araura juzgatuko ditut; eta ezagutuko dute ni naizala Jauna.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan seigarren urtean, seigarren illean, bosgarren egunean, nengoela ni eseria nere etxean, eta zeudela nere inguruan Judako zarrak, supituan sentitu nuen nere gañean Jaun Jaungoikoaren bertutea.

2. Eta begiratu nuen, eta ona emen, sua zirudian gizon baten irudia, gerritik oñetara guztia zan sua; eta gerritik gorakoa zan argi eder bat bezelakoa, dist egiten duen elektroa bezelakoa.

3. Eta ikusi nuen esku zabaldu baten irudia, zeñak eldu zidan nere buruko ille karzeta batetik, eta jaso ninduen espirituan zeruaren eta lurraren bitartera, eta eraman ninduen Jerusalenera Jaungoikoaren ikusketa arrigarri batean, ifarrera begira zegoen Tenploaren barrendiko atearen aldamenera, non zegoan ipiñita zeloaren idoloa, Jaunaren zeloai aup egiteko.

4. Eta an ikusi nuen Israelko Jaun Jaungoikoaren gloria, kanpoan iduki nuen ikusketan ikusi nuen bezela.

5. Eta esan zidan berak: Gizonaren semea, jaso itzatzu zure begiak ifarralderontz; eta altxaturik nere begiak ifarreko aldamenerontz, ona emen, aldarearen ateko ifarrean, sarreran bertan, zeloaren idoloa.

6. Eta esan zidan: Gizonaren semea, uste al dezu zuk, ikusten dezula oiek egiten dutena, Israelko etxeak emen egiten dituen gauza nazkaga-

rri andiak, nik nere santuariotik urrutira alde egin dezadan? Bada baldin berriz begiratzen badezu, gauza nazkagarri andiagoak ikusiko dituzu.

7. Eta eraman ninduen atariko irteera batera, eta begiratu nuen, eta paretean zulo bat zegoan.

8. Eta esan zidan: Gizonaren semea, zulatu ezazu pareta. Eta zulatua izan zanean pareta, ate bat agertu zan.

9. Esan zidan orduan: Sartu zaite, eta ikusi itzatzu, oiek emen egiten dituzten gauza nazkagarri txit gaiztoak.

10. Eta sartu nintzanean begiratu nuen; eta ona emen, patari arrastakari eta abere mota guztien irudiak, eta Israelko familiaren nazka, eta beren idolo guztien irudiak zeuden paretaren inguru guztian.

11. Eta irurogeita amar gizon Israelko familiako zarrenak, zeuden zutik irudien aurrean, eta beren erdian Sofonias, Safanen semea, beretatik bakoitzak zeukala inzensonario bat eskuan, eta inzensoak anbeste kee jasotzen zuen, non, laño bat zirudian.

12. Eta esan zidan berak: Gizonaren semea, ongi ikusten dezu zuk zer dan egiten ari diradena Israelko etxeko zarrak, illuntasunean, bakoitzak bere gelako ezkutuan; zeren berak esaten duten: Ez, ez gaitu Jaunak ikusten, Jaunak lurra utzi du.

13. Eta gañera esan zidan: Beste toki batera itzultzen bazera ere, oiek egiten dituzten baño gauza nazkagarri gaiztoagoak ikusiko dituzu.

14. Eta eraman ninduen, ifarrera begira dagoen Jaunaren Tenploko atearen sarrerara, eta ikusi nituen, an zeuden emakume batzuek Adonisi negar egiten ziotela.

15. Eta esan zidan: zuk egiaz, gizonaren semea, ikusi dezu; baña berriz begiratzen badezu, ikusiko dituzu oiek baño gauza nazkagarri gaiztoagoak.

16. Eta sartu ninduen Jaunaren Tenploko barrendiko atarian, eta ona emen non ikusi nituen Jaunaren Tenploko atean, atariaren eta aldarearen artean ogeita bost gizon bezelatzu, zeukatenak beren bizkarrak itzuliak Jaunaren Tenplora, eta arpegiak Sortalderontz, irtetzen zan eguzkia adoratzen.

17. Eta esan zidan: ikusi dezu, o gizonaren semea, zer bada? Balio gutxiko gauza al da Judako etxearentzat, emen egin dituzten gauza nazkagarri oriek egitea, eta oraindikan lurra gaiztakeriaz bete ezkero ere, neri aserretu erazitzen aritzea? Eta ona non alderatzen duten ostoa beren sudurretara.

18. Orain bada, nik ere gogortasunarekin artuko ditut, ez dirade nere begiak samurtuko, eta ez naiz ere urrikalduko; eta deadar egiten dutenean nere belarrietara boz andiarekin, ez ditut adituko.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Eta deadar egin zuen Jaunak boz andiarekin nere belarrietara, esaten zuela: Erriaren bisita alderatzen da, eta bakoitzak dauka bere eskuan eriotzako erremienta bat.

2. Eta ona emen non sei gizon beneragarri zetozen, ifarrera begiratzen duen goiko ateko bidetik, eta beretatik bakoitzak zekarren bere eskuan eriotzako erremienta bat. Zegoan ere beren erdian gizon andi bat liñozko soñekoarekin, zeñak zekarren gerrian eskribitzeko bear zana, eta sartu ziran, eta jarri ziran brontzezko aldarearen aldean.

3. Orduan Israelko Jaunaren gloria joan zan Kerubiñetatik, zeñaen gañean zegoan, Tenploko atalburura, eta ots egin zion, liñozko soñekoa zeraman, eta bere gerrian eskribitzeko gaiak zeuzkan gizonari.

4. Eta esan zion Jaunak: irago zaite erriaren erditik, Jerusalenen erditik, eta siñalatu itzatzu Thau letrarekin, bere erdian egiten diran gauza nazkagarri guztiak, suspirioz eta negarrez dauden gizonen kopetak.

5. Aiei ordea esan zien, nik aditzen nuela: irago zaitezte erritik berari jarraitzen diozutela, eta gañerakoak zaurituta il itzatzute, ez bitez zuen begiak urrikaltsuak izan, eta etzaitezte ere biguñtasunarekin ibilli.

6. Il itzatzute zarra, gaztetxoa, eta, donzella, eta aurrak, eta emakumeak, iñor ere gelditzen ez dan arteraño; baña ez ezazute il, Thau berakgan ikusten dezutenetatik batere, eta nere santuariotik asiko zerate. Asi ziran bada, tenploaren aurrean zeuden zar aietatik.

7. Eta berak esan zien: Kutsutu ezazute tenploa: bere elizpea gorputz illez bete ezazute: Atera zaitezte. Eta atera ziran, eta errian zeuden guztiak il zituzten.

8. Eta ilkintza bukatu zanean, gelditu nintzan ni an, eta auzpeztu nintzan nere arpegiaren gañean, eta altxaturik deadarra, esan nuen: Ai, ai, Jaun Jainkoa, ai! Desegingo al dituzu Israelko kutsu guztiak, aurtikitzen dezula zure aserrea Jerusalenen gañera?

9. Eta esan zidan neri: Israel eta Judako etxearen gaiztakeria andiegia da; eta lurra oben txit andiz estalia dago; eta erria fedeauslez betea, zeren esan zuten: Jaunak utzi du lurrak ez du ikusten Jaunak.

10. Orain bada, ez diot urrikaltasunez begiratuko; eta ez naiz biguñtasunarekin ibilliko, tratatuko ditut, diña diraden bezela.

11. Eta ona emen non arako gizon linozko jantzia zeramana, eta bere gerrian eskribitzeko gaiak zeuzkana, etorri zan berria ematera, esaten zuela: Egin det agindu ziñidana.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Eta begiratu nuen, eta ikusi nuen, kerubinen buruen gañean zegoan firmamenduan, agertu zala beren gañean zafirozko arri bat bezelakoa, zeñak iruditzen zuen tronu bat bezelakoa.

2. Eta Jaunak itz egin zion linozko soñekoa zeraman gizon hurari, eta esan zion: Sartu zaite kerubinen azpian dauden kurpillen artetik, eta artu itzatzu zure eskuarekin suzko txingar, kerubinen artean daudenak, eta aurtiki itzatzu erriaren gañera. Eta sartu zan hura, ni begira nengoela.

3. Eta sartu zanean, kerubinak zeuden tenploko eskuieko aldamenean, eta odeiak bete zuen barrendiko ataria.

4. Eta irago zan Jaunaren gloria kerubinen gañetik tenploko atalburura, eta odei illun batez tenploa bete zan; ataria berriz, Jaunaren gloriaren argitasunez betea gelditu zan.

5. Eta kerubinen egoen otsa aditzen zan kanpoko atarirañotik, Jaungoiko guziz almentsuaren gisara, itz egiten duenean onek.

6. Eta berak agindu, eta esan zionean liñozko soñekoarekin zijoan gizonari: Artu ezazu sua, kerubinen artean dauden kurpillen erditik; joan zan hura, eta kurpill baten aldean jarri zan.

7. Orduan Serafinetatik batek luzatu zuen eskua, kerubinen erdian zegoan sutara, eta artu zuen, eta ipiñi zuen, linozko soñekoa zeukan gizon aren eskuan; zeñ, artu zuenean, joan zan.

8. Eta ikusi zan kerubinetan, gizonaren besoa bezelako bat, beren egoen azpian.

9. Eta begiratu nuen, eta ikusi nituen lau kurpill, kerubinen aldean, kerubin bakoitzaren aldean kurpill bat, eta kurpillak krisolitozko arrizkoak bezelakoak ziruditen;

10. Eta lauak ziran, irudian, era bat batekoak, kurpill bat egongo balitza bezela beste baten erdian.

11. Eta ibiltzen ziradenean, lau aldamenetatik mugitzen ziraden, eta etziran beste aldamenetara biurtzen, zebiltzan artean; baizik noruntz zuzentzen zan aurrean zegoana, jarraitzen zuten gañerakoak ere, alderik egin gabe ez eskuietara, ez ezkerretara.

12. Eta kerubinen gorputz guztia, eta lepoa, eta eskuak, eta egoak, eta lau kurpillen inguruak, zeuden beren inguru guztian begiz beteak.

13. Eta kurpill oiei, aditu nuen nik, eman ziela lokatuen izena.

14. Kerubinetatik bakoitzak, bada, lau arpegi zeuzkan: lenbiziko arpegia, kerubinen arpegia zan, bigarren arpegia, gizonaren arpegia zan, irugarren arpegia, leoiaren arpegia zan: eta laugarren arpegia, agiliaren arpegia.

15. Eta altxatu ziran gora kerubinak. Berak dira, nik Kobarko ibaiaren aldean ikusi nituen lau abereak hurak berak,

16. Eta kerubinak zebitzan bitartean, ibiltzen ere ziran kurpillak beren aldean; eta kerubinak beren egoak zabaltzen zituztenean lurretik goira jaikitzeko, ez oi ziran egon geldirik kurpillak, baizik berak ere aien aldean joan oi ziraden.

17. Kerubinak gelditzen ziranean, kurpillak ere gelditzen ziran, eta oiek altxatzen ziran, berak altxatzen ziradenean, zeren bizitzako espiritua beretan zegoan.

18. Eta Jaunaren gloriak alde egin zuen tenploko atalburutik, eta kerubinen gañean jarri zan.

19. Eta kerubinak, zabaltzen zituztela beren egoak, jaiki ziran lurretik nere begien aurrean; eta berak zijoazenean, kurpillak ere jarraitzen ziezten, eta gelditu ziran, Jaunaren tenploko sortaldeko atearen sarreran.

20. Ziran, nik Israelko Jaungoikoaren azpian, Kobarko ibaiaren aldean ikusi nituen abere aiek berak, eta konprenditu nuen kerubinak ziradela.

21. Beretatik bakoitzak lau arpegi zeuzkan, eta bakoitzak lau ego, eta oien azpian gizonaren besoaren irudi bat.

22. Eta beren arpegien irudia zan, nik Kobarko ibaiaren aldean ikusi nituen arpegiak berak bezelakoa; baita, beren begirakunea ere, baita aurrerontz mugitzeko era ere, norontz begira zegoan bere arpegia.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Eta gora jaso ninduen espirituak, eta eraman ninduen Jaunaren tenploko sortaldeko atera, zeñ dagoan Sortaldera begira, eta ikusi nuen atearen sarreran zeudela ogeita bost gizon, eta ikusi nuen beren erdian Jezonias, Azurren semea, eta Feltias Banaiasen semea, erriko prinzipeak.

2. Eta Jaunak esan zidan: Gizonaren semea, oiek dirade gaiztakeria gogoan darabiltenak; eta dauzkate asmazio gaiztoak erri onetan,

3. Esaten dutela: Asko etxe ez al dirade izan arestian egiñak? Erri au pertza da, eta gu aragiak.

4. Argatik profetizatu ezazu beren kontra, profetizatu ezazu, o gizonaren semea.

5. Eta etorri zan nere gañera Jaunaren espiritua, eta esan zidan: itz egin ezazu, oiek esaten ditu Jaunak: Zuek ala itz egin dezute, o Israelko familia, eta zuen biotzeko gogorazioak nik ezagutzen ditut.

6. Zuek il dituzute txit asko erri onetan, eta bere karrikak gorputz illez bete dituzute.

7. Argatik, oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Zuek il, eta erriaren erdian aurtiki dituzutenak, oriek dirade aragiak, eta bera (erria) da pertza, baña nik beratatik kanpora botako zaituztet.

8. Kaldeatarren ezpataren beldur izan ziñaten. Bada nik ezpata zuen gañera bialduko det, esaten du Jaunak:

9. Eta aurtikiko zaituztet erritik, eta etsaien eskuetan ipiñiko zaituztet, eta zuen gañean nere justizia egingo det.

10. Ezpataren puntaz galduak izango zerate. Israelko mugetan juzgatuko zaituztet, eta ni naizela Jauna ezagutuko dezute.

11. Ez da izango erri au zuentzat pertza, eta etzerate ere izango zuek bere erdian aragiak. Israelko mugetan nik zuekin justizia egingo det;

12. Eta ezagutuko dezute ni naizala Jauna; zeren etzeraten zuek bizi izan nere aginteen araura, eta ez dituzute ere nere legeak gorde; baizik jarraitu diezute, zuen inguruan bizi diran jentillen erabakiai.

13. Eta gertatu zan, ni profetizatzen ari nintzala, erortzea illik Feltias, Banaiasen semea. Eta ni auzpeztu nintzan nere arpegiaren gañean, deadar egiten nuela boz goratuan, eta esaten nuela: Ai, ai Jaun Jainkoa, ai! Israelko kutsuak arras desegin nai al dituzu?

14. Eta itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

15. Gizonaren semea, zure anaiai, anaia zureai, eta zure aideai, eta Israelko etxeko gizon guztiai esan zien, Jerusalenen bizi diraden oriek: Alde egin ezazute urrutira Jaunagandik, guri emana izan zaigu lur au, bere jabe izan gaitezen.

16. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Nik bialdu banituen urrutira erreñuen artean, eta erri arrotzetan barreiatu banituen; ni nerau izango natzaiote Santuarioa denbora labur orretan, joan ziraden errian.

17. Argatik esango diezu: Ala esaten du Jaun Jainkoak: Nik toki batera ekarriko zaituztet erreñuen artetik, eta bilduko zaituztet, barreiatuak izan ziñaten errietatik, eta Israelko lurra emango dizutet.

18. Eta ara itzuliko dira Israelko semeak, eta kenduko dituzte andik beaztopo gai guztiak, eta gauza nazkagarri guztiak.

19. Eta emango diet biotz elkartu bat, eta biztuko det espiritu berri bat beren erraietan, eta kenduko diet daukaten biotz arrizkoa, eta aragizko biotz bat emango diet,

20. Nere aginteetan ibilli ditezen, eta zaitu ta gorde ditzaten nere legeak, onenbesterekin izan ditezen berak nere erria, eta ni izan nadin beren Jaungoikoa.

21. Beaztopo gai, eta beren gauza nazkagarriai jarraituaz beren biotza dijoanen gañean berriz, nik kastigatuko ditut, diña diradenen araura, esaten du Jaun Jainkoak.

22. Zabaldu zituzten gero kerubinak beren egoak, eta kurpillak jarraitu ziezten, eta Israelko Jaungoikoaren gloria zijoan beren gañean.

23. Jaunaren gloriak bada erritik alde egin zuen, eta gelditu zan erriaren Sortaldean dagoen mendiaren gañean.

24. Eta arrapatu ninduen espirituak, eta eraman ninduen berriz ikusketan, Jaungoikoaren espirituan, Kaldeara, non zeuden katibu juduak; eta ezkutatu zan nere aurretik, iduki nuen ikusketa.

25. Orduan esan niezten judu katibuai, Jaungoikoak agertu zizkidan gauza guztiak.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

2. Gizonaren semea, zu bizi zera erri ezikaitz baten erdian: zeñak dauzkan begiak ikusteko, eta begiratzen ez duen; eta belarriak aditzeko, eta entzuten ez duen, zeren bera jende setati bat dan.

3. Zu bada, o gizonaren semea, zoaz prestatuaz bear dituzun gauzak erri aldatzea egiteko, eta aterako dituzu kanpora, egunaz, berak ikusten dituztela, eta alde egingo dezu bizi zeran tokitik beste toki batera, berak ikusten zaituztela; onetan beren gogoa ipintzen ote duten, zeren ori familia setati bat dan.

4. Egunaz bada, eta beren aurrean aterako dituzu kanpora biderako prestatu dituzun gauzak, beste erri batera dijoanak bezela; zu berriz aterako zera arratsaldearen erortzean, beren aurrean, beste erri batera bizitera dijoan bat bezela.

5. Egingo dezu bere begien aurrean, zulo bat zure etxeko paretean, eta andik irtengo zera.

6. Gero, berak ikusten dutela, eraman eraziko zera besteen bizkarretan, eta eramana izango zera kanpora illunean; estaliko dezu zure arpegia, eta ez dezu lurrik ikusiko, zeren nik ipiñi zaitudan gauza arrigarriak adirazteko Israelko etxeari.

7. Egin nuen bada nik Jaunak agindu zidana, atera nituen kanpora egunaz biderako prestatu nituen gauzak, erri batetik beste batera dijoanak

bezela; eta arratsaldean nik neronek zulatu nuen pareta, eta irten nintzan gaututa, eramana nintzala besteen bizkarretan, beren guztien aurrean.

8. Eta itz egin zidan Jaunak goizean, esaten zidala:

9. Gizonaren semea, Israelko familiakoak, familia setatikoak, ez al dute galdetuko, zer adirazten duen egiten dezunak?

10. Esango diezu bada: Ala itz egiten du Jaunak: Berri garratz au eroriko da Jerusalenen dagoen agintariaren gañera, eta bere inguruan bizi dan Israelko familia guztiaren gañera.

11. Esan zaiezu: Ni naiz zuentzat gauza arrigarri bat. Nola egin nuen, ala egingo zaiote berai ere, beste erri batera eramanak izango dirade, eta katibu egiñak.

12. Eta beren erdian dagoan agintaria, bizkarretan eramana izango da, aterako da gauaz. Pareta zulatuko dute kanpora ateratzeko, bere arpegia estalia izango da, lurrik ikusi ez dezan.

13. Eta nik zabalduko ditut nere sareak bere gañean, eta geldituko da beretan arrapatua; eta eramango det Babiloniara Kaldeataren lurrera, baña berak ez du ikusiko, eta bertan ilko da.

14. Eta bere inguruan dauden guztiak, bere gordetzalleak, eta bere soldautegiak barreiatuko ditut lurraren lau kantoietatik, eta egingo det etsaien ezpata joan dedilla berai persegituaz.

15. Eta ezagutuko dute ni naizala Jauna barreiatzen ditudanean erreñuen artean, eta zabaldu mundu guzitik.

16. Eta beretatik gutxi batzuek gordeko ditut ezpatatik, eta gosetik, eta izurritik, kontatu ditzaten joango diran erreñuetan beren gaiztakeria guztiak, eta ezagutuko dute ni naizala Jauna.

17. Eta itz egin zidan Jaunak, eta esan zidan:

18. Gizonaren semea, jan ezazu zure ogia urduriz, eta edan ezazu zure ura arin eta ikaraz.

19. Eta esango diozu lur onetan dagoen Israelko erriari: Onela itz egiten die Jaun Jainkoak, oraindikan Jerusalenen, Israelko lurrean bizi diradenai: Jango dute beren ogia ikaraz beteak daudela, eta antsiaz beteak daudela beren ura edango dute, zeren erria arrasatua geldituko dan bere jende andiagatik, bertan bizi diradenen gaiztakeriakgatik,

20. Alako moduan, non, gaur jendez beteak dauden erriak, iñor ere gabetanik geldituko dira, eta erria eremu eginik; eta ezagutuko dezute ni naizala Jauna.

21. Berriz itz egin zidan Jaunak, eta esan zidan:

22. Gizonaren semea, zer esangi da zuek Israelko lurrean daukazutena, esaten dezutela: Egunak korrika joango dirade, eta utsean geldituko dirade ikusketa guztiak?

23. Beragatik esan zaiezu: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Nik egingo det utsean gelditu dedilla esangi ori, eta Israelko jendetzak ez dezala berriz beñere esan, eta esan zaiezu, allegatzeko zorian daudela egunak; zeñatan kunplituko diran, ikusketa guztietan lendanaz adirazitako gertakariak.

24. Zeren onezkero ez dan geldituko ikusketarikan batere bere betetasuna iduki gabetanik; eta ez da ere lendanaz adiraziko ezbaiko gauzarik Israelko semeen artean;

25. Zeren nik, Jauna naizan onek, itz egingo det, eta egiztatuko da nik esaten dedan guztia, eta ez da geroagoko ere geldituko, baizik zuen egunetan, o familia setatia, nik itz egingo det, eta egiztatuko det, esaten du Jaunak.

26. Berriz itz egin zidan Jaunak, eta esan zidan:

27. Gizonaren semea, begiratu ezazu zer esaten duten Israelko etxekoak: Onek iduki duen ikusketa, emendikan asko urtetarako da, eta berak lendanaz adirazten ditu gauzak denbora urrutietarako.

28. Argatik zuk berai esango diezu: Jaun Jainkoak onela itz egiten du: Nere itz guztiak emendikan aurrerakoan, ez dute luzapenikan batere idukiko; nik esaten dedana egiztatuko da, esaten du Jaun Jainkoak.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Berriz itz egin zidan Jaunak, eta esan zidan:

2. Gizonaren semea, profetizatu ezazu, Israelko gezurrezko profeten kontra, zeñak beren buruz sartzen diran profetizatzen, eta onelako berenez profetizatzen dutenai, esango diezu: Aditu ezazute Jaunak esaten duena,

3. Onela itz egiten du Jaun Jainkoak: Ai profeta zentzugabeko, beren espirituari jarraitzen diotenen, eta ezerere ikusten ez dutenen doakabeak!

4. Zure profetak, o Israel, azeriak eremuetan bezela dira.

5. Zuek etzerate aurkeztu, eta etzerate ere jarri murrua bezela Israelko etxearen alde, gudan aritzeko Jaunaren egunean.

6. Utsak dirade, berak dauzkaten ikusketak, eta gezurrak beren profeziak, esaten dutenean, Jaunak esan du, izanik egia, Jaunak bialduak ez diradela, eta irautzen dute esaten, ziertoa dala adirazi dutena.

7. Ez al dirade alperrak zuen ikusketak, eta gezurrak, zabaldu dituzuten profeziak? Zuek esaten dezute: Onela itz egin du Jaunak, nik ez dizutedanean ezerere esan.

8. Argatik Jaun Jainkoak oiek esaten ditu: Zabaldu dituzutela utsa diraden gauzak, eta gezurrezkoak diradelako zuen ikusketak. Argatik ikusi nazazute ni emen zuen kontra, esaten du Jaun Jainkoak.

9. Eta nere eskuaren kastigua eroriko da ikusketa alperrak, eta profezia gezurrezkoak asmatzen dituzten profeten gañera. Etzaiote onezkero utziko nere erriko batzarrean egoten; eta ez dirade ere eskribituak izango Israelko eskrituran; eta ez dirade ere sartuko Israelko lurrean; eta jakingo dezute, ni naizala Jaun Jainkoa.

10. Zeren berak nere erria engañatu duten, esaten diotela: Pakea; ez egonik pakerikan. Nere erriak murru bat egiten zuen, eta berak zuriberritzen zuten loi itsaskor lastoarekin nastu gabearekin.

11. Esan zaiezu naskarilla gaiztoarekin zuriberritzen zutenai, murrua eroriko dala, zeren etorriko diran eurijasak eta ugoldeak, eta aurtikiko ditut nik zerutik arri andiak, eta bialduko det aizebunbada sendo, guzia desegingo duen bat.

12. Eta murrua erortzen danean, ez al zazute irriz esango: Non dago zuek egin zenduten lakazketa?

13. Argatik Jaun Jainkoak oiek esaten ditu: Nere aserrearen erdian aterako det aizebunbada sendo bat, eta sumintasunez betea nagoela bialduko ditut eurijasa, guztia ondatuko dutenak, eta aserretuta aurtikiko ditut arriteandi, guztia arras desegingo dutenak.

14. Eta arras beera botako det buztin nastugabearekin zuriberritu zenduten murrua, eta lurrarekin berdinduko det, eta bere zimenduak agertuko dirade, eta eroriko da; eta berarekin galduko dirade gezurrezko profeta aiek, eta ezagutuko dezute ni naizala Jauna.

15. Eta ase arteraño aurtikiko det nere aserrea murrura, eta nastu gabe zuriberritu zutenen gañera, eta zuei esango dizutet: Murrurikan ez dago onezkero, eta zuriberritu zutenak ere, ez dira bizi.

16. Au da, Israelko profeta, Jerusalenen gañean profetizatzen zutenak, eta ikusten zituztenak beretzat pakeko ikusketak, izanik egia ez dagoela alako pakerik, esaten du Jaun Jainkoak.

17. zuk ordea, o gizonaren semea, errierta egin zaiezu arpegi garratzarekin zure erriko alabai, zeñak profetizatzen duten beren burutik, eta profetizatu ezazu beren gañean;

18. Eta esan zaiezu: Jaun Jainkoak onela itz egiten du: Ai, ukalondo guztien azpian burkoak ipintzen dituzten, eta oaburukoak edade guztietakoen buruen azpian ipintzen dituzten emakumeen doakabeak, animak arrapatzeko, eta nere erriko animak arrapatzen zituztenean, esaten zuten biztutzen zituztela.

19. Eta lotsatzen ninduten nere erriaren aurrean esku bete garagargatik, eta ogi zati batgatik, illak ez diraden animak iltzeko, eta bizitzat ematen zituztela, bizi ez diradenak, gezurrak saltzen diozkatela nere erriari, zeñak gezur aiei sinistea ematen dien.

20. Argatik onela itz egiten du Jaun Jainkoak: Ona emen non nagoen ni zuen burkotxoen kontra, zeñakin zuek arrapatzen dituzuten egan dabiltzan animak, eta nik desegingo ditut zuen eskuetan; eta utziko diet egan joaten, zuek arrapatzen dituzuten animai.

21. Nik zuen buruak ausiko ditut, eta aterako ditut zuen mendetik nere errikoak, eta ez diet utziko zuen eskuz arrapatuak izan ditezela; eta jakingo dezute ni naizala Jauna.

22. Zeren zuek zuen gezurrakin justoaren biotza tristetu dezuten, zeñ nik ez nuen tristetu; eta sendotu dituzute gaiztoaren besoak, bere bizitza gaiztotik itzuli etzedin, onela bizi zedin.

23. Argatik ez dituzute onezkero idukiko aurrerakoan zuen ikusketa gezurrezko oriek, eta ez dituzute ere zuen profeziak zabalduko; eta nik zuen eskuetatik nere erria libratuko det eta jakingo dezute, ni naizala Jauna.

AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Eta etorri ziran neri bidera irtetzera Israelko zarretatik batzuek, eta nere aldean eseri ziran.

2. Eta itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

3. Gizonaren semea, gizon oriek daramazkite beren zikinkeriak beren biotzen barrenen, eta beren gaiztakeriaren eskandalua beren aurrean beti daukate. Berak bada galdetzen didatenean, uste al dezu erantzungo diedala?

4. Argatik itz egin zaiezu, eta esan zaiezu: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Israelko etxeko edozeñ gizoni, dauzkanari ipiñiak bere biotzean bere zikinkeriak, eta daukanari bere aurrean bere gaiztakeriako eskandalua, eta datorrenari profetari bidera irtetzera, bere bitartez neri galdeak egiteko; nik Jaunak erantzungo diot bere zikinkerien ugaritasunaren araura;

5. Israelko etxeak arkitu dezan bere galmena bere biotzean, zeñarekin urrutiratu zan nigandik, bere idolo guztiai jarraitzeko.

6. Argatik Israelko etxeari esan zaiozu: Onela itz egiten du Jaun Jainkoak: Konbertitu zaitezte, eta alde egin ezazute zuen idoloakgandik, eta

ez itzatzute zuen arpegiak itzuli zuen gauza nazkagarri guztiai begiratzeko.

7. Zeren Israelko etxeko edozeñere gizon eta edozeñere arrotz, Israelko fedealdaia danari, alde egiten badu nigandik, eta jartzen dituenari bere idoloak bere biotzean, eta ipintzen duenari bere aurrean bere gaiztakeriako eskandalua, eta etortzen danari profeta arkitzera, beronen bitartez neri galdetzeko, nik Jaunak nerez erantzungo diot berari.

8. Eta begiratuko diot gizon ari, arpegi aserretuarekin, eta egingo det izan dedilla guztien oroipengarria eta ipuia, eta arras kenduko det nere erriaren erditik, eta jakingo dezute ni naizela Jauna.

9. Eta profetak uts egiten duenean, eta gezurra esaten duenean, nik Jaunak utzi det, profeta hura engañatu dedilla; nik berriz luzatuko det nere eskua bere gañera, eta borratuko det, Israel nere erriaren erditik.

10. Eta berak eramango dute beren gaiztakeriaren pena: galdetzen duenaren gaiztakeriaren araukoa, izango da profetaren gaiztakeria.

11. Aurrerakoan Israelko familiak ez dezan nigandik alderik egin, eta ez dedin ere kutsutu bere fedeausitzeakin, baizik berak nere erria izan ditezen, eta ni beren Jaungoikoa izan nadin, esaten du ejerzituen Jaunak.

12. Berriz itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

13. Gizonaren semea, lur orrek bekatu egiten badu nere kontra, lotsagabekiro fedea ausitzen duela, nik nere eskua bere gañera luzatuko det, eta kenduko diot ogizko bazka, eta gosea bialduko diot, eta gizonak eta abereak ilko ditut.

14. Eta baldin bertan arkituko balirade iru gizon oiek, Noe, Daniel eta Job, berak beren justiziagatik libratuko dituzte eren bizitzak, esaten du ejerzituen Jaunak.

15. Gañera nik bialduko banitu lur orretara pisti txit gaiztoak, desegin dezaten, eta geldituko balitza iñorere bizi ez diteken eran, andikan iñor ere iragotzen ez dala pistien beldurragatik,

16. Iru gizon oiek bertan arkituko balirade, juramentu egiten det nik, esaten du Jaun Jainkoak, ez dituztela libratuko beren semeak, ez alabak, baizik berak bakarrik libratuak izango dirade, eta lurra arrasatua geldituko da.

17. Edo bialduko banu nik lur aren kontra ezpata, eta esango banio ezpatari: ibilli zaite lur artatik, eta ilko banitu nik an gizonak, eta abereak,

18. Eta arkituko balirade erri aren erdian, aitatu diran iru gizonak, juramentu egiten det nik, esaten du Jaun Jainkoak, ez dituztela berak libratuko beren semeak, ez alabak; baizik berak bakarrik libratuak izango diradela.

19. Eta bialduko ere banu nik izurria erri aren gañera, eta aurtikiko banu bere gañera nere aserrea, ilkintza andia egiten dedala, eta kentzen ditudala andikan gizonak eta abereak;

20. Eta Noe, Daniel eta Job arkituko balirade bere erdian, juramentu egiten det nik, esaten du Jaun Jainkoak, ez dituztela libratuko beren semeak, ez alabak, baizik beren obengabetasunagatik salbatuko dituztela berak, bakarrik beren animak.

21. Zeren oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Bialduko banitu nik Jerusalenen kontra lau kastigu gaiztoenak; ezpata, gosea, pisti gaiztoak, eta izurria, iltzeko gizon ta abere guztiak;

22. Alaere salbatuko dira beretatik batzuek, zeñak aterako dituzten kanpora beren semeak eta alabak: eta ona emen non oiek etorriko diraden zuekgana onara Babiloniara, eta ikusiko dituzute beren biziera, eta beren obrak, eta orduan gozatuko zerate, nik Jerusalenen gañera aurtiki ditudan ondamenakgatik, eta bera azpiratu dedan pisu guztiagatik.

23. Eta bozkariogarria izango da zuentzat, ikustea beren oiturak, eta beren biziera, eta ezagutuko dezute ez nuela beragan alperrik egin, egin nuen guztia, esaten du Jaun Jainkoak.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Berriz itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

2. Gizonaren semea, zer egingo da matsaren ondoarekin, mendietako zuaitzen artean arkitzen diran basoko egur guztiakin baño obekiago?

3. Artuko al da berarekin lanen bat egiteko, edo egin al dizake berarekin kako bakar bat, beratatik zerbait esekitzeko?

4. Ona emen non sutara aurtikitzeko dan: bere aldamen biak suak erretzen ditu; eta erdiko geldo biurturik gelditzen da: lanen baterako gai al da?

5. Osorik zegoanean ere, etzan lan baterako ere gai, zenbat gutxiago bada egin lezake berarekin gauzarik batere, suak iretsi eta ezereztu duenean?

6. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Nola matsaren zuaitza basoko zuaitzen artean, zeñ sutara aurtikitzen dedan nik, suak iretsi dezan, ala egingo det Jerusalenen bizi diradenakin.

7. Nik arpegi aserretuarekin begiratuko diet: aterako dira su batetikan, eta beste su batek desegingo ditu; eta ezagutuko dezute ni naizala Jauna, beren kontra nere arpegia itzultzen dedanean,

8. Eta utziko det beren lurra iñor ere bizi ez ditekean eran, eta arrasatua, berak fedea ausi zuten ezkero, esaten du Jaun Jainkoak.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Jaunak berriz itz egin zidan, esaten zuela:

2. Gizonaren semea, ezagutu erazi zazkiozu Jerusaleni bere gauza nazkagarriak.

3. Eta esan zaiozu: Oiek esaten diozka Jaun Jainkoak Jerusaleni: Zure jatorria eta zure arraza kanaango lurrekoa da. Amortarra zan zure aita, eta Zetetarra zure ama.

4. Eta zu argitara atera ziñanean, zure jaiotzako egunean, etzitzuten ebaki txilborra, eta etzinduzten ere ur osasuntsuarekin garbitu, ez gatzarekin gazitu, eta etziñan ere pisoialetan bildua izan.

5. Iñork ere etzitzun urrikaltasunez begiratu, eta etzan ere iñor errukitu zurekin, lan oietatik bat bederik zurekin egiteko, baizik izan ziñan lurrera aurtikia zure bizitzaren mezprezioarekin, jaio ziñan egunean.

6. Alaere iragotzen nintzala ni zure aldetik, ikusi zindudan zure odolean zikindua; eta esan nizun, zure odolean bildua zeunden orduan berean: Bizi zaite, bizi zaite, esan nizun, o zu, zure odolean bildua zaudena.

7. Azierazi nizun landako belarra bezela; eta zu azi ziñan; eta andi egin ziñan, eta allegatu ziñan emakumeai apainduriak erabiltzeko edade ta denborara, larrinerako denborara; baña zu larrugorrian eta lotsariz estalia zeunden.

8. Eta zure aldetik irago nintzan, eta ikusi zindudan, eta zu onezkero amorioen edadean zeunden; eta zabaldu nuen nik zure gañera nere mantuaren punta, eta estali nuen zure lotsaria, eta elkartasun bat zurekin egin nuen, (esaten du Jaun Jainkoak) eta ordu artatikan nerea ziñan.

9. Eta garbitu zindudan urarekin, eta zure odola garbitu nizun, eta olioarekin igortzi zindudan.

10. Eta asko koloretako arropakin jantzi zindudan, eta jazinto koloreko oñetakoak eman nizkizun, eta liño fiñezko gerrikoa, eta mantu txitez fiñ batekin jantzi zindudan.

11. Eta apaingarri aberatsakin edertu zindudan, eta ipiñi nituen eskuturkiak zure eskuetan, eta lepande bat zure lepoaren inguruan.

12. Eta zure kopeta joiakin apaindu nuen, eta zure belarriak zirzilluakin, eta diadema eder batekin zure burua.

13. Eta gelditu ziñan apaindua urrez, eta zillarrez, eta jantzia eun fiñez, eta asko koloretako bordaduz. Eman zatzun jateko iriñaren lorea, eztiarekin eta olioarekin. Atzenean allegatu ziñan txit ederra izatera, eta erregiña izatera goratua izan ziñan.

14. Eta zure edertasunak otspatsua egin zinduela erreñuen artean, zugan nik ipiñi nituen apaingarriakgatik, esaten du Jaun Jainkoak.

15. Eta idukirik itxedopena zure edertasunean, erori ziñan aragizko bekatuan nere izenean, eta ipiñi zenduen agirian zure gorputza, bekatu egiteko iragotzen zan guztiarentzat, berea izan zindezen.

16. Eta arturik zure soñekoak, eta josirik emendik eta andik, egin ziñituen berakin apainduriak toki goratuetako idoloentzat; non egin ziñituen alako aragizko bekatuak, nolakorik ez dan egin, ez egingo.

17. Eta arturik zure gloriako apaingarri, nere urre, eta zillarrarekin egiñak, zeñak nik eman nizkizun, egin ziñituen berakin gizasemeen irudiak, eta berak adoratu ziñituen.

18. Eta zure soñeko, asko koloretakoakin egin ziñituen zure idoloen irudiak, eta berai eskeñi ziñien nere olioa, eta nere lurrinkaiak.

19. Eta nik eman nizun ogia, eta iriñaren lora, olioa, eta eztia, zeñakin nik bazkatzen zindudan, eraman zinduzten beren aurrera, usai gozoko eskeñtza bezela. Oiek egin ziñituen esaten du Jaun Jainkoak.

20. Eta artu ziñituen zure seme eta alaba, neretzat egin ziñituenak, eta eskeñi ziñituen, suak iretsiak izan zitezen. Eta oiek gauza gutxiren bat diradela uste al dezu?

21. Zuk eskeñi ziñituen doañean nere semeak, eta eman ziñiezten idoloai, zeñai konsagratu ziñiezten.

22. Eta zure gauza nazkagarri eta aragizko bekatuen ondoan, aztu zera zure gazte denborakin, zeñatan arkitzen ziñan larrugorrian, eta lotsariz betea, zure odolean bilduta.

23. Eta gertatu zan zure gaiztakeria guztiaren ondoan (ai, ai zure zorigaiztokoa! Esaten du Jaun Jainkoak.)

24. Egin ziñituen nasaikeriako etxeak, eta egin ziñituen zuretzat galots tokiak plaza guztietan.

25. Bi bideko toki guzietan ipiñi zenduen zuk bordion siñalea; eta zure edertasuna nazkagarria egin dezu, eta jarri zera bideante guztiaren mendean, eta ugaritu ziñituen zure aragizko bekatuak.

26. Eta bekatu egin zenduen Ejiptoko seme, zure aldeko, txit gorputz andikoakin, eta zure aragizko bekatuak ugaritu ziñituen, onela neri aserretuerazitzeko.

27. Ona emen non nik luzatu nuen nere eskua zure gañera, eta kendu nizkizun zure gauza santuak, eta utzi zindudan, zu gorrotatzen zaituzten, eta zure biziera gaiztoaz lotsatzen diran Filistintarren alaben guraen mendean.

28. Baña zuk oraindikan, nola etzeunden asetua, bekatu egin dezu Asiriatarren semeakin, eta ala ere etzera aspertu.

29. Eta ugaritu ziñituen zure aragizko bekatuak Kanaango lurrean Kaldeatarrakin; eta onekin ere etziñan ase.

30. Zerekin garbitu nezake nik zure biotza, esaten du Jaun Jainkoak, egiñik zuk gauza guzti oiek, andre bordion eta lotsagalduko bati dagozkionak?

31. Zeren bideko gurutze bakoitzean egin zenduen burdel bat; eta plaza guztian jaso zenduen zuretzat aldare gaizto bat, eta etziñan ere izan, iguiarekin ordaña geitzen duen bordiona bezelakoa;

32. Baizik andre adultera bat bezelakoa, zeñak bere senarraren lekuan, arrotzai eskeñtzen dien.

33. Beste bordion guztiai ordaña ematen zaiote; baña zuk eman diezu zure maitatzalle guztiai, eta doañak egiten ziñiezten, toki guzietatik etorri zitezen zurekin bekatu egitera.

34. Eta gertatu da zugan, bizitza gaiztoko emakumeakin oi dan kontrako gauza; eta zure ondoren ez da alako bordionik izango. Zeren zuk ordaña ematearekin, artu bearrean, egin dezu, egin oi dan kontrako gauza bat.

35. Argatik, o emakume bakataria, ona emen Jaunak esaten duena:

36. Onela itz egiten du Jaun Jainkoak: Zure dirua gaizki gastatu dezun ezkero, eta zure lotsaria agirian ipiñi dezun ezkero, zure maitatzalleakin egin dituzun aragizko bekatuetan, eta zure gauza nazkagarrien idoloai eskeñi diezun zure semeen odolean.

37. Ona emen non nik bilduko ditudan zure maitatzalle guztiak, zeñakin bekatu egin dezun, eta zure gogoko guztiak, eta zuk aier izan dituzun guztiak, eta aldamen guztietatik zure kontra bilduko ditut, eta beren aurrean zure lotsaria agertuko det, eta zure zikinkeria guztiak berak ikusiko dituzte;

38. Eta kastigatuko zaitut, adulteraen eta gizon iltzalleen gañean dauden legeen araura, eta sumintasun eta zeloz betea nola nagoen, bizia kenduko dizut.

39. Eta ipiñiko zaitut beren mendean, eta berak zure burdela desegingo dute, eta beera aurtikiko dute zure bordiontza, eta kenduko dizkizute zure soñekoak, eta ostuko dizute edertzen zinduena, eta larrugorrian eta lotsariz betea utziko zaituzte;

40. Eta bilduko dute jende taldea zure kontra, eta arrika egingo dizute, eta beren ezpatakin zatituko zaituzte,

41. Eta zure etxeai su emango die; eta egingo dute zugan bengantza justoa emakume txit askoren aurrean. Eta zuk utziko diozu bekatu egiteari, eta beñere ez dezu berriz ordañikan pagatuko.

42. Orduan biguñduko da nik zure kontra daukadan aserrea ere, eta bukatuko dirade, nigan biztu zenduzten zeloak ere, eta egongo naiz atsedenez, eta ez naiz berriz aserretuko.

43. Argatik zure gazte denborako egunakin aztu ziñalako, eta neri aupadaka ari ziñalako gauza guzi oiekin, beragatik nik ere egin det, zure bizitzako gaiztakeria guztiak zure gañera erori ditezela, esaten du Jaun Jainkoak; eta onela ere etzaitut kastigatuko zure gauza nazkagarri guzien obenak diña diran adiñan.

44. Begira ezazu, esaten duen guztiak esangi jakin hura, zuri itsatsiko dizu: Nolakoa ama, alakoa bere alaba.

45. Egiaz zu bai zerala zure amaren alaba, zeñak utzi zituen bere senarra eta bere semeak; eta zure aizpaen aizpa zera, zeñak bota zituzten beren senarrak, eta beren semeak. Zetetarra da zure ama, eta Amortarra zure aita.

46. Zure aizpa nagusia, da Samaria, bere alaba, zure ezkerreko aldamenean bizi diradenakin, eta Sodoma bere alaba, eskuiean bizi diradenakin, ori da zure aizpa txikia.

47. Baña zu ez bakarrik etzera atzean gelditu beren bideai jarraitzean, eta beren gaiztakeriak imitatzean; baizik alde aldean izan zera oiek baño gaiztoago zure egite guzietan.

48. Juramentu egiten det nik, esaten du Jaun Jainkoak, etzuela egin Sodoma zure aizpak, berak eta bere alabak, zuk eta zure alabak egin dezutena.

49. Ona emen zeñ izan zan zure aizpa Sodomaren gaiztakeria: urgulleria, ase betea, eta ugaritasuna, eta bere alaben alperreria eta beartsu ta ezeukiari ez laguntzea.

50. Eta arrotu ziran, eta nere aurrean gauza nazkagarriak egin zituzten, eta nik desegin nituen, ikusi dezun bezela.

51. Eta etzuen Samariak egin, zuk egin dituzun bekatuen erdirik ere, baizik garaitu dezu zure gaiztakerietan, eta egin dezu zure aizpak onen irudia iduki dezatela, zuk egin dituzun anbeste gauza nazkagarrien indarrez.

52. Zuk ere bada eraman ezazu zure lotsaria, zeñakin garaitu zenduzten zure aizpak zure bekatuetan, berak baño ere gaiztakeria andiagoak egiten ziñituela, zeren zurekin iduritu eta berdintzen badirade, berak dirade onak. Argatik nastua gelditu zaite zu ere, eta zure lotsaria zure

gañean eraman ezazu; zuk, zeran orrek gaiztoa alako moduan, non, onak iruditu erazitzen diezun zure aizpai.

53. Baña nik itzuliko ditut berriz lengo tokira, egiten dedala Sodoma biurtu dedilla katiberiotik bere alabakin batean, eta itzuli erazitzen diedala katiberiotik Samariari eta bere alabai; eta berakin batean itzulieraziko ere diet zure seme, katiberiora eramanai.

54. Zure lotsaria eraman dezazun, eta nastua gelditu zaitezen egin dituzun gaiztakeria guztiakgatik, eta aientzat bozkaioko gaia izan zaitezen.

55. Eta zure aizpa Sodoma, eta bere alabak, beren anziñako egoerara itzuliko dira; eta itzuliko dira anziñako egoerara Samaria eta bere alabak; eta zu, ta zure alabak ere, zuen lenbiziko egoerara itzuliko zerate.

56. Zuk, o Jerusalen, zure urgulleriako denboran beñere etzenduen aitatu zure aizpa Sodoma,

57. Zure gaiztakeria agirian gelditu baño lenago, orain dagoen bezela; eta zu Siriako alaben, eta inguruan dauzkazun filistintar guztien, eta aldamen guztietatik ingurututzen zaituztenen irria eginik gelditu ziñan baño lenago.

58. Zuk eraman dezu zure gaiztakeriaren kastigua, eta gelditu zera lotsariz betea, esaten du Jaun Jainkoak.

59. Zeren Jaun Jainkoak onela itz egiten du: Nik zu onela tratatuko zaitut, zeren zuk juramentua mezpreziatu zenduen, eta utsera biurtu zenduen elkartasuna.

60. Alaere oraindikan oroituko naiz ni, zurekin zure gazte denboran egin nuen elkartasunarekin, eta biztueraziko diot zurekin betiko elkartasunari.

61. Orduan oroituko zera zu zure gaiztakeriakin, eta lotsatuko zera artzen dituzunean zurekin zure aizpa, zuk baño andiagoak, txikiagoakin batean; eta nik emango dizkizut zuri zure alaben lekuan, baña ez zurekin egin nuen anziñako elkartasunaren indarrez.

62. Eta berriz egingo det zurekin nere elkartasuna, eta ezagutuko dezu ni naizala Jauna,

63. Zure gaiztakeriakin oroitu zaitezen, eta lotsatu zaitezen; eta etzaitezen ausartatu aoa idikitzen lotsaren lotsaz, ni zurekin biguntzen naizanean zuk alako gaiztakeriak eginda ere, esaten du Jaun Jainkoak.

AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Itz egin zidan Jaunak, esaten zuela.

2. Gizonaren semea, egin zaiozu galde nastu bat, eta kontatu zaiozu parabola bat Israelko etxeari.

3. Esan zaiezu bada: Onela itz egiten du Jaun Jainkoak: Arrano andi bat, ego andiduna, eta gorputzeko zati txit zabalak zeuzkana, asko koloretako lumaz betea, etorri zan Libanora, eta zedroaren muña eraman zuen.

4. Kendu ziozkan zedroari irtetzen zeuden muskillak, eta eraman zituen Kanaango lurrera, eta saldu-erosi andia zegoen erri batean ipiñi zituen.

5. Eta artu zuen lur artako azitik, eta erein zuen kanpo batean, bere sustraiak bota zitzan, urezko ugaritasun andi baten aldean, erein zuen gañean.

6. Eta moteatu zanean, azi zan, eta egin zan kapa lodi bat; baña altura gutxikoa; zeñaen muskillak zuzentzen ziran arrano huraganontz, eta zeñaen itzalen azpian zeuden bere sustraiak, allegatu zan bat matsare bat izatera, eta bota zituen maspurukaiak eta txarmenduak.

7. Eta etorri zan beste arrano ego andietako, eta luma askoko bat, eta ona emen non matsare hurak, itzuli balitu bezela bere sustraiak, eta zabaldu bere txarmenduak beraganontz, urez bustia izateko bere urbide ugariakin.

8. Ipiñia izan zan txarmendu hura lur onean, eta ur ugarien aldean, zabaldu zedin ostoz betea, eta frutua eman zezan, eta matsare andi bat izatera allegatu zedin.

9. Esango diezu bada: Onela itz egiten du Jaun Jainkoak: Geituko al da? Lenbiziko arranoak ez al ditu aterako bere sustraiak, eta desegingo bere frutuak, eta leortueraziko ez al diozka bota zituen txarmendu guztiai, alako moduan, non, geldituko dan matsondo leor bat; eta ori eskubide andiaren premia gabe, ez jende andiaren ere, arras ateratzeko?

10. Begiratu ezazu, egia da bera ipiñia dagoela, baña ugarituko al da? Ez al da egia, aize erretzalleak ukitzen dionean, bereala leortuko dala, eta geldituko dala idorra, urbide asko izan arren bera girotzen dutenak?

11. Eta Jaunak itz egin zidan, esaten zuela:

12. Esan zaiozu familia keñalari orri: Ez al dakizute zuek, onek zer adirazten duen? Begiratu ezazute, Babiloniako erregea etorri zan Jerusalenera, eta arrapatu zituen erregea, eta bere prinzipeak, eta Babiloniara bere erreñura eraman zituen.

13. Eta artu zuen erregearen jatorriko bat, eta berarekin elkartasuna egin zuen, eta artu zuen beragandik leialtasuneko juramentua, eta gañera atera zituen erritik gizon sendoak,

14. Erreñua azpiratua gelditu zedin, eta burua jaso ez zezan, baizik zaitu zezan elkartasuna, eta beratan iraun zezan.

15. Baña errege berriak, urratzen zuela elkartasuna bialdu zituen mandatariak Ejiptora, lagundu zizaion bere zaldidiarekin, eta jende askorekin. Ongi joango al zaio au egin duenari, edo onelakoak salbaziorik arkituko ote du? Eta, elkartasuna ausi duenak, igesik egingo al du?

16. Nik juramentu egiten det, esaten du Jaun Jainkoak, erregeak bere tronuan ipiñi zuen errian, eta zeñaen juramentua ausi zuen, urratzen zuela berarekin egin zuen elkartasuna, an Babiloniaren erdian ilko dala.

17. Eta Faraon bere ejerzitu andiarekin, eta bere jende askorekin ez da gudatuko etsaiaren kontra, onek lubetak altxatzen dituenean, eta lutesiak egiten dituenean jende asko iltzeko.

18. Mezpreziatu zuelako erregeak juramentua, eta urratu elkartasuna, batzundea eginda gero, au guziau egin zuen ezkero, ez da libratuko.

19. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Juramentu egiten det nik, mezpreziatu zuen juramentuagatik, eta urratu zuen elkartasunagatik, kastigatuko dedala bere buruagan.

20. Eta nere sarea bere gañean zabalduko det, eta geldituko da nere lazoan arrapatua, eta Babiloniara eramango det, eta an juzgatuko det, mezpreziatu nauelako fedea ausiaz.

21. Eta bere igeslari guztiak ezpataren puntaz illak izango dirade, eta bere zaldidi guztiak; eta gelditzen diradenak, mundu guztitik barreiatuak izango dirade, eta ezagutuko dezute, nik Jaunak itz egin dedala.

22. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Nik artuko det zedrorik goratuenaren muñetik, eta ipiñiko det lurrean. Ebakiko det bere erramen goratuenetik ostotxo samur bat, eta ipiñiko det mendi altu eta goratu baten gañean.

23. Israelko mendi goratuaren gañean ipiñiko det, eta muskill bat botako du, eta emango du frutua, eta allegatuko da izatera zedro andi bat. Eta bere azpian biziko dira egazti guztiak, eta bere ostoen itzalean egazti mota guztiak kabiak egingo dituzte.

24. Eta ezagutuko dute erriko zuaitz guziak, nik Jaunak umillatu nuela zuaitz goratua, eta goratu nuela landare umilla, eta leortu nuela zuaitz berdea, eta berdetu erazi niola zuaitz leortuari. Nik Jaunak esan nuen, eta egin nuen.

EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Berriz Jaunak itz egin zidan, esaten zuela:

2. Nola da zuen artean, Israelko lurrean, esangi biurtu dezutela esate au: Gurasoak jan zituzten mats zoritugabeak, eta semeak daude ozkiarekin?

3. Juramentu egiten det nik, esaten du Jaun Jainkoak, parabola au ez dala izango onezkero Israelen zuentzat esangi bat.

4. Zeren anima guztiak nereak diraden, nola dan nerea aitaren anima, ala da semearena ere. Bekatu egiten duen anima, ori ilko da.

5. Eta gizon bat justoa baldin bada, eta bizi bada zuzentasunaren eta justiziaren araura;

6. Janedanak mendietan egiten ez baditu, eta ez baditu altxatzen bere begiak Israelko etxeko idoloakganontz, bere lagun urkoaren emaztea bortxatzen ez badu, eta bere emazteagana alderatzen ez bada illodoltzeko denboran,

7. Eta iñori ere gaitzik egiten ez badio; zordunari prenda itzultzen badio; besteren gauzarik batere ez badu artzen indarrez; gose danari bere ogia ematen badio; eta larrugorrian dagoena soñekoarekin estalitzen badu,

8. Ez badu lendanaz ematen lukuruan; eta artzen ez badu, lendanaz eman duena baño geiago; gaizkirik ez badu egiten; eta juizio justoa egiten badu gizon baten eta bestearen artean,

9. Nere aginteetatik ibiltzen bada, eta nere legeak zaitzen baditu, zuzen ibiltzeko, onelakoa, gizon justoa da, eta bizitza egiazkoa idukiko du, esaten du Jaun Jainkoak.

10. Baña baldin berak badauka seme bat, zeñ dan lapurra eta erailea, edo egingo balitu beste gaiztakeriaren batzuek,

11. Eta gauza onik egin ez ezen, dauzkana janedanak mendietan, eta bere projimoaren emaztea bortxatzen duena,

12. Gaitz egiten diona beartsuari, eta premian dagoenari, besteren gauza ostutzen duena, prenda itzultzen ez duena, bere begiak idoloakganontz altxatzen dituena, eta gauza nazkagarriak egiten dituena,

13. Lukuruan ematen duena, eta prestatua baño geiago artzen duena, ori biziko al da? Ez da biziko. Alako gauza gorrotagarriak egin dituen ezkero, illa izan bear du. Bere odola bere gañera eroriko da.

14. Eta onek baleuka seme bat, zeñ, ikusirik bere aitak egin dituen bekatu guztiak, beldurtzen dan, eta egiten ez badu bere antzeko gauzarik;

15. Mendietan janedanik egiten ez badu, eta ez baditu altxatzen bere begiak Israelko etxeko idoloakganontz, eta bere projimoaren emaztea bortxatzen ez badu;

16. Iñoriere gaitzik ez badio egiten, eta ez badu ere berarekin gelditzen prenda, eta ez badu ere iñoren gauzarik ostutzen, bere ogia gose danari ematen badio, eta larrugorrian dagoena soñekoarekin estalitzen badu;

17. Ez badio gaitzik batere egiten beartsuari, ez badu artzen lukuruan, ez irabazian; zaitzen baditu nere legeak, eta nere aginteen araura ibiltzen bada, au ez da ilko bere aitaren gaiztakeriagatik, baizik ongi bizi-ko da.

18. Bere aita, bere projimoari gezurrak asmatu ziozkalako, eta bere projimoa indarrez mendean iduki zuelako, eta bere erriaren erdian gaiztakeriak egin zituelako, illa izan zan bere gaiztakeriakgatik.

19. Eta zuek esaten dezute: Zergatik ez da kastigatua semea bere aitaren gaiztakeriagatik? Argatik, semearen obrak izan diralako legearen araukoak, eta zuzentasunaren araukoak; berak zaitu eta gorde ditu nere aginte guztiak, eta argatik bizitza doatsu bat idukiko du.

20. Bekatu egiten duen anima, ori ilko da. Etzaio semeari emango bere aitaren gaiztakeriaren kastigua; ez aitari ere, bere semearen gaiztakeriarena. Justoaren justizia bere gañera eroriko da; eta gaiztoaren gaiztakeria, gaiztoaren gañera eroriko da.

21. Baña baldin gaiztoak egiten badu, egin dituen bekatu guztien penitenzia, eta zaitzen baditu nere aginte guziak, eta bere obrak badirade justoak, eta justiziaren araukoak, bizitza egiazkoa idukiko du, eta ez da ilko.

22. Ez naiz ni berriz oroituko, egin dituen gaiztakeria guzietatik batekin ere. Berak bizia arkituko du, egin dituen gauza oneetan.

23. Nik nai al det gaiztoaren eriotza, esaten du Jaun Jainkoak, eta ez obekiago bere bizitza gaiztotik itzuli dedilla, eta bizi dedilla?

24. Justoak berriz alde egiten badu bere justiziatik, eta gaiztakeriak egingo balitu, gaiztoak egin oi dituen gauza nazkagarrien araura, bizitzarik idukiko al du? Berak egin dituen obra on guztiak aztuta geldituko dira, ausi duelako fedea, eta egin dituen bekatuakgatik, oriekgatik ilko da.

25. Eta zuek esan dezute: Jaunak egiten duena ez da ongi egiña. Aditu ezazute, bada, o Israelko semeak, nik egiten ditudan gauzak ez diradela ongi egiñak. Obekiago esateko, zuen egiteak ez al dirade gaiztoak?

26. Zeren justoak bere justiziatik alde egiten duenean, eta egiten duenean bekatu, argatik ilko da. Ilko da, egin zuen gaiztakeriagatik.

27. Eta gaiztoak alde egiten badu, egin zituen gaiztakerietatik, eta zuzentasun eta justiziarekin bizi bada, berak bere animari bizia emango dio.

28. Zeren baldin bera beragan sartzen bada berriz, eta egin dituen gaiztakeria guztietatik alde egiten badu, bizitza egiazko bat idukiko du, eta ez da ilko.

29. Eta Israelko semeak esaten dute: Ez dago ongi egiña Jaunak egiten duena. Nik egiten dedana ez dagoela ongi egiña, o Israelko etxea; obekiago esateko, zuek egiten dituzuten obrak, ez al daude gaizki egiñak?

30. Argatik nik juzgatuko det, esaten du Jaun Jainkoak, o Israelko etxea, bakoitza bere egiteen araura. Biurtu zaitezte nigana, eta egin ezazute zuen gaiztakeria guztien penitenzia; eta etzerate oiekgatik galduko.

31. Aurtiki itzatzute zuekgandikan urrutira egin dituzuten gaiztakeria guztiak, eta egin itzatzute zuekgan biotz berri bat, eta espiritu berri bat. Eta zergatik ilko zera, o Israelko etxea?

32. Eta nik ez dedan ezkero nai iltzen danaren eriotza, esaten du Jaun Jainkoak, biurtu zaitezte nigana, eta biziko zerate.

EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Zuk berriz egin itzatzu negarrezko kantak Israelko prinzipeakgatik,

2. Eta esango dezu: Zergatik zuen ama, leoi eme bat bezela, leoi arren artean bizi izan zan, eta azi zituen bere umetxoak leoitxoen erdian?

3. Eta goratu zuen bere leoitxoetatik bat, zeñ leoi egin zan, eta ikasi zuen gauzak arrapatzen, eta iretsitzen gizonak.

4. Eta jendeak bere berriak aditu zituzten, eta arrapatu zuten, ez beragandik zauri asko artu gabetanik, eta kateakin lotuta Ejiptora eraman zuten.

5. Leoi emeak berriz, ikusi zanean bere laguntzalle gabe, eta bere itxedopena utsean gelditu zala, artu zuen bere leoitxoetatik beste bat, zeñarekin leoi berri bat egin zuen.

6. Ibilli oi zan au beste leoien artean, eta leoi egin zan, eta ikasi zuen gauzak arrapatzen, eta iretsitzen gizonak.

7. Ikasi zuen andreak alargun utzitzen, eta ipintzen erriak eremutuak, eta bere orroen dunbotsera alderri guztia arrasatua gelditu zan.

8. Eta probinzia guztietako jendeak bere kontra bildu ziran, eta ipiñi zioten lazoa zabalik, eta arrapatu zuten, berak zaurituak irtetzen ziradela.

9. Eta kaiola batean sartu zuten, eta kateakin lotuta, eraman zuten Babiloniako erregeagana, eta sartu zuten karzela batean, Israelko mendien gañean bere bozikan aditu etzedin.

10. Zuen ama, zuen odoleko mats bat bezela, izan da ipiñia uraen aldean. Uraren ugaritasunagatik bere frutuak, eta txarmenduak azi ziraden.

11. Eta bere zigor sendoak, erregeen zetroak izatera etorri ziran, eta bere ondoa, bere besangen erdian goratu zan, eta ikusi zan altxatua bere txarmenduen ugaritasunean,

12. Baña bera aserrez izan zan aterea, eta lurrera aurtikia, eta aize erretzalle batek bere frutuak leortu zituen, zimeldu eta leortu ziran bere zigor sendoak, eta suak iretsi zuen.

13. Eta orain izan da eramana eremu batera, eta ipiñia lur leor, eta iñor ere allegatu ez ditekean batean.

14. Eta bere erramen zigor batetik atera zan su bat, bere frutuak iretsi zituena, etzala bertan gelditzen zigor sendo bakar bat ere, erregeen zetroa izateko. Kantatxo adiatsua da au, eta negar egiteko balioko du.

OGEIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan zazpigarren urtean, bosgarren illean, illaren amargarren egunean, etortzea Israelko zarretatik batzuek Jaunari galdeak egitera, eta nere aurkez eseri ziran.

2. Eta itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

3. Gizonaren semea, itz egin zaiezu Israelko zarrai, eta esango diezu: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Eta zuek zatozte neri galdeak egitera? Nik juramentu egiten dizutet, ez dizutedala erantzunik batere emango, esaten du Jaun Jainkoak.

4. Juzgatu itzatzu oiek, o gizonaren semea, juzgatu itzatzu. Erakutsi zazkiezu beren gurasoen gauza nazkagarriak.

5. Eta esango diezu: Onela itz egiten du Jaun Jainkoak: Nik Israel autu nuen egunean, eta luzatu nuenean nere eskua Jakoben etxekoen alde, eta agertu nintzaienean Ejiptoko lurrean, eta jaso nuenean nere eskua berak zaitzeko, esaten nuela: Ni izango naiz zuen Jaun Jainkoa,

6. Egun artan altxatu nuen nere eskua berakgatik, ateratzeko berak Ejiptoko lurretik, nik prestatua neukaioten lur batera, zeñi dariozkan eznea eta eztia; lur bat guztien artean ederrena.

7. Eta esan nien: Aurtiki beza bakoitzak kanpora bere begiak daramazkion gauza hura, eta Ejiptoko idoloakin etzaitezte kutsutu. Ni naiz zuen Jaun Jainkoa.

8. Berak alaere aserretuerazi zidaten, eta ez ninduten aditu nai. Beretatik batek ere etzuen berezitu beragandik bere begiak zeramazkiona, eta etzituen ere Ejiptoko idoloak utzi. Orduan esan nuen nik, nere aserrea beren gañera isuriko nuela, eta berakgan nere sumintasuna aseko nuela Ejiptoko lurraren erdian.

9. Baña ez nuen egin; baizik atera nituen Ejiptoko lurretik, nere izena irriz betea izan etzedin arako erreñuen artean, zeñaen erdian bizi ziran, eta zeñaen artean agertu nintzaioten.

10. Atera nituen bada Ejiptoko lurretik, eta Eremura zuzendu nituen.

11. Eman niezten bereala nere aginteak, eta erakutsi niezten nere legeak, zeñak zaitzean gizonak bizitza arkituko duen.

12. Gañera jarri niezten nere larunbatak, izan zitezen siñale bat nere eta beren artean, eta ezagutu zezaten ni naizala beren Jaun, satututzen ditudana.

13. Baña Israelko etxeko semeak aserretu erazi zidaten eremuan; beren egiteak etziraden izan nere aginteen erakoak, ea mezpreziatu zituzten nere lege, bizia ematen dienak, berak zaitzen dituenari. Erabaki nuen bada, nere aserrea beren gañera eremuan isuritzea, eta berak desegitea.

14. Baña ez nuen egin, nere izenaren amorioagatik irriz betea izan etzedin erreñoen artean, zeñaen artetik, eta zeñak begira zeudela kanpora atera nituen.

15. Nik ere altxatu nuen nere eskua beren kontra eremuan, juramentu egiten niela, ez nituela sartuko eman nien lurrean, eznea eta eztia dariozkion lurrean, lur guztietatik ederrenean,

16. Zeren nere legeak mezpreziatu zituzten, eta nere aginteen araura etziraden bizitu, eta nere larunbatak kutsutu zituzten, zeren beren biotza idoloen ondoren zijoan.

17. Baña urrikaltasuneko begiakin begiratu nien, eta ez nien bizia kendu, eta ez nituen berak eremuan desegin;

18. Baizik beren semeai an esan nien: Etzaitezte ibilli zuen gurasoen bideetatik, eta etzaiozute ere beren bizierari jarraitu, eta etzaitezte ere kutsutu beren idoloakin.

19. Ni naiz zuen Jaun Jainkoa, nere aginteetatik ibilli zaitezte, zaitu itzatzute nere erabakiak, eta berak egin itzatzute.

20. Eta nere larunbatak santutu itzatzute, nere eta zuen artean oroipen bat izan ditezen, eta jakin dezazuten ni naizala zuen Jaun Jainkoa.

21. Baña beren semeak aserretuerazi zidaten, eta nere aginteen araura etziraden ibilli, eta etzituzten ere nere legeak zaitu, eta etzituzten ere egin arako gauzak, zeñatan gizonak bizia arkitzen duen, eta nere larunbatak ausi zituzten. Argatik keñatu nituen esaten niela, nere aserrea beren gañera isuriko nuela, eta nere aserre guztia aurtikiko nuela eremuan beren gañera.

22. Baña berriz gelditu nuen nere eskua, eta au nere izenaren amorioagatik, etzedin kutsutua izan erreñuen aurrean, zeñaen artetik, eta zeñak begira zeudela, atera nituen.

23. Berriz jaso nuen nere eskua beren kontra eremuan, esaten niela, barreiatuko nituela erreñuen artean, eta zabalduko nituela mundu guztitik,

24. Etzituztelako nere legeak zaitu, eta nere aginteak mezpreziatu zituztelako, eta nere larunbatak kutsutu zituztelako, eta berriz ere beren begiak ipiñi zituztelako beren gurasoen idoloetan.

25. Argatik bada eman niezten kastigutzat aginte ez onak, eta lege batzuek, zeñatan ez duten bizitzarik arkituko.

26. Eta egin nuen berakin, beren doañetan zikinduakin egin oi dana, beren bekatuak gatik lenbizisortuak eskeñtzen zituztenean, eta onenbesterekin ezagutuko dute ni naizala Jauna.

27. Argatik itz egin zaiozu zuk, o gizonaren semea, Israelko etxeari, eta esango diozu: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Oien ondoan ere zuen gurasoak gaizki esan zuten nigatik, desonratzen eta gutxitan idukitzen nindutela.

28. Bada nik, eramanik berak, ematea juramentuz eskeñi nien lurrera, ipiñi zituzten begiak muño goratu guzian, eta zuaitz ostotsu guztian, eta joan ziran beren abereak an iltzera, eta eramatera ara beren eskeñtzak neri aserretuerazitzeko, eta an erre zituzten lurrinkai gozoak, eta egin zituzten libazioak.

29. Eta orduan nik esan nien: Zer da orrako altura, zeñatara zoazten? Eta Alturaren izena gaurko eguneraño gelditu zaio.

30. Argatik Israelko etxeari esan zaiozu: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Ziertoa da zuek kutsutzen zeratela jarraitzen diozutela zuen gurasoen bizierari, eta ari zerate berak egiten zuten fornikazioan beratan.

31. Eta zuen doañen eskeñtzarekin, zuen semeai sutatik iragoerazitzen diezunean, kutsututzen zerate zuen idolo guztien onran gaurko eguneraño. Eta oien ondoan, nai dezute nik zuei erantzutea, o Israelko semeak? Juramentu egiten det nik, esaten du Jaun Jainkoak, ez dizutedala erantzungo.

32. Ez da ere egiztatuko zuen biotzean pensatzen dezutena, esaten dezutela: Adoratzen ditugula zurak, eta arriak, doatsuak izango gera gu, lurreko erreñu eta erriak bezela.

33. Juramentu egiten dizutet nik, esaten du Jaunak, aginduko dedala zuen gañean esku pisuarekin, eta beso zabalarekin, nere aserre guztia isurtzen dedala.

34. Eta aterako zaituztet errietatik, eta bilduko zaituztet alderrietatik, zeñatatik barreiatuak izan zeraten, eta erreñatuko det zuen gañean esku pisuarekin , eta beso zabalduarekin, isurtzen dedala nere sumintasun guztia.

35. Eta eramango zaituztet iñor ere ez dagoen eremu batera, eta an sartuko naiz juizioan zuekin arpegiz arpegi.

36. Nola erriertan egin nuen juizioan zuen gurasoen kontra, an Ejiptoko lurreko eremuan; ala sartuko naiz juzioan zuekin, esaten du Jaun Jainkoak.

37. Eta jarriko zaituztet nere zetroaren mendean, eta sartueraziko dizutet nere elkartasuneko lazoetan.

38. Eta autuko ditut zuen artetik fedeausleak eta gaiztoak, eta aterako ditut bizi diraden lurretik; baña ez dira Israelko lurrean sartuko, eta ezagutuko dezute ni naizela Jauna.

39. Zuei berriz Israelko etxekoai oiek esan dizkizute Jaun Jainkoak: Joan bedi zuetatiko bakoitza bere idoloen ondoren, eta berak serbitu ditzala. Bada baldin onekin ere ez banazute aditzen, eta jarraitzen badiozute nere izen santua zikintzeari zuen eskeñtzakin, eta zuen idoloakin;

40. Nik dakit nere mendi santuaren gañean, Israelko mendi goratuaren gañean (esaten du Jaun Jainkoak) an serbituko nautela egunen batean Israelko etxe guztiak. Guztiak, esaten det, lur artan, zeñean izango zazkidan nere gogokoak; eta non estimatuko ditudan nik zuen lenbiziak, eta zuen amarrenen eskeñtza, zuen egite santu guztietan.

41. Timiama txit gozoa bezela, ala izango zerate nere gogokoak, ateratzen zaituztedanean erreñuen artetik, eta biltzen zaituztedanean alderri guztietatik, zeñatatik zaudeten barreiatuak, eta zuekgan agirian jarriko dan nere santutasuna erreñuen begietan.

42. Eta ezagutuko dezute ni naizela Jauna, eramaten zaituztedanean Israelko lurrera, nik, zuen gurasoai emango niela, juramentu egin nuen lurrera.

43. Eta an oroituko zerate zuen ibillerakin, eta zuen gaiztakeria guztiakin, zeñakin kutsutu ziñaten; eta zuek zerok ikusteak gogaiteraziko dizute, egin dituzuten gaiztakeria guztiak gatik.

44. Eta ezagutuko dezute, o zuek Israelko etxekoak, ni naizala Jauna, ondasunez betetzen zaituztedanean nere izen santuaren amorioagatik, eta tratatzen zaituztedanean ez zuen ibillera gaiztoen araura, ez zuen gaiztakeria txit andien araura ere, esaten du Jaun Jainkoak.

45. Eta Jaunak itz egin zidan, esaten zuela:

46. Gizonaren semea, itzuli ezazu zure arpegia Egerdirontz, eta zuzendu ezazu zure itza egoe aizearen aldamenerontz, eta profetizatu ezazu Egerdiko landako basoaren kontra.

47. Eta esango diozu Egerdiko basoari: Aditu ezazu Jaunaren itza, oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Begiratu ezazu; nik zugan sua ipiñiko det, eta erreko ditut zure zuaitz guztiak, berdeak eta leorrak. Ez da itzaliko su erazekiaren garra, eta bere gañ guzia egongo da erretzen Egerditik ifarreraño;

48. Eta gizon guztiak ezagutuko dute, nik Jaunak sua ipiñi dedala, eta au ez da itzaliko.

49. Eta nik esan nuen: Ah! Ah! Jaun Jainkoa! Ah! Ona zer esaten duten berak nigatik: Ez dirade parabola illunak, onek esaten duena?

OGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zidan Jaunak, esaten zuela.

2. Gizonaren semea, itzuli ezazu zure arpegia Jerusalenerontz, eta itz egin ezazu santuarioen kontra, eta Israelko lurraren kontra profetizatu ezazu.

3. Eta Israelko lurrari esango diozu: Begiratu ezazu banatorrela ni zure kontra, eta nere ezpata magitikan aterako det, eta ilko ditut zugan justoa eta gaiztoa.

4. Eta zugan justoa eta gaiztoa ilko ditudalako, argatik aterako da nere ezpata bere magitikan gizon guztiaren kontra, Egoetik ifarreraño,

5. Jakin dezaten guztiak, nik Jaunak atera dedala magitikan nere ezpata, iñor ere aurkeztu ez dizaiokeana.

6. Baña zuk, o gizonaren semea, negar egin ezazu, bere gerruntzak urratuak dauzkanak bezela, eta zure biotzeko mingoiztasunean negar egin ezazu, oien aurrean.

7. Eta galdetzen dizutenean: Zergatik negar egiten dezu? Erantzungo dezu: Dabiltzan berriakgatik, zeren etsaia badator, eta desalaituko dira biotz guztiak, eta beso guztiak indar gabe geldituko dira, eta guztiak beldurrez eroriak geldituko dira, eta belaun guztiak bata besteari otska ariko dirade. Ona emen badatorrela zure galmena, eta egiztatuko da, esaten du Jaun Jainkoak.

8. Eta itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

9. Profetizatu ezazu, o gizonaren semea, eta esan zazu: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Ezpata, ezpata zorroztua eta leundua dago.

10. Zorroztua dago doañkaiak iltzeko, eta leundua distiatzeko. O ezpata, nere semearen zetroa beeratzen dezuna, zuk beste edozeñ zuaitz ebakiko dezu!

11. Nik eman nuen zorroztu zezaten eskuor idukitzeko, zorroztua izan da ezpata au, leundua izan da, iltzallearen eskuan egon dedin.

12. Deadar egin ezazu, alarauka ari zaite, o gizonaren semea; zeren ezpata au erabillia izan dan nere erriaren kontra, Israelko agintari iges egin zuten guztien kontra. Iragoak izan dira ezpataren puntaz, nere erriarekin batean. Eman zaiozkazu bada zure eskuarekin otsak zure isterrari.

13. Zeren ezpata probatua dan au, eta au ikusiko da, Judako zetroa desegitzen duenean, zeñ ez dan onezkero izango, esaten du Jaun Jainkoak.

14. Zuk, bada, o gizonaren semea, profetizatu ezazu, eta jo ezazu esku batarekin bestea, eta bitan anbatu, irutan anbatu bedi, ezpata gizoniltzallearen sumintasuna. Au da ilkintza andiko ezpata, guztiak utziko dituena arrituak,

15. Eta biotzgabetuak, eta galmenak ugarituko dituena. Toki guzietara eraman det nik, ezpata zorroztu eta leunduaren izua, dist egin dezan, eta gertutua egon dedin eriotza emateko.

16. Zorroztu zaite, o ezpata, zoaz eskuiera, edo ezkerera, zoaz nai dezun tokira.

17. Nik ere goratuko det txaloakin, eta nere aserrea aseko da. Ni Jauna, naiz itz egin dedana.

18. Berriz itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

19. Eta zuk gizonaren semea, ipiñi itzatzu bi bide, zeñatatik etorri ditekean Babiloniako erregearen ezpata. Biak toki batetikan aterako dira, eta bi alditan anbatutako bidearen asieran erregeak bere eskuarekin aterako du suertean erri bat.

20. Sendatuko dezu bada bide bat, zeñatatik joango dan ezpata Rabbath, Ammontarren erregeurira; eta beste bat zeñatatik joango dan Judara, Jerusalen txit murrutura.

21. Zeren Babiloniako erregea geldituko dan bibidan, bide bien asieran, asmatu nai duela saietak nastuta: gañera galdetuko die idoloai, eta aberen erraiakin konsultatuko da.

22. Aztinantzak zuzenduko du eskuiera Jerusalenen kontra, joan dedin berari erasotzera kañoiakin, esan dizaien ilko dituela, goratu dezan boza alarauakin, zuzendu ditzan kañoiak ateen kontra, eta egin ditzan lubeteak,eta gaztelutxoak jaso ditzan.

23. Eta irudituko zaiote Juduai, errege hura alperrik konsultatu balitza bezela idoloarekin, eta larunbateko atsedenean balego bezela. Bera berriz oroituko da Juduen gaiztakeriarekin, eta erria arrapatuko du.

24. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Gozatu zeratelako zuen gaiztakerien oroipenarekin, eta agirian ipiñi dezutelako nola zeraten fedeausleak; eta zuen asmazio guzietan ipiñi dituzutelako guztien begien aurrean zuen bekatuak, orietan, berriz esaten det, gozatu zeratelako, izango zerate katibu jarriak.

25. Zuk berriz, o Israelko agintari fedeausle, eta gaiztoa, zeñaentzat allegatua dan zure gaiztakeriaren kastigurako egun izendatua;

26. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Utzi ezazu diadema, kendu ezazu koroea. Ez al da koroe au, gizon zatarra goratu zuena, eta beeratu gizon andia?

27. Nik agirian ipiñiko det gaiztakeria, bere gaiztakeria, aren gaiztakeria; baña ez da au gertatuko aliketa etorri dedin artean hura, zeñaena dan juizioa; eta ari emango diot nik koroe ori.

28. Eta zuk, o gizonaren semea, profetizatu ezazu eta esan ezazu: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak Ammonen semeen, eta beren erasoen gañean Israelen kontra; eta zuk esango dezu: Ezpata, ezpata, atera adi magitikan lepoak ebakitzeko, zorroztu adi, eriotza emateko, eta distiatzeko,

29. Zure aztiak profetizatzen dizkizutenean gauza alperrak, eta etorkizun gezurrezkoak, prestatua egon zaitezen, eta eman ditzazun zure otsak gaiztoen lepoen gañean, zeñaentzat allegatu zan epe izendatua beren gaiztakeriaren kastigurako.

30. Eta gero ire magira itzuli adi. Egiña izan intzan tokian, Kaldean, ire jaiotzako lurrean, an kastigatuko aukat,

31. Isuriko dut ire gañera nere aserrea. Aizea egingo diat ire kontra nere sumintasuneko errementarian, eta jarriko aukat gizon zentzugabeko, eta ondamenen asmatzalleen eskuetan.

32. Izango aiz, o Kaldeatarra, suaren bazka: mezpreziatua ikusiko dek lurretik ire odola, eta geldituko aiz betiko aztua. Zeren nik Jaunak itz egin dedan.

OGEITA BIGARREN KAPITULUA

1. Berriz itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

2. Eta zuk, o gizonaren semea, ez al dezu juzgatuko, ez al dezu kondenatuko erri odolgiro ori?

3. Ez al diozkazu ikusi eraziko bere gauza nazkagarri guztiak? Zuk bada esango diozu: Ona emen erria, guztien begien aurrean odol obengabea isurtzen duena, bere kastiguko denbora allegatu dedin; eta beretzat idoloak egin zituena zeñakin kutsutu zan bere galmenerako.

4. Zuk bekatu egin dezu isuritzen dezula odola, eta zikindu zera egin ziñituen idoloakin, eta agudo etorrierazi diozu zure kastiguko denborari, eta allegatuerazi diozu zure urteen atzenari. Argatik egin zaitut erreñuen lotsaria, eta mundu guztiko irria.

5. Garaituko zaituzte, eta irri egingo dizute zure aldean, eta zugandik urrutian daudenak, o erri zikin, otspatsu eta andia, zure galmenagatik.

6. Begira ezazu nola Israelko Prinzipeak, bakoitza bere eskubidearen araura, ari diraden, odola isuritzen zure erdian.

7. Zure erdian iraindu zituzten aita eta ama, zuregan gezurrak asmatu ziozkaten arrotzari, eta zure aldean atsekabetu dituzte umezurtza eta andre alarguna.

8. zuek mezpreziatu ziñituzten nere santuarioak, eta nere larunbatak kutsutu ziñituzten.

9. Zugan dauzkazu zuk gizaseme gezur asmatzalleak odola isuritzeko, eta zure barrenen egin ziran jan-edan jentillen gisakoak mendien gañean, zure erdian egin dira gaiztakeriak.

10. Zure erdian egin dira aragizko bekatuak bere aitaren emaztearekin, eta zugan etzaio lotsaz begiratu, ilberetan dagoen andreari.

11. Gizaseme oietatik bakoitzak, gauza nazkagarriak egin ditu bere projimoaren emaztearekin; eta aitagiarrabak bortxatu zuen itsuskiro bere erraña; eta anaiak bortxatu zuen bere arreba, bere aitaren alaba.

12. Zugan artu ziran doañak odola isurierazitzeko: zu izan zera lukuraria eta irabazgoiaria; eta zikoz naiagatik, gezurrak asmatzen ziñiezten zure projimoai; eta nerekin, esaten du Jaun Jainkoak, aztu ziñan.

13. Argatik nik txaloak egin nituen nere eskuakin, ikusirik zure zikoiztasuna, eta zure erdian isuri zan odola.

14. Zure biotza sendo egongo alko da, edo zure besoak idukiko alko dute bear adiña indar, prestatzen dizkizudan egunetan? Nik Jaunak, esan nuen, eta egingo det:

15. Nik zabalduko zaitut erreñuen artean, eta mundu guzitik barreiatuko zaitut, eta atzena ipiñiko diet zure gauza nazkagarriai.

16. Eta gero berriz zurekin jabetuko naiz, jendeen begien aurrean, eta jakingo dezu, ni naizala Jauna.

17. Eta itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

18. Gizonaren semea, Israelko etxea zimaur biurtu zat, kobrea, eta estañua, eta burnia, eta beruna dira Israelko guzi oiek sukatilluaren erdian, zillarraren sarra etorri dirade izatera.

19. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: zimaurra baizik ez izatera guziok etorri zeratelako; ona emen non nik bilduko zaituztedan Jerusalenen erdian,

20. Biltzen dituenak bezela zillarra, eta kobrea, eta estañua, eta burnia, eta beruna sutegiaren erdian, eta sua erazekitzen duenak bezela bere azpian berak urtutzeko, ala nik sumintasun eta aserrez beterik bilduko zaituztet, eta an utziko zaituztet, eta urtuko zaituztet.

21. Bilduko zaituztet, eta erreko zaituztet nere sumintasuneko suan, eta bere erdian urtuko zaituztet.

22. Nola urtzen dan zillarra labearen erdian, ala izango zerate zuek ere Jerusalenen erdian; eta ezagutuko dezute ni naizela Jauna, nere aserrea zuen gañean isurtzen dedanean.

23. Eta Jaunak itz egin zidan, esaten zuela:

24. Gizonaren semea, esan zaiozu Jerusaleneri: Zu zera lur zikin bat, eta nere sumintasuneko egunean zeruko euri eta intzarekin ezetu gabea.

25. Bere erdian dago gezurrezko profeta matxiñatuen biltzarre bat. Nola orroaka ari dan leoe batek, arrapatzen duen billatzen duen gauza, ala animak iretsi dituzte, artu dituzte ordañ andiak, eta bertan andre alargunak ugaritu dituzte.

26. Bere apaizak mezpreziatu dute nere legea, nere santuarioak kutsutu dituzte. Gauza santuak, onelakoak etziradenetik etzituzten berezitu, eta etzuten ezagutu zer zan kutsutua, eta zer zan garbia. Eta beren begiai nere larunbatetatik alde erazi zien, eta ni beren erdian desonratua izandu naiz.

27. Bere andizkiak bere erdian daude, otsoak gauza arrapatzeko bezela, odola isuritzeko, eta animak galtzeko, eta zikoizkiro irabaziak egiteko.

28. Eta bere profetak zuriberritzen zituzten, bear dan nastea gabetanik, losentxatzen zutela erria, irudi utsezko ikusketakin, eta gezurrezko etorkizunakin, esaten zutela: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak, Jaunak itzik egin etzuenean.

29. Lur onetako jendeak gezurrak asmatzen zituzten, eta ebatsitzen zuten bortxaz iñoren gauza, atsekabetzen zituzten beartsua eta premiatsua, eta estututzen zituzten arrotzak, bidegabeko gezurrezko asmazioakin.

30. Eta billatu nuen beren artean gizon on bat, jarri zedin nere eta nere erriaren artean esi bat bezela, nere kontra eta lurraren alde gudan ari zedin, nik desegin ez nezan; baña ez nuen batere arkitu.

31. Argatik aurtikiko det beren gañera nere aserrea. Desegingo ditut nere sumintasuneko suarekin, eta beren obra gaiztoen kastiguari beren buruen gañera erori eraziko diot.

OGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Berriz itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

2. Gizonaren semea, baziraden bi emakume ama baten alabak,

3. Zeñak bordiondu ziraden Ejipton zeudela, beren gazte denboran bordiondu ziraden. An galdu zuten beren onra, eta larrineraren asieran erori ziran aragizko bekatuetan.

4. Beren izenak ziraden, nagusiagoarena Oolla, eta aizpa txikiagoarena Ooliba. Eta artu nituen neretzat; eta semeak eta alabak egin zituzten. Beren izenen gañean berriz, Oolla Samaria da, eta Ooliba Jerusalen da.

5. Oolla bada etzitzadan leiala izan, eta galdu zuen zentzua, zijoala bere maitatzalle, bere aldeko Asiriatarren ondoren,

6. Zeñak zeuden purpuraz jantziak, eta Jaun andiak ziraden, eta agintaritza andiak zeuzkaten; ziraden gazte maitagarriak, eta guztiak ziraden zaldi ederren gañean ibilli oi ziraden galaiak.

7. Eta gizon guzti oiekin, berak autatuakin, guztiak Asiriatarrak ziradenakin, lotsagabekiro erori zan aragizko bekatuetan, eta kutsutu zan beren guzien zikinkeriakin, zeñaen amorioan txoratua gelditu zan.

8. Gañera Ejipton iduki zituen oitura gaiztoak etzituen utzi, zeren ijitoak ere berarekin lo egin zuten bere gazte denboran, eta bere larrinera desonratu zuten, eta beren fornikazio guziak itsatsi ziozkaten.

9. Argatik utzi nuen bere maitatzalleen eskuetan, Asiriatarren eskuetan, zeñak alako amorruarekin maitatu zituen, txoratua gelditzeraño beren gura zikiñean.

10. Oiek lotsariz bete zuten, kendu ziozkaten bere semeak, eta alabak, eta ezpataz irago zituzten. Onenbesterekin Samaria eta bere alaba otspatsuak izan ziraden, berakin egin zan kastiguagatik.

11. Ikusirik oiek bere aizpa Oolibak, bestea baño ere txoratuago gelditu zan lujurian; eta bere aizpa baño ere gogo eta gar geiagorekin bordiondu zan.

12. Lotsagabekiro jarri zan osotoro Asiriatarren mendean, asko koloretako soñekoakin bera billatzera etorri oi ziraden agintari, eta Letrauen

mendean, eta beren zaldien gañean zebiltzaten andizkien mendean, eta txit ederrak ziraden galai gazteen mendean.

13. Eta ezagutu nuen, bi aizpak zeuzkatela abereen gisako gurak berak.

14. Baña Ooliba beti zijoan bere bordionkeria geituaz, eta ikusirik gizon batzuek pintatuak paretean, zeñak ziraden Kaldeatarren irudi, larrantzarekin egiñak,

15. Zeñak zeuzkaten beren gerruntzak gerrikoakin lotuak, eta beren buruetan tiara, asko koloretakoak, non guztiak agintari andiak ziruditen, eta irudituak Babiloniako semeak, eta Kaldeatarren lurrekoak bezela, nongo semeak ziraden.

16. Ikusketa onek, berakganako amorioan txoratua jarri zuen, eta Kaldeari mandatariak bialdu zien.

17. Eta etorririk Babiloniako semeak, eta izanik artuak bere etzalekuan, desonratu zuten beren zikinkeriakin, eta kutsutua, eta berakin ongi asetua gelditu zan.

18. Etzituen iduki Oolibak bere zikinkeriak ezkutuan, baizik agirian jarri zuen bere lotsagabekeria. Argatik nazkaz begiratu zion berari nere animak, bere aizpari nazkaz begiratu zion bezela.

19. Zeren geitu zituen bere bordinkeriak, bere adimena oroitzen zala, gaztea zaneko denborarekin, zeñean berak Ejiptoko lurrean lurrean bekatuak egiten zituen.

20. Eta amorio txoro baten suan erazekia egon zan aiekganontz, zeñaen aragiak astoen aragiak bezelakoak diraden, eta zeñaen sumintasuna zaldien sumintasuna bezelakoa dan.

21. Eta zure gazte denborako gaiztakeriakin oroitu ziñan, zure onra Ejipton galdu zenduenean, eta zure larrinerako bularrak ausiak izan ziradenean.

22. Argatik, o Ooliba, oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Ona emen non nik ipiñiko ditudan zure kontra zure maitetzalle guztiak, zeñakin asea dagoen onezkero zure anima, eta aldamen guzietatik zure kontra bilduko ditut;

23. Bilduko ditut, esaten det, Babiloniako semeak, eta Kaldeatar guztiak, eta andizkiak, eta jaunak, eta prinzipeak; Asiriatarren seme guziak, gazte galantak, agintari eta letrau guztiak, eta prinzipeen prinzipeak, eta zaldizko ospatsuak,

24. Eta etorriko dirade zure kontra asko erri, gerrako gurdi eta tresnakin ongi ornituak. Toki guzietan, loarikaz, eta ezkutuz eta martiz kapelaz armatuko dirade zure kontra; eta neronek emango diet zu juzgatzeko eskubidea, eta beren legeen araura juzgatuko zaituzte.

25. Onenbesterekin artuko det nik zugan, nere amorio ofendituaren bengantza, zeñ berak urrikaltasunikan batere gabetanik egiztatuko duten. Lotsagarriro ebakiko dizkizute sudurra, eta belarriak, eta gañerakoa ezpataz desegingo dute. Zure semeak eta alabak katibu eramango dituzte, eta gelditzen zatzun guztia suak desegingo du.

26. Eta zure soñekoz gabetua utziko zaituzte, eta kenduko dizkizute zure apaingarriak.

27. Eta ala egingo det, utzi ditzatzula zure gaiztakeriak, eta Ejiptoko lurrean ikasi ziñituen bordionkeriak; ez dituzu altxatuko zure begiak idoloakganontz; eta etzera berriz Ejiptorekin oroitu ere egingo.

28. Zeren oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Ona non nik jarriko zaitudan, zuk gorroto ziñienen eskuetan, zure anima berakin asea gelditu zan aien eskuetan.

29. Eta gorrotoarekin tratatuko zaituzte, eta ostuko dizkizute zure izerdi guztiak, eta larrugorrian eta lotsariz betea utziko zaituzte, eta agirian jarriko dirade zure bordionkerien lotsaria, zure gaiztakeria, eta zure aragizko bekatuak.

30. Oiek egingo dizkizute, aragizko bekatuak egin ziñituelako, zijoazela erreñuen ondoren, zeñaen artean kutsutu ziñan, beren gezurrezko jainkoak adoratzen ziñituela.

31. Zure aizparen bideetatik ibilli ziñan, eta bera bezela kastigatuko zaitut.

32. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Zure aizpak edan zuen kalizatik edango dezu, kaliza zakon eta zabaletik. Irriz eta lotsariz betea izango zera; zeren kaliza txit andia dan.

33. Moskortua geldituko zera, eta oñazez betea, edaten dezunean atsekabe eta mingoiztasuneko kaliza, zure aizpa Samariak edan zuen kaliza.

34. Eta edango dezu, eta ustuko dezu bere kutsuetarañokoa, eta bere zatiak iretsiko dituzu, eta urratuko dituzu zure bularrak, zeren nik itz egin dedan, esaten du Jaun Jainkoak.

35. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Nerekin aztu zeralako, eta atzea itzuli didazulako, argatik eraman ezazu zuk ere zure gañean, zure gaiztakeria, eta bordionkerien kastigua.

36. Eta itz egin zidan Jaunak, esaten zuela: Zer! Ez al dituzu zuk Oolla, eta Ooliba juzgatzen, eta ez al dieztezu ere beren gaiztakeriak arpegira aurtikitzen.

37. Zeren berak adultera eta odolgiro batzuek diraden, eta kutsutu diraden beren gezurrezko jainkoakin, eta gañera nik berakgan iduki nituen semeak eskeñi diezte, suaz iretsiak izateko.

38. Eta oraindikan ere geiago egin dute nere kontra: kutsutu zuten denbora artan nere santuarioa, eta nere larunbatak ausi zituzten.

39. Zeren beren semeak, il eta idoloai eskeñtzen ziezten egunean berean, etorri oi ziraden nere santuariora bera kutsututzera, eta nere tenploaren beraren barrenen gaiztakeria oiek egiten zituzten.

40. Berak bialdu zituzten mandatariak, urrutian bizi diraden jendeak billatzera. Allegatu ziradenean garbitu ziñan, eta igortzi ziñituen zure begiak burniarriarekin, eta zure soñeko eder guziakin apaindu ziñan.

41. Oe txit eder baten gañean etzin zera, eta mai prestatu bat aurrean jarri zatzu, zeñaen gañean nere inzensua eta nere lurrinkaiak ipiñi ziñituen;

42. Eta zeñaen inguruan, bozkarioz zeuden jendeen algarak aditzen ziran, eta arako gizaseme arrotz, jende taldearen artean eramanak ziradenai, eta eremuaren aldamenetik zetoztenai, jarri ziezten eskuetan beren eskuturretako apaingarriak, eta koroa ederrak beren buruen gañean.

43. Eta esan nion nik bere aragizko bekatuetan zartua dagoenari: Oraindikan onek bere bordionkeriai jarraituko diote.

44. Zeren beragana joan oi zan jendea, bordion batgana bezela. Onela zijoazen guziak Oolla, eta Ooliba emakume galduak gana.

45. Ongi egiña da bada gizon oiek egiten dutena: oiek kondenatuko dituzte, adulterai dagokien kastigura, eta odolgiroai dagokien kastigura, zeren berak adulterak diraden, eta beren eskuak odoldu dituzten.

46. Zeren oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Zuzendu ezazu martiztia beren kontra, eta izu eta lapurren eskuetan utzi itzatzu.

47. Eta erriak arrika egin dizaiela, eta izan ditezela ezpataz iragoak, il ditzatela beren seme ta alabak, eta beren etxeai su eman dizaiela.

48. Eta nik kenduko ditut lurretik gaiztakeriak, eta ikasiko dute emakume guztiak, emakume bi aien gaiztakeriari ez jarraitzen.

49. Zuen gaiztakerien kastigua, zuen buruen gañera eroriko da, eta zuen idolatriako bekatuen ordaña artuko dezute, eta ezagutuko dezute, Jaun Jainkoa ni naizela.

OGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Itz egin zidan Jaunak katiberioko bederatzigarren urtean, amargarren illean, illaren amargarren egunean, esaten zuela:

2. Gizonaren semea, egun au gogoan iduki ezazu, zeren gaur Babiloniako erregeak bere martiztia Jerusalenen aurrean ipiñiko duen.

3. Eta itz egingo diozu familia ezikaitz orri irudietan, eta parabola au ipiñiko diozu: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Eltze bat ar zazu, ar zazu, esaten dizut nik, eta bera urez bete ezazu.

4. Sartu itzatzu barrenen aragi zatiak, guziak autuak, isterra, solomoa, zatirik oberenak, eta zeñatan ezurrak dauden.

5. Artu ezazu abererik gizenena, eta gañera eltzearen azpian ezur montoi bat ipiñi ezazu. Egin ezazu borboka irakin dezala, eta bere barrenen dauden ezurrak ere egosi ditezela.

6. Zeren oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Ai, erri odolgiroaren doakabea! Sarroz betea dagoen eltzea, eta ez da beragandik sarroa kendu, atera ezazu kanpora aragia, txotx egiteari tokirik eman gabe:

7. Zeren bere erdian, isuri duen odol obengabea dagoen, arri txit garbien gañean isuri zuen; etzuen isuri lurraren gañean, autsarekin estali ditekean eran.

8. Erori erazitzeko nik bere gañera nere aserreari, eta bere bengantza artzeko, nik ere bere odola arri txit garbien gañean isuriko det, agirian gelditu dedin.

9. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Ai erri odolgiroaren doakabea, zeñ nik su andi batera biurtuko dedan!

10. Montoitu itzatzu ezurrak, bada nik su emango diet. Desegingo dira aragiak, eta eltzean dagoen guztia egosiko da, eta igartuko dira ezurrak.

11. Oien ondoan eltze utsa txingarren gañean ipiñiko dezu, galdatu dedin, eta urtu dedin bere kobrea. Onenbesterekin bere barrenen bere zikinkeria desegin dedin, eta bere sarrotik garbitua gelditu dedin.

12. Lan andiak egin dirade; baña bere sarro andia ezin kendu izan da, ezta suaren indarrez ere.

13. Nazkagarria da zure zikinkeria; zeren nik zure loikeriatik garbitu nai izan zaitut, eta zu etzera garbitu; eta etzera ere garbituko, aliketa nik nere aserrea zure gañera osotoro aurtiki dezadan artean.

14. Nik, Jaunak, itz egin det. Etorriko da denbora, eta egiztatuko det. Ez da nere itza atzera itzuliko; eta ez det ere barkatuko; eta ez naiz ere bigunduko, zure bideen eta egiteen araura juzgatuko zaitut, esaten du Jaunak.

15. Berriz itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

16. Gizonaren semea, begira ezazu, ni noala kentzera zuri batbatean, zure begien gogokoa dana, baña etzaite egon aubenka, eta etzazu ere negarrik egin, eta etzaiezu ere utzi zure malkoai korrika erortzen.

17. Aubenka ariko zera ezkutuan, ez dezu egingo illakgatik egin oi dan bezelako progurik; ez dezu kenduko kapela, ez oñetakorik, ez dezu estaliko arpegia beloarekin, eta ez dezu ere jango lutoko denborari dagokion jakirik.

18. Oiek esaten niozkan nik erriari goizean, eta nere emaztea il zan arratsaldean. Eta biaramon goizean egin nuen Jainkoak agindu zidana.

19. Eta erriak esan zidan: Zergatik ez diguzu argitutzen, zer adirazten duten egiten dituzun gauza oriek?

20. Eta erantzun nien: Jaunak itz egin dit esaten duela:

21. Esan zaiozu Israelko etxeari: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Ona emen non nik kutsutuko dedan nere santuarioa, zeñ dan zuen erreñuaren gloria, eta zuen begietan gauzarik maitagarriena, eta zuen animari ansiarik geien ematen diona; eta utzi dituzuten seme ta alabak, ezpataren puntaz illak izango dirade.

22. Eta egingo dezute nik egin dedan bezela: ez dituzute arpegiak estaliko beloarekin; eta ez dituzute ere jango lutoan daudenak jan oi dituzten janariak.

23. Idukiko dezute zuen buruan kapela; eta egongo zerate oñetakoakin, ez dezute egingo suspiriorik, ez negarrik; baizik zuen gaiztakerietan desegiñak izango zerate, eta suspirioz egongo zerate batak besteari begiratzen diozutela arrituak.

24. Eta Ezekiel izango da zuentzat irudi bat, nola berak egin duen bere emaztearen eriotzan, ala egingo dezute zuek, gertakari oiek allegatzen diradenean. Eta orduan ezagutuko dezute, ni naizela Jaun Jainkoa.

25. Eta zuk, o gizonaren semea, begiratu ezazu, nik berai kentzen diedan egunean, berak sendoak egiten dituen gauza, beren bozkario eta gloria dana, beren begiak geien maitatzen dutena, arako gauza, zeñean beren biotzak daukaten jarria beren itxedopena, eta beren seme eta alabak kentzen dieztedanean,

26. Egun artan, zeñean Jerusalendik iges egin duena alderatuko dan zugana, eta bere galmenaren berria emango dizun,

27. Egun artan, diot berriz, zuk itz egingo diozu iges egin duenari, eta itz egingo dezu beldurrikan batere gabe, eta etzera onezkero ixillikan egongo. Eta jarri izango zera berentzat siñale bat eginik, eta zuek ezagutuko dezute, ni naizela Jauna.

OGEITA BOSGARREN KAPITULUA

1. Berriz itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

2. Gizonaren semea, itzuli ezazu zure arpegia Ammonen semeen kontra, eta beren gañean profetizatuko dezu.

3. Esango diezu bada Ammonen semeai: Jaun Jainkoaren itza aditu ezazute, oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Zuk, o Ammongo erria, irriz esan dezulako nere santuario, kutsutua izan danagatik; eta Israelko erri arrasatua izan danagatik; eta Judako etxe, katiberiora eramana izan danagatik, galanki, galanki gertatu zaiote.

4. Argatik nik jarriko zaitut sortaldeko semeen eskuetan herenzian bezela, zeñak jarriko dituzten zugan beren arditegiak, eta jasoko dituzten zugan beren etzauntzak. Berak zure frutuak jango dituzte, eta edango dute zure eznea.

5. Eta egingo det Rabbat etorri dedilla izatera ukullu bat gameluentzat; eta Ammonen semeen erria, abereen etzatoki bat, eta ezagutuko dezute, ni naizala Jaun Jainkoa.

6. Zeren oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Zu txaloka ari zeralako, eta bozkarioz gora gorakak egin dituzulako, eta txit gozatu zeralako Israelko erriari gertatu zaionagatik;

7. Ona emen non nik nere eskua zure kontra luzatuko dedan, eta egingo dedan erreñuak arrapatua izan zaitezela, eta errien artetik kenduko zaitut, eta ez dezu lurraren gañean izaterik idukiko, eta auts biurtuko zaitut. Eta jakingo dezu ni naizala Jauna.

8. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Moabek eta Seirrek esan dutelako, begiratu zaiozute Judako etxeari; bera, beste erreñu guziak bezelakoa da.

9. Argatik ona emen non nik idikia utziko dedan Moabko lurraren aldamen bat, errien aldamenetik, bere mugetan dauden errien aldamenetik; esaten det, Bethiesimoth, eta Beelmeon, eta Kariathaimgo lurreko erririk ospatsuenak;

10. Idikiko diet nik Sortaldeko semeai Moabrontzgo aldamena, Ammontarrena idiki nuen bezela, eta Moaben jabe eginik ipiñiko ditut, alako moduan, non, beren oroipenikan ere geldituko ez dan, nola ezta Ammonen semeenik ere jendeen artean.

11. Eta kontu zorrotzak Moabi artuko diozkat, eta jakingo dute ni naizala Jauna.

12. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Idumea beti aritu izan dalako Judako semeai bengatzen, bere gorroto anziñakoagatik, eta bekatu egin duelako, bere gura bengatzekoak neurrigabero asetzen dituela;

13. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Nik luzatuko det nere eskua Idumearen gañera, eta kenduko ditut andik gizonak, eta abereak, eta eremu bat egiña utziko det Egoeko aldamenetik; eta Dedanen daudenak, ezpataz iragoak izango dirade.

14. Eta Idumearekin bengatuko naiz, Israel nere erriaren bitartez, zeñak tratatuko duen Edom nere aserre eta sumintasunak adirazten dionaren araura; eta jakingo dute nere bengantza nolakoa dan, esaten du Jaun Jainkoak.

15. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Filistintarrak bengatu diradelako, eta aserrerik andienarekin egin dutelako, eriotzak egiten dituztela, eta anziñako aserreak egiztatzen dituztela.

16. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Ona emen non nik nere eskua Filistintarren gañera luzatuko dedan, eta iltzalleak ilko ditut, eta itsasoaren aldamenean gelditzen dana, desegingo det,

17. Eta izugarriro bengatuko natzaie, sumintasunarekin kastigatzen ditudala; eta ezagutuko dute ni naizela Jauna, berai bengatzen natzaienean.

OGEITA SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta gertatu zan katiberioko amaikagarren urtean, illaren lenbiziko egunean, Jaunak neri itz egitea, esaten zuela:

2. Gizonaren semea, Tirok Jerusalengatik esan duelako: Ederki, ederki egiña izan dikik. Onezkeo erreñoen ateak desegiñak gelditzen dirade; berak irago dirade nigana; ni orain ondasunez betea geldituko naiz; zeren Jerusalen eremu bat egiña gelditu dan.

3. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: O Tiro, ona emen non nagoan ni zure kontra. Nik igoeraziko diot zure kontra jendetza andi bati, itsas aserretu baten bagak bezela.

4. Eta desegingo dituzte Tiroko murruak, eta beera aurtikiko dituzte bere dorreak, eta nik arras kenduko det bertako autsa ere, aitz txit leun bat bezela utzitzen dedala.

5. Bera, itsasoaren erdian, sareak leortzeko esekitoki bat bezela izango da, zeren nik esaten dedan, esaten du Jaun Jainkoak: bera izango da erreñuak arrapatua.

6. Bere alaba kanpoan daudenak ere, ezpataz illak izango dirade, eta ezagutuko dute ni naizala Jauna.

7. Zeren oiek esaten dituen Jaun Jainkoak: Ona emen non nik ekarriko dedan Nabukodonosor, erregeen erregea, ifarretik Tiroraño, gerrako zaldi eta gurdiakin, eta zaldizkoakin, eta gudari talde andi batekin.

8. Zure alaba kanpoan daudenak ezpataz iragoko ditu, eta gaztelutxoz ingurutuko zaitu, eta zure iguruan lutesiak altxatuko ditu, eta bere besoan zure kontra ezkutua jarriko du.

9. Eta zure murruen kontra jarriko ditu bere sutunpen aoetako olak, eta sutunpa gurdiak, eta bere gerrako tresnakin zure dorreak botako ditu.

10. Bere zaldidi txit andia allegatzen danean, autsez estalia geldituko zera. Dardaraz jarriko dira zure murruak zaldidiaren, gurdien, eta karrozaen dunbotsarekin, bera zure ateetatik sartzen danean, erri desegin batean sartzen dana bezela.

11. Zure plaza guztiak zapalduak ikusiko dirade zaldien beatzazalez; zure erria ezpataz iragoko du, eta zure tallu otspatsuak lurrera aurtikiak izango dirade.

12. Arrapatuko dituzte zure tesoro guztiak, ostuko dituzte zure merkatuko gauzak, eta desegingo dituzte zure murruak, eta beera botako dituzte zure jauregi ederrak, aurtikitzen dituztela itsasora zure arriak, zure zurak, eta zure autsa.

13. Eta egingo det ez ditezela aditu onezkero berriz zugan kanta ederrak, eta arpaen soñu gozatsuak.

14. Eta utziko zaitut alako moduan arrasatua, nola dagoen aitz txit leun bat, eta izango zera esekitoki bat sareak leortzeko, eta etzera berriz egiña izango; zeren nik ala erabaki dedan, esaten du Jaun Jainkoak.

15. Oiek esaten diozka Jaun Jainkoak Tirori: Ez al dirade dardaraz jarriko ugarteak, zure galmenaren dunbotsarekin, eta zugan egingo dan ilkintzan ilko diradenen negarrakin?

16. Eta itsasoko prinzipe guztiak beren tronuetatik jetxiko dirade, eta kenduko dituzte beren ezagungarriak, eta aurtikiko dituzte beren soñeko bordatuak, eta izuz beteak izango dirade, lurrean eseriko dirade, eta arriturik zure erortze ustekabekoarekin, beren senetik irtenak bezela geldituko dirade.

17. Eta negar egiten dutela zure doakabea gatik, esango dizute: Nola izan zera galdua, o itsasoan bizi ziñana, erri argitsua, izan ziñana almentsua itsasoan zugan bizi ziradenakin, zeñaen beldur ziraden guztiak?

18. Itsasgizonak zure ondameneko egunean arrituak geldituko dirade, eta itsasoko ugarteak atsekabetuko dira, ikusirik onezkero zugandik iñor ere ateratzen ez dala.

19. Zeren oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Jartzen zaitudanean eremu bat eginik, iñor ere bizi ez dan erriak bezela, eta bialtzen dedanean zure gañera zorigaitzezko ugolde bat, eta ur andiak estalitzen zaituztenean;

20. Eta nik aurtikitzen zaitudanean ara beera, betiko irauneko errira, obira jetxi ziradenakin, eta ipintzen zaitudanean lurraren barrendieneko tokian, lizera jetxi ziradenakin, jartzen zeranean anziñako eremuen antzekoa egiña, iñor ere zugan bizi ez dedin, atzenik Jerusalen, bizien lurrari gloria biurtzen diodanean

21. Orduan utsera biurtua utziko zaitut, eta ez dezu izaterikan idukiko, eta billatuko zaituzte, eta beñere etzera iñoiz arkitua izango, esaten du Jaun Jainkoak.

OGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Berriz itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

2. Orain bada, o gizonaren semea, kantatu ezazu lamentazio bat Tiroren gañean.

3. Eta esango diozu Tirori, zeñ dagoan itsasoaren sarreran, erriak ugarte askorekin salduerosiak idukitzeko. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: O Tiro, zuk esan zenduen: Txit ederra naiz ni;

4. Eta nago itsasoaren erdian. Zure aldeko, egin zindutenak, edertu zinduten apaingarri mota guziakin,

5. Egin zinduten Sanirko abetoakin, biderda guziakin itsasoan oi dan bezela, zure masta egiteko, Libanoko zedro bat ekarri zuten.

6. Zure arraunak egiteko, Basango arteak landu zituzten, eta zure maiak Indietako marfillarekin egin zituzten, eta zure popako ganbarak Italiako ugartetatik ekarritako gaiakin.

7. Mastatik zinzilika dagoan aizezapia egiteko, eo zan zuretzat Ejiptoko lino ederra, asko koloretakoa. Elisako ugarteetako jazintoz eta prupuraz izan zan egiña zure bandera.

8. Sidonen eta Araden bizi diradenak izan ziran zure arraunleak. Zure jakintsuak, o Tiro, izan ziran zure zuzentzalleak.

9. Jebalko zarrak eta bertako jakintsuenak ekartzen zizuten jendea ontzien eta ontzietakoen lanetarako. Itsasoko ontzi guztiak, eta beren itsasgizonak, zeuden zure errian zuri salduerosiko lanetan laguntzeko.

10. Zuk zeneuzkan zure martiztian Persiako, eta Lidiako, eta Libiako gerrariak. Eta beren ezkutu ta kapelak zugan eseki zituzten zure apaingarritzat.

11. Aradien semeak zeuden zure martiztiarekin zure murruen gañean inguruan; baita zure dorreetan zeuden gizon sendoak ere, eseki zituzten beren fletxategiak zure murruetan jiran, berak altxatu zuten zure edertasuna gorengo garaieraño.

12. Zurekin salduerosia zeukaten Kartagotarrak, betetzen zituzten zure merkatuak zillarrezko, burnizko, estañuzko eta berunezko ondasun ugari mota askotakoakin.

13. Greziak, Thubalek, eta Mosokek ere, bazeuzkaten zurekin artuemanak, ekartzen zituztela zure errira gizaseme mendekoak, eta kobrez egindako lanak.

14. Thogormako lurretik ekartzen zituzten zure eriara zaldiak, eta zaldizkoak, eta mandoak.

15. Dedango semeak zeuzkaten zurekin saldu-erosiak. Zuk ematen ziñiezten zure eskuz egindako lanak asko ugarteri, eta beren ordañean artzen ziñituen elefanteen letakiñak, edo marfilla, eta zubeltxa.

16. Sirok zeuzkan zurekin artuemanak, eta zure eskuetako lan ugariakin jabetzeko, eramaten zituen zure merkatuetara perlak, eta purpura, eta euta bordatuak, eta liño fiña, eta seda, eta salgai eder mota guziak.

17. Judak eta Israelko lurrak zeuzkaten zurekin salduerosiak, eramaten zituztela zure merkatuetara garirik ongiena, balsamoa, eztia, olioa, eta erresina.

18. Damaskoko merkatariak egiten zituzten zurekin tratuak, eta zuk ematen ziñiozkaten merkatuko gauzeen ordañean, ematen zizkizuten zuri gauza asko, eta asko eratakoak, ardo txit ederrak, eta zuritasun guztiz andiko ardi illeak.

19. Danek, eta Greziak, eta Moselek, eramaten zituzten zure merkatura, zurekin salduerosiak egiteko, burni landua, mirra garbitua, eta kañabera usaitsua.

20. Dedangoak saltzen zizkizuten oñazpiko oialak zure estraduetarako.

21. Arabiakoak eta Zedarko prinzipe guziak erosten zituzten zure saldugaiak, emateko zuri ordañean, ekartzen zizkizuten bildotsak, eta aritoak.

22. Sabako eta Reemako merkatariak ekartzen zituzten saltzera zure plazaetara lurrinkairik ederren mota guzia, eta arri baliotsuak, eta urrea.

23. Haranek, eta Kenek, eta Edenek zeuzkaten zurekin salduerosiak, Sabak, Assurrek, eta Kelmadek saltzen zizkizun bere salgaiak.

24. Zeuzkaten berak zurekin asko gauza motaen salduerosiak, eramaten zizkizutela zuri jazinto koloreko arropazko zakuak, eta asko estefa, eta bordatu, eta asko balio andiko gauza, bilduak eta sokakin lotuak. Saltzen ere zizkizuten zedrozko zurak.

25. Zure ontziak ziran aurrenak eta lenbizikoak itsasoko merkataritzan, eta andiak ziran zure jendetza, eta zure ondasunak itsasoaren erdian.

26. Zure arraunleak asko itsasotatik erabilli zinduzten, baña Egoe aizeak desegin zinduen itsasoaren barrenen.

27. Zure ondasunak, eta zure tesoroak, et zuk zeneuzkan gauza ugariak, zure itsasgizonak, eta zure piloto, beren kontura zeuzkatenak zure gauza balio andiko guztiak, eta zure jendea zuzentzen zutenak; orobat zurekin zeneuzkan gerrari guztiak, eta zure barrenen zegoen jendetza guztia, aurtikiak izan dira itsasoaren barrenera zure galmeneko egunean.

28. Zure pilotoen deadarren dunbotsera, beste ontzi guztiak izuz beteak geldituko dirade;

29. Eta arraunle guztiak beren ontzietatik aterako dirade, eta irtengo dira lurrera itsasgizon eta piloto guziak.

30. Eta alarau andiak, eta penazko deadarrak egingo dituzte zugatik, eta beren buruen gañean autsa zabalduko dute, eta errautsaz estaliko dirade.

31. Eta zugatik beren buruak arras moistuko dituzte, eta zilizioz jantziko dirade; eta negar egingo dute zugatik negar txit samiñakin, biotzeko atsekabeaz.

32. Kantatuko dituzte zugatik kanta beldurgarriak, eta zugatik negar malkoak botako dituzte, esaten dutela: Zeñ erri izan da Tiro bezelakoa, bera bezela itsasoaren erdian desegiña izan dana?

33. Zuk itsasoz zeneukan salduerosiarekin erreñu asko aberastu ziñituen. Zure ondasunen, eta zure jendearen ugaritasunarekin, lurreko erregeak aberastu ziñituen.

34. Orain berriz itsasoaren erdian desegiña izan zera; zure aberastasunak itsasoaren barrenera erori dira, eta zugan zegoan jendetza guzia galdu da.

35. Ugartetan bizitu ziraden guztiak, zure ondamenarekin izutuak gelditu dira; eta erregeen arpegiak, alako ekaitzarekin arrituta beste kolore bat artu zuten.

36. Errietako merkatariak, irriz zugatik txistuka ari ziraden. Utsera izulia izan zera zu, eta iñoizere berriz ez dezu onezkero izaterikan idukiko.

OGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Berriz itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

2. Gizonaren semea, esan zaiozu Tiroko Prinzipeari: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Zure biotza urgullutu dalako, eta esan dezulako: Jaungoiko bat naiz ni, eta tronuan, itsasoaren erdian Jaungoikoa bezela eseria nago (izanik zu gizon bat, eta ez Jaungoiko bat) eta uste izan dezun ezkero daukazula adimen bat, Jaungoikoarena bezelakoa.

3. Ikusia dago uste dezula, Daniel baño jakintsuago zerala, ez dagoela zuk ez dakizun gauzarikan batere.

4. Zu zure jakinduriarekin eta zentzuarekin, almentsu egin zera, eta zure gordelekuetan urrea, eta zillarra montoitu dezu.

5. Zure jakinduria andiarekin eta zure salduerosiakin, geitu dezu zure eskubidea, eta argatik zure biotza urgullutu da.

6. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Zure biotza goratu dalako, Jaungoiko batena balitza bezela;

7. Argatik beragatik nik etorri erazi diot zure kontra jende arrotzai, eta billostuko dituzte beren ezpatak zure jakinduria ederraren kontra, eta zure gloria illunduko dute.

8. Eta ilko zaituzte, eta desegingo zaituzte, eta ilko zera, itsasgudan iltzen diradenen eriotzarekin.

9. Itz egingo al dezu zuk zure iltzallen aurrean, esaten dezula: Ni Jaungoiko bat naiz, izanik zu, ilko zaituztenen mendean zauden gizon bat, eta ez Jaungoiko bat?

10. Nola iltzen diran zirkunzidatu gabeak, ala ilko zera zu arrotzen eskuz, zeren nik esan dizaiedan, esaten du Jaun Jainkoak.

11. Berriz itz egiten zidan Jaunak, esaten duela: Gizonaren semea, kantatu ezazu lamentazio bat Tiroko erregearen gañean.

12. Eta esango diozu: Zu, uste zenduena ziñala Jaungoikoaren sillua edo irudia, jakinduriaz betea, eta edertasunik andienarekin apaindua,

13. Bizi ziñan Jaungoikoaren paraisuaren erdian, zure soñekoetan arri baliotsu mota guziak argi egiten zuten, sardioak, topazioak, jaspeak, krisolitoak, onikeak, beriloak, zafiroak, karbunkloak, esmeraldak, eta urreak, zeñak edertzen zinduzten, eta soñulariak prestatuak egon ziran zuretzat, agintaritza eman zizuten egunean.

14. Zu izan zera kerubin bat bezela, zeñak zabaltzen dituzten egoak, eta Jaungoikoaren tronua estalitzen duten; nik Jaungoikoaren mendi santuan jarri zindudan. Zu arri baliotsuen, eta sua bezela argitsuen erdian ibilli oi ziñan.

15. Onosoa izan zera zure obretan, egiña izan ziñanetik; zugan gaiztakeria arkitu zan arteraño.

16. Zure salduerosien ugaritasunagatik, zure biotza gaiztakeriaz bete zan, eta bekatu egin zenduen, eta nik Jaungoikoaren menditik aurtiki zindudan, eta zu, o Kerubin, tronua estalitzen zenduena, sua bezela argi egiten zuten arrien erditik bota zindudan.

17. Zure biotza urgullutu zalako zure edertasunagatik, eta zure argitasunagatik zure jakinduria usteldu zalako, argatik aurtiki zindudan nik

lurrera, eta jarri zindudan erregeen begien aurrean, zuri begira egon zitezen.

18. Zure gaiztakerien ugaritasunarekin, eta saldu erosi gaiztoakin kutsutu zenduen, jabe zeran Israelko lur zati orren santutasuna. Argatik atera eraziko diot zure erditik, iretsiko zaituen su bati, eta auts biurtuko zaitu lurraren gañean, zure gañean beren begiak jarriak dauzkaten guztien aurrean.

19. Ikusten zaituzten beste erreñuetako guztiak, zure gañean arrituak gelditu ko dira. Utsera biurtua izango zera, eta ez dezu beñere berriz izaterik idukiko.

20. Berriz itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

21. Gizonaren semea, itzuli ezazu zure arpegia Sidonen kontra, eta bere kontra profetizatu ezazu,

22. Eta esango dezu: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Ona emen non nagoan ni zure kontra, o Sidongo erria, eta zure erdian gloriaz betea izango naiz. Zeren ezagutuko duten ni naizela Jauna, nik berari kontuak artzen diozkadanean, eta nere santutasun eta zuzentasunari an argi egineraziko diot.

23. Nik izurria bialduko diot, eta bere karrikak odolez beteko ditut, eta aldamen guzietan ikusiko dira iltzen ezpataz iragoak izandako gizonak, eta ezagutuko dute, ni naizala Jauna.

24. Ez da bera emendikan aurrera izango gaitzbideko eta samintasuneko arria Israelko etxearentzat, eta ez dirade ere beretzat izango arantza zorrotzak bezelakoak, aldamen guzietatik ingurutua daukaten etsai oriek. Eta ezagutuko dute, ni naizala Jaun Jainkoa.

25. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Biltzen dedanean nik Israelko familia, barreiatua izandu zan erreñuen artetik, orduan nik agertuko det beragan nere santutasuna erreñuen begien aurrean, eta bera bizituko da, nik Jakob nere serbitzariari eman nion lurrean.

26. Eta an bizituko da beldurrikan batere gabetanik, eta egingo ditu etxeak, eta ipiñiko ditu mastiak, eta biziko da pake osoan, nik kontuak artzen dieztedanean, bere inguruan dauden, eta bere etsaiak diraden erri guztiai. Eta ezagutuko dute, ni naizala beren Jaun Jainkoa.

OGEITA BEDERATZIGAREN KAPITULUA

1. Amargarren urtean, amargarren illean,illaren amaikagarren egunean itz egin zidan Jaunak, eta esan zuen:

2. Gizonaren semea, zuzendu ezazu zure arpegia Faraon Ejiptoko erregearen kontra, eta profetizatu ezazu, bere kontra eta Ejiptoren kontra gertatuko dan guztia.

3. Itz egin ezazu, eta esan ezazu: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Ona emen non ni nagoen zure kontra, o Faraon Ejiptoko Erregea, sugulna andi, zure ibaien erdian zatzana, eta esaten dezuna: ibaia nerea da, eta iñori ere ez diot izatea zor.

4. Baña nik ipiñiko det brida bat zure masallezurretan, eta egingo det, zure ibaieko arraiak zure ezkamai itsatsiak gelditu ditezela, eta zure ibaien erditik aterako zaitut, eta zure arrai guztiak zure eskamai itsatsiak egongo dira.

5. Eta zu, eta zure ibaietako arrai guztiak eremura aurtikiko zaituztet, zu lurraren gañean illa eroriko zera, ez dizu iñork ere elduko, eta etzera obiratua izango; lurreko pistien eta zeruko egaztien mendean jarri zaitut, iretsi zaitzaten.

6. Eta Ejipton bizi diraden guztiak ezagutuko dute, ni naizala Jauna, zeren zu Israelko etxearentzat kañaberazko makilla bat izan zeran.

7. Eskuarekin arrapatua izan ziñanean, ausi ziñan, eta zauritu ziñituen beren bizkar guztiak, eta berak zure gañean jarri ziradenean, zatitu ziñan,eta osotoro desbizkartu ziñituen.

8. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Begiratu ezazu, nik zure kontra ezpata aurtikiko det, eta zure gizonak, eta zure abereak ilko ditut.

9. Eta Ejiptoko lurra eremu, eta bakartade bat egiña geldituko da, eta ezagutuko dute, ni naizala Jauna, zeren zuk esan zenduen: ibaia nerea da: nik egin nuen.

10. Argatik ona emen non nagoan ni zure kontra, eta zure ibaien kontra, eta nik egingo det, Ejiptoko lurra eremu eginik gelditu dedilla, ezpataz arrasatua izan ezkero Sieneko dorretik Etiopiako mugetaraño.

11. Ez da gizonaren oñik andikan iragoko, eta ez du ere zamarien beatzalek zapalduko. Iñor ere gabe geldituko da berrogei urtean.

12. Eta egingo det nik Ejiptoko lurra eremutua gelditu dedilla, beste erri eremutu batzuen erdian; eta bere erriak desegiñak gelditu ko dira, beste erri desegin batzuen artean, eta arrasatuak gelditu ko dira berrogei urtean. Eta barreiatuko ditut ijitoak erreñuen artean, eta mundu guztitik onara, eta ara aurtikiko ditut.

13. Zeren oiek esaten ditu Jaun Jaungoikoak: iragorik berrogei urteko epe, eta denbora, nik bilduko ditut ijitoak, barreiatuak egon diran errien artetik;

14. Eta katiberiotik aterako ditut, eta jarriko ditut Fathuresko lurrean, beren jaioterrian, eta erreñu umill bat an egingo dute.

15. Izango da erkiena beste erreñu guztien artean, eta ez da ere emendikan aurrera beste erreñuen gañera altxatuko, eta nik erkituak idukiko ditut, aien jabe izatera allegatu ez ditezen.

16. Eta ez du onezkero Israelko etxeak berakgan itxedopenik idukiko, zeñari gaiztakeria erakusten zioten, eta ez dirade ere berakgana joango; eta ez die ere berai jarraituko. Jakingo du, ni naizala Jaun Jainkoa.

17. Eta ogeita zazpigarren urtean, illaren lendabiziko egunean, itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

18. Gizonaren semea, Nabukodonosor Babiloniako erregeak neke andiak iragoerazi diozka bere martiztiari Tiroren kontrako gerran, buru guztiak illegabetuak gelditu dira, eta moistuak bizkar guztiak; eta etzaio eman ordañikan batere ez berari, ez bere martiztiari, Tiroren kontra egin dizkidaten lanak gatik.

19. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Ona emen non nik jarriko dedan Nabukodonosor Babiloniako erregea Ejiptoko lurrean, eta katibu egingo du bere erria, eta arrapatuko dio daukan guztia, eta emango diozkate arrapatu dituen gauzak, eta onenbesterekin bere gudariak ordainduak geldituko dirade,

20. Tiroen kontra egin dituzten lanakgatik, nik eman diot Ejiptoko lurra, zeren bera nerentzat lanean ari dan, esaten du Jaun Jainkoak.

21. Egun artan Israelko etxearen eskubidea berriz loretuko da, eta zuri itz egin eraziko dizut eragozketarikan gabe beren erdian. Eta ezagutuko dute ni naizala Jauna.

OGEITA AMARGARREN KAPITULUA

1. Berriz itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

2. Gizonaren semea, profetizatu ezazu, eta esan ezazu: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: O ijitoak, asi zaitezte negarrak egiten, ai, ai, egun aren doakabea!

3. Zeren aldean dan eguna; allegatzen da onezkero Jaunaren eguna; illuntasunetako eguna, zeñ izango dan erreñuen kastiguko ordua.

4. Eta etsaien ezpata eroriko da Ejiptoren kontra, eta Etiopia arritua geldituko da, ijitoak ezpataz zaurituak izanda erortzen diradenean, eta erria katibu eramana izango da, eta bere zimenduak desegiñak izango dirade.

5. Etiopia, eta Libia, eta Lidatarrak, eta gañerako erri guztiak, eta Kub, eta nere elkartasuneko lurreko semeak, ezpataren puntaz berakin batean galduak izango dirade.

6. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: lurrera eroriko dirade Ejiptori laguntzen diotenak, eta bere agintaritza urgullutsua desegiña geldituko da. Sieneko dorretik asita, ezpataz iragoak izango dira ijitoak, esaten du ejerzituen Jaun Jainkoak.

7. Eta alderri aiek arrasatuak izango dirade, gelditzen diradela beste erri eremutu batzuek bezela, eta bere erriak izango dirade, desegiñak izan diraden errien artekoak.

8. Eta ezagutuko dute ni naizala Jauna, su ematen diodanean Ejiptori, eta berari laguntzen dioten gudariak desegiñak diradenean.

9. Egun artan joango dirade ontzietan, nik bialdutako mandatariak, Etiopiako urgulleria beeratzeko; zeñ izuz beteko dan Ejiptoren kastiguaren egunean, egun bat dudarikan gabe etorriko dana.

10. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Nik desegingo det Ejiptoko jendetza ugaria, Nabukodonosor Babiloniako erregearen bitartez.

11. Zeñ, eta bere erria, erreñuen artean sendoena, izango dira eramanak Ejipto arrasatzera. Billostuko dituzte ezpatak Ejiptoren kontra, eta illen gorputzez lurra estaliko dute.

12. Eta leortuko ditut ibaien arkak, eta ipiñiko det erria gizon biotz gogorrekoen eskuetan, eta desegingo det arrotzen bitartez, ni Jauna naiz esaten dedana.

13. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Nik desegingo ditut irudiak, eta Memfis idolorikan gabe utziko det, eta Ejiptoko lurrean ez da izango bertako erregerik, eta bere gañera izua bialduko det.

14. Eta arrasatuko det Fathuresko lurra, eta su emango diot Tafnisi, eta gogorkiro kastigatuko det Alejandria.

15. Isuriko det nere aserrea Pelusio, Ejiptoko baluartearen gañera, eta Alejandriako jendetza andia, ezpataz iragoko det,

16. Eta su emango diot Ejiptori. Aur batez erditzen dagoan emakumearenak bezelakoak izango dira Pelusioren oñazeak, eta Alejandria arrasatua izango da, eta Memfis beti ansia batean egongo da.

17. Heliopoli eta Bubastoko gazteak, ezpataz iragoak izango dirade, eta emakumeak izango dirade katiberiora eramanak.

18. Eta Tafnisen eguna gau biurtuko da, nik an Ejiptoko zetroak zatitutzen ditudanean, eta bere eskubidearen urgulleria aitua geldituko da, zeren gaitzezko dunbots beltz batek estaliko du, eta bere alabak katiberiora eramanak izango dirade.

19. Eta nik Ejiptori kontu zorrotzak artuko diozkat, eta ezagutuko dute, ni naizala Jauna.

20. Eta amaikagarren urtean, lendabiziko illean, illaren zazpigarren egunean, itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

21. Gizonaren semea, nik ausi diot besoa Faraon Ejiptoko erregeari, eta ona emen non ez dan izan bendatua, len bezela jarri dizakion, eta etzaio izan zapiakin estalia ere, ez bendakin lotua, berriz arturik lengo sendotasuna, ezpata erabilli dezakean.

22. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Ona emen non nagoan ni, Faraon Ejiptoko erregearen kontra, eta txeatuko det bere beso, sendoa zana; baña onezkero ausia dago; eta ezpatari bere eskutik erorieraziko diot,

23. Eta barreiatuko ditut ijitoak erreñuen artean, eta aurtikiko ditut batera ta bestera mundu guzitik.

24. Eta emango diet indarra Babiloniako erregearen besoai, eta bere eskuan nere ezpata jarriko det; eta Faraonen besoak ausiko ditut, eta negar andiak egingo dituzte bere errikoak, zeñak bere aurrean illak izango diraden.

25. Eta sendotuko ditut Babiloniako erregearen besoak, eta Faraonenak elbarrituak bezela geldituko dirade; eta ezagutuko dute ni naizala Jauna, jartzen dedanean nere ezpata Babiloniako erregearen eskuetan, eta berak magitikan atera izango du Ejiptoko lurraren kontra.

26. Eta barreiatuko ditut Ejiptokoak erreñuen artetik, eta mundu guzitik zabalduko ditut, eta ezagutuko dute, ni naizala Jauna.

OGEITA AMAIKAGAREN KAPITULUA

1. Amaikagaren urtean, irugarren illean, illaren lenbiziko egunean, itz egin zidan Jaunak, eta esan zuen:

2. Gizonaren semea, esan zaiezu Faraon Ejiptoko erregeari, eta bere erriari. Zeñekin iruditu zera zu, zure anditasunean?

3. Kendu ezazu urgullu ori; begiratu zaiozu Assurri, zeñak zedroak Libanoren gañean bezela, besanga eder, eta ostotsua, eta altuera andikoa, goratzen zuen bere kopa, bere errama zarratuen erdian.

4. Urak bazka eman zien, eta itsaso andi batek goratu zuen. Bere ibaiak bere sustraien ingurutik korrika zijoazen, eta berak irago erazitzen zien bere errekai, alderri artako zuaitz guzietatik.

5. Argatik izan zan altuago, erriko zuaitz guztiak baño, eta ugaritu ziran bere ariztiak, eta zabaldu ziran, uren ugaritasunagatik.

6. Eta nola berak egiten zuen itzal andi bat, bere ostoetan kabiak egin zituzten zeruko egazti guztiak, eta azi zituzten bere osto ugarien azpian basoetako pisti guztiak, eta bere itzalean jendetza txit andi bat egon oi zan.

7. Eta zan zuaitz txit eder bat, bere goratasunagatik, eta bere besangaen zabalera gatik, zeren bere sustraiak ur ugarien aldean zeuden.

8. Jaungoikoaren paraisuan etzan arkitu bera baño zedro goratuagorik. Etzuten berdindu abetoak bere kopa, eta platanuak ere etziraden izan bere besangak adiña. Jaungoikoaren paraisuan etzan izan bere antzeko zuaitzik, ez alako edertasunekorik.

9. Eta nik egin nuelako alako edertasunekoa, eta anbeste besanga, eta alako ostotsuetakoa, bere ondamuz egon ziran Jaungoikoaren paraisuan zeuden zuaitz gozatsu guztiak.

10. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Bera alako moduan goratu dalako, eta erakutsi duelako bere kopa berde eta ostotsua, eta bere biotza urgullutu dalako, ikusirik alako toki goratuan zegoala;

11. Nik ipiñi det errien arteko sendoenaren mendean, zeñak egingo duen berarekin nai duena. Nik aurtiki det nigandik, bere gaiztakeriakgatik diña zan bezela.

12. Eta jende arrotz eta biotzik gogorrenekoak erreñuen artean, iñausiko dute, eta aurtikiko dute mendien gañean, eta besangak eroriko dira ibar guzietatik, eta bere zuaitzak ebakiak geldituko dira lurreko aitz guzietan; eta lurreko erri guziak alde egingo dute bere itzaletik, eta utziko dute.

13. Bere ondamenen gañean atsedengo dute zeruko egaztiak, eta bere besangen gañean egongo dira erriko pisti guztiak,

14. Argatik ur korronten aldean ipiñiak dauden zuaitzetatik batere ez da urgullutuko bere anditasunean, eta ez du ere jasoko bere gaña zuaizti zarratuen artetik, eta ez dute ere itxedongo beren anditasunean ura aldean daukaten zuaitz guzi oiek, zeren guztiak eriotzaren mendean jarriak izan diran; erori ziran lize zakonera, gañerako gizonen seme, obira jetxitzen diradenak bezela.

15. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Bera infernuetara jetxi zan egunean, eman nuen nik negarbide andia. Lizean ondatu nuen, eta galerazi nien bere ibaiai, bera bustitzea, eta ur ugariak gelditu nituen. Beragatik Libano tristetu zan, eta kanpoko zuaitz guziak dardaraz jarri ziran.

16. Bera erori zanean egin zuen otsarekin, ikaraz jarri nituen erreñuak, infernura erori erazi nionean, obira jetxitzen diraden gañerakoakin; eta gozatu ziran an lurraren barren barrenean prinzipe guztiak, edo

atsegiñezko jardineko zuaitzak, argitsuak eta otspatsuak Libanon, urez bustiak ziraden guztiak.

17. Zeren berak ere berarekin jetxi ziran infernura, ezpataz illak izan ziradenakin, zeñak, izanik erregearen besoa bezelakoak bezelakoak, zeuden bere itzalaren azpian erreñuen artean.

18. Zeñen irudikoa egin zera, o Faraon, o zuaitz argitsu eta goratua, atsegiñezko jardineko zuaitzen artean? Ona emen non jardin bozkarioz betetako artako zuaitzakin, aurtikia izan zera lurraren barren barrenera. Zirkunzidatu gabekoen erdian lo egingo dezu zuk, ezpataz iragoak izan ziradenakin. Ala gertatu zitzaien Faraoni, eta bere jende guziari, esaten du Jaun Jainkoak.

OGEITA AMABIGARREN KAPITULUA

1. Amabigarren urtean, amabigarren illaren lenbiziko egunean, itz egun zidan Jaunak, esaten zuela:

2. Gizonaren semea, kantatu ezazu lamentazio bat Faraon Ejiptoko erregearen gañean, eta onela esango diozu: Egin ziñan, jendeen artean leoe baten, eta itsasoan arraien artean dabillan sugulna baten antzekoa. Zure eskubide andiarekin guztia nastutzen zenduen zure ibaietan, eta zikintzen ziñituen zure oñakin urak, eta beren korrontak zapaltzen ziñituen.

3. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Erri talde mugagabeko batekin zabalduko ditut nik nere sareak zure gañean, eta nere amuarekin kanpora aterako zaitut.

4. Eta lurrera aurtikiko zaitut; utziko zaitut kanpoaren erdian, eta jatxi eraziko diet zure gañera zeruko egazti guziai, eta egingo det, lurreko abere guziai zurekin bazkatu ditezela.

5. Zure aragiak mendien gañean ipiñiko ditut, eta beteko ditut muñoak zure odolustelduz.

6. Eta mendietako lurra bustiko det zure odol atsituarekin, eta berarekin ibarrak beteko dira.

7. Eta iltzen zaituztenean, zerua illunduko det, eta bere izarrak beltxituko ditut, eguzkia odeiz estaliko det, eta illargiak ez du bere argia emango.

8. Egingo det, zeruko argikari guztiak zugatik lutuz jantzi ditezela, eta zure erriaren gañean illuntasunak zabalduko ditut, esaten du Jaun Jainkoak, zureak illak erortzen diranean kanpoaren erdian, esaten du Jaun Jainkoak.

9. Eta erri askoren biotza izuz beteko det, allegatu erazitzen diodanean zure atsekabeen berriari, zuk ezagutzen ez dituzun errietako jendeakgana.

10. Eta egingo det arrituak gelditu ditezela asko erreñu zure zorigaitzarekin; eta beren erregeak ikaraz egon ditezela zugatik, izurik andienarekin berak nere ezpata beren begien aurrean ... asitzen danean, eta guztiak batbatean jarriko dira dardaraz beren bizitzakgatik zure galmeneko egunean.

11. Zeren oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Babiloniako erregearen ezpata zure gañera etorriko da.

12. Gizon sendo aien ezpatakin azpiratuko ditut zure zaldizko talde ugariak, iñork ere garaitu ez ditzakeanak dirade jende guzi aiek, eta berak Ejiptoko urgulleria umillatuko dute, eta bere ejerzituak desegiñak geldituko dirade.

13. Eta egingo det, galdu ditezela bere ur ugarien ugertzean bazkatzera diran abere guztiak. Ez ditu beñere gizonaren oñak zikinduko, ezta abereen beatzalak ere basaz beteko.

14. Orduan nik txit garbi biurtuko ditut bere urak, eta egingo det bere ibaiak gelditxo korrika joan ditezela, olioaren gisara, esaten du Jaun Jainkoak,

15. Nik Ejiptoko lurra arrasatzen dedanean. Erri au geldituko da, dauzkan ondaun guztietatik gabetua, nik bertan bizi diraden guztiak zauritzen ditudanean, eta ezagutuko dute ni naizala Jauna.

16. Au da negarrez kantatuko duten kanta tristea, erreñuetako alabak kantatuko dute, kantatuko dute Ejiptoren gañean, eta bere erriaren gañean, esaten du Jaun Jainkoak.

17. Eta amaikagarren urtean, illaren amabosgarren egunean, zuzendu zidan Jaunak bere itza, esaten zuela:

18. Gizonaren semea, kantatu ezazu lamentazio bat Ejiptoko erriaren gañean; eta profetizatzen dezula, aurtiki itzatzu bera, eta erreñu almentsuen alabak lurraren barrenera, non dauden obira jetxitzen diradenak.

19. Zeñ baño ederrago zera zu? Jetxi zaite, eta zirkunzidatu gabeakin lo egin ezazu.

20. Galduak izango dirade berak, ezpataz iragoak diraden beste guztien artean. Ezpata Jaungoikoak emana izan zaie Kaldeatarrai, eta Ejipto, eta bere erri guztiak izutu dituzte.

21. Infernuaren erditik zuzenduko die beren itza gudaririk errutsuenak, ara jetxi ziradenak beren lagunakin, eta zirkunzidatu gabeak ezpataz galduak izan ziran.

22. An dago Assur, eta bere erri guzia, bere inguruan obiratua. Oiek guziok illak izan ziraden, galduak izan ziraden ezpataz.

23. Zeñak obiratuak izan ziraden lezoiaren tokirik zakonenean; eta bere obiaren inguruan bere jende guzia datza, ezpataz illak izan ziraden guztiak; oiek, beste denbora batean bizien lurra izuz betetzen zutenak.

24. An dago Elam, eta bere erri guzia bere obiaren inguruan; oiek guziok ezpataz illak izan ziran, eta jetxi ziran zirkunzidatu gabeak zeudela lurraren tokirik zakonenera; oiek len izan ziranak guztien izua bizien lurrean, eta beren lotsaria beren gañean eraman zuten, luzobira jetxitzen diradenak bezela.

25. Illak izan ziradenen erdian izan zan ipiñia oea beretzat, eta bere erri guzti, bere inguruan obiratuak daudenentzat, guziak zirkunzidatu gabeak, eta ezpataz iragoak. Bizien lurrean izua jaso zutelako, eta beren lotsaria eraman zutelako, luzobira jetxitzen diradenak bezela, argatik izan ziraden, illak izan ziradenen artean ipiñiak.

26. An daude Mosok, eta Tubal, eta beren jende guzia, zeñaen obiak bere inguruan dauden, guziak zirkunzidatu gabeak, eta ezpataz iragoak, bizien lurreko izua izan ziradelako.

27. Baña ez dira ilko zirkunzidatu gabeko errutsuen eriotza gloriaz betearekin, zeñak galdu ziran eta jetxi ziran infernura beren armakin, eta zeñaen buruen azpietan ipiñi ziozkaten beren ezpatak, non dautzan beren ezurrakin beren gaiztakerietako erremientak, zeñakin izan ziran bizien lurreko sendoen izua.

28. Zu ere bada zapaldua izango zera, zirkunzidatu gabekoen erdian, eta ezpataz illak izan ziran aiekin lo egingo dezu.

29. An daude Idumea, eta bere erregeak, eta bere agintari guztiak, zeñak beren martiztiakin batean izan diraden ipiñiak, ezpataz iragoak izanda il ziradenen artean.

30. An daude ifarreko prinzipe guztiak, eta eiztari guztiak, zeñak, ezpataz galduak izan ziradenakin batean izan dira ara eramanak, arrituak eta umillatuak, sendotasun andikoak baziraden ere; zeñak zirkunzidatugabe lo egin zuten ezpataz iragoak izan ziradenakin, eta eraman zuten beren lotsaria, luzobira jetxi ziradenak bezela.

31. Oiek guziok Faraonek ikusi zituen, eta gozatu zan, bere jende asko, ezpataz iragoa izan zana gatik, ikusi zituen Faraonek, baita bere martizti guztiak ere, esaten du Jaun Jainkoak.

32. Zeren nik nere aserrea bizien lurraren gañera isuriko det; eta zirkunzidatu gabekoen erdian, ezpataz galduak izan ziradenakin batean, ara joan zan Faraon lo egitera bere erri guztiarekin, esaten du Jaun Jainkoak.

OGEITA AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Berriz itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

2. Gizonaren semea, itz egin zaiezu zure erriko semeai, eta esango diezu: Bialtzen dedanean nik gerrako ezpata erriren baten gañera, eta toki artako erriak artuko balu bertan bizi diradenetatik beerengoen artetik gizon bat, eta bere bealaritzat ipiñiko balu;

3. Eta bealari onek ikusirik datorrela bere errirontz etsaien ezpata, joko balu adarsoñua, eta erria kantuan ipiñiko balu;

4. Eta aditurik ark, dana dalakoak, adarsoñuak iges egiten ez badu, eta allegatzen bada ezpata, eta iltzen bada, berari bakarrik bere eriotza ezarriko zaio.

5. Aditu zuen adarsoñua, eta etzuen igesik egin, bere odola beragatik isurtzen da, zeren iges egiten badu, biziarekin geldituko da.

6. Baña baldin bealariak ikusiko balu ezpata datorrela, eta ez balu txaranbela joko, eta erriak ez balu iges egingo, eta allegatuko balitza ezpata, eta beretatikoren bati bizia kenduko balio, onelakoa egiazki bere bekatuagatik ilko da; baña nik onen odolaren kontua bealariari eskatuko diot.

7. Orain bada ongi dago. Gizonaren semea, nik ipiñi zaitut zu bealaritzat Israelko etxean, nere aotik aditzen dituzun itzak, adiraziko diozkazu berai nere izenean.

8. Baldin nik gaiztoari esaten diodanean: Gaiztoa, zu eriotza txarrarekin ilko zera, ez badiozu itz egiten gaiztoari, bere bizitza txarretik alde egin dezan; gaiztoa bere gaiztakeriagatik ilko da; baña bere odolaren kontua zuri eskatuko dizut.

9. Baña baldin adirazirik zuk gaiztoari ondu dedilla, utziko ez balu berak bere bizitza gaiztoa, ilko da gaiztoa bere gaiztakeriagatik, eta zure animak ez du bere eriotzagatik zer erantzunik izango.

10. Zuk bada gizonaren semea, Israelko etxeari esan zaiozu: Zuek itz egin dezute eta arrazoiarekin esan dezute: Gure gaiztakeria eta bekatuen kastiguak onezkero gure gañean daude, eta berakgatik desegiñaz goaz; nola bada biziarekin iraungo degu?

11. Baña esan zaiezu oriei: Nik juramentu egiten det, esaten du Jaun Jainkoak, ez dedala nai gaiztoaren eriotza, baizik ondu dedilla; utzi dizaiola bere biziera gaiztoari, eta bizi dedilla. Alde egin ezazute, alde egin eza-

zute zuen bide gaiztoetatik; eta zergatik ilko zerate, o zuek Israelko etxekoak?

12. Zuk bada, o gizonaren semea, esan zaiezu zure erriko semeai: Justoak bekatu egiten duen edozeñere egunean, bere justiziak ezin libratuko du; eta gaiztoa bere gaiztakeriatik biurtzen dan edozeñere egunean, gaiztakeriak ez dio gaitzik egingo; eta justoa, bekatu egiten duen edozeñere egunean, bere justiziagatik ezin biziko da.

13. Esan arren nik justoari, bizitza egiazko bat idukiko duela; baldin berak, bere justizian itxedotzen duela, bekatu egingo balu, bere obra on guztiak aztuak geldituko dira, eta egin duen bekatuan ilko da.

14. Nik esango banio berriz gaiztoari: Zu eriotza txarrarekin ilko zera; eta berak bekatuen penitenzia egingo balu, eta obra on, eta justoetan ariko balitza,

15. Gaizto onek zor duenari prenda itzuliko balio, eta biurtuko balu ostu duena, jarraituko balie bizia ematen duten aginteai, eta gauza gaiztorikan egingo ez balu; berak bizitza egiazkoa idukiko du, eta ez da ilko.

16. Egin dituen bekatuetatik batere etzaio ezarriko, berdintasun eta justiziako obrak egin ditu; idukiko du bada bizitza egiazkoa.

17. Baña zure erriko semeak esan zuten: Jauna ez dabil zuzen; berak izanik zuzen ez dabiltzanak.

18. Zeren justoak alde egiten duenean justiziatik, eta obra gaiztoak egiten dituenean, oietan eriotza arkituko du.

19. Eta orobat gaiztoak bere gaiztakeriari utzitzen dionean, eta berdintasun eta justiziako obrak egiten baditu, arkituko du beretan bizia.

20. Eta zuek esaten dezute: Jauna ez dabil zuzen. O Israelko etxea, bakoitza juzgatuko det nik bere obren araura.

21. Katiberiora gu eramanak izan giñanetik amabigarren urtean, amargarren illaren bosgarren egunean, etorri zan nigana Jerusalendik iges egin zuen bat, zeñak esan zidan: Erria arrasatua izan da.

22. Eta Jaunaren argitasun bat iduki nuen nigan, iges egin zuena allegatu baño lenagoko arratsaldean, eta Jaunak idiki zuen nere aoa, gizon au goizean nere aurrera etorri baño lenago: eta nola neukan aoa idikia, ez nintzan ixillik egon.

23. Eta itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

24. Gizonaren semea, Israelko lurreko ondamenen artean bizi diran aiek, onela itz egiten dute: Abraham gizon bakar bat zan, eta lur au herenziaz iduki zuen; gu berriz asko gera, eta eman zaigu bere jabetasuna.

25. Argatik esango diezu: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Zuek, jaten dituzutenak aragiak odolarekin, eta begiak zuen idoloakganontz jasotzen dituzutenak, eta gizonen odola isuritzen dezutenak, uste al dezute idukitzea herenziaz lur au, eta bere jabe izatea?

26. Iduki dezute beti ezpata eskuan; milla gauza nazkagarri egin dezute, zuetatiko bakoitzak bere projimoaren emaztea engañatu du, eta idukiko al dezute herenziaz lurra, eta bere jabeak izango al zerate?

27. Esango ere diezu: Onela itz egiten du Jaun Jainkoak: Juramentu egiten det nik, Jerusalengo ondamenen artean bizi diradenak, ezpataz galduak izango diradela. Kanpoan daudenak izango dira pistiai emanak, iretsi ditzaten, eta toki sendoetan eta aitz zuloetan bizi diradenak, izurriaz ilko dirade.

28. Eta lur au eremu eta bakartade eginik ipiñiko det, eta bere eskubide goratua utsean geldituko da, eta Israelko mendiak arrasatuak geldituko dirade, alako moduan, non, ez da iñor ere izango beretatik iragoko danik.

29. Eta ezagutuko dute ni naizala Jauna, beren alderria eremu eta bakartade bat eginik utzitzen dedanean, egin dituzten gauza nazkagarri guztien kastiguan.

30. Zure gañean berriz, o gizonaren semea, zure erriko semeak zugatik itz egiten dute murruaren aldean, eta etxeetako ateetan, eta irriz esaten diote batak besteari, aldekoak aldekoari: Ea, goazen aditzera zer esaten duen Jaunak profetaren bitartez.

31. Eta jendetza andiak dijoaz zugana, eta zure aurrean eseritzen dira nere errikoak, eta zure itzak aditzen dituzte; baña ez dituzte egitez kunplitzen, zeren berak beren kanten gai biurtzen dituzte; eta beren biotza zikoiztasunaren ondoren dijoa.

32. Eta zu zatoz berentzat izatera, musikan jarritako kanta bat bezela, boz gozo eta leunarekin kantatua. Berak zure itzak aditzen dituzte, baña esaten diezuna ez dute egiten.

33. Baña profetizatua izan dana gertatzen danean, (eta ona emen non aurki allegatuko dan berria) orduan ezagutuko dute, beren artean profeta bat izan dala.

OGEITA AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Berriz itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

2. Gizonaren semea, profetizatu ezazu Israelko artzaien gañean; profetizatu ezazu, eta esan zaiezu artzaiai: Ai Israelko artzaien, berak bazkatzen diradenen doakabeak! Ez al dirade artaldeak artzaiak bazkatuak izan bear dutenak?

3. Zuek beren eznearekin bazkatzen zerate; beren illearekin jantzitzen zerate; abererik gizenenak iltzen dituzute, baña ez dezute nere artaldea bazkatzen.

4. Etziñituzten sendotu ardi erbalak, etziñituzten sendatu eriak, etziñituzten mantarratu anka ausiak, etziñituzten ere bildu galduak, etziñaten ere joan agiri etziradenen billa; baizik agintzen ziñien berai gogortasunarekin eta urgulleriarekin.

5. Eta nere ardiak barreiatu dirade, artzairikan etzeukatelako; argatik etorri ziran, kanpoko pisti guztiak arrapatuak izatera, bideak galduta nola gelditu ziran.

6. Nere artaldea mendi guztietatik, eta muño goratu guztietatik galdua ibilli zan: barreiatu ziran nere artaldeak mundu guzitik; eta etzegoan beren billa joango zanik; iñor ere etzegoan, esaten det berriz, berak billatzen zituenik.

7. Argatik aditu ezazute, o artzaiak, Jaunaren itza.

8. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Juramentu egiten det nik, esaten du Jaun Jainkoak, nere artaldeak izan diradela utziak lapurretarako, eta nere ardiak kanpoko pisti guztiak iretsiak izateko, artzairik etzeukatelako; nere artzaiak etzituzten ezkero zaitzen nere eletaldeak, baizik begiratzen zien ezkero berak bazkatzeari, ez nere ardiak bazkatzeari;

9. Argatik aditu ezazute, o artzaiak, Jaunaren itza.

10. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Ona emen non nik neronek eskatuko diedan nere eletaldearen kontua artzaiai, eta berakingoa egingo dedan, beñere berriz nere artaldeen artzaiak izan ez ditezen; eta ez ditzaten beren buruak bazkatu, eta libratuko det nere eletaldea beren estarrietatik, onezkero beñere ez ditezen beren janaria izan.

11. Zeren oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Ona emen non ni nerau joango naizan nere ardien billan, eta ezagutuko ditut, eta zenbatuko ditut.

12. Nola artzaia dijoan bere artaldea ikusiaz, bere ardien erdian ikusten danean, bidea galduta ibillirik len; ala ikusiko ditut nik nere ardiak, eta bilduko ditut, odeitsu eta illuntasuneko egunean, barreiatuak izan ziraden toki guzietatik.

13. Eta nik aterako ditut errietatik, eta asko erreñutatik bilduko ditut, eta eramango ditut beren errira, eta Israelko mendietan bazkatuko ditut, errekaen aldean, eta lur onetako toki guztietan.

14. Bazka txit ugarietan bazkatuko ditut, eta Israelko mendi goratuetan beren bazkak egongo dirade. An egingo dute egerdi osteko loa belar berdearen artean, eta Israelko mendietako bazka ugariakin aseak geldituko dirade.

15. Nik, esaten du Jaun Jainkoak, nik neronek nere ardiak bazkatudo ditut, eta egineraziko diet egerdiosteko loa.

16. Ibilliko naiz galdu ziradenen billan, eta utziak izan ziradenak bilduko ditut; eta ausi-ateraren bat iduki zutenen zauriak, mantarratuko ditut; eta erbalai indarra emango diet, eta bizirik idukiko ditut lodi eta gizenak diradenak, eta guztiak zentzu eta jakinduriarekin bazkatuko ditut.

17. Zuei ordea, o nere artaldeak, oiek esaten dizkizute Jaun Jainkoak: Ona emen non nik juizioa egiten dedan aberearen eta aberearen artean, aritoen eta akerren artean.

18. Ez al zan zuentzat asko, bazka onak idukitzea? Baña zuek ere gelditzen zana zuen oñakin zapaldu zenduten; eta egarria iltzen zendutela ur txit garbietan, gelditzen zana zuen oñakin zikintzen zenduten.

19. Eta nere ardietatik askok bazkatuak izan bear zuten, zuek zuen oñakin zapaldu zendutenakin eta edan; zuen oñakin zikindu zenduten ura.

20. Argatik oiek esaten dizkizute Jaun Jainkoak: Ona emen non nik juizioa egingo dedan, abere gizen eta argalaren artean,

21. Zeren zuek zuen bizkar eta sorbaldakin jotzen zenduzten ardi argalak, eta zezenak bezela aizetzen zenduzten zuen adarrakin, kanpora bota eta barreiatzeko:

22. Nik salbatuko det nere eletaldea, eta ez da berriz geldituko ostua izan ditekean eran, eta juzgatuko det aberearen eta aberearen artean.

23. Eta jarriko det nere ardien gañean Artzai bakar bat, bazkatu ditzan, au da, Dabiden semea, nere serbitzaria, berak bazkatuko ditu, eta bera izango da beren artzaia.

24. Eta ni Jauna, beren Jaungoikoa izango naiz; eta Dabid nere serbitzaria izango da Prinzipea beren erdian. Nik Jaunak esan det.

25. Eta egingo det berakin pakeko elkartasun bat; eta pisti gaizto guztiak beren lurretik arras kenduko ditut; eta eremuetan bizi diradenak beldurrikan gabe lo egingo dute baso artean.

26. Eta bedeikazioz beteko ditut berak, eta nere mendi santuaren inguru guztiak. Eta bialduko ditut bere denboran euriak, eta bendizioko euriak izango dirade.

27. Eta kanpoko zuaitzak beren frutuak emango dituzte; eta lurrak bere muskillak, eta biziko dirade beren lurrean beldurrikan batere gabe; eta ezagutuko dute ni naizala Jauna, urratzen ditudanean beren uztarriaren kateak, eta ateratzen ditudanean azpian zeuzkatenen mendetik;

28. Eta ez dira berriz egongo erreñuak arrapatuak izateko eran, eta ez dirade ere izango lurreko pistiak iretsiak; baizik gozaro eta beldurrikan gabe atsedengo dute.

29. Eta nik erne eraziko diot berentzat muskill otspatsuari, eta ez dirade ere beren lurrean gosez illak izango; eta ez dute ere onezkero jendeen lotsaria eramango.

30. Eta ezagutuko dute ni Jauna beren Jaungoikoa berakin egongo naizala; eta berak, Israelko etxekoak, nere erria izango dirade, esaten du Jaun Jainkoak.

31. Zuek bada, o gizonak, zuek zerate nere artaldeak, nik bazkatzen ditudan artaldeak, eta ni zuen Jaun Jainkoa naiz, esaten du Jaun Jainkoak.

OGEITA AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Berriz itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

2. Gizonaren semea, zuzendu ezazu zure arpegia Seirko mendiaren kontra, eta profetizatuko dezu bere gañean, eta esango diozu:

3. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Ona emen non nagoan ni zure kontra, o Seirko mendia, eta nik aurtikiko det zure gañera nere eskua, eta arrasatua eta eremutua utziko zaitut.

4. Arras desegingo ditut zure erriak, eta iñor ere gabe geldituko zera, eta ezagutuko dezu ni naizela Jauna.

5. Beti etsaia izan zeralako, eta persegutu diezulako Israelko semeai ezpata eskuan daukazula beren atsekabeko denboran, beren zorigaitzik andieneko denboran;

6. Argatik juramentu egiten det nik, esaten du Jaun Jainkoak, zure odolaren mendean utziko zaitudala, eta zure odolak persegituko zaitu; eta zure odolari gorroto izan ziñiolako, argatik zure odolak persegituko zaitu.

7. Eta Seirko mendia arrasatua eta eremutua utziko det, eta egingo det ez dedilla an ikusi dijoanik, ez datorrenik.

8. Eta beren illez beren mendiak beteko ditut. Ezpataz iragoak izango dira zure muñoen gañean, zure ibarretan, eta zure erreketan.

9. Betiko eremu batera biurtuko zaitut, eta zure erriak iñor ere gabe geldituko dira. Eta ezaguko dezute Jaun Jainkoa ni naizela.

10. Esan zenduelako: Bi erreñu, eta bi lur dirade nereak, eta herenziaz bezela beren jabe izango naiz, izanik egia Jauna an zegoela.

11. Argatik juramentu egiten dizut nik, esaten du Jaun Jainkoak, nik tratatuko zaitudala zure beren kontrako aserrea, eta zure ondamua, eta zure gorrotoa diña diraden bezela; eta beren bitartez ezagutua izango naiz ni, zu juzgatzen zaitudanean.

12. Eta ezagutuko dezu, nik Jaunak aditu ditudala, zuk Israelko mendien kontra esan dituzun irainak, esaten dezula: Utziak daude, emanak izan zazkigu, iretsi ditzagun.

13. Eta nere kontra jaiki ziñaten zuen mingañakin, eta aurtiki zinduzten nere kontra zuen esate gaiztoak, nik aditu nituen.

14. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Mundu guztiko bozkarioarekin eremu eginik jarriko zaitut.

15. Nola zu poztu ziñan Israelko etxeko herenzia desegiña izandu zalako, ala nik ere zu desegingo zaitut. Arrasatua izango zera, o Seirko mendia, eta zu guziori, o Idumeako lurra. Ta ezagutuko dute, ni naizala Jauna.

OGEITA AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Baña zuk, o gizonaren semea, profetizatu ezazu Israelko mendien gañean, eta esango dezu: Israelko mendiak, aditu ezazute Jaunaren itza.

2. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Etsaiak zuekgatik esan duelako: Ongi, ongi dago, herenzian bezela eman zazkigu guri Israelko mendi betikoak.

3. Argatik profetizatu eta esan ezazu: Zuek izan zeratelako aldamen guzietatik arrasatuak, eta zapalduak, eta etorri zeratelako izatera beste erreñuen herenzia bezela, eta zabiltzatelako aoz ao, jendetzaren lotsari eginik.

4. Argatik aditu ezazute, o Israelko mendiak, Jaun Jainkoaren itza. Oiek esaten diezte Jaun Jainkoak mendiai, eta muñoai, eta errekai, eta ibarrai, eta eremuai, eta murru, beera aurtikiai; eta erri, gelditu diradenai utziak, eta beretan iñor ere bizi ez dala, eta inguruetako beste erreñu guzien irria diradenai.

5. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Nere zeloaren berotasunaren erdian itz egin det nik beste erreñuen kontra, eta Idumea guztiaren kontra; zeñak bozkarioz beteak atxitu dute berentzat, beren biotz eta borondate guziarekin nere lurra, eta aurtiki dituzte andik bere primuak, an zegoena arrapatzeko.

6. Argatik profetizatu ezazu Israelko lurraren gañean, eta esango diezu mendiai, eta muñoai, eta aitzadiai, eta ibarrai: Ona emen non nik itz egin dedan nere zelo eta sumintasunaren erdian, zuek irago dituzutelako erreñuen irriak.

7. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Nik jaso det nere eskua juramentu egiten dedala, zuen inguruan dauden erreñuak, berak eramango dutela beren gañean beren lotsaria.

8. Zuek ordea, o Israelko mendiak, bota itzatzute zuen muskillak, eta eman itzatzute zuen frutuak Israelko nere erriarentzat, zeren bere itzuliera katiberiotik, onezkero aldean dagoan.

9. Zeren ikusi nazazute emen, zuekganontz, zuekgana itzultzen naiz, eta goldeatuak eta ereinak izango zerate.

10. Eta ugarituko det zuekgan jendea, eta Israelko familia guztia, eta erriak berriz jendez beteak izango dirade, eta toki desegiñak berriztatuak.

11. Eta gizonez eta aberez beteko zaituztet, zeñak ugarituko diran eta aziko diran, eta egingo det, anziña bezela, jendez beteak izan zaitezela; eta emango dizkizutet ondasun andiagoak, asieratik iduki zenduztenak baño. Eta ezagutuko dezute ni naizala Jauna.

12. Eta eramango dizkizutet gizonak, ekarriko dizutet Israel nere erria, eta au izango da zuen jabea eta primua; eta zuek bere herenzia izango zerate, eta beñere ez da au berriz geldituko berak gabe.

13. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Zuekgatik esaten dutelako, zeratela lur bat, gizonak iretsitzen dituena, eta bere jendeak sabeleratzen dituena;

14. Argatik aurrerakoan ezin esango da zugatik, o Israelko lurra, gizonak jaten dituzula, ez zure jendea iltzen dezula, esaten du Jaun Jainkoak:

15. Bada nik egingo det ez dezazula berriz aditu erreñuen itz gaiztorik; eta ez dezazula ere iduki onezkero, irago bearrik errien lotsaririk, ez galdu ere iñoiz zugan bizi diradenak, esaten du Jaun Jainkoak.

16. Berriz itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

17. Gizonaren semea, Israelko familia bere lurrean bizi izan zan, eta beren obra eta oiturakin zikindu zuten. Beren bizitza zan nere begien aurrean, ilberadun emakumearen zikinkeria bezelakoa.

18. Eta nik aurtikiko det beren gañera nere aserrea, lurraren gañera isuri zuten odolaren kastiguan, zeñ beren idoloakin kutsutu zuten.

19. Eta nik erreñuen artean barreiatu nituen, eta aurtikiak izan ziraden onara, eta ara aize guzietara. Juzgatu nituen beren biziera eta egiteen araura.

20. Eta allegaturik errenuetara, zeñaen artean nik barreiatu nituen, nere izen santua desonratu zuten, esaten zala berakgaitik: Au da Jaunaren erria, bere lurretik oiek atera bear izan dira.

21. Barkatu nizuten bada nere izen sanduaren amorioagatik, zeñ Israelko etxeak desonratzen zuen, bizi zan erreñuen artean.

22. Argatik Israelko etxeari esan zaiozu: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Ez det zuekgatik egingo, o Israelko etxea, baizik nere izen sanduaren amorioagatik, zeñ zuek desonratu dezuten, bizi zeraten erreñuen artean.

23. Nik bada gloriaz beteko det nere izen andia, zeñ erreñuen artean desonratua arkitzen dan, zuek beren begietan desonratu dezutelako, jakin dezaten erreñuak, ni naizala Jauna, beren begien aurrean agertu dedanean zuekgan nere santutasuna, esaten du ejerzituen Jaunak.

24. Zeren nik erreñuen artetik aterako zaituztet, eta erri guzietatik bilduko zaituztet, eta eramango zaituztet zuen lurrera.

25. Eta ur garbia zuen gañera isuriko det, eta geldituko zerate zuen zikinkeria guzietatik garbituak, eta garbituko zaituztet zuen idolo guzietatik.

26. Eta biotz berri bat emango dizutet, eta espiritu berri bat zuen erdian ipiñiko det, eta kenduko det zuen gorputzetik arrizko biotza, eta aragizko biotz bat emango dizutet.

27. Eta nere espiritua zuen erdian ipiñiko det, eta egingo det nere aginteak gorde ditzatzutela, eta zaitu nere legeak, eta egiteakin kunplitu ditzatzutela.

28. Eta nik zuen gurasoai eman nien lurrean biziko zerate, eta zuek nere erria izango zerate; eta ni zuen Jaungoikoa izango naiz.

29. Eta zuen kutsu guzietatik garbituko zaituztet, eta gariari etorri eraziko diot, eta ugarituko det; beñere ez dizutet goserik irago eraziko.

30. Eta ugarituko ditut zuaitzen frutak, eta kanpoko uztak, erreñuak beñere arpegian eman ez dezazuten, gosez illak zaudetela.

31. Zuek orduan gogora ekarriko dituzute zuen oitura gaiztoak, eta gura txarrak, eta mingoiztasunarekin begiratuko diezute zuen gaiztakeria ta bekatuai.

32. Baña zuen amorioagatik ez det nik au egingo, esaten du Jaun Jainkoak, au jakinik iduki ezazute, eta nastu ta lotsatu zaitezte zuen bizieragatik, o zuek Israelko etxekoak.

33. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Zuen gaiztakeria guztietatik garbitzen zaituztedan egunean, eta zuen erriak jendez betetzen ditudanean, eta berriz egiten dedanean desegiña zegoena,

34. Eta ikusiko da landua, eremutua zegoan lurra, non len bideanteak ondamena baizik etzuen ikusten,

35. Esango dute: Lur landu gabe hura dago orain atsegiñezko jardin eginik; eta erri eremutuak, utziak, eta desegiñak, arkitzen dira orain berriz egiñak eta sendotuak.

36. Eta zuen inguruan geldituko diraden erreñu guziak, ezagutuko dute, nik Jaunak berriz egin nuela, desegiña zegoena; eta landu nuela, landu gabe zegoena. Nik Jaunak esan nuela, eta egitez egin nuela.

37. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: iritxiko ere du nigandik Israelko etxeak, nik au bere alde egin dezadala. Nik ugarituko ditut, giza talde bat bezela,

38. Talde santu bat bezela, Jerusalenen jai andietan ikusten dan taldea bezela; era berean egongo dirade, len eremutuak zeuden erriak, giza-taldez beteak bezela, eta ezagutuko dute, ni naizala Jauna.

OGEITA AMAZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Jaunaren bertutea sentituerazi zan nere gañean, eta atera ninduen kanpora Jaunaren espirituan; eta jarri ninduen, ezurrez betea zegoan kanpo baten erdian,

2. Eta egin erazi zidan jira bat beren inguruan, zeuden txit ugaritasun andian, zetzazan kanpoaren azalaren gañean, eta txit leortuak.

3. Jaunak bada esan zidan: Gizonaren semea, sinisten al dezu zuk, ezur oiek berriz bizitza iduki dizaketela? O Jaun Jainkoa, erantzun nuen nik, zuk badakizu!

4. Orduan berak esan zidan: Profetizatu ezazu ezur oien gañean, eta esango diezu: Ezur leorrak, Jaunaren itza aditu ezazute.

5. Oiek esaten diezte Jaun Jainkoak ezur oiei: Ona emen non nik sartuko dedan zuen barrenen espiritua, eta biziko zerate;

6. Jarriko ditut zuen gañean goizañak, eta egingo det azi ditezela aragiak zuen gañean, eta larruz estaliko ditut, eta emango dizutet espiritua, eta biziko zerate, eta jakingo dezute, ni naizala Jauna.

7. Eta profetizatu nuen agindu zidan bezela; eta ni profetizatzen ari nintzala, ots bat aditu zan, eta ona emen mugimendu andi bat. Eta ezurrak ezurrakin elkartu ziran, bakoitza bere lokazurretik.

8. Eta begiratu nuen, eta ikusi nuen beren gañean irtenaz zijoazela goizañak eta aragiak, eta gañetik larruz estalitzen ziradela, baña etzeukaten espirituik.

9. Eta Jaunak esan zidan: Profetizatu zaiozu espirituari, profetizatu zaiozu, o gizonaren semea, eta esango diozu espirituari: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Atoz zu, o espiritua, munduaren lau aldamenetatik, eta asnasa egin ezazu il oien gañean, eta berriz biztu bitez.

10. Profetizatu nuen bada, agindu zidan bezela; eta espiritua illetan sartu zan, eta berriz biztu ziran; eta gizon talde andi, eta txit ugari bat zutik jarri zan.

11. Eta Jaunak esan zidan: Gizonaren semea, ezur guzi oiek Israelko familia iruditzen dute. Berak (hebreotarrak) esaten dute: Gure ezurrak leortu ziran, eta gure itxedopena galdu zan; eta gu onezkero besanga ebaki batuzek gerade.

12. Argatik profetizatu ezazu zuk, eta esango diezu: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Begiratu ezazute; nik idikiko ditut zuen obiak, eta beretatik kanpora aterako zaituztet, o nere erria, eta zuen katiberiotik Israelko lurrera eramango zaituztet.

13. Eta ezagutuko dezute ni naizala Jauna, zuen obiak idikitzen ditudanean, o nere erria, eta beretatik ateratzen zaituztedanean,

14. Eta zuen barrenen nere espiritua sartzen dedanean, eta bizia idukiko dezute, eta emango dizutet eskua zuen lurrean atsedetzeko. Eta ezagutuko dezute nik Jaunak itz egin nuela, eta egitez egin nuela, esaten du Jaun Jainkoak.

15. Berriz Jaunak itz egin zidan, esaten zuela:

16. Eta zuk, o gizonaren semea, ar zazu zigor bat, eta eskribitu ezazu bere gañean, Judari, eta Israelko seme bere lagunai. Eta artu ezazu beste zigor bat, eta eskribitu ezazu bere gañean, Jose, Efraimgo zigorrari, eta Israelko familia guztiari, eta berarekin daudenai.

17. Eta alderatu zaiozu zigor bata besteari, biakin bat bakarra egiteko bezela, eta zure eskuan biak bat egingo dirade.

18. Orduan zure erriko semeak galdetzen dizutenean, esaten dutela: Ez diguzu adiraziko, zer iruditu nai dezun orrekin?

19. zuk erantzungo diezu: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Ona emen non nik artuko dedan Joseren zigor, Efraimen eskuan dagoena, eta Israelko tribu, berari itsatsiak daudenak; eta Judako zigorrarekin elkartuko ditut, eta egingo det berakin zigor bakar bat, eta bere eskuan bat bakarra izango dira.

20. Eta beren begien aurrean zure eskuan idukiko dituzu zigor aiek, zeñatan eskribitu zenduen;

21. Eta onela itz egingo diezu: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Ona emen non nik artuko ditudan Israelko semeak, joan ziraden erreñuen erditik, eta bilduko ditut aldamen guztietatik, eta beren lurrera eramango ditut.

22. Eta berakin erreñu bakar bat egingo det lurrean Israelko mendietan, eta errege bat bakarrik egongo da, guztiai agintzeko; eta beñere onezkero ez dituzte bi erreñu egingo, eta emendikan aurrera ez dira egongo bi erreñutan berezituak.

23. Ez dirade berriz kutsutuko beren idoloakin, ez beren gauza nazkagarriakin, ez beren gaiztakeria guztiakin. Eta nik aterako ditut gaitzikan batere artu gabe, berak bekatu egin zuten toki guzietatik, eta garbituko ditut, eta berak nere erria izango dirade, eta ni beren Jaungoikoa izango naiz.

24. Eta nere serbitzari Dabid izango da beren erregea, eta bat bakarra izango da beren guztien Artzaia, eta nere legeak gordeko dituzte, eta zaituko dituzte nere aginteak, eta egitez egiztatuko dituzte.

25. Eta biziko dira Jakob nere serbitzariari eman nion lurrean, zeñean zuen gurasoak bizi izan ziran; eta beratan biziko dira berak, eta beren semeak, eta beren semeen semeak beti; eta Dabid nere serbitzaria izango da beti beren Prinzipea.

26. Eta egingo det berakin pakeko elkartasun bat, zeñ izango dan berentzat betiko elkartasun bat, eta iraupen sendo bat emango diet, eta ugarituko ditut, eta nere Santuarioa beren erdian betiko ipiñiko det.

27. Eta beren aldean nere tabernakuloa idukiko det, eta ni beren Jaungoikoa izango naiz, eta berak nere erria izango dirade.

28. Eta erreñuak ezagutuko dute, ni naizala Jauna, Israelen Santututzallea, nere santuarioa beren erdian beti egongo danean.

OGEITA EMEZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Itz egin zidan Jaunak, esaten zuela:

2. Gizonaren semea, zuzendu ezazu zure arpegia Gojen kontra, Magojen lurrera, Mosok-ko eta Thubalko Prinzipe eta buruaganontz, eta profetizatu ezazu bere gañean,

3. Eta esango diozu: Ona emen non nagoan ni, o Gog, Mosok, eta Thubalko prinzipe eta burua.

4. Nik edonondik eramango zaitut, eta zure masalla-ezurretan brida bat ipiñiko det, eta kanpora aterako zaitut zu, eta zure martizti guztia, zaldiak, eta zaldizkoak, guztiak soiburniakin estaliak, muga gabeko jendetza, eskuan erabilliko dituena lantzak, ezkutuak, eta ezpatak.

5. Berakin egongo dira persak, etiopeak, eta Libiakoak, guztiak beren ezkutu eta martizti kapelakin.

6. Gomer eta bere gudari talde guztiak, Thogormaren familia, ifarreko aldamenean bizi diranak beren indar guziakin, eta beste erri asko zurekin arkituko dirade.

7. Prestatu zaite neri arpegi emateko; jarri zaite gudarako eran, bildurik zure inguruan zure jende talde txit ugaria, eta aginteak eman zaiozkazu.

8. Zeren asko egun iragota izango zera zu bisitatua, eta kastigatua. Urteen atzenean joango zera zu, ezpatatik libratua izan zan lur batera, eta zeñatan bizi diradenak, izan diraden bilduak asko erreñuen artean Israelko mendietan, zeñak denbora luzean eremutuak egon ziran; jende au erreñuen artetik aterea izan da, eta guztia biziko da pake osoan, esan dan lurrean.

9. Zu joango zera ara, eta sartuko zera ekaitz bat bezela, eta turmoe bat bezela lurra estalitzeko zure zaldizko talde guztiakin, eta zurekin dauden erri askoakin.

10. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Egun artan idukiko dituzu zure biotzean gogorazio urgullutsuak, eta asmazio gaiztoak asmatuko dituzu;

11. Eta esango dezu: Ni joango naiz murru gabeko lur batera, joango naiz erreñu baten kontra, zeñ dagoen atsedeten, eta bizi dan beldurrikan batere gabe; eta guztiak bizi dirade toki idikietan, aterikan, ez morrollorikan gabe.

12. Eta onela aberastuko zera arrapatzen dezunarekin, eta ondasun andien jabe egingo zera; eta ezarriko diezu eskua barreiatuak izan ziradenai, eta gero beren errian jarriak izan ziradenai, erreñuen artetik bildua izan dan erriari, zeñ asi zan lurreko erreñuen barren eta erdiari bezela begiratzen zitzaion lur baten jabe izaten, eta bertan biziten.

13. Saba, eta Dedanek, eta Tharsisko merkatariak, eta beren leoe guztiak esango dizute: Daukaguna arrapatzera al zatoz? Ona non bildu dezun zure jendea arrapatzeko ondasunak, artzeko zillarra eta urrea, eta eramateko tresnak, eta balio andiko gauzak, eta neurri gabeko aberastasunak.

14. Argatik profetizatu ezazu, o gizonaren semea, eta Goji esango diozu: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Zer bada! Ez al dezu zuk ongi jakingo, zeñ egunetan biziko dan nere erria pake osoan, eta beldurrikan batere gabe?

15. Zu aterako zera ifarreko aldameneko zure erritik, zurekin daramazkizula soldautegi andiak, guztiak zaldizko gudariak, zeñak egingo duten talde txit ugari bat, eta martizti sendo bat.

16. Eta zuzenduko zera Israel nere erriaren kontra, lurra estalitzen duen odei baten gisara. Atzeneko egunetan biziko zera zu, eta beretan nik nere lurrera eramango zaitut, erreñuak ezagutu nazaten; ala nik zugan, o Gog, argi egin eraziko diot nere santutasunari beren begien aurrean.

17. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Zu zera bada hura, zeñgatik nik anziña itz egin nuen, nere serbitzari Israelko profeten bitartez, zeñak denbora aietan profetizatu zuten, nik beren kontra ekarriko zindudala.

18. Eta egun artan, Gog Israelko lurrera allegatzen dan egunean, esaten du Jaun Jainkoak, igoko da nere aserrea nere sumintasunean.

19. Ala erabaki nuen zeloz beterik, eta aserrean erazekirik. Andia izango da egun artan Israelko lurreko mugimendua.

20. Eta nere aurrean geldituko dirade izutuak itsasoko arraiak, eta zeruko egaztiak, eta kanpoko pistiak, eta lurraren gañean mugitzen diran arrastakari guztiak; eta bertan dauden gizon guztiak; eta mendiak izango dirade beera aurtikiak eta eroriko dira baluarteak, eta lurretik joango dira murruak.

21. Eta ots egingo diot bere kontra nere mendi guzietan ezpatari, esaten du Jaun Jainkoak, bakoitzak bere anaiaren kontra ezpata zuzenduko du.

22. Eta kastigatuko det izurriarekin, eta ezpatarekin, eta eurite txit ugariakin, eta arrite ikaragarriakin. Su eta sufrezko euria egingo det bere gañeara, bere martiztiaren gañera, eta berarekin dijoazen erri askoren gañera.

23. Onekin egingo det ikusi dedilla nere anditasuna, eta nere santutasuna, eta ezagutu eraziko natzaie asko erreñuri; eta jakingo dute ni naizala Jauna.

OGEITA EMERETZIGARREN KAPITULUA

1. Orain zuk, o gizonaren semea, profetizatu ezazu Gojen kontra, eta esango dezu: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Ona emen non nagoan ni zure kontra, o Gog, Mosok eta Thubalen prinzipe eta burua.

2. Nik edozeñ tokitatik eramango zaitut, eta kanpora aterako zaitut, eta ifarraren aldamenetik etorri eraziko dizut, eta zuzenduko zaitut Israelko mendien gañera.

3. Eta desegingo det ezkerreko eskuan daukazun uztaia, eta zure eskuietik saietai erori eraziko diet.

4. Israelko mendien gañean eroriko zerate illik zu, eta zure ejerzitu guztiak, eta zurekin etortzen diraden erriak. Pistien, egaztien, eta egakizun guztien, eta lurreko pistien mendean jarri zaitut, iretsi zaitzaten.

5. Kanpoaren erdian zu galdua izango zera, zeren nik erabaki dedan, esaten du Jaun Jainkoak.

6. Eta sua botako det Magojen lurraren gañera, eta Gojen mendean dauden ugarteetan bizi diradenen gañera, zeñak beldurrikan batere gabe bizi diran. Eta ezagutuko dute ni naizala Jauna.

7. Eta egingo det nere izen santua ezagutua izan dedilla, Israel nere erriaren erdian; eta ez det laketuko emendikan aurrera nere izen santua gaizki erabillia izan dedilla, eta ezagutuko dute jendeak, ni naizala Jauna, Israelko santua.

8. Ona emen non allegatzen dn denbora, eta gauza egiña da, esaten du Jaunak: au da arako egun hura, zeñgatik nik itz egin nuen.

9. Eta aterako dira Israelko errietatik, eta bilduko dituzte sutarako, eta erreko dituzte armak, ezkutuak, lantzak, uztaiak, saietak, makillak eta pikak, eta zazpi urtean suaren erretzeko gaia izango dirade,

10. Alako moduan, non, ez dute kanpoetatik egurrik ekarriko; eta ez dirade ere basora joango ebakitzera, zeren armakin sua egingo dute; eta idukiko dituzte berai gauzak kendu zieztenen gauzak; eta berai gauzak arrapatu zieztenai, orain berak arrapatuko diezte, esaten du Jaun Jainkoak.

11. Egun artan nik izendatuko diot Goji bere obitzat toki otspatsu bat Israelen, Jenesaretko itsasoaren sortalderontz dagoen ibarra; ibar bat, bideanteak izuz beteko dituena, an obiratuko dituzte Gog, eta bere martizti guztia, eta taldearen ibarraren izena, edo Gojen ejerzituen izena geldituko zaio.

12. Eta Israelko familia ariko da berak obiratzen zazpi illa betean, lurra garbitzeko.

13. Eta obiratuko dute lurreko erri guztiak, eta izango da otspatsua, gloriaz betea izan naizan egun hura, esaten du Jaun Jainkoak.

14. Eta izendatuko dituzte gizonak, ibilli ditezen gelditu gabe toki guzietatik, gorputz illak obiratzeko, dijoazela, lurraren gañean obiratu gabe gelditu ziran gorputz illen billan, lurra garbitzeko, eta billakuntza oiek egiten asiko dira zazpi illabete iragota.

15. Eta jira egingo diote alderriari, eta beratatik ibilliko dira, eta giza ezurren bat ikusten dutenean, bere aldean siñale bat ipiñiko dute, aliketa obiratzalleak obiratu dezaten bitartean Gojen jendetzaren ibarrean.

16. Eta aldeko erriak idukiko du izentzat Amona, eta lurra garbitua utziko dute.

17. Zuri bada, o gizonaren semea, oiek esaten dizkizu Jaun Jainkoak: Esan zaiezu egakoi guztiai, eta egazti guztiai, eta kanpoko pisti guztiai: Bildu zaitezte, agudo ibilli zaitezte, eta aldamen guzietatik etorri zaitezte, nik Israelko mendien gañean jartzen dizkizutedan doañera, doañ andira, bere aragiak jan ditzatzuten, eta bere odola edan dezazuten.

18. Gizon sendoen aragiak jango dituzute, eta edango dezute lurreko Prinzipeen odola, aritoen, eta bildotsen, eta akerren, eta zezenen, eta abere bazkatuen, eta ele gizen guzien odola;

19. Eta jango dezute ase arteraño, nik zuentzat eskeñiko dedan doañaren gantza, eta bere odola edango dezute moskortu arteraño.

20. Eta jarriko dizutedan maiean, aseko zerate zaldiakin, eta zaldizko sendoakin, eta gizon gerrari guztiakin, esaten du Jaun Jainkoak.

21. Eta erakutsiko det nere gloria erreñuen artean, eta jende guziak ikusiko du artu dedan bengantza, eta nola beren gañera nere eskua luzatu dedan.

22. Eta egun artatik aurrera ezagutuko du Israelko etxeak, ni naizala bere Jaun Jainkoa.

23. Eta erreñuak ezagutuko dute, Israelko etxekoak beren gaiztakerien kastiguan katibu eramanak izan ziradela, utzi nindutelako, eta nik nere arpegiari berakgandik alde erazi nion, eta etsaien mendean jarri nituen, eta ala guztiak ezpataz galduak izan ziran.

24. Egin nuen berakin, bere zikinkeria eta gaiztakeriakgatik diña ziraden bezela; eta berakgandik nere arpegiari alde erazi nion.

25. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Nik orain, berriz ekarriko ditut Jakoben katibuak, eta Israelko familia guziarekin urrikalduko naiz, eta nere izen santuaren onraren zelotsu agertuko naiz.

26. Eta berak lotsa santu batez beteak geldituko dirade, eta nere kontra egin zituzten gaiztakeria guziakin damutuko dirade, beren lurrean bizi diradenean pake osoan, eta iñoren beldurrikan gabe;

27. Eta nik errien erditik ateratzen ditudanean, eta beren etsaien lurretan biltzen ditudanean, eta agertzen dedanean beretan nere santutasuna jende txit askoen begien aurrean.

28. Eta ezagutuko dute ni naizala beren Jaun Jainkoa; zeren erreñuetara eraman nituen, eta beren errira ekarri nituen, beretatik bat ere an utzi gabe.

29. Onezkero ez diet berriz nere arpegia ezkutatuko, zeren nere espiritua Israelko etxe guztiaren gañean isuriko dedan, esaten du Jaun Jainkoak.

BERROGEIGARREN KAPITULUA

1. Ogeita bosgarren urtean, katiberiora eramanak izanda gero; urtearen asieran, illaren amargarren egunean, erria arrasatua izan zanetik amalaugarren urtean, egun artan bertan sentitu erazi zan nere gañean Jaunaren bertutea, eta ara Jerusalenera eraman ninduen.

2. Eraman ninduen ikusketa Jaungoikoeriko batean Israelko lurrera, eta mendi txit goratu baten gañean ipiñi ninduen, zeñaen gañean zegoan eginda erria bezelako bat, zeñak Egoealderontz begiratzen zuen.

3. Eta bere barrenen sartu ninduen, eta ona emen gizon bat, zeñaen irudia zan brontzearena bezelakoa, eta bere eskuan zeukan linozko soka bat, eta beste eskuan kañabera bat neurtzeko; eta zegoan geldirik atean.

4. Eta gizon onek esan zidan: Gizonaren semea, begiakin ikusi ezazu, eta belarriakin aditu ezazu, eta jarri itzatzu zure biotzean, erakutsiko dizkizudan gauza guztiak; zeren berak erakutsiak izan ditzazkizun, onara ekarria izan zera; adirazi zazkiozu Israelko etxeari ikusten dezun guztia.

5. Eta ikusi nuen kanpoan, etxea ingurutzen zuen murru bat, eta arako gizonak, zeñaen eskuetan zegoan neurtzeko kañabera bat sei beso, eta arra batekoa, neurtu zuen etxearen zabalera, zeñ zan kañabera batekoa eta altura ere kañabera batekoa.

6. Eta joan zan sortaldeko bidera begiratzen duen atarira, eta bere mallak igo zituen, eta neurtu zuen atearen atalburua, zeñaen zabalera zan kañabera batena; au da, atalburuetatik bakoitzak zeukan kañabera bat zabalera.

7. Eta ganbara bakoitzak zeukan kañabera bat luzeeran, eta bat zabaleran. Eta ganbara baten eta bestearen artean bost beso zeuden.

8. Eta atearen atalburu, barrendiko atearen sarreraren aldekoak, kañabera bat zeukan.

9. Eta neurtu zuen ateko ataria, zeñ zan zortzi besokoa, eta bere aurkea bi besokoa; eta atearen ataria barrendiko aldamenean zegoan.

10. Sortaldeko ateko ganbarak ziran iru aldamen batetik, eta iru bestetik. Bat zan iru ganbaren neurria; eta aldamen bietako aurkeak, neurri berdiña zeukaten.

11. Eta neurtu zuen atearen atalburuko zabalera, zeñ zan amar besokoa, eta amairu besokoa bere zabalera.

12. Eta ganbaren aurrean zegoan ertza beso batekoa zan; eta bere neurri guztia beso batek egiten zuen aldamen batetik eta bestetik; eta aldamen bietako ganbarak, sei beso zeuzkaten.

13. Eta neurtu zuen atearen ataria ganbara baten ondotik bestearen ondoraño; eta zabaleran ogeita bost beso zeuzkan. Ganbara baten atea bestearen aurkez zegoan.

14. Eta neurtu zituen irurogei besoko aurkeak, eta aurkeari zegokion bezela egin zuen ateko ataria inguru guztian.

15. Eta ateko aurketik, atariaren beste aldameneko barrendik aurkeraño, berrogeita amar beso zeuden,

16. Eta leio zearrak atearen barrendik zeuden ganbara eta aurkeetan, aldamen guzietatik inguruan: bazeuden ere atariaren barrenen leioak inguruan, barrendiko aldamenetik; eta aurkeen aurrean palmen irudiak zeuden.

17. Eta eraman ninduen kanpoko atarira, eta ikusi nituen an ganbarak, eta atariaren bea zegoan inguruan arriz losatua. Bearen inguruan ogeita amar ganbara zeuden.

18. Eta bea ateen aurketan zegoan beerago ateen luzeeraren araura.

19. Eta neurtu zuen luzeera beeko atearen aurketik, barrendiko atariaren asierarаño kanpoko aldamenetik, eta zeuzkan eun beso sortaldetik, eta beste anbeste ifarretik.

20. Orobat neurtu zituen, ifar aldamenera dagoan kanpoko atariko atearen, ala luzeera, nola zabalera.

21. Eta bere ganbarak iru aldamen batetik, eta iru bestetik, eta bere aurkea eta bere ataria ziraden lenbiziko atearen neurrikoak, berrogeita amar beso luzeeran, eta ogeita bost beso zabaleran.

22. Eta bere leioak, eta ataria eta otalludurak ziran Sortaldera begiratzen zuen atearen neurriaren araukoak; eta ara igoteko zeuden zazpi malla, eta bere aurrean atari bat.

23. Eta barrendiko atariko atea zegoan kanpoko atariko atearen aurkez ifarrera ta Sortaldera, eta ate batetik bestera eun beso neurtu zituen.

24. Eta eraman ninduen Egoeko aldamenera, non zegoan Egoera begiratzen zuen atea, eta neurtu zituen bere aurkea eta bere ataria, zeñak ziraden besteen neurrikoak.

25. Baitaere bere leioak, eta bere atariak inguruan, ziran beste leioak bezelakoak, berrogeita amar besokoak luzeeran, eta ogeita bost zabaleran.

26. Eta igotzen zan ate onetara zazpi mallatatik, eta bere aurrean zeuden atari bat, eta palma otallutuak, bata aldamen batetik, eta bestea bestetik bere aurkean.

27. Barrendiko atariko atea Egoean zegoan, eta neurtu zituen atetik atera egoeko aldamenean eun beso.

28. Eta eraman ninduen barrendiko atarira, Egoeko atera, eta atea neurtu zuen, zeñak zeuzkan besteen neurriak berak,

29. Bere ganbarak eta aurkeak, eta atariak, eta bere leioak, eta bere atariak inguruan zeuzkaten neurri hurak berak, berrogeita amar beso luzeeran, eta ogeita bost zabaleran.

30. Eta inguruan zegoan atariak zeuzkan ogeita bost beso luzeeran, eta bost zabaleran.

31. Eta bere atariko leorpea kanpoko atarirontz zegoan. Bazeuden ere palmak aurkean, eta zortzi malla atera igotzeko.

32. Eta sartu ninduen barrendiko atarian bertan, sortaldeko atetik; eta neurtu zuen atea, zeñ zan besteen neurrietakoa beretakoa.

33. Bere ganbarak, bere aurkea, eta bere ataria goian bezala, eta leioak, eta atariak zeuzkaten inguruan berrogeita amar beso luzeeran, eta ogeita bost beso zabaleran.

34. Eta bere atariko leorpea zegoan kanpoko atarirontz, eta bere aurkean zeuden aldamen batetik eta bestetik palma otallutuak, eta zortzi mallatatik atera igotzen zan.

35. Eta eraman ninduen ifarrera begira dagoan atera, eta neurtu zuen besteen neurriakin berakin.

36. Bere ganbarak, eta bere aurkeak, eta bere atariak eta bere leioak inguruan, zeuzkaten berrogeita amar beso luzeeran, eta ogeitabost zabaleran.

37. Eta bere sarrera zegoan kanpotiko atarian, eta zeuden palma otallutuak, aldamen batetik eta bestetik, eta igotzen zan atera zortzi mallatatik.

38. Eta ganbara bakoitzean zegoan ostate bat, ateen aurkez, zeñaen aldean holokaustoa garbitzen zuten.

39. Eta ateko atarian zeuden bi mai aldamen batetik, eta bi bestetik, beren gañean iltzeko doañerako abereak, bekatuagatik, eta obenagatik eskeñtzeko.

40. Eta ifarrera begira dagoan atearen ostatera igotzen dan kanpotiko aldamenean zeuden bi mai, eta beste bi beste aldamenean, ateko atariaren aurrean.

41. Lau mai aldamen batetik, eta lau bestetik. Atearen aldamenetan zeuden zortzi mai, zeñaen gañean iltzen ziran abereak doañerako.

42. Eta holokaustorako lau maiak zeuden egiñak lau aurkeko arriakin, zeuzkatenak beso bat eta erdi luzeeran; eta beso bat eta erdi zabaleran; eta beso bat alturan, beren gañean ipintzeko holokausto eta doañerako abereak iltzeko bear ziraden erremientak.

43. Eta guztiak zeukaten inguruan arra bateko ertz bat, zeñ tolestzen zan barrendirontz, eta eskeñtzarako ogiak maien gañean ipintzen ziran.

44. Eta barrendiko atetik kanpora zeuden kantarien ganbarak, ifarrera begiratzen duen ateko aldamenean zegoan barrendiko atarian; eta beren aurkeak Egoera begira zeuden; bat zegoan ifarrera begiratzen duen sortaldeko atearen aldamenean.

45. Eta aingeruak esan zidan: Egoera begira dagoan ganbara au, Tenploa zaitzeko bellan dauden apaizentzat izango da.

46. Ifarreko aldamenerontz dagoan ganbara, aldarearen serbitzorako bellan dauden apaizentzat izango da. Oiek dirade Sadok-en semeak,

zeñak Lebiren jatorrikoak diraden, eta Jaunagana alderatzen dira, bera serbitzeko lanetan aritzeko.

47. Eta neurtu zuen ataria, zeñak zeuzkan eun beso luzeeran, eta eun beso lau aurkeko zabaleran, eta Tenploaren aurkearen aurrean zegoan aldarea.

48. Eta sartu ninduen Tenploaren atarian; eta neurtu zuen ataria, zeñak zeuzkan bost beso aldamen batetik eta bost beso bestetik; eta atearen zabalerak iru beso aldamen batetik eta iru bestetik.

49. Eta atariaren luzeera ogei besokoa zan, eta amaika besokoa zabalera, eta zortzi mallatatik igotzen zan atera. Eta aurkean bi abe zeuden, bata aldamen batetik, eta bestea bestetik.

BERROGEITA BATGARREN KAPITULUA

1. Eta sartu ninduen aingeruak tenploan, eta neurtu zituen abeak, zeñak zeuzkaten sei besoko zabalera aldamen batetik, eta sei besokoa bestetik; zeñ zan anziñako Tabernakuloaren zabalera.

2. Atearen zabalera amar besokoa zan, eta bere aldamenak zeuzkaten bost beso bakoitzak. Eta Santuaren luzeera neurtu zuen, eta berrogei beso zeuzkan, eta bere zabalerak ogei beso.

3. Eta sarturik barrenera barrenen, neurtu zuen atearen abe bat, zeñ zan bi besokoa, eta atea sei besokoa, eta idikiera onez gañera zazpi beso zabaleran atetik bazter bakoitzera.

4. Eta neurtu zuen bere luzeera, eta arkitu zuen zala ogei besokoa, eta bere zabalera ogei besokoa, Tenploaren aurkean, eta esan zidan: Au da santuen Santua.

5. Eta neurtu zuen etxearen paretaren lodiera, zeñ zan sei besokoa; eta aldamenen zabalera etxearen inguru guztitik, lau besokoa zan.

6. Eta aldamenak, elkarturik bata bestearekin, egiten zituzten, bi alditan ogeita amairu ganbara; eta zeuden zurkoskak kanpora ateratzen ziradenak, eta inguruan aldamenetatik etxeko paretan sartzen ziradenak, iduki zitzaten berezituak ganbarak, oiek tenploaren paretari ukiturik egin gabe.

7. Eta bazegoan toki biribil bat, barakullo zurubia batekin, nondik goira igotzen zan; eta jirak emanik zuzentzen zan Tenploko ganbararik goratuenera, alako moduan, non, Tenploa zan zabalena tokirik goratuenean; eta bebeetik igotzen zan erdiko tokiraño, eta emendik tokirik goratuenera.

8. Eta ikusi nuen etxearen altura inguruan, bere aldamenen barrendiko uts eta ingurua zan sei besoko kañabera baten neurrikoa.

9. Eta kanpoko aldameneko paretaren zabalera, bost besokoa zan; eta etxea, aldamen oiek ingurutua zegoan.

10. Eta ganbaren artean zegoan etxearen inguruan, aldamen guztietatik ogei besoko toki bat.

11. Eta ganbaretako ateak oraziora joateko ziraden, ate bat Ifarrera, eta beste bat Egoera. Eta oraziorako tokiak zeuzkan zabaleran aldamen guzietatik bost beso.

12. Eta berezitua zegoan, eta itsasora begiratzen zuen etxeak, zeuzkan zabaleran irurogeita amar beso, eta etxearen paretak bost beso zabaleran aldamen guzietatik, eta larogeita amar luzeeran.

13. Eta neurtu zuen etxearen luzeera, eta zan eun besokoa; eta tenplotik berezitua zegoan etxeak, bere paretakin, eun beso zeuzkan luzeeran.

14. Eta etxearen aurrean eta beste etxearen aurrean Sortalderontz berezitua zegoan plazak, zeuzkan eun beso.

15. Eta neurtu zuen berezitua arkitzen zanaren aurrean zegoan etxearen luzeeran, eta zeñ zegoan atzean, aldamen bietatik galeriak zituela, eta zan eun besokoa; eta neurtu zituen tenploaren barrena, eta atariaren aurreak:

16. Neurtu zituen atalburuak, eta leio zearrak, eta Tenploaren iru aldamenetan inguruan zeuden galeriak, atalburu bakoitzaren aurkez, au guzia zegoan zurez estalia; guzia neurtu zuen beetik leioetaraño, eta ateen gañeko leioak itxiak zeuden.

17. Eta neurtu zuen etxearen barrenerañokoa, eta kanpoko aldamenetik pareta guztia inguruan barrendik, eta kanpotik, neurriaren araura.

18. Eta zeuden kerubin eta palmazko otalludurak, zeren kerubin baten eta bestearen artean zegoan palma bat, eta kerubin bakoitzak bi arpegi zeuzkan.

19. Gizonaren arpegia, palma batganontz itzulia aldamen batetik; eta leoiaren arpegia beste palmaganontz beste aldamenetik; galatzean itsatsiak Tenploaren inguru guztian.

20. Kerubin eta palmen otallu oiek zeuden tenploko paretean beetik atearen alturaraño.

21. Atea lau aurkekoa zan, eta santuarioaren aurkeak begiratzen zuen aurkez tenploarenera.

22. Zurezko aldarearen altura, iru besokoa zan; eta bere luzeera, bi besokoa; eta bere kantoinak, eta bere gaña eta bere aldamenak zurezkoak ziran. Eta aingeruak esan zidan: Ona emen Jaunaren aurrean dagoan maia.

23. Eta tenploan eta santuarioan bi ate zeuden.

24. Eta bi ate oietan zeuden aldamen batetik, eta bestetik beste ate txiki bi, zeñak bata bestearen gañean tolestzen ziran, zeren ateen aldamen bateko, eta besteko orriak bi ziran.

25. Eta esan diran tenploko ateetan, kerubinak eta palma otallutuak zeuden; nola paretetan ere galatzean ikusten ziran; argatik kanpoko atariaren aurkean abeak lodiagoak ziran,

26. Zeñaen gañean zeuden zearreko leioak; eta palmen irudiak aldamen batetik eta bestetik galeriako erpiñetan, luzeeran etxearen osteetan, eta pareten zabaleran.

BERROGEITA BIGARREN KAPITULUA

1. Eta atera ninduen tenplotik kanpora, kanpoko etxeurubera, ifarrera dijoan bidetik, eta sartu ninduen, etxe bereziaren aurrean dauden ganbaretan, eta etxearen aurrean ifarrera begiratzen duen aldamenetik.

2. Aurkean zeuzkan tenplo onek eun beso luzeeran ifarreko atetik, eta berrogeita amar zabaleran,

3. Barrendiko atariaren aurrean ogei besokoa, eta kanpoko atariko zelai arlosatuaren aurrean, non zegoan iru aldamenetako iru etxeurubeakin biltzen zan etxeurubea;

4. Eta ganbaren aurrean zegoan galeria bat, amar besokoa zabaleran, zeñak begiratzen zuen barrendiko aldamenera, eta zeukan aurrean borde bat beso batekoa. Bere ateak ifarrera zeuden,

5. Non zeuden ganbararik beerenak goiko zelaian, zeudelako etxeurubeen gañean, zeñak ateratzen ziran kanporago etxearen bean eta erdian.

6. Zeren zeuden iru bizitoki, eta ganbara aiek etzeukaten aberik, nolakoak ziran urubeetako abeak; argatik jaikitzen ziran lurretik berrogeita amar beso, beeko eta erdiko egolekuak barrenen sartzen ziradela.

7. Eta barrendiko inguruak ganbaren luzeeran, zeñak zeuden kanpoko etxeurubeko iraitzean, ganbaren aurrean, zeuzkan luzeeran berrogeita amar beso.

8. Zeren kanpotiko atariko ganbaren luzeera zan berrogeita amar besokoa; eta luzeera tenploaren aurkearen aurrean, eun besokoa.

9. Eta ganbara oien azpian zegoan iragotzeko bide bat Sortaldera, sartzeko beretan kanpoko etxeurubetik.

10. Berezitua zegoan etxearen aurkearen sortaldeko aldamenaren aurrean zegoan etxeurubearen inguruko zabaleran, zeuden ere ganbarak etxe onen aurrean.

11. Eta beren aurreko iragotzeko bidea zan ifarrean zeuden ganbarenen antzekoa; iragotzeko bide onen luzeera zan aiena bezelakoa, eta berdiña bataren eta bestearen zabalera, eta ala, beren sarrerak, eta bere irudia eta bere ateak,

12. Zeñak ziran Egoean zeuden ganbararen ateak bezelakoak, zeukaten ate bat iragopidearen buruan, eta iragopide au zegoan etxeurubearen aurrean sortaldetik zetorrenarentzat.

13. Eta aingeruak esan zidan: Etxe berezituaren aurrean dauden ifarreko ganbarak, eta Egoeko ganbarak, dira ganbara santuak, zeñaetan jango duten, Santuarioan Jaunagana alderatzen diran apaizak. An sartuko dituzte gauza txit santuak, eta eskeñia bekatuagatik eta obenagatik; zeren toki hura santua dan.

14. Eta apaizak sartuak diradenean, ez dira aterako toki santutik kanpoko etxeurubera, baizik utziko dituzte an beren lanetan ari diradenean dauzkaten jantziak; zeren santuak diraden; eta artuko dute beste jantzi bat, eta ala errira aterako dirade.

15. Eta aingeruak neurtu zuenean etxea barrendik, kanpora atera ninduen, Sortaldera begiratzen duen atetik, eta neurtu zuen etxea aldamen guztietatik inguruan.

16. Neurtu zuen Sortaldeko aldamenetik neurtzeko kañaberarekin, eta iduki zuen bosteun kañaberaen neurria inguruan.

17. Eta ifarraren aldetik iduki zuen bost eun kañabera neurtzekoen neurria inguruan.

18. Eta Egoeraren aldamenetik iduki zuen bosteun kañabera nuertzekoen neurria inguruan.

19. Eta Sartaldearen aldamenetik iduki zuen bost eun kañabera neurtzekoen neurria inguruan.

20. Lau aizeetatik neurtu zuen bere pareta aldamen guztietatik inguruan, eta iduki zituen bosteun beso luzeeran, eta bosteun beso zabaleran; pareta onek berezitzen du santuarioa erriaren tokiagandik.

BERROGEITA IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta aingeruak eraman ninduen kanpoko aldameneko atariko ate, Sortaldera begiratzen duenera.

2. Eta ona emen non Israelko Jaungoikoaren gloria sartzen zan sortaldeko atetik, eta berak egiten zuen dunbotsa zan ur askoren dunbotsa bezelakoa, eta bere anditasunak argi egin erazitzen zion lurrari.

3. Eta iduki nuen ikusketa bat, Jauna erria desegitera etorri zanean iduki nuena bezelakoa; eta bere arpegiko era zan, Kobar ibaiaren aldean ikusi nuen irudia bezelakoa, eta nere arpegiaren gañean auzpeztu nintzan.

4. Eta Jaunaren anditasuna tenploan sartu zan sortaldera begiratzen duen atetik.

5. Eta espirituak arrapatu ninduen, eta eraman ninduen barrendiko atarira; eta ona non tenploa Jaunaren gloriaz betea zegoan.

6. Eta aditu nuen nola Etxetik itz egiten zidan, eta nere aldean zegoan gizon hurak,

7. Esan zidan: Gizonaren semea, ona emen nere tronuaren tokia, eta nere oñak ipiñiko ditudan tokia, eta non idukiko dedan nere bizilekua Israelko semeen artean betiko. Israelko familiakoak ez dute kutsutuko onezkero berriz nere izen santua, ez berak, ez beren erregeak beren fornikazioakin, beren erregeen gorputz illakin, eta oratorioakin toki santuetan.

8. Berak egin zuten beren atea nere atearen aldean; eta beren abeak nere abeen aldean; eta nere eta beren artean paret bat baño etzegoan, eta kutsutu zuten nere izen santua, egin zituzten gauza nazkagarriakin. Argatik aserrez betea nengoala desegin nituen.

9. Orain bada aurtiki bitzate nigandikan urrutira beren idolatriak, eta beren erregeen gorputz illak, eta ni beren erdian beti biziko naiz.

10. Baña zuk, o gizonaren semea, erakutsi zaiezu tenploa Israelko etxekoai, eta lotsatu bitez bere gaiztakeriakgatik; eta fabrika neurtu bezate.

11. Eta bere biziera gatik lotsatu bitez, erakutsi zaiezu tenploaren irudia; etxearen irteerak, eta sartuerak, eta bere era guztia, eta bere zeremonia guztiak, eta nola egin bear diran bertan gauzak, eta bere lege guztiak. Eta guztia beren aurrean eskribituko dezu, zaitu dezaten bertan ematen dan era guztia, eta bere zeremoniak, eta egitez kunplitu ditzaten.

12. Au da mendi santuaren erpiñaren gañean egingo dan etxeko legea. Bere aldamen guziak inguruan txit santuak dirade. Alakoa da bada etxe onetako legea.

13. Oiek dirade bada aldarearen neurriak, beso txit zuzen batekin egiñak, zeñak zeuzkan beso bat eta arra bat. Odiak zeukan beso bat alturan, eta beso bat zabaleran; eta bere ertzaren inguru guztitik jaikitzen zan odiaren atzena, arra batekoa zan. Onelakoa zan aldarearen lurrobia.

14. Eta lurrean zegoan oditik beerengo ondoperaño, bi beso, eta zabalera beso batekoa zan; eta beerengo ondopetik gorengo aoraño, zeuden lau beso alturan, eta beso bat zabaleran.

15. Eta Arielak berak lau beso zeuzkan alturan; eta Arieletik lau ziameta gorontz jaikitzen ziran.

16. Eta Arielak amabi beso zeuzkan luzeeran; eta bi beso zabaleran. Lau aurke aldamen berdiñetakoak zeuzkan.

17. Eta bere ondopearen ertzak zeuzkan amalau beso luzeeran, eta amalau zabaleran bere lau kantoi guztietan, eta aldarearen inguruan zegoan arpain bat beso erdikoa, eta bere barrena beso erdi inguruan, eta bere mallak sortaldera begiratzen zuten.

18. Eta aingeru hurak esan zidan: Gizonaren semea, oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Oiek dirade aldareari dagozkion zeremoniak, egina dan denborarako, eskeñi dedin bere gañean holokaustoa, eta odola isuri dedin.

19. Eta zuk erakutsiko diozkazu Sadok-en jatorrikoak diraden, eta nere aurrera alderatzen diraden apaiz eta lebitai, esaten du Jaun Jainkoak, eskeñtzeko neri bei taldeko txal bat bekatuagatik.

20. Artuko dezu zuk bere odoletik, eta aldarearen lau ertzen gañean botako dezu, eta ondopearen lau kantoien gañean, eta arpaiñaren gañean inguruan, eta ala aldarea garbitu eta zurituko dezu.

21. Eta bekatuagatik eskeñitako txal hura artuko dezu, eta erreko dezu tenplotik berezitua dagoan toki batean, santuariotik kanpora.

22. Eta bigarren egunean aker bat eskeñiko dezu, utsik ez daukana bekatuagatik, eta aldarea garbituko da, txalarekin garbitu zan bezela.

23. Eta aldarea garbituta bereala, eskeñiko dezu beitaldeko txal errenkura gabeko bat, eta artaldeko arito bat, au ere errenkura gabea.

24. Eta Jaunaren aurrean eskeñiko dituzu, eta apaizak gatza beren gañera botako dute, eta Jaunari holokaustoan eskeñiko diozkate.

25. Zazpi egunean egunoro eskeñiko dezu aker bat bekatuagatik; eta beitaldeko txal bat, eta artaldeko ari bat, guziak errenkura gabeak.

26. Zazpi egunean aldarea zurituko dute eta garbituko dute, eta konsagratuko dute.

27. Kunpliturik egunak, zortzigarren egunean, eta andikan aurrera, apaizak eskeñiko dituzte zuen doañak, eta opari paketsuak. Eta ni zuekin adiskidetuko naiz, esaten du Jaun Jainkoak.

BERROGEITA LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta aingeruak itzuli erazi zidan kanpotiko santuarioko atera, zeñak sortaldera begiratzen zuen, eta zegoan itxia.

2. Eta Jaunak esan zidan: Ate au itxia egongo da, eta ez da idikiko, eta iñor ere ez da beratatik iragoko, zeren beratatik Israelko Jaun Jainkoa sartu dan; eta itxia egongo da,

3. Prinzipearentzat. Prinzipea bera geldituko da atearen sarreran, ogia jateko Jaunaren aurrean. Atariko atetik sartuko da, eta beratatik aterako da.

4. Eta eraman ninduen ifarreko ateko bidetik Tabernakuloaren aurrera, eta begiratu nuen, eta ona emen non Jaunaren gloriak Jaunaren etxea bete zuen. Eta ni nere arpegiaren gañean auzpeztu nintzan.

5. Eta Jaunak esan zidan: Gizonaren semea, egon bedi zur zure biotza, eta ikusi itzatzu zure begiakin, eta aditu itzatzu zure belarriakin, nik esaten dizkizudan gauza guztiak, Jaunaren etxeko zeremonia guztien gañean, eta berari dagozkion lege guztien gañean, eta arreta andi bat ipiñiko du zure biotzak, zaitzeko tenploko oiturak, santuarioan egiten diran gauza guztietan.

6. Eta esango diozu Israelko familiari, zeñak aserretu erazitzen didan: Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Zuen gaiztakeriak asko dirade onezkero, o Israelko familia.

7. Zeren nik ikusten dedan oraindikan ere sartzen dezutela jende arrotza, biotzean zirkunzidatu gabea, eta aragian ere zirkunzidatu gabea, nere santuarioan egoteko, eta nere etxea kutsutzeko, eta eskeñtzeko neri ogiak, eta gantza, eta odola. Eta onela zuen gaiztakeria guztiakin nere elkartasuna ausitzen dezute.

8. Ez dituzute ere nere santuarioko legeak zaitu, eta zuek zerok autu dituzute, nere santuariorako erakutsi nituen zeremonien gordetzalleak.

9. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Biotzez zirkunzidatu gabeko arrotzik batere, ez aragian zirkunzidatu gabekorik, ez Israelko semeen artean bizi dan arrotzaren semerikan batere, ez da nere santuarioan sartuko.

10. Baña Lebiren jatorrikoak, nigandikan urrutira alde egin zutenak, Israelko semeen utsegitean, eta joan ziradenak nigandik beren idoloen ondoren, eta artu zutenak beren gaiztakeriaren kastigua;

11. Oiek bakarrik izango dirade nere santuarioan gordetzalleak, eta etxeko ateetako atezaiak, eta bertako serbitzariak. Berak ilko dituzte abereak erriaren holokausto eta doañetarako, eta egongo dirade erriaren aurrean, bera serbitzeko.

12. Zeren beren idoloen aurrean ere serbitu zuten, eta berak izan ziraden gaitzbideko arria Israelko familiarentzat, gaiztakerian erori zedin. Argatik nik altxatu nuen nere eskua beren kontra, esaten du Jaun Jainkoak, eta juramentu egin nuen, eramango dutela beren gaiztakeriaren ordaña.

13. Eta ez dirade nigana alderatuko, nere apaizen lanetan aritzeko; eta ez dirade ere allegatuko nere santuarioko gauza batera ere, santuen santuaren aldean; baizik eramango dute berakin beren lotsaria, eta egin zituzten gaiztakerien kastigua.

14. Jarriko ditut bada etxeko atezaitzat, eta bertako serbitzaritzat, bear dan guztirako.

15. Baña arako apaiz eta lebita Sadok-en semeak, zeñak nere santuarioko zeremoniak zaitu zituzten, Israelko semeak nigandik alde egin zutenean, oiek alderatuko dirade nigana ni serbitzeko, eta egongo dirade nere aurrean, eskeñtzeko neri gantza eta odola, esaten du Jaun Jainkoak.

16. Eta berak nere santuarioan sartuko dirade, eta alderatuko dira nere maira ni serbitzeko, eta nere zeremoniak gordetzeko.

17. Eta barrendiko atariko ateetan sartzen diradenean, linozko arropakin jantziko dira, eta ez dute gañetik eramango ardi illezko gauzarik beren lanetan ari diraden artean, barrendiko atariko ateetan eta barrenago.

18. Beren buruetan linozko fajak erabilliko dituzte, eta beren gerrien gañean linozko galtxuriak; eta ez dituzte geiegi estutuko, izerdirik atera ez dizaien.

19. Eta kanpoko atarira ateratzen diradenean, non dagoan erria, kenduko dituzte beren lanetan ari diradenean iduki dituzten soñekoak, eta santuarioko ganbaretan utziko dituzte, eta beste arropa batzukin jantziko dirade, ez dezaten erria konsagratu soñeko aien ukituarekin.

20. Eta ez dute arras moistuko burua, eta ez diote ere utziko illeari azitzen; baizik laburtuko dute artaziakin ebakitzen dutela.

21. Eta apaiz batek ere ez du ardorik edango, barrendiko atarian sartuko danean.

22. Eta ez dira ezkonduko alargunarekin, ez utziarekin, baizik Israelko etxeko jatorriko birjiña batekin, baña ezkondu ere litezke, beste apaiz baten andre alargunarekin.

23. Eta erakutsiko diote nere erriari jakiten zer dan gauza santua, eta zer dan gaiztoa; zer dan garbia, eta zer zikiña.

24. Eta ezbairen bat dagoanean, nere erabakietan egongo dira, eta beren araura juzgatuko dute. Zaituko dituzte nere legeak, eta nere aginteak nere jai andi guztietan, eta nere larunbatak santutuko dituzte.

25. Eta ez dirade alderatuko gorputz illen bat dagoan tokira, onekin kutsutuak gelditu ez ditezen; ez baldin bada aita, edo ama; semea edo alaba, anaia edo arreba senarrik iduki ez duena, eta oiekgatik ere legeko zikinkeriaren batekin kutsutuak gelditu dira.

26. Eta apaiza garbituta gero, zazpi egun kontatuko zaiozka.

27. Eta Santuarioan sartzen dan egunean, barrendiko atarian nere lanetan aritzeko Santuarioan, doañ bat bere bekatuagatik eskeñiko du, esaten du Jaun Jainkoak.

28. Eta apaizak ez dute herenziarik idukiko. Beren herenzia ni naiz, eta ala ez diezute berai emango Israelen ezeren ere jabetasunik, zeren berak jabe diraden gauza, ni naizan.

29. Berak jango dute bekatuagatik eta obenagatik eskeñitako doañaren aragia, eta Israelek botoz egiten dituen eskeñtza guztiak, berenak izango dirade.

30. Apaizenak izango ere dirade lenbiziak, edo lenbizi guztiaren eskeñtzak, eta eskeñtzen dan guztiaren libazioak; eta apaizai emango diezteZute zuen janari guztien lenbiziak, onek zuen gañera bedeikazioa ekarri dezan.

31. Egaztien, ez berez ildako, edo beste pistiren batek ildako abereren gauzarik batere, ez dute apaizak jango.

BERROGEITA BOSGARREN KAPITULUA

1. Asitzen zeratenean lurrak partitzen suertean familien artean, berezitu ezazute lenbizia bezela Jaunarentzat lurraren zati bat, ogeita bost milla neurrikoa luzeeran, eta amar millakoa zabaleran. Santutua geldituko da lur guzti au inguruan.

2. Lur zati guzti onetatik berezituko dezute, Jaunari konsagratua izateko, bosteun neurriko lauaurkeko bat aldamen bakoitzetik, eta berrogeita amar besoko toki uts bat inguru guztian.

3. Eta neurri onekin beronekin neurtuko dezute ogeita bost milla beso luzeeran dauzkan lur zati bat, eta bere zabalera amar milla, eta lur zati onetan egongo dira tenploa, eta Santuen Santua.

4. Lur zati, Jaungoikoari konsagratutako au, izango da apaiz, santuarioko ministroentzat, zeñak ari diran Jaunaren serbitzoko lanetan, eta toki au izango da beren etxeentzat, eta santutasuneko santuarioarentzat.

5. Egongo ere dirade beste ogeita bost milla beso luzeeran, eta amar milla zabaleran, tenploa serbitzen ari diraden Lebitentzat, zeñak idukiko dituzten ogei bizitoki apaizenen aldean.

6. Eta jabe izan dedin erria, Israelko familia guztiarentzat berdiña, izendatuko dituzute bost milla neurri zabaleran, eta ogeita bost milla luzeeran, santuarioaren, berezitutako zatiaren aurrean.

7. Prinzipeari ere emango diozute bere anoa, aldamen batean eta bestean, santuarioarentzat eta bere ministroentzat berezitutako zatiaren aldean, eta erriarentzat berezituaren aldean, itsasoaren aldamen batetik besteraño, eta sortaldeko aldamen batetik besteraño. Lur zatien luzeera berdiña izango da zati bietatik bakoitzean, bere sartaldeko mugatik sortaldekoraño.

8. Prinzipeak idukiko du lurraren zati bat Israelen. Eta Prinzipeak emendikan aurrera ez diote ezerere kenduko nere erriari, baizik emango diote lurra Israelko etxeari beren tribuen araura.

9. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Asko izan begizute onezkero au, Israelko Prinzipeak, utzi zaiezute gaiztakeriari, eta lapurretai, egin ezazute justizia, eta ibilli zaitezte zuzentasunarekin, berezitu itzatzute zuen mugak nere erriarenetatik, esaten du Jaun Jainkoak.

10. Izan bedi zuzena zuen balanza, eta zuzena zuen efia, eta zuzena zuen batoa.

11. Eta efia eta batoa izango dira berdiñak eta neurri batekoak, alako moduan, non, batoa izan dedin koroaren amargarren zatia, eta efia koroaren amargarren zatia. Beren pisua berdiña izango da koroaren neurriaren araura.

12. Sikloak dauzka ogei obolo; eta ogei siklok ogeita bost siklorekin, eta beste amabost siklorekin egiten dute mina bat.

13. Zuek bada eskeñiko dituzuten lenbiziak oiek izango dirade: Gariaren koro bakoitzetik efi baten seigarren zatia, eta garagar koro bakoitzetik, efi baten seigarren zatia.

14. Olioaren neurriaren gañean berriz, oliozko bato bat emango da, koro bakoitzaren amargarren zatia, amar batok koro bat egiten dute, zeren au, amar batorekin betea gelditzen dan.

15. Eta Israelen azitzen dan berreun buruko artalde bakoitzetik emango dezute, ari bat eskeñtzetarako, eta doañ paketsuetarako, berakgatik garbituak izan zaitezten, esaten du Jaun Jainkoak.

16. Lurreko erri guztiak eman bearko diozka lenbizi oiek Israelko Prinzipeari.

17. Eta Prinzipeari dagokio ematea bear dana holokaustoetarako, doañetarako, eta libazioetarako egun andietan, eta kalendetan, eta larunbatetan, eta Israelko etxeko jai andi guztietan, berak eskeñiko du oparia bekatuagatik; eta holokaustoa eta doañ paketsuak, Israelko familia garbitua izateko.

18. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Lenbiziko illean, illaren lenbiziko egunean, artuko dezu beitaldetik errenkura gabeko txal bat, eta santuarioa garbituko dezu.

19. Eta apaizak artuko du bekatuagatik eskeñitako doañaren odola, eta intzatuko ditu berarekin tenploko ateko abeak, eta aldarearen ertzaren lau kantoinak, eta barrendiko atariko atearen abeak.

20. Eta orobat egingo dezu illaren zazpigarren egunean, ezjakiñez eta gaiztoz bekatu egin zuten guztiak gatik, eta ala garbituko dezu tenploa.

21. Lendabiziko illean, illaren amalaugarrenean, zelebratuko dezute Paskoako jai andia, zazpi egunean ogi legamigabekoak jango dituzute.

22. Eta egun artan Prinzipeak eskeñiko du beragatik, eta lurreko erri guztiagatik txal bat bekatuagatik.

23. Eta zazpi egun andi aietako denboran eskeñiko diozka Jaunari holokaustoan, zazpi txal eta zazpi ari errenkura gabeak, egun bakoitzean zazpi egun aietako denboran, eta aker bat bekatuagatik egun bakoitzean.

24. Eta txalarekin eskeñiko du irin lorazko efi bat, eta beste efi bat ariarekin, eta oliozko hin bat efi bakoitzarekin.

25. Zazpigarren illean, illaren amabosgarrenean, zeñean zelebratzen dan Tabernakuloen jai andia, egingo du zazpi eguneko denboran, goian esan dana, ala bekatuagatik nola holokaustoagatik, eta doañean, eta olioan.

BERROGEITA SEIGARREN KAPITULUA

1. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Barrendiko atariko ate, sortaldera begiratzen duena, itxia egongo da lanerako diraden sei egunetan, baña larunbateko egunean idikiko da; baita ere idikiko da Kalendetako egunean,

2. Eta sartuko da Prinzipea kanpoko ateko ataritik, eta geldituko da ateko atalburuan; eta apaizak eskeñiko dituzte beragatik holokaustoa eta doañ paketsuak; eta egingo du bere adorazioa ateko atalburutik eta aterako da; atea ordea ez da itxiko arratsalderarterañ.

3. Eta erriak egingo du bere adorazioa Jaunaren aurrean ate aren sarreran, larunbatetan eta kalendetan.

4. Eta prinzipeak Jaunari eskeñiko dion holokaustoa, au da: Larunbateko egunean sei bildots aitzakia gabeak, eta arito bat aitzakia gabea;

5. Eta iriñezko efi baten doaña aritoarekin, eta berak nai duena bildotsakin; eta gañera oliozko hin bat efi bakoitzagatik.

6. Kalendetako egunetan ordea, eskeñiko ditu beitaldeko txal, aitzakia gabeko bat, eta sei bildots, eta sei arito berebat aitzakiagabeak;

7. Eta txal bakoitzarekin eskeñiko du iriñezko efi bat, eta beste efi bat ari bakoitzarekin; bildotsakin berriz nai duena emango du; eta gañera oliozko hin bat efi bakoitzagatik.

8. Prinzipea sartu bear dan bakoitzean, sortaldeko ateko atariaren aldamenetik sartu bedi, eta bide artatik beratatik irten bedi.

9. Eta lurreko erria sartzen danean Jaunaren aurrera jai andietan, sartzen dana adoratzera ifarreko aldameneko atetik, Egoeko aldameneko atetik irten bedi, eta Egoeko aldameneko atetik sartzen dana, atera bedi ifarreko aldameneko atetik. Iñor ere ez da irtengo sartu dan atetik, baizik bere aurrean dagoanetik.

10. Eta Prinzipea beren erdian sartuko da, eta aterako da bere atetik, sartzen diran eta ateratzen diran gañerakoak bezala.

11. Eta jaietan, eta egun andietan eskeñiko da iriñezko efi bat txal bakoitzarekin, eta efi bat arito bakoitzagatik, eta bildotsakgatik nai dana, eta gañera oliozko hin bat efi bakoitzagatik.

12. Eta Prinzipeak Jaunari borondatezko holokausto bat eskeñtzen dionean, eta borondatezko pakeko doañ bat, sortaldeko atea idikiko diote, eta bere holokaustoa eskeñiko du, eta bere doañ paketsuak, larunbateko egunean egin oi dan bezela, eta joango da; eta irtetzen danean, bereala atea itxiko da.

13. Berak ere egun guztietan eskeñiko dio Jaunari holokaustoan lenbiziko bildots bat, aitzakia gabea. Beti goizetik eskeñiko dio.

14. Eta berarekin eskeñiko ere du goiz bakoitzean, iriñezko efi baten seigarren zatia, eta oliozko hin baten irugarren zatia, iriñarekin nastutzeko. Eskeñtza betikoa eta egunorokoa Jaunarentzat, legearen araura.

15. Eskeñiko ditu goiz bakoitzean bildotsa, eta iriñezko eskeñtza eta olioa, eskeñtza betikoa.

16. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Prinzipeak ematen badio zerbait doañean bere semeetatik bati, iragoko da au herenziaz onen semeetara, zeñak, herenziako legez, bere jabeak izango diraden.

17. Baña baldin berak bere herenziatik egingo balio aginduren bat bere morroiren bati, au izango da aren jabe jubileoko urteraño; eta orduan agindutako gauza, Prinzipeagana itzuliko da: bere soroak bada, bere semeentzat geldituko dira.

18. Ez du Prinzipeak indarrez artuko nere erriaren sorotik, ez bera jabe dan gauzeetatik batere; baizik bere ondasunetatik emango die herenzia bat bere semeai; nere errikorik batere, jabe dan gauzetatik gabetua izan ez dedin.

19. Gero aingeruak, atearen aldean zegoan sarrera batetik sartu ninduen, apaizai dagozkioten santuarioko ganbaretan, zeñak zeuden ifarrerontz, eta bazegoan an toki bat Sartalderontz begira.

20. Eta aingeruak esan zidan: Au da tokia, zeñatan apaizak egosiko dituzten, bekatuagatik eta obena gatik eskeñitako doañak, non egosiko duten sakrifikatzen dana, kanpoko atarira atera ez dedin, eta ez dedin erria konsagratua gelditu.

21. Eta kanpora atera ninduen, kanpoko atarira, eta erabilli ninduen inguruan, etxeurubearen lau aldamenetatik; eta ikusi nuen etxeurubearen kantoinan zegoala ataritxo bat, ataritxo bat etxeurubearen kantoi bakoitzean.

22. Ataritxo oiek, onela jarriak lau kantoinetan, zeuzkaten berrogei beso luzeeran, eta ogei beso zabaleran. Laurak neurri bat bata zeukaten.

23. Eta bazegoan inguruan paret bat, lau ataritxoak ingurutzen zituena; eta atariko leorpeen azpi-inguruan sukaldeak zeuden egiñak.

24. Eta aingeruak esan zidan: Au da sukaldeen tokia, zeñean Jaunaren etxeko serbitzariak egosiko dituzten, erriak jango dituen doañen aragiak.

BERROGEITA ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eta itzuli erazi zidan Jaunaren etxeko aterontz, eta ikusi nuen uren jario bat etxearen atalburuan sortalderontz; zeren etxearen aurkeak sortalderontz begiratzen zuen, eta urak jetxitzen ziraden Tenploaren eskuieko aldamenerontz, aldarearen Egoera.

2. Eta ifarraren aldameneko atetik, kanpora eraman ninduen, eta jira egin erazi zidan kanpotik, kanpoko aldameneko ate, Sortalderontz dagoanaraño, eta ikusi nuen urak borborka irtetzen ziradela eskuiko aldamenetik.

3. Gizon andi hurak bada, zuzentzen zala Sortalderontz, eta neurtzeko soka bere eskuan zeukala, neurtu zituen milla beso uraen jatorritik, eta bereala iragoerazi zidan erreka aldamen batetik bestera, eta ura orgatilletaraño allegatzen zitzadan.

4. Eta berriz beste milla beso neurtu zituen, eta an iragoerazi zidan errekaren aldamen batetik bestera, zeñ belaunetaraño allegatzen zitzadan.

5. Berriz beste milla neurtu zituen, eta an iragoerazi zidan ura aldamen batetik bestera, eta allegatzen zitzadan ura gerriraño, eta neurturik beste milla, zan alakoa onezkero erreka non, ez nitekean ni batetik bestera irago, zeren erreka zakon onen urak azi ziraden alako moduan, non, ez zitekean irago aldamen batetikan bestera.

6. Orduan esan zidan: Gizonaren semea, ongi ikusi dezu onezkero. Eta irten erazi zidan, eta berriz eraman ninduen errekaren erriberara,

7. Eta atera nintzanean, bereala, ona non errekaren erriberan zegoan zuaitz talde txit andi bat, aldamen batetik eta bestetik.

8. Eta aingeruak esan zidan: Ondar montoietarontz sortaldera korrika dijoazen, eta eremuko zelaira jetxitzen diran ur oiek, sartuko dira itsasoan, eta aterako dira, eta itsasoko urak osasuntsuak geldituko dirade.

9. Eta erreka iragotzen dan tokitik biurka dabillan abere bizi guziak, bizitza idukiko du; eta egongo dirade an arraiak txit ugari, ur oiek ara allegatuta gero, eta erreka onek ukitzen dien guztiak, osasuna eta bizitza idukiko dituzte.

10. Eta arranzaleak ur oien aldean geldituko dirade, Engadditik Engalimeraño sareak leortzen ipiñiko dirade, arrai mota txit asko izango dirade, eta ugaritasun andian, itsaso andian arraiak bezela.

11. Baña beren erriberetatik kanpora, eta beren txarkoetan, ez dirade urak osasuntsuak izango; eta gatzagetarako bakarrik onak izango dirade.

12. Eta errekaren luzeeran erneko da bere erriberetan aldamen batetik eta bestetik, zuaitz frutuemalle mota guzia, etzaiote ostoa eroriko, eta beñere ez dirade fruturikan gabe egongo. Il bakoitzean frutu berriak emango dituzte, zeren berak erregatzen dituzten urak, santuariotik irtengo dira; eta beren frutuak izango dira jateko, eta beren ostoak sendagallatzat.

13. Oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Oiek dirade mugak, zeñaen barrenen idukiko dezuten zuek, Israelko amabi tribuen artean partitutako lurraren jabetasuna, zeren Josek, bi alditan anbatutako anoa daukan.

14. Nik zuen gurasoai juramentuarekin eskeñitako lur onen jabetasuna, guziok berdin idukiko dezute; bakoitzak bere anaiak bezela: eta lur au zuen herenzia izango da.

15. Ona bada emen lurraren mugak, ifarreko aldamenetik, itsaso anditik, gatozela Hetalonera, Sedada,

16. Emath, Berotha, Sabarim, zeña dagoen Damaskoren mugen, eta Emathko mugen artean, Tikonen etxea, zeñ Auranen mugetan dagoan.

17. Eta beren mugak izango dirade itsasotik Enongo, Damaskoko mugako atariraño, eta ifarreko aldamen batetik besteraño. Emath izango da muga ifarraren aldetik.

18. Sortaldeko bere aldamena izango da Auranen erditik, eta Damaskoren erditik, eta Galaaden erditik, eta Israelko lurraren erditik. Bere muga sortaldeko itsasorontz, Jordan ibaia izango da. Neurtuko ere dezute zuek sortaldeko aldamena.

19. Eta Egoeko aldamena izango da Thamartik Kontradikzioko uretaraño Kadesen, eta Ejiptoko errekatik itsaso andiraño: au da Egoeko aldamena.

20. Eta Sartaldeko, edo itsasoko aldamena izango da, itsaso andia bere ertzetik zuzen Emathera allegatu arteraño, au da itsasoaren aldameneko aldamena.

21. Eta au da Israelko tribuen artean partituko dezuten lurra;

22. Eta txotx egingo dezute zuen, eta zuei itsatsiko zazuten, eta zuen artean semeak aziko dituzten arrotzen herenzia; eta zeñai zuek begiratu bearko diezuten, Israelko, erri beratako semeai bezela. Zuekin sartuko dirade jabe zeraten gauzen anoan, Israelko tribuen erdian.

23. Eta arrotzari, itsatsia arkitzen dan edozeñ tributan, an emango diozute bere herenzia, esaten du Jaun Jainkoak.

BERROGEITA ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta ona emen tribuen izenak ifarraldeko ertzetik, Hetalongo bidearen luzeeran, Emathera joateko, Enango ataria da muga Damaskoko aldamenetik ifarrera, Emathko bidearen luzeeran; eta sortaldeko aldamenak eta itsasoak jarriko diozkate mugak Danen tribuaren anoari.

2. Eta Danen mugetatik Sortaldeko aldamenetik itsasoraño, izango da Aserren anoa.

3. Eta Aserko mugetatik, Sortaldetik itsasora, Neftaliren anoa.

4. Eta Neftaliren mugetatik, Sotaldetik itsasora, Manassesen anoa.

5. Eta Manassesen mugetatik, Sortaldetik itsasora, Efraimen anoa.

6. Eta Efraimen mugetatik, Sortaldetik itsasora, Rubenen anoa.

7. Eta Rubenen mugetatik, Sortaldetik itsasora, Judaren anoa.

8. Eta Judaren mugetatik, sortaldetik itsasora, egongo da, lenbizien gisara berezituko dezuten anoa, zeñ izango dan ogeita bost milla besokoa luzeeran eta zabaleran, ano bakoitzak, sortaldetik itsasoraño daukan gisara, eta erdian santuarioa egongo da.

9. Jaunarentzat berezituko dituzuten lendabiziak, izango dirade ogeita bost milla neurri luzeeran, eta amar milla zabaleran.

10. Oiek dirade apaizen toki santuaren lendabiziak, ogeita bost milla neurri luzeeran ifarrerontz, eta amar milla zabaleran itsasorontz. Eta sortalderontz ere amar milla zabaleran, eta ogeita bost milla luzeeran Egoerontz, eta erdian Jaunaren santuarioa egongo da.

11. Au guziau toki santu bat izango da, jarria Sadok-en seme apaizentzat, zeñak zaitu zituzten nere zeremoniak, eta etzuten utsik egin, uts egin zutenean Israelko semeak, eta lebitak ere uts egin zutenean.

12. Eta berak idukiko dute lurreko primiziaren erdian, primizia txit santa, lebiten mugen aldean.

13. Lebitai ere berdin izendatuko zaiozkate apaizen mugen aldean, ogeita bost milla neurri luzeeran, eta amar milla zabaleran. Luzeera guztia izango da ogeita bost milla neurrikoa, eta zabalera amar millakoa.

14. Eta oiek ezingo dituzte saldu, ez aldatu, ez eman besteren batzuei lurreko lenbiziak, zeren Jaunari konsagratuak dauden.

15. Eta luzeeran gelditzen diran bost milla neurriak, ogeita bost milletatik, izango da toki santutu gabeko bat erriko etxeak egiteko, eta erri aurretarako: eta erria erdian egongo da.

16. Eta ona emen bere neurriak: ifarreko aldamenetik lau milla, eta bost eun, Egoetik lau milla, eta bost eun, Sortaldetik lau milla eta bost eun, eta Sartaldetik lau milla, eta bost eun.

17. Eta erriko lurrak idukiko dituzte ifarrerontz berreun eta berrogeita amar, eta Egoerontz berreun eta berrogieta amar, eta Sortalderontz berreun eta berrogeita amar, eta itsasoaren aldamenetik berreun eta berrogeita amar.

18. Eta luzeeran gelditzen dana, toki santuaren lenbizien aldean, au da, amar milla neurri Sortaldean, eta amar milla Sartaldean, izango da itsatsia bezela toki santuko lenbiziai. Eta lur artako frutuak izango dira jateko, erria serbitzen dutenak.

19. Eta erria serbitzen ariko diradenak, Israelko tribu guzietakoak izango dirade.

20. Ogeita bost milla neurri, lau aurkekoen lenbizi guztiak, berezituak izango dirade santuarioko lenbizietarako, eta erria beren jabe izateko.

21. Eta sobratzen dana inguruan santuarioko lenbizi guztietatik, eta erriari izendatutako anotik ogeita bost milla neurri lenbizietakoen aurrean, Sortaldeko mugaraño, Prinzipearena izango da; eta orobat berea izango da itsasoaren aldamenekoa, ogeita bost milla neurrien aurrean itsasoko mugaraño; eta santuarioko lenbiziak; eta tenploko toki santua erdian geldituko dira.

22. Eta lebitak jabe diraden, eta erria jabe dan gañerakoa, Prinzipearen anoaren erdian geldituko da. Prinzipearena izango da Judako mugen, eta Benjamingo mugen artean dagoena.

23. Beste tribuen gañean, Sortaldetik Sartaldera, anoa Benjaminentzat.

24. Benjaminen mugetatik Sortaldetik Sartaldera, Simeonen anoa.

25. Eta Simeonen mugatik, Sortaldetik Sartaldera, Issakarren anoa.

26. Eta Issakorren mugatik, Sortaldetik Sartaldera, Zabulonen anoa.

27. Eta Zabulonen mugatik, Sortaldetik itsasora, Gaden anoa.

28. Eta Gaden mugatik Egoeko alderrirontz, izango dira bere mugak Thamartik Kontradikzioko uretaraño Kadesen; bere herenzia itsaso andiaren aurrean.

29. Au da lurra, partituko diezuna, txotx eginda, Israelko tribuai; eta alakoak dira beren anoak, esaten du Jaun Jainkoak.

30. Eta oiek dirade erriaren irteerak: ifarreko aldamenetik lau milla, eta bost eun neurri neurtuko dituzu.

31. Eta erriko ateak Israelko tribuen izena artuko dute, iru ate ifarrean: ate bat Rubenena, bat Judarena, eta bat Lebirena.

32. Sortaldean neurtuko dituzu lau milla eta bost eun neurri, eta egongo dira iru ate: bat Joseren atea, bat Benjaminena, eta bat Damena.

33. Eta Egoean neurtuko dituzu lau milla eta bost eun neurri: eta egongo dira iru ate; ate bat Simeonena, bat Issakarrena, eta bat Zabulonena.

34. Eta Sartaldeko aldamenean neurtuko dituzu lau milla eta bost eun neurri: eta egongo dira iru ate; ate bat Gadena, beste bat Aserrena, eta beste bat Neftalirena.

35. Bere ingurua izango da emezortzi milla neurrikoa. Eta erriaren izena, egun artatik izango da: Jaunaren bizilekua.

DANIELEN PROFEZIA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Joakin Judako erregearen erregetzako irugarren urtean, etorri zan Nabukodonosor Babiloniako erregea, Jerusalenen kontra, eta setiatu zuen.

2. Eta Jaunak bere eskuetan ipiñi zuen Joakin Judako erregea, eta Jaungoikoaren Tenploko ontzietatik zati bat, eta eraman zituen Sennaarko lurrera, bere jainkoaren tenploko etxera, eta bere jainkoaren tesoruko etxean sartu zituen.

3. Eta esan zion Erregeak Asfenez, txikiratuen agintariari, artu zitzala Israelko semeetatik, eta beren errege, eta andizkien jatorritik:

4. Aur batzuek, naturikan batere etzeukatenak, irudi ederrekoak, jakinduria mota guztiak dauzkatenak, ezagera andiakin argituak, eta aziera onekoak, eta erregearen jauregian egoteko diña ziradenak, eta erakutsi zizaieztela Kaldeatarren izkuntza, eta jakinduriak.

5. Eta erabaki zuen erregeak, egun guztietan berai eman zizaietela jaten, berak jaten zuena bera, eta berak edaten zuen ardoa; iru urtean onelako jan eta edanarekin idukita, gero erregearen aurrean serbitzen ari zitezen.

6. Oien artean bada arkitu ziran Judako semeetatik, Daniel, Ananias, Misael, eta Azarias.

7. Eta txikiratuen nagusiak izen oiek ipiñi ziezten: Danieli, Baltasar; Ananiasi, Sidrak; Misaeli, Misak; eta Azariasi, Abdenago.

8. Danielek ordea erabaki zuen, ez bera kutsutzea erregearen maieko janariak janda, ezta ere erregeak edaten zuen ardoa edanda; eta erregutu zion txikiratuen agintariari, utzi zizaiola kutsutu gabe egoten.

9. Eta Jaungoikoak egin zuen Danielek arkitu zezala grazia eta abegi ona txikiratuen agintariaren aurrean,

10. Eta txikiratuen agintariak Danieli esan zion: Nere Jaun erregearen beldur naiz, zeñak agindu duen zer jan, eta edango dezuten; eta berak ikusiko balitu zuen arpegiak, zuen ideko mutil gazteenak baño argalagoak, zuekgatik erregeak illeraziko nau.

11. Orduan Danielek esan zion Malasarri, zeñaen kontura utzi zituen txikiratuen agintariak Daniel, Ananias, Misael eta Azarias:

12. Erregututzen dizut, arren probatu gaitzatzula gu zure serbitzariok amar egunean; eta eman bizazkigu baratzakiak jateko, eta ura edateko,

13. Eta begiratu zaiezu gure arpegiai, eta erregearen janariak jaten dituzten galai gazteen arpegiai, eta ikusten dezun bezela, egingo dezu zure serbitzariakin.

14. Aditurik berak onelako izketa, probatu zituen amar egunean.

15. Eta amar egunen buruan, beren arpegiak agertu ziran kolore obeagokoak, eta aragiz beteagoak, erregearen janariak jaten zituzten galai gazte guzienak baño.

16. Malasarrek bada beretzat artzen zituen janariak, eta berak edan bear zuten ardoa; eta baratzakiak ematen ziezten jateko.

17. Eta eman zien Jaungoikoak galai gazte oiei jakinduria eta argitasuna Kaldearren liburu eta ezageretan; Danieli berriz, ikusketa eta amets guztien aditza.

18. Kunpliturik bada denbora, zeñ iragota, agindu zuen erregeak bere aurrera eramanak izan zitezela galai gazteak, txikiratuen agintariak Nabukodonosorren aurrera eraman zituen.

19. Eta erregeak itz egin ziotenean, guztien artean etzan arkitu alakorik, nolakoak ziran Daniel, Ananias, Misael, eta Azarias: eta erregearen aurrean gelditu ziran.

20. Eta erregeak galdeak egin ziezten edozeñere ezagera eta jakinduria motan; bere erreñuen zeuden azti eta zuhur guztiak baño amar alditan jakintsuagoak ziradela arkitu zuen.

21. Eta egon zan Daniel, erregea serbitzeko lanean, Siro erregearen lenbiziko urteraño.

BIGARREN KAPITULUA

1. Nabukodonosorrek bere erregetzako bigarren urtean egin zuen amets bat, bere espiritua ikaratua utzi zuena; eta iges egin zuen loak beragandik.

2. Eta agindu zuen erregeak, ots egiteko azti, eta mago, eta sorgin, eta Kaldeatarrai, adirazi zizaiezten erregeari, egin zituen ametsak; eta etorri ziradenean, joan ziraden erregearen aurrera.

3. Eta erregeak esan zien: Amets bat egin det, eta nola nere adimena nastua dagoan, ez dakit onezkero ze ames egin dedan.

4. Onetara erantzun zuten Kaldeatarrak beren izkuntza Siriakoan: O erregea, betikoa izan dedilla zure bizia! Esan zaiezu iduki dezun amesa zure serbitzariai, eta guk adiraziko dizugu bere azaldaera.

5. Erantzun zuen erregeak, eta Kaldeatarrai esan zien: Aztu zat egin nuen ametsa; baldin ez badidazute adirazten amesa eta ez badidazute ematen bere azaldaera, galduko zerate zuek, eta zuen etxeak erreñuarentzat izango dira.

6. Baña baldin esango baziñidate amesa, eta berak adirazten duena, artuko dituzute nigandik ordaña, eta mesedeak, eta onra andia. Esan zadazute bada amesa, eta berak adirazten duena.

7. Berriz berak erantzun zioten, esaten zutela: Esan bizaie erregeak ametsa bere serbitzariai, eta bere azaldaera adiraziko diogu.

8. Erantzun zuen erregeak, eta esan zuen: Ongi ezagutzen det, zuen denbora luzatzea nai dezutela, zeren badakizuten, egin nuen ametsa gogotik joan zitzadala.

9. Argatik, esaten ez badidazute egin dedan ametsa, ez det nik beste gauzarik zuekgatik uste izango, baizik asmatuko dezutela azaldaera gezurrezko, eta engañioz betetako bat, onela zuen itzak sinistuta, idukitzeko ni, denbora irago dedin artean. Argatik esan zadazute nere ametsa, ezagutu dezadan, emango dezuten bere azaldaera ere, egiazkoa izango dala.

10. Onetara esan zuten Kaldeatarrak, erregeari erantzuten ziotela: Ez dago gizonik lurraren gañean, o erregea, zure agintea kunplitu dezakeanik; eta ez dago ere erregerik, danik andiena eta almentsuena izan arren ere, orrelako gauzarik azti bati, mago bati, edo Kaldeatar bati eskatu dizaiokenik,

11. Zeren eskatzen dezun gauza, o erregea, txit gaitza dan; eta ez da iñor ere arkituko, erregea bere gañean argitu dezakeanik.

12. Aditurik au erregeak, sumintasun eta aserre txit andi batez beteta, agindu zuen Babiloniako jakintsu guztiai bizia kendu zizaietela.

13. Eta eman zanean sentenzia au, joan ziran jakintsuak iltzera, eta Daniel, ta bere lagunen billan zebiltzan, illerazitzeko.

14. Orduan Daniel joan zan galdetzera Ariok, erregearen soldauen agintariagana, zeñ atera zan Babiloniako jakintsuak iltzera, nolakoak ziraden lege hura, eta sentenzia hura.

15. Eta erregeak agintea eman zion Ariok-i, galdetu zion, zergatik erregeak, sentenzia ain gogorra eman ote zuen. Eta esanik Ariok-ek Danieli, gai onen gañean zegoana,

16. Sartu zan Daniel erregeagana, eta erregutu zion, arren eman zizaiola denbora, erregeari azaldaera adirazteko.

17. Bereala joan zan bere etxera, eta Ananias, eta Misael, eta Azarias bere lagunai adirazi zien zer jertatzen zan;

18. Eskatu zezaten zeruko Jaungoikoaren urrikaltasuna, gauza ain ezkutuaren gañean, galdu etzitezen Daniel eta bere lagunak, Babiloniako beste jakintsuakin batean.

19. Orduan Danielek iduki zuen gauaz ikusketa bat, zeñean agertua izan zitzaion gauza ezkutua. Eta Danielek zeruko Jaungoikoa bedeikatu zuen,

20. Eta asi zan izketan, esaten zuela: Bedeikatua izan dedilla Jaunaren izena betitik eta betira, zeren jakinduria, eta sendotasuna bereak diraden.

21. Berak aldatzen ditu denborak, eta edadeak, daramazki batetik bestera erreñuak, eta sendotzen ditu. Ematen die jakinduria jakintsuai, eta aditza adituai.

22. Berak agertzen ditu gauza zakon eta ezkutuak, eta illuntasunen erdian daudenak ezagutzen ditu; zeren argia berarekin dagoan.

23. Zuri, o gure gurasoen Jaungoikoa, eskerrak ematen dizkizut, eta zu alabatzen zaitut, jakinduria eta sendotasuna eman dizkidazulako, eta ezagutuerazi didazulako orain, eskatu dizuguna, agertu diguzulako erregeak galdetzen duena.

24. Oien ondoan joan zan Daniel billatzera Ariok, zeñi agindu zion erregeak Babiloniako jakintsuak illerazitzeko, eta onela itz egin zion: Etzaiezu bizia kendu Babiloniako jakintsuai, erregearen aurrera lagundu zadazu, eta nik argitasuna emango diot.

25. Orduan Ariok-ek bereala eraman zuen Daniel erregearen aurrera, zeñi esan zion: Judako seme katibuen artean arkitu det gizon bat, zeñak emango dion erregeari, nai duen azaldaera.

26. Erantzun zuen erregeak, eta esan zion Danieli, zeñi Baltasarren izena ematen zitzaion; Egiaz sinisten al dezu, esan alko didazula neri, iduki dedan ametsa, eta bere argitasuna eman?

27. Onetara Danielek erregeari erantzun zion, esaten zuela: Erregeak jakin nai duen gauza ezkutua, ez dizaiokete adirazi erregeari jakintsuak, ez magoak, ez aztiak, ez asmatzalleak,

28. Baña bada zeruan Jaungoiko bat, gauza ezkutuak agertzen dituena, eta onek, o Nabukodonosor erregea, erakutsi dizkizu, atzeneko denboretan gertatuko diraden gauzak. Zure ametsa, eta zure buruak oean iduki dituen ikusketak, oiek dirade:

29. Zu, o erregea, oean zeundela, jarri ziñan gogoratzen, geroko denboretan gertatuko zanean; eta gauza ezkutuak agertzen dituenak, ikusi erazi zizun etorriko dana.

30. Neri ere gauza ezkutu ori agertu zitzadan, ez nigan dagoalako beste edozeñere aragizko gizonegan baño jakinduria geiago; baizik erregeak bere azaldaera argi bat iduki zezan; eta zuk, o erregea, zure espirituko gogorazioak ezagutu ziñitzan.

31. zuk, o erregea, ikusketa bat iduki zenduen, eta uste zenduen gizon baten irudi andi bat ikusten zenduela, eta gizon irudi andi, eta goratu au zegoan zuzen zure aurrean; eta bere begirakunea ikaragarria zan.

32. Gizon irudi onen burua urre txit garbizkoa zan; bularra berriz eta besoak zillarrezkoak; sabela berriz eta istarrak kobrezkoak;

33. Eta zankoak burnizkoak; eta oñen zati bat zan burnizkoa, eta bestea buztiñazkoa.

34. Onela ikusten zenduen zuk, esku batek ere mugitu gabe, etorri zanean menditik arri bat, zeñak jo zuen gizonirudia bere oiñ burnizko eta buztiñazkoetan, eta zatitu zituen.

35. Orduan berdin zatitu ere ziran burnia, eta buztiñia, eta kobrea, eta zillarra eta urrea; eta gelditu ziran egiñik, udan larraña bateko geun, aizeak barreiatzen duena bezela; eta ala, beretatik deusik ere etzan gelditu. Baña gizon irudia jo zuen arria berriz, egin zan mendi andi bat, eta mundu guztia bete zuen.

36. Onelakoa da ametsa. Esango ere degu zure aurrean, o erregea, berak adirazten duena.

37. Zu erregeen erregea zera, eta zeruko erregeak zuri erreñua, eta sendotasuna, eta agintaritza eta gloria eman dizkizu.

38. Eta jarri ditu zure eskubidearen mendean gizonen semeak bizi diraden toki guztiak, baita ere kanpoko abereak, eta zeruko egaztiak. Gauza guztiak zure aginduaren mendean ipiñi ditu, zu bada zera urrezko burua.

39. Eta zure ondoan jaikiko da beste erreñu bat, zurea baño txikiagoa, zeñ izango da zillarrezkoa; eta gero beste irugarren erreñu bat, zeñ izango dan brontzezkoa, zeñak mundu guztian aginduko duen.

40. Eta laugarren erreñua burnia bezelakoa izango da. Nola burniak txeatu eta ezitzen dituen gauza guztiak, ala erreñu onek, oiek guztiok desegin, eta txeatuko ditu.

41. Baña ikusi dezunaren gañean, oiñ eta beatzetatik zati bat zala eltzegillearen buztiñazkoa, eta bestea burnizkoa; jakin ezazu alaere, burnizko zañean jatorria daukan erreñua, berezitua izango dala, burnia buztiña errearekin nastua ikusi zenduenaren araura.

42. Eta nola oñetako beatzen zati bat burnizkoa dan, eta beste bat buztiña errezkoa, ala erreñuaren zati bat sendoa izango da, eta beste bat auskorra.

43. Eta nola ikusi dezun burnia, buztiña errearekin nastua, ala aideen bitartez elkartuko dira; baña ez dute gorputz bat egingo batak bestearekin, nola burnia ez ditekean lotu buztiñiarekin.

44. Baña erreñu aien denboran, zeruko Jaungoikoak jasoko du, iñoiz beñere desegingo ez dan erreñu bat, eta erreñu au ez da beste alderritara iragoko; baizik berak ausi,eta ezerere- ezera biurtuko ditu erreñu guzi oiek; eta berak beti iraungo du;

45. Nola ikusi zenduen zuk, gizonek ukitu ere gabe, menditikan eroritako arriak zatitu zituela buztiñia, eta burnia, eta kobrea, eta zillarra, eta urrea, Jaungoiko andiak erregeari geroko gauzak erakutsi diozka. Eta amets hura, egiazkoa da, eta zuzena bere azaldaera.

46. Orduan Nabukodonosor erregea, auzpeztu zan lurrean bere arpegiaren gañean, eta adoratu zuen Daniel, eta agindu zuen egiteko abere illen eskeñtzak, eta inzensua erretzeko berari.

47. Erregeak bada zuzendu zion bere itza Danieli, eta esan zion: Egia guziarekin, zuen Jaungoikoa jainkoen Jaungoikoa da, eta erregeen jauna, eta gauza ezkutuak agertzen dituena, zeren zuk au ezagutu al izan dezun.

48. Orduan erregeak gora altxatu zuen Daniel onraz betetzen zuela, eta eskeñtza asko eta andiak egin ziozkan, eta egin zuen Babiloniako probinzia guztietako Prinzipe; eta majistradu, eta Babiloniako jakintsu guztien buru.

49. Eta iritxi zuen Danielek erregeagandik Sidrak, Misak, eta Abdenagoen kontura jarri zitezela Babiloniako probinziako beargai guztiak; Daniel ordea erregearen aldamenean zegoan.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Nabukodonosor erregeak egin zuen urrezko giza irudi bat, irurogei besokoa alturan, eta seikoa zabaleran, eta ipiñi zuen Durako kanpoan, Babiloniako probinzian.

2. Nabukodonosor erregeak bada agindu zuen, biltzeko satrapak, majistraduak, eta juezak, kapitanak, eta jaun andiak, eta probinzietako agintari eta gobernari guztiak, egon zitezen Nabukodonosor erregeak jaso zuen giza irudiaren dedikazioan.

3. Bildu ziraden bada satrapak, majistraduak, eta juezak, eta kapitanak, eta jaun andiak, eta tribunaletako presidenteak eta probinzietako gobernari guztiak, arkitzeko berak ere Nabukodonosor erregeak jaso zuen gizon irudiaren dedikazioan. Eta zutik zeuden Nabukodonosor erregeak jaso zuen gizon irudiaren aurrean;

4. Eta pregoilari batek boz andiarekin deadar egiten zuen: Zuei, o erriak, tribuak eta mintzoerak agintzen zazute,

5. Aditzen dezuten orduan tronpetaren, txirolaren, harparen, txillibituaren, eta salterioaren, eta sinfoniaren, eta soñu erremienta mota guztiaren otsa, auzpezten zeratela, adoratu dezazutela Nabukodonosor erregeak jaso duen urrezko gizon irudia.

6. Baldin balego iñor ere, auzpeztzen ez danik, eta adoratzen ez duenak, ordu artan beratan suzko labe erazeki batera aurtikia izango da.

7. Ala bada, erri guztiak, aditu zutenean tronpetaren, txirolaren, harparen, txillibituaren, eta sinfoniaren, eta salterioaren, eta soñu tresna mota guziaren otsa, auzpeztzen ziradela erri, tribu, eta mintzoera guziak, Nabukodonosor erregeak jaso zuen gizon irudia adoratu zuten.

8. Eta bereala, denbora artan beratan joan ziraden Kaldeatar batzuek juduak salatzera;

9. Eta esan zioten Nabukodonosor erregeari: O erregea, betikoa izan dedilla zure bizitza!

10. Zuk, o erregea, eman dezu aginte bat, aditzen duen gizon guztiak tronpetaren, txirolaren, harparen, txillibituaren, eta salterioaren, eta sinfoniaren eta soñu erremienta mota guziaren otsa, auzpeztu dedilla, eta urrezko gizon irudia, adoratu dezala.

11. Eta auzpeztzen ez dan, eta adoratzen ez duen edozeñ,su erazekizko labe batera aurtikia izan dedilla.

12. Badirade bada juduen artean iru gizon, zeñaen kontura zuk utzi ziñituen babiloniako probinziako beargaiak, zeñak diraden Sidrak, Misak, eta Abdenago. Gizon oiek mezpreziatu dute, o erregea, zure agintea, ez diete agurrik egiten zure jainkoai; eta zuk jaso dezun urrezko gizonirudia ere, ez dute adoratzen.

13. Orduan Nabukodonosorrek, aserre eta sumintasunez beterik, agindu zuen, ekarri zizazkiotela Sidrak, Misak, eta Abdenago; zeñak bereala erregearen aurrera eramanak izan ziraden.

14. Eta itz egin zien Nabukodonosor erregeak, esaten zuela: Egia al da, o Sidrak, Misak, eta Abdenago, ez diezutela agurrik egiten nere jainkoai, eta ez dezutela ere adoratzen, nik jasoerazi nuen urrezko tajua?

15. Orain bada, obeditzeko gertuak bazaudete, aditzen dezutenean tronpetaren, txirolaren, harparen, salterioaren, txillibituaren, sinfoniaren, eta soñu tresna guztiaren otsa, bereala auzpeztu zaitezte, eta adoratu ezazute, nik egin dedan gizon irudia, zeren adoratzen ez badezute, suzko labe erazeki batera aurtikiak izango zerate. Eta, zeñ da, nere eskutik libratuko zaituzten jainkoa?

16. Erantzun zuten Sidrak, Misak, eta Abdenagok, eta esan zioten Nabukodonosor erregeari: Ez dizugu guk erantzun bear onen gañean.

17. Gure Jaungoiko, adoratzen degunak, atera genzake suzko labe erazeki onetatik, eta zure eskuetatik, o erregea, libratu.

18. Baña baldin berak nai ez balu, jakin ezazu, o erregea, ez diegula guk agurrik egiten zure jainkoai, eta ez degula ere, zuk jaso dezun gizon irudia adoratzen.

19. Onenbesterekin sumindu zan Nabukodonosor, eta bere arpegiak artu zuen irudi ikaragarri bat Misak, Sidrak, eta Abdenagoganako, eta agindu zuen, ezio zedilla labea, oi zan baño zazpi alditan su andiago batekin:

20. Eta agindu zien bere ejerzituko soldaurik sendoenen batzuei, loturik esku eta oñak Sidrak, Misak, eta Abdenagori, su erazekizko labe batean aurtiki zitzatela.

21. Eta bereala izan ziraden lotuak iru galai aiek, eta su erazekizko labean aurtikiak, beren faja, eta tiara, eta oñetako, eta arropakin.

22. Zeren erregeak agintzen zuen berealaxe egiteko, eta labea zegoan txitez erazekia. Baña suaren garrak il zituzten, Sidrak, Misak eta Abdenago aurtiki zituzten gizon aiek.

23. Eta iru galai gazte oiek Sidrak, Misak, eta Abdenago lotuta erori ziran gar erazekizko labe artan.

Emendikan aurrerakoa, (esaten du San Jeronimok) ez nuen aurkitu hebreotar liburuetan.

24. Eta bazebiltzan garren artetik Jaungoikoa alabatzen zutela, eta bedeikatzen zutela Jauna.

25. Eta Azariasek, zutik jarrita, onela orazioa egin zuen, eta idikirik bere aoa suaren erdian, esan zuen:

26. Bedeikatua zera, o gure gurasoen Jaun Jainkoa, eta zure izena alabantzaren diña da, eta gloriaz betea mendez mende.

27. Zeren justoa zeran, gurekin egin dituzun gauza guztietan; eta zure obra guziak onean osoak dirade, zuzenak zure bideak, eta justoak zure erabaki guztiak.

28. Zeren justoak izan ziraden zure juizioak, zeñaen araura erorierazi ziñien gure gañera, eta Jerusalen, gure gurasoen erri santuaren gañera gauza guzi oiei, zeren gauza guzi oiek egia eta justizian bialdu ziñituen gure bekatuakgatik.

29. Guk egin degun ezkero bekatu, eta egin ditugun ezkero obra gaiztoak, zugandik alde egiten degula, eta uts egiten degula gauza guztietan,

30. Aditu nai ez ditugula zure aginteak, ez berak zaitu, ez gorde, zuk erabaki zenduen bezela, doatsuak izan gindezen.

31. Gure gañera bialdu dezun guztia bada, eta egin diguzun guztia, txit ongi egin dezu,

32. Eta jarri gaituzu gure etsai gaizto, biurri eta fedeausle, eta errege donga, eta lur guztian dagoanik txarrenaren eskuetan.

33. Eta garai onetan ez genezake aoa idiki, izanik, geran bezela, naslari eta lotsagarriak zure serbitzarientzat, eta zu adoratzen zaituztenentzat.

34. Erregututzen dizugu, Jauna, zure izenaren amorioagatik, arren ez gaitzatzula betiko utzi, eta ez dezazula ere desegin Israelekin daukazun elkartasuna.

35. Eta ez dizaiozula ere gugandik alde eginerazi zure urrikaltasunari, zure maitatu Abrahamen amorioagatik, zure serbitzari Isaakgatik, eta zure santu Israelgatik,

36. Zeñai itz egin ziñien, eskeñtzen ziñiela, beren jatorria ugarituko zenduela zeruko izarrak bezela, eta itsasoaren bazterrean dagoan ondarra bezela.

37. Zeren gu, o Jauna, etorri geran izatera erreñu guzien artean txikiena, eta gaurko egunean mundu guztian azpiratuak gaude, gure bekatuakgatik.

38. Eta ez daukagu denbora onetan prinziperik, ez agintaririk, ez profetarik, ez holokaustorik, ez sakrifiziorik, ez doañik, ez inzensorik, ez tokirik primiziak zuri aurrean ipintzeko,

39. Zure urrikaltasuna iritxi al dezagun. Baña zuk artu gaitzatzu arren, biotzez damututa eta espiritu umillarekin gaudenok,

40. Artzen zenduen bezela aritoen eta zezenen holokaustoa, eta millaz bildots gizenen eskeñtzak, ala izan dedilla gaur zure gogokoa gure eskeñtza zure aurrean; beñere ez diraden ezkero lotsatuak gelditzen, zugan itxedotzen dutenak.

41. Eta orain biotz guztiarekin jarraitzen dizugu, eta zure beldur gera, eta zure arpegia billatzen degu.

42. Ez gaitzatzu bada arren lotsatuak utzi, baizik egin ezazu gurekin zure beraatasunaren araura, eta zure urrikaltasun txit andiaren araura.

43. Eta libratu gaitzatzu zure mirariakin, eta zure izena, o Jauna, gloriaz bete ezazu;

44. Eta nastuak izan ditezela, zure serbitzariai atsekabeak irago erazitzen diezten guztiak; nastuak izan ditezela, zure eskubide neurrigabearen bitartez, eta beren indarra ezereztua gelditu dedilla,

45. Eta jakin dezatela, zu bakarrik zerala Jaun Jainkoa, eta gloriaz betea lurraren biribiltasunean.

46. Bitartean erregearen morroe, aurtiki zituztenak, aspertu gabe ari ziran labeko sua biztutzen betunarekin, mulloarekin, eta pikearekin, eta txarmentuakin.

47. Eta igotzen zan garra labearen gañetik berrogeita bederatzi besoan,

48. Eta zabaldu zan, eta erre zituan, labearen aldean arkitu zituen Kaldeatarrak.

49. Eta Jaunaren aingerua, jetxirik labera, zegoan Azarias eta bere lagunakin, eta gordetzen zituen labeko suaren garretik.

50. Berak egin zuen labearen erdian erabilli zezala aize fresko, eta ezea bezelako bat, eta suak iñon ere etzien ukitu, eta etzituen ere atsekabetu, eta gaitzik txikienik ere etzien egin.

51. Orduan iru mutil gazte aiek, irurak ao bat bakarra idukiko balute bezela, labearen erdian Jaungoikoa alabatu, gloriaz bete, eta bedeikatzen zuten, esaten zutela:

52. Bedeikatua izan zaitezela zu, o gure gurasoen Jaun Jainkoa, eta alabantzaren, eta gloriaren, eta beti goratua izateko diña zera. Bedeikatua izan dedilla zure izen santu eta gloriaz betea, eta alabatua izateko, eta mendez mende guziez gañetik goratua izateko diña da.

53. Bedeikatua zera zu zure gloriako tenplo santuan, eta alabantza guztiez gañetikoa, eta gloria guziez gañetikoa gizaldiz gizaldi.

54. Bedeikatua zera zu, zure erreñuko tronuan, eta alabantza guztiez gañetikoa eta gloria guztiez gañetikoa gizaldiz gizaldi.

55. Bedeikatua zera zu, zure begiakin ikusten dituzuna lizeen zakontasunak, eta kerubinen gañean eseria zaudena, eta alabantzaren diña, eta goratua izateko diña zera gizaldien gizaldietan.

56. Bedeikatua zera zu, zeruko izartokian, eta alabantzaren eta gloriaren diña gizaldien gizaldietan.

57. Jaunaren obra guztiak, Jauna bedeikatu ezazute, eta alabatu ezazute eta goratu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

58. Jaunaren aingeruak, Jauna bedeikatu ezazute, alabatu ezazute eta goratu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

59. Zeruak, bedeikatu ezazute Jauna; alabatu ezazute, eta goratu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

60. Zeruen gañean zaudeten ur guziak, bedeikatu ezazute Jauna: alabatu ezazute eta goratu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

61. Birtute guztiak, bedeikatu ezazute zuek guztiok Jauna, alabatu ezazute, eta goratu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

62. Eguzkia eta illargia bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute eta goratu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

63. Zeruko izarrak, bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute eta goratu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

64. Euri guztiak, eta intzak, bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute, eta goratu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

65. Jaungoikoaren espirituak, zuek guztiok bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute eta bedeikatu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

66. Sua eta beroa, zuek bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute, eta goratu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

67. Otza eta beroa, zuek ere bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute, eta goratu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

68. Intzak eta intziarrak, bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute, eta goratu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

69. Izotza eta otza, bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute eta goratu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

70. Izoztea eta elurrak, bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute eta goratu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

71. Gauak eta egunak, bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute eta goratu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

72. Argia eta illuntasunak, bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute, eta goratu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

73. Tximistak eta odeiak, bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute, eta goratu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

74. Bedeikatu dezala lurrak Jauna, alabatu dezala eta goratu dezala gauza guztiez gañetik, mendez mende.

75. Mendiak eta muñoak, bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute eta goratu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

76. Lurrean ernetzen zeraten landare guztiak, bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute eta goratu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

77. Iturriak, bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute, eta goratu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

78. Itsasoak eta ibaiak, bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute eta goratu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

79. Baleak, eta uretan jiran zabiltzaten arrai guztiak, bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute eta goratu ezazute gauza guztiez gañetik, mendez mende.

80. Zeruko egazti guztiak, bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute, eta goratu ezazute mendez mende gauza guztiez gañetik.

81. Pisti guztiak, eta abereak, bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute eta goratu ezazute mendez mende gauza guztiez gañetik.

82. O gizonen semeak, bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute eta goratu ezazute mendez mende gauza guztiez gañetik.

83. Bedeikatu beza Israelek Jauna, alabatu beza eta goratu beza mendez mende gauza guztiez gañetik.

84. Zuek Jaunaren apaizak, bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute, eta goratu ezazute mendez mende gauza guztiez gañetik.

85. Jaunaren serbitzariak, bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute eta goratu ezazute mendez mende gauza guztiez gañetik.

86. Espirituak eta justoen animak, bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute eta goratu ezazute mendez mende gauza guztiez gañetik.

87. Zuek santuak, eta biotzez umillak bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute eta goratu ezazute mendez mende gauza guztiez gañetik.

88. Zuek, Ananias, Azarias, eta Misael, bedeikatu ezazute Jauna, alabatu ezazute eta goratu ezazute mendez mende gauza guztiez gañetik.

Zeren berak infernutik salbatu gaituen, eta libratu eriotzaren eskuetatik, eta gar erazekien erditik atera gaitu, eta sutatik libratu.

89. Jaunari eskerrak eman zaiozkazute, zeren ain ona dan, eta bere urrikaltasuna betikoa dalako.

90. Zuek guztiok, elizlanak Jaunari egiten ari zeratenak, bedeikatu ezazute jainkoen Jaungoikoa, alabatu ezazute eta eman zaiozkazute eskerrak, bere urrikaltasunak mendez mende irautzen duelako.

Onarañokoa ez dakar hebreoak; eta jarri deguna da Theodozionek aldatu zuena.

91. Orduan Nabukodonosor erregea arritua gelditu zan, agudo jaiki zan, eta bere andizkiai esan zien: Ez al degu agindu, onara suaren erdira iru gizon lotuta aurtiki ditzatela? Erantzun zuten esaten zutela: Ala da, o erregea.

92. Berak erantzun, eta esan zuen: Ona emen non nik ikusten ditudan lau gizon askatuak, dabiltzanak suaren erdian, bati ere kalterik egiten etzaiola; eta laugarrenaren irudia, Jaungoikoaren seme baten antzekoa da.

93. Alderatu zan orduan Nabukodonosor su erazekizko labearen aora, eta esan zuen: Sidrak, Misak, eta Abdenago, Jaungoiko txit goratuaren serbitzariak, irten zaitezte kanpora, eta atozte. Eta bereala Sidrak, Misak eta Abdenago suaren erditik atera ziran.

94. Eta bildurik satrapak, eta majistraduak, eta juezak, eta erregearen jauregikoak, zeuden arretaz begira gizon aiei, zeñaen gorputzai suak ezin izan zien gaitzik egin; eta zeñaen buruetako ille bat bakarra ere etzan erre; zeñaen arropai ere etzien ezerere egin, eta zeñak suaren usairik bedere, etzuten sentitu.

95. Orduan Nabukodonosorrek esan zituzan itz oiek: Bedeikatua izan dedilla beren Jaungoikoa, Sidrak, Misak, eta Abdenagoren Jaungoikoa, zeñak bialdu duen bere aingerua, eta libratu dituen bere serbitzari, beragan sinistzen dutenak, eta naiago zutenak egin Jaungoikoaren agintea, erregearena baño; eta eskeñi zituzten beren gorputzak eriotzara, ez serbitu, ez adoratzeagatik beste jainkorik, beren Jaungoikoa baño.

96. Au da bada nik ematen dedan erabakia. Edozeñere erri, tribu, edo mintzoera, Sidrak, Misak, eta Abdenagogatik gaizki esaten duena, galdua izan dedilla, eta beren etxeak desegiñak izan ditezela, zeren ez dagoan beste jainkorik, ala salbatu dezakeanik.

97. Gero bereala erregeak goratu zituen Sidrak, Misak eta Abdenago Babiloniako probinzian.

98. Nabukodonosor erregeak lur guztian bizi diran erri, erreñu, eta mintzoera guztiai: Geituaz joan dedilla beti zuen pakea.

99. Jaungoiko txit goratuak egin ditu nerekin mirariak, eta izukariak. Argatik bada, nai izan ditut zabaldu

100. Bere mirariak; zeren ain andiak diran; eta bere izukariak, zeñak ain arrigarriak diran; bere erreñua betiko erreñua da; eta bere eskubideak irautzen du mendez mende.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Ni Nabukodonosor, nere etxean pakean bizi nintzan, eta nere jauregian zoriontasunez beterik.

2. Eta egin nuen amets bat ikaratu ninduena, eta burutik irago zitzazkidan gogorazioak, eta ikusketak oean nengoala, naizan guziau nastua jarri ninduten.

3. Eta agindu nuen etorri zitezela nere aurrera Babiloniako jakintsu guztiak, adirazi zizadaten, nere ametsak zer adiraztzen zuen.

4. Orduan izan ziraden nere aurrera sartuak aztiak, magoak, kaldeatarrak, eta igarleak, eta beren aurrean ametsa kontatu nuen, baña adirazten zuena etzidaten esan,

5. Aliketa etorri zan artean nere aurrera bere lagun Daniel (Baltasar izena duena, nere jainkoaren izena, zeñak daukan bere barrenen jainko santuen espiritua), eta nere ametsa bere aurrean esan nuen:

6. O Baltasar, aztien prinzipea, dakidalako nik daukazula zure barrenen jainko santuen espiritua, eta ez dagoala zuretzat, argitu ez zenezakean gauza illunik batere, kontatu zazkidazu nere amets, lo nengoala egin nituenak, iduki nituen ikusketak, eta berak adirazten dutena.

7. Ona emen nere buruan iduki nuen ikusketa, nere oean nengoala: iruditzen zitzadan ikusten nuela lurraren erdian, zuaitz txit altura andiko bat.

8. Zuaitz andi eta sendo bat, zeñaen erpiñak zeruari ukitzen zion; eta lur guziko atzeneko mugetatik ere ikusten zan.

9. Bere ostoak txit ederrak ziran, eta bere frutuak txit ugariak, eta bertan zegoan, guztientzat bear zan janaria. Bere itzalean abereak, eta pistiak bizi ziran, eta bere errametan zeruko egaztiak kabiak egiten zituzten, eta beratatik bizia zeukan abere guztiak bere janaria ateratzen zuen.

10. Ikusketa au neukan nik nere buruan, oean nengoala, eta ona non aingeru beillari eta santua zerutik jetxi zan;

11. Eta deadar egin zuen boz goratuan, esaten zuela: Zuaitza ebaki ezazute, eta moistu itzatzute bere erramak, astindu itzatzute bere ostoak, eta barreiatu itzatzute bere frutuak, iges egin bezate, bere azpian dauden pistiak, eta bere errametan dauden egaztiak.

12. Baña utzi itzatzute lurrean bere sustraien jatorriak, eta bere burnizko eta brontzezko kateakin lotua izan bedi, agirian dauden belarren artean, eta zeruko intzak bustia izan dedilla, eta bere bizitokia pistiakin kanpoko belarraren artean izan dedilla.

13. Bere biotz, gizonarena, kendu bizaio, eta eman bizaio pistiarena, eta irago bitez onela zazpi denbora bere gañean.

14. Ala gelditzen da, beillariak sentenziatzat erabakita, eta da gauza bat santuak eskatu dutena; aliketa ezagutu dezaten bitartean bizi diradenak, Jaungoiko txit goratuak daukala eskubidea gizonen erreñuaren gañean, eta berak nai duenari emango diola; eta bere gañean jarriko duela, nai badu, munduko gizonik azpiratuena.

15. Au da ametsetan ikusi nuena, nik Babiloniako erregeak. Zuk bada, o Baltasar, esan zadazu laster berak adirazten duena, zeren nere erreñuko jakintsu guztiak ezin esan izan didate: baña zuk badezakezu, jainko santuen espiritua zugan dagoelako.

16. Orduan Daniel, zeñaen izena zan Baltasar, gelditu zan ixilikan, bere artean gogoan zerabiltzala gauza oiek ordu batean bezelatsu; eta bere gogorazioak nastutzen zuten. Baña erregea asi zan izketan, eta esan zuen: Baltasar, etzaite izutu ametsa gatik, eta bere azaldaeragatik. Onetara erantzun zuen Baltasarrek, eta esan zuen: Arren bada, o nere Jauna, ametsa eroriko balitza, gaizki nai dizutenen gañera, eta izango balitza zure etsaientzat, berak adiraztzen duena.

17. Ikusi dezun zuaitz txit goratu eta sendoa, zeñaen altura zeruraño allegatzen dan, eta bera lur guzitik ikusten dan;

18. Zeñaen erramank txit ederrak diraden, eta bere frutuak txit ugariak; eta zeñak janaria guzientzat ematen duen, eta zeñaen itzalaren azpian bizi diran kanpoko pistiak, eta zeñaen errametan zeruko egaztiak kabiak egiten dituzten;

19. Zu zera ori, o erregea, goratua izan zerana, eta almentsua egin zerana, eta zure anditasuna azi da, eta igo da zeruraño, eta zure eskubidea lur guztiaren atzeneko mugetaraño.

20. Eta erregeak ikusi duenaren gañean, jetxitzen zerutik bellaria eta santua, zeñak esaten zuen: Ebaki ezazute zuaitza, eta zatitu ezazute; baña utzi ezazute lurrean bere sustraien punta bat; eta bera lotua izan dedilla burniarekin, eta brontzearekin, eta egon dedilla agirian belarraren gañean, eta zeruko intzaz bustia izan dedilla, eta bere janaria pistiena izan dedilla, onela zazpi denbora beratatik irago ditezen artean.

21. Au da Jaungoiko txit goratuak nere Jaun erregearen kontra emandako sentenziaren azaldaera.

22. Gizonen artetik aurtikiko zaituzte, eta abereakin eta pistiakin biziko zera, eta belarra jango dezu, idia baziña bezela; eta izango zera zeruko intzarekin bustia. Eta onela iragoko dira zugandik zazpi denbora, ezagutu dezazun artean, Jaungoiko txit goratuak eskubidea daukala gizonen erreñuaren gañean, eta berari deritzanari ematen diola.

23. Eta zuaitzaren sustraien punta utzitearen gañean berriz, adiraztzen du, zure erreñua zuretzat geldituko dala, ezagutzen dezunean badala zeruan eskubide bat.

24. Argatik, o erregea, nere konsejua artu ezazu, limosnakin erredimitu itzatzu zure bekatu eta gaiztakeriak, egiten dituzula beartsuakin urrikaltasuneko lanak; bada onela izan liteke Jaunak zure bekatuak barkatzea.

25. Nabukodonosor erregeari gauza guzi oiek gertatu dizaiozkan.

26. Amabi illabete iragota bazebillan erregea batetik bestera Babiloniako jauregian.

27. Eta asi zan bere artean onela itz egiten: Ez al da au Babilonia andia, nik nere erreñuko erregeuri izateko egin dedana, nere eskubidearen indarrarekin, eta nere gloriaren argitasunarekin?

28. Etzituen erregeak oraindikan itz oiek bukatu, etorri zanean batbatean zerutik boz bat, esan zuena: Zuri, o Nabukodonosor erregea, esaten zatzu: Arrapatua izan zatzu zure erreñua;

29. Eta gizonen artetik aurtikiko zaituzte, eta abereakin eta pistiakin bizituko zera, eta belarra jango dezu idiak bezela, eta onela iragoko dira zugandik zazpi denbora, aliketa ezagutu dezazun artean, Jaungoiko txit

goratuak eskubidea daukala gizonen erreñuaren gañean, eta nai duenari ematen diola.

30. Ordu artan beratan kunplitu zan sentenzia au Nabukodonosorren gañean, eta gizonen artetik aurtikia izan zan,eta idiak bezela belarra jan zuen, eta bere gorputzak zeruko intza artu zuen, alako moduan, non, illeak azi zitzaiozkan, agila baten egoak balirade bezela, eta azkazalak egazti arrapari batenak bezela.

31. Baña kunplitu ziradenean egun aiek, jaso nituen nik, Nabukodonosorrek, nere begiak zerura, eta nere zentzua itzulia izan zitzadan; eta bedeikatu nuen Jaungoiko txit goratua, eta alabatu eta gloriaz bete nuen beti bizi dana. Zeren bere eskubidea betiko eskubide bat dan, eta bere erreñuak irautzen duen mendez mende.

32. Eta bere aurrean utsa bezela idukiak dirade lurrean bizi diraden guztiak. Zeren berak nai duena, ori egiten du, ala zeruko potestadeakin, nola lurrean bizi diradenakin, eta ez dago, berak egiten duenari aurkeztu dizaiokenik, eta esan dizaiokenik: Zergatik au egin dezu?

33. Denbora artan beratan itzuli zitzadan zentzua, eta allegatu nintzan nere erreñuko onra eta edertasunera, eta berriz len bezelako irudia idukitzera allegatu nintzan. Eta nere erriko andizkiak, eta nere majistraduak etorri ziraden ni billatzera, eta nere tronuan berriz jarria izan nintzan, eta nere anditasuna ugaritu zan.

34. Orain bada, nik Nabukodonosorrek alabatzen det, eta goratzen det, eta gloriaz betetzen det zeruko erregea; zeren bere obra guztiak egiazkoak diraden, eta bere bideak zuzenak, et berak urgullutsuak azpiratu ditzake.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Baltasar erregeak eman zien jateketa bat, bere errege-uriko milla andizkiri, eta bakoitzak bere edadearen araura edaten zuen.

2. Zegoala bada bera ardoz betea, agindu zuen ekartzeko, bere aita Nabukodonosorrek, Jerusalenen egon zan tenplotik, berarekin eraman zituen urrezko, eta zillarrezko edanontziak, beretan edan zezaten erregeak eta bere andizkiak, eta beren emazteak, eta beren emazte azpikoak:

3. Ekarri zituzten bada urrezko, eta zillarrezko ontzi, Jerusalenen egon zan tenplotik eramanak, eta beretan edan zuten erregeak, eta bere andizkiak, eta beren emazteak, eta beren emazte azpikoak.

4. Edaten zuten ardoa, eta alabatzen zituzten beren jainko urrezkoak, eta zillarrezkoak, brontzezkoak, burnizkoak, zurezkoak, eta arrizkoak.

5. Ordu artan beratan agertu ziran beatz batzuek gizonaren esku, kandeleraren aurkez, erregea zegoan saloiko paretaren gañean eskribitzen zuenarenak bezelakoak, eta erregea zegoan eskribitzen ari zan eskuko beatzai begira.

6. Orduan erregearen arpegia aldatu zan, eta nastutzen zuten bere gogorazioak, bere guntzurrunetako giltzak askatzen zitzaiozkan, eta bere belaunak elkar jotzen zuten.

7. Deadar egin zuen bada boz goratuan erregeak, etorri erazi zitzaiela magoai, eta Kaldeatarrai, eta aztiai. Eta asi zan erregea, Babiloniako jakintsuai esaten: Eskritura au irakurri, eta berak adiraztzen duena esaten didana, purpuraz jantzia izango da, eta urrezko lepandea lepoan idukiko du, eta nere erreñuko irugarren laguna izango da.

8. Orduan etorri ziran erreñuko jakintsuak; baña ezin izan zuten irakurri eskritura, ez berak adirazten zuena agertu erregeari.

9. Argatik Baltasar erregea txit nastua gelditu zan, eta bere arpegia aldatu zan, eta bere jauregiko andizkiak ere, arrituak gelditu ziran.

10. Baña erreginña, erregeari, eta bere jauregiko andizkiai gertatu zitzaiotenagatik, sartu zan jateketako salan, eta asirik izketan, esan zuen: O erregea, betikoa izan dedilla zure bizia, etzaitzatela nastu dauzkazun gogorazioak, eta zure arpegia ere ez dedilla aldatu.

11. Bada zure erreñuan gizaseme bat, jainko santuen espiritua bere barrenen daukana, eta zure aitaren denboran aditza eta jakinduria beragan agertu ziraden. Argatik zure aita Nabukodonosor erregeak berak, jarri zuen magoen, enkantarien, Kaldeatarren eta igarlarien nagusi eginik, zure aitak, esaten det, o erregea.

12. Zeren espiritu goratu bat beragan ezagutu zan, eta zentzua, ta aditza ametsak azaldatzeko; eta gauza ezkutuak argitzeko, eta gauza gaitzak aditzeko, itz egiten det Danielgatik, zeñi erregeak Baltasarren izena jarri zion. Orain bada itz egin dizaiela Danieli, eta azaldaera berak emango du.

13. Daniel bada, erregeari aurkeztua izan zitzaion, eta itz egin zion erregeak, esaten ziola: Zu al zera Daniel hura, Judako seme erbestetuetatiko, Judeatik nere aitak ekarri zuena?

14. Aditu det esaten, zuk jainkoen espiritua daukazula, eta ezagera, eta aditza, eta jakinduria zugan, malla goratuan arkitzen diradela.

15. Orain bada, etorri dirade nere aurrera jakintsuak, eta magoak eskritura au irakurtzera, eta berak adirazten duena neri adiraztera, baña ezin esan izan didate itz oiek zer esan nai duten.

16. Nik bada, aditu det esaten zugatik, gauza illunak argitu ditzakezula, eta gauza gaitzak askatu. Zuk bada eskritura au irakurri, eta berak adiraztzenduena arkitu badizadakezu, purpuraz jantzia izango zera, zure lepoan urrezko lepande bat eramango dezu, eta nere erreñuan irugarren laguna izango zera.

17. Oietara erantzuten zuela Danielek, esan zuen erregearen aurrean: Zure eskeñtzak zuretzat izan bitez, eta zure etxeko doañak, beste bati eman zazkiozu; eskritura ordea irakurriko dizut, o erregea, eta berak esan nai duena erakutsiko dizut.

18. Jaungoiko txit goratuak, o erregea, eman ziozkan zure aita Nabukodonosorri erreñua, eta eskubidea, gloria, eta onrak;

19. Eta eman zion anditasunagatik lotsaz begiratzen zioten, eta beldurrez zeuden bere aurrean erri, tribu, eta mintzoera guztiak, berak il erazitzen zien nai zienai; eta gogoak ematen ziona, kastigatzen zuen, nai zituenak, goratzen zituen; eta nai zituenak beeratzen zituen.

20. Baña arrotu zanean bere espiritua, eta gogortu bere biotza urgulluan, bere erreñuko tronutik kendua izan zan, eta bere gloria gabe utzia,

21. Eta gizonen semeen artetik aurtikia, eta gañera, bere biotza abere batenaren antzekoa egin zan, eta bizitu izan zan basa astoakin. Idi bat balitza bezela, belarra jan zuen; eta bere gorputzak artu zuen zeruko intza: aliketa ezagutu zuen artean, Jaungoiko txit goratuak eskubidea daukala gizonen erreñuaren gañean, eta jartzen duela esertokiaren gañean, berak nai duena.

22. zuk bada, o Baltasar, izanik bere semea, eta gauza oiek jakinik, alaere ez dezu zure biotza umillatu;

23. Baizik zeruan agintzen duenaren kontra jaiki zera, eta ekarri erazi dituzu zure aurrera bere tenplo santuko edanontzi konsagratuak, eta bere ardoa edan dezu zuk, eta zure jauregiko andizkiak, eta zure emazteak, eta zure emazte azpikoak. Alabatu ere dituzu zillarrezko, eta urrezko, eta kobrezko, eta burnizko eta zurezko, eta arrizko jainkoak, zeñak ez duten ikusten, ez aditzen, ez sentitzen; arako Jaungoiko andia berriz, zeñaen eskuetan dauden zure asnasa, eta zure mugimendu guziak, ez dezu gloriaz bete.

24. Argatik berak bialdu zituen arako eskuaren beatzak, zeñak eskribitu duen señalatua dagoena.

25. An eskribitua dagoena bada au da: Mane, Thezel, Phares.

26. Eta au da itz aiek esan nai dutena: Mane: kontatu ditu Jaungoikoak zure erregetzako egunak, eta muga jarri die.

27. Thezel: balantzan pisatua izan zera, eta arkitu da, gutxi daukazula.

28. Phares: Partitua izan da zure erreñua, eta Medoai eta Persai emana izan zaiote.

29. Orduan, erregeak aginduta, Daniel izan zan prupuraz jantzia, eta ipiñia izan zitzaion lepoan urrezko lepandea, eta guztiai jakinerazia izan zizaioten, Danielek zeukala erreñuan eskubideko irugarren tokia.

30. Gau artan beratan, Kaldeatarren errege Baltasar illa izan zan.

31. Eta bere lekuan jarri zan erregetzan Medoa, irurogeita bi urtekoa.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Gogoak eman zion Dariori, jartzea erreñuko agintaritzan eun eta ogei satrapa, bere erreñu guzian egon zitezen.

2. Eta beren agintari iru prinzipe, zeñaetatik bat Daniel zan, satrapak oiei kontuak eman zitzaiezten, erregeak ainbeste lan iduki etzezan.

3. Danielek ordea prinzipe eta satrapa guztiak atzera utzitzen zituen, zeren Jaungoikoaren espiritua beragan ugariago zegoan.

4. Erregeak bada zerabiltzan asmoak, emateko berari erreñu guztiko eskubidea. Argatik prinzipeak eta satrapak zebiltzan, erregea Danielen kontra aserretua ipintzeko eraren billan, baña ezin izan zuten arkitu bera salatzeko, ez bere sospetxarikan idukitzeko gai ta biderik: zeren bera leiala zan, eta bekatu guzitik, eta bere sospetxa guzitik ere txit urrutian zegoan.

5. Esan zuten bada: Ez diogu arkituko Daniel oni nondik salatu, baizik menturaz bere Jaungoikoaren legeari dagokion gauzaren batean.

6. Orduan prinzipeak, eta satrapak, marro bat sartu zioten erregeari, eta onela itz egin zioten: Beti bizi zaitezela, o Dario erregea,

7. Zure erreñuko prinzipe guztien, majistraduen, eta satrapen, senadoreen eta juezen iritzia da, erregeak eman dezala aginte bat, eskatzen diona gauzaren bat jainko, edo gizonen bati, ogeita amar egun irago artean, baizik zuri, o erregea, leoien kobara aurtikia izan dedilla.

8. Orain bada, o erregea, sendotu ezazu iritzi au, eta eskribitu ezazu agintea, izan dedin iñork, ere indar gabe utzi ezin lezakeana, Medoak eta Persak erabakia bezela, eta iñori ere bera ausitzea zillegi izan ez dizaiokean.

9. Dario erregeak berriz erakutsi zien agintea, eta eman zuen.

10. Jakin zuenean au Danielek, au da, esan dan agintea emana izan zala, bere etxera joan zan, eta an bere etxeko leio, Jerusalenerontz begira zeudenak idikita, jartzen zan bere belaun bien gañean iru aldiz egunean.

Adoratzen zuen Jaungoikoa, eta ematen ziozkan eskerrak, len egin oi zuen bezela.

11. Gizon aiek bada, arreta andiarekin azeloan zeudela, arkitu zuten Daniel orazioan eta bere Jaungoikoari erreguak egiten ari zala.

12. Eta joanik erregeagana, itz egin zioten agintearen gañean, esaten zutela: O erregea, ez al dezu zuk agindu, edozeñere lagun, ogeita amar egun irago arteraño, erregututzen diona jainkoaren bati, edo gizonen bati, baizik zuri, o erregea, leoien kobara aurtikia izan dedilla? Onetara erregeak erantzun zuen, esaten zuela: Egia da, Medoen eta Persaen agintearen araura, zeñ ausitzea iñori ere zillegi etzaion.

13. Orduan erantzuten zutela, erregearen aurrean, esan zuten: Daniel, Judako katibuen semeetatik batek, gutxitan iduki du zure legea, eta zuk eman zenduen agintea, baizik egunean iru alditan orazio egiten du bere erara.

14. Aditu zuenean au erregeak, txit tristetua gelditu zan; eta erabaki zuen bere biotzean, Daniel salbatzea; eta eguzkia sartu arteraño alegin andiak egin zituen bera libratzeko.

15. Gizon aiek berriz, ezaguturik erregearen gogoa, esan zioten: Jakin ezazu, o erregea, Medoen eta Persaen legea dala, ez dedilla zillegi izan aldatzea, erregeak ematen duen aginterik.

16. Orduan erregeak agindu zuen, eta ekarri zuten Daniel, eta leoien koban aurtiki zuten. Eta erregeak Danieli esan zion: Zure Jaungoikoak, zeñ beti adoratzen dezun, berak libratuko zaitu.

17. Eta arri bat ekarri zuten, eta ipiñi zuten kobaren aoaren gañean, eta erregeak bere errastunarekin, eta bere andizkien errastunakin sillutu zuen.

18. Erregea bere jauregira itzuli zan, oeratu zan afaldu gabetanik, eta etzan bere aurrean janaririkan batere ipiñi, eta gañera lorik batere ezin egin izan zuen.

19. Biaramonean goizean goiz jaikitzen zala erregea, joan zan agudo leoien kobara.

20. Eta alderatzen zala kobara negarrezko boz batekin, Danieli ots egin zion, esaten zuela: Daniel Jaungoiko biziaren serbitzaria, zure Jaungoiko, beti serbitzen dezunak, leoietatik libratu al izan ote zaitu?

21. Eta Danielek erregeari erantzun zion, esaten zuela: O erregea, beti bizi zaitezela.

22. Nere Jaungoikoak bialdu zuen bere aingerua, zeñak itxi zituen leoien aoak, eta ez didate gaitzikan batere egin, zeren bere aurrean nere justiziari begiratu zaion: eta zure kontra ere ez det obenikan batere egin.

23. Orduan txit poztu zan erregea, Danielen amorioagatik, eta agindu zuen, Daniel kobatikan kanpora atera zezatela, eta atera zutenean, etzan beragan gaitzikan batere arkitu, zeren beren Jaungoikoagan itxedopena iduki zuen.

24. Gero, erregearen aginduz, ekarriak izan ziran Daniel salatu zuten, leoien kobara aurtikiak izan ziraden; eta oraindikan beera allegatu baño lenago, leoiak arrapatu zituzten, eta zatitu zituzten beren ezur guztiak.

25. Orduan Dario erregeak eskribitu zien lurraren gañean bizi diraden erri, tribu eta izkuntzai: Pakea ugaritu dedilla geiago eta geiago zuekgan.

26. Nik erabaki det, nere agintaritzako toki, eta erreñu guztian, Danielen Jaungoikoari lotsaz begiratu dakiola, eta bere beldurra iduki dedilla, zeren bera, Jaungoiko bizia eta betikoa dan mendez mende; eta bere erreñua ez da desegiña izango, eta bere eskubidea betikoa da.

27. Bera da libratzallea, eta salbatzallea, mirariak eta gauza arrigarriak egiten dituena zeruan, eta lurrean, bera da Daniel leoien kobatik libratu duena.

28. Iraun zuen gero Danielek onra andian Darioren erregetzan; eta Siro, Persiatarren erregearen erregetzan.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Baltasar Babiloniako erregearen lenbiziko urtean, Danielek ametsetan ikusketa bat iduki zuen; eta ikusketa bere adimenean iduki zuen oean zegoala. Eta ametsa eskribitu zuen, eta jarri zuen itz gutxitan, eta onela laburrean kontatu zuen.

2. Gau batean ikusketa au iduki nuen: Zeruko lau aizeak elkarri erasotzen zioten itsaso andian.

3. Eta lau pisti andi, desberdiñak beren artean, itsasotik ateratzen ziran.

4. Lenbizikoa leoi eme bat bezelakoa zan, eta agiliaren egoak zeuzkan. Nik begiratzen nion artean, ona emen non, egoak atera ziozkaten, eta lurretik altxatu zan, eta zutik jarri zan gizon bat bezela, eta gizonaren biotza emana izan zitzaion.

5. Eta ikusi nuen beste pisti bat, artz baten antzekoa, zeñ jarri zan aren aldamenean, zeñak iru errenkada ortz zeuzkan, eta onela esaten zioten: Jaiki adi, eta aragi asko jan ezak.

6. Oien ondoan ni begira nengoan, eta ona emen beste pisti bat leoiarrea bezelakoa, eta gañeko aldamenean lau ego, egaztiarenak bezela-

koak zeuzkan. Eta pisti onek zeuzkan lau buru, eta berari eskubidea emana izan zitzaion.

7. Oien ondoan egon nintzan ni gaueko ikusketa gogoan nuela, noiz ona emen non agertu zan laugarren pisti ikaragarri, arrigarri eta txit sendo bat, zeñak zeuzkan burnizko ortz andiak, jaten zuen, eta zatitutzen zuen, eta kondarrak oñakin zapaltzen zituen; baña bera zan, len ikusi nituen beste pistietatik desberdiña, eta amar adar zeuzkan.

8. Banengoan ni adar oiei begira, eta ona emen non, beren erdian irten zan adar txikiago bat, eta au agertu zanean, atereak izan zitzaiozkan iru adar lenbizikoetatikoak. Adar txiki onetan zeuden begi batzuek gizonarenak bezelakoak, eta ao bat, gauza andiak esaten zituena.

9. Begira nengoan ni, aliketa jartoki batzuek ipiñi zituzten artean; eta gizon zar, asko egunetakoa, eseri zan, bere so;ekoak ziran zuriak elurra bezela, eta ardi ille garbia bezelakoa, bere buruko illeak. Bere tronua suzko garrezkoa zan, eta onen kurpillak su erazekia.

10. Suzko, eta txit arin dijoan ibai bat, irtetzen zan bere arpegitik. Milaz millak ziran serbitzen zutenak, eta milla millak, bere aurrean ta inguruan zeudenak. Eseri zan juzgatzeko, eta liburuak idikiak izan ziraden.

11. Zai nengoan ni, adar artatikan ateratzen ziran itz anditsuen otsagatik; eta ikusi nuen illa izan zala pistia, eta bere gorputza suan erazekia egotera, aurtikia izan zala;

12. Eta beste pistiai ere kendua izan zitzaiotela eskubidea, eta izendatua beren bizitzako denbora, denbora bateraño eta beste denbora bateraño.

13. Ni nengoan bada begira gaueko ikusketako denboran, eta ona non zetorren zeruko odeien artean gizaseme odol garbiko bat, gizonaren semea zirudiana, zeñ aurreratu zan egun askotako gizon zarraganontz, eta bere aurrean jarri zuten.

14. Eta eman zion onek eskubidea, eta onra, eta erreñua, eta erri, tribu, eta izkuntza guztiak berak serbituko dute. Bere eskubidea, betiko eskubidea da, etzaiona kendua izango, eta bere erreñua desegin ez ditekeana da.

15. Izua nerekin jabetu zan. Ni Daniel, arritua gelditu nintzan alako gauzakin, eta iduki nituen ikusketak, nere gogoa txit nastu zuten.

16. Alderatu nintzan an zeudenetatik batgana, eta eskatu nion ikusketa aiek egiaz adirazten zutena; eta beren azaldaera eman zidan, eta eman zizkidan erakutsiak.

17. Lau pisti andi oiek, esan zidan, lurrean jaikiko diran lau erreñu dirade.

18. Gero Jaungoiko txit goratuaren santuak erreñua artuko dute, eta erregetza idukiko dute gizaldiaren atzeneraño, mendez mende.

19. Gero nai nituen jakin ziatz, laugarren pistiaren gañeko gauzak, zeñ zan beste guztietatik ain desberdiña, eta txit izugarria, zeñaen ortzak eta azkazalak burnizkoak ziraden, eta zeñak jaten zuen, eta txikitutzen zuen, bere oñakin zapaltzen zuela gelditzen zana.

20. Eta orobat jakin nai nuela, zer ziraden buruan zeuzkan amar adarrak, eta beste adar irtetzen asi zitzaiona; zeñ agertu zanean, iru adarrak erori ziraden, eta nola adar ark zeuzkan begiak, eta gauza anditsuak esaten zituen aoa, eta zan beste guztiak baño andiagoa.

21. Banengoan ni begira, eta ona emen non adar ark gerra egiten zuen santuen kontra, eta garaitzen zituen;

22. Aliketa gizon Zar egun askotakoa allegatu zan artean, eta eman zuen sentenzia Jaungoiko txit goratuaren santuen alde, eta etorri zan denbora, eta santuak erreñua iritxi zuten.

23. Eta ark onela itz egin zidan: laugarren pistia izango da laugarren erreñua lurraren gañean, zeñ izango dan erreñu guztiak baño andiagoa, eta iretsiko du lur guztia, eta zapalduko du, eta txeatuko du.

24. Eta esan dan erreñuaren amar adarrak, amar errege izango dirade, zeñaen ondoan jaikiko da beste bat, zeñ izango dan lenbizikoak baño almentsuagoa, eta iru errege aurtikiko ditu.

25. Eta berak gaizki itz egingo du Jaungoiko txit goratuaren kontra, eta sinistuko du daukala eskubidea aldatzeko denborak, eta legeak, eta jarriak izango dirade bere eskuan denbora batean, eta bi denboratan, eta denbora baten erdian.

26. Eta gero juizioa zelebratuko da, kendu datzakion eskubidea, eta desegiña izan dedin, eta galdu dedin betiko.

27. Eta erreñua, eta eskubidea, eta erreñuko anditasuna, zeru guztiaren azpian dagoan guztia emana izan datzakion Jaungoiko txit goratuaren santuen erriari, zeñaen erreñua betiko erreñua dan, eta errege guztiak bera serbituko dute, eta berari obedituko diote.

28. Emen bukatu zuen izketa. Ni Daniel nere gogorazio oiekin txit nastua gelditu nintzan, eta nere arpegiko kolorea aldatu zan. Alaere, ikusketa oni nere biotzean iraunerazi nion.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Baltasar erregearen erregetzako irugarren urtean, ikusketa bat agertu zitzadan neri, Danieli, asieran iduki nuena baño geroago.

2. Ikusketa au iduki nuen, nengoala Susako gazteluan, zeñ dagoan Elamgo lurrean; eta ikusketan iruditu zitzadan Olaiko atearen gañean nengoala.

3. Eta jaso nituen nere begiak, eta begiratu nuen, eta ona emen non aintzira baten aurrean zegoan ari bat, zeñak zeuzkan adar txit goratu batzuek, eta bata bestea baño gorago, eta aziaz zijoala. Gero

4. Ikusi nuen aria adarka ari zala Sartalderontz, eta ifarrerontz, eta Egoerontz, eta etzegoan pistirik batere berari aurkeztu litzakiokeanik, ez libratu zezakeanik bere eskubidetik, eta egin zuen nai zuen guztia, eta andi egin zan.

5. Banengoan ni oiek gogoan neranbiltzala, eta ona emen aker bat, Sortalderontztik zetorrena, bazebillan lur guztitik, eta ain agudo, non, etzion lurrari ukiturik egiten. Akerrak bere begien aurrean adar txit berarizko bat zeukan.

6. Eta zuzendu zan, nik atearen aurrean zegoala ikusi nuen ari, txit ongi adartuaren kontra, eta eraso zan beraganontz bere indar guztiaren bultzadarekin.

7. Eta allegatu zanean ariaren aldera, eraso zion txit portizki, eta zauritu zuen, eta bi adarrak autsi ziozkan, eta aria ez lizaiokean berari aurkeztu, eta lurrera aurtikita gero, zapaldu zuen; eta iñor ere ez zezakean aria bere mendetik libratu.

8. Aker au txit andia egin zan, eta azi zanean, ausia izan zan adar andia, zeñaen lekuan erne ziran lau adar, zeruko lau aizeetarontz.

9. Eta oietatik batetik irten zan adar txiki bat, zeñ txit azi zan Egoerontz, eta Sortalderontz, eta lur sendorontz.

10. Eta goratu zan, zeruko gazteluaren kontra erasotzeraño, eta beera aurtiki zituen sendoak, eta izarrak, eta zapaldu zituen.

11. Eta andi egin zan, gazteluko prinzipearen kontra erasotzeraño, eta kendu zion beti irautzen zuen eskeñtza, eta bere santifikazioko tokia azpiratu zuen.

12. Eta emana izan zitzaion eskubidea, betiko eskeñtzaren kontra, bekatuak gatik, eta egia azpiratua izango da lurraren gañean, eta berak erasoko dio, gogoak ematen dion guztiari, eta nai duenarekin irtengo da.

13. Nik aditu nion santuetatik bati itz egiten zuela, eta esan zion santu batek, nik ezagutzen ez nuen, eta izketan ari zan beste santu bati: Zenbat denboran iraungo du, ikusketan adirazten danak betiko eskeñtzaren gañean, eta bektuaren gañean, galmenaren gaia, eta santuarioa eta lur sendoa zapalduak izatearen gañean?

14. Eta erantzun zion: Bi milla eta irureun egun osoetan, edo arratsalde ta goizezkoetan, eta gero santuarioa garbitua izango da.

15. Eta nik Danielek ikusketa au neukan artean, eta bere aditza billatzen nuen arten, ona emen nere aurrean gizonaren irudi bat bezelakoa jarri zan.

16. Eta aditu nuen gizon baten boza Ulaiko atearen barrendik, zeñak deadar egin zuen, esaten zuela: Gabriel, argitu zaiozu oni ikusketa.

17. Onenbesterekin etorri zan, eta gelditu zan ni nengoan tokiaren aldean; eta etorri zanean, ikaratuta erori nintzan nere arpegiaren gañean, eta esan zidan: O gizonaren semea, aditu ezazu nola kunplituko dan ikusketa au denbora izendatuan.

18. Eta berak itz egiten zidan bitartean, ni erori nintzan lurrera nere arpegiaren gañera; baña berak ukitu zidan, eta itzulerazi zidan nere lengo egoerara.

19. Orduan esan zidan: Nik erakutsiko dizkizut madarikazioaren atzenean gertatuko diraden gauzak, zeren denbora onek bere atzena badu.

20. Adarrak zeuzkala ikusi zenduen aria, Medoen eta Persaen erregea da:

21. Akerra Grieguen erregea da, eta bere begien artean daukan adar andiak, lenbiziko erregea adirazten du.

22. Ausirik adar hura, bere tokian erne ziran lau adarrak, adirazten dituzte, bere erreñuan jaikiko diraden lau, erregeak, baña lenbiziko erregearen indarrik ez dute idukiko.

23. Eta oien erregetzaren ondoan, ugariturik juduen gaiztakeriak, jaikiko da errege bat lotsagaldukoa, eta gauza ezkutuen konprenditzallea,

24. Eta bere eskubidea sendotuko da; baña ez bere indarrakgatik, eta ez da gauza erraza iruditzen, nola guztia arrasatuko duen, eta egingo duen gogoak ematen dion guztia, eta guztia ongi irtengo zaio, eta bizia kenduko die sendoai, santuen erriari,

25. Berak nai duen bezela, eta ongi irtengo dira, irazkitzen dituen asmazioak, eta oiekin bere biotza urgullutuko da, eta idukirik gauza guztiak ugari, asko ilko ditu, eta prinzipeen Prinzipearen kontra jaikiko da, baña ezerezera biurtua izango da, eta ez gizonaren obraz.

26. Eta ikusketaren azaldaera au egiazkoa da, eta atzeneko eguneko arratsalde eta goizaren artean betetasuna idukiko du.

27. Eta nik Danielek indarrak galdu nituen, eta zenbait egunean erirk egon nintzan. Eta jaiki nintzanean, erregearen lanak eguten nituen, baña ikusketarekin arritua nengoan, iñor ere etzegoala nork azaldatu zizadan.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Dario, Asueroen seme, Medoen jatorrikoaren lenbiziko urtean, zeñak erreñatu zuen Kaldeatarren erreñuaren gañean.

2. Bere erregetzaren lenbiziko urtean, nik Danielek ezagutu nuen Jeremiasen liburuetan, Jeremias profetari Jaunak itz egin zion urteen kontua, zeñatan kunplitu bear ziraden Jerusalenen ondameneko irurogeita amar urteak:

3. Eta itzuli nuen nere arpegia nere Jaun Jainkoaganontz, zuzentzeko berari nere erregu, eta eskariak barauakin, eta zilizioz jantzita, eta autsez estalita.

4. Eta erregutu nion nere Jaun Jainkoari, eta ematen niozkala nere alabantzak, esan nuen: Aditu nazazu arren, o Jaun, Jainko andi eta ikaragarria, leiala zerana kunplitzen zure elkartasun eta urrikaltasuna maitatzen zaituztenakin, eta zure aginteak gordetzen dituztenakin.

5. Guk bekatu egin degu, gaiztakerian ari gera, bizitu izan gera dongaro, eta ausi degu fedea, eta zure aginte eta erabakietatik alde egin degu.

6. Ez diegu obeditu zure serbitzari profetai, zeñak itz egin zien zure izenean gure erregeai, eta gure prinzipeai, eta gure gurasoai, eta lurreko erri guztiari.

7. Zurea da, o Jauna, justizia; guretzat ordea gure arpegiko lotsaria. Nola gertatzen zaioten gaur Judako gizon guztiari, eta Jerusalenen bizi dan guztiari, Israel guztiari, ala aldean daudenai, nola urrutian daudenai, aurtiki ziñituen erri guztietan, beren gaiztakeriakgatik, zeñakin ofenditu zinduzten.

8. Jauna, justoa da gure arpegiko lotsaria, gure erregeena, gure prinzipeena, eta gure gurasoena, zeñak guztiak bekatu egin zuten.

9. Baña zuri, o gure Jaun Jainkoa, urrikaltasuna eta beraatasuna dagozkizu, zeren guk zugandik alde egin degun,

10. Eta ez degun aditu gure Jaun Jainkoaren boza, ibilli giñaindezen bere lege, bere serbitzari profeten bitartez, ipiñi zigunean.

11. Eta Israel guztiak zure legea ausi zuen; eta alde egin zuen, zure boza ez aditzeko; eta ala euria bezela erori ziran gure gañera, Moises Jaungoikoaren serbitzariaren liburuan eskribituak dauden madarikazioa, eta aiertasuna; zeren Jaunaren kontra bekatu egin genduen.

12. Eta berak kunplitu du eman zuen sentenzia gure kontra, eta gu gobernatu ginduen prinzipeen kontra, bialtzen duela gure kontra gaitz andi bat, nolakoarik beñere zeruaren azpian izan ez dan, eta nolakoa Jerusaleni gertatu zaion.

13. Gaitz guzti au etorri zan gure gañera, Moisesen legean eskribitua dagoanaren araura; eta ez giñan zuzendu zugana, o gure Jaun Jainkoa, gure gaiztakerietatik konbertitzeko; eta zure eskeñtzen egia erabiltzeko gure gogoan.

14. Eta kontuan egon zan Jauna kastigua bialtzeko, eta gure gañera aurtiki zuen: justoa da gure Jaun Jainkoa, berak egiten dituen obra guztietan, zeren guk bere boza ez genduen aditu nai izan.

15. Orain bada, o gure Jaun Jainkoa, zuri esku sendoarekin zure erria Ejiptoko lurretik atera zenduenari, eta irabazi zendueanari izengoiti gloriaz beteriko bat, nolakoa dan orain daukazuna, aitortzen dizugu bekatu egin degula, gaiztakerian ari izan gerala.

16. zure justizia guztiagatik, o Jauna, erregututzen dizut arren biguñdu dedilla zure aserre, eta sumintasuna Jerusalengo erriaren kontra; eta Siongo zure mendi santuaren kontra; zeren gure bekatuak gatik, eta gure gurasoen gaiztakeriakgatik, Jerusalen eta zure erria, gure inguruan daudenen irria diraden.

17. Orain bada, o gure Jaungoikoa, aditu itzatzu zure serbitzariaren orazioa, eta bere erreguak, eta zure zerorren amorioagatik, begiratu zaiozu biguñtasunarekin, zure santuario, eremutua dagoanari.

18. Zeartu ezazu niganontz, o nere Jainkoa, zure belarria, eta aditu nazazu. Idiki itzatzu zure begiak, eta ikusi ezazu gure galmendea, eta erriarena, zeñatan zure izen santuari ots egiten zitzaion; zeren zure aurrean auzpezturik egiten dizkizugu gure erregu umillak; itxedotzen degula, ez gure justizian, baizik zure urrikaltasun txit andian.

19. Aditu nazazu, o Jauna, biguñtasunarekin. Jauna, otsandu zaite, begiratu zadazu, eta jarri zaite gure salbazioko lanean, ez ezazu luzatu, o Jaungoikoa, zeren iriak eta erriak zure izena daramaten.

20. Eta ni izketan eta orazioan nengoala, eta konfesatzen nituela nere bekatuak, eta nere erri Israelen bekatuak, eta egiten nituela nere eskari umillak nere Jaungoikoaren aurrean nere Jaungoikoaren mendi santuaren alde,

21. Oraindikan nere orazioko itzak esaten nengoala, ona emen non Gabriel, ikusketaren asieran nik ikusi nuen gizon hurak, egaan, supituan ukitu zidan arratsaldeko sakrifizioaren orduan;

22. Eta erakutsi zidan, eta itz egin zidan, eta esan zuen: Daniel, ni etorri naiz orain zuri erakutsiak ematera, eta zuri Jaungoikoaren asmazioak aditu erazitzera.

23. Agintea eman zitzadan, orazio egiten jarri ziñanean bereala; eta ni nator zuri adiraztera, zeren gurari bizietako gizasemea zeran. Arretaz begirtu zaiezu bada zuk orain nere itzai, eta ikusketa konprenditu ezazu.

24. Irurogeita amar asteen arte señalatu dira zure erriarentzat, eta zure iri santuarentzat, zeñaen atzenean gaiztakeriak idukiko duen bukaera, eta bekatuak atzena, eta gaiztakeria izango da desegiña, eta etorriko da betiko justizia, eta kunplituko dira ikusketa eta profezia, eta santuen santua olioarekin igortzia izango da.

25. Jakin ezazu bada eta arretaz begiratu, agintea ematen danetik, Jerusalen berriz egiña izateko, Kristo Prinzipearaño zazpi aste eta irurogeita bi aste iragoko dirade, eta erria eta murruak berriz egiñak izango dira, antsiako denboretan.

26. Eta irurogeita bi aste igarota, Kristoari bizia kenduko zaio; eta ez da geiago izango berea erria, zeñak ukatuko duen. Eta erri bat bere agintariarekin etorriko da, eta erria eta santuarioa desegingo ditu, eta bere atzena, galmena izango da; eta bukatzen danean gerra, ondamena geldituko da an egotez.

27. Eta Kristoak sendotuko du bere elkartasun berria aste batean askorekin; eta aste onen erdian ez da egongo doañik, ez eskeñtzarik, eta tenploan ondameneko nazka egongo da; eta ondamenak munduaren bukaera eta atzeneraño iraungo du.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Ziro, Persaen erregearen irugarren urtean, Daniel, izengoitiz Baltasarri, zerutik agertua izan zitzaion gertakari egiazko bat, eta indar andiko martizti bat. Eta berak gertakaria konprenditu zuen, zeren ikusketa onetarako aditza premiazkoa dan.

2. Egun aietan ni Daniel, negarrez egon nintzan iru asteko egunetan.

3. Ogi opagarririk ez nuen jan, eta aragirik eta ardorik nere aoan etzan sartu, eta okenduarekin ere ez nintzan usaitu; aliketa iru aste oietako egunak kunplituak izan ziran artean.

4. Lenbiziko illaren ogeita laugarren egunean berriz, Tigris ibai andiaren erriberan nengoan.

5. Eta nere begiak jaso nituen, eta begiratu nuen, eta ona emen gizaseme bat, linozko soñekoakin, eta bere gerria faja, urre garbiz bordatu batekin, lotua zeukala:

6. Bere gorputzak argi egiten zuen krisolitoak bezela, eta bere arpegiak tximistak bezela, eta bere begiak argi zuzi erazeki bi bezelakoak ziraden. Bere besoak, eta gorputzaren gañerakoa oñetaraño, brontze argitsuaren irudikoa zan; eta bere itzen otsa, jendetza andi baten otsa bezelakoa.

7. Eta nik Danielek, bakarrik ikusketa au iduki nuen: nerekin zeuden gizon aiek ordea etzuten ikusi; baizik izu txit andi bat berakin jabetu zan, eta iges egin zuten ezkutatzera.

8. Eta nik, bakarrik geldituta, ikusi nuen ikusketa andi au, eta asnasa gabetanik gelditu nintzan, eta arpegia aldatu zitzadan, eta desalaituta, erori nintzan, indar guztiak galduta.

9. Eta nik bere itzen otsa aditzen nuen; eta netzan aoz beera, guztia arritua, eta nere arpegiak jarraitzen zuen lurrari itsatsia,

10. eta ona non esku batek ukitu zidan, eta nere belaunen gañera jaikierazi zidan, eta nere eskuetako beatzen gañera,

11. Eta berak esan zidan: Daniel, guraen gizona, aditu itzatzu nik esaten dizkizudan itzak; eta zutik jarri zaite. Eta berak itz oiek esan ta bereala, zutik jarri nintzan beldurrez ikara.

12. Eta esan zidan: Ez ezazu beldurrik iduki, o Daniel, zeren, Jaungoikoagandik aditza iritxitzeko, Jaungoikoaren aurrean zu mortifikatzea zure biotzean erabaki zenduen lenbiziko egunetik, zure erreguak adituak izan ziraden, eta zure orazioakgaitik etorri naiz ni.

13. Baña Persaen erreñuko Prinzipea aurkeztu zat ogeita bat egunean, eta ona emen non etorri zan neri laguntzera Migel, lenbiziko prinzipeetatiko bat, eta ni an Persaen erregearen aldean gelditu nintzan.

14. Etorri naiz bada ni orain, erakustera zuri, atzeneko egunetan zure erriari gertatuko zaiozkan gauzak, zeren ikusketa au, urrutiko denboretara zuzentzen dan.

15. Eta berak itz oiek esaten zizkidan denboran, nere arpegia lurrerontz beeratu nuen, eta ixillikan gelditu nintzan.

16. Eta ona non alako batean, gizonaren semearen antzekoa zan ark, nere ezpañai ukitu zien,eta idikirik nere aoa, itz egin nuen, eta esan nion nere aurrean geldirik zegoan gizonari: O nere Jauna, begiratu dizudaneko nere lokaezur guztiak desgiltzatu dirade, eta indarrikan batere gabe gelditu naiz.

17. Eta nola nere Jaunaren serbitzariak nere Jaunari bere itza zuzendu dizaioke? Zeren indarrikan batere ez da nigan gelditu, eta asnasarikan ere ez daukat.

18. Andikan laster berriz ukitu zidan arako gizanoble, gizonaren irudian nik ikusten nuenak, eta sendotu ninduen,

19. Eta esan zidan: Ez ezazu beldurrikan iduki, o guraen gizona, pakea izan dedilla zurekin, asnasa artu ezazu, eta zaude sendo. Eta neri izketan ari zan denboran, ni sendotzen nintzan, eta esan nuen: itz egin ezazu, o nere Jauna, zeren zuk sendotu nazun.

20. Eta berak esan zuen: Ni zugana zergatik etorri naizan, zuk al dakizu? Eta orain ni itzultzen naiz Persaen prinzipearen kontra gudatzera. Ni ateratzen nintzanean, agertu zan Griegen Prinzipea bazetorrela.

21. Alaere nik adiraziko dizut zuri, zer dagoan argitua egiazko erabakian, gauza guzi oietan iñork ere ez dit laguntzen, Migel, zuen Prinzipea danak baizik.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Ni Gabriel bada, Dario Medoaren erregetzako lenbiziko urtetik berakin nengoan, sendotu, eta indartu zedin.

2. Eta orain nik egia adiraziko dizut. Ona emen non oraindikan iru errege egongo diran Persian, eta laugarrena izango da beste guztiak baño aberatsago, bere ondasun txit ugariak gatik, eta guztiak baño aberatsago egiten danean, Greziako erreñuaren kontra jende guztiak keñatuko ditu.

3. Baña jaikiko da errege almentsu bat, zabalduko duena txit urrutiraño bere agintaritza, eta nai duen guztia egingo du.

4. Eta bera tokirik gorengoan dagoanean, desegiña izango da bere erreñua, eta zeruko lau aizeetarontz partitua, baña ez bere jatorrikoen artean, ezta berak agindu zuen eskubidearekin ere; zeren esan diraden lau erreñuez gañera, oraindikan partitua izango da beste prinzipe arrotz batzuen artean ere.

5. Eta Egoeko erregea almentsua egingo da, baña bere prinzipeetatik batek berak baño geiago alko du, eta erreñu askoren Jaun izango da, zeren bere agintaritza txit urrutira zabalduko duen.

6. Eta urte asko iragota elkartuko dirade; eta Egoeko erregearen alaba, ifarreko erregearen emazte izatera iragoko da pakeak egiteko, baña berak ezin geldirik idukiko du bere senarraren besoaren indarra, eta ez du ere iraungo bere jatorriak; eta illa izango da bera, eta berari lagundu zien eta denbora artan sendatu zuten galai gazteak.

7. Alaere geldituko da bere jatorriko landare bat; zeñ etorriko dan martizti batekin, eta sartuko da ifarreko erregearen lurrean, eta desegingo ditu, eta beren jabe egingo da.

8. Gañera Ejiptora katibu eramango ditu beren jainkoak, eta irudiak, eta zillarrezko eta urrezko ontzi balio andikoak. Berak ifarreko erregea menderatuko du.

9. Eta Egoeko erregea sartuko da erreñura, eta bere errira itzuliko da.

10. Alaere aserreturik aren semeak, martizti andiak bilduko dituzte, eta beretatik bat agudo eta supituan etorriko da, ugolde baten gisara, eta urrengo urtean biurtuko da, eta txit gogotik asiko da gudan Ejiptoko gudarien kontra.

11. Eta Egoeko erregea, aupadak aditurik, aterako da, eta gudatuko da ifarreko erregearen kontra, eta prestatuko du martizti txit ikaragarri bat, eta bere mendean jende asko eroriko da.

12. Eta asko arrapatuko ditu, eta urgullutuko da bere biotza, eta milla askori galdueraziko dio, eta alaere ez da garai geldituko;

13. Zeren ifarreko erregeak, berriz ipiñiko du lenbizikoa baño ejerzitu andiago bat; eta urte batzuek iragota, etorriko da supituan eta agudo, ejerzitu ugari batekin eta indar andiarekin.

14. Eta denbora aietan jaikiko dira asko Egoeko erregearen kotra, baita zure erriko fedeausleen semeak ere jaikiko dira, alako moduan, non, ikusketa kunplituko dan, eta galduko dirade.

15. Eta etorriko da ifarreko erregea, eta lubetak egingo ditu, eta arrapatuko ditu erririk murrutuenak, eta Egoeko erregearen indarrak ezin aurkeztuko zaie, eta aterako dira bere kontra bere agintaririk onenak, baña indarrikan gabe arkituko dira.

16. Eta etortzen dala hura Egoeko erregearen gañera, nai duen guztia egingo du, eta ez da izango berari aurkeztu dizaiokeanik, eta sartuko da Judeako lur argitsuan, zeñ berak arrasatua izango dan.

17. Eta zuzenduko ditu bere begiak aren erreñu guztia arrapatzera etortzera, eta tratatuko du berarekin fede onarekin bezela, eta emango dio bere alaba, emakumeetatik ederrena, bera arrasatzeko; baña ez dio ongi irtengo, eta alaba ere ez da bere alde egongo.

18. Eta zuzenduko da ugartetarontz, eta beretatik asko arrapatuko ditu, eta bere lotsariaren gaiari gelditu eraziko dio, baña atzenean, bera lotsariz betea geldituko da.

19. Eta bere erriko agintaritzara itzuliko da, eta an beaztopo bat arkituko du, eta galduko da, eta ez da arkitua izango.

20. Eta bere lekuan jarriko da gizon txit zatar, eta erregearen onraren diña ez dan bat, eta egun gutxitan desegiña izango da, eta ez elean, ez gudan.

21. Eta onen lekuan jarriko da prinzipe mezpreziagarri bat, eta errege bati zor zaion onrarik etzaio emango, zeñ ixillikan etorriko dan, eta marroz erreñua arrapatuko du.

22. Eta bere kontra gudatzen diran indarrak desegiñak eta ondatuak geldituko dirade, eta gañera elkartasuneko agintaria.

23. Eta berarekin adiskidetuta gero, marro bat egingo dio berari, Ejiptora igoko da, eta garaituko du ejerzitu txiki batekin.

24. Eta erri ugari eta ondasunez beteetan sartuko da; bere asaba guztiak beñere egin izan etzitezketen gauza, dagoan guztia atxituko du, arrapatuko du, eta ondatuko ditu bere ondasunak, eta sendoenen kontra asmazioak asmatuaz joango da, eta au denbora bateraño.

25. Eta ikusiko da bere eskubide eta sumintasunak akullatua, ejerzitu andi batekin Egoeko erregearen kontra ateratzera, eta Egoeko erregea alaituko da gudarako, laguntzen dioten martizti andi eta sendoen bitartez; baña ez diote balioko, zeren bere kontra asmazioak asmatuko diran.

26. Eta bere maian jaten zutenak berak, bere galmena izango dirade, eta bere ejerzitua desegiña geldituko da, txit asko illak diradela.

27. Errege biak ez dute beste gauzatan gogoa idukiko, elkarri gaitz egitean baizik, eta mai batean jaten dutela, batak besteari marroz itz egingo dio; baña batere ez da bere asmazioak iritxitzera allegatuko, zeren epea beste denbora baterako dan.

28. Hura ordea, ondasun andiakin bere errira itzuliko da, eta bere biotza beti egongo da Jaungoiko santuaren Testamentuaren kontra, eta Jerusalenen kontra lanak egingo ditu, eta bere errira itzuliko da.

29. Denbora izendatuan itzuliko da eta etorriko da Egoera, baña atzeneko etorrera onek ez dio irtengo lenbizikoak bezela.

30. Zeren ontziak eta Erromatarrak bere gañera etorriko diran, eta arritua geldituko da, eta biurtuko da, eta aserretuko da santuarioko testamentuaren kontra, eta egingo du: eta joango da, eta bere gogorazioa ipiñiko du, testamentu santua utzi zutenakgan.

31. Eta fedeausleen besoak bere alde egongo dirade, eta gazteluko santuarioa kutsatuko dute, eta kenduko dute beti irautzen duen eskeñtza, eta galemeneko nazka bere lekuan jarriko dute.

32. Eta testamentuko fedeausleak, marroz beste gauza batzuek irudituko dituzte; baña erriak, zeñak bere Jaungoikoa ezagutzen duen, sendo iraungo du, eta legearen araukoak izango dirade bere obrak.

33. Eta erriko jakintsuak jende asko arkituko dute, egiten dituztela ezpataren, suaren, katiberioaren, eta ebatsiaren doañak asko egunetan;

34. Eta beren estutasunaren erdian laguntasunaren piska bat idukiko dute, eta asko marroz berakganduko dirade.

35. Eta jakintsuetatik batzuek galduko dirade, izan ditezen sukatilluztuak, eta garbituak, eta zurituak denbora izendaturaño, zeren oraindikan beste epe bat geldituko dan.

36. Eta erregeak, nai duen guztia egingo du, eta jaikiko da urgulluz eta lotsagabekeriaz jainko guztien kontra; eta jainkoen Jaungoikoaren kontra urgulluz itz egingo du, eta guzia ederki irtengo zaio, aliketa Jaungoikoaren aserrea mugitu dedin artean, zeren erabakita ala dagoan.

37. Eta bere gurasoen Jaungoikoa ez du aintzakotzat idukiko, eta egongo da ondatua emakumeen gurarietan, eta jainko baten ere ajolarik ez du idukiko, zeren guztiak baño geiago dala usteko duen.

38. Maozimgo jainkoa da berriz, adoratuko duena bere egolekuan, eta bere gurasoak ezagutzen etzuten jainko au da urrezko, zillarrezko, arri baliotsuzko, eta balio andiko gauzaen eskeñtzakin onratuko duena.

39. Eta gazteluen gordetzalletzat jainko arrotz bat ipiñiko du, eta au ezagutzen dutenak beren jaungoikotzat, berak onraz beteko ditu, eta askoren gañean eskubidea emango die, eta partituko die doan lurra.

40. Eta denbora izendatuan Egoeko erregeak gerra egingo dio, eta ifarreko erregea, ekaitz baten gisara, eroriko da bere gañera gurdi armadunakin, eta zaldizko tropakin, eta ontzidi andi batekin, eta sartuko da bere probinzietan, eta arrasatuko ditu, eta aurrera iragoko da.

41. Eta lur gloriaz betean sartuko da, eta asko jende desegiñak izango dirade; eta bere eskuetatik bakarrik libratuko dira Edom eta Moab, eta Ammonen semeen mugak.

42. Eta probinziak beretuko ditu, eta Ejiptoko lurrak bere eskuetatik ez du igesik egingo.

43. Orobat Ejiptoko urre, ta zillar, eta gauza eder, eta baliotsu guztien ondasunen jabe egingo da, eta Libiatik eta Etiopiatik ere iragoko da.

44. Eta Sortaldetik eta ifarretik etorriko diran berrien murmurrak izutuko du, eta joango da ejerzitu txit andi batekin, bera arrasatzera, eta ilkintza arrigarri bat egitera.

45. Eta jarriko ditu bere etzauntzak Apadnon itsasoen artean, mendi argitsu eta santuaren gañean, eta bere erpiñeraño igoko da, eta iñork ere ez dio lagunduko.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta denbora artan jaikiko da Migel, prinzipe andia, zeñ dan zure erriko semeen gordetzallea; zeren etorriko dan denbora bat, alakoa, nola-

korik beñere ikusi ez dan, erreñuak izaten asi ziradenetik egun artaraño. Eta denbora artan zure erria salbatua izango da, liburuan eskribitua arkitzen dan guztia.

2. Eta lurreko autsean lotan daudenen taldea esnatuko da, batzuek betiko bizitzarako, eta besteak lotsarirako, zeñ beti beren aurrean idukiko duten.

3. Jakintsuak izan diradenak berriz, distiatuko dira, argia izarzeruan bezela; eta askori justizia erakusten dienak, izarrak bezela betikoiraun guztietan.

4. Baña zuk, o Daniel, iduki itzatzu gordeta itz oiek, eta sillutu ezazu liburua denbora izendaturaño, askok irakurriko dute, eta beratatik aterako dute dotriña andia.

5. Eta ni Daniel, banengoan begira, eta ikusi nuen nola zeuden zutik beste aingeru bi; bata ibaiaren ertzaren emendiko aldamenetik, eta bestea beste aldamenetik.

6. Orduan esan nion, linozko soñekoakin, eta ibaiko uren gañean zutik zegoan gizonari: Gauza arrigarri oiek noiz kunplituko dirade?

7. Eta aditu nion, linozko soñekoakin, ibaiko uren gañean zutik zegoan gizonari, zeñak, goraturik zerurontz bere eskuia eta ezkerra, juramentu egin zuen, beti bizi dan Jaun huragatik, eta esan zuen: Denbora batean, eta bi denboratan, eta denbora baten erdian. Eta kunplitua danean erri santuko gizataldearen barreiatzea, orduan gauza guzti oiek egiztatuko dirade.

8. Eta aditu nuen au; baña ez nuen konprenditu. Eta esan nuen: O nere Jauna! Gauza oiek iragota, zer da gertatuko dana?

9. Baña berak esan zidan: Zoaz, Daniel, zeren gauza oiek ezkutatuak dirade, eta denbora izendaturaño sillutuak.

10. Asko izango dirade autuak, eta zurituak, eta garbituak suaz bezela. Gaiztoak obra gaiztoak egingo dituzte, gaiztoetatik batek ere ez du konprendituko; jakintsuak ordea konprendituko dute.

11. Eta betiko eskeñtza kendua izango dan denboratik, eta galmeneko nazka, tenploan agintari jartzen danetik, milla berreun eta larogeita amar egun iragoko dirade.

12. Doatsua, itxedotzen duena, eta milla irureun eta ogeita amabost egunera allegatzen dana.

13. Baña zu, o Daniel, zoaz denbora izendaturaño; eta gero atsedengo zera, eta jaikiko zera, eta egunen atzenean zure suerteaz gozatuko zera.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Bazan denbora batean, Joakin izena zuen gizon bat, Babilonian bizi zana;

2. Zeñ ezkondu zan Susana izena zuen emakume batekin, Helziasen alaba, txit ederra, eta Jaungoikoaren beldurrekoa;

3. Zeren bere gurasoak, nola ziran justoak, eman ziozkaten beren alabari Moisesen legearen arauko erakutsiak.

4. Zan Joakin gizon txit aberats bat, eta bere etxearen aldean zeukan jardin bat, zeñatara judu asko etorri oi zan, Joakin zalako beren artean onra andienekoa.

5. Eta urte artan izan ziran autuak juduen erriko Jueztzat gizon zar bi, aietatikoak, zeñak gatik esan zuen Jaunak, gaiztakeria atera zala Babilonian, Juez ziran zarretatik, zeñak zirudian erria gobernatzen zutela.

6. Oiek maiz joan oi ziraden Joakinen etxera, nora zuzentzen ziraden berakgana, auziren bat zeukaten guztiak.

7. Eta egerdian jendea joaten zanean, sartzen zan Susana bere senarraren jardinean, an ibilli batzuek egitera.

8. Ikusten zuten egunoro gizon zarrak, nola sartzen zan ibiltzera, eta beraganako gura gaiztoetan erazeki ziran;

9. Eta galdu zuten zentzua, eta alde erazi zien beren begiai zerura ez begiratzeko; eta juizio zuzenakin ez oroitzeko.

10. Biak bada Susanagatik itsutuak gelditu ziran; baña etzion batak besteari bere gura adirazi;

11. Zeren lotsatzen ziran agertzen beren gura; eta Susanarekin bekatu egiteko naiak.

12. Eta egunetik egunera arreta geiagorekin egiten zituzten aleginak, Susana ikusteko. Eta bein batean batak besteari esan zion:

13. Goazen etxera, zeren onezkero jateko ordua da, eta atera ziran, eta berezitu zan bata besteagandik.

Onaraño jarri deguna Danielen gañean (esaten du San Jeronimok) irakurtzen da Hebreotarren liburuetan. Emendikan aurrerakoa, liburuaren bukaeraraño, artu da Theodozionek inprimitu zuenetik.

14. Baña berriz itzultzen zala atzera bakoitza, elkar arkitu ziran toki bat batean; eta galdeturik elkarri, zergatik itzuli zan, aitortu zuten beren gura gaiztoa, eta orduan izendatu zuten, Susana bakarrik arkituko al zuten denbora.

15. Eta era on baten zai zeudela, sartu zan Susana jardinean, eguno-ro oi zan bezela, donzella bik bakarrik laguntzen ziotela, eta bañu bat artu nai zuen jardinean; zeren bero egiten zuen.

16. Eta etzegoan jardinean iñor ere; ezkutatu ziran, eta Susanaren azeloan zeuden agura biak baizik.

17. Esan zien bada Susanak bere donzellai: Ekarri zazkidazute aro-mazko okendua, eta lurrinkaiak, eta jardineko ateak itxi itzatzute, zeren bañu bat artzea nai det.

18. Egin zuten bada etxekoandrak agindu zuen bezela, eta irten ziran ostate batetik, eskatu zuena ekartzera; jakin gabe neskame biak, agurak barrenen ezkutatuak zeudela.

19. Neskameak joan ziradenean, bereala irten ziran bi agurak, eta korrika joanik Susanaganontz, esan zioten:

20. Begira ezazu, jardineko ateak itxiak daude, ez gaitu inork ere ikus-ten, eta guk zure gurak dauzkagu, gure eskarietara bada oben egin ezazu, eta gurekin nastu zaite.

21. Au egitea nai ez badezu, zure kontra testigantza emango degu, esaten degula, galai gazte bat zurekin egon dala, eta argatik neskameak bialdu dituzula zugandik.

22. Susana suspirioka asi zan, eta esan zuen: Aldamen guztietatik antsiak dauzkat, zeren baldin egiten badet zuek nai dezutena, neretzat eriotza bat izango litzake; eta egiten ez badet, zuen eskuetatik ez det iges egingo.

23. Baña obeago da neretzat, zuen eskuetan erortzea, gauza gaizto-rik egin gabe, Jaunaren aurrean bekatu egitea baño.

24. Eta Susanak deadar andi bat egin zuen, eta orduan agurak ere deadar egin zuten Susanaren kontra.

25. Eta beretatik bat korrika joan zan jardineko atetara, eta idiki zituen.

26. Eta etxeko morroiak jardineko otsa aditu zutenean, bereala korrika joan ziraden ara ostatetik, ikustera zer ote zan.

27. Eta aditu zutenean morroiak Juezak esaten zutena, txit lotsatuak gelditu ziran, zeren beñere alako gauzarik etzan Susanagatik esan. Allega-tu zan bada biaramona,

28. Eta bildurik erria Joakin, Susanaren senarraren etxean, etorri zira-den agura biak ere, asmazio gaiztoakin Susanaren kontra, au iltzeko.

29. Esan zuten bada erriaren aurrean: Ots egin bekio Susana, Hel-ziasen alaba, Joakinen emazteari. Eta bereala ots egin zioten.

30. Eta etorri zan Susana bere gurasoakin, eta semeakin, eta bere aide guztiakin.

31. Zan Susana emakume txit guria, eta txit ederra.

32. Eta gizaseme gaizto aiek agindu zioten agirian jarri zedilla (zeren estalia zegoan) asetzeko beren gurak, bere edertasuna ikusita bederik.

33. Bitartean Susanaren aideak, eta ezagutzen zutenak negar egiten zuten.

34. Eta jaikitzen ziradela bi agurak erriaren erdian, beren eskuak Susanaren buruaren gañean ipiñi zituzten.

35. Berak ordea, negarretan urtzen zala, jaso zituen bere begiak zeru-ra; zeren bere biotzak Jaunagan itxedopena ipiñia zeukan.

36. Eta agurak esan zuten: Geundela bakarrik jardinean egurastu bat artzen, sartu zanean bi neskamerekin; eta jardineko ateak itxi zituen, eta neskameak kanpora bialdu zituen.

37. Orduan alderatu zitzaion ezkutatua zegoan galai gazte bat, eta berarekin aragiz bekatu egin zuen.

38. Eta gu, jardinaren aldamen batean geundenok, ikusirik gaiztake-ria, korrika joan giñan zeuden tokira, eta bekatuan beratan arkitu giñituen.

39. Galai gaztea damuz ez genezakean arrapatu, zeren gu baño sen-doagoa zan, eta idikirik atea, korrika iges egin zuen.

40. Au berriz arrapatu genduenean, galdetu giñon zeñ ote zan galai gazte hura, eta etzigun esan nai. Gertakari onen testiguak gu gera.

41. Jende taldeak sinistu zien, gizon zarrai, eta erriko Juezai bezela, eta Susana eriotzara kondenatu zuten.

42. Susanak berriz, deadar andi bat egin, eta esan zuen: O jaungoiko betiko, gauza ezkutuak ezagutzen dituzuna, gauza guztiak dakizkizuna, oraindikan gertatu ere baño lenago,

43. Zuk badakizu, oiek nere kontra gezur bat asmatu dutela; eta ona emen non ni iltzen naizan, nere kontra gaiztoz asmatu duten gauzarik batere egin gabe.

44. Eta Jaunak, bere orazioa aditu zuen.

45. Eta Susana iltzera zeramatenean, Jaunak agertu zuen profeziako espiritu santua, galai gaztetxo, Daniel izena zuenean. 46. Zeñ, boz andia-kin, deadarrez asi zan esaten: Emakume onen odoletik obengabea izango naiz ni.

47. Eta jende guztia beragana itzulirik, esan zioten: Zuk esaten dezu-na, zer da?

48. Berak berriz, jarririk zutik guztien artean, esan zuen: Alako moduan zentzugabeak izango zerate, o Israelko semeak, non, juzgatu

gabe, eta ezagutu gabe egia ote dan, ala ez, Israelko alaba bat iltzera kondenatuko dezuten?

49. Itzuli zaitezte juizio tokira, zeren oiek Susanaren kontra gezurrezko testigantza bat eman dute.

50. Biurtu zan bada txit agudo erria, eta agurak Danieli esan zioten: Atoz, eta gure erdian eseri zaite, eta eman zazkiguzu erakutsiak, Jaungoikoak zarren diñadearen onra eman dizun ezkero.

51. Eta Danielek erriari esan zion: Berezitu itzatzute bi oiek, bata besteagandik urrutira, eta nik juzgatuko ditut.

52. Eta bata besteagandik berezituak zeudenean, beretatik bati ots eginik, esan zion: O bizitza gaiztoan zartua, orain eramango dute diña diradena, oraindaño egin dituzun bekatuak,

53. Ematen dituzula sentenzia gaiztoak, menderatzen dituzula obengabeak, eta libratzen dituzula gaiztoak, idukirik Jaunak esanik: Obengabea, ez justoa, ez dituzu illeraziko.

54. Orain bada ongi, bekatu egiten ikusi bazenduen, zeñ zuaitzen azpian ikusi ziñituen elkarrekin izketan? Berak erantzun zuen: Legeltxor baten azpian.

55. Eta Danielek esan zuen: Ziertoro zure buruaren kaltean gezurra esan dezu, bada ona emen non Jaunaren aingeruak, beragandik artu duen sentenziagatik, bi zati egingo zaitu.

56. Eta alde erazirik oni, agindu zuen bestea etorri zedilla, eta esan zion: Kanaango arraza, eta ez Judakoa, edertasunak zoratu erazi dizu, eta gura biurriak zure biotza gaiztotu du:

57. Ala egiten zenduten Israelko alabakin, zeñak beldurrez oben egiten zuten zuen guraetara; baña Judako alaba onek ez du zuen gaiztakeria sufritu.

58. Orain bada esan zadazu: Zeñ zuaitzen azpian arrapatu zinduzten aiek elkarrekin izketan? Berak erantzun zuen: Arte baten azpian.

59. Eta Danielek esan zion: Ziertoro zuk ere gezurra esaten dezu zure kaltean, zeren Jaunaren aingerua zai daukazu ezpata eskuan daukala, erditik bi zati egin, eta zu iltzeko.

60. Orduan batzarre guztia deadarrez asi zan boz goratuan, bedeikatzen zutela Jaungoikoa, zeñak salbatzen dituen beragan beren itxedopena ipintzen dutenak.

61. Eta jaiki ziran bi aguren kontra, zeñai Danielek beren aoz aitortu erazi zien, gezurrezko testigantza bat eman zutela; eta egin zien berai, berak beren projimoari egin nai zioten gaitza.

62. Eta Moisesen legea betetzen zutela, il zituzten. Eta onenbesterekin egun artan odol obengabea salbatua izan zan.

63. Orduan Helzias eta bere emazteak alabatu zuten Jauna, beren alaba Susana salbatu zuelako, eta orobat egin zuen bere senar Joakinek, aide guztiakin, zeren etzan beragan gauza ezañikan batere arkitu.

64. Daniel berriz andi egin zan erriaren aurrean egun artatik aurrera.

65. Eta Astiajes erregea joan zan bere gurasoakin biltzera, eta bere erreñua Ziro Persiatarrak artu zuen.

AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Zan Daniel erregearen maian jaten zutenetatik bat, bere adiskide guztiak bano onratuagoa.

2. Denbora artan zegoan Babilonian idolo bat, Bel izena zuena, eta kastatzen ziran beretzat egun bakoitzean amabi artaba iriñ lora, eta berrogei ardi, eta sei pegar ardo.

3. Erregeak ere egiten ziozkan jainko gauzak, eta egunoro joan oi zan bera adoratzera. Danielek ordea bere Jaungoikoa adoratzen zuen. Eta erregeak esan zion: Zergatik ez dezu zuk Bel adoratzen?

4. Danielek erantzun zion: Zeren ez dedan nik adoratzen gizonen eskuz egindako idolorik; baizik Jaungoiko bizi, zerua eta lurra egin zituena, eta bizia daukan guztiaren Jauna dana.

5. Eta erregeak esan zion: Zer bada, sinisten al dezu zuk Bel jainko bizi bat ez dala? Ez al dezu ikusten egunoro zenbat jan, eta edaten duen?

6. Eta esan zion Danielek farra piska bat egiten zuela: Ez ezazu utsik egin, o errege, zeren bera barrendik buztiña da, eta kanpotik brontzea, eta beñere ez du jaten.

7. Eta aserreturik erregea, ots egin zien bere apaizai, eta esan zien: Ez badidazute esaten nork jaten duen kastatzen dan guztiori, ilko zerate.

8. Baña erakusten badidazute ori guziori Belek jaten duela, ilko da Daniel, Belen kontra gaizki esan duelako. Eta Danielek erregeari esan zion: Esan dezun bezela, ala izan bedi.

9. Apaizak ziran irurogeita amar, emazteak, eta aurrak, eta mutillak gabe. Eta erregea joan zan Danielekin Belen tenplora.

10. Belen sazerdoteak bada esan zuten: Ona emen non gu kanpora ateratzen geran, eta zuk, o erregea, ipini erazi itzatzu janariak, eta serbitu ardoa, eta atea itxi ezazu, eta zillutu ezazu zure errastunarekin.

11. Eta baldin biar goizean goiz, sartzen zeranean, arkitzen ez badezu Belek guztia jan duela, gu ilko gera; bestela ilko da Daniel, gure kontra gezurra esan duena.

12. Irri egiten zuten berak beren barrenen; zeren maiaren azpitik egin zuten sarrera ezkutu bat, eta andik sartzen ziraden beti, eta janari aiek jaten zituzten.

13. Berak irten ziradenean bada, bereala erregeak ipiñi erazi zituen janariak Belen aurrean. Danielek ordea agindu zien bere morroiai ekarri zezatela autsa, eta galbae batekin zabaldu erazi zuen tenplo guztitik erregearen aurrean, eta irten ziran, eta itxi zuten atea, eta erregearen errastunarekin sillutu zuten.

14. Apaizak berriz gauaz sartu ziran, oi zuten bezela, beren emazte eta semeakin, eta guztia jan, eta edan zuten.

15. Jaiki zan bada erregea goizean goiz, baita Daniel ere,

16. Eta galdetu zuen erregeak: Silluak iñork ukitu gabe ote daude, o Daniel? Eta onek erantzun zuen: iñork ere ukitu gabe daude, o Erregea.

17. Eta idikirik bereala atea, erregeak bere begiak maira zuzendu zituanean, bereala deadar egin zuen boz goratuan: Andia zera, o Bel, eta zure tenploan engañurikan batere ez dago.

18. Eta farra egin zuen Danielek, eta gelditu zuen erregea barrenen sartu etzedin, eta esan zuen: Begiratu ezazu lurrera, eta zure artean gogoratu ezazu, aztarna oiek zeñtzuenak izango diraden.

19. Ikusten ditut, esan zuen erregeak gizasemeen, eta emakumeen eta aurren aztarnak. Onekin erregea aserretu zan,

20. Eta bereala agindu zuen lotuta ekarri zekizkiotela apaizak, eta beren emazteak, eta semeak, zeñak agertu zioten ateoste ixilla, nondik sartzen ziran ara, maiaren gañean zegoan guztia jatera.

21. Argatik erregeak il erazi zituen, eta jarri zuen Bel Danielen mendean, zeñak desegin zuen tenploarekin batean.

22. Bazegoan toki artan sugulna andi bat, zeñ Babiloniatarrak adoratzen zuten.

23. Eta erregeak Danieli esan zion: Begiratu ezazu; onezkero ez dezakezu esan, au Jaungoiko bizi bat ez dala. Zuk ere bada, adoratu ezazu.

24. Eta Danielek esan zion: Nik nere Jaun Jainkoa adoratzen det, zeren bera Jaungoiko bizia dan; ori ordea Jaungoiko bizia ez da.

25. Eta ala eman zadazu, o erregea, baimena, eta nik sugulna ilko det ezpatarik, ez makillarikan gabe. Eta erregeak esan zion: Nik ematen dizut.

26. Artu zituen bada Danielek pikea, eta seboa, eta illeak, eta egosi zituen guztiak batean, eta berakin pella batzuek egin zituen, eta aurtiki zituen sugulnaren aora, zeñak eztanda egin zuen. Orduan Danielek esan zuen: Ona emen adoratzen zendutena.

27. Babiloniatarrak au jakin zuteneko, txit aserretu ziran, eta erregearen kontra jaikitzen ziradela, esan zuten: Erregea judu biurtu da, Bel desegin zuen, Sugulna il da, eta apaizak ilerazi ditu.

28. Eta joaten ziradela erregea arkitzera, esan zioten: Eman zaguzu Daniel, bestela zu, eta zure familia ilko zaitugu.

29. Ikusirik bada erregeak txit estututzen zutela, txit beartuta, Daniel eman zien.

30. Berak leoien koban sartu zuten, non egon zan sei egunean.

31. Zeuden koban zazpi leoi, eta egunoro bi gorputz il, eta bi ardi ematen zitzaiezten; eta orduan ezerere etzien eman, Daniel iretsi zezaten.

32. Habakuk profeta Judean zegoan, eta baratzalda bat egosi zuen, eta txikitu ogi batzuek ontzi batean, eta bazijoan kanpora, igitariai eramatera.

33. Eta Jaunaren aingeruak Habakuk-i esan zion: Daukazun janari ori eraman zaiozu Babiloniara Danieli, zen leoien koban dagoan.

34. Eta Habakuk-ek erantzun zuen: Jauna, ez det nik Babilonia ikusi, eta kobaren berririk ere ez daukat.

35. Orduan Jaunaren aingeruak buruaren erpiñetik eldu zion, eta arturik illeetatik bere espirituaren arintasunarekin eraman zuen Babiloniara kobaren gañera.

36. Eta Habakuk-ek jaso zuen boza, eta esan zuen: Daniel, Jaungoikoaren serbitzaria, Jaungoikoak bialtzen dizun janaria artu ezazu.

37. Danielek orduan esan zuen: Zu, o Jauna, nerekin oroitu zera, eta ez dituzu aztuta utzi, maitatzen zaituztenak.

38. Eta jaiki zan Daniel, eta jan zuen. Eta Jaunaren aingeruak bereala Habakuk bere tokira itzuli zuen.

39. Etorri zan bada erregea zazpigaren egunean Danielgatik progua egitera; eta allegaturik kobara, beerontz begiratu zuen, eta ikusi zuen Daniel leoien erdian eseria zegoela.

40. Orduan deadar egin zuen erregeak boz goratuan, esaten zuela: Andia zera, o Jaun, Danielen Jaungoikoa. Eta leoien kobatik atera erazi zuen.

41. Daniel galtzeko asmazioetan ibilli ziradenak berriz, kobaren barrenera aurtiki erazi zituen, eta bereala bere aurrean iretsiak izan ziraden.

42. Orduan erregeak esan zuen: Munduan bizi diraden guztiak Danielen Jaungoikoaren beldur izan bitez; zeren bera Salbatzallea dan, lurraren gañean gauza miragarriak eta arrigarriak egin dituena, eta leoien kobatik Daniel libratu duena.

OSEASEN PROFEZIA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Jaunaren itz, Oseas Beerien semeari esanak, Ozias, Joatan, Akaz, Ezekias, Judako erregeen denboran, eta Jeroboam Joasen seme, Israelko erregearen egunetan esanak.

2. Jauna asi zan Oseasi itz egiten, eta esan zion: Zoaz, eta artu ezazu emaztetzat bizitza gaiztokoa izan dan emakume bat, eta bere fornikazioetako semeak, zureak egin itzatzu, zeren Israelko lurrak Jaunaren kontra fornikatzeari ez dio utziko.

3. Joan zan bada, eta ezkondu zan Gomer, Debelaimen alabarekin, zeñ gelditu zan aurdun, eta seme batez erdi zan.

4. Eta Jaunak Oseasi esan zion: ipiñi zaiozu izena Jezrael, zeren denbora gutxiren barrenen nik Jehuren errege- etxearen bengantza artuko det, Jezrahelko errian isuri duen odolagatik, eta Israelko etxeko tronua arras desegingo det.

5. Eta egun artan zatituko det nik Israelko uztaia Jezraelko ibarrean.

6. Berriz ere Gomer aurdun gelditu zan, eta alaba batez erdi zan. Eta Jaunak Oseasi esan zion: ipiñi zaiozu izentzat, ez geiago urrikaltasunikan. Zeren ez naiz ni berriz, emendikan aurrera urrikalduko Israelko etxekoakin; baizik txit aztuta idukiko ditut.

7. Baña Judako etxearekin urrikalduko naiz, eta salbatuko det bere Jaun Jainkoaren bitartez, eta ez uztaien eta ezpaten bitartez, ez gudaen, ez zaldien, ez zaldizkoen bitartez.

8. Eta titigetu zuen Gomerrek bere alaba Ez geiago urrikaltasunik izena zuena; eta berriz aurdun gelditu zan; eta erdi zan aur seme batez.

9. Eta Jaunak Oseasi esan zion: ipiñi zaiozu izentzat, etzera nere erria, zeren zuek onezkero etzerate izango nere erria, eta ni ere zuen Jaungoikoa ez naiz izango.

10. Baña egunen batean Israel egiazkoaren semeak izango dirade, itsasoko ondar, neurririk, ez zenbatik ez daukatena adiña. Eta gertatuko da, berai esana izan zaten lekuan: Zuek nere erria etzerate; esango zaiote: Zuek Jaungoiko biziaren semeak zerate.

11. Eta Judako semeak, eta Israelko semeak batean bilduko dirade, eta autuko dute agintari bakar bat, eta beren katiberioko lurretik aterako dirade. Zeren egun artan, Jezraelko batzarrea andia izango dan.

BIGARREN KAPITULUA

1. Ots egin zaiezute zuen anaiai, o nere erria, eta zure aizpari, zeñak urrikaltasuna iritxi duen.

2. Juzgatu ezazute zuen ama, juzgatu ezazute, zeren bera nere emaztea ez dan, ezta ni ere bere senarra. Kendu bitza bere fornikazioak beragandik, eta aurtiki bitza bere adulterioak bere bularren erditik,

3. Nik arropagabetu, eta larrugorrian utzi ez dezadan, eta jarri ez dezadan jaio zan egunean bezela, eta utzi ez dezadan eremu bat egiña, eta iñor ere bizi ez ditekean lur bat bezela, eta egarriz illerazi ez dizaiodan.

4. Ez det bere semeen errukirik idukiko, zeren fornikazioko semeak diraden;

5. Beren ama adultera bat dan ezkero, desonratua gelditu da berakaz erdi zana. Zeren berak esan zuen: Joango naiz nere maitatzalleen ondoren, zeñak diran ematen didatenak nere ogia, eta nere ura, nere ardi illea, nere linoa, nere olioa, eta nere edaria.

6. Argatik, ona emen non nik itxiko diodan irteera arantzazko esi batekin, itxiko diot paret batekin, eta bere bidetxidorrak ez ditu arkituko.

7. Eta jarraituko die bere maitatzalleai, eta ez ditu arrapatuko; eta billatuko ditu, eta ez ditu arkituko; eta esango du: Joango naiz eta biurtuko naiz nere lenengo senarragana, zeren orduan, orain baño obeto zijoadan.

8. Eta etziekiten berak ni nintzala, eta ez idoloak, eman ziotenak garia, eta artoa, eta olioa, eta eman ziona, Baali eskeñi zioten zillarraren eta urrearen ugaritasuna.

9. Argatik beste era batera portatuko naiz, eta bere denboran bilduko ditut nere garia, eta nere ardoa, eta kenduko ditut bere eskuetatik nere ardi ille, eta nere lino bere lotsariak estalitzen dituztenak.

10. Eta orain agertuko det bere premia bere maitatzalleen beren aurrean, eta iñork ere ez du nere eskuetatik libratuko.

11. Eta geldirik jarri eraziko diet bere bozkario guztiai, bere egun andi guztiai, bere Neomeniai, bere larunbatai, eta bere jai egun guziai.

12. Eta desegingo ditut bere mastiak, eta bere pikodiak, zeñakgatik berak esan zuen: Oiek dirade nere maitatzalleak eman zizkidaten doañak; eta nik arantzadi batean biurtuko det, eta kanpoko pistiak iretsiko dute.

13. Eta bengatuko natzaio berari Baalim serbitu zuen egunakgatik, zeñatan eskeñtzen zion inzensua, eta apaintzen zan bere zirzilluakin, eta bere edergarriakin, eta joan oi zan bere maitatzalleen ondoren, eta nerekin aztutzen zan, esaten du Jaunak.

14. Alaere gero nik bozkarioak egingo diozkat, eta bakartadera eramango det, eta biotzera itz egingo diot.

15. Bere erriko mastizaleak emango diozkat, eta Akorko Ibarra, itxedopenean sartu dedin, eta an kantatuko diozka himnoak bere Jaungoikoari, bere gazte denborako egunetan bezela, Ejiptoko lurretik atera zan egunetan bezela.

16. Eta hura izango da eguna, esaten du Jaunak, zeñean berak bere esposoa ots egingo didan, eta ez dit berriz Baali ots egingo.

17. Eta Baalimen izenak kenduko ditut bere aotik, eta ez da geiago biurtuko idoloen izenakin oroitzen.

18. Eta egun artan ipiñiko det nik pakea beren, eta kanpoko abereen, eta zeruko egaztien, eta lurreko arrastakarien artean, eta ausiko ditut errian uztaiak, eta ezpatak, eta gelditu eraziko diet gerrai, eta egingo det, beldurrikan gabe lo egin dezatela.

19. Eta esposatuko zaitut nerekin betiko, eta esposatuko zaitut nerekin justiziaren, eta juizioaren bitartez, eta urrikaltasun eta biguñtasunaren bitartez.

20. Eta esposatuko zaitut nerekin fedearen bitartez, eta ezagutuko dezu, ni naizala Jauna.

21. Eta orduan izango da, esaten du Jaunak, noiz nik adituko diedan zeruai, eta oiek lurrari adituko dioten.

22. Eta lurrak adituko du emateko guria, eta ardoa, eta olioa, eta gauza oiek adituko dute Jezrael gozatzeko.

23. Eta ereingo det nik an neretzat azi baliotsua bezela lurraren gañean, eta urrikalduko naiz Ez geiago urrikaltasunik izena iduki zuenarekin.

24. Eta esan nionari, nere erria etzala, esango diot: Nere erria zera zu; eta berak esango du: Nere Jaungoikoa zu zera.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Jaunak esan zidan: Zoaz oraindikan, eta maitatu ezazu, bere adiskideak maitatua eta adultera izan dan emakume bat, nola Jaunak Israelko semeak maitatzen dituen, eta berak beren begiak jainko arrotzetarontz itzulten dituzten, eta matsen mintza maitatzen duten.

2. Nik neretu nuen amabost ziklo zillarrezko, eta koro bat eta erdi garagargatik.

3. Eta esan nion: Egun askotan itxedon bearko dezu, bitartean ez dezu adulterioko bekaturik egingo, eta ez dezu gizaseme batekin ere artu emanik idukiko; eta nik ere zuri itxedongo dizut.

4. Zeren Israelko semeak denbora luzean egongo diraden erregerik gabe, agintaririk gabe, sakrifiziorik gabe, aldare gabe, Efod gabe, eta Therafinik gabe,

5. Eta oien ondoan Israelko semeak biurtuko dirade beren Jaun Jainkoaren, Dabiden jatorrikoaren, beren erregearen billan, eta billatuko dituzte beldurrarekin Jauna, eta bere ondasunak denboren atzenean.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Aditu ezazute Jaunaren itza, o zuek Israelko semeak, zeren Jauna datorren, alderri onetan bizi diradenak juzgatzera, zeren ez dagoan egiarik, ez dagoan urrikaltasunik, ez dagoan Jaungoikoaren ezaguerarik lurrean.

2. Madarikazioak, eta gezurrak, eta erallak, eta lapurretak, eta adulterioak guzia bete dute gañez egiteraño, eta gaiztakeria batek bestea iritxitzen du.

3. Argatik lutuz estaliko da lurra, eta bertan bizi diraden guziak desalaituko dira, eta kanpoko pistiak, eta zeruko egaztiak, eta itsasoko arraietarañokoak galduko dirade.

4. Alaere iñork ez beza besterik juzgatu, eta iñori ere ez bizaio errieritarik egin, zeren zure erria apaizari kontra egiten diona bezelakoa dan.

5. Zu berriz, o Israel, gaur, aurki galdua izango zera, eta zurekin zure gezurrezko profetak ere galduak izango dirade. Gau artan zure ama ixiltasunean jarriko det.

6. Nere erria itzikan gabe gelditu zan, illa balego bezela; zeren jakinduria gabe arkitzen zan. Zuk jakinduria zugandik aurtiki dezulako, nik zu nigandik aurtikiko zaitut, nere apaiztzako lanetan ari etzaitezen, eta zure Jaungoikoaren legearekin aztu zeran ezkero, ni ere zure semeakin aztuko naiz.

7. Nere laguntasunarekin berak ugaritu diraden anbestean, beren bekatuak ere nere kontra ugaritu dirade. Nik beren gloria lotsarian itzuliko det.

8. Nere erriaren bekatuen doañak jaten dituzte; eta onek bekatu egiten duenean, alaitzen dute.

9. Argatik apaiza erria bezela tratatua izango da, eta nik kastigatuko det beragan bere biziera gaiztoa, eta bere asmazioen ordaña emango diot.

10. Eta jango dute, eta ez dirade aseko. Aspertu gabe legea ausitzen ari dirade, utzi dute Jauna, bere lege santari ez diotela obeditzen.

11. Zikinkeriak, eta ardoak, eta ordikeriak biotza zentzugabetzen dute.

12. Argatik nere erriak zur zati bati galdetu dio, eta bere ziorrak erantzunak eman diozka geroko gauzen gañean, zeren fornikazioko espirituak llilluratu ditu, eta beren Jaungoikoari atzea eman die.

13. Egin dituzte eskeñtzak mendietako erpiñen gañean, eta erretzen zuten inzensua muñoen gañean, eta artearen, eta ezkiaren, eta terebintoaren azpian, beren itzala gogokoa zalako berentzat. Argatik zuen alabak aragizko bekatuetan eroriko dira, eta zuen emazteak adulterak izango dirade.

14. Nik utziko diet ibilli ditezela beren erara; ez ditut kastigatuko zuen alabak, bekatu egiten dutenean, ezta zuen emazteak ere, adulterak egiten diradenean; zeren aitak eta esposoak berak galotzakin artuemanak dauzkaten, eta gizaseme emetuakin doañak eskeñtzera dijoazelako. Argatik, aditu nai ez duen erri au, azotatua izango da.

15. Zu, o Israel, aragizko bekatuetan ari bazera; o Juda, zuk bederik, ez ezazu bekaturik egin; eta etzaitezte Galgalara joan, eta etzaitezte Bethabenera igo, eta ez ezazute ere juramenturik egin, esaten dezutela: Jauna bizi dan bezela.

16. Zeren Israel barreiatu dan bei ezigabea bezela, baña laister Jaunak zuzenduko ditu bazkatzera, bildots beldurtiak bezela, landa zabaletan.

17. Efraimek egin du elkartasuna idoloakin. Zuk, o Juda, alde egin ezazu beragandik.

18. Berezian egiten ditu berak bere jateketak, eta egin ditu fornikazio txit andiak, bere laguntzalleak lotsatutzen dirade berak lotsariz betetzean.

19. Jaungoikoaren aserrearen aizeak bere egoetara lotuta eramango du Israel, eta beren semeak beren eskeñtzakgatik lotsariz estaliak geldituko dirade.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Aditu ezazute au, o apaizak; zuk, o Israelko etxea, arretaz entzun ezazu. Ongi konprenditu ezazu zuk, o errege-etxea, zeren zuek zoazten juzgatuak izatera: zeren erriaren bealari batzuek izan bearrean, lazoak jarri dituzute, eta izan zerate beretzat sare zabaldua bezela Taborko mendiaren gañean.

2. Eta lizean erori erazi diozute doañari; nik berriz, guztiai erakutsiak eman dizkizutet.

3. Ezagutzen det Efraim, etzat Israel ezezagutua. Badakit Efraim orain idolatra dala; badakit Israel kutsutua dagoela.

4. Ez dute berak beren Jaungoikoagana biurtzeko gogoraziorik artuko, zeren fornikazioetako espiritua beren erdian dagoan, eta Jauna etzutelako ezagutu.

5. Eta Israelen urgulleria bere arpegian agertuko da, eta Israel eta Efraim beren gaiztakeriagatik galduko dira, eta Juda ere galduko da berakin.

6. Beren artaldeetako eta beitaldeetako eskeñtzarekin Jauna billatzera joango dirade, eta ez dute arkituko, berakgandik alde egin zuen.

7. Jaunari fedea ausi diote, zeren besteenak izan diraden, berakgan sortuak izan ziraden semeak. Orain il batean desegiñak izango dirade dauzkaten gauza guztiakin.

8. Jo ezazute txaranbela Gabaan, jo ezazute tronpeta Raman, jaiki bedi alaraua Betabenen, zure bizkarren atzean, o Benjamin.

9. Kastiguko egunean Efraim arrasatua izango da. Egiatia agertu naiz, Israelko tribuai dagozkien profezietan.

10. Judako prinzipeak, mugarriai alde erazitzen diotenak bezelakoak dirade. Ugolde bat bezela, nere aserrea beren gañera isuriko det.

11. Gezurrak asmatzen diozkate Efraimeri; eta juizioan estutua da; idoloen zikinkerien billan joan zalako.

12. Eta ni Efraimentzat sitsa bezelakoa izango naiz, zerrena bezelakoa izango naiz ni Judako etxearentzat.

13. Eta ikusi zuen Efraimek bere desalaitasuna, eta Judak ikusi zituen bere kateak, eta Efraim joan zan Asiriatarragana, eta Judak ots egin zion errege bati berari laguntzeko, baña onek ez dizute eman alko osasuna, eta etzaituzte libratu alko kateetatik.

14. Zeren ni efraimentzat leoi eme bat bezelakoa naizan; eta leoi gazte bat bezelakoa Judako etxearentzat. Nik, nik arrapatuko det, eta joango naiz; nik artuko det, eta ez da egongo, neri kenduko didanik.

15. Joango naiz, eta itzuliko naiz nere bizilekura, aliketa desalaituak argitu zaitezten, eta nere billan etorri zaitezten artean.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Beren atsekabean goiz jaikiko dira, nigana etortzeko. Atozte, esango dute, Jaunagana biurtu gaitezen,

2. Zeren berak katiberioan jarri gaitu, eta berak gure aukeran ipiñiko gaitu. Berak zauritu gaitu eta berak sendatuko gaitu.

3. Berak bi egunen ondoan bizitza itzuliko digu, irugarren egunean, berriz biztuko gaitu, eta bere aurrean biziko gera. Ezagutuko degu Jauna, eta jarraituko diogu, bera ezagutzeko. Prestatua dago bere etorrera egun-

sentia bezela; eta Jauna etorriko da gugana udazkeneko, eta udaberriko euria lurraren gañera bezela.

4. Zer da nik zurekin, o Efraim, egin dezakedana? Zer egingo det, o Juda, zurekin? Zuen urrikaltasuna goizeko odeia bezelakoa, eta goizean goizeko intz, bereala desegiten dana bezelakoa.

5. Nere profeten bitartez garlopatu zinduztedan, nere aotik ateratako itzakin, zeñakin eriotza ekarri dieztedan. Ala zure kondenazioa, argia bezin argia agertuko da.

6. Zeren urrikaltasuna da nik nai dedana, eta ez eskeñtza, eta Jaungoikoaren ezagera, holokaustoak baño geiago.

7. Baña berak nere elkartasuna urratu dute, Adanek bezela. An ausi zuten fedea nere kontra.

8. Galaad da orain idoloegilleen erri bat, odol obengabez betea.

9. Bere eztarria lapurrena bezelakoa da, elkartu da apaiz gaizto, Sikemdik dijoazen jendeak iltzen dituztenakin. Egiaz arrigarriak dira egin dituzten gauzak.

10. Izugarria da Israelko etxean ikusi dedana, an ikusi ditut Efraimen idolatriak. Israel kutsutu zan.

11. Eta zu ere, o Juda, igitaitzeko denborarako prestatu zaite, aliketa atzenean nere erriari katiberiotik itzulierazi dizaiodan artean.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Nik Israelko gaitzak sendatu nai nituenean, Efraimgo barrendiko gaiztakeria, eta Samariako dongatasuna agertu ziraden; zeren ordu artan gezurrak esaten ari ziraden; eta ala sartuko da bere etxean lapurra, berai daukatena ostutzeko, eta kanpotik bide-ebasleak egingo du.

2. Eta noaski esan ez dezaten beren biotzetan, ni beren gaiztakeria guztiakin berriz oroitzen naizala, gaur oraindik daude berak beren gaiztakeriaz ingurutuak. Nere begien aurrean ari dirade berak egiten.

3. Beren gaiztakeriakin bozkariotu zuten erregea, eta beren gezurrakin prinzipeak.

4. Nere erriko guztiak adulteroak dirade, labezaiak erazekitako labea bezelakoak dirade. Geldirik jarri zan erria denbora piska batean, legamia nastuta gero bezela, guztia legamiatua zegoan artean.

5. Gure erregearen eguna da, esaten zuten Israeltarrak. Prinzipeak ardoz beteta asi ziraden txorakeriak egiten, eta erregeak eskua ematen zien farragarri aiei.

6. Beren biotza idolatriara itsatsi zan, labe bat bezela erazekia, bera azeloan zegoan artean. Gau guztian lo egin zuen, berak egositzen ziraden artean. Goizean bera erazeki zan suzko gar bat bezela.

7. Guztiak erazeki ziran gaiztakerian labe bat bezela, eta erazeki zituzten berarekin beren juezak. Beratan erori ziran bere errege guztiak. Ez dago beren artean, bere boza niganontz altxatzen duenik.

8. Efraim erreñoakin nastutzen zan, etorri zan izatera Efraim suillean erretzen dan ogi bat bezelakoa, eta zeñ ez dan jiratzen.

9. Bere ondasunak arrotzak iretsiko dituzte, eta oraindikan ez da bera kontuan erori, ala ikusi da laster ille urdiñakin; eta argatik ere ez da ezageran sartzen.

10. Eta Israelen urgulleria umillatuko da bere begien aurrean; eta alaere ez da bere Jaun Jainkoagana biurtuko, eta gauza guzi oien ondoan ere, ez dirade bere billan joango.

11. Efraim egin da, uso argal, ezauera gabeko bat bezelakoa. Ejiptoarrai ots egiten zioten, Asiriatarrakgana joan ziran.

12. Eta joaten diradenean, nik nere sarea beren gañean zabalduko det, eta zeruko egazti bati bezela erori eraziko diet. Ondamen bat egingo det beretan, beren batzarretan esan zaioten bezela.

13. Ai beren doakabeak, nigandik alde egin zutelako! Desegiñak izango dirade, zeren nere kontra jaiki ziran; eta izanik ni asko alditan beren salbatzallea, berak nere kontra gezurrak esan zituzten.

14. Ez dute deadar egin, neri ots egiten didatela biotzetikan, baizik uluak egiten zituzten beren oietan; gariaren gañean eta ardoaren gañean ausnar egiten zuten. Nigandik urrutiratu ziraden.

15. Eta nik erakutsiak eman niezten, eta nik beren besoai indarra eman nien; berak ordea bakarrik gogoan erabilli zuten, nola nere kontra gaitz egingo zuten.

16. Nere legearen uztarri gabe, berriz bizi nai zuten. Uztai engañakor baten irudikoak egin ziraden. Beren prinzipeak ezpataren puntaz galduak izango dirade beren mingañ gaiztoagatik. Onelakoa da Ejiptoko lurrean neri egin zidaten irria.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Zure eztarria tronpeta bat bezelakoa izan bedi, eta adirazi ezazu etsaia eroriko dala Jaunaren etxearen gañera, agila bat bezela, zeren nere erri oiek nere elkartasunetik aurrera irago dirade, eta nere legea ausi dute.

2. Ots egingo didate esaten dutela: O gure Jaungoikoa, guk Israelkoak ezagutu zaitugu!

3. Baña Israelek, esaten du Jainkoak, utzi dio obra onak egiteari, eta argatik bere etsaiak desegingo du.

4. Berak erreinatu zuten; baña ez nigatik. Prinzipeak izan ziraden; baña nik ez nituen ezagutu. Beren zillarrarekin eta beren urrearekin egin zituzten idoloak beren galmenerako.

5. Lurrera aurtikia izan da zure idiskoa, o Samaria. Nere aserrea beren kontra erazekia izan da. Noizarteraño ezin izango dirade garbituak?

6. Zeren idisko hura Israelen lana ziertoro izan zan. Langille batek egin zuen, eta ez da Jaungoikoa, armiarma baten euta bezela, Samariako idiskoa ala izango da.

7. Aizea ereingo dute, eta txirimolak bilduko dituzte beren galmenerako. Ez da izango an buruskarik zutik iraungo duenik, eta beren granoak ez dute iriñik emango; eta baldin ematen badute, jango dute arrotzak.

8. Israel iretsia izan da. Etorri da bera izatera, erreñuen artean edanontzi zikin bat bezelakoa.

9. Zuzendu zan Asiriatarren erregeagana, basoasto bakarrik dabillana, Efraimen semeak, beren adiskide Asiriatarrai doañak eskeñi diezte.

10. Baña erreñuen laguntasuna diru askogatik iritxi ta gero, orduan nik bilduko ditut Asirian, eta izanik katibuak, geldituko dirade denbora zati batean erregeari ta prinzipeai pagatzen dioten kotiza gabe.

11. Efraimek ugaritu dituelako bere aldarean bekatu egiteko, eta bere obenen jatorria aldarak izan diradelako,

12. Nik ere ugarituko ditut bere kontra nere legeak, zeñai begiratu dien, berentzat ez balirade bezela.

13. Eskeñiko dituzte doañak, ilko dituzte abereak sakrifiziorako, zeñatatik jango duten; baña Jaunak ez ditu ontzat artuko; baizik orain orotuko da beren gaiztakeriakin, eta beren bekatuak kastigatuko ditu. Orduan Ejiptora biurtuko dira.

14. Israel bere Egillearekin aztu zan, eta egin zituen tenploak idoloentzat. Judak ugaritu ditu erri murrutuak, eta nik sua aurtikiko det bere errietara, eta bere etxe guztiak iretsiko ditu.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Etzaite alako moduan bozkariotu, o Israel, etzaite bizi dantzetan, jentillak egiten duten bezela; zeren zuk zure Jaungoikoa utzi dezun. Ordañean larrañ gariz beteak nai izan dituzu.

2. Baña ez larrañak, ez dolareak, ez die emango zerekin bazkatu; eta mastiak beren itxedopenak utsean utziko ditu.

3. Jaunaren lurrean ez dirade biziko. Efraim Ejiptora itzuliko da, eta Asiriatarren artean janari kutsutuak jango ditu.

4. Ez diozkate Jaunari eskeñiko ardozko libazioak; eta beren doañak ere, ez dirade bere gogokoak izango. Beren sakrifizioak proguetako jateketak bezelakoak izango dirade. Beretan jaten duen guztia kutsutua geldituko da. Gorde bezate berentzat beren ogia, ez bedi sartu Jaunaren tenploan.

5. Zer egingo dezute orduan egun andian, Jaunaren jai andian?

6. Nik onezkero ikusten ditut iges egiten alderri arrasatutik. Ejiptok bilduko ditu, obiratuko ditu Memfisek, berak nai zituzten ondasunen gañean osina aziko da; eta beren bizilekuetan sasilarrak ikusiko dirade ernetzen.

7. Etorriko dirade bisitako egunak, kastiguko egunak allegatuko dirade. Jakin ezazu, o Israel, zure profetak txoro batzuek diradela, zerutik argituak daudela uste diran oiek, zentzugabeko batzuek dirade, zure gaiztakeria askoen, eta zure zorakeria andiaren kastiguan.

8. Apaiza, Efraimgo bealaria nere Jaungoikoaganako, profeta, bide guztietan zabaldutako lazo bat egin da erriaren galmenerako, bere Jaungoikoaren tenploan gorrotoz begiratzen zaio.

9. Bekatu txit andiak egin dituzte, Gabaontarrak bekatu egin zuten egun aietan bezela. Jauna beren gaiztakeriakin orotuko da, eta beren bekatuak kastigatuko ditu.

10. Matsak eremu leor batean bezela, alako gogoarekin nik Israel artu nuen. Piku ondo baten errama goratuen lenbiziko frutuai bezela, ala begiratu nien beren gurasoai. Baña berak Beelfegorren tenplora joan ziran, eta alde egin zuten nigandik, beren lotsarirako, gorrotogarriak egiten ziradela, maitatu zituzten gauzak bezela.

11. Joan zan Efraimen gloria, egan egin duen txori bat bezela; beren semeak jaiota bertatikan galduko dirade; amaren sabeletik, edo beren sortzetik.

12. Eta beren semeak azitzera allegatuko balirade ere, nik egingo det, mundu onetan berak gabe gelditu ditezela. Baña, ai beren doakabeak, nik osotoro utzitzen ditudanean!

13. Efraimek, nik ikusi nuen bezela, zirudian Tiro aberatsa, toki txit eder batean zegoana, eta Efraimek aterako ditu bere semeak iltzalleagana.

14. Eman zaiezu, o Jauna, Baña eta zer emango diezu? Eman zazkiezu sabel soillak, eta bular ugatz gabeak.

15. Bere gaiztakeria igo zan Gorengo mallara Galgalen, an nik gorroto artu nien. Aurtikiko ditut nik nere etxetik beren obra gaiztoakgatik.

Beñere ez ditut berriz maitatuko. Beren prinzipe guztiak, igeslari batzuek dirade.

16. Efraim zauritua izan da, bere sustraia leorra dago, ez dute berak frutu geiago emango, eta semerik baleukate, nik beren erraien maitatuenak illeraziko ditut.

17. Nere Jaungoikoak aurtikiko ditu, etzutelako bera aditu, eta erreñuen artean batetik bestera ibilliko dirade.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Zan Israel masti ostotsu bat, zegozkion frutuak eman zituena. Zenbat ugariagoak ziran bere aberastasunak, anbat idoloen aldare geiago zeukan, eta zenbat ugariagoa zan bere lurra, jainko gezurrezkoen irudi geiago iduki zuen.

2. Beren biotza partitua dago, eta laster galduko dirade. Jaunak beren jainko irudiak zatituko diozkate, eta beera artikiko ditu beren aldareak.

3. Zeren berak orain esango dute: Ez daukagu erregerik, zeren Jaunaren beldur ez geran, eta erregeak zer egingo digu?

4. Esan itzatzute orain berriz, zuen profeten ikusketa gezurrezkoaren itzak, egin ezazute elkartasuna asiriatarrarekin, alaere Jaungoikoaren aserreak botako ditu moteak, belar gaiztoak kanpo erein bateko ildasketan bezela.

5. Samarian bizi ziradenak Betharengo beiak adoratu zituzten, eta erri hurak eta bere apaizak, idisko aren onran jaia zelebratzen zutenak, malko jarioan daude, beren gloria utsean gelditu zalako.

6. Idiskoa bada Asiriara eramana izan zan, gordetzalletzat artu zuen, erregeari doañ bat egiteko. Efraim lotsariz betea geldituko da, Israel bere gura gaiztoakgatik izango da desonratua.

7. Samariak bere bekatuakgatik iragoeraziko dio bere erregeari uraen gañeko apurra bezela.

8. Desegiñak izango dirade toki goratu, idoloari konsagratuak, zeñ dan Israelen bekatua. Arantzak eta sasilarrak aziko dira bere aldaren gañean. Orduan Israelko semeak mendiai esango diote: Estali gaitzatzute, eta muñoai: Erori zaitezte gure gañera.

9. Gabaako gertakarien denboratik dago Israel idoloakin bekatu egiten, bekatuan iraun dute, idukiko dute gerra bat, Gabaako gaiztakeriaren semeak iduki zutena baño kaltegarriagoa.

10. Nere guraren neurrian kastigatuko ditut nik. Erreñuak beren kontra bilduko dirade. Orduan kastigatuak izango diradenean beren gaiztakeriak, bi alditan anbatekoagatik.

11. Efraim, uztak gogoz traillatzen oitutako bigaia. Ni iragoko naiz bere lepo ederraren gañetik, igoko naiz Efraimen gañera. Juda goldeatzen ariko da, Jakobek ildaskak idikiko ditu.

12. Erein itzatzute zuentzat birtuteko aziak, eta urrikaltasuna ugari igitaituko dezute. Landu itzatzute, landu gabe dauden lurrak; zeren Jauna billatzeko denbora dan, aliketa etorri dedin artean justizia erakutsiko dizutena.

13. Goldeatu zenduten gaiztakeria ereitzeko, eta obra biurriak igitaitu dituzute, eta jan gezurrezko frutu bat. Zuen itxedopena, zuen asmazioetan ipiñi zenduten, eta zuen indartsuen ugaritasunean.

14. Zuen errian matxiñadak jaikiko dirade, eta desegiñak izango dira zuen gazteluak, nola desegin zuen Salmana gudako egunean Jedeonen martiztiak, zeñak artu zuen Baalen bengantza, ama bere semeakin batean eraioa gelditzen zala.

15. Au da Bethelek egin dizutena. Au da, zuen gaiztakeria biurrien ordaña.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Nola iragotzen dan goiztabarra, ala irago zan Israelko erregea. Asieran Israelko etxea aur bat zan, nik maitatu nuen, eta nik ots egin nion, eta nik nere semeari Ejiptotik etorri erazi nion.

2. Nere profetak ots egin zien berai; baña oiek berakgandik geiago urrutiratu ziran. Baali doañak eskeñtzen ziezten, eta egiten ziezten sakrifizioak idoloai.

3. Ni egun nintzan Efraimen aurzaia bezelakoa; nere besoetan erabilli nuen, eta Efraimen semeak etzuten ezagutu, ni naizala beren osasunagatik begiratzen dedana:

4. Nik ekarri nituen niganontz gizasemeai dagozkien lokarriakin, karidadeko lokarriakin, ni izandu nintzan berentzat, beren matrallezurrak estututzen ziezten uztarria jasotzen niena bezelakoa, eta jatekoa eraman nien.

5. Ez dirade onezkero berak Ejiptoko lurrera itzuliko; baizik Asiriatarra beren erregea izango da, ez dutelako konbertitu nai izan.

6. Badabil ezpata bere errietan, eta bertan bizi diradenen lorea desegingo du, eta beren agintariak iretsiko ditu.

7. Bitartean nere erria ari bat bezela egongo da, antsiarekin itxedotzen duela nere itzuliera, baña guztiai jarriko zaiote uztarri bat betiko.

8. Zer egingo det zurekin, o Efraim? Zure laguntzallea izango al naiz ni, o Israel? Nik tratatu natzakizuteket Adama bezela, edo ipiñi Seboim

ipiñi nuen bezela? Ah! Nere erraiak nere barrenen mugitzen dirade, ni arkitzen naiz damutua bezela.

9. Ez diot utziko obratzen nere sumintasunaren aserreari, ez naiz erabakiko Efraim desegitzera; zeren ni Jaungoikoa naizan, eta ez gizon bat. Santua zure erdian bizitu izan da; eta ala, ez naiz sartuko errian bera desegiteko.

10. Berak Jaunari jarraituko diote, leoiak bezela orroa egiten duenean. Berak orroa egingo du, eta itsasoaren semeak izutuko ditu.

11. Eta egan egingo dute Ejiptotik egazti batek bezela, eta uso agudo bat kabiara bezela etorriko dirade Asiriako lurretik, eta nik berriz ipiñiko ditut beren bizilekuetan, esaten du Jaunak,

12. Estutu nau Efraimek ni ukatzearekin, eta Israelko etxeak bere engañioakin. Juda, alaere etorri da bere amorioaren aitorrera Jaungoikoari ematera, eta santuen bideari leialkiro jarraitzen dio.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Efraim aizez bazkatzen da, eta Ejiptogan itxedotzen duela, aize beroz asnasa artzen du. Egun guztian ari da gezurrak eta ondamena ugaritutzen. Asiriatarrakin elkartu da, eta bere olio ederrak Ejiptora eraman ditu.

2. Jauna etorriko da, Juda juzgatzera, eta Jakob kastigatzera, eta bere obrak, eta bere burutazioak diña diraden ordaña emango dio.

3. Jakobek amaren sabelean bere anaiari orpotik eldu zion, eta bere sendotasunarekin, aingeruarekin burruka egin zuen.

4. Eta aingerua baño geiago izan zan, eta garaitu zuen. Negar egin zuen, eta erregutu zion, Bethelen arkitu zuen, eta an itz egin zuen gurekin.

5. Eta Jauna, zeñ dan ejerzituen Jaungoikoa; Jauna Jakobek bere gogoan beti iduki zuen.

6. Zu, bada, zure Jaungoikoagana biurtu zaite, urrikaltasuna eta juizioa zaitu itzatzu, eta zure Jaungoikoagan beti itxedon ezazu.

7. Baña Kanaantar onek bere eskuetan balanza engañakorra dauka: gezurrezko asmazioa maitatzen du.

8. Eta Efraimek esan zuen: Dana dala, ni aberastu naiz, arkitu det idoloa neretzat. Nere arazo guztietan ez da arkituko gaiztakeriarikan batere nik egin dedanik.

9. Alaere ni oroitzen naiz, Ejiptoko lurretik atera zindudanetik, zure Jaun Jainkoa naizala. Oraindikan ere zure bizilekuetan atsedetzen utziko dizut, jai andi artako egunetan bezela.

10. Ni naiz itz egin nizuna profeten bitartez, zeñai, etortzeko zeuden gauza asko, ikusi erazi niezten, eta profeten bitartez zuei agertu nintzatzuten.

11. Galaadko hura idolo bat bada; beraz Galgalan alperrik idiak il, ta eskeñtzen ziran, eta egiaz onezkero beren aldareak, kanpoko ildaisken aldeko arri montoiak bezelakoak dirade.

12. Jakobek Siriako lurrera iges egin zuen: eta Israelek Laban serbitu zuen emazte batgatik; eta beste batgatik artzaitzan serbitu zuen.

13. Gero Jaunak profeta baten bitartez atera zuen Israel Ejiptotik, eta beste profeta baten bitartez salbatu zuen.

14. Efraimek bere naiezakin aserretu erazi dit. Bere gañera erori eraziko dio bere Jaunak odol isuriari, eta egin diozkan irrien ordaña emango dio.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Jeroboam Efraimgo erregeak esan zituen itzetara, Israel beldurtu zan, eta bekatu egin zuen Baal adoratzen zuela, eta onenbesterekin illa bezela gelditu zan.

2. Eta orain bekatuak bekatuai itsatsi diezte, eta urtu dute beren zillarra, eta berarekin egin dituzte idoloen irudiak. Guztia langilleen obra da. Arako adoratzalleai oiek esaten die: Zuek, idiskoak jainkotzat adoratzen dituzutenak, giza doañak il, eta eskeñi zaiozkazute.

3. Argatik berak izango dirade odei bat egunaren sentian bezela; eta goizeko intz, bereala desegiten dana bezela, eta aize bunbada batek larrañatik eramaten duen autsa bezela, eta tximinia batetik irtetzen dan kea bezela.

4. Baña ni naiz zure Jaun Jainkoa, Ejiptoko lurretik atera ziñanetik, eta ez dezu ezagutuko beste Jaungoikorik, ni baizik, eta ez dago ere beste Salbatzallerik, ni baizik.

5. Nik ezagutu zindudan semetzat eremuan, lur soill batean.

6. Zeudela Israeltarrak biziteko eman nien erri gozatsuaren aldean, bete ziran eta ase ziran, eta urgulluturik beren biotza, aztu ziran nerekin.

7. Baña ni izango naiz berentzat leoi eme bat, edo leoiarrea Asiriara dijoan bidean bezelakoa:

8. Aterako naiz berai erasotzera, bere umeak ostu diozkaten artz eme bat bezela; eta zatituko ditut beren erraiak biotzaren barrendieneko tokiraño, eta an iretsiko ditut, leoi batek egiten duen bezela, pistiak desegingo dituzte.

9. Zure galmena, o Israel, zu zerorigandik dator, eta nigandik bakarrik zure laguntasuna.

10. Non dago zure erregea? Non daude zure Juezak? Orain da berak zu, eta zure erriak salbatzeko era, zuk esan ziñidan ezkero: Eman zazkidazu errege bat, eta prinzipeak.

11. Nere sumintasunaren erdian errege bat eman nizun; eta nere aserrearen erdian kenduko dizut.

12. Bilduaz joan naiz Efraimen gaiztakeriak, bere bekatuak gordeak dauzkat.

13. Aurregiten ari dan andrearen oñazeak etorriko zaiozka, erri ori seme zentzugabeko bat da, eta orain ezin iraunko du bere semeen galmenaren erdian.

14. Alaere, nik eriotzaren eskutik libratuko ditut, eriotzaren atzaparretatik erredimituko ditut. O eriotza! ni ire eriotza izango nauk. Ire galmena izango nauk, o infernua! Ez det ikusten gozatu nazakean gauzarik.

15. Zeren berak anaia batzuek besteetatik berezituko ditu. Jaunak bialduko du aize erretzalle bat, zeñ jaikiko dan eremutik, zeñak leortuko dituen bere jarioak, eta bere iturriak agortuko ditu. Salmanasar erregeak tesoru balio andienekoak arrapatuko ditu.

AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Galdua izan bedi Samaria, bere Jaungoikoari aserretu erazi diolako. Galduak izan bitez guztiak ezpataren puntaz. Bere aurrak lurraren kontra eraioak izan bitez, eta beren andre aurdun daudenen sabelak idikiak.

2. O Israel, zure Jaun Jainkoagana biurtu zaite, zeren zure gaiztakeriakgatik erori zeran!

3. Pensatu ezazute Jaunari esango diozutenean, biurtu zaitezte beragana, eta esan zaiozute: Kendu ezazu gugandik gaiztakeria guztia, artu ezazu gure gurari on au, eta gure alabantzen eskeñtza aurrean ipiñiko dizugu.

4. Ez degu onezkero itxedongo, Asiriatarrak salbatuko gaituztela. Ez gera igoko zaldietan. Emendikan aurrera ez diegu emango gure Jaungoikoen izena gure eskuen lanai, zeren zu, o Jauna, erri onekin urrikalduko zeran, zure eskuetan jartzen dan umezurtz batekin bezela.

5. Nik beren zauriak sendatuko ditut, (erantzuten du Jaunak) doan maitatuko ditut, zeren nere aserrea beren kontra bigundu dan.

6. Izango naiz intza bezela Israelentzat, zeñ moteatuko dan lirioa bezela, eta zeñak botako dituen sustraiak Libanoko zuaitz batek bezela.

7. Bere erramak zabalduko dirade: izango da ederra, oliboa bezela; eta usaitsua, inzensuaren zuaitza bezela.

8. Beragana biurtuko dira, eta bere itzalaren azpian atsedengo dute, gariz bazkatuko dirade, ugarituko dirade aiena bezela. Bere izenaren usai gozoa, Libanoko ardoa bezelakoa izango da.

9. Orduan Efraimek esango du: Zer daukat nik onezkero idoloakin zer ikusi? Eta nik onez adituko diot, eta nik azi eraziko diot abeto goratu, eta berde bat bezela. Zure frutuak, o Israel, nigandik jatorria idukiko dute.

10. Zeñ da gauza oiek aditzen dituen jakintsua? Nork dauka oiek konprenditzeko aditza? Zeren Jaunaren bideak zuzenak diran, eta justoak beretatik ibilliko diran; fedea austen dutenak berriz, beretan beren galmena arkituko dute.

JOELEN PROFEZIA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Joel, Fatuelen semeari egindako Jaungoikoaren itza.

2. Aditu ezazute, o zarrak, eta zuek Judako lurrean bizi zeratenak ere, zaudete arretaz. Onelako gauzarik zuen egunetan, edo zuen gurasoen denboran gertatu al da?

3. Bere gañean itz egingo diezute zuen semeai, eta zuen semeak beren semeai, eta oien semeak beste gizaldiari.

4. Beldarrak utzi zuena, langostak jan zuen; eta langostak utzi zuena, galdernak jan zuen; eta galdernak utzi zuena, gorniak desegin zuen.

5. Esnatu zaitezte, o moskortuak, eta negar egin ezazute, altxatu ezazute deadarra ardoa edaten bozkarioz zaudeten guztiak, zeren zuen aotik kenduko zazuten.

6. Zeren nere lurrerontz etorriaz dijoa erreñu sendo, eta kontaezin bat. Leoiarenak bezelakoak, alakoak dirade bere ortzak, bere agiñak leoe gazte batenak bezelakoak dirade.

7. Berak nere mastia eremu biurtu du, desazaldu ditu nere pikuondoak, utzi ditu billosik, grano bat ere gabe, eta lurrera aurtikiak, bere erramak ortxikatuak eta igartuak, zuri biurtzen dirade.

8. Negar egin ezazu, o Jerusalen, emazte batek bezela, zeña zilizioz jantzita malko jarioan dagoan, bere edade loretuan artu zuen senarragatik.

9. Aitu ziran sakrifizioak eta libazioak Jaunaren etxean: Jaunaren serbitzari apaizak, negarrez daude.

10. Alderria arrasatua dago, kanpoak negarrez daude, alorrak desegiñak izan diradelako, mastiak gelditzen dirade galduak, eta oliboak leortuak.

11. Nekazariak buruz beera dabiltza, manstizaleak ai, tristeak egiten dituzte, galdu dalako kanpoko uzta, garia eta garagarra.

12. Mastiak egoera negargarri batean daude, leortu dirade pikuondodiak, eta leorrak gelditu dirade mingrana, palma, eta sagarrondoa, eta landaetako zuaitz guztiak. Bozkarioa gizonen semeakgandik urrutira joan da.

13. Jarri itzatzute gerrietan zilizioak, eta negar egin ezazute zuek, o apaizak, egin itzatzute deadar tristeak, o aldareko lanetan ari zeratenak. Atozte zilizioaren gañean auzpeztzera, o nere Jaungoikoaren ministroak, zeren aitu dan zuen Jaungoikoaren etxean sakrifizioa eta libazioa.

14. Agindu ezazute barau egiteko; ots egin zaiozute erriari; bildu itzatzute zarrak, eta inguruetan bizi diraden guztiak zuen Jaungoikoaren Etxean, eta zuen deadarrak Jaunagana altxatu itzazute.

15. Ai, ai, ze egun ikaragarria dan aldean datorren egun ori! Ai, ez dago urrutian Jaunaren eguna, eta etorriko da, guzia dezakeanak bialdutako ekaitz ikaragarri bat bezela.

16. Ez al dezute ikusi zuen begiakin, nola Jaungoikoaren etxea janaririkan batere gabe, bozkario eta gozotasun gabe gelditu dan?

17. Abereak gosez galtzen dira beren estalpetan, aletegiak utsak gelditu dirade, ezerere gabe janari gelak, zeren garia galdu dan.

18. Nola da abereak adiaka daudela, eta taldeko beiak orroaka ari diradela? Bazkarik ez daukatelako, eta artaldeak ere galtzen daude.

19. Zugana, o Jauna, jasoko ditut nere deadarrak, zeren suak eremuko landa eder guztiak galdu dituen, eta garrak alderriko zuaitz guztiak erre dituzte.

20. Eta kanpoko pistirañokoak berak ere altxatzen dituzte begiak zuganontz, ur egarriz dagoan lurrak bezela, zeren uren jarioak leortu ziran, eta eremuko landa eder guztiak, suak iretsi zituen.

BIGARREN KAPITULUA

1. Jo ezazute tronpeta Sionen, asi zaitezte alarauak egiten nere mendi santutik, dardaraz jarri bitez lurean bizi diraden guztiak, zeren Jaunaren eguna alderatzen dan, zeren onezkero allegatzeko zorian dagoan.

2. Illuntasuna eta argigabeko eguna; odei, eta aizebunbaden eguna, erri ugari eta sendo bat zabaltzen da Judeako mendi guztietatik, goizean argia zabaltzen dan bezela, ez da onen antzeko egunik izan asieratik, eta ez da izango ere asko gizalditan.

3. Bere aurretik su iretsitzalle bat dijoa, eta bere ondoan gar erretzalle bat darama. Bera allegatu baño lenago, atseginezko baratza bat zan lurra, eremu arrasatu bat egiña utzitzen du, eta ez dago beragandik iges egin dezakeanik.

4. Langosta talde orren irudia, zaldiena bezelakoa da, eta zaldidi agudoa bezela, ala korrika ibilliko da.

5. Salto egingo dute mendien erpiñen gañera, gurdien irudiko ots batekin; garrak lastategiak erretzen dituztenean egiten duten otsa bezelakoarekin; jende armadun talde ugari bat gudarako prestatzen danean bezela.

6. Bera allegatzen danean, erriak izuz illotzak geldituko dirade, eta arpegi guztiak eltze beltz baten kolorekoak geldituko dirade.

7. Sendoak bezela korrika joango dira; gerrari errutsuak bezela igoko dira murruetara; iñor ere ez da irtengo bere errenkadatik, eta ez du batek ere bere bidetik alderik egingo.

8. Ez diote elkarri eragozketarik jarriko; bakoitzak jarraituko dio zuzen bere bideari, eta erortzen diradenean, edo leioetatik salto egiten dutenean ere, ez dute miñik artuko.

9. Sartuko dira erri batera, murruetatik korrika ibilliko dirade, igoko dira etxeetara, leioetatik sartuko dira lapurrak bezela.

10. Berak allegatzen diradenean, lurra dardaraz jarriko da, zeruak mugituko dira, illunduko dira eguzkia eta illargia, eta izarrak beren argitasuna atzeratuko dute.

11. Zeren Jaunak aditu erazi duen bere boza, bere ejerzituak allegatu diradenean, zeren bere martiztiak kontatu eziñak diraden, zeñak diraden sendoak, eta egiten dituen bere aginteak. Zeren Jaunaren eguna andia, eta txit beldurgarria dan. Eta nork sufritu dezake?

12. Orain bada biurtu zaitezte nigana, esaten du Jaunak, zuen biotz guzitik, barauakin, negarrakin, eta suspirioakin.

13. Eta urratu itzatzute zuen biotzak, eta ez zuen soñekoak, eta biurtu zaitezte zuen Jaun Jainkoagana, Jauna dan ezkero beraa, eta urrikaltsua, eta itxedopen andikoa, eta txit biguña, eta kastigatu gabe utziten zalea.

14. Nork daki makurtuko ote dan biguñtasunera, eta barkatuko ote dizuten, eta utziko ote dizuten gozatzen bedeikazioan, eta emango ote dizuten eskubidea eskeñtzeko sakrifizioak eta libazioak zuen Jaun Jainkoari?

15. Jo ezazute tronpeta Sionen, agindu ezazute barau santu bat, batzarre bat bildu ezazute;

16. Batu ezazute erria, garbitu ezazute jende guztia, elkartu itzazute zarrak, etorri erazi zaiozute txikiai, eta bularreko aurrai; irten bedi senarra bere ezkontza oetik, eta emaztea bere eztoitik.

17. Negar egin bezate apaiz, Jaunaren ministroak, atariaren eta aldarearen aurrean, eta esan bezate: Barkatu, Jauna, barkatu zure herriari, eta ez ezazu utzi zure herenzia lotsarian, jartzen dezula erreñuen mendean. Zergatik jendeak aitzakia idukiko dute esateko: Beren Jaungoikoa non dago?

18. Jaunak bere lurrari amorio erazekiarekin begiratzen dio, eta bere erriari barkatu dio.

19. Eta Jaunak itz egin du, eta bere erriari esan dio: Nik bialduko dizutet garia, eta ardoa, eta olioa, eta berakin beteak izango zerate, eta beñere berriz ez det utziko erreñuen irria izan zaiteztela.

20. Eta zuekgandik urrutira aurtikiko det ifarretik etorri zan etsai hura, eta botako det iñor ere bizi ez dan toki eremu batera. Bere aurrea Sortaldeko itsasorontz, eta bere atzea itsasorik urrutienerontz; eta an ustelduko da, eta usai atsitu bat botako du, alako urgulleriarekin ibilli zalako.

21. Ez daukazu zertan beldur izan onezkero, o Judako lurra, gozatu zaite, eta poztu zaite, zeren Jaunak zure alde mirari andiak egin dituen.

22. Zuek, o kanpoko abereak, etzaitezte onezkero beldur izan, zeren eremuko landak belarrez estalitzera dijoazen, zuaitzak beren frutuak emango dituzte, pikudiak eta mastiak txit sendo moteatu dira.

23. Eta zuek, o Siongo semeak, gozatu eta bozkariotu zaitezte zuen Jaun Jainkoagan, eman dizutelako, zuekgandik jaiotzea justiziaren Erakuslea, eta bialduko dizkizute udazkeneko eta udaberriko euriak anziña bezela.

24. Eta larrañak gariz beteko dirade, eta dolareak ardoz, eta olioz gañez egingo dute.

25. Eta emango dizutet ordaña iduki zenduzten urte urriakgatik, langosta, galderna, ta gornia, eta beldarra, zuen kontra bialdu nituen ejerzitu ikaragarriakgatik.

26. Eta jango dezute ugaritasunarekin guziz ase arteraño, eta bedeikatuko dezute zuen Jaun Jainko, zuen alde gauza ain arrigarriak egin dituenaren izena, eta beñere onezkero ez da nere erria lotsatua izango.

27. Eta ezagutuko dezute ni Israelen erdian bizi naizala, eta ni naizala zuen Jaun Jainkoa; eta ez dagoela besterik, ni baizik; eta iñoizere ez da berriz nere erria lotsatua izango.

28. Eta oien ondoan gertatuko da, isuriko dedala nik nere espiritu Jaungoikozkoa gizon mota guztiaren gañera, eta zuen semeak eta zuen alabak profetizatuko dute, zuen zarrak ames miragarriak egingo dituzte, eta zuen gazteak ikusketak idukiko dituzte.

29. Baita nere morroi mendeko, eta nere neskamen mendekoen gañera ere egun aietan nere espiritua isuriko det.

30. Eta agertueraziko diet mirariai zeruan eta lurraren gañean, odola eta sua, eta keezko aizebunbadak.

31. Eguzkia illuntasun, eta illargia odol biurtuko dira, etorri baño lenago Jaunaren egun andi eta ikaragarri hura.

32. Eta gertatuko da, Jaunaren izenari ots egiten dion guztia, salbatuko da, zeren Judako erriko kutsuak, Jaunak esan duen bezela, Siongo mendian eta Jerusalenen salbazioa arkituko dute, zeñak Jaunak bere elizara ots eginak izango diraden.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Zeren egun aietan, eta denbora artan, nik, Juda eta Jerusalen katiberiotik ateratzen ditudanean;

2. Emen bilduko ditut jende guziak, eta eramango ditut Josafaten ibarrera, eta an disputatuko det berakin nere erriaren alde, eta Israelko nere herenziaren alde, zeñak berak barreiatu zituzten erreñuetan, partitzen zutela beren artean nere lurra.

3. Eta txotx eginda partitu zuten beren artean nere erria, eta ipiñi zituzten mutillak bordionen tokian, eta saldu zituzten neskatxak ardo piska batgatik edateko.

4. Baña, zer da nik egingo dedana zuekin, inguru guztietako Tiroarrak, eta Sidontarrak? Nerekin bengatu nai al zerate? Eta nerekin bengatzen bazerate, laster berealaxe, zuen buruen gañera ordañari erori eraziko diot.

5. Zeren zuek nere zillarra, eta nere urrea ostu dezute, eta gauzarik ederrenak eta baliotsuenak zuen tenploetara eraman dituzute.

6. Eta saldu dieztezute Grieguai Judako eta Jerusalengo semeak, beren erritik urrutian berak idukitzeko.

7. Jakin ezazute, nik aterako ditudala saldu zenduzten erritik, eta egingo det zuen buruen gañera ordaña erori dedilla.

8. Eta jarriko ditut zuen semeak, eta zuen alabak Judako semeen mendean, zeñak salduko diezten Sabeotarrai, urrutiko erreñuari, zeren Jaunak ala esan duen.

9. Esan zenezakete, nai badezute, erreñuen artean: Prestatu zaitezte gerrarako, alaitu itzazute mutil sendoak, etorri bitez, asi bitez ibiltzen gerrari guziak.

10. Egin itzatzute zuen goldeakin ezpatak, eta zuen aitzurrakin lantzak, erriak ere esan beza: Badaukat nik indarra.

11. Atera zaitezte kanpora, eta atozte, eta bildu zaitezte, o erreñuak, zeraten guztiak, Jaun Jaunak, zuen errutsu guztiak lurrera aurtikiko ditu.

12. Jaiki bitez jendeak, eta betoz Josafaten ibarrera; zeren an eseriko naiz ni erreñu guztiak inguruan jarrita juzgatzeko.

13. Bota ezazute igitaia, zeren onezkero uztak zorituak dauden, atozte, eta jetxi zaitezte, zeren dolarea betea dagoan, gañez egiten dute dolareak, au da, beren gaiztakeria gorengo mallaraño allegatu da.

14. Erriak, erri kontatu eziñak, agertu zaitezte eriozko ibarrean, zeren Jaunaren eguna aldean dagoan, atozte ilkintzako ibarrera.

15. Illunduko dirade eguzkia, eta illargia, eta izarrak beren argitasuna atzeratuko dute.

16. Eta Jaunak orroa egingo du Siondik, eta bere boza Jerusalendik adituerazi ko du, eta zeruak eta lurra dardaraz jarriko dirade. Baña Jauna bere erriaren itxedopena, eta Israelko semeen sendotasuna da.

17. Eta ezagutuko dezute, ni naizala zuen Jaun Jainko, Siongo nere mendi santuan bizi naizana, eta Jerusalen orduan santua izango da; eta ez dute onezkero beñere bere barrenen arrotzak oñik ipiñiko.

18. Egun artan gertatuko da, mendiak ezti jarioan egongo diradela; eta muñoai eznea erioko zaiote; eta Judako erreka guzietatik ur osasuntsuak bete betean korrika joango dirade. Eta Jaunaren tenplotik irtengo da iturri miragarri bat, arantzen ibarra ureztatuko duena.

19. Ejipto ondamenean utzia izango da, eta Idumea biurtua izango da eremu izugarri batean, Judako semeak txit gaizki erabilli zituztelako, eta odol obengabea beren alderrietan isuri zutelako.

20. Judean ordea jendea beti biziko da, eta Jerusalen beti beti jendez betea egongo da.

21. Eta bengatuko naiz arako justoen odolaz, zeñaen bengantzarik ez nuen artu, eta Jauna berakin Sionen beti biziko da.

AMOSEN PROFEZIA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Amosen, Tekueko artzai bat izan zanaren itzak, zeñean dauden, ikusi zituen gauzak Israelen gañean, Ozias Judako erregearen denboran, eta Jeroboam, Joas Israelko erregearen semearen denboran, lurdardara baño bi urte lenago.

2. Esan zuen bada: Jaunak Siondik orroa egingo du, eta adituerazIko du bere boza Jerusalendik, eta zimelduko dira bazkarik ederrenak, eta Karmeloko erpiñak leortuko dira.

3. Oiek esaten ditu Jaunak: Damaskok egin ezkero iru, lau gaiztakeria, ez det konbertituko; zeren berak traillatzeko gurdiakin Galaadko Israeltarrak zatitu dituen.

4. Nik su emango diot Azaelen etxeari, eta Benadaben etxeak iretsiko ditu.

5. Eta Damaskoren eskubide guztia desegingo det, eta idoloaren landaetan bizi diradenak arras kenduko ditut; eta eskuan zetroa daukana, aurtikiko det gozotasunetako etxetik; eta Siriako erria Zirenera eramana izango da, esaten du Jaunak.

6. Oiek esaten ditu Jaunak: Gazak egun ezkero iru, lau gaiztakeria, ez det nik konbertituko; zeren berak Israelko jende guztia katibu eraman duen, Idumean itxian idukitzeko.

7. Nik Gazako murruen kontra bialduko det sua, zeñak bere etxeak auts biurtuko dituen.

8. Eta desegingo ditut Azoton bizi diradenak, eta Askalonen zetroa daukana, eta aurtikiko det nere eskua Akaronen gañera; eta ezereztuko ditut Filistintarren kutsuak, esaten du Jaun Jainkoak.

9. Oiek esaten ditu Jaunak: Tirok iru, lau gaiztakeria egin da gero, ez det nik konbertituko; zeren katiberioan zarratu duen, Idumean, nere errIko jende guztia, anziñako anaien arteko elkartasunarekin oroitu gabetanik.

10. Nik Tiroko murruen kontra bialduko det sua, zeñak bere etxeak auts biurtuko dituen.

11. Oiek esaten ditu Jaunak: Edomek iru, lau gaiztakeria eginda gero, ez diot barkatuko; zeren ezpata eskuan duela bere anaia Israel persegitu duen, eta ukatu dion, berarekin iduki bear zuen urrikaltasuna, irauneraziTzen diola bere kontrako aserre eta sumintasunari atzeneraño.

12. Nik Temanen kontra bialduko det sua, zeñak Bosrako etxeak geldo biurtuko dituen.

13. Oiek esaten ditu Jaunak: Ammontarrak iru, lau gaiztakeria eginda gero, ez ditut konbertituko; zeren berak jabe ziraden lurrak zabaltzeko, Galaadko andre aurdunen sabelak idiki zituzten.

14. Nik Rabbako murruetara bialduko det sua, zeñak erreko dituen bere etxeak, gudako denborako alarauen, eta nastearen erdian galmeneko egunean.

15. Eta Melkomgo idoloa katiberiora joango da, bere Prinzipeakin batean, esaten du Jaunak.

BIGARREN KAPITULUA

1. Oiek esaten ditu Jaunak: Moabek iru, lau gaiztakeria egin ezkero, ez det nigana konbertituko, zeren Idumeako erregearen ezurrak erre zituen, auts biurtzen zituela.

2. Nik bada Moaben kontra sua bialduko det, Kariotko etxeak iretsiko dituena, eta Moab tronpeten dunbots, eta otsaren erdian galduko da.

3. Eta bere erditik kenduko det bere Jueza, eta berarekin batean bere Prinzipe guztiak ilko ditut, esaten du Jaunak.

4. Oiek esaten ditu Jaunak: Judak iru, lau gaiztakeria egin ezkero, ez diot barkatuko, zeren Jaunaren legea aurtiki duen, eta bere aginteak zaitu ez dituelako, zeren engañatu duten bere idoloak, zeñaen ondoren beren gurasoak ibilli ziraden.

5. Nik Judaren kontra bialduko det sua, zeñak Jerusalengo etxeak iretsiko dituen.

6. Oiek esaten ditu Jaunak: Israelek iru, lau gaiztakeria egin ezkero, ez diot barkatuko, zeren justoa diruagatik, eta beartsua pare bat oñetako gatik saldu dituen.

7. Beeratutzen dituzte lurreraño beartsuen buruak, eta umillakin ez dute nai artuemanik iduki. Eta semea, eta aita joan ziran neskatx bat batgana, nere izena desonratzeko.

8. Eta beartsuari prendan kendutako soñekoen gañean etzitzen ziran, edozeñ aldararen aldean jateketak egiten zituztela; eta berak kondenatu zituztenen ardoa, beren Jaungoikoaren etxean edaten zuten.

9. Ni izandu nintzan berriz, desegin nituena beren aurrean amorreoak, zeñak ziraden altuak, zedroa bezela; eta sendoak, artea bezela. Nik desegin nituen beren frutu, lurraren gañera irtetzen diranak, eta bere azpian dauden sustrairañokoak.

10. Ni naiz Ejiptoko lurretik atera zinduztedana, eta zuzendu zinduztedana eremutik berrogei urtean, Amorreoen lurraren jabe egiñik zuek ipintzeko.

11. Eta atera erazi nien profetai zuen artetik, eta nazarenoai zuen giza gazteen artetik. Ez al da au ala, o Israelko semeak, esaten du Jaunak?

12. Eta zuek egin zenduten, nazarenoak ardoa edan zezatela; eta profetai agindu ziñien, esaten ziñiela: Ez dezute profetizatuko.

13. Eta ona non noan ni zuek lerdatzera, egiten duen bezela gabillaz txit kargatutako gurdi batek, iragotzen dan toki guztietan.

14. Eta gizonik agudoenak ere igesik ezin egingo du, eta sendoak alegiñak alperrik egingo ditu, eta errutsua ezin salbatuko da.

15. Eta uztaia daukana, ezingo da geldirik egon; eta oiñ ariñetakoa, ezin salbatuko da; eta zaldizkoa bere biziarekin ezin geldituko da.

16. Eta biotz sendokoen artean sendoenak, billosik iges egingo du egun artan, esaten du Jaunak.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Aditu ezazute, Israelko semeak, Jaunak zuen gañean, Ejiptoko lurretik atera zuen erreñu guztiaren gañean esan zuen itza, esaten zuela:

2. Lurreko etorki guztien artean zuek bakarrik zerate nik ezagutu ditudanak. Beragatik geiago kastigatuko zaituztet zuen bekatu guztiakgatik.

3. Joan al litezke bi elkarrekin bidean, iritzi batekoak ez badirade?

4. Leoiak basoan orroa egingo al du, zerbait ikusten ez badu arrapatzeko? Leoitxo gazteak altxatuko al du bere orroa, bere kobaren barrenen, zerbait arrapatu ez badu?

5. Lurraren gañean zabaldutako lazoan eroriko al da txoria, iñork ere ipintzen ez badu? Eta, lazoa lurretik kenduko al da, zerbait arrapatu baño lenago?

6. Erri batean tronpetari ots egin eraziko al zaio, jendea mugitu gabetanik? izango al da errian gaitzik, Jaunak egin ez duenik?

7. Baña Jaun Jainkoak ez ditu gauza oiek egiten, bere serbitzari profetai bere ezkutuko gauzak agertu gabetanik.

8. Judako leoia orroaka ari da. Zeñ ez da beldur izango? Jaun Jainkoak itz egin du, nork ez du profetizatuko?

9. Jakinerazi zaiezute Azotoko, eta Ejiptoko lurreko familiai, eta esan zaiezute: Samariako mendien gañean bildu zaitezte, eta ikusi itzatzute an egiten diran gaiztakeria guztiak, eta bere barrenetan daudenak gezurrak asmatzen diozkatela.

10. Ez dute jakin zer dan justizia egitea, esaten du Jaunak, gaiztakeria eta lapurretako ondasun ugariak, beren etxeetan montoitu dituzte.

11. Argatik oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Atsekabetua izango da lurra aldamen guztietatik; eta kenduko zatzu, o Samaria, zure indar guztia, eta zure etxeetako gauzak arrapatuak izango dirade.

12. Oiek esaten ditu Jaunak: Nola artzai batek salbatuko balitu leoiaren aotik, iretsitzen duen aberearen zanko biak, eta belarri baten mamiezurra bakarrik, ala libratuko dira Asirioakgandik arako Israelko seme, Samarian bizi diradenak, atsedeten dutela oearen bazter batean, edo Damaskoko etzalekuan.

13. Aditu ezazute, eta adirazi zaiozkazute gauza oiek Jakoben etxeari, esaten du ejerzituen Jaun Jainkoak,

14. Esan zaiozute, ni Israeltarren gaiztakeriak kastigatzen asitzen naizan egunean, bera ere kastigatuko dedala, eta Betelgo aldarak desegingo ditut, eta aldarearen aldeak ebakiak, eta lurrera aurtikiak izango dirade.

15. Eta arrasatuko ditut neguko bizilekuak udakoakin batean, eta desegiñak geldituko dirade marfilezko bizilekuak, eta asko izango dirade beera aurtikitako etxeak, esaten du Jaunak.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Aditu ezazute itz au zuek, Samariako mendiko bei gizenak, zuek menderatzen dituzutenak premian daudenak, eta beartsuak ostikopean darabilzkizutenak, zuek zuen nagusiai esaten diezutenak: Ekarri ezazute, eta edango degu.

2. Juramentu egin zuen Jaunak bere izen santuagatik, zuentzat etorriko diradela egun batzuek, zeñatan sartuko zaituzten pikaetan, eta zuen gorputzaren zatiak eltzeetan irakitzen ipiñiko dituzten.

3. Eta irtengo zerate bretxa idikietatik aldamen batetik, eta bestetik, eta Armonera aurtikiak izango zerate, esaten du Jaunak.

4. Zoazte ordu onean Betelera zuen gaiztakeriai jarraitzera, zoazte Galgalara fedeauslariak ugaritutzera, eta eraman itzatzute ara goizean abere illak idoloentzat, eta zuen amarrenak iru egun andietan.

5. Eta eskeñi zaiezute idoloai alabantzako sakrifizioa, ogi legamituarekin, eta agertu, eta jakinerazi itzatzute borondatezko eskeñtzak; zeren au dan zuen gogoko gauza, o Israelko semeak! esaten du Jaun Jainkoak.

6. Argatik egin det nik, ortz zorroztuakin egon zaiteztela zuen erri guztietan, ogirik ezagatik zuen leku guzietan, eta oiekin guziokin ere etzerate zuek nigana biurtu, esaten du Jaunak.

7. Orobat nik galerazi nuen zuekgana euria etorri zedilla, oraindikan iru illa bete zeudela uztara; eta egin ere nuen erri batean euria egin zezala, eta beste batean ez zezala egin euririk. Toki bati euria eman nion, eta beste bat leortu zan, eman etzitzaiolako.

8. Eta etorri ziran bi, eta iru erri beste erri batera uraen billa edatzeko, eta ezin ase izan ziraden, eta argatik ere etziñaten nigana biurtu, esaten du Jaunak.

9. Nik atsekabetu zinduztedan aize erretzalle batekin, eta gorniarekin, beldarrak iretsi zituen zuen baratz, eta zuen masti, eta zuen olibodi, eta zuen pikodi ugariak. Eta argatik ere etzerate nigana biurtu, esaten du Jaunak.

10. Bialdu nuen ilkintza zuen kontra Ejiptoko bidean; zuen gazteriari ezpataren puntaz illerazi nion, eta zuen zaldirañokoak arrapatuak izan ziraden; eta zuen etzauntzetako kiratsari zuen sudurretaraño igoerazi nion; eta argatik ere etziñaten nigana biurtu, esaten du Jaunak.

11. Nik arrasatu zinduztedan, arrasatu zituen bezela Jaungoikoak Sodoma eta Gomorra, eta gelditu ziñaten sualdi batetik arrapatzen dan ilinti bat bezela, eta alaere etziñaten nigana biurtu.

12. Argatik gauza oiek egingo dizkizut zuri, o Israel; baña nik zuri oiek eginda gero, prestatu zaite, o Israel, zure Jaungoikoari bidera irtetzeko.

13. Zeren ona emen non datorren mendiak egiten dituena, aizeai izatea ematen diena, zeñak gizonai bere itza adiraztzen dien, goizeko lañoa egiten duena, eta lurraren alturak bere oñakin zapaltzen dituena, izentzat daukana: Ejerzituen Jaun Jainkoa.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Aditu itzatzute itz oiek, zeñakin noan ni zuen gañean lamentazio bat egitera: Israelko etxea erori zan, eta ez da berriz jaikiko.

2. Israelko birjiña lurrera aurtikia izan da, eta ez dago iñor ere bera jasotzeko.

3. Zeren oiek esaten ditu Jaun Jainkoak: Israelko erria, zeñatatik ateratzen ziraden milla gizon, geldituko da eunean, eta eun ateratzen ziran erria, geldituko da amarrean. Au da Israelko familian gertatuko dana.

4. Baña Israelko etxeari Jaunak esaten dio: Billatu nazazute, eta bizi-ko zerate.

5. Eta ez ezazute Betel billatu, eta Galgalan etzaitezte sartu; eta Bersabeetik etzaitezte irago, zeren Galgala katiberiora eramana izango dan, eta Betel geldituko da utsik.

6. Billatu ezazute Jauna, eta bizitza idukiko dezute; zorigaiztoan Joseren etxea sua bezela izekia jarri ez dedin, eta Betel iretsi ez dezan, itzalitzeko iñor ere arkitzen ez dala.

7. O zuek, juizioa asensio biurtzen dezutenak, eta utzitzen dezutenak justizia lurrean!

8. Billatu ezazute Arkturo eta Orion egin zituena; illuntasunak goizeko argian itzultzen dituena; eguna gau biurtzen duena; itsasoko urai goirontz ots egiten diena, eta gero lurraren gañera isuritzen dituena, eta zeñaen izena dan, Jauna.

9. Jostaketan ari dala bezela, sendoak lurrera botatzen dituena; eta egiten duena, almentsuak, daukaten guztiaz gabetuak gelditu ditezela.

10. Gorrotoz begiratu zioten Israelko etxekoak, atean erakutsiak ematen zieztenari, eta nazkaz, egia esaten zienari.

11. Argatik zuek beartsua ezerere gabe utzitzen zenduten ezkero, eta kentzen ziñioten ezkero zeukan gauzarik onena, egingo dituzute arlanduzko etxeak; baña etzerate beretan biziko; eta ipiñiko dituzute masti ederrak; baña beren ardorik ez dezute edango.

12. Zeren badakizkit zuen gaiztakeria ugariak, eta zuen oben, gaitzbidez beteak. Justiziaren etsaiak zerate, doañak artzen zaleak, beartsuen menderatzalleak, tribunaletan.

13. Argatik zentzuduna ixillik egongo da denbora artan, zeren denbora larria dan.

14. Billatu ezazute gauza ona, eta ez gaiztoa, bizia iduki dezazuten: eta ala ejerzituen Jaun Jainkoa zuekin egongo da, esaten dezuten bezela.

15. Gorrotatu ezazute gauza gaiztoa, eta maitatu ezazute gauza ona, eta berriz jarri ezazute justizia tribunalean, eta gertatu liteke ejerzituen Jaun Jainkoak, Joseren etorkiaren kutsuen urrikaltasuna idukitzea.

16. Argatik oiek esaten ditu ejerzituen Jaun jainkoak, munduko Agitariak: Plaza guztietan egingo dirade negarrak, eta erritik kanporako toki guzietan adituko dirade ai-ak; eta ots egingo die nekazariai negar egitera, eta progua egitera, erostak egiten dakitenai.

17. Eta masti guztietan negarrak adituko dira, zeren ni zuen erditik iragoko naiz, esaten du Jaunak.

18. Ai Jaunaren eguna irriz nai dutenen doakabeak! Zergatik nai dezute? illuntasunetakoa izango da egun hura zuentzat, ez argitasunekoa.

19. Gertatuko zatzute, leoe batgandik igesi joanik, artz batekin topo egiten duen gizonari bezela; edo sarturik bere etxean, eta paretean bere eskua ipiñirik, suga batek usikituko balio bezela.

20. Jaunaren egun hura, ez al da izango illuntasunetakoa, eta ez argitasunekoa, eta ez al da izango txit illuna, argitasunaren piskarik ere gabe?

21. Nik gorrotatzen ditut, eta aurtikitzen ditut zuen jai egunak, eta ez da nere gogokoa zuen batzarretako eskeñtzen usaia.

22. Eta zuek nere aurrean jartzen dituzutenean zuen holokaustoak, eta doañak, ez ditut nik ontzat artuko, eta ez ditut ere nere begiak itzuliko, botoz eskeñtzen dizkidazuten doañ gizenetarontz.

23. Urrutira dijoala nigandik, zuen himnoen nastea, ez ditut nik adituko kantak zuen liraren otsera.

24. Baizik nere bengantza ura bezela isuriko da, eta justizia ugolde andi bat bezela.

25. Zuek, o Israelko etxea, eskeñi al ziñidaten eremuan berrogei urtean ugaritasunarekin doañak eta sakrifizioak?

26. Zuek bada, eramaten zenduten Molok zuen Jaungoikoaren tabernakuloa, eta zuen idoloen irudiak, zuen Jaungoiko Saturnoen izarra, zuen eskuen lanak.

27. Nik bada, egingo det Damasko baño arontzago eramanak izan zaiteztela, esaten du Jaunak, Jaunak, zeñaen izena dan, ejerzituen Jaungoikoa.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Ai zuen, Sionen erdian igeri egiten dezutenen, eta Samariako mendian kezkarikan batere gabe bizi zeratenen doakabeak! O zuen, errietako andizkirik nagusienen, Israelko batzarretan urgulleriarekin sartzen zeratenenak!

2. Irago zaitezte Kalaneko errira, eta zaudete an arretaz, eta andik zoazte Emat andira, eta jetxi zaitezte Palestinatarren Jetera, eta oien mendean dauden erreñurik obenetara. Berak zuek baño lur zabalagoa al daukate?

3. Baña zuek naigabeko egunerako gordeak zaudete, eta gaiztakeriaren agintaritzara alderatuaz zoazte.

4. Zuek marfillezko oetan lo egiten dezutenak, eta gozatzen zeratenak zuen oe biguñetan, artaldeko bildotsik oberenak jaten dituzutenak, eta beitaldeko txalik autuenak,

5. Salterioaren otsera kantatzen dezutenak, uste zendutenak zenduzkatela Dabidek bezelako musikako erremientak,

6. Kopa zabaletan ardo usai gozoz betea edaten dezutenak, Joseren atsekabearekin urrikaltzen etzeratela.

7. Beragatik oiek aurrenak joango dirade katiberiora, eta zikiñen talde zatarra barreiatua izango da.

8. Jaun Jainkoak bere biziagatik juramentu egin du, ejerzituen Jaun Jainkoak esan du: Ni Jakoben urgulleriari aier natzaio, eta bere jauregiak gorrotatzen ditut; eta erria bertan bizi diradenakin besteen mendean jarriko det.

9. Amar gizon etxe batean geldituko balirade, berak ere galduak izango dirade.

10. Eta bere aideren batek artuko ditu bata bestearen ondoan, eta erreko ditu, eta aterako ditu ezurrak etxetik kanpora obiratzeko, eta esango dio gero etxearen barrenen dagoanari: Badaukazu oraindikan emen barrenen besterik?

11. Eta barrendikoak erantzungo du: Ez dago besterik. Eta aide hurak esango dio: Zaude bada ixillikan, eta onezkero ez daukazu zertan aitatu Jaunaren izena.

12. Zeren ona emen non, Jaunak erabaki duen, eta berak kastigatuko du etxe andia galmen osoarekin; eta etxe txikia zorigaitz andiakin,

13. Zaldiak aitzartean korrika ibilli al ditezke, edo goldeatu al lezake idiaketzakin? Zuek biurtu dezute mendetasunean juizio justoa, eta asensio justiziaren frutua.

14. Zuek zuen bozkarioa utsaren gañean ipintzen dezute, eta esaten dezute: Gure sendotasunak ez al gaitu egin almentsuak?

15. Baña ona emen non nik, o Israelko etxea, jaiki eraziko diodan zuen kontra erreñu bati, esaten du ejerzituen Jaun Jainkoak, zeñak desegingo zaituzten Ematko sarreratik Eremuko errekaraño.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Oiek dirade Jaun Jainkoak erakutsi dizkidan ikusketak: Ona emen non Jaunak azitzen zuen langostazko talde andi bat asieran, beranduko euriak belarrari azi erazitzen dionean; eta au da beranduko euri moteatu erazitzen diona, erregearentzat igitaitua izanda gero.

2. Eta gertatu zan, langostak kanpoetako belar au jan zuenean, esan nuela nik: Erregututzen dizut Jaun Jainkoa, arren urrikaldu zaitezela. Nork berriztatuko du Jakob, alako moduan argaldua dagoan bezela?

3. Onenbesterekin urrikaldu zan Jauna, eta esan zuen: Zu beldur zerana, ez da gertatuko.

4. Oiek ere erakutsi zizkidan Jaun Jainkoak: ikusten nuen nola Jaun Jainkoak ots egiten zion suari, bere bitartez justizia egiteko, zeñak lize

zakon bat, edo ur ugariak leortu zituen, eta denbora berean erriaren zati bat desegiten zuen.

5. Eta esan nuen nik: Erregututzen dizut Jaun Jainkoa, arren biguñdu zaitezela. Nork sendotuko du Jakob, alako moduan argaldua dagoena?

6. Bigundu zan onenbesterekin Jaun Jainkoa, eta esan zuen: Oraingo aldian ere, ez da bere galmena izango.

7. Erakutsi ere zidan Jaunak irugarren ikusketa au: ikusten nuen Jauna, murru lokaztu baten gañean zegoala, eta kisuariaren plaunkai bat bere eskuan zeukala

8. Eta esan zidan Jaunak: Zer da ikusten dezuna, Amos? Eta nik erantzun nuen: Kisuariaren plaunkai bat. Bada ona emen non, esan zuen Jaunak ni noan nere erriaren erdian plaunkaia aurtikitzera, eta beñere berriz ez ditut bere murruak lokatzaz beteko.

9. Desegiñak izango dirade idoloaren toki goratuak, eta arrasatuak Israelko santuarioak, eta elduko diot ezpatari nere eskuarekin, Jeroboamen etxearen kontra.

10. Onenbesterekin Amasias Betelgo idoloen apaizak, bialdu zuen esatera Jeroboam Israelko erregeari: Amos dabil zure kontra jendeari jaiki erazitzen Israelko erriaren erdian, jendeak ezin sufritu litzake esaten dituen gauza guztiak.

11. Zeren Amosek onela itz egiten du: Jeroboam ezpataren puntaz illa izango da, eta Israel bere lurretik kanpora katibu eramana izango da.

12. Eta Amasiasek Amosi esan zion: O, zu, ikusketak dauzkazuna, zoaz, iges egin ezazu Judako lurrera, eta an jan ezazu zure ogia, eta an profetizatu alko dezu,

13. Baña ez ezazu berriz Betelen profetizatu, zeren au erregearen Santuarioa, eta erreñuko errege-erria dan.

14. Onetara Amosek Amasiasi erantzun zion: Ez naiz ni profeta, ez profetaren semea; baizik bei batzuek zaitzen ditut, eta pikozoroen billan noa.

15. Baña Jaunak artu ninduen abereen ondoren nijoala, eta Jaunak esan zidan: Zoaz, Israel nere erriari profetizatzera.

16. Eta orain zuk, o Amasias, Jaunaren itza aditu ezazu, zuk neri esaten didazu: Israelen kontra ez ezazu profetizatu, eta ez ezazu orakulorik esan idoloaren etxearen kontra.

17. Argatik oiek esaten ditu Jaunak: Zure emaztea errian desonratua izango da, eta zure semeak, eta alabak ezpataz iragoak izango dirade, eta zure erria partitua izango da neurtzeko soka batekin, eta zu ilko zera erri idolatra batean, eta Israel bere erritik kanpora katibu irtengo da.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Jaun Jainkoak oiek erakutsi zizkidan: ikusi nuen frutak arrapatzeko kako bat.

2. Eta esan zidan: Zer da ikusten dezuna, o Amos? Erantzun nion nik: Frutak arrapatzeko kako bat. Eta Jaunak esan zidan: Israel nere erriaren atzena allegatu da, ez diot onezkero denbora geiagoan kastigatu gabe utziko.

3. Eta egun artan tenploko opak ots andi bat egingo dute, esaten du Jaun Jainkoak, asko izango dirade galduko diradenak; eta toki guztiak ixiltasun andi batean egongo dirade.

4. Aditu itzatzute oiek, zuek beartsua menderatzen dezutenak, eta erriko premiatsuak lerdatzen dituzutenak,

5. Eta esaten dezutenak: Noiz iragoko da illa, eta merkaderiak salduko ditugu; eta iragoko da larunbata, eta aleak kanpora aterako ditugu; txikituko degu neurria, eta aziko degu sikloaren pisua, jartzen ditugula beren lekuan balanza engañalariak,

6. Diruarekin egin gaitezen urrikigarrien jabeak, eta oñetako pare batekin beartsua mendekotzat erosteko eta gariaren kutsurañokoak garesti saltzeko?

7. Juramentu au egin du Jaunak Jakoben semeen urgulleriaren kontra. Nik juramentu egiten det, egin duten guziarekin beñere ez naizala aztuko.

8. Eta alako gauzen ondoan, ez al da ikaraz jarriko lurra, eta bertan bizi diraden guziak ez ote dira negarrez asiko? Atsekabezko ibai batek guztia ondatuko du, eta arrasatua geldituko da, eta Ejiptoko ibaiko urak itsasora allegatzean bezela, ezkutatuko da.

9. Eta gertatuko da egun artan, esaten du Jaun Jainkoak, eguzkia sartuko da egerdian, eta egingo det, lurra illuntasunez estalia izan dedilla egunaren argitasunik andienean.

10. Eta zuen egun andiak negarrezko egun biurtuko ditut, eta zuen kanta guztiak suspirioetan, eta zuei guzioi ipiñiko dizutet bizkarren gañean ziliziozko zakua; eta burua moiztu eraziko dizutet, eta Israelko alaba proguan ipiñiko det, jartzen dan bezela seme bakar bat galdu duena, eta egingo det, bere atzena mingoiztasuneko egun bat izan dedilla.

11. Ona emen non datorren denbora, esaten du Jaunak, zeñatan nik bialduko dedan lurraren gañera gosea; ez ogiaren gosea, ez uraren egarria, baizik Jaunaren itza aditzekoa.

12. Eta guztiak nastuak geldituko dira, itsaso batetik bestera, eta ifarretik Sortalderaño. Ibilliko dira toki batetik bestera, Jaunaren itz bat aditu nairik, eta ez dute iritxiko.

13. Egun artan egarriz deslaituko dira donzella ederrak, eta mutil gazte galantak;

14. Samariako bekatuagatik juramentu egiten dutenak, eta esaten dutenak: Bizi dedilla, o Dan, zure Jaungoikoa, eta bizi dedilla Bersabeeko bidea, eta eroriko dirade lurrera, eta ez dirade iñoizere berriz jaikiko.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Nik ikusi nuen Jauna aldarearen gañean zegoala, eta esan zuen: Jo ezazu opoa, eta atalburuak mugituko dirade. Zeren ez dagoan batere zikoiztasunak menderatua ez daukanik, eta nik ezpataren puntaz illeraziko det beretatik atzenerañokoa. Ez du batek ere igesik egingo: iges egingo dute; baña iges egiten dutenetik bat ere ez da bizirik geldituko.

2. Infernuaren tokirik barrendikoenera jetxiko balirade ere, andikan nik nere eskuz aterako ditut; eta zeruraño igoko balirade ere, andik aterako ditut.

3. Eta Karmeloko erpiñetan ezkutatuko balirade ere, ni ara joango naiz beren billan, eta andik aterako ditut; eta nere begietatik ezkutatuko balirade itsasoaren barrenen, an nere aginduz itsas sugulnak usikiko die.

4. Eta katiberiora eramanak diradenean beren etsaien aurrean, an ezpataren puntaz illeraziko ditut, eta nere begiak beren gañean ipiñiko ditut, baña beren kalterako, ez beren onerako.

5. Eta Jauna ejerzituen Jaungoikoa da, lurrari ukituaz dardaraz jartzen duena. Negarrez asiko dirade bertan bizi diraden guztiak. Ondatua utziko du ibai andi batek bezela, eta bera ezkutatua geldituko da, Ejiptoko ibaia itsasora allegatzean bezela.

6. Berak egin du bere esertokia zeruan, eta jarri du lurraren gañean anbeste gauzaen batzarrea. Berak ots egiten die beragana itsasoko urai, eta lurraren gañean isuritzen ditu. Jauna, au da bere izena.

7. Zuek bada, o Israelko semeak, esaten du Jaunak, ez al zerate neretzat Etiopiako semeak diradena? Ez al nion nik Israeli Ejiptoko lurretik atera erazi, Palestinatarrak Kapadoziatik, eta Siriatarrak Zirenetik atera nituen bezela?

8. Baña Jaunaren begiak erreñu bekatari orri begira daude, eta nik lurraren gañetik kenduko det, baña alaere ez det osoz desegingo Jakoben etxea, esaten du Jaunak.

9. Bada, ona emen non nere aginduz txit mugitua izango dan Israelko etxea erreñu guztien erdian, garia galbae batean artzatua dan bezela, eta granotxo bat bakarra ere ez da lurrera eroriko.

10. Ezpataz iragoak izango dirade nere erriko bekatari guztiak, zeñak ari diraden esaten: Ez da gaitzikan batere gure gañera alderatu, ez etorriko.

11. Denbora artan berriz jasoko det Dabiden Tabernakulo, lurrera eroria zegoana, eta zarratuko ditut bere murruetako zuloak, eta berriz egingo det desegiña zegoana, eta berriz jarriko det anziñako denboran zegoan eran:

12. Idumeako, eta beste erreñuetako guzien jabe izan ditezen, zeren beretan nere izenari ots egingo zaio, esaten du Jaun, alako mirarien egingilleak.

13. Ona emen non etorriko diraden denborak, esaten du Jaunak, zeñatan oraindikan goldeatzen ari danak ikusiko du bere ostean igitaitzen ari dana; eta matsak zapaltzen ari danak, ikusiko du bere ostean azia ereitzen duena. Mendiak egongo dira gozotasunak darieztela, eta muño guztiak landuko dirade.

14. Eta Israel nere erria katiberiotik aterako det, eta egingo dituzte utziak zeuden erriak, eta beretan biziko dirade, eta ipiñiko dituzte mastiak, eta beren ardoa edango dute, eta egingo dituzte baratzak, eta beretako frutak jango dituzte.

15. Eta nik egotez jarriko ditut beren errian, eta iñoizere ez ditut berriz nik eman nien lurretik aterako, esaten du zure Jaun Jainkoak.

ABDIASEN PROFEZIA

KAPITULU BAKARRA

1. Abdias profetak iduki zuen ikusketa. Oiek esaten diozka Jaun Jainkoak Edomeri: Guk aditu giñon Jaunari, berak bialdu zuela mandatari bat jendeai esatera: Atozte, eta goazen berari gerra egitera.

2. Zuk ikusten dezu, esaten dio Jaungoikoak Edomi, nik egin zaitudala txikitxoa erreñuen artean, eta zu txit mezpreziagarria zerala.

3. Zure biotzeko urgulleriak goratu zaitu, aitz andi latzetan eta toki altuetan bizi zeralako; eta zure biotzean esaten dezu: Zeñ izango da lurrera aurtikiko nauena?

4. Egan gora igoko baziña agilia bezela, eta jarriko bazeneza zure kabia izarren artean, andik, esaten du Jaunak, nik aterako zaitut.

5. Lapurrak eta erallak zure etxean gauaz sartu balirade, beldurrez ixillikan ez al ziñan egongo? Ez al zizuten guztia ostuko beren gogo osora? Eta sartu balirade zure mastian mendaintzeko, mordoren bat bederik ez al zizuten utziko?

6. Baña, nolako eratan oiek tratatu ote duten Esauren etxea, eta egin ote dituzten an billakuntzak, eta tokirik ezkutuenak ere ikusi dituzten!

7. Zure erritik kanpora aurtiki zaituzte, zure elkartu guztiak zuri irri egin dizute; zure adiskide guziak zure kontra jaiki dirade; zure maian jaten zutenak berak, azeloak jarri dizkizute. Ez dago Edomen zentzurik.

8. Zer! Esaten du Jaunak, egun artan ez al diozkat nik kenduko Idumeari bere jakintsuak, eta Esauren mendiari bere zentzudunak?

9. Beldurtuak geldituko dirade, zuk Egoeko aldamenean dauzkazun gudari sendo guztiak, Esauren mendian gizon sendo bakar bat geldituko ez dan eran.

10. Lotsariz betea geldituko zera, eta galduko zera betiko, Jakob zure anaiaren erriaren kontra egin dituzun ilkintza, eta gaiztakerien kastiguan.

11. Zeren bere kontra armak artu ziñituen egunean, gudari arrotzak bere ejerzitua arrapatzen zutenean, eta beren errietan sartzen ziradenean, eta Jerusalenen arrapatu zituzten gauzen gañean txotx egiten ari ziradenean, zu ere beretatik bat bezelakoa ziñan.

12. Baña ez diozu burlarik egingo zure anaiari atsekabeko egunean, katibu eramana izango danean; eta etzera ere bozkariotuko Judako semeen zorigaitzagatik bere galmeneko egunean, eta etzera ere mezprezioarekin berai aupadaka ariko naigabeko egunean.

13. Eta etzera ere sartuko nere erriko ateetan bere galmeneko egunean, eta ez dezu ere zuk isekarik egingo bere zorigaitzakgatik bere ondameneko egunean, eta etzera ere bialdua izango bere ejerzituari jarraitzera bera desegiña dan egunean.

14. Eta etzera ere azeloan egongo irteeretan, igesi dijoazen Israeltarrak iltzeko, eta ez diezu bidea zarratuko bere ejerzituen kutsuai atsekabeko egun artan.

15. Zeren onezkero Jaunaren kastiguko eguna jende guziarentzat alderatzen dan, nere erriaren kontra zuk egin zenduena, hura bera zurekin egingo da, zure buruaren gañera Jaungoikoak zure kastiguari erori eraziko dio.

16. Zeren nola zuek, nere mendi santuan bizi zeratenak, nere aserreko kaliza edan zenduten, ala beti ariko dira bera edaten jende idolatra guziak. Edango dute, ustuko dute, eta geldituko dira osoz deseginak.

17. Siongo mendi santuaren gañean berriz, an egongo da gero salbazioa, eta santuen Santua an biziko da, eta Jakoben etxea izango da, len bera mendean iduki zutenen agintaria.

18. Jakoben etxea su iretsitzalle bat izango da; Joseren etxea gar bat izango da; eta Esauren etxea lasto igarra izango da, zeñ ark errea eta iretsia izango dan, Esauren etxearen kutsurikan ere batere gelditu gabe, zeren Jaunak ala esan duen.

19. Eta Egoerontz bizi diradenak, Esauren mendiaren jabe egingo dirade; eta toki lauan bizi diradenak, Filistintarren jabe egingo dirade; eta Efraimgo eta Samariako lurra berena izango da, eta Benjamin izango da Galaaden jabe.

20. Eta katiberiora eramana izandu zan Israelko semeen ejerzitua, izango da Kanaantarren toki guztien jabe Sidongo Sareptaraño; eta Jerusalengo seme itsasodira eramanak izan ziradenak, izango dirade Egoeko aldameneko errien jabeak.

21. Eta Salbatzalleak igoko dira Siongo mendira, zeñak juzgatuko duten Esauren mendia, eta Jaunak erreñatuko du.

JONASEN PROFEZIA-1

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Jaunak itz egin zion Jonas, Amatiren semeari, eta esan zion:

2. Jaiki zaite, eta zoaz Ninibe, erri andira; eta an predikatu ezazu; zeren beren gaiztakerien deadarra nere aurreraño allegatu dan.

3. Jonasek ordea artu zuen Tarsiserako bidea, Jaunagandik iges egiten zuela, eta jetxi zan Jopera; eta Tarsisera zijoan ontzi bat arkitu zuen, eta pagatu zuen ugasaria, eta sartu zan ontzian beste lagunakin Tarsisera joateko, Jaunaren serbitzotik iges egiten zuela.

4. Baña Jaunak bialdu zuen aize andi bat itsasora, eta ekaitz txit andi bat jaiki zan itsasoan, alako moduan, non, ontzia zatitua izateko irriskuan zegoan.

5. Eta itsasgizonak beldurtu ziran, eta bakoitzak bere Jaungoikoari deadarrez ots egin zion, eta ontzian zegoan karga itsasora bota zuten, onela ontzia arindutzeko. Eta Jonas ontziaren barrendiko tokirik zakonenera jetxi zan, non zegoan lozorro gogorrean.

6. Eta joan zan beragan pilotoa, eta esan zion: Nola zaude orrela lotan? Jaiki zaite, eta zure Jaungoikoari ots egin zaiozu, ikusteko, gurekin oroitzen ote dan, eta eriotzatik libratzen ote gaituen.

7. Eta alako batean batak besteari esan zion: Atozte, eta txotx egin dezagun ezagutzeko zorgaitz au nondik datorkigun. Eta txotx egin zuten, eta suertea Jonasen gañera erori zan.

8. Esan zioten bada: adirazi zaguzu, zergatik zorigaitz au gertatzen zaigun. Zer lantegi da aritu oi zerana? Nongoa zera? Eta nora zoaz? Zeñ erreñutakoa zera zu?

9. Erantzun zien Jonasek: Ni hebreotarra naiz; eta itsasoa eta lurra egin zituen zeruko Jaun Jainkoa adoratzen det.

10. Eta txit izutuak gelditu ziraden jende aiek, eta esan zioten: Nola egin dezu zuk ori? (Zeren ezagutu zuten gizon aiek, Jonas joiala igesi Jaungoikoari ez obeditzeagatik, zeren berak adirazi zien).

11. Orduan esan zioten: Zer egingo degu zurekin, itsasoa guretzat baretu dedin? Zeren itsasoa aserretuaz zijoan geroago geiago.

12. Eta Jonasek erantzun zien: Artu nazazute, eta aurtiki nazazute itsasora, eta itsasoa baretuko zatzute, zeren nik ongi dakit nigatik ekaitz andi au etorri zatzutela.

13. Bitartean itsasgizonak arraunez ari ziran lanean kaira allegatzeko; baña etzitezkean; zeren itsasoko bagak beren gañera igoaz zijoazen.

14. Eta deadarrez ots egin zioten Jaunari, esaten zutela: Erregututzen dizugu, o Jauna, arren ez gaitzatzula gu il, gizon au iltzen degulako, eta odol obengabea ez dezazula gure gañera aurtiki, zeren zuk, o Jauna, suerteari erori erazi diozun, nai izan dezun bezela.

15. Eta artu zuten Jonas, eta itsasora bota zuten, eta bereala itsasoa baretu zan.

16. Orduan jende aiek Jaunaren beldur txit andi batez bete ziran, eta eskeñi ziozkaten doañak, eta botoak egin ziozkaten.

BIGARREN KAPITULUA

1. Eta Jaunak arrai andi bat prestatua zeukan, Jonas iretsi zezan, zeñ egon zan iru egunean eta iru gauean arraiaren sabelean.

2. Eta Jonasek arraiaren sabeletik bere Jaun Jainkoari orazio egin zion;

3. Eta gero esan zuen: Ots egin diot Jaunari atsekabean, eta aditu nau. Obiaren barrendik ots egin det, eta zuk entzun dezu nere boza.

4. Eta zuk, Jauna, aurtiki nazu ondora, itsasoaren tokirik barrendikoenean, eta urak ingurutu naute; zure jirabolla guztiak, eta zure baga guztiak, nere gañetik irago dirade.

5. Eta esan nuen: Aurtikia izan naiz zure begien ikusmenetikan urrutira, baña ez; oraindikan zure tenplo santua berriz ikusiko det.

6. Urak ingurutu ninduten, neri bizia kentzeko zoriraño, itsasbarrenen sartua ikusi naiz; itsaso zabalak nere burua estali du.

7. Mendien sustraietaraño jetxi naiz; lurraren morrolloak sartua utzi naute an barrenen betiko, baña zuk, o nere Jaun Jainkoa, aterako dezu nere bizia usteltasuneko tokitik.

8. Nere animak iragotzen zituen antsien erdian, oroitu naiz, o Jauna, zurekin, nere orazioa zure gloriako tenplo santura zuzentzen dizudala.

9. Utsa balio duten gauzai alperrikan itsatsiak daudenak, bere urrikaltasuna utzitzen dute.

10. Baña nik eskeñiko dizkizut sakrifizioan alabantzazko kantak, kunplituko diozkat Jaunari, nere osasunerako egin diozkadan boto guztiak.

11. Jaunak atzenean agindu zion arraiari, eta onek, okaeginda, aurtiki zuen Jonas leorrera.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta Jaunak bigarren aldiz Jonasi itz egin zion, esaten ziola:

2. Jaiki zaite, eta zoaz Ninibe, erri andira, eta predikatu ezazu an, nik esaten dizudana.

3. Joan zan bada Jonas, eta zuzendu zan Ninibera, Jaunak esan zion bezela. Zan Ninibe erri txit andi bat, inguruan iru eguneko bidea zeukana.

4. Eta asi zan Jonas erritik ibiltzen, eta ibilli zan egun batean deadarrez esaten zuela: Emendikan berrogei egunera Ninibe desegiña izango da.

5. Eta Ninibetarrak Jaungoikoaren itzean sinistu zuten, eta agindu zuten guztiak baruak egiteko, eta guztiak, txikiak eta andiak zakuz jantzi ziran.

6. Eta Ninibeko erregeagana allegatu zan berri au, eta tronutik jaiki zan, eta kendurik bere soñeko erregeenak, jantzi zan zakuz, eta autsaren gañean eseri zan.

7. Bereala adirazi zan Niniben erregearen eta bere andizkirik nagusienen aginte bat, esaten zuena: Ez gizonek, ez aberek ez beza jan, ez beiak, ez abereak ez bitez atera bazkatzera, ez edatera.

8. Gizonak eta abereak zakuz estali bitez, eta aiek dedarrez eta indar guziarekin ots egin bizaiote Jaunari, bakoitzak utzitzen diola bere bizitza gaizto, eta beren eskuetako biurrikeriari.

9. Nork daki onela eginda Jaungoikoak beste asmoren batzuek artuko ote dituen, eta barkatuko ote digun, eta bere aserrearen sumintasuna bigundu ote dan, eta galduak izan gabe geldituko ote geran?

10. Ikusirik bada Jaungoikoak, egiten zituzten penitenziako obrak, eta nola utzi zioten beren bizitza gaiztoari, urrikaltasunez mugitu zan, eta etzietzen bialdu, erabakita zeuzkan gaitzak.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Jonas berriz txit atsekabetu zan, eta aserretu zan.

2. Eta erregutu zion Jaunari, eta esan zion: Erregututzen dizut, Jauna, esan zadazula arren, ez al da au nik esaten nuena, oraindikan nere errian nengoala? Gauza augatik erabaki nuen Tarsisera iges egitea. Zeren nik ongi dakit, zu zerala Jaungoiko bat biotzberaa, eta urrikaltsua, sufritua, eta txit biguña, eta bekatuen barkatzallea.

3. Orain bada ongi, o Jauna, erregututzen dizut, bizia kendu zadazula; zeren onezkero neretzat obeago da iltzea, bizitzea baño.

4. Eta erantzun zuen Jaunak: Arrazoia daukazula al deritzatzu aserretzeko?

5. Eta Jonas Ninibetik irten zan, eta gelditu zan erriaren Sortaldean, eta egiñik an txaola bat, bere barrenen bizi zan, ikusi arteraño erriari zer gertatzen ote zaion.

6. Jaunak prestatu zuen untz bat, zeñ azi zan Jonasen burua estalitzeraño, berari itzala egiteko, eta berotasunetik bera zaitzeko. Zegoan Jonas txit nekatua, eta untz arekin atsegin txit andia artu zuen.

7. Biaramonean, egunaren sentian bialdu zuen Jaungoikoak artxo bat, zeñak ortxikatu zuen untzaren sustraia, eta au igartu zan.

8. Eta eguzkia irten zanean, erabaki zuen Jaunak, atera zezala egoi aize erretzen zuen bat. Eguzkiak jotzen zuen buruan Jonas, zeñ kiskalitzen zan, eta eriotza opa zion bere buruari, esaten zuela: Obeago zat neri iltzea, bizitea baño.

9. Baña Jaunak Jonasi esan: Sinisten al dezu arrazoia daukazula aserretzean untzagatik? Eta berak erantzun zuen: Arrazoia daukat aserretzeko, nere buruari eriotza opa izateraño.

10. Eta Jaunak esan zuen: Zu damuz zaude untz bat galdu dalako, zeñ lanikan batere kostatu izan ez zatzun; eta zeñi zuk azi erazi ez diozun; zeren gau batean azi da, eta gau batean galdu da.

11. Eta, ni ez al naiz urrikalduko Niniberekin, erri ain andi batekin, eta zeñean dauden eun eta ogei milla lagun baño geiago, ez dakitenak oraindikan zeñ dan eskuieko eskua, eta zeñ ezkerrekoa, eta abere talde andi bat?

JONASEN PROFEZIA-2

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Eta Jonas Amatiren semeari itz egin zion Jaunak, esaten zuela:

2. Jaiki zaite eta zoaz Ninibeko erri andira, eta an predikatu ezazu, zeren bere gaiztakerien deadarra eldu da nere aurreraño.

3. Eta jaiki zan Jonas, Jaunaren esana egiteari utzita Tarsisera iges egiteko, eta jetxi zan Jopera, eta arkitu zuen Tarsisera zijoan ontzi bat, eta pagatu zuen bere eraman saria, eta sartu zan bertan berakin, Tarsisera joateko Jaunagandik igesi.

4. Baña Jaunak bialdu zuen aize andi bat itsasoaren gañera, eta jaiki zan itsasandi bat, eta ontzia zatitua izateko irriskuan zegoan.

5. Eta itsasgizonak beldurtu ziran, eta bakoitzak bere Jaungoikoari ots egin zion, eta itsasora bota zuten ontziko zama, arindu zedin bere pisutik. Jonas berriz jetxia zan ontziaren barrena, eta lo gogorrean zegoan.

6. Eta alderatu zan beragana pilotoa, eta esan zion: Nola zaude zu orrela lotan? Jaiki zaite, eta zure Jaungoikoari ots egin zaiozu, gurekin oroitu nai ote dan, eta galdu ez gaitezen.

7. Eta elkarri esan zioten: Atozte, eta txotx egin dezagun, eta jakin dezagun zergatik etorri zagun gaitz au. Eta txotx egin zuten, eta suertea Jonasen gañera erori zan.

8. Eta esan zioten: Adirazi zaguzu, zergatik gaitz au gertatu zagun. Zeñ langintzakoa zera? Nongoa zera, eta nora zoaz? Zeñ erreñutakoa zera zu.

9. Eta esan zien: Hebreotarra naiz ni, eta zeruko Jaun Jainko, itsasoa eta lurra egin zituenaren beldur naiz.

10. Eta txit beldurtuta gelditu ziran gizon aiek, eta esan zioten: Zergatik au egin dezu? (zeren gizon aiek ezagutu zuten Jaungoikoaren igesi zijoala, bere agindua ez egitearren, zeren berak adirazi zien).

11. Eta esan zioten: Zer egingo degu zurekin itsasoa baretu dakigun? Zeren itsasoa goratuaz eta arrotuaz zijoan

12. Eta esan zien: Artu, eta itsasora bota nazazute, eta itsasoa baretuko zazute, zeren nik ongi dakit nigatik itsasoa txit aserretua jarri zazutela.

13. Eta arraunean egiten zuten itsasgizonak leorrera biurtzeko, baña ezin ziran; zeren itsasoa gora zijoan, eta arrotuaz beren gañean.

14. Eta Jaunari ots egin zioten, eta esan zuten: Erregututzen dizugu, o Jauna, ez gaitzazula illerazi, gizon oni eriotza eman diogulako, eta kulpa gabeko odolari etzaiozu erorierazi gure gañera, zeren zuk, Jauna, egin dezu, nai izan dezun bezela.

15. Eta eldu zioten Jonasi, eta itsasora bota zuten, eta itsasoa berea la baretu zan.

16. Eta gizon aiek Jaungoikoaren beldur andi bat artu zuten, eta Jaunari doañak eskeñi ziozkaten, eta botoak egin zituzten.

BIGARREN KAPITULUA

1. Eta Jaunak zeukan prestatuta arrai andi bat, zeñak Jonas iretsi zuen, eta egon zan Jonas arraiaren sabelean iru egunean, eta iru gauean.

2. Eta arraiaren sabeletik erregutu zion Jonasek bere Jaun Jainkoari,

3. Eta esan zuen: Nere naigabean Jaunari deitu nion, eta aditu ninduen, sepulturaren barrendik deadarrez ots egin nuen, eta aditu zenduen nere boza.

4. Eta bota ninduzun itsasoaren barrenenera, eta urak inguratu ninduten. Zure jiraboilla guztiak, eta zure baga guztiak irago dira nere gañera.

5. Eta nik esan nuen: Aurtikia izan naiz zure begien aurretik, alaere oraindikan berriz ikusiko det zure tenplo santua.

6. Urak inguratu ninduten animaraño, osiñak ingurutu (sic) ninduen, itsasoak estali zuen nere burua.

7. Jetxi nintzan mendien ondoetaraño, lurreko morrolloak itxian jarri ninduten betiko, baña zuk, nere Jaun Jainkoa, gordeko dezu usteltasunetik nere bizia.

8. Nere animak iragotzen zituen antsiaen artean, zuzendu naiz zugana, o Jauna, allegatu dedin zugana nere erregua zure eliza santura.

9. Arrokeriak alperrik gordetzen dituztenak, utziten dute bere urrikaltasuna.

10. Baña nik eskeñiko dizkizut doañean alabanzazko kantak, kunplituko diozkat Jaunari, nere osasunagatik egin diozkadan boto guztiak.

11. Eta Jaunak esan zion arraiari, eta onek gonbitatu zuen Jonas leorrean.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta Jaunak bigarren aldiz itz egin zion Jonasi, esaten ziola:

2. Jaiki zaite, eta zoaz Ninibeko erri andira, eta an predikatu ezazu nik esaten dizudana.

3. Eta jaiki zan Jonas, eta joan zan Ninibera Jaunak agindu zion bezela, eta Ninibe zan erri andi bat, iru eguneko bidea zeukana.

4. Eta asi zan Jonas errian sartzen egun bateko bidean, eta deadar egin zuen, eta esan zuen: Emendikan berrogei egunera Ninibe desegiña izango da.

5. Eta Ninibetarrak sinistu zuten Jaungoikoagan, eta predikatu zuten baraua, eta saioz jantzi ziran andienetik txikieneraño.

6. Eta allegatu zan berria Ninibeko erregeagana, eta bere tronutik jaiki zan, eta beragandik bota zituen bere soñekoak, eta saioz jantzi zan, eta eseri zan autsean.

7. Eta deadar egin zuen, eta esan zuen Niniben, erregearen eta bere prinzipeen aginduz, esaten zuela: Gizonak, eta zamariak, eta idiak, eta abereak ez bezate ezerere jan: eta ez bitez ere bazkatu, ezta urik ere ez bezate edan.

8. Eta gizon ta abereak saioz jantzi bitez, eta txit gogotik aiek ots egin bizaiote Jaunari, eta alde egin beza gizonak bere bide txarretik, eta beren eskuetan dauden obra gaiztoetatik.

9. Nork daki onela aldatuko ote duen Jaunak bere erabakia, eta barkatuko ote digun; eta bere aserrearen sumintasuna bigunduko ote dan, eta onela galdu gabe geldituko ote geran?

10. Ikusirik bada Jaungoikoak egiten zituzten obrak, nola beren bide txarretatik alde egin zuten, errukitu zan, eta etziozkaten bialdu erabakita zeukan gaitzak.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta Jonasek txit naigabe andia iduki zuen, eta aserretu zan.

2. Eta otoiz egin zion Jaunari, eta esan zuen: Erregututzen dizut, o Jauna, esan zadazula, gauza onen beronen beldur ez al nintzan ni, oraindikan nere errian nengoala? Argatik aurreratu nintzan Tarsisera iges egiten. Zeren nik ongi dakit zu zerala Jaungoiko biotzberaa, eta urrikaltsu, pazienzia andiko, eta biguntasun askoko, eta bekatuen barkatzalle bat.

3. Eta orain, Jauna, erregututzen dizut, kendu dizadazula bizia, zeren onezkero neretzat obe da iltzea, bizitzea baño.

4. Eta Jaunak esan zion: Aserretzeko arrazoia dezula uste al dezu?

5. Eta Jonas erritik atera zan, eta erriaren sortaldeko atearen aurkez eseri zan, eta txaola bat egin zuen an, eta bere azpian itzalean eseria egon oi zan, erriari zer gertatuko ote zitzaion ikusi artean.

6. Eta Jaun Jaungoikoak prestatu zuen untz bat, eta Jonasen buruaren gañera igo zan, bere buruari itzala egin, eta bera estaltzeko, zeren txit nekatua zegoan, eta Jonasek untz hura gatik poz txit andia iduki zuen.

7. Eta biaramonean egunsentian bialdu zuen Jaungoikoak ar bat, zeñak ortzka eginik untzari, igartu zan.

8. Eta eguzkia irten zanean, agindu zuen Jaungoikoak atera zedilla aize bero eta erregille bat. Eta eguzkiak jotzen zuen Jonas bere buruan, eta erretzen zan, eta bere anima guztitik eskatu zuen eriotza, eta esan zuen: Obe da neretzat iltzea, bizitzea baño.

9. Eta esan zion Jaunak Jonasi: Uste al dezu ona dala zuk untzagatik daukazun aserrea? Eta esan zuen: Ona da nere aserrea, eriotza opa izateraño.

10. Eta Jaunak esan zuen: Zuk daukazu untz baten, beragatik lanik batere egin ez dezunaren, eta azi ere zuk egin ez diozunaren damua. Bada gau batean azi da, eta gau batean galdu da.

11. Eta ez ote diot nik barkatuko Ninibeko erri andiari, zeñean dauden eun eta ogei milla gizon baño geiago, ez dakitenak zeñ dan beren eskuiko eskua, eta zeñ ezkerrekoa, eta abere asko?

MIKEASEN PROFEZIA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Jaunaren itza Samaria eta Jerusalenen gañean, Mikeas Morastitearri adirazia, Joatan, Akaz, eta Ezekias Judako erregeen denboran.

2. Erriak, guztiak aditu ezazute, eta egon bedi arretaz lurra, eta bertan dagoan guztia, eta Jaun Jainkoa izan bedi testigu zuen kontra, izan dedilla Jauna bere tenplo santutik.

3. Zeren ona emen non Jauna dijoan bere bizilekutik irtetzera, eta jetxitzen dala bere tronutik, lurreko andikeriak zapalduko ditu.

4. Eta mendiak desegingo dirade bere azpian, eta ibarrak urtuko dirade argizaia suaren aurrean bezela, eta joango dirade jarioan, amiltoki batetikan beera korrika dijoazen urak bezela.

5. Au guziau Jakoben gaiztakeriagatik, eta Israelko etxearen bekatuakgatik. Eta zeñ da Jakoben gaiztakeria, Samariako idolatriak baizik? Eta zeñ dira Judaren toki goratuak, Jerusalengoak baizik?

6. Argatik Samaria ipiñiko det arri montoi bat kanpoan bezela, masti bat ipintzen danean, eta aurtikiko ditut bere arriak ibarrean, eta bere zimendurañokoak agertuko ditut.

7. Eta bere jainkoirudi guztiak desegiñak izango dirade, eta sutara aurtikiak bere ondasun guztiak, eta bere idolo guztiak nik desegingo ditut, zeren Samariak bere ondasun guztiak bordionaren prezioarekin bildu ditu, eta galotsaren prezio izatera biurtuko dira.

8. Argatik ni suspirioetan ariko naiz, eta alarauak egingo ditut; ibilliko naiz gauza guziez gabetua eta larrugorrian, eta oiuak egingo ditut sugulnak bezela, eta egingo ditut deadar urrikalgarriak saieak bezela.

9. Zeren Samariako idolatriaren zauria sendatueziña dan, Judaraño zabaldu da, sartu da nere erriko atetaraño, Jerusaleneraño.

10. Ez ezazute onelakorik Jeten adirazi, ez ezazute anbeste negar egin. Bota ezazute zuen gañean autsa Autsaren Etxean.

11. O zu, toki ederrean bizi zerana! Zoaz lotsariz betea. Ez da irten mugetan bizi dana, aldeko etxe, bere indarrez sendo iraun zuenak, progua zuekgatik egingo du.

12. Zeren mingoiztasunean bizi danak, galdu ditu ongi egiteko indarrak, Jaunak kastigua Jerusalengo atetaraño bialdu duen ezkero.

13. Gerrako gurdien dunbotsera, Lakisen bizi dana izuz betea geldituko da. Au izan zan bekatuaren etorkia Siongo alabarentzat, zeren Israelko gaiztakeriak beratan arkitu ziran.

14. Argatik berak mandatariak bialduko ditu Jeten etxera, gezurraren etxera, Israelko erregeak engañatzeko.

15. Oraindikan ere nagusi berri bat eramango dizut nik, o Maresaren etxea; Israelko gloria Odollameraño allegatuko da.

16. Ebaki itzatzu zure illeak, eta moistu ezazu burua, zure seme maiteakgatik. Mutildu ezazu zure buru guztia agileak bezela; zeren zureak katiberiora eramanak diraden.

BIGARREN KAPITULUA

1. Ai zuen, gauza alperretan baizik gogoa ez daukazutenen, eta an zuen oetan lan gaiztoak asmatzen egon oi zeratenen, doakabeak! Egiztatzen dituzte goizeko argia allegatzean, zeren berak jarri diran Jaungoikoaren kontra.

2. Eta iduki zituzten soroen gurak, eta indarrez arrapatu zituzten, eta etxeetan sartu ziran; eta oni gezurrak asmatu ziozkaten, bere etxeaz berak jabetzeko; eta besteari zeukan hazienda kentzeko.

3. Argatik oiek esaten ditu Jaunak: Ona non ni nagoan pensatzen, bialtzean atsekabeak familia onen gañera, zeñatatik zuek ezin libratuko zeraten; eta etzerate urgulluz ibilliko, zeren denbora txit doakabea izango dan.

4. Egun artan egingo da zuen gañean lamentazio bat, eta kantatuko zatzute leuntasunarekin kanta au: Gu osoz arrasatuak izan gera; nere erriaren herenziak beste jabe bat dauka; nola alde egingo du nigandik kastiguak, baldin badator Asiriatarra, zeñak nere kanpoak partituko dituen?

5. Argatik ez dezu idukiko zuk, o Israel, nork partitu sokazko neurriarekin lur zatiak, Jaunaren batzarrean.

6. Etzaiozute, o Profetak, erri oni anbeste itz egin; zeren oiek ez dituzten artuko, eta ez dirade lotsatu ere egingo.

7. Zeren Jakoben etxea dijoan esanaz: Zer? Jaunaren espiritu urrikaltsua gutxitu al da, edo bere erabakiak alakoak izan al ditezke? Baña, ez al diet nik itz egiten (erantzuten du Jaungoikoak) biguntasunarekin, bide zuzenetik dabiltzanai?

8. Baña nere erriak, kontrara, nere kontra bandera altxatu du: zuek, o Israeltarrak, tunikaren ondoan kapa ostu dezute, eta pakean bizi ziradenai, gerra egin diezute.

9. Nere erriko andrak aurtiki ziñituzten beren etxeetatik, non atsedenez bizi ziraden; eta beren aoa itxi zintzazkioten, beñere ni alabatu ez ninzaten.

10. Jaiki zaitezte, eta zoazte, zeren zuek zuen atsedena emen ez daukazuten; zeren eskeñtzako lur au zikindua jarri da, eta usteltasun ikaragarri batekin kutsutua dago.

11. Arren bada, banintza ni profetaren espirituri ez daukan gizon bat, eta gezurra balitza esaten dedana! Nik isuriko det zure gañera, esaten du Jaunak, nere aserreko kalizako ardoa, eta moskortasuna; eta ardo au, erri onen gañera isuriko da.

12. Baña atzenean, nik bilduko zaitut guzia batean, o Jakob, nik bilduko ditut batean Israelko kutsuak; guziak batean jarriko ditut, ardiak artokian bezela. Ots andia egingo dute jendearen ugaritasunagatik.

13. Eta beren aurretik joango da arako Artzai on, bidea idikiko diena; aurtikiko dute atea, andikan iragoko dirade, eta sartuko dira barrenen; eta beren erregea beren aurretik joango da, eta Jauna beren aurkez egongo da.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta nik esan nuen: Aditu ezazute, o zuek Jakoben prinzipeak, eta Israelko etxeko agintariak. Zuei ez al dagokizute, justoa dan gauza jakitea?

2. Eta alaere zuek gorrotatzen dezute gauza ona, eta maitatzen dezute gauza txarra. Larrugabetzen dezute erria, eta ezurren gañetiko aragia kentzen diozute.

3. Agintariak nere erriaren aragia jaten dute, eta jartzen dute lau zatitan, eta matxakatzen diozkate ezurrak, eta txeatzen dute, pertzean, edo eltzean sartzen dan aragia bezela.

4. Egunen batean ots egingo diote Jaunari, eta berak ez ditu adituko, eta orduan bere arpegia ezkutatuko diozkate; zeren berak obra gaiztoak egin dituzten, beren gura biurrien araura.

5. Oiek esaten ditu Jaunak, bere erria engañatzen duten gezurrezko profeten kontra, zeñak beren ortzakin zatitutzen duten, eta predikatzen duten pakea; eta beren aoan zerbait ipintzen ez dienari, gerra egiten diote, santutasunaren aitzakiarekin.

6. Argatik ikusketaren lekuan, gaua idukiko dezute, eta illuntasunak, argitasunen lekuan; profeta oientzat eguzkia sartuko da, eta eguna illunduko da berentzat.

7. Eta lotsatuak geldituko dirade ikusketak dauzkaten oiek, eta azti oiek nastuak geldituko dirade, eta guztiak, lotsatuta, arpegiak estaliko dituzte; zeren ez duen Jaungoikoak erantzunik ematen.

8. Baña ni izan naiz Jaunaren espiritu sendoz, justiziakoz, eta iraupenekoz betea, esateko Jakobi bere gaiztakeriak, eta Israeli bere bekatuak, eta errierta egiteko.

9. Aditu itzatzute gauza oiek, o Jakoben etxeko prinzipeak, eta zuek, o Israelko etxeko Juezak; zuek justizia gorrotatzen dezutenak, eta goibetzen dezutenak berdintasun guztia.

10. Zuek apaintzen dezutenak Sion, beartsuen odolarekin; eta Jerusalen, injustiziaren indarrez.

11. Beren Juezak, doañakgatik juzgatzen zuten; eta beren apaizak irabaziagatik ematen zituzten erakutsiak; eta bere profetak diruagatik profetizatzen zuten; eta alaere Jaunagan atsedetzen zuten, esaten zutela: Ez al dago Jauna gure erdian? Etzaitezte beldurtu, gaitzik batere ez da gure gañera etorriko.

12. Argatik, zuekgatik Sion kanpo bat bezela goldeatua ikusiko da; eta Jerusalen arri montoi bat egiña izatera etorriko da, eta Tenploko mendi santua etorriko da izatera baso goratu bat bezelakoa.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Baña atzeneko denboretan gertatuko da, Jaunaren etxeko mendia egiña izatea beste mendien erpiñaren gañean, eta muño goratuen gañera jaikiko da, eta erriak ugaritasun andian ara korrika joango dira.

2. Eta ara joango dira txit agudo asko erreñu, esaten dutela: Atozte, eta goazen Jaunaren mendira, eta Jakoben Jaungoikoaren etxera, eta berak erakutsiko dizkigu bere bideak, eta guk bere bidetxidorrai jarraituko diegu; Legea Siondikan aterako dan ezkero, eta Jaunaren itzak Jerusalendik etorkia idukiko du.

3. Eta Jaunak erri asko juzgatuko ditu, eta kastigatuko ditu erreñu sendoak, urrutienerañokoak, zeñak beren ezpatak goldortz, eta beren lantzak aitzur biurtuko dituzten. Erreñu batek ez du artuko ezpata beste baten kontra; eta onezkero ez dute gerran egiten ikasiko.

4. Eta bakoitzak atsedengo du bere matsparraren azpian, eta bere pikoaren azpian, iñoren beldurrikan gabe, zeren ejerzituen Jaunak bere aoz eskeñi dion.

5. Zeren erri guztiak, bakoitza beren Jaungoikoaren izenean ibilliko dirade, baña gu ibilliko gera gure Jaun Jainkoaren izenean mendez mende.

6. Egun artan nik bilduko det nerekin, esaten du Jaunak, nere serbitzoan errenga zebillan erreñu hura; eta nik berriz artuko det aurtiki nuen, eta azpiratua jarri nuen hura;

7. Eta salbatuko ditut erren egiten zuenaren kutsuak, eta erri sendo bat egingo det, atsekabetua izan zan erreñu arekin berarekin, eta guztien gañean erreñatuko du Jaunak Siongo mendian oraindandik beti, eta beti.

8. Eta zu, o Siongo alaba, artaldeko dorre odeitsua, zuganaraño etorriko da Jauna, eta zuk idukiko dezu agintaritza nagusia, erreñu gloriaz txit betea, o Jerusalengo alaba.

9. Orain bada, zergatik zaude tristezaz betea? Errege gabetanik al zaude, edo konsejariak iges egin al dizu, aurregiten ari dan andre batenak bezelako oñazeakin ansiatua egoteko?

10. Baña zaude oñazez eta atsekabez betea, o Siongo alaba, aurregiten ari dan andre bat bezela, orain erritik irtengo zeran ezkero, eta biziko zera beste leku batean, eta Babiloniaraño iragoko zera, baña an askatua izango zera, an zure etsaien eskutik Jaunak aterako zaitu.

11. Baña orain bildu dira zure kontra jende asko, zeñak esaten duten: Arrika illa izan dedilla; eta gure begiak Sionen galmena ikusi bezate.

12. Baña jende oiek ez dituzte ezagutzen Jaunaren asmoak, eta ez dituzte ere bere konsejuak aditzen, zeren Jaunak bildu dituen, txeatuak izateko, lastoa larrañean bezela.

13. Jaiki zaite bada, o Siongo alaba, eta zatitu itzatzu zure etsaiak; zeren nik emango dizkizudan zuri burnizko adarrak, eta brontzezko azkazalak; eta txeatuko dezu erri asko, eta Jaunari eskeñiko diozu ostu duten guztia, eta beren ondasun guztiak lur guztiko Jaunari.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Zu orain desegiña izango zera, o lapurren erria. Etsaiak setiatuko gaituzte, zaurituko dute zigorrarekin Israelko Juezaren masalla.

2. Eta zu, o Belen, Efrata deitua, zu zera erri txiki bat, Judako nagusienen aldamenean, baña zugandik etorriko zat, Israelko agintaria izango dana, zeñ sortua izan zan asieratik, betiko irauneko egunetatik.

3. Argatik Jaunak utziko die denbora artaraño, zeñean aur batez erdiko dan birjiña bat eta Agintariaz erdiko dan, eta orduan beren anaien kutsuak Israelko semeakin bilduko dirade.

4. Eta berak sendo iraungo du, eta bazkatuko du, bere artaldea Jaunaren sendotasunean, bere Jaun Jainkoaren izen goratuan, eta beragana biurtuko dira, zeren orain bera gloriaz betea izango dan munduaren atzeneko mugetaraño.

5. Eta bera gure pakea izango da, eta Asiriatarra gure lurrera etortzen danean, eta gure etxeak arrasatzen dituenean, guk bere kontra bialduko ditugu zazpi artzai, eta zortzi prinzipe.

6. Eta gobernatuko dute Asurko lurra ezpatarekin, eta Nemrodko lurra beren lantzakin, eta berak Asiriatarragandik libratuko gaitu, au gure lurrera etortzen danean, eta gure alderriak arrasatzen dituenean.

7. Eta Jakoben erriko kutsuak egongo dirade erreñu taldearen artean, Jaunak bialdutako intza bezela, eta euria belarraren gañean bezela, zeñ ez dagoan gizonak landu dezaten zai, eta gizonen semeakgandik deusik ez du itxedotzen.

8. Eta Jakoben kutsuak erreñuen artean izango dirade, erri askoren erdian, basoetako pistien artean leoia bezela, eta leoe gaztea ardi taldeen artean bezela; zeñ iragotzen dan taldetik, zapaltzen du, eta arrapatzen du berak nai duena, eta ez dago kendu dizaiokenik.

9. Zure eskua, o Israelko agintaria, zure kontra daudenen gañera goratua izango da, eta zure etsai guztiak galduak izango dirade.

10. Egun artan nik kenduko ditut, esaten du Jaunak, zure erditik zure zaldiak, eta zure gerra gurdi guziak desegingo ditut.

11. Eta arrasatuko ditut zure lurreko erriak, eta zure gaztelu guztiak desegingo ditut eta kenduko ditut zure eskuetatik sorginkeriak, eta ez dezu onezkero berriz aztirik idukiko.

12. Eta galdueraziko ditut zure jainko irudiak, eta zure idoloak zure erdian, eta zure eskuen lanik ez dezu berriz adoratuko.

13. Eta aterako ditut zure erditik zure basotxoak, eta zure erriak auts biurtuko ditut.

14. Eta aserre eta sumintasunarekin bengatuko natzaie, nere boza aditu ez duten jende guziai.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Aditu ezazute Jaunak esaten didana. Jaiki zaite, juizioan zaitu nazazu mendien kontra, eta muñoak zure boza aditu bezate.

2. Aditu bezate Jaunak bere alde egiten duen juizioa, mendiak, eta lurreko zimendu sendoak, zeren Jauna bere erriarekin juizioan sartzen dan, eta Israelekin auzia daukan.

3. Zer da nik egin dizudana, o nere erria, edo zer gaitz egin dizut zuri? Erantzun zadazu.

4. Ote da Ejiptoko lurretik atera zindudalako, eta kabiterioko etxetik libratu zindudalako, eta zure aurretik bialdu nituelako Moises, Aaron, eta Maria?

5. Nere erria, oroitu zaitezela eskatzen dizut, Balak, Moabko erregeak, zure kontra erabilli zuen asmazioarekin, eta Balam Beorren semeak eman zion erantzunarekin, eta Setimdik Galgalaraño irago zanarekin, Jaunaren justizia ezagutu zenezan.

6. Zer eskeñiko diot bada Jaunari, bere diña izango danik, bigundu dedin? Belauniko jarriko al naiz Jaungoiko goratuaren aurrean? Holokasutoak eta urte beteko txalak eskeñiko al diozkat?

7. Baña, eta bigundu al liteke Jauna millaz aritoak eskeñita, eta milla asko aker gizenakin? Eskeñiko al diot nere bekatuagatik nere seme lenbizisortua, edo nere semeetatik bata, edo bestea, egin dedan bekatuagatik?

8. O gizona, erantzuten du Profetak: Nik erakutsiko dizut egin bear dana, eta Jaunak zuri eskatzen dizuna, da zure egitetan justizia arkitu dedilla, eta urrikaltasuna maitatu dezazula, eta zure Jaungoikoaren serbitzoan arretaz ibilli zaitezela.

9. Jaunaren bozak deadarrez ots egiten dio erriari; eta bere izen santuaren beldur diradenak salbatuko dirade. Aditu ezazute zuek, o tribuak, baña eta zeñ da obedituko duena?

10. Oraindikan gaiztoaren etxean daude, su iretsitzalle bat bezela; gaizki irabazitako tesoroak, eta iduki oi zuen neurri laburra Jaunaren aserrez betea dago.

11. Justotzat iduki bear al det nik gaiztoa dan neurria, eta osotzat zakutxoko pisu engañatzalleak?

12. Oiek bezelako gauzen bitartez Jerusalengo aberatzak ondasun gaiztoz bete dirade, eta bertan bizi diradenak gezurra esaten zuten, beren aoan mingañ engañatzalle bat zeukatela.

13. Argatik asi naiz ni zu kastigatzen, eta zu arrasatzen zure bekatuakgatik.

14. Jango dezu, eta etzera aseko; zure naigabearen gaia zure erdian egongo da. Aurrak izango dituzu; baña ez dituzu zure semeak salbatuko; eta baldin salbatzen badituzu, ezpataren puntaz nik galdu eraziko diet.

15. Ereingo dezu, eta uztarik ez dezu bilduko. Premian estutuko dezu oliogaia, eta etzera olioarekin igortziko.

16. Zeren zuk zaitu dituzun Amri errege gaiztoak erakutsi dizuna, eta Akaben etxeko oitura guztiak; eta bere bidegabeko guztiai jarraitu diezu, nik utzi zaitzadan, o Jerusalen, galmenean, eta zugan bizi diradenen irrian. Eta zuek, o almentsuak, nere erria jarri dezuten lotsariaren kastigua artuko dezute.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Ai nere doakabea, zeren allegatu naizan izatera, udazkenean mendaintzalleen ondoren kondarren billan dabillana bezelakoa. Mats mordo bat ere ez det arkitzen jateko. Alperrik nere anima goizpikoen gurakin egon da.

2. Ez dago onezkero santu bat bakarra ere lurraren gañean, justo bat ez da gizonen artean arkitzen, bakoitzak bestearen bizitzari azeloak jartzen diozka, bakoitza dabil bere anaien eizan, berai bizitza kentzeko.

3. Berak egiten duten gauza gaiztoari, gauza onaren izena ematen diote. Prinzipeak jartzen du auzia beartsuaren kontra, eta Jueza beti dago prestatua Prinzipeak nai duena egiteko. Andizkiak lotsagaldukeriaz agertzen ditu bere animaren gura gaiztoak, lurra daukate ezbearrez betea.

4. Beretatik onena esilarra bezelakoa da, eta justoena da esietako arantza bezelakoa. Badator zure kontuartzalleen eguna, eta egun bat, zeñatan zuk estu artuko dituzun. Orain dijoaz berak izaten desegiñak.

5. Adiskideagan ez ezazute itxedopenik iduki, eta gobernariagan etzaitezte fiya. Etzazkiozu agertu zure biotzeko gauza ezkutuak zurekin lo egiten duen emakumeari.

6. Zeren semeak iraintzen du aita, eta alaba bere amaren kontra jaikitzen da, eta erraña amagiarrabaren kontra. Gizonaren etsaiak bere etxekoak berak dirade.

7. Baña nik nere begiak Jaunaganontz itzuliko ditut, nere itxedopena Jaungoiko, nere Salbatzalleagan ipiñiko det; eta nere Jaungoikoak adituko nau.

8. Etzaite bozkariotu nere galmenagatik, o zu nere etsaia, zeren oraindikan berriz jaikiko naiz; eta katiberioko illuntasunetan arkitzen naizanean, Jauna nere argia izango da.

9. Jaunaren aserrea eramango det; zeren bere kontra bekatu egin nuen, berak nere auzia juzgatu dezan artean, eta nere alde erabakia eman dezan artean. Berak egunaren argira itzuliko nau, eta nik bere justizia ikusiko det.

10. Eta oiei begira egongo da nere etsai emakumea, eta lotsariz estalia geldituko da esaten didana: Non dago orain zure Jaun Jainkoa? Nik nere begiak bere gañean ipiñiko ditut. Zapaldua izango da bera orain, karrikaetako lokatza bezela.

11. Zure ondamenak berriz egiñak diraden egunean, egun artan bidegabetasuna zugandik urrutiratua izango da.

12. Egun artan etorriko dirade zugana zure semeak Asiriatik, eta etorriko dirade erri murrutuetaraño, eta erri murrutuetatik Eufrates ibairaño, eta itsaso batetik besteraño, eta mendi batetik besteraño.

13. Eta Kaldeatarren lur hura arrasatua izango da, bertan bizi diradenak gatik, eta beren gogorazio gaiztoen ordañean.

14. Bazkatu ezazu, o nere Jaungoikoa, Karmeloren erdian zure zaimakillarekin zure erria, zure soroko abere taldea, zeñ bakarrik basoan bizi dan. Egunen batean bazkatuko da bera Basanen, eta Galaaden, anziñako denboretan bezela.

15. Bai, esaten du Jaunak, nik mirariak ikusi eraziko dizkizut, Ejiptoko lurretik irten ziñanean bezela.

16. Erreñuak ikusiko dute; eta nastuak geldituko dirade beren eskubide guztiarekin. Ez dirade ausartuko aoa idikitzen, eta beren belarriak gortuak geldituko dirade.

17. Miaztuko dute lurra sugarrastak bezela, eta lurreko arrastakariak bezela arrituko dirade, eta sartuko dirade beren etxeen barrenen. Gure Jaun Jainkoaren beldur izango dirade. Eta zure beldurra, o Israel, idukiko dute.

18. Zeñ da zure antzekoa, o Jaungoikoa, gaiztakeria barkatzen dezuna; eta zure herenzia, Israelen kutsuen bekatuarekin aztutzen zerana? Ez du onezkero bere aserrea aurtikiko; zeren urrikaltasunaren maitatzallea dan.

19. Guganontz itzuliko da, eta gure urrikaltasuna idukiko du. Aztuko da gure gaiztakeriakin, eta gure bekatu guztiak itsasoaren barrenera aurtikiko ditu.

20. Zu, o nere Jaungoikua, agertuko zatzakio Jakobi egiatia, eta Abrahami urrikaltsua; anziña gure gurasoai juramentu egin ziñien bezela.

NAHUMEN PROFEZIA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Berri garratza Niniberen kontra. Nahum Elkostarrak iduki zuen ikusketaren liburua.

2. Jauna Jaungoiko zelotsu eta bengatzalle bat da. Jauna bengatuko da, eta sumintasunez betea egongo da. Bai, Jauna bere etsaiai bengatuko zatzaie, eta berentzat bere aserrea gordea dauka.

3. Jauna sufritua, eta eskubide andikoa da, baña sufritzen duelako, ez du iñor ere garbi, eta obengabetzat idukiko. Jauna dijoa ekaitzen, eta aizebunbaden artean, eta bere oñen azpian autsezko odei bat.

4. Berak keñatzen du itsasoa, eta leortua utzitzen du; eta nai duenean ibaiak lur siku biurtzen ditu. Egiten du soillak itzuli ditezela Basan eta Karmeloko mendi ugariak, eta Libanoko lorak zimeldu ditezela.

5. Berak mendiak dardaraz jartzen ditu, eta utziten ditu muñoak arrasatuak. Bere aurrean ikara egiten dute lurrak, eta mundu osoak, eta bertan bizi diraden guztiak.

6. Nor zutik egongo da bere aserrea agertzen danean? Eta, zeñ da aurkeztuko zaiona, aserretua eta sumindua dagoanean? Sua bezela isurtzen da bere kolera, eta aitzai urtu erazitzen die.

7. Denbora berean Jauna ona da, eta bere semeen gozatzallea da atsekabeko denboran; eta ezautzen ditu, beragan beren itxedopena ipintzen dutenak, eta laguntzen die.

8. Berak desegingo du, ugolde andi batek bezela, beren erregeerria; eta atsekabeko illuntasunak bere etsaiai persegituko diote.

9. Zer asmazio darabiltzute zuek Jaunaren kontra? Jaunak Niniberekingoa egingo du, desegitzen duela. Beste atsekaberik ez da izango.

10. Zeren Asiriatar oiek, an jateketetan biltzen diradenak edatera, desegiñak izango dirade, arantzazko sorta, beren artean ongi lotuak bezela, eta belar luze txit leorra bezela.

11. Zugandik, o Ninibe, irtengo da, Jaunaren kontra gogorazio gaiztoak dauzkana, eta bere buruan asmazio biurriak darabiltzkiana.

12. Oiek esaten ditu Jaunak: Berak ain sendoak eta ain asko izan arren; alaere ebakiak izango dirade, eta iragoko dirade utsa izatera. Nik, o nere erria, atsekabetu zaitut; baña onezkero beren bitartez etzaitut berriz atsekabetuko.

13. Eta orain zaituko det, bere bidegabetasuneko zigor, zure bizkarren gañean otsak ematen zituena; eta bere kateak urratuko ditut.

14. Eta Jaunak zure kontra, o Ninibe, sentenzia au emango du: Zure izenaren azirik batere ez da geldituko. Zure gezurrezko jainkoaren etxetik arras kenduko ditut jainko irudiak, eta menast urtuz egindako idoloak; zure obi egingo det, eta zu desonratua geldituko zera.

15. Ikusi itzatzu an mendien gañean ebanjelioa predikatzera eta pakea adiraztera datorrenaren oñak. Zelebratu itzatzu, o Juda, zure jai andiak, eta kunplitu itzatzu zure botoak, zeren ez da berriz zure lurretik Belial iragoko. Osoz galdu zan.

BIGARREN KAPITULUA

1. Onezkero irtetzen da gudatzera, o Ninibe, zure begien aurrean zure kanpoak ondatuko dituena, eta zure setioa estutuko du. Zaitu itzatzu bere mugimenduak, sendotu zure aldamenak, geitu zure indarrak;

2. Zeren Jauna bengantza artzera dijoan, zure lotsagabekeriagatik Jakoben kontra; baita ere berdin zure urgulleriagatik Israelen kontra; zeren zure ejerzitu ondatzalleak, bere landak desegin eta arrasatu zituzten.

3. Bere gerrari sendoen ezkutuak argi egiten dute su gar batek bezela; bere gerrariak purpuraz jantzita datoz; eta gudara joateko biltzen diradenean, bere gerra gurdiak sua dariotela bezela daude, eta beren zuzentzalleak moskortuak bezela.

4. Bideetan talde andietan bilduta nastutzen dirade; gurdiak karrikaetan elkar jotzen dute. Beren begiak suzko txingarrak bezelakoak dirade, aldamen batetik bestera iragotzen diraden tximistak bezelakoak.

5. Bere gudari sendoakin oroituko da, nastean joango dira bideetatik, erruz murruetara igoko dira, prestaturik lendanaz makinak estalian jartzeko.

6. Murruetan ateak idiki dirade datozten ugoldeakgatik, eta tenploa arrasatua izan da.

7. Bere soldaduak katibu eramanak izan dirade, eta emakumeak mendekoak izatera, negarrez usoak bezela, eta suspirioz beren biotzetan.

8. Eta Ninibe urez beteta putzu bat egiña gelditu da. Bere gordetzalleak iges egin zuten. Deadar egiten zien: Gelditu zaitezte, gelditu zaitezte; baña batek ere etzuen berriz atzerontz begiratu ere.

9. Ostu ezazute, o Kaldeatarrak, zillarra, ostu ezazute urrea. Ez dauka atzenik bere gauza eder guzien aberastasunak.

10. Desegiña gelditu da bera, eta urratua eta zatitua, biotzak desalaituak, belaunak lokatuak, gerriak nekatuak, eta beren guzien arpegiak kedarra bezela beltxituak.

11. Non da Ninibe ezigaitza, leoien ezkutatoki ori, leoikumeen bazka ori, nora joan oi ziraden atsedetera leoia eta bere umeak, iñork ere iges erazi gabe?

12. Asiriako errege leoiak, arturik bear zuena bere umeentzat, ilkintza andi bat egin zuen bere leoe emeentzat, eta bere kobak eizaz, eta bere ezkutatokiak ostutako gauzaz bete zituen.

13. Bada, ona emen non nagoan zure kontra, esaten du ejerzituen Jaunak. Nik kee biurtuko ditut zure gerra gurdiak; eta ezpatak iretsiko ditu zure leoitxo gazteak; eta aterako ditut lurretik zure lapurretak, eta zure bialkiñen boza, ez da onezkero beñere adituko.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Ai zure doakabea, erri odolgiroa, engañioz, eta kaltegillaz, eta lapurretaz betea!

2. Latigen dunbotsa, eta kurpil agudo jiran dabiltzanen dunbotsa, eta zaldien irrintzaena, eta gurdi erazekiena, eta zaldidi aurrera dijoanarena,

3. Eta ezpata, distiatzen diradenena; eta lantza argi egiten dutenena; eta zaurituak izanda, ugari iltzen diradenena; eta ondamen txit andi batena, ezin kontatu alak dirade illak, batzuek beste batzuen gañean ilda erortzen dirade.

4. Au guziau bordion eder, eta sonaren fornikazio ugariakgatik, zeñak dakian sortuta ipintzen, eta bere fornikazioen mendeko jarri ditu erriak, eta bere sorginkerien mendeko familiak.

5. Emen nago ni zure kontra, esaten du ejerzituen Jaunak, eta agertuko ditut zure egite lotsagarriak zure arpegiaren aurrean, eta erakutsiko diet zure billostasuna jendeai, eta zure lotsaria erreñu guztiai.

6. Eta zure gañera erori eraziko diet zure gauza nazkagarriai, eta lotsariz estaliko zaitut, eta jarriko zaitut oroipengarri, besteak beldurtzeko izango zeran eran.

7. Eta orduan, ikusten zaituzten guziak ikaratuta atzerontz biurtuko dirade, zugandik urrutira, esaten dutela: Ninibe arrasatua izan al da. Nork buruko mugimendu batekin erakutsiko du zure urrikaltasuna? Non arkituko det nik, nork gozatu zaitzan?

8. Zu obeagoa al zera Alejandria jendez betea baño, zeñ dagoan jarria ibaien artean, eta zeñ dagoan urez ingurutua; zeñaen ondasunak diraden itsasoa, eta bere murruak urak?

9. Bere sendotasun mugagabea ziraden Etiopia eta Ejipto; eta Afrika eta Libia zeuzkan laguntzalletzat.

10. Baña alaere, bera erri arrotzera katibu eramana izan da: bere aurrak karrika guzietako kantoietan eraioak izan dirade; eta txotx egin zuten beren gizon odolgarbikoen gañean, eta bere andizki guztiak zepoetan sartuak izan ziraden.

11. Zuk bada, o Ninibe, edango dezu moiskortu arteraño, eta azpiratua izango zera, eta zure etsaiari berari laguntasuna eskatuko diozu.

12. Zure gaztelu guztiak eroriko dira, uztapiko zorituak, jaten dituenaren aoan astinaldi batekin erortzen diraden bezela.

13. Begira ezazu zure barrenen daukazun jendea erkitu dala, emakumezko erri bat balitza bezela. Zure erriko ateak idikiko dirade, eta zabal zabalik jarriko dira zure etsaientzat, ipintzen dieztezun morrolloak, suak iretsiko ditu.

14. Iduki ezazu ura ugari, setiatua arkitzen zeraneko; sendotu itzatzu zure murruak, sartu zaite buztintzan, eta zapaldu ezazu, eta oraturik, adrilluak berarekin egin itzatzu.

15. An suak jango zaitu, ezpataz galdua izango zera,zeñak iretsiko zaituen galdernak belarra bezela; galderna eta langosta adiña jende biltzen badezu ere.

16. Zure merkatariak zeruko izarrak baño geiago izan ziran; baña izan ziraden galderna bezela, zeñak gizendu zanean, beste leku batera egan egin zuen.

17. Zure agintariak langostak dirudite, eta zure txikiak langosta samurrak, zeñak egon oi diraden munaetan otz egiten duen egunean; baña eguzkia irtetzen danean, jaikitzen dira, eta beren aztarnarik ere ez da gelditzen, egon diraden tokian.

18. Loak artu zituzten, o Asurko erregea, zure artzaiak. Zure prinzipeak obiratuak izango dirade. Zure jendea mendietan ezkutatu zan, eta ez dago bildu dezakeanik.

19. Agirian jarri da zure zorigaitza, zure zauria txit gaiztoa da. Pozezko txaloak egin dituzte, zuri gertatu zatzuna jakin duten guztiak, zeren zure gaiztakeriak denbora guztietan, zeñi ez dio kalte egin?

HABAKUK-EN PROFEZIA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Berri garratz, Habakuk profetari adirazia izan zitzaiona.

2. Noizarteraño, Jauna, egongo naiz deadarrez, zuk neri aditzen ez didazula? Noizarteraño ariko naiz zuri bozak zuzentzen arkitzen naizan larritasunean, zuk ni salbatu gabe?

3. Zergatik ez didazu ikusi erazitzen nere aurrean beste gauzarik, baizik gaiztakeria, nekeak, lapurretak, eta bidegabeak? Berenakin irtetzen dira diruagatik auzilariak, eta erriertariak.

4. Argatik legea burlatua ikusten da, eta ez da justiziarik egiten, zeren gaiztoak indar geiago daukan justoak baño; argatik egiten dirade juizio gaiztoak.

5. Ipiñi itzatzute begiak erreñuetan, eta zer iragotzen dan begiratu ezazute. Mirarituak eta arrituak geldituko zerate. Zeren zuen egunetan gertatu dan gauza bat, iñork ere sinistu naiko ez duena, kontatzen danean.

6. Bada ona emen non nik etorri eraziko diedan Kaldeatarrai, erreñu garratz eta agudoa, lur guzitik dabillana besteren gauzak arrapatzen.

7. Bera da izugarria eta ikaragarria. Berak berenez emango du sentenzia, eta kastigatuko du.

8. Bere zaldiak dirade leoinabarrak baño agudoagoak, eta korrika arinago egiten dute, otsoak gauaz baño. Beren zaldidia aldamen guzietatik zabalduko da, bere zaldizko gudariak urrutitikan etorriko dirade, arrapatu nai duen gauzaren gañera agilia aurtikitzen dan bezela, egan egingo dute.

9. Guztiak etorriko dira arrapatu diran gauzatara; beren arpegiak aize erretzalle bat bezelakoak izango dirade, eta katibuak ondarra bezela montoituko dituzte.

10. Eta Babiloniako erregeak garaituko ditu beste erregeak, eta andizkiai irri egingo die, farra egingo die gaztelu guziai, eta egingo ditu bateriak, eta arrapatuko ditu.

11. Orduan nastuko da bere espiritua, eta zorabiatuko da, eta eroriko da. Alakoa da arako jainkoaren eskua, zeñagan itxedotzen zuen.

12. Baña zer? Ez al daukazu zuk izatea asieratik, o nere Jaun Jainkoa, nere Santua, eta eriotzatik libratuko gaituzuna? O Jauna, zuk autu dezu Nabukodonosor au, zure bengantza egiztatzeko, eta alako eskubide andia eman diozu, kastigatu gaitzan.

13. Zure begiak beti garbiak dirade: ez dezakezu zuk gaitza ikusi; eta ezin sufrituko zenezake zure aurrean gaitakeria. Zergatik bada zaude obra gaiztoak egiten dituztenai begira, eta egon oi zera ixillikan, gaiztoak bera baño justoagoa dana iretsitzen duenean?

14. Eta zuk utzitzen dezu, gizonai gertatu dizaietela, itsasoko arraiarena, eta patari arrastakariena, zeñak erregerik ez daukaten, berak zaitzeko?

15. Guztia kanpora atera du bere amuarekin, arrastaka eraman du bere txingarekin, eta bildu bere sareakin.

16. Argatik eskeñiko diozka doañak bere txingari, eta sakrifizioak bere sareai; zeren oiekgatik ugaritu ziran bere aberastasunak, eta bere janari autatua.

17. Argatik bere txinga beti zabaldua dauka, eta aspertu gabe ari da erreñuak arrasatzen.

BIGARREN KAPITULUA

1. Bitartean ni kontuan egongo naiz, nere beilla egiten dedala, eta sendo egongo naiz murruaren gañean, ikusteko zer esango zadan, eta zer erantzun bearko ote diodan errierta egiten didanari.

2. Jaunak bada erantzun zidan, eta esan zidan: Eskribitu ezazu ikusketa, eta eskribitzeko oltxoetan ipiñi ezazu, erraz irakurri ditekean.

3. Zeren ikusketa, oraindikan urrutian dagoan gauza baten gañean dan; baña atzenean bera kunplituko da, eta ez da utsean geldituko. Berantzen bazaio, itxedon zaiozu; zeren etorriko dana, etorriko dan, eta etzaio berandu egingo.

4. Begiratu ezazu sinisgaitza danak, bere barrenen anima justo bat ez daukala. Justoa bada bere fedean biziko da.

5. Baña nola ardoak engañatzen duen edaten duena; ala gertatuko da gizon arroarekin, zeñ onra gabe geldituko dan; urgullutsuarekin, zeñak zabaldu zuen bere eztarria infernuak bezela, eta da ase eziña eriotza bezela; eta bildu nai lituzke bere mendean erreñu guztiak, eta montoitu bere aldean erri guztiak.

6. Zer! Ez al da bera izango oien guzioen ipuia, eta beren esate zirikari guztiak ez al diozkate berari zuzenduko? Eta, ez al zaio esango: Ai, bereak ez diraden gauzak montoitzen dituenaren doakabea! Noizarteraño bilduko du berak bere kalterako aberastasunen lokats trinkoa?

7. Ez al dirade supituan jaikiko utsikiko dizutenak, eta ez al dirade irtengo, zatituko zaituztenak, eta zeñak arrapatua izatera zoazan?

8. Zuk ezerere gabe utzi dezulako jende asko, zu ere ezerere gabe utziko zaituzte, zuk ala ipiñi dituzunak, zuk isuri erazi dezun giza odolaren kastiguan, eta lurraren kontra egin dituzun ezbearren kastiguan, baitaere erriaren kontra, eta bertan bizi diraden guztien kontra egin dituzunen kastiguan.

9. Ai zikoiztasuneko frutuak biltzen dituenaren doakabea! Kaltegarria bere etxearentzat, bere kabia toki goratuagoan egiteagatik, eta onela gaitzaren atzaparretatik iges egiteko.

10. Ez dirudi, baizik, zure etxearen galmena nola egiztatuko dezun ibilli zerala. Asko erri arrasatu dituzu, eta zure animak bekatu egin zuen.

11. Zeren arriak paretatik deadar egingo du; eta etxeetako giltzen artean dagoan zurak, erantzungo du.

12. Ai, etxe bat, isurtzen duen odolaren bitartez egiten duenaren, eta bere zimenduak bidegabetasunaren gañean ipintzen dituenaren doakabea!

13. Ez al daude gauza oiek ejerzituen Jaunak lendanaz esanak? Zeren alperrik, esaten du Jaunak, arazoz ibilliko dirade erriak, eta jendeak bilduko dituzte ondasunak, su andi baten bazkatzat, eta desalaituko dirade.

14. Zeren lurra etsaiz ondatua izango dan, itsasoa urez estalia dagoan bezela. Jaunaren gloria ezagutua izan dedin.

15. Ai, bere adiskideari edaten ematen dionaren doakabea, nastutzen duela edanontzian beazuna, eta moiskortzen duena, larrugorrian ikusteko!

16. Gloriaren lekuan, desonraz estalia geldituko zera. Zuk ere edango dezu, eta lotsatua geldituko zera. Jaunaren eskuieko kalizak moiskortuko zaitu, eta zure gloriaren gañera lotsarizko oka bat etorriko da.

17. Zuk Libanoren gañean egindako gaiztakeriak, berriz zure kontra eroriko diran ezkero; eta pisti oiek egindako galmenak, izutuko ditu, gizonen odola isuri ez dezaten, eta gaiztakeriarik egin ez dezaten lurraren kontra, eta erriaren eta bertan bizi diradenen kontra.

18. Zertarako balio du langille batek egin zuen irudi utsak, eta brontzearekin egin zuen otallu, edo irudi utsak? Alaere langilleak bere itxedopena ipintzen du bere irudian, egin duen otallu mutuan.

19. Ai doakabea, zur bati esaten diona: Esnatu adi; eta arri mutu bati: Jaiki adi, eta lagundu zadak. Otalluak erakutsi al dezakezu zer egin bear dezun? Begiratu ezazu; bera urrez eta zillarrez estalia dago; baña barrenen espiriturikan batere ez dauka.

20. Baña Jauna, gloriako bere tenplo santuan dago, bere aurrean lur guzia ixilik egon bedi.

IRUGARREN KAPITULUA

Habakuk profetaren orazioa, jakinezakgatik.

1. Aditu nuen, o Jauna, zure berria, eta beldurtu nintzan.

Jauna, zure obra hura, urteen erdian egiztatu ezazu.

2. Bai, urteen erdian agirian jarriko dezu. Aserretzen zeranean, zure urrikaltasunarekin oroituko zera.

3. Jaungoikoa Egoeko aldamenetik etorriko da; eta santua Farango mendiaren aldamenerontztik.

Bere gloriak, zeruak estali zituen, eta lurra bere alabantzaz betea dago.

4. Berak dist egingo du argiak bezela, bere eskuetan atzen gabeko eskubide bat idukiko du, an bere sendotasuna estalia dago.

5. Bere aurrean eriotza eramango du, garaitza erakusten duela,

6. Eta deabrua bere oñen aurrean, gelditu zan, eta lurra neurtu zuen.

Begiratu zuen, eta giltzagetu zituen erreñuak, eta mendi txit goratuak auts biurtuak gelditu ziraden.

Makurtu ziran munduko muñoak, Jaun betikoa iragotzean.

7. Nik ikusi nuen biltzen ziradela gaiztakeriaren alde Etiopiako dendak, baña laster Madiango etzauntzak desegiñak izan ziraden.

8. Zure aserrea, o Jauna, ibaien kontra izan al zan? izan al zan zure kolera ibaien kontra, edo itsasoaren kontra zure sumintasuna?

Zu, zure zaldien gañera igotzen zerana, eta zure gurdian salbazioa daramazuna,

9. Zuk erruz artuko dezu zure uztaia, Israelko tribuai egin ziñien juramentuen araura,

Zuk lurreko ibaiak berezituko dituzu.

10. Ikusi zinduzten mendiak, eta dardaraz jarri ziraden, ibai arroak atzerontz biurtu ziran.

Leizeak beren boza altxatu zuten, itsasondoak jaso zituen bere eskuak.

11. Eguzkia eta illargia geldirik egon ziran beren tokietan. Joango dirade aiek zure saieten argitasunera, zure lantza distiatzallearen argitasunera.

12. Zuk, aserretuta, lurra zapalduko dezu, eta zure sumintasunarekin, erreñuak arrituta utziko dituzu.

13. Irten ziñan zure erria salbatzeko, salbatzeko zure kristoaren bitartez.

Zauritu zenduen gaiztoaren etxeko burua, agertu ziñituen bere zimenduak goitik beera.

14. Aurtiki zenduen madarikazioa bere gerrarien agintariaren gañera, zeñak zetozten aizebunbada bezela, ni desegitera.

Beren bozkarioa onezkero bazan, toki ezkutu batean, bideante gaxo bat iretsiten duenarena bezelakoa.

15. Idiki ziñion bidea itsasoan zure zaldidiari, ur zakonen loien erditik.

16. Aditu nuen zure boza, eta dardaraz jarri ziran nere erraiak, alako zure bozera nere ezpañak ikaratu ziran.

Sartu bedi usteltasuna nere ezurretan, eta nere barrena ar jarioan egon bedi,

Nik atsekabeko egunean atsedena iritxi dezadan, eta joan nadin biltzera, prestatua dagoan gure erriarekin.

17. Zeren piko ondoa ez da loretuko, eta mastiak ere ez dira moteatuko.

Oliboaren fruturik ez da izango, kanpoak ez dute emango bazkarik.

Arrapatuak izango dirade arditegitik ardiak, eta ganbelak abere gabe geldituko dira.

18. Ni ordea Jaunagan gozatuko naiz, eta bozkarioz gora goraka ariko naiz nere Jesus Jaungoikoagan.

19. Nere sendotasuna Jaun Jainkoa da, eta berak emango dizkit oreñarenak bezelako oiñ agudoak.

Eta Jesus garailariak zuzenduko nau nere bizilekuko toki goratuetara, nik bere alabantzan himnoak kantatzen ditudala.

SOFONIASEN PROFEZIA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Sofonias Kusiren semeari, Godoliasen semeari, Amariasen semeari, Ezeziasen semeari adirazitako Jaunaren itza, Josias, Amonen seme, Judako erregearen denboran.

2. Nik kenduko det lurretik, bertan dagoan guztia, arrasatuko det dana, esaten du Jaunak.

3. Arras kenduko ditut beratatik gizasemeak, eta abereak, arras kenduko ditut zeruko egaztiak, eta itsasoko arraiak, eta galduak izango dirade gaiztoak; eta arras kenduko ditut lurretik gizasemeak, esaten du Jaunak.

4. Eta luzatuko det nere besoa Judaren kontra, eta Jerusalenen bizi diraden guztien kontra, eta arras kenduko ditut toki onetatik Baalen idolatriaren kutsuak, eta bere ministroen eta apaizen izenak eta oroipena;

5. Eta sabaien gañean zeruko gudartariak adoratzen dituztenak; eta adoratzen dutenak, eta juramentu egiten dutenak Jaunagatik eta Melkomgatik,

6. Eta Jaunari jarraitzeari utzi diotenak, eta Jauna billatzen ez dutenak, eta arkitzeko ere aleginik egiten ez dutenak.

7. Zaudete ixillik Jaun Jainkoaren aurrean, zeren Jaunaren egun ikaragarria aldean dan. Prestatua dauka Jaungoikoak bere justiziaren doaña, eta santutuak berak ots egiñak.

8. Eta Jaunaren doañeko egun artan, nik kastigatuko ditut, esaten du Jaungoikoak,prinzipeak, eta Jerusalengo erregearen semeak; eta arrotzak bezela jantzitzen diraden, eta bizi diraden guztiak.

9. Eta nik kastigatuko ditut orduan, urgulluz eta arrokeriaz Tenploko atalburuetatik sartzen diraden guztiak, beren Jaun Jainkoaren etxea ezbearrez eta engañioz betetzen dutela.

10. Izango dira egun artan, esaten du Jaunak, deadar andiak Arraien atetik, eta asko suspirio Bigarrenetik, eta muñoen gañean ansia andia.

11. Ari zaitezte alarauka, o Pilan bizi zeratenak. Kanaango erri guztia mututua dago, eta aberastasunean igeri egiten zuten guztiak, galduak izan dirade.

12. Eta orduan izango da, noiz joango naizan ni kandela erazeki bat eskuan daukadala, aratutzen Jerusalen, eta ibilliko naiz beren zikinkerietan ondatuak dauden gizonen billan, zeñak beren biotzetan ari diran esaten: Jaunak iñori ere ez dio egiten onik, eta ez dio egiten gaitzik.

13. Eta beren ondasunak arrapatuak izango dirade, eta eremu biurtuko dirade beren etxeak, eta egingo dituzte bizileku ederrak; baña ez dirade beretan biziko; ipiñiko dituzte mastiak, baña beren ardorik ez dute edango.

14. Jaunaren egun andia aldean dago. Aldean dago, eta badijoa allegatuaz arintasun txit andiarekin. Boz mingoitzak izango dirade Jaunaren egunean aditzen diradenak, almentsuak orduan estutasunetan ikusiko dirade.

15. Aserreko eguna da hura, atsekabeko eguna, eta antsiakoa, naigabe eta doakabetasuneko eguna, illuntasun eta argigetasuneko eguna, odei eta ekaitzetako eguna,

16. Tronpeta ots ikaragarriaren eguna erri murrutuen kontra, eta dorre goratuen kontra.

17. Nik atsekabetuko ditut gizonak, zeñak itsuak bezela ibilliko diran, Jaunaren kontra bekatu egin dutelako, eta beren odola autsa bezela barreatua izango da, eta beren gorputz illak, lokatza bezela aurtikiak.

18. Eta ez zillarrak, ez urreak libratu alko ditu egun artan Jaunaren aserretik, zeñaen zelo erazekiak lur guztia iretsiko duen, zeren berak txit agudo bertan bizi diraden guztiak arras desegingo ditu.

BIGARREN KAPITULUA

1. Atozte guziok, bildu zaitezte, o erri, ez maitagarriak,

2. Jaunaren aginduak ekarri dezan baño lenago arako egun, aize bunbadak bezela autsa zabaltzen duena; Jaunaren sumintasunaren aserrea zuen gañera etorri dedin baño lenago; bera aserreko eguna allegatu dedin baño lenago.

3. Billatu ezazute Jauna, zuek guztiok lurreko umillak; zuek bere aginduak zaitu dituzutenak; zoazte justiziaren billa, otsantasunaren billa, ikusteko, Jaunaren aserreko egunean, estalian jarri ote zintezken.

4. Zeren desegiña izango da Gaza, eremutua geldituko da Askalon, Azoto izango da soilldua egunaren erdian, eta arrasatua geldituko da Akaron.

5. Ai zuen doakabeak, itsasoko kostan bizi zeratenak, galmeneko erria, zure kontra zuzentzen da Jaunak esaten duena, o Kanaan Filistintarren lurra, nik arrasatuko zaitut alako moduan, non, zugan iñor ere bizirik geldituko ez dan.

6. Eta itsasoko kosta izango da artzaien egonlekua, eta abereen etzalekua.

7. Eta esan dan kosta, Judako etxetik gelditzen diradenena izango da. An idukiko dituzte beren bazkak, eta gauaz Askalonen etxeetan atsedengo dute, zeren Jaun Jainkoak bisitatuko dituen, eta katiberiotik itzuli eraziko dien.

8. Nik aditu ditut Moaben irainak, eta Ammon semeak nere erriaren kontra esan dituzten gaizkiak, zeñak andi egin diraden, sartzen diradela aien mugetan.

9. Argatik juramentu egiten det nik (esaten du ejerzituen Jaun Jainkoak, Israelko Jainkoak) Moab, Sodoma bezela izango dala; eta Amonen semeak, Gomorra bezela, arantza leorren, eta gatzezko montoien tokia, eta betiko eremu bat; arrapatuko diezte beren gauzak nere erriko kondoak, eta nere jendearen kutsuak beren jabe egingo dirade.

10. Oiek gertatuko zaiezte, beren urgulleriagatik; zeren blasfematu zuten, eta arrotu ziran ejerzituen Jaunaren erriaren kontra.

11. Ikaragarria agertuko da beren kontra Jauna, eta lurreko jainko guztiak ezereztuko ditu, eta gizon guztiak adoratuko dute, nork bere lurrean, eta jendeen ugarte guztiak.

12. Zuek berrik, o Etiopiatarak, nere ezpataren puntaren azpian eroriko ere zerate,

13. Zeren Kaldeatarrak luzatuko du bere eskua ifarreko aldamenaren kontra, eta arras desegingo ditu Asiriatarrak, eta Ninibeko erri ederra bakartade batean, eta erri jende gabeko, eta eremuan biurtuko du.

14. Alako moduan, non, etzango diran bere erdian artaldeak, eta aldeetako jendeen abere guztiak; eta beren etxeetan ezkutatuko dira astorroa, eta trikua; adituko da kanpoko egaztien kanta bere leioetan, eta belak kabiak egingo dituzte beren atalburuen gañean. Bada nik bere eskubide guztia utsean utziko det.

15. Au da arako erri, gloriaz beteriko, ezerk ere beldurtzen etzuena, eta esaten zuena bere biotzean: Ni naiz, eta ez dago besterik ni baizik. Nola etorri da eremu bat, eta pistien ezkutatoki bat eginik gelditzera? Andik iragotzen dan guztiak txistu egingo dio, eta irri egiten diola, esku bata bestearekin joko du.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Ai zure doakabea, o erri, aserretu erazitzen dezuna, eta ori erreskatatua izan ezkero, o uso zentzugabea!

2. Berak ez du aditu nai izan, itz egiten ziona, eta erakutsiak ematen ziozkana. Bere itxedopena etzuen Jaunagan ipiñi, bere Jaungoikoagana etzan alderatu.

3. Bere prinzipeak bere erdian daude leoe orroakariak bezela. Bere Juezak gaueko otsoak bezelakoak dirade. Ezerere ez dute biaramonerako utzitzen.

4. Bere profetak gizon sumiñak, eta fedegabekoak dirade, bere apaizak santuarioa kutsutu dute, legearen kontrako obrak egin dituzte.

5. Jaunak, zeñ dan justoa, eta bere erdian dagoanak,ez du ezbearrik egingo; baizik bereala bere juizioa egingo du, eta au ez da ezkutatua geldituko, baña gaiztoak lotsa zer dan ez daki.

6. Nik desegin ditut etsaien erreñuak, eta beren gaztelu guztiak arrasatuak gelditu dirade, bere karrikak eremutuak utzi ditut, eta beretatik anima bat ere ez da iragotzen. Bere erriak soillak gelditu dira; gizonik, ez bertan bizi zanik gabetanik.

7. Eta esan nuen: Noizbait, o Israel, nere beldur izango zera, eta nere erakutsiak artuko dituzu, zure etxea desegiña izan ez dedin, zure bekatu guztiak gatik, zeñgatik kastigatu zindudan. Baña zure semeak beren alegiñak guztiak egin zituzten, beren gura guztiak gaiztotutzeko.

8. Argatik itxedon zadazu, esaten du Jaunak, etorriko dan nere biztutze berriko egunean, zeren nere borondatea dan biltzea jendeak, eta batzea erreñuak; eta orduan isuriko det beren gañera nere aserrea, eta nere sumintasun eta gogortasun guztia, alako moduan, non, nere zeloaren berotasunak lur guztia iretsiko du.

9. Zeren orduan erreñuen ezpañak garbituko ditut, guztiak Jaunaren izenari ots egin dizaioten, eta uztarri baten azpian serbitu dezaten.

10. Etiopiako ibaiak baño arontzagotik, andik etorriko dirade nere adoratzalleak, nere erri barreiatuaren semeak, beren doañak nere aurrean ipintzera.

11. Egun artan, o Jerusalen, etzera nastua izango zure obra guztiakgatik, zeñakin ausi zenduen fedea nere kontra; zeren orduan nik kenduko ditut zure erditik arako erakuslak, zure urgulleriari bazka ematen diotenak, eta etzera berriz arrotuko Siongo nere mendi santua daukazulako.

12. Eta utziko det zure erdian erri beartsu eta umill bat, zeñak bere itxedopena Jaunaren izenean ipiñiko duen.

13. Israelko erriaren kutsuak ez dute ezbearrik egingo, ez dute ere gezurrik esango, eta ez dute ere beren aoan mingañ engañakorrik idukiko; zeren bazka ederrak idukiko dituzten, eta atsedenean gozatuko dira, eta ez da ere iñor izango beldurtuko dituenik.

14. Esan itzatzu himnoak, o Siongo alaba, kantatu itzatzu alabantzak, o Israel, poztu zaite, eta gozatu zaite biotz guzitik, o Jerusalengo alaba.

15. Jaunak borratu du zure kondenazioa, zure etsaiai iges erazi die. Jauna, Israelko erregea, zure erdian dago. Ez dezu zertan beñere gaitz baten ere beldurrik iduki.

16. Egun artan Jerusaleni esango zaio: Ez ezazu beldurrik iduki; eta Sioni: etzaite desalaitu.

17. Zure erdian dago Jauna, zure Jaungoikoa, Sendoa. Berak salbatuko zaitu, berak bere gozotasuna, eta poza zugan arkituko ditu, berak iraungo du zu amatzean, bozkariotuko da, eta zure alabantzak zelebratuko ditu.

18. Nik bilduko ditut arako gizon arro, legea utzi zutenak, zureetatikoak ziraden ezkero; berakgatik berriz lotsaririk irago ez dezazun.

19. Ona emen non nik bizia kenduko diedan denbora artan atsekabetu zinduzten guztiai; eta errenga zebillan erreñu hura salbatuko det, eta berriz ots egingo diot, utzia izan zanari, eta lotsaria irago zuten lur guzi artan, gloria eta izen otspatsua emango diet.

20. Denbora artan, nik ekarriak zeratenean, eta biltzen zaituztedanean, egingo det izen otspatsua iduki dezazutela, eta lurreko errege guztiak alabatuak izan zaiteztela; orduan, zuen katiberiotik nere bitartez askatuak ikusten zeratenean.

AGJEOREN PROFEZIA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Dario erregearen bigarren urtean, seigarren illean, illaren lenbiziko egunean, Jaunak itz egin zien Agjeo profetaren bitartez Zorobabel Salatielen seme, Judako prinzipeari, eta Jesus Josedek-en seme, Apaiz buruari, esaten zuela:

2. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Erri onek esaten du: Ez da oraindikan allegatu denbora, Jaunaren etxea berriz egiteko.

3. Baña Jaunak Agjeo profetari itz egin dio, esaten duela:

4. Beraz denbora da zuek etxe eder goiaspillatuetan biziteko, eta Jaunaren etxeari etzaio begiratuko?

5. Orain bada, oiek esaten ditu ejerzituen Jaun Jainkoak: Jarri zaitezte arretaz gogoratzen, nolakoa dan zuen biziera.

6. Asko erein dezute, eta gutxi bildu, jan dezute, eta etzerate ase, edan dezute, eta etzerate moiskortu, estali zerate, eta etzerate berotu, eta alogera irabazten zuena, zaku urratuan ipiñiaz zijoan.

7. Ejerzituen Jaunak onela itz egiten du: Jarri zaitezte arretaz gogoratzen, nolakoa dan zuen biziera.

8. Igo zaitezte mendira, ekarri itzatzute andik zurak, eta nere etxea berriz egin ezazute, eta ni beratan gozatuko naiz, eta beratan gloriaz betea izango naiz, esaten du Jaunak.

9. Zuek itxedotzen zenduten geiagoa, eta etorri zatzute gutxiagoa; eta gutxi ori ere, zuen etxeen barrenen sartu zenduten, eta nik asnasa ots batekin estalierazi nion. Eta, zergatik? Esaten du ejerzituen Jaunak. Zeren nere Etxea utzia dagoan, eta zuetatiko bakoitza txit agudo dabil berea berriztatu, eta sendotzen.

10. Argatik galerazi zitzaien zeruai, zuei intza ematea; eta galerazi zitzaion lurrari bere frutua ematea.

11. Eta bialdu nuen leortea lurraren gañera, eta mendien gañera; aleen, eta ardoaren, eta olioaren, eta lurrak ematen dituen gauza guztien, eta gizonen eta abereen, eta eskuzko lan guziaren kaltean.

12. Eta Zorobabel, Salatielen semeak, eta Jesus Josedek Apaiz nagusiaren semeak, eta erriko gañerako guztiak, aditu zuten beren Jaun Jainkoaren boza, beren Jaun Jainkoak bialdu zien Profetaren itzetan, eta erria Jaunaren beldur izan zan.

13. Eta Agjeo, Jaunak bialdutatikoetatik batek, erriari esan zion: Jaunak esan du: Ni zuekin nago.

14. Eta esnatu zuen Jaunak Zorobabel, Salatiel Judako gobernariaren semearen espiritua; eta Jesus, Josedek Apaiz nagusiaren semearen espiritua; eta erriko gañerako guztien espiritua, eta asi zituzten, ejerzituen Jaunaren, beren Jaungoikoaren Tenploa egiteko lanak.

BIGARREN KAPITULUA

1. Seigarren illaren ogeita laugarren egunean, Dario erregearen bigarren urtean,

2. Zazpigarren illean, illaren ogeita bat garrenean, Jaunak Agjeo Profetari itz egin zion, esaten ziola:

3. Itz egin zaiezu Zorobabel, Salatiel, Judako gobernariaren semeari; eta Jesus, Josedek Apaiz nagusiaren semeari, eta erriaren gañerakoari, eta esan zaiezu:

4. Zeñ gelditu da zuetatik guztietatik Tenplo au bere lenbiziko glorian ikusi zuenik? Eta orain bera nolakoa deritzatzute? Ez al da zuen begien aurrean utsa bezelakoa?

5. Eta orain, o Zorobabel, sendotu zaite, esaten du Jaunak: o Jesus, Josedek apaiz nagusiaren semea, sendotu zaite zu ere; eta lur guztiko erria, zu ere sendotu zaite, esaten du ejerzituen Jaunak, eta kunplitu ezazute (zeren ni zuekin nagoan, esaten du ejerzituen Jaunak)

6. Zuekin elkartuta gelditu nintzan itza, Ejiptoko lurretik ateratzen ziñatenean, eta nere espiritua zuen erdian egongo da, etzaitezte beldurtu.

7. Zeren ejerzituen Jaunak oiek esaten dituen: Oraindikan beste denbora piska bat bear da; eta orduan nik mugituko ditut zerua, eta lurra, itsasoa eta mundu guztia.

8. Eta jende guztiak mugituko ditut, eta jende guziak deseatua etorriko da, eta etxe au gloriaz beteko det, esaten du ejerzituen Jaunak.

9. Gañerakoan, nerea da zillarra, esaten du ejerzituen Jaunak, eta urrea nerea da.

10. Atzeneko Tenplo onen gloria andia izango da, lenbizikoarena baño andiagoa izango da, esaten du ejerzituen Jaunak. Toki onetan nik pakea emango det, esaten du ejerzituen Jaunak berak.

11. Bederatzigarren illaren ogeita laugarren egunean, Dario erregearen bigarren urtean, Jaunak Agjeo profetari itz egin zion, eta esan zion:

12. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Galde au egin zaiezu apaizai, legearen gañean.

13. Gizon batek eramango balu aragi santutua bere soñekoaren ertz batean, eta bere egalarekin ukituko balio ogiari, edo janariari, edo ardoari, edo olioari, edo jateko beste gauzaren bati, alako gauza santutua geldituko ote da? Eta apaizak erantzun zuten, eta esan zuten: Ez.

14. Eta gañera Agjeok esan zuen: Baldin zikindua dagoanen batek, illen batgatik, ukituko balio oietatiko gauzaren bati, ukitu zion gauza, zikindua geldituko ote da? Eta apaizak erantzun zuten, esaten zutela: zikindua geldituko da.

15. Eta erantzun zuen Agjeok, eta esan zuen: Ala da erri au, eta ala da jende au nere aurrean, esaten du Jaunak; eta beren eskuen lan guziakin ere ala gertatzen da, zeren toki onetan eskeñi duten guztia, guztia zikindua da.

16. Eta jarri ezazute orain arretaz zuen gogoa, egun onetatik atzerontz gertatu danagan, Jaunaren tenploa egiten asi ziñaten baño lenago,

17. Aldertzen ziñatela uzta montoi batera, zeñak zirudian ogei lakarikoa, etortzen zan gelditzera amarrean; eta joaten ziñatela dolarera berrogieta amar pegar ateratzera, ogei baizik etzenduzten ateratzen.

18. Nik desegin nituen aize erretzalle batekin, eta gorniarekin, eta arritearekin zuen eskuen lanak; eta etzan egon zuen artean nigana biurtuko zanik, esaten du Jaunak.

19. Baña ipiñi ezazute zuen gogoa egun onetatik aurrera, eta bederatzigarren illaren ogeita laugarren egunetik aurrera: Jaunaren Tenploko zimenduak jarri ziranetik aurrera zuen gogoa jarri ezazute.

20. Ez dezute ikusten nola oraindikan aziak ez diraden erne, eta mastiak eta pikodiak, eta pillaltunak, eta oliboak oraindikan ez diradela loretu? Bada nik egun onetatik, nere bedeikazioa botako diet.

21. Eta Jaunak bigarren aldiz Agjeori itz egin zion, illaren ogeita laugarren egunean, eta esan zion:

22. Itz egin zaiozu Zorobabel, Judako gobernariari, eta esan zaiozu: Nik mugituko ditut denbora batean zerua eta lurra,

23. Eta nastuko ditut erreñuen tronuak, eta desegingo det jendeen erreiñuaren eskubidea, eta irauliko ditut gerrako gurdiak, eta beren gañean dijoazenak; eta zaldiak illak eroriko dirade, baita beren gañekoak ere, nor bere anaiaren ezpataren puntaren bean.

24. Denbora artan, esaten du ejerzituen Jaunak, nik goratuko zaitut, o Zorobabel, Salatielen seme, nere serbitzaria, esaten du Jaunak; eta sillutzeko, erraztun bat bezela, idukiko zaitut; zeren zu autu zaitudan, esaten du ejerzituen Jaunak.

ZAKARIASEN PROFEZIA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Dario erregearen bigarren urteko zortzigarren illean, Jaunak itz egin zion Zakarias profeta, Barakiasen, Addoren semearen semeari, eta esan zion:

2. Jauna zuen gurasoakin txit aserretua egon zan.

3. Baña zuk esango diezu beren seme oiei: Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Biurtu zaitezte nigana, esaten du ejerzituen Jaunak, eta ni zuekgana biurtuko naiz, esaten du ejerzituen Jaunak.

4. Etzaitezte izan zuen gurasoak bezelakoak, zeñai deadar egiten zien lengo profetak, esaten zutela: Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Biurtu zaitezte zuen pauso gaiztoetatik, eta zuen asmazio biurrietatik. Berak ordea ez ninduten aditu, eta etzidaten begiratu ere, esaten du Jaunak.

5. Eta, non daude orain zuen gurasoak? Eta profetak beti biziko al dirade?

6. Nere itzak bada, eta nere erabakiak, nere serbitzari profeten bitartez adiraziak, ez al zituzten zuen gurasoak iritxi? Berak biurtu ziran, eta esan zuten: Ejerzituen Jaunak gurekin egin du uste izan zuena egitea, ikusirik gure obrak, eta guk gendukan bizitzeko era.

7. Amaikagarren illaren, Sabat izena duenaren, ogeita laugarren egunean, Darioren bigarren urtean, Jaunak itz egin zion onela Zakarias profeta, Barakias Addoren semearen semeari.

8. Ikusketa au bada, gauaz iduki nuen: ikusi nuen gizon bat zaldi gorri baten gañean, zeñ zegoan geldirik zakonune batean zeuden arraian batzuen artean, eta bere atzean zeuden zaldi gorriak, pintanuak, eta zuriak.

9. Eta nik esan nuen: Nere Jauna, zeñ dirade oiek? Eta nerekin itz egiten zuen aingeruak esan zidan: Nik ezagutu eraziko dizut, gauza oiek zer diraden.

10. Onetan, arraianen artean geldirik zegoan gizon hurak erantzun zuen, eta esan zuen: Oiek, Jaunak lurrean ibiltzeko bialdutako aingeruak dirade.

11. Eta aiek erantzun zioten, arraianen artean geldirik zegoan Jaunaren aingeruari, eta esan zuten: ibilli gera lurrean, eta ikusi degu guztia dagoela jendez betea, eta atsedeten dagoala.

12. Eta Jaunaren aingeruak erantzun zuen, eta esan zuen: O ejerzituen Jauna, noizarteraño etzera bigunduko Jerusalen, eta Judako erriakin, zeñaen kontra aserretua zauden? Au onezkero irurogeita amargarren urtea da.

13. Eta Jaunak esan ziozkan nerekin itz egiten zuen aingeruari itz onak, itz pozgarriak.

14. Eta nerekin itz egiten zuen aingeruak esan zidan: Deadar egin ezazu, eta esan ezazu: Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Zelo andi batez betea arkitzen naiz Jerusalen eta Sionen amorioagatik;

15. Eta erreñu almentsu aien kontra txit aserretua arkitzen naiz. Piska bat sumindua banengoan ni, baña berak gaitza geitu dute.

16. Argatik oiek esaten ditu Jaunak: Nere begi urrikaltsuak itzuliko ditut Jerusalenerontz, eta an nere tenploa egiña izango da, eta beruna Jerusalenen gañean jarria izango da.

17. Deadar egin ezazu oraindikan, eta esan ezazu: Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Nere erriak oraindikan ondasunez gañez egingo dute, eta oraindikan Jaunak Sion gozatuko du, eta berriz autuko du Jerusalen.

18. Eta nere begiak altxatu nituen, eta egon nintzan begira, eta lau adar ikusi nituen.

19. Eta nerekin itz egiten zuen aingeruari esan nion: Zer dirade oiek? Eta esan zidan: Oiek dirade Juda, eta Israel, eta Jerusalen aizetu zituzten adarrak.

20. Eta Jaunak erakutsi zizkidan lau aingeru langilleen irudian.

21. Eta esan nuen: Zer egitera ote datoz oiek? Eta berak erantzun zidan esaten zuela: Aiek dirade, Judako gizonak banan banan aizetu zituzten adarrak, beretatik batek ere burua jaso ezin zezakeala. Eta oiek etorri ziran berak izututeko, eta erreñuen adarrak beeratuteko, zeñak altxatu zituzten beren indarrak Judako lurraren kontra, bertan bizi ziradenak arras desegiteko.

BIGARREN KAPITULUA

1. Eta altxatu nituen nere begiak, eta banengoan begira, eta ona emen gizaseme bat, zeukana bere eskuan soka bat neurtzallearena bezelakoa.

2. Eta esan nion: Nora zoaz? Banoa Jerusalen neurtzera, erantzun zidan, ikusteko zenbat dan bere zabalera, eta zenbat bere luzeera.

3. Eta ona emen non kanpora irten zan nerekin itz egiten zuen aingerua, eta beste aingeru bat bidera irten zitzaion,

4. Eta esan zion: Zoaz korrika, gazte orri itz egin zaiozu, eta esan zaiozu: Murru gabe biziko dirade Jerusalenen, bere barrenen idukiko dituen lagun, eta abere ugariakgatik.

5. Baña ni izango naiz beretzat, esaten du Jaunak, suzko murru bat bezela, zeñak ingurutuko duen, eta ni bere erdian gloriaz betea izango naiz.

6. A! iges egin ezazute, iges egin ezazute orain ifarreko lurretik, esaten du Jaunak, nik barreiatu zinduztedan ezkero zeruko lau aizeetatik, esaten du Jaunak.

7. Iges egin ezazu, o Sion, zuk, Babiloniako errian bizi zeranak.

8. Zeren ejerzituen Jaunak oiek esaten dituen: zeñak zuen gloria itzulita bialduko nauen, zuen gauzak arrapatu zizkizuten erreñuetara (zeren zuei ukitzen dizutenak, nere begietako ninian ukitzen dit).

9. Ona emen non nik nere eskua beren kontra jasotzen dedan, eta beren mendekoak izan ziradenak, arrapatuko dituzte, eta ezagutuko dezute, ejerzituen Jaunak bialdu nauela.

10. Kantatu itzatzu alabantzako himnoak, eta bozkariotu zaite, o Siongo alaba, zeren begiratu ezazu, Ni banator, eta zure erdian biziko naiz, esaten du Jaunak.

11. Eta egun artan erreñu asko Jaunagana allegatuko dirade, eta izango ere dira nere erria, eta ni zure erdian biziko naiz, eta zuk ezagutuko dezu ejerzituen Jaunak zugana bialdu nauela.

12. Eta Judaren jabe izango da, beren herenzia bezela lur santaan (sic), eta berriz Jerusalen autuko du.

13. Mundu guztia egon bedi ixillik Jaunaren aurrean; zeren jaiki dan bera, eta bere toki santutik atera dan.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta Jaunak ikusi erazi zidan Jesus, Apaiz nagusia, zeñ zegoan zutik Jaunaren aingeruaren aurrean, eta Satan bere eskuietara zegoan berari aurkeztzeko.

2. Eta Jaunak Satanasi esan zion: Errierta egin dizakala Jaunak, o Satanas, errierta egin dizakala Jaunak, o Satanas, diot berriz, zeñak Jerusalen beretzat autu duen. Ez al da au sutatik ateratako illeti bat?

3. Eta Jesus soñeko zikiñakin jantzia zegoan, eta aingeruaren aurrean irautzen zuen zutik.

4. Zeñak erantzun zuen, eta bere aurrean zeudenai esan zien: Soñeko zikiñak kendu zaiozkazute. Eta berari esan zion: Ona emen non zure gaiztakeria gañetik kendu dizudan, eta galako soñekoakin jantzi erazi zaitut.

5. Eta gañera esan zuen: Jarri zaiozute buruan tiara garbi bat, eta jarri zioten buruan tiara garbi bat, eta soñekoak aldatu ziozkaten. Bitartean Jaunaren aingerua zutik zegoan.

6. Eta Jaunaren aingeruak Jesusi onela itz egin zion, esaten ziola:

7. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Nere bideetatik ibilliko baziña, eta nere aginduak zaituko baziñitza, zu ere izango zera nere etxeko Juez, eta nere tenploko gordetzallea, eta emango dizkizut orain emen aurrean dauden aingeruetatik batzuek, zurekin joan ditezen.

8. Aditu ezazu zuk, o Jesus apaiz nagusia, zuk eta zure adiskide, zurekin bizi diranak, zeñak mirarizko gizonak diraden. Aditu ezazu bada esaten dedanera: Nik nere serbitzari Sortaldeari, etorri eraziko diot.

9. Zeren ona emen nik Jesusen aurrean ipiñi nuen arria, arri bakarra, eta zeñak zazpi begi dauzkan. Ona emen non nik zizelarekin landuko dedan, esaten du ejerzituen Jaunak, eta egun batean aurtikiko det nik lur artatik gaiztakeria.

10. Egun artan, esaten du ejerzituen Jaunak, ots egingo dio bakoitzak bere adiskideari bere parraren, eta bere pikoaren itzalera.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta biurtu zan nerekin itz egiten zuen aingerua, eta esnatu ninduen, bere lotatik esnatzen dan gizon bat bezela.

2. Eta esan zidan: Zer da ikusten dezuna? Nik ikusten det, erantzun nuen, kandelero bat, guztia urrezkoa, daukana gañean lanpara bat, eta zazpi lanparatxo, eta zazpi oditxo, esan diraden, kandeleroaren zazpi argientzat;

3. Eta onen ondoaren gañean olibo bi, bata lanpararen eskuietara, eta bestea bere ezkerretara.

4. Eta bereala esan nion, nerekin itz egiten zuen aingeruari: O nere Jauna, zer dirade oiek?

5. Eta erantzun zuen, nerekin itz egiten zuen aingeruak, eta esan zidan: Beraz ez dakizu zuk gauza oiek zer adirazten duen? Ez, nere Jauna, esan nuen nik.

6. Orduan erantzun zidan berak, eta esan zidan: Au da Jaunak Zorobabeli esaten dion itza: Ez da izango ejerzitu baten bitartez, ez indarrez, baizik nere espirituaren bertutez, esaten du ejerzituen Jaunak.

7. Zer zera zu, o mendi andia, Zorobabelen aurrean? Zelai batera biurtua izango zera. Berak arri nagusia ipiñiko du, eta bere grazia, aren graziarekin berdinduko du.

8. Eta itz egin zidan Jaunak, eta esan zidan:

9. Zorobabelen eskuak jarri dituzte Tenplo onen zimenduak, eta bere eskuak berak bukatuko dute, eta ezagutuko dezute, ejerzituen Jaunak zuekgana bialdu nauela.

10. Zeñ da egun txikiak mezpreziatu zituena? Bada au poztuko da, eta Zorobabelen eskuan berunezko arria ikusiko du. Oiek dira Jaunaren zazpi begi, lur guztitik dabiltzanak.

11. Eta nik erantzun nuen, eta esan nion: Kandeleroaren eskuieko eta ezkerreko olibo bi oiek, zer dirade?

12. Eta berriz galdetu nuen, eta esan nion: Zer dirade oliboen errama urrezko punta bien aldean daudenak, non urrezko tutuluak dauden?

13. Eta erantzun zidan, esaten zuela: Ez al dakizu zer diraden oiek? Ez, Jauna, erantzun nuen.

14. Eta berak erantzun zuen: Oiek dirade Jaungoikoaren bi igortziak, zeñak dauden mundu guztiko Agintariaren aurrean.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Eta biurtu nintzan, eta jaso nituen begiak, eta ikusi nuen liburu bat, egan zebillala.

2. Eta aingeruak esan zidan: Zer da ikusten dezuna? Nik ikusten det, erantzun nuen, liburu bat, egan egiten duena, eta da ogei bat besokoa luzeeran, eta amarrekoa zabaleran.

3. Eta berak neri esan zidan: Au da lur guztiaren gañera isuriko dan madarikazioa; zeren lapur guztiak, liburu artan eskribitua dagoanaren araura, izango dirade kondenatuak; eta gezurrezko juratzalleak ere, berak kondenatuak izango dirade.

4. Nik aterako det kanpora, esaten du ejerzituen Jaunak, eta eroriko da lapurraren etxearen gañean, eta nere izenean gezurrarekin juramentu egiten duenaren gañean, eta bere etxeen erdian jarriko da, eta desegingo ditu beren zur, eta arriakin batean.

5. Eta nerekin itz egiten zuen aingerua irten zan kanpora, eta esan zidan: Jaso itzatzu zure begiak, eta begiratu ezazu, zer dan agertzen dan ori.

6. Eta nik esan nuen: Zer da ori? Da, erantzun zuen, pegar bat, aurrean jartzen zatzuna, eta gañera esan zuen: Ori da Israelko lur guzian berak begiratzen duena.

7. Eta ikusi nuen gero, berunezko talentu bat ekartzen zutela, eta ikusi nuen emakume bat pegarraren erdian eseria.

8. Eta aingeruak esan zuen: Au gaiztakeria da, eta pegarraren barrenera aurtiki zuen; eta ontzi aren aoaren gañean berun zatia ipiñi zuen.

9. Eta jaso nituen nere begiak, eta begiratu nuen, eta ona emen non zetozten bi emakume, zeñaen egoak aizeak mugitzen zituen; zeñak ziran miruaren egoak bezelakoak, eta jaso zuten pegarra zeruaren eta lurraren bitartera.

10. Eta esan nion nik, nerekin itz egiten zuen aingeruari: Nora daramate berak pegarra?

11. Sennaarko lurrera, erantzun zidan, an etxe bat egin dizakeon, eta gelditu dedin an jarria, eta bere ondopearen gañean eseria.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta berriz jaso nituen nere begiak, eta begira egon nintzan, eta ona emen lau kotxe andi, eta ederki apaindutako, irtetzen ziradenak bi mendien erditik, eta mendi oiek brontzezko mendiak ziran.

2. Lenbiziko kotxeak zeuzkan zaldi gorriak, eta bigarrenak zaldi beltzak.

3. Irugarren kotxeak zaldi zuriak, eta laugarrenak zaldi pintanuak, eta errutsuak.

4. Eta galdetu nion nerekin itz egiten zuen aingeruari: Zer da, nere Jauna, gauza oiek adirazten dutena?

5. Eta erantzun zuen aingeruak, eta esan zidan: Oiek dirade zeruko lau aize, irtetzen diradenak, lur guztiko Agintariaren aurrean jartzeko.

6. Zaldi beltxak zeuzkan kotxea, ifarreko aldameneko lurrerontz zuzentzen zan, eta bere ondoren zijoazen zaldi zuriak; eta zaldi pintanuak Egoeko aldameneko lurrerontz atera ziraden.

7. Eta oiek, zeñak, ziradenak bizkorrenak, atera ziradeneko lur guztitik ibilli nai zuten. Eta aingeruak esan zien: Zoazte, ibilli zaitezte lurrean; eta egiaz lur guzitik ibilli ziran.

8. Eta ots egin zidan, eta itz egin zidan, esaten zuela: Begiratu ezazu ifarreko aldameneko lurrerontz zuzentzen diraden aiek, egin dute, nere espirituak ifarreko aldameneko lurrean atseden dezala.

9. Eta Jaunak itz egin zidan, esaten zuela:

10. Artu itzatzu, katiberiotik etorri diran aien eskeñtzak, au da, Holdairenak, eta Tobiasenak, eta Idaiasenak, eta egun artan zu joango zera, eta sartuko zera, Josias, Sofoniasen semearen, bera ere Babiloniatik etorri zanaren, etxean.

11. Eta urrea, eta zillarra artuko dituzu, eta egingo dituzu koroa batzuek, zeñak ipiñiko dituzun Jesus Apaiz nagusi, Josedek-en semearen buruaren gañean;

12. Zeñi onela itz egingo diozun: Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Ona emen arako gizona, zeñaen izena dan Sortaldea, eta bera beragandik jaioko da, eta Jaunari tenplo bat egingo dio.

13. Berak jasoko dio Jaunari tenplo bat, eta geldituko da gañetik gloriaz jantzirik, eta eseriko da, eta erreñatuko du bere egoleku goratuaren gañean, eta apaiza bere tronuaren gañean egongo da, eta tronu bien artean pakea, eta elkartasuna egongo da.

14. Eta izango dirade koroeak oroipengarri bat bezela Helementzat, eta Tobiasentzat, eta idaiasentzat, eta Hem Sofoniasen semearentzat, Jaunaren tenploan.

15. Eta toki urrutietan daudenak etorriko dirade, eta Jaunaren tenploa egiteko lanetan ariko dirade, eta ezagutuko dezute, ejerzituen Jaunak zuekgana bialdu ninduela. Baña au izango da, baldin zuek zuen Jaun Jainkoaren boza aditu nai badezute.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Dario erregearen laugarren urtean, Jaunak Zakariasi itz egin zion, bederatzigarren illaren laugarren egunean, zeñ dan Kasleurena.

2. Sarasar eta Rogommelek eta berarekin zegoan jendeak bialdu zituztenean Jaungoikoaren etxera, orazio egitera Junaren aurrean;

3. Galdetzera ejerzituen Jaunaren etxeko apaizai, eta profetai, esaten zutela: Nik negar egin bear al det bosgarren illean, edo garbitu bear al naiz, egin dedan bezela, katiberioak iraun zuen asko urteetan?

4. Eta itz egin zidan ejerzituen Jaunak, eta esan zidan:

5. Erantzun zaiezu lurreko erri guztiari, eta apaizai, eta esan zaiezu: Barau egiten zendutenean, eta negarrez ari oi ziñatenean bosgarren, eta zazpigarren illean irurogeita amar urtean, nigatik barauak egin al ziñituzteen?

6. Eta jaten zendutenean, eta edaten zendutenean, ez al zenduten egiten zuekgatik begiratzen zendutela?

7. Ez al dirade gauza oiek Jaunak esan zituenak, lenagoko profeten bitartez, oraindikan zegoala Jerusalen jendez betea, eta ondasun andiakin, ala bera, nola aldeko erriak, eta Egoeko aldamena, eta bere landak ere, jendez beteak?

8. Eta Jaunak Zakariasi itz egin zion esaten ziola:

9. Oiek dirade ejerzituen Jaunak agintzen dituenak: Juzgatu ezazute egiaren eta justiziaren araura, eta zuetatiko bakoitzak egin itzatzute ugari, urrikaltasuneko obrak, zuen anaiak ganako.

10. Eta etzaiezute gezurrik asmatu andre alargunari, ez umetzurtzari, ez arrotzari, ez beartsuari; eta iñork ere ez beza gauza gaiztorik pensatu bere biotzean projimoaren kontra.

11. Baña berak etzuten aditu nai, eta, alde egiten zutela, atzea itzuli zuten, eta estali zituzten beren belarriak, ez entzuteko.

12. Eta gogortu zituzten beren biotzak diamante bat bezela, ez aditzeko legea, ez Jaunak bere espiritu, lengo profeten aoan jarritakoaren bitartez zuzendutako itzak. Nondik etorri zan, ejerzituen Jaunaren aserre andia.

13. Eta egiztatu zan berak esan zuena, berak bere itzai aditzerikan eman nai etziela. Ala da, berak ere deadarrez ots egingo dutela, esaten du ejerzituen Jaunak, eta nik ez ditut adituko.

14. Eta barreiatu nituen, berentzat ezezagunak ziraden erreñu guzietatik, eta beren lurra arrasatua gelditu zan, etzegoala iñor ere andikan iragotzen zanik. Onela eremu biurtu zuten atsegiñezko lurra zana.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta itz egin zuen ejerzituen Jaunak, eta esan zuen:

2. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Nik Sionen zelo andiak iduki ditut, eta beragatik iduki ditudan nere zeloak, txit aserretua jarri ninduten.

3. Baña oiek esaten ditu Ejerzituen Jaunak: Ni orain Sionera itzuli naiz, eta Jerusalenen erdian biziko naiz; eta Jerusaleneri ots egingo zaio, Egiaren erria, eta ejerzituen Jaunaren mendia, Mendi Santua.

4. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Oraindikan ikusiko dirade Jerusalengo karrikaetan gizaseme eta emakume zarrak, eta lagun asko beren edade andiagatik, eskuan makilla dutela joango diranak.

5. Eta erriko karrikak mutiltxoz eta neskatxatxoz beteak egongo dirade, zeñak joango diran bere plazaetan jostatzera.

6. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Au gauza gaitza dala irudituko bada ere denbora artan, erri onetan geldituko diradenen iritzian, neretzat gauza gaitza izango al da? esaten du ejerzituen Jaunak.

7. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Ona emen non nik aterako dedan nere erria eguzkiaren Sortaldeko lurretik, eta Sartaldeko lurretik gaitzikan batere artu gabe.

8. Eta berriz ekarriko det, Jerusalenen erdian bizi dedin; eta berak nere erria izango dirade; eta ni beren Jaungoikoa izango naiz egian eta justizian.

9. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Sendotu bitez bada zuen besoak, o zuek, egun oietan profeten aotik alako itzak aditzen dituzutenenak, orain, jarri diradenean onezkero ejerzituen Jaunaren Etxeko zimenduak Tenploa egiteko.

10. Zeren egun oiek baño lenago, gizonak berentzat onerarik atera gabe ari ziraden lanean, eta abereak mesederik atera gabe ari ziraden lanean, eta ez sartzen ziradenak, ez irtetzen ziradenak zeukaten pakerik, arkitzen ziraden atsekabeagatik, utzi nien ezkero nik bata bestearekin gerran egon zedilla.

11. Baña orain ez det nik egingo, esaten du ejerzituen Jaunak, len egin nuena, erri onen kutsuakin.

12. Baizik izango dirade jende txit doatsu baten etorkia. Mastiak bere frutua emango du, eta lurrak bere muskilla botako du; eta zeruak beren intza bialduko dute; eta egingo det, erri onen kutsuak ondasun ugari guzi oiekin bizi ditezela.

13. Eta gertatuko da, nola zuek Judako etxekoak, eta Israelko etxeak ziñaten madarikatuak erreñuen artean; ala nik salbatuko zaituztet; eta bedeikatuak izango zerate. Etzaitezte beldurtu; asnasa artu ezazute,

14. Zeren ejerzituen Jaunak oiek esaten dituen: Nola nik zuek kastigatzea erabaki nuen, esaten du Jaunak, zuen gurasoak neri aserretu erazi zidatelako;

15. Eta ez nuen zuekin urrikaltasunik iduki; ala kontrara, erabaki det, egun oietan mesedez betetzea Judako, eta Jerusalengo etxea. Ez daukazute zertan ezeren ere beldurrik iduki.

16. Au da bada egingo dezutena: Egia esan beza bere projimuarekin zuetatiko bakoitzak. Eman itzatzute zuen tribunaletan egiazko sentenziak, eta pakeko juizioak.

17. Eta ez bitza iñork ere bere biotzean asmazio gaiztoak iduki bere projimuaren kontra, eta gorrotoz begiratu zaiozute gezurrezko juramentuari, zeren gauza guzi oiek nik gorrotatzen ditudanak dirade, esaten du Jaunak.

18. Eta ejerzituen Jaunak itz egin zidan, esaten zidala:

19. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Laugarren illeko baraua, eta bosgarren illeko baraura, eta zazpigarren illeko baraua, eta amargarren illeko baraua, gozotasuneko eta bozkarioko egunetan, eta jai andietan biurtuko dira; bakarrik zuek egia eta pakea maitatzen badezute.

20. Oiek esaten ditu ejerzituen Jaunak: Oraindikan erriak etorriko dirade, eta asko erri jendez beteko dituzte;

21. Eta erri batean bizi diradenak, joango dira esatera bestekoai: Goazen orazio egitera Jaunaren aurrean, eta ejerzituen Jauna billatu dezagun. Goazen, erantzungo dute, gu ere joango gerade.

22. Eta etorriko dirade Jerusalenera erri asko, eta erreñu almentsuak ejerzituen Jaunaren billa, eta bere aurrean orazio egitera.

23. Ala esaten du ejerzituen Jaunak: Au izango da amar gizon izkuntza bakoitzekoak, eta erreñu bakoitzekoak arrapatzen dutenean judu bat, eltzen diotela bere soñekoaren ertzetik, eta esaten diotenean: Zurekin joango gera, zeren ezagutu degun egiaz Jaungoikoa zuekin dagoala.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Jaunaren berri garratza Hadrak-ko lurraren kontra, eta Damaskoren kontra; zeren Jaunaren begiak begiratzen dien gizon guziai, eta Israelko tribu guztiai.

2. Ematko erria ere arrapatua dago, berri garratz onen mugaen barrenen, eta orobat Tiro eta Sidon, zeren uste duten, jakinduria andia daukatela.

3. Tirok egin ditu bere baluarteak, eta montoitu du zillarra, lurra balitza bezela, eta urrea karrikaetako basatza balitza bezela.

4. Ona emen non Jauna bere jabe egingo dan, eta ondatuko duen itsasoan bere sendotasuna, eta suaren bazka izango da.

5. Askalon, au ikusiaz, arritua geldituko da; eta andia izango da Gazaren oñazea; baita Askaronena ere, zeren berak itxedotzen zuena, iritxi gabe gelditzen dan; eta Gazak bere erregea galduko du, eta Askalon jende gabe geldituko da.

6. Eta Azoto izango da arrotzen egolekua, eta nik Filistintarren urgulleria beeratuko det.

7. Eta bere aotik odola kenduko det, eta bere ortzen artetik nazkagarriak; eta berak ere gure Jaungoikoaren mendean geldituko dirade, eta izango dirade erri andienetatiko bateko aldekoak Judan bezela, eta Akaronen bizi dana, Jebustarra bezelakoa izango da.

8. Eta nere etxea zaitzeko ipiñiko ditut, nere serbitzoko soldadutzara dijoazenak, eta andikan datoztenak; eta ez da berriz agertuko beren artean eskalea; zeren nik orain, begi urrikaltsuakin begiratzen diedan.

9. O Siongo alaba, txit bozkariotu zaite; pozez gora goraka ari zaite, o Jerusalengo alaba. Ona emen non zugana etorriko dan zure Erregea,

Justoa, Salbatzallea. Bera beartsu etorriko da, asto eme baten, eta bere astokumetxoaren gañean.

10. Orduan desegingo ditut Efraimgo gerrako gurdiak, eta Jerusalengo zaldiak; eta uztai gerrariak zatituak izango dirade; eta errege hurak jendeai pakea adiraziko die; eta itsaso batetik bestera agintatuko du, eta ibaietatik lurraren mugetaraño.

11. Eta zuk zerorrek, o Salbatzallea, zure testamentuko odolaren bitartez, irten erazi diezu zureai, katibu zeudenai, urik ez dagoan putzutik.

12. Zuzendu itzatzute zuen pausoak erri murruturontz, o zuek katibu, itxedopena daukazutenak; zeren adirazten dizut, o nere erria, bi alditan anbat ondasun emango dizudala.

13. Zeren nik egin dedan Judarekin uztai zabaldu bat bezela nere serbitzorako, eta uztai zabaldu bat bezelakoa da neretzat Efraim ere. Eta zure semeai, o Sion, emango diet nik indarra, zure semeen gañean, o Grezia; eta egingo zaitut garaitu eziña sendoen ezpata bezela.

14. Eta beren gañera agertuko da Jaun Jainkoa, zeñak aurtikiko dituen bere dardoak oñazkarrak bezela, eta Jaun Jainkoak tronpeta joko du, eta Egoeko aizebunbaden artean joango da.

15. Ejerzituen Jauna bere gordetzallea izango da, eta desegingo dituzte, eta azpiratuko dituzte beren etsaiak abaillazko arriakin; eta edaten dutela beren odola, moiskortuko dirade ardoarekin bezela; eta berarekin beteko dirade, betetzen diraden bezela edanontziak, eta aldarearen kantoiak urez bustitzen diraden bezela.

16. Eta beren Jaun Jainkoak salbatuko ditu egun artan, bere erriko talde autua bezela; zeren arri santuen gisara bere lurrean goratuak izango dira.

17. Baña zeñ izango da beragandik etorritako gauza ona, eta beragandik etorriko zagun gauza ederra, autuen garia, eta birjiñak sortzen dituen ardoa baizik?

AMARGARREN KAPITULUA

1. Eskatu zaiozkazute Jaunari beranduko euriak, eta Jaunak elurra ere bialduko du, eta emango dizute euria ugari, eta belarra zuetatiko bakoitzaren kanpoan.

2. Zeren ikusi dezute, idoloak erantzun alperrak eman dituztela, eta aztiak dauzkaten ikusketak gezurrezkoak diradela, eta ameslariak ganora gabe itz egiten dutela, utsean gelditzen diran bozkario batzuek ematen dituztela. Argatik zuen guraso siniskorrak, izan ziraden katiberiora eramanak, artalde bat bezela; zeren artzai gabe zeuden.

3. Nere aserrea artzaien kontra erazeki da, eta akerrak kastigatuko ditut, zeren ejerzituen Jaunak zaituko du bere artaldea, Judako etxea, eta gerran bere zaldirik onena balitza bezelakoa egingo du.

4. Judatik aterako da txokezkia, beratatik estaka, beratatik uztai gerraria; berebat beragandik aterako dirade eskale guztiak.

5. Eta izango dirade gudari errutsuak bezelakoak, gudan etsaiak zapalduko dituztenak, karrikaetan lokatza zapaldua dan bezela, eta ariko dirade gudan, beren alde Jauna daukatela; eta zaldi ederren gañean dijoazanak, nastuak geldituko dirade.

6. Eta nik sendotuko det Judako etxea, eta Joseren etxea salbatuko det, eta beren errakuntzetatik itzuli eraziko diet; zeren berakin urrikalduko naizan; eta izango dirade, nik aurtiki baño lenago izan ziraden bezelakoak; ni beren Jaun Jainkoa naizan ezkero, eta onez adituko ditut.

7. Eta Efraimgo azkarrak bezelakoak izango dirade, eta beren biotza bozkarioz egongo da, ardoa edaten duenarena bezela; eta beren semeak, ikusten dituztenean, txit gozatuko dira, eta beren biotza Jaunagan bozkariotuko da.

8. Nik bilduko ditut txistu batekin; zeren nik erreskatatu ditudan, eta ugarituko ditut, len ugaritutzen ziraden bezela.

9. Eta erreñuen artean barreiatuko ditut, eta erririk urrutienetan ere nerekin oroituko dira; eta beren semeakin batean biziko dira, eta itzuliko dira.

10. Nik bada Ejiptoko lurretik ekarriko ditut, eta bilduko ditut Asiriatik, eta Galaadko eta Libanoko lurrera eramango ditut, eta berentzat bear dan adiña toki ez da arkituko.

11. Eta itsasoaren toki estua iragoko dute, eta Jaunak itsasoaren bagak joko ditu, eta ibaiaren toki zakonak agirian geldituko dira; eta Assurren urgulleria umillatua geldituko da, eta Ejiptoren gogortasuna, bukatuko da.

12. Eta Jaunagan sendotuko ditut, eta nere izenean aurrera joango dirade, esaten du Jaunak.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Idiki itzatzu, o Libano, zure ateak, eta suak zure zedroak iretsi bitza.

2. Egin itzatzu inziriak, o abetoa, zeren zedroak erori diran; zeren beera aurtikiak izan diran zuaitzik goratuenak. Zaudete inziriaka, o Basango arteak, zeren baso sendoa ebakia izan dan.

3. Artzaien inzirien boza aditzen da, zeren beren anditasuna desegiña izan dan. Leoien orroen boza da, zeren Jordanen urgulleria beeratua izan dan.

4. Nere Jaun Jainkoak oiek esaten ditu: Bazkatu itzatzu iltokiko ardi oiek,

5. Zeñak beren jabeak eriotzara bialtzen zituzten, beren urrikalmendurik iduki gabe, eta saltzen zituzten, esaten zutela: Bedeikatua izan dedilla Jauna, gu aberastu gerade. Eta beren artzai aiek etzeukaten beren urrikalmendurik.

6. Bada nik ere ez det onezkero lur onetan bizi diradenen urrikalmendurik batere idukiko, esaten du Jaunak. Ona emen non nik utziko ditudan gizon oiek, bakoitza aldekoaren mendean, eta bere erregearen mendean, eta beren lurra arrastua geldituko da, eta beren eskuetatik ez ditut libratuko.

7. Eta argatik, o artaldeko gaxoak, iltokiko abere oiek nik bazkatuko ditut. Onetarako egin nituen bi zaimakilla, zeñatatik batari jarri nion izena dan Edertasuna, eta bestearena Soka, eta aberetaldea bazkatu nuen.

8. Eta iru artzai illerazi nituen ill batean, eta berakgatik nere anima ansiatu zan, zeren beren animak ere etzuten iraun sendo nigan.

9. Eta esan nuen: Ez det nai onezkero zuen artzai izan, iltzen dana, il dedilla, eta iltzen dutena, il dezatela, eta gañerakoak iretsi dezala bakoitzak bere projimuaren aragia.

10. Eta artu nuen nere zaimakilla, Edertasuna izena zuena, eta ausi nuen, adirazteko ausitzen nuela, erri guztiakin egin nuen elkartasuna.

11. Eta gelditu zan ezereztua egun artan, eta nere artaldeko gaxo, nere aginteak zaitzen dituztenak, ezagutu dute ala, au dala Jaunaren itza.

12. Nik ordea berai esan nien: Ongi baderitzatzute, eman zadazute nere alogera, eta bestela, utzi zaiozute dagoala. Eta berak pisatu zituzten ogeita amar siklo zillarrezko, nere alogeratzat.

13. Eta Jaunak esan zidan: Eman zaiozu eltzegilleari, ni preziatu nauten prezio eder ori. Artu nituen bada zillarrezko ogeita amar sikloak, eta aurtiki nituen Jaunaren Etxean, eltzegilleari eman zizaiezteen.

14. Eta ausi nuen nere bigarren zaimakilla, Soka izena zuena, adirazteko Judaren eta Israelen arteko anaetasuna ausitzen zala.

15. Gero Jaunak esan zidan: Artu itzatzu artzai zentzugabeko eta gaizto baten taldeak,

16. Zeren ona emen non nik jasoko dedan lurrean artzai bat, utziak dauden ardiak bisitatuko ez dituena, eta barreiatuak billatuko ez dituena, eriak sendatuko ez dituena, osasunarekin daudenak bazkatuko ez dituena, baizik gizenen aragiak jango dituena, eta beatzalak ere ausiko diozkatena.

17. O artzaia, edo obekiago, artzai irudipena, artaldea bakarrik utzitzen dezuna! Jaungoikoaren bengantzaren ezpatak zaurituko du besoan, eta bere eskuieko begian. Bere besoa sikatuko da, eta idortua geldituko da, eta bere eskuieko begia illuntasunez estalita lausotuko zaio.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Jaunaren berri garratza Israelen kontra. Esaten du Jaunak, zeruak zabaldu zituenak, eta lurraren zimenduak jarri zituenak, eta gizonak bere barrenen daukan espiritua formatzen duenak:

2. Ona emen non nik egingo dedan Jerusalenekin jateketako eta ordikeriako toki bat, inguruetako erri guztientzat; eta Juda bera ere, Jerusalengo setioan egongo da.

3. Eta nik egingo det egun artan, Jerusalen izan dedilla arri txit andi bat bezelakoa erri guztientzat, eta bera altxatzen asitzen diraden guztiak, larrua urratuta geldituko dirade. Lurreko erreñu guztiak bere kontra elkartuko dirade.

4. Egun artan, esaten du Jaunak, zaldiak arria bezela, eta zaldi gañekoak illak bezela utziko ditut, eta idikirik nere begi urrikaltsuak, Judako etxearen gañean ipiñiko ditut; eta itsutuko ditut erreñu guztietako zaldiak.

5. Eta Judako agintariak beren biotzetan esango dute: Jerusalenen bizi diradenak, beren itxedopena beren Jaungoiko ejerzituen Jaunagan jarri bezate.

6. Egun artan egingo det, Judako agintariak izan ditezela, suzko txingarrak egur leorraren azpian bezela; eta gar erazekia belarluze sikuaren azpian bezela, ezker, eskuietara erreko dituzte inguruan dauden erri guztiak, eta Jerusalenen biziko da jendea, Jerusalen len zegoan tokian bertan.

7. Eta Jaunak zaituko ditu Judako beste etzauntzak, len asieran bezela, Dabiden etxea txit gloriaz betea izan ez dedin; eta Jerusalenen bizi diradenak Judaren kontra urgullutu ez ditezen.

8. Jaunak egun artan zaituko ditu Jerusalenen bizi diradenak, eta beren arteko erbalenak izango dirade denbora artan beste Dabid batzuek, eta Dabiden etxea izango da beren aurrean, Jaungoikoaren etxea bezelakoa, Jaunaren aingeru bat bezelakoa.

9. Eta nik egun artan artuko ditut neurriak, Jerusalenen kontra datozten jende guztiak desegiteko.

10. Eta Dabiden etxearen gañera, eta Jerusalenen bizi diradenen gañera, graziako, eta orazioko espiritua isuriko det; eta beren begiak ipiñi-

ko dituzte nigan, zeñ burniz batetikan bestera irago zuten; eta negar egingo dute zauritu duenagatik, Seme bakar baten eriotzan negar egiten dan bezela; eta beragatik progua egingo dute, Seme lenbizisortu baten eriotzan egin oi dan bezela.

11. Egun artan Jerusalenen negar andia izango da, Adrademmonen progua Majeddongo lauan bezela.

12. Eta lurra lutoz jarriko da; familia batzuek besteakgandik berezituta, berezian Dabiden etxeko familiak, eta berezian beren emazteak.

13. Berezian Natanen etxeko familiak, eta berezian beren emazteak. Berezian Lebiren etxeko familiak, eta berezian beren emazteak. Berezian Semeiren familiak, eta berezian beren emazteak.

14. Berezian beste familietatik bakoitza, eta berezian beren emazteak.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Egun artan egongo da iturri idiki bat Dabiden etxearentzat, eta Jerusalenen bizi diradenentzat, bekatariaren, eta emakume kutsutuaren mantxak garbitzeko.

2. Eta egun artan, esaten du ejerzituen Jaunak, nik arras kenduko ditut lurretik idoloen izenerañokoak, eta ez da beren oroipenik geiago geldituko; eta gezurrezko profetak eta espiritu zikiña lurretik arras kenduko ditut.

3. Eta andikan aurrera, baldin iñork profetizatuko balu, esango diote bere aitak eta bere amak, zeñakgandik sortua izan zan: Zu illa izango zera, zeren Jaunaren izenean gezurrak zabaltzen dituzun. Eta berak profetizatzen duenean, burniz iragoko dute, bere aita eta ama, izatea eman ziotenak.

4. Eta geldituko dira nastuak egun artan profetak, bakoitzak bere ikusketagatik profetizatzen dutenean, eta ez dira estaliko penitenziako mantuarekin, gezurra esateko;

5. Baizik beretatik bakoitzak esango du: Ez naiz ni profeta. Lurraren langille bat naiz ni. Adan izan da nere irudia nere gazte denboratik.

6. Eta esango diote: Zer zauri dirade oiek zuen eskuen erdian? Eta erantzungo du: Maitatzen nindutenen etxean, zauri oiek egin zizkidaten.

7. O ezpata! Magitikan irten adi nere artzaiaren kontra, eta nerekin elkartua dagoen gizonaren kontra, esaten du ejerzituen Jaunak, zauritu ezak artzaia, eta barreiatuko dituk ardiak, eta luzatuko det nere eskua aurren gañera.

8. Eta gertatuko da lur guztian, esaten du Jaunak; bertan bizi diranetatik bi zati izango dirade barreiatuak, eta galduko dirade; eta irugarren zatia bertan geldituko da.

9. Eta irugarren zati oni, sutatik iragoeraziko diot, eta garbituko det zillarra garbitzen dan bezela; eta sukatilluz garbituko det, urrea sukatilluz garbitzen dan bezela. Berak nere izenari ots egingo diote, eta nik urrikaltasunez adituko ditut. Nik esango det: Zu nere erria zera; eta berak esango du: Zu nere Jaungoiko eta Jauna zera.

AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Ona emen non Jaunaren egunak datozten, eta zuri arrapatutako gauzak zure erdian partituko dira.

2. Eta nik bilduko ditut erreñu guziak, joan ditezen Jerusalenen kontra gudatzera, eta erria arrapatua izango da, eta etxeak beera aurtikiak, eta emakumeak bortxatuak; eta erriko jenderik erdia katiberiora eramana izango da, eta jendearen gañerakoa, errian geldituko da.

3. Eta aterako da gero Jauna, eta gudan ariko da erreñu aien kontra, guda artako egunean gudan ari zan bezela.

4. Berak egun artan jarriko ditu bere oñak oliboen mendiaren gañean, zeñ dagoan Jerusalengo aurkez, Sortalderontz. Eta oliboen mendia zatituko da erditik Sortalderontz, eta Sartalderontz epai txit andi batekin; eta mendiaren erdiak alde egingo du ifarrerontz, eta beste erdiak Egoerontz.

5. Eta zuek iges egingo dezute mendi aien ibarrera; zeren mendi aien ibarra aldeko mendiari itsatsia egongo da, eta iges egingo dezute, iges egin zenduten bezela lurdardararen beldurrez, Ozias Judako erregearen denboretan. Eta etorriko da Jauna, nere Jaungoikoa, eta santu guztiak berarekin.

6. Eta egun artan ez da argirik egongo; baizik bakarriz otza, eta jela.

7. Eta etorriko da egun bat, Jaunak bakarrik ezagutua dana, zeñ ez dan izango ez eguna, ez gaua, baña arratsaldearen atzenean argia agertuko da.

8. Eta egun artan ur bizi jarioak egongo dira Jerusalenen, beretatik erdia sortaldeko itsasorontz, eta beste erdia sartaldeko itsasorontz. Beti jarioan egongo dirade udan eta neguan.

9. Eta Jauna lur guztiko erregea izango da, denbora artan Jauna bakarra izango da; eta ez da beste izen beneragarririk egongo, berea baño.

10. Eta Judako lurra berriz, jendez betea izango da Eremuraño, Remmonen muñotik Jerusalengo Egoeko aldameneraño; eta goratua

izango da, eta bere tokian jendea biziko da, Benjaminen atetik, lenbiziko ateko tokiraño, eta kantoien ateraño, eta Hananeelen dorretik erregearen dolareetaraño

11. Eta bertan jendea biziko da, eta ez da madarikatua izango; baizik Jerusalenek beldurrikan gabe atsedengo du.

12. Jaunak Jerusalenen kontra gudatu diran jende guziak, zaurituko dituen plaga, au izango da: Konsumituko zaiozka bakoitzari bere aragiak, zutik dagoala, eta ustelduko zaiozka begiak bere zakon unetan; eta bere mingaña, bere aoan desegingo zaio.

13. Egun artan Jaunak mugituko du matxiñada andi bat beren artean, eta bakoitzak bestearen eskuari elduko dio, eta atzemango dio bere anaiaren eskuari.

14. Eta Juda bera gudatuko da Jerusalenen kontra: eta bilduak izango dirade inguruetako jende guztien ondasunak, urrea, eta zillarra, eta soñekoak ugaritasun andian.

15. Eta zaldiak, eta mandoak, eta gameluak, eta astoak, eta kanpo aietan arkitzen diran abere guztiak, galmen onek arrapatuko ditu.

16. Eta Jerusalenen kontra etortzen diran jende guztietatik, gelditzen diraden guztiak, igoko dira urte guztietan Erregea, ejerzituen Jauna adoratzera, eta Tabernakuloen jaia zelebratzera.

17. Eta Judako lurreko familietatik edozeñ izan dedilla, eta joango ez balitza Jerusalenera adoratzera erregea, zeñ ejerzituen Jauna dan, ez da euririk berentzat etorriko.

18. Eta baldin Ejiptoko familiaren bat ez balitza mugituko, eta etorriko ez balitza, bere gañera ere ez du euririk egingo; baizik Jaunak kastigatuko ditu galmen oso batekin, Tabernakuloen jaia zelebratzera joaten ez diraden jende guztiak.

19. Au izango da Ejiptoren bekatu andia, eta au jende guztien bekatua, Tabernakuloen jai andia zelebratzera ez joatea.

20. Egun artan zaldiaren brida apaintzen duen gauza eder guztia, Jaunari konsagratua izango da; eta Jaunaren etxeko pertzak, anbat izango dira, zenbat diran aldareko edanontziak.

21. Eta Jerusalengo, eta Judako pertza guztiak, ejerzituen Jaunari konsagratuak izango dirade; eta sakrifizioak eskeñtzen dituzten guztiak, etorriko dira, eta artuko dituzte beretan aragiak egositzeko. Eta denbora artan Jaunaren tenploan ez da merkataririk batere egongo.

MALAKIASEN PROFEZIA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Jaunaren berri garratza Israelen kontra Malakiasen bitartez.

2. Nik maitatu zinduztedan, esaten du Jaunak; eta zuek esan dezute: Zertan maitatu gaituzu? Zer bada! Esaten du Jaunak, Esau Jakoben anaia etzan, eta nik Jakob geiago maitatu nuen,

3. Eta gorrotatu nuen Esau, eta bere mendiak eremu biurtu nituen, utzirik bere soroa basomortuko sugulnai?

4. Eta baldin Idumeatarrak esango balute: Desegiñak izan gera; baña biurtzen geradela, desegiñak egingo ditugu: ona emen ejerzituen Jaunak esaten duena: Berak egingo dituzte, eta nik desegingo ditut; eta izango dirade deituak lur gaiztoa; erria, zeñaen kontra Jauna beti aserretua dagoan.

5. Zuek ikusiko dezute au zuen begiakin, eta esango dezute: Jauna gloriaz betea izan dedilla, Israelko mugak baño arontzago.

6. Semeak bere aita onratzen du, eta mendeko morroiak bere nagusia onratzen du. Bada ni baldin banaiz zuen aita, non da neri dagokidan onra? Eta ni zuen Jauna baldin banaiz, non da neri dagokidan beldurra? Esaten dizute ejerzituen Jaunak zuei, apaiz, nere izena mezpreziatzen dezutenai, eta esaten dezutenai: Zertan zure izena mezpreziatu degu?

7. Zuek eskeñtzen dezute nere aldarearen gañean ogi garbiez bat, eta gero esaten dezute: Zertan zikindu zaitugu? Esaten dezuten orretan, Jaunaren maia mezpreziatua dago.

8. Eskeñtzen badezute abere itsu bat, il, ta eskeñia izateko, ez al da au gaizki egindako gauza bat izango? Eraman zaiozu zure agintariari, eta ikusiko dezu bere gogokoa ote dan, eta ongi artzen ote dizun, esaten du ejerzituen Jaunak.

9. Orain bada, orazio egin itzatzute Jaungoikoaren aurrean, zuekin urrikaldu dedin (zeren alakoa izan dan zuen bizitzako obratzeko era), balitzateke berak onean artzea, esaten du ejerzituen Jaunak.

10. Zeñ dago zuen artean ateak doan itxiko dituenik, eta nere aldarearen gañean sua erazekiko duenik? Nere gogoa ez da zuekganontz, esaten du ejerzituen Jaunak; eta eskeñtzarik batere ez det zuen eskutik ontzat artuko.

11. Zeren Sortaldetik Sartaldera andia da nere izena erreñuen artean, eta toki guztian sakrifikatzen, eta eskeñtzen zaio nere izenari doañ garbi

bat, zeren nere izena erreñuen artean andia dan, esaten du ejerzituen Jaunak.

12. Baña zuek kutsutu dezute, esaten dezutela: Jaunaren maia zikindua dago, eta bere gañean ipintzen dana, mezpreziagarria da, bera konsumitzen duen suarekin batean.

13. Eta zuek esaten dezute: Ona emen gure lanaren frutua, eta mezpreziatzen dezute, esaten du ejerzituen Jaunak, eta abere erren, eta eri bat eskeñtzen dezute; eta ostu dezutenetik eskeñtza bat nere aurrean jartzen dezute. Eta, zer? Zuen eskutik ontzat artuko al det nik?

14. Madarikatua izango da engañalaria, zeñak idukirik bere artaldean aitzakia gabeko abere bat, eta eginik boto bat, aitzakiadun abere bat eskeñtzen diona Jaunari, zeren ni errege andi bat naizan, esaten du ejerzituen Jaunak, eta erreñuen artean nere izena beldurgarria dan.

BIGARREN KAPITULUA

1. Eta orain zuekgana, o apaizak, itz oiek zuzentzen dirade:

2. Baldin ez badezute aditu nai nik esaten dizutedana, eta ez badezute jarri nai zuen biotzetan nere izenari gloria ematea, esaten du ejerzituen Jaunak, nik bialduko det zuen gañera premia, eta madarikatuko ditut zuen ondasunak, eta madarikazioa beren gañera aurtikiko det, zuek nerekin oroitu ere etzeratelako.

3. Begiratu ezazute nik doañaren besonda aurtikiko dizutedala, eta arpegira botako dizutet zuen jai andietako zimaurra, eta bera bezela zapalduak izango zerate.

4. Eta jakingo dezute nik bialdu nizutela mandatu au, izan zedin nere elkartasuna Lebirekin, esaten du ejerzituen Jaunak.

5. Nere elkartasuna berarekin, bizitza eta pakeko elkartasuna izan zan, eta nik nere beldur santua eman nion, eta bera nere beldur izan zan, eta nere izenera dardaraz jartzen zan.

6. Errege-egiaren legea bere aoan, eta bere ezpañetan gezurrik etzan arkitu. Pakean eta berdintasunean nerekin ibilli zan, eta askori gaiztakeriatik alde erazi zion,

7. Zeren apaizaren ezpañetan jakinduriaren gordeleku batek egon bear duen, eta bere aotik legea ikasiko dute; ejerzituen Jaunaren aingerua bera dan ezkero.

8. Baña zuek bidetik alde egin dezute, eta askori gaitzerako bidea eman diozute, legea ausi erazitzen diezutela egin zenduten, Lebiren elkartasuna utsean gelditu zedilla, esaten du ejerzituen Jaunak.

9. Argatik, nola zuek nere bideai ez diezuten jarraitu, eta legea kunplitzean begiratu zenduten zeñ, zeñ dan; nik ere mezpreziagarriak eta zatarrak erri guztien aurrean egin zaituztet.

10. Zer bada? Gure guzioen aita, bat ez al da? Ez al da Jaungoiko bat, izatea eman diguna? Zergatik bada gutatiko bakoitzak bere anaia mezpreziatzen du, gure gurasoen elkartasuna ausitzen duela?

11. Judak fedea ausi zuen, nazkak erreñatu zuen Israelen eta Jerusalenen; zeren Judak kutsutu zuen Jaunaren santutasuna, berak maitatua, eta jainko arrotz baten alabakin egon zan ezkonduta.

12. Argatik Jaunak arras kenduko du Jakoben etzauntzetatik au egiten duen gizona, maesua eta diszipulua, eta ejerzituen Jaunari doañak eskeñtzen diozkana.

13. Eta oraindikan geiago egin dezute, Jaunaren aldarea malkoz, negarrez, eta suspirioz estali dezute; alako moduan, non, ez ditut nik nere begiak itzuliko sakrifizio batera ere, eta ez det ere zuen eskuetatik artuko bigundu nazakean gauzarik.

14. Zuek ordea esan zenduten: Eta, zergatik? Zeren Jauna (erantzuten du Jaungoikoak) testigu izan zan zure artean eta zure lenengo edadean artu zenduen andrearen artean, zeñ mezpreziatu zenduen; izanik bera zure laguna, eta zure esposa, egindako elkartasunaren bitartez.

15. Zer bada? Ez al zuen bera egin, arako Jaun, bat bakarra danak? Eta, ez al da bera, bere espirituaren zatitxo bat? Eta ark Bakarrak, zer da nai duena Jaungoikoaren semeak idukitzea baizik? Gorde ezazute zuen espiritua, eta zure gazte denboran artu zenduen emaztea, ez ezazu mezpreziatu.

16. Gorroto diozunean, utzi ezazu, esaten du Israelko Jaun Jainkoak: baña gaiztakeriak estaliko zaitu guztia, soñekoak estalitzen zaituen bezela, esaten du ejerzituen Jaunak. Zaitu ezazute, o senarrak, zuen espiritua, eta ez ezazute zuen emaztea mezpreziatu.

17. Gogaikarriak izan zerate zuek Jaunarentzat zuen izketakin, eta alaere esaten dezute: Zertan gogaiterazi diogu? Esaten zabiltzaten gauza orretan, obra gaiztoak egiten dituen guztia, ori Jaunaren begietan ona da, eta ori du bere gogokoa, eta ori ala ez bada, justizia egiten duen Jaungoikoa, non arkitzen da?

IRUGARREN KAPITULUA

1. Ona emen non nik nere aingerua bialtzen dedan, zeñak nere aurrean bidea prestatuko duen. Eta bereala etorriko da bere Tenplora,

zuek billatzen dezuten Agintzallea, eta zuek nai dezuten Testamentuko aingerua. Ikusi ezazute ortxe nola datorren, esaten du ejerzituen Jaunak.

2. Eta, nork pensatu dezake, bere etorrerako egunean zer gertatuko dan? Eta, zeñ gelditu liteke berari begiratzeko? Zeren bera, urtzen duen su bat bezelakoa izango da, eta batanarien belarra bezelakoa.

3. Eta eseriko da, zillarra urtu eta garbitzeko bezela, eta onela Lebiko semeak garbituko ditu; eta urrea eta zillarra bezela sukatillutuko ditu; eta berak justiziarekin Jaunari doañak eskeñiko diezte.

4. Eta orduan izango da Judako eta Jerusalengo eskeñtza Jaunaren gogokoa, lenbiziko gizaldietan eta anziñako denboretan bezela.

5. Eta zuekgana alderatuko naiz, zuek juzgatzeko; eta ni laster testigu izango naiz, sorgiñen, adulteroen, eta gezurrezko juralarien kontra, eta alogerekoak beren alogera gabe utziten dituztenen kontra; eta andre alargunak, eta umezurtzak, eta arrotzak mendean jartzen dituztenen kontra, nere beldurrikan batere gabe, esaten du ejerzituen Jaunak.

6. Zeren ni Jauna naizan, eta aldaezgarria; eta argatik zuek, o Jakoben semeak, etzerate konsumituak izan.

7. Zuen gurasoen denboretatik alde egin bezenduten ere nere legeetatik, eta zaitu ez baziñituen ere. Biurtu zaitezte onezkero nigana, eta ni biurtuko naiz zuekgana, esaten du ejerzituen Jaunak. Baña zuek esaten dezute: Zer da egingo deguna, zugana biurtzeko?

8. Gizon batek bere Jaungoikoari iraiñak egin bear al diozka? Zuek berriz neri iraiñak egin dizkidazute. Eta esaten dezute: Nola iraiñak egin dizkizugu? Amarrenai, eta primiziai dagozkien gauzetan.

9. Argatik daukazute gareztiaren madarikazioa, eta zuek, erreñu guztiak, iraiñak egiten dizkidazute.

10. Ekarri ezazute amarren guztia aletegira, nere etxekoak zer jan iduki dezaten, eta gero probatu nazazute onen gañean, esaten du Jaunak, idikitzen ez badizkizutet nik zeruko ataskak, eta bedeikazioak zuen gañera ugaritasunarekin isurtzen ez baditut.

11. Eta zuekgatik errierta egingo diot nik ar iretsitzalleari, eta ez ditu ustelduko zuen lurreko frutuak; eta ez da landaetan egongo solla dan mastirik, esaten du ejerzituen Jaunak.

12. Eta erreñu guztiak doatsuen izena emango dizkizute, zeren zuen lurra bere gurariz egoteko diña izango dan, esaten du ejerzituen Jaunak.

13. Zuen izketa gaizto nere kontrakoak, indarra artu zuten, esaten du Jaunak.

14. Eta zuek esaten dezute: Zer da zure kontra itz egin deguna? Esan dezute: Alperrik serbitzen da Jaungoikoa. Eta, zer onera atera degu guk, bere aginduak gordetzeaz, eta jarraitzeaz tristezaz beteak geundela ejerzituen Jaunaren bideari?

15. Argatik orain urgullutsuai, doatsuak ots egiten diegu; zeren gaizki bizi diradela, egin dituzte irabazi andiak, eta Jaungoikoari aupadaka ari dirade, eta alaere ongi gelditzen dirade.

16. Orduan Jaungoikoaren beldurra daukatenak, batzuek besteakin izketan egon ziraden. Eta Jaungoikoa arretaz egon zan, eta aditu zuen; eta eskribatua izan zan bere aurrean oroipeneko liburu bat, Jaungoikoaren beldur diradenen, eta bere izen santua biotzean daukatenen alde.

17. Eta berak, esaten du ejerzituen Jaunak, egun artan, zeñean nik egiztatuko ditudan nere asmazioak, nere erria izango dirade; eta barkatuko diet, gizon batek bere seme, bera serbitzen duen bati, barkatzen dion bezela.

18. Eta zuek orduan beste iritzi batekoak izango zerate, eta ezagutuko dezute, justoaren eta gaiztoaren artean, eta Jaungoikoa serbitzen duenaren, eta serbitzen ez duenaren artean arkitzen dan desberdintasuna.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Zeren ona emen non allegatuko dan egun hura, labe erazeki baten antzekoa. Eta urgullutsu guztiak, eta gaizto guztiak, mulloa bezelakoak izango dirade; eta etorri bear duen egun hurak erreko ditu, esaten du ejerzituen Jaunak, sustrairik, ez landarerik batere utzi gabe.

2. Baña zuentzat, nere izen sanduaren beldur zeratenentzat, justiziako eguzkia jaioko da, zeñaen egoen azpian salbazioa dagoan, eta zuek kanpora aterako zerate eletaldeko idiskoak bezela.

3. Eta zapalduko dituzute gaizto auts biurtuak, zuen oñen oñazpien azpian, ni obretan ari naizan egunean, esaten du ejerzituen Jaunak.

4. Oroitu zaitezte Moises nere serbitzariaren lege, Israel guztiarentzat Horeben eman nionarekin, zeñean nere aginteak, eta aginduak dauden.

5. Ona emen non nik Elias profeta bialduko dizutedan, Jaunaren egun andi eta ikaragarria etorri dedin baño lenago.

6. Eta berak gurasoen biotza semearenakin bilduko du; eta semeena gurasoenakin, etortzen naizanean, ez dezadan nik lurra madarikazioarekin zauritu.

MAKABEOEN LENBIZIKO LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Gertatu zan Alejandro, Filipo Mazedoniako erregearen semea, eta Grezian lenengo erreñatu zuena, Zetimgo lurretik irten, eta gero; eta Dario, Persaen eta Medoen erregea garaitu zuen ondoan;

2. Irabaztea asko guda; eta toki guzietan erri murrutuen jabe egin zan, eta lurreko erregeak il zituen,

3. Eta irago zan munduaren atzeneko mugetaraño, eta asko erreñutan arrapatutako gauzakin aberastu zan, eta mututurik gelditu zan lurra bere aurrean.

4. Eta bildu zuen martizti andi, gogo eta indar txit sendoko bat, eta bere biotza urgullutu, eta arrotu zan;

5. Eta probinzien, erreñuen, eta beren erregeen jabe egin zan, zeñak bere kotiztari egin zitzaiozkan.

6. Oien guzioen ondoan oean etzin zan, eta ezagutu zuen iltzera zijoala.

7. Eta ots egin zien bere errege uriko gizaseme odol garbiko, berarekin gaztetxotatik azi ziradenai; eta il baño lenago bere erreñua beren artean partitu zuen.

8. Alejandroren erregetzak amabi urtean iraun zuen, eta il zan.

9. Bereala, bere andizkiak erregetzetan jarri ziran, bakoitza berari zegokion erreñuan,

10. Eta bera il, eta bereala, koroatu ziraden guztiak; eta beren ondoren beren semeak urte askotan, eta gaitzak ugaritu ziran lurraren gañean.

11. Eta oien artetik irten zan arako sustrai gaiztoa Antioko Epifanes, Antioko erregearen semea, zeñ egon ezkero katibu fianzan Erroman, asi zan erreñatzen Grieguen agintaritzaren eun eta ogeita amazazpigarren urtean.

12. Denbora artan agertu ziran Israeltar gaizto batzuek, eta onela itz egin zien beste askori, esaten ziela: Goazen, eta inguruetako erreñuakin elkartasuna egin dezagun, zeren berakgandik alde egin genduen denboratik, zorigaitz asko izan ditugu.

13. Eta izketa au ona iritzi zitzaien.

14. Eta erriko batzuek izendatu ziraden, eta joan ziraden egotera erregearekin, zeñak jentillen oituraen araura biziteko eskubidea eman zien.

15. Eta egin zuten Jerusalenen erakustoki bat erreñuen legeen araura.

16. Eta kendu zuten zirkunzisioko usadioa, eta utzi zuten elkartasun Santa, eta bildu ziran erreñuakin, eta gaiztakeriari mendekoak bezela saldu zitzaiozkan.

17. Eta jarririk Antioko Siriako bere erreñuan, artu zituen asmazioak Ejiptoko errege ere bera egiteko, onela erreñu bietako erregetza iduki zezan.

18. Ala bada, sartu zan Ejipton ejerzitu andi batekin, gerrako gurdiakin, eta elefanteakin, eta zaldidiarekin, eta ontzidi andi batekin.

19. Eta ari zala gerran Ptolomeo, Ejiptoko erregearekin, beldur izan zan au Antiokori aurkeztzen, eta iges egin zuen, eta asko illak eta zaurituak izan ziraden.

20. Orduan Antiokok atxitu zituen Ejiptoko erri murrutuak, eta inguru artan zegoan guztia arrapatu zuen.

21. Eta Ejipto arrasatuta gero, itzuli zan Antioko eun eta berrogeita irugarren urtean, eta Israelen kontra zuzendu zan.

22. Eta allegatu zanean Jerusalenera ejerzitu andi batekin,

23. Sartu zan urgulleriaz betea santuarioan, eta artu zituen urrezko aldarea, eta kandeleroa bere lanpara guztiakin, eta edanontzi guziak, eta proposizioko ogien maia, eta palanganak, eta kopak, eta urrezko inzensuontzia, eta beloa, eta koroeak, eta Tenploko aurkean zeuden urrezko apaingarriak, eta guztia zatitu zuen.

24. Berebat artu zituen zillarra eta urrea, eta edanontzi baliotsuak, eta ezkutatuak arkitu zituen tesoroak, eta arrapaturik guztia, bere errira itzuli zan;

25. Eta egin zuen gizonen ilkintza andi bat, eta urgulleria andiarekin itz egin zuen.

26. Eta Israelko eta inguru guzi artako negarrak andiak izan ziraden.

27. Prinzipeak eta zarrak suspirioka ari ziran; donzellak eta mutillak asnasa gabe gelditzen diraden, eta emakumeen edertasunak iges egin zuen.

28. Senar guztiak negarrez zeuden, eta emazteak eztoien gañean eserita malko jarioan zeuden.

29. Eta lurra dardaraz jarri zan, bertan bizi ziradenakin urrikalduta bezela; eta Jakoben etxe guztia lotsariz estalia gelditu zan.

30. Bi urte kunplitu ziradenean, bialdu zuen erregeak Judako errietatik kotiz biltzallen agintaria, eta etorri zan Jerusalenera jendetza andi bat lagun zuela.

31. Eta marroz itz paketsuak esan ziezten; eta sinistu zioten.

32. Eta batbatean aurtiki zan Jerusalengo jendetzaren gañera, eta egin zuen beretan ilkintza andi bat, Israelko erriko jende txit askori bizia kentzen ziola.

33. Eta errian zegoan guztia arrapatu zuen, eta su eman zion erriari, eta bertako etxeak, eta inguruan zeuzkan murruak beera aurtiki zituen.

34. Eta katibu eraman zituzten emakumeak, eta beren semeak, eta beren abereak arrapatu zituzten.

35. Eta sendotu zuten Jerusalenen, Dabiden erria izena zuen aldamena, murru andi eta sendo batekin, eta dorre sendoakin; eta gaztelu bat berarekin egin zuten;

36. Eta ipiñi zuten bertan jende gaizto bat, gizon biurriak, zeñak an gogor egin zuten, eta sartu zituzten an armak, eta janariak, baitaere Jerusalenen arrapatu zituzten gauzak,

37. Zeuzkatela an gordallan bezela, eta onela etorri ziran berak izatera lazo zorigaiztoko bat bezelakoak,

38. Zeudela azeloan bezela, toki santura zijoazenen kontra, eta Israelko etsairik andienen batzuek bezelakoak ziradela.

39. Zeren isuri zuten odol obengabea Santuarioaren inguruan, eta toki santua kutsutu zuten.

40. Berakgatik Jerusalenen bizi ziradenak iges egin zuten, gelditzen zala erri au arrotzen bizileku eginik, eta bertan jaioak ziradenentzat, arrotza bezelakoa, zeñak utzi zuten.

41. Beren santuarioa arrasatua gelditu zan eremu bat bezela; beren jaiegunak negarrezko egun biurturik, beren larunbatak lotsarian, eta beren onrak utsera itzuliak.

42. Berak iduki zuen gloriaren araukoa izan zan bere lotsaria; eta bere anditasuna negarrean biurtu zan.

43. Onetan, Antioko erregeak, eskribitu zituen kartaz aginteak, eta zabaldu zituen bere erreñu guzitik, bere erri guztiak bat bakarra egin zezatela, utzitzen zituela bakoitzak berak zeuzkan legeak.

44. Eta jende guztiak oben egin zuten Antioko erregearen itz oietara,

45. Eta Israelko erriko asko jarri ziran menpetasun onetan, eta sakrifizioak egin ziozkaten idoloai, eta larunbata kutsutu zuten.

46. Alaxe da. Erregeak bialdu zituen bere mandatariak Jerusalenera, eta Judako erri guzietatik, aginteak eskribuz ipiñita; guztiak jentillen erreñuetako legeak gorde zitzaten,

47. Eta galerazi zezaten eskeñtzea Jaungoikoaren Tenploan holokaustoak, sakrifizioak, eta oblazioak bekatuakgatik,

48. Eta galerazi zezaten zaitzea larunbata, eta jai andiak.

49. Gañera agindu zuen, kutsutu zitezela toki santuak, eta Israelko erri santua.

50. Agindu zuen egin zitezela aldareak, eta tenploak, eta idoloak, eta eskeñi zitezela urdeen, eta beste abere zikin batzuen aragiak.

51. Utzi zitzatela zirkunzidatu gabe beren semeak, eta zikindu zitzatela beren animak janari kutsutu mota guziarekin, eta gauza nazkagarriakin, Jaungoikoaren legearekin aztu zitezen, eta ausi zitzaten bere agindu guziak.

52. Eta agindu zuen Antioko erregearen aginteak obeditzen etzituzten guztiak, illak izan zitezela.

53. Onela eskribatu zion Antiokok erreñu guziari, eta izendatu zituen gizon batzuek, au guziau erriari egin erazitzeko,

54. Zeñak agindu zien Judako erriai, idoloai sakrifizioak egin zitzaieztela.

55. Eta erriko asko bildu ziran, Jaunaren legea utzi zutenakin, eta errian kalte andiak egin zituzten.

56. Eta Israelko erria ipiñi zuten, toki urrutietara iges egiteko, eta toki txit ezkutuetan egoteko premian.

57. Kaslen illaren amabosgarren egunean, eun eta berrogeita bosgarren urtean, ipiñi zuen Antioko erregeak Jaungoikoaren aldarearen gañean, ondameneko idoloa, eta aldamen guztietatik egiten zaiozkaten aldareak idoloai Judako erri guzietan.

58. Eta erretzen zituzten inzensuak eta eskeñtzen zituzten sakrifizioak, etxeetako ateen aurretarañokoak eta plazaetan.

59. Eta zatitutzen zituztela Jaungoikoaren legeko liburuak, sutara aurtikitzen zituzten.

60. Eta gizon guztia, zeñagan arkitzen zituzten Jaunaren testamentuko liburuak, eta Jaunaren legea zaitzen zuten guztiak, bereala iltzen zituzten, erregearen aginduaren araura.

61. Onelako gogortasunarekin tratatzen zuten il bakoitzean Israelko jende, errietan bizi zana.

62. Zeren illaren ogeita bosgarrenean eskeñtzen zituzten berak, doañak aldarearen gañean, zeñ zegoan eginda Jaungoikoaren aldarearen aurkez.

63. Eta beren semeak zirkunzidatzen zituzten andreak, zaituak oi ziraden, Antioko erregearen agintearen araura,

64. Eta aurrak urkatzen zituzten, eta utzitzen zituzten lepotik esekita, arkitzen zituzten etxe guztietan, eta zirkunzidatu zituztenak zatitutzen zituzten.

65. Oien erdian Israelko erriko askok erabaki zuten beren biotzean, janari zikinik ez jatea; eta autu zuten lenago iltzea, janari zikiñakin kutsutzea baño.

66. Eta Jaungoikoaren lege santa ausi nai izan etzutenak, zatituak izan ziraden.

67. Jaunaren aserrea Israelko erriaren kontra, txit andia izan zan.

BIGARREN KAPITULUA

1. Egun aietan jaiki zan Matatias, Juanen, Simeonen semearen semea, Joariben familiako apaiza, eta iges eginik Jerusalendik, Modingo mendira alde egin zuen.

2. Zeuzkan Matatiasek bost seme: Juan, izengoitiz Gaddis deitua;

3. Eta Simon, Thasi izengoitiz;

4. Eta Judas, zeñi Makabeoa deitzen zitzaion.

5. Eta Eleazaro, izengoitiz Abaron, eta Jonatas, Apfusen ezizenarekin ezagutua.

6. Eta ikusirik oiek, Judan eta Jerusalenen egiten ziran ondamenak,

7. Matatiasek deadarrez esan zuen: Ai nere doakabea! Zergatik etorri naiz ni mundura, ikusteko nere erriaren galmena, eta erri santuaren ondamena, eta bere alde ezerere egin gabe egotea, bere etsaien eskuetan jarria dan denboran?

8. Gauza santak arrotzen eskuetan arkitzen dira, eta bere tenploa, bere izen ona galduta dagoan gizon bat bezelakoa da.

9. Bere ontzi baliotsuak arrapatuak, eta kanpora eramanak izan dirade, bere gizaseme zarrak plazaetan zatituak, eta bere mutil gazteak etsaien ezpataren puntaz illak.

10. Zeñ erreñu dago, erreñu doakabe onen gauzetan zerbait partalea izan ez danik, edo beroni arrapatutako gauzaren batzuek artu ez dituenik?

11. Bere argitasun guztia arras kendua izan zaio, eta len bere aukeran zegoana, orain dago besteren mendean.

12. Atzenean, zenbat ziran genduzkan gauza santuak, argitsuak eta gloriaz beteak, anbat izan da erreñuak arrasatua eta kutsutua.

13. Zertarako bada nai degu onezkero bizia?

14. Eta urratu zituzten beren soñekoak Matatiasek, eta bere semeak, eta zilizioz estali ziran, eta txit negar andiak egin zituzten.

15. Denbora onetan allegatu ziran ara Antioko erregeak bialtzen zituen mandatariak, Modingo errian ezkutatu ziradenai eskeñi erazitzeko sakrifizioak, eta erre erazitzeko inzensua, eta Jaungoikuaren legea utzi erazitzeko.

16. Alaxe da. Israelko erriko askok oben egin zuten onetara; baña Matatias eta bere semeak irmoki iraun zuten.

17. Eta asirik izketan Antiokoren mandatariak, Matatiasi esan zioten: Zu zera erri onetako prinzipea, andiena, eta argitsuena; eta zure seme eta anaien koroa orrekin, gloriaz betea.

18. Atoz bada zu aurrena, eta egin ezazu erregeak agintzen duena, jende guztiak, eta Judako gizonak, eta Jerusalenen gelditu diradenak egin duten bezela; eta onenbesterekin zu, eta zure semeak izango zerate erregearen adiskideen artekoak, zeñak urrez eta zillarrez, eta doai andiz beteko zaituzten.

19. Matatiasek erantzun zuen, eta boz goratuan esan zuen: Jende guztiak Antioko erregeari obeditzen badiote ere; eta guztiak beren gurasoen legea gordetzeari utzitzen badiote ere, eta erregearen aginteetara oben egiten badute ere;

20. Nik, eta nere semeak, eta nere anaiak gure gurasoen lege santari beti obedituko diogu.

21. Jaungoikoak grazia au emango al digu! Ez da guretzat mesedegarria, Jaungoikoaren legea, eta aginteak utzitzea.

22. Ez, beñere ez diegu aditzerik emango Antioko erregearen itzai, eta ez diegu ere eskeñiko sakrifiorik idoloai, ausitzen ditugula gure legeko aginteak beste bide bati jarraitzeagatik.

23. Eta bukatu zitueneko itz oiek, ona emen non guztien begien aurrean jarri zan judu bat, idoloai sakrifizioa eskeñtzen, Modingo errian, erregearen aginduz, egin zan aldarearen gañean.

24. Ikusi zuen Matatiasek, eta txit damu andia eman zion, erraiak mugitu zitzaiozkan; eta erazekirik bere zeloa legearen espirituaren araura, bere gañera aurtiki zan, eta aldarearen beraren gañean zatitu zuen.

25. Baitaere Antioko erregeak bialdu zuen gizon, sakrifikatzera jendea bortxatzen zuena, il zuen, eta desegin zuen aldarea,

26. Erakusten zuela onela, bere zeloa legeagatik, Fineesek Zamri Salomiren semearekin egin zuen bezela.

27. Eta au eginik, joan zan Matatias deadarrez erritik boz goratuakin, esaten zuela: Legeagatik zeloa daukan, eta Jaunaren elkartasunean sendo iraun nai duen guztiak, jarraitu bizat.

28. Eta bereala iges egin zuen bereakin mendietara, eta errian zeukaten guztia utzi zuten.

29. Orduan legea eta justizia maitatzen zituzten asko, Eremura joan ziraden.

30. Eta an egon ziraden beren semeakin, beren emazte eta abereakin: zeren zorigaitzez ondatuak ikusten ziraden.

31. Eta adirazi zioten erregearen agintariai, eta Jerusalen, Dabiden errian zegoan martiztiari, nola erregearen agindua kunplitu etzuten gizon batzuek, alde egin zuten eremuko toki ezkutu batzuetara, eta beste askok ere jarraitu ziotela.

32. Eta bereala joan ziraden beren kontra, eta prestatu ziran berai erasotzeko larunbateko egunean.

33. Baña lenago esan zien: Oraindikan ere ezetzean zaudete? Atera zaitezte kanpora, eta egin ezazute Antioko erregeak agintzen duena, eta bizirik geldituko zerate.

34. Iñolako moduz ere ez gera irtengo, erantzun zuten, eta ez diogu ere erregeari obedituko, eta ez degu ere larunbata ausiko.

35. Orduan erregearen gudariak beren gañera aurtiki ziran.

36. Aiek berriz etzien erantzun, eta etzien arri bat ere aurtiki, eta kobetako sarrerak ere etzituzten itxi,

37. Baizik esan zuten: illak izan gaitezen guztiok gure obengatasunean, eta zeruak eta lurrak aitortuko dute, gaizkiro bizia kentzen diguzutela.

38. Alaxe da. Etsaiak larunbatean eraso zien; eta illak izan ziraden, ala berak, nola beren emazteak, semeak, eta abereak, milla lagunerañ0.

39. Matatias eta bere adiskideak au jakin zutenean, progu andi bat berakgatik egin zuten,

40. Eta elkarri esan zioten: Guk guziok egiten badegu gure anaiak egin dutena, eta gudan aritzen ez bagera erreñuen kontra, gure bizitzak, eta gure legeak zaitzeko, bereala guziok galduko gaituzte.

41. Ala bada egun artan erabaki au artu zuten: Baldin badator iñor gure kontra gerran larunbateko egunean, gudatu gaitezen beren kontra, eta ez gaitezen guziok illak izan, gure anaiak kobetan illak izan diraden bezela.

42. Orduan etorri zan berakin biltzera Asideoen batzarrea, zeñak ziraden Israelko gizonik sendoenetatikoak, eta guztiak legearen zelotsuak.

43. Baitaere bildu ziraden berakin etsaien eraso, eta atsekabetatik iges egiten zuten guziak. Eta onela indarra artu zuten.

44. Eta guziakin ejerzitu andi bat egin zuten, eta eraso zien gogorik bizienarekin legeak ausitzen zituztenai, eta gizaseme gaiztoai, berakin urrikalmendurikan batere etzeukatela, eta gelditu ziradenak, iges egin zuten erreñuen artera, biziarekin bederik gelditzeko.

45. Eta Matatiasek gero bere adiskideakin jira egin zuen, eta desegin zituzten aldareak.

46. Eta zirkunzidatu zituzten, Israelko lur guztian zirkunzidatu gabe arkitu zituzten aur guztiak, eta erruz lanean ari ziraden.

47. Eta beren etsai urgullutsuai persegitu zien, eta beren lanbide guzietan galanki irten ziran.

48. Eta arrapatu zuten legea jentillen eskuetatik, eta erregeen eskuetatik; eta etzioten utzi gaiztoari, zeukan eskubidearekin gaizki egiten.

49. Bitartean alderatu ziran Matatias iltzeko egunak, zeñak biltzen zituela bere semeak, onela itz egin zien: Orain urgulleriak agintzen du, eta kastiguaren, eta ondamenaren, eta aserrearen, eta sumintasunaren denbora da.

50. Argatik orain, o ene semeak, legearen zelotsuak izan zaitezte, eta zuen gurasoen testamentua zaitzeagatik zuen bizitzak eman itzatzute.

51. Zuen asabak beren denboretan egin zituzten obrakin oroitu zaitezte, eta gloria andi bat, eta betiko izena irabaziko dezute.

52. Abraham tentazioan ez al zan leiala arkitua izan, eta au justiziara itsatsia izan ez al zitzaion?

53. Josek bere atsekabeko denboran, Jaungoikoaren aginteak gorde zituen, eta Ejiptoko Jauna izatera etorri zan.

54. Finees gure aitak, Jaungoikoaren onraren zeloan erazekia egon zalako, apaiztza betiko baten eskeñtza artu zuen.

55. Josue, itza kunplitu zuelako, Israelko gialaria egiña izan zan.

56. Kalebek erriko batzarrean egin zuen aitorreragatik, herenzia eder bat artu zuen.

57. Dabidek bere urrikaltasunagatik, Israelko erreñuko tronua betiko irabazi zuen.

58. Elias, legeagatik zeukan zelo erazekiagatik, zeruan artua izan zan.

59. Ananias, Azarias, eta Misael, beren fede biziagatik, suzko garretatik libratuak izan ziraden.

60. Daniel bere zintzotasunagatik, leoien aotik gordea izan zan.

61. Eta onela zoazte gizaldi batetik bestera iragoaz, Jaungoikoagan bere itxedopena ipintzen duenik battxo ere ez da utsean gelditzen.

62. Eta gizon bekatariaren itzen beldur etzaiteztela izan; zeren bere gloria basatsa, eta arren bazka baizik ez dan.

63. Gaur goratua da, eta biar ez da arkituko; zeren auts biurtutzen dan, zeñakin egiña izan zan; eta bere asmazio guztiak kea bezela desegiten dirade.

64. Zuek bada, o ene semeak, iraun ezazute sendo, eta gogotik, eta erruz ari zaitezte lanean legearen alde, zeren bera gloriaz beteko zaituztena izango dan.

65. Or daukazute Simon zuen anaia. Badakit nik zentzu andiko gizona dala. Aditu zaiozute berari beti, eta bera izango da zuen aita bezelakoa.

66. Eta Judas Makabeo bere gazte denboratik indartsua eta ausarta izan da. Izan bedi bada bera, zuen ejerzituko agintaria, eta berak erria gerrara eraman dezala.

67. Bildu itzatzute zuekin legea zaitzen duten guziak, eta zuen erria bere etsaietatik zaitu ezazute.

68. Jentillai diña diradena eman zaiezute, eta legea zaitzean ajolatsuak izan zaitezte.

69. Eta bedeikatu zituen, eta bere gurasoakin biltzera joan zan.

70. Il zan Matatias eun eta berrogeita sei garren urtean, eta bere semeak obiratu zuten Modinen, beren gurasoen obian. Eta Israel guztiak beragatik negar andiak egin zituen.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Eta Judas, Makabeo izena zeukan, bere semea, bere lekuan jarri zan.

2. Eta laguntzen zioten bere anaiak, eta bere aitarekin bildu ziran guztiak; eta Israel zaitzeagatik bozkarioz gudan ari ziraden.

3. Eta Judasek bere erriko gloriari argitasun berria eman zion: jarri zuen gañetik loarika goiantea bezela; ipiñi zituen gerrian armak gudan aritzeko, eta etzauntz guztiak bere ezpatarekin zaitzen zituen.

4. Bere egitetan leoe bat zirudian; eta zeukan, zerbait arrapatuta, orroaka dagoan leoe gaztetxo baten antza.

5. Persegitu zituen gaiztoak, aldamen guzietatik billatzen zituela, eta bere erria nastutzen zutenak, suzko garretan erre zituen.

6. Bere izenaren beldurrak bere etsaiai iges erazi zien. Gaizto guztiak izuz bere ziran. Bere besoko indarrarekin ekarri zion erriari ongi izatea.

7. Eta lana ugari ematen zien asko erregeri, bere egiteak Jakoben bozkarioa ziraden, eta bere oroipena beti bedeikatua izango da.

8. Eta ibilli zan Judako errietatik, beretatik gaiztoak arras kentzen zituela, eta Israelen gañetik azoteari alde erazi zion:

9. Eta bere izenaren otspea munduaren ertzik urrutietaraño allegatu zan; eta galduak izateko zorian zeudenak, bere inguruan bildu zituen.

10. Apoloniok, oiek jakin zituenean, bildu zituen erreñuak, eta ejerzitu andi eta sendo bat Samariatik atera zuen, Israelen kontra gudatzeko.

11. Eta jakin zuen Judasek, eta bidera irten zitzaion, eta desegin zuen, eta bizia kendu zion; eta asko zaurituta erori ziran, eta gañerakoak iges egin zuten.

12. Eta berak zeuzkaten gauzak arrapatu ziezten, eta Apolonioren ezpata artu zuen beretzat Judasek, eta guda guzietan bera erabilli oi zuen.

13. Onetan Seron, Siriako ejerzituko agintari nagusiak aditu zuen, Judasek jende talde andi bat, eta leialak izan zitzaiozkan guztiak bildu zituela;

14. Eta esan zuen: Ni noa izen eta gloria andi bat erreñu guztian irabaztera, garaitzen baditut Judas eta berari jarraitzen diotenak, zeñak erregearen aginteak mezpreziatzen dituzten.

15. Onenbesterekin prestatu zan berai erasotzeko, eta berarekin gaizto talde andi bat bildu zan, Israelko semeai bengatzeko.

16. Eta aurreratu ziraden Betoroneraño, eta Judas gudari gutxirekin bidera irten zitzaion.

17. Eta oiek ikusi zutenean beren kontra zetorren ejerzitua, Judasi esan zioten: Nola gu gudatu gintezke ejerzitu ain andi eta sendo baten kontra; izanik, geran bezela, ain gutxi, eta gaurko barauagatik erkituak gaudela?

18. Eta Judasek erantzun zien: Gauza erraza da, gutxik asko arrapatzea, zeren zeruko Jaungoikoak garaipena eman nai duenean, orobat da beretzat jende gutxi egon dedilla, edo jende asko egon dedilla,

19. Zeren gerrako garaipena ez dagoan ejerzituaren anditasunean, baizik sendotasuna zerutik datorrena da.

20. Berak datoz gure kontra jende lotsagalduko eta urgullutsu batekin, desegitera gu, eta gure emazteak, eta gure semeak, eta dauzkagun gauza guziaz gabetuak gu utzitzera.

21. Gu berriz goaz gure biziakgatik, eta gure legeagatik gudatzera.

22. Jaunak berak gure aurrean zatituko ditu, eta ala etzaitezte beldur izan.

23. Itz egiteari utzi zioneko, aurtiki zan bat batean etsaien kontra, eta Seron bere ejerzitu guztiarekin desegin zuen.

24. Eta jarraitu zion Betorongo jetxieratik beeko laurañó, eta beretatik zortzireun gizon erori ziraden illik, eta gañerakoak Filistintarren lurrera iges egin zuten.

25. Oiekin Judas, eta bere anaiak inguruko erreñu guzien izua ziraden.

26. Eta bere izenaren ospea erregearen belarrietaraño allegatu zan, eta aldamen guzietan Judasen gudaen gañean itz egiten zan.

27. Antioko erregea, berri oiek jakin zituenean, txit aserretu zan, eta agindu zuen bere erreñuko gudari guztiak bildu zitezela, eta ejerzitu txit andi, eta sendo bat egiña jarri zedilla.

28. Eta bere dirugordairua idiki zuen, eta urte beteko paga martiztiari emanik, agindu zien, guztirako prestatutak egon zitezela.

29. Eta ikusi zuen bere gordairuak dirurikan gabe zeudela, eta kotiz gutxi ateratzen zuela Judeako alderri artatik, elean eta premian zeudelako beragatik, kendu nai izan zieztelako, anziñako denboretatik zeuzkaten foruak.

30. Eta beldur izan zan ezin kastatu eta emango zuelako, len egiten zuen bezela; bere aurretiko errege guztiak baño ugaritasun andiagoarekin.

31. Arkitzen zala bada larritasun txit andian, erabaki zuen Persiara iragotzea, alderri aietako kotizak artzera, eta dirua txit ugari biltzera.

32. Eta Lisias gizon odolgarbiko, eta erregearen jatorrikoaren kontura utzi zituen bere arazo, eta lanak, Eufratestik Ejiptoko ibairaño.

33. Eta bere seme Antiokoren aziera onagatik begiratu zezan, bera itzuli zedin arteraño.

34. Ejerzituaren eta elefanteen erdia utzi zion; eta eman ziozkan aginteak, berak egitea nai zituen gauza guztien gañean: baita Judean eta Jerusalenen bizi ziradenen gañean ere,

35. Agintzen ziola, bialdu zezala beren kontra ejerzitu bat, desegin eta ezereztutzeko Israelko eskubidea, eta Jerusalenen gelditzen ziraden kutsuak, eta erri artatik beren oroipenerañokoa kentzeko.

36. Eta ipiñi zitzala alderri artan beste erreñu batzuetakoak, beren lur guztiak txotx eginda partitzen zieztela.

37. Artu zuen bada erregeak ejerzituaren beste erdia, eta irtetzen zala Antiokiatik, bere erreñuko burua zan erritik, eun eta berrogeita zazpigarren urtean, eta Eufrates ibaia iragorik, goiko aldameneko probinzietatik ibilli zan.

38. Onetan autu zituen Lisiasek Ptolomeo Doriminoren semea, Nikanor, eta Gorjias, zeñak ziran eskubide andikoak erregearen adiskideen artean;

39. Eta bialdu zituen berakin berrogei milla gizon oñazko, eta zazpi milla zaldizko, irago zitezen Judako lurra arrasatzera, erregeak agindu zuen bezela.

40. Joan ziraden bada aurrera, beren gudari guztiakin, eta etorri ziran Emmausko lauan etzauntzak ipintzera.

41. Eta inguru aietako merkatariak aditu zutenean berria, nola allegatu ziraden, artu zuten berakin urre eta zillar asko; eta morroe askorekin etorri ziraden etzauntzetara, Israelko semeak mendekotzat erostera; eta Siriako eta beste erreñuetako martiztiak berakin bildu ziraden.

42. Judasek ordea, eta bere anaiak, ikusirik ugarituaz zijoazela zorigaitzak, eta ejerzituak alderatuaz zijoazela beren mugetara, eta jakinik erregeak agindu zuela Israelko erria desegin eta arrasatzeko,

43. Esan zioten elkarri: Alaitu dezagun gure erri, beldurrez azpiratua, eta gudan ari gaitezen gure erriaren, eta gure fede santaren alde.

44. Bildu ziraden bada toki batean, gudarako prestatuak egoteko, eta orazio egiteko, eta urrikaltasuna eta grazia Jaunari eskatzeko.

45. Garai onetan Jerusalenen iñor ere etzan bizi, alako moduan, non, eremu bat zirudian. Etziraden onezkero ikusten sartzen eta irtetzen bertan jaio ziradenak; santuarioa zapaldua zegoan; gazteluaren jabeak arrotzak ziraden, zeñatan jentillak bizi ziran: erbestetua zegoan Jakoben etxetik bozkario guztia, etzan bertan onezkero txirolik, ez zitararik aditzen.

46. Eta bildu ziraden, eta joan ziraden Masfara, zeñ Jerusalenen aurkez dagoan, beste denbora batean Masfa, Israelentzat orazioko tokia izan zalako.

47. Eta barau egin zuten egun artan, eta zilizioz jantzi ziran, eta buruaren gañera autsa aurtiki zuten, eta beren soñekoak urratu zituzten.

48. Eta idiki zituzten legeko liburuak, zeñatan jentillak beren talluzko jainkoen irudiak billatzen zituzten.

49. Eta ekarri zituzten apaizen apaingarriak, eta primiziak eta amarrenak, eta etorri erazi zien arako Nazareno, beren botoen egunak kunplitu zituztenai.

50. Eta beren deadarrak zeruraño jasotzen zituztela, esan zuten: Jauna! zer egingo degu oiekin, edo nora eramango ditugu?

51. Zure santuarioa zapaldua, eta kutsutua dago, eta zure apaizak negarrez eta umillatuak.

52. Eta ona emen non erreñuak gure kontra elkartu diraden, gu desegiteko. Zuk badakizkizu gure kontra darabiltzaten asmazioak.

53. Nola bada beren aurrean egon alko gera, baldin zuk, o Jauna, laguntzen ez badiguzu?

54. Eta jo zituzten tronpetak ots andiarekin.

55. Eta oien ondoan izendatu zituen Judasek ejerzituko agintariak, tribunoak, eunkakoak, berrogeita amarnakoak, eta amarnakoak.

56. Eta etxeren bat egiten ari ziradenai, edo ezkonberriak ziradenai, edo mastiak ipintzen ari ziradenai, baita beldurtiai ere agindu zien bakoitza bere etxera itzuli zitezela, legeak esaten zuenaren araura.

57. Eta andikan laster jaso zituzten etzauntzak, eta ipiñi zituzten Emmausen Egoeko aldamenean.

58. Eta Judasek onela itz egin zien: Artu itzatzute armak, eta beldurrikan gabe zaudete, eta egon zaitezte prestatuak goizerako, gudan aritzeko erreñu jentil oien kontra, zeñak gure kontra elkartu diran gu desegiteko, eta gure errelijio santa arras kentzeko,

59. Zeren obe degun gudan illak izatea, gure erreñua eta santuarioa desegiñak ikustea baño.

60. Eta zeruak nai duena datorrela.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Eta Gorjiasek artu zituen berarekin bost milla gizon oñazko, eta milla zaldizko autu; eta irten ziran gauaz,

2. Juduen etzauntzetara joan, eta batbatean, ta ustegabe zeudela, erasotzeko; eta Jerusalengo gazteluan zeuden erritarrak ziraden beren gialariak.

3. Eta Judasek mugimendu onen berria iduki zuen, eta joan zan bere gudari indartsuenakin, Emmausen zegoan erregearen ejerzituaren talde nagusiari erasotzera,

4. Eta arkitzen zan orduan barreiatua murruetatik kanpora.

5. Eta allegaturik Gorjias gau artan Juduen etzauntzetara, etzuen iñor ere arkitu, eta zebillan mendietatik beren billan, esaten zuela: Jende oiek gure igesi dijoaz.

6. Eta eguna etorri zanean, agertu zan Judas lauan, iru milla gizon bakarrik zeuzkala, zeñak ezpata eta ezkutu gabe arkitzen ziran.

7. Eta ikusi zuten jentillen ejerzitua txit sendoa zala, eta loarikariz eta zaldiz ingurutua zegoala, eta jende guzia gerra zalea zala, eta gudan trebea.

8. Orduan Judasek bereai onela itz egin zien: Etzaitezte ikaratu asko diradelako, eta berakin gudatzeko beldurrikan ez ezazute iduki.

9. Oroitu zaitezte nola zaitu eta libratuak izan ziraden gure gurasoak itsaso gorrian, Faraonek ejerzitu andi batekin jarraitzen zienean.

10. Eta deadar egin dezagun orain zerura, eta Jauna urrikalduko da gurekin, eta gure gurasoakin egindako elkartasunarekin oroituko da, eta ejerzitu guziori gure begien aurrean gaur desegingo du.

11. Eta onenbesterekin jende guziak ezagutuko du, badala Israelen Salbatzalle eta gordetzalle bat.

12. Orduan jende arrotzak beren begiak jaso zituzten, eta ikusi zuten nola zetozen Juduak beren kontra.

13. Eta atera ziran murru artetik Juduai erasotzeko, eta Judasekin zeudenak tronpeta jo zuten.

14. Eta ari ziran gudan, eta desegiñak izan ziraden jentillak, eta kanpo artatik iges egin zuten.

15. Atzean gelditu ziraden guztiak berriz, ezpataren puntaz illak izan ziraden, eta garailariak jarraitu zien Jezeroneraño, eta Idumeako, eta Azotoko, eta Jamniako kanpoetaraño, eta illak izan ziraden beretatik iru milla gizoneraño.

16. Itzuli zan gero Judas, jarraitzen zion ejerzituarekin.

17. Eta esan zien bere soldaduai: Ez ezazute iduki gauzak arrapatzeko gurarik; zeren oraindikan etsaiak garaitu bearra badegu;

18. Eta Gorjias bere ejerzituarekin or mendian gure aldean arkitzen da. Orain bada, zaudete sendo gure etsaien kontra, eta garaitu itzatzute, eta gero beldurrikan gabe artuko dituzute berai arrapatutako gauzak.

19. Alaxe da. Oraindikan izketan zegoala Judas, agertu zan Gorjiasen gudarien zati bat, menditik azeloan zegoala.

20. Eta ikusi zuen Gorjiasek, bereak iges egin zutela, eta bere etzauntzai su eman ziela; zeren ikusten zan suak adirazten zuen gertatu zana.

21. Berak oiek ikusi zituztenean, baitaere Judas eta bere ejerzitua lauan gudarako prestatuak, txit beldurtu ziran,

22. Eta guztiak iges egin zuten erreñu arrotzen lurretara.

23. Onenbesterekin Judas itzuli zan, etsaiak kanpoan utzi zituen gauzak atxitzera, non bildu zuten urre eta zillar asko, eta arropa eder, jazinto eta itsaspurpura kolorekoak, eta aberastasun andiak.

24. Eta itzultzen ziradenean gero, kantatzen zituzten himnoak, eta bedeikatzen zuten Jaungoikoa esaten zutela, zeren Jauna ona dan, eta bere urrikaltasuna betikoa dan.

25. Eta garaipen oroipengarri onekin salbatu zan Israel egun artan.

26. Eta iges egin zuten arrotz guztiak, joan ziran Lisiasgana, gertatu zan guztiaren berria eramatera.

27. Eta aditu zituenean, nastua gelditu zan, eta bere senetikan irtenda bezela, Israelko gauzak berak nai zuen bezela irten etzitzaiozkalako, eta erregeak agindu zuenaren araura.

28. Urrengo urtean bildu zituen Lisiasek irurogei milla gizon autu, eta bost milla zaldizko, Judu guztiak arras desegiteko.

29. Eta sartzen ziradela Judean, jarri zituzten etzauntzak Betoronen, eta Judas amar milla gizonekin bidera irten zitzaien.

30. Ezagutu zuten oiek, etsaiaren ejerzitua almentsua zala, eta Judasek orazio egin, eta esan zuen: Bedeikatua izan zaitezela zu, o Israelko Salbatzallea, zu goiante baten indarrak ausi ziñituena, zure serbitzari Dabiden bitartez, eta ipiñi ziñituena arrotzen etzauntzak Jonatas, Saulen semearen, eta bere ezkutariaren eskuetan.

31. Jarri ezazu gaur era berean ejerzitu ori, zure erri Israelen mendean, eta lotsatuak gelditu bitez bere ejerzitua, eta bere zaldidia.

32. Eman zaiezu beldurra, eta ezereztu itzatzu beren ausartasuna eta indarra, eta berak beren eskuakin zatitu bitez.

33. Desegin itzatzu zuk, maitatzen zaituztenen ezpatarekin, zure izen santua ezagutzen duten guztiak, alabantzazko himnoak kantatu ditzatzuten.

34. Eta ari ziran gudan, eta Lisiasen ejerzituko bost milla gizon gelditu ziran illik.

35. Ikusirik Lisiasek bereak iges egin zutela, eta Juduen sendotasuna, eta oiek erabakita zeukatela onraz bizirik egotea, edo sendo gudatuta iltzea, joan zan Antiokiara, eta atera zituen gudari berri autuak, Judeara indar andiagoakin itzultzeko.

36. Orduan Judasek, eta bere anaiak esan zuten: Gure etsaiak desegiñak dauden ezkero, goazen orain tenploa garbitu, eta berriztatzera.

37. Eta bildurik ejerzitu guztia, Siongo mendira igo ziran,

38. Non ikusi zuten toki santua eremutua, eta aldarea kutsutua, eta ateak erreak, eta etxeurubetan erne ziradela zuaitz landarak, basoetan, eta mendietan bezela, eta santuarioko ministroen bizileku guztiak desegiñak zeudela.

39. Eta oiek ikusirik, beren soñekoak urratu zituzten, egin zituzten negar andiak, eta buruen gañera autsa aurtiki zuten,

40. Eta auzpeztu ziran, lurrean arpegiak ipiñita, eta ots egin erazi zien tronpetai, zeñakin siñaleak ematen ziran, eta beren deadarrak zeruraño jaso zituzten.

41. Orduan Judasek erabaki zuen, joan zitezela tropa batzuek, gazteluan zeudenai erasotzera, Santuarioa garbituaz zijoan bitartean.

42. Eta apaiz aitzakia gabeko, Jaungoikoaren legearen maitatzalleak autu zituen,

43. Zeñak garbitu zuten santuarioa, eta arri kutsutuak konsagratu gabeko toki batera eraman zituzten.

44. Eta Judas zegoan pensatzen, zer egingo ote zan, kutsutua izan zan holokaustoen aldarearekin.

45. Eta gogora etorri zitzaien gauza on bat, au da, bera desegitea, berentzat lotsagarria izan ez zedin, jentillak kutsutua izan zan ezkero, eta ala desegin zuten;

46. Eta ipiñi zituzten arriak, tenploa zegoan mendiko toki egoki batean, aliketa etorri zedin artean profeta bat, eta erabaki zezan artean berakin zer egin bear zan.

47. Artu zituzten gero ukitu gabeko arriak, legeak agintzen duen bezela, eta egin zuten aldare berri bat, len egon zanaren antzekoa.

48. Eta berriz egin zituzten santuarioa, eta etxearen barrendiko aldamenetik zegoana; eta tenploa, eta bere atariak santutu zituzten.

49. Eta egin zituzten ontzi berri konsagratuak, eta jarri zituzten tenploan kandeleroa, eta inzensuen aldarea, eta maia.

50. Eta ipiñi zuten gero inzensua aldarearen gañean, eta kandeleroaren gañean zeuden lanparak erazeki zituzten, eta argi egiten zuten tenploan.

51. Eta proposizioko ogiak maiaren gañean ipiñi zituzten, eseki zituzten beloak, eta asita zeuzkaten obra guztiak bukatu zituzten.

52. Eta, oiek eginik, jaiki ziraden egunsentia baño lenago, bederatzigarren il, Kasleu deritzanaren ogeita bost garren egunean, eun eta berrogeita zortzigarren urtean.

53. Eta eskeñi zuten sakrifizioa, legeak agintzen zuen bezela; egin zuten holokaustoen aldare berriaren gañean.

54. Oiekin egiztatu zan, aldarea jentillak kutsutua izan zan il artan beratan, eta egun artan beratan, izatea berriz egina kantaen, eta zitaraen, eta liraen, eta zinbaloen otsera.

55. Eta erri guztia auzpeztu zan, lurrari beren arpegiakin ukitzeraño, eta adoratu zuten, eta jaso zuten beren boza zeruraño, zoriontasun hura eman zien Jaunagana.

56. Eta zelebratu zuten aldarearen dedikazioa zortzi egunean, eta eskeñi zituzten holokaustoak bozkarioarekin, eta sakrifizio eskertsu eta alabantzazkoak.

57. Apaindu ere zuten tenploaren aurkea urrezko koroa eta ezkututxoakin, eta berriztatu zituzten tenploko ateak, eta berari itsatsiak zeuden ministroen bizilekuak, eta ateak jarri ziozkaten.

58. Eta txit andia zan erriaren bozkarioa; eta erreinuen lotsaria berakgandik utikan aurtiki zuten.

59. Orduan erabaki zuten Judasek, eta bere anaiak, eta Israelko eliza guztiak, andikan aurrera zelebratu zedilla urteoro bozkario eta gozotasun andiarekin, Aldarearen dedikazioko egun au, zortzi egunean errenkan, Kasleu illaren ogeita bosgarren egunean asitzen ziradela.

60. Eta sendotu zuten orduanxe bertan Siongo mendia, eta ingurutu zuten murru goratu eta dorre sendoz, jentillak etorri etzitezen bera kutsututzera, len egin zuten bezela.

61. Eta Judasek an ipiñi zuen soldadu talde bat, zaitu zezaten, eta sendotu ere zuen Betsura gordetzeko; erriak gaztelu au Idumearen aurkez iduki zezan.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Inguruetako erreñuak aditu zutenean aldarea eta santuarioa berriz egiñak izan ziradela len bezela, txit aserretu ziran,

2. Eta erabaki zuten arras desegitea, beren artean bizi ziran Jakoben jatorrikoak, eta asi ziran erri artakoak iltzen, eta berai persegitzen.

3. Bitartean Judasek erasotzen zien Esauren semeai Idumean, eta Akrabatanen zeudenai, zeren Israeltarrak setiatuak bezela zeuzkaten, eta ondamen andi bat beretan egin zuen.

4. Oroitu ere zan kastigatzeaz Beanen semeen gaiztakeria, zeñak ziran erriarentzat lazo, eta beaztopo bat, bidean azeloak jartzen ziozkala.

5. Eta sartu erazi zien dorre batzuetan, non setiatuak iduki zituen, eta berak madarikatzen zituela, su eman zien dorreetan, eta erre zituen, barrenen zeuden guztiakin.

6. Andik irago zan Ammonen semeen lurrera, non arkitu zuen ejerzitu ugari, eta sendo bat, bere agintari Timoteorekin.

7. Eta asko guda iduki zituen berakin, eta desegin zituen, eta ondamen andia beretan egin zuen.

8. Eta arrapatu zuen Gazerko erria bere mendean zeuden tokiakin, eta Judeara itzuli zan.

9. Baña Galaaden bizi ziran jentillak bildu ziran, beren errian bizi ziran Israeltarrak arras desegiteko, baña oiek Datemango gazteluan sartu ziran;

10. Eta andik eskribitu ziezten kartak Judasi, eta bere anaiai, zeñtzuetan esaten zuten: Gure aldean inguruan bizi diraden erreñuak bildu dira gu galtzeko.

11. Eta prestatzen dira etortzeko, gu sartu geran gaztelua artzera, Timoteo bere ejerzituaren gialari dala.

12. Atoz bada agudo, eta bere eskuetatik libratu gaitzatzu, zeren asko diran onezkero gureetatik galdu diradenak.

13. Eta Tubinen aldeko tokietan bizi ziran gure anai guztiak, illak izan dirade, beren emazteak, eta semeak katibu eramaten dituztela, eta zeuzkaten gauza guztiak arrapatzen ziozkatela, eta iltzen zituztela an bertan milla gizon bezelatsu.

14. Eta oraindikan kartak irakurtzen ari ziradela, ona emen non allegatu ziran, Galileatik zetozten beste mandatari batzuek, beren soñekoak urratuta, oien antzeko beste berri batzuek zekarzkitela;

15. Zeren, esaten zuten, beren kontra elkartu ziradela Ptolemaidakoak, eta Tirokoak, eta Sidongoak, eta Galilea guztia jende arrotzez betea zegoala, gu, esaten zuten, desegiteko.

16. Judasek eta bere jendeak, alako berriak adituta bertatik, batzarre andi bat iduki zuten, erabakitzeko zer egingo zuten, arako bere anaia antsian zeudenen, eta jende ark estutuak ziradenen alde.

17. Judasek bada, bere anaia Simoni esan zion: Artu ezazu martizti talde bat, eta zoaz, Galilean dauden zure anaiak libratzera; eta ni, eta nire anaia Jonatas Galaadera joango gera.

18. Eta utzi zituen Jose Zakariasen semea, eta Azarias, erriaren gialaritzat, gañerako ejerzituarekin Judea zaitzeko.

19. Eta agindu au eman zien: zaitu ezazute jende au, esan zien, eta etzaitezte atera jentillen kontra gudatzera, gu itzuli gaitezen artean.

20. Eman zitzaiozkan bada Simoni iru milla gizon Galileara joateko, eta Judasek artu zituen zortzi milla, Galaadera iragotzeko.

21. Eta joan zan Simon Galileara, eta asko eraso erreñu aiekin iduki zituen, zeñak desegin zituen, eta berai persegituaz joan zan Ptolemaidako atetaraño.

22. Utzitzen zituela illik iru milla jentil bezelatsu, eta arrapatzen ziezтela beren ondasunak.

23. Artu zituen bada berarekin, Galilean eta Arbatesen zeuden juduak, baita beren emazteak, eta semeak, eta zeuzkaten gauza guztiak ere, eta eraman zituen Judeara bozkario andiarekin.

24. Bitartean, Judas Makabeok bere anaia Jonatasekin Jordana irao zuen, eta ibilli ziran iru egunean eremutik.

25. Eta bidera irten zitzaiezten Nabur-tarrak, zeñak onean artu zituzten, eta kontatu zien beren anaiai Galaaden gertatu zitzaiena;

26. Eta nola bertatik asko sartu ziran Barasan, Bosorren, Alimasen, Kasforren, Majeten, eta Karnaimen (guztiak erri murrutu eta andiak,)

27. Eta nola gelditzen ere ziraden setiatuak Galaadako beste erri batzuetan bizi ziradenak; eta gañera esan zien, etsaiak erabakita zeukatela, biaramonean beren ejerzitua erri aietara alderatzea eta berak arrapatzea, eta egun bakar batean berak desegitea.

28. Onenbesterekin joan zan Judas bere ejerzituarekin Bosorko eremuko bidetik, eta erria arrapatu zuen, eta gizon guztiak ezpataz irago zituen, eta bertan zeuden ondasunak artuta su eman zion.

29. Gauean andik atera ziraden, eta zuzendu ziraden Datemango gaztelura.

30. Eta egunsentian jasorik begiak, ikusi zuten jende talde txit andi bat, zeñak zekarzten berarekin zurubiak eta erremientak plaza arrapatzeko, eta barrenen zeudenak desegiteko, edo katibu artzeko.

31. Ikusi zuenean Judasek asi zala guda, eta gudarien deadarrak zeruraño allegatzen ziradela, tronpeta baten otsa balitza bezela, eta errian deadar andiak aditzen ziradela,

32. Esan zien bere gudariai: Gudan ari zaitezte egun onetan zuen anaien alde.

33. Eta andik laster joan ziraden iru taldetan etsaien ostetik: tronpetak jo zituzten, eta deadarrez ari ziran orazio egiten zutela boz goratuan.

34. Eta Timoteoren martiztiak ezagutu zuten, Makabeoa zala zetorrena, eta bere aurretik iges egin zuten, eta egin zuten berakgan ilkintza andi bat; eta egun artan, beretatik zortzi milla gizon bezelatsu galdu ziran.

35. Andik biurtzen zala, artu zuen Judasek Masfarontzko bidea, eta eraso zion erri oni, eta arrapatu zuen. Gizaseme guziak ezpataz irago zituen, eta atxiturik an zeuden gauzak, su eman zion.

36. Andik joan zan aurrerago eta arrapatu zituen Kasmon, Majet, Bosor eta Galaadko gañerako erriak.

37. Gertakari oien ondoan, Timoteok beste martizti bat bildu zuen, eta Rafonen aurkez errekaren beste aldamenean, etzauntzak jarri zituen.

38. Eta andik laster, Judasek bialdu zituen mandatariak, etsaiak non zeuden eta zenbat ziran jakitera; eta mandatariak esan zioten: Gure inguruko erreñu guztiak Timoteorekin bildu dira: ejerzitu txit andi bat da.

39. Artu ere dituzte beren laguntzat Arabiatarrak, eta errekaren beste aldamenean etzauntzak ipiñita daude, zuri erasotzera etortzeko prestetan. Eta Judas beren kontra joan zan.

40. Eta Timoteok bere ejerzituko agintariai esan zien: Alderatzen diradenean Judas eta bere ejerzitua errekara, berak aurrena guganontz iragotzen badu, ezin aurkeztuko gatzaiozka, eta ziertoro garaituko gaitu.

41. Baña baldin bera iragotzen beldur balitza, eta errekaren beste aldamenean bere etzauntzak jarriko balitu, guk irago dezagun eta garaipena iritxiko degu.

42. Onetan allegatu zan Judas errekaren aldera, eta ipiñirik ejerzituko eskribariak errekaren ertzaren luzeeran, eman zien agite au: Etzaiozute iñori ere utzi emen gelditzen, baizik guziak gudara etorriko dirade.

43. Oiek esanik, bera aurrena irago zan etsaiak ganontz, eta bere ondoan ejerzitu guztia; eta allegatu ziradeneko, jentil guzti aiek desegin zituzten, zeñak aurtiki zituzten armak, eta Karnaimen zegoan tenplora iges egin zuten.

44. Judasek erria arrapatu zuen, su eman zion tenploari, eta erre zuen barrenen zeuden guztiakin, eta Karnaim arrasatua izan zan, iñor ere Judasi aurkeztu etzitzaiokeala.

45. Orduan bildu zituen Judasek, Galaadko alderrian zeuden Israeltar guztiak, txikienetik andieneraño, beren emazte eta semeakin, egiten zuela berakin guztiakin jendetza txit andi bat, Judako lurrera etorri zitezen.

46. Eta allegatu ziran Efroneraño. Au zan erri andi bat, sarreran zegoana, eta etzitzakean aldamen batera utzi, joaten ziradela eskuietik edo ezkerretik, baizik bere erditik iragotzea premiazkoa zan, eta zan txit sendoa.

47. Baña bertan bizi ziradenak barrenen sartu ziran, eta ateak itxi zituzten karez eta arriz. Judasek pakeko mandatari bat bialdu zien,

48. Esaten ziela: Utzi zaguzute iragotzen zuen erritik, gure etxeetara joateko, eta iñork ere ez dizute kalterik egingo, ez degu besterik egingo irago baizik. Alaere berak etzuten idiki nai izan.

49. Orduan Judasek agindu zuen, adirazi zedilla ejerzitu guztitik, bakoitzak eraso zitzaiola zegoan aldamenetik.

50. Alaxe da, eraso zioten gizonik errutsuenak, eta egun guzti artan eta gau artan ari ziraden barrena sartzeko lanetan; baña atzenean erria beren eskuetan erori zan.

51. Eta gizaseme guztiak ezpataz irago zituzten, eta arrasatu zuten erri guztia zimenduetaraño, bertan zeuden gauzak arrapatuta gero, eta irago ziran andikan laster erri guzitik, aldamen batetik bestera, gorputz illen gañetik zebiltzatela.

52. Eta andikan laster Jordana irago zuten, Betsanen aurkez dagoan lau andian.

53. Eta Judas zijoan erretaguardian, atzetik zijoazenak biltzen zituela, eta erria alaitzen zuela bide guztian, Judako lurrera allegatu arteraño.

54. Eta igo ziran Siongo mendira, atsegin eta bozkarioarekin; eta an eskeñi zituzten holokaustoak, eskerrak emateko beren itzuliera doatsuagatik, beretatik batere galdu gabe.

55. Baña Judas eta Jonatas Galaadko lurrean zeuden bitartean, eta Simon bere anaia Galilean Ptolemaidaren aurkez,

56. Jose Zakariasen semeak, eta Azarias ejerzituko agintariak, gertakari doatsu oien, eta izan ziran gudaen berria iduki zuten.

57. Eta esan zuten: Guk ere gure izena otspatsua egin dezagun, eta gure aldean inguruan dauden erreñuen kontra gudatzera goazen.

58. Eta agindurik beren ejerzituan zeudenai, Jamniaren kontra joan ziran.

59. Baña Gorjias bere jendearekin erritik kanpora atera zan, berai bidera irtetzeko, eta gudan aritzeko.

60. Eta iges egin zuten Jose eta Azariasek Judako mugetaraño, galtzen ziradela egun artan Israelko erriko bi milla gizoneraño, eta galmen andi au izan zuen erriak,

61. Judasi eta bere anaiai aditu etzielako, iduritzen zitzaiela, gauza arrigarriak egingo zituztela.

62. Baña berak etziraden arako gizonen jatorrikoak, zeñaen bitartez Israel salbatua izan zan.

63. Judasen gudariak berriz, txit goratuak izan ziraden Israel guztiaren aurrean, baitaere beren izenaren ospea allegatzen zan erreñu guzien artean.

64. Eta jendea bidera irtetzen zitzaien bozkarioko deadarrakin.

65. Joan zan gero Judas bere anaiakin Egoeko aldameneko errietara, Esauren semeak menderatzera, eta arrapatu zituen indarrez Kebron eta bere erri txikiak, bere murruak, eta inguruan zeuzkan dorreak erretzen zituela.

66. Eta andik alde egin zuen, eta zuzendu zan erreñu arrotzen lurrera, eta Samarian ibilli zan.

67. Denbora artan il ziraden gerran apaiz batzuek, panparreriak egin nai zituztelako, sartzen ziradela zentzugabekiro gudan.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Eta Antioko erregea zebillan goiko aldameneko probinzietan, eta aditu zuen zegoala Persian Elimaida zeritzan erri bat, txit otspatsua, eta zeñean urrea eta zillarra ugari zeuden,

2. Tenplo txit aberatz batekin, non zeuden beloak urre askorekin, eta korazak eta ezkutuak, zeñak utzi zituen an Alejandro, Filipo Mazedoniako erregearen seme, Grezia guzian lenengo erreñatu zuenak.

3. Eta joan zan ara erria arrapatzeko eta bertan zeuden gauzak artzeko asmazioakin; baña ezin izan zuen, zeren bertan bizi ziradenak aditurik nolako gogorazioak zeuzkan,

4. Irten ziran bere kontra gudatzera, eta iges egin bear izan zuen, eta damu andiarekin alde egin zuen, Babiloniara itzultzen zala.

5. Eta Persian zegoala, artu zuen berria, nola desegiña izan zan Judako lurrean zegoan ejerzitua;

6. Eta nola iragorik ara Lisias indar andiakin, Juduak desegiña izan zan, zeñak almentsuagoak egiñaz zijoazen, desegin zuen ejerzituaren arma, eta gauzakin;

7. Eta nola berak zatitu zuten, berak Jerusalengo aldarearen gañean ipiñi zuen idoloa; baitaere santuarioa murru altuakin ingurutu zutela, len zegoan bezela, eta Betsura, bere erria ere.

8. Aditu zituenean erregeak gauza oiek, arritua eta guzia nastua gelditu zan, eta oeratu zan, eta eritu zan tristezaz, etziozkatelako gauzak irten berak uste zuen eran.

9. Eta ala egon zan toki artan egun askotan; zeren bere tristeza geituaz zijoan, alako moduan, non, uste izan zuen laster ilko zala.

10. Eta bere adiskide guziai ots egin zien, eta esan zien: Nere begietatik loak iges egin du; nere biotza atsekabez azpiratua eta estutua arkiten da,

11. Eta an nere barrenen esaten det: Nolako atsekabean ikusten ote naizan, eta nolako tristezazko lize zakonean ondatua ote nagoan, ni, len bozkarioz bizi nintzana, eta maitatua nintzana nere diñadean!

12. Orain berriz oroitzen naiz, Jerusalenen egin nituen gaiztakeriakin, nondik ekarri nituen, an zeuden urrezko eta zillarrezko gauza guztiak, eta nola bidegabero bialdu nituen Judean bizi ziradenak desegitera.

13. Nik ezagutzen det orain, argatik etorri diradela nere gañera zorigaitz oiek euriaren ugaritasunarekin, eta ona emen non tristeza andi batekin, toki arrotzean iltzen naizan.

14. Eta ots egin zion gero Felipe, bere adiskidetatik bati, eta bere erreñu guztiko agintaritza eman zion.

15. Eta eman ziozkan diadema, errege mantua, eta erraztuna, artu zezan bere kontura bere seme Antioko, eta emateko erakutsi ona erregetzan jarri zedin.

16. Eta il zan an Antioko erregea, eun eta berrogeita bederatzigarren urtean.

17. Eta jakin zuenean Lisiasek erregea il zala, jarri zuen erregetzan bere seme Antioko, zeñ Lisiasek berarekin iduki zuen aur denboratik, ematen ziozkala aziera on, eta erakutsiak, eta Eupator zan jarri zion izena.

18. Bitartean Jerusalengo gazteluan zeudenak, zeukaten Israel sartua Santuarioaren inguruetan; eta al zituzten kalteak berari egiten ziozkaten, eta jentillak ugaritzen zituzten.

19. Judasek bada, aiek desegitea erabaki zuen, eta erri guztia bildu zuen berak setiatzera joateko.

20. Bildurik jendea, asi zuten setioa eun eta berrogeita amargarren urtean, eta egin zituzten ballestak arriak aurtikitzeko, eta gerrako beste makiña batzuek.

21. Eta kanpora irten ziran setiatu batzuek, zeñakin Israelko erriko gaizto batzuek bildu ziran.

22. Eta erregeagana joan ziraden, eta esan zioten: Noiz justizia egingo dezu, eta gure anaiai bengatuko zatzaie?

23. Guk erabaki genduen zure aita serbitzea, eta berari obeditzea, eta bere legeak zaitzea.

24. Eta argatik gure errikoak gugandik alde egiten zuten, arkitu dituzten gutatiko guztiak il dituzte, eta arrapatu dizkigute gure gauzak.

25. Eta kalte oiek ez bakarrik egin dizkigute guri, baita gure alderri guztikoai ere.

26. Eta ona emen non orain, Jerusalengo gaztelua setiatu duten, bera arrapatzeko eta murrutu dute Betsura.

27. Eta baldin zu berai laguntzera agudo joaten ez bazera, oiek baño ere oraindikan andiagoak egingo dituzte, eta ezin iritxiko dituzu.

28. Eta aserretu zan erregea, oiek aditu zituenean, eta ots egin zien bere adiskide guziai, eta bere ejerzituko prinzipeai, eta zaldidiaren agintariai.

29. Baitaere etorri zitzaiozkan beste erreñu batzuetako, eta itsasoaren beste aldameneko ugarteetako gudari, berak erosiak.

30. Eta bere ejerzituak zeuzkan eun mila oñazko, eta ogei milla zldizko, eta ogeita amabi elefante gudan trebeak.

31. Eta sartzen ziradela gudari talde oiek Idumeatik, setiatu zuten Betsura, eta egun askotan berari eraso zioten, eta gerrako asko makina egin zituzten; baña ateratzen ziradela kanpora barrendikoak, erre zituzten, eta garratz gudan ari ziran.

32. Eta Judasek gaztelutik alde egin zuen, eta zuzendu zituen bere gudariak Betzakararontz, eta erregearen etzauntzen aurrean jarri zituen.

33. Eta erregea egunsentia baño lenago jaiki zan, eta joan erazi zion agudo bere ejerzituari Betzakarako bidetik. Prestatu ziran ejerzitu biak gudarako, eta tronpetakin siñalea eman zuten.

34. Eta eakutsi zien elefanteai ardo beltxa, eta masusten ezadea, gudarako gurak beretan biztutzeko.

35. Eta jarri zituzten abere oiek gudari taldeetan, jartzen zituztela elefante bakoitzaren inguruan milla gizon, loarika kateatuakin, eta beren buruetan brontzezko kapelak zeuzkatela; eta gañera bost eun gizon autu zaldizko, elefante bakoitzaren aldean.

36. Gudari oiek lendanaz egon oi ziran, elefantea zijoan edozeñ tokitan, eta bera zijoan tokira joan oi ziraden, beñere beragandik alderik egiten etzutela.

37. Pisti oietatik bakoitzaren gañean zurezko dorre sendo bat zegoan, berak ezkutatzeko, eta dorrearen gañean gerrako makinak, eta dorre bakoitzaren gañean zijoazen ogeita amabi gizon sendo, zeñak toki artatik gudan ari oi ziraden, eta gañera Indiatar bat, pistia zuzentzeko.

38. Eta zaldidiaren gañerakoa, bi taldetan jarrita, ipiñi zuen ejerzituaren aldamenetan, mugitzeko tronpeten otsarekin, onela estututa beren tokitik igesik egin gabe idukitzeko.

39. Eta eguzkia irten zanean, eta bere ziargiak urrezko eta brontzezko ezkutakiak jo zituztenean, distiatu zan oien argia mendietan, argi egiten zuela zuzi erazekiak bezela.

40. Eta erregearen ejerzituaren zati bat zijoan mendi goratuetatik; eta bestea toki beetatik, eta aurreratuaz zijoazen kontuz eta errenkan.

41. Eta alderri artan bizi ziraden guztiak arrituak zeuden jendetza aren bozakin, eta anbeste lagunen mugimenduarekin, eta beren armen dunbotsarekin, zeren ejerzitu hura txit andia eta almentsua zan.

42. Eta Judas aurreratu zan bere tropakin gudan asitzeko, eta erregearen ejerzitutik seireun gizon il ziran.

43. Eta Eleazar Sauraen semeak ikusi zuen elefante bat erregearen loarikakin loarikatua, eta beste guztiak baño altuago zala, eta iruditu zitzaion, bere gañean erregea joango zala.

44. Eta bere bizitzaren sakrifizioa egin zuen, bere erria libratzeagatik, eta bere izena betikotutzeagatik.

45. Joan zan bada korrika erruz elefanteaganontz soldadu taldearen erditik, iltzen zituela eskuitara eta ezkerretara, eta berak beera botatzen zituen toki batera eta bestera.

46. Eta jarri zan elefantearen sabelaren azpian, eta il zuen; baña erortzen zala elefantea bere gañera, utzi zuen illik.

47. Ikusirik berriz juduak, erregearen ejerzituaren indarrak, eta ausardia, atzeratu ziran.

48. Orduan erregearen gudariak joan ziran beren kontra Jerusalengo bidetik, eta allegaturik Judeara, Siongo mendiaren aldean etzauntzak jarri zituzten.

49. Eta erregeak pakea egin zuen Betsuran zeudenakin; zeñak erritik irten ziran; zeren bere barrenen setiatuak zeudela, etzeukaten geroko zer janik, urte hura kanpoentzat larunbatekoa zalako.

50. Onela erregeak Betsura arrapatu zuen, utzitzen zuela bertan, bera zaitzeko, soldadu talde bat.

51. Jarri zituen gero bere etzauntzak toki santuaren aldean, non egun askotan egon zan, prestatzen zituela an ballestak, eta beste asmazio batzuek, sua aurtikitzeko; eta makinak, botatzeko arriak eta dardoak; eta erremientak saietak aurtikitzeko, eta gañera abaillak.

52. Setiatuak ere egin zituzten makinak etsaienen kontra, eta egun askotan ari ziran gudan.

53. Baña etzegoan zer janik errian, zazpigarren urtea zalako; eta Judean gelditu ziran jentillak, jan zituzten gordeta zeuzkaten janari guztiak.

54. Onela toki santuak zaitzeko jende gutxi gelditu zan, zeren gudariak gosez zeuden, eta barreiatu ziran, eta nor bere tokira joan zan.

55. Onetan aditu zuen Lisiasek, Filipo, (zeñi Antioko erregeak, oraindikan bizi zala eman zion bere seme Antioko, oni aziera on bat emateko, gero erregetzan jarri zedin.)

56. Persia eta Mediatik biurtu zala, berarekin joan zan ejerzituarekin, eta erreñuko agintaritzaren jabe egiteko asmazioetan zebillala.

57. Argatik agudo itzuli zan, eta erregeari, eta ejerzituko agintariai esan zien:

Egunetik egunera desegiñaz goaz. Zer jan gutxi daukagu. Setiatua daukagun tokia ongi ornitua dago; eta bereala egiteko premia daukaguna da, erreñuko gauzak zuzentzea.

58. Orain bada aditu gaitezen jende oiekin, eta berakin, eta beren erreñu guziarekin pakeak egin ditzagun.

59. Eta utzi dizaiegun bizi ditezela len bezela beren legeen araura, zeren beren legeen amorioa gatik, zeñak guk mezpreziatu ditugun, txit aserretu dira, eta gauza guzi oiek egin dituzte.

60. Erregeari eta bere prinzipeai izketa au ongi iruditu zitzaien; eta bialdu zituen mandatariak juduakin pakeak egitera, zeñak artu zituzten.

61. Eta juramentuarekin sendotu zuten pakea erregeak eta prinzipeak: eta gaztelua zaitzen zutenak irten ziran.

62. Eta erregea Siongo mendian sartu zan, eta ikusi zuen nola murruak zeuden an, baña laster ausi zuen egin zuen juramentua, inguruan zegoan murrua aurtikitzeko agintzen zuela.

63. Gero txit agudo andik alde egin zuen, eta itzuli zan Antiokiara, non arkitu zuen Filipo erriaren jabe egin zala, baña eraso zion berari, eta erria arrapatu zuen.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Eun eta berrogeita amaikagaren urtean, Demetrio Seleukoren semea, irten zan Erromako erritik, eta allegatu zan lagun gutxirekin itsas bazterreko erri batera, eta an asi zan erreñatzen.

2. Eta bere gurasoen erreñuan sartuta bereala, ona non bere ejerzituak arrapatu zituen Antioko eta Lisias, berak beronengana eramateko.

3. Baña jakin zueneko, esan zuen: Egin ezazute, ez dezadala nik bere arpegia ikusi.

4. Onenbesterekin ejerzituak il zituen. Eta Demetrio bere erreñuko tronuan eseri zan.

5. Eta etorri ziran beragana Israelko gizon biurri eta gaizto batzuek, zeñaen burua zan Alzimo, zeñak apaiz nagusi izan nai zuen.

6. Salatu zuten oiek beren erreñua erregearen aurrean, esaten zutela: Judasek eta bere anaiak zure adiskide guztiak galdu dituzute, eta gu gure erritik aurtiki gaituzte.

7. Orain bada, bialdu ezazu, zuk sinistea ematen diozun gizon bat, joan dedin, eta ikusi ditzan ark guri, eta erregearen probinziai egindako kalte andiak, eta bere adiskide ta laguntzalle guztiak kastigatu ditzan.

8. Eta erregeak bere adiskideen artean autu zuen Bakides, zeñ zan ibaiaren beste aldameneko gobernaria, erreñuko andizkia, eta erregearentzat leiala; eta bialdu zuen

9. Ikustera Judasek egin zituen ondamenak, baitaere Alzimo gizaseme gaiztoa egin zuen apaiz nagusi, eta agindu zion Israelko semeak kastigatu zitzala.

10. Jarri ziran bada bidean, eta Judako lurrean ejerzitu andi batekin sartu ziran; eta bialdu ziezten mandatariak Judasi, eta bere anaiai, itz onakin engañatzeko.

11. Baña oiek etzituzten aditu nai izan aien itzak, ikusirik ejerzitu andi batekin etorri zirala.

12. Alaere eskribaen batzarrea joan zan Alzimo eta Bakidesekin egoteko, eta arrazoizko itz batzuek esan, eta onela elkartzera.

13. Israelko seme aien aurrean Asideoak zijoazen, zeñak pakea eskatzen zuten.

14. Zeren esaten zuten: Aaronen jatorriko apaiz bat da gugana datorrena, ez gaitu engañatuko.

15. Alzimok bada, pakezko itzak esan ziezten, eta juramentu egin zien, esaten zuela: Ez dizugu gaitzik batere egingo, ez zuei, ez zuen adiskideai.

16. Eta sinistu zioten, eta arrapatu zituen beretatik irurogei gizon, eta egun batean il zituen, Psalmoetan eskribitua dagoen bezela.

17. Jerusalengo inguruan aurtiki zituzten santuen gorputzak, eta odola. Eta etzan arkitu nork obiratu zitzan.

18. Onekin erri guztia beldur eta izu andi batez bete zan, eta elkarri esaten zioten: Ez da arkitzen egiarik, ez justiziarik jende oietan; zeren egin zituzten elkartasuna eta juramentua ausi dituzten.

19. Eta Bakidesek jaso zituen bere etzauntzak Jerusalendik, eta ipiñi zituen Betzekaren aldean, nondik bialdu zituen mandatariak, beragandik alde egin zuten asko arrapatzera, eta erriko batzuek il zituen, eta putzu andi batera aurtiki zituen.

20. Ipiñi zuen gero alderri hura Alzimoren kontura, utzitzen ziola soldadu talde bat oni laguntzeko, eta Bakides erregea zegoan tokira itzuli zan.

21. Alzimok egiten zituen alegiñak guztiak, bere apaiz nagusitzan irautzeko.

22. Eta bildurik berarekin erriko matxiñari guztiak, Judako lur guztiaren jabe eginik gelditu ziran, eta ondamen andiak Israelen egin zituzten.

23. Ikusirik bada Judasek, Alzimo eta bereak Israelko semeai egin ziezten gaitzak, eta jentillak egindakoak baño ere oraindikan asko gaiztoagoak ziradela,

24. Atera zan Judeako lur guztitik ibiltzera, eta beragandik iges egin zuten oiek kastigatu zituen; alako moduan, non, etziraden beñere berriz alderri oietara etorri.

25. Eta ikusi zuenean Alzimok Judasek, eta bere jendeak, berak baño indar geiago zeukatela, eta oiekin gudan ezin ari litekeala, biurtu zan erregea ikustera, eta esan zion, gaiztakeria asko ta andiak egin zituztela.

26. Orduan erregeak bialdu zuen Nikanor, bere andizkietatik argitsuenen bat, eta Israeltarren etsaia, erri au osoz desegiteko agintea ematen ziola.

27. Etorri zan bada Nikanor Jerusalenera ejerzitu andi batekin, eta bialdu zituen mandatariak Judasgana pakeko itzakin engañatzeko,

28. Esaten ziola: Zuen eta nere artean gerrarik ez dago, ni iragoko naiz lagun gutxirekin zuek ikustera, eta pakearen gañean tratatzera.

29. Egiaz Nikanor joan zan Judas ikustera, eta elkarri agurrak egin ziozkaten, adiskideak bezela, baña etsaiak prestatuak zeuden Judas arrapatzeko.

30. Eta ezaguturik Judasek asmo gaiztoakin etorri ziradela, beldurtu zan, eta etzuen berriz ikusi nai izan.

31. Ezagutu zuen orduan Nikanorrek, bere marro malmutsa agertua zegoala; eta atera zan gudatzera Judasen kontra Kafarsalamaren aldean,

32. Non gelditu ziraden illak Nikanorren ejerzituko bost milla gizon bezelatsu. Judasek, eta bereak berriz, Dabiden errira alde egin zuten.

33. Oien ondoan Nikanor Siongo mendira igo zan, eta ara allegatuta bereala, atera ziran berari agurrak egitera erriko apaiz batzuek, eta erregeagatik eskeñtzen ziran holokaustoak ikusi erazitzera.

34. Baña berak artu zituen mezprezio eta irriarekin; eta tratatu zituen, apaizak ez balirade bezela, eta urgulleriarekin itz egin zien,

35. Eta aserrez betea zegoala, juramentu egin zien, esaten zuela: Jartzen ez badituzute nere eskuetan Judas eta bere ejerzitua, garaitzaz betea itzultzen naizanean, bereala erreko det etxe au. Eta txit sumindua joan zan.

36. Orduan apaizak tenploan sartu ziran aldarearen aurrean jartzera, eta negarrez zeudela esan zuten:

37. Jauna, zuk etxe au autu zenduen, bertan zure izen santuari ots egiteko, eta zure erriarentzat orazio eta eskarien tokia izan zedin:

38. Egin ezazu zure bengantzak argi egin dezala gizon onen eta bere ejerzituaren gañean, eta ezpataren puntaz galduak izan ditezela, oroitu zaite beren blasfemiakin, eta ez ezazu utzi lurraren gañean luzaro egon ditezela.

39. Eta alde egin zuen Nikanorrek Jerusalendik, eta jarri zituen etzauntzak Betoronen aldean, eta an elkartu zan Siriako ejerzituarekin.

40. Judasek berriz, jarri zituen etzauntzak Adarsan iru milla gizonekin, eta itz oiekin Jaungoikoari orazio egin zion:

41. Jauna, Senarekib erregeak bialdu zituenak zure kontra blasfematu zutenean, etorri zan aingeru bat, zeñak il ziezten eun eta larogeita bost milla gizon.

42. Era berean arras desegin ezazu gure begien aurrean ejerzitu au, eta jakin bezate beste guztiak, Nikanorrek gaizki itz egin duela zure santuarioaren kontra, eta bere gaiztakeriaren araura juzgatu ezazu.

43. Eraso zien bada elkarri Adar illaren amairu garrenean, eta Nikanorren ejerzitua desegiña gelditu zan, izanik bera gudan lenengo il zana.

44. Ikusirik Nikanorren soldaduak, au illa zala, aurtiki zituzten armak, eta iges egin zuten.

45. Eta jarraitu zien juduak egun bateko bidean Adazertik Gazararaño, eta beren ondoren zijoazenean tronpetak jotzen zituzten, etsaia igesi zijoala guztiai adirazteko.

46. Orduan inguruan zeuden Judeako erri guzietako jendeak, irtetzen ziran, eta beren gañera erruz aurtikitzen zirala, itzulierazitzen zien garailariak ganontz, alako moduan, non, guztiak ezpataz iragoak izan ziran, batek bakarrak ere igesik egin gabe.

47. Gero arrapatu zituzten beren ondasunak, eta ebaki ziezten Nikanorri burua, eta eskuieko eskua, zeñ lotsagabekiro jaso zuen tenploaren kontra, eta eraman zituzten, eta eseki zituzten Jerusalenen aurrean.

48. Txit bozkariotu zan erria garaipenarekin, eta egun hura poz andietan irago zuten.

49. Eta agindu zuen Judasek, jai au urte guztietan Adar illaren amairugarrenean zelebratu zedilla.

50. Eta Judako lurra denbora piska batean, atsedenean gelditu zan.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Eta aditu zuen Judasek Erromatarren izen otspatsua, eta almentsuak ziradela, eta eskatzen zitzaien guztira oben egiten zutela, eta berakin bildu nai izan zuten guztiakin adiskidetu ziradela, eta beren eskubidea txit andia zala.

2. Aditu ere zuen itz egiten, beren gerraen gañean, eta nola bertute onak egin zituzten Galazian, zeñarekin jabetu ziran, eta zeñ beren kotiztaria egin zuten;

3. Eta nolako gauza andiak egin zituzten Españan, eta nola an zeuden zillarrezko eta urrezko meatzen jabe egin ziran, eta nola alderri guzti hura menderatu zuten beren zentzu eta iraupenaren indarrez.

4. Orobat azpiratu zituztela erreñu txit urrutikoak, eta desegin erregeak, zeñak munduaren atzeneko mugetan beren kontra jaiki ziran, osotoro menderatzen zituztela, eta gañerako guztiak urte bakoitzean kotiza pagatzen ziela.

5. Nola ere garaitu zituztela gudan eta menderatu Filipo eta Perseo, Zetetarren erregeak, eta beren kontra armak artu zituzten beste guztiak,

6. Antioko andia, Asiako erregea, zeñak eraso zien ejerzitu txit andi batekin, zeñatan zeuden eun eta ogei elefate, zaldidi txit andia, eta gerrako gurdiak, au ere osotoro desegiña izan zala.

7. Nola gañera bizirik arrapatu zuten, eta nola berari eta bere ondoko erregeai pagatu erazitzen zien kotiz andi bat, eta emanerazi fianzak, eta kunplituerazi erabaki zuten guztia elkarren artean.

8. Au da Indietako, eta Medoen, eta Lidioen erreñuak, probinziarik ederrenak; eta berakgandik artuta gero, Eumenes erregeari eman ziezten.

9. Jakin ere zuen Judasek, nola grieguak joan nai izan zuten Erromatarren kontra oiek desegiteko.

10. Eta jakin zutenean au, bialdu zutela kontra, beren agintarietatik bat, eta nola gudan eginik, jende asko il zien, eta eraman zituzten katibu emakumeak beren semeakin, arrapatu zuten grieguak zeukaten guztia, eta erreñu guztiaren jabe egin ziradela, beren errietako murruak desegin zituztela, eta jende aiek mendean jarri zituztela, gaurko eguneraño dauden bezela.

11. Eta nola beren kontra armak artu zituzten beste erreñu eta ugarteak, arrasatu eta beren mendean jarri zituzten,

12. Eta nola beren adiskideakin, eta beren eskuetan itxedopenarekin jartzen ziradenakin adiskidetasun ona zaitzen zuten, eta erreñuen jabe egin ziradela, naiz izan aldekoak, naiz urrutikoak, zeren beren izena aditzen zuten guztiak, beren beldur ziran.

13. Erromatarrak laguntasuna eman zienak erreñatzeko, erreñatzen zutela, eta kontrara, kentzen ziotela erreñua, berak nai zienai, eta onela eskubide goratu bat idukitzera allegatu ziradela.

14. Eta alaere beren artean iñork ere etzeukala koroerik, eta etzuela jantziten purpurarik, besteen gañera goratutzeko.

15. Eta egin zutela Batzarre bat irureun eta ogei gizonekin, oiek egunoro erreñuaren onerako artu bear ziran neurrien gañean itz egiten zutela,

16. Eta urteoro bat ipintzen zutela guztien agintari, erreñu guzia gobernatu zezan, eta ala guziak bati bakarrik obeditzen ziotela, eta beren artean ondamurik, ez zelorik etzegoala.

17. Judasek bada, oiek guziak aditurik, autu zituen Eupolemo, Juanen semea, zeñ Jakobena zan; eta Jason, Eleazaroren semea; eta bialdu zituen Erromara, berakin adiskidetasuna eta elkartasuna egitera,

18. Griegen buztarriaren azpitik libratu zitzaten, zeren ikusten zeuden, nola zeukaten oiek Israelko erreñua katibu eginik.

19. Eta bide txit luzeak iragota, allegatu ziraden Erromara, eta Batzarrearen aurrean jarririk, esan zuten:

20. Judas Makabeok, eta bere anaiak, eta Judako erriak bialtzen gaituzte zuekin elkartasuna eta pakea egitera, zuen elkartu eta adiskideen artean kontatu eta iduki gaitzatzuten.

21. Izketa au Erromatarrai ongi iritzi zitzaien.

22. Eta ona brontzezko paperean itsatsi eta eskribituta jarri zutena, eta Jerusalenera bialdu zutena, juduak an iduki zezaten, pake eta elkartasunaren oroipengarri bat bezela.

23. Doatsuak izan ditezela beti Erromatarrak eta Juduen erreñua itsasoz eta leorrez, eta berakgandik gerra eta etsaia urrutiratu ditezela.

24. Baña emendikan aurrera idukiko balute gerraren bat Erromatarrak, edo berakin elkartua dagoanen batek, berak agintzen duten edozeñere tokitan,

25. Lagunduko die biotz guzitik Juduen erreñuak, era artan al duten adiñan.

26. Eta gudan ari diradenai ez die emango, ez bialduko Erromatarrak ez janaririk, ez armarik, ez dirurik, ez ontzirik, onelakoa izan dalako Erromatarren iritzia, eta gudariak, berakgandik ordañikan batere artu gabe obedituko diote.

27. Era berean, emendikan aurrera idukiko balute Juduak gerraren bat, lagunduko die Erromatarrak biotzez denbora artan al duten eran.

28. Eta laguntzen dienai ez die juduak emango ez janaririk, ez armarik, ez dirurik, ez ontzirik, zeren Erromatarrak ala nai duten, eta gudari aiek engañurikan gabe beren aginteak egingo dituzte.

29. Au da Erromatarrak juduakin egiten duten elkartasuna.

30. Baña baldin emendikan aurrera batzuek edo besteak nai baliote zerbait itsatsi edo kendu emen jarri danari, egingo dute elkar adituta; eta onela itsasten, edo kentzen dutenak, beti sendo iraungo du.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Bitartean, Demetriok jakin zuenean, Nikanor bere ejerzituarekin illa izan zala gudan, bialdu zituen berriz Bakides eta Alzimo Judeara, eta berakin ejerzituaren eskuieko egoa, edo oberena.

2. Zuzendu ziraden Galgalara dijoan bidetik, eta jarri zituzten etzauntzak Masaloten, zeñ dagoan Arbellasen, zeñ arrapatu zuten, eta jende asko il zuten an.

3. Eun eta berrogeita amabigarren urtearen lenbiziko illean, Jerusalenera ejerzituarekin alderatu ziran,

4. Nondik atera ziran, eta joan ziran Bereara ogei milla gizon, eta bi milla zaldizko.

5. Judasek bere etzauntzak jarri zituen Laisan, eta iru milla gizon autu berarekin zeuzkan.

6. Baña ikusi zutenean zeñ andia zan etsai taldea, txit beldurtu ziran, eta askok etzauntzetatik iges egin zuen, alako moduan, non, zortzireun gizon baizik etziraden gelditu.

7. Ikusirik Judasek bere ejerzitua alako moduan gutxitua, eta etsaiak alderatuta estututzen zuela, biotzgabetu zan, zeren etzeukan denborarik gudariak biltzera joateko, eta desalaitu zan.

8. Alaere gelditu zitzaiozkanai esan zien: Jaiki gaitezen, eta goazen gure etsaien kontra, eta ikusi dezagun gudatu ote gintezkean beren kontra.

9. Baña berak kendu nai zioten burutik gogorazio au, esaten ziotela: iñolare ez genzake, alde egin dezagun orain, gure anaiakin bildu gaitezen, eta gero berakin gudatzera itzuliko gera. Orain txit gutxi gera gu.

10. Eta Judasek esan zuen: Libratu gaitzala Jaungoikoak, beren aurretik iges egitetik, allegatu bada gure ordua, il gaitezen, erruz gure anaien alde gudatzen gerala, eta gure gloria ez dezagun illundu.

11. Denbora onetan irten zan bere etzauntzetatik etsaiaren ejerzitua, eta berari bidera irtetzera etorri zan. Zaldidia bi taldetan berezitua zijoan, aballariak eta fletxariak, zeuden ejerzituaren aurrean, zeñaen artean lenen gudaririk sendoenak zijoazen.

12. Bakides zegoan eskuiko egoan, eta gudari taldeak illargi erdiaren irudian aurreratu ziran, denbora berean tronpetak jotzen zituztela.

13. Judasen gudariak ere deadarrez asi ziran, alako moduan, non, lurra dardaratu zan ejerzituen dunbotsera, eta goizean asita arratsaldea erori arteraño gudan ari ziraden.

14. Ezaguturik Judasek Bakidesen ejerzituaren eskuieko egoa zala sendoena, bere gudaririk sendoenak berarekin artu zituen,

15. Eta aldamen au desegiñik, persegitzen zien an zeudenai Azotoko mendiraño.

16. Baña ezkerreko aldamenean zeudenak, ikusirik desegiñak eskuiekoak, joan zitzaiozkan atzetik Judasi eta bere jendeari persegitzen zien.

17. Eta asitzen ziradela gudan gogortasun andiago batekin, aldamen batetik eta bestetik askok bizia galdu zuen.

18. Eta Judas erori zan illik, eta bere jendeak iges egin zuen.

19. Eta Jonatas eta Simonek artu zuten beren anaia Judasen gorputza, eta beren gurasoen obian Modingo errian obiratu zuten.

20. Eta Israelko erri guztiak atsekabe txit andi bat agertu zuen; eta egun askotan beragatik negarrez egon ziran.

21. Nola galdu da, esaten zuten, Israelko erria zaitzen zuen agintari errutsua!

22. Judasen beste gerrak berriz, eta egin zituen gauza arrigarriak, eta bere biotzeko anditasuna ez dirade eskribitu, zeren txit asko ziraden.

23. Eta gertatu zan Judas il zanean, agertzea Israelen aldamen guztietatik gizon biurriak, eta gaiztakeriako lanetan ari ziraden guztiak irten ziraden argitara.

24. Denbora onetan etorri zan gosete txit andi bat, eta erri guztia, bertan bizi ziradenakin, Bakidesen mendean jarri zan;

25. Zeñak autu zituen gizon txit gaiztoak, eta erriko agintaritzat jarri zituen.

26. Eta oiek Judasen adiskideen billan eta ondoren zebiltzan, eta Bakidesgana eramaten zituzten, zeñai bera bengatzen zitzaien, eta irriz betetzen zituen.

27. Andia izan zan bada Israelko atsekabea, eta alakoa, non, etzan bere antzekorik izan, Israelen profetarik ikusten ez zan denboratik.

28. Onetan Judasen adiskide guziak bildu ziran, eta Jonatasi esan zioten:

29. Zure anaia Judas il zanetik onara, bera bezelakorik iñor ere ez dago, Bakidesen kontra, eta gure erreñuaren etsaien kontra atera ditekeanik.

30. Argatik, gaur bere lekuan aututzen zaitugu, gure Prinzipea, eta gure gerretako agintaria izan zaitezen.

31. Eta orduan Jonatasek agintaritza artu zuen, eta bere anaia Judasen lekuan sartu zan.

32. Eta Bakidesek ezagutu zuen, eta berari bizia kentzeko asmazioetan zebillan.

33. Eta ezagutu zuten Jonatasek, eta bere anaia Simonek, eta berarekin zeuden guztiak, eta Tekueko eremura iges egin zuten, eta Asfarko putzuaren aldean gelditu ziran.

34. Bakidesek jakin zuen, eta bera bere ejerzitu guztiarekin, larunbateko egunean, Jordango beste aldamenera joan zan.

35. orduan Jonatasek bere anaia, erriko agintaria, bialdu zuen Nabuteo, bere adiskideakgana, erregututzera, gerrako erremientak prestatu zitzaieztela, zeñak ugariak ziraden.

36. Baña Janbriren semeak Madabatik ateratzen ziradela, Juan eta zeraman guztia arrapatu zuten, eta guztiarekin joan ziraden.

37. Andikan denbora gutxiren buruan, Jonatas eta bere anaia Simoni berria eman zioten, nola Janbriren semeak eztai andi batzuetako lanetan ari ziran, eta emakume ezkonberria, zeñ zan Kanaango Prinzipe andietatik bataren alaba, ospe andi askokin Madabatik zeramatela.

38. Orduan, Juan, beren anaiaren odol isuritua izan zanarekin oroitu ziran, eta joan ziran, eta mendi bateko zuaitz ostotsuen azpian ezkutatu ziran.

39. Onetan zeudela, beren begiak jasorik, begiratu zuten; eta ikusi zuten zertxobait arontzago jendetza andi bat, apaingarri txit askorekin; zeren gizaseme ezkongaia bere adiskide eta aideakin, tanborren eta musikako soñuen otsera, jende armadun askorekin irten zan emakume ezkongaiari bidera ateratzera.

40. Orduan, azeloan zeuden tokietatik batbatean irtetzen ziradela, beren gañera aurtiki ziran, eta asko il, eta zauritu zituzten, gañerakoak mendietara iges egiten zutela, onela, zeramazkiten gauza guztiak arrapatu ziezten.

41. Alako moduan, non, eztaiak progu, eta musika soñuak, negar biurtu ziran.

42. Eta onela bengatu ziran beren anaiaren odolarekin, eta Jordango erriberarontz itzuli ziran.

43. Bakidesek jakin zuenean, bereala etorri zan ejerzitu andi batekin larunbateko egun batean, Jordango erriberara.

44. Orduan Jonatasek bereai esan zien: Jaiki gaitezen eta goazen gure etsaien kontra gudatzera; zeren ez gera gu atzo, eta irago diraden beste egunetan bezela arkitzen.

45. Zuek ikusten dezute aurkez etsaiak dauzkagula; eskuietarontz eta ezkerretarontz Jordango urak beren erriberakin, eta zingiradiakin, eta basoakin; eta ala, iges egiteko biderikan batere gelditzen ez zaigula.

46. Orain bada, zerura deadar egin ezazute, zuen etsaietatik libratuak izan zaitezten. Eta asi zan guda.

47. Zeñatan Jonatasek bere besoa jaso zuen Bakides iltzeko, baña otsari iges egin zion, bere gorputza atzerontztzen zuela.

48. Atzenean Jonatas eta bereak Jordanera aurtiki ziran, eta beren etsaien begien aurrean igerian irago zuten.

49. Eta nola egun artan Bakidesen ejerzituko milla gizon galdu ziran, au bere gudariakin Jerusalenera itzuli zan.

50. Eta bereala berriztatu zituzten Judeako plaza sendoak, eta Jerikoko, Ammaungo, Betorongo, Betelko, Tamnatako, Farako, eta Thopoko gazteluak, murru goratuakin, eta burnizko ate eta balenkakin sendotu zituzten,

51. Zeñaetan Bakidesek gudari taldeak ipiñi zituen, Israelen kontra irteerak korrika egin zitzaten.

52. Sendotu ere zituen Betsurako, eta Gazarako erriak, eta Jerusalengo gaztelua, toki guzietan gudari talde bat, eta luzaroko janaria ipintzen zituela.

53. Gero erriko lenbiziko familietako semeak fiantzan artu zituen, eta iduki zituen zaituta Jerusalengo gazteluan.

54. Eun eta berrogeita amairugarren urteko bigarren illean, agindu zuen Alzimok Tenploko barrendiko aldameneko murruak beera aurtikitzeko; eta Agjeo eta Zakarias profetaen obrak desegiteko: eta asi ziran desegiten;

55. Baña Jaunak orduan zauritu zuen; eta asi zuena ezin bukatu izan zuen, mututu zan, elbarritua gelditu zan, itz bat ezin zuela esan, ez agindurik eman bere etxeko gauzaetan.

56. Eta andikan denbora gutxiren barrenen, Alzimo oñaze andiakin il zan.

57. Ikusirik Bakidesek Alzimo il zala, erregea zegoan tokira itzuli zan, eta gelditu zan erria atsedenean bi urtean.

58. Baña atzenean gaizto guztiak asmazio au gogoratu zuten: Jonatas, eta berarekin daudenak, (esan zuten) atsedenez eta ajola gabe bizi dirade. Orain da denbora Bakidesi etorri erazitzeko; eta gau batean guztiak arrapatuko ditu.

59. Joan ziraden bada bera ikustera, eta asmazio au agertu zioten.

60. Bakides bereala ejerzitu andi batekin bidean jarri zan, eta bialdu ziezten ixiltxorik bere kartak, Judean bere alde zeudenai, Jonatas eta berari laguntzen zienak arrapatu zitzaten; baña ezerere ezin izan zuten egin; zeren oiek, aiek zerabiltzaten asmazioak ezagutu zituzten.

61. Orduan Jonatasek arrapatu zituen erriko berrogeita amar lagun, zeñak bere kontra zebiltzanen gialari ta agintari nagusiak ziraden, eta bizia kendu zien.

62. Andikan laster, bere anaia Simon eta bere alde zeudenakin alde egin zuen Bethbessenera, zeñ eremuan dagoan. Paret eroriak berriztatu zituzten, eta sendotu zuten.

63. Gauza oien berria Bakidesek iduki zuen,eta bere gudari talde guztiak biltzen zituela, eta Judean bere alde zeuzkanai adirazirik,

64. Etorri zan etzauntzak jartzera Bethbessen gañean, zeñ denbora andian setiatua iduki zuen, gerrako makinak egin- erazitzen zituela.

65. Baña Jonatas, Simon bere anaia errian utzitzen zuela, joan zan bere erritik ibilli batzuek egitera, eta gudari talde on batekin itzultzen zala,

66. Desegin zituen Odaren, eta bere anaiak, eta Faseronen semeak beren etzauntzetan, eta asi zan etsaietan ondamenak egiten, eta bere sendotasunaren erakutsi andiak ematen.

67. Simon berriz, eta bere gudariak, erritik atera ziraden, eta gerrako makinak erre zituzten;

68. Eraso zioten Bakidesi, eta desegin zuten, eta txit atsekabetu zuten, bere asmazio eta ibilliak utzean gelditzen ziradela ikusten zuelako;

69. Eta aserreturik, beren errira etortzeko esan zioten gizon gaiztoen kontra, beretatik asko il erazi zituen, eta bere gudarien gañerakoakin bere errira itzultzea erabaki zuen.

70. Eta jakinik oiek Jonatasek, bialdu ziozkan mandatariak, berarekin pakea egiteko, eta katibuen trukada egiteko.

71. Bakidesek arrera ona egin zien, eta oben eginik Jonatasek nai zuenera, juramentu egin zuen, bere bizitzako egun guztietan gaitzik batere etziola egingo.

72. Orobat, eman ziozkan len Judako lurrean arrapatuta katibu zeuzkanak, oien ondoan bere errirako irten zan, eta etzuen nai izan berriz Judeara itzuli.

73. Onenbesterekin Israelen gerra bukatu zan, eta Jonatas bizitu izan zan Makmasen, eta Jonatas an, erria juzgatzen asi zan, eta Israelko gaiztoak desegin zituen.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Eun eta irurogeigarren urtean, Alejandro, Antioko argitsuaren semea, Ptolemaidara igo zan, an egotera, eta arrera ona egin zioten, eta an erreñatzen asi zan.

2. Demetrio erregeak jakin zuenean, bereala ejerzitu andi bat bildu zuen, eta bere kontra gudatzera joan zan.

3. Eta Demetriok Jonatasi karta bat itz paketsuakin bialdu zion, bere anditasuna goratzeko.

4. Zeren berak bereai esan zien: Berarekin pakea egitera aurreratu gaitezen, berak gure kontra Alejandrorekin egin dezan baño lenago.

5. Zeren bera, ala berari, nola bere anaiari, eta bere erreñuari egin diozkagun gaitzakin, dudarikan gabe, oroituko da.

6. Eman zion bada eskubidea ejerzitu bat jasotzeko, eta armak egiteko, eta adirazi zion bere laguna zala; eta agindu zuen, Jerusalengo gazteluan fiantzan zeudenak eman zaiozkatela,

7. Orduan Jonatas Jerusalenera irago zan, eta Demetrioren kartak, erri guztiaren, eta gazteluan zeudenen aurrean irakurri zituen.

8. Eta txit beldurtu ziran oiek, erregeak ejerzitu bat jasotzeko eskubidea ematen ziola aditu zutenean.

9. Eta Jonatasi emanak izan zitzaiozkan fiantzan zeudenak, zeñak beren gurasoai itzuli ziezten.

10. Jonatasek bere bizilekua Jerusalenen ipiñi zuen, eta erria berriz egin eta berriztatzen asi zan.

11. Eta langilleai esan zien, Siongo mendiaren inguruan arri landuzko murru bat jaso zezatela, ongi sendotua gelditu zedin, eta ala egin zuten.

12. Orduan Bakidesek egindako gazteluetan zeuden arrotzak, iges egin zuten.

13. Eta beren tokiak utzitzen zituztela, bakoitza bere errira joan zan.

14. Bakarrik Betsuran, Jaungoikoaren legea eta aginteak utzi zituztenetatik batzuek gelditu ziran, zeren gaztelu au beren igestokia zan.

15. Bitartean Alejandroen belarrietara allegatu ziran, Demetriok Jonatasi egin ziozkan eskeñtzak, eta Jonatasen eta beren anaien gudak, eta egite gloriaz beteak kontatu ziozkaten, eta nolako estutasunetan arkitu ziran.

16. Eta esan zuen: Au bezelako gizonik arkituko ote degu? Gogoratu dezagun bada gure adiskide, eta elkartu egitean.

17. Onetarako eskribitu zion, bialtzen ziola karta bat itz oiekin:

18. Alejandro erregeak, bere anaia Jonatasi, Osasuna.

19. Jakin degu, gizon sendo bat zerala, eta gure adiskide izateko diña.

20. Argatik gaur, zure erreñuko apaiz nagusi egiten zaitugu; eta gañera nai degu, erregearen adiskidearen izen argitsua iduki dezazula, eta zureak diraden gauzak gureakin elkartuak egon ditezela, eta gure adiskide izan zaitezela. Eta purpurazko jantzia, eta urrezko koroea bialdu ziozkan.

21. Egiaz eun eta irurogeigarren urteko zazpigarren illean, Jonatasek Tabernakuloen jai andian estola santa jantzi zuen, eta jaso zuen ejerzitu bat, eta arma talde andi bat egin erazi zuen.

22. Demetrio, gauza oiek jakin zituenean, txit tristetu zan, eta esan zuen:

23. Nola leku eman degu, Alejandro joateko gu baño aurrerago juduakin adiskidetzera, bera sendotuteko?

24. Ni ere banoa berai eskribitzera erreguzko itzakin, eskeñtzen diez-tedala diñadeak eta doañak, neri lagundu dizadaten.

25. Eta eskribitu ziezten itz oiek: Demetrio erregeak Juduen erreñuari, Osasuna.

26. Bozkario andiarekin jakin degu, gurekin egiña zeneukaten elkartasunean iraun dezutela, eta sendo zaudetela gure adiskidetasunean, gure etsaiakin elkartzen etzeratela.

27. Iraun ezazute bada oraindaño bezela, gordetzen diguzutela leialtasun hura bera, eta gugatik egin dezutenaren ordañ ugaria emango dizugute.

28. Gañera kotiz asko barkatuko dizkizugu, eta egingo dizkizugu mesede asko.

29. Eta oraindandik zuei eta judu guziai kentzen dizugute kotizak; eta barkatzen dizugute gatzaren, koroaen, aziaren irugarren zatiaren gañeko kotizak.

30. Eta neri dagokidan zuaitzen frutuen erdia, gaurtikan aurrera zuei utzitzen dizutet; argatik etzaie onezkero eskatuko Judako lurrari, ezta itsatsi zaiozkan Samariako eta Galileako iru erriai ere: eta gaurdandik betiko ala izango da.

31. Nai ere det, Jerusalen santa izan dedilla, eta bere lur guziarekin zama gabe gelditu dedilla, eta amarrenak eta kotizak beretzat izan ditezela.

32. Jerusalengo gaztelua ere zuen eskuetan jartzen det, eta ematen diot apaizburuari, berak nai duen jendea bera zaitzeko ipiñi dezan.

33. Gañera doañ askatuak ipintzen ditut, Judako lurretik katibu ekarri ziran judu guztiak, nere erreñuko edozeñere tokitan arkitu ditezela, berakgatik eta beren abereakgatik ere kotizikan pagatu bearrik ez daukatela.

34. Eta egun andi guziak, eta larunbatak, eta neomeniak, eta egun izendatuak, eta jai andien aurretiko eta atzetiko iru egunak, nere erreñuan dauden judu guztientzat lokarri gabeak eta aukerakoak izan ditezela.

35. Alako moduan, non, egun oietan iñork ere ez du berai ezerere egiteko eskubiderik idukiko, ez berai ezergatik ere juiziora deitzeko.

36. Agintzen ere det, sartu ditezela erregearen ejerzituan ogeita amar milla Juduraño, zeñai emango zaie janaria erregearen tropa guztiai bezela, eta beretatik artuko dira ipintzeko egotez errege andiaren gazteluetan.

37. Orobat beretatik autuko dirade lagun batzuek, zeñaen kontura egongo diran erreñuko gauza, ontasun eta zentzu andia eskatzen dutenak:

beren agintariak beretatik autuak izango dirade, eta biziko dirade beren legeen araura, Judako errirako erregeak agindu duen bezela.

38. Berebat idukiak izan bitez gauza guztietan, Judea bera bezela, Samariako probinziako iru erri, Judeari itsatsi zaiozkanak, alako moduan, non, ez dute agintari bat baizik idukiko, eta apaiz nagusiarena baño beste eskubiderik ez dute ezagutuko.

39. Ematen diot doañean Jerusalengo tenploari, Santuarioko kastu premiazkoetarako Ptolemaida, bere inguruko lurrakin.

40. Eta izendatzen diozkat urte guzietan amabost milla siklo zillarrezko, neri dagozkidan erregearen eskubideko diruetatik.

41. Eta atzeratua gelditu dan guztia, eta nere administratzalleak irago diraden urteetan pagatu gabe utzi duten guztia, emango da oraindandik Jaunaren etxeko berriztazioko kastuetarako.

42. Santuarioaren kontura urteoro aiek biltzen zituzten amabost milla siklo zillarrezkoen gañean berriz, oiek ere beren lanetan ari diraden apaizai dagozkie.

43. Eta Jerusalenen dagoan tenplora, eta berari itsatsiak dauden tokietara sartzen dana, erregeari edozeñere eratan bidegaberen bat eginda, pakean utzia izango da, eta nere erreñuan dauzkan ondasunakin nai duena egingo du.

44. Eta santuarioa egiteko, edo berriztatzeko bear diran kastuak, erregearen kontura izango dirade,

45. Baitaere kastatzen dana Jerusalengo murruak berriztatzeko, eta inguru guztitik sendotzeko, eta Judean altxatu bear diran murruetarako.

46. Aditurik bada Jonatasek, eta erriak Demetrioren eskeñtza oiek, sinistu zuten etziradela biotzez egiñak, eta etzituzten artu nai izan, zeren oroitzen ziran, Israelen egin zituen gaitz andiakin, eta nolako gogortasunarekin mendean iduki zituen.

47. Eta ala Alejandroren eskeñtzetara zeartu ziran geiago; zeren au izan zan pakearen gañean lenengo itz egin ziena, eta ala berari beti lagundu zioten.

48. Onetan Alejandro erregeak ejerzitu andi bat bildu zuen, eta Demetrioren kontra bere gudariakin joan zan.

49. Eta bi erregeak eraso zien elkarri, eta Demetrioren ejerzituak iges egin zuen, eta Alejandrok persegitu zion, eta garratz beren gañera aurtiki zan.

50. Txit gogorra izan zan guda, zeñak iraun zuen eguzkia sartu arteraño; eta beratan Demetrio il zan.

51. Oien ondoan Alejadrok bialdu ziozkan bere mandatariak Ptolomeo Ejiptoko erregeari, bere izenean esatera:

52. Nere erreñura itzuli naizan ezkero, eta nere gurasoen tronuan eseria arkitzen naizan ezkero, eta erregetza iritxi dedan ezkero; eta garaitu nuen ezkero Demetrio, eta naizan ezkero gure alderri onen jabe,

53. Eta gudatu nintzan berarekin, eta guk desegiñak izan ziraden bera eta bere etzauntzak, eta bere erreñuko tronuan eseria nago.

54. Eta orain adiskide izan gaitezen elkarrekin, eta onetarako eman zadazu esposatzat zure alaba; bada onela zure suia izango naiz ni, eta egingo dizkizut ala zuri, nola alabari, zure diña diraden eskeñtzak.

55. Onetara Ptolomeo erregeak erantzun zuen, esaten zuela: Bedeikatua izan dedilla zure gurasoen lurrean berriz sartu zeran, eta beren erreñuko tronuan eseri zeran eguna!

56. Ni prestatua nago, eskribitu didazuna zuri emateko, baña atoz Ptolemaidaraño, an elkar ikusi gaitezen, eta nik nere alaba esposatzat emango dizut, eskatzen didazun bezela.

57. Irten zan bada Ptolomeo Ejiptotik, bere alaba Kleopatrarekin, eta etorri zan Ptolemaidara eun eta irurogeita bigarren urtean.

58. Eta joan zan Alejadro an arkitzera; eta Ptolomeok eman zion esposatzat bere alaba Kleopatra, eztaiak egiten ziradela aitatu dan Ptolemaidako errian, errege batzuei dagoken anditasun batekin.

59. Alejandro erregeak Jonatasi ere eskribitu zion, etorri zedilla bera ikustera;

60. Eta egiaz iragotzen zala Ptolemaidara anditasunez beterik, ikusi zituen bi erregeak; eskeñi zien zillar, eta urre asko, eta beste doañ batzuek, eta berak arrera txit ona egin zioten.

61. Orduan Israelko gizon gaizto batzuek elkartu ziran, bere kontra salazio bat egiteko, baña erregeak etzien aditu nai izan:

62. Baizik agindu zuen Jonatasi bere soñekoak kendu zitzaieztela, eta purpuraz gañetik jantzi zezatela. Eta ala egin zan. Oien ondoan erregeak bere aldean esertzeko agindu zion.

63. Andikan laster bere andizkiai esan zien: Zoazte berarekin erriaren erditik; eta adirazi ezazute argiro, iñork ere, ezergatik ere ez dizaiola salaziorik egin, eta ez dizaiola atsekaberik eman, ezergatik ere.

64. Salatzalleak ikusi zutenean Jonatasi egiten zioten onra, eta errian adirazi zana, eta nola purpuraz jantzia zijoan, guztiak iges egin zuten.

65. Eta goratu zuen erregeak, eta bere adiskiderik andienen artean artu zuen, agintari nagusi egin zuen, eta erregetzako lanetan laguntzat artu zuen.

66. Oien ondoan Jonatas pakean, eta bozkarioz betea Jerusalenera biurtu zan.

67. Eun eta irurogeita bosgarren urtean, Demetrio gaztea, Demetrioren semea, Kretatik bere gurasoen lurrera etorri zan;

68. Eta jakinik Alejandro erregeak, atsekabe andia artu zuen, eta Antiokiara itzuli zan.

69. Demetrio erregeak bere ejerzituaren agintari egin zuen Apolonio, zeñ zan Zelesiriako gobernaria, zeñak ejerzitu andi bat bildu zuen, eta Jamniara alderatu zan, eta Jonatas apaiz nagusiari bialdu zion esatera

70. Itz oiek: Zu bakarrik zera guri kontra egiten diguzuna; eta ni gelditu naiz irri eta lotsaria egina, zuk mendietan guri gogor egiten diguzulako, eta garaipenak irabazten dituzulako gure kontra.

71. Orain bada, zure indarretan itxedotzen badezu, laura jetxi zaite, eta an gure indarrak neurtuko ditugu, zeren gudarien indarra nigan dagoan.

72. Galde ezazu bestela, eta ikasi ezazu nor naizan ni, eta nortzuk neri laguntzen datoztenak, zeñak esaten ere duten, ezin zutik egongo zeratela gure aurrean: zeren zure gurasoak beren lurrean bi alditan iges egin zuten.

73. Nola bada, zu orain aurkeztu ziñitzaioke zaldidi eta ejerzitu ain andi bati lau batean, non ez dagoan arririk, ez aitzik, ez tokirik iges egiteko?

74. Apolonioren itz oiek Jonatasek aditu zituenean, aserretu zan, eta aututzen zituela amar milla gizon, irten zan Jerusalendik; eta bidera irten zitzaion bere anaia Simonek berari laguntzera.

75. Joan ziraden etzauntzak ipintzera Joppe erriaren aldean, zeñak ateak itxi ziozkan (zeren Joppe zaitzen zeuden gudariak Apoloniorenak ziraden) eta ala setiatu bear izan zuen.

76. Baña beldurturik barrenen zeudenak, ateak idiki ziozkaten, eta Jonatas erri arekin jabetu zan.

77. Eta jakinik Apoloniok, iru milla zaldizko eta ejerzitu andi batekin alderatu zan.

78. Eta zijoala, Azotora joateko bezela, jetxi zan denborarik galdu gabe laura; zeren zeukan zaldidi andia, eta onetan itxedotzen zuen. Jonatas ere zuzendu zan Azotorontz, eta an eraso zien elkarri.

79. Apoloniok utzi zituen kanpoan, etsaien ostetikan, milla zaldi, azeloan.

80. Eta jakin zuen Jonatasek nola etsaiak bere ostetik utzi zituen zaldizkoak azeloan: zeñak kanpoa ingurutu zuten, eta egon ziraden aurtikitzen dardoak bere jendeen gañera, goizetik arratsalderaño.

81. Baña Jonatasenak geldirik egon ziran, berak agindu zien bezela: eta bitartean etsaien zaldidia txit nekatu zan.

82. Orduan Simonek aurreratu erazi zion bere jendeari, eta eraso zien oñazkoai, (zeñak zeuden bakarrik, zeren zaldidia nekatua zegoan) eta desegin zituen, eta iges egin zuten.

83. Eta kanpotik barreiatu ziradenak, iges egin zuten Azotora, eta beren idolo Dagonen etxean sartu ziran, an bizia gordetzeko.

84. Baña Jonatasek su eman zien Azotori, eta inguruetako erriai, beretan arkitzen ziraden ondasunak arrapatuta gero, eta erre zuen Dagonen tenploa, bertan zeuden guztiakin batean.

85. Eta ezpataz iragoak, eta erreak izan ziradenen artean, zortzi milla gizon bezelatsu galdu ziran.

86. Eta mugitu zituen andik Jonatasek etzauntzak, eta Askalonera alderatu zan, eta erri artakoak bidera irten zitzaiozkan bozkario andiakin.

87. Eta itzuli zan gero Jerusalenera, bere gudariak, arrapatu zituzten ondasun ugariakin aberastuak zeramazkiala.

88. Alejandro erregeak gertakari guzi oiek jakin zituenean, berriz onra andiagoak Jonatasi eman ziozkan,

89. Eta bialdu zion urrezko ebilla, erregearen aideai eman oi zaiena, eta Akarongo, eta bere lurretako agintaritza eman zion.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Oien ondoan Ejiptoko erregeak bildu zuen ejerzitu bat, itsasoaren bazterrean dagoan ondarra bezelakoa, eta ontzi asko; eta nai zuen iritxi marroz Alejandroren erreñua, eta bere erreñuari itsatsi.

2. Eta irten zan Siriara itz paketsuakin, eta idikitzen ziozkaten erriak, eta bidera irtetzen zioten, Alejandro erregeak agindu zuelako, berari bidera irtetzeko, zeren bere aitagiarraba zan.

3. Sartzen zanean bada Ptolomeo erriren batean, erri guztietan gudariak gordetzalletzat ipintzen zituen.

4. Azotora allegatu zanean erakutsi zioten Dagonen tenplo, errea izan zana, eta erri, eta Azoto, eta gañerakoak deseginak, eta gorputz illak aurtikiak, eta gerran il ziradenentzat bidearen luzeeran egin zituzten tunbuloak.

5. Eta esan zioten erregeari, gauza guzti aiek Jonatasek egin zituela, bere gorrotoan jarri zedin, eta erregea ixillik egon zan.

6. Eta Jonatasek irten zitzaion bidera erregeari Joppen, anditasunez beterik, eta elkarri agurrak egin ziozkaten, eta gaua an irago zuten.

7. Eta joan zan Jonatas erregearekin, Eleutero izena duen ibai bateraño, eta andik Jerusalenera itzuli zan.

8. Baña Ptolomeo erregea, itsasoaren erriberan dagoan Seleuziarañoko erri guztien jabe egin zan, eta Alejandroren kontra asmazio gaiztoak zerabiltzan.

9. Eta bialdu zituen mandatariak Demetriogana esan zizaioten: Atoz, elkartasuna egingo degu bioen artean, eta nik emango dizut nere alaba, Alejandrorekin desposatua, eta zure aitaren erreñuan erreñatuko dezu.

10. Zeren berari nere alaba eman diodalako damutua nagoan: zeren ni iltzeko asmazioetan ibilli dan.

11. Alako gaizkiak esan zituen beragatik, bere erreñua nai zuelako.

12. Eta kendu zion bere alaba, eta Demetriori eman zion, eta Alejandrogandik alde egin zuen, eta bere gogo gaiztoa agertu zan.

13. Eta sartu zan Ptolomeo Antiokian, eta diadema bi, Ejiptokoa eta Asiakoa bere buruan ipiñi zituen.

14. Garai onetan Alejandro erregea Zilizian zegoan, probinzia aietako jendea bere kontra jaiki zalako.

15. Baña jakin zueneko Ptolomeo erregearekin gertatu zana, bere kontra joan zan. Prestatu ere zituen onek bere gudariak, eta berari bidera irten zion indar andiakin, eta igeserazi zion.

16. Eta iges egin zuen Alejandrok Arabiara, an laguntasuna eman zizaien; eta Ptolomeo erregearen indarrak geitu ziraden.

17. Eta Zabdiel Arabiako prinzipeak ebaki zion burua Alejandrori, eta Ptolomeori bialdu zion.

18. Andik irugarren egunean, Ptolomeo erregea ere il zan, eta gazteluetan zeuden gudariak, etzauntzetan zeudenen eskuz biziak galdu zituzten.

19. Eta sartu zan Demetrio erreñuko erregetzan, eun eta irurogeita zazpigarren urtean.

20. Egun aietan bildu zituen Jonatasek Judeako gudariak Jerusalengo gaztelua arrapatzera; eta makina asko bere kontra egin zituzten.

21. Baña gizon gaizto batzuek, beren erreñuaren etsaiak, joan ziraden Demetrio erregeagana, eta adirazi zioten, Jonatasek gaztelua setiatua zeukala.

22. Eta aserreturik oiek aditu zituenean, bereala Ptolemaidara irago zan, eta eskribitu zion Jonatasi, gazteluaren setioa altxatu zezala, eta bera ikustera bereala etorri zedilla.

23. Artu zuenean Jonatasek karta au, agindu zuen setioari aurrera jarraitzeko; eta auturik Israelko zarretatik, eta apaizetatik batzuek, joan zan berakin, eta irriskuan jarri zan.

24. Eraman zituen berarekin urre eta zillar asko, eta arropak, eta beste eskeñtza batzuek, eta joan zan erregearekin egotera Ptolemaidan, eta bere adiskidetasuna irabazi zuen.

25. Alaere bere erreñuko gizon gaizto batzuek, berriz ere Jonatasen kontra salazioak egin zituzten.

26. Baña erregeak tratatu zuen, bera baño lenagoko erregeak tratatu zuten bezela; eta bere adiskide guzien aurrean onratu zuen,

27. Eta sendotu zuen apaiztza nagusian, eta lendanaz zeuzkan beste onra guzietan, eta bere adiskideetatik lenbizia egin zuen.

28. Orduan Jonatasek erregeari erregutu zion kotizgabetu zitzala Judea, iru Topargiak, eta Samaria bere inguruko lur guztiakin, eskeñtzen ziola ematea irureun talento, mendetasunagatik bezela.

29. Eta baimena eman zion erregeak, eta eskribitu ziozkan Jonatasi kartak gauza guzi oien gañean, itz oiekin:

30. Demetrio erregeak, bere anaia Jonatasi, eta juduen erreñuari, Osasuna.

31. Bialtzen dizugu zuen berrirako, Lastenes gure aitari zuen gañean eskribitu diogun kartaren kopia bat. Ala esaten du:

32. Demetrio erregeak Lasthenes bere aitari, Osasuna.

33. Erabaki degu mesedeak egitea juduen erreñuari, zeñak gure adiskideak diraden, eta gurekin leialki portatzen diraden, guganako daukaten borondate onagatik.

34. Erabakitzen degu, bada, Judea guztiak, eta iru erriak Aferema, Lida, eta Ramata, Samariako probinziakoak, Judeari itsatsiak, eta beren inguruetako lur guztiak, izan ditezela Jerusalengo apaiz guztientzat; erregeak, berak baño lenago, urte guztietan, lurreko eta zuaitzen frutuakgatik artzen zuenaren trukadan.

35. Orobat barkatzen diegu oraindandik, guri zegokigun gañerakoa, amarrenak, eta kotizakgatik ematen zutena, eta gatzen larrañak ematen zutena, eta eskeñtzen zizkigun urrezko koroeak.

36. Esan dan guzia ematen diegu, eta guztia, ez berriz kentzeko, oraindandik aurrera betiko.

37. Orain bada arretaz begiratu ezazute, erabaki onen kopia bat ateratzeko, eta Jonatasi eman zaiozute, Siongo mendi santuan toki agiri batean ipiñi dedin.

38. Ikusirik gero Demetrio erregeak, lur guztia pakean zegoala, eta berari lotsaz begiratzen ziotela, eta etzeukala erregetza kendu nai zionik batere, bialdu zuen ejerzitu guztia, bakoitza bere tokira, salbu erreñuetako ugarteetako gudari arrotz erosiak. Egite onekin ekarri zuen bere gañera, bere gurasoak serbitu zituzten gudari guzien gorrotoa.

39. Bazegoan orduan Trifon izena zuen bat, len Alejandroren aldamenekoa izan zana, eta ikusirik ejerzitu guztiak Demetriogatik gaizki esaten zuela, joan zan Emalkuel arabiatarra ikustera, zeñak erakutsiak ematen ziozkan Antioko, Alejandroren semeari:

40. Eta erregu asko, eta andiak egin ziozkan, eman zizaion, bere aitaren lekuan erreñatu zezan, eta kontatu zion, Demetriok egin zuen guztia, eta nola ejerzitu guztiak gorrotoz begiratzen zion. Eta egun askotan an gelditu zan.

41. Bitartean Jonatasek bialdu zituen mandatariak Demetrio erregeagana, eskatzera, agindu zezala kentzeko Jerusalengo gazteluan, eta beste gazteluetan oraindikan berak zaitzen zeuden gudari taldeak; zeren Israeli kalteak egiten ziozkaten.

42. Eta Demetriok Jonatasi erantzun zion: Ez bakarrik egingo det zugatik, eta zure erreñuagatik eskatzen didazuna, baitaere goratuko zaituztet gloria andiagora zu eta zure erria, denborak utzitzen didanean.

43. Baña orain mesede bat egingo didazu, bialdutzen badizkidazu gudariak neri laguntzera, zeren nere ejerzitu guztiak utzi nauen.

44. Orduan Jonatasek bialdu ziozkan Antiokiara iru milla gizon sendo, eta errutsuenak, zeñaen etorrerarekin erregeak bozkario txit andia artu zuen.

45. Baña errian bizi ziran eun eta ogei milla gizon, jaiki ziran matxiñatuta, eta erregea il nai zuten.

46. Sartu zan au bere jauregian, eta errikoak karrikaen jabe eginik, berari erasotzen asi ziran.

47. Orduan erregeak etorri erazi zien berari laguntzera juduai, zeñak guztiak bere aldean bildu ziran, eta aldamen askotatik erriari erasotzen ziotela,

48. Il zituzten egun artan eun milla gizon; eta arrapaturik an zeuden gauza guztiak, su eman zioten, eta onela erregea libratu zuten.

49. Ikusirik erriko matxiñariak, juduak erri guziaren jabe eginik zeudela, izutu ziraden, eta deadarrez erregeari urrikaltasuna eskatu zioten, erregu au egiten ziotela:

50. Eman zaguzu pakea, eta utzi bizaiote juduak, guri eta erriari gaizki egiteari.

51. Eta utzi zituzten armak, eta pakea egin zuten. Onenbesterekin juduak gloria andia iritxi zuten erregeaganako, eta bere erreñu guziaganako, eta egiten ziradela an txit otspatsuak, ondasunez beteak Jerusalenera itzuli ziraden.

52. Onenbesterekin, Demetrio bere erreñuko tronuan beldurrikan gabe gelditu zan, eta paketurik erri guztia, beldurrez ta lotsaz begiratzen zioten.

53. Baña alaere, eskeñi zituen gauzatatik batere etzuen kunplitu. Jonatasgandik alde egin zuen, eta ez bakarrik etzien esker onarekin erantzuten artu zituen mesedeai, baita ere, Jonatasi al zuen gaitz guztia egiten zion.

54. Gertakari oien ondoan itzuli zan Trifon, Antioko, oraindikan aurra zana, berarekin zekarrela, zeñ erregetzat ezagutua izan zan, eta diadema ipiñi zuen.

55. Eta joan ziran beragana Demetriok beren etxeetara bialdu zituen gudari guztiak; eta Demetrioren kontra gudatu ziran, zeñak igesari eman zion, eta atzea eman zuen.

56. Bereala Trifonek elefanteak arrapatu zituen, eta Antiokia guztiaren jabe egin zan.

57. Eta Antioko gaztetxoak Jonatasi itz oiek eskribitu ziozkan: Berriz jartzen zaitut apaiz nagusitzan, eta lau errietako jabetzan, eta nai det, erregearen adiskidetatik bat izan zaitezela.

58. Eta bialdu ziozkan urrezko ontziak bere serbitzorako, eta eman zion eskubidea urrezko ontzian edateko, eta urrezko hebilla erabiltzeko.

59. Eta Simon bere anaia jarri zuen alderri guzti artako Gobernari, Tiroko ertzetako Ejiptoko mugetaraño.

60. Andikan laster irten zan Jonatas, eta Jordango ibaiaren beste aldameneko errietatik ibilli zan; eta Siriako ejerzitu guztia beragana joan zan, berari lagundutzera, eta onekin zuzendu zan Askalonerontz, zeñatan bizi ziradenak irten ziran onra andiarekin bera artzen zutela.

61. Eta andik Gazara joan zan, eta an bizi ziradenak ateak itxi ziozkaten, eta berak setiatu zuen, eta erriaren inguru guztiak erre zituen, angoak zezukaten gauza guztiak arrapatuta gero.

62. Orduan Gazatarrak Jonatasi erregutu zioten, eta berak eskuia luzatu zien, eta arturik beren semeak fiantzan, Jerusalenera bialdu zituen; eta gero Damaskorañoko alderri guzi artatik ibilli zan.

63. Garai onetan jakin zuen Jonatasek, Demetrioren agintariak ejerzitu andi batekin joan ziradela Kadesko errira, ango jendeari armak artu erazitzeko, onela alde egin erazitzeko Antiokoren erreñuko lanetatik.

64. Eta beren kontra joan zan, probinzian bere anaia Simon utzitzen zuela.

65. Bitartean onek, Betsurara alderatzen zala, iduki zuen setiatua egun askotan, bertan bizi ziradenak barrenen sartuta zeuzkala:

66. Zeñak atzenean pakea eskatu zuten, eta eman zien. Eta andikan aurtiki zituen, eta arrapatu zuen erria, eta gudari talde bat egotez ipiñi zuen.

67. Jonatas berriz bere ejerzituarekin Jenesarko putzura alderatu zan, eta egunsentia baño lenago, Asorko laura allegatu ziraden.

68. Eta ona emen non arrotzen etzauntzen aurrean arkitu zan, zeñak mendian azelo bat jarri zien. Jonatas berai aurkez erasotzera joan zan.

69. Baña orduan azeloan zeudenak beren tokietatik irten ziran, eta guda asi zan.

70. Eta Jonatasen aldekoak ziradenak iges egin zuten guztiak, agintarietako bat ere gelditzen ez zala, baizik bakarrik Matatias, Absalomiren semea, eta Judas, Kalfi, bere ejerzituko agintari baten semea.

71. Orduan Jonatasek bere soñekoak urratu zituen, bere buruaren gañera autsa aurtiki zuen, eta orazio egin zuen.

72. Eta bereala Jonatasek etsaiai eraso zien, eta desegin zituen, eta igeserazi zien.

73. Ikusirik oiek, bera utzi zuten gudariak, berriz berarekin bildu ziran, eta guziak batean persegitu zien etsaiai Kadeseraño, non beren etzauntzak zeuzkaten, zeñatara allegatu ziraden.

74. Egun artan arrotzen ejerzituko iru milla gizon il ziraden, eta Jonatas Jerusalenera itzuli zan.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Eta ikusirik Jonatasek era onak laguntzen ziola, autu zituen gizon batzuek, eta Erromara bialdu zituen, Erromatarrakin adiskidetasuna sendotu eta berriztatzera.

2. Eta berdin bialdu ziezten Lazedemoniatarrai, eta beste erri batzuei, gauza guztietan elkarren antzeko kartak.

3. Eta joan ziran Erromara, eta sartu ziran zarren batzarrera, eta esan zuten: Jonatas apaiz nagusiak, eta juduen erreñuak bialdu gaituzte, adiskidetasun eta elkartasuna berriztatzera, irago diraden denboretan egin zan bezela.

4. Eta Erromatarrak eman ziezten gero kartak plazaetako gobernarientzat, Judearaño iñork ere gaitzik egin gabe, eta eragozketarik jarri gabe joan zitezen.

5. Jonatasek Lazedemoniatarrai eskribitu zien kartaren kopia, onelakoa da:

6. Jonatas, apaiz nagusiak, eta erreñuko zarrak, eta juduen erri guztiak, Lazedemoniatar, beren anaiai, Osasuna.

7. Denbora da zuen errege Ariok, Onias apaiz nagusiari eskribitu ziola karta bat, zeñean irakurtzen zan, zuek gure anaiak zeratela, ikusten dan bezela, beerago ipintzen dan kopian.

8. Eta Oniasek onra andiarekin artu zuen erregearen mandataria; baita, bere kartak ere, zeñatan adiskidetasuna, eta elkartasuna egitearen gañean itz egiten zan.

9. Eta guk orrelako gauza baten ere premiarik ez bajeneukan ere, liburu santuak gure atsedenerako gure eskuetan idukirik, dauzkagun bezela;

10. Alaere naiago izan degu bialtzea berriztatzera zuekin anaetasuna eta adiskidetasuna; iruditu ez dizazuten zuekgandik arroztu gerala, zeren denbora luzeak irago diraden, gugana bialdu zenduztenetik.

11. Guk ordea bitarte guzi onetan, beñere ez diogu utzi zuekin oroitzeari, Jaungoikoari egiten diozkagun eskeñtzetan, egun andietan, eta beste, bear diradenetan, eta gure orazio guztietan, gauza justoa eta bearra dan bezela, anaiakin oroitzea.

12. Daukazuten gloriagatik bada bozkariotzen gera.

13. Gu berriz atsekabe askok, eta guda askok ingurutu gaituzte, eta gure inguruan dauden errege askok eraso digute.

14. Alaere gerra oietan ez degu nai izan gogaikarriak zuentzat, ez gañerako elkartu eta adiskide batentzat ere;

15. Zeren zerutik artu degun laguntasuna, zeñarekin izan geran gu libratuak, eta gure etsaiak umillatuak.

16. Argatik autu ditugun ezkero orain Numenio Antiokoren semea; eta Antipatro, Jasonen semea Erromatarrakgana bialtzeko, anziñako adiskidetasuna, eta elkartasuna berakin berriztatzera,

17. Agindu ere diegu irago ditezela zuek ikustera, eta zuei gure izenean agur egitera, eta eramatera gure karta au, zeñ dan gure anaetasuna berriztatzeko.

18. Eta orain mesede bat egingo diguzute, erantzuten badiguzute gauza oietara.

19. Eta au da, Ariok Oniasi eskribitu zion kartaren kopia.

20. Ario Lazedemoniatarren erregeak, Onias apaiz nagusiari, Osasuna.

21. Emen arkitu da eskritura batean, Lazedemoniatarrak eta juduak anaiak diradela, eta guztiak diradela Abrahamen jatorrikoak.

22. Argatik orain, berri au arkitu degunean, mesede egingo diguzute eskribitzen badiguzute pakean ote zaudeten.

23. Bada guk oraindandik eskribitzen dizugu, esaten dizugula: Gure abereak eta gure ondasunak zuenak dirade, eta zuenak gureak, eta oiek dirade zuei esateko agintzen diegunak.

24. Bitartean Jonatasek jakin zuen, Demetrioren agintariak lengoa baño ejerzitu asko andiago batekin bere kontra itzuli ziradela.

25. Eta Jerusalendik irten zan, eta bidera irten zien Amathko alderrian, bere lurrean sartzeko denborarik berai ez emateko.

26. Eta beren etzauntzetara zelatariak bialdu zituen, eta itzuli ziran esaten ziotela, nola aiek gau artan nai zuten, ustekabean bera arrapatu.

27. Onenbesterekin Jonatasek, nola eguzkia sartua zan, agindu zion bere jendeari, gau guzian beillan eta armak eskuetan zituztela egon zitezela, gudarako prestatuak, eta etzauntzen inguruan beillariak jarri zituen.

28. Eta etsaiak aditu zutenean Jonatas bereakin gudarako prestatua zegoela, beldurtu ziran, eta izututa, iges egin zuten, etzauntzetan suak erazekiak utzitzen zituztela.

29. Eta Jonatasek eta berarekin zeudenak berriz, nola suak erazekiak ikusten zituzten, goizeraño etzuten ezagutu.

30. Gero berriz Jonatasek berai jarraitu zien, baña etzituen iritxi; zeren Eleutero ibaia garai artako irago zuten.

31. Orduan biurtu zituen bere armak, Zabadetarrak izena daukaten Arabiatarren kontra, zeñak desegin zituen, eta zeñai arrapatu ziezten zeuzkaten gauza guztiak;

32. Eta bere jende guzia bildu zuen, eta Damaskora joan zan, eta alderri guzi artatik ibilli oi zan.

33. Bitartean Simon joan zan, eta allegatu zan Askalongo erri eta aldeko gazteluetaraño; eta zuzentzen zala Joppera, arrapatu zuen.

34. (Zeren jakin zuen erri artakoak nai zutela plaza hura jarri Demetrioren alde zebiltzanen eskuetan) eta argatik gudari talde bat bertan utzi zuen, erria zaitu zezan.

35. Eta itzuli zan Jonatas, eta egin zuen erriko zarren batzarre bat, eta beren iritziarekin batean erabaki zuen, Judean gazteluak egitea,

36. Berriz egitea Jerusalengo murruak, eta jasotzea murru txit goratu bat gazteluaren eta erriaren bitartean; hura onegandik berezitzeko, alako moduan, non, gaztelua bakartua gelditu zedin, eta barrendikoak etzitzaketen gauzarikan batere erosi, ez saldu.

37. Bildu zan bada jendea erria berriz egiteko, eta arkiturik eroria, Zedrongo errekaren gañean Sortalderontz zegoan murrua, Jonatasek jaso zuen, zeñaen izena dan Kafetetha.

38. Simonek ere egin zuen Adiada Sefelan, eta sendotu zuen, eta ateak eta balenkak jarri ziozkan.

39. Denbora onetan Trifonek artu zituen asmazioak Asiako errege bera egiteko, eta berak koroea ipinitzeko, eta Antioko erregeari bizia kentzeko.

40. Baña beldur izanik Jonatasek etziola utziko, baizik bere kontra gudatuko zala, bera arrapatu, eta il nairik zebillan. Asmazio oiekin bada, Bethsanera joan zan.

41. Baña Jonatasek bidera irten zion berrogei milla gudari auturekin, eta Betsanera allegatu zan.

42. Trifon berriz, ikusi zuenean Jonatas bere kontra alako ejerzitu andiarekin joan zala, beldurtu zan.

43. Eta onra andiarekin artu zuen, eta bere adiskideai ere arrera on bat egiteko esan zien; egin ziozkan eskeñtzak, eta agindu zion bere ejerzitu guztiari, berari bezela obeditzeko.

44. Gero esan zion Jonatasi: Zergatik arazoan jarri dezu erri guztia, gerrarik gure artean ez dagoan ezkero?

45. Orain bada, bialdu itzatzu beren etxeetara, eta autu itzatzu beren artetik gutxi batzuek bakarrik, lagundu dizazuten, eta atoz nerekin Ptolemaidara, eta emango dizut zuri, baita beste gazteluak ere, eta ejerzitua, eta gobiernuaren morroe guztiak. Eta oiek eginik, itzuliko naiz, zeren oietarako onara etorri naizan.

46. Eta sinistu zion Jonatasek, eta egin zuen esan zion bezela, eta utzi zuen ejerzitua, eta Judako lurrera biurtu ziran;

47. Eta berarekin gelditu zituen iru milla gizon; zeñaetatik oraindikan bi milla Galileara bialdu zituen, eta millak lagundu zioten.

48. Eta Jonatas Ptolemaidan sartu zaneko, Ptolemaidatarrak erriko ateak itxi zituzten, eta arrapatu zuten; eta berarekin sartu ziran guztiak, ezpataz il zituzten.

49. Eta Trifonek bialdu zituen bere oñazkoak, eta zaldidia Galileara, eta bere lau andira, Jonatasi lagundu zioten gudari guztiak desegiteko.

50. Baña oiek aditu zutenean arrapatu zutela Jonatas, eta il zutela, berari laguntzen zien guztiakin, elkar alaitu zuten, eta gudarako prestatuta atera ziran.

51. Ikusirik berriz, persegitzera joan ziradenak, beren biziak garesti saltzera erabakita zeudela, atzera biurtu ziran.

52. Onela jarraitu zioten beren bideari; itzultzen ziradela guztiak pakean Judeara, non progu andi bat egin zuten Jonatasgaitik, eta berari lagundu ziotenakgatik, eta Israel guziak beragatik negar andiak egin zituen.

53. Orduan inguruan zeuden erreñu guztiak, berak azpiratu nai zituzten. Zeren esan zuten:

54. Ez daukate gialaririk, ez nork lagundurik. Orain bada eraso dizaiegun, eta beren oroipena gizonen artetik kendu dezagun.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Eta aditu zuen Simonek, Trifonek bildu zuela ejerzitu andi bat, Judako lurrera etortzeko, eta bera arrasatzeko.

2. Eta ikusirik erria beldurrez eta ikaraz zegoala, igo zan Jerusalenera, eta erria bildu zuen,

3. Eta sendotzeko guziak, onela itz egin zien: Badakizute zenbat neke irago degun ala nik, nola nere anaiak, eta nere aitaren etxeak gure legea eta Santuarioa zaitzeko, eta nolako antsiaetan ikusi geran.

4. Gauza oien amorioz galdu dituzte biziak nere anaia guztiak, Israel salbatzeko, izanik ni bakarra beren artean gelditu naizana.

5. Eta orain ez dakidala gertatu, begiratzea nere biziagatik, atsekabean gauden artean, zeren ni nere anaiak baño balio andiagokoa ez naizan.

6. Zaituko ditut, bada, nere erreñua, eta santuarioa, eta gure semeak, eta gure emazteak; zeren erreñu jentil guziak, gure kontra daukaten gorrotoagatik, elkartu dira gu desegiteko.

7. Eta erazeki zan erriaren espiritua, itz oiek aditu zituenean,

8. Eta guztiak boz goratuan erantzun zuten: Zu zera gure gialaria zure anaia Judas, eta Jonatasen lekuan.

9. Zuzendu ezazu gure gerra, zeren guk agintzen diguzun guztia egingo degu.

10. Eta gizaseme gudari guztiak biltzen zituela, agudo ibilli zan Jerusalengo murruak berriz egiteko, eta aldamen guzietatik sendotu zuen.

11. Eta bialdu zuen Jonatas, Absalomiren semea, ejerzitu berri batekin Jopperen kontra, eta aurtikitzen zituela onek erriaren barrenen zeudenak, bertan bere tropakin gelditu zan.

12. Bitartean Trifon joan zan Ptolemaidatik ejerzitu andi batekin Judako lurrean sartzeko, Jonatas berarekin katibu zekarrela.

13. Simonek, Addusen aldean, lauaren aurkez, etzauntzak jarri zituen.

14. Baña Trifonek jakin zuenean, Simon jarri zala bere anaia Jonatasen lekuan, eta prestatzen zala berarekin gudatzera ateratzeko, mandatariak bialdu ziozkan,

15. Esan zizaioten bere izenean: Orainartean iduki degu gurekin zure anaia Jonatas, zeren erregeari dirua zor zion, bere kontura iduki zituen arazo batzuekgatik.

16. Orain bada, bialdu zazkidazu eun talentu zillarrezko, eta fiantzarako bere bi semeak, utzitzen diogunean, gure kontra biurtu ez dedin, eta bialduko degu.

17. Eta Simonek ezagutu zuen marroz itz egiten zuela berarekin. Alaere agindu zuen emateko dirua eta aurrak, Israelko erriaren gorrotoa ez beraganatzeagatik, zeñak esango zuen:

18. Etzaiozkalako bialdu dirua eta aurrak, argatik Jonatas, illa izan da.

19. Ala bada, aurrak eta eun talentuak bialdu zituen, eta Trifonek gezurra esan zuen, eta etzuen bialdu Jonatas.

20. Eta sartu zan gero Trifon Judako lurrean dana arrasatzeko; eta egin zuen jira bat, Adorrera dijoan bidetik; Simonek ordea bere tropakin jarraitzen zien pausoai, zijoazen edozeñ tokitara.

21. Denbora onetan Jerusalengo gazteluan zeudenak, bialdu zien esatera Trifoni, agudu etorri zedilla eremuko bidetik, eta janaria bialdu zizaiela.

22. Eta prestatu zuen Trifonek zaldidi guztia, gau artan beratan irtetzeko aiei laguntasuna ematera, baña txit elurtza andia zegoalako, etzan Galaadera etorri.

23. Eta alderatu zanean Baskamanera, Jonatas eta bere semeak an illerazi zituen.

24. Andikan laster atzera itzuli zan Trifon, eta bere errira joan zan.

25. Orduan Simonek bialdu zituen mandatariak bere anaia Jonatasen ezurren billan, eta Modinen, bere gurasoen errian, obiratu zituen.

26. Eta Israel guztiak bere eriotzan progu andi bat egin zuen, eta egun askotan negar egin zuen beragatik.

27. Eta egin zuen Simonek bere aitaren eta bere anaien obiaren gañean oroipengarri goratu bat, urrutitikan ikusten zana, aldamen batetik eta bestetik arri landuakin.

28. Eta an jaso ziezten zazpi piramide, bere aitari, bere amari, eta bere lau anaiai.

29. Beren inguruan ipiñi zituen arrizko abe andiak, eta abeen gañean armak betiko oroipenerako, eta armaen aldean talluzko ontzi batzuek, itsaso artatik ontzietan zebiltzanak ikusi zitzaten.

30. Onelakoa da Simonek Modinen jaso zuen obia, zeñak gaurko eguneraño irautzen duen.

31. Baña Trifonek, bidean zijoala Antioko errege gaztetxoarekin, saldukeriaz oni bizia kendu erazi zion.

32. Eta bere lekuan erreñatu zuen, eta ipiñi zuen Asiako diadema, eta aldamen guzi aietan gaitz andiak egin zituen.

33. Bitartean Simonek egin zituen Judeako gazteluak, sendotzen zituela dorre altuakin, murru goratuakin, ateakin, eta morrolloakin, eta janaria ugari beretan ipintzen zuela.

34. Bialdu ere ziozkan Simonek mandatariak Demetrio erregeari, erregututzera libratu zezala erria kotizetatik; zeren Trifonek egin zuen guztia, lapurreta garbi bat baizik etzan izan.

35. Erantzun zuen Demetrio erregeak eskari onetara, eta karta au eskribitu zion:

36. Demetrio erregeak, Simon apaiz nagusiari, eta erregeen adiskideari, eta juduen zarrai, eta erriari, Osasuna.

37. Artu ditugu bialdu dizkiguzuten urrezko koroea, eta palma, eta prestatuak gaude egiteko zuekin pake egiazko bat, eta eskribitzeko gure diru biltzalleai barkatu dizazkizuteela kotizak, zeñaen grazia egin dizuguten.

38. Jakin ezazute berriz, zuen onerako erabaki degun guztiak, beti sendo iraungo duela. Sendotu dituzuten plazak, zuentzat geldituko dirade.

39. Barkatzen ere diezteguzute, gaurko eguneraño egin al ziñitzaketen utsegite eta errakuntzak, eta orobat zor ziguzuten urrezko koroea, eta nai degu, baldin Jerusalenen beste kotizikan pagatzen bazan, emendikan aurrera ez dedilla pagatu.

40. Atzenik baldin baleude zuen artean, gure artean kontatuak izateko egokiak diradenen batzuek, gure artean kontatuak izan bitez, eta gu pakean bizi gaitezela.

41. Onela, eun eta irurogeita amargarren urtean, Israel jentillen kotizgabetua gelditu zan;

42. Eta orduan asi zan Israelko erria eskribitzen oletan eta guzientzat ziraden tokietan, Simon apaiz nagusi, gialari andi eta Juduen prinzipearen lendabiziko urtetik.

43. Egun aietan irago zan Simon Gazari setioa ipintzera; eta bere ejerzituarekin ingurututzen zuela, gerrako makinak jaso zituen, alderatu zituen bere murruetara, eta eraso zion dorre bati, eta arrapatu zuen.

44. Eta makina oietatik batean zeuden soldaduak, errian batbatean sartu ziran, eta onekin, naste andi bat bertan jaiki zan.

45. Orduan erri artako gizonak igo ziran murrura beren emazte eta semeakin, beren soñekoak urratuak zeuzkatela, eta deadarrez ots egiten zien Simoni, eskatzen ziela, pakea eman zizaiela,

46. Eta esaten ziotela: Ez gaitzatzu tratatu gure gaiztakeriak diña diraden bezela, zure urrikaltasun andiaren araura baizik.

47. Alaxe da. Errukiturik Simon, gerrako gogortasunarekin etzituen tratatu; baña erritik aurtiki zituen, eta garbitu zituen tenplo aiek, zeñatan idoloak zeuden, eta gero errian sartu zan, Jaunari alabantzazko himnoak kantatzen ziozkatela.

48. Aurtikirik gero erritik idolatriaren zikinkeria guztiak, egin zuen, Jaunaren legea zaitzen zuen jendea bertan bizi zedilla; eta sendotu zuen; eta etxe bat beretzat an egin zuen.

49. Garai onetan Jerusalengo gazteluan zeudenak, nola etzitezkean sartu errian, ez ibilli alderrietatik, ez ezerere erosi, ez saldu, gose txit andi batean arkitu ziran, eta beretatik asko gosez il ziran.

50. Orduan deadarrez ots egin zioten Simoni, eskatzen ziotela, eskuieko eskuak elkarri emateko; eta berak eman zien; eta andikan aurtiki zituen, eta gazteluko zikinkeriak garbitu zituen.

51. Sartu ziraden bada Juduak eun eta irurogeita amaikagarren urtean, bigarren illaren ogeita irugarren egunean, eskuetan palmak zeramazkitela, eta Jaungoikoari kantatzen ziozkatela alabantzak, harpaen, zinbaloen, eta liraen otsean, eta kantatzen zituztela himnoak eta kantak, etsai ain andi bat Israeltik aurtiki zutelako.

52. Eta Simonek agindu zuen, urteoro egun oiek bozkariozko gauzetan irago zitezela.

53. Orobat, sendotu zuen gazteluaren aldean dagoan tenploko mendia, eta bere jendeakin, an bizitu izan zan.

54. Eta ikusi zuen Simonek, Juan bere semea gerrari txit errutsua zala, eta ejerzitu guztiko agintari nagusi egin zuen, eta Gazaran bizi izan zan.

AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Eun eta irurogeita amabigarren urtean, Demetrio erregeak bere ejerzitua bildu zuen, eta Mediara irago zan, an laguntasunak artzeko, Trifoni gerran egiteko gero.

2. Eta Arsazes Persiako eta Mediako erregeak aditu zuen, Demetrio bere erregetzako lurrean sartu zala, eta bialdu zuen bere agintari nagusietatik bat, arrapatu zezan, eta bizirik ekarri zizaion.

3. Joan zan bada agintari au, eta desegin zuen Demetrioren ejerzitua, arrapatu zuen au, eta Arsazesgana eraman zuen, zeñak karzela batean ipiñierazi zuen.

4. Judako erri guztia atsedenean egon zan Simonen egunetan, eta au beti ari zan bere jendeari mesedeak egiten, eta beti izan zan erriaren gogokoa bere agintaritza, eta zeukan gloria.

5. Eta bere gloria guziarekin arrapatu zuen Joppe, eta an egin zuen portu bat, itsasoko ugartetako ontziak an sartu, eta bear zutena artzeko.

6. Zabaldu zituen bere erreñuko mugak, eta alderriaren jabe egin zan.

7. Bildu ere zuen katibu talde andi bat, eta agintatu zuen Gazaran, eta Bethsuran, eta Jerusalengo gazteluan, eta kendu zituen andik idolatrien zikinkeriak, eta iñor ere etzegoan berari aurkeztu zizaiokeanik.

8. Orduan bakoitzak bere lurra pake osoan goldeatzen zuen, eta Judako lurak ematen zituen bere uzta ugariak, eta kanpoko zuhaitzak frutuak.

9. Zar guztiak plazaetan eserita, erriarentzat onak eta mesedegarriak izango ziraden gauzaen gañean tratatzen zuten, eta gazteak soñeko ederrakin, eta irago zan gerran arrapatutako arropakin apaintzen ziraden.

10. Eta erriai janaria ematen zien, eta jartzen zituen, beste anbeste gaztelu izateko eran, alako moduan, non, bere izen gloriaz betearen ospea munduaren ertzeraño zabaldu zan.

11. Pakea ipiñi zuen bere lurraren zabalera guztian, eta Israel txit bozkario andian bizitu izan zan.

12. Alako moduan, non, bakoitza egon zitekean eseria, bere parraren eta bere piku ondoaren itzalean, iñoren ere beldur izan gabe.

13. Eta bere etsaiak ezkutatu ziraden lurretik; eta aldeko erregeak egun aietan azpiratuak zeuden.

14. Simon izan zan bere erriko beartsuen laguntzallea, eta legearen zaitzallea, eta gaizto, eta biurri guztiak arras kendu zituena.

15. Berak santuarioa berriz gloriaz bete zuen, eta ontzi santuak ugaritu zituen.

16. Jakin zutenean Erroman eta Lazedemoniarañokoan Jonatas illa izan zala, txit atsekabe andia artu zuten.

17. Baña jakin zutenean aren lekuan bere anaia Simon apaiz nagusitzat autua izan zala, eta berak agintzen zuela erreñuan, eta bere erri guzietan;

18. Brontzezko oletan eskribitu zioten, bere anaia Judas, eta Jonatasekin egindako adiskidetasun, eta elkartasuna berriztatzeko.

19. Karta oiek Jerusalenen, erri guztiaren aurrean irakurriak izan ziraden. Lazedemoniatarrak eskribitu zutenak oiek zeuskan:

20. Lazedemoniatarren prinzipeak, eta erriak, Simon apaiz nagusiari, Zarrai, apaizai, eta juduen erri guztiari, eta anaiai, Osasuna.

21. Gure errira bialduak izan diraden mandatariak adirazi digute, nolako glorian, onran, eta bozkarioan bizi zeraten, eta beren etorrerarekin txit poztu gera.

22. Eta eskribitu erazi degu berak esan digutena erriko batzarrean, era onetan: Numenio Antiokoren semea, eta Antipatro Jasonen semea, Juduen bialkiñak, etorri dirade gugana, gure anziñako adiskidetasuna berriztatzera.

23. Eta erriari ongi iritzi zion, onra andiko arrera bat bialkin oiei egitea, eta beren itzen ejenplu bat erriko liburu berezietan ipintzea, Lazedemoniatarren erriarentzat geroko denboretan oroipengarri bat izan zedin. Eta oien ejenplu bat Simon apaiz nagusiari bialdu diogu.

24. Oien ondoan, Simonek bialdu zuen Erromara Numenio urrezko ezkutu andi batekin, zeñak milla mna pisatzen zituen, berakin elkartasuna berriztatzeko. Eta Erromako erriak jakin zuenean,

25. Esan zuen: Nolako moduan agertuko diegu guk gure esker ona Simoni, eta bere semeai?

26. Zeren berak bere anaiak beren tokietan jarri zituen, eta etsaiak Israeltik arras aurtiki ditu, eta eman zioten aukera, eta eskribitu zuten brontzezko oletan, eta Siongo mendiko oroipengarrietan jarri zuten.

27. Eta ona emen eskribitua izandu zana: Elul illaren emezortzigarren egunean, eun eta irurogeita amabigarren urtean, Simonen apaiz nagusitzako irugarrenean, Asaramelen erabaki au egina izan zan,

28. Apaizen, eta erriaren, eta erreñuko prinzipeen, eta erriko zarren batzar andian, nola gure errian maiz gerrak izan diran;

29. Simon, Matatiasen semeak, Jaribko jatorrikoak, baitaere bere anaiak irrisku andietan jarri ziran, eta beren erreñuko etsaien aurkez jarri ziran, beren santuarioa eta legea zaitzeko, beren erriko gloria txit goratzen zutela.

30. Jonatasek bere erreñukoak goratu zituen, apaiz nagusi izan zan, eta orain bere erriko illakin bildua arkitzen da.

31. Eta gero beren etsaiak nai zuten ostikopetu, eta zatitu beren erria, eta beren santuariora eskuak luzatu.

32. Orduan Simon aurkeztu zitzaien, eta erriaren alde gudatu zan, eta kastatu zuen diru asko, bere erreñuko gizonik sendoenak armatzen zituela, eta ordaña ematen ziela.

33. Sendotu ere zituen Judeako erriak, eta Betsura, bere mugetan dagoana, zeñ len etsaien armetako plaza zan, eta juduen gudari talde bat an jarri zuen.

34. Orobat sendotu zituen Joppe itsasbazterrean, eta Gazara Azotoko mugetan dagoana, len etsaien mendean zegoana, zeñatan juduen gudari taldeak ipiñi zituen, ematen ziela bear zuten guztia berak zaitzeko.

35. Ikusirik erriak Simonek egin zituen gauzak, eta zenbat egiten zuen bere erreñuko gloria geitzeko, egin zuen bere gialari, eta apaizen prinzipe, egin zuelako esan dan guzia bere erriaren alde, eta bere ontasunagatik, eta bere erriaganako gorde zuen leialtasunagatik, eta al zuen guztia egin zuelako bere erreñua goratzeko.

36. Bere egunetan bere eskuetan gauza guziak ongi zebiltzan; alako moduan, non, erreñu arrotzak bere lurretik aurtikiak izan ziraden, eta aurtikiak ere, zeudenak Jerusalenen Dabiden errian, gazteluan, zeñatatik irtetzen ziran nosik- beinean, santuarioaren inguru guziak kutsututzen zituztela, eta bere santutasunari ezbear andiak egiten ziozkatela.

37. Eta alderri, eta erriaren laguntasunerako jarri zituen an soldadu juduak, eta Jerusalengo murruak jaso erazi zituen.

38. Demetrio erregeak apaizburutzan sendotu zuen.

39. Eta andikan bereala bere adiskide egin zuen, eta goratu zuen onra andiakin.

40. Zeren aditu zuen Erromatarrak juduai adiskideen izena eman ziela, baitaere lagun eta anaiatzat artu zituztela, eta oiek Simonen bialkiñak onra andiarekin artu zituztela:

41. Baitaere juduak eta beren apaizak guzien iritziarekin, beren gialari eta apaiznagusi betiko egin zutela, Profeta leiala etorri arteraño.

42. Eta nai ere izan zutela, izan zedilla beren agintaria, eta gauza santak zaitu zitzala, eta ipiñi zitzala begiraleak guztien obren gañean, eta erriaren gañean, eta gerrako gauzen gañean, eta gazteluen gañean.

43. Santuarioa, bere kontura iduki zezala, eta guziak obeditu zizaiotela, eta alderriko gauza guziak bere izenean eskribitu zitezela; eta purpuraz, eta urrez jantzi zedilla.

44. Atzenean iñork ere etzezakeala, ez errikok, ez apaizek oietatiko aginterik ausi, ez berak agintzen zuenari aurkeztu, eztaere bildu probinzian bere baimen gabe batzarrikan batere, ez purpurarik jantzi, ez urrezko hebillarik eraman.

45. Eta aginte oiek ausi, edo utsean utzitzen dituen guztia, kulpadun izango da.

46. Eta erri guziari ongi iritzi zitzaion Simoni alako eskubidea ematea, eta itz oien araura egin zedilla.

47. Eta Simonek artu zuen, eskerrakin, apaiztza nagusia; eta juduen erriaren eta apaizen gialari eta prinzipe izatea, eta guzien gañeko eskubidea idukitzea.

48. Eta esan zuten, eskritura au ipiñi bear zala brontzezko oletan, eta ipiñi bear zala tenploko atarian, toki otspatsuan.

49. Eta bere ejenplo bat ipiñi zedilla tesoroan, Simonek eta bere semeak iduki zezaten.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Itsasoko ugarteetatik eskribitu zion Antioko errege, Demetrio zarraren semeak, karta bat, Simon apaiz nagusi, eta juduen erriko prinzipeari, eta erreñu guztiari.

2. Eta oiek ziraden eskribituta zeudenak: Antioko erregeak, Simon apaiz nagusiari, eta Juduen erreñuari, Osasuna.

3. Gizon gaizto batzuek gure gurasoen erreñuaren jabe egin diradelako, daukat erabakita bera libratzea, eta len zeukan estaduan ipintzea. Onetarako ejerzitu andi, eta autu bat bildu det, eta gerrako ontziak eginerazi ditut.

4. Sartu nai det bada nere erreñuan, kastigatzeko nere probinziak desegin, eta nere erreñuko erri asko arrasatu dituztenak.

5. Zuri berriz oraindandik barkatzen dizkizut berriz, ni baño lenagoko erregeak barkatu zizkizuten kotizak, eta egin zizuten beste doañ guztiak.

6. Eta utzitzen dizut dirua zure errian egin dezazula.

7. Nai det Jerusalen erri santu eta lokarri gabeko bat izan dedilla, eta egin dituzun arma guztiak, baitaere jaso dituzun gazteluak, zuk dauzkazunak, zuretzat gelditu ditezela.

8. Eta erregearen zor guztia, eta erregearenak izango diradenak, oraindandik betiko barkatzen zazkizu.

9. Eta gure erreñu guziaren jabe izatera allegatzen geradenean, zu, eta zure erria eta tenploa alako gloriaz beteko degu, non, mundu guzian argi egingo duen.

10. Egiaz eun eta irurogeita amalaugarren urtean sartu zan Antioko bere gurasoen lurrean, eta ejerzitu guztiak beragana bildu ziran, alako moduan, non, Trifonekin gutxi gelditu ziran.

11. Eta Antioko erregeak persegitu zion; baña iges egiten zuela Trifonek itsasoko erriberatik, Dorara joan zan.

12. Bada ezagutu zuen, nolako gaitzak bere gañera erori bear ziran, ejerzituak utzi zuelako.

13. Orduan Antioko joan zan Doraren kontra eun eta ogei milla gudari sendorekin, eta zortzi milla zaldizkorekin.

14. Eta erriari setioa ipiñi zion, eta ontziak itsasoz alderatu ziran, eta erasotzen zioten erriari leorrez, eta itsasoz, eta iñori ere etzioten utziten sartzen, ez irtetzen.

15. Garai onetan allegatu ziran Erromako erritik Numerio eta bere lagunak, erregeai eta erreñuai eskribitutako kartakin, zeñak onela esaten zuten:

16. Luzio, Erromatarren Konsulak, Ptolomeo erregeari, Agurra.

17. Etorri dira gugana gure adiskide Juduen mandatariak, Simon apaizen prinzipeak, eta Judako erriak bialduak, anziñako adiskidetasun, eta elkartasuna berriztatzera;

18. Eta urrezko ezkutu, milla mnako bat ekarri digute.

19. Gogoak eman digu bada, eskribitzea erregeai, eta erriai, ez dizaiela gaitzikan batere egin, eta ez dezatela ere gerrarik egin beren kontra, ez beren erri, eta lurren kontra, eta gerra egiten diotenai ere, ez dizaiela lagundu.

20. Eta ongi iritzi zatzagu, ekarri diguten ezkutua artzea.

21. Argatik baldin badaude gizon gaiztoren batzuek, iges egiñik beren erritik, zuen artean arkitzen diradenak, eman zaiozkazute, Simon, apaizen prinzipeari, bere legearen araura kastigatu ditzan.

22. Oiek berak eskribitu ziezten Demetrio erregeari, eta Attalori, eta Ariaratesi, eta Arsazesi;

23. Baita ere beren erri elkartu guztiai, au da, Lanpsakokoai, eta Lazedemoniakoai, eta Deloskoai, eta Mindoskoai, eta Sizionkoai, eta Kariakoai, eta Samoskoai, eta Pamfiliakoai, eta Liziakoai, eta Alikarnasokoai, eta Kookoai, eta Sidengoai, eta Aradongoai, eta Rodaskoai, eta Faselideskoai, eta Gortinakoai, eta Gidokoai, eta Txiprekoai, eta zirenekoai.

24. Eta karta oien kopia bat bialdu zien Erromatarrak, Simon, apaizen prinzipeari, eta juduen erriari.

25. Denbora onetan Antioko erregeak setiatu zuen bigarren aldiz Dora, aspertu gabe erasotzen ziola, eta bere kontra gerrako makinak jasotzen zituela. Eta Trifon barrenen sartu zuen, igesik egin etzezakean eran.

26. Simonek bialdu zituen berari laguntzeko bi milla gizon autu, eta zillarra eta urrea, eta gauza baliotsu asko,

27. Baña Antiokok ezerere etzion artu nai izan; baizik urratu zituen berarekin lendik eginda zeuzkan elkartasun guztiak, eta beragandik alde egin zuen.

28. Eta bialdu zuen Ateneo bere adiskideetatik bat, tratatzeko Simonekin, eta bere izenean esateko: Zuek dauzkazute Joppe, eta Gazara, eta Jerusalenen dagoan gaztelua, zeñak diraden nere erreñuari dagozkion erriak.

29. Beren inguruak arrasatu dituzute, eta kalte andiak egin dituzute lur artan, eta nere erreñuan toki askoren agintaritza, ta jabetasuna arrapatu dezute.

30. Orain bada, edo eman zazkidazute arrapatu zinduzten erriak, eta Judeako mugetatik kanpora jabetu ziñaten errietan eskatutako kotizak,

31. Edo bestelan pagatu itzatzute bost eun talentu zillarrezko erri aiekgatik; eta beste bost eun talentu zillarrezko, egin dituzuten ondamenakgatik, eta errietan bildu dituzuten kotizakgatik, bestela joango gera, eta gerra egingo dizugute.

32. Eta joan zan Atenobio, erregearen adiskidea, Jerusalenera, eta ikusirik Simonen anditasuna, eta aldamen guzietatik argi egiten zuen urrea eta zillarra, eta bere etxeko apainduria ederra, txit arritu zan. Gero esan ziozkan, erregeak agindu zion itzak.

33. Eta erantzun zion Simonek onela: Ez degu guk artu iñoren lurrik; eta ez daukagu ere gurea ez dan gauzarik. Guk artu deguna gure gurasoen herenzia da; eta gure etsaiak denbora zati batean gaizki iduki zutena,

34. Eta gu, era iduki degunean, gure gurasoen herenziaren jabe eginik berriz gelditu gera.

35. Joppe eta Gazara eskatzen dituzunakgatik berriz, jakin ezazu emen bizi ziradenak, erriari eta gure lurrari gaitz andiak egiten zieztela, baña alaere, prestatuak gaude berakgatik eun talentu emateko. Eta Atenobiok itzik ere etzion erantzun.

36. Baña bere erregeagana aserretua itzultzen zala, adirazi zizkion itz oiek, eta Simonen gauzen anditasuna, eta ikusi zituen gauza guztiak, eta erregea txit aserretu zan.

37. Bitarte onetan Trifonek ontzi batean Ortosiadara iges egin zuen.

38. Eta erregeak itsasoko aldameneko gobernari, Zendebeo egin zuen, eta oñazko eta zaldizko ejerzitu bat ematen ziola,

39. Agindu zion, Judearen kontra joan zedilla, esaten ziola berriz egin zezala Jedor, eta erriko ateak itxi zitzala, eta eraso zaiola Juduen erriari. Bitartean erregeak Trifon persegitzen zuen.

40. Eta Zendebeo Jamniara allegatu zan, eta asi zan erriari gaitz egiten, Judea arrasatzen, jendea arrapatu eta iltzen, eta Jedor sendotzen,

41. Zeñean zaldizkoak eta oñazkoak ipiñi zituen, erregeak agindu zion bezela, Judeatik ibilliak andik egin zizaten.

AMASEIGARREN KAPITULUA

1. Eta Juan Gazaratik igo zan, eta adirazi zion Simon bere aitari, nolako gaitzak Zendebeok errian egiten zituen.

2. Ots egin zien Simonek bere seme nagusien bi, Judas eta Juani, eta esn zien: Nik, eta nere anaiak, eta nere aitaren etxeak, garaitu ditugu Israelen etsaiak gure gazte denbortik gaurko eguneraño, eta asko alditan erria libratzeko zoriontasuna iduki degu.

3. Baña orain ni zarra naiz; eta ala, sartu zaitezte zuek nere eta nere anaien lekuan; eta atera zaitezte gure erriagatik gudatzera; eta zeruko laguntasuna zuekin izan dedilla.

4. Gero autu zituen errian ogei milla gizon gerrari oñazko eta zaldizko, zeñak joan ziran Zendebeoren kontra, eta Modinen lo egin zuten.

5. Eta jaiki ziran goiz, eta joan ziran kanpora; eta ona emen non, oñazko eta zaldizko ejerzitu andi bat bidera irten zitzaien, beren kontra zetorrela, eta bien erdian errekan andi bat zegoan.

6. Orduan Juanek aureratu erazi zien bere gudariai, etsaiari erasotzeko, eta ikusi zuen, bere gudariak erreka iragotzeko beldurrez zeudela, eta argatik berak aurrena irago zuen; eta ikusi zuten bere gudariak, eta oiek ere bere ondoren irago zuten.

7. Au eginik, bere oñazko martiztia bi taldetan jarri zuen, zaldidia beren erdian ipintzen zuela, etsaiena txit ugaria zalako.

8. Eta tronpeta konsagratuai ots erazi zien, eta Zendebeok bere gudari guztiakin iges egin zuen. Oietatik asko ezpataren puntaz illak izan ziraden; gañerakoak berriz, Jedorko gaztelura iges egin zuten.

9. Guda onetan zauritua gelditu zan Judas, Juanen anaia, baña Juanek persegitu zien Zedron, Zendebeok berriztatu zueneraño.

10. Asko allegatu ziran Azotoko lauetan dauden gazteluetaraño; baña Juanek su eman zien, bi milla gizon an illik utzitzen zituela, eta pakean Judeara itzuli zan.

11. Denbora onetan Ptolomeo Aboboren semea zan gobernaria Jerikoko lauan; eta urre eta zillar asko zeukan,

12. Zeren apaiz nagusiaren suia zan.

13. Eta urgullutu zitzaion bere biotza, eta alderri artako lurreko agintaritza iritxitzea nai zuen; eta onetarako asmazioetan zebillan, nola kenduko zien bizia saldukeriaren baten bitartez Simoni, eta bere semeai.

14. Simon berriz garai artan Judeako errietatik zebillan, artzen zituel neurriak beren onerako, eta Jerikora jetxi zan bere seme Matatias, eta Judasekin, amaikagarren ill, Sabat zeritzanean, eun eta irurogeita amazazpigarren urtean.

15. Eta atera zitzaien bidera, ongi etorria ematera Aboboren semea, berak egin zuen gaztelu txiki, Dok izena zuenean, eta eman zien jateketa andi bat, eta an gizonak ezkutatu zituen, marroz.

16. Eta Simon eta bere semea bozkariotu ziradenean, Ptolomeo bereakin jaiki zan, eta beren armak artzen zituztela, jateketako salan sartu ziraden, eta il zituzten bera, eta bere bi semeak, eta bere morroietatik batzuek,

17. Saldukeria andi bat Israelen egiten zutela, eta ala beren ongigilleari gaitza onagatik itzultzen ziela.

18. Eta Ptolomeok gauza oiek eskribitu zituen, eta bialdu ziozkan erregeari, erregututzen ziola, bialdu zizazkiola gudariak berari laguntzera, eskeñtzen ziola, alderri hura bere erri guztiakin, eta kotizakin bere mendean jarriko zuela.

19. Eta bialdu zituen beste mandatari batzuek Gazara, Juan il zezaten, eta ejerzituko agintariai eskribitu zien, beragana etorri zitezela, eta berak zillarra, urrea eta doañ asko emango ziela.

20. Eta bialdu zituen beste batzuek, Jerusalen, eta mendi santura, non zegoan tenploa, arrapatu zitzaten.

21. Baña korrika joan zan aiek baño lenago gizon bat, zeñ Gazara allegatu zan, eta Joani kontatu zion, nola bere aita eta anaiak illak izan ziraden, eta nola Ptolomeok jendeak bialdu zituen berari ere bizia kentzeko.

22. Alako gauzak aditu zituenean, txit izutu zan Juan, baña andikan laster arraptu zituen bera iltzera zetozenak, eta il zituen; zeren baziekien berari bizia kentzeko asmazioetan zebiltzala.

23. Eta Juanek egin zituen este gauzak, eta bere gerrak, eta alako sendotasunarekin bukatu zituen beste egiten azartu, eta arrigarriak, eta berak egin zituen murruak, eta beste gauzak;

24. Guztiak eskribituak daude bere apaiztzako egunen liburuan, bere aitaren ondoan apaizen prinzipea egiña izan zan denboratik.

MAKABEOEN BIGARREN LIBURUA

LENBIZIKO KAPITULUA

1. Ejipton bizi diraden judu anaiai, Jerusalengo eta Judeako Judu beren anaiak, osasuna eta zoriontasun osoa.

2. On, eta mesedeak egin ditzatzutela Jaungoikoak, eta oroitu dedilla beti Abraham, Isaak, eta Jakob bere serbitzari leialakin egindako elkartasunarekin;

3. Eta emen dizazutela guzioi biotz bat bera adoratzeko, eta bere borondatea kunplitzeko espiritu andiarekin, eta gogo txit bero batekin,

4. Idiki dezala zuen biotza, bere legea aditu dezazuten, eta bere aginteak zaitu ditzatzuten, eta eman dezazutela pakea.

5. Aditu ditzala zuen orazioak, eta biguñdu dedilla zuekin, eta atsekabean etzaitzatela utzi.

6. Bada emen zuekgatik erreguak egiten aspertu gabe ari gerade.

7. Demetrioren erregetzan, eun eta irurogeita bederatzigarren urtean eskribitu giñizun guk Juduak, urte aietan etorri zitzagun atsekabe eta ondamenaren erdian, Jason lur santutik, eta erreñutik joanda gero,

8. Esan giñizun nola tenploko ateak erreak izan ziraden, eta odol obengabea isuria; baña nola zuzendu giñituen eskariak Jaunagana, eta adituak izan giñala; eta nola eskiñi giñituen oi degun sakrifizioa, eta iriñ loraren doañak, eta erazeki giñituen lanparak, eta proposizioko ogiak bere aurrean jarri giñituen.

9. Ala bada, zuek ere Kasleuko illeko Tabernakuloen jaia zelebratu ezazute.

10. Eun eta larogeita zortzigarren urtean, Jerusalengo eta Judeako erriak, eta zarren batzarreak, eta Judasek; Aristobulo, Ptolomeo erregearen erakusleari, apaiz konsagratuen jatorrikoari, eta Ejipton bizi diran Juduai, Osasuna, eta ongi izatea.

11. Jaungoikoak irrisku andietatik librtu gaitualako, esker andiak ematen diozkagu, alako erregearen kontra gudatu bear izan geradelako,

12. Zeñ dan Persiatik atera erazi zuena jende ugari hura,zeñak gure kontra eta erri santaren kontra gudatu ziran;

13. Eta arako gialaria, zeñ Persian arkitzen zala ejerzitu txit andi baten aurrean, Nanearen tenploan illa izan zan, nanearen apaizen konsejuakin engañatuta.

14. Bada Antioko bera joanik toki artara bere adiskideakin, emakume arekin ezkontzeko bezela, eta dotez bezela diru asko artzeko,

15. Eta Nanearen apaizak jartzen ziotela bere aurrean, sartu zaneko bera lagun gutxi batzuekin, tenploaren barrendiko aldamenean, ateak itxi zituzten,

16. Antioko barrenera sartu zanean, eta orduan Tenploko ate ezkutu bat idikitzen zutela, arrika il zituzten gialaria, eta lagunak, eta buruak ebakitzen zieztela, tenplotik kanpora aurtiki zituzten.

17. Guztiagatik bedeikatua izan dedilla Jaungoikoa, bada bera izandu zan gaiztoak onela desegin zituena.

18. Guk bada zelebratu bear degun ezkero Tenploaren garbituera, Kasleu illaren ogeita bost garren egunean, uste izan degu, jakinerai bear dizugutela, zuek ere zelebratu dezazute su konsagratua arkitua izan zan eguna, zeñ eman zizagun, Nehemiasek, berriz eginik tenploa, eta aldarea, an sakrifizioak eskeñi zituenean.

19. Zeren gure gurasoak Persiara katibu eramanak izan ziradenean, apaizak, zeñak garai artan Jaungoikoaren beldurrekoak ziraden, aldarearen gañean zegoan sua ixiltxorikan arrapatzen zutela, ezkutatu zuten putzu zakon eta leor bat zegoan ibar batean, eta utzi zuen an gordeta, iñork ere esan dan toki aren berririk ez zeukala.

20. Urte asko irago ziradenean berriz, Jaungoikoaren borondatea izan zanean Persiako erregea Judeara bialdu zezala Nehemias, sua ezkutatu zuten apaizen illoba txikiak bialduak izan ziraden esan dan sua billatzera; baña berak kontatu ziguten bezela, arkitu surik, baizik bakarrik ur ...

21. Orduan Nehemias apaizak agindu zien ur hura atera zezatela, eta berari ekarri zizaiela, baitaere agindu zuen Nehemiasek, ur arekin intzatu zitezela egurrak eta egurren gañean ipiñita zeuden gauzak.

22. Eta au egin zanean, eta eguzkiak argi egiteko denbora etorri zanean, zeñ zegoan len odei baten atzean ezkuttua, erazeki zan su andi bat, zeñak guziak arrituak utzi zituen.

23. Eta apaiz guztiak Jaungoikoari orazio egiten zien, sakrifizioa konsumitzen zan bitartean, Jonatasek asitzen zuela, eta besteak erantzuten zutela.

24. Eta Nehemiasen orazioa onelakoa izan zan: O Jaun Jainkoa, gauza guzien Egillea, ikaragarria, eta sendoa, justoa eta urrikaltsua, zu bakarrik errege ona zerana;

25. Bakarrik txit goratua, bakarrik justoa, guzialduna, et betikoa, zuk gaitz guzitik Israel libratzen dezuna; zuk gure gurasoak autu eta santutu ziñituenak,

26. Artu ezazu Israelko zure erri guztiagatik eskeñtza au, eta zure herenziakoak diradenak zaitu itzatzu, eta santutu itzatzu.

27. Berriz bildu itzatzu barreiatuak arkitzen diraden gure anaia guztiak, libratu itzatzu erreñuen mendeko morroe eginik arkitzen diran aiek, eta begirakune samur bat ezarri zaiezu lotsari eta irria izatera etorri diradenai, onela erreñuak ezagutu dezaten, zu gure Jaungoikoa zerala.

28. Umillatu itzatzu, urgulleriaz beteta, menderatzen eta iraintzen gaituztenak.

29. Jarri ezzu berriz ere zure erria Jerusalengo zure toki santuan, Moisesek lendanaz esan zuen bezela.

30. Bitartean apaizak himnoak kantatzen zituzten, sakrifizioa konsumitua izandu zan arteraño.

31. Eta sakrifizioa bukatua izan zanean, Nehemiasek agindu zuen gelditu zan urarekin aldareko arri andiak bustiak izan zitezela.

32. Eta an egin zaneko, beratatik gar andi bat erazeki zan, zeñ, aldarearen gañean argi egin zuen suak iretsia izan zan.

33. Eta gertakari onen berriz zabaldu zanean, bereala kontatu zioten Persiako erregeari, nola apaizak, katiberiora eramanak izan zirdenean, su konsagratua ezkuttu zuten tokian bertan, ur bat arkitua izan zan, zeñarekin Nehemiasek eta berarekin zeudenak, sakrifizioak garbitu eta konsumitu zituzten.

34. Erregeak bada gogoan erabillirik gertakari au, eta gauza au kontuz esamiñaturik, egin zion tenplo bat, gertatu zana ziertoa zala adiraztzeko.

35. Eta jakinik mirari au ziertoa zala, apaizai ondasun asko eman zizten, eta egin ziezten eskeñtza asko eta asko, eta bere eskuz ematen ziezten.

36. Eta Nehemiasek eman zion toki oni Neftarren izena, zeñak adirazten duen Garbitasunarena; baña badirade asko Nefiren izena ematen diotenak.

BIGARREN KAPITULUA

1. Irakurtzen da Jeremias profetak eskribitu zituen liburuetan, nola berak agindu zien Babiloniara katibu eramanak ziradenai su konsagratua artu zezatela, adirazirik gelditzen dan moduan, eta nola erakutsi batzuek eman zizten katibu eramanak ziradenai.

2. Eman ere zien legea, Jaunaren aginteakin aztu etzitezen, eta beren biotzak gaiztotu etzitezen, ikusirik urrezko eta zillarrezko idoloak, eta beren apainduriak.

3. Eta gañera emanik beste erakutsi batzuek, esaten zien gogotik, arren Jaungoikoaren legeari beren biotzetatik beñere etzitzaiotela alde egin erazi.

4. Baitaere irakurtzen zan liburu artan, Profeta onek, Jaungoikoaren agindu bat artu zuelako, agindu zuela eraman zitzatla berakin tabernakuloa eta kutxa, allegatu arteraño arako mendiraño, zeñatara Moises igo zan, eta nondik Jaungoikoaren herenzia ikusi zuen,

5. Eta allegatu zanean ara Jeremias, arkitu zuela koba bat, non sartu zituen Tabernakuloa, eta kutxa, eta inzensoaren aldarea, sarrera estalitzen zuela,

6. Eta jarraitzen ziotenetatik batzuek alderatu ziradela toki au siñalatua utzitzeko; baña ezin arkitu izan zutela,

7. Eta jakinik au Jeremiasek, errierta egin zien, eta esan zien: Toki au iñork ere bere berririk iduki gabe egongo da, aliketa Jaungoikoak bildu dezan arteraño berriz erri guzia, eta urrikaltasuna berarekin egin dezan arteraño.

8. Eta orduan Jaunak agirian ipiñiko ditu gauza oiek, eta agertuko da berriz Jaunaren anditasuna, eta Moisesek ikusten zuen odeia ikusiko da; eta ikusi zan bezela, Salomonek esktu zuenean, Jaungoiko andiarentzat tenploa santutua izan zedilla.

9. Zeren errege onek bere jaqunduriaren ezagungarri txit andiak eman zituen; eta berarekin betea zegoala, dedikazioko eta tenploaren santutuerako sakrifizioa eskeñi zuen.

10. Eta nola Moisesek Jaunari orazio egin zion, eta zeruik sua jetxi zan, eta holokaustoa konsumitu zuen; ala Salomonek ere orazio egin zuen, eta zerutik sua jetxi zan, eta holokaustoa konsumitu zuen.

11. Orduan Moisesek esan zuen: Bekatuagatik eskeñitako doaña jana izan ez dalako, suak konsumitua izan da.

12. Eta Salomonek orobat zortzi egunean zelebratu zuen Tenploaren dedikazioa.

13. Gauza oiek berok arkitzen ere ziraden siñalatuak Nehemiasen liburuetan, eta beretako gauzen azaldueretan, non irakurtzen dan berak libreria bat bildu zuela, ekartzen zituela aldamen guzietatik profetaen, Dabiden eta erregeen karten liburuak, eta Tenploari berak egindako eskeñtzen oroipenak.

14. Onela Judasek ere bildu zuen, sufritzen degun gerren galdu zan guztia, eta gugan dauzkagu.

15. Baldin bada zuek liburu oiek iduki nai badituzute, bialdu itzatzute lagunen batzuek eraman ditzaten.

16. Eta gaudela orain Tenploaren purifikazioa jaia zelebratzeko, eskribitu dizugu: eta ala ongi egingo dezute, egun oien jaia, guk bezela, zelebratzen badezute.

17. Bitartean itxedotzen degu, Jaungoikoa, zeñak libratu duen bere erria, biurtu dien guziai beren herenzia, berriz jarri dituenak erreñua, apaiztza eta santuarioa,

18. Legean eskeñita zeukan bezela, txit agudo gurekin urrikalduko dala, munduaren aldamen guzietatik toki santuan bilduko gaituela;

19. Irrisku andietatik gu atera gaituen ezkero, eta tenploa garbitu duen ezkero.

20. Judas Makabeoren, eta bere anaien, eta tenplo andiaren purifikazioaren, eta aldarearen dedikazioren gañeko egiteen gañean berriz;

21. Nola ere Antioko argitsuaren, eta bere seme Eupatorren denboran izan ziraden gerraen gañean berriz,

22. Eta Judako erreñuagatik txit erruz gudatzen ziradenen alde, airean agertu ziran siñaleen gañean, alako moduan, non, izanik gutxi batzuek, erri guzia zaitu zuten, eta gizatzar zatar taldeari iges erazi zienen gañean,

23. Munduan dagoan tenplorik otspatsuaren jabe berriz egiten ziradela, eta erria katiberiotik libratzen zutela, eta berriz zaitu erazitzen zituztela legeak, zeñak utsera biurtuak zeuden, Jaunak mesede mota guziakin laguntzen ziela,

24. Jason Zirenekoak bost liburutan jarri zituen gauza oiek, egin degu guk alegiña liburu bakar batean laburrean ipintzeko.

25. Bada gogoan idukirik liburu taldea, eta berriak ongi nai dituztenak nastutzen diradela, berri talde andiarekin liburuetan arkitzen diradenean.

26. Egin ditugu alegiñak eskribitzeko oiek irakurri nai dituztenen gogokoak izango diran era batean, eta ongi jakiteko gura andia daukatenak, errazago beren gogoan iduki ditzaten, eta irakutzen dituzten guztientzat mesedegarriak izan ditezen.

27. Eta egiaz, gauza oiek laburtuta ipintzeko artu degun lana, ez da erraza, baizik beilla andiak, eta neke ez gutxi eskatzen dituena.

28. Alaere lan au gogotik artzen degu, gogoratzen degulazi askorentzat mesedegarria izango dala; jateketa bat prestatzea beren kontura daukatenen gisara, zeñak alegiñak guztiak egiten dituzten, guztien gogokoa izan dedin.

29. Adirazten diraden gauzaen egija, eskribitu zituztenen fedearen gañera dijoa; gugan danez, bakarrik nekatuko gera itz gutxitan esaten, erabaki degun bezela.

30. Eta nola etxe berri bat egiera dijoanak etxe guztiari begirtu bear dion; eta pintatzen dijoanak bakarrik billatu bear dituen bezela bera apaintzeko adjutuak diraden gauzak, era berean juzgatu bear da gugatik.

31. Egiaz berriak eskribitzera dijoanari dagokio gaia biltzea, eta zuzentzen dituela anbat ondoen, adiraztea, arretaz jakiten dituela kontatzera dijoan gauzaren zerzeridadeak.

32. Baña aiek itz gutxitan ipintzera dijoanari, laburrean esan ditzala, eta izketa luzerik ez dezala egin.

33. Asko da esasterik, eta asi gaitezen gauzak kontatzen; zeren ez liteke ongi egiña izango, esaste luzea egin, eta berriak itz gutxitan esatea.

IRUGARREN KAPITULUA

1. Erri santa bada pake oso batean zegoanean, eta legeak txit ongi zaitzen ziradenean, Onias apaiz nagusiaren ontasunagatik, eta gaiztakeriari guziak zien gorrotoagatik.

2. Emendikan zetorren, erregeak eta prinzipeak berak ere txit onra andian idukitzea toki konsagratu hura, eta eskeñtza andiakin tenploa aberastutzea,

3. Alako moduan, non, Selenko Asiako erregeak bere errentetatik sakrifiozen kasturako bear zana ematen zuen.

4. Onetan Simon Benjamingo tribuko Tenploko agintari jarria zegoana, erri onetan gaitzen bat egiteko asmazioetan ansiarekin zebillan; baña apaiz nagusia aurkeztzen zitzaion.

5. Ikusirik bada, Onias ezin zuela garaitu, joan zan ikustera Apolonio, Tarseasen semea, zeñ garai artan Zelesiriako eta Feniziako Gobernatzallea zan.

6. Eta adirazi zion, Jerusalenen dirugordairua diru txit ugariz eta guzienak diradenen ondasunez betea zegoala, zeñak sakrifizioetako kastuetarako etzuten serbitzen, eta guztia erregearen eskuetan erortzeko neurriak artu litezkeala.

7. Emanik bada Apoloniok erregeari, berari esana izan zizaion guztiaren kontua, ondasun oien gañean, ots egin zion erregeak Heliodoro bere haziendaren zaitzalleari, eta bialdu zuen, esan dan dirua beragana eramateko agintzen ziola.

8. Eta bereala Heliodoro jarri zan bidean, Zelesiria eta Feniziako errietatik ibiltzeko aitzakiarekin; baña egiaz eta benaz erregearen asmazioa kunplitzeko gogoarekin.

9. Eta allegaturik Jerusalenera, eta izanik apaiz nagusiak errian ongi artua, adirazi zion oni, nolako gauzak esan ziezten berari ondasun aien gañean, eta agertu zion bere etorrera onetarako zala, galdetzen ziola, egiaz gauzak esan ziozkaten eran ote ziraden.

10. Orduan apaiz nagusiak adirazi zion, andre alargun, eta umezurtzen janarirako gordeak zeuden diruak ziradela aiek.

11. Eta Simon gaiztoak adirazi ziozkanetatik batzuek, Hirkano Tobias gizon txit argitsuarenak ziradela, eta guztitan laureun talentu zillarrezko, eta berreun urrezko zeudela.

12. Bestetik berriz, ezin utzi litezkeala ezer gabe, mundu guztian konsagratua bezela onratzen, eta beneratzen dan toki eta tenplo batean beren ondasunak gordetzeko ipiñi zituztenak.

13. Baña Heliodorok beti esaten zuen, dan moduan dala ondasun aiek erregeari eraman bear zizaiozkala erregeak berak ala agindu ziolako.

14. Alaxe da. Egun inzendatua Heliodoro tenploan sartu zan bere asmazioa egiztatzera; etzan berriz txikia erriko jende guztiak zeukan dardara.

15. Sazerdoteak berriz, apaiz soñekoak jantzita, lurrean auzpeztu ziran aldarearen aurrean, eta ots egiten zioten zeruan dagoan Jaunari, eta gordeak zeuden ondasunen gañean legea jarri zuenari, arren zaitu zitzala galdu gabe, an ipiñi zituztenentzat.

16. Iñork ere berriz etzitzaiokean begiratu apaiz nagusiaren arpegiari, bere biotza atsekabez iragoa gelditu gabe; zeren bere arpegi eta kolore mudatuak, adirazten zuten bere animaren barrendiko atsekabea.

17. Bere arpegi guzitik zabaldua zegoan tristeza batek, eta bere gorputz guztia gelditu gabe zerabillan dardara batek, erakusten zien argiro begiratzen zienai, bere biotzeko naigabea.

18. Denbora artan beratan irtetzen ziran asko beren etxeetatik nastean, deadarrez erregututzen ziotela Jaungoikoari, arren etzetzula utzi, toki santu hura mezpreziatua gelditu zedilla.

19. Andreak, gerriak zilizioz lotuta, karrikaetatik taldetan zebiltzan; eta donzellarañokoak, len bere etxeetan sartuta zeudenak, zijoazen korrika Onias zegoan tokira; beste batzuek murruetara, eta banaka batzuek leioetatik zeuden begira.

20. Eta guztiak, beren eskuak zerurontz jasorik, beren eskariak ara zuzentzen zituzten.

21. Egiaz zan ikusketa urrikalgarria ikustea jende talde nastu hura, eta apaiz nagusiak antsia ain andian jarriak zeudela.

22. Oiek beren aldetik Jaungoiko guzialdunari ots egiten zioten artean, ukiturik egin gabe zaitu zezan, beren kontura utzi zutenen tesoroa,

23. Heliodorok etzuen beste gauzatan pensatzen, bere asmazioak egiztatzean baizik. Eta onetarako bera, bere gordetzaleakin jarri zan gordairuan atean.

24. Baña Jaungoiko guzialdunaren Espiritua agertu zan an siñale ondo argiakin, alako moduan non, Jaungoikoaren indar batekin lurrera aurtikiak izanik Heliodorori obeditzen atrebitu ziraden guziak, illotzak eta izutuak gelditu ziraden.

25. Zeren agertu zitzaien zaldi bat, zeñaen gañean eseria zegoana zan ikargarria, eta soñeko txit ederrakin apaindua zegoan; zeñaen armak urrezkoak ziruditen, zeñak erasorik bultzadarekin Heliodorori, zaldiaren aurreko oñakin zapaldu zuen.

26. Agertu ere ziraden beste mutiko bi, galantak eta sendoak, anditasunez beteak, eta soñeko ederrakin apainduak, zeñak, jartzen ziradela bakoitza Heliodororen aldamen batetik, asi ziraden azotatzen bakoitza bere aldamenetik, otsak otsaren gañean ematen zizkiotela.

27. Oiekin Heliodoro laister lurrera erori zan, eta atxitzen zutela, eta eskusilla baten eserita, andik atera zuten.

28. Onela, sartu zan gordairuan anbeste gordetzalle, eta morroirekin, zan eramana, iñork ere laguntasunik eman etzitzaiokeala, agertzen zala argiro Jaungoikoaren bertutea,

29. Eta bertute onen indarrez, Heliodoro zegoan etzinda mututurik, eta bizitzeko itxedopenik gabetanik.

30. Kontrara berriz, besteak Jauna bedeikatzen zuten, oiekin bere toki santuko gloria goratu zuelako; eta oraindikan denbora gutxi dala, naste eta beldurrez betea zegoan tenploa, bozkario eta gozotasunez bete zan, Jaunak bere guzialtasuna agertu zuenean.

31. Orduan Heliodororen adiskide batzuek Oniosi txit eskari biziakin erregutu zioten, Jaungoiko txit goratuari ots egin zizaiola, Heliodoro, atzeneko arnasetan zegoanari, bizia eman zizaiola.

32. Apaiz nagusiak berriz, jarririk bere artean pensatzen, erregeak uste izan dezakeala, Juduak asmazio gaiztoren batzuek Heliodoren kontra erabilli izango zituztela, doañ osasuntsu bat Heliodoro sendatzeko eskeñi zuen;

33. Eta apaiz nagusia erreguak egiten ari zala, mutil gazte bi aiek, leengo soñekoakin berakin, Eliodororen aldean jartzen ziradela, esan zioten: Onias apaizari eskerrak eman zazkiozu, zeren Jaunak bere amorioagatik bizia ematen dizun.

34. Eta zu onela Jaungoikoak kastigatua izan zeran ezkero, mundu guztiari bere mirariak, eta bere eskubidea adirazi zazkizu. Eta oiek esanik, etziran berriz agertu.

35. Heliodoro berriz, Jaungoikoari sakrifizio bat eskeñirik, eta egiñik boto andiak bizia eman zion Jaunari, eta Oniasi eskerrak emanik, bildurik bere jendea, erregeagana itzuli zan.

36. Eta mundu guztiari adirazten ziozkan, berak bere begiakin ikusi zituen Jaungoiko andiaren egite miragarriak.

37. Eta nola erregeak Heliodorori galdetu zion, zeñ izango zan egokia berriz Jerusalenera bialtzeko, erantzun zion:

38. Baldin badaukazu etsairen bat, edo erreñuaren kontrako asmazioetan ari danen bat, bialdu ezazu ara, eta ikusiko dezu azotez zatitua itzultzen dala, biziarekin gelditzen bada; zeren toki artan egiaz Jaungoikoaren bertuteren bat dagoan.

39. Zeren bere bizilekua zeruen daukana bera, dago toki artan, eta da bere zaitzallea, eta gaitzen bat egitera toki artara dijoazenak, azotatu eta galtzen ditu.

40. Oiek dirade, itz gutxitan esateko, Heliodorori gertatu zitzaiozkanak, eta onela tenploko tesoroa arrapatua izangabe gelditu zan.

LAUGARREN KAPITULUA

1. Aitatu dan Simonek berriz, zeñ izan zan tesoroa salatu zuena erriaren kaltean, Oniasgatik gaizki esaten zebillan, beronek Heliodo zirikatu balu bezela alako gauzak egitera, eta bera, gaitz aien egillea izan balitza bezela.

2. Eta erriaren gordetzalleari, bere erreñuaren zaitzalleari, Jaungoikoaren legearen zelotsuari, ausartatu zan erreñuaren saltzallea ots egiten.

3. Baña nola aserre oiek anbesteraño igo ziran, non, Simonen adiskide batzuek eriotzak egiten zituzten;

4. Gogoan erabillirik Oniasek, erriertaren irriskuak, eta Apolonio, Zelesiria eta Faniziako Gobernatzalleak bere zentzugabetasunarekin Simonen gaiztakeria zirikatzen zuela, erregeagana joan zan,

5. Ez bere erritarrak salatzera, baizik bakarrik erri guziari mesedeak egitera, zeñ zan berak nai zuena.

6. Zeren ikusten zuen, Erregearen agindu bat gabe, ez ditekeala pakerikan egin, ez Simoni, bere zentzugabetasunetik alde erazi.

7. Baña Seleuko ilda gero, nola Antioko, Odolgarbikoa izengoitiz, jarri zan erregetzan, Jason, Oniasen anaiak, apaiz nagusitzako antsia andiak zeuzkan.

8. Onetarako erregeagana joan zan, eta eskeñi ziozkan irureun eta irurogei talento zillarrezko, eta beste errenta batzuetatik larogei talento.

9. Eta gañera eskeñtzen zuen, ematea beste eun eta berrogeita amar, ematen bazaion eskubidea ipintzeko gudatoki bat, eta efebia bat gazteentzat, eta Jerusalenen bizi ziradenak iduki zitzatela Antiokiakoak zeuzkaten eskubideak.

10. Eta eman zionean erregeak eskatzen zion guztia, eta iritxirik nagusitasuna, berealaxe asi zan bere erritarrai jentillan usadio, eta oiturak artu erazitzen.

11. Eta kendurik legearen araura biziteko era, erregeak beren ontasunagatik Juduen alde ontzat eman zutena, Juan, Eupolemonen aitak (zeñ izan zan Erromara bialdua adiskidetasun, eta elkartasuna berriztatzera) artu zituen neurrien bitartez, ipintzen oi zituen Joanek lege gaiztoak, erritarrak zeuzkaten eskubideak nastutzen zituela.

12. Zeren iduki zuen ausartasuna, ipintzeko Jerusalengo gazteluaren beraren azpian gudatoki bat, eta gazterik onenak bekatuko tokietan jartzeko.

13. Zan berriz au, bizitza jentil eta arrotz baten ez asiera, baizik aziera eta bukaera, emen sartua, Jason gaizto eta ez apaizaren biurrikeria gorrotogarri, eta iñoiz ere aditu gabeagatik,

14. Alako moduan, non, apaizak ez oi ziraden ari aldareko lanetan, baizik mezpreziatzen zutela tenploa, eta sakrifizioakin aztutzen ziradela, korrika joan oi ziraden gudara, eta ordañ gaiztoetara, eta tella jokoan oitzera.

15. Eta erriko onrak utsean zeuzkatela, Greziatik zetozen gloriak geiagoan zeuzkaten.

16. Zeñak iritxitzeagatik, izan oi ziraden beren artean errierta, irriskuz beteak; alako moduan, non, panparreriatzat zeukaten grieguen usadioai jarraitzea, eta oraindikan denbora gutxi dala beren etsai eta erallak izan ziradenen irudia idukitzea.

17. Baña Jaungoikoaren legeen kontra gaizki obratzea, ez da kastigu gabe gelditzen, geroko denboretan ikusiko dan bezela.

18. Nola bada Tiron zelebratzen ziran Olinpoko jokoak, bost urtetik bost urtera, erregea zegoan an,

19. Jason gaiztoak bialdu zituen Jerusalendik gizon gaizto batzuek, eramatera irureun didragma zillarrezko, Herkulesen sakrifiziorako; baña eraman zituztenak berak eskatu zuten, etziteztela kastatu sakrifizioetan, etzalako au ongi egiña; baizik beste gauza batzuetan kastatuak izan zitezela.

20. Eta ala, dragma oiek eman zituenak Herkulesen sakrifiziorako eskeñi bazituen ere, eraman zituztenen eskariz; galerak egiten kastatu ziran.

21. Baña Antioko, bialdurik Ejiptora Apolonio, Mnesteoren semea, ptolomeo Filometor erregearen jauregiko andizkiarekin tratatzera, ikusi zuenean etziola lekurik ematen, erreñu hura zuzentzeko lanetan, bere gauzai bakarrik begiraturik, alde egin zuen andik, eta Foppera etorri zan, nondik Jerusalenera irago zan.

22. Eta Jasonek, eta erri guztiak arrera txit eder bat egiten ziotela, sartu zan bertan argi eta deadarren artean; andik bere ejerzituarekin Feniziara irago zan.

23. Iru urte geroago, bialdu zuen Jasonek Menelao, aitatu dan Simonen anaia, erregeari dirua eramatera, eta balio andiko gauzen gañean onek agintzen ziozkan gauzak aditzera.

24. Baña nola Menelao erregeari gogoan sartu zitzaion, bere eskubidearen anditasuna goratu ziolako, apaiztza nagusia beraganatu zuen, Jasonek ematen zituen baño irureun talentu geiago ematen zituela.

25. Eta arturik erregearen aginteak, itzuli zan. Eta egiaz, etzan beragan ezerere ikusten, Apaiztzaren diña zanik; zeren gizon gaizto baten biotza, eta pizti uzu baten arrabioa zeuzkan.

26. Onela Jasonek, bere anaia Onias saldu zuenak, engañaturik orain bera, erbestetua bezela, Ammontarren lurrera iges egin zuen.

27. Menelaok berriz, nagusitasuna iritxi zuen; baña erregeari eskeñi zion dirua bialtzeko, etzuen ajolarik artzen; pagatzeko gogor egiten bazion ere, Sostrato, gazteluko agintariak,

28. Zeren onen kontura zegoan kotizak kobratzea. Argatik biai erregearen aurrera ots egin zien.

29. Eta Menelao apaiztzagabegua izan zan, bere lekuan bere anaia Lisimako jartzen zala, eta Sostratori berriz, Txipreko agintaritza eman zion.

30. Gauza oiek gertatzen ziraden bitartean, Tarso, eta Malokoak matxinada bat jaso zuten, Antiokide, erregearen emazte azpikoari emanak izan zitzaiozkalako.

31. Argatik erregea agudo irago zan ara, aiek pakean ipintzeko, Androniko bere adiskidetatik bat, bere lekuan utzitzen zuela.

32. Menelaok orduan, sinisturik era ederra zala hura, ostutzen zituela tenplotik urrezko ontzi batzuek, beretatik zati bat Andronikori eman zion, eta bestea Tiron eta inguruetako errietan saldu zuen.

33. Oniasek, oiek ziertotasunarekin jakin zituenean, gauza augatik errierta egiten zion, Antiokiako toki, Dafneren tenploaren aldean zegoan batetik, zeñatara igesi joan zan.

34. Argatik Menelao irago zan Androniko ikustera, eta erregutu zion, Onias illerazi zezala. Androniko joan zan Oniasgana; eta emanik elkarri eskuieko eskuak, eta juramentuarekin esanik etziola gaitzikan batere egingo, erregutu zion, (Onias berarekin osotoro fiatzen ez bazan ere) atera zedilla bere gordelekutik, baña atera zanean, bereala bizia kendu zion, justiziaren beldurrik iduki gabe.

35. Argatik, ez bakarrik Juduak, baita beste erreñuak ere aserretu ziran, eta gizon ain andi baten eriotza bidegabea, txit gaizki eraman zuten.

36. Eta Ziliziatik erregea itzuli zanean, aurkeztu zitzaiozkan Antiokian Juduak, eta Grieguak berak ere, Oniasen eriotza bidegabekoarekin kejatzen ziradela.

37. Eta Antioko atsekabeturik bere biotzean, eta Oniasen eriotzarekin samurturik, negarrez asi zan oroiturik zeñ begiratua izan zan, illa izan zana, jan edanean, eta bere modu ona gogoan idukirik;

38. Eta txit aserreturik, agindu zuen, Androniko, purpura gabeturik, erabillia izan zedilla erri guzitik; eta sakrilego onek Oniasen kontra gaiztakeria egin zuen tokian bertan, antxe bizia kendu zizaiotela. Ala Jaunak, diña zan kastigua eman zion.

39. Lisimakoren gañean berriz, nola tenploan sakrilejio asko egin zituen, Menelaoren konsejuz, eta andik urre asko atera zuela berria zabaldurik, erria bere kontra jaiki zan.

40. Eta jende taldeak, matxinaturik, eta beren biotzak aserrean erazekirik, Lisimako, armatzen zituela iru milla gizon bezelatsu, agintaritzat zeukatela gizon biurri bat, ain zartua gaiztakerian, nola edadean, ezbearrak egiten asi zan.

41. Baña Lisimakoren asmazioak ezagutuak izan ziradenean, batzuek arriak artu zituzten, beste batzuek makilla sendoak, eta beste batzuek autsa bere gañera aurtikitzen zuten.

42. Eta onela batzuek gelditu ziran zauriturik, beste batzuek izan ziraden illak, eta gañerakoak igesari eman zioten, Lisimakok berak ere, gordairuaren aldean, bizia galtzen zuela.

43. Naste guzi oiekgatik Menelao salatzen asi ziraden,

44. Eta erregea Tirora allegatu zanean, iru lagun irago ziran gertakari oiekgatik kejatzera, Zarrak bialduta.

45. Baña Menelaok, ikusirik garaitua izatera zijoala, diru txit asko Ptolomeori eskeñi zion, erregea bere alde jartzen bazuen.

46. Ptolomeo sartu zan ikustera erregea, zeñ zegoan atari batean egurastu bat artzen, eta beste iritzi bat artu erazi zion,

47. Alako moduan non, Menelao gaiztakeria guzi oiek egin zituena, bere gaiztakerietatik osotoro absolbitua gelditu zan, eta urrikigarri aiek, Eszitaen tribunal batean ere obengabetzat emanak izango ziradenak, eriotzara kondenatuak izan ziraden.

48. Bereala bada kastigatuak izan ziraden, justizia guztiaren kontra, erriaren, eta iriaren, eta ontzi konsagratuen benerazioaren alde gudatu ziradenak.

49. Baña Tirokoak, alako egitearen aserretuak, txit prestuak erakutsi ziran, eman zioten obi onraz betean.

50. Bitartean Menelaok irautzen zuen agintaritzan, erregearen eskubidea zeukatenen zikoiztasunagatik, eta bere erritarren kalterako gaiztakerian aziaz zijoan.

BOSGARREN KAPITULUA

1. Denbora onetan Antioko ari zan prestaerak egiten, bigarren aldiz Ejiptoren kontra joateko.

2. Eta gertatu zan orduan gauza arrigarri bat, zeren Jerusalengo erri guztian ikusi ziran, korrika zebiltzala airean aldamen batetik bestera gizonak zaldiz, urrez egindako soñekoak zeuzkatela, eta lantzakin, zaldizko taldeak balirade bezela.

3. Ikusi ziraden zaldiak errenkan jarriak, korrika joanik batzuek besteai erasotzen ziela, eta brokelen mugimenduak, eta jende talde bat morrioiakin, eta ezpata billosakin, eta dardoak aurtikitzen ari ziradela, eta urrezko armen, eta loarika mota guziaren argitasuna.

4. Argatik guziak, Jaungoikoari erregututzen zioten, alako gauza arrigarriak erriaren onera biurtu zitezela.

5. Alako batean, berri gezurrezko bat zabaldu zan, Antioko il zala, eta Jasonek arturik berarekin milla gizon, ustekabean erriari eraso zion, eta errikoak bereala murruetara joan baziraden ere, atzenean murruak arrapatu zituen, eta Menelaok gaztelura iges egin zuen.

6. Baña Jasonek, sinistuko balu bezela garaipen bat irabazten ziela bere etsaiai, eta ez bere erritarrai, errian ilkintza arrigarri bat egin zuen, oartzen etzala, bere odolekoai egiten zaien gerran doatsu izatea, gaitz txit andi bat dala.

7. Alaere agintaritza ezin iritxi izan zuen; baizik bere saldukerietatik atera zuen irabazi guzia, bere lotsaria izan zan; eta ikusirik iges egiteko premian berriz arkitzen zala, Ammontarren lurrera joan zan.

8. Atzenean ere Aretas Arabeen erregeak, zeñak bera il nai zuen, karzela batean sartu zuen, eta iges eginik andik, zebillan erririk erri, guztiak nazkaz begiratzen ziotela, eta legeauslea bezela, eta gizon gorrotogarri, eta erriaren, ta errikoen etsaia bezela, Ejiptora aurtikia izan zan.

9. Eta onela, beren erritik kanpora asko aurtiki zituena, erri erbestean il zan, joanik Lazedemoniara, sinistzen zuela, aidetasunagatik an laguntasuna arkituko zuela.

10. Eta lagun askoren gorputz illak obiratu gabe aurtikitzeko agindu zuena, obiratu gabe, eta iñork ere beragatik negarrik egin gabe aurtikia izan zan, ez bere errian, ez toki arrotzean obirikan batere arkitu ezin zuela.

11. Gauza oiek onela iragorik, sospetxatu zuen erregeak, Juduak berarekin zeukaten elkartasuna utzitzera zijoazela, eta ala, joanik Ejiptotik sumintasunez betea, erria armakin arrapatu zuen,

12. Eta agindu zien soldaduai, il zitzatela guziak, iñori ere barkatu gabe, eta etxeetan ere sartzen ziradela, jende guzia ezpataz irago zezatela;

13. Alako moduan, non, ilkitza arrigarri bat egin zan, bizia kentzen ziela guziai, gazteai, zarrai, andrai beren semeakin, donzellai eta aurrai.

14. Anbesteraño, non, iru egunean izan ziran larogei milla illak, berrogei milla katibuak, eta beste anbeste mendekotzat salduak.

15. Baña oiekin ere etzan gelditu Antioko aspertua, baizik ausartatu zan sartzen tenploan, mundu guztiko tokirik santuenean, Menelao, erriaren eta legeen saltzallea gidari zuela.

16. Eta artzen zituela bere esku sakrilegoakin, beste errege eta erri batzuek toki santu aren apainduria eta gloriarako an ipiñi zituzten ontzi sagraduak, eskuetan txit gaizki zerabiltzkian, eta kutsutzen zituen.

17. Ala Antiokok, galdurik bere adimeneko argi guzia, etzuen ikusten, Jaungoikoak erakusten bazuen denbora gutxi batean bere aserrea erri artan bizi ziradenen kontra, beren bekatuak gatik zala; eta argatik toki santu hura kutsutua izandu zala.

18. Zeren bestela, egon ez balirade gaiztakeria askotan sartuak, Prinzipe au, Heliodoro, Seleuko erregeak tenploko gordairuko ondasunak indarrez ostutzera bialdu zuenari gertatu zitzaion bezela, azotatua izango

zan, allegatuta bereala, eta bere asmo ausartatuari utzitzen, beartua izango zan.

19. Baña Jaungoikoak etzuen autu erria Tenploaren amorioagatik, baizik au erriaren amorioagatik.

20. Argatik tokia bera izan da, erriari gertatu zaiozkan gaitzen partale; izango ere dan bezela partale, ark artzen dituen mesedeetan; eta orain Jaungoiko txit almentsuaren aserreagatik utzia ikusten dana, izango da berriz gloriarik andienera goratua, Jaun andi hura biguñdua dagoenean.

21. Arrapatu zituenean bada Antiokok tenplotik aterata, milla eta zortzireun talento, antiokiara agudo itzuli zan, alako urgulleria eta andiustearekin, non uste zuen lurraren gañean ontzi batean ibilli zitekeala, eta oin leorrez ibilli itsasoaren gañean.

22. Baña bera joan zanean, utzi zituen an Gobernatzalleak, erreñuari bidegabeak egiteko, au da, Jerusalenen Filipo, Frijiatik bere jatorria zeukana, bere nagusia baño ere oraindikan odolgiroagoa.

23. Eta Garizimen Androniko eta Menelao, besteak baño ere erritarren etsai gogorragoak.

24. Eta jarraitzen zuela Antiokok txit aserretua juduen kontra, bialdu zien agintaritzat Apolonio nazkagarria, ogeita bi milla gizoneko ejerzitu batekin, agintzen ziola, aziak ziraden guziak iltzeko, eta andreak eta aurrak saltzeko.

25. Allegatu zanean bada agintari au Jerusalenera, pakez etorri balitza bezela, larunbateko egun santuraño geldirik egon zan, baña Juduak atsedena zaitzen zuten egun onetan, agindu zien bere soldaduai armak artu zitzatela,

26. Eta il zituen, soldadu batzar hura ikustera bildu ziraden guziak, eta zebillala gero erri guztitik bere soldaduakin, jende talde andi bati bizia kendu zion.

27. Baña Judas Makabeok, zeñ zan toki eremu batera iges egin zuten amarretatik bat, iragotzen zuen bizitza bereakin mendietan, pistien artean, belarrak jaten zituela, egite kutsutuetan partale ez izateagatik.

SEIGARREN KAPITULUA

1. Andik denbora gutxiren buruan, erregeak bialdu zuen Antiokiako gizaseme edade andiko bat, ekarri zitzan Juduak indarrez, beren Jaungoikoaren, eta beren gurasoen legeak utzitzera,

2. Baitaere Jerusalengo tenploa kutsutzera, eta Jupiter Olinpikoren izena tenploari ipintzera, baitaere Garizimgoari, Samarian, Jupiter Arrotzarena, toki artan bizi ziradenak arrotzak ziradelako.

3. Ala bada, ikusi zan orduan, gaitzezko ugolde ikaragarri bat erri guztiaren gañera batbatean erortzen zala.

4. Zeren tenploa zegoan, jentillai, eta gizon askatuai dagozkien zikinkeria, eta tripontzikeriaz betea, galotzakin, eta lotsagabekeriaz toki santuan sartzen ziraden emakumeakin nastua, zillegi ez dan gauzak ara eramaten zituztela.

5. Aldarea ere ikusten zan, zillegi ez diraden, eta legeak galeraziak dauden gauzaz betea.

6. Larunbatak etziraden onezkero gordetzen, eta erriko jai andiak ere etziraden zelebratzen, eta iñor ere etzan ausartatzen, aitortzen argiro, Judua zala.

7. Erregearen jaiotzako egunean, indarrez eta gogorrean sakrifizio gaiztoetara joan erazitzen zien, eta Bakoren eguna zelebratzen zanean, esan dan idoloaren onran, untzezko koroakin karrikaetatik joan erazitzen zien.

8. Ptolemaidakoen eskariz, Judearen aldeko jentillen errietan adirazi zan aginte bat, zeñaen bitartez ematen zitzaien eskubidea, Juduak toki aietan sakrifizioak egitera beartzeko.

9. Iltzeko berriz, jentillen legeetara irago nai etzuten guztiak. Ala bada, gauza negargarriak baizik etziran ikusten.

10. Alaxe da. Bi andre salatuak izan ziraden, nola beren semeak zirkunzidatu zituzten, erabilli zituzten inguruan erritik, guziak ikusi zitzaten, beren bularretatik semeak esekita zeuzkatela, eta gero murrutikan beera aurtiki zituzten.

11. Beste batzuek berriz, biltzen ziradenak aldeko kobetan, an ixiltxorikan larunbateko eguna zelebratzeko, izanik Filipori salatuak, bizirik erreak izan ziraden; zeren egun aren erlijio eta santutasunagatik, beldur izan ziraden, beren buruak zaitzen.

12. (Erregututzen diet orain liburu au irakurtzen dutenai, gertakari ain doakabeak ikusita ez ditezela eskandalizatu; baizik gogoratu dezatela, gauza oiek gertatu ziradela, ez gure erreñua arras desegiteko, baizik onera erakartzeko.

13. Zeren bekatariakganako urrikaltasun andiaren siñalea da, ez utzitzea biziten denbora luzean beren gura gaiztoen araura, baizik berak anbat lasterren azotatzea, ondu ditezen.

14. Alaxe da. Ez du Jaunak gurekin egiten, beste erreñuakin bezela, zeñak sufritzen dituen orain pazienziarekin, juizioko egunean kastigatzeko, beren bekatuen neurria betetzen dutenean,

15. Baña ez onela gurekin, baizik kastigatzen gaitu, gure bekatuak gorengo mallaraño allegatu ditezela itxedon gabe.

16. Eta ala, bere urrikaltasunari ez dio beñere gugandik alde erazitzen; eta atsekabeakin erria kastigatzen duenean, ez du utzitzen.

17. Baña esan degun gutxi au asko izan dedilla, irakurleak kontuan egon ditezen, eta jarraitu dizaiogun berriak kontatzeari).

18. Eleazaro bada, legeko jakintsuenetatik bat, edade andiko gizon, eta arpegi beneragarrikoari, aoa indarrez idikitzen ziotela, urdearen aragia janerazi nai zioten.

19. Baña bera, naiago zuela eriotza gloriaz beteriko bat, bizitza nazkagarri bat baño, borondatez eta bere oñaz urkamendira zijoan.

20. Eta gogoratzen zuela bere artean, era artan zer egin bear zuen, erabaki zuen, bizitzaren amorioagatik, legearen kontra ezertxo ere ez egitea.

21. Baña an arkitzen ziraden batzuek, urrikaltasun gaizto batekin mugituak izanda, eta berarekin anziñatik zeukaten adiskidetasunagatik, berezian artzen zutela, erregututzen zioten, utzi zitzaiela ekartzen, jatea zillegi zitzaion aragiak; onela sinistu erazitzeko, erregearen agindu, idoloai sakrifikatutako aragiak jateko esaten zuena, kunplitu zuela,

22. Onela eriotzatik libratu zedin. Eta berarekin anziñatik zeukaten adiskidetasunagatik, onelako biguntasunarekin itz egiten zioten.

23. Baña Eleazarok, bere edade, eta bere ille zuri beneragarrien, eta bere anziñako odol garbiaren, eta aurtxo zanetik egin zuen bizitza onaren diñako beste gogorazio batzuek idukirik, supituan erantzun zuen, Jaungoikoak ipiñitako lege santaren aginteen araura, eta esan zuen: iltzea naiago zuela.

24. Zeren ez da gure edadeari ederki dagokiona, gañera esan zien, onelako gauzarikan iruditzea, eta argatik gazte asko, sinisturik Eleazaro larogeita amar urtekoa jentillen errelijiora irago zala

25. Engañioan eroriko litezke, nere irudipen augatik, nik bizitza ustelkor au piska bat luzetzeagatik, baita ere nere zartzaren gañera lotsaria eta nazka aurtikiko nuke.

26. Gañera, orain gizonen oñazetatik libratu banitzake ere, Jaungoiko txit almentsuaren eskuetatik, edo bizirik nagoala, edo ilda gero, ezin igesik egingo nuke.

27. Argatik erruz iltzen naizala, arkitzen naizan zartza beneragarriaren diña erakutsiko naiz.

28. Eta gazteai utziko diet sendotasuneko irudi bat, gogo gertu eta sendo batekin, legerik santaen eta anditasunez betetako bat zaitzeagatik eriotza onragarri bat sufritzen badet. Oiek esan zituenean, urkamendira eramana izan zan.

29. Eta eramaten zutenak, eta piska bat lenago biguñagoak izan ziradenak, aserretu ziran esan zituen itzak gatik, zeñak urgulleriatik zetoztenak ziradela sinistu zuten.

30. Ematen ziozkaten otsen indarrez iltzeko zorian zegoala, suspirio bat aurtiki zuen, eta esan zuen: O Jaun, jakinduria santua daukazuna, zuk ongi dakizu, eriotzatik libratu nindekeala, nere gorputzean oñaze txit andiak sufritzen ditudala, baña nere animak, zure amorio santuagatik bozkarioz iragotzen ditu.

31. Onela bada il zan Eleazaro, utzitzen ziela, ez bakarrik gazteai, baita bere erreñu guziari ere, bere eriotzaren oroipenean, bertute eta sendotasuneko irudi bat.

ZAZPIGARREN KAPITULUA

1. Esan danez gañera gertatu zan, zazpi anaia beren amarekin batean arrapatuak izatea, eta erregeak nai izan zuen, azoteen, eta zezenen ualakin emandako oñazeen indarrez urdearen aragia janerazitzea, legeak galerazia zeukanaren kontra.

2. Baña beretatik batek zeñ zan lenbizisortua, esan zuen: Zer da zuk nai dezuna, edo gugandik zer jakin nai dezu? Prestatuak gaude iltzeko, Jaungoikoak eman dizkigun gure erriko legeak ausi baño lenago.

3. Aserretu zan bada erregea, eta agindu zuen suaren gañean ipiñi ziteztela zartagiak, eta brontzezko eltzeak, zeñak bereala erazekita

4. Agindu zuen, aurrena itz egin zuenari mingaña ebakitzeko, eta buruko larrua kenduta, eta moztutzeko eskuetako eta oñetako ertzak, bere anaiak, eta ama begira zeudela.

5. Eta ezertarako ere gai etzan eran jarri zanean, agindu zuen sua ekarri zezatela, eta illarteraño zartagian txigortu zezatela. Berak oñaze luze au iragotzen zuen artean, besteak amarekin batean, elkar alaitzen zuten irmoki iltzera,

6. Esaten zutela: Jaun Jainkoak egia ikusiko du, eta urrikalduko da gurekin, agertu zuen bezela Moisesek bere kantatxoan esan zuenean: Bere serbitzariakin urrikaltsua izango da.

7. Lenbizia onela illa izan zanean, bazeramaten bigarrena, irriz oñazetzeko, eta buruko larrua ille guziakin kenduta gero, galdetzen zioten, bere gorputzeko zati bakoitzean oñazetua izan baño lenago, jango ote zuen.

8. Baña berak bere erriko izkuntzan erantzuten zuela, esan zuen: Ez det alakorikan egingo. Ala bada, onek ere lenbizikoaren oñazeak berak sufritu zituen.

9. Eta atzeneko asnasa emateko zorian zegoanean, esan zuen: Zuk, o txit gaiztoa, emen daukagun bizia kentzen diguzu; baña munduko erregeak egunen batean berriz biztuko gaitu betiko bizitzarako, bere legeak zaitzeagatik illak geradelako.

10. Onen ondoan irugarrena etorri zan oñazetua izatera; zeñak eskatu ziotenean mingaña, bereala atera zuen, eta erruz bere eskuak luzatu zituen,

11. Itxedopen sendo batekin esaten zuela: Gorputzeko zati oiek zerutik artuak ditut, baña orain mezpreziatzen ditut Jaungoikoaren legearen amorioz, eta bere eskutik berriz artuko ditudala itxedotzen det.

12. Esan zituen oiek, alako moduan, non, erregea, eta bere lagunak arrituak gelditu ziran mutil gazte onen sendotasunarekin, zeñak utsa balitza bezela oñazeak iragotzen zituen.

13. Au ere il zutenean, laugarrenari ere berdin ari ziran oñazeak ematen,

14. Zeñak, iltzeko zorian zegoala, onela itz egin zien: Txit ongi da guretzat gizonen eskuz bizia galtzea, Jaungoikoagan daukagun itxedopen sendoagatik, itzuliko digula, berriz biztutzen gaituenean, baña zure biztuera berria, ez da bizitzarako izango.

15. Bosgarrena arrapatzen zutela berdin martirizatzen zuten. Berak ordea erregeari begiraturik, esan zion:

16. Idukirik, daukazun bezela, eskubidea gizonen artean, berak bezela ilkorra bazera ere, nai dezuna egiten dezu, baña argatik ere, ezazu uste izan gure erreñua Jaungoikoak utzia izan dala.

17. Piska piska bat bakarrik itxedon ezazu, eta bere eskubidearen anditasuna ikusiko dezu, eta zu, eta zure jatorria nola oñazez betetzen dituen.

18. Onen ondoan seigarrena oñazetua izatera eramana izan zan, eta atzeneko asnasa ematera zijoala, esan zuen: Etzaite alperrikan engañatu; zeren baldin guk oñaze oiek padezitzen baditugu, diñak izan geradelako da, gure Jaungoikoaren kontra bekatu egin degulako, eta argatik gauza ain ikaragarriak daramazkigu,

19. Baña ez ezazu zuk uste izan kastigurikan gabe geldituko zerala, ausartatu zeran ezkero Jaungoikoaren kontra gudatzen.

20. Bitartean berriz, ama, mirari guzien gañetikoak, eta onak diradenen oroipenean beti bizitzeko diña danak, ikusirik egun batean bere zazpi semeak il ziozkatela, eramaten zuen gogo on, eta sendoarekin, Jaungoikoagan zeukan itxedopenagatik.

21. Jakinduriaz betea, sendotasunarekin alaitzen zituen bere erriko izkuntzan, beretatik bakoitza berezian, giza sendotasun bat emakumearen sendotasunarekin biltzen zuela,

22. Esan zien: Ez dakit nik nola nere sabelean agertu ziñaten, zeren ez nizkizuten nik eman anima, espiritua eta bizitza, eta zuetatik bakoitzaren gorputzeko zatiak ere, ez nituen nik beren tokietan jarri;

23. Baizik munduko egilleak, zeñ dan gizona bere jatorrian egin zuena, eta gauza guziai asiera eman ziena; eta berak, bere urrikaltasunagatik, itzuliko dizkizute espiritua eta bizitza, orain bere legeen amorioz, zuek zerok mezpreziatzen zeraten ezkero.

24. Antiokok bada, uste izanik irri egin ziotela, eta sinisturik, illerazi zituen aien itzak berari egiten zitzaiozkan aupada batzuek ziradela, nola oraindikan guzietatik txikiena gelditzen zan, ez bakarrik asi zan sinisterazitzen itzakin, baita ere ziertotzat ematen juramentoarekin, aberatz eta doatsu egingo zuela, bere gurasoen legeak utzitzen bazituen, eta bere adiskidetatik bat bezela idukiko zuela, eta bear zuen guztia emango ziola.

25. Baña nola mutil gaztea eskeñtza oietara iñolaere etzan zeartzen, erregeak amari ots egin zion, eta esaten zion, bere seme gaztearen osasun, eta biziagatik begiratu zezala.

26. Eta erregearen itz ugari oiek aditu zituenean, berak erantzun zion, bere semeari zer egin bear zuen esango ziola.

27. Onetarako zuzendurik beraganontz itz egiteko, errege odolgiroaren gurai burla egiten ziela, bere erriko izkuntzan esan zion: Ene semea, urrikaldu zaite arren nerekin, nere erraietan bederatzi illa betean eraman zindudanarekin; nere bularretako ugatzarekin iru urtean bazkatu zindudanarekin, eta azi zindudanarekin, eta zaitu, orain daukazun edaderaño.

28. Erregututzen dizut, ene semea, begiratu dezazula zerura, eta lurrera, eta beretan dauden gauza guztietara; eta ongi aditu dezazula Jaungoikoak ezerezetik egin zituela, baita gizon guztiak ere.

29. Onela etzera borrero onen beldur izango; baizik zure anaien partale izateko diña eginik, zoaz illa izatera, onela urrikaltasuneko denboran zure anaiakin batean zeruan artu zaitzadan.

30. Oraindikan itz oiek esaten ari zala, mutil gazteak esan zuen: Zeren zai zaudete? Ez diot nik erregearen aginteari obeditzen, baizik Moisesek emana izan zitzagun legearen aginteari.

31. Baña zuk, Hebreotarren gaitz guzien egillea zeranak, jakinda iduki ezazu, Jaungoikoaren kastiguari ez diozula igesik egingo.

32. Zeren guk gure bekatuakgatik oiek padezitzen ditugun;

33. Eta baldin Jaun, gure Jainkoa denbora labur baterako gure kontra aserretu bada, zuzendu gaitzan eta ondu gaitezen, bera alaere bere serbitzariakin berriz ere adiskidetuko da.

34. Zu berriz, o gaizto, eta gizon guztietatik nazkagarriena, etzaite alperrik urgullutu itxedopen utsakin, Jaungoikoaren serbitzarien kontra, aserrean erazekia zaudela.

35. Bada, oraindikan Jaungoiko guziz almentsuaren, guzia ikusten dagoanaren juiziotik ez dezu igesik egin.

36. Nere anaiak, oñaze iraitzeko batzuek orain sufritu dituztelako, betiko bizitzako elkartasuna gozatzen arkitzen dirade, baña zuk, Jaungoikoaren juizio justoagatik, zure urgulleriari dagozkion kastiguak sufrituko dituzu.

37. Nik berriz, nere anaiak bezela, nere gorputza eta bizitza ematen ditut erriko legeakgatik, erregututzen diodala Jaungoikoari, gure erreñuarekin anbat lasterren urrikaldu dedilla; eta zuri, oñaze eta kastiguen indarrez, aitortu erazi dizula, bera bakarrik dala, Jaungoikoa.

38. Berriz, Jaungoiko txit almentsuaren aserre, gure erreñuaren gañera arrazoiarekin aurtikitzen duena, nere, eta nere anaien eriotzarekin bukatuko da.

39. Orduan erregeak, aserrean erazekita, aurtiki zuen onen gañera, beste guzien gañera baño ere gogortasun andiagoarekin bere sumintasuna, eriotzaren adiñan sentitzen zuela bere burua irriz betea ikustea.

40. Mutil gazte au ere bada il zan, kutsutua izan gabe, Jaunagan itxedopen oso bat zeukala.

41. Atzenean semeen ondoan, ama ere illa izan zan.

42. Baña onezkero asko da esan dana sakrifizioen gañean, eta odolgirotasun izugarrien gañean.

ZORTZIGARREN KAPITULUA

1. Bitartean Judas Makabeo, eta jarraitzen ziotenak, sartzen ziraden ixiltxorikan errietan, eta ots egiten ziela beren aideai eta adiskideai, eta Judako errelijioan irmoki iraun zutenak berakin artzen zituztela, sei milla gizoneraño bildu zituzten.

2. Eta ots egiten zioten Jaunari biguñtasunarekin begiratu zaiola, guztiak oñazpian zerabilten bere erriari, eta urrikaltasunez begiratu zaiola bere tenploari, zeñ gizaseme gaiztoak kutsutua ikusten zan,

3. Orobat urrikaldu zedilla bere erriaren galmenarekin, zeñak laster arrasatua gelditu bear zuen; eta aditu zezala, isuria izan zan odolaren boz, berari bengantza eskatzen zegoana.

4. Iduki ere zitzala gogoan, aur obengabeen eriotza gaizki egiñak; eta bere izen santuaren kontra esandako itzak; eta beren bengantza txit justoa artu zezala.

5. Makabeoa bada, nola jende andia bildu zuen, jentillentzat beldurgarria egiten zan; zeren Jaunak bere erriaren kontra iduki zuen aserrea, urrikaltasunera biurtu zan.

6. Aurtikitzen zan supituan errien eta irien gañera, eta erretzen zituen; eta jartzen zala toki egokietan, etsaietan galmen ez txikiak egiten zituen.

7. Ibillera oiek egiten zituela batezere gauaz, eta bere sendotasunaren ospea, toki guzietatik zabaltzen zan.

8. Ikusirik bada Filiposek, agintari au geldika geldika indar geiago artuaz zijoala, eta aurrerapenak egiñaz, eta geienean ongi irtetzen ziotela zerabiltzkian asmazioak, eskribitu zion Ptolomeo Zelesiriako eta Feniziako gobernariari, erregearen aldamenekoai laguntzeko.

9. Eta berak berala bialdu zion Nikanor, bere adiskide, Patrokloren semea, andizkirik nagusienetatiko bat, ogei milla gizon armaduneraño ematen ziozkala, erreñu askotakoak, juduen jatorri guztia arras desegin zezan, eta berarekin batean bialdu ere zion Gorjias, zeñ zan gudari andia, eta gerrako gauzetan asko ikusia.

10. Nikanorrek erabaki zuen pagatzea erregeak Erromatarrai eman bear zien milla talentuko kotiza, Juduai egingo ziozkaten katibuak saldu ta ateratzen zituela.

11. Eta bereala bialdu zituen mandatariak itsasoko aldameneko errietara, esatera, etorri zitezela Judu mendekoak erositzera, eskeñtzen zuela, beretatik larogeita amar, talentu batgatik ematea; Jaungoiko txit almentsuak berarekin artuko zuen bengantzarekin gomutatu gabe.

12. Judasek Nikanorren etorrera jakin zuenean, adirazi zien berarekin zeuzkanai.

13. Beretatik batzuek, beldurturik, eta Jaungoikoaren justizian etzutela sinistzen, iges egin zuten,

14. Baña beste batzuek, gelditu zitzaioten guztia saltzen zuten, eta batean erregututzen zioten Jaunari, arren libratu zitzala Nikanor gaiztoagandik, zeñak oraindikan berakgana alderatu ere gabetanik, salduak zeuzkan.

15. Eta ontzat iduki zezala oiek egitea, beren amorioagatik izango ez bazan ere, beren gurasoakin egin zuen elkartasunagatik bederik, eta zeukaten onragatik, Jaungoikoaren erriaren izen santu eta gloriaz betea idukitzean.

16. Makabeoak bada, bildurik berari jarraitzen zien sei, edo zazpi milla gizonak, esan zien: Ez bizirik utzitzeko etsairik batere, eta berai erasotzera zetorren etsai talde aren beldur etziteztela izan, baizik erruz gudan ari zitezela,

17. Begien aurrean zeuzkatela, aiek toki santuari egindako bidegabeak, eta lotsarian iduki zuten erriari eman zioten injuriarekin, eta gañera nola beren gurasoen lege santuak kendu zituzten.

18. Jende oiek, esan zuen gañera, beren armaetan, eta beren ausartasunean itxedotzen dute; baña guk gure itxedopena ipiñita daukagu, Jaun txit almentsuagan, zeñak begirakune batekin goibetu ditzakean, ez bakarrik gure kontra datoztenak, baita mundu guzia ere.

19. Baitaere gogora ekarri ziezten, Jaungoikoak beste denbora batzuetan beren gurasoai emandako laguntasunak, eta Senakeriben ejerzituko eun eta larogeita bost milla, illak izan ziradenak.

20. Baitaere berak Babilonian Galataskoen kontra iduki zuten guda, zeñatan Mazedoniatar, berakin elkartuta zeudenak gudan sartzen ausartatu ez baziraden ere, berak, izanik sei milla bakarrik, ogei milla il zituzten, zeruak eman zien laguntasunarekin; eta ordañean ondasun andiak iritxi zituzten.

21. Itz oiekin alaituak gelditu ziraden, eta prestatuak, legeakgatik eta erriagatik iltzeko.

22. Bereala bere gudari talde batzuen agintaritza eman zien bere anaia Simon, Jose eta Jonatasi, milla eta bosteun gizon bakoitzaren agindura ipintzen zituela.

23. Gañera Esdrasek liburu santua irakurri zien, eta Judasek emanik siñaletzat, Jaungoikoaren laguntsuna, bera jarri zan ejerzituaren aurrean eta Nikanorren kontra joan zan.

24. Eta Jaungoiko guzia dezakeana beren laguntzalle jarririk, bederatzi milla gizon baño geiago il zituzten, eta igeserazi zioten Nikanorren ejerzituari, zeñ, asko zaurituak izan ziradelako, txit gutxitua gelditu zan.

25. Onela, berak mendekotzat erositzera etorri ziradenen diruak arrapatu zituzten; eta bide luzean etsaiari persegituaz joan ziraden.

26. Baña denborak estututzen zituztelako, atzera itzuli ziraden, zeren larunbataren bezpera zan; eta onek etsaiai persegitzeari jarraitzea galerazi zien.

27. Bildurik bada etsaien armak, eta berai arrapatu ziezten ondasunak, larunbata zelebratu zuten, bedeikatutzen zutela Jauna, zeñak egun artan libratu zituen, bere urrikaltasuneko intzaren lenbiziko tantoak bezela beren gañera isuritzen zituela.

28. Irago zanean larunbateko jaia, arrapatu zituzten ondasunen zati batzuek eman ziezten eriai, umezurtzai, eta andre alargunai; gañerakoak berentzat, eta beren familientzat gelditzen zituztela.

29. Eginik bada gauza oiek, guziak batean orazio egin zuten, erregututzen ziotela Jaun urrikaltsuari, bere serbitzariakin onezkero adiskidetu zedilla betiko.

30. Geroago berriz, Timoteoren eta Bakidesen ejerzituak erasoak izanik, beratatik il zituzten ogei milla gizon baño geiago; eta erri murrutu asko arrapatu zuten; eta ondasun andiak bildu zituzten, zeñatatik zati berdiña eman zien eriai, umezurtzai, andre alargunai, baita zarrai ere.

31. Andikan laister bada, etsaien arma guziak bildurik, zegozkien tokietan ipiñi zituzten, arrapatu zituzten beste gauzak Jerusalenera eramaten zituztela.

32. Orobat bizia kendu zioten Filarko, gizon gaiztoari, Timoteori laguntzen ziotenetatik bati, eta Juduai gaitz andiak egin ziozkanari.

33. Eta garaipen augatik Jaungoikoari eskerrak ematen Jerusalenen zeudenean, jakin zutenean Kalistenes hura, ate santuai su eman ziena, etxe batean sartuta ezkutatua zegoala, bertan erre zuten, onela bere gaiztakerien diña zan ordaña ematen ziotela.

34. Bitartean Nikanor txit gaiztoa, milla merkatariri etorri erazi ziena, Juduak mendekotzat erositzera,

35. Utsa bezelakotzat berak iduki zituenak, Jaunaren laguntasunarekin umillatua izanda, bere soñeko ederra utzirik, iges eginik Lurrarteko itsasotik, Antiokiara bakarrik allegatu zan, eta gelditu zan doakabetasunik andienean, bere ejerzitua galdu zuelako,

36. Eta Jerusalengo katibuak salduta, aien diruarekin, Erromatarrai eman bear zioten kotiza pagatzea len eskeñi zuen hura bera, zijoan orain argiro adierazten zuela, Juduak Jaungoikoa laguntzalletzat zeukatela, eta zaurituak izan etzitezkeala, Jaunak berak eman ziezten legeai jarraitzen zieztelako.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA

1. Denbora onetan, Antioko Persiatik lotsariz betea itzultzen zan;

2. Zeren Persepolis izena duen errian sartu zan, eta tenploko ondasunak arrapatu nai zituen, eta erria mendean jarri, baña jende taldea korri-

ka armak artzera joanik, iges erazi zioten. Eta onela gertatu zan Antioko iges eginda gero, lotsariz betea itzultzea.

3. Eta Ekbatanaren aldera allegatu zanean, Nikanorri eta Timoteori gertatu zitzaienaren berria iduki zuen.

4. Eta onekin aserreturik, uste zuen, berak Juduakgana itzulierazi lizaiokeala, iges egin zutenen lotsariari, eta alan agindu zuen, agudo erabilli zezatela bere gurdia, gelditu ere gabe bideari jarraitzen ziola, zeruko erabakiak onetaratzen zuela, lotsagabekeriaz esan zuelako, bera joango zala Jerusalenera, eta Judu gabillatuzko gorputz illen obitoki egiña jarriko zuela.

5. Baña Israelko Jaun Jainko, gauza guztiak ikusten dituenak, barrendiko, eta sendatu etzitekean zauri bat egin zion: zeren aitatu diran itzak esan zitueneko, erraietako oñaze sendo batek, eta esteetan oñaze garratz batek arrapatu zuten

6. Eta egiaz txit diña zan; zeren berak ere oñaze asko eta berriakin besteen erraiak urratu zituen. Baña alaere, etzituen argatik bere asmazio gaiztoak utzitzen.

7. Onela urgulluz betea, bere biotza Juduen kontra garrak zeriozkala zegoala, eta beti ari zala agintzen agudo ibilli zitezela, gertatu zan, eginalean zijoala, gurditik beera erortzea; eta artu zuen ots andiarekin, gorputzeko aldamenak autsi zaiozkan.

8. Eta arrokeriaz beteta gizonez gañera altxatu nai zan hura, eta panparreriaz uste zuena itsasoko bagai ere agindu ditzaiekeala, eta mendirik goratuenak balantza batean pisatu ditzakela, lurreraño orain umillatua, eskuzko esertoki batean eramana zan, Jaungoikoaren eskubidearen aitorrera agiri bat beragan erakusten zuela,

9. Zeren gizaseme gaizto onen gorputza arrez irakitzen zegoan, eta oraindikan bizi zala, oñazeen erdian aragiak zatika erortzen zitzaiozkan; eta bere ejerzituak ere, beragandik botatzen zituen usai gaizto eta kiratsa, ezin zituzten sufritu.

10. Ala, denbora gutxi lenago uste zuena, zeruko izarrak eskuarekin arrapatu zitzakeala, iñork ere ezin sufritu zuen, botatzen zuen kirats irago eziñagatik.

11. Izanik bada, onela beera aurtikia bere urgullu goratutik, bere ezaueran sartzen asi zan, Jaungoikoaren azotearekin zirikatua izanik; zeren bere oñazeak une batetikan bestera aziaz zijoazen.

12. Eta nola onezkero berak ere bere kiratsa ezin sufritu zuen, esan zuen onela: Gauza justoa da gizona Jaungoikoaren mendean egotea, eta ilkor bat ez dedilla Jaungoikoarekin aupadaka ari.

13. Baña gaizto onek erregututzen zion Jaunari, zeñgandik urrikaltasunik etzuen iritxiko.

14. Eta len agudo zebillanak Jerusalengo errira, arrasatzera joateko, eta berarekin gizon ill gabillatuen obitoki bat egiteko, orain erri hura lokarrietatik askatu nai zuen.

15. Baitaere eskeñtzen zuen, Judu oiek berok Atenaskoakin berdintzea, zeñak denbora gutxi dala uste zuen, obiratuak izateko ere diña etziradela, eta zeñai esan zien egazti arrapariai eta pistiai aurtikiko zieztela, zatitu zitzaten; eta aurrik txikienerañokoak ere arras desegingo zituela.

16. Eskeñi ere zuen, tenplo santu hura, zeñ len ezereregabe utzi zuen, doañ baliotsuakin apainduko zuela, eta ontzi konsagratuak ugarituko zituela, eta sakrifizioetarako egin bear ziraden kastuak, bere errentaetatik pagatuko zituela.

17. Eta gañera, bera Judu egingo zala, eta Jaungoikoaren eskubidea goratzen mundu guzitik joango zala.

18. Baña nola beti zegoan bere oñazeakin (zeren atzenean Jaungoikoaren bengantza justoa bere gañera erori zan) itxedopen guztia galduta, eskribitu zien Juduai karta bat, erreguak egiten zieztela, zeñatan oiek esaten ziezten:

19. Judu, erritar txit ederrai, osasun asko, eta ongi izatea, eta doatsuak izatea Antioko errege eta prinzipeak opa diezte.

20. Osasunarekin bazaudete, ala zuek, nola zuen semeak, eta guztia nai dezuten bezela gertatzen bazatzute, guk beragatik Jaungoikoari esker andiak ematen diozkagu.

21. Nola orain eri arkitzen naizan, eta zuekin zuen onerako oroitzen naizala, premiazko gauza dala uste izan det, Persiatik nere itzulieran eraso didan gaitz andi onetan, guzien ongi izateagatik begiratzea, erabaki batzuek ematen ditudala,

22. Ez nere osasunaren itxedopena galdu dedalako, zeren gaitz onetatik sendatuko naizan itxedopen andi bat daukadan.

23. Baña oroiturik nere aitak ere, goiko aldameneko probinzietara bere ejerzituarekin zijoan denboran, agertu zuela, bera ilda gero nor jarri bear zan erregetzan;

24. Ezbearren bat gertatzen bazan, edo berri txarren batzuek aditzen baziraden, probinzietan bizi ziradenak etzitezen beldurtu, jakiñik zeñ zan bere lekuan agintaritzan jarriko zana;

25. Eta gañera, gogoraturik, nere aldean dagoan, eta almentsua dan bakoitza, era onaren zai azeloan dagoala, eta denbora egokiaren begira bere asmazioetarako, erregetzat izendatu det nere seme Antioko, nere

erreñuetako goiko probinzietatik iragotzen nintzanean, maiz bere alde itz egin nizutena zuetatiko askori, hura bera, eta zeñi bean ikusiko dezutena eskribitu diodan.

26. Argatik erregututzen, eta eskatzen dizutet, oroitzen zeratela, bakoitzak bakarrean, eta guziok batean nigandik artu dituzuten mesedeakin, guziok leialtasuna gorde dizaguzula neri eta nere semeari.

27. Zeren uste dedan, bera zentzuarekin eta biguñtasunarekin portatuko dala, eta jarraitzen diela nere asmazioai, zuen mesedegillea izango dala.

28. Atzenean ere gizon eralla eta blasfemo au, izanik Jaungoikoak erioz zauritua, tratatua, berak besteak tratatu zituen era berean, bere bizia bukatu zuen mendietan, bere erritik urrutian, eriotza doakabe batekin.

29. Filipo bere ugatzanaiak bere gorputza eraman zuen, eta nola Antiokoren semearen beldur zan, Ejiptora Ptolomeo Filometorgana joan zan.

AMARGARREN KAPITULUA

1. Bitartean Makabeoak, eta berari jarraitzen zienak, Jaunak laguntzen ziela, Tenploa eta erria berriz arrapatu zituzten,

2. Eta jentillak plazaetan egin zituzten aldareak desegin zituzten, baita idoloen tenploak ere.

3. Eta garbiturik tenploa, aldare berri bat egin zuten, eta aterarik sua arri muger batzuen bitartez, sakrifizioak eskeñi zituzten, Judas agintzera sartu zanetik bigarren urtean, eta inzensuaren aldarea ipiñi zuten, lanparak, eta proposizioko ogiak ere bai.

4. Oiek eginik, auzpezturik lurrean, erregututzen zioten Jaunari, beñere berriz etzaiela utzi alako doakabeetan erortzen; eta baldin bekaturik egiten bazuten, biguntasun geiagorekin kastigatu zitzala, eta gizon biotz gogorreko, eta blasfemoen mendean etzitzala jarri.

5. Eta arretaz begiratzekoa da, tenploa garbitua izandu zala egun artan, zeñatan arrotzak kutsutua izan zan, au da, Kasleu illaren ogeita bosgarren egunean.

6. Ala da, jai au zelebratu zuten bozkarioz zortzi egunean, Tabernakuloenarena bezelako gisara, oroitzen ziradela, denbora gutxi lenago tabernakuloen jai au, mendietan eta kobetan pistien gisara irago zutela.

7. Argatik eskuetan zeramazkiten zortenak, eta erramu berdeak, eta palmak, bere tenplo santua garbitzeko zoriona eman zien Jaunaren onran.

8. Eta guzien iritzi eta agintez erabaki zuten, Juduen erreñu guziak jai au, urteoro, egun aietan beretan zelebratu zezala.

9. Antioko Epifanes izena zuenaren eriotzaren gañean berriz, esan degun bezela izan zan.

10. Orain berriz, esango ditugu, Eupator, Antiokoren semearen egiteak, bere gerrak ekarri zituzten gaitzak itz gutxitan ipintzen ditugula.

11. Sartu zanean bada au erregetzan, izendatu zuen erreñuko gauzak zuzentzeko Lisias izena zuen bat, Feniziako eta Siriako soldaduen Gobernaria.

12. Zeren Ptolomeo, Mazer izena zuenak, erabaki zuen, juduakin justizia zuzen zaitzea, eta berakin pakean egotea, batezere anbeste ezbear sufritu erazi ziotelako.

13. Baña argatik Eupatorren aurrean adiskideak salatua izanik, zeñak maiz saltzalletzat tratatzen zuten, utzi zuelako Txipre, zeñaen agintaritza Filometor erregeak eman zion, baitaere zeren iragorik bein Antioko Epifanesen aldamenera, andik ere iges egin zuen, pozoiarekin bere buruari bizia kendu zion.

14. Denbora onetan Gorjiasek, zeñak zeukan Palestinako lur aietako agintaritza, tropa arrotzak erosten zituela, Juduai maiz erasotzen zien.

15. Eta Juduak, zeñak zeuzkaten erri murrutuak toki obeagoetan, Jerusalendik iges egiten zutenak beretan artzen zituzten, eta Judasen kontra gudan egiteko erak billatzen zituzten.

16. Baña Makabeoari jarraitzen ziotenak, Jaunari orazioa eginik, bere laguntasuna iritxitzeko, Idumeatarren gazteluai irmoki eraso zien.

17. Eta guda garratz eta sendo baten ondoan, berak arrapatu zituzten, aurrean jarri zitzaiezten guztiak il zituzten, ezpataz iragoak ogei milla lagun baño gutxiago etziradela.

18. Baña nola batzuek sartu ziran gaztelu txit sendo bitan, eta beren buruak zaitzeko bear zuten guzia zeukaten,

19. Utzi zituen Makabeoak berai erasotzen aritzeko Simon, eta Jose, baita Zakeo ere, beren agindura zeuzkaten tropa askotxorekin, eta bera bereakin, gerrako premiarik estuenak ots egiten zioten tokira joan zan.

20. Baña Simonen tropak, zikoiztasunaren indarrez, gazteluan zeuden batzuen asmazioz, diru aregatik saldu ziran, eta arturik irurogeita amar milla didrakmaraño, beretatik batzuei iges egiten utzi zioten.

21. Eta Makabeoari, egin zanaren berria eman ziotenean, bildurik erriko prinzipeak, salatu zituen, beren anaiak diruagatik saldu zituztela, beren etsaiai utzitzeaz iges egiten.

22. Argatik aitatu diraden saltzalleai bizia kendu erazi zien, eta beraala gaztelu biak arrapatu zituen.

23. Eta bere armen indarrera nola guzia erara zetorren, bi gazteluetan ogei milla gizon baño geiago il zituen.

24. Timoteo berriz, zeñ len Juduak garaitua izan zan, bildurik berriz tropa arrotzezko ejerzitu bat, eta oiekin batean Asiako zaldidia, etorri zan Judeara, armen indarrez bera arrapatzera bezela.

25. Baña bera alderatuaz zijoan denbora berean, Makabeoak eta bere jendeak Jaunari erregututzen zioten, beren buruak autsez estaliak, eta beren gerriak zilizioz lotuak zituztela,

26. Auzpezturik aldarearen aurrean, berai biguñtasunaz begiratu zitzaiela, eta izan zedilla beren etsaien etsaia, eta beren kontrarioen kontrarioa, legeak esaten duen bezela.

27. Eta onela bukaturik orazioa, arturik armak, eta Jerusalengo erritik urrutitxo batera aterarik, etsaietara alderatu ziradenean, gelditu ziran.

28. Eguzkia irtetzen asi zanean, ejerzitu biak elkarri eraso zien; batzuek zeukatela, beren sendotasunez gañera, Jauna bera, garaipena, eta beren armen atzen doatsua eskeñtzen ziena; besteak beren indarra baño besterik gudan etzeukatenean.

29. Baña gudan sendoen ari ziran denboran, etsaiak ikusi zituzten agertzen ziradela zeruan bost gizon, zaldien gañean zeudenak, urrezko bridakin apainduak, zeñak Juduak zuzentzen zituzten;

30. Aitatu diraden gizonetatik bik, Makabeoa erdian artzen zutela, beren armakin estalitzen zuten, aurtikitzen zituztela dardoak, eta oñazkarrak etsaien kontra, zeñak illuntasunean eta nastean zeudela, eta izuz beteak, lurrera eroriaz zijoazen.

31. Eta ogei milla eta bosteun oñazko, eta seireun zaldizko illak izan ziraden.

32. Timoteo berriz, sartu zan Gazara, erri murrutuan, zeñatako Gobernaria Kereas zan.

33. Makabeoa eta bere tropak berriz, gozotasunez beteak zeudela, lau egunean erria setiatua iduki zuten.

34. Bitartean setiatuak zeudenak, erriaren sendotasunean itxedotzen zutela, Juduakgatik txit gaizki esaten zuten, eta itz nazkagarriak aurtikitzen zituzten.

35. Baña setioaren bosgarren eguneko egunsentia allegatuta bereala, Makabeoarekin bost gazte, alako blasfemiakin aserretuta, murrura irmoki alderatu ziraden, eta gogo ausartatuarekin bere gañera igo ziran.

36. Eta orobat eginik besteak, dorreai, eta ateai su ematen asi ziraden, eta blasfemo aiek bizirik erre zituzten.

37. Bi egun osoetan egon ziraden gaztelua desegiten, eta arkitu zutenean Timoteo, zeñ toki batean ezkutatu zan, il zuten, baita Kereas bere anaia, eta Apolofanes ere.

38. Gauza oiek eginik, bedeikatu zuten himno eta kantakin Jauna, zeñak egin zituen Israelen alako gauza andiak, eta garaipena eman zien.

AMAIKAGARREN KAPITULUA

1. Baña denbora gutxi bat geroago, Lisias, erregezaiak, eta bere aideak, zeñak zeukan erreñuko gauzak zuzentzeko kontua, nola gertatu zanak damu andia ematen zion,

2. Bildu zituen larogei milla gizon oñazko, eta zaldidi guztia, eta zuzendu zan Juduen kontra, Jerusalengo erria arrapatzeko, eta jentillai bizilekutzat emateko asmazioarekin,

3. Baitaere tenplotik diru asko ateratzeko, jentillen beste tenploetan egiten zuen bezela, eta urteoro apaiztza nagusia saltzeko,

4. Jaungoikoaren eskubidearekin oroitu gabe, baizik itxedopen alper bat ipintzen zuela bere oñazko talde andietan, millaz zeuzkan zaldietan, eta larogei elefanteetan,

5. Eta sarturik Judean, eta Betsurara alderaturik, zeñ zegoan toki estu batean, Jerusalendik bost estadioko bidean, erri oni eraso zion.

6. Baña Makabeoak, eta bere jendeak, jakin zutenean etsaiak gazteluak setiatzen asi ziradela, erregutuzen zioten Jaunari malko eta suspirioakin, erri guziarekin batean, bialdu zezala aingeru ona Israel salbatu zezan.

7. Eta Makabeoak berak guzien artean lenbizia armak artzen zituela, esan zien besteai, arren bera bezela irriskuetan jarri zitezela, beren anaiai laguntzeko.

8. Guztiak bada, bidean zijoazela gogo sendoarekin, Jerusalendik irteeran agertu zitzaioten zaldiz gizaseme beneragarri bat, zeñ zuriz jantzia, eta lantza dardaraz zerabillala zijoan.

9. Orduan guztiak batean Jaun urrikaltsua bedeikatu zuten, eta asnasa berriak artu zituzten, prestatuak zeudela gudatzeko, ez bakarrik gizonen kontra, baita pistirik uzuenen kontra ere, eta burnizko murruetatik sartzeko.

10. Bazijoazen bada bozkarioz, beren laguntzalletzat zeukatela Jauna, zeñak zerutik bere urrikaltasunari beren gañean argi erazitzen zion.

11. Ala bada, aurtikitzen ziradela txit gogotik leoiak bezela etsaien gañera, amaika milla oñazko, eta milla ta seireun zaldizko il zituzten;

12. Eta gañerako guztiai igeserazi zien, zeñatatik geienak iges egin zuten zaurituak izanda, eta beren armak kenduta, eta Lisias bera ere lotsagarriro iges eginda, bizirik gelditu zan.

13. Eta nola etzan zentzugabea, jarririk bere artean gogoratzen, iduki zuen galmena, eta ezaguturik hebreotarrak ez litezkeala garaituak izan, Jaungoiko guzia dezakeanaren laguntasuna berakgan zeukatenean, mandatariak bialdu ziezten.

14. Eta eskeñi zien, beren iritzira etorriko zala, justoak ziraden gauza guztietan, eta esango ziola erregeari, berakin adiskidetu zedilla.

15. Etorri zan Makabeoa Lisiasen eskarira, gauza guzietan guzien ongi izateari begiratzen ziola; eta eman zuen erregeak, Judasek Juduen alde Lisiasi eskribitu zion kartan eskatu zuen guztia.

16. Lisiasek Juduai eskribitu zien kartan, oiek esaten zituen: Lisiasek Juduen erriari, Osasuna.

17. Juan eta Abesalom zuen mandatariak eman zidatenean zuek eskribitu zendutena, eskatu zidaten, berak adirazten zidatena egin nezala.

18. Adirazi nion bada erregeari, adirazi zezakeon guztia; eta eman du, erreñuko gauzak arkitzen diraden estaduak utzi dion guztia.

19. Eta baldin zuek tratatu dana leialtasunarekin gordetzen badezute, ni ere aurrerakoan saiatuko naiz egiten zuei al ditudan mesede guztiak.

20. Beste gauzaen gañean berriz, agindu diet zuek bialdu dituzuten, eta nik bialtzen ditudan mandatariai, beretatik bakoitzak zuekin aoz tratatu ditzala.

21. Ongi bizi. Dioskoro illaren ogeita laugarrenean, eun eta berrogeita zortzigarren urtean.

22. Erregearen kartak onela esaten zuen: Antioko erregeak, Lisias bere anaiari, Osasuna.

23. Gure aita erregea, jainkoen artera eramana izan zan denboratik, guk, gure mendean zeudenak pakean bizi zitezela nai genduenak, eta beren lanetara begiratu al izatea,

24. Eta jakinik Juduak etzitezkeala etorri nere aitak zeuzkan guraetara, Griegen elizkizunetara, baizik beren oituretan iraun nai izan dutela, eta argatik eskatzen digutela, beren legeen araura biziten utzi dizaiegula,

25. Argatik, nola guk nai degun erreñu au ere, besteak bezela, pakean bizi dedilla, agindu eta erabaki degu, utzi dizaietela, len bezela, tenploan berak nai dutena egiten, beren asabaen oituren araura bizi ditezen.

26. Ongi bada egingo dezu, bialduko baziñik mandatariak, berakin pakeak egitera, ezaguturik gure borondatea, gogo onarekin egon ditezen, eta bakoitza bere lanetan ari dedin.

27. Erregearen karta Juduai onelakoa zan. Antioko erregeak, Juduen zarren batzarreari, eta beste Judu guziai, Osasuna.

28. Ongi bazaude, au da guk nai deguna, bada gu ere ongi bizi gera.

29. Menelao etorri da gugana, esaten duela, etorri nai dezutela tratatzera, gurekin dauden zuen erreñukoakin.

30. Argatik ematen diegu, pakean etortzeko eskubidea, Xantiko illaren ogeita amargarren eguneraño gugana datoztenai.

31. Eta utzitzen diegu Juduai jan ditzatela beren janariak, eta iduki ditzatela beren legeak, len bezela; eta iñori ere ez dizaiokeala gaitzik egin, ezjakiñez egindako gauzakgatik.

32. Eta atzenik, Menelao bialdu dizugute, zuekin itz egin dezan.

33. Ongi bizi zaitezte. Xantiko illaren amabostean, eun eta berrogeita zortzigarren urtean.

34. Orobat Erromatarrak ere bialdu zuten karta bat, oiek esaten zituztela: Kinto Memmio, eta Tito Manilio, Erromatarrak, onetarako autuak, Juduen erriari, Osasuna.

35. Lisias erregearen aideak eman dizkizuten gauzak, aiek berak guk ere ematen dizkizugu.

36. Eta beste gauzen gañean, zeñakgatik Lisiasek uste izan zuen, erregearekin itz egin bear zuela, albait lasterren norbait bialdu ezazute, zuen artean tratatuta gero, zuentzat obeago izango dana erabaki dezagun, zeren Antiokiarontz joateko gauden.

37. Agudo ibilli zaitezte erantzuteko, onela, zer nai dezuten jakin dezagun.

38. Ongi bizi Xantiko illaren amabostean, eun eta berrogeita zortzigarren urtean.

AMABIGARREN KAPITULUA

1. Elkartasun oiek eginda, Lisias erregeagana itzuli zan, eta Juduak beren lurrak landutzen ari ziran.

2. Baña erregearen agintari, errian bizi ziradenak, au da, Timoteok, eta Apolonio Jenneoren semeak, baitaere Jeronimo, eta Demofontek, eta gañera Nikanor, Txipreko Gobernariak, pake eta atsedenean bizitzen etzien utziten.

3. Jopen bizi ziradenak berriz, gaiztakeria au egin zuten: Erregutu zioten Juduai, zeñakin bizi ziran erri artan, sartu zitezela beren emazte eta semeakin, prestatuak zeuzkaten ontzi batzuetan; batzuen eta besteen artean aserrerik etzegoalako.

4. Eta aiek baietz erantzunik, etzeukatelako beldurrikan batere, zeren pakean bizi ziraden, eta erriak beren alde erabaki agiri bat zeukan egiña; baña itsasoaren barrenen arkitu ziradenean, beretatik berreun batzuek itsasora aurtikiak izan ziraden.

5. Jakin zuenean Judasek bere erreñukoen kontra egin zan gaiztakeria odolgiro au, bere jendeari armak artzeko agindu zion, eta Jaungoiko juez justoari ots eginik,

6. Joan zan bere anaien erallen kontra, eta gauaz portuari su eman zion, beren ontziak erre zituen, eta garretatik iges egin zuten guztiak ezpataren puntaz iragoerazi zituen.

7. Oiek eginik, joan zan andik, berriz ere itzultzeko gogoarekin, Jopeko guztiak desegitzera osotoro.

8. Baña jakinik Jamniatarrak ere zebiltzatela, beren artean bizi ziraden Juduakin orobat egiteko asmazioetan,

9. Gauaz ustekabean arrapatu zituen, eta portua beren ontziakin erre zuen; alako moduan, non, garren argitasuna ikusten zan Jerusalendik, zeñatara andik berreun eta berrogei estadio dauden.

10. Eta Jamniatik alde eginda, bederatzi estadioko bidean ibilli zanean, eraso zioten Arabiatarrak, zeñak ziraden bost milla oñazko, eta bosteun zaldizko.

11. Eta asirik elkarren artean guda gogor bat, zeñatan Jaungoikoaren laguntasunarekin ongi irten zan, Arabiatarren ejerzituaren gañerakoa garaitua izanik, Judasi pakea eskatu zion, eskeñtzen ziozkala bazka-toki batzuek, eta gañerako guztian lagunduko ziola.

12. Eta Judasek sinisturik, egiaz asko gauzatan mesedegarriak izan zitzazkeokeala, pakea eman zien; eta eskuak emanik, Arabiatarrak beren etzauntzetara itzuli ziraden.

13. Oien ondoan, erri murrutu Kasfin izena zuen bati eraso zion, zeñ zegoan pareta sendoz, eta zubiz ingurutua, zeñatan erreñu askotako jende talde nastu bat bizi zan.

14. Barrendikoak berriz, itxedotzen zutela beren murruen sendotasunean, eta zer jan ugari zeukatelako, beren buruak zaitzeko etzuten arreta andirik artzen, eta aserretu erazitzen zioten Judasi madarikazioakin, blasfemiakin, eta beragatik ongi ez diraden gauzak esaten zituztelako.

15. Baña Makabeoa, ots eginik munduko errege andiari, zeñak Josueren denboran, ots batekin, kañoe, ez gerrako makina gabe Jerikoko murruak beera aurtiki zituen, gogo sendoarekin murruaren gañera igo zan.

16. Eta Jaunaren borondatez erria arrapaturik, ilkintza izugarri bat bertan egin zuten, alako moduan, non, aldean zegoan aintzira bat, bi estadioko zabalerakoari, zirudian illen odola zeriola.

17. Joan ziran andik, eta ibilli ziradenean zazpireun eta berrogeita amar estadio, allegatu ziran Karakara, non Tubianeoak izena dutenak bizi ziraden.

18. Eta toki aietan ere Timoteo etzuten arrapatu, zeiñ ezin zuela ezerere egin, biurtu zan, toki batean gudari talde txit sendo bat utzitzen zuela.

19. Baña Dositeo, eta Sosipatrok, zeñak ziran tropen agintariak Makabeoarekin batean, ezpataz irago zituzten amar milla gizon; Timoteok erri murrutu artan utzi zituenak.

20. Bitartean Makabeoa, arturik berarekin sei milla gizon, eta taldetan berezitzen zituela, joan zan Timoteoren kontra, zeñak, eun eta ogei milla gizon oñazko, eta bosteun zaldizko zekarzkian.

21. Jakin zuenean onek, Judas allegatu zala, bialdu zituen aurrera emakumeak, aurrak, eta bagakiaren gañerakoa, Karnion izena duen gaztelu batera, zeñ zan arrapatu etzitzakeana, eta sarrera gaitzekoa, bide estuetatik irago bear zalako.

22. Baña Judasen lenbiziko gudari taldea agertu zanean, etsaiak beldurrez bete ziran, Jaungoiko, guztia ikusten duena beren aurrean zeukatelako, eta bata bestearen ondoan, igesari eman zien; alako moduan, non, gaitzik andiena beren jendeagandik artzen zuten; eta beren ezpataz, zaurituak gelditzen ziraden.

23. Judasek berriz, garratz erasotzen zien, kastigatzen zituela gaizto aiek, eta beretatik ogeita amar milla lurrean etzinik utzi zituen.

24. Timoteo bera ere erori zan Dositeo eta Sosipatroren gudarien eskuetan, zeñai txit gogotik erregutu zien, utzi zizaiotela biziarekin; zeren berak zeuzkan katibu Juduen guraso eta anaia asko, zeñak, bera iltzen bazuten, itxedopen gabe geldituko ziraden.

25. Eta nola berak itza eman zien, katibu zeuzkanak biurtzeko, erabaki zuten bezela, utzi zioten joan zedilla, onela beren anaien biziagatik begiratzen zutela.

26. Oiek eginik, Judas itzuli zan Karnionen kontra, non ogeita bost milla gizon ezpataz irago zituen.

27. Etsaiak deseginik, eta beretan ilkintza andi bat eginda, Judasek zuzendu zuen bere ejerzitua Efronen kontra, zeñ zan erri bat, murru sendoak zeuzkana, eta zeñatan erreñu askotako jende talde bat bizi zan, zeñaen murruak mutil gazte, sendo, irmoki zaitzen zituztenez ingurutuak

zeuden; eta gañera, bere barrenen zeuden gerrako makina asko, eta dardoak txit ugari.

28. Baña Juduak, Jaungoiko guzia dezakeanaren laguntasuna eskatuta, zeñak bere eskubidearekin etsaien indarrak desegiten dituen, arrapatu zuten erria, eta bertan zeuden ogeita bost milla gizon lurrean etzinik utzi zituzten.

29. Andik joan ziran Eszitaen errira, zeñatara Jerusalendik seireun estadio zeuden;

30. Baña esanik an Eszitopolitarren artean bizi ziraden juduak, jende oiek ongi tratatzen zituztela; eta beren doakabetako denboretan ere berakin biguñtasun guztia iduki zutela,

31. Judasek eskerrak eman ziezten; eta esanik aurrerakoan ere bere erreñukoai onginai berdiña agertu zaiotela, bereakin Jerusalenera itzuli zan, Pentekostesko jai andia txit aldean zegoalako.

32. Eta jai au irago zanean, Gorjias, Idumeako Gobernariaren kontra joan ziraden.

33. Judas bada iru milla oñazko, eta laureun zaldizkorekin irten zan.

34. Eta elkarri erasorik, Judu gutxi batzuek gudako kanpoan illik gelditu ziraden.

35. Baña Dositeo izena zuen batek, Bazenorretatikoen zaldizko gudariak, gizon errutsuak, Gorjiasi eldu zion, eta bizirik arrapatu nai zuen; baña Traziakoetako zaldizko gudari bat bere gañera aurtiki zan, eta sorbalda bat ebaki zion; eta ala Gorjiasek Maresara iges egin zuen.

36. Onezkero Esdrinek agintzen zien soldaduak, nekatuak zeuden, alako guda luzearekin, eta Judasek Jaunari erregutu zion, gerraren laguntzalle, eta zuzentzalle bera egin zedilla.

37. Eta asirik boz goratuan beren izkuntzan himnoak kantatzen, Gorjiasen soldaduak igesi jarri zituen.

38. Biltzen zuela bada Judasek bere ejerzitua, Odolam izena duen errira irago zan, eta zazpigarren eguna allegatu zanean, garbitu ziran zeremonien araura, eta larunbata an zelebratu zuten.

39. Biaramonean joan zan Judas bere jendearekin, gudan il ziradenen gorputz illak ekartzera, bere erreñuko obietan beren gurasoakin obiratzeko.

40. Eta illak izan ziradenen arropen azpian, arkitu zituzten doañ gai batzuek, Jamnian zeuden idoloai konsagratuak; oiek ziraden gauza batzuek Juduen legeak galeraziak. Onekin guztiak ziertoro ezagutu zuten, gauza augatik illak izan ziradela.

41. Argatik guztiak batean bedeikatu zituzten Jaunaren juizio justoak, zeñak, estali nai zan gaiztakeria, agertu zuen;

42. Eta bereala orazioan jartzen ziradela, Jaungoikoari erregutu zioten, arren aztu zedilla egin zan gaiztakeriarekin. Denbora artan Judas txit sendoak erregutuzen zion erriari, arren bekaturikan egin gabe iraun zezala, ikusirik beren begien aurrean bekatuakgatik illak izan ziradenakin gertatu zana.

43. Eta bildurik amabi milla drakma zillarrezko, egiteko agindu zuen kotizpuru batean, Jerusalenera bialdu zituen, eskeñi zedin sakrifizio bat il ziraden oien bekatuakgatik, idukirik, zeuzkan bezela, gogorazio onak eta errelijioaren erakoak, biztutze berriaren gañean.

44. (Zeren illak izan ziradenak berriz biztuko ziradela itxedon ez balu, gauza alper, eta utsa balio duentzat idukiko zuen, illakgatik erregututzea);

45. Eta gogoan zerabillalako, bizitza on batean il ziradenentzat, urrikaltasun andi bat gordea zegoala.

46. Gogorazio santu, eta osasuntsu bat da, bada, illakgatik erregututzea, bekatuetatik askatuak izan ditezen.

AMAIRUGARREN KAPITULUA

1. Eun eta berrogeita bederatzigarren urtean, jakin zuen Judasek, Antioko Eupator ejerzitu andi batekin Judearen kontra zetorrela,

2. Lisias, erreñuaren zaitzalle eta zuzentzallea lagun zuela, eta berarekin zekarzkiala eun eta amar milla gizon oñazko, eta bost milla zaldizko, eta ogeita bi elefante, eta irureun gurdi igitaiz armatuak.

3. Nastu ere zan berakin Menelao, eta asmazio andiakin saiatzen zan Antioko biguntzen; ez erriaren ongi izatea maitatzen zuelako, baizik itxedotzen zuelako, Prinzipadutzan jarria izatea.

4. Baña erregeen Erregeak Antiokoren biotza gizon gaizto aren kontra mugitu zuen; eta esanik Lisiasek, gaitz guztiak huragatik zetozela, agindu zuen eldu zaiotela, eta bizia kendu zaiotela toki artan beratan, beren oituren araura.

5. Bazengoan bada toki artan dorre bat, alturan berrogeita amar beso zeuzkana, auts montoi andi batez aldamen guztietatik ingurutua. Andikan amiltoki bat baizik etzan ikusten

6. Eta agindu zuen, dorretik aurtikia izan zedilla autsean sakrilego hura, guztiak bultzaka eriotzara eramaten zutela.

7. Onela bada, il bear zan Menelao legeauslea, bere gorputz illari obirik ematen etzitzaiola.

8. Eta egiaz, justizia andiarekin; zeren eginik berak anbeste gaiztakeria Jaungoikoaren aldarearen kontra, zeñaen sua eta autsak, santuak bezela diraden, ongi kondenatua izan zan autsarekin itota iltzera.

9. Erregea ordea, txit aserretuta zijoan aurrera, bere aita baño ere gogorragoa Juduakin izateko gogoarekin.

10. Idukirik bada Judasek onen berria, agindu zion erriari, ots egin zaiola Jaunari gauaz eta egunaz, denbora artan lagundu zizaien, beti egin zuen bezela.

11. Zeren beldur ziran beren lege gabe, beren erri gabe, eta beren tenplo gabe geldituko ziradela; eta utzi ez zezan, bere erri autu, piska bat lenago, anbestean asnasa artzen asi zana, ikusi zedilla berriz ere, bere izen santuagatik gaizki esaten dutenen erreñuak daukatela menderatua.

12. Egiten zutela bada guztiak batean Judasek agindu zuena, negar malko, eta barauakin Jaunaren errukia eskatzen zutela, auzpezturik lurrean iru egun osoetan, esan zien Judasek prestatuak egon zitezela.

13. Gero berak, zarren baimenarekin, erabaki zuen gudara irtetzea, Antioko erregea bere ejerzituarekin Judean sartu zedin, eta erria arrapatu zezan baño lenago, eta gauza onetan ongi edo gaizki irtetzea Jaunaren eskuetan utzitzea.

14. Jarririk bada osotoro Jaungoikoaren, munduaren Egillearen eskuetan, eta esanik tropai, gizonak bezela, eta bizia galdu arteraño gudan ari zitezela, zaitzen zituztela beren legeak, beren tenploa, eta beren erria, beren lurra, eta beren erritarrak, Modingo inguruetan ejerzituari etzauntzak artu erazi ziozkan.

15. Eman zien gero berai siñaletzat, Jaungoikoaren garaipena, eta arturik gero berarekin bere tropetako mutillik errutsuenak, gauaz eraso zion erregea zegoan tokiari, eta il zituen bere etzauntzean lau milla gizon, eta elefanterik nagusiena, gañean zeraman jende guziarekin.

16. Eta onekin izu eta naste andi batez etsaien kanpoa betetzen zuela, gauza ongi irtenda, andikan alde egin zuten.

17. Gertatu ziraden oiek, egunsentian, Jaunak bere laguntasunarekin Makabeoa zaitzen zuela.

18. Erregeak berriz, ikusirik Juduen asierako ausartasuna, nai zituen arrapatu arteakin, ongien murrutuak zeuden tokiak,

19. Eta alderatu zan bere ejerzituarekin Betsurara, zeñ zan Juduen errietatik ongien murrutua zegoan bat; baña iges erazitzen zioten; milla beaztopo arkitzen zituen; eta jendea galtzen zuen.

20. Bitartean Judasek, setiatuta zeudenai bear zuten guztia bialtzen zien.

21. Onetan Rodoko izena zuen bat zan Juduen ejerzituan etsaien zelataria, baña ezagutua izanik, eldu zioten, eta itxi batean jarri zuten.

22. Orduan erregeak Betsurakoakin berriz itz egin zuen, pakeak egin zituen, setiatzalleen elkartasuna ontzat eman zuen, eta joan zan.

23. Baña lenago Judasekin gudatu zan, eta garaitua izan zan.

24. Eta Makabeoak laztandu zuen, eta egin zuen Ptolemaidako alderri guztiko Gobernari, eta Prinzipea, Jerrenoetaraño.

25. Antioko Ptolemaidara allegatu zanean, bereala ezagutu erazi zuten an bizi ziradenak, etzala beren gogokoa Juduakin egindako elkartasun, eta adiskidetasuna, baizik aier ziela, aserretuta, elkartasuna urratu etzezaten beldurrez.

26. Orduan Lisias tribunara igo zan; adirazi zituen elkartasuna egiteko zeuden arrazoiak, erria pakean jarri zuen, eta gero Antiokiara itzuli zan. Eta erregearen joaerak, eta itzulierak iduki zuten bukaera, onelakoa izan zan.

AMALAUGARREN KAPITULUA

1. Baña andikan iru urtera, Judasek eta bere jendeak ezagutu zuten, Demetrio, Seleukoren semeak, allegaturik ontzi askorekin eta ejerzitu andi batekin Tripoliko portura, tokirik egokienetara igo zala,

2. Eta arrapatu zituela alderri batzuek, Antiokoren eta bere agintari nagusi Lisiasen damuz.

3. Bitartean Alzimo izena zuen bat, zeñ apaiz nagusi izan zan, eta borondatez kutsutu zana nasteko denboretan, gogoan erabillirik bere artean gauza onik beretzat etzegoala, eta beñere aldarera ezin alderatuko zala,

4. Etorri zan Demetrio erregeagana, eun eta berrogeita amargarren urtean, urrezko koroe bat, eta palma bat eskeñtzen ziozkala, eta gañera erramu batzuek, zeñak tenplokoak ziradela zirudian, eta orduan ezerere etzion esan.

5. Baña iritxirik era on bat bere asmazio eroa egiztatzeko, Demetriok bere batzarrera ots egin ziolako, eta galdetua izanik, nolako gauza, eta konsejuakin Juduak baliatzen ziraden,

6. Onela erantzun zuen: Asideoak izena duten juduak, zeñaen gialaria Judas Makabeo dan, dira gerra nai dutenak, eta matxiñadak mugitzen dituztenak, eta ez diote utzitzen erreñuari pakean egoten.

7. Eta ni nerau, kendu zidatelako nere familiara herenziaz datorkion diñadea (esan nai det, apaiz nagusitza) onara etorri nintzan,

8. Lenengo erregearen serbitzoari leiala izateagatik, eta bigarren nere erritarren ongi izateari begiratzeagatik; bada, gizon aien gaiztakeriagatik gure erreñuak ezbear andiak iragotzen ditu.

9. Ala bada, erregututzen dizut, o erregea, gauza guzi oiek egiak diradela ongi jakinda, gure lur eta erreñuagatik begiratu dezazula, zure ontasun, guziak ezagutzen dutenaren araura.

10. Zeren Judas bizi dan artean, ez diteke an pakerik egon.

11. Onelako gauzak bada berak esanik, adiskide guziak ere sutu zuten Demetrio Judasen kontra, zeñaren etsai agiriak ziraden.

12. Eta ala, bereala bialdu zuen erregeak Judeara agintari nagusitzat Nikanor, elefanteen agintaria,

13. Agintzen ziola, Judas bizirik arrapatu zezala, berarekin zeudenak berriz, barreiatu zitzala, eta jarri zezala Alzimo tenplo andiko apaiz nagusitzan.

14. Orduan Judasen beldurrez Judeatik iges egin zuten jentillak, taldeetan etorri ziran Nikanorrekin biltzera, juduen gaitz eta atsekabeai, beren ongi izateari bezela begiratzen ziela.

15. Juduak jakin zutenean Nikanor allegatu zala, eta jentillak berarekin bildu ziradela, beren buruen gañean autsa zabaltzen zutela, zuzendu ziozkaten eskariak arako Jaun, bere erri bat egin zuenari, beti iraun erazitzeko, eta bere herenzia au mirari ziertoakin zaitu zuenari.

16. Eta agintariaren aginduz, bereala andik joan ziraden, eta Dessauko gazteluaren aldera etzauntzak jartzera allegatu ziran.

17. Simon Judasen anaia berriz, Nikanorrekin gudatu zan; baña izuz bete zan, beste etsai batzuek batbatean, eta supituan allegatu ziradenean.

18. Alaere ezaguturik Nikanorrek Judasen tropen sendotasuna, eta nolako gogo biziarekin gudatzen ziran beren erriaren alde, odolarekin juizioa egiten beldur zan.

19. Argatik aurretik bialdu zituen Posidonio, Teodosio, eta Matias, berak eman zizaiezten eskuieak, eta berai artu ere bai.

20. Eta nola gauza onen gañeko batzarrak denbora luzean iraun zuten, agintariak berak adirazirik erriari, guztiak ao batez pakeak egiteko iritzikoak izan ziraden.

21. Ala bada, egun bat izendatu zuten, zeñean ixillean beren artean itz egingo zuten; eta onetarako beretatik bakoitzarentzat silla bat eraman, eta ipiñi zan.

22. Alaere, Judasek agindu zuen soldadu batzuek armakin jarri zitezela toki egoki batzuetan, etsaiak gaitzen bat egiteko asmazioak artu etzitzaten, eta izketa, bear dan moduan egin zuten.

23. Eta Nikanor bizi zan Jerusalenen, eta gaitzikan batere etzuen egiten, eta berari bildu zitzaion jendetza zatar taldea, bialdu zuen.

24. Eta Judas maitatzen zuen beti, amorio garbi batekin, eta zan berari itsatia.

25. Erregetu zion ezkondu zedilla, eta pensatu zezala semeak idukitzean. Eta ala ezkondu zan; bizi zan atsedenez, eta biak adiskidetasunean tratatzen zuten.

26. Ikusirik berriz Alzimok, beren artean zeukaten adiskidetasun eta artuemana, joan zan Demetrio ikustera, eta esan zion, Nikanorrek besteen gauzakgatik begiratzen zuela eta bere lekuan eseritzeko begiak ezarrita zeuzkala Judasegan, zeñ erreñuaren kontra azeloan zegoan.

27. Aserreturik eta sumindurik erregea ezingeiagoan gizon gaizto onen gezurrezko asmazioakin, eskribitu zion Nikanorri, esaten ziola, txit gaizki zeramala Makabeoarekin artua zeukan adiskidetasuna; eta agintzen ziola, berealaxe lotuta Antiokiara bialdu zaiola.

28. Oiek ezaguturik, Nikanor izutua gelditu zan, eta txit damu andia ematen zion gizon arekin egindako elkartasunak ausitzea, beragandik gaitzik batere artu gabetanik.

29. Baña nola etzitzaiokean utzi erregeari obeditu gabe, era on baten billan zebillan, artu zuen agindua kunplitzeko.

30. Bitartean Makabeoak, ikusirik Nikanorrek laztasunarekin tratatzen zuela, eta, oi zuten bezela ikusten zuenean arpegi illun eta urgullutsua erakusten ziola, gogoan jarri zitzaion garraztasun hura gauza onetatik etzitzatekeala etorri, eta gutxi batzuek biltzen zituela, Nikanorgandik ezkutatu zan.

31. Ezagutu zuenean onek, Judasek iduki zuela bere asmazioak igarri, eta adiuntzaz iges egiteko trebetasuna, joan zan tenplo nagusi eta txit santura, apaizak, oi zituzten sakrifizioak eskeñtzen zeudela, eta agindu zien, Makabeoa bere eskuetan jarri zaiotela.

32. Baña nola berak esaten zioten juramentuarekin, etziekitela non zegoan berak billatzen zuena, Nikanorrek tenploaren kontra eskua jaso zuen,

33. Eta juramentu egin zuen, esaten zuela: Judas lotuta nere eskuetan jartzen ez badidazute, Jaungoikoaren tenplo au arrasatuko det, aldare au beera aurtikiko det, eta tenplo bat emen Jaungoiko, eta aita Bakori konsagratuko diot.

34. Eta oiek esanik, joan zan. Apaizak orduan, beren eskuak zerurontz jasorik, ots egiten zioten arako Jaun, beti izan zanari, bere erreñuaren laguntzallea, eta onela orazio egiten zuten:

35. Mundu guztiko Jauna, zuk ezeren premiarik ez daukazun orrek, nai izan zenduen gure artean tenplo bat, zu an biziteko iduki.

36. Iduki ezazu bada, o santuen santua, eta gauza guztien Jauna, iduki ezazu orain eta beti kutsutua izan gabe etxe au, zeñ denbora gutxi dala garbitua izan dan.

37. Denbora onetan salatua izan zitzaion Nikanorri, Jerusalengo zarretatik bat, Razias izena zuena; gizon bat, erriaren maitatzallea, eta txit ontzat guziak zeukatena, zeñi Juduen aitaren izena ematen zitzaion, guziai begiratzen zielako gura onarekin.

38. Onek bada, leengo denbora andietatik, egiten zuen bizitza txit on bat Juduen errelijioan; prestatua zegoala bere bizia ere ematera, legea gordetzen irautzeagatik.

39. Nikanorrek bada, agertu nairik Juduen kontra zeukan gorrotoa, bialdu zituen bost eun soladadu au arrapatu zezaten.

40. Zeren uste zuen, gizon au engañatzea iritxitzen bazuen, gaitz txit andi bat Juduai egingo ziela.

41. Baña soldaduak etxean sartzeko alegiñak egiten zituzten denboran, autsirik atea, eta su emanik, bera arrapatzeko zorian zeudela, bere ezpatarekin zauritu zan;

42. Naiago zuela odolgarbiko baten gisara iltzea, bere jaiotzako batentzat duingabeak diraden irriak sufritzea baño.

43. Baña nola urduri ibilli zalako, zauria etzan bizia kentzekoa, eta nola soldaduak etxean nastuta sartu ziran, joan zan korrika alaikiro murrura, eta jendeen gañera sendotasunik arrigarrienarekin aurtiki zan.

44. Jendeak berriz, nola bereala alde egin zuen, beren gañera erori etzitzaien, buruarekin lurra jotzera etorri zan.

45. Baña nola oraindikan asnasa bazeukan, alaide berri bat eginik, berriz zutik jarri zan, eta odola jario andian irtetzen bazitzaion, eta zauri txit andiak bazeuzkan ere, korrikada batean jendearen artetik irago zan,

46. Eta aitz goratu baten gañera igotzen zala, eta onezkero odolusturik zegoala, eldu zien esku biakin bere erraiai, eta jendetzaren gañera aurtiki zituen, bere Jaun, animaren eta bizitzaren jabeari ots egien ziola, egunen batean berriz berari eman zitzazkiola, eta onela il zan.

AMABOSGARREN KAPITULUA

1. Nikanorrek berriz, jakin zuenean Judas zegoala Samariako lurrean, erabaki zuen, bere indar guztiakin berari erasotzea larunbateko egun batean.

2. Eta nola premiaz jarraitzen zioten juduak esan zioten: Ez ezazu egin ori bezelako gauza gaizto eta biurri bat; baizik egun onetako santutasuna onratu ezazu, eta gauza guztiak ikusten dituen Jaunari lotsaz begiratu zaiozu.

3. Doakabe hurak galdetu zien, ote zegoan zeruan, guzia dezakean Jaungoikoren bat, larunbata zelebratzeko agindu duenik.

4. Eta erantzunik berak: Bai, zeruan dagoan Jaungoiko bizi eta almentsua da, zazpigarren eguna zaitzeko agindu zuena.

5. Bada ni, erantzun zien berak, naiz almentsua lurraren gañean, eta agintzen det, artu ditezela armak, eta agintzen det, erregearen aginteak kunplitu ditezela. Baña alaere Nikanorrek, berak nai zuena ezin iritxi izan zuen.

6. Eta Nikanorrek bere urgulleriarik andienarekin ideatua zeukan, jasotzea oroipengarri bat, Judas eta bere jendea deseginak izan ziradela adirazteko.

7. Makabeoak berriz, beti zeukan itxedopen sendo bat, Jaungoikoagandik laguntasuna etorriko zitzaiola.

8. Eta esaten zien bereai, etzetzatela erreñuen etorreraren beldurrikan iduki, baizik gogora ekarri zezatela, beste denbora batzuetan zerutik artu zuten laguntasuna, eta orain ere itxedon zezatela, Jaungoiko guzia dezakeanak, garaipena emango ziela.

9. Eta itz egin zien legearen eta profeten gañean, eta oroitzen ere zieztela, len berak nolako gudak iduki zituzten, alaituago egin zituen.

10. Suturik onela beren gogoak, ipintzen ere zien begien aurrean erreñu aien gaiztakeria, eta nola juramentuak autsitzen zituzten.

11. Eta beretatik bakoitza armatu zuen, ez anbeste ezkutua eta lantza emanarekin, nola izketa eta erregu miragarriakin, eta kontatzen ziela, ametsetan iduki zuen ikusketa, fedea emateko txit diña zan bat, zeñak guztiak bozkarioz bete zituen.

12. Au zan iduki zuen ikusketa: iruditu zitzaion ikusten zegoala Onias, apaiz nagusia, zeñ izan zan gizon bat ontasunez eta gozotasunez betea, irudi beneragarrikoa, bere oituretan modu onekoa, eta izketa ederrekoa, eta aur denboratik bertuteko lanetan ari zana, zeñak eskuak goira jasotzen zituela, Judeako erri guziagatik erregututzen zuen.

13. Gero agertu zitzaiola beste gizon bat, beneragarria bere edade andiagatik, gloriaz betea, eta aldamen guzietatik anditasunez ingurutua.

14. Eta Oniasek, berari itza zuzendurik, esan ziola: Au da bere anaien, eta Israelko erriaren maitatzalle egiazkoa. Au da Jeremias, Jaun-

goikoaren profeta, zeñak erriagatik, eta iri santu guztiagatik aspertu gabe erregututzen duen.

15. Gero, andikan laster Jeremiasek ezkua luzatu zuela, eta Judasi urrezko ezpata bat eman ziola, esaten ziola:

16. Artu ezazu ezpata santu au, Jaungoikoaren doañ bat bezela, zeñarekin Israel nere erriaren etsaiak desegingo dituzun.

17. Alaiturik bada guztiak Judasen itz oiekin, zeñak ziraden eragilleenak sendotasuna biztutzeko, eta gazteeriari asnasa berria emateko, erabaki zuten erasotzea etsaiai, eta berakin txit gogotikan gudatzea, alako moduan, non, beren indar eta alegiñak erabaki zezatela, garaipena zeñaena izango zan, zeren ala tenploa, nola erri santua irriskuan zeuden.

18. Eta egiaz ajola gutxiago zeukaten beren emazteakgatik, beren semeakgatik, beren anaiakgatik, eta beren aideakgatik, tenploaren santutasunagatik baño, zeren tenploa zan beldurrik andiena, eta nagusiena ematen ziotena.

19. Egiaz erriaren barrenen zeudenak, beldur andiarekin arkitzen ziran, gudan sartzera zijoazenakin zer izango ote zan.

20. Eta guztiak zeudenean zai, zeñaena izango ote zan gudako garaipena, etsaiak begien aurrean zeudenean, ejerzitua gudarako prestatua, eta elefanteak eta zaldidia toki egokietan jarriak:

21. Bere artean gogoan zerabiltzkiala Makabeoak, beren gañera erortzera zetorren gizon taldea, eta asko eratako armen ospea, eta elefanteen sumintasuna, eskuak zerura jaso zituen, mirariak egien dituen Jaunari ots egiten ziola; arako Jaunari, garaipena ematen dienari, ez ejerzituen indarraren araura, baizik bere borondatearen araura, diña diradenai.

22. Eta onela itz egin zion: O Jauna! Zuk Ezekias Judako erregearen erregetzan, zure aingeruetatik bat bialdu zenduenak, eta eun eta larogeita bost milla gizon Senakeriben ejerzitukoai bizia kendu ziñienak,

23. Orain ere, o zeruetako agintaria, bialdu ezazu zure aingeru ona, gure aurretik joan dedin, eta zure beso ikaragarri, eta arrigarriaren indarra ezagutu erazi dezala;

24. Izuz beteak gelditu ditezen, zure izenagatik blasfemiak esaten ari diradela, zure erri santuaren kontra datoztenak. Bere orazioa ala bukatu zuen.

25. Bitartean bazetorren Nikanor, tronpeten eta kanten otsera bere ejerzitua zijoala.

26. Baña Judasek eta bere jendeak, ots egiñik Jaungoikoari beren orazioen bitartez, etsaiari eraso zien;

27. Eta erregututzen ziotela Jaunari beren biotzen barrenen, beren etsaien gañera, ezpatak eskuetan zituztela aurtikitzen ziradenean, ogeita amabost milla, ez gutxiago, il zituzten, Jaungoikoa aurrean zeukatelako, txit alaituak arkitzen ziradela.

28. Bukaturik guda, bozkarioz beteak itzultzen ziraden denboran, jakin zuten, Nikanor bere armakin illik lurean etzinda zetzala.

29. Argatik asitzen ziradela bereala deadar eta ots andiak egiten, beren jaioterriko izkuntzan, Jaun guzia dezakeana bedeikatzen zuten.

30. Judasek ordea, zeñ beti zegoan prestatua bere erritarrakgatik iltzeko, edo emateko bere gorputza eta bizitza, agindu zuen, zitzaiozkala Nikanorri burua eta beso bata: sorbaldarekin batean, eta Jerusalenera eraman zitezela.

31. Erri onetara bera allegatu zanean, bereala bildu zituen aldarearen aldean bere erritarrak, eta apaizak, eta gaztelukoai ere ots eginerazi zien.

32. Eta erakutsirik berai Nikanorren burua, eta arako esku gorrotogarri, alako urgullu eta lotsagabekeriarekin, Jaungoiko guzia dezakeanaren bizilekuaren kontra jaso zuena,

33. Agindu zuen gero, gizon gaizto onen mingaña zati txikietan ebakia izan zedilla, eta aurtikia gero egaztien bazka izateko; eta zentzugabe aren eskua tenploaren aurkez zinzilika jarri zedilla.

34. Onenbesterekin guziak zeruko Jauna bedeikatu zuten, esaten zutela: Bedeikatua izan dedilla, bere toki santua kutsutua izan gabe gorde duena.

35. Orobat Nikanorren burua gazteluaren tokirik goratuenean esekierazi zuen, Jaungoikoaren laguntasunaren siñale ikusi zitekean, eta agiri bat izan zedin.

36. Atzenean guziak batean erabaki zuten, beñere etzedilla irago egun au, beratan berarizko jostaketak egin gabe;

37. Eta erabaki zan, jai andi au zelebratu zedilla, Siriako izkuntzan Adar izena duen illaren amairugarren egunean, Mardokeoren jai eguna baño aurreragokoan.

38. Eginik bada gauza oiek Nikanorren gañean, eta egun artatikan Hebreotarrak erriaren jabe ziradela gelditurik, nik ere oiekin, itz egiteari bukaera emango diot.

39. Bera ongi irten bada, eta berrietako liburu bati dagokion bezela ori da ziertoro nik ere nai nuena; baña baldin, kontrara, gaiaren diña ez dan moduan eskribitua badago, egin dedan utsa eni barkatu bear zat.

40. Zeren, nola gauza kaltegarria dan beti ura, edo beti ardoa edatea; eta bein bata eta bein bestea edatea berriz, atsedengarria, ala irakurtzen

dutenentzat ere libururen bat, baldin izketa beti bada apaindua, ez da beren gogokoa izango. Eta onenbesterekin bukaera ematen diot.

MAKABEOEN BIGARREN LIBURUAREN, ETA ANZIÑAKO TESTAMENTUAREN BUKAERA